

Jakintza-arloa: Bertsolaritza

**Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita:  
bi bertsolari belaunaldi  
ahozkotasunaren harian**

Egilea: **ASIER BARANDIARAN AMARIKA**

Urtea: 2002

Zuzendaria: JON KORTAZAR URIARTE

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-115-0

## Hitzaurrea

Tesia burutu nuenetik gaur egunera neurri handi batean bertsolaritzaren ahozkoasuna eta alderdi erretoriko zenbait aztertzen jarraitu dut. Horren lekuko hona hemen argitalpen batzuk:

— “Kepa Enbeita eta Balendin Enbeita: euren bertsogintzaren iturriak” in *Euskonws & Media* (Interneteko aldizkaria): <http://www.euskonews.com/0246zkb./gaia24603eu.html>

— “Transmisión de culturas minoritarias en Europa: un ejemplo” in *Actas del VII Congreso de “Cultura Europea”*. Thomsom & Aranzadi, Pamplona-Iruñea, 2005, 293-318.

— “Bertsolaritza Estatu Batuetan” in *EGAN*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Donostia, 2006- 1/2, 49-91.

— “Amerikako Estatu Batuetako lau bertsolarien bertsogintza (II)” in *EGAN*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Donostia, 2006- 3/4, 129-146.

— “Argumentación en los poetas orales vascos de principios del siglo XX y la influencia de los escritores en sus producciones orales” in *Actas del V Congreso Andaluz de Lingüística General. Homenaje al profesor José Andrés de Molina Redondo*. Granada Lingüística, Serie Collectae, Granada, 2006, Vol. I, 75-90.

Hala ere, pixkanaka-pixkanaka ahozkoak ez diren bestelako genero batzuk aztertzeari ekin diot azkenaldiotan. Ondorengo argitalpenak horren lekuko batzuk dira:

— “Literatura navarra en euskera y el discurso sobre la muga” in *Navarra: memoria e imagen. Actas del VI Congreso de Historia de Navarra*. Ediciones Eunete & Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, Pamplona, 2006, Vol. II, pp. 185-198.

— “Manezaundiren euskarazko artikuluak tipologikoki sailkatu nahian” in BARANDIARAN, Asier (ed.): *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*. Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letretako argitalpen zerbitzua, Iruñea, 2007, 15-36 (MOLDIZTEGIAN).

Nire egungo ikerketa ildo berbaldiaren analisisa da. Nagoen departamenduan (Lingüística hispánica y lenguas modernas) Zehazki, honakoa da onartutako izenburua: “Diskurtsoaren analisisa. Testuaren linguistika. Testuaren gramatika. UNESCO erakundeak 5704 kodea ezarri dio.

Honen barruan nire zeregina hauxe da: idazle nafarrek euskaraz produzitu dutenaren azterketa egitea, batez ere ikuspuntu erretorikoa kontuan hartuz. Eskuartean baditut zenbait azterketa burutzeko bidean.

Asier Barandiaran AmariKa

[abar@unav.es](mailto:abar@unav.es)

## Aurkibidea

<b>LABURDURAK</b>	<b>10</b>
<b>0. SARRERA</b>	<b>13</b>
1. Abiapuntua	13
1.1. Zergatik Enbeitatarrak	16
1.2. Azterketa: zein metodoa erabili?	22
2. Azterketaren alderdi desberdinak	26
2.1. Doinua	28
2.2. "Errima"	28
2.3. Neurria	29
2.4. Azken puntua	29
2.5. Bertso-sortak	30
2.6. Estilistika	31
2.7. Ideologia	31
3. Berriro ere abiapuntua	32
<b><u>1. ATALA: KEPA ENBEITA (1878-1942)</u></b>	<b>33</b>
<b>1. KAPITULUA: HOSKIDETZA</b>	<b>35</b>
0. Sarrera	36
1. Hoskidetza ereduak	41
1.1. -IA(K)	42
1.2. -NA(k)	46
1.3. -RA	52
1.4. -TSA(k)	54
1.5. -IAN	57
1.6. -TAN	59
1.7. -(R)IK	60
1.8. -OA (K) / -UA(K)	61
2. Ondorioak	62
<b>2. KAPITULUA: AZKEN PUNTUA</b>	<b>65</b>
0. Sarrera	66
1. Azken puntuaren ereduak	68
1.1. <u>Agindua - helburua</u> binomioa: "Inteligentzia argituz borondateari eragin"	68
1.1.2. Arrazionalismo joera	69
1.2. Sententzia eta erabatekotasun kutsua	74
1.2.1. Baieztapena	74
1.2.1.1. <i>Izan</i>	75
1.2.1.2. Aurreikuspena	76
1.2.1.3. Kontrajarpena	77

1.2.2. Ukapena	79
1.2.2.1. Mezu edota ideia baten mugak adierazteko	79
1.2.2.2. Zerbait txarra salatzekeo	79
1.2.2.3. “Mehatxu” kutsuko ondorioa	80
1.2.2.4. Ukapenaren bidez zer edo zer baieztatu: litotes	80
1.2.2.5. Galdera erretorikoa ezezkoan: kontzientzia esnatzeko	81
1.3. (Baldintza + ) ondorioa: epifonema	82
1.3.1. <u>Baldintza-ondorioa</u> binomioa	82
1.3.1.1. Hirugarren pertsona	83
1.3.1.2. Apelazioa	83
1.3.2. Ondorioa, epifonema izaeraduna	84
1.4. Galderak	85
1.4.1. Galdera eta benetako mezua	85
1.4.2. Galdera eta ahozko estiloa	86
2. Ondorioak	88

### **3. KAPITULUA: AHAPALDIA 89**

0. Sarrera	90
1. Lehenengo eredia	93
1.1. Aberkoiak	94
1.2. Erlijiozkoak	97
1.3. Goraipamenezkoak	98
1.4. Ipuin eta abar	100
1.5. <i>Gomutakizunak</i>	102
1.6. Naturazkoak	104
1.7. Satirikoak (alaitsuak edo bromazkoak)	106
2. Bigarren eredia	109
2.1. Aberkoiak	109
2.2. Erlijiozkoak	110
2.3. Goraipamenezkoak	112
2.4. Ipuin eta abar	113
2.5. <i>Gomutakizunak</i>	114
2.6. Naturazkoak	115
2.7. Satirikoak	116
3. Hirugarren eredia	118
3.1. Aberkoiak	118
3.2. Erlijiozkoak	119
3.3. Goraipamenezkoak	121
3.4. Ipuin eta abar	122
3.5. <i>Gomutakizunak</i>	123
3.6. Naturazkoak	125
3.7. Satirikoak	126
4. Laugarren eredia	126
4.1. Aberkoiak	127
4.2. Erlijiozkoak	128

4.3. Goraipamenezkoak	129
4.4. Ipuin eta abar	130
4.5. <i>Gomutakizunak</i>	130
4.6. Naturazkoak	130
4.7. Satirikoak	131
5. Koplak	131
5.1. Kopla txikiak	134
5.2. Kopla nagusiak	135
5.3. Egitura motak	136
5.3.1. Baldintza - ondorioa (ondorioa - baldintza)	136
5.3.2. Baieztapena - baieztapena zehaztu	136
5.3.3. <u>Agindua - helburua</u> (edo helburua - agindua) binomioa	137
5.3.4. Agindua	137
5.3.4.1. Agindua - agindua	137
5.3.4.2. Agindua - agindua zehaztu	138
5.3.5. Galdera - erantzuna	138
5.3.6. Aurreko koplaren araberakoa: jarraipen koplak	139
6. Hamarrekoak	139
6.1. 2-1-2 egitura	140
6.2. 3-2 egitura	141
6.3. 2-2-1 eta 1-3-1 egiturak	143
7. Zazpi puntukoak (“Joana Bixenta Olabe” izeneko egitura dutenak)	144
8. Neurri luzeagoak: salbuespenak	148
9. Ondorioak	150

#### **4. KAPITULUA: BERTSO-SORTAK 153**

0. Sarrera	154
1. <i>Aberkoyak</i>	156
1.1. Bertso-sorta luzeak	156
1.2. Bertso-sorta laburragoak	170
1.2.1. Egitura ondorioztatzailea (konklusiboa): bukaera esplizitua	171
1.2.2. Egitura zirkularra	173
2. <i>Uzkurtzakuak</i>	175
2.1. Bertso-sorta luzeak	175
2.2. Bertso-sorta laburragoak	182
3. <i>Goralpenezkuak</i>	186
3.1. Bertso-sorta luzeak	186
3.2. Bertso-sorta laburragoak	188
4. Ipuin eta abar	191
4.1. Bertso-sorta luzeak	191
4.2. Bertso-sorta laburragoak	192
5. <i>Gomutakizunak</i>	193
5.1. Bertso-sorta luzeak	193
5.2. Bertso-sorta laburragoak	196

6. Naturazkoak	198
7. Satirikoak	199
7.1. “Karabiñeruen bizimodua”	199
7.2. “Sakristauen egikerak”	200
8. Ondorioak	201
<b>5. KAPITULUA: ESTILISTIKA</b>	<b>203</b>
0. Sarrera	204
1. Ahoskatze irudiak	208
1.1. Hitzen eransketa	209
1.1.1. Epitetoak	209
1.2. Hitzen elipsia	215
1.2.1. Elipsia	215
1.2.1.1. Izenen elipsiak	215
1.2.1.2. Aditzen elipsiak	217
1.2.1.2.1. Aditz perifrastikoen elipsiak	217
1.2.1.2.2. Aditz laguntzaileen elipsiak	217
1.2.1.2.3. Adizkien elipsiak	217
1.3. Hitzen errepikapena	218
1.4. Hitzen konbinazioa	220
1.4.1. Aliterazioa eta onomatopeia	220
2. Pentsamendu irudiak	221
2.1. Irudi deskriptiboak eta anlifikazio irudiak	221
2.1.1. Zenbakitzea	221
2.1.1.1. Alborakuntzan egindako zenbakitzeak	222
2.1.1.2. Bikote antinomikoekin egindako zenbakitzeak	223
2.1.2. Pilaketa	228
2.2. Irudi patetikoak edo apelazio irudia	230
2.2.1. Galdera erretorikoak	230
2.2.2. Deiadarrak edo harridurazko perpausak	232
2.2.3. Apostrofea	234
2.2.3.1. Eskaera (agindua) edo (aurreragoko gradu baten) erregua	235
2.2.3.1.1. Entzuleari	235
2.2.3.1.2. Beste norbaiti	235
2.2.3.2. Goraipamenen bidez	236
2.2.3.2.1. Entzuleari	236
2.2.3.2.2. Beste norbaiti	236
2.2.3.3. Bokatiboa erabiliz	237
2.2.3.3.1. Entzuleari zuzendua	237
2.2.3.3.2. Beste norbaiti	237
2.2.4. Pertsonifikazioa	238
2.3. Irudi logikoak	241
2.3.1. Sententzia	241
2.3.2. Konparazioa	242

2.3.2.1. Konparazio simetrikoak	242
2.3.2.2. Konparazio laburrak	243
2.3.2.3. Termino errealak laburra eta irudimenezkoa ondo zehaztua	243
2.3.2.4. Konparazio laburtuak	244
2.3.3. Kontrajarpena edo antitesia	245
2.3.4. Klimax eta mailaketa	249
2.3.4.1. Sortetan	249
2.3.4.2. Ahapaldietan	250
2.4. Asmo irudiak eta zeharkako irudiak	253
2.4.1. Ironia eta sarkasmoa	253
2.4.2. Zeharkako aipamena	251
3. Tropoak	258
3.1. Sinekdokea	259
3.2. Metonimia	262
3.3. Metafora	264
3.3.1. Bizidunak	264
3.3.1.1. Hegaztiak	264
3.3.1.2. Landareak eta landare atalak	267
3.3.2. Bizigabeak	270
3.3.2.1. Baserri edo mundu landatarrarekin zerikusia dutenak	270
3.3.2.2. Bestelako gauzak edo tresnak	273
3.3.3. Sinbolora lerratuak	275
3.3.3.1. <i>Arantza</i>	276
3.3.3.2. <i>Lora / lorategija</i>	277
3.3.3.3. <i>Baratza</i>	278
3.3.3.4. <i>Zugatza / Aritza</i>	280
3.3.3.5. <i>Ama Euzkadi / Ama Euzkerea</i>	281
3.4. Alegoria edota parabola	283
3.4.1. Behi zaharra	284
3.4.2. Kaiolaratutako txoria	285
3.4.3. Giza harremana eta txorien arteko harremana	288
3.4.4. Baserritar munduaren alegoria	289
4. Ondorioak	292

## **6. KAPITULUA: IDEOLOGIA 295**

0. Sarrera	296
1. Kepa Enbeita baino lehenagokoak: hurbilpen bat	297
1.1. Manuel Larramendi (1690-1766)	297
1.2. Juan Antonio Mogel (1745-1804)	298
1.3. Jose Maria Iparragirre (1820-1881)	299
1.4. Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)	302
1.5. Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910)	303

2. Abertzaletasuna	308
2.1. <i>Euzkerea</i>	313
2.1.1. Hizkuntza eta arraza	314
2.1.2. Euskara eta garbizalekeria	317
2.1.2.1. Garai “herrikoia” (1904. urtera arte)	318
2.1.2.2. Garai “abertzalea” (1905-1942)	321
2.1.2.2.1. Lexikoa	322
2.1.2.2.2. “Euzkera garbija”	323
2.2. <i>Edesti</i> edo historia zertzeladak	324
3. Sakralizazioa	326
3.1. “Iñaki deuna” eta Sabin	327
3.2. “Josu eta Sabin”	327
3.3. <i>Ziñopea</i>	328
4. Erlijioa	328
4.1. Abertzaletasuna eta erlijioa: elkarrekiko kutsadura	329
4.1.1. Erlijioa eta Euskara-Euzkadi	329
4.1.2. “Bakotxak beria”	331
4.1.3. Euskara eta erlijioa	332
4.2. Erlijioa bera “soilik”	333
5. Ondorioak	339

## **2. ATALA: BALENDIN ENBEITA (1906-1986)** **341**

### **7. KAPITULUA: HOSKIDETZA** **343**

0. Sarrera	344
1. Ereduak	345
1.1. Maiztasunez erabiltzen diren ereduak	345
1.1.1. –IA(K)	346
1.1.2. –U	353
1.1.2.1. –SU: -U ereduaren aldaera	357
1.1.3. –IAN	363
1.1.4. –T(Z)EN	365
1.1.5. –RA	367
1.1.6. –TAN	368
1.1.7. –RI	371
1.1.8. –NA(K)	374
1.1.9. –TSA(K)	376
1.2. Maiztasun ertaineko ereduak	378
1.2.1. –OA(K) / -UA(K)	379
1.2.2. –(R)IK	382
1.2.3. –LA	383
1.2.4. –(tze)KO	385
1.2.5. –TA	386
1.2.6. –AZ	388
1.2.7. –RRA(K)	389



2. Ondorioak	392
<b>8. KAPITULUA: AZKEN PUNTUA</b>	<b>393</b>
0. Sarrera	394
1. Maiztasun handiz agertzen diren azken puntuak	395
1.1. <u>Agindua-helburua</u> binomioa	396
1.2. Ondorioa sententzia zentzuaz	396
1.2.1. Baldintza ondorioa	396
1.2.2. Ondorio sententziosoa	397
1.3. Kontrajarpena edo antitesia	399
1.3.1. Aurkaritza	400
1.3.2. Menpeko perpauk kontzesiboak	400
1.3.3. Bestelako antitesiak	401
1.3.3.1. Ahapaldiko antitesia	401
1.3.3.2. Azken puntuko antitesia	402
1.4. Deskripzioa	403
1.4.1. Egoera zein itxuraren deskripzioa	403
1.4.2. Ekintzaren deskripzioa	404
2. Maiztasun ertainez agertzen diren azken puntuak	406
2.1. Predikzio edo aurreikuspena	406
2.2. Desioa edo nahia adieraziz	407
2.3. Apostrofea	408
2.4. Galdera erretorikoa	409
3. Gutxitan agertzen diren azken puntuak	411
3.1. Deiadarra	411
4. Ondorioak	412
<b>9. KAPITULUA: AHAPALDIA</b>	<b>415</b>
0. Sarrera	416
1. Zortzikoa	416
1.1. Lehenengo eredia	418
1.2. Bigarren eredia	421
1.3. Hirugarren eredia	425
1.3.1. Beste ahapaldi motaren bat	430
1.4. Laugarren eredia	438
2. Zazpi puntuko ahapaldiak	441
3. Sei puntukoak	446
4. Ondorioak	451
<b>10. KAPITULUA: BERTSO-SORTAK</b>	<b>453</b>
0. Sarrera	454
0.1. Hipotesia	454
0.2. Bertso-sorten gaiak	454
1. Ohiturazko bertso-sortak	455

1.1. “Ariatzako Kurutz Deunaren jaiak”	455
1.2. “Zesterua”	457
1.3. “Neure baserriko bizitza”	459
2. Natura gaitzat duten sortak	461
2.1. “Eguzki, argi laguntzallia”	461
2.2. “Txepetxa”	462
2.3. “Edurra eta zozoaren autua txepetxak erabagi”	463
2.4. “Kukua eta txindorraren autua txepetxak erabagi”	465
3. Euskarari buruzko sortak	468
3.1. “Modan balego, zorioneko litzake euskera”	468
3.2. “Ama Euskera”	470
4. Sorta erlijiosoak	472
4.1. “Sortzez garbiko Amari”	472
4.2. “Adan eta Eba sagarra jan da gero”	473
4.3. “Alperra eta fina”	474
5. Gertaerei buruzko sortak	475
5.1. “Arratia’ko basurdia”	475
5.2. “<<Atxeli>> mendiko kurutzea”	477
6. Maitasunari buruzko sortak	478
6.1. “Maitasun garbia”	479
6.2. “Senar-emaztiak autuan”	480
6.3. “Maite mindua”	481
6.4. “Maitasuna zer da?”	482
7. Omenaldi bertso-sortak	483
7.1. Omenaldi bertsoak	483
7.1.1. “Uztapide txapeldun”	484
7.1.2. “Amari biotzez”	485
7.2. Agurketa edo ongi etorrietarakoak	486
7.2.1. “Goiz Argi ongi etorri”	486
7.2.2. “Muxika’tik Ipar-Amerikara”	487
7.3. Hileta bertsoak	488
7.3.1. “Agur Mirentxu”	488
7.3.2. “Bertsolari baten eriotza”	489
8. Ondorioak	491

## **11. KAPITULUA: ESTILISTIKA**

0. Sarrera	493
1. Ahoskatze irudiak	494
1.1. Hitzen pilaketaz sortutako irudiak	495
1.1.1. Epitetoa	495
1.2. Hitzen elisioa	498
1.2.1. Elipsia	498
1.2.2. Asindetona	502
1.3. Hitzen errepikapena	503
1.3.1. Anafora	503
1.3.2. Epifora	505

1.3.3. Aliterazioa eta onomatopeia	505
2. Pentsamendu irudiak	507
2.1. Irudi deskriptiboak	507
2.1.1. Deskripzioa	507
2.1.2. Zerrendatzea	510
2.2. Irudi patetikoak	512
2.2.1. Galdera erretorikoa	512
2.2.2. Deiadarrak	514
2.2.3. Apostrofea	515
2.2.4. Pertsonifikazioa	517
2.2.5. Hiperbolea	520
2.3. Irudi logikoak	523
2.3.1. Sententzia	523
2.3.2. Konparazioa	527
2.3.3. Kontrajarpena edo antitesia	529
2.3.4. Paradoxa	535
2.3.5. Klimax eta mailaketa	537
2.3.5.1. Bertso-sortetan	537
2.3.5.2. Ahapaldi barruan	538
2.4. Zeharkakoak	541
2.4.1. Ironia	541
2.4.2. Zeharkako aipamena edo alusioa	542
2.4.3. Eufemismoa	545
3. Tropoak	548
3.1. Sinekdokea	548
3.2. Metonimia	550
3.3. Metafora	552
3.3.1. Metafora nahastuak	552
3.3.1.1. Txoriak eta bestelako hegaztiak	552
3.3.1.2. Bestelako abereak	555
3.3.1.3. Landareak	556
3.3.1.4. Eguneroko tramankulu, tresna edo bestelako gauzak	561
3.3.1.5. Ama (eta ahozkotasuna)	565
3.3.2. Metafora garbiak	569
3.3.2.1. Txoriak eta bestelako hegaztiak	570
3.3.2.2. Zuhaitzak, landareak eta landare atalak	571
3.3.2.3. Eguneroko tramankulu eta tresnak	575
3.3.2.4. Erliziozko irudiak	576
3.3.2.4. Ama eta senitartekoak	577
3.3.3. Metafora sortak edota alegoriak	578
2. Ondorioak	579
<b>12. KAPITULUA: IDEOLOGIA</b>	<b>583</b>
0. Sarrera	584
1. Irudi estilistikoaren bidez antzematen den ideologia	586

1.1. <i>Ama Euskera</i>	586
1.2. <i>Arbola</i>	597
2. Eduki ideologikoa duten diskurtsoak	599
2.1. Bertsolaritza, batasunerako tresna	599
2.2. Emakumearen eginkizuna duintzen	602
2.3. Baserri munduaren mitifikazioa	603
2.3.1. Haurtzaroko gogorapenen lekua	604
2.3.2. Deskripzio mitifikatuaren objektua	605
2.3.3. Ohitura onen gordelekua	607
2.3.4. Kexazko bertsoak eratzera eragiten diona	608
3. Kexka soziala eta kexa soziala: zenbait aldaketen zioak	611
4. Ondorioak	614

### **3. ATALA: ONDORIOAK**

**617**

#### **BIBLIOGRAFIA**

**625**

## **Laburdurak**

Balendin edo Kepa Enbeitaren bertsoak aipatzean zenbait laburdura eman dugu nondik entresakatu ditugun adierazteko.

Adibideen bidez azalduko ditugu:

### **(B101c):**

**B:** Balendin Enbeita.

**101:** bertsoa *Nere apurra* liburuaen 101. orrialdea.

**c:** orrialde horretan agertzen den 3. bertsoa.

Hona hemen beste adibide bat:

### **(Bb187a):**

**B:** Balendin Enbeita

**b:** *Bizitzaren joanean* liburutik aterea.

**187:** orrialdea

**a:** orrialde horretako lehenengo bertsoa

Keparen bertsoak azaltzean:

### **(K015j)**

**K:** Kepa Enbeita

**015:** hamabosgarren orrialdea

**j:** orrialde horretako hamargarren "unitatea" (bertsoa edo koplak izan daiteke)

Badira beste Enbeitatar baten bertsoak ere. Horien erreferentzia laburdura mota honekin egiten da

### **(Zin24)**

**Zin:** Jonek argitaratutako kaseterako zinta batetik (Enbeita, Jon, 1980) hartua da.

**24:** zinta horretan agertzen den 24. bertsoa da.



# 0. SARRERA

## 1. Abiapuntua

Ikerketa honen abiapuntua kezka bakar bat izan dela badiogu oker ari garela begitantzen zaigu. Kezken kate bat da.

Euskaldun berriontzat pisuzko kezkek dira erregistro baten jabe izatea eta hizkuntza eredu egoki baten aukeraketa egitea. Erregistroa aberasteko ahalegin horretan, bereziki sentiberak gara euskal hiztun komunitatearen harrera posiblearekiko. Ez zaigu aski sofistikatua edo landua izatea. Komunikaziorako eta, zergatik ez, pertsuasiorako arrakastatsua izan behar du. Langintza horretan, ostera, hanka sartzeko milaka aukera daukagu, zoritxarrez. Gure ahalegin eta nekeek gainera, esker txarra edo harrera txarra izan ohi dute batzutan (sarriegi?), hain zuzen estimu handiengan ditugunengandik, eta hori izaten da mingarriena.

Euskal hizkuntzaren unibertsoan (ez dagokigu guri unibertso txikia ala handia den erabakitzea) oso jarrera sakabanatu eta kontrajarriak ditugu / dituzte, besteak beste, hizkeraren egokitasuna eta zuzentasunari buruz. Horrelako egoera baten, zaila da alde bateko edo besteko ostikadak ez jasotzea, ostikada mingarriak beti ere, gure integrazioa gertatu ez dela egiaztatzen edo digutenak, eta hori gogorra da hizkuntza bat ikasterakoan integratzeko desioa motibazio nagusizat izan duenarentzat.

Sentimendu horri horren bortizki ez nozitzeko konponbide bat hauxe izan liteke: norbera ondradu jokutzen saiatzea eta halakoak edo bestelakoak esandakoari jaramonik ez egitea. Ez da erreza ordea, berez sentibera den bat altzairuzkoa bilakatzea bailitzateke eta hori naturaren kontra jokatzeko da: emaitza onik ezin espero. Bestelako konponbide bat da ahozko jarduna trebetasun eta arrakastaz jorratzen dutenei erreparatzea, haiengandik (ahal izanik behintzat) zer edo zer ikasteko eta berenganatzeko. Entzulearen gustua ahalik eta ondoen asetzeko edo asetzen saiatzeko azken baten.

Aitortu behar dut<sup>1</sup> karrera ikasten nengoela, artean euskaraz bizitzeko ahalegin gogorretan murgildurik, bertsolaritzaren berri izan nuela oso era eraginkor eta liluragarrian eta honek bere eragintxoan izan du aukeraketa honetan. Euskalduntzeak, onartu behar da baita ere, bere alderdi on, atsegin eta esker onekoak ere baditu. Horietako bat, kultura baten zenbait jardun estetiko barru-barrutik eta bere osotasunean ezagutzea edota deskubritzea da eta bertsolaritzaren deskubrimendua horren adibide bat da. Komunitate elebidun baten harrigarria da zenbait gauza baliagarri eta aberasgarri existituko ez balira bezala igarotzen direla elebakar direnentzat. Ni neu arrisku horretan nengoen baldin eta 18 urterekin euskara ikasteko erabakia hartu izan ez banu. Zorionez, arrisku hori saihestuta, mundu bat zabaldu zen nire aurrean. Mundu

---

<sup>1</sup> Zilegi bekit sarrera honetako ahapaldi batzuetan lehenengo pertsona singularra erabiltzea, tesian plurala erabiltzen dudan arren, izan ere hemen pasadizo pertsonal batzuk kontatzen ditut.

hori ibili beharrekoa zen, bideak urratu behar ziren. Bide desberdinak aurkezten ziren nire begien aurrean: paralelo samarrak izan arren, bakoitzak bere metodologia, helburu (partzialak behintzat) eta buruhausteak zituen. Praktikotasunera makurtu nahi izan nuen, alegia, etxea zimendutik hasi nahi nuen, ez teilatutik. Niretzat teilatua literatura landu eta jaso da, elite batek jorratzen duena eta askotan, elite batek irakurri, ulertu eta garatzen duena<sup>2</sup>. Jakina, edozein kulturak horretara jo behar omen du, baina horrek zuhaitz sendo baten gorengo adarra izan behar du, ez sasi ergel bati txertatutako adar luze eta desproporzionatua. Sasi koitadu horrek ezin izango luke adar hori sostengatu, izan ere txertaketa horrek ez die sasiaren naturari eta bere legeei men egin.

Ezaguna da euskararen egoera ahula hainbat arlotan. Baso bazter baten dagoen sasi ziztrina begitantzen zaigu askotan. Badirudi, Euskal Autonomia Elkartearen bederen, irakaskuntzari esker konpontzeko bidean dagoela, edo behintzat egoera hobetzeko bidean. Hala ere, irakasle eta hizkuntzaren “begiraleen” artean ez dira horren baikor euskararen erabilerari dagokionez. Alde batetik, erabilera oso murrizta delako espero litekeenaren aldean. Euskara ezagutzeak edota euskal eredu batean ikasketak egiteak (txiki-txikitatik) ez du bermatzen erabilera. Eta erabiltzen ez den hizkuntza, ezagutua izan arren, idazkera kontserbatu duen mintzaera hila bilakatzeko arriskuan dago (kasurik onenean), benetako arriskuan egon ere (latina izan daiteke horren adibide bat). Egia da egoera ez dela aldatuko une batetik bestera irakaskuntza dela bide. Baina oraindik, daturen bat aipatzearen, Nafarroan eta Iparraldean erabileraren galera hedatuz doa eta famili bidezko transmisioak ahula izaten jarraitzen du. 1996an argitaratutako *Euskararen Jarraipena II* izeneko soziolinguistikazko inkestaren emaitzetan horrela azaltzen ziren datuak:

Inkestatuen adinak behera egiten duen heinean nabarmen jaisten da euskararen erabilera etxean. Neurri batean ala bestean, gainera, joera hori lurraldetan agertzen da. [...] Iparraldean [...] esan daiteke euskararen erabilerak beste bi lurraldeetan baino askoz nabarmenago egiten duela behera, adina jaitsi ahala. Beherakadarik handiena 50 urte baino gutxiago dutenen artean gertatzen da. [...] ezagutzaren hazkundeak ez du oraindik erabileraren hazkunderik eragin<sup>3</sup>.

Nire ahalegintxoia apala eta, ziurrena, oso mugatua izango bazen ere, inguratu nauen kulturari eskaini nahi nion eta, azken finean, kultura horri eutsi dioten gizabanako guztiei. Nire ahalegintxoia, esan bezala, euskararen erabileraren inguruan jardutekoa zen, erabilera aberatsa eta arrakastatsua dutenengandik jakituria zabalduz. Beste hitzetan esanda, bertsolaritzaren lilurak batetik, eta erabilerari mesedetxo bat egin nahiak bestetik, bertsolaritzaren alderdira makurtu zuten nire erabakia.

<sup>2</sup> Berriki argitaratu den saiakera baten honela dio bere egileak: “Ahultasun puntuen bila ari garenez, Rulforen sindromea deitzen dudana aritu behar dut. Milioitik gora irakurle duen edozein literaturak behar ditu lau dozen Rulfo, gutxienez. Gertatzen dena da euskal literaturak hamar mila irakurletik behera dituela, eta gutxienez hamabi dozena Rulfo, idazle gehienak Rulforen sindromeak, gehiago edo gutxiago, jota egoteaz aparte”, Alonso, Jon, 2001, 86.

<sup>3</sup> *Euskararen Jarraipena II* (Euskal Herria), Vitoria - Gasteiz, 1996, 42-48.



Bertsolaritzan neofitoa izanik, horren inguruko elementu guztiak eta beren funtzionamendua nire liluraren eragileak izan ziren. Bertsolariek duten bat-batekotasunerako gaitasunak harritu egiten ninduen eta nau. Hain denbora laburrean diskurtso bat osatzeko abildadea deigarria egiten zitzaidan eta ez hori bakarrik: horrelako diskurtso neurtuekin entzuleari eragiteko (barrea eragiteko, hunkitzeko, harritzeko) gaitasuna ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Horiek gure kulturaren euskaldun batzuek garatu dituzten trebetasun aberasgarriak dira, inondik ere, ezagutu eta erabiltzen jakinez gero izugarritzko altxorra izan daitezkeenak benetan euskaldun guztiengana hedatzen badira. Aztertu beharra ikusten nuen. Gauzak horrela, lehenengoz ezagutu nuen bertsolaritza 90eko hamarkadako izan zen. Eta ezagutzeko bideak hauexek izan ziren:

- telebistaren bidez, *Hitzetik hortzera* saio arrakastatsu horren bidez;
- irratia bidez;
- zenbait saioetara joanez;
- zenbait libururen bidez (*Hitzaren kirol nazionala*<sup>4</sup>, *Zu ere bertsolari*<sup>5</sup>, e.a.).

90eko hamarkadako edozein bertsozalek bide horietatik izango zuen bertsolaritzaren berri, familia bidezko transmisioa izan zitekeelarik beste gutxiago batzuen bidea.

Hala ere, berehala konturatzen da bat bertsolaritza lehenago ere existitu egin zela eta izan duela bilakaera bat eta bizitza bat beste garaietan. Are gehiago, bat-bateko jenero bat izan arren, momentuan momentukoari erantzuten diona, zenbait joera, zenbait erregistro, zenbait hoskidetza eredu edota oinen sareak ez dira beti bat-batean bertsolari baten burmuinean jaiotzen: lehenago sortuak dira, urte, hamarkada edo mende bat edo bi lehenago sortuak agian. Aurreko belaunaldiak egindako bertsogintzak bere hondarra utzi du ondorengo bertsolari-belaunaldiengan. Jakina, baliteke belaunaldi batek tradizio edo eragin horrekin moztu nahi izatea (erabateko etenik ia ezinezkoa den arren), baina belaunaldietan onduriko zenbait ezaugarri probetxugarri zokoratuak edo baztertuak izango lirateke horrela eta, orduan, beste hobeago batzuk asmatu beharko lituzkete, entzulegoarentzat gustagarria izango baziren. Iraganak beti erakarri izan nau, agian erromantiko samarra naizelako. Erromantikook gaur egungo ahotsetan aspaldiko ahotsen oihartzunak (Brian Cruise honetaz mintzo da *Ancestral voices*, 1994, liburuan) entzuten ditugu maiz. Nik gaur egungo bertsolarien ahotsetan joan zaizkigun belaunaldien ahotsak entzuten nituen batzutan eta horrek bultzatu ninduen haien atzetik gauzak ikertzera. Fenomeno honen iraunkortasunaren giltzaren bila aritzea ere akuilagarria egin zitzaidan. Horretan nengoela, zenbait familietan bertsogintzaren jarduna belaunaldi batetik bestera hedatu dela deskubritu nuen: Lizasotarrak, Airetarrak, Arozenatarrak eta... Enbeitatarrak. Arlo interesgarri bat aurkezten zen nire aurrean: horietako baten bilakaera

---

<sup>4</sup> Amuriza, 1997.

<sup>5</sup> Amuriza, 1982.

aztertzea, zer den iraunkorra eta zer aldakorra eta egoerari egokitutakoa bereizteko. Familiak nolabait bermatzen du belaunaldien arteko elkarrekiko eragina, edo hori izaten da normalena.

### 1.1. Zergatik Enbeitatarrak



Enbeitatarrak gerra aurretik

Egile batzuk aukeratu beharra zegoen azterketa zabalegia (eta beraz zorroztasun gabekoa) suertatu ez zedin. Leinu bat aukeratu beharra neukan.

Badira bertsolari-familia batzuk, egokiak izan daitezkeenak ikerketa honi ekiteko arrazoi desberdinengatik:

- izandako corpusarengatik;
- belaunaldiak oraindik aldiberekoak eta bizirik daudelako;
- jasotako corpora zabal samarra izan daitekeelako; eta abarengatik.


Hala ere, hurbiltasun geografikoari garrantzia eman nahi izan nion. Arestian esan bezala, inguratzen nauen kulturari nire ahalegin apala eskaini nahi nion. Bada, gertukoan dudana kultura Euskal Herriko mendebaldekoa da, Bizkaia aldekoa nahiago bada, eta orden bati jarraitu nahian, haren nuen lehenengo zorra. Gainera, askotan bihotzak agintzen

du, eta Balendin Enbeitaren bi liburuak irakurrita halako xarma batek maitemindu ninduen: azaltzen ez nekien fondoko musika bat zen hura, eta hartan murgildu nahi nuen. Beraz, hurrengo pausoa haren aitaren bertsogintza ezagutzea izango zen.

Euren bertsogintza aztertzea egokitu zitzaidan. Euren bertsogintza aztertzeak ez zekarren ikerketa historiko bat egitea, hau da, haiei buruzko datu eta zertzelada historiko guztiak arakatu eta aztertu. Egokitu zitzaidana haien bertsoak (horiexek baitira euren produkzio estetikoak) bildu eta aztertzea zen.

Hurrengo pausoa gauza bat erabakitzean zetzan: enbeitatar bertsogile guztiak bildu ala aukeraketa bat egin?

Ezagutzen diren Enbeitatar bertsogile eta bertsolari guztiak asko dira. Hona hemen koadro bat, zehatz-zehatza izateko asmorik ez duena<sup>6</sup>:



Juan Antonio Enbeita bera, gure azterketan lehenengo belaunaldikotzat joko duguna<sup>7</sup>, jatorrizko adarra dugu. Haren bertso-sorta bakar bat gorde da, eta bat-bateko bertsoaren bat edo beste<sup>8</sup>. Harengandik jaiotakoak Imanol eta Kepa ditugu, besteak beste. Imanolek goiz utzi zion bat-bateko bertsogintzari (eztarriz ez zen osasuntsua)<sup>9</sup> eta ezagutzen diren bertsoak idatzitakoak dira, idazle baten jite eta ospea izatera ailegatu zelarik. Prosaz ere idazki ugari argitaratu zituen. Egile honen lanaz egin den deskripzio zabalena eta lan bibliografiko osoena Julen Urkizak eta Luis Baraiazarrak egindakoa da<sup>10</sup>.

<sup>6</sup> Koadro honen datuak osatzeko *Enbeitatarrek I* liburua (Enbeita, J., 1999, 7-28) kontsultatu behar da.

<sup>7</sup> Jon Enbeitak argitaratutako *Enbeitatarrek I* liburuan, Juan Antonio Enbeita Elgezabal "Txotxo-Jeuri" bigarren belaunaldikotzat jotzen du, izan ere haren aita Juan Antonio Enbeita Aranaz (1822an jaioa) koplaria omen zen, nahiz eta bat-bateko zein idatzizko bertsoerik ez den ailegatu guregana. Gure azterketa honetan Enbeitatar bertsolarien leinuak bost belaunaldi izango ditu, eta Juan Antonio Enbeita Elgezabal (1848-1928) izango da lehenengoa. Hau erabakitzeke irizpidea hauxe da: harengandik zenbait bertso ailegatu zaizkigula. Barka biezaidate honekin ados ez daudenek, irizpidea ez baita inor gutxiesteko asmoarekin ezarri.

<sup>8</sup> Haren berri zabala *Gure Urretxindorra* (Onaindia, 1971, 8-10), *Nere apurra* (Enbeita, B., 1974, 15) eta *Bizitzaren joanean* (Enbeita, B., 1986, 73-90) eta *Enbeitatarrek I* liburuetan (Enbeita, J., 1999, 31-83) dugu.

<sup>9</sup> Enbeita, J., 1999, 85.

<sup>10</sup> Honela esaten da aipatutako "Imanol Enbeita (1884-1946), "Urretxindorra"ren anaia" izeneko artikuluan: "Enbeitatarren ospea Euskal Herrian batez ere bertsolari diren aldetik izan da, eta ospe horren atal onentxoenetariko bat Imanoli dagokio. Imanol bertsolari eta bertso-olerki idazle izanez gainera, kazetaritzan ere lan interesgarria egindakoa dugu", Urkiza, 1997, 5.



*Txotxojuri* joka ilunez eserita eta bere atzean, zutik,

Kepa Enbeitaren bertso gehienak ere idatzitakoak dira (ailegatu zaizkigunak beti ere), baina, Imanolen aldean, idazle kutsu gutxiagokoak zenbaiten ustetan. Gerra aurreko aldizkarietara bidaltzen zituen bere bertsoak. Aldizkari hauetan argitaratu dira bere bertsoak: *Euzkadi, Euzko-Deya, Patria, Ibaizabal, Euskal-Erria, Bizkaitarra, Aberri, Ekin, Jesus'en Biotzaren Deya, Euzkerea, Gure Herria, Argia, Baskonia, Aberrija, Napartarra, Jaungoiko-Zale, Gaceta del Norte, Euzkel-laguntza*<sup>1</sup>.

Badakigu, bestalde, Kepa Enbeita bat-batean aritu zela Imanol baino gehiago. Aldizkarietara bertso asko bidali zituen arren, jende aurreko zenbait ekitalditan izaten zen estimatuena: mitinetan eta bestelako ekitaldi kultural-politikoetan. Haren iloba Kepak honela azaltzen du *Gure Urretxindorra* liburuaren sarreran:

Arrospide onegaz asi zan mitiñetara urteten. Eta lenengo Bermeo'ra: mitin zaratasua egin zan emen. Izlariak, beste batzuen artean, Jon ta Kepa. Jon'en itzaldi-gaya: "Jaungoikua eta Lagi-zarra". Onen biotz-zarrasta itzela nabari-azo eutsan Kepa'ri. Maisu ta bertsolari, biak alkarri zorionka etxeratu ei ziran.

- Gerorantza, amabost-hogei bat urtian, Kepa ixan zan mitin gustietan, aberri-azia Euzkelerri osuan ereiten ibilli zana: edozein erritako abertzale-batzar, batzoki-edegite, erri-jai, jeltxide naiz mendigoxale, naiz emakumeen zerbait zanean, beti aritzen zan Enbeita, bere zentzun eta jasa jai gustiai ezarri ta emonik<sup>2</sup>.

Holakoetan bakarka aritzen bazen ere, bat-batekotasunari ez zion uzten. Izan ere, baten batek esan lezake bakarka arituz gero, gai-jartzailerik gabe, baliteke bertsoak alde zuzenetik konposatuak izatea eta memorian gordeta edukitzea. Bakarka hain luze aritzen ziren bertsolarientzat, gutxienez, memoria erakustaldi harrigarria izango litzateke hori. Hala ere, bertsotan aritzen

<sup>1</sup> Azken lau aldizkarietan argitaratu zirela esaten digu Kepa Enbeita Ealok, baina horren erreferentziarik ez da agertzen *Euskal bertso eta olerkien bibliografia* izeneko liburuan (Urikiza, 1999).

<sup>2</sup> Onaindia, 1971, 13-14.

zirenean, ez zen etenik egoten eta horrek memoria baino zerbait gehiago zegoela adierazten digu. Gainera, Kepa Enbeitaren ekoizpenean gorde dira zenbait ale, bat-batekotasunerako zeukan gaitasuna frogatzen zutenak. Esate baterako, Oñatiko mitin batean, bertsoan ari zela, “viva España” esanez entzun zuen oihu bat. Jakina, gertakizun hori ez zegoen alde zurretik prestatzerik. Izugarritzko eragina sortu zuen ondoren eta bat-batean Urretxindorrak bota zuen bertsoak, askoren oroimenean geldituz:

*Viva España!* didarka dagoz,  
neuk bere *viva!* dirautsat,  
gorrotorikan eztagolako  
nigandik España'rentzat.  
Katolikuok jakin dagigun  
zer diñon goiko Juezak:  
“Besten gauzari bakian itxi,  
zaindu beria bakoitzak”.  
Augaitik, *viva!* diñot barriz be,  
ixan bei España'rentzat;  
baita be diñot: “Gora Euzkadi!”  
geuria da-ta, geuretzat. (K071a)

Basilio Pujana (1913) Zeanuriko bertsolariari ere hari egindako elkarrizketa baten, bera gaztea zela, Bediako herrian Kepa Enbeita bertsoan entzun zuela bertsoan entzun nion. Honela zioen:

“[...] ta beste baten Bediako Batzokia inaguratu zan orduan, orduan gaztea nintzan baie etorri nintzan entzutera bizikletan Bediara, ta bertso kantaten bera bakarrik ibili zan Batzoki inaguraziñoan. Bera bakarrik eta bera bertsoan kantaten dagoela tranbia pasau zan orduan: rarrau rarroa! Kontxo! entzun ez, ta tranbieri bota eutsan bertsoa! ta an agertu eban ez dala bakarrik ikasie kantatzera datorrena, baeukala erreztasune otoz-otoan (bat-batean). Bota eban bertsoa ta ederto, tranbiaren aitzakiari bertso ederra bota eutsan, [...] ze otoz-otoan be bertsoa egiten eban [...]”

Beraz, azterketa honetarako aurkeztu zen lehenengo egilea Kepa Enbeita zen. Arestiko arrazoiari beste bat gehitu behar zaio: bertsolarien leinuak harengandik jarraitu zuen (ez Imanolengandik, izan ere honek ez zuen izan seme-alaba bertsolariarik edota bertso gilerik). Bertsolari familia honen azterketan Kepa izango zen aukeratutako aurreneko bertsolaria: hortaz, harengandik abiatu beharra zegoen.



Imanol Enbeita (1884-1946) bere emaztearekin



Ondorengo belaunaldiko bat edo batzuk aukeratzeko beta ere agertu zen. Gutxienez, bi bertsolari zeuden aukeran: Sabin (1908-1990) eta Balendin (1906-1986). Santiago izeneko bat ere bazegoen baina haren berririk ez da apenas inon agertzen<sup>13</sup>. Gerra aurretik biak ibili ziren bat-batean. Geroago Balendin ezagunagoa izan bada ere, Sabin omen zen hobea bat-batean zenbait entzuleren iritziz<sup>14</sup>. Kontuak kontu Sabinen

<sup>13</sup> Hiru bertso besterik ez dira bildu *Euskal bertso eta olerkien bibliografia* (Urkiza, J., Markina-Xemein, 1999) izeneko lan erraldoian, eta hauexek dira han eskaintzen diren erreferentzia bibliografikoak: "Erdal Herriatik", *Patria* 3 (1905, 115. zk.); "Lau bertsolari dagoz", *Olerti* 2 (1960); "Xanti, anai txikiena azkatik", *Bertsolariya* (1931, 5. zk.).

<sup>14</sup> Arestian aipatutako Basilio Pujanari egindako elkarrizketan honela kontatu zigun: "nik gerra aurretik ezautu neban Balentin [...] bera ta bere anaia il zana, Sabin. Aitagaz be, euren aitagaz, Enbeita zarra esaten

Balendin Enbeita, bere txirrindulari garaian baten orreik lanean ibiltzen ziran anai biek mendietako apeak ekarten da tira, olako, kamionetatxo bat euki eben, ta lenengoz bertsotan ein nebana izan zan Zeanurin bertan taberna batera jarten ziran orrek da, ni eninduen ezagutzen baia hasi ziren esaten edo baten batek esanotsen ba "ori da Pujana", baia nik orduan bertsotan gitxi jakin neban, baie asko egiten neban ta eskatzen baeustien "eizu edo kantaizu bertso bat!". Bueno, beno , kantauko dot, ta kantau, ta orduantxi taberna baten paraute... ta bueno, antxe in genduzan iru-lau bertso da gero andik aurrera gerra ori etorri zan da ez gendun gerra aurrean askorik egin [...]"

bertsorik ez da memoria kolektiboan geratu eta idatzi (zein publikatu) ez zuen apenas egin<sup>15</sup>, guk dakigularik behintzat. Beraz argi zegoen nor izango zen aztertu beharreko beste egilea: Balendin Enbeita. Honetarako berak argitaratutako bi liburuek lagunduko ziguten izan ere beraietan bertso kopuru handi bat biltzen da (gehienak idazkeraren bidez ondurikoak, nahiz eta gutxi batzuk bat-batean sortuak eta geroago transkribatuak izan). Horrezaz gainera bat-bateko bertso kopuru bat lortzen joan nintzen, azken eginkizun hau zailagoa izan bazen ere.

Hurrengo auzia ondorengo belaunaldiari ekitea komeni zen ala ez erabakitzean zetzan. Laugarren belaunaldia oso oparoa izan da Enbeitatarrengan (ikusitako koadroa). Balendinen seme-alaba guztiak familian eta auzoan edoski zuten bertsolaritza. “Bertsolarien kabi” bat bilakatu zen haren baserri eta auzoa. Batez ere anaiak, zein gehiago zein gutxiago, guztiak aritu dira bat-bateko bertsogintzan<sup>16</sup>.

Hauen corpusa bat-batekoa da batez ere. Enbeitatarren bertsogintzan belaunaldi honek aro berri bati hasiera ematen diote, izan ere ez zuten ezagutu gerra-aurreko giroa eta jadanik bertsogintzaren susperraldiak (batez ere 80ko eta 90eko hamarkadetan gertatu zenak) harrapatu zituen. Gainera, grabazio metodoei esker, hauen bat-bateko bertso kopuru handia gorde ahal izan da, idatzitakoak baino kopuru handiagoa osatzen dutelarik.



Haien ondorengo belaunaldia ere (bosgarrena) kontutan hartzekoa da (Ziara, Oihane, Zigor, Onintza eta abar). Hauek, aurrekoen antzera, 90eko hamarkadan hasi ziren ezagunak izaten eta bat-bateko jarduneko bertsoak dira batez ere gorde direnak eta aztergai izan daitezkeenak.

Gauzak horrela, kontu bat behintzat argi zegoen: aurreneko bi egileak (Kepa eta Balendin) nire azterketan sartuko ziren. Galdera hauxe zegoen airean: laugarren eta

<sup>15</sup> Sabinen berririk zabalena *Enbeitatarrik I* liburuan (Enbeita, J., 1999, 21-23) ematen zaigu. Bertan familiaokentzat idatzitako lau bertso ematen dira argitaratu aurreneko aldiz. *Euskal bertso eta olerkien bibliografia* (op. cit.) lanean, erreferentzia bakarra ematen zaigu: “Enbeita’tar Balenti’eri”, *Euzkadi* 15 (1927, 4489-70).

<sup>16</sup> Laugarren belaunaldi honen bertsogintza arakatu gabe dago une honetan. Haien bertso idatziak eta bat-batekoak sakabanatuta daude han, hor, hemen. Asko eta asko grabatuta izango dira. Beste batzuk argitalpen desberdinetan argitaratuak. Hona hemen ba, egiteke dagoen biltze lan bat. Esate baterako, badakigu Jon, Moises eta Abelek 1990eko Araba eta Bizkaiko Bertsolari txapelketan parte hartu zutela. Haien bertsoak *Araba eta Bizkaiko Bertsolari txapelketa 1990* izena daraman argitalpenean agertzen dira. Txapelketetan ez ezik, bestelako saioetan ere agertzen dira Enbeita anaiak (laugarren belaunaldikoak). Adibidez, 1991ko apirilaren 7an, Muxika euren jaioterrian egin zen saio baten Jon eta Abel Enbeita, Jon Lopategirekin batera, auzo bereko bertsolari hirukote bat, agertzen dira kantari (*Bapatean* 91, 1992, 90-92). Bertso-paperean lehiaketetan sariak irabazi dituztela ere badakigu.

bosgarren belaunaldietako egileak sartu beharrekoak nituen?

Alde, arrazoiren batzuk banituen:

Jon Enbeita eta bere alaba, Oihane Enbeita

- Horrek lagunduko zigun ikusten era zabalago batez Enbeitatarren eboluzioa segmentu diakroniko luzeago baten.
- Azterketak, XX. mendearen hasieran abiapuntua izan arren, bizirik ziren eta jardunean ari ziren bertsolariak aztergai izango zituen.

Aurka, ostera, beste pisuzko arrazoi hau neukan: hori eginkizun erraldoia suertatuko litzateke, batez ere aurreneko egile biak aztertuko nituen zehaztasun eta zabaltasunez burutzen banuen. Horrezaz gainera, bistan da Kepa eta Balendinen corpusak bi ezaugarri hauek dituela:

- Biak hilak izanik corpus itxia dute, ez dago aldaketarik jada haien bertso gintzan.
- Gugana heldu zaigun corpora idatzizkoa da batez ere. Bat-bateko bertsoen kopurua (transkribatuak esan nahi baita) oso murrizta da idatzizkoen aldean.

Bi ezaugarri hauek ez dira betetzen ondorengo belaunaldien bertsolariengan: corpus irekia dute oraindik, izan ere bertso berriak etengabe gehitzen ari baitira corpus horretara. Ezagutzen ditugun bertso gehienak bat-batean sortu eta jasotakoak dira. Idatzizkoen kopurua (idazle baten patxadaz sortu direnak, ez jende aurrean) txikia da "ahozkoen" aldean. Beraz, aztertzeko metodoa aldatu beharko genuke ikerketa lan berean hirugarren belaunalditik laugarrenera igarotzerakoan. Gure ustez belaunaldi hauen azterketa egiteke dago, baina guk nahiago izan dugu aurrekoena finkatzea eta behar adinako arreta eskaintzea, beste hari ekin aurretik.

Esandakoa esanda, berriro azpimarratu nahiko nuke orain belaunaldi guztiak lotzen dituen haria bertsolaritza ez ezik, bat-batekotasuna ere badela eta elementu hauxe giltzarria izan dela gure bi egileen aukera egiterakoan. Beraz, bat-batekotasuna sakonki landu zuten bi bertsolarien lan idatzia aztertuko genuela erabaki genuen. Imanol Enbeita ez dut azterketa honetan sartu izan ere bat-batekotasuna bere gaztaroaren aldi zehatz baten soilik landu zuen, eta ez entzulego handien aurrean, familia giroan baizik. Goiz utzi zion bat-batekotasunari, eta idatzizko bertso gintzari lotu zitzaion, kazetaritza ere bere jardunetako bat izan zelarik.

## **1.2. Azterketa: zein metodoa erabili?**

Aipatu ditugun bi egileen corpora zer nolako ezaugarriak dituen kontutan hartuta, datorkigun hurrengo galdera hauxe da: zer motatako metodoa erabili, azterketa burutzeko?



Alde batetik ahozkoahotasuna presente izan da bi egileen bizitza arrunta eta artistikoan. Ahozko jenero bat jorratzen aritu ziren luzaro, eta beren mezuaren hartzaileak neurri handi baten ahozkoahotasunean bizi ziren. Euskal kultura (inguruko beste kulturen antzera, baina ez guztiz berdina) portzentaje handi baten ahozkoahotasunean bizi eta garatu izan da. XX. mendean ere baieztapen hori indarrean izan da. Oso euskaldun gutxi alfabetatua izan da euskaraz (80ko hamarkadara arte behintzat), zeren eta alfabetizazioa (egin denean) espainolez edo frantsesez izan da bereziki. Horrela, euskara eta euskaraz produzitu dena, ahoz transmititu izan da neurri handi baten.

Bi Enbeitatar hauek, euren ahozko bertso-jardunean ahozkoahotasunaren psikodinamikei eta jokaerei eutsi beharko zieten, komunikazio arrakastatsua lortu nahi bazuten behintzat, batez ere jakinik beren entzulegoa nagusiki ahozkoahotasunean bizi zela. Kontu hau ikertzen lehena Walter Ong izan zen, baina berarekin XX. mendearen hasieran Milman Parry-k ezarritako ikerketa ildo baten oinarritu zen. Homeroren ikerketetan aditua zen Milman Parry-k 1933ko uda Jugoslavian eman zuen: eta orduantxe hasi zen ikerketa konparatibo bat egiten jadanik hila zen greziar ahozko epika baten eta bizirik zegoen Jugoslaviako ahozko epikaren artean. Ikerketa horretatik ateratako ondorioak bestelako ahozko produkzioetan nola gauzatzen ziren deskribatzea izan da ondorengo oralista askoren eginkizunetako bat. Haren jarraitzailea zen Albert B. Lord-ek ahozko konposizioaren elementu giltzarriak asmatzen edota esplizitu egiten jarraitu zuen, beti ere bere maisuaren ildotik. Ahozko konposizioaz galdetzen du behin baten, eta ondoren erantzuna eman ere:

[...] how does the oral poet meet the need of the requirements of rapid composition without the aid of writing and without memorizing a fixed form? His tradition comes to rescue. Other singers have met the same need, and over many generations there have been developed many phrases which express in the several rhythmic patterns the ideas most common in the express in poetry. These are the formulas of which Parry wrote. [...] He (the poet) learns them by repeated use of them in singing [...] until the resulting formula which he has heard from others becomes a part of his poetic thought. He must have enough of these formulas to facilitate composition (Lord, 1960, 22).

Arrazoiketa horretan “egitura formularioaz” hitz egitea azalpen garrantzitsuetako bat izan zen. Ondoren, Walter Ong-ek, hori baztertu gabe, ahozko kulturetan testuak produzitzeko eta ahozkoahotasunean bizitzeko duten pentsaeretan sakondu nahi izan zuen. Berak, ahozkoahotasunaren psikodinamikak zeintzuk diren deskribatu zuen<sup>17</sup>. Zeintzuk diren psikodinamika horiek jadanik ezaguna da euskal mundu akademikoan. Jon Kortazar da euskal literatur kritikara ikuspegi hau era zabalenean ekarri duen akademikoa. Berezi interesgarria da ikuspegi teoriko batetik auzi honi “Aho tradizioko literaturatik ahozkoahotasunera” izeneko tituluarekin eskaintzen dion kapitulua (Kortazar, 2000, 12-23) *Euskal literaturaren historia txikia* liburuaren barruan. Ahozkoahotasunaren inguruko azken ikerketak kontutan hartuta, oinarri teoriko

---

<sup>17</sup> Ondorengo orrialdeetan sarri agertuko den *Oralidad y Escritura* lan horretan (Ong, 1987, 43-58) zehatz mehatz deskribatzen dira psikodinamika horiek.

bat ezartzen du ahozko literatura aztertzeke. Ahozko erretorikak dituen arauak hiru zutabeen gainean oinarritzen dira Jon Kortazarren ustez:

- Oralitatearen erretorikaren oinarritzko ezaugarria bere izaera formulistikoan datza; formulak erabiltzen dira, esanahi jakineko esaldiak, horrela kontakizuna begiz jota bezala aurreratzen delarik [...]
- Oralitatearen baliabiderik garrantzitsuenetako bat hirukoizketaren formula litzateke [...]
- Parry-ren ikerketan ondoren oralitatearen ikerketak osatu duen ondoriorik garrantzitsuenetako bat “egitura irekia” kontzeptua izan da [...] (Kortazar, 2000, 18).

Zerbait kontutan hartu izan bada ondorengo azterketan, hiru ezaugarri hauek izan dira. Kontutan hartu izan da baita ere, ahozkotasanaren ikuspuntutik Kepa Enbeitaren azterketa Jon Kortazarrek ere egindakoa, eta ikerketa baten kapituluan argitaratutakoa<sup>18</sup>, non azterketa zabalago eta sakonago baten ildoak iradokitzen diren.

Juan Kruz Igerabidek ere saio interesgarria<sup>19</sup> du argitaratua, non ahozkotasuna, irakaskuntza eta bien interakzioa aztergai dituen. Biziki interesgarria da baita ere egile berberak *Lur entziklopedia tematikorako* prestatu duen atala, “Ahozko tradizioa”<sup>20</sup> izenburua duena. Bertan, ahozkotasanaren eta ahozko produkzioen nondik norakoak aztertu eta deskribatzen ditu. Ahozkotasanak tradizioa eta herrikoitasuna kontzeptuekin dituen loturak eta aldeak aztertzen ditu baita ere, eta hori guztia mundu mailako ahozkotasanaren ikuspegi sinkroniko eta diakroniko zabala eskainiz.

Ahozkotasunean jarduten denarentzat, memoriaren garrantzia handia da eta bere adierazpideak gogo higidura jakin batzuk dauzka:

- sintaxia: ahozkotasanak nahiago ditu koordinaziozko perpausak menpekoak baino;
- pilotzea nahiago, aztertzea baino;
- erredundantzia jositakoa izaten da;
- gordetzaila eta tradizionala da;
- esperientziatik hurbilekoa, giza bizitzaren mundutik gertu;
- ñabardura agonistikoak ditu gogoko;
- enpatikoa da (testuinguruarekiko, entzulegoarekiko) eta *feedback* delakoaz baliatzen da;
- homeostatikoa;
- egoerazkoa eta ez abstraktua.

<sup>18</sup> Lan honetan *Euzkerea* eta *Yakintza* aldizkarietan argitaratu zen olerkigintza du aztergai. *Euzkerea* aldizkariako olerki-bertsoak aztertzean, Kepa eta Imanol Enbeitaren bertsogintza ditu aztergai, besteak beste, Kortazar, 1995, 39-52.

<sup>19</sup> *Bularretik mintzora* du izenburutzat eta 1993an argitaratua izan zen. Bertan ahozkotasunean sakondu duten egileen berri emateaz gain, Juan Kruz Igerabidek bere pentsamendu propioa eraikitzen du eta haiek esandakoa haur literatura eta irakaskuntzari lotzen die (Igerabide, 1993, 54-62).

<sup>20</sup> Igerabide, 1997, 410-433.

Hauexek bertsoetan zein neurritan agertzen diren azaltzen dugu lan honetan, izan ere ahozko pentsaeraren oihartzunak dira idatzitako testuetan.

Bestaldetik, bertsolari hauek idazteari ekin zioten arren, bat-batean erabiltzen zituzten neurri estrofiko berberak erabiltzen zituzten. Beraz, bakarrik falta zitzaigun jakitea ea baliabide eta estrategia berberak erabiltzen zituzten ala ez.

Azken finean, aztergai dudana erdi-ahozkotasunaren emaitza bat da. Juan Mari Lekuonak euskal kulturen fenomeno hau aztertu duenean (Euskaltzaindirako sarrerako hitzaldian) zenbait ondorio atera zituen:

Testua ahozkoa izatetik idatzia izatera eginiko aldakuntzan, ahozkotasunaren zenbait ezaugarri galtzen diren heinean, idatzizkoaren beste zenbait eskuratzen dira (Lekuona, J.M., 1989, 25).

Geroago ere zerbait giltzarri emango zituen, Enbeitatarren bertsogintza aztertzeke oso baliagarria suertatuko zaizkigunak:



[...] idatzizko ederlanda ahozkotasunaren eremuetan onartua i Juan Mari Lekuona lazki horrek ahozko eredu, prozedura, teknika eta gustamoldeta kala, benetako txertaketarik egingo bazen. Idazkiak zail du ahozko munduan sartzea, estilo honetako osagai asko eta asko erabiliz ez bada (Ibidem, 31).

Azkenik, eta ondorio bezala, erdi-ahozkotasunaren definizioa eskaintzen digu:

Hau litzateke mintzaldi honen ondoriorik nagusiena: ahozko eta idatzizko estiloen artean hirugarren bat azpimarratzea, batetik nahiz bestetik duen testugintza, bata eta bestea nahasian joaten diren arabera (Ibidem, 39).

Paul Zumthor ikerlaria “ahozkotasun mistoaz” ari da bere *La letra y la voz* liburuan batez ere egoera jakin baten:

[...] cuando la influencia del escrito sigue siendo externa, parcial y con retraso (Zumthor, 1987, 21).

Juan Kruz Igerabidek ere “ahozkotasun mistoa”<sup>21</sup> terminoa aipatzen du, idazkeraren eragina duen ahozkotasuna izendatzeko, eta era berean ahozkotasunaren eragina duen idazkera adierazteko ere. Lan honetan “erdi-ahozkotasuna” erabiltzearen aldeko gara, batez ere Juan Mari Lekuonak idatzitako testuei aplikatzen dielako eta gure kasurako aproposagoa delako,

<sup>21</sup> Op.cit., 410-411.

baina ezin dugu gure zerumugatik kendu honako hau aukera terminologiko huts bat baino ez dela.

Ezin da ahaztu ahozketasunaren ikerketa bultzatu zuen aurreneko produkzioak ere erdi-ahozketasunaren “geruzan” kokatzen zirela: *Iliada* eta *Odisea* hain zuzen:

El magno despertar al contraste entre modos orales y escritos de pensamiento y expresión tuvo lugar no en la lingüística, descriptiva o cultural, sino en los estudios literarios, partiendo claramente del trabajo de Milman Parry sobre el texto de la *Iliada* y la *Odisea*, llevado a su terminación, después de la muerte prematura de Parry, por Albert B. Lord, y complementado por la obra posterior de Eric A. Havelock y otros (Ong, 1987, 16).

Idatzitako testuak ziren, baina ahozketasunean ekoiztutako materialez josita zeuden, ahozketasunaren psikodinamikak islatzen zituzten eta ahozko ezaugarriak erakusten zituzten. Zenbait ikerlarik esaten dutenez, idatziak izan orduko, han kontatzen diren hainbat eta hainbat pasarte ahoz igorriak izango ziren belaualdi batetik bestera. Homerok horiek guztiak jaso eta berreraiki zituen, ordura arte sortu ez zen gorpuztura baten baitan:

La grandeza del poeta épico griego radica, en primer término, en su capacidad de adaptar el material tradicional (las fórmulas, los motivos, las escenas, los temas anteriormente acuñados) a una trama que él con su individual talento ha concebido; y en segundo lugar, en su poder de innovación que le permite generar material nuevo por analogía con el ya existente (López Eire, 1995, 16).

Oralista hauek horrelako lanak aztertzerakoan deskubritu dituzten elementuak kontutan hartu ditugu lan honetan:

- izaera formularioa (izatekotan);
- neurriaren behar izanetara egokitutako esamoldeak eta lokuzioak;
- finkatutako metaforak (*fixed metaphors*) eta antzerako irudiak;
- eta abar.

Gure aztergaia, argi utzi behar da, ez da lehen mailako ahozketasunaren emaitza. Gurea ahozketasunaren ezaugarri eta pentsamoldeak islatzen dituzten idatzizko (edo transkribatutako) ekoizpenak dira. Erdi-ahozketasunaren ekoizpenak ezin dira literaturtasunaren ikuspuntu huts batetik epaitu. Horretaz ere Ruth Finneganek ere ohartarazten digu, hain zuzen ahozketasunarekin duten idatzizko testuak aztertzeke uean:

[...] many analysts now insist that texts give a seriously account of most oral performances as they are actually experienced by performers and listeners. [...] the text alone is an insufficient guide to the art form, and to understand it fully one must go further and also study the processes of performance and audience reception as they actually take place in space and time (Finnegan, 1988, 125).

Ahozko jenero baten idatzizko “bertsio” baten aurrean gaude eta berorren egileak ahozko bat-bateko jardunean aritzen ziren. Beraien entzulegoak

ahozko kultura bizi zuen. Beraz, enfoke bien uztardura behar da azterketa honi ekiteko: literaturarena eta ahozkoaren.

Gure azterketaren xedea hauexek izango da: ahozkoaren lortzeko idatzizko produkzio baten, ahozko *performer* batzuek konposatuta. Idatzizkoa den aldetik, literaturtasunaren alderdiak ez dira albo batera lagako, baina badirudi, euskal literaturan eta euskal idazleen artean, bi egile hauen ahozko alderdia bereizgarriagoa dela eta, ondorioz, lehentasuna izango du azterketa honetan.

Azterketa mota hau, bistan denez, ezingo genuke burutu Jon Enbeitaren bertsogintzarekin, izan ere honen bertsogintza (jaso ahal izan den oro kontutan hartuta) gehienez bat-batekoa da. Kepa eta Balendinena, ordea, idatzitakoa da (jasotakoa), lehenago adierazi bezala. Laugarren eta bosgarren belaunaldietarako metodo egoki bat prestatu bitartean, bigarren eta hirugarren belaunaldien azterketan aritu gara eta berorren emaitza ondorengo hamabi kapituluetan aurkezten dugun lana da.


## 2. Azterketaren alderdi desberdinak

Bertsolaritza zer den bereiztea aurreneko pausoa da azterketa duin bat egin ahal izateko. Bertsolaritza, Juan Mari Lekuonaren hitzetan, inprobisaturik egiten den bertsogintza da:

[...] bapatean egiten dena, entzulegoaren begi aurrean eta usadiozko moldeetara makurtuz (Lekuona, J.M., 1982, 123).

Xabier Amurizak beste ñabardura bat gehitu dio definizio horri:

[...] bertsolaritza dibertsio bat dela esango bagenu, ez genbiltzake funtsetik urrun. Geroago xehatuko dugunez, bertsolaritza dibertitzeko modu bat da. [...] Hizkuntzan oinarrituriko dibertsio mentala. [...] (Amuriza, 1997, 181-182).



Gure ustez, ikuspegi biak bateragarriak dira. Hori bai, lehenengoa tinko kontutan hartuta ezin dugu esan bertsogintza idatzia, bertsolaritzaren adar bat<sup>22</sup> denik, izan ere bat-batekotasuna eta entzulegoa aurrean izatea ez da betetzen idatziz bertsoak konposatzen direnean.

Bertsogintza idatzia, bertso jarriak, bertsolaritzaren adar bat idatu bi adar, bata bezain funtsezkoa bestea: bat-bateko bat<sup>25</sup>. Gure uste apalean, bertsolaritza bat-batekotasunari lotu nahi badiogu, hau da, bat-batean eta ahoz transmititu zein jaso den komunikazio artistikoa dela badiogu, ezin dugu esan bertso jarriak (idazkeraren teknikaz osatutako bertsoak) bertsolaritzaren esparruan

Bertsolaritza bat-batekotasunari hertsiki lotuta baldin badago, argi dago konposizioa eta testuaren antzezpena une eta leku berean emango direla, entzulegoa *performance*aren partaidea delarik; izan ere, bere erreakzioak eragina du bertsolariaren antzezpenean edota alderantziz, bertsolariaren

Xabier Amuriza

publikoarekiko erreakzioak eragina du entzulegoarengan, *feedback* delakoaren espirala areagotuz. Baina bertsolaritzaren kanpo itxurari begira, bistan da bertsotan egiteko “zerbait esan, neurtu errimatu eta kantatu” (Amuriza, 1997, 202) behar dela. Beraz, bertsolaritzaren hiru elementu formalak hauexek dira:

- doinua;
- errima;
- neurria.

Bertsolaritza aztertu aldera, badirudi hiru elementu hauetan sakondu beharra dagoela edo behintzat berauek kontutan hartzekoak direla. Geurea batez ere bertsogintza idatziaren azterketa da, baina egileak bertsolariak izanik, bertsolaritzaren, hau da, ahozketasunaren joerak eta tresnak ere aztergai ditugu.

## 2.1. Doinua

Enbeitatar hauen bertsozko produkzio osoa kantatzeko modukoa da. Guk daukagun corpus idatzia ere zenbait doinu erabiliz kanta daiteke. Zer esanik ez, grabazioz jaso diren ale apurrak ere doinu jakin batzuk erabiliz kantatu ziren.

Hala ere, gure azterketa honetan ez dugu doinuaren alderdia jorratuko. Argi eta garbi esango dugu, eta hori bistan da, Enbeitatar hauen bertsozko konposizio guztiak kantagarriak direla, eta hori nahiko da ahozketasunak edota entzulego baten aurreko antzezpeneak zer garrantzia daukan frogatzeko.

Muxikako bi bertsolari hauek erabiltzen duten doinutegia, hein handi baten, beste lurralde, haran eta probintzietako doinuekin bat dator. Baina bada portzentaje bat “Enbeitatarrei dagozkien doinuak” dei dezakeguna, izan ere doinu horren multzoa zabaltzen eurek egin zuten lana. Ahapaldi luzeak behar dituzten doinuak<sup>23</sup> Enbeitatar hauek bultzatu zituzten, nahiz eta eurek asmatu ez<sup>24</sup>.

---

daudenik. Agian bat-batekotasunean erabiltzen diren teknika eta usadio berdintsuak erabiliko dira euren konposiziorako, baina, idazkera erabiltzen den unetik, erabateko ahozketasunik at mugitzen gara: beste arte mota bat da, zenbait ezaugarri konpartitzen dituen. “Bertsogintza idatzia” da guk, behin-behinean, erabiliko dugun terminoa hau izendatzeko, izan ere bertsogintza kontzeptu zabalagoa da, bertsolaritza eta bertsogintza idatzia biltzeko gai dena.

<sup>23</sup> “Bei Zarrarena” izeneko bertso ospetsua honen adibide bat da (K066i). Zortzi puntuko bertsoa da berau. “Euzkera gaxua!” izeneko (K051c) 10 puntukoa da. “Gure baratza” bertso-sortatik aukeratutako aurrenekoa zortzi puntukoa da ere. Balendin Enbeitak, bat-batean aritzen zenean ere, honelakoxe doinu luzeak erabiltzen zituen. Esate baterako, Donostiako “Astoria” antzokian egin zitzaion omenaldian, hiru

Doinu berezien pentagramak eta, *Gure Urretxindorra* eta *Nere apurra* liburuetan agertzen dira azken aldera. Ezaugarri musikalak aztertzea eta beroiek bertsoaren antzezpenean zer nolako funtzioa betetzen duten deskribatzea oraingoz gure eskutik kanpo dago eta, beraz, ez gara sartuko arlo horretan. Hortaz, doinuaren alderdi hau, nahiz eta mezuari gehiegirik ez eragin, aztertzeke dago.

## 2.2. “Errima”

Zenbait egilek (Lekuona, 1982; Amuriza, 1987) termino hau erabiltzen duten arren, hemen beste bat erabiltzea nahiago izan dugu: hoskidetza. Lehenengo kapituluan eta 7.ean honen zergatia azaltzen dugu. Termino hau bertsolaritzarako egokiagoa dela iruditzen zaigu.

Egile bakoitzaren lana aztertzen hastean hauxe izan da aurreneko aztergaia. Inkesta bat eginez, bi egile hauek zer hoskidetza ereduak (eredu guztiak) erabiltzen dituzten jakin nahi izan dugu, horrela bakoitzaren hoskidetza-erregistroaren mapa egin ahal izateko, eredu bakoitzaren erabilera ere neurtuz. Horrela, batez ere 7. kapituluan adierazi ahal izan dugunez, bien arteko konparazioa egiteko abagunean izan gara.

Badakigu, jakin ere, hoskidetza ereduak jorratzean, bat-batean aritzen denarentzat elementu giltzarria dela. Ahozkoan zein ahozkorako landu dena, idatzizkoan agertzen dela begi-bistakoa da, nahiz eta idatziz, konposizio arauak direla eta, berrikuntza zenbait egiteko patxada gehiago izan.

Bestalde, hoskidetza eredu erabilienetan agertzen diren oinak eta oinen sareak arakatu ditugu. Izan ere, oinen erregistroak bertsolariaren hoskidetza gaitasunaren neurria ematen digu. Ez bakarrik hori: oinen sare bat izan daiteke jaso edo norberak asmatua. Kontuak kontu, bertsolari bakoitzaren poetikaren ildoak ezagutzen laguntzen digu oinen sari horiek ezagutzeak. Oinen sare bat osatzea, hoskidetzaren bidez hitzak lotzea ez ezik, hitz horien esanahiak lotzea ere bada, osotasun poetiko bat sortuz. Roman Jakobson aspaldi ohartu zen honetaz, eta guk hari jarraiki diogu hoskidetzaren azterketan:

Sin duda alguna, el verso constituye una figura fónica recurrente. Siempre en primer lugar, pero nunca como algo único. [...] Aunque por definición la rima se basa en una repetición regular de fonemas o grupos de fonemas equivalentes, constituiría una simplificación errónea el tratar a la rima solo desde el punto de vista del sonido, puesto que incluye, por necesidad, la relación semántica que hay entre las unidades de rima [...] (Jakobson, 1988, 56).

---

berto luze bota zituen, berak eta bere aitak hain trebeki erabiltzen zuten doinu berezi batekin (Bb170b, Bb171a, Bb171b). 1959ko Bizkaiko bertsolari txapelketan ere hamaika puntuko bertso bat erabili zuen azken agurrerako. Jon Enbeitak elkarriketa batean kontatu digunez, doinu hori malgua da eta bederatzi puntukoa izan daiteke “luzapenik” gabe, baina hamabi puntukoa izatera ailegatu daiteke.

<sup>24</sup> Arestian aipatutako Jon Enbeitari egindako elkarriketan, esan zigun zenbait doinu elizan eta auzoan erabiltzen ziren doinuak zirela, ezagunak baina egile jakinik gabekoak. Horren arrastoa jarraitzeko zonalde horretako elizetako artxiboetan ikerketa bat egin beharko litzateke, zenbait doinuren partiturak eta testuak aurkitzeko.

Zenbat eta erregistro aberatsagoa izan, hainbat eta hizkera poetikoaren ñabardura gehiago izango ditugu.

### **2.3. Neurria**

Neurriaren alderdia bertsoaren egiturari eskainitako kapituluetan txertatu dugu, 3. eta 9. kapituluetan hain zuzen. Baina, argi gera bedi, neurria aitzakia izan da eredu estrofiko jakin batzuen konposizio-egitura aztertzeko.

Alderdi honi dagokionez, egin genezakeen deskripzio zabalagorik, baina deskripzio hori oso era zehatzean apropos ez dugu burutu, hain zuzen ere Enbeitatar hauen neurri ereduak bertsolari garaikide gehienek darabiltzatenak direlako (edo zirelako), alde nabarmenik gabe.

Bertsoaren alderdi honi ekiterakoan gehiago erreparatu diogu ahapaldi mota desberdinetan dauden tentsio ildoek, mezu neurtu bat eraikitzen dutenak.

Neurria bera soilik eta isolaturik aztertzeak ez du ekarpen handirik egiten. Gure azterketa honetan neurria (ezaugarri formal bat, azken finean) nolabaiteko semantikaren menpean ezarri dugu edo, nahiago bada, semantikaren arabera. Baina ezin da ahaztu semantika neurriak baldintzaturik dagoela. Alegia, mezu bat aireratu nahi bada, ez da gauza bera bi puntuko kopla bat erabiltzea edo lau puntuko bertso bat erabiltzea. Era berean, ez da gauza bera (ñabardurei begira, esaterako) neurri luzeak erabiltzea (10-8 silabako hitz multzoak) edo neurri laburrak erabiltzea.

### **2.4. Azken puntua**

Bertsolaritzaren unitate komunikatibo oinarrizkoena den bertsoa ahozkoatasunaren ikuspuntutik aztertu nahi bada, azken puntuaren inguruko estrategiak eta poetika kontutan hartu behar dira. Bat-batean ari denak lehenengoz azken puntua konposatu ohi du:

[...] Lehendabizi azken esaera biribiltzen duela esan dugu; eta hori dela bertsoaren ardatza. Beraz, ahotik barrura hori da lehendabizi. Eta azken esaera horrek puntu bat duenez, berehala beste gainerako puntuak ere asmatu behar ditu, azkenaren kideko direnak. Baina ez bakarrik puntuak: azken esaera horren mamiak kudeatzen du beste bertso-lerrotan ere esango dena. [...] Horrela da, beraz, bapateko bertsoaren eraikuntza: atzekoz-aurrera egina, segundo gutxiren barruan egin ere, esango denaren aukera, antolaketa eta hitzezko adierazpen ederra [...] (Lekuona, J.M., 1982, 126).

Amuriza ere zabal aritu da konposizio arau honen inguruan. Berak esandakoa, Juan Mari Lekuonarekin bat dator, nahiz eta hainbat eta hainbat zehaztasun eta ikuspegi berri eskaintzen dituen. Esate baterako, ahozko komunikazioaren psikologian sartzen da teknika hau azaltzeko, eta baita bertsolariaren barne munduan ere (nor hoberik hori egiteko, bertsolaria izaki, bera baino?). Hara:



[...] bertso guztiak aurretik atzera mamiturik eta gorantz eramaterik ez dago. Ez dago ahapaldiaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. [...] Bertsoak horrela goranzko progresioa eraman behar du. [...] Bertsolariak segurantz psikologiko bat behar du, bertsoa egiten duenean. Bestela ere nahiko zailtasun badauka bertsoak, nora jo behar duen pentsatu gabe hasteko. [...] Entzuleen erreakzioa bertsoaren azkenean izaten da beti. Erantzun beroa ala hotza azkenean azaltzen da. Jendeak entzun berrien duena azkena izaten da. Hauxe da harengandik hurbilen dagoena eta gehien eragiten diona [...] (Amuriza, 1997, 213-214).

Guri dagozkigun bertso gehienak bakardadearen patxadaz (ez entzulegoaren aurrean) konposatuak izan diren arren, bat-batekotasunaren lorratzak izan ditzaketela susmatu dugu, eta beraz, azken puntuaren estrategia “atzekoz aurrera” teknikaren ikuspuntutik bistaratu nahi izan dugu bi Enbeitatar hauen produkzioan. Eginkizun hau bigarren eta zortzigarren kapituluetan burutu dugu.

## 2.5. Bertso-sortak

Bertso-sorten azterketan eredu gutxi izan dugu euskal mundu akademikoan. Eredu bat aipatzearen Juan Mari Lekuonak egindako “Gernikako arbola” sortaren azterketa da (Lekuona, J.M., 1982, 196-204). *Ahozko euskal literatura* liburuan egiten den sorta baten azterketa bakarria dugu, zazpi pausotan emana. Sorta hori hainbat ikuspuntutik aztertzen du Lekuonak: neurria, hoskidetza, egitura, sinbologia eta bestelako ikuspuntu estilistikotatik. Azterketa hori baliagarria da Iparragirreren lan osoari egiten ahal zaion analisia extrapolatzeko, izan ere handik atera daitezkeen ondorioak aplikagarriak ei dira haren bertso-gintza osoari. Angel Zelaietak ere Felipe Arrese Beitiaren bertso sorta luzetxo bat aztertzen du sorta osoaren hainbat ikuspegi emanez: metrikoa, generoari dagokiona, sinbolikoa eta estetikoa<sup>25</sup>.

Izan dira bestelako saiakera batzuk baina han, hor, hemen sakabanaturik. Analisisira eraman diren sorten kopuruak murrizta izaten segitzen du eta jarraipen edota koherentzia metodologikoa oraindik sendotu gabe dago, gure irudikoz.

Gure azterketak gehiago azpimarratu nahi izan du sorta bakoitzaren ezaugarri berezkoak, nahiz eta antzekotasunak bilatzen ere saiatu garen. Ezaugarrien artean, egiturazkoak nabarmendu ditugu. Ezaugarri narratibo, dramatiko, jokoso edota komunikazioaren funtzioei lotutakoak (konatiboa, emotiboa eta erreferentziala batez ere) bigarren maila baten daude atal honetan.

Iruditu zaigu sortaren azterketak elementu bereizgarri bat izan dezakeela: sortaren egitura bera. Sorta bat aztertzean, bertso bakoitzaren ezaugarriak aztertzen baditugu, azkenean bertsoaren azterketa egingo dugu, eta ez dugu izango sorta osoaren ikuspegia. Horrezaz landa, bertsoaren azterketarako jadanik eskaini ditugu bi kapitulu: 3.a eta 9.a, hain zuzen.

---

<sup>25</sup> Zelaieta, 1990, 107-125.

Beraz, sorten egitura dugu aztergai nagusi, eta ikuspuntu horretatik gure ahalegintxoaren emaitza eskaintzen dugu hemen zerbait probetxugarririk balego.

## **2.6. Estilistika**

Bertsoa unitate komunikatibo eta estetiko nagusizat harturik, aurreko ataletako zirrikietan aztertzeke gelditu zaizkigun estilistika ezaugarriak jorratu, deskribatu eta arakatu nahi izan ditugu atal honetan. Honen zergatia 5. eta 11. kapituluetan azaltzen bada ere, aurreratu dezagun bertsogintza hauen ikuspegi orokorra eskaini nahi izan dugula, kontutan hartuz beti ere produkzio honek ahozkoatasunarekin duen lotura.

Esan behar da, adierazi ditudan aurreko ataletan (orain arte adierazitakoak: "errima", bertsoaren egitura, bertso-sortak, azken puntua...) alderdi formala hartzen dela kontutan, eta, beraz, beraietan egiten den azterketa estilistikoa alderdi formal horiei lotuta dago. Estilistikari eskainitako atal honetan ostera, forma baino harago joateko asmoa dugu eta horretarako semantikan murgilduko gara egile hauen adierazkortasun mundua ezagutu eta hitzen mailara azaleratzeko.

Estilistikaren alor honetan eskema bati jarraitu diogu, agian, era trinkoan: estilistikaren irudi eta tropeak hartu ditugu kontutan. Egia da, egile hauen estilo erretorikoa ez dela mugatzen zenbait irudietara, baina egia da baita ere egile hauen erretorikaren nondik norakoak agertzeko komenigarria izan zitekeela zer motatako baliabide erabiltzen zituzten ikustea, eta era berean zeintzuk erabiltzen zituen maiztasun handiagoz, haien gustu eta joera erretorikoak deskribatu aldera.

## **2.7. Ideologia**

Berez ez da aurreko ataletatik (bereziki 6. ataletik) era argi eta garbian bereizten den atala, izan ere egile hauen ideologia tonuan, estiloan, konposizio estrategietan eta hoskidetzan islatuko da. Hala ere, esplizitu egin nahi izan dugu gure azterketaren alderdi hau.

Jadanik historia diren bi egileon ideologia eta berorren isla bertsogintzan ezagutzea bertsolaritzaren historiaren zati garrantzitsu bat ezagutzea da. Bertsolaritzaren nondik norako ideologikoetan murgiltzeko ezinbestekoa iruditu zaigu jadanik utzi gaituztenen ekoizpenei giltzarri ideologikoak igartzea. Bihar edo etzi laugarren edo bosgarren belaunaldietako Enbeitatarrak aztertzean, egindako lan hau baliagarria suertatuko zaigulakoan gaude.

## **3. Berriro ere abiapuntua**

Hasieran aipatzen nuen bezala, kezken kate batek eraman nau ikerketa hau orain arte planteatu dudana bezala burutzera. Kezka batek beste bat ekarri

du. Zerbait aztertzen nuenean eta ikerketak aurrera egin ahala, aferak eta arlo berriak jorratzeari ekin diot.

Euskararekiko kezka eta nire hurbileko kulturarekin dudak zorrak, ondo zein gaizki, bide zehatz batera gidatu naute. Bi Enbeitatar hauen bertsogintzaren erradiografia egoki bat argitaratzen lortu badut, baliagarritzat ematen ditut bertan isuritako izerdiak eta xahututako indarrak.



Enbeitatarren azkeneko belaunaldiak



**LEHENENGO ATALA**

**KEPA ENBEITA (1878-1942)**



# **1. kapitulua**

## **Hoskidetza**



Kepa Enbeita (1878-1942)

## 0. Sarrera

Atal honetan Kepa Enbeitaren bertsoetako hoskidetza aztertzeari ekingo diogu. Hoskidetza bertso baten elementu formal bat dugu eta askotan elementu honek baldintzatzen du bai poema baten eraketa, bai bertso batena:

La poesía, dentro de esa tendencia general a subrayar su condición fónica, busca la realización de combinaciones armónicas de significantes; la selección de los signos no está regida por los dictados del contenido, sino por el emparentamiento fonético, [...] la selección de los vocablos está determinada no sólo por lo que signifiquen sino por el parentesco fónico con los de su entorno (Núñez Ramos, R., 1992, 133-134).

Formala izateak, ostera, ez dio esanahirik kentzen, baina argi dago ez dagokiola, zuzenean behintzat, arlo semantikoari. Hoskidetza, besteak beste, baliabide mnemoteknikoa izan da tradizionalki, nahiz eta geroago literatura arloan baliabide estetiko hutsa bilakatu den<sup>26</sup>.

Bertsolaritzari buruz egin diren zenbait ikerketan, ez da termino hau erabili, “hoskidetza” alegia. Xabier Amurizaren *Hitzaren Kirol Nazionala* edota Juan Mari Lekuonaren *Ahozko Euskal Literatura* lanetan adibidez, “errima” terminoa erabiltzen da hoskidetza kontzeptua adierazteko. Manuel Lekuonak ere “rima” terminoa darabil eta definizio espliziturik egiten ez duen arren (erdarazko “rima” kontzeptutik hartua baita) zehaztasun batzuk egiten ditu euskal “rima” dela eta:

---

<sup>26</sup> Horrela dio Pello Esnaiek (1994, 1269): “Ahozko literaturan, baliabide mnemoteknikoa da batez ere puntua: bertsoak gogoan errazago hartzeko erabiltzen den baliabidea; baina sortze-baliabidea ere bada: bertsoak errazago sortzeko erabiltzen dena. Pixkana-pixkana, baliabide estetiko bihurtuko da errima literatura idatzian: poemak-eta apaintzeko baliabide”.



El punto más interesante de la técnica de la improvisación bertsolarística. El punto donde ya no cabe hablar de inconsciencia, ni despreocupación, ni espontaneidad, sino donde el bertsolari tiene que aplicar sus más que cinco sentidos en su apurado menester [...] ... el bertsolari mediante el entrenamiento se crea para su uso un buen repertorio de rimas de todas clases, sean las más sencillas, en *-ea, -ia, -ean, -ian, -oa, -ua, -oan, -uan* ... o las más raras de *-ana, -ona, -una, -aña, -iña, -oña, -uña, -ela, -ola, -atza, -otza, -are, -ere, -on, -un*, etc., etc., etc., repertorio del que con la rapidez que es del caso, escogerá las consonancias que le hagan falta, consonancias que empieza a aplicarlas desde el sentido lógico con el verso principal que trata de colocar al fin. [...] Aparte de esto puede asegurarse que ordinariamente no se contenta el bertsolari con que consuenen las últimas sílabas de los versos a partir de la vocal solamente, sobre todo si ésta es *a* o *an*, etc., del artículo [...] sino que exige que la consonancia arranque de la penúltima sílaba [...] (Lekuona, M., 1978, 309-312).

Xabier Amurizak, bere bertsolaritzaren teorizazio lanen artean, errimaren definizioak ere eskaintzen ditu. Bertsolaritzarako adiera zabalagoa aitortzen dio Xabier Amurizak errima kontzeptuari:

Errima hotsen kidetasun edo hoskidetasunean oinarritzen da. [...] Hotsen kidetasuna diogu, ez berdintasuna. Hizki berdinek hotsa ere berdina behar dutela argi dago. [...] Kidetasuna askoz zabalagoa da eta mila bider aukera gehiago ematen du. Hots berdinez baliatzekotan, bide laburra eta urria genuke. [...] Kidetasunetik joez gero, ordea, oso errima ona egiten dute, [...] (Amuriza, 1997, 259)

Xabier Amurizaren ustez errima da (berak “errima” terminoa darabil) bertsolaritzaren ezinbesteko hiru elementuetako bat:

[...] ... zeintzuk dira arte-kirol honen osagarri gustagarriak? Bertsolaritzak badu forma edo azal bat, hiru osagarri dauzkana: doinua, neurria, errima. [...] Bertsolaritzaren egitura eternoa edo teknika esango genukeena, hiru osagarri horietara biltzen da. Bertsoa kantatu, neurtu eta errimatu egiten da. Elementu horiek, banaka harturik, gustagarriak dira. Kantatzea gustagarri da, bertsolaritzari dagokiona nahiko musika xaloa bada ere. Neurria edo ritmoa, bertsolaritzatik aparte ere, gauza bat gustatzeko zer nagusietarikoa da. Eta hizkuntz mailan errima zertan esanik ere ez (Ibidem, 216).

Juan Mari Lekuonak adierazten duenez, hoskidetzak euskal ahozketasunaren arloan eremu zabalagoak hartu ditu, bertsolaritzak hartzen dituenak baino:

Tradiziozko kantagintzan, hoskidetza gauza zabala zen eta aberatsa. Hasi hoskidetza magikoa deitu diogunetik, eta nahiz bokalez nahiz kontsonantez eginiko aliterazio guztietaraino, ezin aberatsagoa da ahozketasuna, puntua deituriko atalean. Gaur, ordea, bertsolari askotxo ote dagoen nago, aliterazioa erabiltzeko joera galdu duenik. Hoskidetzatik idatzizko sistemara igarotzean, ez dira ohartzen aliterazioek han beren langintza mneumoniko eta estetiko egin dezakeenik. [...] Tradizioan hitz errimatuen kopurua ez da hain ugaria, eta gainera klixe jakinen barruan ikasi eta erabiltzen ziren, hoskidetasuna esaldiarena ez ezik pentsamenduaren erritmoa ere bazelarik (Lekuona, J.M., 1989, 38)

Egia esan, guk orain garrantzi handiagoa eskainiko diogu puntu<sup>27</sup> edo bertso-lerroen bukaerako hoskidetasunari, izan ere hori da kontutan hartzen dena hoskidetzaz ari garenean.

Hemen agertuko den hoskidetasun eredu bakoitzak bere izenburua izango du. Izenburu hori komuna den oinaren bukaerak adieraziko du. Zenbait izenburuk azpialdaki desberdinak bildu ditzakete beren baitan, kontsonante eta zenbait bokalen artean dagoen baliokidetzak dela medio<sup>28</sup>. Baliokidetzak hori, ahozko bertso gintzan behintzat, onartutzat ematen da. Esate baterako, -ZI izenburutzat duen hoskidetzak eredu honako oin hauek sailka daitezke:

- (-zi amaiera dutenak): hazi, -arazi, irabazi, inetazi, orrazi, grazi, *astokrazi*, gerezi, bizi, bereizi, eta abar.

- (-si amaiera dutenak): ikasi, hasi, ikusi, garrasi, Tomasi, Lourdesi, *igesi*, eresi, josi, egosi, erosi, Jesusi, nagusi/ *nausi*, jausi, eta abar.

- (-xi amaiera dutenak): poxi, *bixi*, taxi eta abar.

Goian aipatu ditugun oin guztiak ez zituen Kepa Enbeitak erabili, baina argigarriak dira ikusteko oin hauen artean hoskidetzak dagoela. Zenbait bertsoetan hoskidetzak hori azken silabara ez ezik aurreko bokalera ere zabaltzen da. Bertso horietan hoskidetzak aberatsagoa dela esan dezakegu. Zenbait bertsoetan, osterak, azken aurreko bokalaren baliokidetzan bi oinetan gerta liteke, bertsoak lau oin hoskide dituelarik. Mota horretako bertsoak, adibidez,

<sup>27</sup> Puntua zer den ez dago guztiz garbi edo behintzat ez dirudi honetaz erabateko adostasuna dagoenik teorizazioa egin dutenen artean. Manuel Lekuonak (1978, 308) bertsolarien ustea jasoz, puntua eta errima berdintzen ditu: "Este montaje de la estrofa, con el verso más fuerte al fin de ella, es tan importante, que precisamente dicho verso final de estrofa es el que impone la consonancia o rima – el *puntua* que dice el bertsolari- para los otros tres versos anteriores de la estrofa total". Xabier Amurizak *Bertsoen mundua* izenburudun CD-ROM-ean, osterak, horrela definitzen du puntua: "Bertsoa banatzen den zatietako bakoitza da puntua, neurrien arabera luzeago edo laburrago izan daitekeena. Zehatzago, oin bakoitzak mugatzen duen hitz-andana da. Puntuak lerro bat edo bi izan dezake". Pello Esnalek (1994, 1235-1236), Manuel Lekuonaren irizpideari eutsiz, berdintzen ditu hoskidetzak eta puntua: "Llabur-llabur esanda, hoskidetzak da puntua: zenbait bertso-lerroen amaierako hoskidetzak. [...] Bertsoei dagokienez, normalean tartekatu egiten dira bertso-lerro puntudunak eta punturik gabeak, eta bigarrena izan ohi da puntuduna. Horixe da molderik erabiliena [...]". Ez dugu uste guri dagokigunik afera honetan ebazpenik ematea baina, erabilgarritasunaren amorez, guk "hoskidetzak" terminoa erabiliko dugu teorizatzaile guztiek azaldu nahi duten hotsen kidetasuna adierazteko. Horrezaz gainera, Pello Esnalek hoskidetzak eta puntua berdintzen dituenek, ez dugu bere irizpidea errefusatzeko. Beste kontua da, oin batetik hurrengora kantatzen edo idazten den hitz andana nola izendatu dezakegun. "Bertso-lerroa" sintagma erabil daiteke. Hala ere, badirudi termino honek idatzizko sistemari men egiten diola, eta ahozkotasanarekin zerikusi gutxi dauka orduan. Erdi ahozkotasanarekin akaso erlazioa izan zezakeen, baina beti ere maila horretan dagoen idatzizkotasanari dagokionez. Horrezaz landa, Iparraldeko usadioan eta Hegoaldekoan ez datoz bat bertso-lerroen kontzeptuak. Hori dela eta, Xabier Amurizak "puntua" terminorako erabili zuen adiera hartuko dugu kontutan "puntua" hitza erabiltzen dugunean. Ebazpenik egin gabe, termino hau erabilgarriagoa iruditu zaigu, eta halaxe erabiliko dugu honik aurrera.

<sup>28</sup> Xabier Amurizak bertsolari, idazle eta bertsolaritza kritikoak, esate baterako, bere *Hiztegi errimatu* liburuan, baliokidetzak hori jakintzat ematen du: "Hiztegi honen oinarrizko garapena zenbati kontsonante kidetzat jotzetik dator. Hauek dira multzoak: B-D-G-R, K-P-T, N-M, L, RR, S-Z-X, eta TS-TZ-TX", 1997, 5. Eta aurrerago honela dio: "Kontsonante batzuk kideak dira edo antzekoak dira. Familia bat egiten dute. Beste batzuk bakarrak dira, ez baitute ahaide hurbilik. Hona nola ordenaturik doazen sail nagusiok:

1) B-D-G-R [...] 2) K-P-T [...] 3) M-N [...] 4) L [...] 5) RR [...] 6) S-Z-X [...] 7) TS-TX-TZ [...] 8) DIPTONGOAK [...] 9) BESTE BATZUK [...]", Ibidem, 16.

aberatsagoak dira (hoskideztaren ikuspuntutik) bakarrik azken silaba hoskideztat dutenak baino. Baina kasu horietan ezin da esan bertsoaren hoskideztza silaba eta erdikoa denik, fenomeno hori zenbait oinetara mugatzen delako, ez oin guztietara. Ikus dezagun hurrengo adibidearekin:

Gauza biren urrengo dirua nag**usi**,  
 Gauza politagorik neuk be eztot ik**usi**.  
 Gauza asko eiten dan lez diruaz er**osi**,  
 Ainbarik daguana ezta ondo bi**zi**. (K164j)

Lehenengo bi oinak hoskideak dira, azken silaban ez ezik, azken-aurreko bokalean ere: **-usi**.

Silaba t'erdiko hoskideztza hau ez da hedatzen hurrengo oinetara, zeintzuekin silaba bakarreko hoskideztasuna dagoen: **-si /-zi**.

Antzera gertatzen da hurrengo bertsoan:

Euzko gastijak erein dituez  
 Or-emen ainbat Jel-**azi**,  
 Uste baño be lur obiauan  
 Geyenak zirala **jausi**.  
 Landarok datoz mardul ta mizke,  
 Laster dira eurok **nausi**;  
 Onein gerizpen sasi-sendijak  
 Makal biarko dau **bixi**... (K043a)

Hirugarren eta laugarren oinek hoskideztza aberatsa erakusten dute, silaba t'erdikoa hain zuzen, azken silabaren aurrean diptongo komuna erakusten dutelarik. Honek hoskideztza mota honi balio gehigarri bat ematen dio. Hala ere, hori ez da beste oinekin gertatzen, **azi** eta **bixi** oinekin hain zuzen.

**-ZI** hoskideztza ereduari dagokionez ere, esan behar da zenbait bertsoetan eredu hau **-TSI** izendatu dudan ereduarekin nahastuta agertzen dela:

Euzko-baratza bardin bagia  
 Lore bikañez oi zana **jantzi**,  
 Euzkia dizdiz ortzetik zabal  
 Azkerik eiten zanian **jatsi**;  
 Euzki au, baña, euzko-semiak  
 Erdeldundurik aman **igesi**  
 Zekusanian, lotsaz gorritu  
 Ta itxasperaño egin zan **jausi**. (K046j)

Honek **-ZI** eta **-TSI** izendatutako ereduak bat bakarria ez ote diren galdetzerara eramanez gaitzake. Badirudi mota honetako bertsoetan egilearen kontzientzia hori gertatzen dela, baliokideztat hartzen dituela. Dena den, badira beste bertso asko non nahasketa hau gertatzen ez den. Bertso horietan hoskideztza egiteko frikariak diren sibilanteak erabiltzen dira bakarrik (**-si**, **-zi**, **-xi**) eta ez afrikariekin nahasturik (**-tsi**, **-tzi**, **-txi**). Gure ustez, honek erakusten du egileak argi zeukala **-ZI** eredu eta **-TSI** eradu bereiztu beharrekoak direla

nahiz eta batzutan, errazenera jotzeagatik agian, eredu biak nahastea zilegi den, hoskidetzak oso gutxi galtzen duelakoan edo eredu ahaideak direlakoan.

Hoskidetzaren azterketa honetan ez genuke ahaztu nahi hoskidetza luze-laburtasunari men egitea. Baina kontutan hartu beharra dago Kepa Enbeitaren bertsogintza noizkoa zen: mende hasierakoa. Beraz ezin da espero hoskidetza luzeegirik. Pello Esnal kritikoak<sup>29</sup> argi esaten du bere azterketa baten “puntu” luzearen kezka aspalditik dagoen arren, duela gutxi nagusitu egin dela, edo beste hitzetan esanda, “puntu” laburra duela gutxira arte nagusi izan dela.

Gaur egun apenas erabiltzen da puntu laburrik bertsotan. Puntu laburreko bertsoren bat edo beste entzungo dugu agian plazetan baina konta ahalak. Beste hainbeste gertatzen da bertso-paperetan ere. Zenbait urtetan atzera egin eta bertsolari jakin batzuegana jo beharko dugu, hain zuzen, puntu laburreko bertsoak aurkitzeko.

Puntu laburra erabili ohi zuen Pierre Etxahun bertsolari zuberoarrak [...] Puntu laburra erabili ohi zuen nagusiki Balendin Enbeitak ere. [...] Lehen esan dugunez, ia-ia puntu luzea besterik ez da erabiltzen gaur egun bertsotan, bai bat-batean, bai bertso jarrietan. Baina ez da gaur-gaurko joera, ordea; lehendik ere datorrena baizik [...] (Esnal, 1994, 1242-1244).

Agian unea etorri da “puntu” edo hoskidetzaren luze-laburtasunaren aferaz zertan den azaltzeko, laburki bada ere.

Juan Mari Lekuonak (1982, 84) bost hoskidetza mota desberdintzen ditu:

[...] bertsolarien usuarioari begiratu, lau edo bost mota sailkatzen ditugu: **puntu zailak**, **puntu aberatsak**, **puntu errezak**, **puntu baldanak**. Adibidez:

“ni nork”, “iñork”, “diyot”, “biyok” (Bilintx) = zailak;  
 “elkarri”, “ekarri”, “jarri”, “garbi” (Xenpelar) = aberatsak  
 “lasatzen”, “emen”, “eskatzen” “amaitzen” (X.X.) = errezak  
 “etxetik”, “kanpotik”, “burutik”, “begitik” (X.X.) = baldanak<sup>30</sup>

Horien artean aipa daitezke, inoiz, **ahoskera luzeko puntuak**. Horrelakoetan ederkera ez ezik, beste efektu estetikoak eta magikoak bilatu ohi dira, hotsen berdintasunak, gauzen berdintasuna ere adieraziz.

“aurpegi ZuRi GoRRIYA”  
 “aingeru ZoRa GaRRIYA”  
 “mia da ZuRe GeRRIYA” (Bilintx)

Hoskidetza moten sailkapen graduatzailea dugu beraz, eta beraien azalpen teorikorik ez du egiten: adibide batzuez baliatzen da azalpena egiteko.

<sup>29</sup> Gogora dezagun, Pello Esnalek “puntu” terminoa darabilela bertso-lerroaren hoskidetza adierazteko.

<sup>30</sup> Errima kategoriala litzateke hoskidetza edo errima mota hau, izan ere hotsen kidetasuna bilatzeko kategoria bereko hitzak erabili izan dira. Hain zuzen, *Nondik* kasuan dauden hitzak dira guztiak, *-tik* atzizkidunak hain zuzen. Gaztelaraz ere horrela definiturik dago: “La riqueza de la rima depende tanto de su sonoridad como de sus efectos semánticos. Se califica generalmente a la rima de rica o pobre según su grado de dificultad y las sugerencias que provoque. Normalmente la rima categorial, es decir, la que hace rimar palabras de la misma categoría morfológica, especialmente cuando se trata de sufijos y desinencias, es más pobre, por esperada, que la que no actúa así” (Luján Atienza, 1999, 216).

Bestaldetik, aipagarria da Pello Esnalek hoskidetzari buruz egiten dituen hausnarketa eta sailkapenak. Bere ustez, hoskidetzaren luzera ez da neurtu behar silaba kopuruaren arabera soilik. “Puntuak” edo hoskidetzak hitzaren erroa hartzen baldin badu, orduan hoskidetza luze baten aurrean gaude (ahapaldi osoan ezaugarri hori mantenduz gero). Hoskidetza atzizkietan oinarritzen bada (erroa ailegatu gabe), laburra litzateke:

Baina nahasbide ere izan ditzakegu “laburra” eta “luzea” hitzak, ondo ulertu ezean. Argi ditzagun, beraz. Puntu laburrak, izan ere, puntu luzeak baino silaba gehiago izan ditzake: esaterako, bada silaba t’erdiko puntu laburrik (**ian: biharamunian, batian, itzalian, gainian, trukian**) eta silaba erdiko luzerik (**ai: ai, ezkongai, bai, jai**). Izan ere, labur edo luze izatea ez dagokio puntu osoari, puntuaren erroari baizik [...] (Esnal, 1994, 1242).

Guk Pello Esnalen irizpidea hartuko dugu kontutan, ez bestek arbuizatzeagatik, irizpide morfologiko bati eusten diolako baizik, eta ondorioz, gure azterketarako argiagoa suertatuko zaigulako ere. Dena den, hoskidetza aztertzerakoan luzera ez dugu horrenbeste baloratuko; batetik, jakin badakigulako hoskidetza luzea azken hamarkadetan soilik nagusitu dela<sup>31</sup> (beraz, Urretxindorraren garaian ez zen horren indartsua) eta, bestetik, hoskidetzaren arlo semantikoa interesgarriagoa iruditzen zaigulako.

## 1. Hoskidetza ereduak

Atal honetan Urretxindorraren hoskidetza ereduak aztertu nahi ditugu, arreta berezia eskainiz erabileraren maiztasunari, izan ere hau arrasto argigarria izan daiteke bere estilistikaren nondik-norakoak ezagutzeko. Maiztasunak egilearen gustu eta joeren berri ematen digu, bere izaera estetikoaren berri, alegia. Baina ez maiztasunak soilik: hoskidetza eredu horietan egiten dira oinen aukeraketa jakin batzuk, eta beraien karga semantikoak ere estilo eta edertasun kontzeptualarekiko erlazioak agerian uzten ditu. Beraz, arreta berezia eskainiko diegu baita ere oinen aukeraketari, eta beraiekin egiten diren oinen sareei. Ez da ahaztu behar bertso bat sortzeak baldintza formal jakin batzuk dituela, bertsoaren arkitektura bera baldintzatzen dituztenak. Hain zuzen honetaz mintzo da Jon Sarasua bertsolaria:

Lehen kolpeko jarrera kritiko batetik, zera pentsa zitekek: hain arkitektura prekariora baldin bada, hor ze garantia egon zitekek zerbait pentsatua eta landua sortzeko? Azken batean, lau errimarekin lotu behar duk bertsoa, eta errima batek beste bat eskatzen dik, eta errimak eskatzen dialako sartzen diat igual irudi bat, ez irudi horren bila joan haizelako, ez? [...] Bertsoan, askotan errima-neurri mekanikak baldintzatzen eta sortzen ditik ideiak. Polita duk gaia. Ez ote da hala beste sorkuntza askotan ere? [...] Soineko bat bururatzen zaiguk, baina soinekoa osatzeko oihal-txatalak bakarrik zauzkaagu, ez zaukaagu dendara joan eta komeni zaigun neurrikorik

<sup>31</sup> Pello Esnalek ondorio hau ateratzen du bere euskal bertsoen hoskidetza aztertzean: “Garbi dago, noski, puntu luzea nagusitu dela ia erabat gaur egunean. Baina ez da ahaztu behar, jakina, bizirik dagoela oraindik ere puntu laburra [...]”, Esnal, 1994, 1267.

erosterik. Ze pieza, ze errima dauzkaan, horiekin egin beharra daukak soinekoa (Garzia, Joxerra, 1998, 86-87).

“Piezen” edo “oihal txatalen” aukeratu beharrak baldintzatzen du bertsoaren edukia. Eta era berean, “oihal txatal” jakin batzuk aukeratzeak egilearen izaera estetikoak adierazten digu.

Bestaldetik, eta gure lanaren helburua ez den arren, beste bertsolariren hoskidetza ereduarekin nolabaiteko alderaketa egin beharrean gaude, Urretxindorraren hoskidetza zertan den bereizgarria agertu ahal izateko. Hori dela eta, beste bertsolarien bertsoekin inkestak egin ditugu: Txirrita, Xenpelar eta Pello Errotaren bertsoekin hain zuzen. Nolabait esatearren, eta bertsolaritzaren historiari dagokionez, Urretxindorraren “aurrekoak” dira hiru bertsolari hauek<sup>32</sup>. Laburbilduz, hauek dira bertsolari hauek aukeratzeko zioak:

- Guztiak aritu ziren bat-bateko bertsogintzan eta jarduera hau haien bertsogintzaren zatirik garrantzitsuena izan zela esan liteke. Hala ere, herriaren oroimenean bat-bateko bertso gutxi gorde izan dira benetan botatako kopuruaren aldean. Gorde diren bertso idatziak askoz gehiago dira bat-batekoak baino.

- Guztiak izan ziren bertso jartzaileak edo bertso paperen egile, nahiz eta eskoladun edo alfabetatu bakarra Kepa Enbeita izan (eta bera ere azaletik). Beren bertsoak idazteko norbaiten laguntza behar izan zuten<sup>33</sup>.

- Gaur egun, zorionez edo zoritxarrez, haien bertso idatziak ezagutzea errazago dugu, haien bat-bateko bertsoak baino.

Ondoren, Kepa Enbeitak erabilitako hoskidetza ereduaren iruzkina egitera igaroko gara, gehien erabilitako hoskidetza ereduetatik hasita.

Kepa Enbeitarengan badira eredu batzuk sarriagotan erabiliak direnak. Ondoren aurkezten ditudan emaitzak 200 bertso aztertzeatik lortutakoak dira eta aipa ditzadan:

<ul style="list-style-type: none"> <li>- IA(K) (37)</li> <li>- NA (24)</li> <li>- RA (17)</li> </ul>
--

<sup>32</sup> Juan Mari Lekuonak (1982, 109-121) bertsolaritzaren aroak sailkatzen ditu. Xenpelar Erromantizismo aroan (1939-1876) sartzen du eta Txirrita zein Pello Errota Pizkunde-aurrea (1876-1935) deituriko aroan. Bertsolaritza tradizionalaren ordezkari batzuk dira, eta beraz, beren hoskidetza ereduaren arakatzea argigarria izan daiteke Kepa Enbeitak zenbateraino jaso duen tradizio hori ikusteko.

<sup>33</sup> Txirritaren bertso jartzea azaltzen denean zera esaten da: "Ainbeste gauza, gertaera eta kontu esaten zioten, arek danak aditu eta illobak apuntatu egiten zituen [...] Enkargua artzen zuenean, bereala asiko zan bertsoak pentsatzen eta sumatzen. Kaso edo motibo bakoitzari bi edo iru bertso jarriko zizkion, ta gogoan eduki ere bai illobak apuntatu arte; gero beste bi edo iru. Ta orrela osatzen zituen amabi, amalau edo amasei bertso", Zavala, 1992 (1. alea), 259.

Pello Errotaren bertso jarriak bere alaba Mikaela Elizegik idazten zituen. Horrela kontatzen da: "Mikaelak bere aitaren sekretariotza egiten zuan. Berak eskribitzen zizkan bertsoak. Ta larogei urteren buruan bertsoak eta gertaerak buruan zeuzkan arek, eta guri esan", Zavala, 1992 (5. alea), 103.

- |            |
|------------|
| - TSA (17) |
| - IAN (15) |

Zalantzarik gabe hauek dira, erabileraren maiztasunari bagagozkio, gehien nabarmentzen diren hoskidetza ereduak. Hortaz, eredu bakoitzari banan-banan ekitea baino ez zaigu falta.

### 1.1. -IA(K)

Kepa Enbeitarengan hauxe da hoskidetza eredurik erabiliena. Horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen aztertu baino lehen, testuinguratu dezagun fenomeno hau esanez zenbait bertsolari klasikoengan ere hauxe dela hoskidetza eredurik erabiliena<sup>34</sup>:

EGILEA	EREDU MOTA	ZENBAT ALDIZ <sup>35</sup>
Kepa Enbeita (1878-1942)	-IA(K)	37
	-NA(K)	24
	-RA	17
	-TSA	17
	-IAN	15
	- OA/-UA	10
Txirrita ( 1860-1936)	-IA(K)	40
	-IAN	26
	-RA	19
	-OA/-UA	18
	-NA(K)	13
Xenpelar (1835-1869)	-IA(K)	34
	-IAN	19
	-OA/ -UA	13
	-RA	12
	-T(Z)EN	9
	-U	9
	-NA(K)	7
Pello Errota (1840-1919)	-IA(K)	38
	-IAN	19
	-OA/ -UA	19
	-NA(K)	15
	-U	12
	-RA	9

<sup>34</sup> Egile bakoitzarengandik berrehuna bertso hautatu dira hoskidetza ereduan inkesta hau egiteko.

<sup>35</sup> Suposatzekoa denez, egindako inkestan gehien erabiltzen diren ereduak agertzen dira koadro honetan.

-OAN	9
-EAN	5

Bistan da ezaugarri komuneko bat (ez bakarra): -IA(K) da hoskidetza eredurik erabiliena “Pizkunde-aurreko” bertsolari hauengan. Maiztasunari erreparatuta badira beste eredu batzuk, goiko koadroan ikus daitekeenez, oso erabiliak direnak, baina horien maiztasuna desberdina da bertsolari batetik bestera. Bertsolari batengan bigarren eredu izan daitekeena beste batengan laugarrena izan daiteke<sup>36</sup>. Hortaz, -IA(K) deitu dugun eredu hau, zalantzarik gabe garai hartako bertsolari guztiek maiztasun handienaz erabilia izan zen.

Erabilera ugari honen arrazoietako bat nominatibo kasua erabiltzeko aukera ematen duela izan liteke. Nominatiboa, kasurik zabalena da agian bere sinpletasunarengatik. Nominatiboaren alderdi kontzeptual sendoak ere bere garrantzia izango zuen. Eredu honekin sortutako bertsoak mezu kontzeptualen jabeak izaten dira eta baita ere kualitateen deskribatzaileak<sup>37</sup>. Alde batetik, badira izen batzuk **-ia** bukaera dutenak, azken **-a** hori organikoa izanik:

Habia (*kabia*), aria, lamia, Maria, Alemania, e.a.

Badira baita ere **-i** fonemaz amaitzen diren izen eta adjektibo asko. Izen horiei artikulua (singularra zein plurala) gehituz gero -IA(K) ereduko oinak sortzen dira: *mendia*, *handia*, *begia*, *eztia*, *egia*, *erromeria*, *pizita*, *sendia*, *hodeia*, *laia*, *anaia*, *zelaia*, *goia*, *bizia*, *hazia*, *jantzia*, *aldia*, e.a.

Beste aldetik, azken fonematzat **-i** bokala duten atzizkiek aukera ematen dute -IA(K) eredu sortzeko baldin eta artikulua marka gehitzen bazaie:

-GARRI: atsegingarria (*atsegingarrija*), maitagarria (*maitagarrija*), gurgarria (*gurgarrija*).

-(L)ARI: abeslaria (*abeslarija*), neurlaria (*neurlarija*).

-(K)ERI: zikinkeria (*zikinkerija*).

-(T)ERI: gazteria, langileria (bi adibide hauek ez dira Kepa Enbeitarengan aurkitu).

-(T)EDI: gaztedia (*gastedija* K061j).

-SI: eskasia (adibide hau ez da aurkitu).

<sup>36</sup> Adibidez, Kepa Enbeitaren bigarren eredurik erabiliena -NA(K) dugu. Eredu hau beste egileengan ordea, ez da bigarrena baizik eta bosgarrena, zazpigarrena edota laugarrena. -RA hoskidetza eredu, esate baterako, Txirrita eta Kepa Enbeitarengan hirugarren postuan dago, baina Xenpelar eta Pello Errotarengan laugarren eta seigarren postuetan.

<sup>37</sup> Urretxindorraren bertso asko errealitatea (kontzeptuala zein materiala) begiestearen aldekoa da, baita errealitateen zerrendatzea egitearen aldekoa ere. Horretarako ondo baino hobeto dator hoskidetza eredu hau, izenak eta adjektiboak oin hoskide bilakatzen dituenak: “Maite ditubez guraso zarrak,/ Maite asaben **lagijak**; / Uri, baserri, etxetxu zuri,/ Zelai, muru ta **mendijak**;/ Maite baratzak, itxaso zabal,/ Iturri eta **ibayak**/ Maite lenauko ekandu onak,/ Jantza ta jolas **garbijak**” (K036e); “Maitetasun au egikerakaz/ Gure gaste **txit argijak**/ Agertzen dabe; ikus nai daunak/ Zabal ipiñi **begijak**./ Eurak dira, ba, makildantzari,/ Eurak bai **abeslarijak**;/ Baña ez gero naizelakuak,/ Ezpada **goragarrijak**” (K036f).



- EZI: gabezia, malezia (bi adibide hauek ez dira Kepa Enbeitarengan aurkitu).
- ZI: justizia, malizia (bi adibide hauek ere ez dira egile honetan aurkitu).
- TZI: ausartzia, zahartzia (ez dira aurkitu).
- NTZI: merkantzia, sustantzia, sententzia (ez dira aurkitu).

### **-ija bukaeraz zerbait**

Ezaguna da Kepa Enbeitak bere bertso idatzietan Sabino Aranaren arauak jarraitzen dituela. Zehazki, eta hoskidetza eredu honi gagozkiola, Sabino Aranak jatorrizko **-i** bokalaren ostean beste bokalen bat izanez gero **-j-** epentetiko bat tartekatzen zuen idazkeran. Horrela, Mendebaleko zenbait lekutan gertatzen den fenomeno bat islatu egiten zen, eta era berean, halako bizkaiera batu bat proposatu egiten zen:

**J**: es además fonética por epéntesis media, intercalándose entre **i** y vocal subsiguiente: de **bi-ok**, **bijok** (los dos)<sup>38</sup>

Urretxindorrek Aranak proposatu bezala idatziko du kasu gehienetan. Salbuespenak gutxi dira eta euretako gehienak lehenengo urteetako bertsoetakoak. Esaterako, horrela atera zuen bertsoetako bat 1902. urtean:

Adi-erazoteko neure gurariak,  
Bide batez esango ditudaz egiak:  
Sakristauak dirade kristiñau zoliak,  
Entzungarriak, barriz, euren pikardiak. (K162l)

Baina geroagoko bertsoetan Sabino Aranaren legeriari atxikiko zaio. 1908. urtean jadanik **-j-** hizkia tartekatuko ditu bokalen artean. Ondorengo entresakaturiko adibideak *Aberrija* aldizkarian agertu ziren aipatutako urte hartan:

Jaunaren agindua  
**Ausijaz** batera, [...] (K082e)

[...] Jesus'ek gurari ain  
**Andijak** eukezan, [...] (K082f)

### **-EA(K) > -IA(K)**

Baina Bizkaiko bokalismoaren eraginez, berez eredu honetakoak izan behar ez lirakeen oin asko eredu honen barruan batu ditzakegu. Jatorrizko -EA(K) bukaera duten oin askok (ez guztiek) garapen fonetiko bat jasan dute Kepa Enbeitak erabiltzen duen hizkeran. Hori dela eta -IA(K) bukaera eman dute. Multzo horretan mota honetako hitzak biltzen dira:

<sup>38</sup> Arana, S., 1980, 879.

- Azken fonematzat **-e** bokala duten izen eta adjektiboak eta horri atxikirik artikulua (singularra zein plurala) daramatenak: habea, atea (>*atia*), hobia (>*obia*), lorea (>*loria*), jabea (>*jabia*<sup>39</sup>), gaztea (>*gaztia*), bidea (>*bidia*), maitea (>*maitia*), epea (>*epia*).

- Zenbait izenorde: nirea/ nerea (>*neria*), gurea (>*guria*).

- /-LE/ atzizkia gehi artikulua dituzten oinak: jeltzalea (*jeltzalia*<sup>40</sup>), jagolea (>*jagolia*),

- /-KUNDE/ atzizkia gehi artikulua dituzten oinak: berbizkundera (>*berbizkundia*).

- Artikuluz lagundutako zenbait adberbio: gabea (>*gabia*<sup>41</sup>).

- /-T(Z)E/ atzizkia gehi artikulua daramatzaten zenbait partizipio: abestea / abestutea (>*abestutia*), egitea (>*egitia*<sup>42</sup>), ibiltzea/ibiltea (>*ibiltia*), maitatzea/ maitatutea (>*maitatutia*), ikustea (*ikustia*), abestutea (>*abestutia*<sup>43</sup>).

Multzo honi dagozkio ere **-a** bokal organikoaz amaitzen diren oinak. Bizkaieraren bokalismoan, ezaguna den bezala, honelako hitzei artikulua gehitzen zaienean bilakaera hau ematen da: -A + -A > -EA<sup>44</sup>

alaba+a> alabea (>*alabia*<sup>45</sup>)

gauza + a> gauzea (>*gauzia*<sup>46</sup>)

Kepa Enbeitaren kasuan, -A+A fonemen gehitzeak -IA(K) emango du kasurik gehienetan. Kasu batzuetan ordea, -IE(K) bukaera emango dute. Azken

<sup>39</sup> “Euzkotarrak ixanik/ Baldin zeure **umiak**,/ Jarraitu badagije/ Euzkerarik **bagiak**,/ Geyau ein dautzulako/ Nagikeri **deungiak**,/ Zelan onetsiko zauz/ Gure Jaun ta **Jabiak**?”, (K041b).

<sup>40</sup> “Orrijak oritu ta/ zimeldu loriak;/ Txoriak mututurik,/ Illun-itxal goyak,/ Gripe’k jo dau etxaya .../ Zain ba, **jeltzaliak**, [...]” (K044a)

<sup>41</sup> “Margoz del txuri-gorria,/ Apal, on, pare **gabia**; / Gogo ta biotz jeltzale utsa,/ Euzkeldun olerkaria [...]”, (K169g).

<sup>42</sup> “Alperrik dan lez ur juanari/ Esigiñen **ibiltia**,/ Era berian alper litzake/ Gure euzkera zar **maitia**,/ Ilgo ba’litz bein, piztu dedilla/ Guk zarata **egitia**,/ Au jazo baño len, etsai ori/ Ausi daigun, ta **bakia**”, (K046a).

<sup>43</sup> “-Benetan nai bozue nik **abestutia**,/ Bertatik eingok pozik al dotan gustia”. (K033c)

<sup>44</sup> Xabier Amurizak bizkaieraren azpi-euskalkiak fenomeno bokaliko honen arabera sailkatzen ditu, hain zuzen ere hoskidetza nola erabili kontutan hartzeko: “Deklinabidearen arabera, EA, IA, IE azpi-euskalki daukaguz. EA: alabea, berbea, zapatea, prake, musikea, programea... egiten dabenak. Azpi-euskalki honek bizkaieraren Mendebalde hartzen dau, Arratiatik Uribe Kostaraino. IA: alabia, berbia, zapatia, prakia, musikia, programia... egiten dabenak. Azpi-euskalki honek bizkaieraren ekialdea hartzen dau, batez be Gipuzkoako bizkaieraren eremu guztia. IE: alabie, berbie, zapatie, prakie, musikie, programie... egiten dabenak. Honek bizkaierearen erdialdea hartzen dau: Durangaldea, Busturialdea, Lea-Artibai...”, Amuriza, 1996, 5.

<sup>45</sup> Adibide bakar bat aurkitu dugu oin honen aldaera honekin: “KEPA’K.- Len dituk lau seme ta/ Oin **alabia**,/ Pozik ago, Eukeni,/ Adizkidia.” (K170e)

<sup>46</sup> Adibide bakar bat dugu hemen ere: “[...] Idazki artan idazkun auxe./ ‘Kendu bei oni askia,/ emon egizko gosia,/ Auxe dalako lotsabakoai/ ein bihar yaken **gauzia**’ “, (K066i). Honelako joera lokalak ezagutzen zituen seinale da hau, bain argi dago ahal zela, saihesten saiatzen zela.

bukaera hau aldutzen da pixka bat Sabino Aranak proposatutako arau ortografikoetatik, eta kutsu lokalagoa du:

-E+ A(K) > IA(K) > IE(K):

etxea > etxia > etxie

galtzea > galtzia > galtzie

-A + A(K) > EA(K) > IA(K) > IE(K):

lotsa+a > lotsea > lotsia > lotsie<sup>47</sup>.

## 1.2. -NA(K)

Hoskidetza eredu honen barruan aldaki batzuk aurki ditzakegu. Ez goaz orain kasu posible guztien zerrenda egitera baina argigarri moduan aipa ditzagun aukera batzuk:

-(e)n<sup>48</sup> + determinatzaile singularra: -ena

**onena, doguna, dakartzuguna, gorena, urtena, itxaropena**, e.a.

-(e)n + determinatzaile plurala: -enak

**onenak, dabenak, dauzanak<sup>49</sup>, ekijenak, dabenak, geyenak<sup>50</sup>**.

-an edo -am bukaera duten izenak + determinatzaile singularra: -ana/-ama.

*Ama, dama, zama, zarama, labana, Ana, Susana, amama, buztana*, eta abar<sup>51</sup>.

Bestalde, badira -an edo -am bukaera duten izenak gehi determinatzaile plurala edo ergatibo marka singularrean: -anak/-amak.

<sup>47</sup> Hementxe daukagu salbuespen bakarra: “Amari baño aitari/ umiak **lotsie**/ askoz obetuago/ artuten **dautsie**./ Ta zeure erruz Jel-bide,/ sendi ta **etxie**./ tamalgarri litzake/ alperrik **galtzie**.” (K166e)

<sup>48</sup> -en atzizkia erlatiboazko juntagailua edo superlatiboaren marka edo jabego jenitiboaren marka, edo -men/ -pen atzizkien bukaera izan daiteke.

<sup>49</sup> “Pelotarijak gorenenguak,/ Ostikolari **onenak**./ Arieriyuan aurrian sarri/ Bildurra sartzen **dabenak**./ Idazlarijak ain ospetsubak,/ Alantxe lagi-**gixonak**./ Ama Euzkadi aldeztuteko/ Edonoz gertu **dauzanak**.” (K035j)

<sup>50</sup> “Oin urte batzuk geure ele maite/ “Euzkera” ez **ekijenak**./ Gaur dagoz ondo itz, idatzi eta/ Irakurriten **dabenak**./ Buruz argijak, bijotzez onak,/ Ibilten ankaz **onenak**./ Ije aratu dabez euzkeldun/ Erri ta mendi **geyenak**.” (K035k)

<sup>51</sup> Adibide hauek Xabier Amurizaren *Hiztegi Errimatua* liburutik atereak dira, izan ere bukaera hau duten izenekin egindako hoskidetza ez dugu aurkitu Kepa Enbeitarengan. Baina eredu honetarako oin posible hauek erakustea argigarri iruditu zaigu.

*Amak, damak, zamak, zaramak, manak, labanak, Anak, Susanak, amamak, buztanak* eta abar.

Ikusten denez, horrela sortutako oinen artean silaba bateko hoskidetza ez ezik (beltzez adierazitako hitzetan kasurako) silaba eta erdiko hoskidetza dugu: **onena - dabena - urtena** edo **ekijenak - geyenak**.

Hoskidetasun mota honetarako ere izenen arloak aukera ugari ematen du. Horretarako lagungarriak dira izenak eratzeko balio duten atzizkiak:

-men(a)(ak)/ -pen(a)(ak)  
- sun(a)(ak)

Era berean, atzizkietara jo behar izan gabe, badira **n** edo **m**-ez amaituriko izen ugari euskaraz: eguna, laguna, *auzuna*, erresuma, iduna, eta abar.

Horrela hoskidetasun kontsonanterako egokiera sortzen da.

Bestaldetik adierazi beharra dago **-na** eta **-ma** bukaerak guztiz hoskidetzat ematen direla Kepa Enbeitaren bertsozintzan.

Zara euzkeldun bitartekua,  
Josu'ren ta geure **Ama**:  
Naibagetsuen atsegiña Zeu,  
Osakillerik onena;  
Zeuk dakizu, bai, osatzen ondo  
Geixo luziaz dauana.  
Uste osuaz augaitik gatoz  
Euzkel-Erritik Zeugana,  
Otoika, arren, ba osatu daizun  
Ama Euzkadi laztana. (K043a)

Ene Aberri maite laztana,  
Garbi, samur ta ona zarana:  
Bijotz, gogo ta neu nazan dana  
Jauna'ntzako ta zeuretzat, **Ama** [...].(K038e)

Kepa Enbeitak eredu hau erabiltzean ikusten da saihesten duela errima kategorialera jotzea. Saiakera horrek, ordea, ez du lortzen erabateko errima kategoriala, izan ere ez da arraroa izaten, adibidez zortziko baten, kategoria bereko bi oin egotea, beste biak beste kategoriakoak izanik. Zenbait kopletan ere, kategoria berean oinarritutako hoskidetza egon badago eta kasu horietan badirudi Kepa Enbeitak hobetsi egin duela mezua transmititzea, estilistika<sup>52</sup> kontu bat zaintzea baino. Egindako inkestaren oinak zenbait kategoria desberdinei dagozkie:

Aditz jokatuak: *dabena, dotena, daustena, dakartzaguna*, e.a.  
Adjetiboak: *kutuna, txukuna, illuna, laztana, biguna*.  
Izenak: *gixona, ama, eguna, laguna, lana*.

<sup>52</sup> Idazkeraren eragina duen estilistika, hain zuzen.

Atzizkiekin sortutako izenak eta adjektiboak:

- men: *almena*, *kemena*, *naimena*
- ena (superlatiboa): *gorena*, *urtena*, *onena*, *zarrena*
- (r)ena (genitiboa): *baserritarrena*
- (s)una: *osasuna*, *zentzuna*, *aberastasuna*, *batasuna*, *etorkizuna*,  
edertasuna
- duna: *euskalduna*, *zorijonduna*
- na (distributiboa): *bana*
- (ren)gana: *amagana*

Eredu honetara ailegatzeko bide ugari ditugu, ikus daitekeenez, eta honek hain zuzen azaltzen du hoskidetza mota honen oparotasuna bai Kepa Enbeitarengan eta bai beste bertsolariengan ere<sup>53</sup>.

Hortaz, bertso barruan -zortziko batez ari garelarik, esate baterako-kategoria bereko bi oin aurki ditzakegun arren, hiru oin kategoria berekoak nekez aurkituko dugu. Antzera gertatzen da koplekin: gehienetan koplak bereko oinak ez dira kategoria berekoak izaten, salbuespenen bat kenduta.

Osasun indartsuak  
beragaz dau kemena  
lazeria malmutza  
menpetu al dabena. (K050f)

Geure Zaindari zaran ezkerro,  
Mikel Goitar Gongotzona,  
Aralar goyan irain-sugiai  
burua ebai zeuntsana  
Todosi Goñi estuntzetatik  
azkerik jarri zenduna  
Euzkadi'ri be lortu yozu, ba.  
egizko Azkatasuna! (K055k)

Arestian ikusi ahal izan denez, eredu honek ahalbideratzen du neurri handi baten izen eta adjektiboekin egindako hoskidetza. Horrela errepikatzen diren oinen sareak sortzea ez da zaila izaten, eta zenbait kasutan, egitura kontzeptualak eratzen dira, antzerako gai eta egoeretan erabil daitezkeenak. Esate baterako, nabarmentzekoa da *onena*, *gorena*, *almena*, *urtena* eta *itxaropena* oinekin egindako sarea, orden berean errepikatzen dena zenbait bertsoetan:

Donokijan ta ludijan zaran  
Ama danetan **onena**  
Garbitasunan ispillua ta  
Onoidadetan **gorena**;

---

<sup>53</sup> Balendin Enbeitaren bertsogintzan ere nahiko eredu erabilia da. Arestian aipatutako 200 bertso inkestan maiztasunaren ikuspuntutik laugarren eredu dugu beste hiru eredurekin berdinduta. Txirritaren bertsogintzan oso eredu erabilia da, mota bereko inkesta bat eginda gero bosgarren postuan dagoen eredu dela ikusita.

Jakituriaz daukozu, barriz  
 Azken bagako **almena**.  
 Zu Benartetxu Zubiruz'ari  
 Aitz-zilo ortatik **urtena**,  
 Zu euzkeldunen maitalarija,  
 Zeu geure **itxaropena**. (K033h)

Zeruan eta lurrian zara  
 Ama benetan **onena**  
 Garbitasunen ispiIlua ta  
 Onoidadetan **gorena**  
 Jakituria daukozu, barriz  
 Azken bagako **almena**,  
 Zeu zara gure bitartekua,  
 Zu gure **itxaropena**. (K089c)

Zeu zara, Miren Neskutz Garbijoi,  
 Ama danetan **onena**  
 Garbitasunen antzikurra ta  
 Egimenetan **gorena**:  
 Altasunian daukozu, barriz,  
 Azken bagako **almena**.  
 Zeu Zubiru'tar Bernartetxu'ri  
 Arkaitz-leyotik **urtena**...  
 Zeu euzkeldunen bitartekua,  
 Zeu gure **itxaropena**. (K077a)

Hiru bertso hauek Ama Birjinari eskainitakoak dira, garai desberdinetakoak hirurak. Lehenengo bertsoa, egilearen hitzetan, amestutakoa<sup>54</sup> izan zen, hau da, ametzezko egoera baten bururatu zitzaiona geroago berak paperetaratu eta argitaratua *Euzkadi* aldizkarian, 1913an.

Bigarren bertsoa "Mayatzen Amari" izenburua duten bi bertsoetatik bat dugu. Non argitaratua eta noizkoa den esaten ez zaigun arren, 1916an idatzia izan zela suma liteke, garai hartako bertso sortekin batera agertzen baita *Gure Urretxindorra* liburuan.

Hirugarren bertsoa 1933an argitaratua izan zen, *Euzkadi* aldizkarian ere, Euzko Gaztediaren ekitaldian azaltzen dituen artikulu baten.

Gai bereko hiru bertso beraz, hirurak Ama Birjinari eskainitakoak. Badirudi gorazarre bertso hauetan bertsoaren egitura eta oinen morfologia eta semantika loturik doazela.

## 1. eta 2. puntuak

---

<sup>54</sup> Horrela azaltzen du gertakizun hau koplaka: [...] Ixildu giñanian une txiki baten/ Orra Sabin'ek neuri nun deituten dausten:/ "Jeltzale itz-neurlari Enbeita'tar Kepa,/ Erdu, zeugaz puskaten egon nai dot-eta"/ Au entzun nebanian, atsegintsu arin/ Laztandu giñan alkar Kepa eta Sabin / Ta diraust: "—Eingo zeunke, Kepa, neure esana?"/ "—Bai, Sabin; agindu zeuk nigaz gurozuna."/ "—Abestuxuz, ba, ointxe itz neurtu barrijak/ Betetako Miren ta nire gurarijak."/ "—Benetan nai bozue nik abestutia/ Bertatik eingok pozik al dotan gustia."/ Miren eta Sabin'en naya egitiarren/ Asi nintzan abeska onelan, pozarren: [...], Onaindia, 1971, 33.

Lehenengo puntuan, apelazio bat dugu, bokatibo bat tartean dagoela eta bigarren lerroan deskripzio labur bat. Deskripzio horretarako gradu superlatiboan dagoen adjektibo bat erabiltzen da: **onena**. Ama Birjinaz ari delarik, ez da nahikoa goi mailako aditzondo bat erabiltzea, **oso** adibidez (*oso ona*). Mailarik gorena behar da eta hori superlatiboarekin lortzen da. Bigarren puntuan deskripzioari jarraipena ematen zaio eta puntua beste gradu superlatiboan dagoen adjektibo batekin ixten da: **gorena**. Egileak Ama Birjinarekiko duen begirunea eta lotsa bertso hasieran adierazita dago horrela, eta adierazpen honek ematen dio bertsoari giro berezia, gorazarre xamur bat adierazteko giro egokia.

### 3. (eta 4.) puntua(k)

Hirugarren puntuan berebiziko garrantzia dauka oin honek: **almena**. Bertsoaren lehenengo zatian Ama Birjinaren izaera goraiipatzen bazen, orain berak duen ekintzarako gaitasun erabatekoa gogora ekartzen da. Badirudi arimaren edertasuna ez ezik, ekintzen egokitasuna ere azpimarratu nahi dela. Hau Enbeitarren joera etengabea da: bitartasuna behin eta berriz azaltzearena hain zuzen<sup>55</sup>.

#### Azken puntua

Azken puntuari beste kontzeptu borobil baten bidez ematen zaio bukaera, **itxaropena** kontzeptuarekin hain zuzen. Beti ere bigarren pertsona erabiliz, Ama Birjinari zuzendurik (otoitzaren estiloan), eta bertsoan zehar esandakoa sustraitzat harturik, Ama Birjina den solaskide horretan jartzen du egileak bere uste on osoa, une horretakoa eta etorkizuneko ere bai.

Hoskidetza eredu honen barruan **itxaropena** oinari azken punturako erabilgarria erizten dio Kepa Enbeitak. Beste zenbait bertsoan ere azken puntuetan izen hori erabiltzen du ointzat:

[...] Azkatasundun eguzkija da.  
O geure **itxaropena**! (K048j)

[...] Ikusi daizun eztala galdu  
Zuk zeukan **itxaropena**. (K051h)

*Itxaropena* oinak idealismo baten betikotasun eta iraupen desioa adierazten du, edo adieraz lezake. Kasu honetan hoskidetza ereduak berak erakusten digu Kepa Enbeitaren idealismo zentzua: horrela frogatzen da hoskidetzak semantikarekin eta ondorioz ideologiarekin duen lotura<sup>56</sup>. Oin

<sup>55</sup> Zerrendaketetan ere bitartasunaren joera izugarria dago Kepa Enbeitarengan: "**Uri eta baserri, etxe ta baratza/** eusko emakumiak beti bere antza/ **lanian, jolasian, itzez ta egitez/** gure emakumak baño zintzoagorik ez", Onaindia, 1971, 145.

<sup>56</sup> Errima kontzeptua bertsoaritzarako beti egokia ez den arren, zenbaitetan hoskidetzarekin harremanean egon daiteke. Jehan Cohen kritikoak horrela azaltzen du errimak semantikarekin duen lotura: "Lo cierto es que la rima no es un instrumento, un medio subordinado a otra cosa. Es un factor independiente, una figura que se añade a las demás. Y como la de éstas, su verdadera función sólo aparece al ponerla en relación con el sentido", Cohen, 1977, 77.

honekin ikusi dugun bezala, azken puntuaren oinak kontzeptu mamitsu bat izateko joera dauka, *-suna* atzizkiak eskaintzen duen aukera aprobetxatuz. Itxaropenaren arlo semantikoaren barruan, *etorkizuna* oina dugu, azken punturako erabilia:

Mendi ertzetik agertu yaku  
Eguzki zorijonduna,  
[...] Alde orotan zabaltzen daula  
Zorijon **etorkizuna**. (K057k)

Argija noz juango  
Zain dago illuna;  
Gau baltzaren ondoren  
Yatorku eguna.  
Oi, zenbat maitatzen dan  
Maite dan Kutuna!  
Osuan indartsu da  
Bijotz-**maitasuna**. (K050m)

Badago beste oin sare bat aipatzea merezi duena. Xamurtasun eta amatasunaren arlo semantikoarekin zerikusia dauka neurri handi baten.

Ene Aberri maite **laztana**,  
Garbi, samur ta ona **zarana**:  
Bijotz, gogo ta neu nazan **dana**  
Jauna'ntzako ta zeuretzat, **Ama**. (K038e)

Ezagutu daigun, ba,  
danok geure **Ama**,  
eta emon maitezko  
laztan gozo **bana**.  
Jel-bidez beti zintzo  
egin daigun **lana**,  
zoriondu dedintzat  
Euzkadi **laztana**. (K057i)<sup>57</sup>

Maite-maite zaitugun  
anaya **zarrena**,  
Ikusirik gugandik  
aldentzen **zarena**...  
Negar-zotinka gagoz  
geu ta zure **Ama!**  
Zatorz, ba, anai maiteoi,  
geukin **Amagana!** (K058c)

Seme-alaba orok  
Ezauturik **Ama**,

---

<sup>57</sup> Arestian agertu den bezala, badira Urretxindorraren zenbait bertso berdin-berdinak direnak, bertso-sorta desberdinetan agertu arren. Honen parekoa hauxe da: “Ezagutu daigun, ba,/ Danok geure Ama, Eta emon ziñezko/ Besarkada bana./ Jel-bidez zintzo-zintzo/ Egin daigun lana,/ Zorijondu dedintzat/ Euzkadi laztana” (K070f).



Emon dagijentzat  
Maitezko **lantzana**. (K058ñ)

Bertso hauetan ikus daitekeenez, **ama** eta **lantzana** dira sarrien agertzen direnak, bion artean sare semantiko bat osotzen delarik. Gainontzeko oinak eta esaldiak sare horretan oinarritzen dira. Ama horrek aberria eman lezake aditzera, edo lurreko ama, edo Ama Birjina. Kontua da, amatasunean sustraitzen dela Kepa Enbeita, errespetu osoa eta era berean maitasun adierazpenak merezi dituen kontzeptua goraiatzeko.

### 1.3. -RA

Hoskidetza eredu honi dagokionez, *Hiztegi errimatua* kontutan hartuz gero, bukaera hauek lirake hoskide:

-BA/ -DA/ -GA/ -RA<sup>58</sup>

Pello Esnalek dioenez ere, goian aipaturiko silabak baliokidetzat har daitezke<sup>59</sup>.

Hala ere Kepa Enbeitaren bertsoetan ez da kontsonanteen arteko hoskidetza hau kontutan hartzen eta bakarrik -RA bukaera dutenak hartzen dira hoskidetzat eredu honen barruan.

Txirritaren bertsoetan, ostera, b-d-g-r kontsonanteen arteko hoskidetasuna kontzientzian dauka eta noizean behin, oso gutxitan hala ere, horrela erakusten du:

Ai, gure biyotzeko  
Aita Orkol**aga**,  
beraren eskutikan  
ez gaitzala **laga**.  
Orain bezela zaitu  
eguna ta **gaba**,  
berriz itxasu ortan  
ez gaitezen **traba**,  
bedorren talentuba  
gauza biarra **da**.<sup>60</sup>

Edo

Orra amabi bertso

<sup>58</sup>"Kontsonante batzuk kideak edo antzekoak dira. Familia bat egiten dute. Beste batzuk bakarrak dira, ez baitute ahaide hurbilik. Hona nola ordenaturik doazen sail nagusiok:

1) B-D-G-R. Azken silaban kontsonante hauetariko bat daramaten hitzen saila. Sail honen barruan anitz sailtxo dator: BA-DA-GA-RA; BE-DE-GE-RE; BI-DI-GI-RI; BO-DO-GO-RO; BU-DU-GU-RU; RBA-RDA-RGA; RBE-RDE-RGE; eta abar. Anitz sailtxo, baina denak kontsonante horien induruan", Amuriza, X., 1997, 15.

<sup>59</sup>"Kontsonanteen artean soilik gertatzen dira hoskidetzak. Honako hauek dira, hain zuzen, kontsonante hoskideak:

-**b**, **d**, **g** eta **r**: **traba**, **bada**, **laga**, **hara**", Esnal, P., 1994, 1329.

<sup>60</sup>*Txirrita*, Zavala, 1992, 291.

zakurrari **para**,  
 amaika eskale xarri  
 eman diyo **ikara**;  
 asarretzen zanian  
 beltza zuen **kara**,  
 aiek daukate poza  
 illa baldiñ **bada**.<sup>61</sup>

Kepa Enbeitarengan, ostera, nekez nahastuko da **-r-** kontsonantea beste motatako kontsonanteekin. Egindako berrehun bertsoko inkestan behintzat, adibide bakar bat aurkitu dugu<sup>62</sup>. Horrela egiten du normalean:

Gogo gayetan jarraitu daigun  
 Udabarritik **Udara**,  
 Negu txerrena baztaturik or  
 Jauna'k nai daben **erara**;  
 Goi-Baratzako lore artian  
 beti onetik **obara**  
 Eta egizko udazaliak  
 Orduan ixango **gara**. (K139h)

Nahiz eta **-r-** kontsonantea beste kontsonanteekin ez nahastu, noizbehinka **-rr-** bikoitzarekin nahasten du:

Nire amatxuk, Jaun-maitasunez,  
 Bideoi aldapa **gora**  
 Uste dot zuzen jarraitu daula  
 Arturik neke **gogorra**.  
 Urtzi'k beria eban ta Berak  
 Deitu dau Bere **ondora**.  
 Egin bedi, ba, Jauna'ren naya.  
 Eskerrik asko, "**Zidorra**". (K204f)

Hoskidetzak silaba eta erdikoa izateko joera dauka gehienetan, aurreko bi adibideen antzera.

Hoskidetza eredu honen barruan hiru azpi-eredu nagusi dauzkagu Kepa Enbeitaren bertsogintzari dagokionez: **-era/ -ira/ -ara**

### **-ira**

Iñora baño len agertzen da  
 Eguzkija be **mendira**;  
 Txori-abesti eztitsubenak  
 Mendijan entzuten **dira**:  
 Euzkera zarra mendijan dago  
 Jaungoikuari **begira**,  
 Bere erruki-zain noz biurtuko

<sup>61</sup> Ibidem, 478.

<sup>62</sup> Hauxe da adibide hori: "Urijetatik bidaldu eben/ Euzkerea **basarrira**;/ Uri ondoko baserritik be/ Bultza-bultzaka **mendira**../ Beerantz jasteko lotsa, bildurrez,/ Aspaldi antxe **bixi da**./ Eta ni emen gau eta egun/ Neure maitiai **begira**" (K144i).

Barrero lengo tok**ira**. (K144h)

### **-era**

Abots onexek zuzentzen gaituz  
Agizko lagi-**bidera**,  
Eta bertatik aurrera guaz...  
Aurrera beti **aurrera**!  
Aurrera, beti **aurrera**! (K054j)

### **-ara**

Gogo gayetan jarraitu daigun  
Udabarritik **Udara**,  
Negu txerrena baztaturik or  
Jauna'k nai daben **erara**;  
Goi-Baratzako lore artian  
beti... onetik **obara**  
Eta egizko udazaliak  
Orduan ixango **gara**. (K139h)

Ez da sumatzen oinen sare berezirik, nolabaiteko sare semantiko bat osatzen dutenak.

## **1.4. -TSA(k)**

Bertso barruko oinak eredu honen barruan silaba bakarreko hoskidetzan daude soilik (salbuespen batzuk izan ezik). Normalean azken silaba aurreko bokala ez da hoskidetzan sartzen, bertso osoan zehar behintzat (baliteke lau oinetatik bik silaba t'erdiko hoskidetza izatea).

Eredu honetan bi bukaera mota ditugu: bata **-a** bokalaz eta bestea **-k** edo **-t** kontsonanteez. Biak eredu beraren aldakitzat hartu ditugu; izan ere, oinak kasu askotan berberak izaki, aldaki batean artikulatu singularraren markarekin doaz eta besteak artikulatu pluralarekin:

*bijotza/ bijotzak*  
*jayotza/ jayotzak*  
*zugatza/ zugatzak*  
*ekatxa / ekatxak*  
*baratza / baratzak*

Argi dago, bestalde, oin batzuk **-TZAK** aldakiari bakarrik dagozkiela, erabiltzen duten atzizkiak horretara behartzen dituelako (**-tzat** atzizki prolatiboa, **-(ren)tzat** atzizki destinatiboa, eta bizkaierazko zer-nori-nork adizkiak, nik-hari paradigmakoak hain zuzen ere):

*saritzat*  
*eredutzat*  
*zuretzat*  
*dautsat* (K087e)  
*dirautsat* (K071a)

Badira oin batzuk errepikatzen direnak: *bijotza*, *jayotza*, *bixitza*, *baratza*, e.a. Haien artean nabarmentzen da *bijotza* oina, sentiberatasunaren munduari erreferentzia eginez. Metonimia adibide honek esanahi eta egoera aunitzetarako balio du, eta oso ukitu poetiko arrunta duen arren, erreferentzia bat egiten dio egilearen afektibitate munduari eta horrek lirika giroa sortzen du. Kutsu klasiko samarra duela esan dezakegu, batez ere konturatzen garenean *bijotza* dela ia-ia beti barne mundua eta borondatearen atxikimendua adierazteko erabiltzen den hitz bakarra.

*Jayotza* oina ere behin baino gehiagotan agertzen da egindako inkestan. Hona hemen adibide bat:

(Euzko Aldun gustiei)  
 Ikusi dogu aspaldietan  
 Itxaroten zan **jayotza**  
 Donostin jayo Iruña'n laster  
 Ospatuko da ugutza  
 Aur oni emon biar dautsogu  
 Kutsurik ez daun ugutza<sup>63</sup>,  
 -Aundi kementsu azi daitezán  
 Onen gogo ta gorputza  
 Au lortuteko senide orok  
 Egin dayogun laguntza . . .  
 Eta eskier izango dogu  
 Zorioneko garaitza! (K053g)

Ekintza bat kontzeptualizatu egiten da *jayotza* izen honekin. Baina nahiko zehatza den ekintza hau (ugaztunen kasuan gizaki edo izaki bat amaren sabeletik ateratzea alegia), beste zerbaiten abstrakzio<sup>64</sup> baterako erabiltzen da:

<sup>63</sup> Birritan agertzen da "Ugutza" hitza bertso berean. Aurrenekoan "bataio" hitzaren baliokidetzat har dezakegu. Bigarrenean "ugatza" hitzaren aldaera bat delakoan gaude, Kepa Enbeitak horrela erabakita.

<sup>64</sup> Hau da gazteleraz "abstraer" aditzaren esanahi bat: "Separar por medio de una operación intelectual las cualidades de un objeto para considerarlas aisladamente o para considerar el mismo objeto en su pura esencia o noción", R.A.E., 1996, 14.

Walter Ong-ek ahozko kulturetan abstrakzioaren erabilera iruzkintzen du eta hauxe esaten du: "Todo pensamiento conceptual es hasta cierto punto abstracto. Un término tan 'concreto' como 'árbol' no se refiere simplemente a un árbol 'concreto' único, sino que es una abstracción, tomada, arrancada de la realidad individual y perceptible; alude a un concepto que no es ni este ni aquel árbol, sino que puede aplicarse a cualquier árbol. Cada objeto individual que llamamos 'árbol' es de hecho 'concreto', simplemente él mismo, no 'abstracto' en absoluto, aunque el término que empleamos para el objeto aislado es abstracto en sí mismo. No obstante, si todo pensamiento conceptual es hasta cierto punto abstracto, algunos usos de los conceptos son más abstractos que otros.

Las culturas orales tienden a utilizar los conceptos en marcos de referencia situacionales y operacionales abstractos en el sentido de que se mantienen cerca del mundo humano vital", Ong, 1987, 54-55.

zerbaiten sorrera adierazteko<sup>65</sup> hain zuzen ere. Hortaz, izen metaforiko bat erabili du erakunde baten sorrera adierazteko. "Sorrera" kontzeptua giza bizitzarekin zerikusia duen *jayotza* terminoarekin adierazita dago. Jaiotza ekintza mota bat da, baina kasu honetan ez dio erreferentzia egiten jaiotza jakin bati (esan nahi baita, une eta leku jakin baten gertaturikoa), jaiotza kontzeptualizatuari baino. Ondoren kontzeptu abstraktu horrek metaforizazioa jasan du, bertso osoan beste elementuekin gertatzen den legez, alegia bat sortzen delarik.

*Baratza* oina ere sare semantiko baten osagaia dela dirudi, behin baino gehiagotan agertzen baita. *Baratza*, berez, landatar munduko irudigintzan ondo errotzen den irudi bat da, eta era berean ugaritasun zein emankortasun kontzeptuei loturik joan dakeken irudia ere bada. Baratzaren emankortasun edo antzutasun horrek baserritarraren barneari eragiten dio eta horregatik ez da arraroa bertso berean *bijotza* oina agertzea, barne sentimendu horri erreferentzia eginez. Alegia bilakatutako bertsoetan, beraz, bi oin hauek nolabaiteko lotura erakutsiz agertuko dira:

Bañan zireanakin  
Egiñik bikoitza,  
Sorturik loretegi  
Maitegarri utsa,  
Ugaritzen bai-dala  
Euzkeldun **baratza!**  
Onen usain gozuak  
Ipiñiko dautsa  
Ama Euzkereari  
Poz-pozez **biotza**. (K140d)

Udabarriak bialtzen daun lez  
Bultz-eginda negu baltza  
Zugatz billoxak orriz jantzirik  
Loraz apaindu **baratza**,  
Erdalckerijak zikindu eben  
Aberrijaren **bijotza**  
Garbitu eta loraz ianzteko,  
Noz elduko da laguntza?... (K144j)<sup>66</sup>

Zugatz ta lorak itun dakustaz  
Negarrez dago **baratza;**

<sup>65</sup> Bertso hau argitaratu zeneko garaian Euskal Estatutua garatzen eta bozkatzeko ari zen. "Donostiako Ituna" edo "Pacto de San Sebastián" delakoaren bitartez "Sociedad de Estudios Vascos" izenekoak proiektu bat aurkeztu du eta Udalen Biltzarrak onartzen du. Hurrengo pausoa Lizarran ematen da eta bertan Euskal Estatutua onartzen da. Nafarroako Gorteetan ere hango Diputazioak udalei luzatzen die bilerarako gonbidapena eta, baldintza batzuk jarritz, euskal estatutua onartu zen. Estatu mailan, ostera, atzera bota zuten proiektu hori eta beste baten ordezkaria izan zen (García de Corazar, F., Donostia, 1994, 211-213).

<sup>66</sup> Honen kopia moduko bat agertzen da beste bertso-sorta baten, "Laguntzaletu mutillak!" izenekoan hain zuzen: "Udabarriak dibaltzen daun lez/ Bultz eraginda negu baltza/ Ta orriz jantzi zugatz billoxak,/ Lorak apaindu baratza/ Erdalckerijak zikindu daben/ Euzkel-Errijen biotza/ Garbitu eta loraz janzteko/ Sortu da 'Euzkel-Laguntza'" (K067d). Joera hau hiru adibidetan ikusi dugu dagoeneko.

Beren maitia galdu daulako  
 Erdibiturik **biotza**.  
 Ixil zaiteze txuntxun-txistuak  
 Baña ori, zer dala-ta?  
 Ixildu eta negar eixue,  
 Urretxiñola il da-ta! (K042f)

### 1.5. -IAN

Eredu hau nolabait -IA(K) ereduaren luzapena da, izan ere, oinen erro berberak erabilita artikulua plurala ala inesibo kasua gehitzearen arabera eredu bateko ala besteko oinak sortuko zaizkigu.

Bestaldetik, eredu honetan inesiboa da erabiltzen den kategoria nagusia.

Zenbaitetan, denborazko perpausen -NEAN atzizkian oinarritzen da hoskidetza, fonetikoki bokalismo itxuraldatuarekin -NIAN atzizkia geratzen zaigularik:

dabenean > dabengan  
 ditudanean > ditudangan  
 denean/ danean > danian

Nagusiki hoskidetza inesiboan oinarritzen denez, hoskidetza kategoriala dugula esan genezake<sup>67</sup>.

Eredu honetara inesiboaren bidez ailegatzeko, eta oinen erroa kontutan hartuz, hiru oin mota bereizten dira:

a) Erroaren azken fonematzat **-i** bokala dutenak:

erdi + an > erdijan  
 aberri + an > aberrijan  
 erri + an > errian/ errijan  
 mendi + an > mendian/ mendijan  
 alderdi + an > alderdijan

Ikusten denez, -ijan bukaera nagusitzen da, nahiz eta zenbait oinekin (*errian-errijan/ mendian-mendijan* adibidez) aldaera bi onartzen diren. Sabino Aranaren grafia onartzearen ondorio bat da. Honetaz -IA(K) ereduaz aztertzean mintzatu ginen.

---

<sup>67</sup> Hoskidetza kategoriala baldin bada beraz, bertso barruko puntuak oso antzerakoak izango dira itxuraz behintzat. Itxura antzerakoa izanik semantikaren operatibitatea ere molde estuegietan sartuta egongo da eta aberastasuna galduko du. Horrela deskribatzen du Jehan Cohen ikerlari eta kritikoak: "Como se sabe, las palabras se clasifican en categorías morfológicas: nombres, adjetivos, verbos, etc. A estas categorías gramaticales responden categorías semánticas: el nombre designa la substancia; el adjetivo, la cualidad; el verbo, el proceso; etc. Cualquiera que sea su sentido, las palabras pertenecientes a la misma categoría guardan, pues, un fondo de significación común. Por tanto, si el verso obedece verdaderamente al principio de no paralelismo, se puede prever que evitará la rima entre palabras de la misma categoría, previsión ésta que efectivamente confirma la historia", Cohen, 1977, 82.

Iru mendi biribil andiren **erdiijan**  
Dago Antzoki eder baten **irudijan** (K086)

Jaupari aldrea andi bat gustijen **erdiijan**,  
Eun da iru ikurrin aurreko **alderdiijan**. (K032c)

[...] Erdel-erriijan erderaz eta  
Euzkeraz euzkel-**erriijan** [...] (K051c)

[...] Euzko-Abenda, barriz,  
geure **Aberriijan**!! (K057a)

Abesti on bat neban entzun **durundiijan**  
Aingeruena zala berak **zirudijan**! (K032b)

b) Erroaren azken fonematzat kontsonante bat bokala dutenak eta beraz inesibo kasua gehitzean -EAN eman beharko luketenak baina mendebaldeko bokalismoaren eraginez -IAN ematen dutenak.

biotz + ean > biotzian  
bakoitz + ean > bakotxian  
lur + ean > lurrian  
ezker + ean > ezkerrian  
lan + ean > lanian  
ondoren + ean > ondorenian  
zabal + ean > zabalian  
bat + ean > batian

[...] Bestetan lez ogera juanda **gabian**  
Ta bertan erdi-lotan jarri **nintzanian**, [...]

Leyora urten nintzan entzunaz **batian**,  
Ta erromesak nekusan bidiak **betian**. (K032b)

Baita be dakust Jel-ikurriña  
Jasorik mendi **ganian**  
Belaunbikotu dirala danak  
Gurutza deunan **aurrian**.  
Otoi eginda, dana axetara  
Zabal jarri **dabenian**  
Didar ein dabe: "Gora Euzkadi!"  
Osperik **andijenian**. (K035e)

c) Erroaren azken fonematzat -e bokala dutenak. Inesibo kasua gehitzean eta Mendebaleko bokalismoaren eraginez -EAN bukaera -IAN bilakatzen da.

aurre + an > aurrian  
une + an > unian  
ele + an > elian

alde + an > aldian  
maite + an > maitian

Eredu honen aldaki bat -IEN litzateke, beti ere mendebaldeko euskalkiaren bokalismoak eraginda, eta honela azal daiteke: -EAN > -IAN > -IEN:

etxean (> *etxian* > *etxien*), arratsean (> *arratsian* > *arratsien*), hutsean (> *utsian* > *utsien*), batzean (> *batzian* > *batzien*), eskatzean (> *eskatzian* > *eskatzien*).

Hona hemen azpi-aldaki honen zenbait adibide:

Lau bertsolari dagoz Jauri'ko **etxien**,  
bat askan ta bi kortan, bestat **eskatzien**;  
bi abillenak dabiltz esnia **batzien**,  
Manu asarratzen da golpe **bakotxien**:  
koplak ugari, baña, pitxerra **utsien**.  
Esnezko aparirik eztau **arratsien**! (K162a)

Kamiñotik urrian  
Txito **aldatzien**  
Dakit bixi zarena  
Baserri **etxien**.  
Ze borondate dagon  
Zure **biotzien**  
Jakitera ba-nator  
Domeka **illuntzien** (K015)

Badira beste hoskidetza eredu batzuk orain arte erakutsitakoak baino maiztasun gutxiagokoak direnak baina nolabaiteko izaera eta presentzia nabarmena dituztenak. Horien artean hauek bereiziko genituzke:

### 1.6. -TAN

Eredu honek inesiboaren marka batzuk biltzen ditu bere baitan. Alde batetik inesibo mugagabearen marka (lotan, onetan) eta bestaldetik inesibo pluralaren marka (*amesetan*, *gauzetan*, *danetan*, *ezteguetan*, *guztietan*, *oñetan*, *atzamarretan*, *zanetan*, e.a.) .

Baliteke ere oinaren erroak azken silabatzen -**ta**/ -**ka**/ -**pa** bukaera izatea. Kasu horietan -**n** inesiboaren marka gehitzearekin nahiko da hoskidetza eredu honi egokitzeko:

*Sukarrietan*  
*Gernikan*  
*benetan*



Nabarmentzekoa da badirela oin batzuk errepikatzen direnak. Bereziki *benetan* eta *danetan* oinak azpimarratuko genituzke. Bikote honek oinen bi katebegi osatzen dutela ematen du, ez bakarrik oso hoskideak direlako, baita semantikoki elkarren osagai direlako, edo behintzat Kepa Enbeitak elkarren osagai bihurtu dituelako.

Etorri gara danok alkarraz  
Maite garala **benetan**,  
Auzpaztu eta mun egitera  
Miren'i beren oñetan,  
Dirautsogula: "Lagun zakiguz  
Gure premina **danetan**,  
Eta ezkaizuz arren, ba, itxi  
Etsayen atzamarretan  
Jarraitu daigun zeugaz Euzkadi'n  
Lagi zuzenak gordetan. (K033d)

Geure asaba zarren odola  
Daukagun arte zanetan,  
Agertu daigun euzkeldun antza  
Geure arazo **danetan**;  
Euzkera zarra egarriz ito  
Ez dein legorte onetan,  
Egarri ori ase dayogun  
Maite ba'dogu **benetan**. (K044n)

Ziñopearen abotsa, baña,  
ezilkorra da **benetan**,  
Geure goguan darabilguna  
ordu ta une **danetan**,  
Ordu ta une danetan. (K054h)

Gaur baserriko etxetxu zuri  
Etarte zabaldunetan  
Santa Ageda'n sari ederrak  
Emon dauskuez **danetan**;  
Au ez diñogu olgetan,  
Ezpabe zigur **benetan**;  
Ez dogu, barriz, gitxiagoren  
Usterik etxe onetan. (K090g)

*Benetan* oina *egitan* oinaren sinonimoa da eta adberbio hura erabiltzean badirudi ekintza bat erabateko egia, sinesgarritasun eta koherentziaz burutzen dela. Koherentzia kontzeptua tartean baldin bada, *benetan* hori egoera guztietan (*guztietan*, *danetan*) nabarituko da. Horra hor beraz, *danetan* oina agertzearen arrazoi bat, *benetan* oinari loturik hain zuzen. Azalpen honek sakoneko lotura semantiko baterako balio du, baina goian erakusten diren bertsoetan azpiko lotura hori agian ez da horren nabarmena. Hala ere, lotura badela uste dugu.

### 1.7. -(R)IK

Nabarmentzekoa da baita ere -(R)IK izendatu den hoskidetza eredia. Erabilera-maiztasunari dagokionez ez da lehenengo bost eredu mailara ailegatzen baina erabileraren bigarren maila batean aipatu beharrekoa da.

Bereziki partitiboaren markarekin egindako oinak dira eredu honetan biltzen direnak eta, beraz, gehienetan ezezko esaldi baten txertaturik joaten dira: *negarrik, okerrik, lorarik, biarrik, bagarik/ barik*.

Bigarren maila baten, partizipioarekin egindako adberbioak ditugu, baita ere partitiboaren marka dutenak baina ezezko esaldiaren beharrik ez dutenak: *esanik, zutunik, egiñik, gurarik, jantzirik*.

Beste jatorria duten oinak ere badira:

- **larik** atzizkidunak: garialarik
- **nik** atzizki konpletiboa dutenak: danik.
- **ik** aditzondo-atzizkia dutenak: garbirik.

Hala ere, oinen kategoria desberdin hauek nahasturik agertuko dira kasurik gehienetan (hoskidetza eredu honi dagokionez behintzat):

Baña zetako ainbeste negar?  
Ez daigun egin **negarrik**;  
Gure Jainkuak eruan dau-ta  
Onek ez daike **okerrik**!  
Kendu daiguzan soñeko baltzak,  
Ta iñun ba'dago **lorarik**  
Egin dayogun uztai eder bat  
Eta opaldu **esanik**: (K051g)

Elexak eta Lekaretxiak  
euki nai doguz **zutunik**;  
Euretan iñor ez dela bixi,  
Kistar zintzua ez **danik**  
Irakastetxe nausi ta txiki  
biar diran lez **egiñik**  
Geuk nai dogun lez irakasteko,  
geu nausi **garialarik**. (K055g)

### 1.8. –OA(K) / –UA(K)

–OA/ –UA(K) beste eredu aipagarri bat dugu, erabilera ertaina badu ere. Lehenengo hoskidetza eredia (–IAK) aztertzerakoan erakutsitako taulan eredu hau sarritan erabiltzen dute Txirrita, Xenpelar eta Pello Errotak. Urretxindorrek, ostera, nabarmenki gutxiagotan erabiltzen du. Hortaz, hauxe izan daiteke ezaugarri bereizgarri bat Urretxindorren hoskidetzari dagokionez: bestelako bertsolarien aldean ez duela oso gustuko eredu hau.

Arrazoiak antzematea oso zaila eta labainkorra izan daitekeenez, erabileraren deskripzioa egitera behartuta gaude, bestelako datu eta testigantza fidagarriak eduki ezean.

Esan beharra dago, eredu honetan nagusi dela –UA aldakia, izan ere horretara jotzen du Kepa Enbeitaren bokalismoak. Jatorriz, –OA eredukoak beharko lirakekeenak (*txiroa, gogoa, beroa, daroa*) , –UA aldakia ematen dute<sup>68</sup>:

Itxas-ertzeko toki eskutu  
Baketsu baxen **txirua**..  
Ziñopearen gorphuba lotan,  
Itxarrik baña **gogua**  
Euzkadi oro zabaltzen dabil  
Maitasunaren **berua**  
Eta Jel-bidez gaizkamenera  
Euzko-abenda **darua**. (K054d)

Or yuatzu, ba, Zeuria da-ta,  
Or nire bijotz **osua**,  
Ene ongillak ixan dayentzat  
Zorijon oso **gozua**. (K204c)

–UA aldakiak, –SUA azpi-aldaki aberatsagoa izan dezake bere baitan, baina oinen nahasketak usuak direnez ezin da aurkitu mota honetako bertso “garbirik”, edo behintzat nekeza da bilaketa hori:

Esaten eben “Il da betiko  
Euzkeldunen **arazua**  
Ondiño, baña, gu bixi gara”.  
Goyan bego **“lengusua”**.  
Autsa ganera boteutsen, baña  
Azpijan eguan **sua**;  
Autsoi kentzeko naikua ixan da  
Iparraren putz **gozua**.  
Su ta garretan iniñi dogu  
Bero Euzkadi **osua**  
Sasi-sastraka erre bioguz,  
Garbitu bedar-**lekua**... (K053h)

Ikusten denez, azken oina –SUA eredutik aldentzen da: *lekua*.

## 2. Ondorioak

<sup>68</sup> Gogoratu beharra dago, hoskidetza eredu honetaz aparte, oin horiek –UA bukaera ez dutela, –OA baizik: “Azeri onek beren barrutik/ Bidaltzen daben aixe **beroaz**/ Orri ta lorak zimeldu daustaz: / bultza-bultzaka ortik **daroz**” (K187g). Edo beste honetan honela dio: “Sabin **gogoaz** euzko-**gogoa**/ Bat eginda jarri bedi [...]” (K063n).

a) Kepa Enbeitaren hoskidetza ereduak aztertzeak aukera ematen digu beste bertsolarien hoskidetzen erregistroekin alderatzeko.

b) Orokorrean, eta batez ere –IA(k) ereduari dagokionez, bat datoz bertsolari ezagunenak hoskidetza ereduak erabiltzerakoan, eta ereduaren erabilera-maiztasunean. Bospasei eredu nagusi daude, bertsolari guztiek (Urretxindorraren garaikoek) nagusiki erabiltzen dituztenak.

c) Aldaera bakarra –NA(K) hoskidetza eredu da, izan ere beste bertsolariek baino sarriago erabiltzen du.

d) Hoskidetza eredu erabilienetan zenbait oinen sareak antzematen dira. Oinen sare horien bidez, hotsaren kidetasuna ez ezik, bertsolariak esanahien artean lotura bat eratu du. Lotura hau Urretxindorrek berak sortua izan daiteke edo beste egilerengandik jaso izan daiteke. Hori ikertzea ez da lan honen helburua, baina sare horiek ezagututa ondoren aztertuko dugun Balendin Enbeitaren oinekin alderatu ahal izango dugu.

e) Bihar-etziko azterketetan beste Enbeitatarren oinen sareekin ere alderatu ahal izango ditugu. Bestaldetik, eta honen haritik, azterketa hauxe beste bertsolariekin era sinkroniko eta diakroniko batez burutzea biziki interesgarria izan daiteke, bertsolaritzaren tradizioak eta bilakaerak zer nolako bideak izan dituen ezagutzeko.

## **2. Kapitulua**

### **Azken puntua**

## O. Sarrera

Bertsoen estetikaz eta barne egituraz ari garenean, ahaztu ezinezko elementua izaten da azken puntua. Bat-bateko bertsolaritza ahozko giroan sortu denez, bertsoaren osaketak ahozko teknikak izaten ditu kontutan. Enbeitatarrak bat-bateko bertsolariak izan dira, eta dira, neurri handi baten. Idatziz erabiltzen duten prozedurak ahozko prozeduraren eragina izatea normala eta suposatzea litzateke. Eta ahozko bertsolaritzan “atzekoz aurrera” izeneko teknikak berebiziko garrantzia duela ezin da ukatu. “Atzekoz aurrera” teknikak baditu bere arrazoiak, eta arrazoi horiek ahozko jarduna eta ahozko psikodinamikei dagozkie.

Juan Mari Lekuonak aztertu egin du “atzekoz aurrera” izeneko teknika eta horrela azaltzen du bere funtzionamendua:

Hasteko, eta lege orokor bezala, esan dezakegu bertsolariak atzekoz aurrera egiten dituela bere bertsoak, estrofak. Lehenengo, bertsoaren azken esaera moldatuko du. Askotan esaera hau azkeneko bi errenketara biltzen da, baina ez beti. [...]

Lehendabizi azken esaera biribiltzen duela esan dugu; eta hori dela bertsoaren ardatza. Beraz, ahotik barrura hori da lehendabizi. Eta azken esaera honek puntu bat duenez, berehala beste gainerako puntuak ere asmatu behar ditu, azkenaren kideko direnak. Baina ez bakarrik puntuak: azken esaera horren mamiak kudeatzen du beste bertso-lerrotan ere esango dena. Lehenengo hiru puntuen (edo lauren) barruan esaten denak azkeneko esaeraren argigarri, indargarri eta osagarri izan behar du.

Ahotik kanpora, ordea, memoriaz eta gorputz-espresaeraz baliaturik, oso bestalde jaiotzen da bertsoa. Bertso-hasiera da lehenik entzuten duguna. Askotan lehen puntuarekin amaitzen da; ez beti. Gero erdiko lana esango geniokeena dator. Bigarren eta hirugarren puntuekin buka daiteke; ez beti. Eta azken-azkenean bertsoaren giltza, zartada, arrazoia, irria.

Horrela da, beraz, bapateko bertsoaren eraikuntza: atzekoz aurrera egina, segundu gutxiren barruan egin ere [...]

Azkenak lehen mailako balioa du herri-bertsozko espresaeraren barruan. Bera da legerik nagusia ahoz-ahorako bertsogintzan, eskuarki behintzat (Lekuona, 1982, 125-126).

Bestalde, Xabier Amurizak bertsolari eta bertsolaritza aztertzaileak horrela azaltzen du teknika hau, bat-bateko jardunak eman dion esperientzia eta maisutasunaren ikuspuntutik:

Alde batetik, arrazoi objetiboak edo bertsogintzak berak eskatuak. Bat-bateko bertsoetan eta asko kantatu behar denean, bertso guztiak aurretik atzera mamiturik eta gorantz eramaterik ez dago. Ez dago ahapaldiaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. Orduan, progresioren bat izatekotan, aurretik atzerantz izan behar, azkena gailurtzat harturik. [...]

Bertsoak horrela goranzko progresioa eraman behar du. Oro har, bi eratako bertsoak izan litezke. Batzuk indar guztia azkenean kargatzen dutenak. Azken puntua mendi kate batean kolpera datorren gailur bat bezala da. Beste batzuk bertso guztian zehar dakarte indarra eta azken puntua ondorio edo biltzaile bezala dator. Inoiz ezin dena da amaian jaistea, azken puntua aurrekoak baino motelagoa izatea. Orduan bertsoak asko galtzen du.

Bertsolariak segurantza psikologiko bat behar du, bertsoa egiten duenean. Bestela ere nahiko zailtasun badu bertsoak, nora jo behar duen pentsatu gabe hasteko. Nonbait derrigor bukatu beharra dagoenez gero hura seguraturik kantatzeak bertso hobeak

sorreraziko ditu. Berez, ezer pentsatu gabe ere has daiteke, bidean pentsatzekotan. Orduan galdurik ibiltzeko eta galdurik amaitzeko arrisku handia dago.

Badago beste zer garrantzitsu bat ere. Ezer pentsatu gabe hasita ere, noranahi joateko asmoz hasita ere, hori egiterik ez dago, lehen puntuan errima erabakitzen delako. Gero ez baitago hura aldatzerik. Eta jakina, behin errima bat hartuz gero, bidea guztiz estutzen da. [...]

Azkenik, bertsoa entzuteko da, ez irakurtzeko. Bertsoa entzuleari kantatzen zaio, ez norbere buruari. Orduan bertsolariak jokabide anarkiko samarra badarabil, entzuleak berak errailduko du laster. Nola? Entzuleen erreakzioa bertsoaren azkenean izaten da beti. Erantzun beroa ala hotza azkenean azaltzen da. Jendeak entzun berrien duena azkena izaten da. Hauxe da harengandik hurbilen dagoena eta gehien eragiten diona. Bertsolariarentzat ez dago entzuleen hoztasuna baino gauza txarragorik.

[...] Alderantziz, ordea, bidean hotz eta azkenean bero bukatzen badu, entzuleak ere bero erantzungo du. Esana dugu entzulearen erantzuna funtsezkoa dela bertsolarien baitan, bai onerako eta bai txarrerako. Jendearen erreakziorik sorrerazten ez duen bertsolariak gaizki behar du. Eta hori, gehien, azken puntuarekin lortzen da (Amuriza, 1997, 213-214).

Aipamen luzeak dira hauek baina hona ekartzea merezi duelakoan gaude paregabeko maisutasunez adierazita baitago biotan “atzekoz-aurrera” izeneko konposaketaren teknika.

Aurrera jarraitu baino lehen, ohar bat erabilitako terminologiari buruz: azken puntua deitzen dugunari Juan Mari Lekuonak (1982) epifonema esaten dio. Guk azken puntua sintagmari eutsiko diogu baina inoiz epifonema hitza ere erabiliko dugu.

Ahapaldiaren alderdi hau aztertzeke egokia iruditu zaigu Balendin Enbeitaren bertsoen inkesta bat egitea. Berrehun bertsoen azken puntuak hartuko ditugu kontutan eta haien sailkapen bat egiten ahalegindu gara, puntuaren nortasuna, izaera, sintaxia eta mezu mota kontutan hartuta. Eredu nagusi batzuk, beraz, bereizten saiatu gara.

Lehenengo eta behin, sintaxiak ahapaldiaren izaeraz eta azken puntuaren joera nagusiez zantzu bat eman diezagukeelakoan gaude. Uste honekin behintzat ekin diogu lan horri eta berrehun bertsoen azken puntuaren sintaxia aztertu eta sailkatu ondoren joera nagusiak antzematen dira argi eta garbi. Azken puntu horiek zer nolako esaldi edo esaldi zatiak osatzen dituzten bereizten ahalegindu gara eta sailkapen hori egin ahala berehala sumatzen dira nagusitzen diren ereduak.

	sintaxiz	zentzuz
Baieztapena	82	8
Agindua	42	26
Helburua	29	29
Baldintza	18	7
Galdera	13	8
Ukapena	12	
Ondorioa	7	17
Harridura	8	
Aurkaritza	8	
Bokatiboa	6	

Hipotetikoa	5	
Kontzesiboa	5	
Kausalak	5	
Kontsekutiboa		2

## 1. Azken puntuaren ereduak

Arestian aipatutako 200 bertsoko inkesta oinarritzat harturik, berorren emaitzak aztertzeari ekingo diogu orain, adierazgarriak diren emaitzak beti ere. Ondoren eredu nagusiak ekarriko ditugu hona.

### 1.1. Agindua<sup>69</sup>-helburua binomioa: “Inteligentzia argituz borondateari eragin”

Azken puntuaren morfosintaxian gure arreta jarritz gero, berehala konturatzen gara aditzak agintera eta subjuntibozko moduetan agertzeko duten lerradura nabarmena. Joera hau bertsoaren beraren semantikan eta ekoizpen edo konposaketaren testuinguruan kokatzen da. Testuinguru hori kontutan hartzen badugu, konposaketan zer nolako eraginak egon daitezkeen susma ditzakegu:

- erromantizismoaren eragina;
- kristautasunarena;
- abertzaletasunarena;
- hartzailearen sentiberatasunari eragin nahia;
- hartzailearen borondatea zerbait egiteko persuaditzea.

Eragin hauek bertsoaren estiloan, eta ondorioz morfo-joskeran, isla izan dezaketela zail da ukatzea.

Erromantizismoaren eraginaz gain, kristautasunaren eta abertzaletasunaren eragina<sup>70</sup> aipatu ditugu. Kristautasuna bizitzeko modu bat

<sup>69</sup> Formaren ikuspuntutik aginduekin ari garela esan dezakegu. Azken puntuetan agertzen diren agindu hauek ostera, deprekazioaren eitea badute zenbaitetan. Deprekazioa diogunean, ez dugu erretorika klasikoaren zentzuan esan nahi, izan ere, Demetrio Estébanez Calderón-ek (1999, 278) adierazten duen bezala, deprekazioak bazeukan funtzio jakin bat egoera judizialean: “[...] se utilizaba en la defensa del reo, cuando éste, tras aceptar su culpabilidad, suplicaba clemencia, aduciendo una serie de méritos y padecimientos sufridos [...]”. Errenazimentuko erretorikan eskaera sutsu bat bezala kontsideratzen da: “[...] en la poesía amorosa del Renacimiento cuando el poeta o alguno de los personajes dirige una súplica a otro personaje, a la mujer amada o a Dios, para convencerles y obtener su gracia o su perdón” (Ibidem). Azken zentzu hau darabilgu deprekazioaz ari garenean.

<sup>70</sup> Urretxindorren garaiko abertzaletasunak hizkuntza nazionalaren sustapena zeharo garrantzitsutzat zeukan. Benjamín Tejerinak (1992, 109) dioenez, euskara "elemento principal y capital simbólico nacionalista" bilakatuko da. Ondorioz, euskal hizkuntzaren berreskurapena kultur "Pizkundearen" eragile ezinbestekoa izango da garai haietan, Ibidem, 109-112. Urretxindorrek egiten dituen gonbidapen eta sustapen eskaeretatik asko euskara bultzatzeko eta maitatzeko izango dira. Hona hemen euretako bi: "Erdi billoxik ba'dago bere/ Jantzi biogu Euzkera/ Erabilteko Euzkadi'n txukun/ Alde batetik bestera./



da, gizakiaren barne muina harrapatzen duen jarrera eta erantzun bat. Sinesmen honek badu alderdi moral bat, nola ez, eta dotrina bat baita ere. Ikuspuntu honetatik begiratuta, abertzaletasunarekin antzekotasuna duela esan liteke, izan ere abertzaletasunak alderdi moral eta doktrinarioa badituela ere baieztatu liteke. Kepa Enbeita biak batera izanik, hau da, sinestuna eta abertzalea, berehalakoa aurreuposatzen da moral zein irakaspenerako duen joera. Aurreiritzi honek asmatu egiten du, edo behintzat arestian aipatutako inkestan horrela konfirmatzen da. Moralismo edo irakaspenerako joera hori aginduetan ez ezik, horiei loturiko helburuzko menpeko perpausetan ere igartzen da. Kepa Enbeitaren bertso askotan agindu batek eta agindu horren helburuaren azalpenak horixe bera agerian uzten dute.

Hain dago sustraitua joera hau ezen askotan agindua zein horren helburuaren azalpena hoshidetzaren osagarriak izatera igotzen baitira edota hemistikio baten neurria hartzen baitute.

[...] Otoi, ba, euzkotarrak, danok **otoi egin!**  
Deun Mikel beti geure alde **ixan dedin.** (K146b)

[...] Euzkotar orok zain gayegozak.  
**Ator! ator! Arin! arin!**  
Gure areyo negu ankerrak  
Geyaurik **ezaigun egin.** (K044b)

**Guazen**, bada, Ama onari  
Betetara gurariak  
Gero zeruan **ixan daiguzan**  
Amai bageko sariak. (K089b)

[...] **Emon eiguzu** zeure esku ori  
Igasiteko eurari,  
Gustijon arte **goratu daigun**  
Erlejiñuaz Euzkadi. (K089b)

[...] **Artuidazu**, ba, begikotasun  
Ta maitasun ezaugarri,  
Besarkaturik **bizi gaitez**  
Argentina ta Euzkadi. (K145g)

### 1.1.2. Arrazionalismo joera

Aipatu dugun legez, aginduak eta subjuntiboak (helburu zentzuaz) binomio sendo bat osatzen dute. Joera hau Kepa Enbeitaren bertsoetan oso tinko sustraiturik dago eta, agerpenen kopuruari begira behintzat, bere ezaugarri bereizgarri bat dela esan liteke. Honekin ez da esan nahi beste bertsolari eta bertsoegileengan joera hau ez dagoenik. Joera hori egon badago

---

Jauna'k geuretzat emon euskun-ta,/ Euzkeldun onak ba'gara,/ **Guazen jantzi** ta indartuteko/ Biar daunaz laguntzera", (K041h); "[...] Berai yagokon tokijan **jarri/ Daigun** Euzkera garbija./ Bestela, zelan esango dogu/ Au dala Euzkeleerrija?", (K043d).

beste egileengan, baina Kepa Enbeitarengan nabarmentzen da. Errekurtsorrotua eta finkatua da Kepa Enbeitarengan.

Esate baterako, har dezagun Txirrita bertsolaria. Bistan da bere bertsoak izaera deskriptibo eta narratiboagoa dutela. Ideologia abertzalea ez da Kepa Enbeitarengan bezain nabarmen eta agerikoa. Txirritaren bizitzari begirada bat emanaz ikusten da militantzia politikorik ez zuela, gaur egungo zentzu modernoan behintzat: alderdi baten afiliatzea, ekitaldi politikoetan parte hartzea, alderdi horren doktrina bereganatu eta zabaltzea, eta abar. Kausa hori dela medio, aditza inperatiboan ez da agertzen horren maiz, kasu bakan batzutan izan ezik. Ikus ditzagun kasu horiek:

16/ Oraingo ontan izandu dira  
asunto izugarriyak,  
bañan gugatik ez du merezi  
desonratzia erriyak;  
gusto duanak **ikasi bitza**  
amasei bertso berriyak,  
muallan lanik etzaukan eta  
Trajinos Beltzak jarriyak;  
aditu nai eztuanik bada  
**itxi bitza** belarriyak<sup>71</sup>.

Bertso hau bertso jarrien sorta bateko azkena da eta aginduaren objektua bertso sorta bera da: "gusto duanak ikasi bitza/ amasei bertso berriyak". Antzera gertatzen da hurrengo bertsoarekin:

13/ Gure arbola maitagarriyak  
etzuen ori merezi,  
otsolarrak eta aien nastuak  
jarri zaizkiyo nagusi;  
euskaldun danak lagun zaiegun,  
ez iñor galtzera utzi;  
Kantabriya'ko lastima au zer dan  
orra nik adierazi,  
paper bakoitza amar zentimo  
nai ditubenak **erosi**.<sup>72</sup>

Bertso hau ere sorta baten azkena dugu eta *erosi* aginduaren objektua bertso sorta bera da. Mota honetako azken puntuak formula bihurturik daudela esan liteke, bai Txirritarengan bai beste bertsolari eta bertso-jartzaileengan ere<sup>73</sup>. Hemen ez dago ikuspegi didaktiko edo moralik, saltzeko

<sup>71</sup> In *Txirrita*, Zavala, 1992, 316.

<sup>72</sup> Ibidem, 434

<sup>73</sup> Kepa Enbeitaren aitak berak ere (Juan Antonio Enbeita, 1850 - 1930) bertso sorta bat jarri zuen eta honela zioen azkeneko bertsoan: "Horra hamabost bertso/ ditugun jarriten [...] gura daunak **erosi**/ Txakur haundi baten", Enbeita, 1986, 86. Pello Errotak horrela bukatzen du 1883an egindako bertso sorta bat: "Paperetan egiak/ ipintzia obe./ orrek balioko du/ orain da gero're;/ nun nai kanta litezke/ kuidadorik gabe./ nai duenak **erosi**/ txanponian daude", in *Pello Errota*, Zavala, 1992, 132. Pellok berak 1892an horrela bukatzen du bertso sorta bat: "Apustuba ta baikuntzari guk/ orra bertsuak atera, (...) gusto duanak **artu dezala**/ bost zentimuan papera", Ibidem, 138.

*marketing* hutsa edo propaganda baizik. Hortaz, ekoizpen horren egilea saiatzen da berea saltzen eta hortik bakarrik inperatiboa erabiltzeko premia.

Ikus ditzagun beste adibideak:

12/ Pasadizuak ikasi ditut  
aldian bizi naiz eta,  
gañera berriz neonek ere  
iñoiz letzen det gazeta;  
ongi kostata irabazten da  
oinbeste milla pezeta,  
oraiñ deskantsuz **egon zaitezte**  
oloz ta ardoz aseta<sup>74</sup>.

Azken puntuan agertzen den agindu honek aholku kutsua du eta XX. mende hasierako estropada baten parte hartutako arraunlariei zuzendurik dago.

Hona hemen beste agindu bat:

Baldin egiya esaten badu  
libruan dagon fediak,  
isla asko ta onak zituen  
len Españiya'k beriak,  
ta geienetan agintzen zuten  
euskarazko aguriak;  
orain geienak galdu ditugu,  
iya egin du guriak,  
Zeruko Aita, **zuzen gaitzazu**  
nola baikeran zuriak<sup>75</sup>.

Agindu hau, antzeman daitekeenez, Jainkoari zuzendutako eskaera bat da.

Txirritaren adibide hauek adierazgarriak dira Urretxindorrekiko desberdintasunak ikusteko. Alde batetik, ez dago moralismo edo doktrinamendu joerarik. Agertzen diren agindu apurretatik batzuk izaten dira propaganda egitekoak, alegia, bertso jarrien azken bertso edo puntuan entzuleari egiten zaio gonbidapena bertso sorta hura eros dezan. Beste agindu batzuk izan daitezke aholku izaerakoak, baina morala edo ideologia abertzalearekin zerikusi zuzenik ez daukatenak gehienetan. Inoiz ager daiteke Jainkoari egindako eskaera bat. Urretxindorrekengan oster, Jainkoari egindako eskaerak ugari dira. Eta, zer esanik ez, entzuleari zuzendutako inprekazio eta erregu agonistikoak ugari baino ugariagoak dira. Erregu horien hartzaileak euskaldunak<sup>76</sup> dira. Eta erreguen helburua euskaldun horien kontzientziari eragitea da.

<sup>74</sup> In *Txirrita*, 1992, 451.

<sup>75</sup> Ibidem, 433.

<sup>76</sup> Hemen "euskaldunak" hitza bere zentzu linguistiko eta ideologikoenean erabiltzen dut.

Baina agindu hauek, arestian aipatu bezala, ez datoz eurak hutsik. Helburua ez da gizakiaren<sup>77</sup> borondateari eragitea beste barik. Urretxindorraren garaiko abertzaleek bazekiten hori ezinezkoa zela agindu horiek arrazoitzen ez badira edota irudikatzen ez badira. Euzkoaren<sup>78</sup> borondatea eragiteko beraren adimena argitu behar zen eta beraren bihotzaren mintz samurrak ere ukitu beharra zegoen. Hori dela eta, agindua ez da agertzen bera bakarrik, aginduaren helburua azaltzen duen menpeko perpausa batekin baizik. Helburu hori adierazteko bide gramatikal desberdinak erabiltzen dira:

- Helburu zentzua duen subjuntiboa erabiliz.

[...] Batu gaizan, ba guraso danok  
Euzkotar onak ba'gara,  
Gure sendijak **ikasi dayan**  
Geuk gura dogun erara. (K042e)

[...] "Or Ikastetxe, zeuen umiei  
Euzkera irakastekoak.  
Bidaldu, bada, dan-danok ara,  
**Onetsi zaizen** Jainkoak." (K043g)

Baliabide hau erabiliena da Urretxindorraren bertsogintzan.

- ZERTARAKO kasua erabiliz.

[...] Emon eiguzu zeure esku ori  
**Igasiteko** eurari,  
Gustijon arte goratu daigun  
Erlejiñuaz Euzkadi. (K089d)

- Baldintzazko menpeko bat erabiliz, aginduak ondorio zentzua hartzen duelarik.

[...] Jauna'k geuretzat emon euskun-ta  
**Euzkeldun onak ba'gara,**  
Guazen jantzi ta indartuteko  
Biar daunaz laguntzera. (K041h)

Gure oldozmen oneik

<sup>77</sup> Esan beharra dago mezuaren hartzailea ez dela edozein gizaki, izan ere, Urretxindorrek euskaraz idazten duen unetik, bistan da hartzaileak euskaldunak izango direla. Are gehiago, mezuaren edukiari erreparatuz, konturatuko gara hartzaile horiek aberriarekiko gutxieneko sentiberatasuna izan behar dutela bai testu hori jasotzeko bai berorren mezua kontutan hartzeko.

<sup>78</sup> *Euzko* kontzeptua Urretxindorraren garaian bizi-bizirik zegoen, bereziki egile abertzaleek bultzatutako giro eta ekoizpen artistikoetan. Josu Penadesek adierazten duenez, '*Euzko* hitza erabiltzen zuen Lauaxetak Euskadiko zen notina izendatzeko, bai euskaraz eta bai, behin baino gehiagotan, gazteleraz ere [...] Lauaxetarentzat euzkoak bere izatea zuen, bere izate berezia, nonbait. *Euzkoa* edo eusko abenda bere gogo berarizkoaren jabe zen. Izan ere, *Euzkoa* ez zen azalez bakarrik bereizten, barruz ere besteengandik ezberdina baitzen' (Penades, 1996, 62). Badirudi Urretxindorrek ere konfiantza hori zuela, alegia, *euzkoak* bere mezua ulertu eta berenganatzeko sentiberatasuna izango zuen konfiantza edo itzaropena.

Egiak **ba'dira**  
 Begiratuizu, Sabin  
 Ortik Euzkadi'ra (K044f)

[...] Euzkera zarra egarriz ito  
 Ez dein legorte onetan,  
 Egarrri ori ase dayogun  
**Maite ba'dogu** benetan. (K044n)

Baliabide hau nahiko erabili zuen Urretxindorrak.

Modu honetan, epigrafean adierazi dugun "agindua-helburua" binomioa agertzen denean bertso hauen hartzaileengan, agian inkontzienteki, bertsoa jadanik osotu egin delako inpresioa sortzen da. Egia esan, efektu hau ondo osatutako bertso<sup>79</sup> gehienekin sortzen delakoan gaude.

Urretxindorren sasoikoa zen Lauaxeta<sup>80</sup> ere joera honetakoa zen. Alegia, borondateari eragiteko lehenengoz inteligentzia elikatu eta arrazoiz jantzi behar dela baieztatzen duen joerakoa. Maitasuna, normalean, ezagutzaren ostean sortzen da eta, ondorioz, ezagutaraztean zetzan abertzale propagandista baten zeregin nagusia<sup>81</sup>. Ezagutarazte hori, euskal kulturaren adierazpenei, "euskal senari" eta Herri eraikuntzari zegokien. Lauaxetak, Urretxindorrak ez

<sup>79</sup> Ondo osatutako bertsoa diogunean, bertso bati eska lekizkiokeen gutxienezko ezaugarri batzuk dituela diogu eta horiek gure ustez hauek lirareke:

- Ulegarria den mezu baten jabe izatea.

- Azken puntuak bertsoaren elementu erreferentziala izatea, oinarrizkoa ez bada, bertsoaren mezuaren bilgune.

<sup>80</sup> Urretxindorra 1903an hasi zen mitinetan parte hartzen. Honela kontatzen du Balendin Enbeitak: "Hau jazo ondoren, Bilboko Bidebarrieta kaleko Batzokian sartu ziran eta bertan zera esan eutsoen.

- Hauxe, "Gernika" izango litzake ona mitinetan berba egiteko.

Aitak baietz erantzun eutsen eta eta nahi ebenean dei egiteko. [...] Handik laster hartu eban eskutitz bat, Bermeora mitin baten hitz egitera joan behar ebala esanaz. Aita estu egoan. Ez ekian mitina zer zan, [...] Egun horretan hasi zan ospe apur bat hartzen, eta Don Juan irakasle ebala gure Euskal Herriko kondaira arakatzan. Euskadiko hegalak ondo arakatu ebazan. 25 urtetik 45 (1923an) urtera arte ez eban etxean egote askorik egingo", 1986, 125-126.

Lauaxetaren mitingintza 1930an inguruan hasi zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea egin zenez geroztik, eta beraz ez zen aritu Urretxindorrenekin batera (osasunez garai horretan Urretxindorra makaltzen hasi zen), kasu bakanen baten izan ezik. Urretxindorren semearekin ostera bai, sarriagotan aritu zen. Horrela azaltzen du Balendin Enbeitak berak: "Lauaxeta, gure olerkari haundia eta euskotar jatorra, zelan eta non afusilatu eben ere, bertan (presondegian, Dueson) jakin neban. Asko mindu nintzan. Nire lagun haundia zan. Hainbat herri arakatu genduan alkarregaz, Lauaxeta hitz egiten eta ni bertsoan. 31tik 35era bitartean, geldi egote askorik ez genduan egin. [...] Ez dot ikusi oraindino Lauaxeta baino euskerazko hizlari ederragorik", 1986, 34. Eta aurrerago honelaxe dio: "Herrietako jaietatik aparte, hauteskude garaian, ez nintzan gelditu ere egiten. Behin egun berean, sei mitinetan parte hartu beharra izan neban. Aita, Uriarte eta ni izaten ginan gehienetan bertsolari, eta Agirre, Lauaxeta ... etab. hizlari", 63.

<sup>81</sup> Horrela azaltzen du Josu Penadesek bere tesi doktoralean Lauaxetaren iritzi hau: "Abertzaletasunak, *aberrijaganako maitasuna* izaki, bazuen bihotzarekin zerikusirik. [...] Abertzaletasuna, ordea, ez zen bihotz inguruko sentiberatasun hutsera murrizten. Abertzaleak beharrezko zuen adimenaren parte hartzea ere. Nahikotan azpimarratu zuen hau Lauaxetak, gehienetan Sabino Arana bitarteko", 1996, 91-92. Ondoren, Lauaxetaren zenbait esaldi adierazgarri aipatzen ditu, hala nola: "La causa nacional vasca requiere una fina preparación" eta "nacionalismo e incultura son antitéticos". Hitzaldi baten honela mintzatu zen: "La idea ha llegado a todas las inteligencias, porque la verdad se abre camino, pero muchos corazones no han sentido aun el golpe del amor patrio". Artikulu baten aipapenean horrela azaltzen zuen Lauaxetak: "Txistubak bijotzak baterako igituko dauz, jakintza-tantuak ostera, talletuko itoyak legetxe, zulo galanta eragingo dau bijotzetan". Ididem, 95-96.

bezala, irizpide hori bere artikuluetan esplizituki azaldu zuen. Urretxindorrek ez zuen doktrina hau esplizituki garatu, ekintzara eta praktikara eroan baizik. Aztertzen ari garen joera hau horren erakusle bat izan liteke: arrazoitutako helburuak eskaintzen zaizkigu, helburu jakin eta onuragarriak dituztenak, beti ere zentzunari eta gizalegari men eginez.

Helburu hau lortze aldera, Urretxindorrek errekurtsio gramatikal jakin batzuk erabiltzen ditu. Honetan ikusten da gardenki esanahiak eta semantikak<sup>82</sup> gramatikarekin duten zerikusia edo lotura<sup>83</sup>. Ez da erraza bereiztea Urretxindorrek aginduak eta helburuzko menpeko perpausak kontzienteki erabiltzen ote zituen ala ez. Baliteke erabili izatea inkontzienteki, besteengandik ideologia abertzalea ikasi zuen erara, eta kategoria horien kontzientzia esplizitua izan gabe, molde horiek berregitea edo birsortzea<sup>84</sup>. Urretxindorrek idatzizko kulturen eta ikasketetan gehiegi sakondu ez zuen neurrian pentsatzekoa da subkontzientziaren azpian kontzepzio gramatikal gehiago gordeko zirela, eskolatu eta kultur handiko pertsona batengan baino. Horrek ez du esan nahi, komunikazio poetikorako komeni zenean, elementu gramatikal horiek erabiltzeko gai ez zenik, bere bertsogintzan konprobatu daitekeenez.

## 1. 2. Sententzia eta erabatekotasun kutsua

### **Baieztapena - Sententzia kutsukoa**

Agindua	42	26	
Helburua	29	29	
Baieztapena	82	8	
Baldintza	18	7	
Galdera		13	8
Ukapena	12		

<sup>82</sup> Urretxindorren ideologia politikoak eta bere sinesmenak bazuten semantika berezi bat, bere adierazpen poetikoetan nabarmentzen zena. Kasu honetan semantika jakin horri egin nahi diogu erreferentzia.

<sup>83</sup> Badirudi Urretxindorren bertso hauetan bete egiten dela Roman Jakobsonen irizpidea: "Hoy en día, el lingüista sabe que no hay que separar las cuestiones de forma y de significación", 1981, 123. Poetikaren azterketan, beraz, ezin da saihestu kategoria gramatikalen azterketa. Gure kasuan, kategoria horiek argitasuna eman digute semantikaren interpretaziorako eta alderantziz, semantikaren interpretazioak azaltzen digu gramatika eta ondorioz morfojoskeraren zentzua. Horrela azaltzen du Jakobsonek bere aztertze metodoa: "Por mi parte yo siempre he buscado la máxima objetividad al estudiar el aspecto gramatical de las totalidades poéticas. Además, se ve con toda claridad qué categorías gramaticales concurren por su distribución en un efecto artístico de individualización de las partes y de la integración de todo el poema y qué categorías permanecen, por el contrario, pasivas", Ibidem, 122.

<sup>84</sup> Roman Jakobsonek onartu egiten zuen osagai gramatikalak subkontzienteki gorderik zeudela egile poetikoaren asmoetan: "¿Pienso yo realmente que el poeta organiza conscientemente en sus versos los componentes gramaticales? [...] Es cierto que un número determinado de elementos del arte poético permanecen en el nivel del subconsciente del poeta en el momento del acto creativo. Pero los testimonios escritos y orales de los poetas, así como sus borradores, nos muestran a menudo que aquellos comprenden realmente los diferentes procedimientos que intervienen insensiblemente cuando trabajan el material verbal y, sobre todo, el material gramatical", Ibidem, 120-121.

Ondorioa                      7        17

Urretxindorrenaren oso nabarmen eta erabiliak dira sententzia kutsuaz egiten diren baieztapen edo ukazio kategorialak. Bertsoari halako solemnitaterik eta indar enfatikoa ematen diote eta era berean tonu horrekin bertsoaren bukaera adierazten dute. Ez geundeke egiatik oso urrun esaten badugu ezaugarri hau aipatutako tonu didaktikoaren<sup>85</sup> ondorioa dela.

Joera sententzioso hori beraz nagusiki bi modutara adierazten da: baieztapenarekin eta ezeztapenarekin.

Biek daukate joera sententziosoa, eta biek erabiltzen dituzte antzerako errekurtsioak tonu hori nabarmentzeko.

### 1.2.1. Baieztapena

Bertsoaren azkenean baieztapen bat agertzeak bertsoaren mezua laburbiltzen du, bertsoan esandakoaren ondorio bat agertzen du edota bertsoaren bukaerari klausura<sup>86</sup> moduko bat ematen dio.

#### 1.2.1.1. *Izan*

*Izan* aditzaren erabilerak baieztapen kategorialaren kutsua ematen dio baieztapen (edo ukapen) bati. *Izan* aditzak ez du ematen iritzirako edo usteak adierazteko lekurik.

Itzak bakarrik indarge dira  
 Egipenak ziñaldari,  
 Nor zelako dan bere egipenak  
 Erakusten dabe argi.  
 Euzkeldun batek Euzkelerrian  
 Bera erderaz ba-dabil,  
 Alperrik esan "soy vascongado"  
 Erdeldun utsa **da** ori. (K044ñ)

Egilea autoritatez sentitzen da azken puntu horretan baieztatzen duena ziurtasunez adierazteko eta hortik *Izan* aditzaren erabilera. Autoritate hori zergatik edo nondik datorkion zehazten ez da erreza egilearen azalpena ezagutu

<sup>85</sup> Tonu didaktiko horrek bi arnas-iturri ditu: kristautasuna eta abertzaletasuna.

<sup>86</sup> Marko Kunz (1997, 107) doktoreak bereizketa bat egiten du ekoizpen literarioaren amaiera eta klausuraren artean. Horrela definitzen du: "Para nuestro uso, definimos la clausura de una obra literaria como su capacidad de aparecer como una unidad formal y semántica cuya cohesión interna permite que el lector experimente el texto como conjunto suficientemente completo para prestarse a interpretaciones coherentes. La clausura es para nosotros ante todo una potencialidad del texto, una posibilidad intrínseca que cada lector individual tiene que actualizar". Klausurak badu zerikusirik amaierarekin noski, baina aztergile honen ustez ez dira gauza bera edo komeni da desberdintasuna bereiztea. Bertsolaritzaren kasuan, guretzat bertsoaren klausura hauxe izango da: bertsoari osotasuna eta burutuaren zentzua ematen dion kualitatea. Bertsoak beraz, klausurari esker osotu egiten da eta esanahigune bilakatzen da (Kortazar, J., 2000, 68). Bertsoan zehar transmititu diren ideiak beren zentzu osoaren jabe egiten dira klausurari esker. Klausura kualitate honentzat azken puntua erabakigarria da baina ez bakarra. Azken puntu honek bertsoaren beste osagai semantikoekin daukan erlazioan oinarritzen da klausurua.

gabe, baina ez da zaila antzematen bere ideologia politikoak (giza eskubideetan eta gizatasun kristauan oinarrituta) horretarako adorea ematen diola. Segurtasun hori gainera, “sinesmen” ekintzat hartzen dela dirudi eta logika horretan ziurtasuna balio positiboa litzateke, eta ez (gaur egungo zenbait joeren ikuspuntutik) fundamentalismo, integrismo edo fanatismo ekintza bat.

Bakotxari beria,  
Jaungoiko-legia.  
Josu maite dabenak  
Maite dau geidia.  
Maitasuna egizko  
Zorion-bidea ...  
Beste bide gustiak  
Guzur utsak **dira**. (K090l)

Azken bertso honetan arestian esandakoa argiago ikusten da. “Bakotxari beria” Urretxindorraren lelo bat bilakatuko da eta euskararen zein *Euzkadiren* defentsarako erabiliko du. Bertso honetan azalduta dago nondik datorren lelo hori: hain zuzen Idazki Sakratuetatik edo Jaungoikoagandik. Urretxindorrek horretan oinarritzen du bere ziurtasuna, beraz, eta sinesmen kontu bat denez ez du arazorik erabateko ziurtasuna adierazteko. Gizalege horretatik ateratzen dena, “guzur utsa” da, engainu bat, egiatik aldentzen den bide bat, eta ondorioz kaltea eta iluntasuna besterik ekartzen ez duena (bai norbanakoarentzat bai gizarte bizitzarentzat).

Neure maitia nundikua dan,  
Noz ta nogandik sortua,  
Jakin-nai onek damost aspaldi  
Buru-austerik naikua.  
Bakarrik dakit dala antxiñako  
Garbijenetarikua.  
Euzkel-Errija **baita** beretzat  
Jauna'k emoutsan lekua. (K144c).

Esandakoa berresteko azken bertso hau daukagu. *Euzkel-Errija* Jaungoikoak euskarari emandako bizilekua omen da. Urretxindorrarentzat honelako baieztapenetan ez dago “omenkerietarako” lekurik, batez ere Jaungoikoa baldin badago tartean.

### 1.2.1.2. Aurreikuspena

Kutsu sententziala ere badu bertsoaren azkenean aurreikuspen (edo profezia) moduko bat egiteak. Batzutan jokabide hori nahi edo desio bat adierazteko egiten da, honako honetan bezala:

Deunen bixitza ein zendun-eta,  
Erijotza be deunena;  
Zeure bakezko lo gozua da  
Ezaugarririk onena.  
Aita-Goikuak neke-saritzat



Bemotzu sari gurena.  
Zeure gomuta beti **ixango da**  
Geugaz iraungo dabena. (K143d)

Irizpide moral bat ezartzeko ere aurreikuspenak egiten dira, onartzeak dakartzan onurak edota ez onartzeak dakartzan kalteak adierazteko. Aurreikuspen horrek kutsu ebanjelikoa izan dezake behin baino gehiagotan:

Gotzon-aldreak goitik  
Bakotxari dirausku:  
"Gokaxuaren deira  
Iñor-iñor bez gortu;  
Gaur orren aldiya da,  
Bijar zeuria dozu.  
**Zeuk dabiltzun neurrijak**  
**Ze u be neurtuko zaitu**<sup>87</sup>. (K091e)

Promesa edo agindu moduko bat adierazteko ere etorkizunera jotzen du Urretxindorrek, bertsoari klausura edo ezarriz. Klausura horretan egileak promesa horren bitartez bere konpromisoa eta identifikazio afektiboa adierazten ditu:

Berialaxe usteltzen dan lez  
Arima bako gorputza,  
Euzkel-Errija be ilgo litzake  
Euzkera ilgo ba'litza  
- Astarloa, ez bildurrik ixan,  
Etsayak alper dabiltza ...  
Euzkeltzaliok **garbitukogu**  
Zuk dirauskuzun bijotza. (K144k)

Azken adibide honetan egileak bere buruaren izenean ez ezik euskaldunen izenean ere egiten du promesa hori, bere konpromisoa adieraziz eta, beraz, euskaldunak bere promesa horretan inplikaturik bide afektiboaren bidez (bide inpositibo edota morala alde batera lagata). Bide beretik doa ondorengo ere:

[...] Euzko-gogua "Jel"-bidez dua  
Elbururaño uste beterik.  
Eta Euzkadi geuria da-ta,  
Laster jarriko dogu azkerik! (K061e)

### 1.2.1.3. Kontrajarpena

---

<sup>87</sup> Oihartzun ebanjelikoa dauka esaldi honek. Jesusen hitzak dira hauek: "Ez gaitzetsi inor, Jainkoak ere ez zaitzaten gaitzetsi; izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak, eta zuek zein neurri neurtu, neurri beraz neurtuko zaituzte Jainkoak", Mt 7, 1-2, in *Elizen arteko Biblia*, 1994.

Bertsoaren bukaerari kontrasteak halako sententzia gogoangarri kutsua ematen diola ere baieztatu liteke. Kontrajarpena<sup>88</sup> da azken puntuaren errekurtsorik erabilienetakoa beste egileen bertso gintzan ere<sup>89</sup>. Kontrajarpen zentzua emanez, noizean behin esaera zaharren moldaketak ere agertzen dira<sup>90</sup>. Izan ere kontrajarpenak askotan erregela mnemoteknikoaren papera jokatzeko eta honek ekoizpen literario bati ahozko estiloa eransteko dio.

Itzak bakarrik indar dize  
 Egipenak zinaidari,  
 Nor zelako dan bere egipenak  
 Erakusten dabe argi.  
 Euzkeldun batek Euzkalerrian  
 Bera erderaz ba-dabil,  
**Alperrik esan "soy vascongado",**  
**Erdeldun utsa da ori.** (K044ñ)

Goiz eder alai dakuskunian  
 Eguzkijagaz ozkarbi,  
 Ixaten dira bixirik diran  
 Geyentzako pozkarri;  
 Baña ondoren aixe deungiak  
 Ekaxa ba'dai ekarri,  
 Len **alai-alai** ziran bijotzak  
**Tamalez** oi dira jarri.  
 Auxe berberau jazoten yako  
 Euzkera maitaliari. (K137a)

Lau bertsolari dagoz Jauri´ko etxien,  
 bat askan ta bi kortan, bestat eskatzien;  
 bi abillenak dabiltz esnia batzien,

<sup>88</sup> Kontrajarpen hitza erabiltzen dugu euskaraz baina antitesia erabil genezakeen berdin-berdin, ikerketa honetan behintzat. Demetrio Estébanez Calderón-ek (1999, 44) horrela definitzen du: “Es una contraposición de dos palabras o frases de significación opuesta, que adquieren así mayor expresividad y viveza. Este contraste ocurre, a veces, oponiendo dos palabras anónimas (Garcilaso de la Vega: <<Conozco lo mejor, lo peor apruebo>>), o frases enteras (Góngora: <<Ayer naciste y morirás mañana>>). A diferencia del oxímoron y de la paradoja, la oposición semántica no llega aquí a la contradicción”.

<sup>89</sup> Honetaz jar daitezkeen adibideak kontaezinak dira. Txirritaren bertso-sorta batetik azken puntu hauek ekartzen ditugu hona horren frogagarri: “[...] **langiliari burla** eginaz/ **alperrak** daude **nagusi**”; “[...]lenago **alde** genituanak/ **kontra** ditugu erdiyak,/ **artzai gaiztuak** diran tokiyan/ **pagatutzen du ardiyak**”; “[...] **ardi gaiztuak paotxa jaten**,/ **onak gosiak larrian**,/ gauz ori bera pasa zitzaigun/ Karlosen gerra zarrían.”; “[...] <<**Biba euskera!**>> oju egin,/ **kastillanauak ekarri**”, Zavala, A., in *Txirrita*, 1992, 315-316.

<sup>90</sup> “Kuku” irudiarekin esaera zahar asko daude Euskal Herrian (Garate, G., 1998, 293-294). Beraietan kontrajarpen ugari eskaintzen dira: “Erramuetan kuku, San Pedrotan mutu”; “Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan”. Kontrajarpen hauek zehazki ez baina, kukuari eskainitako bertso-sorta baten, kontrajarpen ugari erabiltzen ditu Urretxindorrek: “Usterik orain zala/ bai **udabarri**,/ **neguan** etor dala/ oin dau igarri!/ Oin dago larri/ **loran** orde **txingorra**/ daukala ugari” (K1671). Badira beste esaera batzuk kontrajarpenik ez dutenak bere baitan: “Kukuk besten ohantzean arroltzeak egiten” eta “kukuak txantxangorria iñude”. Zentzuz esaera hauei lotuta baditu Urretxindorrek zenbait bertso non kontrajarpena erabiltzen baitu: “[...] Abestu dausku eskubiderik/ Eztaula kuku nagijak,/ **Berak** nai daun lez erabilteko/ **Bestien** txindor abijak” (K0571); “[...] Batez be kuku, eta zozo baltz [...] Poztu gaizan ba, **guzurtokitik**/ Urten daulako **egijak**” (K058a).

Manu asarratzen da golpe bakotxien:  
**koplak ugari, baña, pitxerra utsien.**  
 Esnezko aparirik eztau arratsien! (K162a)

Sabino Aranaren eragina zuten idazleek egiten zuten bezala<sup>91</sup>, hurrengo bertsoan orduko Euskal Herriaren metaforizazioa egiten da. Eta azken puntuan biltzen dira antitetikoak diren bi elementu: *Erria*<sup>92</sup> eta *otsoa*<sup>93</sup>. Baiezko enuntziatio baten bidez kontatzen da zer gertatu den: herria altxatu egin dela eta otsoak jaurti dituela.

Artzañen txistu larrijak  
 txabolaratu ardiak.  
 "Otsoak txabol aurrian!!" ...  
 didarra entzun danian,  
 jagirik **Erri** osoak  
 uxatu dituz **otsoak** ... (K146k)

Mezu ideologiko jakin baterako ez ezik, hartzailearen arreta erakartzeko balio du kontrajarpena, batez ere paradoxaren mugara hurbiltzen denean:

[...] Poztu gaizan, ba, **guzurtokitik**  
 Urten daulako **egijak**. (K058a)

### 1.2.2. Ukapena

Ukapen kategorialek ere badute sententzia kutsua, ahapaldiaren azken aldera agertzen direnean batez ere.

Ahapaldiaren azken puntuaz ari garenean, baieztapenak zerbait ondorioztatzeko, zerbait goraiatzeko edo zerbait positiboa aldarrikatzeko balio izaten du<sup>94</sup>. Ukapenak, ostera, bestelako zereginak ditu Kepa Enbeitaren

<sup>91</sup> Askotan bertso-sorta edo poemaren egitura honako hauxe izaten da: naturaren gertaerak eta nolakotasuna deskribatzen dira eta ondoren elementu bakoitzari dagokiona azaltzen da irakaspen bat emateko asmoz. Sorne Unzueta (Bilbo, 1900) emakume idazleak, esate baterako, joera hau erakusten du bere poema askotan eta horrela azaltzen du Igone Etxebarria ikerlariak: "Olerki gehienak, ostera, orden edo egitura antzekoa dauka. Hasteko, naturan ikusten dituen fenomenoaren deskribapena egiten dau, eta horregaz irakatsi gura dauana azaldu gero, elementu bakoitzari pareko dagokiona emonda. "Udabariyan" olerkian adibidez, aita-emeak baratzan dana loratan ikusita, semeak intxaurra eta gaztaina neguko-itxuraz dagozanez, hilda dagozalakoan egurretarako gura ditu, baina aitak itxaroteko dinotso orrilan ikusiko dauala-ta orriz eta frutuz beterik. Horren ostean dator irakatsia edo mezua: halantxe dira euskotarrak. Abertzaleak pozik dagoz ikurriña airean ikusita, baina euzko-odola euki arren aberria maite ez dabenak be badagoz, eta horren bihotzak be behar ditu aberriak, horregaitik maitatu behar dira", Ik., Etxebarria, I., <<Sorne Unzueta literatura>>, *Sorne Unzueta <<Utarsus>> Idazlan Guztiak* liburuan, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1997, 34-35.

<sup>92</sup> Kasu honetan izaera errurala duen herri hau *Euzkoen* metafora da.

<sup>93</sup> Otsoa irudi bezala oso erabilia izan da ideologia abertzalearen kutsua duen euskal olerkietan.

<sup>94</sup> Bertsolaritzak genero epidiptikoarekin dauka harremanik gehien. Jadanik Aristotelesek azaldu zuen bezala, "El objetivo del "género epidíctico" es agrandar mediante la presentación de unos valores y de unos modelos, con los que el auditorio pueda identificarse con mayor o menor fervor" (Hernández Guerrero, J.A., 1994, 37). Mota honetako azken puntuak estilo epidiptikoaren erakusgarriak dira beraz.

bertsogintzan. Zeregin edo funtzio horiek batez ere hauexek lirateke gure ustez:

- mezu baten mugak adierazteko;
- zerbait txarra salatzeke;
- mehatxu kutsua duen ondorio bat ateratzeko.

Ikus ditzagun bada, banan-banan erabilera hauek.

### 1.2.2.1. Mezu edota ideia baten mugak adierazteko

Surik barik eiten dau diruak berotu,  
Asko daukana iñoiz ezin da geratu,  
Gaxoren bat ein ezik beragana agertu,  
**Beste gauzak eztau ba egiten bildurtu.** (K164i)

Diruaren gosez ari da “Lugiñenak” bertso-sortan agertzen den bertso honetan. Dirudunaren beldur bakarra gaixotasunaren bat baino ez dela zehazten du egileak ukapen baten bidez.

Maitetasun au egikerakaz  
Gure gaste txit argijak  
Agertzen dabe; ikus nai daunak  
Zabal ipiñi begijak.  
Eurak dira, ba, makil-dantzari,  
Eurak bai abeslarijak;  
**Baña ez gero naizelakuak,**  
**Ezpada goragarrijak.** (K036f)

Garai hartako *Euzko-Gaztedija*-ri eskainitako bertso honetan gazte haien abileziak aipatzeaz gain, enfasi modura, ukapen bat erabiltzen du mezuari ñabardura bat erantsiz: abilezi horiek ez dira edonolakoak, *goragarrijak* baizik.

### 1.2.2.2. Zerbait txarra salatzeke

Artez daukie beti euren kontzientzia,  
Ta ezer eztan lekuan eskua garbia:  
Orren bixi-moduan ispillu argia,  
**Iñok ikus eztayan ixaten nagia.** (K162j)

Garai hartako *karabineruez* ari da oraingoan Urretxindorra. Lehenengo bi puntuak era ironikoan formulatuta daudela azken puntuak argitzen digu; izan ere, *karabineru* haien helburua euren nagitasuna ikusia ez izatea da.

---

Izan ere, baieztapen zein ezeztapen sententzioso hauekin balio multzo bat erakutsi nahi zaie entzuleei haiekin bat etor daitezen. Balio hauek bestalde ez dira inposatuak; izan ere, Urretxindorraren garaiko entzuleriak ezagutu eta bizi egiten zituen neurri handi baten. Baina bere jardunaren bidez Urretxindorrek Herri kulturaren ondarea jorratu nahi du, balioak, ideiak eta sinesmen zehatzak aldarrikatuz.

Egun danetan dagoz sarturik eleizan,  
 Abadien aurrean santu baten gisan;  
 Gero ikusi biar zer moduz dabiltzan,  
**Zintzo asko orain arte beintzat ezta izan.** (K162n)

Azken honek garai hartako sakristauei buruz dihardu. Aurrekoaren antzera, lehenengo puntuen ironiazko zentzuak azkenak argitzen digu, izan ere sakristauen zintzotasuna ukatzen du egileak.

### 1.2.2.3. “Mehatxu” kutsuko ondorioa

Ukapena mehatxu bat adierazteko ere baliagarria izan daiteke, izan ere zerbaiten gabeziak ohartarazten da tonu profetikoan.

Orain artian eztozu euki  
 Korte'ko Diputadurik:  
 Euskalerrria jaten on diran  
 Txakurrak bakar-bakarrik.  
 Korte-etxea imiñi dogu  
 Geure Diputauz beterik:  
 Txakurrok gosez ba'dira bere,  
**Laster ez dauke lekurik.** (K162i)

MATXALEN'EK.—Zer erantzun be ez dakidala  
 Ipintzen nozu bildurrez.  
 Zeure burua daukazu aintzat  
 Eta besterik iñor bez.  
 Ezkonduteko bildurra dozu  
 Ta eiñ barik egon nai ez.  
**Baña paltarik iñun bakorik**  
**Ez dozu topauko errez.** (K181d)

Mehatxua ez ezik, gaitz bat saihesteko oharra ere izan daiteke, azken adibide honetan bezala.

### 1.2.2.4. Ukapenaren bidez zer edo zer baieztatu: litotes<sup>95</sup>

Moderazio baliabide baten aurrean gaude, izan ere zerbait kontundente eta indartsua adierazteko egileak esan nahi duenaren kontrakoa ukatzea besterik ez du egiten:

Asi umetxu koskorretatik  
 Ta aitite zarretaraño  
 Zure gomuta eztaun bat bere  
 Ez dot aurkitu ondiño

<sup>95</sup> Litotes irudia horrela dago definiturik Demetrio Estébanez Calderón-en hiztegian (1999, 635): "Término griego (*litotes*: sencillez, de *litos*: pequeño) con el que se designa una figura retórica de atenuación, consistente en decir menos de lo que se piensa para dar a entender, por el tono y el contexto, que se quiere expresar más de lo que se ha dicho".

Lenau nekezik deitzeutzunak  
 Gaur bijotz-bijotzez diño  
**Euzkadi'k seme gurgarriaurik**  
**Eztaula ixan ondiño.** (K045h)

Au ez diñogu erdi-olgetan  
 Bai, baña, bena-benetan  
**Ez degu, barriz, gutxiagoren**  
**Usterik etxe onetan.** (K089f)

Baso-baratza orobat dago  
 Edertasunez bete-beterik  
**Udabarridak eztau ekarri**  
**Edertasuna baño besterik.** (K137e)

### 1.2.2.5. Galdera erretorikoa ezezkoan: kontzientzia esnatzeko

Ahapaldiaren mezu nagusiaren ondorio bezala galdera erretoriko bat sortzen da azken puntuan, eta kasu askotan modu negatiboan formulatuta.

Nun da gaur gure anaitasuna?  
 Gure lagijak nun dira?  
 Eztira agertzen iñun-iñun be  
 Jai aien gaur begira;  
 Arrotzalien erruz eruan  
 Ebezan gastelerrira.  
**Zetan eztoqu jaubetu biar**  
**Euzkeldunenak ba'dira?** (K048i)

Ukapenak izaten ohi du bere indarra, baina gehienetan kontzientzia lokartuak esnatzeko erabiltzen da, barne beldurraren bidez, ohitura eta joera txarretatik atera daitezen. Ukapenak, beraz, ez du baieztapenaren alaitasuna eta aldarrikapen positiboaren kutsua. Ukapena izan daiteke egilearen ikuspegi etsituaren ondorio bat eta, hortaz, egilearen dekadentziaren zantzu bat. Baina posiblea da, baita ere, ikuspegi pedagogikoaren estrategia bat izatea eta, beraz, zerbait ona komunikatzeko irrikaren erakusgarria (modu negatiboan izan arren). Urretxindorraren kasuan badirudi biziagoa dela bigarren joera, hau da, ukapenaren bidez estrategia pedagogiko bat jorratzea, entzule edota hartzailearen kontzientzian eragiteko ere.

Etsipen jarrerarik ez dela existitzen baieztatu liteke. Etsipen kutsua baino, kexa kutsua da nabarmenagoa. Hala ere, badirudi egilearen itxaropena indartsuagoa dela, bere kexaren zioa baino. Ondorengo bertsoan ere Urretxindorra kexaka ari zaio bere Ama Euskarari. Azkenean egiten duen galdera erretoriko hark badu bere itxaropen izpia: hartzailearen kontzientzian eragiteko itxaropena, hain zuzen. Urretxindorarentzat guztiz begibistakoa da euskaldunok Ama Euskararen alde izan behar dugun ardua, eta bere eginkizuna ebidentzia horretaz jabetuaraztea da, ondorengo bertso honetan bezala:

Gure izkuntz eder, Euzkera txukun,

Zu zaran antziñakua  
 Gaur bixi diran beste ele orok  
 Baño be lenagokua  
 Baldin ba'zagoz lau aldetatik  
 Ezetsiz inguratua  
**Semiok zeure alde zarteko**  
**Ez al da zijoik naikua?** (K146b)

### 1.3. (Baldintza + ) ondorioa: epifonema

Baldintza-ondorioa da Urretxindorrek bere bertsoen azken puntuetan erabiltzen duen binomio nabarmen bat. Azken puntuetan karga semantikoa edota efektu bereziren bat ezartzeko orduan oso erabilgarria da errekurso hau; izan ere, oso modu azkarrean, bi ideien arteko lotura logikoa eskaintzen da, eta horrek ahozko jardunean etekin ona eman dezake.

Agindua-helburua binomioa aztertu dugunean (ikus kapitulu honen 1. atala) mezu abertzaleak duen ukitu arrazionalista aipatzen genuen<sup>96</sup>. Atal honek ukitu arrazionalista dagoela berresten du; izan ere, zenbait bertso bukaeretan agertzen diren ondorioak logikatik ez dira aldentzen, bertso barruko logikatik esan nahi baita. Hori bai, logika hori, Urretxindorren iritzian (politika, giza ikuspegi, zein erlijio jarreraren ikuspegitik) errealitatearekin bat dator.

Estébanez Calderón-ek sententzia definitzen duenean gogora ekartzen du B. Mortararen irizpidea: epifonema<sup>97</sup> sententzia egiteko era bat da eta berorren bidez arrazoitutako edo kontatutako pentsamendu bati burutuaren zentzua ematen zaio, ondorio logiko bat bailitzan. Urretxindorrek zentzu honetan erabiltzen ditu bertso bukaerako azken ondorioak, edo ondorio gehienak behintzat.

#### 1.3.1. Baldintza-ondorioa binomioa

Batzutan baldintza-ondorioa bikoteari eusten dio Urretxindorrek azken puntua edota azken bi puntuetan, arestian aipatu dugun epifonema zentzuaz, hau da, bertsoan arrazoitutakoaren bukaera logiko bezala. Bertsoan zehar isuritako arrazoiek ondorioa ateratzeko giroa prestatzen dute. Baina baldintza-

<sup>96</sup> Zentzu honetan joan zirenak mordotxoak izan ziren Urretxindorren garaian. Haien artean Lauaxeta dugu. Ideia hauxe bera deskribatzen du Josu Penadesek (1996, 91-92) Lauaxeta eta bere garaikideen ideologia aztertzerakoan. "Bihotza-adimena-nahimena" epigrafean hauxe esaten du: "Abertzaletasuna, ordea, ez zen bihotz inguruko sentiberatasun hutsera murrizten. Abertzaleak beharrezko zuen adimenaren parte hartzea ere. Nahikotan azpimarratu zuen hau Lauaxetak, gehienetan Sabino Arana bitarteko [...] abertzaletasunaz ez zen arerioei erantzuteko bakarrik hausnartu behar. Bere abertzaletasun-bizikizunaz arrazoitzea ezinbesteko eginkizuna zen abertzalearentzat".

<sup>97</sup> Horrela dago definituta epifonema: "Término de origen griego (epiphonema: expresión o juicio último) con el que se designa la exclamación final, en forma de sentencia, con la que el hablante o el escritor cierra su enunciado y emite un juicio o consideración personal sobre las enseñanzas que se deducen del mensaje que acaba de transmitir", 1999, 340.

ondorioa binomioa azken puntuetan erabiltzeak efektu azkar eta eraginezkoa ahalbideratzen du.

### 1.3.1.1. Hirugarren pertsona

Arrazoiketa hartzailearentzat egina egoten da batzutan, baina egilea ez da harengana zuzentzen, efektu hori areagotzearen amorez. Arrazoiketak eta ondorioak berez badute beren indarra.

Eztozula nai gure umiai  
Irakastia euzkera?  
Agur... Ba-guaz irakatsiko  
Dautsien etxe batera.  
**Itz geyau barik egin ezkeru**  
**Umiak andik atera,**  
**Bigurtu leikez irakasliok**  
**Euzkeraz irakastera.** (K042d)

Azken bertso honetan estrategia bat agertzen du Urretxindorrek. Azken bi puntuetan estrategia horren emaitza edo ondorioa zein izan daitekeen modu hipotetikoan (*bigurtu leikez*) azaltzen du.

Biak bixi ba'dira, barriz, etxe baten,  
Beti egon biar gauzak erara emoten.  
**Ardo pizka bat ba'dau nozik-bein edaten.**  
**Ugazaba yuako atzetik jagoten.** (K164f)

Ugazaba eta langile xehearen arteko harremanaz ari den azken bertso honetan, kontrola eta menperakuntzazko egoera baldintza-ondorioa binomioaren bidez adierazita dago berriro ere. Egoera hori adibide grafiko eta zehatz batez irudikatzen da horrela, ahozko estiloaren psikodinamikei eutsiz.

### 1.3.1.2. Apelazioa

Beste batzuetan oster, aipatutako binomioa (baldintza-ondorioa) apostrofe bati lotuta joaten da. Apostrofe horren helmuga kasurik gehienetan beste pertsona bat izaten da, zerbaitetaz ohartarazi nahi den pertsona bat alegia. Batzutan apelazioaren hartzailea irakurle zein entzulea bera izan daitezke, beren kontzientzia eragin nahian. Ahozko estiloari dagokion modu azkar, adierazgarri eta argigarri batez irakaspen bat eskaintzen da horrela:

Au ikusirik maixu arruak  
Dirautse asarre bizian:  
"Lapurtzar orreik, zer dabizue  
Iñoren gauzak artzian?"  
Mutillak, baña, danak batera,  
Gogor erantzun eutsian:  
"Ixi, maixu oi! Aztu al yatzu  
Zer esan dozun goixian?"  
Ikurrin ori geuk jarri dogu,



Oin geu nausi baratxian!  
**Ta gu augaitik lapur ba'gara,**  
**Orain gu garan antzian,**  
**Zuk esandako Españarrak be**  
**Lapurrak ixan zirian. (K163j)**

KEPA'K.—Bi alditan asi az  
 esnia batzian,  
 bietan katilua  
 dok erdi utsian.  
**I baño abilaurik**  
**ezpadok eltzian,**  
**dantzian eingo yok orrek**  
**okollu ertzian. (K161e)**

Gauza txaren jatorri  
 Arrokerija dozu  
 Nagikerija, barriz,  
 Ustelaren lengusu.  
**Senitarte orretan**  
**Bixi nai ez ba'dozu**  
**Umiari euzkeraz**  
**Irakatsi eyozu. (K041a)**

Baldintza-ondorioa binomioaren elementuak kontrako ordenan ager daitezke, alegia, lehenengoz ondorioa iragartzea eta gero berorren baldintza nabarmentzea:

Ingurukuak zuri dautzuben bekatxaz,  
 Begik estaldu dautzuz ... guzur-zapi baltzaz.  
**Laster dozu bijotzoi josirik arantzaz ...**  
**Jarraitzen bozu orko ... "fariseoakaz". (K058b)**

### 1.3.2. Ondorioa, epifonema izaeraduna

Aipatzen ari garen puntu bukaerako ondorio zentzua batzutan baldintzaren laguntzarik gabe agertuko da. Baliteke zenbait baldintza modu implizituan agertzea, hau da, zentzuz baldintzak izanik baina itxuraz ez<sup>98</sup>.

Modu horretan agertzen diren azken puntuek ondorio eta epifonema<sup>99</sup> zentzua -zentzu biak batera- dute.

"Uri kutunoi, arpeiz arpegi  
 begitzen neutzun lenago;  
 Bana sartu zan erdalkerija  
 Geruago ta geyago.  
 Onek tamalez eraso eustan:

<sup>98</sup> Baldintzaren marka morfologikorik agertu gabe esan nahi baita.

<sup>99</sup> Ikus 29. oharra.

"Au ezta lengo Durango!"  
**Eta ordutik, bira emonik**  
**Mendira begira nago.** (K144e)

Azken bertso honetan, egileak hartu duen erabakia aurretik esandakoan oinarritzen da, perpauk huetan antzeman daitekeenez: "sartu zan erdalkerija" eta "Au ezta lengo Durango!". Ondorioa da eta era berean sententzia.

Artzañen txistu larriak  
 txabolaratu ardiak.  
 "Otsoak txabol aurrian!" ...  
 didarra entzun danian,  
**jagirik Erri osoak**  
**uxatu dituz otsoak** ... (K146a)

Azken honetan *Erri osoaren* altxaketa aurreko bertso-lerroetan deskribatzen duenaren ondorioa da, eta era berean jazoera politiko baten alegoria ageriago egiten da azken puntuan. Guzti honi epifonema usaina dario.

## 1.4. Galderak

### 1.4.1. Galdera eta benetako mezua

Azken punturako galderak uztea baliabide erabilia da Urretxindorraren bertsoetan. Galdera horietako gehienek galdera erretorikoaren<sup>100</sup> zentzua hartzen dute. Galdera horien bitartez alde batetik hartzaileari apelazioa egiten zaio, galdera horri erantzuna pentsa dezala iradokiz, eta beste aldetik egileak inplizituki bere erantzuna ematen du, nahiz eta itxuraz informazio eskatzen duen. Beraz, galdera erretorikoak bere ukitu ironikoa baduela esan daiteke; izan ere, egileak informazioa eskatzen duela iruditu arren, inplizituki bere iritzia adierazten ari da.

Hauek dira adibideetako batzuk:

Euzkerea da euzkeldunentzat  
 Ozkarbiko eguzkija,  
 Geure gogua, geure bijotza,  
 Poz eta atsegin gustija;  
 Ekatz deungia, gure artera  
 Sartu dan erdelkerija.  
 Jaso daigun, ba, ekatz onen gain  
 Euzkera maitagarrija.  
**Bestela, zelan esango dogu**  
**Au dala Euzkelerrija?**  
 (Euzkadi, 1921-VI-21) (K137b)

<sup>100</sup> Horrela definitzen du Estébanez Calderón-ek: "Figura literaria cuya finalidad no es indagar sino poner en evidencia y resaltar, con cierto énfasis y solemnidad, algo de lo que previamente se está seguro. Es un recurso expresivo que tiene por objeto provocar el asentimiento del oyente al mensaje que se le comunica", 1999, 570.

Galdetu arren, bere mezua hauxe da: euskararik gabe Euskal Herririk ez dagoela. Nahiz eta ondorio logikoa izan, ez du baieztapen hori inposatzen, galdera baten bidez iradoki baizik. Horrela, hartzaileak ez du pasiboki jokatzeko, eta bere inteligentzia errespetu handiagoz kontutan hartzen da. Arrazoiak besteen buruan sartzeko galdera batez baliatzen da egilea, eta ez baieztapen batez (kasu hauetan behintzat). Hala ere, badakigu, kapitulu honen bigarren atalean erakutsi dugunez, sententzia kategorialaz ere baliatzen dela.

Bilbao'tar Toma, jeltzale ona  
 Dozubela Lendakari,  
 Gustijon arte sortu zenduben  
 Nekotxea'n "Euzkadi";  
 Bijotz oneko gixon prestuok  
 Lagun egiñik alkarri,  
**Bide onera zenbat euzkotar**  
**Ete dozuez ekarri?** (K123f)

Azken bertso honetan ere, galdera erretorikoaren mezu inplizitua erantzun jakin bat da hain zuzen: bide onera euskotar asko ekarri dituztela, euren jarduerarekin. Laudoriozko mezua ere bada, izan ere Bilbo'tar Toma eta bere batzokiaren jardunaren emaitzak ontzat ikusten baititu.

Hurrengo bertsoan, Urretxindorrek kazetari bati zuzentzen dio bere diskurtsoa (nahiz eta hartzaileak 1910eko hamarkadako *Euzko-Deyaren* irakurle guztiak izan). Bere mezuaren enpatiarako joera apostrofe kutsu bigun batez lagundurik doa eta hori galderetan egiten da nabarmenago:

Ainbeste bidar esan dautzut, ba,  
 "Euzkeltzale-Bazkun" orri,  
 Nire argazkiz ez baltzitzeko  
 "Euzko-Deya"-ren ingorri,  
 Enazalako duin ortarako;  
 Jakitun zengozan ori.  
 Zenbat oldozmen ete dabildez,  
 Gautegun, juan-etorri!  
**Zer esango dau ni nazaudanak?**  
**Ta idazkun au irakurri?**  
 Gomutan onek bigurtzen daustaz  
 Ene begijok iturri! (K131i)

Egia esan ez da azken puntuaren errekurtsio bat, azkenaurrekoarena baino, baina azken puntuaren garrasia prestatzen duena eta, hortaz, azken puntuaren inguruko eremuan dihardu.

Ildo bereko iruzkina egin beharko genuke hurrengo bertsoari buruz, non azken puntuan bertsoaren hartzaileari, bere maiteari, galdera bat zuzentzen baitio.

Alper nekauko dira  
 arantza ta sasi,  
 osasun ederrian  
 gu ba'gara bixi.

Lora maitia, sarri  
 eingo zaut ikusi,  
 ta zuk maitetasuna  
 neuri **erakutsi**  
**ezkero, zelan baña**  
**eingo zaitut itxi?** (K120d)

#### 1.4.2. Galdera eta ahozko estiloa

Hizkera mintzatua eta ahozko estiloaren ezaugarriak dituzten bertso ugari paratu zituen Urretxindorrek. Ahozko estiloaren elisioak eta kasu honetan dagokigun galdera erretorikoak ez dira falta beraietan.

Har dezagun Bilboko Athletic futbol taldeari eskaini zion bertsoetako bat:

España'tar artian  
 Katalanak nausi  
 Ixan dira; baña gaur  
 Euzko menpe jausi.  
 Nai zetan be benetan  
 Eiñ ezkero asi,  
**Euzkotarrari baña**  
**Zeñek irabazi?** (K123b)

Azken galdera hau euskara mintzatutik nahiko gertu dago; izan ere, mezu jakin bat daramaten galderak, Euskal Herriko mendebaldean behintzat, ugari dira batez ere subjektuaz galdetzen denean.

Izan ere, galdera erretorikoa Urretxindorren bertso gintzan ez da errekurtsio soil bat, ahozko estiloaren lorratz bat baizik edo, nahi bada, ahozko estiloaren ezaugarri bat. Jakina da ahozko kulturak giza bizitzaren mundutik<sup>101</sup> nahiko gertu daudela, eta komunikazioa herri (edo komunitate) jakintzan oinarritzen da, hau da, komunikatzeko kontutan hartzen da komunitate osoak dakiena, eta erabiltzen duen erregistroa edota iruditegia. Komunikazio moldeak beraz, amankomunak edo enpatikoak<sup>102</sup> dira. Joera enpatiko hori dela kausa, egileak (edo igorleak), eta kasu honetan bertsolariak, ahaleginak egingo ditu bere diskurtsoa entzuleari (gogoratu behar da entzulea adierazten den guztietan, hartzailea edo irakurlea ere adierazten dugula) begira eta bideratua egon dadin. Ahalegin horien ondorio bat galdera erretorika da: berorren bidez hurbiltasunaren tentsioa tenkatzen da eta tentsioz mantentzen da.

<sup>101</sup> Joera hau Walter J. Ong-ek deskribatzen dituen ahozkotasanaren psikodinamika bat dela izan liteke honela deskribaturik dago: "En ausencia de categorías analíticas complejas que dependan de la escritura para estructurar el saber a cierta distancia de la experiencia vivida, las culturas orales deben conceptualizar y expresar en forma verbal todos sus conocimientos, con referencia más o menos estrecha con el mundo vital humano, asimilando el mundo objetivo ajeno a la acción recíproca, conocida y más inmediata, de los seres humanos", (aipatutako lana, *Oralidad y ...*), 48.

<sup>102</sup> Joera enpatiko hau horrela azaltzen du Walter J. Ong-ek: "Para una cultura oral, aprender o saber significa lograr una identificación comunitaria, empática y estrecha con lo sabido, identificarse con él", *Ibidem*, 51.

Bestaldetik, galderaren presentziak elkarrizketa mintzatua gomutarazten du, non galderak eta erantzunak egoten diren eta mintzakideak elkarrekiko erreferentzian eta aipamenetan aritzen diren.

Baña samindu be bai gauza baten utsak ...

Kepa'ri zer dala-ta bidalduten dautsak

Idazkija erderaz, Euzkeldunarentzat,

**Onek beren bijotza samintzen ba'yetsak?** (K124d)

Azken hau Urretxindorrek bere anaia bati eskainitakoa da. Galdera bat zuzentzen dion arren, horren atzean mezu jakin bat igartzen da, alegia, erdaraz idatzi izana leporatzen diola biak euskaldunak izanik eta bera, Kepa alegia, oso euskaltzalea izanik. Munta honetako bertsoek elkarrizketaren kutsua dute, eta horretan azken puntuetako galderek laguntzen dute.

## 2. Ondorioak

- a) Kepa Enbeitak bere bertsoan azken punturako erabiltzen dituen baliabideak eta jorratzen dituen jokaerak orokorrean bat datoz bere ideologiarekin.
- b) Kepa Enbeitaren abertzaletasuna eta kristau sinesmena arrazoitu daitezke, edo behintzat horrela pentsatzen zuen berak. Ezaugarri honek bere isla izango du azken puntuaren estrategietan.
- c) Azken puntuan agindu bat (gonbidapen zentzuaz) eta berorren helburua hartzaileari adieraztea arrazionalismo horren adierazpen bat da. Horrela, egileak hauxe adierazi nahi digu: bete beharreko gauzak ez direla irrazionalak (sentiberatasun itsu batek bultzatuta, edo gizalegearen kontrakoak). Urretxindorren jokamolde bat nahiko garbia da: bereak azaltzen dituen irizpideak (politiko, erlijioso eta moralak) arrazoizkoak omen dira eta, beraz, ez dute arrazoimena bortxatzen. Alderantziz, zentzuzkoak direnez gero, agindu, aholkatu edo proposamenen bat bertsozatzen duenean, horri lotuta arrazoi edo helburu bat adieraziko du. Joera hau, gainera, hoskidetzan txertatuko da eta azken puntuaren estiloaren ezaugarri bilakatuko. Hain errotuta dago joera hau ezen binomio bat izatera ailegatu baita, azken puntuan kokatzen ohi den binomioa hain zuzen.
- d) Sententziarako duen joera ere bere ideologiaren ondorioa da. Urretxindorrek ez ditu zeharo desberdintzen sinesmena eta iritzi politikoak. Sinesmenerako baliagarriak diren baieztapen edo ukapen kategorialak (dogma edo moral kontuetarako, adibidez) uste politikoetarako ere erabiltzen ditu. Honek, uste horren tinkotasuna adierazteaz gain, asmo pedagogiko bat ere biltzen du bere baitan.
- e) Baldintza-ondorioa da beste estrategia garrantzitsu bat azken puntuan. Literaturtasunaren ikuspuntutik esaldi hauek xaloeziak iruditu arren, ahozkotasunerako behar beharrezkoak dira, eta Urretxindorrek erraztasun

eta trebetasun handiz erabiltzen ditu. Bat-bateko ulermena dakar jokamolde honek. Apelazioa eginez gero baldintza hori hurbilago sentituko du bertsoaren hartzaileak.

- f) Galdera erretorikoa apelazioaren ekinbide ildo bat da, eta honek gogorarazten digu Kepa Enbeita ahozkoasunetik zein hurbil dagoen, eta era berean, antzematen da erretorika zahar baten oihartzuna. Izan ere, Urretxindorrek entzulearengana era pedagogiko batez iritsi nahi zuen.

## **3. kapituluua**

### **Ahapaldia**

## O. Sarrera

Zalantzarik gabe, ahapaldiaren egiturak zerikusi zuzena dauka azken puntuaren baliabidearekin. Semantikoki edota morfologikoki segun eta nolakoa den azken puntua, egitura era batekoa ala bestekoa izan daiteke.

Bertsoa, bertso-gintzaren esanahi unitatetzat hartzen badugu (ez unitate txikiena, unitate mota bat baizik), berehala konturatzen gara ez dela aski azken puntuaren erretorika aztertzea. Bertso osoaren egitura, morfologia eta barne tentsioak kontutan hartzea ere behar beharrezkoa da eta horixe bera dugu kapitulu honen helburu. Beraz, azken puntua, oso garrantzitsua izanik ere, ez da gure soa erakarriko duen bakarria azterketa honetan. Bertsolariak bere bertsoaren konposaketan izan duen estrategia ez da bakarrik azken puntuan islatzen: bertso osoan barrena ere agertzen da.

Bestaldetik, badirudi ere kontutan hartu behar dugula ahapaldia zer motatako bertso sortari<sup>103</sup> dagokion. Guk behintzat horrela egin dugu arrazoi honetan oinarrituta: hipotesi bat daukagu eta berorren arabera bertsoaren tematikak eta tonuak bertso egituraren eragin zuzena izan dezakete. Ikusiko dugu betetzen denentz.

Santi Onaindiak<sup>104</sup> Urretxindorraren bertsoak argitaratzen dituenean zenbait sailetan egokitzen ditu:

- “Aberkoyak”
- “Uzkurtzakuak”
- “Goralpenezkuak”
- “Ipuin eta abar”
- “Gomutakizunak”

Hala ere, zenbait bertso-sortetan bereizketa hori ez da horren garbi ikusten. Esate baterako, bertso aberkoiak<sup>105</sup> eta erlijiozkoak bereizten ez da erreza izaten, nahiz eta sail batean edo bestean agertu. Hau dela eta, bertso hauek sailkatzerakoan Santi Onaindiak bere zailtasunak izango zituela sumatzen dugu.

Horrezaz gainera beste sail bi bereiztuko genituzke:

- Natura mezuaren euskarri ezinbestekoa duten bertso-sortak, edo laburrago esanda, naturazkoak.

- Zenbait pertsonaiaren ohiturei iseka egiteko edo kritikatzeko izaten direnak, edo laburrago esanda, satirikoak.

Oraingoz horrela geratuko litzateke gaien zerrenda:

<sup>103</sup> Kepa Enbeitaren bertsoez ari garelarik gehienetan bertso idatziez arituko gara, horiexek baitira, jaso direnen artean, kopuruz ugariak.

<sup>104</sup> Santi Onaindia da Kepa Enbeitaren bertsoak argitaratzen dituen 1971ean.

<sup>105</sup> Hemendik aurrera batuaz adierazkiko ditugu. *Aberkoyak*, *uzkurtzakuak* edo *gorapenezkuak* idatzi beharrean aberkoiak, erlijiozkoak eta gorapenezkoak idatziko dugu.



- Aberkoiak.
- Erlijiozkoak.
- Goralpenezkoak
- Ipuin eta abar.
- *Gomutakizunak*.
- Naturazkoak.
- Satirikoak.

Ezaguna da **zortzikoak** direla, neurriari gagozkiolarik, neurririk erabilienak bertsogintzan. Kepa Enbeitaren bertsogintzan beste horrenbeste gertatzen da eta hau nabarmentzeko modukoa da, kontutan hartuta Bizkaian koplagintzak zeukan indarra. Giro horretan zortzikoari eustea inguruko ohituretatik nabarmentzea da. Esan ohi da bertsolaritza koplagintzaren bilakaera dela:

Koplaritzaren bilakaeratik bertsularitza dator. Bi kobla elkarren gainean jarririk, bertsu bat egiten dute. Beraz bertsu batek lau lerro dauzka (Bertsularien lagunak, 1998, 55) (Iparraldean, ezen Hegoaldean lau lerro horiek zortzi izaten dira: zortzikoak, lau oin dituztenak)<sup>106</sup>.

Beraz, Keparen ahapaldien egitura gaur egun ezagutzen dugun zortziko baten eran moldaturik egongo da. Hala ere, puntuak mugatuta izanda (lau puntu baino ez), modu edo egitura mota horiek mugatuak dira. Hona hemen sor daitezkeen egitura motak:

### **1. eredia**

#### **a)**

1. puntua
2. puntua
3. puntua

Hiru puntu hauetan gaia berbera da eta zehaztapena garatuz doa lehenengo puntutik, non zehaztapena oso azalekoa den, hirugarren punturaino.

#### **b)**

4. puntua

Esandakoaren ondorio bat eskaintzen da. Sententzia kutsukoa izan daiteke eta, era berean, pozezko zein kexazko zein harridurazko deiarretan adierazia.

### **Bigarren eredia**

#### **a)**

1. puntua

---

<sup>106</sup> Parentesi artean dagoena guk adierazia da.

2. puntua
- b)
3. puntua
4. puntua

Bi moduluak dituen bertso eredu genuke hau. Bereizketa argia da, esate baterako, lehenengo moduluan irudi bat azaltzen delako eta bigarrenean azaldu nahi den errealitatea esplizituki adierazia.

### **Hirugarren eredua**

**a)**

1. puntua
2. puntua

**b)**

3. puntua: inflexio gunea

**c)**

4. puntua: itxidura

Inflexio gunek azken puntuari terrenoa prestatzen dio, eta aurreneko atalarekiko aldaketa bat suposatzen du.

### **Laugarren eredua**

Eredu hau beheranzko edo goranzko progresioan eratua izan daiteke.

1. puntua
2. puntua
3. puntua
4. puntua

Eredu hauek bat datoz Arcadio López-Casanova-k (1994, 36-37) proposatzen dituen konposizio ereduekin. Bere ustez, eta gu bat gatoz, poema bat konposatzea zerbait eraikitzea da da, eta eraikuntza hori modu desberdinetan egin daiteke. Modu desberdin horiek lau eredu nagusitan banatzen ditu berak. Jakina, lau eredu horietan sartzen ez diren poema eta ahapaldi asko egongo dira, baina baliagarriak direlakoan gaude. Horrela azaltzen du berak:

Más allá de las claves temáticas y actoriales comentadas, y de los diseños de articulación y jerarquización de motivos y unidades poemáticas, todo poema responde a lo que podríamos denominar un impulso constructivo, esto es, una ley interna o principio ordenador que busca ajustarse a unos determinados modelos o esquemas compositivos de muy diversa índole y, desde luego, difíciles de fijar simplídicamente. [...] Sobre estos supuestos, pueden quedar establecidos –al menos en principio– cuatro esquemas básicos, que gráficamente representaremos de este modo:

LINEAL <sup>107</sup>	ANALÍTICO <sup>108</sup>	SINTÉTICO <sup>109</sup>	SIMÉTRICO <sup>110</sup>
1. puntua	1. puntua	1. puntua	1. puntua
2. puntua		2. puntua	2. puntua
3. puntua	2. puntua	3. puntua	_____
4. puntua	3. puntua	4. puntua	3. puntua
...	4. puntua		4. puntua <sup>111</sup>

Hauexek dira, beraz, seguruenera aurki ditzakegun ereduak, zortzikoez ari garela. Ondoren ereduok banan-banan aztertuko ditugu gai desberdinetako bertsoak adibide bezala ekarriaz. Badirudi, ordea, eredu analitikoa baztertzekoa izan litekeela bertsolaritzan, izan ere azken puntuan ez dago oinarrituta eta hori bertsolaritzaren oinarritzko araua da. Hala ere, ez dugu ondoriorik aurreratuko eta azterketari eskainiko diogu tartea lehenbizi.

Ikus ditzagun bada, ereduok banan-banan.

### 1. Lehenengo eredia

Hauxe da arestian aipatu dugun ereduaren azalpena:

#### a)

1. puntua
2. puntua
3. puntua

<sup>107</sup> Konposizio eredu hau azaltzeko, Arcadio López-Casanova-k Becquerren XLI rima hartzen du adibidetzat. Poema honetan linealtasuna da nagusi: "El tema del amor –vector dominante– es, aquí, la dramática imposibilidad entre los amantes (eje temático). La tan ajustada distribución en tres unidades – idénticas y con las mismas marcas– no hace sino insistir obsesivamente con recurrencia de notas en las razones de esa imposibilidad. [...] Consecuentemente, el eje temático es hilo cohesionador de la serie ternaria de unidades, sometidas, pues, a un simple principio de yuxtaposición y sin nivel alguno de jerarquización", López-Casanova, 1994, 37.

<sup>108</sup> Eredu analitikoa Becquerren IV. rimarekin azaltzen du: "El poema, con un total de treinta y seis versos, está articulado en dos unidades temáticas muy desiguales: una primera de 4 versos y una segunda de 32 versos. [...] A partir de esta base-afirmación, la amplia segunda unidad va a ir analizando y explicitando luego la razón de tal aserto", Ibidem, 38.

<sup>109</sup> Lan berean Miguel Hernándezen *Cancionero y Romancero de ausencia* liburutik 29. kanta aukeratzen du eta horrela azaltzen du: "[...] estamos ante un bloque o unidad de carácter analizante, amplia (ocho versos), regularmente repartida (cuatro dísticos), que detalla minuciosamente la revelación de esa <<ausencia>> [...] tras ese detallismo, el poema se cierra con dístico de carácter condensador, sintetizante", Ibidem, 39.

<sup>110</sup> Aipatu dugun *Cancionero...* liburutik egitura simetrikoa duen 83. kanta aukeratzen du López-Casanovak. Horrela dago azalduta bere egitura: "Según se puede observar, hay una clara distribución en dos unidades semejantes de cuatro versos, y las dos además con las mismas notas temáticas, siempre en el cuadro de esa relación (yo-tú) entre los amantes", Ibidem, 41.

<sup>111</sup> Guk bere ereduak begitatzeko puntuz banatutako ahapaldien eskemak ematen ditugu, euskal ahapaldietarako baliagarriagoa delakoan.

Hiru puntu hauetan gaia berbera da eta zehaztapena garatuz doa lehenengo puntutik, non zehaztapena oso azalekoa den, hirugarren punturaino.

**b)**

4. puntua

Esandakoaren ondorio bat eskaintzen da. Kasurik gehienetan sententzia kutsukoa izaten da eta askotan deiadarretan aldarrikatzen da.

### **1.1. Aberkoiak**

Abertzaletasuna Urretxindorraren bertsogintzan zein neurritaraino izan daitekeen eraginkorra antzemateko, ikustea besterik ez dago gai horrekin sailkatzen diren bertso eta bertso-sorta kopurua. Gure ustez, arrazoi honexegatik lehenengo saila bertso aberkoiertzat eskainita dago. Urretxindorra eta abertzaletasuna banatu ezinezko binomio bat da eta hori, nola ez, bertsoetan igartzen da: bai edukiz bai itxuraz.

Ezaguna da Urretxindorrek bereziki lau puntuko bertsoak ekoiztu zituela. Puntuei dagokienez, beste neurritakoak askoz gutxiagotan (alde handiz) agertzen dira. Guk lau puntuko bertsoei eskaini diegu arreta berezia ahapaldiaren egitura aztertze aldera.

Esan behar da lehenengo ereduia ohizkoena dela, besteekiko alde handiz gainera. Mota honetako bertsoetan gai bati ekiten dio egileak lehenengo hiru puntuan. Gai hori ñabartuz joango da egilea, eta kasurik gehienetan gaiaren zehaztasuna garatu egingo da lehenengo puntutik aurrera egin ahala. Lehenengo puntuan errealitatea oso modu orokor eta azalekoan agertu egiten da. Ondorengo bi puntuetan zehaztasuna handiagoa izaten da, baina zehaztasun horren oinarria eta testuingurua lehenengo puntuan ezarrita daude jadanik. Bestelako kasu baten, hau da, orokorretik zehatzera garatuz ez balihoa, zehaztasun hori interpretatzen eta ulertzen oso gaitz litzateke.

**a)**

Euzkadi gusti-gustija bere  
Abenda, ele, ekandu eta  
Jolas baketsu eder orokin  
Bai-zan gogo al denduta;  
Etzan ezegaz gomutau be eiten,  
Gustija eukan aitzuta:

Lehenengo hiru puntu hauetan Euzkadiren<sup>112</sup> egoeraren interpretazio bat eskaintzen da. Euzkadik bere nortasun ezaugarriak abandonatuta omen zituen, eta hori zenbait zertzeladekin adierazten da, inpresionista izan daitekeen estilo baten, behar diren zertzeladak emanez, baina gehiegi zehaztu gabe. Hizkera analitikoa baztertu egiten da<sup>113</sup> eta egileak bizi-munduari ekiten dio gauza

<sup>112</sup> Hemen Urretxindorraren terminologia erabiliko dugu, haren parametroetan sartzeko lagungarria suertatuko zaigulakoan. Gauza bera egingo dugu *euzko* edota *Pizkunde* terminoekin.

<sup>113</sup> Egoera jakin bat azaldu eta aztertzeke orduan, egileak ez du erabiltzen hizkera analitikorik, hau da, egoera hori kontzeptualizatu eta abstraktu bilakatzen duen hizkera bat, baizik eta herri esamolde edo

zehatz eta adierazgarriak aipatuz soil-soilik. Guzti honek azken esaldiaren prestakuntzarako balio du<sup>114</sup>.

**b)**

Aurkituten zan bere bixitza  
Odei baltzez estalduta. (K039b)

Euzkadiren egoera hori metafora batez (agian lexikalizatu edo fosildua) laburbildurik dago: "odei baltzez estalduta". Hauxe bera da beste bertso askorengan antzematen den joera, esaera batez bertsoan arrazoiturikoa laburbiltzeko joera, alegia. Laburpen horrek sententzia baten izaera izan dezake, batzuetan deiadarraren ñabardurarekin.

Hona hemen beste bat:

**a)**

Aberrijaren etsayen aurka  
Gurendaz ainbat gudatan  
Buruba jaso eban Erri au  
Bere edestiaz aitzu zan;  
Lotan eguan, eta lo-zorro  
Negargarrijan benetan:

Aurrekoaren bertso-sorta berberari dagozkio hasierako hiru puntu hauek. Berrero ere Aberria edo Euzkadiren egoera azaltzen da, kasu honetan historiaren ikuspuntutik. Espero denez, egileak ez du historia gehiegi zehazten, pintzelada inpresionista batzuekin bere gustura margotu baino. Hasierako ideia, anplifikazioaren<sup>115</sup> bidez garatu egiten da hurrengo bertso lerroetan.

---

formuletara jotzen du. Esamolde edota formula horiek komunitate horren bizi-mundutik oso gertu daude, eta abstrakzioa modu errazagoak ahalbideratzen dute. Horrela azaltzen du Walter J. Ong-ek joera hori: "En ausencia de categorías analíticas complejas que dependan de la escritura para estructurar el saber a cierta distancia de la experiencia vivida, las culturas orales deben conceptualizar y expresar en forma verbal todos sus conocimientos, con referencia más o menos estrecha con el mundo vital humano, asimilando el mundo objetivo ajeno a la acción recíproca, conocida y más inmediata, de los seres humanos", 1987, 48.

<sup>114</sup> Juan Mari Lekuonak bere *Ahozko Euskal Literaturan* azaltzen du labur azken puntuaren prestaketa hau, koplak eta ahapaldi luzeagoen artean dauden desberdintasunak agertuz: "Koplak, zortzina silabatako bi lerro puntudunen bidez osatu behar du azkenerantz daramaten osagaien langintza; eta bertso berriak, zortziko nagusiak, sei lerro dauzka horretarako, hamar eta zortzi silabetako errenkak txandatu. Eta hortik dator bien arteko desberdintasuna: koplak izadiaren sinbolismora jotzen du, eta estilizazioaz baliatzen da epifonemaren prestaketarako. Baina bertsolariak azken hori ibilbide logiko luzeagoz prestatuko du (hala ere beti azkar): sarrera bat lehenik, gero erdiko lana hari logiko bati atxikiz pentsamenduaren aldetik, eta girotze egoki bat sortuz, azken esaldiaren zerbitzutan. [...]", 1982, 50-51.

<sup>115</sup> Horrela dago definiturik Estébanez Calderón-en hiztegian: "Figura retórica consistente en el desarrollo de un tema mediante la enumeración de elementos complementarios que contribuyen a realzar e intensificar el sentido y valor de dicho tema. En la retórica latina la amplificación se desarrollaba en cuatro modalidades: por la enumeración de una serie gradual y ascendente de sinónimos o de circunstancias <<agravantes>> (*incrementum*), por la comparación realizada a través de ejemplos o por vía inductiva <<de mayor a menor>> (*comparatio*), por la acumulación, progresiva o caótica, de términos sinónimos o de <<miembros enumerativos>> (*congeries verborum*, *congeries rerum*) y por la descripción de circunstancias concomitantes de las que pudiera concluirse la dimensión de una cosa, <<sin que esta conclusión lógica (*ratiocinatio*) se realice>> (H. Lausberg, 1975)", 1999, 32.

Anplifikazioa goranzkoa edo beheranzkoa izan daiteke: goranzkoa, gero eta zertzelada positiboak eskaintzen badira, eta beheranzkoa, gero eta negatiboagoak badira. Kasu honetan beheranzkoa da, izan ere, egoera gero eta itsusi eta ilunago azaltzen da.

**b)**

Illuntasuna baño besterik  
Ez eban ingurubetan. (K039c)

*Illuntasuna* hitzak laburbiltzen ditu historian zehar Euzkadik jasandako trataera eta euzkotarren ahanzturaren ondorioa. Hitz hori gainera sententzia kutsua duen esaldi baten kokaturik dago: iluntasunaz aparte ez zuen besterik, dena zen iluntasuna<sup>116</sup>.

Batzutan laugarren puntuak kontrajarren bat suposatzen du lehenengo hiru puntuekiko. Horrela, arestian aipatu dugun progresioa edo, zehatzago esanik, anplifikazioa apurtu egiten da tonu eta eduki semantikoa dela medio, azken puntuaren efektua areagotzen delarik.

Hona hemen azpi-mota honen bi adibide:

- Lehenengo adibidea:

**a)**

Arek zugazti eder arteko  
Basetxe zuri egoki  
Aldika baten ixan ziranak  
Erkabaen bixi-toki  
Irudijela sendi ta etxe  
Aingeruakin Donoki,

**b)**

Arrotzagaz bat-eginda loitzen  
Zirian alde oroti. (K039d)

Lehenengo zatian, a) zatian alegia, goranzko anplifikazioa dago garai bateko Euzkadiren deskripzioa egiterakoan. Mailaketa edo gradazio horrekin azken puntua kontrajarpenean dago, izan ere arrotzaren presentzia kaltegarria kontrajarri dio egileak.

- Bigarren adibidea:

**a)**

Adizkidiak asko eukoza  
Ta galdu zituban berez;  
Diruak urtu, galdu osasun,  
Bixija emon Jel-aldez.  
Danak alperrik ein ete dauz, ba,  
Etsayak uste daben lez?

**b)**


---

<sup>116</sup> Mezu honek hiperbolearen kutsua dauka, izan ere, orduko Euzkadiren egoera batere argirik gabeko iluntasunarekin identifikatzea gehiegikeria izan daiteke. Kutsu agonistikoa presente egiten da berriro ere Urretxindorraren bertsoetan.

Ez, alperrik ez! On egin danak  
Jauna'n sarijak oi dabez. (K034i)

Bigarren adibide honetan ostera, beheranzko anpliazioa antzematen da lehenengo hiru puntuetan, zeintzuetan Sabino Aranaren bizitza sakrifikatua deskribatzen den. Azken puntuak aldiz, kontrastea adierazten du lehenago adierazi denarekiko, egileak ez baitu uste guzti hura alferrik izan zenik. Alderantziz, egite guzti horiek (Sabinenak) ontzat eta onuragarritzat ematen ditu eta sinesten du Jaungoikoaren saria jasoko dutela.

## 1.2. Erliziozkoak

Erliziozko edo, Urretxindorraren idazkera ereduan, *uzkurtzazko* bertsoetan lehenengo eredu hau ere nagusi da.

### a)

Negu ankerrak oi dauzan legez  
Lora gustijak igertu,  
Mendijak gorri, zugatzak billoiz,  
Txorijak mutu bigurtu;  
Ta Udabarrijak lorak berbiztu,  
Txori ta danak alaitu;

### b)

Geu be olantxe atsekabian  
Ondoren pozak jo gaitu. (K084g)

Kasu honetan, naturaren udaberriko susperraldia deskribatzen da lehenengo zatian. Bigarreanean konturatzen gara hasierako zati hori kristauen arimen egoera irudikatzeko deskripzioa baino ez dela. Egilearen asmoa ez da natura deskribatzea baizik eta deskripzio hori eta lortutako giro horren bidez, bere eta beste hainbesteren barne egoera islatzea. Barne egoera hori pozezko iratzarpena da, Aita Santu berri bat izendatu zutelako Europa oso giro nahasian zegoelarik: Lehenengo Gerra Mundialaren atarian eta aurreko Aita Santua hilda gero. Aita Santua galtzea beraz, naturaren neguko egoerarekin irudikatzen da: oparotasun zantzuak ia guztiz ostendurik daude, eta bizitasunaren ezaugarriak ez dira ageri. Zeruaeren iluntasunarekin ere tristezi hori islatu nahi da. Hau Erromantizismoaren joera bat da<sup>117</sup> eta oso modu xume eta oinarrizkoan burutzen da Urretxindorraren bertsogintzan.

<sup>117</sup> Isaiah Berlin-ek (1999, 38) Erromantizismoaren muina aztertzean berorren topikoak zerrendatzen ditu eta horrela dio: “Es lo primitivo, lo no sofisticado, el seno de la naturaleza, las verdes praderas, los cencerros, los arroyos murmurantes y el infinito cielo azul”. Honen harian esan beharra dago Urretxindorraren bertso askotan aipatutako paisaia moetak agertzen direla. Paulette Gabandak azterketa zabal eta iradokiorra burutzen du bere *El Romanticismo en Francia* (1979) lanean. Biziki interesgarria da egiten duen izadiaren azterketa hango Erromantizismoan zer nolako eragina izan zuen azalduz. Sarrera moduan hauxe azaltzen du: “El sentimiento de la naturaleza se asocia al romanticismo como algo que parece consustancial. Al hablar del amor, la soledad y la muerte en la poesía intimista, era difícil separarlos del paisaje en consonancia con el corazón humano: paisaje refugio, confidente o imagen del

**a)**

Artzain deunaren irudijaren  
 Aurrian otoika nago.  
 Opautsedala txiro ez-jakin  
 Onen bijotz eta gogo,  
 Ardi galduta gagozan legez  
 Gaur iñoz baño geyago,

**b)**

Txabolaratu gaizan otsuak  
 Ondatu baño lenago. (K085b)

Hurrengo adibide hau bertso sorta berberari dagokio, “Artzain barrija” izenburupekoa hain zuzen. Hemen, modu argi eta garbian egitura berbera sumatzen da, izan ere, a) zatian egilearen otoitza egoera kontatzen du lehenengo pertsona erabiliz eta ardatz horren inguruko zehaztapenak eskainiz. Azken puntuan ostera (b zatian), otoitza egoera horren helburua azaltzen da alegoria baten bidez. *Txabolaratu* aditzarekin, dotrina ona eta fidagarriarekin gidatzea edo gidatuak izatea azaldu nahi du Urretxindorrek. Otsoen irudia agertzen zaigu azken puntu honetan eta horrekin arimen etsaiak (dotrina heretikoak, sasi-artzainak, erlijioaren etsaiak, e.a.) adierazi nahi dira. Artzain edo Aita Santu berria aukeratzeko bitarte horretan kristau herriak nolabaiteko zurztasuna sumatzen du eta Elizaren etsaiengandik defendituko duen artzain baten beharra areago nozitzen da. Horretatik dator beraz egilearen irrika artzain berriaren “txabolapean” edo babespean egoteko.

Ondorengo “Kurutzia ta Euzkeria” bertso-sortatik aukeratutakoa da:

**a)**

Aupa, mutillak! diñot barriro.  
 Gora, batez be gastiak!  
 Kurutzia ta Euzkeriagaz  
 Aratu egal gustiak,  
 Garbituteko bein ta betiko  
 Euzkelerriko nastiak.

**b)**

Garalle urten daigun, beturik  
 etsayen gudaroztiak. (K096d)

Integristatzat (fundamentalista) bataiatu daitekeen bertso honetan, egileak animuzko deiadarra helarazten die gazteei *Kurutzitari*, hau da, kristau sinismenari eta *Euzkeritari* eusteko. Azken puntuan aldarrikapen horren helburua helburuzko esaldi baten bidez adierazten da, *garalle* bezalako hitz anpuloso bat erabiliz, sententzia kutsua areagotzen delarik. Hemen berresten da aurreko kapituluko (Urretxindorren azken puntuari eskainitakoa) 1.2. epigrafean adierazitakoa.

---

hombre” (Ibidem, 179). Azalpen hau Urretxindorren Erromantizismo berankorrari aplikatu diezaiokegu, izan ere, naturan bilatzen du bere babes, bere konfidantzazko laguna, eta bere irudia.



Adibide hauetan ikusi ahal izan denez, azken helburuaren zentzua, beste ataletan azaldu den bezala (egile honi eskainitakoaren bigarren kapituluaren kasurako), ezinbestekoa da Kepa Enbeitaren bertso gintzan. Zentzu hori kristau humanismoan oinarrituta dagoela esan liteke. Esate baterako, existentzialismoarekin alderatzen badugu, kristau humanismoak azken helburuaren zentzua oso modu nabarmenean dauka: gizakiok azken helburua geure asmoetan dugula jardun behar dugu. Kosmosaren azalpenean ere, Sortzaile baten Azken Helburuak gidaturik gauza guztiak sortu eta garatu dira. Kosmosaren legeek ere helburu bat izaten dute. Ikuspuntu honetatik beraz, gauza guztiak arrazoizkoak dira, azalpen bat dago haien atzetik, edo gutxienez, oraingoz aurkitu ez den kasuetan, azalpen hori bilatzera animatu eta bultzatzen da jendea.

### 1.3. Goraipamenezkoak

1916an sortu berria zen *Euzko-Deya* egunkariari jarritakoa da ondorengoa:

#### a)

Aspaldi zeuri deika  
Giñan; "Zatoz, zatoz!"  
Ta izpar polit ederrez  
Apaindurik zatoz,  
Uste genduan baño  
Apañago askoz.

#### b)

Ori dala-ta gagoz  
Gustiz alai ta poz. (K126h)

Bere irudimen biziak bultzaturik, Urretxindorrek gauza asko pertsonifikatu egiten ditu bere bertsoetan. Azken adibide honetan, garai hartako *Euzko-Deya*-ri zuzendurik daude egilearen hitzak pertsona bati bere konfidentziak aitortuko bailizkion. Lehenengo zatian beraz (a zatian), modu mailakakoan *Euzko-Deya* egunkariaren agerpena dela eta pozteko arrazoiak azaltzen dira. Hala ere, egite horiek egileak *Euzko-Deya*-ri kontaktzen dizkio, ez irakurle zein entzuleari. Horrela ageriago geratzen da egileak egunkari horrekin duen identifikazio afektiboa. Honela egituratuko genuke lehenengo zati hori:

1. *Euzko-Deya*-ri etortzeko deia
2. *Euzko-Deya* apaindurik etorri da.
3. Uste baino apainago etorri da.

Progresio horrek egilearen poza ekarriko du eta hori da b) zatian Urretxindorrek azaltzen duena, bertsoari azken-oharra ezarriz eta mezua laburbilduz.

**a)**

Uste al dozu orretarako  
 Eleizalde'n bat nazala?  
 Neu ixanik, ba, sasi arteko  
 txoritxu ziztrin epela,  
 uso ederrak baxen ederto  
 egaz egingo dotela?

**b)**

Ai, Batxi, Batxi! ez az, orraitik,  
 ziri-sartzalle motela! (K129g)

Bertso honetan Batxi Bilbao idazleari<sup>118</sup> zuzentzen zaio Urretxindorra. Lehenengo zatian bi galdera erretorikoak nagusitzen dira bertsoan, elkarrizketa kutsua (eta ahozko estiloa azken finean) areagotzen delarik. Bigarren pertsonaren erabilera nabarmena da apostrofea azpimarratuz eta elkarrizketa zentzuari eutsiz.

Azken puntuak (b) zatiari dagozkionak) tonu aldaketa dakarkio bertsoari, nolabaiteko erantzun implizitua agertuz lehendik formulaturiko galdera erretorikoei. Deiadarra ere ageri da, Batxirekiko nolabaiteko errukia edo konplizidade keinua erakutsiz: "Ai, Batxi, Batxi!". Azkenik konfiantzaz eta humore kutsuaz beteriko ironia bat helarazten dio Batxiri aurrez aurre baleuka legez, eta elkarrizketaren beste efektu bat sortuz: "ez az, orraikik, ziri-zartzalle motela!"<sup>119</sup>.

#### 1.4. Ipuin eta abar

Urretxindorrek ipuinak eta alegiak konposatu zituenean ere ahapaldi egitura antzeratsuak erabiltzen zituen, nahiz eta narrazio ikuspegia mota honetako bertsoetan nagusitzen den. Nagusitasun horrek, hala ere, ez du esan nahi narrazioa Urretxindorraren beste bertsoetan existitzen ez denik.

---

<sup>118</sup> Juan Bautista Bilbao idazle eta marinela, "Batxi" ezizenez ezagutua, 1887an jaio zen eta 1916an itsasoan hil. Kronikak idazten zituen bere bidaiei buruz batez ere. 1997an Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirre idazleek bere idazkiak bildu eta material horrekin *Hau mundu arrano hau 1914-1916* liburua argitaratu zuten.

<sup>119</sup> Azken puntua aztertu genuenean, 2. kapitulua, 2.2.4. azpiatalean, irudi haxe aipatu genuen, litotes hain zuzen.



Ondorengo bi bertsoak “Behi zaharraren bertsoak” sortatik atereak dira. Sorta horretan bi pertsonaia mintzo dira behi zaharraren gora-beherez. Narratzaileak ez dago beraz, eta kontakizuna zein deskripzioak elkarriketaren bidez ematen zaizkigu.

**a)**

IMANOL'EK.—Ni baño geyago dok  
bei zar au indarrez,  
ostikoka eiten yok,  
ganera adarrez;  
esnerik ezin kendu,  
ta eu ortik barrez. . .

**b)**

Pazentzirik artzen gaur  
etzeukoat errez! (K161b)

**a)**

KEPA'K.—Nun-nai erakusten dok  
abillaren antza;  
esnia batzen, barriz,  
aparteko jasa;  
bizkor eta garbiro  
neurria gorantza:

**b)**

amak bai yaukak laster  
pitxer aberatsa. (K161i)

Lehenengo bertsoan Imanolek ikuspuntu subjektibo batetik orduko egoera deskribatzen du: behiaren jarrera oldarkorra (haren indar nagusitasuna aprobeztatuz ostikadak eta adarkadak ematen ditu) eta Kepa anaiaren jarrera

isekaria. Erasota sentitzen da, beraz, eta hortaz, kexazko ondorio bat agertzen du azken puntuari. Bertso honetan, beraz, bi zati nagusi desberdintzen dira:

a) zatia: Imanolek azaltzen ditu bai behiaren erasoak bai bere anaiaren isekak.

b) zatia: azken puntuaren teknikarekin bat etorriaz, kexazko ondorioa ateratzen du, pazientzia izaten zein zaila den esanez. Hala ere, zaila dela esateko, ez dela erreza esaten du, bertso gintzan hain erabilia den litotes irudia erabiliz.

Bigarren bertsoan, lehenengo hiru puntuetan Kepak ironiaz beterik bere anaiari adarra jotzen dio zenbait laudorioren bidez. Bere anaia Imanolek behi zaharra eraisteko dituen zailtasunak ikusita, deskripzio inpresionista azkar eta egoki bat eskaintzen du, bigarren pertsona erabiliz, hau da, bere anaiari mintzatuz.

Azken puntuaren teknika, hemen ere, aprobetxatuz, deskripzio horren ondorio ironikoa azaltzen du: “amak bai yaukak laster/ pitxer aberatsa”. Eta hau da hain zuzen pentsatzen duenaren kontrakoa, alegia, ez duela lortuko pitxerrik esnez betetzea horrenbeste zailtasunekin. Horretan datza Keparen iseka edota ziri sartzea, anaien arteko liskartxoak gogoratzea datorrena.

Beste bertso-sorta baten asto bati jazorikoa kontatzen zaigu, “Astua ta Erlia” izenburupean. Kontakizun honetan orain dagokigun egitura bertso batek baino gehiagok dauka, baina bakar bat hautatu dugu.

Lehenengo zatian zehazten zaigu erleek astoari egindako erasoaldia eta berorren erreakzioa oso modu agonistikoan.

**a)**

Eztenak sartu eutsezanian  
Gorputz gustijan astuai,  
Asi zan larri, jausi ta jagi,  
Arrantzaz dei ta dei danai  
Burpila lez be bai azkenian  
Eten artegiño, ai! . . . ai! . . .

Azken puntuaren mezuak, osteraz, bi alde ditu: alde batetik eraso horren ondorioa, astoa hiltzea alegia, eta bestetik erleek astoa hil arren astoak ere hil aurretik erle asko akabatu zituela esaten zaigu. Bi eduki horiek aurkaritzan (*baña* juntagailua dutelarik) aurkezten zaizkigu. Astoa hiltzeak hasiera baten badirudi erleen erabateko garaipena esan nahi duela. Hala ere, egileak gogoratu nahi izan du garaipen hori ez dela erabatekoa izan, astoak ere bere ahalegintxoak egin baitu erleen kontra.

**b)**

Il zan gaxua; baña zapaldu  
Ebazan erliak be bai. (K167a)

**1.5. Gomutakizunak**

Sail honen pean Urretxindorrek mota askoko bertso eta bertso-sortak sartzen ditu. Batzuk atzerrian dituen lagun edota familiakoekin bertsozko harremanak izateko dira. Beste batzuk okasio berezietarako prestaturiko bertsoak dira (bere auzoko jaiak direla eta, zerbaitegatik zoriontzekoak, e.a.). Badira norbaiten heriotza dela eta paratutakoak. Eta badira arrazoi desberdin eta sailkatuezinengatik konposatutakoak ere. Nahas-mahas bilduriko bertsoak beraz, *gomutakizunak* izenburuaren pean.

Esan bezala, badira atzerrian dauden edo atzerrira doazen pertsonekin komunikazioa izateko bertsoak. Horietariko bat da ondoren erakusten duguna. Dagokigun egiturari eutsiz, lehenengo hiru puntuetan egileak kontatzen du zer gertatzen den Joseba izeneko batekin: Idahora bizitzera doala, emigratzera alegia. Hori kontatzean eta Joseba (emigratzailearen izena) pertsonaia aipatzean hirugarren pertsonan erabiltzen da, lehenik eta behin egite objektiboa hartzaileari jakinarazteko.

**a)**

Gabeko amarretan  
dirakurt EUZKADI-n  
gaur duala Joseba  
aberritik urrin.  
Idaho'ra txin-billa  
nai dau egan egin ...

Horren ostean, b zatian, egilearen identifikazioa dator, errukitu eta barrua samurtu izan balitzaion.

**b)**

Agur! Ibilli bizkor,  
bigurtzeko arin. (K194c)

Apostrofe honetan, bigarren pertsona gramatikala erabiltzera igaro da, pertsona horrekin duen identifikazioa ageriago utziz eta aholku anaikor bat bidaliz: “ibilli bizkor, bigurtzeko arin”.

Urretxindorra etxetik kanpo dagoenean ere bertsozko hartuemanak ditu bere lagunekin. “Urkiola'tik” izenburua duen bertso-sorta bere lagun eta sendagilea zen Jon Arrospideri bidalitakoa da, Urkiola ondoko ostatu baten bere gaixoalditik sendatzen zegoelarik.

Bertso honen lehenengo hiru puntuetan eta laugarrenaren hasieran egileak azaltzen dio Jon Arrospideri zergatik dagoen hain gustura leku horretan.

**a)**

Gustiz eder ta egokia da  
Ni emen nagon ostatu;  
Etxe-jaubiak garbi ta onak  
Dirala ezin ukatu:  
Mayan jarrita, zer gura ta axe  
Bertora etorten yaku.  
Aixiak, barriz, iñungo onenak ..

Hain deskripzio positiboaren ostean ondorioa den galdera erretorikoa sortzen zaio egileari:

**b)**

Geyau zer daiket eskatu? (K194j)

Galdera izan arren, esaldi horrek bere mezua darama: egoera hain atseginean ezin dela gehiago eskatu, bere ondo izanaren itxaropena eta aurreikuspenak gainezka bete egin direlako. Bertso osoan barrena, objetiboki adierazi diren egoera onuragarriak, azken galderak katalizatuta, ospatu egiten dira.

Estilo berekoa da sorta bereko ondorengo bertsoa. Lehenengo zatian bere ostatuko bizimodua eta horren ondorioa (loditzea) ditu mintzagai.

**a)**

Deun Andoni'ri otoyak egin,  
Gosaldu eta mendire;  
Aixe bigunak artuaz nabil  
Egal gustijeri begire ..  
Lodituten be pizkat asi naz,  
Ene lagun Arrospide.

Eta azkenik, berriro ere pozezko harridura, kasu honetan ondorioa-baldintza itxurapean:

**b)**

Emen luzaro nengoke pozik,  
Txindigaz ba'nintz ... aizkide.  
(*Euzkadi*, 1916-VI-7) (K194k)

Lehenengo zatian kontatzen duen egoera atsegina luzatu nahiko lukeela adierazten du azken puntuan. Horrelako baieztapenari zerbait kontrajartzen dio, azken puntuari eduki osoagoa emanaz, eta mezua ñabartuz: horretarako, luzaro egoteko hain zuzen, dirua beharko lukeela, izan ere "jokoa ez da errenta" edo, kasu honetan bezala, sendatzeko oporraldiak ez dira errentagarriak izaten, aldi horretan ez da ezer irabazten. Alderantziz: dirua gastatu behar izaten da.

Norbaiten heriotza zela eta Urretxindorrak eginak ditu bertsoak. Bere amaren heriotzan ezin zen falta apropos paratutako bertsoarik. <<"Zidorra"-ri>> izenburua daukate bertsook eta lehenengoan heriotzaren inguruko gogoeta orokor batzuekin hasten da.

**a)**

Ari batetik dingilizka dan  
Ludiko gure bixitza,  
Eriotziak Goi-baimenen zain  
Gertu korañe zorrotza;  
Jauna'k "txist" eiten dautson unian  
"Txirrist" ... ebagiten dautsa.

Bizitzaren iheskortasuna azpimarratu egiten da hasiera honetan eta, horrekin batera, Jaungoikoarekiko dependentzia. Azken hauxe da egileari itxaropena ematen dion arrazoia eta baita azken deiadarra aireratzeko adorea ere:

**b)**

Zein zori ona une aretan  
Garbi daukanak bijotza! (K204d)

Sorta horretako azken bertsoan bere amaren aipamena egiten da estreinakoz. Ikuspuntu eskatologiko hori gogoan zuela bere ama ibili dela dio Urretxindorrak. Hirugarren puntuan, berriro ere, Jainkoarekiko dependentzia hori otzantasunez azaltzen du.

**a)**

Nire amaxuk, Jaun-maitasunez,  
Bideoi aldapa gora  
Uste dot zuzen jarraitu daula  
Arturik neke gogorra.  
Urtzi'k beria eban ta Berak  
Deitu dau Bere ondora.

Panorama hori erakutsi ondoren egilearen identifikazioa dator, Jainkoaren nahiarekin jakina, kristau zintzo batengandik espero legez.

**b)**

Egin bedi, ba, Jauna'ren naya.  
Eskerrik asko, "Zidorra". (K204f).

**1.6. Naturazkoak**

Mendi ganetik ikusten dira  
Zugazti, landa, zelayak,  
Basetxe zuri, baratza eder,  
Errekak eta ibayak.  
Mendijan dagoz eguzki argi  
Ta etxe osasungarriak,  
Birijak garbi erabilteko  
Iñun baño be objak. (K038b)

Naturaren presentzia Urretxindorraren bertsoetan bereziki nabarmena da. Aberriarenganako maitasuna naturaren elementuetan, eta akaso elementu landarretan, gauzatzen da nabarmenen. Naturaren kontenplazioak ariman sortzen dituen egoera eta handitasun sentimenduak egilearen ideologia ezagutzeko bideak dira, bere abertzaletasuna, herrimina, euskaltzaletasuna eta kristau fedea antzemateko adierazpideak.

Kontenplazioa kontzeptu klabea da egitura honetaz ari garelarik. Izan ere, natura kontenplatu ostean berehala etorriko da egilearen pozezko deiadarra, edo aholkua, edo ondorio borobila.

Natura, edo naturaren arlo bat, nekez izango da bertso sorta baten gai "monografikoa". Baina gaien sartzeko edo irakaspen bat emateko naturaren aipamen edota deskripzioa tresna garrantzitsua bilakatzen da eta Urretxindorrek trataera berezia eskainiko dio.

Har dezagun mota honetako bertso bat. "Mendiko alaitasuna" bertso-sortatik bigarren bertsoan, adibidez, egitura mota hau argi eta garbi antzematen da. Lehenengo zatian mendi hegal idiliko baten deskripzio azkar eta bukolikoa eskaintzen zaigu. Deskripzio hori egiterakoan elementu desberdinak hartu ditu, aberastasun naturalistikoa islatuz. Panorama hori azaltzean egileak aditzak eliditzen ditu, irudien azkartasuna areagotuz eta irudi-"flashak" pilatuz. Irudiz ez ezik soinu betetzen zaigu paisaia: "euren abes ederrez", "euren arran ta txilin-soñuan/ orrua, irrintziz, bee ta bee". Naturaren bizitasuna grafikoki eta bere gordinean eskaintzen zaigu beraz.

**a)**

Txorijak euren abes ederrez  
 Baso ta mendi, goi ta be,  
 Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,  
 Ardi ta bildots baita be,  
 Euren arran ta txilin-soñuan  
 Orrua, irrintz, bee ta bee. . .

Kontenplazio horretan, egileak, naturaren edertasunaz txundituta, balorazio hiperboliko bat airetatuko du, azken puntuan beti ere:

**b)**

Ludijan danik eresi-soñu  
 ederrena sortzen dabe. (K038c)

Itxuraz berdintsua da ondorengo bertsoa ere. Bertan beste paisai bat deskribatzen da, Anboto izan daitekeen gailur edo mendi hegal batetik ikusia.

**a)**

Mendi ganetik ikusten dira  
 Zugazti, landa, zelayak  
 Basetxe zuri, baratza eder  
 Errekak eta ibayak;  
 Mendijan dagoz eguzki argi  
 Ta aixe osasungarriak

Ikuspegi honek *euzkoen* bihotzetan poztasuna eta arima zein gorputzezko osasuna sortarazten ditu Urretxindorren ustez, eta horretatik dator, hain zuzen, azken puntuko sententzia kalifikatiboa.

**b)**

Euzko-bijotzak atsegintzeko



Iñun baño be obiak. (K144f)

Ondorengoan itsas bazterreko giroa dakarkigu Urretxindorrek eta, oraingo honetan, naturaren deskripzioa arrantzale munduko deskripzioarekin bat dator.

**a)**

Egurastoki zabal aretan  
 Laterri oron ordezkarijak  
 Santzoka dabiz eresotsian,  
 Kedats-opaltzen lurrun-ontzijak,  
 Txalupatxuak arturik baita  
 Bular zabaldu arrantzaliak,

Natura eta giro tradizionala bat eginik agertzen zaizkigu eta horren aurrean pozezko harridura sortuko da Urretxindorrenengan, ondorengo laugarren puntu honetan adierazten den bezala.

**b)**

Gelduta danok jarten gauzala  
 Bere edertasun bardin-bagiak. (K049e)

### 1.7. Satirikoak (alaitsuak edo bromazaleak)

Tonu irrilaria duten bertsoek gutxiengo bat osatzen dute Urretxindorren bertsogintzan. Aztertzen ari garen egitura hau dutenak badira batzuk.

“Sakristauen egikerak” izenburua duen bertso sorta Urretxindorrek argitaratu zuen lehenengoetakoa izan zen, 1902an hain zuzen. Abertzaletu edo sabinzaletu aurreko garaikoa da eta bertan antzeman daiteke hizkera oraindik ez dagoela neologismoz josita<sup>120</sup> eta abertzaletasun sentimenduak ez duela apenas presentziarik. Geroago sentimendu honek izango duen nagusitasuna mende hasiera horretan (1904. urtera arte behintzat) ez da oraindik erne egile honengan. Badirudi hori dela arrazoia mota honetako bertsoek, satirikoek alegia, esparru zabalagoa izateko garai hartan behintzat. Aurrerago inguratuko dugun “Karabiñeruen bizimodua” bertso-sorta esandakoaren beste adibidea da.

Gaia kokatzeko orduan, bigarren bertsoan hain zuzen, Urretxindorrek sententzia kutsuko baieztapen batzuk egiten ditu, bata bestearen atzean. Baieztapen horiek sortaren hasieran gogortsu formulatutakoak izan daitezke, edo nahi bada, ausardiaz egindakoak.

**a)**

<sup>120</sup> 1903an oraindik orain, badira bertsoak non gaztelera zein latin jatorriko hitzak Urretxindorrek inolako konplexu gabe erabiltzen baitzituen. Adibidez, *Ibaizabal* aldizkarian argitaratutako bertso-sorta baten, "Patrona", "birtute", "Birjiña" eta "gloria" hitzak erabiltzen ditu. Geroago "Zaindari/ Jagole", "onoidade", "Neskuts" eta "aintza" erabiliko ditu. Horrela dio bertsoetako batek: "Biotzean sartu yat/ Poztasun andia/ Bzkaya'n ipintiaz/ **Patrona** barria, / Doyak eta **birtute**/ Danen jatorria./ Orain dogu Bizkaya'n/ Zeruko **gloria**,/ Zein dan Jesus'en Ama/ **Birjiña** Maria" (k078a).

Sakristauak dirade, beñipein geyenak,  
Berera zelan ondo bixi dakienak;  
Ziri-sartzallak, barriz, dira andienak;

Baina salaketa hauek justifikazioa behar dute, argudio frogagarri moduko bat. Egileak bere burua jartzen du horren frogatzat eta frogagarria bere esperientzia da: berak ikusitakoa eta berak dakiena. Hartzaillearengan - ziurrenik- sortu den justifikazio eskaerari azken puntuak erantzuten dio Kepa Enbeitak:

**b)**

Au ipinten dau emen ondo dakianak. (K162m)

Arestian esan bezala, “Karabiñeruen bizimodua” bertso-sorta, 1902an *Ibaizabal* aldizkarian ere argitaratua, izaera satiriko-irrigileduna da. Sorta horren lehenengoa da ondoren erakutsitakoa eta bertan egilea gai nagusia iradokitzen hasten da, nahiz eta oso modu esplizituan agertu ez.

Lehenengo hiru puntuetan gaia iradokiz joaten da egilea:

**a)**

Nai det berba gutxitan biar au amaitu,  
Jenteak errezago ein dayan aditu:  
Zer moduz egiten dan eguna amaitu

Baina azken punturako utzi du egileak hitz gakoa, *karabineru* hitza hain zuzen, aholku baten barruan kokaturikoa:

**b)**

Karabiñeruekin ondo begiratu. (K162b)

Hurrengo bertsoa, ostera, esplizituagoa da. Lehenengo zatian, a zatian, laburki eta zertzelada zorrotzekin *karabineruen* ohiturak azaltzen dira.

**a)**

Itxas-aldian bada portu-eskiñetan,  
Osterantzean barriz estaziñoetan  
Pizka bat geldi ba'dauz, laster pasietan;

*Karabineruen* ibilbidea azaltzen da hemen eta balio berezia dauka hiru puntu hauen azken hitzak, *pasietan* gerundioak hain zuzen, zeren eta haien lan funtsik gabearen zantzua ematen baitigu. Nondik nora ibiltzen diren azaldu ostean eta zeregin zehatzak aipatu gabe (zereginik ez daukatela iradokiz agian), laburpen bat enuntziatzen du Urretxindorrak:

**b)**

Orrela bixi dira egun gustietan. (K162d)

Badirudi egileak *egun gustietan* hori konplizidadez helarazten diola hartzaileari. Izan ere, karabineruen zeregin hutsalak azaldu ondoren, konfirmatu egiten zaigu horixe besterik ez dutela egiten (oso modu arinduan bada ere) eta gainera egunero.

Bada beste bertso-sorta satiriko edo irrigarri bat, gertakizun bat kontatzen duena: “Zazpi errijoanu” izenburuduna. Sorta honen kontalariak esaten du bere emazteak zazpi *errijoanu* (errioxar) txikitu eta irentsi zituela. Egileak ez du esaten bertso-sortan zehar *errijoanu* horiek mahats mordo zirela eta ez pertsonak, irakurlea edo hartzailea engainatuz. Engainu horri eusten dio beste bertsoetan ere, hartzailearekin jolastuz beti ere: “aspaldi ez da jaso olako krimenik” (K181g, 2. puntua) / “ezeren kezka gabe” (K181h, 2. puntua), “betiko espexera eraman ez dezan” (K181i, 3. puntua). Beraz, aparte egiten den ohar bat irakurtzen ez bada hilketa eta kanibalismo baten kasua kontatzen zaigula ematen du, nork eta kontalariaren emazteak egina. Horrela ulertuta, egilearen jokia kontutan hartu gabe esan nahi dugu, hain harrigarria eta hain ankerra da kontakizuna ezen sinestezina suertatzen baita. Sinestezina ez ezik, umore beltzekoa, Urretxindorraren bertsogintzan salbuespena dena.

Lehenengo bertsoan egoera hori bere gordinean aurkezten zaigu:

Eibar'tik Muxika'ra lengo barikuan  
zazpi errijoanu ekarri nituan.  
Nere andreak auek ikusitakuan  
grik-grak txikitu eta irunsi zituan. (K181f)

Baina 3-1 egitura argiago ikusten da bigarren bertsoan. Lehenengo zatian kontalariaren harridura agertzen da, beti arrazoi zehatzak emanez: “(bere emaztea) ain ona izanik”, “Etzion itzi azur, azal ez mamiñik”.

a)  
Nere andre maitea ain ona izanik,  
nork sinistu gauz ori egingo zuanik,  
Etzion itzi azur, azal ez mamiñik:

Harridurarako arrazoi eta xehetasunak emanda gero, balorazioa egingo da azken puntuan, kontu zehatzetik tarte batera jarriz nolabaiteko urruntze ezarriz epaia egiteko. Epaiak ukitu agonistikoa izan dezan hitz erradikal bat erabiltzen du: *krimen*.

b)  
aspaldi ezta jazo olako krimenik. (K181g)

Modu antzeratsuan jokutzen du egileak hurrengo bertsoan. Berrero ere harridura adierazten du bere emaztearen patxadaz eta damu ezaz.

a)  
Guztiau ein ta ere, biaramonian,  
ezeren kezka gabe patxara onian;

ez eguan ar asko bere gibelian.

Bere emaztearen axolagabekeriak bultzatzen du egilea kexazko deiadarra kanporatzera. Harrituta dago emaztea eta auzokoak zein herrikoak kristauak izanik, horrelako kontzientzi eza izatean. Deiadarra ez ezik, salaketa ere bada, Muxika aldeko kristauen kontra edo, zehatzago esanik, batzuen batzuek kristautasuna bizitzeko duten irizpide okerren kontra.

**b)**

Ai, zer kristauak diran Muxika-aldian! (K181h)

Mota honetako bertsoetan beraz, zerbait komuna antzematen da. Lehenengo zatian, edo a) zatiko hiru puntuetan, panorama bat (espirituala zein materiala), egoera bat edo paisai bat eskaintzen du egileak. Hiru puntu horietan zehaztasun edo xehetasunen herrenka agertu egiten da, askotan oso erritmo azkarrean, pisu sustantiboa, eta beraz kontzeptuala, indartuz.

Bigarren zatian, b) zatian, beste maila bateko adierazpena egiten da. Egilea esandakotik alderatzen da bere epaia edo barne adierazpena egiteko. Lehenengo zatiak adierazitako gauza zehatzek egilea eraman dute epai edo ikuspegi orokor bat kanporatzera. Barne adierazpen hori bere arimaren hedapena izaten da, askotan deiadar baten bidez: alaitasunezkoa zein kezkatia.

## 2. Bigarren eredua

### 2.1. Aberkoiak

**a)**

Euzkadi gustiz gaxo eguan,  
Eta bere seme galdu  
Dan-danak pozik entzuten eben  
Amaren ainbat alaru;

**b)**

Euzkel-Errijan areriyuak  
Au gura eben eraildu,  
Eta semiak Ama onegaz  
Etziran eiten gogaldu. (K039f)

Bertso mota hauetakoak, zortzikoak izaten direnetan, erdibiturik daude, nolabaiteko binomio bi osatzen dituztelarik. Agian Bizkaian hedaturik zegoen usadio baten lorratzak dira<sup>121</sup> (ez itxuraz baizik edukiz), zeinen bidez zortzikoak

<sup>121</sup> Juan Antonio Uriarte (1987, 194) frantziskotarrak argitara eman zituen XIX. mendeko bertso bizkaitar asko eta asko. Bertsoarik gehienak zortzikoak dira, baina lehenengo bi puntuak hoskidetza bat izaten dute eta azken biek beste bat. Hona hemen adibide bat: "Anchina ta beiñola/ Sartu zan **munduan**/ Icerdijen acija,/ Lur onen **barruan**:/ Nastauric garijeagaz/ Erne zan **acija**,/ Ta guero icerdijagaz/ Batu zan **garija**". Abel Muniategik (1995, 10-11) ere joera hau azaltzen du: "Horrela koplak bi alkarri loturik zortziko txikia lortu edo sortu zen. Bizkaian bertso honek tradizio haundia dau. Lehen zortziko txikiak errima bi ditu batera (lehenengoa eta bigarrena) eta beste bi bestera (hirugarrena eta laugarrena) [...] Koplatik jatorkun zortziko txiki hau ugari agertzen da Bizkaian XVIII. eta, batez be, XIX. mendean. [...]"

bi koplak gehitzeak izaten baitziren. Lehenengo koplak hoskidetza bat izaten zuen eta bigarrenak beste bat. Hoskidetza ez ezik, ahapaldiaren mezua ere bi unitatetan ematen zen, nahiz eta unitate biak mezu berberaren bi alde desberdin izan<sup>122</sup>.

Bertso honetako puntuak hoskidetza eredu berberekoak izan arren, lehenengo bi puntuen mezuak nortasun bereiztua dauka bigarren zatiarekiko. Bertsoa, konposizioari begira, simetriko bilakatzen da: lehenengo zatian azalpen karga bigarrenean ikusten da, neurri berdinean.

Gure adibidearen aurreneko zatian, a) zatian alegia, Ama Euzkadiren gaixotasuna erakutsiaz batera seme-alaben axolagabekeria erakusten da. Bigarren zatian Euskal Herriaren arerioak eta haren seme-alabak (jokamoldeari dagokionez behintzat) antzerakoak direla erakusten da, nolabaiteko zentzu pedagogikoan.

**a)**

Itxas-gizonak ixar argijai  
Adi egoten oi dira,  
Bera artezkaitzat dala juteko  
Ainbat ondoen errira;

**b)**

Alan jarri zan euzkotarra be  
Sabin andijai begira,  
Bere ikurriñaz eltzeko zuzen  
Euzko zorijonen kaira. (K040d)

Azken adibide honetan atal bikoiztasun hau agerian dago. Lehenengo zatian, a) zatian, itsasgizonen eredia eskaintzen da zeruko izar argitsuak gidaritzat dutelarik. Bigarren zatian aurreneko zatian alegoria azaltzen da, elementu bakoitzari nori zegokion azalduz: itsasgizona euzkotarra da; izar argitsua, Sabino Arana, eta kaia edo portua, *euzkoen* zoriona edo, berarekin identifikaturik dagoena, helburuen jadespena.

Ikus dezagun beste bat:

**a)**

Egiz maite dan maite kutuna  
Ikusi ezin danian  
Maitaliari arantzak sartzen  
Yakoz bijotz bigunian;

**b)**


---

Mogeldarren (Juan Antonio: 1745-1804) eta Eusebio M<sup>a</sup> Azkueren (1813-1873) bertso gintzan batez be nabarmentzen da joera edo joka-molde hau".

<sup>122</sup> "Antxina esan neutsun/ bai, Mari Kurtsulu,/ iluneko jokua/ ez zala seguru.// Artu izan bazendu/ nire kontsejua,/ ez ziñen gaur izango/ Neskaxa galdua!". Bizkaiko bertso honek bi hoskidetza eredu ditu: Lehenengo bi puntuen oinak *Kurtsulu* eta *seguru* dira. Hirugarren eta laugarren puntuen oinak *kontsejua* eta *galdua* dira. Zentzuan ere lehenengo bi oinetan esaten dena unitate bat da: aspaldian emandako aholku bat gogora ekartzea. Hirugarren eta laugarren puntuetan (bigarren koplak) osteria, aholku hori kontutan ez hartzeagatik gaitzespen bat azaltzen da. Mezu biak elkarren lagun eta osagai dira baina nortasun desberdina dute.

Zorun-izpirik sortuko ba'da  
 Bijotz arantzaunian  
 Ixan biarko beren maitiak  
 Laztanduten daun unian. (K052c)

Bost ahapaldiko bertso-sorta batetik hirugarrena dugu honako hau eta bertan maitaleen arteko nahigabeak ekartzen dira gogora. Bertso honen lehenengo zatian adibide negatibo bat eskaintzen zaigu: maitea ezin ikusiaren nahigabea. Bigarren zatian *zorunaz* eta berorren baldintza itxaropentsuaz mintzatzen zaigu. Zati biok bertso osoan zehar azaldu nahi denerako adibide bat dira, alegoria batez ilustraturik.

## 2.2. Erliziozkoak

Erliziozko bertsoen arloan egitura hau erakusten dutenak badira batzuk. Egitura honen maiztasunari erreparatuta, bigarren postuan dagoela esan beharra dago, 3-1 ereduaren ostean.

Balentin Berriotxoari eskaintzen dizkion bertsoen artean, esate baterako, badira bi egitura eredu hau oso gardenki erakusten dutenak.

a)  
 Basamortuan zelan oi diran  
 Ibilten artzain zintzoak  
 Batzuk zaindu ta bestetzuk batzen  
 Jan ez daiozan otsoak  
 b)  
 Alan eukazan Tonkin'tarrakaz  
 Balendin Berriotxoak  
 Txarrak ondu ta onak zaintzeko  
 Gurari biotzekoak. (K081h)

a)  
 Zabala oi diran lorarik lora  
 Erliak oiñez ta aidian  
 Ibilten dira, batzen dabenaz  
 Ezti eiteko abian:  
 b)  
 Alan ibil zan Tonkintar gaizto  
 Odol-zalien artian,  
 Zabala ebizan arimak batzen  
 Jaunaz gozatu daitian. (K081i)

Bertso bion paralelismoa eta egitura berdintasuna egileak jorratzen dituen gaietan oinarritzen dira. Hasierako bi puntuetan natura edo mundu landatar edo erruraletik ateratako irudi bat, alegia modura eskaintzen da: artzain zintzoaren irudia eta erle langiletsuen irudia.

Bertsoon bigarren zatietan, irudiaren irakaspena edo grafikotasuna tresnatzat harturik, Balentin Berriotxoaren jardun onuragarri eta laudagarria

azaltzen da. *Alan* moduzko adberbioa da lehenengo zatiak eta bigarrengoak lotzen dituen, alegia eta Balentinen bizitza alderatuz.

Alegiak erabili ez ezik, tonu aldaketa bortitza izaten da bertsoa bitan banatzen ohi duena.

Aita Santu berri baten hautaketa zela eta, 1913an paratutako bertso-sorta baten hori antzeman daiteke bigarrenengan. Lehenengo bi puntuetan egileak gogora ekartzen du Europa aldeko giro liskartsua, Lehenengo Gerrate Mundialaren atarian. Ikuspegi ezkorra guztiz, egilearengan tristezia sortarazten duena:

a)  
Europa'tiko negargarritzko  
Gudako izparrai begira,  
Tamalez sarri nire begijak  
Iturri bigurtzen dira

Bertso berberaren bigarren zatian tonu aldaketa erabatekoa da. Aita Santuaren hautaketak itxaropena eta kontsolamendua dakarkio Urretxindorrari.

b)  
Baña gaur pozik begiratzen dot  
Jelkiden izparringira  
Naigabe danak aiztuta nire  
Bijotza pozez jarri da. (K084h)

Tonu aldaketa hirugarren pertsona erabiltzetik bigarrena edo lehenengoa erabiltzerakoan ere nabaritzen da. Hirugarren pertsona erabiliz zehar estiloan zerbait kontatu zein deskribatu egiten da.

a)  
Mayatzeko il dontsu onetan  
Dei eiten dausku Mariak:  
Egizko biotz-lora txortakin  
"Erdue, pekatariak".

Hasieran, nolabaiteko objetibotasunez zer gertatzen den esaten zaigu. Bigarren zatian lehenengo pertsona plurala erabiltzera igarotzen da egilea, entzulegoari apostrofea eginez, zerbait aginduz, zerbaiterako animatuz.

b)  
Guazen, bada, Ama onari  
Betetara gurariak  
Gero zeruan ixan daiguzan  
Amai bageko sariak. (K089b)

### **2.3. Goraipamenezkoak**

Batxi Bilbaori eskainitako bertso baten hasieran laudorioz lagunduriko opalkuntza egiten dio:

a)  
 Agur, aizkide bijotzekua,  
 euzkel-idazle ospatsu!  
 Zorun gustijak opa dautzudaz  
 Pozkiro eta maitetsu.

Bertso berberaren bigarren zatian, barkamen edo emendakin sentimendua adierazten dio iraganean egindako okerkeria bategatik.

b)  
 Azketsi neure ixiltasunaz  
 tamala sortu ba'yatzu;  
 ta urrenguan, al dodantxuaz,  
 gertu egongo nayatzu. (K129j)

Bertso-sortan berberean idazle berari zuzendutako bertso baten honela dio:

a) Atsedean zaite, aizkide maite;  
 ezta orrenbestegiño  
 aiztuta bixi zure gauzakaz  
 zeure lagun au ondiño,

Izan ere, Batxik uste zuen beratzaz ahaztuta zegoela Urretxindorra. Zehatzago esanik, jasotako gutun bat, nahiz eta bertsozko erantzunik ez eman, kontutan hartu duela adierazi nahi du Muxikakoak. Lehenengo zati honetan beraz, Kepa Enbeitak lasaitu nahi du Batxi.

b)  
 eta onantza zatozanean  
 -jelkide onek bai-diño-  
 toki obian ikuskozula  
 zeuk oldozten dozun baño. (K129i)

Lehenengo atalean ikusi dugun antzera, goraipamenezko bertsoen artean ere badira batzuk lehenengo zatian irudi edo alegia bat erakusten dutenak.

a)  
 Mutikotxuak jarten diran lez  
 Poz-pozik, gora-goraka,  
 Amak emoten dautsezanian  
 Prakatxuak adabauta,



Irudi horren irakaspena kontutan harturik eta ilustraturik, egileak bere mezua adierazten du. Bere mezu hori irudi edo alegia horren testuinguruan xehetasun handiagoz ulertua izango da.

**b)**

Neu be olantxe pozkiro nator  
Adizkidei eupadaka.  
Neure eztarri zar adabau onaz,  
Sasoya be bai da-ta. (K130a)

#### **2.4. Ipuin eta abar**

Beste ataletan aipatu den pertsona erabileraren aldaketa ipuin moduko kontakizun eta elkarrizketetan ere gertatzen da. Zerbait objektibo kontatzetik apostrofe bat egitera igarotzen denean ikusten da aldaketa hori. Alde objektiboak lehenengo bi puntuak hartzen dituenean eta apostrofeak hurrengo biak hartzen dituenean, dagokigun egitura agertzen da nabarmenki:

**a)**

Komedi-tokia da  
gure okollua;  
beyak adarrak dantzan  
ta ik akullua.

**b)**

Bi alditan or abil,  
mutil kankallua,  
esnez bete eziñik  
eure katillua. (K161a)

Zerbait kontatzetik balorazio bat egitera igarotzen denean, jardunbide bakoitzean bina puntu hartuz, egitura hau ere antzematen da. Esate baterako, hurrengo bertsoan kontakizunaren pertsonaia batek hasieran, lehenengo bi bertsoetan, zer gertatu den kontakizun dio bere anaia Imanoli.

**a)**

Esne kentzen asi az  
arro eta mañez,  
iñori burletako  
uste ta alegiñez.

Bigarren binomioan, egindako lana eta pertsonaren balorazio bat egiten da, pertsonaiaren subjektibitatea agertuz, beti ere adar jotzaile kutsuaz.

**b)**

I aiz mutil abilla  
bakarrik mingañez  
bei zarren ostikuak  
eraiteko iñes. (K161g)

Baliteke ere, lehenengo binomioan gogarte bat garatzea eta bigarrean gogarte hori objektibizatu eta motibotzat izatea. Horrela ikusten dugu hurrengo bertsoan:

**a)**

Uda ederra, uda pozkorra,  
Indargetuaz bai-dua,  
Au zapaldurik onen lekuan  
Jarteko pozik negua.

Gogarte edo gomuta hau aipatuko du hurrengo binomioan, nolabait hasieran egindakotik urrunduz, distantzia batera jarritz, eta gaia objektibizatuz.

**b)**

Gomuta onek tamaldu oi dau  
Baserritarren gogua;  
Baña orraitik, gertau bagarik,  
Nekez arrapau daura. (K174g)

### **2.5. Gomutakizunak**

“Gomutakizunak” bataiatutako bertso eta bertso-sorten atala laburragoa da arestiko atalen aldean. Hori dela eta, egitura mota hau daukaten bertsoak askoz gutxiago dira.

Badira, esate baterako, bi ikuspegi desberdin erakusten duten bertsoak. Horrelakoetan lehenengo binomioak alderdi bat nabarmenduko du eta bigarrenak errealitate horren kontrako (edo gutxienez, beste) aldea. Ondorengoan zerura joateko dauden oztopoak eta bidearen garratzasunak azpimarratzen dira lehenengo binomioan.

**a)**

Donoki goira dagon bidia  
Estu-estua da oso  
Aldapatsua eta, ganera,  
Bertan eragozpen asko.

Bigarrean *baña* juntagailu aurkaria dago hasieran eta honek jada adierazten digu kontrajarpa agertu egingo dela:

**b)**

Baña bideoi elbururaño  
Jarraitzen dabenentzako  
Zorun utsezko “Txalai” guren bat  
Jauna'k izentaurik dauko. (K204e)

Aipatu dugun kontrajarpa esfortzuaren saria gogoraztean datza, ahalegina merezi duela, alegia.

Ameriketara joan zen Joseba Biritxinaga izeneko bati bertso-sorta bat konposatu zion eta "Gomutakizunak" atal honetan kokatu. Sorta horren bigarren bertsoak egitura mota hau daukala dirudi.

Lehenengo binomioan Joseba Biritxinaga horren agurketa aipatu eta baloratzen da.

a)

Itz neurtu ederrakaz  
ein dauskuzu agur,  
Kirikiño'k nai daun lez  
egoki ta labur.

Bigarren binomioan ostera, baldintza-ondorioa egitura duen esaldi bat formulatzen du Urretxindorrek haren destinoaren urruntasuna beldurtzen duela esanez.

b)

Idaho ori ba'lego  
Gernika baxen ur,  
zeugaz nintzake ... baña,  
ni bildur nok, bildur! (K194d)

## 2.6. Naturazkoak

Norbaiten jokamoldea irudikatzeko Kepa Enbeitak naturaren elementuetara jotzen zuen konparazio bila. Ondorengo bertsoan naturaren irudikatze nabarmen bat erakusten da lehenengo binomioan, erleen jarduna xehetasunez deskribatuz.

a)

Zabal oi diran lorarik lora  
Erliak oiñez ta aidian  
Ibilten dira, batzen dabenaz  
Ezti eiteko abian:

Bigarren binomioan, beste bertsoetan egin zuen bezala, Urretxindorrek esplizitu egiten du irudikatze horrekin aditzera eman nahi zuena:

b)

Alan ibil zan Tokintar gaizto  
Odol-zalien artian,  
Zabal ebizan arimak batzen  
Jaunaz gozatu daitian (K081i)

Mota berekoa da ondorengoa ere. Egunsentiaren ondorioak eta zertzeladak agertzen dira lehenengo binomioan. Bigarrean, inplizituki Eguzkiaren agerpen hori Euskararekin alderatuko da:

a)

Iñora baño len agertzen da  
Eguzkija be mendira;  
Txori-abesti eztitsubenak  
Mendijan entzuten dira:

b)

Euzkera zarra mendijan dago  
Jaungoikuari begira,  
Bere erruki-zain noz biurtuko  
Barriro lengo tokira. (K144h)

Pertsona gramatikalaren erabilera aldatu daiteke bertso barruan. Aldaketa horrek aipatzen ari garen binomio simetriko bi sortaraz ditzake. Horixe bera gertatzen da aipatuko dugun hurrengo bertsoan. Lehenengo binomioa izadi triste eta negutar baten deskripzioa da, hain zuzen ere urretxindor bat hil delako.

a)

Zugatz ta lorak itun dakustaz  
Negarrez dago baratza;  
Beren maitia galdu daulako  
Erdibiturik biotza.

Bigarren zatia egileak izadiaren elementuei zuzentzen die bere apostrofea (bigarren pertsona plurala erabiltzera igaroz), urretxindorrek merezi duen dolua errespetatua izan dadin.

b)

Ixil zaiteze txuntxun-txistuak  
Baña ori, zer dala-ta?  
Ixildu eta negar eixue,  
Urretxiñola il da-ta! (K042f)

## 2.7. Satirikoak

Bertso-sorten sarrerak bereziak izaten dira. Urretxindorrek gaia apurka-apurka eta progresioz iragartzen digu. Progresio hori dela-eta, baliteke bi binomiodun egitura sortzea. Ondorengo bertsoa horietakoa da:

a)

Adi-erazoteko neure gurariak,  
Bide batez esango ditudaz egiak:

b)

Sakristauak dirade kristiñau zoliak  
Entzungarriak, barriz, euren pikardiak. (K162l)

Lehenengo binomioa oso orokorra eta zehaztugabea da. Zerbait egiazkoa kontatzeko duen asmoa agertzen du, besterik ez. Bigarren binomioak bertso-sortaren gaia zein izango den azaltzen du, edo behintzat horren aztarna argia ematen digu.

Kontatzen ari denean ekintza edo gertaera nagusi bi izan daitezke bertsoaren eduki. Ekintza biok binomio banatan kokaturik baldin badaude, orduan 2-2 egitura honen aurrean gaudela esan genezake. “Sakristauen egikerak” izeneko bertso-sortan, bada bat non bi jazoera nagusi kontatzen diren: bata sakristauaren saiakera ardoa edateko, engainu bat dela medio lortuko zuelako ustetan, eta bestea, abadeak nola harrapatzen duen gaizkilea eta ezartzen dion zigorra.

a)

Urrengo egunian bardin edan uste,  
Egingo dabela arek beste orrenbeste;

b)

Atrapetan dau bertan, asten yako auska,  
Belarrondua jarri eutsan berotuta. (K163b)

*Karabiñeruen* bizimodua kontatzean bertsoetariko baten haien eguneroko lan bat zertan datzan azaltzen du binomio baten. Bigarrean ekintza horri beste bat kontrajartzen zaio, *karabiñeruen* ustelkeria agerian utziz. Ekintza bat eta kontrajarpenean dagoen ekintza dira 2-2 egitura honen beste osagarriak, beraz:

a)

Etorriten danian portura ontzia,  
A errekestaten dauko biar nagusia;

b)

Baña emon ezkerio ixilik saria  
Libre itxiko dautse gauzari pasaia. (K162e)

### 3. Hirugarren eredia

Maiztasunari dagokionez oso bakanak dira egitura hau modu argi eta garbian duten bertsoak. Izan ere, bertso ia-ia guztietan beti egoten da puntuaren arteko lotura bat, nabarmena edo inplizitua. Hortaz, azken puntuak beti izango du bertsoarekin eta azkenaurreko puntuarekin lotura bat. Batzutan, ordea, azkenaurreko puntua nabarmendu egiten da bi arrazoirengatik:

a) Azken puntuaren prestakuntza eta oinarri semantiko edota linguistikoa izan daiteke.

b) Azken puntua eta gainontzeko puntuaren arteko zubigintza lana bete dezake, hau da, mezuaren hariari eutsi, nahiz eta semantikoki arlo ezberdinak ukitu.

Egitura hau agertzen denean, badirudi egitura korapilatzeako asmo berezirik ez dagoela. Gure ustez, dagoena zera da: azken puntua modu edo errekurtsio egoki baten bidez prestatzea. Horren ondorioa inflexio gunearen nabarmentzea da, baina azken finean hori besterik ez da, nabarmentze soil bat. Lehenengo eredian erakutsi den legez, hasierako hiru puntuak azken

puntuaren prestakuntza izan daitezke. Hirugarren eredu honetan, lehenengo bi puntuak azken puntuaren prestakuntza izan daitezke, baina bereziki hirugarren puntua da funtzio hori erakusten duena.

### 3.1. Aberkoiak

Bertso aberkoiaren artean 2-1-1 egitura ikusten da nabarmenen, beste gaiekin alderatuz.

**a)**

Iturri eta errekatxuak  
Jasteira beko ibaira;  
Ibaya dua oneik artuta  
Itxaso zabal andira ...

**b)**

Onegaz topo egin dabe-ta,  
Ertzian geratzen dira,

**c)**

Goratuago ixil-ixillik  
Daun Ziñopea'n begira. (K045b)

Bertso hau “Itxas-ertzian” bertso sortari dagokio eta bertako bertsoarik gehienetan *Ziñopeari* erreferentzia bat egiten zaio azken puntuan, nolabaiteko egitura paralelistiko bat agertuz. Naturaren irudiak hartzen dira hasierako bi puntuetan eta gauza arruntak deskribatzen dira. Hirugarren puntuan pertsonifikazioaren iradokizuna egiten da: “topo egin dabe” eta batez ere “geratzen dira” aditzekin; izan ere, uren gelditze hori izan daiteke arrazoi fisikoek derrigortuta edo, fikzio mailan, euren borondatez (urak pertsonifikatzen direnean). Azken puntuan bi efektu jadesten dira:

1. Uren pertsonifikazioa nabarmenago eta zalantza izpirik gabe adierazten da *begira* adberbioarekin.

2. *Ziñopearen* irudia agertzen da, naturaren espirituak harengan bere goien-maila jadetsiko balu bezala.

**a)**

Nun da gaur gure anaitasuna?  
Gure lagijak nun dira?  
Eztira agertzen iñun-iñun be  
Jarri arren gaur begira

**b)**

Arrotzalien erruz eruan  
Ebezan gastelerrira.

**c)**

Zetan eztoqu jaubetu biar,  
Euzkeldunenak ba'dira? (K048i)

Galdera erretorikoez zamaturik dagoen bertso honek lehenengo zatian (a) zatian) egilearen kezka bat agertzen da: arbasoen lege eta ohituren galeraz duen kezka, eta galera horren arrazoiak galdetzen du.

Hirugarren puntuan, inflexio-gunean hain zuzen, egileak bere erantzun propioa ematen du arrotzei errua boteaz.

Laugarren puntuan, egoera tamalgarri horren aurrean egilearen erreakzioa eta kontzientziazioa beste galdera erretoriko baten bidez azaltzen da, bertsoaren hartzailea ere kontzientziatu nahian.

Ondorengoa bertso-sorta beretik hartutakoa da.

**a)**

Zer dala, baña, nik Oiz'en goitik  
Orain ikusten dotena,  
Bere txinparten argitasunaz  
Zirkin eraiten daustena?

Lehenengo zati hau itaun erretorikoa da, entzulearen arreta erakartzeko, izan ere galderan bertan deskripzio harrigarri bat dago.

**b)**

Eguzkijaren zati bat dakust  
Mendi ertzetik urtena;

Eguzkia omen da egilea horrenbeste harritzen duena: bere agerpena orainaldia erabiliz iragartzeak (*dakust*) sorpresa eta tentsio dramatikoaren eranstean dio bertsoari. Baina susmo bat barreiatzen du puntu honek; izan ere, eguzkia, garai hartako iruditegian, zerbaiten sinboloa izatera ailegatu zen:

**c)**

Azkatasundun eguzkija da.  
O gure itxaropena! (K048j)

Harridurazko deiadar batez ixten du bertsoa, hirugarren puntuan iradokitzen zen *eguzkijaren* zentzua argituz.

### **3.2. Erlijiozkoak**

Adierazita dago jadanik, Urretxindorraren bertsogintzan erlijiotasuna eta abertzaletasuna bereizten ez dela lan erraza. Horren lekuko ondoren aurkezten diren bertso batzuk dira.

Aurrenekoa “Kurutzia ta Euzkeria” bertso-sortan dago eta izenburuak dioen legez, edo gutxienez nahiko garbi iradoki, kristautasuna eta euskararen aldeko aldarria da, Euzkadirentzat bi elementu salbagarriak izango zirelakoan. Salbazioa bi mailatan lortuko da horrela: giza mailan, euskararen bidez lortuko da (erdalkeria, kanpoko ohitura txarrak, e.a. saihestuz) eta espiritual mailan “Kurutze” edo berorrek adierazten duen kristautasunaren bidez jadetsiko da.

Lehenengo bi puntuetan arenga moduko bat egiten du egileak, apostrofearen bidez gazteei zuzenduz.

**a)**

Aupa, mutillak! Itxartu, jagi!  
Guazen danok gudara!

Lenauko gure asabak legez  
Benetakuak ba-gara,

Baina “gudara” hitz horrek galdera bat sortaraz liezaioke bertsoaren hartzaileari. Izan ere, kristautasuna eta indarkeria ez dira bateragarriak eta horretara aurreratzen da egilea, galdera bat eginez eta berak ezetz erantzunez. Honek lotura du beraz, hasierako zatiarekin baina baita azken puntuarekin ere, eta horregatik inflexio gunea deitu ahal zaio.

**b)**  
Sizkilluakaz alkar ilteko?  
Ez, olakorik ez! ... Ara:

Zintzilik geratu den galderari azalpen edo erantzun bat eman behar zaio, izan ere, ukapenarekin bakarrik ez da eskaintzen espero den informazio guztia. Azalpen positibo bat falta da eta horixe da azken puntuak ematen duena.

**c)**  
Gure izkilluak izango dira  
Kurutzta eta Euzkera. (K096b)

Sendiko eta lagunen seme-alaben Jaunartzerako prestatuak zituen Urretxindorrek zenbait bertso-sorta. Horietariko batetik aukeratu dugu hurrengoa, eta bertan Jesus bera da mintzo. Bere mintzaldiak hiru pauso ditu. Aurrenekoa hasierako binomioari dagokio eta, munduaren Sortzailea denez, gauza ororen jabetasuna adierazten die hurrei.

**a)**  
“Neuriak dira uri-baserri,  
Zelayak eta mendiak,  
Lior-itxaso, arrain-abere  
Ta beste gauza guztiak.

Jabetasun hori, ostera, kristau zintzoei lagatzeko prest azaltzen da Jesus. Mezu hau, bigarren pausoa izanik, aurrekoaren zehaztapena da eta, era berean, hurrengo aholkuaren oinarria.

**b)**  
Guzti oneikin jabetukoira  
Kistar on, biotz garbiak.

Hirugarren pausoa burutuz, Bere eskuzabaltasuna erakutsi ondoren Jesusen gonbidapena dator, Berari hurrek gauzak eska diezaioten.

**c)**  
Eskatu Neuri zer gurozuen,  
Umetxu maitagarriak.” (K098k)



Ondorengo bertsoan, hasiera-hasieratik sartzen gara egilearen barnetasunean; izan ere, gertakizun objektiboen berri eman beharrean, egileak bere (pozezko) subjektibotasuna erakusten digu:

**a)**

Au izpar eder, au nire poza!  
 Au bai nire atsegiña,  
 Dakustanian amargarren Pi  
 Doatsubaren ordaña!

Pozezko deiadar horrek azalpentxo bat eskatzen duela dirudi eta horixe egiten du Urretxindorrek hirugarren puntuan, azken puntuari terrenoa prestatuz:

**b)**

Ume zurtz giñan, ta bai-genduan  
 Aita on baten premiña.

Ondorioa hauxe da: egileak Artzain berriari eskaintzen dion bedeinkazioa:

**c)**

Zorijontsuba ixan daila, ba,  
 Kistar ororen Artzaña! (K084j)

### **3.3. Goraipamenezkoak**

Goraipamenezko bertsoen objektua batzuetan gauza materialak izaten dira. Izaro uharte edo irla da euretariko bat. Urretxindorrek estimuan dituen izadiko elementuak pertsonifikatu egiten ditu sarri bere bertsoetan. Hemen, gizakien ezaugarri eta jardura motekin (gizakiei dagozkien aditz eta ekintza motekin, esan nahi baita).

Beste kasuetan bezala, lehenengo binomioa objektuari so egiteko erabiltzen du.

a)

An dago gau ta egun  
 begira Laida'ri  
 baita udan Laida'ra  
 dauazan danari:

Kontenplazio horretatik, eta pertsonifikazioa areagotuz, balorazio bat kanporatzen du, esandakoaren ondorio bezala eta hurrengo puntuaren oinarri bezala:

b)

bera da jagolia,  
 bera ziñaldari.

Azken gomendioak, eta berriro ere pertsonifikazioaren fikzioan sakonduz, ixten du bertsoa:

c)  
Nor zelan ibilten dan  
itaundu berari. (K142e)

Deskripzio sinboliko batez beste bertso bateko lehenengo binomioa hasten da. Eskerrak emateko bertso bat da, Argentinan Urretxindorra gaixoaren alde egin zen diru bilketa bat eskertzeko eta Lugones poeta argentinarrari haren olerki batengatik eskerrak emanez.

a)  
Urre-arpegi dizdizariaz  
Agertu dan eguzkiak  
Argitu dituz len illun egon  
Diran zokondo guztiak.

Eguzki horrek zentzu bi ditu: alde batetik, izadiaren elementu bat da, bere barne poza adierazten duena, eta bestetik, Argentina eta Euzkadi argitzen duen elementua, aberri bien lotura komuna bailitzan. Ondorengo inflexio gunean, jadanik lehenengo binomioan agertu den eguzki hori berraipatzen du, eta horren bidez Argentinako anaiak ikusi ahal dituela adierazi egiten du.

b)  
Argi onexek darakustaz gaur  
Amerika'ko anayak,

Bere poza are eta sakonagoa izango da olerki ederrak eskaini dizkiotela azaltzerakoan.

c)  
Agur-olerki ederraz neuri  
Opaltzen diru ugariak. (K145c)

### **3.4. Ipuin eta abar**

Gutxi dira ipuin izaerara egiatan hurbiltzen diren bertso sortak, baita Santi Onaindiak “Ipuin eta abar” izeneko atalean sartu zituenen artean ere. Ipuinak edo fikziozko kontakizun laburrak (euretariko batzuk jatorri erreala dutenak) dira kontutan hartuko ditugunak.

“Bei zarren bertsuak” izeneko bertso-sortatik hauxe aukeratu dugu, sorta horretan 2-1-1 egitura duen bakarretako bat.

Kontrajarpenaz beteriko bertsoa dugu hau. Lehenengo binomioan, purrustada edo gaitzespen moduan, Imanolek aurpegiratzen dio bere burua ez aurkeztea behia eraisteko.

a)  
(Imanol'ek.-)  
Seguruan auala

gaur edozer diñok;  
baña “neuk eratzikot”  
alan be eztiñok;

Ondoren, lanari ezetz esateko zein duen arrazoia aipatzen du, iseka modura, eta bere anaia ebidentzian utziz.

b)  
zikintzeko bildurrez  
esku guri piñok,

Bere anaiaren ikuspegi arbuiagarria eskaini ostean, badu arrazoi morala azken sententzia esateko, kontrajarpen modura formulaturik eta aditzen elipsiekin, ahozko estiloa islatuz.

c)  
euk adarra jo eta  
lana barriz iñok. (K161j)

“Udazkena ta baserritarrak” bertso-sortan, sendi baserritar arketipo baten jarduerak kontatzen ditu, haien jokamoldea eredutzat jarriz. Lehenengo binomioan lanera abiatze alaitsua deskribatzen du:

a)  
Sendi osuak alkarren leyan  
Zeñek ira geyau ebai.  
Eguna baño len junda dabitz  
Ijuika, pozkiro, alai.

Eginkizun hori zehatzago deskribatzen du hurrengoan. Horretarako bi helburu hurbil azaltzen ditu: sabaiak betetzea eta metak egitea:

b)  
Bete nai dabez sabai ta korta,  
Zelayan metak eiñ be bai,

Baina helburu hurbil horiek badute azken helburu garrantzitsuago bat, eta hori da azken puntuan adierazten dena gazteluaren metaforaz indarturik:

c)  
Gaztelu onek eutsi dagion  
Etorriko dan neguai. (K174h)

### **3.5. Gomutakizunak**

Ameriketara zihoan lagun bati bertso batzuk eskaini zizkion, eta Santi Onaindiak “Gomutakizunak” sailean egokitu zituen. Bertso horietako baten Urretxindorrek bere kezka agertzen du itsasoan barrena egingo duen bidaiaz.

Kezka horrek Munduko Lehenengo Gerrarekin zerikusia zuen; izan ere, urpekuntzi alemanek garai haietan itsasontzi komertzial eta zibilak hondoratzen ziharduten.

Bertsoan hiru pauso nagusi antzematen dira. Lehenengoa egite hori objektibotasunez agertu egiten da:

- a)  
Doixtar itxaspekuak,  
egunez ta gabez,  
aspaldi ainbat ontzi  
ondoratu dabez.

Horren aurrean egileak bere kezka azaltzen du:

- b)  
Gomuta onek nauko  
sarri atsekabez;

Egoera kezkarria izan arren, eta kezkarri aurre eginez, egileak bere itzaropena jartzen du zerutiko indarretan:

- c)  
zeu, baña, Gongotzonak  
jagongo al zabez. (K194e)

Antzera gertatzen da hurrengo bertsoarekin ere. Urretxindorra bere osagile edo sendagileari zuzentzen zaio Urkiolatik; izan ere, bertara joan da bere osagilearen aginduz, atsedean hartzeko eta osasuna berreskuratzeko. Lehenengo binomioan gertaera jakin bat objektibotasunez aurkezten da, Urrutxun eta Bizkargin egindako egonaldiak eta berorien arrazoiak alegia.

- a)  
Agindu zeustan aixiak artzen  
Urrutxu'n edo Bizkergi'n  
Egun batzuben igaroteko  
Pizka bat gogortu nadin.

Laburtasunez, hirugarren puntuan aurkitutako deserosotasun bat azaltzen dio: ostaturik ez dago, bertan egonaldiak egin ahal izateko. Horren ostean galdera bat planteatzen du, azken puntuari erantzuteko aukera emanez, eta beraz, inflexio gunearen joko eginez.

- b)  
Bizkergi'k, baña, ostaturik ez,  
Ta aixe utsagaz, zer egin?

Egoera horren aurrean zein erabakia hartu duen azaltzen du azken puntuan, prozesu bati amaiera emanez (egoera - oztopoa - konponbidea).

- c)  
Ori dala-ta Urkiola'ra  
Etorri nintzan aurtemin. (K194h)

### 3.6. Naturazkoak

Lehenengo binomioak naturan gertatzen diren gauza batzuen konstatazioa dakar. Aipatzekoa da mendia dela puntu bietan errepikatzen den substantiboa, nolabaiteko ardatz bat ezarri nahian.

- a)  
Iñora baño len agertzen da  
Eguzkija be mendira;  
Txori-abesti ezititsubenak  
Mendijan entzuten dira.

Ondoren, egilearen ideologia islatzen da *Euzkera zarra* sintagma agertzearekin batera. Ideologiaren elementu hori hasierako *mendija* ardatz horrekin agertuko da, hasierakoa alegia bat zela iradokiz.

- b)  
Euzkera zarra mendijan dago,  
Jaungoikuari begira.

Hirugarren puntua lehenengo binomioari lotuta doa, baina baita ere azken puntuan egingo duen galdera erretorikoarekin. Urretxindorraren kezka lekuzko galdera batekin azaltzen da, hots, ea non dauden euskaltzaleak. Bistan denez, galdera horrek adierazten duena da Urretxindorra kezkatuta dagoela euskaltzaleen jarduera biziago bat ikusi nahi duelako.

- c)  
Mendijan dagon alaitasunaz,  
Mendi-mutilok, nun dira? (K038d)

Azken bertso honetan, izadia irudi sinboliko bezala erabili da. Izadia irudikatzen abertzaletasunaren sinbolora joan da egilea, Euskara aipatuz.

Hurrengo bertsoa Sabino Aranari eskainitako bertso-sorta baten kokatzen da. Izadiak zer Sabino Aranarekiko nolako jarrera hartzen duen agertzen du:

- a)  
Iturri eta errekatxuak  
Jasteira beko ibaira;  
Ibaya dua oneik artuta

Itxaso zabal andira ...

Itsasoa eta erreka zein ibaien arteko lotura azaltzen da lehenbizi. Baina hurrengo puntuak, hirugarrenak, atentzioa deituko digu:

b)  
Onegaz topo egin dabe-ta,  
Ertzian geratzen dira,

Ertzian geratzen dira, baina zergatik? Ondorengo puntuak, azken puntuak hain zuzen, argituko digu:

c)  
Goratuago ixil-ixillik  
Daun Ziñopea'n begira. (K045b)

Azken puntu honi esker badakigu zergatik geratu den ibaiaren ur jarioa, Sabino Arana martiri edo *ziñopearen* hilobiari begira geratu direlako. Azken puntuak bertso honen ezustea ematen digu: ibaiaren pertsonifikazioa egiten da. Beraz, hirugarren puntuak zubigintza lana egiten du, naturaren jarduera arrunta azaltzetik Arana martiriarekiko pertsona baten jarrera agertzera.

### 3.7. Satirikoak

Bertso satirikoen artean gutxi dira 2-1-1 egitura dutenak. Bat aukeratzekotan (dauden apurretatik bat), hurrengo aukeratu dugu. Zenbait sakristauren jokamoldeak jartzen dira arbuigarri bere bertso-sortan. Bertso honen lehenengo binomioak jarduera bat azaldu eta kontatu besterik ez du egiten.

a)  
Egun danetan dagoz sarturik eleizan,  
Abadien aurrean santu baten gisan;

Ondoren zalantza ezartzen da, lehenengo binomioan esan denarekiko kontrastean.

b)  
Gero ikusi biar zer moduz dabilzan,

Azkenik, zalantza horretan sakontzen du egileak, beste salakuntza objektibo batekin:

c)  
Zintzo asko orain arte beintzat ezta izan. (K162n)

Horrek agerian uzten du sakristau askoren jokamoldearen inkoherentzia; hau da, itxuraz gauza onak egiten dituztela baina benetako emaitza zera da: sakristau zintzo askorik ez dela izan.

Hortaz, eredu honi dagokionez, hauexek lirateke bertsoetan ematen diren hiru pausoak:

- a) Mezua: zerbait objektiboaren konstatazioa, kontaketa, agerpena.
- b) Mezuaren zehaztapena eta azken puntuaren prestakuntza.
- c) 3. pausoa: bertsoaren gailurra, aurreko puntuei esker zentzua bereganatzen duena.

#### **4. Laugarren eredia**

Maiztasunari dagokionez, hau da gutxien erabiltzen den eredia, dudarik gabe. Orokorrean nahiko bertso lauak izaten dira, mezuaren indarra eta kontudentzia kontutan hartuta, eta erritmo zein tonu aldaketa makalenak dituztenak. Akaso, goranzko (zein beheranzko) progresioa da nabarmentzen den baliabide bakarretakoa. Dena dela, bertso sortetan, betelanaren (eta batzutan ederlana) papera jokatzeko dute, gehienetan.

##### **Laugarren eredia**

(Beheranzko edo goranzko progresioan)

1. puntua
2. puntua
3. puntua
4. puntua

#### **4.1. Aberkoiak**

Alegiazko hizkera darabilen hurrengo bertsoan ez dago kontrajarren nabarmenik (hirugarren puntukoa, ez da oso nabarmena, arreta ez galtzeko nahikoa bada ere). Bertan Urretxindorrek Aberriaren Pizkundera azaltzen du, ukitu epikoekin baina goranzko progresio leun batez:

Onexen didar irrintzijagaz  
 Euzkadi'k dar-dar ein eban;  
 Euzko-Aberri onek bixija  
 Ondiñokarren bai-eban;  
 Illen lotatik itxartu zan ta  
 Jarri osatzeko eran,  
 Seme zintzuen laguntasunaz  
 Jarteko lengo aukeran. (K040c)

Bertsoa alde positibo batetik beste negatibo baterako mugimenduan hasten da jadanik: Sabinen deiadarrarekin Euzkadi hunkitu egin zen, suspertu. Hurrengo puntuan Aberriaren biziraupena konstatatzen da. Bigarren puntu

honetan ikusten da hodei eta ortziaren zentzu metaforikoa. Hirugarren puntuan mugimendu positibo horrek darrai, “illen lotatik (...) osatzeko eran” esaten duenean, batez ere. Aurki daiteke kontrajarren bat *il* eta *osatu* hitzen artean, eta hala da. Baina goranzko mugimendu edo eboluzioak indar gehiago dauka, kontrajarren arrunt horrek baino. Laugarren puntuan seme zintzoak agertzen dira, Aberriaren itzartze horretan lagungarri izan direlakoan.

Goranzko progresioan dagoen bertsoa dugu hau beraz, kolpe berezirik gabekoa, ez azkenean ezta bertso barruan ere.

Sabino Aranaren hilobiari eskainitako hurrengo bertsoan ere goranzko progresio hori antzematen da. Hilobiaren harlauza metaforizatu egiten da eta, ondoren, jadanik inplizituki (*ziñopea* hitzarekin) aipatu den Sabino Aranaren irudia bilakatuko da. Irudi hori deskribatuz, Sabino Aranaren lurreko misio erabakigarri eta garrantzitsua goaipatzen da inplizituki eta zerutiar dohainez apaindu (“Euzko-Deun aundi bezala”):

Ziñopea'ren gorpu-estalki  
Arlosa zabal apala  
Uste dot, zutik, arrantzezki gaur  
Biurturik dakustala  
Begi zabalez goruntz begira  
Euzko-Deun aundi bezala  
Aberriaren bake-zoruna  
Jauna'i eskatzen dautsala. (K045f)

## 4.2. Erlijiozkoak

Erlijiozko bertsoetan eta eredu honi dagokionez, goranzko progresioa sumatzen da baliabide nagusi gisa.

“Kurutzia eta Euzkeria” izenburudun bertso-sortan, badago bat egitura hau daukana. Bigarren bertsoa da hori, eta Antzinako Arrigorriagako borroka gogoratuz<sup>123</sup>, asmatu egiten du, Urretxindorrek euskaldunek zein mehatxuzko diskurtsoa egin zieten gaztelarrei.

Lehenengo puntua bokatiboa da eta ondorengoetan norabide bereko mezuak zuzentzen dizkio pertsonaia euskaldun batek (borroka horretako euskaldun batek, agian) beste gaztelar bati (gaztelarren ordezkari bati, edo gaztelarren pertsonifikazio bati):

“Jakín egizu nogaz zabilTZan,  
Jakín egizu, arrotza,  
Biguna eta gogorra dala

<sup>123</sup> Egia esan Kepa Enbeitaren ikuspegia Sabino Aranaren *Bizkaya por su independencia* liburuan agertzen dena da, edo behintzat horretan oinarritua. Izan ere, lan hori estrainekoz 1890an argitaratua izan zen, *La Abeja* aldizkarian, eta Sabino Aranaren ustez *Bizkayak* garaitu zituen lau borroka deskribatzen dira bertan, aberriaren eraketarako giltzarriak izan zirenak. Liburuxka hori *Obras completas de Arana Goiri'tar Sabino* delako liburuan berrargitaratu du Sendoa argitaletxeak, Donostian 1980an ikusi zuen argia eta 107-153 orrialdeetan irakur daiteke.



Euzkotarraren biotza.  
Gurenda-ikurtzat ipinten dogu  
Gaur Deun Ander'en Kurutza.  
Au zapaldu daben edonok  
Artuko dau eriotza." (K095i)

Badira bertso batzuk informazio hutsa daukatenak, informazio positiboa, kontrastearen jokia erabili gabe, baina zenbait irudiren apainketarekin. Informazio hori goranzko progresioan eskaintzeko joera du Urretxindorrek, oinarritzko datu kokatzaileetatik transzendentzia handiagoetara.

Hurrengoa, adibidez, Balendin Berriotxoaren bizitza kontatzen duen bertso-sortatik laugarrena da. Denbora eta lekuzko datuetatik nolabaiteko epopeiari hasiera ematera igarotzen da bertso honetan:

Milla zortzireun oeita zazpian  
Zezeilan amalaukua  
Egun bera zan Elorrioko  
Errian Jauna'k autua  
Onezko lora bat ipinteko,  
Bertan argitaratua  
Ixango zana beti-betiko  
Zeruan aukeratua. (K081d)

Informazio pilaketa baino ez da. Hori bai, informazioaren maila igotzen doa puntuetan aurrera egin ahala; izan ere, denbora eta toki erreferentziak ematek, santuaren erreferentziak ematera pasatzen da, ukitu poetikoari ekinez:

- Santua, Balendin Berriotxoa esan nahi dugu, metafora bilakaturik agertzen da *onezko lora* legez.
- Bere jaiotza metonimia baten bidez adierazten da: *bertan argitaratua*.
- Bere santutasuna lokuzio batez adierazita dago: "Zeruan aukeratua".

### 4.3. Goraipamenezkoak

Izaro uharteari eskainitako bertso-sortaren lehenengoan ere egitura laua sumatzen da. Izaro uhartearen izena eta kokapena ukitu lirikoekin aipatzen dira bertso honetan. Lirikotasuna, bertsoaren hasieran presente badago ere, gorantz doa bertsoa aurrera egin ahala, Izaroren pertsonifikazioa horren ondorio bat delarik.

Izaro ugartea,  
Izaro, Izaro!  
Laida'tik ur-urrian,  
luzaro, luzaro,  
itsasoen altzuan  
azke ta gozaro,  
iñoiz gogaitu barik  
beti antxe dago. (K142b)

Mende hasierako *Euzko-Deya-ri* eskainitako bertso sorta baten hurrengoa aurkitu dugu, egitura laua daukana.

Idazlerik onenak  
 Apainduko zabe,  
 Orok naiko dabela  
 Egin zeure jabe.  
 Txiro, etxakin onek  
 Neurtitzak, baita be  
 Al daben apurtxubaz  
 Lagunduko dabe. (K126a).

Mezu berberaren alderdi desberdinak eskaintzen dira, baina denak geroaldian eta aurreikuspen zentzuan. Berez, goraipamenezko aurreikuspenak dira argitalpen horrentzat. Hori guztia argitalpenaren pertsonifikazioa eginez eta berari, bigarren pertsonaren erabilerarekin, apostrofea zuzenduz. Agian azken puntuak aurreikuspen horien laburpentxoak adierazten du, baina progresio baten helmugatik antza gehiago du, azken puntuaren efektu-kolpetik baino.

Asti obiaz gero eiteko  
 zeozer isten danian,  
 eragozpenak geruau geyau  
 sortzen dira geyeneian.  
 Niri, beintzat, au jazo yatala  
 nago esan biarrian,  
 Batxi'k bidaldu eustan idazki  
 onen erantzupenian. (K129d)

#### **4.4. Ipuin eta abar**

Adibide bakanak dira atal honen barruan eskaini daitezkeenak.

“Eskola-Maixu arrua ta mutiko azkarrak” izeneko bertso-sortan badira bi zortziko nagusi eta euretariko bat honako hauxe da:

Ogei mutiko, azkar gerturik,  
 An doiaz arratsaldian,  
 Zapi andi bat eskegi dabe  
 Makilla baten ganian,  
 Makilla ori sartuten dabe  
 Maixuan baratz erdian;  
 Eta igalidun zugatz ganetan  
 Azkar asi be lanian. (K163j)

Kontakizun hutsa da, egitura laua duena. Ekintzak bata bestearen atzean kontaktzen dira. Goranzko mailaketa edo gradaziorik dagoen ez dago garbi, izan ere ez dirudi azken ekintzak garrantzi handiagokoak direnik. Kontakizuna ere ez da dramatizatzen aurrera egin ahala.

#### 4.5. *Gomutakizunak*

Urretxindorrek bere osabari eskainitako bertsoetako batek badirudi egitura laua duela. Bertan bere osabak erruki ekintzak burutzeko zuen joera kontatzen da mailaketa berezirik erakutsi gabe eta unitate desberdinak osatu gabe. Deskripzioan alderdi desberdinak elkarren ondoan edo alborakuntzan ezartzen dira:

Zeure aldiran ein zendun ainbat  
Errukizko egikera.  
Txiro-gaxorik agertzen ba'zan  
Eskian zuen etxera,  
Zeuretzat zeunkan bazkaritik be,  
Otoi egiñaz batera,  
Sarri bialdu ixango zeutsen  
Alabatxuaz atera. (K204i)

#### 4.6. *Naturazkoak*

Egunaren hasia deskribatzen duen hurrengo bertsoan, goranzko mailaketan agertzen dira izadiaren elementu desberdinak. Goranzko mailaketa hori azken puntuko deiadarrarekin antzematen da batez ere. Azken puntuaren edukia bera ez da oso bereizgarria bertsoaren gainontzeko elementuekiko. Agian Enbeitatarren bertso gintzan hain estimatua den txindorra txoria aipatzeak bereizkuntza puntu bat gehitzen dio azken puntuari, baina badirudi azken deiadarrak duela indar gehiago goranzko mailaketa nabarmentzerakoan:

Eguna astean, lotsaturik or,  
Eskutaurik gau illuna ...  
Izadi oro barrezka dago,  
Dana da edertasuna:  
Ortzea garden, euzkia diz-diz,  
Ipar aixetxu biguna,  
Txindorrek pozik abestuteko  
Berebiziko eguna! (K145b)

#### 4.7. *Satirikoak*

Hurrengo bertso satirikoa, *karabiñeruak* satirizatzen dituen bertsoa hain zuzen, egitura lauekoa dela dirudi. Laua dela esatean, ez dugu ukatzen lau hori gorantz doanik: laua den azalera malkartsua izan daiteke, azken puntua pixka bat gorago dagoelarik, aldats gora alegia.

Goizean jagi eta lenengo lana  
Ipintea soñean jantzi eder bana;  
Gero soñekoari botaten yakona,  
Jira bat ein eurakaz, amaitu zan dana. (K162c)

Sorta beretik hartutako hurrengo ere tankera berdintsukoa da:

Geyenak dira eurak morrosko ederrak,  
Txanka-me, praka-nasai, sorbalda-bedarrak;  
Zutunik ibilteko ez dira ain txarrak,  
Dotore ipiñirik surpeko bixarrak. (K162i)

*Karabiñeruen* alderdi desberdinen deskripzio satirikoa dugu. Hala ere, satirikotasuna goraka doala ematen du. Izan ere, lehenengo baieztapenak ez du ematen oso satirikoa denik. Agian, testuinguruak ematen dio zentzu trufazkotik zerbait; izan ere, ordura arteko bertsoek *karabineruen* alferkeria nabarmendu dute. Morroskoak izanik, hau da, lanerako gai izanik, edertasun hori badirudi norberen harropuzkeriarako erabiltzen dutela eta horrek eman liezaieke burlazko ukitua. Baina azken puntu biak dira iseka areagotzen dutenak: “zutunik ibiltzea” beren harrokeri barregarri eta patetikoaren ezaugarri bat litzateke, eta azkenik, “surpeko bixarrak” dotore ipintze horrek iradokitzen digu *karabineru* horiek darabilten harropuzkeria.

## 5. Koplak

Koplei<sup>124</sup> buruz hitz egiterakoan, Urretxindorraren bertsolaritzari gagozkiolarik, kontutan hartu behar da bi mota nagusi erabiltzen dituela:

a) kopla txikia. Hau da bere eskema metrikoa:

----- 7  
----- 6A  
----- 7  
----- 6A

b) Kopla nagusia:

----- 10  
----- 8A  
----- 10  
----- 8A

Urretxindorrek ez du erabiltzen hiru puntuko kopla tradizionala, bere eskema metrikoa hain ezaguna eta erabilia izan dena:

----- 8A  
----- 8A  
----- 10  
----- 8A

<sup>124</sup> Urretxindorraren kopleen estiloa ez da kopla zaharrena. Haien estetika moldeak Juan Mari Lekuonak (1982) aztertzen ditu. Kopla zaharren elementu bereizgarria daukaten dinamika bikoitza da: “lehen zatia sinboloduna, estilizatua, eta bigarrena, bertsolarien epifonema” (Ibidem, 57). Estetika hori ez da ikusten Kepa Enbeitaren kopletan. Bertso berriekin zerikusia handiago dute: puntuen arteko lotura logikoagoa eta esplizituagoa da, kopla zaharrena baino.

Orokorrean, Kepa Enbeitak ahozko estilotik gertu dagoen bertsogintza bat darabil, edo behintzat ahozko estiloaren baliabide eta joera asko integratzen ditu bertan. Joera hau kopletan modu berezian antzematen da. Kopletan zenbait mezu eta diskurtso zortzikoetan baino unitate txikiagoetan eskaintzen da<sup>125</sup> eta honek behartzen du egilea mezuaren xehetasunak eta zertzeladak murriztera eta zenbait topikotara jotzera. Dena dela, Urretxindorraren koplak sortaka bilduta daudenez, egileak ahalbidea dauka zertzelada zehatzagoetan aritzeko. Esaldi laburretan bada ere, gai berberari ikuspuntu anitzetatik ekiten dio eta horrek prosaren efektua dakarkigu gogora<sup>126</sup>.

Koplen egitura aztertzeko ez ditugu banatu gaien arabera; izan ere, koplen kopurua zortzikoena baino askoz txikiagoa denez, zaila da ezaugarriak gaika sailkatzea, corpusak ez baitu adibide nahiko ematen. Orokorrean ezaugarri hauek antzematen dira:

1. Apostrofearen bidez, zu poetikoaren erabilera. Bigarren pertsonaren erabilera honek lirismo<sup>127</sup> kutsu bat eransten dio koplari, baina era berean ez da herrikoitasunetik aldentzen.

Emeretzi urtez  
Egunez ta gabez  
Sarri otoi egin dogu,  
Sabin, **zure** aldez. (K044c)

Emakume jeltzale,  
Gaur, **zure** bijotza,  
Euzko-Aberrijaren  
Gurenda-jayotza. (K059n)

Laztan gozo artian  
Etxeko sendija,  
**Zeuk** azita ixango da  
Euzkeldun garbija. (K059p)

<sup>125</sup> Nahiz eta Amurizak (1999, 203) kopla zaharrari arreta eskaini, berak esandakoa kopla mota honentzat baliagarria delakoan gaude: "... laburra izanik, koplan ez dago betelanik. Areago ondino, gauzak espazio txikian esan behar diren ezkerro, lotura gramatikalak eta diskurtsiboak ezabatu egiten dira, beste logika mota bat sortu dela pentsarazoteraino [...] Alkarregaz zerikusi itxurazkorik ez daben ideiak alkarren ondoan ipintean, efektu berezia sortzen da". Egia da: Kepa Enbeitaren kopla askotan bi ideia elkartzen dira, batzutan lotura agerikorik ez duten ideiak, baina elkarren ondoan jarrita, zerikusia igarri egiten da, logika implizitu baten bidez.

<sup>126</sup> Jon Enbeitak (2000, 129) honela azaltzen du efektu hori: "Istorioak, ipuinak, ametsak, gertakizunak .. kontaktzerakoan, neurri hau aukeratzen du sarritan, hizkuntzarik behartu gabe, betegarririk gabe, adornu hutsetan erori gabe... benetako "prosa errimatuak" sortuaz". Bereziki kontakizuna duten kopla-sortetan "prosa errimatuaren" efektua lortzen da.

<sup>127</sup> Horrela azaltzen da erabilera hau: "El apóstrofe lírico establece un diálogo con un "tú" próximo, lo que hace ganar al poema en tensión dramática; al mismo tiempo, el poeta deja de ser narrador distante y se convierte en uno de los sujetos de la interpelación. El "yo" y el "tú", por tanto, entablan una recíproca excitación, configuradora de la manifestación lírica", Alonso, E., 1975, 99.

Gernika herriari eskainitako kopletan horrela zuzentzen zaio pertsonifikatu egin duen Gernikari:

Erri polita, erri garbija,  
Erri alaya, erri txukuna,  
Lau aldetatik begiratuta  
Zeru txiki bat dirudizuna. (K143f)

Zeu zara egiz antziñetatik  
Zuzentza-zelai jatorrizkoa,  
Gure asaben Batzar-tokija,  
Lagi zuzenen gorde-lekua. (K143g)

2. Esaeretan eta mezuetan topikotasunerako joera dago, koplaren ezaugarriek horretara behartuta.

Erdijan Jaun-Goikua,  
Beraz Lagi-Zarra,  
Beti Jel-maitasunez<sup>128</sup>  
Bixi bear gara.

Ezaguna da "Jaun-Goikua eta Lagi Zarra" leloa, JEL akronimoan laburtuta eta alderdi politiko baten izenean geratu dena (Eusko Alderdi Jeltzalea). Kopla honetan lelo hori jasotzen da eta bigarren puntuan horren aldeko maitasunaren beharra modu sinplean baino besterik ez da adierazten.

Seme-alaba orok  
Ezautirik ama<sup>129</sup>,  
Emon dagijentzat  
Maitezko laztana. (K058ñ)

Itzez eta egitez<sup>130</sup>  
Guztijen eredu,  
Mendigoxaliok, geuk  
Ixa biar dogu. (K059a)

Ez al dakixu zein dan  
Jainkoaren legia?  
"Bakotxari beria<sup>131</sup> ...

<sup>128</sup> JEL (Jaungoikoa eta Lege Zarra) ideologiaren bidetik bizitzeko deiak ugariak dira Kepa Enbeitaren bertsoetan, baina kopletan, modu sinpleagoan adierazirik topiko, kutsua hartzen dute. Hona hemen beste kopla bat eduki horrekin: "Alkar besarkaturik/ Jel-aldez lan egin,/ aldi orotan Josu/ geukin bixi dedin" (K206p).

<sup>129</sup> *Euzkadi-ama* irudia, beste kopla askotan agertuko da. Hona hemen beste bi: "Goguak azkaturik/ Euzkotar gustijak,/ Amari azkatzeko/ Arrotz-lokarrijak" (K208e); "Ezkara guzur-zale,/ Eztogu nai azurrik .../ Euzkadi gure ama/ Nai dogu oso-osorik" (K093h).

<sup>130</sup> Horrelako beste formula bat darabil, zentzu berdintsuarekin, beste kopla baten: "Itzez eta egitez/ Noz-nai edonun,/ Beti Kistar zintzuak,/ Beti euzkeldun!" (K109m). Eta beste baten horrela dio: "Euzkeldun ixan gaixan/ biotz, gogo ta adin;/ itzez abertzaleak,/ egikerakaz bardin" (K135l). Azkenik, eta zerrenda ez luzatzeko, azken adibidetzat hauxe aukeratu dugu: "Zintzuak ixateko/ Bijotz, gogo ta adin,/ Itzez abertzaliak,/ Eikerakaz be bardin" (K200e).

Bakotxari beria." (K093i)

3. Ahozko jardunaren elementu asko: galderak, harridurazko deiadarrak, elkarrizketak, e.a. Hori bai, baliabideen erabilera ez da berdina kopla txikietan eta kopla nagusietan.

### 5.1. Kopla txikiak

Apostrofeak ugariak dira, eskaerez lagundurik. Kopla txikiek behar duten mezu zehaztugaberako egokiagoak dira deskripzioak edo xehetasunez beteriko kontaketarako baino. Eskaera arrunt bat, poesia bilakatzeko, hoskidetza eta apostrofe agoniko zein apalak baliagarriak dira eskaera hori edertzeko.

Askotan eskaerak presente ez dagoen pertsonaia bati zuzendurik daude (kanpoan dagoen lagun bat, hil den bat...). Apostrofe horiek otoitzen oihartzuna biltzen dute bere baitan, Jainkoari edo santu bati egiten zaizkion eskaeren antzeratsuak baitira (itxuraz behintzat).

Sabino Aranari zuzendutako kopletan honela mintzo da Urretxindorra:

Gure oldozmen oneik  
Egiak ba'dira,  
Begiratuizu, Sabin,  
Ortik Euzkadi'ra. (K044f)

Ta euzko-deun orok be  
Zeugaz diriala,  
Arren Jauna'ri otoi  
Egin beriala! (K044h)

Otoitzen zantzua ez ezik, elkarrizketaren zantzua ere iradokitzen da koplekin batera. Galderak eta erantzunekin lortzen da efektu hori kasu askotan. Beste batzutan, besteen esanak testualki aipatzean ere elkarrizketa kutsua ematen da.

Ze otoi eingozen?  
Ori zeuk ondoen  
Jakingozu, Erri au ...  
Ikusi ondoren. (K044i)

Eta orduan, zer ein  
Jel-etsayak guri?  
Gaur eingo leukenik ez ...  
Bai-dakigu ori. (K060b)

Entzun biarko dogu  
Geyago be ondiño:  
"Alabia zarrago  
Beren amea baño!" (K093c)

---

<sup>131</sup> "Bakotxak beria" Kepa Enbeitaren lelo garrantzitsu bat izan zen. Bertsoetan agertu ez ezik, kopletan ere agertzen da lelo hau. Hona hemen beste kopla bat lelo horrekin: "Eurena eurentzako,/ geuretzat geuria;/ Jauna'k nai daun lez maite/ Bakotxak beria" (K206l).

## 5.2. Kopla nagusiak

Kopla nagusietan orain arteko ezaugarriak egon badiren arren, motelduta agertzen dira (agertzen direnetan). Esate baterako, elkarrizketak (laburrak beti ere) tartekatzeke joera mantentzen da:

- Nora juañ aiz? Zetan alde dok?  
Nun ago baña, ene txindorra?  
- Nora ta zetan alde egin dotan?  
Osasun-billa Laguardia'ra. (K201d)

Edo galdera-erantzuna egitura duten koplak:

Zein dan landara Goi-erkardunoi?  
Zeintzuk zimeltzen eztiran lorak?  
Landara ori da gure "Tene",  
Euzko-biotzdun emakume bat. (K137p)

Baina bestelako ezaugarriak dira kopla mota hauetan indartzen direnak:

b.1. Deskripzio zabal eta zehatzagoak. Deskripzioetarako sarritan irudiez baliatzen da egilea, zenbaitetan metafora nahastuak<sup>132</sup> sortuz:

Udabarrijan dagerskunian  
Beren aurpegi alai argia,  
Negu-lapurrak billoistu dauzan  
Baso-baratzak poztuten dira. (K137c)

Zeure ormeak mendijak dira,  
Zure arpillak dira zugatzak;  
Zure ondija zelai orlegi,  
Argija lora zuri-gorritzak. (K143i)

b.2. Kontaketarako isuriagoak. Topikotasuna eta lelo ezagunak ez dira horren nabarmenak kontaketa hauetan. Orokortasunari baino, arreta handiagoa eskaintzen zaio zehaztasunari, irudien laguntzaz bada ere:

Lengunian be neu ikertzera  
Jun da Uspitxa-Jauregi'raño,  
Baña txindorra eztau aurkitu  
Abijatxua bakarrik baño. (K201c)

Aratu ditu ardura andijaz  
Etxe inguruak sagasti ta abar,  
Ezin dau baña topeu iñun be,  
Tamalez ija egin dau negar. (K201d)

---

<sup>132</sup> Bosgarren kapituluñ estilistika jorratzen da eta bertan "metafora nahastuei" buruz arituko gara.



Billa ta billa nenbillan beti  
 Etxe inguruan gorde ote zan;  
 Baña eneban aurkitzen iñun,  
 Eta onantza etorri nintzan. (K201g)

### 5.3. Egitura motak

Kopla bat, puntu bikoia den aldetik, binomio bat bezala kontsidera dezakegu. Binomio honetan konplikazio edo egitura korapilotsurik nekez topa dezakegu. Aitzitik, binomioa den aldetik egiturak bi elementu edo bi gune izateko joera bereganatuko du, kasurik gehienetan behintzat. Esanahiaren ikuspegitik egitura mota hauek dira nabarmenenak Urretxindorraren kopletan:

#### 5.3.1. Baldintza - ondorioa (ondorioa-baldintza)

Azken puntuen ezaugarriak aztertzerakoan, Kepa Enbeitari zegokionez, “baldintza – ondorioa” egitura zutenak aurkitu genituen ugarienen artean.

Kopletan, egitura hauxe bera mantentzen da, baina zortziko edo hamarreko baten oinarririk gabe. Efektu azkarreko baliabidea dugu hau, beraz, puntu bitan burutzen dena: hasi eta amaitu.

Gure oldozmen oneik  
 Egiak ba'dira,  
 Begiratuizu, Sabin,  
 Ortik Euzkadi'ra. (K044f)

Egizko bide auxe  
 Jarraitu biar dogu,  
 Aberri-zoriona  
 lortu gura ba'dogu. (K050k)

Diñodan au, ba, egiz  
 Lortu nai bozue,  
 Emakumiok, zebeñ  
 Eskuban dozue ...! (K060d)

#### 5.3.2. Baieztapena - baieztapena zehaztu

Kopla hauetan, egileak baieztapen bat egiten du eta hurrengo puntuan baieztapen hori zehaztu, borobildu edo xehetasunez hornitzen du. Berez ez du kolpe berezirik eskaintzen baina kopla-sorta horiek behar duten argibide eta informazio guneak dira, sortaren hariak zentzua izan dezan.

Egizko maitasunak  
 sortzen dau batasuna,  
 batasunak indarra,  
 indarrak osasuna. (K050f)

Biderik ederrena  
 Erdiko bidia,

Iñorantz irulteko  
Bildurrik bagia. (k058g)

Mintegi ontan landara guri,  
Lerden ederrak ugari,  
Sastrakaz bete ein zan baratza  
Biurturik lorategi. (K063j)

### **5.3.3. Agindua-helburua (edo helburua-agindua) binomioa**

Azken puntuen baliabideen artean “agindua-helburua” izenburua zuen baliabidea aztertu da (ikusi 2. kapituluaren 1. atala). Badira kopla ugari, baliabide honetara mugatzen direnak, hau da, baliabide hau besterik erakusten ez dutenak, koplaren neurri laburrak horretara behartuta, noski.

Alde orotan erein  
Jel-azi garbija;  
Sortu dedin egizko  
Euzko mintegija. (K058n)

Soña ondo jantzirik ...  
Iñoz bez mangutsik,  
Jauna'ri eztayogun  
Mingoztu bijotzik. (K059d)

Arriskueta jagon,  
Ene Gotzona,  
Ixa nadin euzkeldun  
Kistar on-ona. (K109i)

### **5.3.4. Agindua**

Zenbait kopletan egiten den apostrofea, agindu bat (edo batzuk) bilakaturik agertu ohi da Urretxindorraren koplagingintzan. Apostrofe hori, itxuraz agindua izan arren, zerbait egiteko gonbidapena eta animuak dira, edo gomendioa beste batzutan. Batzutan, sakonean euskaldunari egiten zaion erregua ere bada. Agindu horrek kopla egituratzen du, bere ardatza izanik, baina koplaren egitura modu desberdinetan aurkezten da.

#### **5.3.4.1. Agindua-agindua**

Kopla batzutan, agindu bati bigarren batek jarraitzen dio, zenbaitetan gomendio edo doktrinamendu jarduera bat islatzen delarik.

Euzko-gastedi oro  
Mendigoxaletu,  
Baserri, baso, mendi  
Pozkidaz aratu. (K058m)

Gaurtik ... euzkeraz egin  
Etxe ta txaidian;

Euzkeraz jolasian,  
Euzkeraz lanian. (K059ñ)

Jel-bidez, euzkeltzale  
Kutuntxubak azi,  
Euzko-oitura onak  
Bijotzian josi. (K059s)

### 5.3.4.2. Agindua-agindua zehaztu

Agindua bakarra izanda, baliteke bera bakarrik ez joatea, hau da, agindua zehazten duen azalpen edo kokapen batekin joan daiteke:

Euzkeraz itz-ein daigun  
Garbi ta ugari,  
Edonun agerturik  
Beti, Jel-gudari. (K059e)

Oitura on garbiak;  
Itzez ta egitez,  
Goikoak nai dauzala  
Gogoratu zaitetz. (K098e)

Goxetik gaberaño,  
Gau eta egun,  
Ixan zakidaz beti  
Zu neure lagun. (K109h)

Otoi dagigun gogor  
Jauna'ren aurrian,  
Zeure emeretzigarren  
Illurte urrenian. (K044m)

### 5.3.5. Galdera - erantzuna

Egitura mota honek modu sinple eta eraginkorrean ahalbideratzen du koplak bat modu naturalean osatzea. Urretxindorrek, horrela ikusirik, egitura hau erabiltzen du noizean behin, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez:

Zer otoi ingozuen?  
Ori zeuk ondoen  
Jakingozu, Erri au ...  
Ikusi ondoren. (K044i)

Eta orduan, zer ein  
Jel-etsayak guri?  
Gaur eingo leukenik ez ...  
Bai-dakigu ori. (K060b)

Ez al dakixu zein dan  
Jainkoaren legia?

"Bakotxari beria ...  
Bakotxari beria." (K093i)

### **5.3.6. Aurreko koplaren arabera: jarraipen koplak**

Badira, azkenik, egitura jakinik ez duten koplak, arrazoi bategatik: bere zentzua aurreko koplari oinarriturik dago, eta mezu jakin baten jarraipena edo osagarria izaten ohi da. Honek erakusten digu Urretxindorraren koplak guztiak ezin direla unitatetzat kontsideratu. Koplak batzuek ez dute beste batzuek duen nolabaiteko autonomia hori, beraz, eta ulertuak izateko aurreko koplak (gutxienez) irakurri edo entzun behar izaten da. Trantsizio koplak izatera izaten dute horrela, zenbait koplak arteko lotura izanik.

Jel dalako bakarrik  
Elburu geuria,  
Ta ara garuazana,  
Erdiko bidia. (K058j)

Bizkaitar, gipuzkoar,  
Arabar ta napar,  
Mendigoxalle orok  
Lagundurik alkar. (K058k)

Izan daiteke beste koplak baten aurre-prestaketa ere. Ondorengoan, bokatibotzat har daiteke koplak osoa, gero esango dena prestatzeko, eta mezuaren hartzailea ohartarazteko (bere definizioa egiten duen era berean).

Errupin'en txitama  
Eixenta guria,  
Txita-erreskadatxu  
Politen jaubia.<sup>133</sup> (K152d)

## **6. Hamarrekoak**

Koplak egitura aztertzerakoan egin bezala, Urretxindorraren hamarrekoen egitura aztertzeke ez ditugu gaika banatuko, gai bakoitzean ez dagoelako hamarrekoko kopuru nahikoa komuneko egitura-ezaugarriak ote dauden ondorioztatzeko.

Izatez, hamarrekoen egitura oso anitza da, zortzikoek baino aukera gehiago eman baititzakete. Urretxindorrari dagokionez, hamarrekoen kopurua (zortzikoena baino) askoz txikiagoa dela kontutan hartuta, ondorioztatu daiteke egitura eredu asko ezingo dela bereizi. Kasuistika zabaltzen da, eta egitura gutxiago dira errepikatzen direnak: hori dela-eta, eredu sendorik (kasu asko dituen eredurik) ez dugu aurkituko ziurrenez.

---

<sup>133</sup> Errupin horri zuzentzen dion mezuaren hasiera da hau, bokatibo tankera hartzen duena. Ulergarritasunaren mesedean ondorengo koplak jartzen dugu hemen non mezua agertzen hasten den: "Txitak ondo azi ta/ Senarrai ondo esan,/ Jainkuak goi-eskarrez/ Saritu zagizan" (K152e).

Dena dela, azterketa egin ostean, eredu batzuk nabarmen daitezke:

### 6.1. 2-1-2 egitura

Egitura honen ezaugarri nagusia erdiko, hirugarren puntuko inflexio gunea da. Hasierako binomioaren gaia eta edukia itxi egiten da hirugarren puntura ailegatzean eta bertsorako beste norabide bat iradokitzen da bertan. Batzutan, aurreneko binomioaren ostean, informazio berri bat eskaintzen da, bertsoaren bigarren binomioari ekin aurretik bi helburu lor daitezkeelarik:

- 1) bigarren binomioaren oinarria eskaintzea.
- 2) binomioen arteko lotura gunea izatea.

Hona hemen zenbait adibide:

- a)  
Auxe dala bai barruko poza!  
Au bai atsegin andija,  
Dakustanian euzkotar utsez  
Batzar ain maitagarrija!
- b)  
Igaz ein gendun bidezkunde bat,  
Aurten beste bat barrija;
- c)  
Geruago ta sutsuau dua  
Ziñistez euzko sendija,  
Bijotz osuaz maitatu nairik  
Lourdes'ko Miren garbija. (K033a)

Aipatu dugun bertso honetan, Urretxindorrek amestu zuen Lourdeserako bidaia baten kokaturik dago. Bertso honetan, Urretxindorra, beste erromesekin batera Lourdesen bertan dagoela, kantari hasten da. Lehenengo binomioa bere poza adierazteko da. Hirugarren puntuan, inflexio gunean alegia, hartzaileari testuinguruari buruzko informazioa eskaintzen dio. Informazio horretan oinarriturik azken binomioari ekiten dio egileak, nolabaiteko sententzia kutsuarekin eta bertsoa itxiz.

Erakutsiko dugun hurrengo Urretxindorrek bere maiteari eskainitako bertso bat da. Bere maitearekin egoteko eta berarekin bat egiteko, ezkontzeko alegia, zer nolako ahaleginak eta esperantzak dituen azaltzen ditu egileak, eta bertso-sorta baten ezarri:

- a)  
Alper nekauko dira  
arantza ta sasi,  
osasun ederrian  
gu ba'gara bixi.
- b)  
Lora maitia, sarri  
eingo zaut ikusi,
- c)

ta zuk maitetasuna  
neuri erakutsi  
ezkero, zelan baña  
eingo zaitut itxi? (K120d)

Lehenengo binomioan bere maitearekin egoteko oztopoak gutxiesten ditu Urretxindorrak.

Inflexio gunean egileak bere maiteari iragartzen dio sarritan ikusiko duela.

Azken zatia, hau da, bigarren binomioan, baldintza-ondorioa egitura motarekin ematen zaio amaiera bertsoari. Zehazki, bere neska-lagunaren maitasunean baldintzaturik, fideltasuna gordetzeko agindua egiten du, galdera erretoriko baten bidez.

Hurrengo bertsoa Begoñako Ama Birjinari eskainitakoa da.

Lehenengo binomioak egilearen poza eta berorren arrazoia adierazten ditu:

a)  
Biotzean sartu yat  
Poztasun andia  
Bizkaya'n ipiniaz  
Patrona barria,

Inflexio guneak betelana<sup>134</sup> deituriko funtzioa jokutzen du, Ama Birjinari buruzko laudamenezko iruzkin laburra eginez.

b)  
Doyak eta birtute  
Danen jatorria.

Bigarren binomioak beste informazio mota bati ematen dio txanda, bertso-sortaren kausa denari hain zuzen. Zeharka iradokitzen da hori, baina solemnidade ukitu batez.

c)  
Orain dogu Bizkaya'n  
Zeruko gloria,  
Zein dan Jesus'en Ama  
Birjiña Maria. (K078a)

---

<sup>134</sup> Betelanari buruz gutxi idatzi da, eta are eta gutxiago teorizatu. Hala ere, bertsolari guztiek horren berri izatea ez ezik, erabili ere erabiltzen dute, edo praktikan jartzen dute. Xabier Amurizak (1997, 213), zeharka bada ere, kontzeptu hau azaltzen du: "Ez dago ahapaldiaren puntu bakoitza arrazoi handiz edo kolpe zorrotzez kargaturik eramaterik. Orduan progresioaren bat izatekotan, aurretik atzerantz izan behar, azkena gailurtzat harturik. Horretarako, aurretik betelana deritzona egin behar izaten da, bertsoa azkenerantz eramanik. Betelan hori ez da lan hutsa. Izan liteke nabarmenki hutsa, baina berez betelana bertsolariaren trebetasun handietariko bat da. Arrazoi handiegirik esan gabe, haria hartu eta dotore eta bizi eraman, errepika arruntik gabe. Hori artea da eta gehienetan entzulea ez da ohartzen betelana egiten ari den ere. Horrela ulerturik, betelana lan handia da, arte handia. Bertsolaria azkena buruan duela kantatzen ari da".

### 6.2. 3-2 egitura

Egitura hau daukaten bertsoetan, lehenengo zatian, sarrera bat egiten da. Batzuetan laudamenezko bokatio batek osatzen du hiru puntuko zati hori (trinomioa).

Lourdesko Ama Birjina helburu duen bertso batek honela dio:

- a)  
Donokijan ta ludijan zaran  
Ama danetan onena,  
Garbitasunan ispillua ta  
Onoidadetan gorena;  
Jakituriaz daukozu, barriz,  
Azken bagako almena.
- b)  
Zu Benartetxu Zubiruz'ari  
Aitz-zillo ortatik urtena,  
Zu euzkeldunen maitalarija,  
Zeu geure itxaropena. (K033g)

Hasierako trinomioa Ama Birjinarenganako apostrofea da, laudamenezko bokatio luzatuaren eran. Bukaerako binomioan areagotzen da apostrofe kutsu hori, hiru aldiz *zu/ zeu* izenorde pertsonala erabiliz, Ama Birjina den mezuaren hartzailearekin erabateko identifikazioa erakutsiz.

Sorta berekoa da ondoren erakusten duguna. Bertso hasierako hiru puntuetan Ama Birjinaren zenbait dohain azaltzen dira berari egindako apostrofean:

- a)  
Zara euzkeldun bitartekua,  
Josu'ren ta geure Ama:  
Naibagetsuen atsegiña Zeu,  
Osakillerik onena,  
zeuk dakizu, bai, osatzen ondo  
Geixo luziaz dauana.

Bukaerako binomioak lehenengo zatian du oinarri, bertan esaten denez (*augaitik*), eta konfiantza horrekin helburua den Ama Birjinagana laguntza eske jo duela adierazten du Urretxindorrek. Eskaera edo otoitza horren helburua ere adierazita dago azken puntuan:

- b)  
Uste osuaz augaitik gatoz  
Euzkel-Erritik Zeugana,  
Otoika, arren, ba osatu daizun  
Ama Euzkadi laztana. (K034a)

Goazen beste batera. Urretxindorrek bere emaztea izango zenari egin zion bertsoetako batek 3-2 egitura duela dirudi. Hasierako zatiak Urretxindorrek bere maitea zergatik duen gogoko azaltzen du:

a)  
 Lirio lora zara,  
 udabarrikua,  
 egizko euzkeltzale,  
 bijotz onekua:  
 orrexegaitik zara  
 neure gogokua.

Bigarren zatiak, ostera, etorkizunean burutuko den erabaki baten berri iragartzen dio bere maiteari, aurretik esandakoaren ondorioa bailitzan. Ezagutzatik, edertasuna begiestetik, maitasunaren objektua berenganatu nahi izatera doan mugimendua da, gizakiongan hain naturala dena.

b)  
 Laster luzetuko dot  
 zeugana eskua,  
 artzeko maite dotan  
 lora pozezkoa. (K120e)

### **6.3. 2-2-1 eta 1-3-1 egiturak**

Egitura hauek komunean dutena hauxe da: azken puntua, bertsoen lerroekiko bereizi egiten dela. Horrela, azken puntua bertso edo ahapaldiaren barruan nortasun berezia izatera ailegatzen da. Ahapaldi barruko antolamendua azken puntuaren gunera bideratuta egongo da eta horregatik aldakiek ez dute horrenbesteko garrantzirik (2-2 edo 1-3 egituretan antolatzea, alegia).

Begoñako Ama Birjinari eskainitakoetatik baten gonbidapena egiten du Urretxindorrak Begoñara joateko. Hasieran zuzenean agertzen da gonbidapen hori, eta helburua ondoan:

a)  
 Goiazen Begoña'ra  
 Euzkeldun antzien,  
 Bizkai'ko Patronaren  
 Sariak artzien.

Gonbidapenaren ostean, arrazoiketa bat azaltzen da, baldintza-ondorioa egiturarekin.

b)  
 Beren maitetasunaz  
 Ba'gara eltzien,  
 Gure Amak ez gaitu  
 Itxiko utsien,

Arrazoiketaren ostean, egilearen aholkua (aginduaren itxurarekin) ailegatuko zaigu, ahapaldiaren mezua laburbilduz eta itxiz.



c)  
Ta era eder oni  
Ez itxi galtzien. (K078b)

Bere emaztea izango zenari egindako bertsoetatik, honek 2-2-1 egitura izan dezakeelakoan gaude.

Bere maitea, hau da, bere poza edo lora, kokatzen du hasieran:

a)  
Ikusirik lora bat  
-ez emetik urrin-  
neure poz-atsegiña  
Goiko-Etxebarri'n,

Maite duenarengana hurbiltzeko eta berarekin ezkontzeko dituen eragozpenak kontatzen ditu ondoren:

b)  
nik bera eskuratu  
eztagidan egin  
batek baño geyagok  
ein dabe alegin;

Traba horien kontrajarpenean azken puntua dago, zentzuari bira emanaz, eta azken puntuko efektua lortuz:

c)  
baña zirkin andirik  
eztautsie eragin. (K120a)

Bokatiboaren funtzioa beteaz bertsoaren lehenengo puntua ari da, ondorengo bertsoaren hasieran:

a)  
Zeberio'ko seme jatorra,  
Ene Adrian Zelaya;

Horren atzetik laudorio andana etorriko da, estimatzen duen pertsona horrentzat:

b)  
Gizon zintzoa, gizon arteza,  
Beti euzkeldun garbia,  
Maitasunezko biotz ederrik  
Ederrenaren jaubia,  
Gauza gustien gañetik beti  
Zuzentasunen zalia,

Azkenik, zorionezko opalkuntza, ondorio zentzuaz formulatzen da:

c)

Biotz-biotzez opa dautzut ba  
Zorion amai bagia. (K126c)

### 7. Zazpi puntukoak (“Joana Bixenta Olabe” izeneko egitura dutenak)

Neurri hau daukaten bertso kopurua hamarrekoen antzerakoa da. Hori dela-eta, egitura eredu nagusien azterketarako ez dugu gaika banatuko, aurreko atalean azaldu ditugun arrazoiengatik.

Ahapaldi mota honen egitura metrikoa oso markatua da, eta hauxe litzateke bere eskema:

-----10 A  
-----11 A  
----- 10 B  
----- 10 B  
----- 5 C  
----- 10 C  
----- 10 C

Hiru hoskidetza eredu ditugu beraz (A,B eta C), eta egite honek egitura baldintzatzen duela dirudi, kasu gehienetan behintzat horrela ikusten da nahikotxo gardentasunez. Hoskidetza honek egileak puntuak multzokatzera bultzatzen du, hiru multzo nagusi sortzen direlarik.

Ikus dezagun adibideekin:

Bizkargi, oñak eta besuak,  
Dira geure baratz, geure basuak.  
Zure bijotza ta zure buru ...  
Ziñesmen eta gentzan eredu,  
Jauna'k autua,  
Gurutz Deunaren gorde-lekua,  
Osasun-toki zorijontsua. (K068j)

Bertso hau osorik, Bizkargi mendiari zuzenduta, apostrofea da, mendi hori solaskidetzat hartuz, eta poetikoki pertsonifikatuz. Apostrofe horrezaz gain, Bizkargiren metaforizazioa enuntziatzen du. Baina lehenengo binomioan, oinen eta besoen metaforizazioa egiten da soilik, gorputz-adar oinarrizkoenen metaforizazioa hain zuzen.

a)  
Bizkargi, oñak eta besuak,  
Dira geure baratz, geure basuak.

Bigarren binomioan, *bijotza* eta *buru* elementuak agertuko dira. “Buru” irudiaren kasuan metafora fosildu batez ari gara, izan ere, bertsoan ez zaigu azaltzen mendiaren gailurraz ari denik. Baina mendiaren *burua* horixe

litzateke, gailurra hain zuzen. Baina gailurrari *bijotza* zergatik deitzen dion, testuinguruak argitzen digu: bertan gurutze bat omen dagoelako. Informazio hau, berez, azken trinomioan esaten da argiago, baina bigarreanean *Ziñesmen* kontzeptuarekin iradokitzen hasten zaigu:

- b)
- Zure bijotza ta zure buru ...
- Ziñesmen eta gentzan eredu

“Jaunak autua” perpausa duindu egiten du izate material hori, Bizkargi mendia alegia. Era berean lotu egiten du, jadanik aipatutako Bizkargi mendiaren gailurra edo, metaforikoki, burua, Urretxindorrek estimatzen zuenarekin, “Gurutz Deunaren lekua” izatearekin hain zuzen. Horrexegatik deitzen diogu inflexio gunea:

- c)
- c.1
- Jauna'k autua,
- c.2
- Gurutz Deunaren gorde-lekua,
- Osasun-toki zorijontsua. (K068j)

Hiru informazio mota eskaintzen dira beraz:

- lehenengo binomioan ematen dena
- bigarren binomioan ematen dena
- azken trinomioan jorratzen dena

Baina zein da aurrena, hoskidetza ala mezua? Erantzuten zail den arren, badirudi nahiko nabarmena dela hoskidetzak eragiten duela mezuaren informazio motak sailkatzerakoan. Neurriak ere zerikusia du informazioa, zama semantikoa, sailkatzerakoan, bi arrazoirengatik:

a) Lehenengo binomioen neurri antzekotasunak ahalbideratzen du bi binomio horien mezuak konpentsatuta egoteko, nolabaiteko simetrian: zama semantikoa ere antzeratsua izaten da (desberdina izan arren).

b) Hirugarren zatiaren lehenengo puntua bost silabakoa da, eta honek xehetasun gutxirako beta ematen du. Baina bertan erabiltzen diren hitz-gakoak tonu edo gai aldaketaren iragartzaileak bilakatzen dira: hori dela kausa, puntu horri “inflexio gunea” deitu diogu.

Egituraren eskema horrelakoa litzateke:

- a)
- 10A
- 11A

b)

----- 10B

----- 10B

c)

c.1. (inflexio gunea)

----- 5C

c.2.

----- 10C

----- 10C

Eskema metriko hauxe duten bertso ia-ia guztiek betetzen dute egituraren eskema hau. Hona hemen beste bertso bat:

Aspaldixuan, neure barruan  
 Neukan tamalagaz, estu nenguan  
 Imanol anai urretxiñola  
 Hale'ra jua zana beñola  
 Bixi ete zan!  
 Arduraz nintzan, ai baña zelan!  
 Ta bere izparra, ona nun dodan! (K191a)

Bertsoaren esanahiari erreparatuz gero, konturatzen gara hiru urrats ematen direla bertsoan eta urrats bakoitza hoskidetza eredu bati lotuta dagoela, edo berdin dena, egituraren eskemak dituen hiru atalei lotuta.

Lehenengo informazio mota, oraindik zehaztu gabea, baina sarrerarako egokia (arreta erakartzen duelako), hauxe da: egilearen kezka, aspaldikoa.

a)

Aspaldixuan, neure barruan  
 Neukan tamalagaz, estu nenguan

Berehala, kezka horren arrazoiak galdetze-nahia sortuko da entzulearen baitan. Hori dela eta, egileak informazio zehatz eta objektibo bat eskainiko du bigarren binomioan, bere anaiaz kezkatuta dagoela alegia, Argentinako herrialde batera joan zelako aspaldi:

b)

Imanol anai urretxiñola  
 Hale'ra jua zana beñola

Baina berriro bueltatuko da bertso honen sortzaile izan den motibora, bere kezka alegia:

c)

c.1.

Bixi ete zan!

c.2.

Arduraz nintzan, ai baña zelan!

Ta bere izparra, ona nun dodan! (K191a)

Trinomioaren c.1. zatia kezkaen muinera hurbiltze bat da, hau da, anaiaren egoeraz duen kezka. Zati nagusi honen bigarren zatian, c.2. zatian, kontrajarren bat ikusten da: alde batetik, egilearen iraganeko arduraren isla eta bestaldetik, eta zorionez azkenik, anaiaren berri momentu horretan izatea.

Bertso narratiboetan ez da aldaketa handiegirik antzematen. Bere seme baten ezkontza bertsoetan kontatu zuen “Urretxiñola beren maitiaz” izenburuko bertso-sortan. Urkiolako santutegian izan zen. Bertsoetako baten, esate baterako, elizarako ailegaera kontatzen du, hiru urratsetan kontatu ere. Lehenengoa, ailegaera bera eta kokapena da:

a)  
Berebilletik urtetan dira  
Txadon inguruko zelai andira;

Bigarrenak, bertaratutakoek elizara sartzeko duten ardura zehazten du:

b)  
Emen luzaro egon bagarik,  
Txadonarantza datoziarik

Hirugarren urratsa, egilearen subjektibitate kontatua da, eta “begira nago” horrek adierazten du objektibitate egin duen tonu aldaketa hori. Hirugarren urrats honen bigarren zatian bere semeen ezizenak aipatzen dira, nolabaiteko anbiguotasunez, metaforizazioarekin jolastuz.

c)  
c.1.  
Begira nago,  
c.2.  
Ta dazaudaz bi jantzirik arro,  
“Urretxiñola” ta “Biregarro” (K203b)

## 8. Neurri luzeagoak: salbuespenak

Urretxindorraren bertso gintzan badira joratu ditugun neurriak baino luzeagoak. Esate baterako badira, sei puntuko zenbait bertso, hamabikoak dei daitezkeenak. Guztira zortzi bertso baino ez dira. Horien azterketa egiteko ez dugu arrazoi askotxo aurkitzen, salbuespenak diren ahapaldi motak direlako eta hemendik atera daitezkeen ondorioak mustira oso txiki batetik ateratakoak direlako, eta horrekin joera nagusirik edo legerik ezin delako atera.

Hona hemen bertsook:

Ikusi dogu aspaldietan  
Itxaroten zan jayotza ...  
Donosti'n jayo ... Iruña'n laster  
Ospatuko da ugutza.  
Aur oni emon bihar dautsogu  
Kutsurik ez daun ugutza,

Aundi kementsu azi daitezan  
 Onen gogo ta gorputza.  
 Au lortuteko senide orok  
 Egin dayogun laguntza...  
 Eta eskier izango dogu  
 Zorioneko garaitza! (K053f)

Belen urian agertu yaku  
 Josu Jaungoiko-Umia,  
 Irudiz txiro, baña izatez  
 Aberats amai bagia,  
 Bakaldun guren Alguztidun  
 Zeru ta lurren Jaubia.  
 Berau gurtu ta otoi eiteko  
 Eldu az Belen urira:  
 Gosez diranak asetutueko  
 Berau da Gotzon-Ogia,  
 Egarriz diran guztientzako  
 Berau Zorun-Iturria. (K095e)

Gexo ta txiro diranentzako  
 Osasuna ta Urria,  
 Biotz garbidun ongillentzako  
 Sari gurenen Saria ...  
 Josu on orrek entzun arren, ba,  
 Dagitzudan eskaria!  
 Biotz garbidun ongillak asko  
 Euzko-abendan bai-dira.  
 Sariztu eurak eta eurokin  
 Zorundu Euzkel-Erria,  
 Egunen baten izan dedintzan  
 Osuan Zeure-Zeuria! (K095e)

Hainbeste bidar esan dautzut, ba,  
 "Euzkeltzale-Bazkun" orri,  
 Nire argazkiaz ez baltzitzeko  
 "Euzko-Deya"-ren ingorri,  
 Enazalako duin ortarako;  
 Jakitun zengozan ori.  
 Zenbat oldozmen ete dabildez,  
 Gautegun, jua-eterri!  
 Zer esango dau ni nazaudanak?  
 Ta idazkun au irakurri?  
 Gomuta onek bigurtzen daustaz  
 Ene begijok iturri! (K131i)

Alde batetik eskar dagitzut  
 Orren maite nozulako;  
 Baña argazki au itxi ba'zendu  
 Neu ilten naizenerako,  
 Ta barrenian idazkun auxe:  
 "Kepa Jeltzale zalako  
 Gure Aita bat bere gogaldez,  
 Iñok naimenik ba'dauko,  
 Garbitokitik ainbat lasterren

Atsedenera sartzeko”,  
Orduantxe bai argitaltze au  
Ixango yatan ederto! (K131j)

Gora “Imanol”, gixon andijoi,  
Agur Aznar-Zubigarai!  
Zeuk egiñiko lan aiñ sakonak  
Dardar erain dautse danai.  
Nor ete zan, ba, euren egille  
Gustijek eben jakin nai;  
Or ebiltzazan bape ziranok  
Autuan beti ezta bai,  
Ta lañopetik eguzkia lez  
Argia gura dabenai,  
Orra “Euzkadi”-n nun agertu dan  
Aznar Imanol “Gudalgai”. (K152b)

Nik ba-nekijan nor zan “Gudalgai”,  
Idazten asi zaneti.  
Ez esateko agindu eustan,  
Ixillik euki dot beti:  
Gaur azken nago. Au nire poza!  
Urten dau danen ganeti.  
Ortze goiraño jasoko neuke  
Zelan goraldtu ba'neki!  
Poz-agur bero zoruntsuena  
Artuxu neure aldeti.  
Aupa, gora zeu, napar zintzuboi!  
Ez urten Jel'en bidetik! (K152c)

Ene mutillak! Nik Basoluzen  
Ikusi dodan lakorik ...!  
Lau milla erle alkarrak dantzan  
Alaitasunez beterik.  
Ta kurebio-aldra andi batek,  
Arein dantzakaz pozturik,  
Irautsen: “Danok dantzau gaitezan  
Alkarrak maite-maiterik.”  
Eta erliak erantzun eutsen:  
“-Ez esan orrelakorik,  
Eztogulako ezertarako  
Biar alper-endakorik.” (K164m)

Bertso luzeak direnez gero, zerbait patxadaz, zehaztasunez, eta zabal azaltzeko edo arrazoiez apaintzeko parada eskaintzen da. Konposizioan ez dirudi dagoenik eredu desberdindurik edota nabarmenik egilearen kontzientzian. Hala ere, corpusa murrizta izanik, ezingo genuke baieztapen hau frogatu. Azken puntuaren ardura bai, guztietan presente dagoela ematen du, izan ere sententzia zein pozezko zein animuzko deiadarrak izaten ohi dira bertsoaren barne jarioaren bilgune.

## 9. Ondorioak

a) Gai guztietako bertsoen egiturak aztertu eta gero, ondorio batera iritsi gara: badira egitura eredu batzuk gai guztietan agertzen direnak. Eredu bakoitza maiztasun desberdinekin agertuko da segun eta nolakoa den gaia. Hala ere, aldeak txikiak dira gai batetik bestera eta, horrezaz gainera, bada eredu bat nagusi dena gai guztietan (zortzikoaz ari gara).

Gure hasierako ustea bestelakoa zen, alegia, gai bakoitzak ahapaldiaren eredu batzuekin hobeto zihoala beste batzuekin baino. Hortaz, ikusitakoaren arabera, hasierako ustea ustel suertatu da eta esan beharrean gaude egitura kontutan hartzen badugu eta zortzikoak aztertu ondoren, gai mota guztietan eredu antzeratsu samarrak aurkitu ditugula, agian agerpen maiztasun desberdinekin, baina alde handirik gabe.

b) Bertsoaritzaren ikuspuntutik artifizio gehien duten ereduak lehenengo eta hirugarren ereduak dira. Konposizio estrategia tinkoago bat gordetzen dute beren baitan, batez ere azken puntuari begira, eta hau bertsoaren balio nagusia izaten da. Izan ere, eredu hauek entzulearengan eragin gehien sortarazten dutenak dira, batez ere ezusteko efektuaz jokatzeko dutelako eta arrazoiketako edo bertsoaren elementuak hobeto lortzen dituztelako. Balio hori beti izango da erakargarria.

c) Bigarren eredua idatzizko psikodinamikari lotuago dagoela iruditzen zaigu. Simetria hori balio erakargarria den arren, ez du ematen bat-bateko jardunean sortutako baliabide bat denik. Izan ere, askotan binomioaren lehenengo zatian konparaburu legez aurkezten den irudi bat dugulako aurrean, oso ondo aukeratu eta garatutako irudia hain zuzen. Egia da zenbait bertsoan halako prozedura komunak agertzen direla, formularen itxura hartzen dutenak. Baina hau ahozkoa bilakatu den eredu literario bat begitantzen zaigu, ahozkotasunean sortutako bat baino.

d) Laugarren eredua anpliazio edota irudien pilaketarako balio duen eredua dugu. Zenbait bertso-sorta luzeetan betegarri edota giroztailea den bertsoa dugu. Ez du halako aurrerapauso esanguratsurik ematen, baina xehetasunaren maitalea da, ahozko estiloaren gustukoa beraz.

c) Zortzikoez gain badira beste ahapaldi mota batzuk Urretxindorrek erabiltzen dituenak, maiztasun nabarmenki txikiago baten bada ere. Ahapaldi mota horiek koplak, hamarrekoak (txikiak eta nagusiak) eta zazpi puntukoak (Joana Bixenta Olaberen doinuan kantatzeko balio dutenak eta beraz egitura horixe dutenak) dira nagusiki. Bestelako ahapaldi motak ere badira, baina hain kopuru txikian ezen marjinal edo salbuespentzat har baitaitezke.

Ondoren ahapaldi mota horiei ekitea da gure asmoa, bakoitzaren ezaugarri estrofikoak aztertuz.



## **4. Kapituluia**

### **Bertso-sortak**

## O. Sarrera

Urretxindorraren bertsogintzaren bertsoetatik jasotako bat-bateko bertso kopurua oso murrizta denez, bere bertso-sorten egitura aztertzerakoan ez zaigu gelditzen idatzitako bertso sorten egitura aztertzea baino.

Bertsolariak konposizio hauek paratzeko idazkerak eskaintzen dituen abantailak izan ditu. Era berean, ezin dugu ahaztu egilea, bere bertsoak ekoizterakoan, ohituta dagoela ahozkoatasunean aritzera, hau da, ahozko komunikazioak eskatzen dituen joera eta psikodinamikekin aritzera. Bat-batean eraten ditu bertsoak, eta entzulegoak ahoz jasotzen ditu. Honek egilearen bertsogintza markatu behar du derrigorrez, nahiz eta idazkerak ere bere eragina izan. Afera honi Juan Mari Lekuonak (1989, 17-44) heltzen dio bere “Erdi-ahozkoatasunaren literatur estiloaz” artikuluan. Bere ustez, estilo bien tartean aritzen denak eragin biak jasotzen ditu:

Estiloak batetik bestera permeatzen dira eta irazten, eta bateko nahiz besteko osagaiak elkartuz, bien arteko estiloak edo sortzen dira, muga dauden estilo bestelakoak<sup>135</sup>.

Baina jakina, Urretxindorraren bertsoei dagokienez, esan beharra dago ez direla bertso-paperak<sup>136</sup>, aldizkarietan argitaratutako bertso edo bertso-sortak baizik. Bertso-paperek badute beren izaera propioa, Urretxindorrarenetan horren garbi adierazten ez dena:

Eskuizkribu izan behar zukeen pieza horrek, erosleak ditu, eskabide bat dago, eta handik eta hemendik eskaintza bat egin behar zaie erosle eta irakurleei. Merkantzia bat izatera iristen da bertso-papera [...] Jokoan sartzen dira autoreak, argitaletxeak, saltzaileak, harreman jakinak direlarik horien artean [...] Eta gaiak ere oso jakinak ditu: ahozko estilotik asko duen publikoak gogoko dituenak dira [...] <sup>137</sup>.

Aldizkarietako bertso-sortek ostera, beste izaera batekoak dira, Juan Mari Lekuonaren ustetan behintzat:

Aldizkarietan datorren bertso-sorta, edota ipuin herrikoia, ez da bertso-paperean datorren bezalakoa edota herriak kontaktzen duen antzera idatzitako eleketa. Ez dira protagonismo bat duten piezak, baizik eta apaingarri, entretenigarri eta dibertigarri datoz, beste “sakonagoko” idazlanen erdian. Aldizkariak berak du lehentasuna, eta testu herrikoi horien artegintza beste helburu batzuen zerbitzurako jartzen da<sup>138</sup>.

<sup>135</sup> Op. cit., 19.

<sup>136</sup> Bertso-paperak oso ikuspegi diakroniko batez aztertzen ditu Antonio Zavalak bere “Bertso paperak” izena duen artikuluan, eta han esandakoak autoritate handia dauka bermetzat: Antonio Zavala bera, bertso-paperak biltzen lan eskerga egin duena, eta bertsolaritzarekin harreman sakona izan duena hainbat urtetan (Zavala, 1985, 115-132).

<sup>137</sup> Ibid., 23.

<sup>138</sup> Ibid., 23.

Orain ez dagokigu epaitzea Juan Mari Lekuonak esandakoa gure egilearengan betetzen den ala ez. Baina produkzio hauek kokatze aldera argigarria suerta dakiguke kritiko hark egindako iruzkina. Atal honen azken aldera argiago izango dugun arrazoia zuen ala ez (Urretxindorrari dagokionez, jakina).

Esan dezakegu, hala ere, aldizkarietan agertu diren zenbait bertso-sortak berebiziko balioa jaso dutela, eta ez direla apaingarri hutsa izan (agian lehenagotik zetorren bertso-paperzaletasuna dela eta edo behintzat inertzia horren kariaz). Honen frogak Antonio Zavalak bildu ditu:

Guraizez ebaki eta berezita askotan jaso izan ditut. Aldizkari-zati edo rekorteak, alegia. Puska oietan, bertsoak. Beraz, aldizkaria galdu edo erre; bañan bertsoak jaso ta gorde (Zavala, 1985, 131).

Beraz, badirudi aldizkari haien irakurle batzuek ematen ziotela garrantzi berezia bertsoei, nahiz eta aldizkariaren helburu nagusia bestelako gai "sakonagoak" jorratzea zen. Aita Santi Onaindiak behintzat, *Gure Urretxindorra* liburua osatzeko lan horixe egin behar izan zuen: aldizkarietako Kepa Enbeitaren bertsoak bereizi, sailkatu eta berrargitaratu.

Orain bertso-sorten egitura aztertzea dagokigu. Helburuetako bat bertsolariaren estiloa ezagutzea da. Ekoizpen hauen egitura aztertzean agian agerian utziko ditugu bere konposizio estrategiak edota itxuratzeke inplizituki zein esplizituki egileak duen egitura mentala. Horrek argituko digu zer nolako loturak izan ditzakeen erretorikarekin zein beste egileren estiloarekin. Azterketa ebolutibo<sup>139</sup> egin nahi bada ezinbesteko pausoa dugu hauxe, beraz.

Bertso-sortak gaika banatuko ditugu, aurreko atalean, ahapaldiaren egitura aztertzean egin genuen bezala. Beraz, sail hauetan banatuko ditugu bertso-sortak:

- Aberkoiak.
- Erliziozkoak.
- Goraipamenezkoak
- Ipuin eta abar.
- *Gomutakizunak*.
- Naturazkoak.
- Satirikoak.

Sail bakoitzaren justifikazioa aurreko atalean argi geratu delakoan gaude.

---

<sup>139</sup> Azterketa ebolutibo mota desberdinak ba omen dira. Gure ikerketa honetan azterketa ebolutibo horrek bi alderdi izango ditu. Alde batetik, egilearengan berarengan izaten den eboluzioa. Eta bestaldetik, belaunaldi batetik bestera ematen den eboluzioa aintzat hartuko dugu. Lehenengo azterketa ebolutibo mota burutzea zaila suertatuko zaigula ematen du, batez ere Kepa Enbeitaz ari garela, bere hasierako bertso-gintzaren corpusa oso murrizta delako, eta bat-bateko oso bertso gutxi gorde direlako. Bigarren azterketa ebolutibo mota badirudi errazagoa dela, gure kasuan, bai Urretxindorra bai Balendinen bertso dezente gorde direlako.

## 1. **Aberkoyak**

*Aberkoyak* diren bertso-sorten artean badira batzuk bereziki luzeak direnak. Erabakia arbitrarioa izan daitekeen arren, bertso-sorta luzetzat hartuko dugu molde nagusiko<sup>140</sup> 10 bertso baino gehiago baditu edo molde txikiko 15 baino gehiago. Hona hemen handitzat har daitezkeenak:

- “Ames goguangarri bat” (64 kopla eta 9 hamarreko nagusi).
- “Il zan Aberrija biztuteko” (15 zortziko nagusi).
- “Bilbao'ko "Euzko-Gastedija"-ri” (11 zortziko nagusi eta zortziko txiki bat).
- “Berbizkandia” (16 zortziko nagusi).
- “Abesti abertzalia” (22 zortziko nagusi).
- “Erdiko bidetik” (18 kopla txiki).
- “Beste ames bat” (41 kopla txiki).

Gainontzeko bertso-sortak laburragoak dira, barietatea zabala delarik beti ere. Adibide batzuk aipatzearren:

- “Muxika'ko txorija” (6 zortziko txiki eta hamarreko txiki bat).
- “Mendiko alaitasuna” (3 zortziko nagusi).
- “Noz ikusiko aut?” (zortziko nagusi bat).
- “Itxas-ertzian” (9 zortziko nagusi).
- “Otoi” (11 kopla txiki).
- “Egizko mendigoxaliak” (8 zortziko txiki).
- “Gure baratza” (2 zortziko nagusi eta hamaseikoko bat).
- “Euzkeraz irakatsi” (4 kopla txiki).
- “Euzkera maite” (kopla txiki bat).

### 1.1. **Bertso-sorta luzeak**

Bertso-sorta luzeetan, kasurik gehienetan behintzat, garapen bat ikusten da. Bertso-sortaren egitura ez da tinkoa izaten, aldakorra baizik. Horrezaz gainera kontutan hartu behar da gaia abertzaletasuna izanik bertso-sortek honako ezaugarriak dituztela:

- Egileak izaten dituen begitazio edo irudipenak sarri askotan agertzen dira.
- Historiaren narrazio mitifikatu eta fikziozko bat egiten du, datu zehatzik eman gabe, baina ikuspegi abertzale batekin bat etor daitekeen interpretazioa eginez.

---

<sup>140</sup> “Molde nagusia” diogunean, zortziko, hamarreko edo bertso lerro gehiago dituen bertso edo ahapaldi motei buruz ari gara.

- Ideiak eta arrazoiketak anplifikazioaren bidez ahapaldiz ahapaldi hedatzen dira.

- Berez ez da egiten zerbait zehatzaren narrazioa, edo deskripzioa. Ideologia abertzalea batetik, irudimenezko trama bat eratzen da, baina gutxienezko ezaugarri narratibo batzuk baino besterik dituena. Oinarrizko trama hori ideologiaren euskarria izango da, doktrinamenduaren euskarria eta ez jazokizun batena soilik.

Ezaugarri hauek kontutan hartuta, pentsatzekoa da bertso-sortek ez dutela egitura finkorik izango: bertso-sorta luzatu edo laburtu egingo da egilearen anplifikatzeko duen asmoaren arabera, edo eratu duen tramak eskaintzen dituen aukeren arabera.

Trama ere, hain oinarrizko eta zehazgabea izanik, oso malgua da eta ez du beste tramek behar dituzten azalpen sakonagoen beharrik: sarrera azalpena, narrazio zehatza, bukaera eta itxiera, eta abar.

“Abesti abertzalia” izenburudun bertso-sortan, adibidez, hiru pauso nagusi antzematen dira bere hogeita bi bertsoetan barrena:

a) Hasierako aldi ideala eta idealizatu

Hasierako pausoak bederatzi bertso hartzen ditu. Egileak **Aberriaren hasierako ikuspegi bat** eskaintzen du bertan. Hasiera hori noizkoa den ez da zehazten. Orduko egoera soziala mitifikaturik azaltzen da, xehetasunak eskaini gabe, eta alderdi batzuk sublimatuz. Egoera hori azaldu baino lehen, hori bai, sarrera moduko bat dago, bi bertsokoa. Sarrera horretan *Eguzkiaren* ezaugarriak goraiatzen hasten da egilea, eta ondoren gaiari lotzen zaio, esanez eguzki berorrek argitu zuela garai bateko Euzkadi.

Egoera idealizatu horretan, nabarmena da gizakiak izadiarekin bizi duen armonia, eta pozezko harremana<sup>141</sup>.

Etxe inguruko zugaztijetan  
Txorrotxioka ainbat zozo,  
Txiroliroli ta urrugurruka  
Biregarro eta uso,  
Ta beste enparau txori gustijen  
Ainbeste abesti gozo  
Entzuten pozik bixi zirian  
Azke ume ta guraso. (K047i)

Gizartearen antolamenduari buruz asko zehazten ez den arren, hain erabilia izan zen Gernikako arbola santua gogorarazten ditu zenbait bertsoetan.

<sup>141</sup> Izadiak nolabaiteko babesa eskaintzen zien orduko euskaldunei. Hemen Erromantizismoaren zenbait joera nabarmentzen dira. Alde batetik, iraganekiko lilura; izan ere, iragan horretan nolabaiteko exotismoa aurkitzen zuten erromantikoek. Bestetik, Jean Jacques Rousseau-ren eragina, sustratoan bada ere: antzinako gizakia, basatiagoa edo behintzat naturalagoa izaki, garbiagoa zen, zintzoagoa. Gizarteak ez zuen oraindik usteldu edo gaizto bilakatu. Uste honek zenbait pentsaera abertzaletan adierazpen bat izango du: gizakia usteltzen duten ohiturak Espainia aldekoak dira, lizunagoak, moralgabekoak. Ohitura ustelkor horiek erdararekin batera etorriko dira.

Arbola ez ezik, aldi hartako Euzkadi horren antolamendu asanblearioa oso modu positiboan deskribatzen da, Felipe Arrese Beitiaren estiloari eutsiz.

Zugatz deun baten azpian oi zan  
Asaben Batzar-tokija,  
Erri bakotxak eukirik antxe  
Beren aldunen aulkija;  
An eiten ziran lagi gustiak,  
An artu erabagija  
Ondoen zelan zainduko eben  
Euren euzkeldun Errija. (K047j)

Kanpoko eragin txarrik gabeko Euzkadi horren egoera onurakorra pertsonen etikan islatu nahi izan du egileak.

Esan biar dot ondiño bere  
Egi andi bat geyago:  
Ezeren bere bekatxik barik  
Bixi zirian lenago,  
Egaz ebixan aitz-arranuak  
Baño bere azkiago...  
A zan bixitza zoriotsua  
Zoriontsurik ba'dago! (K048b)

Gizakien jokaera armoniatsua da, zoriotsua, hain zuzen ere kanpoko eragin zapaltzaile bat oraindik jaso ez dutelako. Ohartu beharko litzateke, aurrerago gai hau jorratuko dugun arren, abertzaletasun mota honek Jean Jacques Rousseau-ren filosofiaren eragintxo bat berenganatu duela; izan ere, honelako bertsoetan beste zibilizazio baten eraginik jaso ez duten basatia edo nekazaria edo landatar munduko gizakia (*euzko* jatorra azken finean), zoriontasunean (etikoki eta psikologikoki) bizi omen da.

## b) Aldi txarra

Bertso-sortaren hasieran erakutsi duen egoerari beste bat kontrajartzen zaio, Gaztelako botereak eta kulturak eragindakoa, hain zuzen ere. Tonu aldaketa hamargarren bertsoan sumatzen hasten da argiro. Azken puntuko anaforak ere (*Alan* moduzko adberbioaren errepikapenaz ari gara) enfatikoago bilakatzen ditu bi baieztapenak. Ezin da aipatu gabe utzi askatasuna kontzeptu positiboari kontrajarri nahi zaion *erdara* kontzeptua<sup>142</sup>, izan ere hitz horrek berenganatzen ditu aldaketaren indarra, eta tonu aldaketaren zorrozatasuna:

Egun eder ta onan ostian  
Txarra datorren antzera  
Ainbat zorijon beukezan bere

<sup>142</sup> Lerro honetan "azkatasuna" eta "erdera" kontrajarriak daude, bataren agerpenak (erdararen agerpena, alegia) bestearen desagertzea ekarri duelako Urretxindorren ideologiaren arabera. Edo nahi bada, erdara kausa da, eta "azkatasunaren" galera, ondorioa.

Eldu zirian galtzera,  
 Begiztandurik auzoko andra  
 Bat zala ama berbera:  
 Alan galdu zan azkatasuna  
 Alan sartu da erdera. (K048c)

Egoera txar hori deskribatzeko ez ditu denboran eta espazioan zehaztutako datuak emango. Hizkera metaforiko bat erabiliko du, alegia moduko bat sortuz, abertzaleentzat eta orokorrean euskal kulturadunentzat ezaguna bilakatu zen irudien erregistroei dagokienez:

**Egoi**-aldetik etorri ziran  
**Ortots** eta **oñaztarriak**  
 Kendu eutsezan **Areitz deunari**  
**Ezkurra**k eta **orriak**  
 Ta **ama** kutunai bere altzotik  
**Seme** ain maitagarriak  
**Otsein** eruan **aloger** barik  
 Zaintzeko **arrotz-erriak**. (K048e)

Bertso-sortaren fase honetan egilearen kezka eta kexka galdera erretorikoetan isuriko dira, entzulearen konplizitatea bilatuz, edo behintzat arazo horretaz pentsaraziz:

Nun da gaur gure anaitasuna?  
 Gure lagijak nun dira?  
 Eztira agertzen iñun-iñun be  
 Jarri arren gaur begira;  
 Arrotzalien erruz eruan  
 Ebezan gastelerrira.  
 Zetan eztoigu jaubetu biar  
 Euzkeldunenak ba'dira? (K048i)

### c) Pizkundea

Hirugarren pauso honek bi atal dituela dirudi. Lehenengoa Pizkundea sortarazi dituen faktoreak azaltzera dator. Bigarren atalak Pizkundea iraunkor izan dadin *euzkoen* partaidetza behar dela azaltzen du.

#### c.1. Askatasuna berreskurapenean hasierako keinuak

Aberriaren beherakadak edo krisialdi horrek bukaera izango du egileak izan duen *amets* horretan, eta hamazazpigarren bertsoetik aurrera sumatzen hasten da:

Zer dala, baña, nik Oiz'en goitik  
 Orain ikusten dotena,  
 Bere txinparten argitasunaz  
 Zirkin eraiten daustena?  
 Eguzkijaren zati bat dakust  
 Mendi ertzetik urtena

Azkatasundun eguzkija da.  
O geure itxaropena! (K048j)

Eguzkiaren irudia erabiliz erakutsi zaigu Aberri horren hasierako egoera zoragarri hura, eta eguzkiaren irudia izango da Aberriaren Pizkundera iragartzen hasiko dena.

Beste pausoetan egin den bezala, modu metaforikoan mintzatuko zaigu egilea eta Pizkunde horren eragileak azalduko dizkigu:

Ija illian aurkitzen zala  
**Ama Euzkadi** laztana  
**Seme maite bat** agertu yakon  
**Arnasa** emon eutsana  
Jasorik gora **irrintz** indartsu  
Goikoaz maita ebana,  
Zabal zan uri, baso ta mendi,  
Irrintz arexen esana. (K048e)

“Seme maite” hori, geroago esango zaigunez, Sabino Arana da noski, eta bere *irrintzia* berak zabalduko mezua edo ideologia litzateke.

## c.2. Prozesuan partaide izateko deiak eta aldarrikapenak

Pizkunde horretan egileak konprometituta erakusten du bere burua:

Neure goguan sartu zalako  
Irrintz deun orren didarra,  
Oiz'en ganetik zabalduko dot  
Argitasunan indarra,  
Ikusi daijen iru margodun  
Euzko-ikurrin ederra,  
Bere idazkunan argi dabela  
Jaungua ta Lagi-Zarra. (K049a)

Entzuleari ere partaide izateko luzatzen dio gonbitea, prozesu horren onurak eta balioak erakutsiz, izan ere egoera txar batetik nork ez du atera nahi? Horixe da sakonean arrazoitzen dena, *estuntza* batetik (eta horren atzean inplikaturik dagoen guztitik) askatzea alegia. Gonbite horrek, arrazoiez jantzita dagoen arren, sentimendu mundua du eragile.

Jaso, euzkuak, ikurrin ori  
Aitz eta mendi ganetan,  
Uri, baserri, udaletxe ta  
Gure untzijen agetan  
Sabin Arana'n jarraitzaliak  
Ixan gaitez benetan,  
Estuntzetatik azkatutia  
Nai ba'dogu lur onetan. (K049b)

Horrela egituratzen da eskematikoki azken sorta hau:



- a) Hasierako aldi ideala
- b) Aldi txarra
- c) Pizkundea
  - c.1. Askatasuna berreskuratzen da
  - c.2. Deiak eta aldarrikapenak

Baina arestian esan bezala, gai mota honetako bertso-sorta luze guztiak ez dira berdinak. Beste bertso-sorta bat aukeratuz gero, agian edukiaren garapena izan daiteke komunean daukaten ezaugarri bakarra. Bestelako ezaugarriak, oster, desberdinak izan daitezke. Atal honetako aurreneko adibidearen hiru pausoak (hasierako aldi idealizatua, aldi txarra eta Pizkundea) esate baterako, ez dira betetzen “Il zan Aberrija biztuteko” izeneko bertso-sortan. Hamabost bertso dituen sorta horretan bestelako pausoak ematen dira. Hala ere, hirugarren pausoan antzekotasuna sumatu daiteke arestiko hirugarren pausoarekin, geroago erakutsiko dugunez. Hona hemen pausook:

- a) Kokapena: Sabinen heriotzaren urteurrena  
(Lehenengo hiru bertsoak)



Sabino Arana Goiri

Gaia kokatze aldera, egileak datu andana bat eskaintzen du, alegiazko hizkerari bidea hertsiz:

Adiñik gustiz ederrenian  
Ogeta amazortzigarren  
Urtian il zan Sukarrieta'n.  
Euzkadi gaizkatziarren.  
Nor dala, baña, olan il zana?  
Aita Sabin, euzkotarren  
Irakaslia, etsai gustiak  
Jarten zirala pozarren. (K034d)

Hurrengo bertso biek semantikoki unitate bat osatzen dute; izan ere,

hirugarren bertsoak bigarrena azaltzen hasi dena zehazten jarraitzen du:

Amaika urte gaur dira bete,  
Gustiok gomutau gaizan  
Euzkadi'rentzat eztala beintzat  
Egun baltzagorik izan [...] (K034e)

Aren gorphuba il-otziturik  
Ebala lurreratuten,

Itxirik beren Ama Euzkadi  
Negar samíñez urtuten, [...] (K034f)

b) Aberriaren egoera: Sabin ez egotea eta horren inguruko kezka  
(Laugarren bertsoetik hamargarrenera)

Sabinen aldentzea azpimarratzeko asmoz egilea hasten da Sabin zer-  
nolakoa izan zen, beraren balioak deskribatuz:

Bera zan euzko-abertzalien  
Irakaslari zuzena  
Ta Euzkadi'ren gatzak ain ondo  
Ezagutu zitubena  
Baita be berau osatuteko  
Zorun-biderik onena  
Berak irasi eban ain ondo  
Alderdi euzkotarra. (K034h)

Bertso-sortaren pauso honetan lau bertso dira galdera erretorikoak beren  
baitan biltzen dituztenak. Galdera horiek Sabino Aranaren aldentzeak  
sortarazten duen umezurtz sentimendua katalizatzen dute.

Alperrikua ixan ete da  
Ain gogoz egin ebana?  
Ez ete da, ba, zori gaiztotik  
Gure Aberri laztana  
Aldatuko bein, jaritxiteko  
Bixikera berberana?  
Ama, betiko ete zara ba  
Jopu ixateko zarana? (K034h)

Bertso honen aurrean ezin aipatu gabe utzi Felipe Arrese Beitiaren estiloa,  
galdera erretorikozalea zena gai antzeratsuak jorratzerakoan. Esate baterako,  
*Ama Eusker*a irudi pertsonifikatuaren aurrean, tonu agonistiko bati eutsiz,  
galdera erretorikoak formulatzeari ekiten zion<sup>143</sup>.

Etsipen eta umezurtz sentimendua goraka doa pauso honetan, nahiz eta  
ideia berberari abiapuntu desberdinetatik zenbait bertsoek pauso honetan  
oratu dioten. Umezurtz sentimenduak hamargarren bertsoan jadesten du  
gorengo unea, batez ere azken puntuko galderaren bidez:

Atsekabiak gure almenak  
Ipiñi dauskuz lotuta,  
Ama Euzkadi daukogulako  
Motzen azpijan aulduta.  
Seme ustelak, barriz, lo dagoz  
Ezaueria galduta.  
Ta orain, zeñek itxartuko dauz

<sup>143</sup> Esaterako, “Ama Euskeriari azken agurrak” bertso-sortan horrela dio: “Nun dira, bada, zure semiak,/ Foru ta euskerazaliak?/ Nun dira, bada, Tubal gur’aita,/ Zur’ondorengo garbiak?/ Nun dira, bada, zur’ume zintzo/ Eta leialen legiak?/ Nun dira oraiñ, oraiñ negarrak?/ Nun dira neure begiak?” (Urrutia, 1999, 82).

Irakaslia il da-ta? (K035c)

c) Egilearen begitazioa: egoera itxaropentsu baten ataria  
(Hamaikagarren bertsoetik hamalaugarrenera)

Gai hau jorratzerakoan, egilea joera ameslari edo begitaziodunekoa izaten da. Joera hori bertso-sorta honetan ere ikusten da hamaikagarren bertsoetik hasita:

Baña, il-oge-buruan **dakust**  
Gotzon bat geure pozgarri,  
Zarden ta zutik ain adoretu  
Aberrijaren zaindari:  
Itxokun gustiz argijaz diño,  
Eldurik ikurriñari,  
Sabin il dala, baña Jel-aldez  
Jarraituteko berari. (K035c)

Hemendik aurrera atsekabearen tonua desagertzen hasten da itxaropenari bidea emanez. *Ikusi* aditza da, pauso honen giltzarria; izan ere, aditz honek egilea begitazio itxaropentsu batez ari dela ematen digu aditzera:

**Ikusiten dot** euzkotar oste  
Andija bertan batzaurik, [...] (K035d)

Baita be **dakust** Jel-ikurriña  
Jasorik mendi ganian [...] (K035e)

Begitazio horretan Pizkundearen eragileari izadiak ere erantzuten dio eta itzultzen dio bere uste ona, bere poza erakutsiaz.

Didar oneri erantzun deutse  
Aitz, errekarro ta ibai,  
Mendi erreka, iturritxuak  
Ta beste geyagok be bai.  
"Gora Jainkua ta Lagi-Zarra!"  
Didar egin dabe alai,  
Aberrijaren berbizkundia  
Lenbailen dabelako nai. (K035f)

Erromantizismoaren eragina presente egiten da berriro ere. Egilearen aldartea edota begiztatu duen Aberriaren egoera izadiaren adierazpideetan antzematen da horrela Urretxindorraren bertsoetan.

d) Laburpen moduko azken mezu-bilgunea

Bertso-sortaren laburpenak ez du hamabosgarren bertso osoa hartzen, hamabosgarrenaren azken bi puntuak baizik. Bertsoaren lehenengo bi puntuak begitazioaren beste alderdi bat deskribatzeko erabiliak izan dira, "Euzko-Gastedi"-aren jarduera goraiatzeko hain zuzen.

Azken bi puntuak hauexek dira:

[...] Arana-Goiri'k itxartu eban  
Euzko-semia lotati,  
Ta Aberrijaren berbizkunia  
Dator bere erijotzati. (K035g)

Azken elementu honek egitura hau bukatzailea (*conclusivo*)<sup>144</sup> edo sintetikoa dela pentsatzera garamatza; izan ere, azken puntuak transmititzen duen mezua bertsoan zehar jorratzen den berbera da, hori bai, arrazoiketa eta irudi desberdinez baliaturik.

Tematika beretsuko "Berbizkunia" bertso-sortari erreparatuz, egitura hau bereiziko genuke:

a) Lehengo egoera: Aberria kutsatuta, egoera ustelean  
(Lehenengo sei bertsoak)

Berriro ere Aberriaren egoera deskribatu nahi digu egileak denboran atzera eginez. Hasieratik Aberri edo Euzkadi kutsatu bat aurkezten zaigu, kanpoko eragin eta indarren pean nortasuna ia-ia erabat galdurik. Oinarrizko ideia hau da modu eta ñabardura desberdinetan sei bertsoetan zehar azalduko zaiguna. Egoera tamalgarri horretan euskotar asko konplize izan omen ziren eta ez zuten kalteengatik kezkarik. Nortasuna galtzeak ere ez zuen erreakziorik sortarazten. Ideia hauexek dira ba, modu batean edo bestean islatzen direnak:

Euzkadi gusti-gustija bere  
Abenda, ele, ekandu eta  
Jolas baketsu eder orokin  
Bai-zan gogo al denduta;  
Etzan ezegaz gomutau be eiten,  
Gustija eukan aitzuta:  
Aurkituten zan bere bixitza  
Odei baltzez estalduta. (K039b)

b) Sabinen deiadarra: aberria esnatzen hasi  
(Zazpigarren bertsoetik hamazazpigarrenera)

Iraganeko egoera horrek, ordea, aldaketa bat jasango du, hoberako aldaketa, jakina, Sabino Arana irudi mitifikatuaren eskutik beti ere. Sabino Aranaren *didarra* izango da inflexio puntua markatzen duena eta ordutik gauzak aldatzen hasiko dira.

---

<sup>144</sup>Ángel L. Luján-ek azaltzen du egituraren eredu sintetiko hori: "El modelo conclusivo o sintético funciona justo a la inversa (del analítico o explicativo). El poema desarrolla una situación, explicación, serie de elementos, etc., de modo que al final se establece una conclusión, o consecuencia derivada de ella", 1999, 74.

Zurtuta uzten gaituen galdera batekin eta jazokizun batzuen deskripzioarekin hasten da tonu aldaketa, hoberanzkoa izango den egoera aldaketa:

Zer jazoten da?... Irrintzi orrek  
Nundik eta nora urten dau?  
Euzko-Aberri au ilten egon,  
Semiak aizturik berau,  
Ta azken-alaru estutik seme  
Aiztukorrentzako birau  
Itzal gorrotoz beteikoren bat  
Amurruz bota ete dau? (K039i)

Hala ere inflexio honek zalantza baino ez du sortzen entzulearengan, azken galderan islaturik. Zalantza horretatik hurrengo bertsoak ateratzen gaitu, nahiz eta egoera berriaren zertzelada guztiak ez azaldu:

Ez olakorik, ez! Entzun daigun  
Gogoz, irrintzi-didarra  
Geutzako da-ta: "Gora Jainkua  
Eta gora Lagi-Zarra."  
Didar zolija benetan bai-da  
Ikur onetsi ederra  
Euzko zintzuen guramen bixi,  
Zuzen-bideko ixarra. (K039j)

Dena dela, badirudi egileak argi utzi nahi duela, Sabino Aranarekin ez dela dena burutu, bere jardunbideari jarraitzea baitzegokien orduko euzkotarrei. Azken bertsoan, eta zeharka bada ere, orainaldiko *dabil* adizkia darabil, gaztediaren Euzkadiren aldeko jarduna aipatzean:

Aberri-aldez eiteko danak  
Itxarturik dira jarri;  
Uri, baserri, zelai ta mendi  
Or **dabil** euzko-gastedi,  
Gura dabela Euzkera jaso  
Ta Azkatasuna ekarri.  
Jauna ta Lagi-Zarra'ren suak  
Berbixi dau ba Euzkadi. (K040f)

Puntu honetara ailegatuta, egiturari dagokionez zenbait ondorio edo baieztapen egiteko aukeran suertatzen gara. Egin ditzagun bada, gure azterketari jarraipena eman aurretik:

a) Ematen du, beraz, Urretxindorraren sisteman lau pauso nagusi zeudela gai abertzaleak luze eta zabal jorratzeko tenorean.

1. PAUSOA: hasiera bateko Aberriaren egoera osasungarria, ideala.

2. PAUSOA: armonia hori hondatu egiten da indar kanpotarrak direla medio.

3. PAUSOA: Pizkundera Sabino Aranaren eskutik.

4. LAUGARREN PAUSOA: oraingo (orduko) egoeran, Pizkunderaren lekukoa hartu beharra.

Bertso-sorta guztietan lau pauso horietatik ez dira denak agertuko, baina Urretxindorraren burmuinean eta abertzaletasunaren historia ikusteko orduan behintzat, badirudi badaudela.

Esate baterako, atal honetan ekarri dugun “Abesti abertzalia” bertso-sortan, lau pauso hauek antzematen dira; izan ere, Aberriaren hasierako egoera kontatzen eta deskribatzen hasten zaigu. Bigarren pausoa ere azaltzen da, Gaztelaren eragina dela kausa. Hirugarrena zer esanik ez, Sabino Aranak bultzatutako Pizkunderaren bitartez sortu da. Azkenik, eta aurrekoari lotua, Pizkunderaren lekukoa hartzeko aldarrikapena egiten da, laugarren pausoari dagokion bezala.

Desberdintasuna sumatzen da “Il zan Aberrija biztuteko” bertso-sortan. Esan liteke lehenengo pausoa eliditurik agertzen dela, Aberriaren egoera idealizatuarena hain zuzen. Bertso-sortaren hasieratik Sabino Arana hilda geroko egoeran kokatzen da. Egoera hori ez da zehazki Pizkunderarena. Bigarren pausoari dagokion egoera delakoan gaude; izan ere, Aberria lozorroan aurkitzen da, kanpoko eraginek kateatuta<sup>145</sup>. Bigarren pausotik hasten dela esan dezakegu, beraz. Eta bigarren pausotik Pizkundera igarotzen da (hirugarren pausora). Hala ere, Pizkunde hori ez da suertatzen Sabino bizi zenean, hilda gero baizik, egilearen begitazio bat horren lehenengo zantzua delarik. Kasu honetan, Sabino Aranaren heriotza eta berak utzitako hazia dira Pizkunderaren eragileak. Laugarren pausoa izadiak eta “euzko-gaztediak” ematen duten erantzunean azalduko dago.

Aztertutako dugun “Bertzakundia” bertso-sortan, bigarren pausoa da abiapuntua, izan ere nortasuna galtutako Euzkadi kutsatu eta erdaldundua aurkezten zaigu hasieratik. Hirugarren pausoa, oihu misteriotsu baten bidez etorriko zaigu, Sabino Aranarena izango den oihu bat hain zuzen. Laugarren pausoa izadiaren pertsonifikazioan islatzen hasten da, eta berriro ere, arestiko bertso-sortan bezala, “euzko-gastedia” izango da lanean jarriko dena Pizkunderaren deiadarrari erantzunez.

b) Orain arte ondorio hauetan esandako guztia ukatu gabe, beste iruzkin bat gehitu nahiko genuke ordea. Urretxindorrek, bertso-sorta idatziak eratzerakoan, egitura bat zuen maite, eta hori berori aberkoiaren artean

<sup>145</sup> Bigarren pausoari dagokion egoera deskribatzen du hasiera honetan, bete betean hasierako armonia galdu zeneko garaia deskribatuz: “Atsekabiak gure almenak/ Ipiñi dauskuz lotuta,/ Ama Euzkadi daukogulako/ Motzen azpijan aulduta./ Seme ustelak, barriz, lo dagoz/ Ezaueria galduta./ Ta orain, zeñiek itxartuko dauz,/ Irakaslia il da-ta?” (K035b).

antzematen da nabarmenen, adibiderik gehienak multzo horretan aurkitu baititugu. Testualki **egitura markozkatu-zirkularra**<sup>146</sup> duten bertso-sortez ari gara; hau da, hasiera eta bukaera berdina dutenez.

c) Nolabaiteko egitura hertsia hau daukatenean artean, **markoztatuak** dira ugariak, hau da, hasiera eta bukaera berdina antzerakoak izateaz gain elkarrekiko osagarriak diren kasuetan.

“Ixate barri bat” bertso-sortak adibidez, hasiera hau dauka:

Orrijak oritu ta  
Zimeldu loriak;  
Txorijak mututurik ...  
Illun-itxal goyak ...  
Len alai ziranak, oin  
Daukez naigabiak.  
Urreratzen yatorku  
Ixate barri bat. (K043i)

Eta azkena:

Orrijak oritu ta  
Zimeldu loriak;  
Txorijak mututurik,  
Illun-itxal goyak,  
Gripe'k jo dau etsaya ...  
zain, ba, jeltzaliak,  
Euzkadi'ri lortzeko  
Ixate barri bat. (K044a)

Mota berekoa da “Dollorkeriak ... itxi” bertso-sorta, bere hasierako eta bukaerako bertsoak ikusita:

Zein ederra zan Euzkadi bere  
Zugatz azpiko Batzar-tokian,  
euzkeldunentzat egizko lege  
Zuzenak eiten ziran aldian!  
Jainkua goyan, Euzkera beyan,  
Zorioneko bixi giñian  
Geure gauzakaz geuk agintzeko,  
Geuk nai lez eta nai gendunian. (K046f)

Zein ederra zan Euzkadi bere  
Zugatz azpiko Batzar-tokian,  
Euzkeldunentzat egizko lege  
Zuzenak eiten ziran aldian!  
Edertasuna gura ba-dogu  
Berrikustia lengo antzian,

---

<sup>146</sup> Egitura mota honetaz Ángel L. Luján mintzo da bere *Cómo se comenta un poema* liburuan. Horrela deskribatzen du egitura mota hau: “Se trata de poemas de estructura cerrada. La composición es enmarcada cuando distribuye en su apertura y cierre dos segmentos complementarios entre sí. Es circular cuando tiene un comienzo y fin idénticos o prácticamente idénticos”, 1999, 76.

Dollorkeria itxi ... ta egiz  
Anayok alkar maite gaitian. (K047d).

Badira beste hiru bertso-sorta egitura honi dagozkionak:

### 1. "Ai, ze ederra!!"

Zein ederra dan barealdijan  
Itxaso zabal bardin-bagia,  
Beren sendijaz jolasten alai  
Dabillanian uren amia,  
Janzki urdiñez apain jantzirik  
Dagualarik ortze argija,  
Aintzaz ta gentzaz direanian  
Poz-atsegiñez goya ta beya. (K049d)

Oi, zein ederra dan itxasua,  
Zein ederra dan ... bare-aldijan!  
Zein ederra zan Euzkel-Errija  
Beren buruen jaube zanian!!  
Erri maite au, Erri gaxo au!!  
Noz jarriko da lengo senian? ...  
-Jainko-lagija zuzen gorderik  
Euzkelduntuten garanian. (K049l)

### 2. "Euzko-emakumia"

Ortzia garden dala,  
Eguzkija diz-diz,  
Begi zoli, bizkorrez,  
Egunaren argiz;  
Udan ... ixadijaren  
Edertasun andiz,  
Pozez zoratzen alai  
Txoritxubak dabiz ... (K065a)

Ortzia garden dala,  
Eguzkija diz-diz,  
Noiz ikusiko zauguz  
Egunaren argiz,  
Euzkadi laztan ori,  
Azke zorun andiz? ...  
- Noz-nai ... Euzko-Abendak  
Nai daunian egiz.  
Au lortutzeko euzkoak  
Euzkeldundu bediz. (K065g)

### 3. "Loyola"

Kurutz zurijaz, ziñez, deunduta  
euzko ziñopa-odola;  
Gure Baratza orlegijena  
margozten daragoyola;



Txerren zitalen ekaitz ankerrak  
 sortu ixan daben uyola,  
 Azpeitiratu da-ta, orra or  
 zelan utzi daun Loyola... (K061g)

Kurutz zurijaz, ziñez, deunduta  
 euzko ziñopa-odola;  
 Gure Baratza orlegijena  
 margozten daragoyola;  
 Alperrik txerren-otsein guzurti ...,  
 alperrik txerren-uyola,  
 Ludija ludi, beti zutunik!....  
 iraungo da, ba, Loyola... (K061g)

d) **Egitura zirkularra** duen bertso-sorta bi aurkitu ditugu, “Aberkoiak” atalean: “Agur Sabin” izenburuduna, horietako bat. Ikusten denez, hasiera eta bukaera berdin-berdinak dira.

Agur bai agur, Sabin maite oi! ...  
 “- Zelako agurra, baña?  
 Erail zinduben Jel-areyen  
 Agurra lako bardiña? ...”  
 - Ez, geure Sabin; agur au dozu  
 Abenda-odol gordiña,  
 Jel-maitasunen suz goriturik  
 Bijotz-yunguran egiña. (K070h)

Agur bai agur, Sabin maite oi! ...  
 “- Zelako agurra, baña?  
 Erail zinduben Jel-areyen  
 Agurra lako bardiña? ...”  
 - Ez, geure Sabin; agur au dozu  
 Abenda-odol gordiña,  
 Jel-maitasunen suz goriturik  
 Bijotz-yunguran egiña. (K070l)

“Ziñopearen abotsa” bertso sorta ere ataltxo honetan sailkatzen dugu:

Itxas-ertzeko toki eskutu  
 Baketsu baxen txirua ...  
 Ziñopearen gorpuba lotan,  
 Itxarrik baña gogua;  
 Euzkadi oro zabaltzen dabil  
 Miatasunaren berua;  
 Eta Jel-bidez gaizkamenera  
 Euzko-abenda darua. (K054c)

Itxas-ertzeko toki eskutu  
 Baketsu baxen txirua ...  
 Ziñopearen gorpuba lotan,  
 Itxarrik baña gogua;  
 Euzkadi oro zabaltzen dabil  
 Miatasunaren berua;

Eta Jel-bidez gaizkamenera  
Euzko-abenda darua. (K054c)

Beste bi sorta ere atal honetan sartu ditugu, nahiz eta azken bertsoak aurrenekoak baino puntu bat gehiago edo garrantzi txikiko aldaketa duten. “Aurrera beti!...” da lehenengoa:

Ipar-axiak ego-alderantz  
Baztertu dituz odei logijak;  
Mendi ertzetik urrezko brintzak  
Agertzen dauskuz euzki-argijak.  
Zoragarriro, apain jantzirik  
Ibar-zelayak, baso-mendijak,  
Ixadijaren edertasunaz  
Geldurik dodaz bijotz-begijak. (K060l)

Ipar-axiak ego-alderantz  
Baztertu dituz odei logijak;  
Mendi ertzetik urrezko brintzak  
Agertzen dauskuz euzki-argijak.  
Zoragarriro, apain jantzirik  
Ibar-zelayak, baso-mendijak,  
Ixadijaren edertasunaz  
Geldurik dodaz bijotz-begijak.  
Ementxe, azke, bixi biar dau  
Euzkadi, Ama maitagarrijak!! (K061f)

“Laugarren Euzkadi-eguna”

Ortzia garden dala,  
Eguzkiak diz-diz,  
Egunaren atiak  
Zabal-zabal dagiz.  
Ixadia dan eder  
Uda-egun argiz!  
Euzkadi-Egunian  
Ederrena, barriz. (K069h)

Ortzia garden dala,  
Eguzkijak diz-diz,  
Egunaren atiak  
Zabal-zabal dagiz.  
Ixadia dan eder  
Uda-egun argiz!  
Gurenda-egunian ...  
Ederrena, barriz. (K070g)

Guzti honen atzean gure ustez honako hau dago: egileak bertso-sortaren abiapuntu bat bilatzen du oinarrirako. Abiapuntu hori hasierako egoera armoniatsu eta idilikoa da, ondorengo garapen (askotan liskartsu eta korapilatsua) baten oinarria. Hurrengo pausoetan beraz, hasierako armonia

hori apurtuko da<sup>147</sup>. Hala ere, garapenean zehar indar konpontzaile batzuk sortuko dira:

- Sabino Aranaren jardunbidea<sup>148</sup>.
- Abertzaleen jokaera<sup>149</sup>.
- Kristau zentzuna.

“Indar konpontzaile” horiei esker, hasierako egoera idiliko eta baketsura itzuli ahal izango da. Hori, hala ere, ez da gertatzen presentean: Urretxindorrek geroaldian gertatuko denaren itxaropena adierazi baino ez du egiten<sup>150</sup>. Hori bai, prozesu onuragarri hori gertatuko denaren segurantzaren osoa erakusten da, ia-ia erlijotsuki sinistu egiten da.

Guzti honek neoplatonismo baten urrutiko oihartzun bat islatzen duela ematen du aditzera. Hain biziki sentitzen ditu ideien mundu hori, ideia garbi eta benetakoen mundu hori, ezen pertsonifikatzen baititu, existentziaren eitea emateko edo existentzia dutela grafikoki adierazteko. Ez da ahaztu behar zenbait kristau dotrinetan joera honek bere indarra izan duela eta duela, eta Urretxindorrenarengana kristautasunaren bidez iritsi zitzaizola esan liteke. Horra hor bada, joera filosofiko-estetiko bat, egitura testuala bilakatuta.

## 1.2. Bertso-sorta laburragoak

Bertso-sorta laburragoetan, beste ikuspuntu bat erabili beharko litzateke. Zaila da sorta luzeen atalean aipatu ditugun lau pausook bertso kopuru txikiagoetan azaltzea.

“Muxika'ko txorija” bertso-sorta zazpi bertsoz osaturik dago eta ez dirudi izenburuak edukiarekin zerikusirik duenik. Badirudi egilearen ezizena jarri dutela izenburutzat, besterik gabe. Estilo herrikoian karlista eta liberalen afera ekartzen du gogora Urretxindorrek. Garai haietan bi bandoen arteko liskarrak Euzkadirentzat utzi zituen lorratzak ditu aipagai eta kexagai. Karliten ustezko

<sup>147</sup> Jadanik aipatu dugun "Dollorkeriak ... itxi" bertso-sortan honela esaten da hirugarren bertsoan: "Etsayak, baña, bekaitz zitalez/ Euzkadi olan zorioneko/ Ezin ikusi eban, ta beti/ Ebillan berau nundik galduko;/ Asmo berezi egokiren bat/ Asmau nai eban onetarako:/ Ekin ta ekin, zoritxarrez be,/ Asmau eban bai azkenerako" (K046h). Bertso honen bidez hasierako armonia horren apurtzaileak nortzuk izan ziren erakutsi eta salatu egiten du, bere komenientzirako egindako argudiaketa batez.

<sup>148</sup> Horrela dio bertso batek: "Euzko-deunen onduan/ Agiri da Sabin.../ Urtzi'ren geznarijak/ Eguai eragin [...]" (K070d). Beste sorta baten San Inazio eta Sabino Arana alderatzen ditu: "[...] Zeure su orraz suartu egan/ Sabin'en bijotz andijak./ Sabin-bijotz-su ori darabil/ gaurko euzko-gaztedijak", (K061). Eta sorta berean, pertsonai bion eragina eusko gazterian agertu nahi du: "Euzko-gastedi kementsu ori/ gurenda duin ixan zadin,/ Eredutzako artuxuez, ba,/ Deun Iñaki eta Sabin./ Jel-bide-ziar elbururaño/ jarrai ... esan eta egin .../ Eta eskier ixano dogu/ zorun osua Euzkadi'n", (K061k).

<sup>149</sup> Zentzu alegorikoan bada ere, bertso honetan abertzaleen iraunkortasuna azaltzen da: "Ezker-eskuma, txori zintzoen/ Ganera dator gorroto-bitsa;/ Txorijak, baña, eguak dabez:/ Uñai uts emon, egaiz gorantza./ Uñak amorrubijadiak/ jo dabenian aurreko aitzia,/ Lertu dira-ta ... txorijak, barriz, / Garalle dabiltz igeri, dantza", (k061d).

<sup>150</sup> Esandakoaren adibidetzat hona hemen bertso zati bat: "Ekaitz ankerdun gau baltz ondoren/ Agertuko da eguna,/ Zuzutz-eguzki dizditzalian/ Argi egingo dauskuna. [...]" (K070j).

foruzaletasuna ere txarto uzten du, euskaldunen benetako interesen kalterako izan zelakoan.

Sortaren bukaera aldera batasunerako eta abertzaletasunerako deia egiten du, indar sakabanatuak biltzeko asmoz.

### **1.2.1. Egitura ondorioztatzailea (klonklusiboa): bukaera esplizitua**

Estilo ondorioztatzailea<sup>151</sup> edo analitikoa da nagusi bertso-sorta hauetan. Horri lotuta, bukaera esplizitua duen bertso bat edo batzuk agertzen ohi dira. Aipatu berri dugun “Muxika’ko txorija” bertso sortan, azken aldera geratzen da garbi zein den azpimarratu nahi den mezua. Ordura arteko mezuak horretara bideratzen gaitu, kontrakoak izan daitezkeen joerak eta ideologiak errefusatuz. Azken bertso biak dira mezuaren oinarria ondorioztatzen dutenak:

Gixonak eztau bihar  
itz onik ukatu,  
guzurre esan baño len  
ixillik geratu,  
ekandu txarrak itzi  
ta onai oratu.  
Euzkeldun maite ori,  
zaitez gogoratu,  
aulan egiten dala  
Euzkadi goratu. (K037b)

Euzkotar ixan gaizan  
Biotz, gogo ta adin;  
Itzez abertzaliak,  
Eikerakaz bardin,  
Ixañ zan legez gure  
Irakasle Sabin,  
Nai bogu zoriona  
Jaritxi Euzkadi'n. (K037c)

Bederatzi bertso dituen “Itxas-ertzian” sortak ere egitura ondorioztatzailea dauka; izan ere, azken bertsoetan laburbiltzen dira egileak transmititu nahi duena eta bere limurtasunaren helburua. Horrezaz gainera, mezua apostrofe moduan azalduz egoten da, batez ere entzuleari begira, konpromezua hartzeko deiadarra eginez:

Gora gastiok! Gora zarrok, be! ...  
Gurtu Josu'ren Bijotza,  
Beren ondora erun daulako

---

<sup>151</sup> Horrela azaltzen du Angel L. Luján-ek (1999, 73) egitura mota hau: “El modelo explicativo (conclusivo) o analítico sienta en un principio el tema nuclear y lo hace acompañar de un adyacente o varios, cuya función es la de analizar, ejemplificar, describir [...]”. Eredu honetan, beraz, oinarri bat ezartzen da, gehienetan poemaren hasieran, baina azkenean ere egon delakoan gaude. Izan ere, bertso-sortaren hasieratik apurka-apurka azaltzen bada sententzia moduan hondarrean esango dena, egitura honetaz ari garela esan dezakegu.

Sabin-Aberri-Ziñopa.  
 Itxarkundia bai-datorkigu...  
 Poztu gaitez an orok, ba!  
 Ken jantzi baltzok, ta zuriz jantzi,  
 Zorioneko gara-ta. (K045j)

Hasieran egilea itzulinguruka hasten da, izadiaren irudiak eta gertaerak aipagai dituelarik, eta ipuin kutsua duen kontakizun bat eratuz. Kontakizun horretan izadiaren elementuak pertsonifikaturik, edo behintzat gizakiei dagozkien ekintzak burutuz (begiratzea, zerbait opaltzea, e.a.) agertzen dira:

Iturri eta errekatxuak  
 Jasteira beko ibaira;  
 Ibaya dua oneik artuta  
 Itxaso zabal andira ...  
 Onegaz topo egin dabe-ta,  
 Ertzian geratzen dira,  
 Goratxuago ixil-ixillik  
 Daun Ziñopea'n begira. (K045b)

“Mendiko alaitasuna” hiru bertsoko sortak ere izadia du hasieran irudi nagusizat.

Mendi ganetik ikusten dira  
 Zugazti, landa, zelayak,  
 Basetxe zuri, baratza eder,  
 Errekak eta ibayak.  
 Mendijan dagoz eguzki argi  
 Ta etxe osasungarriak,  
 Birijak garbi erabilteko  
 Inun baño be obijak. (K038b)

Baina azken bertsoa izango da mezuaren muina gordetzen duena, egitura ondorioztatzailea duela erakutsiz. Azken bertso honekin beste bertsoetan esan denak hartzen du bere zentzu osoa. Izadiaren irudiekin azaltzen da azken bertsoan esan nahi izan dena:

[...] Euzkera zarra mendijan dago,  
 Jaungoikuari begira.  
 Mendijan dagon alaitasunaz,  
 Mendi-mutilok, nun dira? (K038d)

“Gure baratza” izenburudun bertso-sortaren hasiera izadiaren oinarrian eraikita dago; izan ere, Urretxindorrek naturaren zenbait elementuekin alegia bat eratzen du:

[...] “Euzkel-Laguntza”-k erosikoituz  
 korañe zorrotz-zorrotzak  
 ebagiteko bein da betiko  
 bedar txar, sasi, arantzak,  
 eragozpenak euki ez dayan

geyago gure baratzak. (K067b)

Sortaren azkenerako uzten du alegia horren azalpena eta horregatik egitura ondorioztatzailea duela esan daiteke. Baina azken bertsoa, bera bakarrik, kontutan hartuta, semantikaren ikuspuntutik badirudi egitura atributiboa<sup>152</sup> duela (azken bertsoak, ez sorta osoak); izan ere, Urretxindorrek irudi bakoitza zeri dagokion azaltzen du. Horrekin batera apostrofea dago, eta kasu honetan itxuraz euskaldun erdalzaleak izango dira horren hartzaile bakarrak. Zentzu pedagogikoan formulatutako agindua beraz:

Euzkelerrija da baratz, ori;  
Euzkera beren loria,  
guretzat beintzat ludiko beste  
orok baño be obia.  
Jauna'k emoskun, geutzat, esanik:  
"Zaindu bakotxak beria."  
Erdeltzaliak, kontuz, ez aitzu  
Jaungoikua'ren Legia. (K067c)

Berriro ere gogoratu behar dugu sorta guzti hauek klimatikoak direla, hau da, tentsio poetikoa indartuz doala sortan zehar, erabilitako irudi eta baliabideak gero eta argiagoa egiten dutelako ondorioa. Bukaerak esplizitioa<sup>153</sup> izateko joera izan ohi du.

### 1.2.2. Egitura zirkularra<sup>154</sup>

Bertso aberkoiaren artean kopuru nabarmena osatzen dute egitura zirkularra duten sortek. Modu identikoan edo oso beretsuan hasi eta bukatzen diren bertsoak izaten dira hauek.

Aurreneko eta azken bertsoak identikoak ez diren kasuetan lerro bat edo bi izaten dira desberdinak, gaiaren planteamendutik bukaerara arte egon den garapenaren ispilu izan nahian. Bigarren aldiz errepikatzen denean ahapaldi hori, lehenengoz entzun edo irakurri genueneko sentsazioak bersortuko dira baina era berean, eta hemen dago aberastasuna, zentzu sakonagoz eta zabalagoz ulertu eta biziko dira bertsolerro horiek; izan ere, bertso-sortan zehar hasieran iradokitzen diren gaiak eta motiboak poetikoki (edo poesia zein lirika ikutu batez behintzat) jorratu egingo dira. Sorta bukaerako ahapaldian aurrenekoarekin zeozer aldatzen denean, zertzelada edo ñabardura zerbait

<sup>152</sup> Berriro ere Ángel L. Luján-en (1999, 79-80) ikuspuntua hartzen dugu kontutan egitura honi dagokionez: "Otra forma de estructurar un poema es la atributiva, bajo la forma A es B, o disponiendo el poema como una gran comparación: A es como B".

<sup>153</sup> *Como comentar un poema* liburuan, arestian aipatu dugun Luján-ek poemen bukaera motak aztertzen ditu. Poesiarako azterketa bat den arren, etekina atera ahal zaio bertsogintzarako. Urretxindorren bertso-sorta askok "bukaera esplizitua" deiturikoa dute: "El poeta indica en el propio texto el final de su exposición. A veces puede ocurrir esto porque el tema ha agotado objetivamente sus posibilidades, con lo cual se crea una perfecta ligazón entre contenido y forma" (1999, 91).

<sup>154</sup> "Se trata de poemas de estructura cerrada. La composición es enmarcada cuando distribuye en su apertura y cierre dos segmentos complementarios entre sí. Es circular cuando tiene un comienzo y fin idénticos o prácticamente idénticos", *Ibidem*, 76.

gehitu nahi delako izaten da, zertzelada horrek, bereizgarria izanik, indar handia hartzen duelarik.

“Ixate barri bat” bertso sorta horrela hasten da:

Orrijak oritu ta  
Zimeldu loriak;  
Txorijak mututurik ...  
Illun-itxal goyak ...  
Len alai ziranak, oin  
Daukez naigabiak.  
Urreratzen yatorku  
Ixate barri bat. (K043i)

Bi bertso tartean dituelarik horrela bukatzen da bertso-sorta berbera:

Orrijak oritu ta  
Zimeldu loriak;  
Txoriak mututurik,  
Illun itxal goyak,  
**Gripe'k jo dau etsaya ...**  
**Zain, ba, jeltzaleak,**  
**Euzkadi'ri lortzeko**  
Ixate barri bat. (K044a)

*Gripearen* aipamen trufaria efekto berezia da, testuinguruaren lirismoa kontutan hartuta. Bestaldetik, azken bertsoaren ikuspuntutik hobeto ulertzen da lehenengoaren zenbait bertsolerro. Esate baterako, “Len alai ziranak, oin/ Daukez naigabiak” puntua etsai politikoez ari dela dirudi azken bertsoa entzunda. “Ixate barri bat” sintagma bera ere zehaztuago dago azken lerroa ailegatu orduko, ondorio onuragarriak izan zitzakeen egoera politiko-soziala berri batez ari dela baitirudi.

“Garalle” bertso-sortan, ostera, hasierako bertsoa errepikatzen da azkenean oso-osorik, baina horri beste puntu bat gehitzen dio egileak.

Ipar-axiak ego-alderantz  
Baztertu dituz odei lodijak;  
Mendi ertzetik urrezko brintzak  
Agertzen dauskuz euzki-argijak.  
Zoragarrero, apain jantzirik  
Ibar-zelayak, baso-mendijak,  
Ixadijaren edertasunaz  
Geldurik dodaz bijotz-begijak. (K060l)

Izadiaren kontenplazioa ekartzen du berriro ere gogora azkenean Urretxindorrek, eta hain maitagarria izan daitekeen izadian kokatu nahi du berak maite duen beste bat, *Ama Euzkadi* hain zuzen, basoko animaliek omen duten askatasun berberaz bizi dadin. Azken bertsoa hauxe da:

Ipar-axiak ego-alderantz

Baztertu dituz odei lodijak;  
 Mendi ertzetik urrezko brintzak  
 Agertzen dauskuz euzki-argijak.  
 Zoragarriro, apain jantzirik  
 Ibar-zelayak, baso-mendijak,  
 Ixadijaren edertasunaz  
 Geldurik dodaz bijotz-begijak.  
**Ementxe, azke, bixi biar dau**  
**Euzkadi, Ama maitagarrijak!!** (K061f)

“Laugarren Euzkadi-eguna” bertso-sorta da egitura hau erakusten duena. Hamar bertsoetatik hasierakoa eta bukaerakoa identikoak dira lerro bat izan ezik. Naturak uda giroan hedatzen duen bake sentsazioa eta edertasuna gorai patzen dira lehenengo hiru puntuetan. Eta horri gainjartzen zaio “Euzkadi-Eguna”-k euzkotarrenengan sortzen duen poza, perpaus aurkaria erabiliz, *barriz* juntagailu aurkariarekin:

Ortzia garden dala,  
 Eguzkiak diz-diz,  
 Egunaren atiak  
 Zabal-zabal dagiz.  
 Ixadia dan eder  
 Uda-egun argiz!  
 Euzkadi-Egunian  
 Ederrena, barriz. (K069j)

Azken ahapaldian, “Gurenda-egunian” da bertsolerro bereizgarri bakarra eta efektu honek iradokitzen digu “Euzkadi-Eguna”-k eta “Gurenda-Eguna”-k balio berbera dutela Urretxindorraren bertso honetan, eta hedapenez, bere ideologian. Inplizitoki, “Euzkadi Eguna” ospatzeak “Gurenda” edo garaipena (garaipen politikoaz ari gara) ekarriko lukeela esatera dator.

Ortzia garden dala,  
 Eguzkiak diz-diz,  
 Egunaren atiak  
 Zabal-zabal dagiz.  
 Ixadia dan eder  
 Uda-egun argiz!  
 Gurenda-egunian ...  
 Ederrena, barriz. (K070g)

## **2. Uzkurtzakuak**

### **2.1. Bertso-sorta luzeak**

Gai erlijiosoak jorratzerakoan, Urretxindorraren bertsogintzan bertso-sorta luzeak ez dira nagusi. Lau bertso-sorta luze bakarrik aurkitu ditugu. Laburragoak direnak, ostera, askoz gehiago dira. Horrezaz gainera, luzeen



artean zortziko nagusia erabiltzen duen sorta bakar bat aurkitu dugu. Beste hirurak zortziko txikiak dira.

“Bizkaitarren ispillua Balentin Berrio-otxo” izenburudun bertso-sorta garai bateko santuen bizitzari buruzko bertso-sorten tankerakoa dela dirudi<sup>155</sup>. Gogoratu behar da Urretxindorreren garairako eginak zirela Balentin Berriotxoari buruzko beste bertso-sortak. Euretako bat, Xenpelarrek egindakoa zen<sup>156</sup>. Itxura behintzat, halakoxea du, zortziko nagusia erabiltzen duelako (neurri tradizionala, eta zabal, horrelako gaiari oratzeko) eta gaia zabal tratatzen duelako, santuari buruzko zertzeladak luze eta zabal eskainiz.

Hala ere, badago alde nabarmena Xenpelarrek eratutako bertso-sorta eta Urretxindorreren bertso-sortaren artean. Xenpelar askoz narratzaileagoa da. Grafikoki adierazteko, esan dezagun Xenpelarren 22 bertsoetan dagoela narrazioa. Urretxindorrerenetan oster, hiruzpalautan bakarrik dago narrazioa argi eta garbi, bertsoen kopurua 15ekoa izanik. Narraziotik ia-ia ez dago ezer beraz, datu labur batzuk kenduta. Bere bizitzari buruzko hausnarketak eta irudikatzeak askoz ugariagoak dira, oster.

Hauexek dira bere atalak:

a) Bertso-sortaren sarrera  
(Lehenengo bi bertsoak)

Era misteriotsu batez hasten da sorta: egileak galdera beten bidez, entzulearen jakingura piztu nahi du, esan gabe Balentin Berriotxoari buruz hitz egitera doala. Esan bezala, gaia aipatu gabe, exotismo batez janzten da gaiaren objektu nagusia: “Jesus'ek autu ebana”, “Bizkaitarren atsegiña”, “lora bat argitu zana/ askoren atsegingarri”. Dohatsua aipatu gabe, hari eskainitako sintagma eta menpeko perpaus laudagarriak esaten dira.

Hori bai, nolabaiteko kokapena egiten da, Elorrio eta bizkaitarrak, zeharka bada ere, aipatzean.

b) Protagonistari buruzko hausnarketak eta zertzeladak  
(Hirugarren bertsoetik hamaikagarrenera)

Atal luzeena da, baina bederatzi bertso hauek ez dira itxuraz antolatu gabeko eta tartekatutako gogoeta batzuk baizik, nahiz eta Balentin Berriotxoaren bizitzari buruzko hari mehe bat dagoen.

<sup>155</sup> Xenpelarrek, adibidez, bere erlijiozko bertsoen artean “Santa Barbara'ren martiriyua” utzi digu besteak beste. (Jauregi, 1958, 100-107). Udarregi bertsolariak (1829-1895) ere baditu bereak. Santa Agedaren bizitzari buruz 18 bertso sortak bat paratu zuen “Santa Agedaren bertso berriak Udarreik jarriak” izenburuarekin (Zavala, 1966, 113-118). Santuei ez ezik, Jesukristoren bizitza eta Nekaldiari eskeinitakoak ugari dira.

<sup>156</sup> Bertso sorta honek 24 bertso biltzen ditu eta bertan Balentin Berriotxoaren bizitzari buruzko ñabardurak askoz zehatzagoak eta ugariagoak dira inondik ere. Hausnarketetan galdu beharrean, kontaketak badu hari argi bat, nahiz eta gertakizunak aurreratzen diren, esaldi labur batzuen bidez, suspensea sortarazteko. Bertso-sorta horren izenburua hauxe da: “Balentin Berriotxoari”, Jauregi in *Xenpelar Bertsolaria*, Auspoa, 1958, 106-114.

Hirugarren eta laugarren bertsoetan, esate baterako, badira bizitzari buruzko zertzelada zehatzak (oso laburrak izan arren):

- “Juan Ixidro Berriotxo ta / Monika Arizti'n baratzen” sortu zela dio, hau da, bere gurasoak aipatzen ditu.

- Jaiotza eguna ere aipatzen da: “Milla zortzireun oeita zazpian/ Zezeillan amalaukua”.

Komentu bizitza bertso baten laburtzen du:

“Bizkayan jayo, Logroño'n apaiz,  
Gero Okaña aldatu,  
Done Domingo'n Anaitegiko  
Jantziaz einda guratu [...] (K081f)

Misioetara egin zuen aldakuntza ere laburturik dakar:

Okaña'n onda, Kadiz'tik jiran,  
Manila'ra zan eldua,  
Ango nausien baimenaz gero  
Tonkin'era bialdua [...] (K081g)

Ordutik aurrera, eta martirioa aipatu arte, ez da deskripzio edota kontaketa zehatzik egingo. Adibidez, hau bezalako gogoeta irudikatua egiten du Urretxindorrek, Tonkinen, bertakoek kristau ikasbideari emandako ezezko erantzunaz:

Ze putz gozoa egin oi dabe  
Udako ipar aixiak!  
Baña eztabe ontzat artzien  
Gozotasun au guztiak.  
Ilun-zaliak argien kaltez  
Oi dabez indar luziak  
Bada Tonkin'en igaro zitun  
Onen irudi bixiak. (K081j)

Martirioaren zertzeladarik ez da eskaintzen, eta Berriotxoak zerua irabazi zuelakoan honela zoriontzen du egileak:

Luditarrakaz len izan arren  
Esetsiz inguratua,  
Gaur bakez dago beti-betiko  
Zeruan aukeratua,  
Atsedenan Jauna'k emonda  
Urrezko jarri-lekua [...] (K081k)

c) Egilearen apostrofea  
(Hamabigarren bertsoetik hamabosgarrenera)

Urretxindorrarengan ohitura den legez, azkenean eskaera sutsuez beteriko apostrofeak entzungo ditugu azken hiru bertsoetan, Balentin Berriotxoia jasotzailea dutelarik. Hona hemen bat:

O Bizkaitarren zaindari zeran  
 Done atsegiñezkua!  
 Zure mendian gaozan danoi  
 Emon eiguzu eskua,  
 Daukagulako arerioen  
 Esetsiz bixi estua  
 Galdurik ija bizkaitarrentzat  
 Jauna'k autuko lekua. (K082b)

Orduko egoera kontutan hartuta egindako eskaerak dira. Nahiz eta nabarmenki ez adierazi, egoera politikoa nahastuko du eskaera horien tartean.

Badago beste sorta bat 1906an, Urretxindorraren oso aro goiztiarrekoa beraz, “Ama Begoñakuari” izenburuz argitaratu zuena Gernikan. Sorta luzea da, luzeenetakoa bere bertso gintzan, 31 zortziko txikiz osaturik dagoena. Begoñako Ama Birjinaren koronazioa izan zen sorta eratzeko motiboa.

31 bertsoetan badira pauso batzuk argi ikusten direnak, baina badira, era berean, tartekatutako bertso batzuk, gogarte hutsak direnak, posizio desberdinetan egon daitezkeenak egituraren garapena eta pausoen eboluzioa puskatu gabe. Hauexek dira pausook:

- a) Sarrera  
(Lehenengo bertsoa)
- b) Jatorrizko pekatua eta Eva berriaren iragarpena  
(Bigarren bertsoetik laugarrenera)
- c) Begoñako Ama Birjiñari buruz
  - c.1. Aipamenaren hasiera  
(Seigarren bertsoetik bederatzigarrenera)
  - c.2. Begoñako Amaren mesedeak  
(Hamargarren bertsoetik hamazazpigarrenera)
  - c.3. Koroia eta koronazioaren deskripzioa  
(Hamazortzigarren bertsoetik hogeita laugarrenera)
  - c.4. Erromesak  
(hogeita bosgarren bertsoetik hogeita zazpigarrenera)
- d) Sortaren itxidura
  - d.1. Hausnarketak  
(hogeita zortzi eta hogeita bederatzigarren bertsoak)

d.1. Azken goralpena eta apostrofea  
(azken bi bertsoak)

Atal hauei begirada zehatzago bat eskeini nahi diegu ondoren:

a) Sarrera  
(Lehenengo bertsoa)

Bertso-jarrien sarrera tipiko bat dirudi lehenengo bertso honek, Urretxindorraren hasiera bateko joera herrikoiaren ezaugarri bat agian. Egileak ez dio hasiera hasieratik gaiari heltzen baizik eta burutzerara doan sortaren aurrean distantzia batera jartzen da, bere asmoa hartzaileari iragarriz eta zeruko ahalmenei laguntza eskatuz.

Bertso polit batzuek  
Nai neukez atera,  
Baña duintasunik ez  
Askoren antzera;  
Mesede billa nua  
Zeruko atera,  
Kristau gustijen Ama  
Mariaz batera. (K079f)

Sarrera paratestual bat dela esan daiteke. Urretxindorraren bertsogintzan oso bakanak dira honelako sarrerak. Antzinako bertso-paperen estiloa du oraindik sorta honek, izan ere honelako hasierak usuagoak ziren bestelako bertsojartzaileengan: Txirrita<sup>157</sup>, Xenpelar<sup>158</sup>, Pello Errota, Udarregi<sup>159</sup>, eta

<sup>157</sup> Tankera honetako bertsoak, beste bertsolariek bezala, bertso-sortaren hasieran kokatzen ditu Txirritak. Lehenengo bi puntuak dira izaera paratestual hori era argiengan erakusten dutenak: “Gaude milla ta bederatz eun da/ hoge i ta sei urtian,/ bertso berriak jartzera nua/ euskera eder batian,/ zurrut egiñaz kanta ditzagun/ kantabritarren tartian: / euskaldun batek zer egin duben/ Bartzelonako partian” (Zavala, in *Txirrita*, 1992, 358). Beste batek honela du hasiera: “Milla zortzireun larogei eta/ gaude seigarren urtian,/ bertso berriak jartzera nua/ euskara eder batian;/ [...]” (Ibidem, 261). “Kantabria’ko itxas-gizonai oroipen bat” izenburudun bertso-sortak hasiera hau dauka: “Nere biyotz gaixua/ eskaka ari zat/ bertso bi ipintzeko,/ baldin baderitzat [...]”, (Ibidem, 290). 1919an paratutako bertso-sorta baten bigarren bertsoa da agerpen paratextual hori egiten duena: “Bertso berriak jartzera nua,/ nai dituanak ikasi, / asuntu ori onratu gabe/ [...]” (Ibidem 315). Zenbaitetan bertsoak enkarguz eginak direla esatera ailegaten da Txirrita. “Reina Regente’ri” izeneko bertso-sortatik lehenengo biak hauexek dira: “Aitona zar bat suplikatu zait/ guztiz modu egokian/ bertso batzuek onak ipintzen/ ia bai al nerokian; / ikusi orduko igarri niyon/ etzebillena tranpiyan,/ arren lastima zabalduko det/ euskera dagon graziyan”; “Aitona orrek klaro esan dit/ gizon prestuaren gisa,/ orain galdu dan bafori ortaz/ kantak jarri al banitza,/ dolorez azitako seme bat/ nola ito zaion aisa/ gixagaxuaz urrikalduta/ baietz eman diyot itza” (Ibidem, 431).

<sup>158</sup> Askok dira mota honetako bertsoak Xenpelarren bertsoetan. Adibide bezala hauexek dira: “Iparragirren-bozian biatut/ bertso berriak paratu,/ Gipuzkoa’ko Euskal erritan/ al-banitzake onratu;/ asko ezkongai daude/ gustorikan gabe,/ ezin dutela topatu... / Projimuari erakustia/ ezta izango pekatu” (Jauregi, 1958, 52).

<sup>159</sup> Udarregi ez da ohitura honetatik aldentzen. Horren erakusgarri, sorta beteko lehenengo bertso hau aipa dezagun: “Milla zortzi eunekin/ laroi ta amairuban,/ ditxa eder bat sortu da/ gure inguruban;/ bertsuak formatzia/ jarri zat buruban,/ korputza ez dadukat/ lengo estaduban,/ saiatu egin biat/ al dedan moduban” (Zavala, 1966, 125).

abarrengan. Urretxindorrek aldizkarietan argitaratuko ditu bere bertsoak, eta ez herriko plazan. Horregatik ahozko estilotik gertu zeuden zenbait ezaugarri galduko dira: besteak beste, sarrera paratestual hau, non bertsolariak textutik aparte aurkezten duen bere burua eta bere asmoak agertzen dituen entzulegoari apelazioa eginez, bere arreta erakarritz.

Sarrera honetan, gaia aipatu ez duen arren, “mesede bila” Ama Birjinarengana jo du modu egokian, izan ere Bera izango baita sortaren protagonista. Horrela, gaia nolabait iradokitzen zaigu.

b) Jatorrizko pekatua eta Eva berriaren iragarpena  
(Bigarren bertsoetik laugarrenera)

Begoñako Ama Birjiñaren koronazioari ikuspegi zabalago, unibertsalago eta transzendentegoa eman nahian, egileak jatorrizko pekatua ekartzen du gogora:

Sortu giñian bizkor  
ezer-ezetatik,  
Baña geixotu giñan  
utz-egin batetik:  
Sugeari jaramon  
Eba'k egiñaitik,  
Gu aldendu genduzan  
Zeruko bidetik. (K079g)

Horrekin batera, Jainkoaren errukia ere gogoratzen da, gizadiari beste Ama bat agindu ziolako:

Jaunak beste Ama bat  
ein eban argitu,  
Zeñen bitartez giñan  
gustijok garbitu:  
Eba'k galdu genduzan,  
Mariya'k aurkitu,  
Sugeari egiñaz  
burua zatitu. (K079j)

c) Begoñako Ama Birjiñari buruz  
c.1. Aipamenaren hasiera  
(Seigarren bertsoetik bederatzigarrenera)

Begoñako Amari garrantzia eman nahian ere, jaiaren aintzinasuna azpimarratu nahi da, arestiko bertsoen arian.

Mille urte ta geyau igaroak dira,  
Maria agertu zala Bizkai'ko errira,  
Begoña'ko Artagan edo artadira,  
Iñok egundo aintzat ez eukan tokira. (K079k)

c.2. Begoñako Amaren mesedeak  
(Hamargarren bertsoetik hamazazpigarrenera)

Hurrengo fase baten, eta hartzailearen jaiera pizteko, Begoñako Ama Birjinak egindako mesedeak gogoratzen dira. Mariaren bitartekaritza nabarmendu nahi du horrela, baina bertso batzuetan ideia berberaren anpliazioa baino ez dugu aurkitzen:

Mariya'k egin ditu  
ainbeste mirari  
Biyotzetikan Bera  
maite dabenari: [...] (K079ñ)

Batzuk, hala ere, oso zehazki deskribatzen ditu eta hartzaileak izen-abizenez aipatu ere:

Untzitan jausirik  
bein Andres Maidana,  
Ordu biyan uraren  
barruan on zana,  
Untziya amar leguan  
aurrera juana,  
Zan Mariya'n bitartez  
alkantzau ebana. (K080a)

Gregorio Zoparta, barriz,  
bost orduan  
Saturik pelota artzen  
karobi beruan,  
Gizoneri zirautsen  
billa asitorduan:  
"Kontuz ibilli, zerren  
bixirik nagan". (K080b)

Azpimarratzekoa da mesede edo mirari biak bertso banatan kontatzen direla. Berrero ere argi geratzen da bertsoalaritzan esanahi unitatea bertsoa dela eta bertso-sorta baino hobeki definiturik dago alde horretatik.

c.3. Koroia eta koronazioaren deskripzioa  
(Hamazortzigarren bertsoetik hogeita laugarrenera)

Gaiari urrutitik heldu arren, azpi atal honetan, agian sortaren gune garrantzitsuena, edo nahiago bada, sortaren motiboa jorratzen du Kepa Enbeitak. Koroa eta koronazioaren zertzeladak eskaintzen dira hemen, nahiz eta kateaketa narratiboa oso agerikoa ez den:

Mariya'ri ipiñi  
eutsen burestuna,  
Zidarrezkua bera,

gañe oriduna,  
Beraren ixeneko  
Agirre'k emona.  
Ai, ze ospatsua zan  
ordu eguna! (K080i)

c.4. Erromesak  
(hogeita bosgarren bertsoetik hogeita zazpigarrenera)

Ekitaldiaren partaidetza handia aipatuaz gainera, Ama Birjinak dituen erromesak ere gogora ekarri nahi ditu, antza jaiera honekiko hartzailearen identifikazioa sortarazteko asmoz.

Begoña'n sarri ixan  
dira erromesak  
Betetan Mariya'ri  
eindako promesak ...  
Amurraturik ona,  
ikusi nai-ezak,  
Suge deungak bialdu  
dituz Satanasak. (K080n)

d) Sortaren itxidura  
d.1. Hausnarketak  
(hogeita zortzi eta hogeita bederatzigarren bertsoak)

Sortaren elementu giltzarriak gogoratu, eta amaiera kutsua eraginez, egileak jadanik aipatutako ideia berberak jorratzen ditu azken zati honetan:

Jesus'ek autu eban  
Mariya Amatzat,  
Baita dau eskiñirik  
munduko danentzat;  
Gustiyen goitik, barriz,  
gaur bizkaitarrentzat,  
Ipiñi dabelako euren  
Zaindaritzat. (K080p)

d.1. Azken goralpena eta apostrofea  
(azken bi bertsoak)

Egilearen poza eta arimaren asmoak beteta daudela adierazten dira azken bertso biotan. Begoñara joateko gonbidapena egin ostean, deiadarretan isuriko da poztasun hori azken bertsoan:

Bixi bedi Mariya,  
baita euzkeldunak!  
Bixi bedi Bizkaya  
ta beren lagunak! [...] (K080s)

Hiru zati nagusi daude, beraz, bertso sorta luzeetan:

A) SARRERA: Gaiaren kokapena, edo testuinguruan jartzeko datu apur batzuk, nolabaiteko gogoitez lagundurik. Kokapena oso zehazgabea izaten da.

B) GAIAREN GARAPENA: Narrazioaren kateaketa oso eskasa da eta tarteko gogoeta-bertsoak dira ugari. Gaiaren anplifikazioa, eta behin eta berriz gaiari oratzea (ikuspuntu desberdinetatik) nahiko usua izaten da.

C) APOSTROFEA/ GORALPENA SORTA IXTEKO: Egilearen emozioa eta sentiberatasuna gorengo puntura ailegaturik, apostrofearen bidez (eskaera sutuak, goralpenak) ixuriko dira, gaiaren transzendentzia agerian utziz eta azpimarratuz.

## 2.2. Bertso-sorta laburragoak

Lau bertsoko sorta bat aipatuz hasiko gara, hain zuzen ere arestiko sorta batek zuen gai antzeratsuarekin, Begoñako Ama Birjina Bizkaiko zaindari edo patrona jartzearen gaia, hain zuzen. “Zainduko gaitu” du izenburutzat sorta horrek eta hauxe litzateke bere egitura.

a) Sarrera.

Egilearen sentiberatasuna, gaiaren aldekoa jakina, nabarmen uzten da gaia enuntziatuaz batera:

Biotzean sartu yat  
Poztasun andia  
Bizkaya'n ipintiaz  
Patrona barria, [...] (K078a)

b) Goralpen eta apostrofea.

Arrazoiketa tartean egon gabe, egileak bere goralpenekin protagonista den Ama Birjinarekiko identifikazioa adierazten du:

Bizi bedi Bizkaya  
Ta bere lagunak,  
Bizi bedi Patrona  
Eta euskaldunak [...] (K078c)

c) Eranskin adierazgarria: euskara eta euskaldunak zaindu ere bai.

Ama Birjinaren jaiera horri etekina atera nahian, egilearen azken eskaera azalduko zaigu, beste mailako edukiarekin, kultur mailako eta, zabalago ikusita, politika mailako edukina bertsoa ekarriz:

Asko dira Euskera  
Galtzen dabizanak;  
Ez dabe jaritxiko,



Alper dabiz danak,  
 Zeru alduko Jesus  
 Maitearen Amak,  
 Bizkai'ko Patronatzat  
 Aututa dauanak,  
 Zainduko dauz Bizkaya  
 Eta Euskaldunak. (K078d)

Har dezagun beste sorta bat. “Luzi Zabala'ren omenez” sortaren hiru bertsoetan egitura hau somatzen dugu:

a) Sarrera

Egilearen subjektibitateak, sortaren zioa esaten zaigu, Luzi Zabalaren hilketa hain zuzen. Ez da informazio emate soil bat, egileak jazokizun horren aurrean bere barne egoraren berri ere ematen baitigu.

Ezin kendu dot atsekabe bat  
 Bijotz barruan dedana  
 Neure aizkide Luzi Zabala  
 Iltiaz artu nebana:  
 Abertzale bat Euskal-errija  
 Asko maitatzen ebana,  
 Luditik jun da, Jaunak esanik:  
 “Erdu betiko Neugana”. (K083f)

b) Tarteko atala

Heriotz hori dela eta, gogarte dialektikoa garatuko du hurrengo bertsoan, jazoeraren alde txarrari alde ona kontrajarriz.

Alde batetik naigabetu naz  
 Neure laguna iltiaz,  
 Baña bestetik atsedendu naz  
 Beren agurra eitiaz.  
 Ludiko gauza danok itxirik  
 Jaunaren borondatiaz,  
 Autortu eta bake onian  
 Jarri zan Goiko Aitiaz. (K083g)

c) Apostrofea hartzaileei, aholkuak emanaz edota eskaera eginez

Sortaren azken aldera, hirugarren pertsonaren erabilera albo batera utziz lehenengo plurala erabiltzera igaroko da, entzuleari zuzenduz baina berak bere burua multzo horretan sartuz. Horrela, entzulegoa eta egilea multzo berean sartuz hartzailearen konplizidadea bilatu nahi du, bere mezuarekin identifikatu dadin.

Orain euzkotar danok gomutau  
 Gaiten Zabala maitiaz,

“Aita gure” bat gitxienian  
 Esanik bijotz betiaz;  
 Otoi dayogun Jaungoikuari  
 Onoidadezko nekiaz  
 Aurkitu dedin ludi goyetan  
 Amaibagako bakiaz. (K083h)

Luzeagoa den (zazpi bertso baititu) “Euzkel-ixenak dirala-ta” bertso-sortan, ostera, egitura hau dagoelakoan gaude:

a) Sarrera (lehenengo hiru bertsoak)

Gaia argi eta garbi kokatu arte hiru bertso entzun behar dira; izan ere, lehenengo bertsoak ez du argibiderik ematen: arreta erakartzeko eraturako bertsoa da, gauza harrigarriak eta larri samarrak iragartzen hasten baita. *Euzkoak* Elizaren arerio direlako zurrumurrua nahiko larritzat jo daiteke garai hartarako eta jendemodu harentzat. Hona hemen hiru bertsoetako lehenengoa:

Zertzuk eztabez esan,  
 Zer ez iragarri  
 Elixan ta kanpuan,  
 Uri ta baserri  
 Euzkoak Elexaren  
 Arerio jarri  
 Dirala esan dabe  
 Askok eta sarri. (K083i)

b) Tarteko pausoa

Gaia kokatu ostean, egileak bere jarrera azalduko du eta horretarako arrazoiketa bat garatuko du. Euskal izenak jartzearen aldeko arrazoiak azalduko ditu horrela. Arrazoi horietatik pisutsuena Aita Santuaren onespena da, katoliko giroetan erabateko indarra duena (edo izan beharko lukeena).

Kisto'ren ordekua  
 Erroma'n daukogu:  
 Orok aren esana  
 Egin biar dogu [...]

Josuren idaztijan  
 Dago idatzita:  
 Doipuruak dotriñan  
 Utsik ezin leika [...] (K084d)

c) Itxiera: eskerrak eta goralpenak

Azkenean Urretxindorraren eskerrak emate eta goralpenak agertuko dira, beti ere egilearen zirrara azken bertsoetan eztanda eginez agertzen delarik.

Eskarrak Amargarren  
 Pi Aita Deunari  
 Dautson maitasunaitik  
 Euzkel-errijari.  
 Gora uzkurtz donia!  
 Geugaz bixi bedi  
 Euzkeldun jagoteko  
 Jauna'ntzat Euzkadi. (K084e)

Lau koplakoa da “Zoragarrizko umia!” sorta, eta honek ere hiru pauso nagusi dauzka:

a) Sarrera: lehenengo puntuko esaldi bakunarekin egiten da, eta bigarrena, zenbait sintagmen bidez semantikoki zamatzen da besterik gabe:

Belen-urian agertu yaku  
 Zoragarrizko Umia!  
 Bakaldun guren Agustiduna,  
 Zeru ta lurren Jaubia. (K099e)

b) Jaio berriarekin identifikazioa

Maitasunezko Begi zabalez  
 Begira dago danari,  
 Bezuza oro emon gurarik  
 Egia maite daunari. (K099f)

c) Apostrofea eskaerarekin batera

Biotz osoa damotzudala,  
 Ume ain zoragarria!  
 Otoi dagitzut, arren gaizkatu  
 Daizula Euskal-Erria! (K099h)

Ondorio bat atera aldera, esan liteke bertso-sorta laburrek hiru pauso edo atal nagusi izateko joera nabarmena dutela:

a) Kasurik gehienetan hiru pauso horietatik lehenengoa **sarrera** bat egiteko izaten da, gaiaren informazio inplizitua iradokiz, datu objektibo laburrekin.

b) **Tarteko atala** zenbait arrazoiketa azaltzen edota gaiaren garapena burutzeko izaten ohi da.

c) **Azken atala** sorta ixteko tonu eta asmoz konposatutakoa izaten da, eta gehienetan, hasieran objetibotasunez eta distantziaz aipatu denari apostrofea (barne zirraraz beteriko eskaera barne) zuzentzeko.

### 3. Goralpenezkuak

#### 3.1. Bertso-sorta luzeak

Arlo honetako sorta luze bat bereizten hasteko "Gora Euzkadi!" aukeratuko genuke lehenengoz, luzeen artean konposaketa aberatsenetakoa delakoan. Errealitateko datu eta jazokizunak biltzen dituen fikziozko kontakizuna da, nahiz eta narrazioak presentzia gutxi izan gogoeten aldean.

a) Sarrera: hasierako kezka agertu arteko pausoak  
(Lehenengo hiru bertsoak)

Kontalaria bere herriko mediku edo osagilearekin dagoela aipatuz hasten da. Hortik paisaian bere arreta erreparatzera igarotzen da. Kontenplazio horrek ardura bat gogorarazten dio, atzerrian dauden euskaldunekiko ardura hain zuzen.

Urtian irugarren eguna  
Egun gomutagarrija!  
Neugaz izketan aurkitzen dala  
Aizkide osalarija,  
Bai-diraust onek: Ikusi egik  
Daguan eguraldija [...] (K121f)

[...] Egal gustijak lañoz beterik,  
Itxas-antzarrak goyetan,  
Agurka duaz Amerika'ra  
Negu txar oni aldetan.  
Geuk be bai-doguz anayak andik  
Juanak era orretan, [...] (K121g)

[...] Gure anayak lurralde atan  
Orrela ziran aurkitzen:  
Banandurikan or-emen danak  
Ez ebela alkar ezautzen;  
Anaitasuna zer zan aitzuta  
Galdumendijan zebiltzan. (K121h)

b) 1. pausoa: usoaren erantzuna kontalariari  
(Laugarren bertsoetik seigarrenera)

Kezka hori norbaitek entzuna izan bailitzan, zeruko hegazti batetik etorriko zaio erantzuna kontalariari, uso batetik hain zuzen. Pauso honetako hiru bertso hauetan jazokizun hau eta mezua izango dira eduki nagusia.

[...] Orra nun uso zuri polit bat  
Dakustan mendi ganian;  
Idazkitxu bat pikuan daula  
Egaz alegin danian, [...] (K121i)

[...] Itxartu dira euzko-anayak  
Nekotxea dan errijan  
Alkar maitatzen dabela bixi

Diran batasun andijan,  
Alaitasunez Batzoki eder  
"Euzkadi" maitagarrijan. (K122a)

c) 2. pausoa: kontalariaren poza, begitazioak eta deskripzioak  
(Zazpigarren bertsoetik hamaikagarrenera)

Gertaera sasi-objektibo horien aurrean, ahots nagusia den kontalariarena bere barne munduaren berri ematen hasiko da. Alde batetik barruko poza izango da erreakzio nagusienetakoa, eta bestetik, bere poz horren arrazoi eta motiboek hartuko dute indarra.

Au dok izparra! Gure anayak  
Nai-nun itxartzen ei dozak.  
Zeñek azaldu ordu onetan  
Nire bijotzeko pozak? [...] (K122c)

Estasizko egoera horretan, begitazio moduko gogoetak egingo ditu Urretxindorrek. Euskadin kokaturik eta hortik irten ez zen arren (ez Ameriketara behintzat), han zer gertatzen den ikusten balego bezala konposatzen du bertsoaren bat, hurrengoa bezalakoa:

**Ikusten nago** "Euzkadi" euzko  
Batzoki eder apaña,  
An bixi diran gure anayak  
Alkartuteko egiña,  
Jasorik gora iru margodun  
Abertzale ikurriña;  
Baita **ikusten** euzkeldun jayak,  
- Ori da gauza jakiña-  
Eingo diranak gure asabak  
Oi ebezan lez antxiña. (K122d)

*Ikusi* da aditz giltzarria bertso honetan; izan ere, begitazio baten giro edota kutsu hori ematen diolako, beti ere tonu profetikoan hitz eginez.

d) Itxiera: kontalariaren deiadarra  
(Azkeneko bi bertsoak)

Azken aldera eta emozioaren keinu bat bailitzan, egileak abertzaletasunaren ideologian ideia nagusiak direnak edo izan daitezkeenak aldarrikatzeari ekiten dio:

Anayak gara laburditarrak,  
Zuberotar ta naparrak,  
Anayak baita gipuztarrakin  
Arabar ta bizkaitarrak,  
Gustijon Ama dogu Euzkadi,  
Gu beren seme bakarrak: [...] (K122h)

[...] Maite lenauko ekandu onak,  
 Jantza ta jolas garbijak,  
 Aupa, mutillak! Gora Euzkadi!  
 Gora euzkotar gustijak! (K122i)

Antzerako egitura topatzen dugu beste bertso-sorta baten ere, "Astarloaren maitia" bertso-sortan hain zuzen. Hiru atal nagusi antzematen dira:

a) Sarrera: errekurtsio poetikoen bidez jorratuko den gai nagusia enuntziatzen da  
 (lehenengo bi bertsoak)

[...] Nire maitia Euzkerea da,  
 Beti nabil bere billa:  
 Nai dodalarik aldi orotan  
 Neurekin ixan dedilla. (K144b)

Neure maita nudikoa dan,  
 noz ta nogandik sortua,  
 Jakin-nai onek damost aspaldi  
 Buru-austerik naikua. [...] (K144c)

b) Gaiaren garapena: gai nagusiari buruzko gogoeta poetikoak (hirugarren bertsoetik bederatzigarrenera).

[...] Euzkera zarra mendijan dago  
 Jaungoikuari begira,  
 Bere erruki-zain noz biurtuko  
 Barrero lengo tokira. (K144h)

c) Itxiera: egileak Astarloari egindako apostrofea, harekiko identifikazioa agertuz.

[...] -Astarloa, ez bildurrik ixan,  
 Etsayak alper dabilta...  
 Euzkeltzaliok garbitukogu  
 Zuk dirauskuzun bijotza. (K144k)

Arestiko bi bertso sortekin gertatzen den legez, antzera gertatzen da bestelakoekin ere. Hiru pauso nagusiez hitz egin dezakegu bertso sorta luzeetan, bestelako egitura atalak oso partikularrak eta maiztasun gabekoak direlako.

### **3.2. Bertso-sorta laburrak**

Sorta laburretan ere alde edo moldez sarrera bat, gorputz bat eta itxiera bat topatuko dugu. Apostrofea ere sarritan (sarriegi agian) erabiltzen den baliabidea da, eta tonu horrek uniformizatzen du hein handi batean sorta osoa. Apostrofea erabilirik narrazioa moteldu egiten da, eta egiten den apurra

elkarrizketa itxurapean eskaintzen da. Garapen semantikoa zirkularra da horrela, goraipamenaren inguruko garapena, zertzeladak, ñabardurak eta ikuspuntuak pilatuz, eta pertsona (edo pertsonifikaturik agertzen den elementua) berari zuzenduz.

“Etxebarriko neure loria” sortan, adibidez, horixe bera ikusten dugu.



maitearen bizilekua.

nik bera eskuratu  
eztagidan egin

a) Sarrera: azkar eta elipsiz beterik bada ere, lehenengo bertsoa egilearen emazteari izango zenari eskainia dago eta bertan gaiaren kokapen bat egiten da. Hizkera metaforikoa erabiliz eta testuinguruaren zenbait informazio jakintzat emanez<sup>160</sup> kokatzen du gaia.

Ikusirik lora bat  
-ez emetik urrin-

Bere maiteari egindako erreferentzia da. Bere etxetik ez oso urruti bizi dela adierazten du ere.

neure poz-atsegiña  
Goiko -Etxebarri'n,

Baserriaren izena  
aipatzen du ondoren, poza eta  
atsegina ematen dion

<sup>160</sup> Berrero ere gogora datorkigu Walter Ong-en zazpigarren psikodinamika, alegia, ahozko produkzioak ahozkotasunean enpatikoak eta partehartzaileak direla, objetiboki bereziak baino. Entzulegoak eta bertsolariak daukaten jakintza komunarekin jokatzeko da eta sarritan ez dira azaltzen gauza asko, jakintzat ematen baitira. Adibide ugari jar daitezke, bertso-jarrietakoak ere bai. Esate baterako, Xepelarrek bertso-paper baten zezen bati jarri zizkion bertsoak. Zezen horrek zezen plaza edo hesitik ihes egin zuen urte hartan. Aurreko urtean ere beste horrenbeste gertatu zen zezenketa baten, leku berean, Pasaian. Aurreko urteko zezenaren izena “Almirante” zen. Horri egiten dio erreferentzia azken bertsoan: “[...] begiyak erne zeuzkan,/ belarriyak tente, / esan nuan ote-zan/ lengo “Almirante” (Jauregi, 1958, 43). Bertso-sortan ez du beste azalpenik ematen baina Pasaiako entzulegoarentzat gertaera jakina zen eta, beraz, bertsoak komunikaziorako balio du.

batek baño geyagok  
ein dabe alegin;

Bere maitearekin egoteko, ezkontza planak proposatzeko eta biek bizimodu konpartitu bati ekiteko egileak izan dituen arazoak ditu aipagai. Oztopoak jarri dituztenak ingurukoak (familiakoak agian) izan direla iradokitzen du, modu leunean bada ere. Eta azkenik:

baña zirkin andirik  
eztautse eragin. (K120a)

Aurretik esandakoari azken proposizioa kontrajartzen zaio, zorioneko sententzia batekin: eragozpen eta trabek ez diote zirkin handirik eragin, hau da, ez dutela hoztu bere neska lagunak duen maitasun sua.

b) Gorputza: apostrofea da nagusi, maiteari zuzendutako apostrofea hain zuzen. Bion arteko maitasunak izan eta izaten dituen gorabeherak komentatzen ditu bertan. Esate baterako, sarreran aipatzen hasi diren traba horiek, modu poetikoan eta bere maiteari kontatuz, hau da, apostrofea erabiliz, azaltzen dira. Anpliazioaren teknika nabarmentzen da beraz:

Bixi ziñian eder  
lorategi baten  
ez eutzula ezek be  
kalterik egiten;  
ta ikusirik nitzala  
ni urreratuten,  
sasi baltzak albotik  
egin eutzun urten,  
galazo gurarikan  
zu niganatuten. (K120b)

c) Itxiera: maitasun identifikazio erabatekoa izanik, aurreikuspen bat iragartzen dio bere maiteari, batera egongo direla luze baino lehen, hain zuzen.

[...] Laster luzetuko dot  
zeugana eskua,  
artzeko maite dotan  
lora pozezkoa. (K120e)

Lugones olerkari argentinarri eskainitako “Eskarrikasko” bertso-sortan ere, egiturari dagokionez behintzat, beste horrenbeste esan dezakegu.

a) Sei bertso dituen sorta da eta lehenengo biak **sarrera** poetiko bat dira. Berrito ere natura presente egiten da egilearen barne egoeraren luzapena bailitzan.

Urre-arpegi dizdizariaz  
Agertu dan eguzkiak  
Argitu dituz len illun egon



Diran zokondo guztiak.  
Argi onexek darakustaz gaur  
Amerika'ko anayak,  
Agur-olerki ederraz neuri  
Opaltzen diru ugariak. (K145c)

b) Sortaren **gorputzak** eskerrak emateko zioetan sakontzen du eta pozezko arrazoiak garatzen ditu. Lugones olerkariari dion lotsa ere agertu egiten da, goraiemenezko zentzua emanez.

Zu bai, Lugones, "Urrexinula",  
Ta ni, barriz, "Txindor" utsa;  
Zu Argentina aundi zidartsu,  
Ta ni baso txiki latza [...] (K145f)

c) Eta **itxiera** azken bertsoarekin batera etorriko da, elkartasun adierazpen goi keinu batez.

[...] Biotz auxe nik dopaltzut barriz  
Lora ta guzti zerorri.  
Artuidazu, ba, begikortasun  
Ta maitasun ezaugarri,  
Besarkaturik bizi gaitezun  
Argentina ta Euzkadi.

Egilearen opalkuntzak Urretxindorraren bertso-gintzan hain ezaguna den agindua-helburua binomioa.

#### 4. Ipuin eta abar

Gutxi dira sail honetan aurkitzen diren bertso-sorta luzeak. Gainera Santi Onaindiak sail honetara ekarri zituen bertso-sorta luze batzuk guk bertso satirikoaren sailean egokitu ditugu. Beraz, gutxiago gelditzen dira oraindik.

Sorta hauetan narrazio edo fikziozko kontakizun zein pertsonaiak aurkituko ditugu. Hala ere, sasi-kontakizun hauei ipuinaren kategoria ematea zalantzazkoa litzateke. Ez dugu aurkitu ipuin baten gutxienezko osagarriak betetzen dituen bertso-sortarik, ezta ipuin baten egitura izan dezakeenik ere, salbuespenen bat kenduta (hura ere eztabaidagarria). Hori bai, oinarritzko pauso batzuk, bestelako ataletan ikusi dugun antzera, badaudela esan dezakegu, eta pausook hauexek dira:

a) **Sarrera**: beti ere gaiaren nondik norako nagusia eskaintzen da, laburki eta poetikoki irudikaturik batzutan.

b) **Gorputza**: gorputzaren egitura aldakorra izan daiteke sortatik sortara eta ezin da hitz egin gorputzaren egitura komun bati buruz.

c) **Itxiera**: gorengo tonuaz inplizituki, edota esplizituki esanda, azken bertsoan edo azkenetan antzematen da.

#### 4.1. Bertso-sorta luzeak

“Lugiñenak” bertso-sorta luzea hartuz gero konturatuko gara ez dela berez kontakizun bat, baizik eta ohiturazko manifestu bat. Bertan zenbait *lugin*, nekazari zehaztugabe aipatzen dira. Batzutan *lugin* arketipiko batez ari da, ugazaba arketipiko batez arin den bezala. Kritika soziala eginez *lugin* eta ugazaben ohiturak ikuspuntu jakin batetik islatzen saiatzen da Urretxindorra. Baina horrekin batera, zenbait gogoeta ateporal tartekatzen dira, diruaz, diruaren desioaz, bizimodu desberdinez arituz eta beti ere ohiturazko koadro horrek marko sozial zabalago bat izan dezan.

a) **Sarrera:** lehenengo bertsoa nahikoa da gaiari kokatzeko, *lugin* eta ugazaben arteko erlazioa jorratzen duelako, eta jadanik bi pertsonaia horiek agertzen direlako egoera eta jokamolde kontrajarrietan:

Lugiña dabilela gogor soloetan,  
Aberatsa luzerik oge epeletan;  
Jateko eztaben lez artorik errotan ...  
Alde andia dago biximoduetan. (K163k)

b) **Gorputza:** lehenago esan bezala, ohiturazko irudikatzeak zenbait gogoeta -gaiez- zabalagoekin nahasten dira. Ohiturazko bertso bat hauxe litzateke:

Ugazaba ba'dauko etxetik urrian,  
Beti bixi biarko beren bildurrian;  
Ondo nekatu arren biar gogorrian,  
Ondasun gitxi artu solo biarrian. (K164e)

Eta gogoeta bat gizartearen egoera eta joerei buruz hauxe:

Dirua ludi ontan danok dogu maite,  
Osasunen laguntzat dalako polite;  
Biak euki arren be, gaizki bixi leite,  
Pozgarria dalako beste danen aite. (K164a)

c) **Itxiera:** sorta honetan nahiko esplizitua da, amaierako zenbait formulatarari nahikotxo hurreratzen delarik:

Amaitutera nua onenbesterekin,  
Beti ixildu barik eztayodan ekin.  
Konturatu nai ba'da neure itz-neurtuekin,  
Merke jabetuko da txakur baterekin. (K164ll)

#### 4.2. Bertso-sorta laburrak

Sorta laburren artean “Eskola-maixu arrua ta mutiko azkarrak” izenburuduna da (agian) ipuinaren eite gehiena duena<sup>161</sup>. Bertan egileak kontakizun labur bat asmatzen du, nahiz eta benetako jazokizun bat izan zitekeen. Kontakizunak irakaspen bat dauka, morala barik argudiozkoa, abertzaletasunari eman nahi zaion irakaspen edo argudio bat hain zuzen.

Sortak hiru pauso nagusi dauzka eta pauso bakoitza ahapaldi bati dagokio.

a) 1. pausoa: maisuaren irakaspenera azaltzen da lehenbizi.

Maixu batek, bein, eskola umiei  
Egin eutsen itzaldian,  
Au esan eutsen: España zala  
Ospetsuena ludian;  
Amerika be menpetu eban  
Indarrez beingo batian,  
España'ko bandera jarriaz  
Amerika'ko lurrian; [...] (K163h)

b) 2. pausoa: umeek hartzen dute protagonismoa hurrengo pauso honetan, antza, bihurrikeri umetiarra burutuz. Zehazki, maisuaren solon sartzen dira, bandera bat ezarri eta arboletatik fruituak jaten hasten dira.

c) 3. pausoa: honetan umeen bihurrikeriaren aurreko maisuaren haserrea erakusten da eta umeen erantzun harrigarria ere bai, maisuaren irakaspenera oinarritzat harturik:

[...] “Ixi, maixu oi! Aztu al yatzu  
Zer esan dozun goixian?”  
Ikurrin ori geuk jarri dogu,  
Oin geu nausi baratzian!  
Ta gu augaitik lapur ba'gara,  
Orain gu garan antzian,  
Zuk esandako Españarrak be  
Lapurrak ixan zirian. (K163j)

## 5. *Gomutakizunak*

Atal honetan sailkatutako sortak zerbait eta, batez ere, norbait gomutatuz eginikoak dira kasurik gehienetan. Hala ere, horrek ez du suposatzen bestelako motiborik agertenez denik testu horietan: erlijiozkoak, abertzaleak, naturazkoak eta abarrekoak.

<sup>161</sup> Demetrio Estébanez Calderón-ek ematen duen ipuinaren definizio orokorrean kokatu liteke bertso-sorta hau, gehiegi behartu gabe: “Término de origen latino (*computus*, *computare*: contar numéricamente; en sentido traslaticio, contar acontecimientos) con el que se designa un relato breve, oral o escrito, en el que se narra una historia de ficción (fantástica o verosímil), con un reducido número de personajes y una intriga poco desarrollada, que se encamina rápidamente hacia su clímax y desenlace final”, 1999, 243. Gutxienez azalpena, korapiloa eta amaiera badituela esan daiteke, eta nolabaiteko kontakizuna dela ere baieztatu liteke. Pertsonaiei dagokienez, alde batetik maisua dugu, lehenengo bertsoan azaletik karakterizatzen hasten dena. Bestaldetik, umeak ditugu, multzoan karakterizatuak, lauak, haien artean norbanakorik nabarmendu gabe.

### 5.1. Bertso-sorta luzeak

Goian aipatzen ditugun sorta luzeak diren guztiak dira, hau da, ez dago bestelako sorta luzerik “Gomutakizunak” izeneko atal honetan.

Berriro ere, mota honetako sortetan, eta egiturari dagokionez ari gara orain, hiru pauso nagusi antzematen dira beti, nahiz eta hiru pauso haietaz aparte beste azpi-atal izan daitezkeen (sorta batetik bestera aldakorrek beti ere, inolako maiztasunik gabeak).

Har dezagun “Ene anai Urretxiñola” bertso-sorta, hamaika ahapaldi dituen. Sorta hau Urretxindorrek bere anaia Imanolekin bertsozko komunikazioa izateko eratua izan zen, eta *Euzkadi* aldizkarian argitaratu zen, hain zuzen ere Argentinan zegoen bere anaiak argitalpen honen bidez jaso zezan. Jakina, Kepa Enbeitak ez dauka bere burua urretxindortzat, txindor gizajotzat baino, eta bere anaiari “Urretxiñola” deitzen dio, haren balioa goresten beti ere.

Komunikazio mota honen helburuak bat baino gehiago dira, nahiz eta nolabaiteko jerarkizazioa egon daitekeen. Horren ondorioz, sortaren lehenengo pausoa ere korapilatsua izango da, testuinguru edota alderdi bakar bat zehaztea ez baitu xedetzat.

a) **Sarrera:** Lehenengo lau bertsoek osatzen dute sarrera, eta testuinguruan jartzea mailaka eta pausoka egiten da.

Kokatze hori egilearen sentimenduetatik abiatzen da, arreta erakarri nahian eta era berean Erromantizismoaren sentimendu mundua islatuz, oso era arrunt eta topikoan bada ere, agian egilea bera konturatu izan gabe. Sarrera honetan egilearen bakarriketa da nabarmentzen dena.

Aspaldixuan, neure barruan  
Neukan tamalagaz, estu nenguan  
Imanol anai urretxiñola  
Hale'ra jua zana beñola  
Bixi ete zan!  
Arduraz nintzan, ai baña zelan!  
Ta bere izparra, ona nun dodan! (K191a)

b) **Gorputza:** Egileak anaiari bere kezkek, desio eta ilusioak kontatzen dizkio, tonu konfidentzian. Bosgarren bertsoetik aurrera apostrofea (bere anaiari zuzendutakoa) nabarmentzen da: oso baliabide arrunta izan daitekeen arren, aipatu egin dugu, izan ere, honek markatzen du sarreraren bukaera eta bigarren pausoaren hasiera.

Ni enok zozo, ez birigarro  
Eztakit, ba, abesten oik baxen arro.  
Eztirudit, ba, kuku ez miku,  
Txindor bat baño anka ta piku.  
I az, ba, txori,  
Urretxiñol ain ospetsu ori!

Eta ni, barriz, nok txantxangorri. (K191e)

Sortaren bosgarren bertso honek bakarrizketa du lehenengo lau puntuetan nagusi. Ahapaldi mota honen “inflexio gunea” deiturikoa bosgarren puntuaren egoten da sarritan eta horrelaxe gertatu da honetan ere, “I az, ba, txori” goraipamenarekin, bigarren pertsona erabiltzeari ekiten baitio egileak.

d) **Itxiera**: sortan zehar esandakoaren ondorioa da, izan ere bere anaiari etor dadila eskatzen dio, Euzkadin zeregin handi, transzendente eta ilusio eragileak dituztelako eskuartean. Itxaropenezko amets hori, biak batera egotearena hain zuzen, sortaren bukaera da eta entzuleari lorratz ona uzten dio.

Nik biar yuat laguntasuna,  
Ene anai maite zintzo kutuna.  
Ia, ba, laster etortzen aizen,  
Aberatsago Rotxil bat baixen!  
Orduan anai  
Bik abestuko genduke alai:  
Urretxiñolaz Txindorrak be bai. (K191k)

Bada beste bertso-sorta luze bat agian bere egitura bereziagatik pixka bat nabarmentzen dena. “Urretxiñola beren maitiaz” da sortaren izenburua eta bertan Kepak bere anaia Imanol Enbeitaren ezkontzari jarri zizkion bertso batzuk. Egileak gertakizun baten berri ematerakoan fokua erabilera da kontakizuna egituratzen duena. Esan liteke teknika zinematografikoa erabiltzen duela, nahiz eta sorta hau argitaratua izan zeneko garaian (*Euzkadi* aldizkarian, 1921-III-31) Urretxindorrak zinearen berri murrizta (edo batere berririk ez) izan.

Gertakizunak eta mintzagaiak ez zaizkigu aurkezten, erakusten baizik. Ez da jakiten hasieran zeri buruz arituko den bertsolaria.

**1. pausoa**: hasierako bi bertsoetan, egilearen begirada izango da fokua. Urretxindorrak Urkiolako parajeetara zuzentzen du bere soa. Hona hemen bigarren bertsoa:

Euzkelerriko mendi ta zelai,  
Uri ta basetxe zurijak be bai,  
Gustiz ederto agiri dira,  
Pozez nagola eurei begira,  
Oraintxe bertan  
Ikusiten dot beko lanetan  
Burdi bat berez ariñiketan. (K202j)

**2. pausoa**: hain zuzen ere bigarren bertsoaren azken puntuaren agertu den “burdi” horrek erakarriko du egilearen fokua eta arreta, eta horri esker benetan zer gertatzen ari den jakingo dugu. Baina, zinearen legeei huts egin gabe, gauzak erakutsiz, eta ez alde zuzenetik kontatuz (narratzaileak ez du

aurreratzen gertakizuna, irudiek eta zer ikusten den, horiek hartzen dute protagonismoa).

*Burdi* hori (“kotxe” edo “auto” izenen baliokide bat, beste baten erabiliko duen “beribil” neologismoaren orde) izango da, geroago konturatuko garenez, Imanol Enbeita “urretxiñola” eta bere emaztegaia Urkiolako santutegira ezkontzera eramango dituen. Ailegaera eta elizan sartzea hirugarren eta bosgarren bertsoetan irudikaturik daude:

Bide gustijan arin ta errez  
Beriala **dator**, txorija legez ...  
Aldatz gustijak **igaro ditu**,  
Ta burdijori **geratzen yaku**, [...] (K202k)

Berebilletik **urtetan dira**  
Txadon inguruko zelai andira;  
Emen luzaro egon bagarik,  
Txadonarantza **datozalarik** [...] (K203b)

Ezkontideen lagunak eta ezkontza ospakizunaren zertzelada zenbait ere teknika honen bidez helaraziko dizkigu egileak. Azpimarratzekoa da orainaldiko adizkiak erabiltzen dituela, bere kontakizuna begi aurrean gertatzen ari den jazokizun bat bailitzan: dator, igaro ditu, urtetan dira, datoz.

**3. pausoa:** egoera aurkezturik, egilea apostrofea erabiltzera igaroko da, aholku eta zorionak emanez zein etorkizun ona opatuz. Hasieran erabili duen teknika, fokua, albu bat eta anaiari zuzendutako diskurtsoak hartzen du protagonismoa, sortari itxiera emanez.

Ezkon-buztarri astuna da-ta  
Askorentzat oi da eruan-gatxa;  
Baña batzuntzat ariña oi da,  
Eta zuentzad arin ori da,  
Zorun-baratzan  
Beti alairik bizi zaiteezan  
Udabarriko txorien gisan. (K203f)

Hiru pausoko sortak hemen ere, nahiz eta kontaketa teknikak desberdinak izan daitezkeen.

## 5.2. Bertso-sorta laburrak

Sorta laburrekin beste horrenbeste gertatzen dela esango dugu berriro ere. Gertakizun baten inguruan, eta agian norbait edo norbaitzuk goraiatzea helburu nagusia delarik, zenbait gogoeta, deskripzio zein kontaketa labur egingo ditu. “Gustijok Zornotza-aldera” bertso-sorta, gure ustetan behintzat, “Gomutakizunak” atalean sailkatzea ez dago guztiz garbi; izan ere, ez da errez jakiten zein den indarrik gehien duen motiboa: norbait zein norbaitzuk goraiatzea edo ekitaldi abertzale-kultural bat iragartzea eta ondorioz entzulegoa konbentzitzea pertsuasioa erabiliz.

Dena dela, argi ikusten da Urretxindorra ez dela ahalegintzen bertso-sorten egiturarekin, kontzienteki behintzat, gauza korapilotsurik eratzen. Intuitiboki agian, gaiaren nondik norako nagusiak azalduko dira lehenengo bertsoetan. Gero horren inguruko gogarteak, arrazoiketak eta zertzeladak etorriko dira. Azkenik, sorta ixteko tonua duen bertsoen bat eratuko du.

### 1. pausoa

Aipatu dugun sortaren sarreran edo lehenengo pausoa hasierako bi bertsoetan gaiaren aurkezpena egiten zaigu. Hala ere, lehenengo bertsoa bitxia da:

Batxi'k itz neurtuz iragarten dauz  
Euzkel idazlien ixen  
Pillo andi bat, bazkarija nun  
Eingo dan ixentau dayen.  
Baña "Obendi bat" aitzu yako,  
A'tar J. nire errijen,  
Ikusgarrizko neurtizlaria  
Atsegin yatana geyen. (K193c)

Batxi idazle eta itsas gizon bizkaitarrari<sup>162</sup> idazleen bilera baterako "A'tar J." gonbidatzea ahaztu egin zaiola aipatzen da sorta hasi bezain laster. Gai nagusia edo nagusietako bat izateko itxura duen motibo hau ez da berriro ere agertuko sorta osoan zehar. Jokoz kanpo dagoen bertso bat dela dirudi, bertso-sorta bere osotasunean hartuta. Honetan ikusten da Urretxindorrek batzutan bertso-sortak saski-naskitzat hartzen dituela, gai baten inguruan harira datozen eta ez datozen motiboak tartekatzen dituelako.

Bigarren bertsoa, oraindik ere, gaia kokatzeko erabilia dago:

Batxi zolija euzkel idazle,  
Itz-neurlaria ganera,  
Bazkari onen asmatzallia ...  
Mutilla ona dok, ba, bera!  
Idazle orok ezautu nai dauz  
Baturik toki batera, [...] (K193c)

### 2. pausoa

---

<sup>162</sup> Juan Bautista Bilbao "Batxi" (1887-1916) marinela zen lanbidez, eta idazle zein kazetari lanetan ere jardun zuen bere bizitza laburrean. Izaera bizi eta alaitsuko gizona zen eta atzerritik (Europa eta beste kontinenteetatik) kronikak idazten zituen, *Napartarra* eta, batez ere, *Euzkadi* aldizkarietara bidali zituelarik. Garai hartako euskal kultur munduko pertsonekin harremanak izan zituen: Kirikiño, Lauaxeta eta Urretxindorrek, besteak beste. 1914an egin zen euskal idazleen bilera historiko hura antolatzen ibili zen, eta agertu ere agertu zen, berandu ailegatu zen arren; izan ere, bere itsasontziak Abrako bokalean eman behar izan zuen gaua. Hala ere, puru edo txokor batzuk eramane zituen bilerara eta gonbidatuek pozik hartu zuten Batxiren oparitxo hau. Urretxindorrek zeharka aipatzen du xehetasun hau "Zorijoneko 'txokorrak'" izeneko bertso sortan, *Euzkadi* aldizkarian, 1914eko urriaren 11an argitaratu zen alean (k192).

Sarreran edo lehenengo pausoarekin batera egin den goraipamenak tartea utziko du, sortaren gorputzean edo bigarren pausoan, bileraren garrantziaz mintzatzeko. Eta hemen dago pertsuasioa nabarmenduko den arloa:

Gogaldi on bat igaroagaz  
Ezautuko dogu alkar,  
Baita yagokon tokian jarri  
Euzkotarren ele bakar [...] (K193f)

### 3. pausoa

Bestelako gogarteak egin ostean, hirugarren pauso honetan, sortaren bukaera eta itxiera suposatuko duen honetan, berriro ere entzulearengan eragitea da helburu nagusietako bat. Bertsoa esaera zahar batekin hasten da, ahozkotasan ukitu bat marraztuz eta beraz, herrikoitasun tonua azpimarratuz (nahiz eta idazleei eragiteko asmoa izan).

Alperrik dan lez ur juanagaz  
Ibiltia esigiñen,  
Damuz on barik gero esaten:  
“Ai geu be joan ba'giñen!”  
Alde batera itxirik zeuen  
Arazo edo egiñen,  
Belu begira on barik emon  
Ixenok ainbat ariñen. (K193h)

## 6. Naturazkoak

Atal honetan naturari buruzko motiboak oso era nabarmen eta indartsuan erabiltzen dituzten bertso-sortak sartzeko asmoa genuen, baina konturatu gara atal honetan Urretxindorraren bertso-sorta osoak sailkatzea oso zaila dela. Izan ere, natura bera edota bere elementuak ahapaldi askotan motibo nagusiak izan daitezkeen arren, sorta osoa kontutan hartuta abertzaletasuna zein sinismena bezalako motiboak izaten ohi dira indartsuagoak.

Ahapaldia hartzen denean unitatetzat corpusa zabalagoa izaten da; izan ere, sorta baten mezu nagusia abertzaletasunaren goraipamena bada, ahapaldi isolatu batzuetan (gaia kokatzeko balio dutenak) motibo hori naturazko motibo batez ordezkaturik egon daiteke. Atal honetan, printzipioz, ez dagokigu ahapaldi solteak aztertzea. Hala ere, salbuespenen bat egingo dugu, kontutan hartuta sorta baten bi ahapaldi, edo gehiago, jarraian kokaturik izadiari buruzkoak izan daitezkeelako, eta nolabaiteko “sorta” bat osatzen dute beste gaiari buruzko sorta baten.

“Ai, ze ederra!!” bertso-sorta da naturazkotzat kontsidera daitezkeen bakarretakoa, eta bera ere zalantzarik. Motibo abertzalea azken bertsoaren hiru puntutan agertzen da soilik, baina azken bertsoa izateak garrantzi handia ematen dio motiboari. Hala ere, kontutan hartu behar da bederatzi ahapaldiko bertso-sorta dela, ia bertso guztietan (azkena barne) agertzen dela naturari lotutako motiborik. Hori bai, ahaztu gabe, zazpigarren bertsoetik aurrera, alegoria funtzioa areagotu eta nabarmen egiten dela.



Bertso sortaren azpiko edo sakoneko tonua da arima barnetik ateratzen den **deiadar** lasai eta gozo bat, naturak bere barealdian egileari iradokitzen duenari so egiterakoan. **Deiadarra** lasaia da, gogoko duen naturaren egoera bezalakoa. Horrek ez du galarazten narrazioa izatea hala ere. Pausook antzeman daitezke beraz:

### 1. pausoa (lehenengo hiru bertsoak)

Itsasoa eta kostaldeko herrixka bat barealdian erakusten dira eta honek egileari bakezko eta pozezko egoera eragiten dio.

Zein ederra dan barealdijan  
Itxaso zabal bardin-bagia,  
Beren sendijaz jolasten alai  
Dabillanian uren amia,  
Janzki urdiñez apain jantzirik  
Dagualarik ortze argija,  
Aintzaz ta gentzaz direanian  
Poz-atsegiñez goya ta beya. (K049d)

### 2. pausoa

Ekaitza agertzen da eta umeak zikintzen dira. Amak garbitzeko exijitzen die. Umeak garbitzen dira.

Axia asten da txistua joten,  
Ostotsa barriz daborrotsian,  
Su-zirikoska tximista eta  
Odeyak dantzan gaudi gustijan:  
Itxas-umiak ikusi nayaz,  
Ortzadar ziar une batian  
Igon nai dabe an ibilteko  
Biuurriakin goiko nastian. (K049g)

Euren amagaz bat ein nai dabe;  
Ameak, baña, esaten deutse:  
"Etzaituet nai ekaitz usaindun  
Janzki zikiñok garbitu arte; [...] (K049j)

Esan gabe doa zikinkeriak eta amaren garbitzeko aginduak balio sinbolikoa dutela.

### 3. pausoa

Hasierako bakezko egoerara itzultzen da giroa, eta alegia hau harturik egileak irakaspen kultural eta azken finean politiko bat eskaintzen du:

Oi, zein ederra dan itxasua,  
Zein ederran dan ... bare-aldijan!  
Zein ederra zan Euzkel-Errija  
Beren buruen jaube zanian!!

Erri maite au, Erri gaxo au!!  
 Noz jarriko da lengo senian?  
 -Jainko-lagija zuzen gorderik  
 Euzkeldunduten garianian. (K049l)

## 7. Satirikoak

Bi bertso-sorta dira atal honetan sar litezkeenak, nahiz eta bertso satiriko asko egon (sakabanatuta) Urretxindorraren bertsogintzan. Bi sorta hauetan, zenbait jokamolde eta ohituren kritika egiten da, modu ironiko eta trufagarria, umore ukitu batekin.

### 7.1. “Karabiñeruen bizimodua”

Sorta honek oso era nabarmenean dauzka sarrera (lehenengo bertsoa) eta amaiera (azken bertsoa, hamargarrena hain zuzen). Gainontzeko diskurtsoak eduki satiriko horren inguruan dihardu, eta alderdi desberdinak jorratzen dituen arren, anplifikazioaren teknikaz<sup>163</sup> baliatzen da.

#### 1. pausoa. Sarrera:

Nai det berba gutxitan biar au amaitu,  
 Jenteak errezago ein dayan aditu:  
 Zer moduz egiten dan eguna amaitu  
 Karabiñeruekin ondo begiratu. (K162b)

2. pausoa. Gorputza: *karabineruen* zenbait jokamolde karikaturizaturik eta kritikaturik agertzen dira:

Ikusi ezketiño, barriz, euzkaldunak,  
 Baserritik noizik-bein etorten diranak,  
 Eurai ipinten deutsez bekoki illunak,  
 Ezertarako ez diran belarri-mozdunak. (K162f).

Geyenak dira eurak morrosko ederrak,  
 Txanka-me, praka-nasai, sorbalda bedarrak;  
 Zutunik ibilteko ez dira ain txarrak,  
 Dotore ipiñirik surpeko bixarrak. (K162i)

3. pausoa. Itxiera: esplizituki diskurtsoaren bukaera datorrela iragartzen da, eta gaiaren anplifikazioari ere amaiera bat ematen zaio.

---

<sup>163</sup> Teknika honen bidez, bertso-sorta honetan, sakoneko ideia bat ardaztat hartuta -hain zuzen karabineruak alper, harroputz eta nagusikerizaleak direla-, zenbait gogoeta agertzen dira, eta horrekin batera zenbait jokamoldeen deskripzioa ere. Demetrio Estébanez Caldernón-ek teknika hau definitzen du: "Figura retórica consistente en el desarrollo de un tema [...] por la descripción de circunstancias concomitantes de las que pudiera concluirse la dimensión de una cosa, <<sin que esta conclusión lógica (ratiocinatio) se realice>>", 1999, 32.

Arlo luziegira egin naz ni eldu,  
Orren bixi-modua egiten azaldu;  
Birtuterik egundo ez dabe zabaldu,  
Ta geyau esan barik biar dot ixildu. (K162k)

## 7.2. “Sakristauen Egikerak”

Aurrekoaren aldean narratiboagoa da azken sorta hau, ikuspegi satirikoa galtzen ez badu ere.

**1. pausoa** (aurreneko bertsoa). Sarrera: gaia, zehaztasunik gabe agertu arren, iradoki egiten da.

Adi-erazoteko neure gurariak,  
Bide batez esango ditudaz egiak:  
Sakristauak dirade kristiñau zoliak,  
Entzungarriak, barriz, euren pikardiak. (K162l)

**2. pausoa** (bigarren bertsoetik hamabigarrenera). Gorputza: sakristauen ohiturak agertzen ditu eta horren barruan gertaera bat kontatzen du. Kontaketa hori erreferentetzat harturik, sakristauen jokamoldeari iseka egiten zaio, haien “pikardiak” agerian utziz.

Mezea egin baño len adierazo,  
Jarten dabe ontzia beterikan oso,  
Ta barrukoa zelan egoten dan gozo,  
Sarritan oi deustie eperdia jaso. (K162o)

**3. pausoa** (hamahiru eta hamalagarren bertsoak). Itxiera: ondorio bezala azkenareko bertsoa eskaintzen da eta itxiera esplizituki azken bertsoan adierazten da:

Arlo luziegia nik egin dot artu,  
Zerren batak bestea oi deust gogoratu;  
Danak esanda iñor eztein asarratu,  
Geyago esan barik bear dot amaitu. (K163g)

## 8. Ondorioak

a) Hiru pausoko bertso sortak dira nagusiki Kepa Enbeitaren bertsogintzan ikusi daitezkeenak. Narrazioa, noiz edo noiz agertu arren, ez da oso elementu nabarmena sorta hauetan eta, beraz, estrategia narratiboak, teknika, eta egitura ereduak aztertzerik ez dagoela esan liteke.

Arrazoiketa eta irudi pilatze hutsa dagoela esango genuke, egitura finkorik erakutsi gabe. Era horretan, argumentuetan sakondu egiten du, haiekin bueltaka dabil, handik eta hemendik argudiatzen, esamolde eta irudi herrikoiak agertuz, eta azken finean, anplifikazioaren teknikari eutsiz.

Hori bai, Urretxindorraren bertsogintzan, argi dago nolabaiteko pausoak egon behar direla:

1. **Sarrera** bat egon behar dela gaien kokatzeko (modu zehaztugabeen bada ere), nahiz eta askotan, euskaldunentzat ezaguna den testuinguruarekin jokaten den. Hau da, gauza batzuk ez dira azaltzen jakintzat ematen direlako<sup>164</sup>.
2. **Gorputza**: narrazio, aipamen edo argudiatzeari emandako gunea da, non egileak bere mezuaren pisua eta indarra isurtzen dituen.
3. **Itxiera**: batzutan, bertsoaren tonuak berak iragartzen du sortaren bukaera. Beste batzutan esplizituki iragartzen da. Era horretan, Urretxindorrek burutuaren ezaugarria eranstean dio sortari, estilo erretorikoaren oihartzun bati men eginez bezala.

b) Atal honen hasieran aipatu dugun kontu bati lotuko gatzazkio orain. Esaten genuen (Juan Mari Lekuonaren termino bat erabiliz) produkzio mota hau erdi-ahozkotasunaren estilokoa zela (edo izan zitekeela), idatzizkoa zelako eta era berean ahozko estiloari eusten ziolako, neurri baten behintzat. Ikusitakoak ikusita, iritzi berdinekoak izaten jarraitzen dugu. Bestalde badago hasieran aipatutako kontu bat gogora ekarri nahi genukeena; izan ere, ondorio hauetan argi ikusten da bertso-paperen ezaugarriak ez direla horren garbi agertzen Urretxindorraren bertso-sortetan. Zergatia hauxe da gure ustez: aldizkarietan argitaratutako bertso-sortak direlako, hasieran aipatzen genituen Juan Mari Lekuonaren hitzak berretsiz.

c) Bertso-paperak eurak izaten ziren protagonista nagusia, saltzen edo entzulegoaren aurrean kantatzen zirenean. Gaiak ahozko kulturako gizakien gustukoak izaten ziren. Testuinguru komun, ezagun eta mugatu batean kokatzen ziren. Horrek kontakizuna errazten eta bultzatzen zuen, herri kronikaren funtzioa betetzeraino.

Urretxindorraren bertso-sortak ez dira tankera honetakoak. Salbuespen bakarrak, hau da, bertso-paperen tankera duten sortak, bere bertsogintzaren hasierako uneetan argitaratu zirenak izan ziren<sup>165</sup>, "garai abertzale" eta politikoa sartu baino lehen. Azken aro horretan bere entzulego potentziala ez

---

<sup>164</sup> Adibide asko jar daitezke honen inguruan eta batzuk agertu dira dagoeneko. Baina argigarri suerta dadin, hona hemen bat: "Lugiña dabilela gogor soloetan,/ Aberatsa luzerik oge epeletan;/ Jateko eztaben lez artorik errotan .../ Alde andia dago biximoduetan"(k163k). Testuinguruaz baliatuz, hitz gutxirekin gauza asko adierazten dira honetan. Alde batetik "lugiña" "gogor soloetan" dabilela dioenean, luginaren langintza gogorra, nekosoa eta latzari egiten dio erreferentzia. "Aberatsa luzerik oge epeletan" dioanean, nekazarien nagusiak eta dirudunak ekartzen ditu gogora. "Luzerik oge epeletan" egote horrek aberatsen bizimodu atseginagoari egiten dio erreferentzia, lan gogorrik (fisikoki behintzat) eskatzen ez duen bizimoduari hain zuzen. Eta bizimodu biak parekatzean, berehala sumatzen du hartzaileak justizia kontuei oratuko diela egileak sorta honetan.

<sup>165</sup> "Hasierako une" horietan argitaratutako sortak hauek dira, besteak beste: "Bei zarren bertsuak" (*Ibaizabal*, 1902), "Karabineruen bizimodua" (*Ibaizabal*, 1902), "Sakristauen egikerak" (*Ibaizabal*, 1902), "Lugiñenak" (1904), "Zainduko gaitu" (*Ibaizabal*, 1903), "Ama Begoñakuari" (Egurrolaren moldiztegia inprimitua, Gernika, 1906).

zen herri edo lurralde jakin bat: euskaldunei zuzentzen zitzairen, euskaldun landatar zein hirikoei; batez ere, mezu abertzalea onar zezaketen euskaldunei.

Aldizkarietan argitaratzeak honelako ezaugarriak garatzea ahalbideratu zuen:

- Gai abstraktuagoak garatzeko aukera: abertzaletasuna, erlijioa, maitasuna, eta abar.
- Era berean, prosan sakonkiago jorratutako gai abstraktuei bertsozko bertsio herrikoia emateko aukera. Urretxindorrek egiten duen uztardura oso interesgarria da; izan ere, oso estilo analitikoan garatzen ziren gaiek (abertzaletasuna Sabino Aranaren idazkietan, kasurako) bertsozko bertsioa izateak propagandarako tresna ona bilakatzen zuen jenero hau. Ideologia edo sinismen baten “eusleak” bihurtzen dira, herrikoitasunetik apenas aldentu gabe.
- Bertso-sorta laburrek, iragarki<sup>166</sup> edo zutabe laburraren tankera hartzen dute, inguruan duten kazeta edo aldizkari estiloari eutsiz.

Ezaugarri hauek Urretxindorren bertsoetan nabarmentzen hasi ziren beste bertsolariren bertsoetan baino askoz era indartsuagoan, bera bizi zela behintzat.

---

<sup>166</sup> Iragarki funtzioa diogunean, izan daiteke baita ere abertzale baten heriotzaren berri ematea. “Luzi Zabala’ren omenez” bertso-sorta laburra (hiru ahapaldikoa) izan daiteke horren adibide bat. Bertsozko iruzkin laburrak, eguneko santuari, jai erlijioso bati edo ospakizun bati eskainitakoak ere sail honetan sar daitezkeelakoan gaude. Adibidetzat “Ken eta jagon” (bi bertsokoa), “Mayatzen Amari” (bi bertsokoa) edo “Urtebetia” (bi bertsokoa) ekar ditzakegu hona.



## **5. kapituluua**

### **Estilistika**

## 0. Sarrera

Kepa Enbeitaren bertsogintzaren<sup>167</sup> zenbait alderdi aztertuak izan dira dagoeneko.

Hala ere, alderdika egindako azterketa bat ez da nahikoa bertsogintza mota honen analisia egiteko. Beste alderdi orokorrago bat jorratu beharra dago, eta hori estilistika<sup>168</sup> delakoan gaude; izan ere, estilistikaren ikuspuntutik, Urretxindorra bezalako bertsolari baten erretorika<sup>169</sup> sakonkiago ezagutu ahal izango baita.

Egia esan, orain arte egindako azterketa estilistikoa ere izan da, edo zehatzago esanda, estilistikaren alderdi bati egokitu zaio. Alderdi horri formala dei geniezaioke, nahiz eta arestian aipatu denez, esanahiarekin estuki lotuta bezala kontsideratu eta aztertu izan dugun. Alderdi formal horrek zenbait arlo desberdin ditu: hoskidetasuna, azken puntuaren erabilera, ahapaldi zein sortaren egitura eta abar. Alderdi horiek diskurtso mota jakin bati lotuta daude. Baina eurek soilik ez dute gardenki islatzen diskurtsoaren muina, edo diskurtsoaren estiloa. Diskurtsoa osatzeko bi pauso kontutan hartu izan dira batez ere: *inventio* eta *dispositio*<sup>170</sup>. Pauso biok hartu dira kontutan, bai, baina ez bere osotasunean, hoskidetza, azken puntua eta egiturari dagokienez baino. Estilistika atal honetan aukera izango dugu bi pauso hauen beste alderdiak ere aztertzeke.

Bertsogintza mota hau aztertu nahi aldera beste aurrerapauso bat eman beharra dago, eta horretarako estilistika gu laguntzera dator. Aztertu beharreko beste pausoa *elocutio*<sup>171</sup> delakoa da, aurreko biak ahaztu gabe, jakina.

---

<sup>167</sup> Urretxindorraren bertsogintza aipatzen dugunean, batez ere jasotako produkzioari egiten diogu erreferentzia, eta corpus hori idatzizkoa da nagusiki, hau da, Kepa Enbeitak berak konposatu eta idatzitako bertsoak dira gehien baten, salbuespen gutxi batzuk kenduta.

<sup>168</sup> Hona hemen Estébanez Calderón-en definizioa: "Término con el que se designa una disciplina que tiene por objeto estudiar las características de la expresión lingüística individual o de un grupo, y, especialmente, del estilo literario de un escritor, de una obra, escuela e, incluso, de una época. El estilo, entendido como manera de hablar o de escribir, constituía, en la cultura clásica grecolatina, objeto de estudio de la Retórica. Esta disciplina, si en un principio era una ciencia de la expresión o discurso oratorio, se fue convirtiendo (y en tiempos de Cicerón y de Quintiliano hay ya constancia de ello) en una ciencia de la elocución, en la que ocupaban un lugar prevalente la expresión figurada y el ornato verbal propio del discurso literario", 1999, 375.

<sup>169</sup> Ezin da ahaztu, estilistika erretorikaren disziplina bat dela.

<sup>170</sup> Bi pauso hauek tradizionalki ondo hitz egiteko arteak zituen arauetan kokatzen dira. Diskurtsoa ondo eratzeko, bost pauso eman behar omen ziren. Horrela azaltzen du Kurt Spang-ek: "[...] se establecieron para ello cinco pasos correspondiendo a cinco fases de elaboración que van desde la búsqueda de ideas acerca de un tema determinado (*inventio*), pasando por el adecuado ensamblaje (*dispositio*) y la formulación lingüística (*elocutio*) hasta la memorización (*memoria*) y la preparación de la presentación en público (*actio*)", 1979, 65.

<sup>171</sup> *Elocutio* delakoari erreferentzia eginez, horrela azaltzen du Kurt Spang-ek: "Todo un catálogo de virtudes y vicios retóricos regula el empleo de los recursos de la *elocutio* entre los que elige el orador según convenga [...]", 1979, 69. Aipatutako bertute eta bizioen katalogo horretan *ornatus* edo estetika



Horretarako, tradizionalki egin den legez, irudi erretorikoak eta tropoak hartuko dira kontutan. Irudi eta tropo hauek beraz, *inventio*, *dispositio* eta *elocutio* deitutakoak hartzen dituzte kontutan.

Asko eta eztabaidagarriak dira egin diren baliabide erretorikoen<sup>172</sup> sailkapenak. Erretorikaren beraren nondik norakoak ere ez daude guztiz finkatuta<sup>173</sup>. Gaur egun, ordea, sailkapenik sonatuena, eta itzal luzeena duena, Lausberg-ena<sup>174</sup> da. Jakina, aurreko tratatu eta manualen sailkapenetan oinarrituta dago eta beraien abstrakzio edo idealizazio bat da:

Las reglas del *ars bene dicendi* se refieren por tanto a la concepción, a la configuración y a la pronunciación del discurso. Alrededor de cada una de estas fases los retóricos han venido elaborando una normativa específica y detallada que aquí sólo quiero esbozar basándome predominantemente en el esquema establecido por H. Lausberg. Este esquema lausbergiano, como todo sistema retórico establecido por él, requiere cautela, puesto que puede surgir la impresión de que la retórica clásica o escolar haya sido una construcción sutil, rigurosa y acabada. En realidad no es así. El estudio, admirable por lo demás, es una idealización, hecho que no le quita eficacia y mérito<sup>175</sup>.

Erabilgarriagoa iruditu zaigu, ordea, ondoren erakutsiko dugun sailkapena, Lausbergenarekin bat datorrena, baina modu sinpleagoan azalduta dagoena. Hori bai, irudi zein tropo bakoitzaren definizioak eskaintzerakoan, Lausberg-en definizio multzoa erreferente ezinbestekotzat izango dugu. Beharbada, sailkapen hori ez dago horrenbesteko zehaztasunez azaldua, baina sailkapen argia da eta behar dugun azterketa motarako sobera praktikoa.

---

aipatzen du. Bertute hau, estetika zaintzea alegia, batzutan argitasunaren kontra joan daiteke; izan ere, tropo eta irudiak bertute honen pean sailkatzen dira, eta azken hauek, erabilera arruntatik egindako aldentzeak dira. Horrela azaltzen du Kurtek berak: "La ornamentación retórica está proclive a infringir el principio de la claridad, porque todo el canon de desviaciones del uso habitual, las figuras y los tropos, forman parte del *ornatus*. [...] La función del *ornatus* es la de deleitar (*delectare*) al público, sorprendiéndolo mediante los recursos de alienación que constituyen el empleo de figuras y tropos", 1979, 78-79.

<sup>172</sup> Hemendik aurrera "baliabide erretorikoak" izen sintagma erabiliko dugu, *ornatus* delakoaren barruan kokatzen diren irudi eta tropo multzoa izendatzeko.

<sup>173</sup> Horrela azaltzen du Kurt Spang-ek alderdi hau: "A pesar de que fácilmente se suscite la impresión de unidad, el sistema de la retórica no es una doctrina acabada y atemporal", 1979, 57. Horrezaz gainera, XIX. mendetik honantz erretorikaren literaturizazio bat gertatu da, hau da, Erretorika hasiera baten ahozko produkzioari zuzenduta zegoen, baina apurka apurka, produkzio idatzia ere bideratzeko eta aztertzeko garatzen joan da. Hernández Guerrero-ren *Historia breve de la Retórica* izenburudun lanean hori azaltzen da: "En este siglo (XIX. mendeaz ari da) se generaliza el fenómeno de la "literaturización" de la Retórica que, en parte al menos, es consecuencia de las nuevas posibilidades de difusión y de distribución que se ofrecen a la palabra escrita. [...] Ofrece, además, la ventaja de que el discurso se elabora con mayor cuidado, e, incluso, de que se puede adaptar de diferentes maneras a la situación social y al nivel cultural de los múltiples lectores", Hernández Guerrero, J.A., 1994, 150. Alde honetatik beraz, ez genuke arazorik erretorika bat-bateko zein idatzizko bertsolaritzari aplikatzeko orduan.

<sup>174</sup> *Elementos de retórica literaria* lanaz ari gara, gaztelarazko izenburu horrekin 1975an Madrilan argitaratua izan zena.

<sup>175</sup> *Ibidem*, 65.

Jakina denez, azken aldiotan ahozketasunari eskaini zaion trataera berria<sup>176</sup> kontutan hartuko da azterketa honetan. Arestian esan dugunez, Kepa Enbeitarengandik guregana iritsi zaigun produkzio gehiena berak idatziz paratutakoa izan da. Lehengo inpresio batean badirudi literaturtasun hutsetik egin beharreko azterketa dela. Baina produkzioaren testuingurua eta egilea bera kontutan hartuta, ondorengo eragile hauek ahaztu behar ez ditugulakoan gaude:

- Kepa Enbeita bat-bateko bertsolaria izan zen, sarritan jendaurrean inprobisatzen zuen, bai bakarka zein beste bertsolarik lagundurik.
- Urretxindorraren bertsogintza idatzian ere, bat-batekoan erabiltzen diren ahapaldi motak, doinuak<sup>177</sup> erabiltzen dira.
- Muxikako bertsolari honek erabiltzen duen erregistroa, iruditegia eta tonua, estilistikoki bat-bateketasunari nahiko lotuta daude, eta orduko euskal entzulegoaren erregistrotik ez da aldentzen<sup>178</sup>.

Beraz, ez da izango azterketa literario hutsa, hau da, literaturtasuna ez beste aztertuko duena. Ahozketasunaren eragina, estiloa, ezaugarriak, psikodinamikak ikuspegi berezi baten osagaiak izango dira, eta ikuspegi berezi hori izango da Urretxindorraren bertsogintza aztertzeke tresna, edo galbahea.

Hona hemen Kurt Spang-ek (1974) egiten duen baliabide erretorikoen sailkapena, kontutan hartuko duguna:

## 1. KOKAPEN IRUDIAK

### 1.1. orden arrunta aldatzen denean

#### 1.1.1. anastrofea, 2. hiperbatona, 3. parentesia, 4. *mixtura verborum*

### 1.2. orden arruntari eusten zaionean

#### 1.2.1. paralelismoa, 2. kiasmoa, 3. *summation schema*

## 2. ERREPIKAPEN IRUDIAK

### 2.1. elementu berdinak errepikatzen direnean

#### 2.1.1. kontaktuan izanik

---

<sup>176</sup> Eric A. Havelock ikerlariak bere *Muse learns to write* (1986) lanean, geroago (1996an) gazteleraz argitaratu zen horretan, azaltzen du ahozketasunak 60ko hamarkadan izan duen ikerketa. Batez ere hirugarren kapituluari, "El descubrimiento moderno de la oralidad" izenekoan, gai hau ikertu zuten bost liburuak ditu aztergai, nolabaiteko inflexio gunea suposatu zutelako ahozketasunaren ikuspegian.

<sup>177</sup> *Gure Urretxindorra* liburuaren azken aldera, eranskin bezala erabilitako doinuen pentagramak agertzen dira. Euretako batzuk oso zabalduak egon ez arren, herrikoiak dira gehienak, edo behintzat Muxika herrian ezagunak, Jon Enbeitak berak aitortu digunez hari egindako elkarrizketa baten.

<sup>178</sup> Urretxindorraren garaiko beste literatura egileek, ostera, ez zuten oso erregistro herrikoia erabiltzen, literatura kultua jorratzen zuten. Horren adibidetzat, Lauaxeta eta Lizardi har ditzakegu. Esate baterako, Lauaxetak, behin baino gehiagotan Urretxindorarekin batera ekitaldi politikoetan parte hartu zuena, hizkera jasoa erabiltzen zuen, neologismo eta aditz sintetikoaren erabilera ugariarekin, eta erreferentzia kultural modernoekin askotan.

2.1.1.1. geminazioa, 2. anadiplosia, 3. kateaketa

2.1.2. elementuen artean aldea izanik

2.1.2.1. erredizioa, 2. anafora, 3. epifora, 4. konplexioa, 5. polisindetona, 6. aliterazioa/ asonantzia, 7. diseminazioa

2.2. nolabaiteko antzekotasuna duten elementuak errepikatzen direnean

2.2.1. hitzaren zati bat aldatzean

2.2.1.1. paranomasia, 2. polipotea, 3. eratorketa

2.2.2. hitza osorik aldatzean

2.2.2.1. sinonimia, 2. gradazioa edo mailaketa/ *climax*, 3. pleonasmoa/ tautologia

2.2.3. esanahia aldatzean

2.2.3.1. diafora - dilogia, 2. *calambur*

### 3. ANPLIFIKAZIO IRUDIAK

3.1. argumentua anplifikatzean

3.1.1. zerrendatzea, 2. distribuzioa, 3. definizioa, 4. zuzenketa, 5. kontziliazioa/ desberdinketa, 6. dubitazioa, 7. antitesia, 8. *oximoron*, 9. entimema/ silogismoa.

3.2. anplifikazioa pilatuz

3.2.1. pilaketa, 2. *commoratio*, 3. deskripzioa, 4. perifrasi, 5. digresioa, 6. konparazioa/ simila, 7. *fábula exemplum*, 8. adjetiboa/ epitetoa, 9. epifrasia.

### 4. OMISIO IRUDIAK

4.1. elipsia

4.2. zeugma

4.3. asindetona

4.4. perkusioa

4.5. erretizentzia

### 5. APELAZIO IRUDIAK

5.1. galdera erretorikoa

5.2. *communicatio*

5.3. *sermocinatio*

5.4. *simulatio/ dissimulatio*

5.5. *exclamatio*

5.6. apostrofea

**6. TROPOAK**

- 6.1. perifrasi
- 6.2. sinekdokea
- 6.3. antonomasia
- 6.4. enfasi
- 6.5. *litotes*
- 6.6. hiperbolea
- 6.7. metonimia
- 6.8. metafora
- 6.9. alegoria
- 6.10. ironia
- 6.11. eufemismoa
- 6.12. arkaismo/ neologismoa

Aurreko eredia baztertu gabe, oster, Pelayo H. Fernández-ena (1975) ere erabilgarriagoa da, batez ere bertsolaritza bezalako genero batere ponposoa ez dena aztertzeko tenorean:

**A) AHOSKATZE IRUDIAK****I. Hitzen eransketa**

Pleonasmoa, sinonimia, epitetoa eta abar.

**II. Hitzen elisioa**

Elisioa, asindetona...

**III. Hitzen errepikapena.**

Anafora, kateamendua, polisindetona, egitura paralelistikoa...

**IV. Hitzen konbinazioa.**

Aliterazioa, deribazioa, hiperbatona...

**B) PENTSAMENDU IRUDIAK****I. Deskriptiboak**

Deskripzioa, enumerazioa...

**II. Patetikoak**

Harridura, galdera erretorikoa, apostrofea, hiperbolea, prosopopeia edo pertsonifikazioa.

**III. Logikoak.**

Sententzia, errefraua edo esaera zaharra, konparazioa, antitesia edo kontrajarpena, paradoxa, gradazioa, ñabardura...

**IV. Zeharkakoak <sup>179</sup>**

Itzulingurua, alusioa, eufemismoa, ironia, sarkasmoa...

**C) TROPOAK**

Sinekdokea, metonimia, metafora, alegoria eta parabola, sinboloa ...

---

<sup>179</sup> "Oblicuas" terminoa itzultzeko *zeharkakoak* erabili dugu, izan ere horren pean sailkatzen diren irudiek ere zeharka edo adierazten dituzte gauzak.

## 1. Ahoskatze irudiak

Ahoskatze irudiez ari garelarik, esan behar da batez ere *dispositio* eta *elocutio* berbaldiaren zatiei eragiten dietela irudi hauek, eta hemen aurkezten den irudien sailkapena aldagarria dela teoria batetik bestera, nahiz eta irudi bakoitzaren definizioa ia-ia guztiz berdinak izan guztietan.

*Elocutio* izenekoari zenbait bertute eta bizio egozten zitzaizkion erretorika klasikoan<sup>180</sup>. Ondo hitz egiteari ordea, zenbait lizentzia zilegi zitzaizkion, hau da, erabilera arruntetik aldentze batzuk, persuaditzea edo entzulearengan eragitea lortuko bazen. Lizentzia horiek *aptum*, *puritas*, *perspicuitas* eta *ornatus* ziren. *Ornatus* hau aztertetik eta arautzetik sortu da estilistika eta horren barruan, irudi estilistikoak<sup>181</sup> arautu izan dira.

Ahoskatze irudietatik Urretxindorrek bakar batzuk izan zituen gogoko, erabilerari dagokionez behintzat. Gehien bat, ahozkoatasunarekin zerikusitu zuzena duten irudiak dira, hau da, mezuaren ahozko transmisioan arrakasta bermatzen dutenak, edo behintzat oihartzun edo atarramentu gehien duten irudiak, alegia.

### 1.1. Hitzen eransketa

Hitzen eransketa diogunean hitzen pilaketa ere esan nahi dugu. Hitzak eransteke modu desberdinak daude eta ondoren ikusiko ditugu batzuk. Guztietan zer edo zer dago komunean: nukleo bati (izen bat dena gehienetan) zerbait eransten zaio, zerbait hori elementu bat edo batzuk izan daitezkeelarik. Hau ahozko estiloaren ezaugarri bat da. Idatzizko pentsaeran, berriz, pentsaera linealagoa da, arrazonamenduan azkarrago eta logikoago aurreratzen da. Pentsamendu horrek, ostera, badauka arriskua eguneroko errealitatetik aldentzeko, aparteko bilakaera bat izateko (oso logikoa izan arren), eta gainera,

---

<sup>180</sup> Horrela azaltzen du gertaera hau Kurt Spang-ek: "El sistema de las <<virtudes>> y de los <<vicios>>, hoy diríamos cualidades y defectos del discurso- que se incorpora dentro de la *elocutio*-funcionaba como una especie de regulativo que proporcionaba al orador/ autor los criterios límites del buen decir, tanto desde el punto de vista de la eficacia como de la estética. La meta que estaba llamado a alcanzar era la virtud, contra la que podía pecar por defecto o por exceso, incurriendo así en un *vitium*", 1979, 73.

<sup>181</sup> Lausberg-ek horrela definitzen du *ornatus* delakoa: "El *ornatus* responde a la pretensión del hombre (tanto del hablante como del oyente), a la belleza en las manifestaciones humanas de la vida y a la autoexposición humana en general. Con lo que el *ornatus* alcanza, con su intención funcional, la esfera de las artes superiores", 1975, 89. Aurrerago azaltzen du nola lizentzia honetatik sortzen diren pentsamendu irudiak eta hizkuntza irudiak: "La pretensión de belleza del *ornatus* se refiere tanto a los pensamientos como a la formulación lingüística. Hay, pues, un *ornatus* del pensamiento, y un *ornatus* del lenguaje", Ibidem, 89-90. Kurt Spang-ek *ornatus*en definizioa eskaintzen du: "El *ornatus* es la <<virtud>> de la belleza de la expresión. Se refiere tanto al valor estético de las ideas como al de su formalización. La ornamentación retórica está proclive a infringir el principio de la claridad, porque todo el canon de desviaciones del uso habitual, las figuras y los tropos, forman parte del *ornatus*", Ibidem, 76-77.

pentsamendu horrek apenas dauka euskarririk memorian atxikitzeko (beraz, nekez izango da “popularra” edo herrikoia).

Ahozko estiloan arrakasta izan nahi duen produkzio batek pilatzailea izan behar du, izan ere gizakiok ohituta gaude elementu batzuk besteekin erlazionatzen oso era grafiko eta oroiterrazean:

Esta característica está estrechamente ligada a la dependencia de las fórmulas para practicar la memoria. Los elementos del pensamiento y de la expresión de condición oral no tienden tanto a ser entidades simples sino grupos de entidades, tales como términos, locuciones u oraciones paralelos; términos, locuciones u oraciones antitéticos; o epítetos. [...] De esta manera, la expresión oral lleva una carga de epítetos y otra bagaje formulario que la alta escritura rechaza por pesada y tediosamente redundante, debido a su peso acumulativo (Ong, W., 1987, 44-45).

### 1.1.1. Epitetoak

Epitetoaren azterketa zehatza eta sakona Gonzalo Sobejanok egiten duena da, bere *El epíteto en la lírica española*<sup>182</sup> izeneko liburuan. Bertan epitetoaren azterketa egiten da hainbat ikuspuntutik. Hasteko erretorika eta gramatikaren ikuspuntutik kontzeptu honek izan duen bilakaera historikoa egiten da. Bereziki interesgarria iruditzen zaigu, epitetoaren balio semantiko eta estilistikoaren azterketa. Izan ere, epitetoa egile bakoitzaren estiloaren isla edo adierazgarri da askotan. Baina ez hori bakarrik:

No sólo un poeta usa con preferencia determinados epítetos, sean éstos usuales o raros; también las épocas, en cuanto forman etapas de producción literaria que responden con unidad a un estilo vigente, revelan claras preferencias por determinados modos de epítesis, por determinada manera de connotar imaginativa y afectivamente las cualidades de los seres (1957, 171).

Egile bakoitzaren ekarpen berezia albo batera laga gabe, onartu behar da garai desberdinetan epiteto desberdinak erabili izan direla, eta hori ahoz zein idatziz.

Irudi honen erabilera ahozkotasanaren ezaugarritzat hartua izan da. Behintzat horrela adierazi dute zenbait oralistek. Walter Ong-ek ahozko hizkerak gustuko duen hitzen ugaritzea edota pilaketa aztertzerakoan honela dio:

Los elementos del pensamiento y de la expresión de condición oral no tienden tanto a ser entidades simples sino grupos de entidades, tales como términos, locuciones u oraciones paralelos; términos, locuciones u oraciones antitéticos; o epítetos. La tradición popular oral prefiere, especialmente en el discurso formal, no al soldado, sino al valiente soldado; no a la princesa, sino a la hermosa princesa; no al roble, sino al fuerte roble. De esta manera, la expresión oral lleva una carga de epítetos y otro bagaje formulario que la alta escritura rechaza por pesada y tediosamente redundante, debido a su peso acumulativo (1987, 45).

---

<sup>182</sup> Gredos, Madrid, 1956.

Epiteto batek izaera formularioa izan dezake, eta horretaz konturatu zen Milman Parry Homeroren poemak aztertzerakoan, eta horrela ekartzen du gogora Ong-ek:

El poeta oral contaba con un abundante repertorio de epítetos, lo bastante variados para proporcionar uno para cualquier necesidad métrica que pudiera surgir conforme desarrollaba su relato (1987, 29).

Hemen epitetoari aplikatu zaiona, zentzu orokorragoa duen formulari<sup>183</sup> ere aplika dakioke. Izan ere, epiteto formularioaz ere hitz egin zuen Milman Parry-k, eta estilo formularioan kokatzen zen haren arabera.

Egia da ahozko formula-teoria zalantzan jarria izan dela geroagoko azterketetan. Ñabardura ugari gehitu zaizkio, baina ez zeharo ukatzeraino. Ruth Finnegan-ek, adibidez, bere *Oral poetry* liburuan teoria honi egin zaizkion zuzenketak edota ñabardurak biltzen ditu paragrafo baten. Bertan gogoratzen du ahozko estilo formulario batek ez duela derrigorrez adierazten ahozko konposizio bat. Formularen definizioa ere berrikusi behar dela adierazten du, eta halako baten Parry-ren ahozko estilo formularioa ugaritasun larregiz eta kasu gehiegitan aplikatu dela baieztatzen du:

A 'formulaic' style is not therefore inevitably a proof of 'oral composition'. Theorists have now to accept that since there can be both an 'oral' and a 'literary' use of formulae one cannot necessarily discriminate between 'oral' and 'written' on the basis of a 'formulaic' style alone. In other words, the excitement attendant on the discoveries about the 'oral-formulaic style' led some scholars to an extreme application of its findings (Parry, 1992, 70).

Joseph A. Russo, besteak beste, formula teoriaren errebisatzailea ere bada. Bere artikulu baten hiru puntu nagusitan oinarritu zuen berre berrikuspena:

The argument I have offered thus far centers on two main points. 1) Homer's fomularity is no necessary sign of oral composition, at least in the strict sense of the term imposed by the controlling analogy of the Yugoslav bards. At this is so partly because 2) we have no yet succeeded in defining Homeric fomularity adequately. I would there add, as point 3), that there is no reason, as far as I can see, for believing that all oral raditions require the same level of fomularity texture in the compositions of their poets (Russo, 1976, 47).

Urretxindorraren bertsogintza, esan beharra dago, ez da bereizten epitetoen erabilera ugariagatik. Euskal bertsogintza orokorrean ere, epitetoen erabilera ez da ugaria, baina hori erakusteko bestelako ikerketa baten egin beharko litzateke, guri oraingo, bete betean ez dagokiguna.

---

<sup>183</sup> Aipatua izan den arren, gogora ekarri dezagun berriz formularen definizioa: "A group of words which is regularly employed under the same metrical conditions to express a given essential idea", Lord, A.B., 1960, 30.

Urretxindorrek ez du sarriegi epitotorik erabiltzen eta horregatik bere estiloa ez da epitetoengatik nabarmentzen. Agian bestelako ahozko produkzioen eraginez epitetoaren erabilera kutsatu zaio. Arestian aipatu ditugun ezaugarriak eta irudiak honako hau baino indartsuagoak dira Urretxindorrenaren estiloa definitzerakoan, baina, epitetoen erabilera ezin da iruzkindu gabe utzi. Aurreko azpiatalean azpimarratu den tonu kalifikatiboaren barruan kokatzen da joera hau.

Badira kalifikatibo batzuk izen bati lotuta joaten direnak eta epitetoaren eitea berenganatzen dutela ematen du.

### - “Eguzki eder/ goxeko ixarra”

[...] Agur, Josu'ren ta geure Ama  
Eta Zaindari bakarra;  
Agur zeruko **eguzki eder**,  
Agur, **goxeko ixarra**; [...] (K034b)

Azken adibide hau Urretxindorrek Lourdesen kokatutako gertakizun baten girotzen da. Egileak ikuskari moduko bat izan du eta bertan Lourdeserako euskal erromesladi baten gorabeherak kontatzen dira<sup>184</sup>. Han daudelarik, Sabino Arana Urretxindorrenarengana zuzentzen da, bertso batzuk botatzeko eskatuz. Urretxindorrek pozez beterik, bertso aberkoi eta erlijioso batzuk kantatzen ditu, etorritako euskaldunei. Izan ere, gertaera horrek irudikatzen du orduko abertzaletasunaren helburuetako bat: euskaldun guztiak batzea, abertzaletasunaren (azken finean, Sabino Aranaren) gidaritzapean eta kontzientzia lasaituko dien erlijioaren babesean. Erlijioak, edo nahi bada, *goiko* laguntzak, hein handi batean ekimen sozial hori bermatzeko eta bedekatzeko eratua dagoela dirudi.

### - “Miren garbija”

Ama Birjinari loturik, “Miren garbija” epitetoa dugu.

Geruago ta sutsuau dua  
Ziñistez euzko sendija,  
Bijotz osuaz maitatu nairik  
Lourdes'ko **Miren garbija**. (K033c)

[...] Ondaturik daula esan lei  
Gaur ludirik erdija ...  
Erruki zadiz gugaz erruki  
**Miren Edurne garbija**. (K087i)

<sup>184</sup> Ebaristo Bustitza "Kirikiño" idazleak ere, 1909an, bertso hau publikatu baino lau urte lehenago, euskal ibildeun edo peleginazio baten parte hartu zuen. Oihartzun handikoa izan ziren ekimen horretarako Kirikiñok berak eraturako bi bertso: "Agur, Josu'ren Ama,/ Neskutz maitetsuba,/ Agur, **itxasoko izar**,/ Gure jabolia./ Agur, Donoki-euzki,/ Poz-pozez betia,/ Agur obendijoen/ Lior ta abarua". Adierazi behar da Urretxindorrenaren azken bertso honek ere Kirikiñoren antza duela, esamoldeetan. Gaur egun, oraindik orain Euskal Herriko elizetan kantatzen da kantu hori, neologismoak aldatuta.



[...]Ona baño be obia,  
Eskar gustijen jabia  
Zarian **Miren garbija**,  
Jaboixu Euzkelerrija! (K091i)

Anitzaldu daigun Josu-Biotza,  
Aintzaldu **Miren Garbia**;  
Aintzaldu baita Deun Mikel Gotzon,  
Euzkadi'ren Zaindaria. [...] (K108h)

Ezker aldetik ibaya,  
Eskubitikan mendia  
Aurre aldean txadon eder bat  
An dago **Miren Garbia** .  
"Tene"-k oni otoitz eiten dio:  
"Gaizkatu Euzkelerria". (K169f)

Epiteto arrunta dela konturatzeko ez da oso erne ibili behar, eta "Miren Sorkundez Garbia" sintagmatik eratorria izan litekeela dirudi. Horrek, noski, ez dio kentzen epiteto izaera. "Miren" izena erabiltzen duenean adjektibo egoki bat erabiltzeko beharra sumatzen da: behintzat horrela erakusten da, *garbia* adjektibo positiboarekin.

### - "Ama gaxoa"

Bestaldetik, Urretxindorrek darabiltzan zenbait substantibo adjektibo jakin batekin agertzen dira behin baino gehiagotan. *Ama* substantiboari *gaxoa* adjektiboa atxikitzea Urretxindorrek egiten duen amatasunaren erabilerarekin bat dator, eta logika horretatik ez da aldentzen. Hartzailearen errukia sortzeko bideratuta dago eta baliteke memoriari laguntzeko baliabide baten lorratza izatea:

[...] Beti aurrera, Jauna'n eskarrez,  
**Ama gaxo**ai laguntzen:  
Au zorundurik, Urtzi Deunari  
Bigurtu egin nai eutsen. (K040a)

[...] **Ama gaxo** bat oñazez dago  
Semeik onena galduta:  
Sukarrieta'n obiraldu dan  
Aberrijaren Ziñopa! (K051d)

Anai gustijai, itxartu daizan  
Erri, aran, mendi, baso,  
Euzkotar guren onek nai eban  
Bere **Ama** Aberri **gaxo** [...] (K039k)

### - "Sabin andija"

Epiteto honekin ere memoriari lagundu nahi zaiolakoan gaude, batez ere, Sabin izenari epikotasun ukitu bat eman nahi zaiolako, eta errepikatuz herriaren oroimenean zizelkatu nahi duela dirudi. Joera hau Ong-ek berak azaltzen du eta epiteto hauen erabilerarekin nolabaiteko erlazioa duela dirudi:

Los lugares comunes en las denuncias políticas de muchas culturas en vías de desarrollo de baja tecnología -enemigo del pueblo, capitalistas traficantes de guerras-, que parecen esenciales de la huella de los procesos orales de pensamiento. Una de las muchas indicaciones de las importantes, aunque estén subyacentes, muestras de la tradición oral en la cultura de la (antigua) Unión Soviética es la insistencia de hablar siempre de la "Gloriosa Revolución del 26 de Octubre"; en este caso, la fórmula adjetival representa una estabilización obligatoria, como lo fueron las fórmulas adjetivales homéricas: "el sabio Néstor" o "el ingenioso Odiseo", o como solía serlo "el glorioso Cuatro de Julio" en los grupos aislados, [...] (Ong, 1987, 45).

Oso gutxitan erabiltzen den arren, "derrigorrezko" epitetoaren itxura hartzen duela irudi du.

Garbatzen asi ziran odejak  
Ta agertzen ortze argija ...  
Euzko-semiak une atantxe  
Ekusen **Sabin andija** [...] (K040c)

[...] Alan jarri zan euzkotarra be  
**Sabin andija** i begira,  
Bere ikurriñaz eltzeko zuzen  
Euzko zorijonen kaira. (K040d)

Bostamargarren urte ... gixadi erdija,  
goguan jarrija,  
Abertzaletu zala **Sabin ain andija**,  
**Sabin ain andija**. (K056e)

### -“Txori abeslari”

Hau berez ez da sarritan errepikatzen den epitetoa, behin bakarrik aurkitu baitugu:

[...] pozik alikatzen naz  
gerizpen batian,  
**txorijak abeslari**  
diran bitartian. (K057d)

Hala ere, nabarmentzekoa da *txori* hitza *abes-* erroari lotuta zenbat biderrez agertzen den, bai puntu berean, bai bertso berean. *Abes-* erroa ez ezik, *txorrotxioka* bezalako adberbioak ere agertzen dira maiz:

Loraz beterik ziran landa ta zelayak,  
Zugatzik-zugatz, barriz, **abeska txorijak**;  
Txorijan abestijak eta lora usañak  
Geituaz eroyezan geure atsegiñak. (K032c)

**Txorijak** euren **abes** ederrez  
Baso ta mendi, goi ta be,  
Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,  
Ardi ta bildots baita be, [...] (K038c)

Beste **txorijok** basuan  
Pozez zoratute  
Yabiltzak **txiro-liroka**,  
Ezin aspertute.  
“-Ai, neu be, orreik lez, azke  
Baldin ba'nengoke...  
Gustiz alai ta pozik  
**Abestuko** neuke!” (K039a)

Etxe inguruko zugaztijetan  
**Txorrotxioka** ainbat **zozo**,  
**Txiroliroli** ta **urrugurruka**  
**Biregarro** eta **uso**,  
Ta beste enparau **txori** gustijen  
Ainbeste **abesti** gozo [...] (K047i)

**Txorijak** nun-nai abesten dabez  
Sekulako **abestijak**. [...] (K057l)

**Txori**-enda gustijak,  
Euren ameak lez  
**Abesti** berezijak  
Abestuten dabez. [...] (K065b)

**Txorijak txiroliro**  
Dagije basuan [...] (K070b)

“Iñora baño len agertzen da  
Eguzkija be mendira;  
**Txori-abesti** eztitsubenak  
Mendijan entzuten dira: [...] (K144h)

Ez gaude epiteto batzuen aurrean, baina bai epitetoaren indarra duen hitz jakin batzuen arteko loturaren aurrean.

## 1.2. Hitzen elipsia

### 1.2.1. Elipsia

Hitzen elisioa ahozketasunaren ezaugarritzat hartua izan da zenbaitetan<sup>185</sup>. Zergatik hori? Ahozko komunikazioan eta ahozko transmisioan oinarritutako kulturetan testuingurua eta jakintza komuna oso kontutan hartzen delako, eta jakintzat ematen delako<sup>186</sup>. Gauzak horrela, ahozko komunikazioa zuzenagoa da eta helburura<sup>187</sup> zuzenkiago bideratuta dago.

Eta hain zuzen ere, testuingurua hain kontutan hartzen delako, ahozko jardunean elisioak<sup>188</sup> egiteko joera izaten da. Elipsia existitu dadin beharrezkoa da elisioak egitea, zerbait omititzea alegia. Dagokigun corpusean biak batera datozelakoan gaude.

Elipsi horiek mota desberdinetakoak izan daitezke, eta hiru sail egin ditzakegu:

- Aditz elipsiak.
- Substantibo elipsiak.
- Bestelakoak.

Sailok oso zehatzak ez diren arren, gure azterketarako balio digute, batez ere Urretxindorrek lehenengo motako elipsira jotzen duela kontutan hartuz.

Xabier Amuriza bertsolari eta bertsolaritza ikerlariak kapitulu bat eskaintzen dio gai honi bere *Hitzaren kirol nazionala* liburuan. Bertan azaltzen ditu euskarak, hizkuntza bezala, dituen erraztasunak elisioak egiteko. Honela definitzen du:

---

<sup>185</sup> Lausberg-ek esaldiaren elementuen ekonomian kokatzen du irudi hau, *brevitas* delakoaren mesedetan beti ere (1975, 156-157). Ahozko komunikazio arruntenean bada ere, erretorikaren zentzuzko elementu hau ere bizirik dagoela esan daiteke, labur eta modu eraginkorrean hitz egiteko behar izana suertatzen baita.

<sup>186</sup> Walter Ong-ek adibide bat jartzen du, testuinguruan oinarritutako mezuak eta hitz egiterakoan dena esplizituki ez esatearen jarrera irudikatzeke: "Es ilustradora la historia de un visitante en el condado de Cork, Irlanda, región particularmente oral en un país donde todos los sectores conservan grandes muestras de la tradición oral. El forastero vio a un habitante de Cork recargado en la oficina de correos. Se acercó a él, tocó con los nudillos en el muro de la oficina de correos, junto al hombro del sujeto, y preguntó: '¿Es esta la oficina de correos?'. El lugareño comprendió muy bien. Contempló al que lo interrogaba con un aire de tranquilidad y mostrando gran interés. 'Es una estampilla lo que está buscando, ¿no?' Para él, la pregunta no estaba solicitándole información, sino que su interlocutor estaba tratando de lograr algo de él, por lo tanto hizo lo mismo, para ver qué sucedía", 1987, 72-73. Gertakizun honetan bezala, ahozko jardunean gauza asko ez dira esplizituki adierazten: Cork-eko biztanleak erantzun zezakeen azalduz hura postetxea zela. Baina berak bazekien, testuinguria ezagutuz, horretan ez zela bukatzen kanpotarraren jakinahia: postetxera bazetorren, gauza zehatz bat egitera zetorren, seilu batzuk erostera ziurrenera, eta horretaz galdetzen dio.

<sup>187</sup> Ahozko kulturetan hitzak boteretsuak dira, zerbait eragiteko, zerbait agintzeko, jarrera bat sortarazteko erabiltzen direlako. Horiei *verbomoteur* kulturak deitzen zaie, hitzak helburu mugiarazle bati zuzenduta daudelako: "Gran parte de la descripción anterior de la oralidad puede utilizarse para identificar lo que puede llamarse culturas "verbomotoras", es decir, culturas en las cuales, por contraste con las de alta tecnología, las vías de acción y las actitudes hacia distintos asuntos dependen mucho más del uso efectivo de las palabras y por lo tanto de la interacción humana", Ong, W., 1987, 72.

<sup>188</sup> Elipsiaz Juan Mari Lekuona mintzatzen da bere *Ahozko Euskal Literatura* lanean. Laburki jorratzen badu ere, dekorazio-olerkiak aztertzerakoan estilizazio prozedurek lau bide dituztela adierazten du: "1.- elisioak eginez; 2.- hitzen deformaketaz; 3.- hitz arrotzak tartekatuz; 4.- hots handiko hitzak tartekatuz", 1982, 41. Beraz, elisioak egitea estilizazio bidetaz hartzen du eta guk ere, dekorazio olerkietarako ez ezik, bestelako bertsozintzaren produkzioetarako ere horrela delakoan gaude.

Elipsia zerbait ezabatzea edo ulertutzat ematea da. Zerbait hori hitz bat edo gehiago izan daiteke. Baita esaldi osoa ere. [...] Bertsolaritzari dagokionez, elipsia hizketan baino askoz gehiago erabiltzen da. Neurri batzutan batez ere, ez dago bertsotan egiterik elipsi gabe (Amuriza, 1997, 300).

Ondoren aditz, aditz laguntzaile eta atzizkien elipsiak aztertzeraz igarotzen da, guzti hori egin ahal izateko testuinguruaren laguntza azalduz (Ibidem, 301-304).

Gotzon Garate ikerlariak ere, paremiologiaz argitaratu duen lan batean, ahozko genero batez aritzean beraz, zera esaten du:

Gauzak handitu gabe, euskal atsotitzek laburtasunean ez dietela beste hizkuntzetakoei zorrik esan liteke. Aitzitik, hamar hizkuntzez aztertu ditudan atsotitzetan, grekeraz, latinez, errusieraz, hindiz, alemanez, ingelesez, espainolez, frantsesez eta italianoaz, euskara errege izango litzateke.

Euskaraz bi hitzez osatuak diren esaera asko daude. Halaberean beste hizkuntzetan baino gehiago.

“Destinua jaiotzetikan” <heldu da>.

“Umek umengana” <jotzen dute>.

“Auntza mendira” <joan ohi da>.

“Hitzontzi, hutsontzi” <da>.

“Atzerri, otserri” <da>.

[...] Atsotitzetan ez ezik eguneroko hizkera arruntez ere, baserritarrek eta euskaldun garbiek esaera laburrak erabiltzen dituzte, aditz osoa iruntsiz edo aditz laguntzailea kenduz, partizipioa, infinitiboa edo erroa bakarrik erabiliz.

“Huraxe negargarria, euskaraz egiterikan ez eta erderaz jakin ez!”.

“Erbia hantxe eta eskopetarik ez!” (Garate, 1998, 63-64).

Goian esandakoa eta gogora ekarritakoa baliagarriak izan daitezke gure azterketarako, nagusiki azalpen teorikoak izan arren.

Aditzaren elipsia da, beraz, Urretxindorraren bertsogintzan ugariena. Mota horretako elipsiak oso arruntak dira, eta elipsitzat har daitezkeen arren, fosilizatzeko bidean daude agian, baina hori bai, nolabaiteko estilizazio zentzuaz eginda daudela dirudi. Elisio horiek egiteko, gainera, testuinguruaren euskarria behar da, batez ere bertsolaritza bezalako genero ulerterrazetan. Horrezaz gainera, elipsi hori ahozko jardunean egiten diren elipsien mota berekoa da, hain erabiliak diren adizkiak (dago, daude, da, dira... eta abar) suposatutzat<sup>189</sup> ematen direlako, eta ondorioz eliditu.

Agian desberdindu egin beharko lirarteke elipsi gramatikala eta testuinguruko elipsia<sup>190</sup>. Urretxindorraren kasuan biak daude asmo estilistiko bati zuzenduta, hartzailearen arreta erakartzeko eta testuari bizitasun eta azkartasun gehiago emateko, hain zuzen ere.

<sup>189</sup> Suposatutzat diogunean, komunikazio ekintza baten igorleak elisioa egitea ez dela oztopo hartzailearentzat esan nahi dugu. Are gehiago, eliditu dena (aditz bat, substantibo bat, e.a.) igorlearen adimenean ez ezik, hartzailearenean ere (ziurrenez) egongo da.

<sup>190</sup> Estébanez Calderón-ek behintzat desberdintzen ditu: "Así, en la frase 'hice tres cursos de inglés y dos de francés', se sobreentiende, lógicamente, dos cursos de francés. En este caso se habla de elipsis gramatical [...] En la frase 'en este momento acaba de llegar', el receptor del mensaje habrá captado su sentido si está dentro del contexto no verbal [...] En este caso se trata de una elipsis *contextual*", 1999, 309.

### 1.2.1.1. Izenen elipsiak

Oso gutxi dira, eta fosilduak daude, hau da, hainbestetan egiten dira ezen ez baitira aldentzen hizkera arruntetik:

Miren'en maitasunak  
eruan ninduan  
Ordutik ona ez dot  
besterik (BESTE GOGAMEN/ OLDOZMENIK) goguan. (K032a)

### 1.2.1.2. Aditzen elipsiak

Mota desberdinetakoak izan daitezke eta adibideak aski argigarriak dira horietaz jabetzeko.

#### 1.2.1.2.1. Aditz perifrastikoen elipsia

[...] Jel-izparringi baten  
gero iragarri (BEHAR DOT),  
Euzkoak jakin daijen  
ames onen barri. (K032k)

Bizkaya, Araba, Giputz ta Napar,  
Zubero eta Laburdi,  
Sei neba-arrebaz (OSATUTA DAGO/ OSATZEN DA) sendi bakarra  
Bere ama da Euzkadi. [...] (K033e)

Gixonan aldez Koskotegijan  
Josu Gurutzian il zan;  
Euzkadi'n aldez, Aren antzera,  
Sabin be Sukarrieta'n (HIL ZEN) (K035a)

#### 1.2.1.2.2. Aditz laguntzailearen elipsia

Adizkidiak asko eukozan  
Ta galdu zituban berez;  
Diruak urtu (ZITUAN), galdu (EBAN) osasun,  
Bixija emon (EBAN) Jel-aldez. [...] (K034i)

Maite ditubez guraso zarrak,  
Maite (DITUEZ) asaben Lagijak  
Uri, baserri, etxetxu zuri,  
Zelai, muru ta mendijak;  
Maite (DITUEZ) baratzak, itxaso zabal,  
Ibai eta iturrijak;  
Maite (DITUEZ) lenauko ekandu onak,  
Jantza ta jolas garbijak.  
Aupa, mutillak! Gora Euzkadi!  
Gora euzkotar gustijak! (K122i)

### 1.2.1.2.3. Adizkien elipsia

Egunez oroimenean  
gabez amesetan (NAGO),  
Zoraturik lez nabil  
Miren'en gauzetan. (K032a)

Zin esan emen euzkotar bakotxak  
“Gu Euzkadir'rentzako (GARA),  
Euzkadi Jaunantzat (DA).” (K032k)

[...] Beren esanak eiteko gertu  
Gastiak noz-nai, nun-gura (DAGOZ),  
Olan jaristen dabela eurok  
Jel-entzat ainbat onura. (K035i)

### 1.3. Hitzzen errepikapena

Urretxindorra oro har ez da errepikazalea. Agian eta hain zuzen bertsolaria delako ez du gustuko errepikapena. Ezin da ahaztu bertsolaritza genero ez tradizionala dela, hau da, bertsolaritzaren teknikaz eta bat-batean ekoizten dena ez dago konposatua herriaren memorian luzaro irauteko. Bertsoak momentukoari erantzuten dion produkzioa da, momentuko egoera komunikatiboari, nahiz eta gai betierekoak jorra ditzakeen. Joera orokor horrek, noski, bere salbuespenak ditu bertso antologiko deiturikoetan, bat-batean botatako bertsoak izanik, herriaren memorian gelditu direnetan hain zuzen<sup>191</sup>.

Badira zenbait bertso-sorta non egitura paralelistikoak agertzen diren. Hala ere, Bat-batekotasunari baino, idatzizko poesiari lotuago daudela ematen du. Aipa ditzagun hala ere:

#### - “Uste bako eriotza”

Bederatzi bertso dituen sorta honetan hiru multzo daude. Lehenengo multzoa hiru bertsokoa da eta bukaera hau dauka: “[...] etzan ain gasterik/galduko zan usterik”. Hona hemen lehenengo biak:

Zugatz ain  
gastia,  
eder loraz betia,  
igali ain gurgarri  
emoten eban ori

---

<sup>191</sup> Zein den bertso antologikoa eta zein ez bereiztea lan zaila da. Baina badira batzuk, zalantzarik gabe antologikoak dei ditzakegunak: Xenpelarren “Aizak i mutil mainontzi”, Txirrita eta Pello Errotaren arteko “Ari naizela, ari naizela” eta abar luze bat. Urretxindorraren bertso antologikoak dira “Viva España didarka dagoz” eta “Zenbat persona dauzan”. Biak izan ziren bat-batean botatakoak eta herriaren memorian gordeak, agian une horretan sortu zuten eraginagatik, agian memoriak gordetzeko dohain bereziak dituztelako.

**etzan ain gasterik  
galduko zan usterik.** (K088d)

Baratza batian,  
toki ain egokian  
aurkituten zanian,  
sasoirik onenian

**etzan ain gasterik  
galduko zan usterik.** (K088e)

Bigarren multzoa lau bertsokoa da eta bukaera hauxe errepikatzen da:  
“[...] berauxe ziñan ba/ zu Eltxo'tar Joseba”. Hona hemen pare bat bertso:

Bat-baten  
dau bota  
arrak sustarran jota  
Usteltzen da lorea  
baña bein be ez urrea:  
**berauxe ziñan ba  
zu, Eltxo'tar Joseba.** (K088g)

Ni lako  
ez-jakin  
askok oi dautso ekin.  
Baña banakatxuak  
oi dira jakintsuak:  
**berauxe ziñan ba  
zu, Eltxo'tar Joseba.** (K088h)

Hirugarren multzoko bertsoak hauexek dira:

Joseba  
il dala!  
Ai, au gure tamala!  
Ezkutau da luditik  
Jaunak daki zegaitik.  
**Or goyan zuk, Josu,  
zoruna emoyozu.** (K088k)

Euzkotar gustiak,  
zarrak eta gastiak,  
biotzez ta kemenaz  
otoi bana esanaz:  
**“Or goyan zuk, Josu,  
Zeuretzako gordeizu.”** (K089a)

Azken finean leloaren funtziora hurbiltzen den itxiera mota bat da hauxe,  
bertso kopuru txiekietan errepikatzen dena. Mezua indartzeko modu bat da.

- **“Itxas-ertzian”**



Sabino Arana oroitzuz konposatutako “itxas-ertzian” bertso sortan, bertso askoren bukaeran Sabinoren oroimena egiten da martiri edo *ziñope* bezala gogoratuz:

Iturri eta errekatxuak  
 Jasteira beko ibaira;  
 Ibaya dua oneik artuta  
 Itxaso zabal andira ...  
 Onegaz topo egin dabe-ta,  
 Ertzian geratzen dira,  
 Goratxuago ixil-ixillik  
**Daun Ziñopea'n** begira. (K045b)

Aixe-bolada batek artu dauz  
 Baratzetako loriak,  
 Gaudi gustija betian duaz  
 Udainduagaz goi-beiak  
 Itxas-ertzera eltzen dira ta ...  
 Isten dautsoe aixiak:  
 Bazartxu atan **daun Ziñopea'i**  
 Opaltzen yakoz gustiak. (K045c)

#### 1.4. Hitzen konbinazioa

Ahoskatze irudiei dagokienez ezin da nabarmendu bestelako irudirik. Nabarmendu beharrean aipatu bai, aipatu egingo dugu aliterazioa edo berotzen lorratzak Urretxindorraren zenbait bertsoetan.

##### 1.4.1. Aliterazioa eta onomatopeia

Badira euskaraz jatorri onomatopeikoduna<sup>192</sup> duten hitzak eta Urretxindorrek nolabaiteko atxikimendua erakusten du hitz horiekiko, batez ere izadian entzun daitezkeen hotsak adierazteko baldin badira. Berez ezin gara mintzo onomatopeiaz, “onomatopeia” horiek fosildurik daudelako eta substantibo bilakatuta daudelako egile honen hizkeran (salbuespen arraroren bat kenduta). Baina hitz horiek erabiltzerakoan aliterazio moduko fenomenoak sortzen dira bertso barruan. Egilearen asmoa aliterazioak sortzea zen? Ez dakigu, baina efektu foniko bat sortzen dutela argi dago (nahiz eta agian erabilera horren kontzientzi estilstikoa oso esplizitua ez izan). Hortaz ezin aipatu gabe utzi:

Txorijak euren abes ederrez  
 Baso ta mendi, goi ta be,  
 Zekor, bei ta txal, bior ta moxal,  
 Ardi ta bildots baita be,

<sup>192</sup> Argigarria da Ángel L. Luján Atienzak (1999, 180-183) onomatopeiaz eta aliterazioaz egiten duen azterketa eta beraien azterketarako ematen dituen giltzak. Gaztelerazko poesiarako pentsatuta dagoen arren, euskal poesia eta bertsoaritzaren poetika aztertzeke baliagarriak direlakoan gaude.

Euren **arran** ta **txilin**-soñuan  
**Orrua, irrintz, bee ta bee.** . .  
 Ludijan danik eresi-soñu  
 ederrena sortzen dabe. (K038c)

Badago baita ere, hots-hitz horiei dagokienez, hegaztien izenekin egindako konbinazio mota bat, aliterazio efektua (nahita edo nahigabe egindakoa) areagotzen duena:

Etxe inguruko zugaztijetan  
**Txorrotxioka** ainbat **zozo**,  
**Txiroliroli** ta **urrugurruka**  
**Biregarro** eta **uso**, [...] (K047i)

Orduan, baña, **txindorrak** beren  
 lumak osorik eukazan  
 Ori dala-ta, **txiroliroka**  
 pozkidaz nainun asten zan. (K203i)

**Txorijak** bere poztuten dira  
 Edertasun au berrikustian  
 Poz au agertzen asten dirala  
**Txiroliroka** orri artian. (K137e)

**Txorijak txiroliro**  
 Dagije basuan  
 Euzko-goguak abes  
 Eresi gozuan. [...] (K070b)

Aldi aretan euzkiak **dizdiz**,  
 Ekatz-lañorik etzan agiri  
 Zugatz orleyen adar artean  
**Txoriak** alai **txiroliroli** [...] (K046g)

## 2. Pentsamendu irudiak

### 2.1. Irudi deskriptiboak eta amplifikazio irudiak

#### 2.1.1. Zenbakitzea

Deskripzioak egiteko zenbakitzeak eta zenbait hitzen pilaketak egin behar izaten da. Irudi deskriptiboa dela esaten badugu, beraz, ez gabiltza oker, baina era berean amplifikazio irudi bat dela adierazi beharko litzateke, Kurt Spang akademikoaren arabera behintzat. Horrela definitzen du berak amplifikazio prozedura:

El procedimiento de la amplificación resulta comprensible si tenemos en cuenta la distinción clásica entre *res* y *verba*, es decir, entre las ideas y su elaboración lingüística. La amplificación consiste, pues, en el empleo de más *res* y de más *verba* de lo estrictamente necesario para la transmisión de la información. [...] Dado que un tema tanto permite un tratamiento breve como extenso, las figuras de amplificación sirven a este último fin (Spang, 1979, 164-165).

Enumerazio edo zerrendatzea da Urretxindorraren bertsogintzan nabarmentzen den ahoskatze irudi bat, deskripzioaren zerbitzuan eta ideiak zein errealitate fisikoak ñabardurez eskaintze aldera. Zerrendatze hori bi modutara ematen da:

- Linealki, edo barruti semantiko bati dagozkion hitzak erreskadan jarritz (edo esanez).
- Bikote antonimoetan egindako zerrendatzetan.

Irudi honek sortarazten duen inpresioa ere bikoitza da, izan ere, alde batetik egilearen hitz-jarioa nabarmentzen da horrela, eta hori bertsolari batengan sarritan bertutea izaten da. Bestaldetik irudimenaren higidura azkartu egiten du, hitz bakoitzak eskaintzen duen irudi bisual batetik bestera igaroaz.

Linealki edo alborakuntzan egiten diren zerrendatzetan, askotan mundu landatarraren elementuak agertzen dira, mundu landatar mitifikatu-bukoliko horren ikurtzat har daitezkeenak batez ere.

Hartzaileak (entzuleak), horrela, irudimenarekin Kepa Enbeitaren baserritar mundua igaroko du alderik alde eta azkar. Agian Urretxindorraren atxikimendu hori ere ernatuko da bere baitan. Adibideak:

### 2.1.1.1. Alborakuntzan egindako zenbakitzeak

Euzkadi gusti-gustija bere  
**Abenda, ele, ekandu** eta  
**Jolas** baketsu eder orokin  
 Bai-zan gogo al denduta; [...] (K039b)

Anai gustijai, itxartu daizan  
**Erri, aran, mendi, baso**, [...] (K039k)

[...] Ta lasai bizi ... laister  
**Buru, ego, anka**  
 Sendaturik, abesten  
 Alai jungo da-ta. (K197d)

Aberri-aldez eiteko danak  
 Itxarturik dira jarri;  
**Uri, baserri, zelai ta mendi**  
 Or dabil euzko-gastedi, [...] (K040f)

**Uri, baserri, mendi,**  
**Arro** eta **laño**,  
 Erdera sartu yaku  
 Azurretaraño. [...] (K127b)

Maite daiguzan Euzkelerriko  
**Uri, baserri, mendijak,**  
**Iturritxuak, ibai-zelai** ta

Euzkaldun **lorategijak**,  
Maite asaben **Euzkera** zarra,  
Maite **oitura** garbijak; [...] (K054b)

Mota honetako zerrendatzeak barra-barra daude Urretxindorraren bertsoetan. Horietariko asko, azken adibidea agian horren ale bat da, mailaketan antolatuta daude, goranzko mailaketetan kasu guztietan. Ondorengo bertsoan, esate baterako, Bilboko gazteek zer maite duten zerrendatzen da.

Maite ditubez guraso zarrak;  
Maite asaben lagijak,  
**Uri, baserri, etxetxu zuri,**  
**Zelai, muru ta mendijak;**  
Maite **baratzak, itxaso zabal,**  
**Iturri eta ibayak,**  
Maite lenauko **ekandu** onak,  
**Jantza ta jolas** garbijak. (K036e)

Hasierako osagarriak naturatik hartutakoak dira eta azkenak elementu gizakorragoekin lotuta daude, espiritualtasunean aurrerapauso bat jaso delarik.

Urretxindorraren ideologian natura eta baserri mundua maitatzea ondo dago. Baina hori baino hobea honako hau da: lurralde honetan bizirik dirauten ohitura "onak", abertzaletasunaren oinarriak izango direnak, maitatzea: euskara, kristautasuna, aberriarekiko atxikimendua... eta abar.

Bestaldetik, hain erabilia da zerrendaketa ezen batzutan formularen izaera hartzen duela baitirudi. Esate baterako:

Maite daiguzan Euzkel-Erriko  
**Uri, baserri, mendiak** [...] (K090f)

Maite daiguzan Euzkel-Erriko  
**Uri, baserri, mendijak** [...] (K054b)

*Uri, baserri* bikotea bera, semantikoki antonimoa izateaz gain, bost silabakoa da eta horrek bihurtzen du neurri nagusietan hemistikio bat osatzeko gai. Eta halaxe gertatzen da adibide baten baino gehiagotan:

[...] **Uri, baserri**, txiro ta aberats,  
Nun-nai lior ta itxaso [...] (K145d)

**Uri, baserri**, etxetxu zuri,  
Lugintza aberatsak eder ugari, [...] (K068k)

Jaso, euzkuak, ikurrin ori  
Aitz eta mendi ganetan,  
**Uri, baserri**, udaletxe ta  
Gure untzijen agetan [...] (K049b)

### 2.1.1.2. Bikote antinomikoekin egindako zenbakitzeak

Azken adibideak aukera ematen digu bikote antinomikoen kontua azterketa honetara ekartzeko, izan ere, zerrendaketaz ari garela, ezin ahaztuta utzi Urretxindorrek bikote antinomikoetan zerrendaketak egiteko ere zuen joera. Joera horren zio praktiko bat aurreko azpiatalean aipatu duguna da: bikote bakoitzak batzutan neurri nagusiko hemistikio bat osatzen du. Bestaldetik, osotasunaren inpresioa ere transmititzen da, elementu antinomikoak aipatzen direnean, alderdikeri edo partzialtasun gabeko zerrendaketa eginez:

Zertzuk eztabez esan,  
Zer ez iragarri  
**Elixan** ta **kanpuan**,  
**Uri** ta **baserri**; [...] (K083i)

**Aberats** ta **ezeuki**,  
**andi** ta **txikiak**,  
**Ugazaba** ta **otsein**,  
**zar** eta **gastiak**,  
**Eleiz-buru** nausi ta  
**erromes** maitiak,  
Bere aurrian ziran  
auspeztu gustiak. (K080l)

Azken adibide honek argitzen du arestian esandakoa. “Ama Begoñakuari” sortatik aukeratua da, eta bertan Begoña auzoan egin zen Andre Mariaren koronazioa kontatzen da, besteak beste. Begoñako basilikan, hain zuzen, kokatzen da azken deskripzio edota zerrendaketa hau eta bertaratutakoen asmo batasuna adierazteko Kepa Enbeitak antonimoak aipatzeari ekiten dio: “Aberats ta ezeuki, andi ta txikiak, Ugazaba ta otsein, zar eta gastiak”. Zer esan nahi du? Hauxe, gure ustez: Andre Mariaren aurrean ez zirela ahuspeztu bakarrik aberatsak, edo ugazabak, hau da, giza maila batekoak bakarrik. Giza maila guztiek asmo berbera izan zuten ekimen horretan eta, beraz, *ezeuki* eta otseinek ere poztasun berberaz parte hartu zuten gurtze horretan. Azken puntuko *gustiak* hitzak laburbiltzen du bertsoan zehar esandakoa, eta irudi estilistiko honi esker, hain zuzen, ulertzen da sakonkiago.

Bestaldetik, Urretxindorren bat-bateko bertsoak omen diren batzuk argitaratuak izan dira *Gure Urretxindorra* liburuan. Nola bilduak izan diren ez dakigu zehazki<sup>193</sup> baina zera adierazten da sortaren hasieran: “Sondikako mitinean”. Sortaren azkenean data besterik ez da agertzen, hau da, ez dela inongo aldizkarian argitaratua izan, bestela adieraziko zuen, argitaratzaileak beste gehienekin egin duen antzera. Bertso hauek irakurrita, berehala konturatzen gara entzulea (eta ez irakurlea) den publiko batentzat konposatuta daudela; izan ere, bertan entzuleak aipatzen dira:

<sup>193</sup> Kepa Enbeitaren iloba den Jon Enbeitari galdetuta zera adierazi digu: agian buruz hartutako bertsoak izango zirela, horretarako gaitasuna zeukan batek bilduak alegia, transkripzio prozesua geroko lana izan zitekeelarik. Beste bertsoen bat, takigrafoz hartua izango zen, baina oso okasio bakanean.

Arratsaldeon emon biar dautset  
 Alkate ta apaiz jaunari;  
 Eurokaz baita arratsalde on  
 Bertoko kontzejalari. [...]

Ondoren aipatu dugun bikote antonimoekin zerrendaketa laburra dator, hain zuzen ere bere agurra guztiei (alderdikeriak saihestuta) zuzendua dagoela adierazteko:

[...] Baita, gaiñera, arratsalde on  
**Aberats t'ez eukieri**  
**Andi ta txiki, zar eta gazte**  
 Berton zagozen danori. (K062a)

Bikote antonimo hauek, arestian esan bezala, formula bilakatuta daude zenbaitetan, izan ere behar izan metrikoen mesedean zenbait hemistikioetan kokatzen dira:

a) 5 silabakoak:

Aberri-aldez eiteko danak  
 Itxarturik dira jarri;  
**Uri, baserri, / zelai ta mendi**  
 Or dabil euzko-gaztedi, [...] (K040f)

Len euzkeldunak izan ba'ziran  
 Euskal-Erriko mendiak,  
**Uri, baserri, / itxaso zabal,**  
 Iturri, erreka, ibayak [...] (K062b)

**Aurre ta atzetik, / gane ta azpitik**  
 Erliak eldu eutsian ...  
 Amaika ezten zorrotz sartu zan  
 Gaxo aren gorputzian! [...] (K166j)

Zure ingurak argitzen dizdiz  
 Urtzi'ren zorun-eguzki,  
**Barru ta kanpo, / lan eta jolas,**  
 Bakia zala nagusi, [...] (K182i)

**Andra ta gizon, / neska ta mutil,**  
 Idi, bei ta burdiak, [...] (K174i)

[...] Deun Andoni'ri otoi egiñaz  
 Bai-nabil mendirik mendi,  
**Gogo ta gorputz** indartziarren  
 Alde orduko emendi. (K194g)

b) 6 silabakoak<sup>194</sup>:

---

<sup>194</sup> Sei silabako formula hauek neurri txikietan (zortziko edo hamarreko txikietan, adibidez) oso erabilgarriak dira bertso-lerro bikoitietan egokitzeko, sei silabakoak izaten baitira.

Aberats ta ezeuki,  
**andi ta txikiak,**  
 Ugazaba ta otsein,  
**zar eta gastiak** [...] (K080l)

Urdalletik bete ezik  
 biar lez estia,  
 Motel ibilliko da  
**zar nai gastia** [...] (K164g)

Zintzuak diranian  
**seme ta guraso,**  
 uri eta baserri,  
 aran, mendi, baso [...] (K182f)

Egarri danentzat aor  
**zuriya naiz baltza ...**  
 Txurrutaren alayaz  
 abestu naiz dantza [...] (K209e)

Bizi bedi Bizkaya  
 Ta bere lagunak,  
 Bizi bedi Patrona  
 Eta euskaldunak.  
 Pozik igaro geinkez  
**Gau eta egunak,** [...] (K078c)

Zertzuk eztabez esan,  
 Zer ez iragarri,  
 Elixan ta kanpuan,  
**Uri ta baserri;** [...] (K083i)

Aupa, zar eta gaste!  
**Uri ta baserri,**  
 Euzko-Deya'ri gogoz  
 Begijak ezarri. [...] (K127f)

Azken *Uri ta baserri* bikotea, *Uri, baserri* bikotetik dator, baina bistan denez *ta* juntagailua erabiltzen da, bost silabako bikote batetik sei silabakoa sortzeko, eta era horretan neurri luzeko hemistikio batean jarri beharrean, neurri txikiko bertso-lerro bikoitietan jartzeko.

c) 8 silabako bakarren bat aurkitu dugu:

[...] baita gañera, arratsalde on  
**aberats t'ez eukieri,**  
 Andi ta txiki, zar eta gaste,  
 Berton zagozen danori. (K062a)

Zerrendaketa hauek, beraz, gogoratuak izateko eraturakoak daudela dirudite, neurri aldetik, doinu batekin bat datozelako (doinuaren “une”<sup>195</sup> desberdinetan kokatuta badaude ere) eta bikote antonimoak errazago gogoratzen direlako<sup>196</sup>. Gure ustez, arrazoi honek Urretxindorrak darabilen irudi hau ahozkoatasunari lotuta dagoela argi eta garbi adierazten digu. Izan ere, Walter Ong-ek dioen legez, ahozko kultura baten jakiten da gogoratu egin daitekeena:

En una cultura oral primaria, para resolver eficazmente el problema de retener y recobrar el pensamiento cuidadosamente articulado, el proceso habrá de seguir las pautas mnemotécnicas, formuladas para la pronta repetición oral. El pensamiento debe originarse según pautas equilibradas e intensamente rítmicas, con repeticiones o antítesis, alteraciones y asonancias, expresiones calificativas y de tipo formulario, marcos temáticos comunes (la asamblea, el banquete, el duelo, el “ayudante” del héroe, y así sucesivamente), proverbios que todo el mundo escuche constantemente, de manera que vengan a la mente con facilidad, y que ellos mismos sean modelados para la retención y la pronta repetición, o con otra forma mnemotécnica. El pensamiento serio está entrelazado con sistemas de memoria (Ong, 1987, 41).

Baina zer esan bikoteka antolatuta ez dauden zerrendaketez? Oroiterrezak ere badirela. Zergatik? Hitz-sorta hori egilearen barruti bitalean errotuta dagoelako eta gogora ekartzea guztiz naturala delako. Gainera ez da ahaztu behar zerrendaketa oso malgua dela behar izan metrikoetarako, eta hoskidetasunari aukera asko ematen dizkio, zerrendaketaren azken hitzaren arabera. Esate baterako<sup>197</sup>:

- *Itxaso* baldin bada oin bat, *baso* izan daiteke, besteak beste, oin hoskide bat:

Zer dira gure iturritxoak,  
ibai, erreka ta **itxaso**,  
baserri-etxe zuri baketsu,  
ibar, zelai, mendi, **baso**? [...] (K040h)

Abestu gura neuke oraintxe  
Samur ta maiteki oso;  
Biotz-abes au entzun dagien  
Ibar, aran, mendi, **baso**,  
Uri, baserri, txiro ta aberats,  
Nun-nai lior ta **itxaso**. [...] (K145d)

Zintzuak diranian  
seme ta **guraso**  
uri eta baserri,  
aran, mendi, **baso** [...] (K182f)

<sup>195</sup> Delako "une" hori, hemistikio bat, bertso-lerro bikoiti bat edo bakoiti bat izan daiteke.

<sup>196</sup> Berez antonimoak oso oroiterrezak dira, izan ere, baliabide mnemoteknikoen antzera jokatzeko dutelako, hitzak bikoteka bilduz, eta hitzak lotura semantiko horrekin lotuz.

<sup>197</sup> Ondorengo adibideak multzo bienak dira, hau da, bikoteka zein banaka egiten diren zerrendaketak.



- *Baserri* oinak ematen ditu aukera batzuk *jarri*, *ekarri*, *irakurri* edota hoskidetasun hori duten aditzekin.

Zertzuk eztabez esan,  
Zer ez iragarri  
Elixan ta kanpuan,  
uri ta **baserri**;  
Euzkoak Elexaren  
Arerio **jarri** [...] (K083i)

Ari-bideko gauza ederrak  
asko idatzi ta irakurri,  
Jakintza oa zabaldu dedin  
egiz uri eta **baserri**  
Lantegi, ola, lugintza ta abar,  
goigorengo maillean **jarri**, [...] (K055i)

Urtiak juan eta  
Urtiak **etorri**,  
Jeltzaletuko dira  
Uri ta **baserri**. (K060a)

[...] Nai dogulako euzkera jaso  
Ta azkatasuna **ekarri**;  
Gauza aundi, eder, jakingarriak  
Asko idatzi ta **irakurri**,  
Jakintza oso zabaldu dedin  
Egiz uri ta **baserri** [...] (K139a)

### 2.1.2. Pilaketa<sup>198</sup>

Pilaketa da Urretxindorrek gustuko duen beste irudi bat, aurrekoa bezainbestetan erabiltzen ez duen arren.

Sinonimoak erabiltzerakoan ezaugarri bat aipatu beharko litzateke: **hirukoitzasuna** duela gustuko Urretxindorrek eta horrela erakusten da behin baino gehiagotan:

Lendakaria daukie barriz  
**Jakitun, zintzo ta zurra** :  
Beste bat iñor zintzuau dala  
Esango ba'neu, guzurra! [...] (K035i)

Euzkotar ixan gaizan  
**biotz, gogo ta adin** ;  
itzez abertzaliak,  
eikerakaz bardin, [...] (K037c)

<sup>198</sup> Definizio desberdinak eskaintzen dira irudi hau azaltzeko. Kurt Spang-ena hauxe da: "Acumulación puede significar dos cosas: o la acumulación de palabras semántica y fonéticamente distintas o también la acumulación de palabras fonéticamente distintas, pero semánticamente equivalentes, es decir, de sinónimos", 1979, 179. Batez ere bigarren aldakia da Urretxindorrek gehien lantzen duena, sinonimo edo edukin semantiko antzerakoa duten hitzen pilaketa, alegia.

Euzkeldun ixan gaixan  
**biotz, gogo ta adin**;  
 itzez abertzaliak,  
 egikerakaz bardin. (K135l)

Euzko-Aberri seme ta alabok  
 Jakiñik alkarren barri,  
 Nai dogulako euzkera jaso  
 Ta azkatasuna ekarri;  
 Gauza **aundi, eder, jakingarriak**  
 Asko idatzi ta irakurri [...] (K139a)

Zintzuak ixateko  
**Bijotz, gogo ta adin**,  
 Itzez abertzaliak,  
 Eikerakaz be bardin. (K200e)

Goraipamenetarako bereziki erabilia da irudi hau. Adjektibo positiboen pilaketak, nonbait, enfatikoago bilakatzen du goraipamena:

Euzkotar **jator, azkar, kementsu,**  
**Zintzo** eta **langilliak**,  
 Eta Euzkadi'n gaur argitaltzen  
 Diran Jel-izparringiak ... [...] (K051i)

Ainbeste olerki  
**eder, sakon, egoki**  
 zituan iturrija,  
 gure itxopen aundija: [...] (K088j)

Orokorrean, adjektiboekin egiten da pilaketa. Kasu askotan pilaketa hori ez da nozitzen nabarmenkeriaz, baina etengabea izanik, tonu kalifikatiboa, gehienetan positiboa, kutsatzen dio.

Arek zugazti **eder** arteko  
 Basetxe **zuri egoki**, [...] (K039d)

[...] Asaben ele **gozo ezti** au  
 Baztarturik itzi barrez,  
 Ta arrotzarena erabilte-eben,  
 Amea itzirik negarrez. (K039i)

[...] Didar zolija benetan bai-da  
 Ikur **onetsi ederra**,  
 Euzko **zintzuen** guramen **bixi**,  
 Zuzen-bideko ixarra. (K039i)

Tonu kalifikatibo hori nolabaiteko moralkeria baten oinarrituta dago, eta Kepa Enbeitaren kasuan, erretorika kristauan<sup>199</sup> oinarritzen dela ematen du.

<sup>199</sup> Erretorikaren kristautzea aspalditik gertatu da; hasieran San Agustin izan zen eragile nagusienetako bat. Horrela esaten da *Historia breve de la Retórica* liburan: "San Agustín, pues, establece las bases de

Erretorika kristau horren estilo hori nondik ailegatu zaion zehazten oso zaila den arren<sup>200</sup>, islatzen da mundua eta batez ere izadiarekiko harreman gozo bat. Ezin da ahaztu behar, Bibliak kontatzen duenez, izadia Jainkoak sortua dela, eta Hasieran esaten den legez: “Ona zela ikusi zuen” (Has 1, 25). Asisko San Frantziskoren espiritualitateak ere, izadiarekiko maitasuna erakusten zuen eta berarekin nolabaiteko armonia bilatzen zuen. Bestaldetik, kristautasuna baikortasunezko mezu bat eta bizimodu bat da, ezbeharrak gora-behera, izan ere Jesukristorengan eta haren berpizkundean (heriotzarik ankerrena igaro bazuen ere) dago bere garaipena. Moralak, bestalde, egoera eta, antzaz, egipen hutsalenak ere kalifikatu egiten ditu, “azken helburu” bati zuzenduta dauden eta harekin bat datozen ala ez ebatziz. Hori dela eta, ez da harritzekoa Urretxindorrek duen kalifikatzeko joera hori.

## 2.2. Irudi patetikoak edo apelazio irudiak

Erromantizismoa sentimenduen garaia izan dela esan izan da behin baino gehiagotan<sup>201</sup>. Sentimenduen artean nolabaiteko grinak eta bihozkada sutsuak dira protagonismoa hartzera ailegaten direnak.

Sentimenduak adierazteko orduan, ostera, Erretorika zaharraren baliabideetara jo egingo da askotan, eta Urretxindorra joera horretakoa da. Bestelako baliabide modernoagoak ez dira izango Urretxindorren erregistrokoak. Hori dela eta, galdera erretorikoak, harridurak (deiadarrak) eta apostrofeak dira gehien nabarmenduko diren apelazio irudiak.

### 2.2.1. Galdera erretorikoak

---

lo que se ha denominado un "estilo cristiano". La primera y más importante cualidad que debe ser observada por el predicador es la claridad, aunque ello no excluye -segunda cualidad- al menos una moderada "delectatio" (o, formulada negativamente, como hace San Agustín, evitar en las predicaciones un tono áspero o desagradable)", Hernández Guerrero, 1994, 79. XVII. mendean Josulagunen *Ratio studiorum* zelakoa erretorika kristauaren arloan mugarri garrantzitsu bat izan zen, Ibidem, 108-111. XIX. mendean hondarrean ere predikaziorako manualak argitaratzen jarraitzen ziren, Ibidem, 169. Predikazio genero garrantzitsuenak hiru omen ziren: "didascálico" zeritzona (moral eta sinismen edukiak bermatzeko eta defendatzekoa), panegirikoa (santu edo pertsona ezagun baten gorlpena egitekoa), eta "exhortativo" edo akuilatzailea (bertutera bultzatzen zuena). Hiru genero hauetan ematen diren ezaugarri eta joera batzuk Urretxindorren antzeman daitezkeenik ezin da ukatu.

<sup>200</sup> Jakin badakigu katoliko praktikantea izanik igandeko mezatan sermoigintzaren nondik norakoak berenganatu zituela, garaiko beste euskaldun askok bezala. Horrezaz landa, Muxika bezalako herrietan misioak egiten ziren lantzean behin, zenbait predikalari ospetsu etortzen zirelarik. Eta gainera Urretxindorren zenbait lagun apaizak ziren. Hauexek jakinda, susmatzekoa da neurri handi baten nondik zetorkion (kontzienteki edo ez) erretorika kristauaren ezagutza.

<sup>201</sup> Sentiberatasunaren hazkundean protestantismoaren eragina nabarmena izan zela ere begi bistakoa da. Orain ez dagokigu ordea horren azterketa egitea. Hans Georg Schenk-en *El espíritu de los románticos europeos* izeneko liburuan, XIII. kapituluaren "El cristianismo emotivo" (1983, 150-155) aztertzen da, hau da, giro kristauean XVIII. mendean bukaeran garatu zen kristautasun sentibera aztertzen du, batez ere Alemania aldeko zenbait erromantiko ospetsuen lanetan: Novalis, Schleiermacher eta abarrengan. Protestanteak ziren nagusiki, eta dogmatismoa ukatzen zen bitartean, kristautasunaren enfoke emozionala bultzatzen zen. Sermoilariaren zeregin nagusia, bere barnea, bere bihotza, bere sentiberatasuna entzulegoaren aurrean azaltzean zetzan. Jaungoiko pertsonal bat eta arimaren hilezkortasuna zalantzan jartzen ziren bitartean, erlijio sentimendua giltzarritzat ematen zen.

Urretxindorrek galdera erretorikoak gustuko ditu, edo behintzat horrela ematen digu aditzera berak egiten duen erabilera oparoak. Galdera erretorikoak badauka ahozko komunikaziorekin lotura bat, eta idatziz agertu arren, berorren lortatza izaten ohi da. Jakina denez, galdera erretorikoak formulatzen denean ez da itxaroten erantzunik, izan ere, enuntziazio bat ordezkatu baino ez du egiten, hau da, galdera erretorikoak enuntziazio jakin bat dauka atzean, eta erantzuna ezaguna da beraz. Hala ere, batzutan Urretxindorrek galdera egin eta erantzun egiten du segituan, beharrezkoa izan ez arren, mezua gardenkiago adierazteko eta nabarmentzeko (1. multzoko adibideak). Beste batzutan, galdera erretorikoak deiadar bilakatuta daude (2. multzoko adibideak).

### 1. multzoa

Adizkidiak asko eukozan  
Ta galdu zituban berez;  
Diruak urtu, galdu osasun,  
Bixija emon Jel-aldez.  
**Danak alperrik ein ete dauz, ba,  
Etsayak uste daben lez?  
Ez, alperrik ez! On egin danak  
Jauna'n sarijak oi dabez.** (K034i)

Aupa mutillak! Itxartu, jagi!  
Guazen danok gudara!  
Lenauko gure asabak legez  
Benetakuak ba-gara,  
**Suizkilluakaz alkar ilteko?  
Ez, olakorik ez! ... Ara:  
Gure izkilluak izango dira  
Kurutzia ta Euzkera.** (K096b)

### 2. multzoa

Galderaren itxura duten hauek, nolabaiteko harridurazko edo kezazko deiadarrak izaten dira<sup>202</sup>:

Nausijak jausten duaz,  
Txikijak jagiten  
**Au jazoko zala nok  
Esan aldi baten?**  
Arroputzok, oraintxe  
Asi dira igarten

<sup>202</sup> Joera hau, egia esan, ez da Urretxindorrena soilik. Beste bertsolari askok erabiltzen dute, bai idatziz bai bat-batean. Xalbadorrek bat batean azken puntuan zein bertso barnean erabiltzen zuen. Hona hemen 1962eko otsailean Urruñan botatako bat: “Ofizioa artzaintza daukat/ horra guzien buruan,/ eta jakin zuk, ni uros bizi/ naiz ardieng inguruan./ Udan mendien gainean eta/ zelai onetan neguan,/ **ner’ofizioa baino hoberik/ ba ote dago munduan?**” (Aire, F., 1981, 21). Bertso barnean ere, azken punturako laga gabe, badaki erabiltzen: “Eskual Herri ezagutzen dut/ nik hor gaindi ibilirik,/ pentsa zazue pertsularia/ ez dagoela geldirik./ **Bainan badea Eskual Herrian/ leku bat pollitagorik?**/ Enetzat arras hitsa litaike/ ez baginu Baigorririk” (Ibidem, 32).

Gaitz dala Jainkuari  
Geyaurik egiten. (K043k)

Nabarra maite-maite,  
geure anai zarra!  
**Zer dala-ta gugandik  
aldenduten zara?** (K058b)

**Nun dago gure baketasuna?**  
**Nun dira gure legeak?**  
**Gure asaben oitura eder  
iñun orbanik bageak?**  
Ustel batzuen erruagaitik  
Daukuz Gaztela'n gordeak ...  
**Zetan ez doguz jaubetu biar  
Ixan ezkerro geureak?** (K062c)

### 3. multzoa

Galdera erretoriko batzuk hartzailearen arreta erakartzeko izaten dira, batez ere eduki narratiboa baldin badago tartean. Muxikako bertsolari honen bertsoetan, ordea, oso eduki narratibo murrizta dago, eta ondorioz galdera erretoriko mota hau oso gutxitan agertzen da.

**Zer jasoten da?** ... Irrintzi orrek  
Nundik eta nora urten dau?  
Euzko-Aberri au ilten egon,  
Semiak aitzurik berau,  
Ta azken-alaru estutik seme  
Aiztukorrenzako birau  
Itzal gorrotoz beteikoren bat  
Amurruz bota ete dau? (K039h)

**Zelako jayak, baña?**  
**Zer? ... Nor dau itaunka?**  
Tira, ez lar estutu  
esango jatzu-ta. (K086c)

**Amerika'ra zoiaz?**  
Agur, Zarandona,  
Jelkide lagun maite,  
Zintzua ta ona.  
Ondo ein daizula, ba,  
Itxas-ibilguna.  
Au da zeure aizkide  
Orok nai doguna. (K128i)

### 2.2.2. Deiadarrak edota harridurazko perpausak

Deiadarrak erabiltzeko gustuak ahozkotasunean bere jatorria duela esaten badugu ez gaude guztiz oker. Erretorika bera ere ahozkotasunari lotuta dago. Deiadar egitea zerbait nabarmentzeko edota igorlearen barne egoera animikoa

adierazteko izaten da. Ahozko kultura baten, deiadarrak entzulearen arreta erakartzeko ez ezik, memoriari laguntzeko ere balio izaten du, kasu askotan deiadar hiperbolikoa eratuz. Horrela azaltzen du Walter Ong-ek fenomeno hau:

La memoria oral funciona eficazmente con los grandes personajes cuyas proezas sean gloriosas, memorables y, por lo común, públicas. Así, la estructura intelectual de su naturaleza engendra figuras de dimensiones extraordinarias, es decir, figuras heroicas; y no por razones románticas o reflexivamente didácticas, sino por motivos mucho más elementales: para organizar la experiencia en una especie de forma memorable permanentemente. Las personalidades incoloras no pueden sobrevivir a la mnemotécnica oral (1987, 73-74).

Bestaldetik, irudi hau ahozkotasunaren joera agonistikoan kokatzen da, eta hori, besteak beste, laudoriozko deiadarretan zein bozkariora adieraztekoetan ikusten da:

El otro lado [...] es la expresión ampulosa de alabanza que se halla en todas partes en relación con la oralidad. [...] La alabanza ampulosa en la antigua tradición retórica de gustos orales da una impresión de falsa, pomposa y cómicamente presuntuosa a las personas de culturas con gran tradición escrita. No obstante, el elogio acompaña al mundo oral, agonístico e intensamente polarizado, del bien y del mal, la virtud y el vicio, los villanos y los héroes (1987, 51).

Harridurazko deiadarrak mota desberdinekoak dira.

### 1. Laudoriozko (eta goraienezko) deiadarrak

**Zenbat esker, mesede  
maitetasunagaz  
Eiñ ete dauz, gomutau  
gaitian beragaz!** [...] (K080g)

**Arek ziran, bai, abertzaliak!  
Arexek, bain, kistar onak!**  
Gurendearen ikurtzat mugan  
Kurutza jarri ebenak! [...] (K096a).

**Gora Jaingoiko ta Lege Zarra!  
Gora Euzkadi, geure Ama!**  
Mundu dan arte bixi daitela  
Gure Euzkera kutuna! (K063b)

Laudoriozko deiadar hauetan hiperbolea tartekatzen da, ez oso markaturik agian, baina bai deiadarra neurri labur batez areagotzeko lain. Hiperbole horiek fosildurik edo daude eta horregatik ez dira horren nabarmenak. Hona hemen adibide batzuk:

[...] Ozkarbi dago, itxaso bare,  
Ipar-aixetsu biguna  
Goyan ta beyan, lior ta itxaso,  
**Dana** da edertasuna, [...]

[...] **Beti** zintzo-zintzoa  
 Beren egikera,  
 Ziñopa bat egiñik  
 Eldu zan iltera.

[...] Zenbat erakutsi on  
 Euzkotar artian  
 Zabaldu euskun beren  
 Bixitza **danian!** (K079b)

*Dana, gustija, beti* eta horrelako adberbioekin nolabaiteko hiperbole bat egiten delakoan gaude. Berez, bizitza osoan, uneoro, nahiz eta oso pertsona eredugarria izan, ezin da erakutsi onik eman. Erakutsi onak noizean behin ematen dira baina pertsonak gauza neutral asko burutzen ditu (jan, lo egin, ibili, jesarrita egon) eta den-denak ez dira zertan eredugarriak izan behar. Horregatik diogu ba, hiperboleak direla, nahiz eta arrunt bilakatzeko bidean egon.

## 2. Bozkariozko deiadarrak

**Auxe dala bai barruko poza!**  
**Au bai atsegin andija,**  
 Dakustanian euzkotar utsez  
 Batzar ain maitagarrija! [...] (K033a)

Mariya'ri ipini  
 eutsen burestuna,  
 Zidarrezkua bera,  
 gañe oriduna,  
 Beraren ixeneko  
 Agirre'k emona.  
**Ai, ze ospatsua zan**  
**orduko eguna!** (K080i)

**Auxe bai dala egun alaya!**  
 Zorioneko da nire anaya,  
 Balendintxu lagun dabela! [...] (K203h)

## 3. Kexazko deiadarrak

[...] Bijotz-bijotzez opautsozan ba ...  
 Baña bere eriotziak  
**Tamalez daukoz negar ta negar,**  
**Biozdun anai gustiak!** (K051e)

Maitale bati areriyuak  
 Eskutau dautso maitia ...  
**Ezin ikusi, ezin laztandu,**  
**Au tamalezko nekia!** [...] (K052d)

Arrotzak, baña, gorrotoz ...  
 Erpiak ezarri dautsoz.  
 Buztarripian, il-zorijan, or ...  
**Len azke zoruntsu zana,**  
**Euzkadi Ama laztana!** (K064c)

[...] An usorik maitakorrena,  
 Errukorrena bere bai,  
**Burdiñazko kayolan dago**  
**Erosta baten, ai, ai, ai!!** (K065j)

#### 4. Adorea emateko deiadarrak:

Emakumia, nun zara?  
**Urten zaiz enparantzara!** (K064e)

[...] **Euzkotar orok zain gayegozak.**  
**Ator! ator! Arin! arin!**  
 Gure areyo negu ankerrak  
 Geyaurik eztaigun egin. (K044b)

[...] **Zutik, ba, danok, zar eta gaste,**  
**Lagun arturik Jainkua!** [...] (K053f)

**Euzko-langillok, itxartu, jagi;**  
**Jagi ta zutik, aurrera!**  
 Aurrera beti! Zintzo, kementsu,  
 Zuzen elburu geurera! (K068c)

### 2.2.3. Apostrofea

Apostrofea Urretxindorrek maiz erabiltzen duen beste baliabidea da. Badirudi apostroferako joera horrek, eta Kepa Enbeitaren bizitza ezagututa zentzuzkoa da, sinestunaren otoitzaren kutsua eta eragina dituela, itxuraz eta edukiz. Jainkoarekin izaten den otoitzaren antzera, fisikoki presente ez dagoen bati norberaren diskurtsoa zuzentzerakoan modu desberdinetan egin daiteke (Estébanez Calderón, 1999, 50) eta Urretxindorrek halaxe egiten du:

#### 2.2.3.1. Eskaera (agindua) edo (aurreragoko gradu baten) erregua

##### 2.2.3.1.1. Entzulegoari

Ondoko honetan, adibidez, hirugarren pertsona erabiltzetik (baieztapen inpertsonala egiteko) bigarrena erabiltzera igarotzen da, bere arreta entzulearengan jarriaz:



Gixonak eztau biar  
itz onik ukatu, [...]  
ekandu txarrak itzi  
ta onai oratu.

**Euzkeldun maite ori,  
zaitez gogoratu,  
aulan egiten dala  
Euzkadi goratu.** (K037b)

Baina esan beharra dago entzuleari zuzendutako apostrofea ugariena dela, eta edozein motatako bertsoetan aurki daiteke. Honetan, beste edozein irudietan baino gehiago agian, ikusten da Urretxindorarentzat bertsoaritzak helburu batzuk dituela, eta beraz tresnatzat hartzen du genero hau, entzuleari eragiteko batez ere.

Euzkotar seme zintzo  
Gustiok batian,  
Geure Maisu zanagaz  
Gomutau gaitian: [...] (K079b)

### 2.2.3.1.2. Beste norbaiti

Miren'en bidez egin dayogun  
Jainkoari eskarija,  
Semia'gandik jaritxi dayan  
Ama'k biar dan gustija.  
**Zeugan jarten dogu, ba, danok  
Itxaropen andija:  
Zuk gaizkatuko gozuzala gu  
Ta geugaz Euzkalerrija.** (K088a)

Entzulegoari:

Deabru baltza,  
zetan ator ona,  
**atzera ua**  
Luziper'engana;  
guk etxuau biar  
ire laguntasunik,  
ta **alde egik** emendik [...] (K088b)

Argi gustijen argija  
Lore gustijen loria,  
Usaintsu bardin bagia,  
Jakiturijen oxin sakona,  
Ona baño be obia,  
Eskar gustijen jabia  
Zarian Miren garbija,  
Jaboixu Euzkelerrija! (K091i)

### **2.2.3.2. Goraipamenen bidez**

#### **2.2.3.2.1. Entzulegoari**

Entzulegoa ez du goraipatzen, animatu, gogoberotu edota adoretu baizik, errespetu osoz kasurik gehienetan.

#### **2.2.3.2.2. Beste norbaiti**

Donokijan ta ludijan zaran  
Ama danetan onena,  
Garbitasunan ispillua ta  
Onoidadetan gorena;  
Jakituriaz daukozu, barriz,  
Azken bagako almena.  
Zu Benartetxu Zubiruz'ari  
Aitz-zillo ortatik urtena,  
Zu euzkeldunen maitalarija,  
Zeu geure itxaropena. (K033g)

Gurtzeko edota laudatzeko otoitza baten tankera dauka erabat bertso honek, eta hori dela eta apostrofearen erabilera oparoa Urretxindorraren otoitzerako joeran oinarritzen dela esateko beste frogatxo bat eskaintzen digu. Otoitza-laudorioa lotura erlijiozko gaidunetan antzematen da argien. Baina ez da baztertu behar ahozko tradizioan errotuta egon den laudorio jarduna, entzulearen onespena jasotzeko eta, zer esanik ez, entzulea pertsona inportantea baldin bada, haren diru-babesa edo jadesteko asmoz. Hori gertatu izan da beste kulturetan eta laudorio jarduna zerbait eratua izatera bilakatu da. Horixe azaltzen du Irlandako Proinsias Mac Cana ikerlariak, K.o. bosgarren mendean hango ahozko jarduna nolakoa zen eta nola sortu zen azaltzerakoan:

In the house of king and nobleman trained poets chanted their eulogies to the accompaniment of the harp or listened while they were performed by their special reciters (Mac Cana, 1980, 12).

Batzutan apostrofe horren hartzailea pertsona ez den zerbait izan daiteke eta horrela bi irudi edo bi efektu burutzen dira batera: zerbait horren pertsonifikazioa alde batetik, eta apostrofea bera, hau da, mezuaren jasotzaile horrekiko hurbiltasuna, bestetik. Hona hemen euskarari egindako bertso bat:

Arerijuak dozuz eskuman,  
Areyuak ezkerrian,  
Arerijuak atze-aldetik  
Arerijuak aurrian!  
Baña zu beti, Jainkua lagun,  
Naiz ta areyuen erdijan,  
Bixiko zara Goikuak zeutzat  
Ixentauriko lurrian [...] (K051c).

Nafarroari egindakoan honela dio:

Nabarra maite-maite, gerue anai zarra!  
 Zer dala ta gugandik aldunduten zara?...  
 Zeure lagun "malmutzak" zaroez "lexara".  
 Itxartu zaiz ta zatorz anayen artera! (K058b)

Heriotzaren *geznari* edo mezulari den uso bati honela diotso:

Ortzitik berantz/ zatozarian/ Aita Goikoen/ usotegiko usoa,  
 abiyatxutik/ eruateko/ bein ta betiko/ Zeurekin txindor gaxoa,  
 otoi dagitzut,/ ekardaizula/ zeure pikuan/ Zerutar ezti gozoa,  
 euzko abenda/ zar, maite onek/ izan dayantzat/ egizko zorun osoa. (K176e)

Azken adibide hau txori bati zuzenduta dagoen aldetik, aipagarriak dira beste kulturetan txoriei zein izadiaren animaliei herri poesian zuzendu zaizkien apostrofeak. Joera zaharra dela dirudi eta gaur egun *ornatus* delakoaren barruan sailkatuko bagenu ere, baliteke pentsaera animista baten lorratza izatea, kristautasun aurretiko kulturetan bizirik omen zegoena alegia. Baina jakina, orain ez dagokigu kontu hori aztertzea. Hala ere, aipagarria da irlandez garatu zen kulturaren eta horren barruan anakoreta poesian izadiaren elementuak aipatu eta goraiatzeaz gainera, txoriei ere zuzentzen zaizkiela apostrofeak. Horrela itzultzen du ingelesera Proinsias Mac Canak (1980, 19) horietako testu bat:

A wall of trees overlooks me,  
 a blackbird's lay sings to me,  
 and above my lined book  
 the birds trill out their song to me.

[...] Blackbirds, you are well content  
 wherever in the thicket be your nest;  
 hermit that sounds no bell,  
 sweet, soft, peaceful is your note.

### **2.2.3.3. Bokatiboa erabiliz**

#### **2.2.3.3.1. Entzulegoari zuzendua**

Entzulegoari (hartzaileari) ez dio laudoriorik zuzentzen. Lehen esan bezala, animuzko mezuak besterik ez dizkio bidaltzen, edo aginduak, zerbait lortzeko asmotan.

#### **2.2.3.3.2. Beste norbaiti**

Kontzeptu abstraktuak noizean behin badira laudorioen jasotzaileak. Euskara da kontzeptu horietako bat, kasurik gehienetan pertsonifikaturik agertzen dena.

**Gure izkuntz eder, Euzkera txukun,  
 Zu zaran antziñakua;  
 Gaur bixi diran beste ele orok**

**Baño be lenagokua,**

Baldin ba'zagoz lau aldetatik

Ezetsiz inguratua,

Semiok zeure alde zarteko

Ez al da zijoik naikua? (K046b)

Ikusten denez, apostrofearen jasotzailea nor den argi uzteko, bokatiboa bertsoaren hasieran dago, aposizioz zamaturik, pilaketazalea dela erakutsiz. Aposizioak, eta beroien barruan adjektiboak, pilaturik agertzen dira eta noizbait aipatu dugun ahozkoatasunaren psikodinamika baten joera islatzen du<sup>203</sup>: hitz ugaritasun eta pilaketaren aldekoa izatea, hitz analitikoak erabili ordez.

**2.2.4. Pertsonifikazioa**<sup>204</sup>

Pertsonifikazioa Urretxindorrek gustuko duen beste irudia da, bertsoari nolabaiteko pisu poetikoa gehitzen diona, baina, geroago ikusiko dugunez, Balendin Enbeitak bezainbeste erabiltzen ez duena.

Aberria

Alde batetik aipagarriak dira Ama *Euzkera*, Ama *Euzkadi* eta Herriaren pertsonifikazio eta mitifikazioak, bere ideologia islatzen dutenak. Elementu horiek pertsonifikatuz, nolabaiteko duintasuna eman eta haiekiko arreta piztu nahi duela dirudi.

Aren gorputza il-otziturik

Ebala lurreratuten,

Itxirik beren **Ama Euzkadi**

Negar samiñez urtuten, [...] (K034f)

Aberrijaren etsayen aurka

Gurendaz ainbat gudatan

Buruba jaso eban **Erri** au

Bere edestiaz aitzu zan;

Lotan eguan, eta lo-zorro

Negargarrijan benetan:

Illuntasuna baño besterik

Ez eban ingurubetan. (K089c).

Lurralde bat ere pertsonifikatu egingo du, apostrofearen bidez hari zuzentzen zaion bitartean. Ondorengo kasua Nafarroaren pertsonifikazioa da:

<sup>203</sup> Kapitulu honen A.I atalean honetaz mintzatu ginen.

<sup>204</sup> "Una variante de realización de la alegoría es la <<personificación>> (*fictio personae*, *prosopopoeia*) que consiste en introducir cosas concretas y conceptos abstractos y colectivos con personas que hablan y actúan. También la fábula puede incluirse, análogamente, aquí", Lausberg, 1975, 214.

**Nabarra** maite-maite, geure **anai zarra!**  
 Zer dala-ta gugandik aldentuten zara?...  
 Zeure lagun “malmutzak” zaroez “lexara”  
 Itxartu zaiz ta zatorz anayen artera! (K058b)

Eta nola ez, Euzkadi aberriaren pertsonifikazioa da ugariena:

**Ene Aberri** edestitsuboi,  
 Esku onetan zabiz, bai;  
 Zeure sendiko Judas batzuek,  
 Zeu erail nai zaitubenai  
 Lagun egiñik, zeure gogua  
 Espian dabe sartu nai.  
 Baña Sabin'en gudaroztiak ...  
 Jeurt! eraingo dautse danai. (K037j)

### Izadia

Izadia eta izakiak askotan pertsonifikatzen dira, eta egileak bere barne pentsamendu eta sentimenduen konfidenteak egiten ditu.

**Zugatz ta lorak** itun dakustaz,  
 Negarrez dago **baratza**;  
 Beren maitea galdu daulako  
 Erdibiturik biotza.  
**Ixil zaiteze, txuntxun-txistuak;**  
**Baña ori, zer dala-ta?**  
**Ixildu eta nagar eixue**  
**Urretxiñola il da-ta!** (K042f)

Konfidenteak ez ezik, barne sentimenduen isla<sup>205</sup> ere izaten dira behin baino gehiagotan. Bere sentimenduak, beraz, pertsonifikaturik agertzen diren izadiko izakiek adieraziko dituzte.

[...] Orriz ta loraz jantziko dabe  
 Aizkide danen artien,  
 Eta zozuak abestuko dau  
 Il-otoi edo “Requien”. (K042g).

Didar oneri erantzun dautse  
 Aitz, errekarro ta ibai,  
 Mendi, erreka, iturritxuak  
 Ta beste geyagok be bai.  
 “Gora Jainkua ta Lagi-Zarra!”  
 Didar egin dabe alai,

<sup>205</sup> Paulette Gabaudan-en *El Romanticismo en Francia (1800-1850)* liburuaren VI. Kapituluaren hango literaturan izadiaren irudia zer nolakoa izan den aztertzen da. Hango literaturarako egindako azterketa izan arren, euskal erromantizismoaren azken lorratzak aztertzeko ere balio duela iruditzen zaigu. Zehazki “Izadiarekiko sentimendua” izeneko paragrafoan, izadia konfidente legez, babesa legez, elementu oldarkor legez, aldarrearen ispilu legez, izate kosmiko legez eta sinbolo legez aztertzen da (1979, 179-205). Izadiaren azterketan ez dugu aurkitu honen moduko kategorizazio aberats eta zabalik, eta euskal (zein beste lurraldetako) erromantizismoa aztertzeko erabilgarria litzatekeelakoan gaude.

Aberrijaren berbizkundia  
Lenbailen dabelako nai. (K035f)

Urretxindorrek zenbait izaki bizigabe (uharteak, mendiak, e.a.) estimu handian zituen, eta kontenplazio egoeran haiei zuzentzen die bere arreta, pertsona izaeraz janzteraino. Mundakako kostaldetik gertu dagoen Izaro uharteari egindako bertso hauek esandakoaren adibide bat dira:

Goyan zerua eta  
beyan itxasoa,  
onek damotsolarik  
besarka gozoa;  
bera da ugazaba,  
bera gurasoa,  
beti azke bixi dan  
zorionekoa. (K142c)

An dago gau ta egun  
begira Laida'ri,  
baita udan Laida'ra  
duazan danari:  
bera da jagolia,  
bera ziñaldari.  
Nor zelan ibiltan dan  
itandu berari. (K142e)

Mendien pertsonifikazioak dira ondorengoak:

Bizkargi<sup>206</sup>, oñak eta besuak,  
Dira geure baratz, geure basuak.  
Zure bijotza ta zure buru ...  
Ziñesmen eta gentzan eredu,  
Jauna'k autua,  
Gurutz Deunaren gorde-lekua,  
Osasun-toki zorijontsua. (K068j)

Uri, baserri, etxetxu zuri  
Lugintza aberatsak eder ugari,  
Margo bikañez goi ta be oso  
Txorijak nun-nai abesten gozo,  
Bizkargi mendi!...  
**Zure ingurubak ain zoragarri**  
**Gotzon-tokija dala dirudi!** (K068k)

Azken puntua apostrofea den aldetik, esan dezakegu bertso honetan Bizkargi mendia pertsonatzen hartzen dela. Hori ziurtatzeko, sortan zehar egindako beste pertsonifikazioak har daitezke frogatu euskarritzat.

Badago beste pertsonifikazio mota bat, Urretxindorrek asmatutako alegorietan gertatzen dena. Orain aipatu baino ez dugu egingo; izan ere, alegoria beste atal baten izango dugu aztergai.

---

<sup>206</sup> Bizkaian kokaturik dagoen mendi baten izena da Bizkargi.

Bertso sorta baten adibidez, Kepa Enbeitak gizaki bat eta txindor baten arteko elkarrizketa asmatzen du bertsoan. Txindorra, zer esanik ez, pertsonifikaturik agertzen da, gizakion lengoia erabiltzen duelako:

Praisku'k. - Txindorra, esan zadak ik  
 "Tene" zein dan bai al dakik?  
 Txindorrak.- Bai, ba-zekiat ondotoxo ere;  
 Gezurrak balio eztik.  
 Uraxen bai uxotxo polita,  
 Iñun ba'zeok pollitik! (K169d).

Antzerako autua gertatzen da "Udabarri ta Neguaren auzia" izeneko bertso-sortan. Urte-sasoi bion arteko elkarrizketa da sortaren edukia eta, beraz, Udaberriak eta Neguak pertsonen ezaugarriekin jardungo dute.

## 2.3. Irudi logikoak

### 2.3.1. Sententzia<sup>207</sup>

Estilistikaren alderdi formalak aztertzerakoan, bereziki azken puntuaren erretorika aztertzerakoan, Kepa Enbeitak garatu zuen esakunez beteriko estiloa (azken puntuan batez ere) azpimarratzen genuen. Arlo hori sobera jorratuta dagoelakoan gaude, azken puntuari dagokionez behintzat. Agian komeni zaigu orain, azken puntukoez aparte, bertsoaren beste unetan (edo tokitan) agertzen diren sententziak edo esakuneak azterketa honetara ekartzea.

Baina arazo batekin egiten dugu topo: azken puntuan esaten ez den sententzia batek ezin du indar berbera izan, edo beste modu batera esanda, indar gutxiagokoa izaten da: beraz, ez da horrenbeste nabarmenduko. Sententzia horiek, indar gutxiagokoak izanik, irudiztat hartzea zalantzarria izango da zenbait kasutan.

Hala ere, Kepa Enbeitaren bertso-gintza ezagutuz gero, berehala konturatzen da bat sententziez baliatzen dela sarritan bere arrazoiketa oinarritzeko.

Hona hemen adibide batzuk:

Lendakarija daukie barriz  
 Jakitun, zintzo ta zurra:  
 Beste bat iñor zintzuau dala  
 Esango ba'neu, guzurra! [...] (K035i)

Sententzia honetan, beraz, (eta horri dagokion bertso-sortan egindako gainontzeko sententzietan) oinarritzen ditu Urretxindorrek bere laudorioak.

<sup>207</sup> "Un *locus communis*, formulado en una oración, que aparece con la pretensión de alcanzar validez como norma reconocida para el conocimiento del mundo, relevante para la vida, o como norma para la vida misma, se llama *sententia*", Lauseberg, 1975, 199. "Oración semánticamente infinita, que aparece con la pretensión de valoración normativa", Ibidem, 259.

Sententzia hauen sinesgarritasuna egilearen gizalegetasunean<sup>208</sup> oinarrituta dago, eta ez beste inongo frogetan:

Gixonak eztau biar  
itz onik ukatu,  
guzurre esan baño len  
ixillik geratu, [...] (K037b)

Euskaldun ziran gure aitonak,  
Euskaldunak gurasoak,  
Zu ta ni ere Jaunai eskarrak,  
Biok euskaldunak osoak. [...] (K099a)

Ortze goyetan izarrik ezta,  
Ez baratzetan lorarik,  
Miren Jayone, Zeruko Ama,  
Zu zaran baxen ederrik. [...] (K108c)

Zeu zara, Miren Neskutz Garbijoi,  
Ama danetan onena,  
Garbitasunen antzikurra ta  
Egimenetan gorena [...] (K111j)

### 2.3.2. Konparazioa

#### 2.3.2.1. Konparazio simetrikoak

Urretxindorraren konparazioarekiko<sup>209</sup> gustuak haren erretorikan hain indartsua den bikoiztasunean izan dezake bere jatorria. Haren bertso gintzaren joera deskriptiboak zenbait konparazio simetriko egitera bultzatzen du.

**Basamortuan zelan oi diran**

**Ibilten artzain zintzoak**

**Batzuk zaindu ta bestetzuk batzen**

**Jan ez daiozan otsoak**

Alan eukazan Tonkin'tarrakaz

Balendin Berriotxoak

<sup>208</sup> Gizalegetasuna diogunean, Kepa Enbeitak eta bere zenbait garaikidek erakusten duten zintzo jokatzearen aldeko joera eta deia aipatu nahi ditugu. Alde batetik, haien erlijiotasuna izango da joera horren garantia edo bermea, eta bestetik, entzuleari egia erakusteko eta gezurrik ez esateko nahimena izango dira nahiko sinesgarritasun hori zabaltzeko (haien ustez behintzat).

<sup>209</sup> "Lo semejante, que es empleado como *locus*-prueba y como *ornatus*, consiste en la comunidad de una propiedad entre varias (por lo menos dos) cosas. La propiedad común a las cosas semejantes se llama *tertium comparationis*. Los fenómenos que no pertenecen al *tertium comparationis* de cosas semejantes son desemejantes (*dissimile*): por tanto, con todo lo semejante va mezclado algo desemejante, pudiendo variar el grado de mezcla. Lo *contrarium* es un grado especialmente claro de lo desemejante.[...] La *similitudo* es una esfera infinita de lo *simile* y consiste en una realidad general de la vida natural o de la vida típica de los hombres, realidad que se compara con el pensamiento propiamente dicho. [...] en la formulación larga de la *similitudo*, la comparación se aclara mediante el detallamiento enfático del *tertium comparationis*. Además, la función-*ornatus* de la comparación puede hacerse tan natural frente a la función comparativa propia que no todo detalle responda al *tertium comparationis*. La comparación se emplea en procesos humanos finitos, perceptibles por los sentidos, en procesos de la vida natural perceptibles por los sentidos, en procesos humanos o suprahumanos no perceptibles por los sentidos", Lausberg, 1975, 201-202.



Txarrak ondu ta onak zaintzeko  
Gurari biotzekoak. (K081h)

**Zabal oi diran lorarik lora**  
**Erliak oiñez ta aidian**  
**Ibilten dira, batzen dabenaz**  
**Ezti eiteko abian:**  
Alan ibil zan Tonkintar gaizto  
Odol-zalien artian,  
Zabal ebizan arimak batzen  
Jaunaz gozatu daitian. (K081i)

**Itxas-gizonak ixar argijai**  
**Adi egoten oi dira,**  
**Bera artezkaitzat dala juteko**  
**Ainbat ondoen errira;**  
Alan jarri zan euzkotarra be.  
Sabin andijai begira,  
Bere ikurriñaz eltzeko zuzen  
Euzko zorijonen kaira. (K040d)

**Gosiaz dauzan ardi gaxuak**  
**Nai-nora diran lez sartzen,**  
**Otso ta aizeri artera bardin**  
**Artzañak ez ba'dauz zaintzen,**  
Gure anayak lurralde atan  
Horrela ziran aurkitzen: [...] (K121h)

### **2.3.2.2. Konparazio laburrak**

Bertsoa simetriko bilakatzen duten konparazio era hauezaz gain, badira era laburrean eskainitako konparazioak, batez ere ideologia grafikoki irudikatzeko edo hartzailearekiko enpatia hori bilatuz. Enpatia hori nola lortzen da? Entzulegoak ulertuko lukeen erregistro bat erabiliz.

Berialaxe usteltzen dan lez  
Arima bako gorputza,  
Euzkel-Errija be ilgo litzake  
Euzkera ilgo balitza.  
—Astarloa, ez bildurrik ixan,  
Etsayak alper dabilta...  
Euzkeltzaliok garbitukogu  
Zuk dirauskuzun bijotza. (K144k)

### **2.3.2.3. Termino erreala laburra eta irudimenezkoa ondo zehaztua**

Azken konparazio eredua erakuste aldera, honako adibide hau ekarriko dugu hona:

Eguzkijaren argitasunak  
Ortzetik zabal jatxierik,

Lurreko gauxa orok jarten dauz  
 Osasunagaz jantzirik;  
 Eguzkijaren argija бага  
 Ezek eztaun lez bixirik,  
 Gure euzkera zar maite barik be  
 Ezta euzkotar erririk. (K037h)

Euskara eta eguzkia konparatzen ditu<sup>210</sup>. Ikusten denez, lehenengo hiru puntuak izaditik ateratako ereduaz zehazten eta azaltzen ditu. Azken puntuaren arrazoia, berriz, indartsuagoa da aurreko irudikatzeari esker.

Bistan denez, bikoiztasunean oinarritutako konparazioak ditu gustuko. Alde batetik, gizakiaren arima eta gorputza ditu iruditzat. Bi elementuon banaketak heriotza ekarriko lukeela adierazten da. Irudi horrekin adierazi nahi du Euskal Herria (gorputza) hilko litzatekeela euskara (arima) desagertzen bada. Konparazioa dela *lez* partikulak adierazten digu, besteak beste. Geroagoko zenbait bertsozari konparaziotik metaforarako pausoa emango dute<sup>211</sup>.

#### 2.3.2.4. Konparazio laburtuak

Badira beste konparazio labur batzuk, nabarmenegiak ez direnak agian, baina Kepa Enbeitaren estiloa areagotzen dutenak: konparazio laburrak dei ditzakegunak dira horiek eta ondorengoak horren mustira dira.

Ziñopea'ren gorpu-estalki  
 Arlosa zabal apala  
 Uste dot, zutik, arrantzezki gaur  
 Biurturik dakustala  
 Begi zabalez goruntz begira  
**Euzko-Deun aundi bezala**  
 Aberriaren bake-zoruna  
 Jauna'i eskatzen dautsala. (K045f)

**Uso-ameak kumeari lez**  
 On-etorria emon ondoren,  
 Itandu geutson: "Zein ederrago?  
 Nun gurago zeuk? An ala emen?" (K202d)

*Lez* edo *legez* partikularen erabilera nagusi da, behar izan metrikoen arabera bata zein bestea erabiliko duelarik. Dena dela, *antzera* bezalako partikulak ere konparazio laburrak egiteko erabiliko dira:

<sup>210</sup> Ez da hauxe Euskara eta eguzkiaren arteko konparazio bakarra. Beste batzuk aurkitu ditugu Urretxindorren corpusean, esate baterako: "Eguzkijaren argitasunak/ Gauditik zabal jantzirik,/ Lurreko gauza danak jarten dauz/ Osasunagaz beterik; / Eguzkijaren argia бага/ Ezek eztaun lez bixirik,/ Ez dau Lagi-zar eta Euzkera/ Bako euzkeldun erririk" (K048g).

<sup>211</sup> Honen harian, Xalbadorren bertso antologiko bat ekartzen dugu hona: "Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa: / izaite bat ez daike hezur hutsez osa; / **herria da gorputza, hizkuntza bihotza**; / bertzerik berextean bitarik bakotxa,/ izaite horrendako segurra hil hotza" (Aire, F., 1976, 180). Pare bat metafora egin ditu hirugarren puntuan, eta hemen argi dago konparaziotik metaforara egindako jauzia eginda dagoela.

Goizalderako izarrak **legez**  
 Oiban berak argi egin;  
 Pozik zeruko gozotasun au  
 Ludian zabaldu dedin,  
 Aingeru baten **antzera** baita  
 Jesus maitatzen alegin.  
 Aingeru lora au, zein zan ezpada  
 Berriotxo'tar Balendin? (K081e)

Urretxindorrek euskara plastizidade handiz erabiltzen duela erakusteko beste partikula baten erabilera ekarriko dugu hona. Izan ere, *lakoxe* partikula erabiliko du inoiz konparazio laburren bat egiteko:

[...] Andra eder ta bikañak,  
 Neskatxa polit apañak,  
 Udaberriko lili ta lorak  
 Diran **lakoxe** berdiñak. (K089m)

### 2.3.3. Kontrajarpena edo antitesia<sup>212</sup>.

Urretxindorren bertso gintzan kontrastea bihotzaren taupadak bezalako da: etengabea eta ezinbestekoa. Hain usua da ezen ez baita (bere) erabilera arruntetik aldentzen. Hauxe da, baita ere, ahozkoatasunaren joerekin lotzen duen ezaugarrietako bat, eta ezaugarri hori ahozko kulturetan nabarmentzen diren alde agonistikoetan oinarrituta dago. Horixe bera adierazten du Walter Ong-ek berak alderdi hau deskribatzeko tenorean:

Al mantener incrustado el conocimiento en el mundo vital humano, la oralidad lo sitúa dentro de un contexto de lucha. [...] Cuando toda comunicación verbal debe ser por palabras directas, participantes en la dinámica de ida y vuelta del sonido, las relaciones interpersonales ocupan un lugar destacado en lo referente a la atracción y, aún más, a los antagonismos (1987, 49-51).

Ahozkoatasunaren bizitzan kontrarioen arteko borroka nabarmendu egiten da. Horregatik, erretorika binarismo antonimikoetan oinarritzen da hein handi

<sup>212</sup> "La antítesis es la contraposición de dos pensamientos de amplitud sintáctica arbitraria. Podemos distinguir la antítesis de oraciones, la antítesis de grupos de palabras y la antítesis de palabras aisladas. La base léxica son los antónimos.

[...] En la antítesis de oraciones se contraponen, unas a otras, oraciones completas (principales o secundarias) coordinadas o que están entre sí en otra relación sintáctica. Al mismo tiempo, la correspondencia-oposición léxica de las oraciones opuestas puede ser más o menos clara. [...] En la antítesis de grupos de palabras se contraponen sintácticamente, unos a otros, grupos de palabras dependientes (coordinados, o que están entre sí en otra relación sintáctica). [...] En la antítesis de palabras aisladas se contraponen unas a otras:

- 1) Palabras sintácticamente coordinadas.
- 2) Palabras que están entre sí en otra relación sintáctica.
- 3) Una variante especial de la antítesis de palabras aisladas es el *oxymoron* que constituye una paradoja intelectual entre los miembros antitéticos", Lausberg, 1975, 191-192.

baten. Joera hori Kepa Enbeitak berenganatu egiten du eta kontrajarpenetan oinarrituko da bere arrazoiketaren alderdi zabal bat<sup>213</sup>.

Ondorengo bertsoa, esate baterako, kontrajarpenez beterik agertzen da eta kontzeptuak dira, batez ere, kontrajartzen direnak. Aholku positiboak emateko bertsoa ere bada eta, hain zuzen, aholkuen alde ona nabarmentzeko, zenbait elementu antonimoekin alderatu egiten du egileak:

Gixonak eztau biar  
**itz onik** ukatu,  
**guzurre esan** baño len  
**ixillik** geratu,  
**ekandu txarrak itzi**  
**ta onai oratu.**  
 Euzkeldun maite ori,  
 zaitez gogoratu,  
 aulan egiten dala  
 Euzkadi goratu. (K037b)

Hauxek dira ba, kontrajarpenok:

- “itz on” eta “guzurre”;
- “guzurre esan” eta “ixillik geratu”;
- “ekandu txarrak” eta “(ekandu) onak”;
- “itzi” eta “oratu”.

Semantikoki guztiz antonimoak ez diren arren, kontrako zentzua daukate bertsoaren testuinguruan.

Har ditzagun beste bertso-sorta bateko bi bertso:

Goiko Jauna'ren ixen deuna be  
**Euzko-abendaren elez**

<sup>213</sup> Txirrita bera maisua zen kontrastearen jokoan eta milaka aldiz baliatu zen horretaz bai bat-batean bai bertso-jarrietan. Juan Garzia Garmendiak horixe (1997, 50-51) bera aztertzen du bere *Txirritaren baratzeraren norteko trenbidetik* liburuan. Adibide bat aztertuz honela dio: “[...] garai batian ez genekiyen/ elektrikarik bazala,/ orañ ur oztak dabilki trena/ len irakiñak bezela.

Propio ekarri dugu adibidea, hala ere, ezin aproposagoa baita –punturik puntuko kontraste horrez gainera– puntuaren barneko kontrastea nabarmentzen dela ikusteko: ‘orain ur oztak/ len irakinak’ (errepara, bestetik, ‘garai batian’ > ‘orañ’ > ‘len’ zikular orri)”. Gaur egungo bertsolari bat aipatzearen, Sebastian Lizaso ekarriko dugu hona. Izan ere, eta honek ikerketa bat merezi duelakoan gaude (nahiz eta orain horri ezin ekin), kontrajarpenaren maixu bat dela nahiko nabaria da. 1999. urtean botatako bertso baten honela zioen: “Nik mamurikan ez dut maite ta/ zuk ez egin aipamena;/ gorpurik gabe handiago da/ nik sentitzen dudana pena./ Garai batean itsasotikan/ lortu ohi genduen dena,/ ta itsasoak berak eraman/ nere lagunik maitena;/ **gorrotatzera** iritsiko naiz/ lehen hainbat **maite** nuena” (EHBE, 2000, 71). Sebastian Lizasok berak honela zioen 2000. urtean, Zegama herrian egindako saio baten: “Elkarrizketak ekarri bitza/ ondorio nabarmenak,/ behin betirako arin daitezen/ herri zahar honen penak./ Baina Setien zurekin daude/ hemengo kristau gehienak/ eta zurekin ta zure alde/ otoitz eingo dute denak;/ Euskal Herria ez dute **maite**/ zu **gorroto** zaituztenak” (EHBE, 2001, 59). Bertso barruko kontrajarpen bat erakusteko, hona hemen Arrasaten urte berean botatakoa: “Aupa Alberto, adio Felix/ ta entzun gure ahotsa;/ mendizalea zendun gorputza,/ mendizalea bihotza;/ ondo uztartuz barrengo **sua**/ ta Himalayako **izotza**; / zoritxarrean handik heldu zen/ guretzat berri mingotsa,/ soka beraren bi ertz baidira/ **bizitza** ta **heriotza**” (Ibidem, 186).

Mintzatu biar ebenak, **arrotz**  
**Izkuntzan** gaztelarrak lez,  
 Asaben ele gozo ezti au  
**Baztarturik itzi** barrez,  
 Ta arroratzarena **erabilte-eben**,  
 Amea itzirik negarrez. (K039e)

Euzkadi gustiz **gaxo** eguan,  
 Eta bere **seme** galdu  
 Dan-danak **pozik** entzuten eben  
 amaren ainbat alaru;  
 Euzkel-Errijan **areriyuak**  
 Au gura eben **eraildu**,  
 Eta **semiak** Ama onegaz  
 Etziran eiten **gogaldu**. (K039f)

“Berbizkandia” izeneko bertso-sortatik hartuta daude eta, bistan denez, kontrajarpenez beteriko bertsoak dira. Euskara eta gaztelararen arteko borrokaz ari da. Borroka horretan gaztelarrak daude, euskara suntsitu nahi dutenak eta, beraz, arerioak. Bestaldetik euskaldunak daude, baina hauek, espero zitekeenaren kontra, ez daude euren hizkuntzaren alde: arrotz hizkuntza hobesten dute eta hori da *Ama* horren nahigabearen zioa. *Ama* hori nor den ez dago guztiz garbi: izan daiteke *Ama Euzkera* edo *Ama Euzkadi*. Dinamika hori erakusten duen kutsu agonistikoa honetan erakusten da: zenbait kontrarioen arteko borrokan. Hauexek dira aipatutako kontrajarpinak:

- “euzkoa” eta “gaztelarra”;
- “abendaren ele(a)” (edo ele gozo ezti au”) eta “arrotz izkuntza”;
- “baztarturik itzi” eta “erabilte-eben”;
- “gaxo” eta “pozik”;
- “semiak” eta “areriyak”;
- “eraildu” eta “gogaldu”.

### **Kontrajarpena eta elkarrizketa (edota eztabaida)**

Kontrajarpena dezente erabilia bada, elkarrizketak diren bertsoetan are gehiago, zer esanik ez. Har dezagun elkarrizketaturiko bertso batzuk. “Bei zarren bertsuak” izan daitezke langai egokia. Eztabaida dagoenetan, binarioen kontrajarpena oso usua da Kepa Enbeitarengan:

**Bi alditan asi az**  
**esnia batzian,**  
**bietan katillua**  
**dok erdi utsian.**  
 I baño abillaurik  
 ezpadok eltzian,  
 dantzan eingo yok orrek  
 okollu ertzian. (K161e)

Kepak bere elkarrizketakideari (bere anaia Imanoli) erakusten dio haren lanaren asmo eta lan horren emaitzaren artean dagoen kontrajarpena. Ikusten denez, adarjotze giroan, bere anaiaren baldartasuna modu zorrotzagoan adierazten du kontrajarpena erabiliz.

Imanol Enbeitak ere erakusten du kontrajarpena erabiltzeko joera hori bertso sorta osoan zehar.

Argi-mutil **on** barik  
postien onduan,  
**ator**<sup>214</sup> ikusitera  
zer moduz naguan; [...] (K161f)

Seguruan auala  
gau edozer diñok;  
baña “neuk eratzikot”  
alan be eztiñok;  
zikintzeko bildurrez  
esku guri piñok,  
**euk adarra jo eta**  
**lana barriz iñok.** (K161j)

“Peru eta Miren sutondoan” bertso-sorta ere elkarrizketatua da eta kontrajarpena baliabide garrantzitsua da bertan. Esate baterako, Peru senarrak honela diotso bere emazteari:

Etzaitez ikeratu,  
Ene emazte Miren;  
Bakigu orrek zelan  
Ixaten oi diren:  
Sasoyan sasoikua  
Beti da onduen,  
**Udan beruak eta**  
**Edurrak neguen.** (K169i)

Miren emaztea ere kontrajarpenaz baliatuko da:

Naiz-ta ekin gautegun  
Edurra egiten<sup>215</sup>,  
Zuri eztautzu ezek  
Zirkiñik eraiten<sup>216</sup>.  
Eztakik olakua  
Zelan ixan leiken;

<sup>214</sup> Imanol Enbeitak bere anaiari daukan jarrera kritikoa aurpegiratzen dio, besteak beste, arazoa konpontzeko ezer egiten ez duelako. Kontrajartzen ditu bereaz bere jarrera estatikoa (lehenengo puntuan adierazia, “eon” edo “egon” aditzarekin) berak (Imanolek) espero duen jarrerarekin (“ator” adizkiarekin adierazia).

<sup>215</sup> Perpaus kontzesibo honetan egoera ezkorra azaltzen da: eguraldi txarra eta horrek lekarzkeen ondorioak inplizituki adierazi egiten dira (kalte materialak, baserriko produkzioa hondatzea, ganaduarentzat eta etxeakoentzat ezin janariak bilatzea, eta abar).

<sup>216</sup> Egoera ezkor horri, eta apostrofea erabiltzera igaroaz, senarraren aldarte ona kontrajartzen dio emazteak.

Zure katxaza orrek  
Nauko irikiten. (K170b)

Elkarrizketetan agertzen diren adibideak asko eta ugari dira, eta denak aipatzeak luze joko luke. Hala ere, amai dezagun “Nikasi eta Miren” bertso sortatik ateratako beste adibide batekin. Gizona kezkatzen da beren egoera ekonomikoaz. Egoera horri, “burua lar bero” egoera kontrajartzen dio, hau da, asmo ugari eta kexa ugari dituztela, hain diru gutxirekin konpontzeko.

Geruau ta txarrago  
guaz urteoro:  
**sakela utsik eta**  
**burua lar bero.** [...] (K166b)

Atal honi amaiera emateko jadanik aztertua izan den kontrajarren mota bat gogora ekarri nahi dugu: azken puntuaren egiten dena hain zuen. Izan ere, azken puntuaren estilistika aztertu genuen kontrajarpena baliabidea azpimarratu egin genuen (azken puntua sententzia moduan aztertzean). Aipa dezagun adibideren bat, sikieran kontrajarpenak Urretxindorrarengan zein hedadura duen erakusteko:

Otza kentzeko bauku  
Mukurre naikua;  
Aberientzat, barriz,  
Bedar igertua;  
Zezin, urdai, lukainka,  
Kaxan labartua ...

Orain arte egoera onuragarriaren deskripzioa egiten du Kepa Enbeitak “Peru” pertsonaiaren ahotik.

Zeren bildur zara, ba,  
Ene andratxua? (K170c)

Azken puntu honetan Peruk galdetzen dio, hain egoera onuragarri horretan zergatik den beldur. Beldurra egotea egoerak sortarazten duen kontrako sentimendua da, eta horregatik sortzen da galdera, ez ulertzeagatik.

### 2.3.4. Klimax eta mailaketa

Bertsoaren egitura eta estilistika aztertzean (azken puntuaren estilistika barne), baliabide honen berri eman dugu jadanik. Atal honetan, beraz, ikuspegi orokorrago bat eskaintzea (egiturari edota azken puntuari horrenbeste erreparatu gabe) baino ez zaigu falta. Beste era batera esanda: ez dugu egingo baliabide honen azterketa exhaustiborik.

Mailaketak edo klimaxak era bikoak izan daitezke: bertso barrukoak (geroago ekingo diogu klimax mota honi) eta sorta barrukoak. Lehenengoak

erabiliagoak dira, unitate komunikatiboa den bertsoak horixe baitu estrategia legez.

### 2.3.4.1. Sortetan

Bigarren klimax mota arraroagoa da, sorta barruan estrategiarik eza sumatzen baita, oinarrizko ildo batzuk izan ezik. Bertso sorta luzeetan are eta murriztagoa da mailaketaren teknika. Hala ere, sorta laburretan aurkitzen dira adibide bakar batzuk. Esate baterako, “Artzain Barrija” bertso-sorta da horietako bat. Sei ahapaldi edo bertso dituen sorta da eta tristezia adieraztetik poztasuna azaltzera igarotzen da. Hona hemen lehenengoa.

Negu ankerrak oi dauzan legez  
Lora gustijak igertu,  
Mendijak gorri, zugatzak billoiz,  
Txorijak mutu bigurtu;  
Ta Udabarrijak lorak berbiztu,  
Txori ta danak alaitu;  
Geu be olantxe atsekabian  
Ondoren pozak jo gaitu. (K084g)

Bigarren bertsoak inflexio gunee bat suposatzen du; izan ere, hasierako tristezia dirauen arren, berri edo albiste pozgarri bat iragartzen hasten da eta tonua horrekin batera ere aldatzen da.

Europa'tiko negargarritzko  
Gudako izparrai begira,  
Tamalez sarri nire begijak  
Iturri bigurtzen dira;  
Baña gaur pozik begiratzen dot  
Jelkiden izparringira,  
Naigabe danak aitzuta nire  
Bijotza pozez jarri da. (K084h)

Laugarren bertsoan bozkarioa gorengo mailara ailegatzen dela dirudi:

Au izpar eder, au nire poza!  
Au bai nire atsegiña,  
Dakustanian amargarren Pi  
Doatsubaren ordaña!  
Ume zurtz giñan, ta bai-genduan  
Aita on baten premiña.  
Zorijontsuba ixan dailla ba,  
Kistar ororen Artzaña! (K084j)

Ezin aipamenik gabe utzi “Etxebarriko neure loria” bost bertsooko sorta. Urretxindorrek bere emaztea izango zenari eskaini zion eta bertan bere maitearekin bat egiteko oztupoak aipatuz doa hasieratik.



[...] nik bera eskuratu  
 eztagidan egin  
 batek baño geyagok  
 ein dabe alegin;  
 baña zirkin andirik  
 eztautsie eragin. (K120a)

[...] sasi baltzak albotik  
 egin eutzun urten,  
 galazo gurarikan  
 zu niganatuten. (K120c)

Alper nekauko dira  
 arantza ta sasi,  
 osasun ederrian  
 gu bagara bixi [...] (K120d)

Azken bertsoan (maitasuna indartsuagoa izaki), oztopo guztiok gaintitzeko itxaropenean, bere maitearekin batuko deneko unea iragartzen du:

[...] Laster luzetuko dot  
 zeugana eskua,  
 artzeko maite dotan  
 lora pozezkoa. (K120e)

### 2.3.4.2. Ahapaldietan

Baina ekin diezaigun Urretxindorrarengan oparoagoa den bertso barruko klimaxi. Kasurik gehienetan bertsoaren tentsio lirikoa eta edukia goratuz joaten da hasieratik bukaerara arte, eta hortaz goranzko klimaxa da nagusitzen dena. Hasierako puntuak gaia kokatzeko izaten dira eta aurrera joan ahala trinkotasun emozionala areagotu egiten da. Hona horren adibide bat:

Urkiola'ko zelayan giñan  
 Jelkide asko alkartu,  
 Bata bestia besarkaturik  
 Asmo ederra be artu;  
 Gerotxuago txadonan giñan  
 Jaupea entzuten sartu:  
 Gure bijotzak sutu zirana  
 Eta goguak indartu. (K134a)

Bistan denez, lehenengo puntuak testuingurua kokatu egiten du. Bigarren puntuak, ostera, “asmoen” mailara igaro da. Hirugarrenak, kokatzailea dirudien arren, ekintza espiritual bat adierazten du: *Jaupea* edo meza entzutea. Laugarren puntuak, azkenik, goranzko mailaketa horren sentiberatasun leherketa eragiten du: “bijotzak sutu” eta “goguak indartu” aditz jokatugabeekin (poz horren dinamismoa nabarmenduz) adierazi egiten da hori.

Goranzko klimaxa da daukaguna ia-ia kasu guztietan. Hala ere, klimax hori ez da oso nabarmena izaten, eta azken puntuak izan behar duen efektu

bereziarekin erlazonaturik dago. Goranzko gradazio edo mailaketa hori, beraz, bat-bateko bertso gintzaren joera honetan errotzen da, eta bere indarra handik hartzen du nagusiki, salbuespenak salbuespen.

Beste mailaketa adibide bat aipatzekotan, hona hemen bat:

Ni oyan gaxo nengualarik,  
 Usansolo'tik, "Patxiko",  
 Ludi zoroai agur egiñik,  
 Ezkuta ziñan betiko.  
 Miatati utsa ziñan gizona,  
 Euzkeldun bijotz andiko.  
 Ene osaba bijotzekuoi,  
 Etzaitut aitzuta itxiko. (K204h).

Hildako osaba bati eskainiriko bertsoa dugu hau. Lehenengo bi puntuak, berriro ere, testuinguru konkatzekoak dira, nahiz eta, era berean, hildako horri (Zeruan entzule duen osabari) apostrofea zuzentzen dion. Hirugarren puntuak bere osabari laudorioak eskaintzeko gunea da. Laugarrenean bere osabarekiko identifikazioa eta leialtasun promesa egiten ditu Kepa Enbeitak.

Ama Birjinari eskainitako bertso ugarietako bat aukeratu egingo dugu, goranzko klimax bigun hau adibidetzeko.

Zeruan eta lurrian zara  
 Ama benetan onena,  
 Garbitasunen ispillua ta  
 Onoidadetan gorena;  
 Jakituria daukozu, barriz,  
 Azken bagako almena,  
 Zeu zara gure bitartekua,  
 Zu gure itxaropena. (K089c)

Atribuzio bertsoztat bataiatu dezakegu; izan ere, egileak, Ama Birjinari zuzendurik, hark dituen dohainak eta atribuzioak goraipatzen ditu. Ama Birjinaren dohainak aipatzerakoan badirudi ez duela jarraitzen inongo eredu klasikorik<sup>217</sup>, senak iradokitzen diona baino. Hala ere, azken puntuak tentsio lirikoaren gailurra suposatzen du bigarren pertsonaren izenordea modu anaforikoan erabiliz (Zeu, zu) eta, era horretan, erabateko identifikazioa islatuz, batez ere azken hitzean: itxaropena.

Azkenik, heriotzaren aurrean jarrera ezkor batetik itxaropentsu eta positiboago batera nola igarotzen duen berriro agertzea merezi du; izan ere, goranzko klimax hori nabarmenago antzemango dugu.

---

<sup>217</sup> Badago Aurelia Arkotxaren artikulua bat non Oihenarten estiloak neopetrarkismoarekin zer ikustekorik zeukan aztertzen duen. Bertan emakumearen edertasuna (gorputzekoa eta morala) nola dagoen kodifikatuta aztertzen du, eta kodifikatze horrek zer erlazioa du Europako bestelako poetekin ere du aztergai, 1994, 401-450. Berau ikustean konturatzen gara Oihenartek behintzat idatzizko kultura ezagutzean bide kodifikatu jakin bati eusten diola kontzienteki. Urretxindorraren kasuan, idatzitako kulturaren ezagutza murriztagoa izatean, ezin dio bide kodifikatu bati jarraitu, eta nahiz eta zerbait jaso duen (irakurriz, entzunez) ez dirudi hausnarketa teorikorik egin duenik.

Ezin kendu dot atsekabe bat  
 Bijotz barruan dedana,  
 Neure aizkide Luzi Zabala  
 Iltiaz artu nebana:

Horrela hasita, ematen du guztiz giro ezkor batetik ezin izango dugula irten, baina bertsoak honela jarraitzen du.

Abertzale bat Euzkal-errija  
 Asko maitatzen ebana,  
 Luditik jun da, Jaunak esanik:  
 "Erdu betiko Neugana". (K083f)

Azken bi puntuak ez dira ezkortasunera lerratzen. Urretxindorra eta bere entzulegoaren balio munduan, Jaunaren deia jasotzea, mundu hau uzteko (hiltzeko) bada ere, zer edo zer duingarria da, ohore bat zelanbait esatearren. Goranzko mailaketa hori hurrengo bertsoan areagotuko da:

Alde batetik naigabetu naz  
 Neure laguna iltiaz  
 Baña bestetik atsedendu naz  
 Beren agurra eitiaz.

Oso mingarria zen gertaera horri bere alde ona ikusten hasten zaio:

Ludiko gauza danok itxirik  
 Jaunaren borondatiaz,  
 Autortu eta bake onian  
 Jarri zan Goiko Aitiaz. (K083g).

Alde positiboan sakontzen du bertsoaren bigarren zati honetan, ikuspegi itxaropentsu eta baikorra trinkoago bilakatuz.

Goranzko klimax hau, beraz, eta laburbilduz, azken puntuaren erretorika joerari laguntzera dator alde batetik. Baina bestetik, erakutsi denez, Urretxindorraren ideologiaren ondorio bat da, bere gizatasun kristauaren ondorioa hain zuzen: errealitate ezkorrak edota gordinak eta bizitzaren oztopoak gainditu ahal direla, batez ere Izadiz gaindiko Izaki baten laguntzaz, Jainkoaren laguntzaz hain zuzen. Mundu honen helmuga ez dago amildegi traidore eta zentzubako baten, salbatu nahi gaituen esku errukitsu baten baizik (baina salbatuak ez izateko askatasuna errespetatuko duena).

## 2.4. Asmo irudiak eta zeharkakao irudiak

### 2.4.1. Ironia<sup>218</sup> eta sarkasmoa<sup>219</sup>

---

<sup>218</sup> "La ironía como tropo de pensamiento es, primeramente, la ironía de dicción continuada como pensamiento y consiste, así, en la sustitución del pensamiento indicado por otro que está en relación de oposición con ese pensamiento de parte contraria", Lausberg, 1975, 215.

Ironia da asmo irudien artean nabarmendu daitekeena, Kepa Enbeitaren bertsogintzari dagokionez behintzat. Ez da Urretxindorraren ardatz-irudi bat, inolaz ere, batez ere estilo zuzen, ekintzaile eta kontzientziatzaileko lagungarria suertatzen ez delako.

Baina Urretxindorra ironia erabiltzen dakien bertsolaria da. Bere erabilera gai-esparru satiriko eta ludikoetan nabarmenduko da. Eta hain zuzen ere, bere gai-esparru satiriko eta ludikoak oso murrizak izanik, ez du horrenbeste erabiliko. Horregatik, eta ez trebetasun faltagatik, egotzi ahal diogu Urretxindorrari eskasia hau.

Adi-erazoteko neure gurariak,  
Bide batez esango ditudaz egiak:  
**Sakristauak dirade dristiñau zoliak,**  
Entzungarriak, barriz, euren pikardiak. (K162l)

**Egun danetan dagoz sarturik eleizan,**  
**Abadien aurrean santu baten gisan;**  
Gero ikusi biar zer moduz dabiltzan,  
Zintzo asko orain arte beintzat ezta izan. (K162n)

### **Sarkasmoa**

Sarkasmoa ironiari lotuta dago Urretxindorraren bertsoetan. "Irukoitz barrija" bertso-sorta aipatu dezakegu lehenengoz, ironiaren aldaki hau jorratzen hasteko. Garai hartako<sup>220</sup> ABC egunkaria eta bertan agerturikoa

---

Demetrio Estébanez Calderón-ek ematen duen definizioa honako hau da: "Es un procedimiento ingenioso por el que se afirma o se sugiere lo contrario de lo que se dice con las palabras, de forma que puede quedar claro el verdadero sentido de lo que pensamos o sentimos. La ironía es un recurso fundamental en la literatura humorística. Está en relación con la sátira y el sarcasmo. De hecho, el sarcasmo no es más que una ironía llevada a un grado de dureza, crueldad o cinismo amargos. En general, la expresión irónica va acompañada de una determinada entonación para que sea percibida como tal. En la lengua escrita, el lector debe descubrirla a través del contexto.", Estébanez Calderón, 1996, 574.

<sup>219</sup> "Término de origen griego con el que se designa una burla irónica y cruel, dirigida a ofender a personas o instituciones", Estébanez Calderón, 1999, 963.

<sup>220</sup> Sorta hau, 1918ko apirilaren 25ean argitaratua izan zen *Euzkadi* aldizkarian. Bilaketa baten ostean haxe aurkitu dugu ABC egunkarian: 1918ko apirilaren 20an, Víctor Praderaren (Iruñea, 1872–Donostia, 1936) hiru argazki agertzen direla, gorputz osokoak eta hitzaldi beraren hiru une desberdinetan. Azpian "Un gran patriota" izenburua. Horren azpian beste izenburupeko hau: "D. Víctor Pradera, Diputado a Cortes vascongado, pronunciando su celebradísimo discurso. (Foto Zegri)". Ondoren, bere diskurtsoaren zati bat: "'La historia, no esa que han forjado los nacionalistas, una historia falsificada, sino la historia de verdad, la historia de lo que fue, nos dice que Navarra tenía su vista puesta en Francia; Alava y Guipúzcoa tenían su vista puesta en Castilla; Vizcaya vivía separada de los otros pueblos; que cuando dos pueblos vascos se unían, era para separarse al poco tiempo, y hoy todavía un pueblo vasco, cuyo distrito representé yo aquí en otra ocasión, hace fiesta de llevar una espada, que es el símbolo de una batalla ganada a los navarros; y lo que ha quitado la malica a esto no es más que una cosa, y es que hoy somos verdaderamente hermanos dentro de la Patria española. Ese es el gran timbre, el gran motivo de agradecimiento que tenemos los vascos para España. Cuando vivíamos fuera de España, nosotros reñíamos, luchábamos los unos con los otros; cuando hemos entrado en España, es cuando hemos visto que somos verdaderamente hermanos los unos y los otros.

Y después de dicho esto, yo quiero dirigirme a los señores de la minoría nacionalista y decirles que cuando una familia tiene un destino que seguir, ese destino se sigue indefectiblemente, ocurra lo que

hartzen du arbuiatzeko gaitzat. Egunkari horren egileei leporatzen die “Irukoitz” edo Trinitate berria sortu nahi dutela.



Víctor Pradera

Begira nayauk irukoitz oni ...  
 Auxe dok auxe berbera!  
 - Aita, Semia eta Goteuna?  
 - Ez olan barik, bestera.  
 Esango yatzu zelan dan; ara:  
 Lotsagabe, dollor, gangarra,  
 Iru bigote ta iru kalbogaz  
 Egizko arro bakarra. (K199k)

Sarkasmoa da nagusi bertan, eta betidanik Hirutasunari eskaini zaion tonu solemnea erabiltzen du mespretxuzko adjektiboak erabiltzeko. Kontraesana dagoela esan daiteke: tonu solemne eta elukotiboki hurrenkera jakin batekoa<sup>221</sup> erabiltzen du, iseka arrunta egiten du, eta honi sarkasmo izaera egozten diogu.

Azpijan idazkun bat:  
 “El gran patriota”.  
 Obe onen lekuan  
 Beste au baleukan  
 “El gran malas entrañas”,

---

ocurra, y España es nuestra gran familia. Con España tenemos que estar en los momentos felices y en los momentos desgraciados; nosotros no podemos romper amarras con España, no; o nos salvaremos o pereceremos con España. Señores, ¡Dios quiera que nos salvemos con España! (grandes aplausos) Del *Diario de Sesiones*”, *ABC*, Madrid, 1918-IV-18.

<sup>221</sup> Hauxe litzateke tradizionaliki egin den enuntziazioa: “Aita, Semea eta Espiritu Santua, hiru pertsona eta egizko Jainko bakarra”.

Arro, buru-loka.  
Ama il nai daun semiai  
Ori yagoko-ta. (K199l)

Azken bertso honek sarkasmotik zera dauka: argazki-oin bat manipulatu egin nahi duela, hizkuntza eta egitura mantenduz. Benetako enuntziatu eta manipulatu nahi duenaren artean trantsizio puntu bat dago, leunki adierazia, baina esaldi zital batera garamatzana: “Obe onen lekuan/ beste au baleukan”. *Obe* adberbioa erabiltzen badu, printzipioz horrek esan nahi du lehenengoa ona zela. Badakigu Urretxindorrek ez zuela pentsatzen ona zenik, baina hizkera sasi-akademiko bat imitatu egiten du, zuzenki kritikatu beharrean. *Litotes* kasu baten aurrean gaudela ere esan dezakegu, eta ezin dugu ahaztu zenbait akademikok *litotes* ironiarekin erlazionatu izan dutela<sup>222</sup>. Beraz, egokitu nahi balu bezala, zuzendu egiten du, besterik ez.

Bestelako baten, karabineroen deskripzio sarkastikoa ikus dezakegu:

Geyenak dira eurak morrosko ederrak,  
Txanka-me, praka-nasai, sorbalda-(b)edarrak;  
Zutunik ibilteko ez dira ain txarrak,  
Dotore ipiñirik surpeko bixarrak. (K162i)

Bertso hau isolaturik kontsideratuta, badirudi karabineroak goraiatu nahi dituela haien deskripzio ona eginez. Baina, bertso-sortan kokatua, iseka egiteko asmo bat antzematen da; izan ere, kontraste nabarmena dago erakusten duten dotorezia zein kanpo itxura egoki eta goi mailakoa, beren jarduera doilor eta ustelarekin. Hona hemen joera hori erakusten duen bertsoetako bat:

Etorriten daninan portura ontzia,  
A errekiatzen dauko biar nagusia;  
Baña emon ezkeron ixilik saria,  
Libre itxiko deutse gauzari pasaia. (K162d)

Badira bestelako baieztapen ironiko batzuk bertso barruan ezeztatzen direnak:

Aizak, nere aizkide, Prantses ospetsua,  
Txarriak urten deusku txito koipetsua.  
**Zorionian beraz eñ gendun tratua,**  
**Dalako txarri oso enda onekua,**  
Bizar zorrotua,  
Gaizki kapatua,  
Musturrez txatua,  
-Au bai neskatua!-  
Lapikua ontzeko sekulakua,  
Prantsez ospetsuari artutakua. (K184a).

<sup>222</sup> Heinrich Lausberg-ek esate baterako, honela dio: “La *litotes* es una ironía perifrástica por disimulación, en cuanto que un grado superlativo es transcrito por la negación de lo contrario”, 1975, 112.

Ahapaldiaren hasieran baieztapen hau agertzen da: “Zorionian beraz eñ gendun tratua,/ Dalako txarri oso enda onekua”. Ondoren datorrenak, ostera, gezurtatu egiten du aurrekoa<sup>223</sup>. Beraz, harridura ironiko baten aurrean gaude, nolabaiteko haserrea eta dezepzio sentimendua era adierazkorragoan agertzeko. Ondorengo bertsoak ere honelako baieztapen ironikoa dauka:

**Txarri abillagorik ezin lei billatu,**

Gitxi jan ta bear asko egiten deusku,

Askan aukiagaitik arto-baba-zuku,

Onek danak utzirik, **lanerako gertu:**

Azpije atxurtu,

Ormia puskatu,

Atia apurtu,

Au lepuan artu,

Eta tximista berak eruten deusku.

**Txarri ona nai daunak Prantsesai artu.** (K184b)

### 2.4.2. Zeharkako aipamena<sup>224</sup>

Ezaguna da Urretxindorrek entzulegoaren konplizitatea bilatzeko duen joera. Konplizitate hori bilatzea, ahozko kulturetan eta beraien ahozko produkzioetan gertatzen da sarritan; izan ere, testuinguru egoerazkoa eta testuala oinarri ezinbestekoak izaten baitira, komunikazio maila honetan. Joera honetan kokatzen da noizean behin Urretxindorrek zeharkako aipamenak egiteko duen joera. Horren jakitun izateko, garai hartako giro soziopolitikoaz zerbait ezagutzea beharrezkoa da. Garai haietan horretaz jakiteko, hiritar arrunta izatea besterik ez zen behar, hau da, orduko esamolde arruntak, alderdiak izendatzeko era herrikoiak (jaimetarrak, txapel okerrak, e.a.), eta gertaera nabarmenen ezagulea izatea.

Hori bai, zeharkako aipamen horiek hizkera herrikoia mailakoak dira kasurik gehienetan, kultura klasikoari eta bestelako jakintzei jaramon handirik (edo behintzat erreferentzi garbirik) egin gabe.

Badago “Betaurrekoak” izenburua duen bertso-sorta bat. Izenburua bera, metafora bat izateaz gain (betaurrekoak gertakizunak ikusteko modua da, edo zehatzago esanik agian, jarrera politiko batetik gizarteko gora beherak epaitzeko joera), norberaren ideologia politikoari egiten dio zeharkako aipamen bat. Ez da irudi berria, herriak edo entzulegoak errez ulertzeko modukoa da eta hain zuzen horregatik dago ahozko estilotik gertu.

<sup>223</sup> Jon Enbeitak berak azaltzen du bertso hauen testuingurua *Enbeitatarrak II* liburuan: “Bazen Zornotzan “Prantsesa” deitzen zioten tratante bat. Urretxindorrek ere berari erosi omen zion txerria, baita damutu ere. Basurde mizkina gehiago zirudian txerria baino”, 2000, 113.

<sup>224</sup> “Figura retórica que consiste en designar una realidad por medio de otra que tiene relación con ella, a través de ciertas conexiones de sentido percibidas por el oyente o lector [...] La alusión tiene como base la polisemia de las palabras, se encuentra implícita en una serie de tropos y figuras literarias como la metáfora, sinécdoque, el eufemismo, la perífrasis, la ironía, la antonomasia, etc.”, Estébanez Calderón, 1996, 28.

[...] Zelan dakuskuz geurian lorak  
 Ta besteenetan arantzak?  
**Betaurrekoak** doguzalako  
 Zuritxuak eta baltzak. (K174b)

Bada beste apelatibo arrunt bat beste bertsolarien produkzioetan aurkitzen dena eta Urretxindorrek behin baino gehiagotan erabiltzen duena, espainiazaleak adierazteko, edota Espainiaren batasuna aldarrikatzen dutenak izendatzeko: “piperpotiak”.

Nozbait ikusten dabezanian  
 Bidian **piper-potiak**  
 Batzuk barruba utsa daukenak,  
 Bestatzuk erdi betiak  
 Ezarri dautsen zikintasuna  
 Arrotzalien koipiak  
 Garbituteko, ingorritxuak  
 Damotsez gure gastiak. (K036b)

Bada **piper-potiok**  
 Amurruz ei dabiz  
 Ni espetxe barruan  
 Sartzeko gurariz,  
 Ta ondo letorkidaz  
 Olakorik balitz,  
 Emazte ta umiak  
 Alikatzeko ogiz. (K172a)

Bat artu dau goguan  
 Bestiak aztute,  
 Bakarroi bialtzeko  
 Pizkat orraztute,  
 Jakitun egon daiten  
**“Liga Piperpote”**.  
 Orren bizkorra zanik  
 Ezkenduan uste. (K172c)

Eztou nai **piperpoterik**  
 Ez utsik ta ez beterik  
 Euzko-eredu zintzo zolijak  
 Nai doguz bakarrik  
 Agertu bai-dai besterik  
 Eztauke ona sartzerik.  
 Onak yauzak, ba, gure gastioak  
 Izteko olantxerik. (K172f)

Honetan ere hizkera herrikoia mailan jartzen da Urretxindorra. Kasu honetan, ez da mizkina erdal jatorria duen sintagma bat erabiltzeko, sabinismoaren garbizaletasuna gora behera. Hori bai, inoiz “piper-potia” letra kurtsibaz idazten du, agian sintagmaren kanpokotasuna agertzeko eta bere burua zuritzeko, lehenengo adibidea kasu.



Bestelako zeharkako aipamen mota arruntagoak ere aipatu beharko genituzke, baina oso luze joko luke. Azkeneko bat aipatzearen, emakumeen zeharkako aipamen poetiko haxe (ez oso berezia edota orijinala bestalde) ekarriko dugu gogora:

Euzkeldun **uso** samur polit bat  
Egaz bidaltzeko agintzen deustak.  
Euzkadi'k daukon **usotegia**  
Gurgarria dok, ori egia.  
Baña len zetan,  
Oneik itxita, orra jua intzan  
Orain neroni eskatzekotan? (K192d)

Or **uso** polit asko ei dira;  
I, barriz, orrei ta onei begira.  
Euzko-alabak orreik ba'dira,  
Eruaikek bat eure kabira.  
"Baña Euzkera?"  
-Ori dok, mutil, itza oster! ...  
Etxok, ba, ikasko eugaz batera? (K192e)

*Uso* izena da emakumeari zeharkako aipamena egiten diona, eta erraza da antzematekoa. Zeharkako aipamen hori, arerio politikoaren karikaturarekin adierazten da batzuetan. Sozialistei honako ezizenarekin egiten die erreferentzia:

Geuriak ziñegotzi, geuria aldunak ...  
Euzkadi'n agintzeko beti euzkeldunak.  
Eskier dakusgu, ba, geure garaitzia,  
**zozolistuak** be bai ... or dau ba untzia! (K146a)

Gelduta esango dabe ludi zabalian:  
"cavernicola"-k lan au eiten dabenian ...  
**zozolistuak** euren basurdekin naste,  
noz egingo yuek beste onenbeste? ... (K147a).

### 3. Tropoak

*Elocutio*-ari dagokion atal batez ari gara orain, eta beraz Kepa Enbeitak bere bertsogintzaren *elocutio*-a edo ahoskatzea (mintzakera adiera barne) nolakoa zen edota zer nolako ezaugarriak zituen dugu aztergai. *Elocutio* delakoaren bertuteen artean *ornatus*-a daukagu. *Ornatus* delakoaren bitartez mintzatzaileak, gure kasuan bertsogileak, edertasuna bilatzen du; izan ere, edertasunak atsegina ematen du eta atsegin (*delectatio*) hori eragiten duen objektuaren jabe izateko gogo pizten da horrela. Gogo horrek borondateari eragiten dio noski, eta hori dela eta berriro ere ailegatu gara Erretorikaren helburura, borondateari eragitea alegia, pertsuasioa azken finean, horixe baita tropoen helburua.

Baina jakina, Kepa Enbeitaren hezkuntzan printzipio hauek ez ziren formalki irakatsiak izan. Kepa Enbeitaren garaietan, apaizgaitegian eskaintzen

zen irakaskuntza mota hau, eta irakasten zen hori hertsiki lotuta zegoen Erretorika erlijiosoari<sup>225</sup>.

Ausartuko gara esatera, beraz, Urretxindorrek erabiltzen dituen tropoak, inkontzienteki, edo behintzat, Erretorikaren printzipio teorikoak kontzienteki gogoan izan gabe darabiltzala.

Edertasun sena, ordea, guztiok daukagu, eta heziketa erretorikorik izan ez arren, norberak bilatzen ditu bere bideak adierazpide guztietan edertasuna isurtzeko, ahal den neurrian behintzat. Urretxindorrek halaxe egin zuela erakutsi dugu dagoeneko, eta erakusten jarraitu nahi dugu *ornatus*-aren atal honetan agertzen diren tropoak aztertuz ere.

### 3.1. Sinekdokea<sup>226</sup>

Esan genezake Urretxindorren irakaspen senerako oso egoki datorrela sinekdokearen erabilera zenbaitetan. Jakina, ez doa sinekdokea bilatzera zuzenean, baizik eta bere efektua, bere edertasun edota irakaspen ukitua. Baina esan bezala, beti ere bere irakaspen senaren mesedetan, ez aparteko eta berezko edertasuna bilatuz.

Nabarmenagoa da, adibidez, egiten duen singularraren erabilera, errealtate pluralak adierazi beharko lituzkeen kasuetan:

[...] Geruago ta sutsuau dua  
Ziñistez **euzko sendija**,  
Bijotz osuaz maitatu nairik  
Lourdes'eko Miren garbija. (K033a)

<sup>225</sup> Gainera esan beharra dago Erretorika erlijioso horrek XVII mendean duela bere jatorria eta orduetik ez zen apenas garatu. Batez ere josulagunen *Ratio studiorum* delako erretorikaren hezkuntza sistema da estilo honen oinarri nagusia. *Historia breve de la Retórica* liburuan, honen ezaugarriak eta egile nagusiak aztertzen dira (Hernandez Guerrero, J.A., 1994, 108-111). Euskal alorrean, Agustin Cardaberaz josulaguna dugu mugarri bat euskaraz egindako sermoigintzan. Sermolari ospetsua izateaz gain, teorizazio lan bat edo beste argitaratu zuen. Esate baterako, *Eusqueraren berri onak* liburuan, VIII. kapituluak "Eusquerazco erretorika nola dan" izenburua agertzen da, eta bertan erretorikarako euskararen doaiak aipatzen ditu. Erretorikaren beharra ere azaltzen du. IX. kapituluak "Cristau dotrinaren erretorika" izenburua dauka. Aipamen hauek entresakatzerara ausartzen gara: "Noaizean beñ Egemplocho bat contatcea, urrezco iltce batequin bezala, Dotrina gure Eufcaldunen biotcetan jositcea da. [...] Egercicio eder onen ondoren, Dotrinaren puntu berariazco bat berac azaltcen, edo efplicatcen zuen: ez luce, ta'ez labur, bere neurri onean; baña eufquera claru, egoqui, ta erricoari acomodatu, ta cegoquienean [...] Cura Jaun gucien biotzac Efpiritu Santuac arguitu, berotu, ta guiatu ditzala, beren egemplo, ta dotrinaquin anima afco falvatceco. Amen" (Cardaveras, 1973, 168-170).

<sup>226</sup> Askok dira sinekdokearen definizioak. Esate baterako, Heinrich Lausberg-ena: "En la sinécdoque de lo más amplio sobre la base del locus *a maiore ad minus* lo más reducido es expresado mediante lo más amplio, a saber, la especie por el género, la parte por el todo, el singular por el plural, el producto acabado por la materia prima.", Lausberg, 1975, 104. Guk berriro ere gustokoena dugu Demetrio Estébanez Calderónena, argigarriena eta erabilgarriena dela iruditzen zaigulako (ez besteak zehatzak edo zuzenak ez direlako): "Recurso expresivo que implica una traslación de significado de un término a otro, en virtud de sus relaciones de contigüidad. Es, pues, un tropo de carácter semántico, lo mismo que la metáfora (que se basa en relaciones de semejanza) y que la metonimia, fundada igualmente, en relaciones de contigüidad de tipo causal, espacial o de tiempo, mientras que la sinécdoque lo es de integración cuantitativa: relaciones de un conjunto con sus partes y viceversa" (1999, 996).

Giro idealista baten kokatuta, abertzaletasunaren giro eta asmo idealistetan alegia, bere herrikideak multzo bakar bezala ikusten ditu; izan ere, norbanakoek osatu ahal duten multzo bat norbanakoa izango bailitzan hartzen du ideologia batek, sikan bere arrazoiketaren tresnatzat. Testuinguru honetan, bere herrikideen multzo horri Urretxindorrek “eusko sendija” deitza gogoko du, izendapenean bertan bere atxikimendua eta bere txera gozoa adieraziz. Giro idealista berberari dagokio hurrengo bertsoa ere:

Maitetasunak dau batasuna,  
 Batasunak dau indarra;  
 Iñozko geyen daukogu, barriz,  
 Indar orixen biarra.  
 Batu gaizan ba, guraso danok  
 Euzkotar onak ba'gara,  
**Gure sendijak** ikasi dayan  
 Geuk gura dogun erara. (K042e.)

Maitasuna, batasuna eta indarra dira hasieran agertzen diren balioak, eta era berean, bertsoari bideratze idealista ematen diotenak dira. Beraz, “gure sendijak ikasi dayan” singularrean formulatutako subjektu hori ere idealizatuta agertzea ez zaigu arrotza suertatzen.

Urretxindorren ideologia politikoak sortarazten duen giro idealistak ez du alde nabarmenik bere sinismen konbentzimenduekin edota haiek sortzen duten giro idealistarekin. Ondorengoetan, gizon guztiei eta bakarrei zuzenduta legokeen mezua edota erreferentzia gizon bakarrari zuzentzen dio, horren idealizazioa eginez:

**Gixonak** eztau biar  
 itz onik ukatu,  
 guzurre esan baño len  
 ixilik geratu,  
 ekandu txarrak itzi  
 ta onai oratu.  
**Euzkeldun maite ori**  
 zaitez gogoratu,  
 aulan egiten dala  
 Euzkadi goratu. (K037b)

Algustiduna goyan  
**gizona** lurrian,  
 Euzko-abenda zarra  
 lur onen ganian [...] (K053f)

[...] Gauza gustijen Egile orrek  
 maite-maite dau **gizona**,  
 Eta gixonak, zegaitik ein ez  
 Egilliaren esana?  
 Egilliaren esana?... (K060f)

Arestian aipatutako adibideen zerrenda ez dugu luzatuko, baina esan dezagun ugari direla. Ugari dira baita ere han, hor, hemen agertzen diren

bestelako sinekdokeak, beti ere hizkera arruntaren hurbilekoak direnak, baina beren etengabetasun eta aniztasunagatik testua aberasten dute eta poetikoago bilakatzen dute:

Uri, baserri, lior ta itxaso,  
Lantegi bat ludija..  
Lanetik dator irabaztia,  
Irabaztetik **ogija**... (K068d)

Ezaguna da “ogia” erabiltzen denean, janariak, elikagaiak edota mantenua adierazteko erabiltzen denean sinekdoke baten aurrean gaudena. Gaur egun erabilera hori oso arrunta da eta ondorioz irudiaren izaera (erabilera arruntetik aldentze bat suposatzen duena) ozta-ozta gordetzen du (gordetzen badu, zeren eta hori ere eztabaidagarria bailitzateke).

Edukitzailea edukiaren ordeztu aipatzea ere sinekdokea da, eta oso arrunta izaten da, lurraldearen izena aipatzen denean lurralde horretako biztanleak edo hiritarrak adierazteko. Bada horrela egingo du Urretxindorrek sarri, bere ideologiaren mistizismoa jorratuz.

[...] Eta Iruña'rantza  
Duaz arin-arin  
Goi-eskarrez **Nabarra**  
Jeltzaletu dedin. (K070d)

Ulertzekoa denez, jeltzaletuko liritekeenak nafarrak izango liriteke. Berez, *Nabarra* edo Nafarroa terminoak lurraldeari egiten dio erreferentzia, baina Kepa Enbeitak giza multzoak norbanako biziduntzat hartzen ditu. Gauza bera gertatzen da *Euzkadi* edo *Euskalerrri* terminoen zenbait erabilerekin. Ondorengo bertsoak sinekdoke bat baino gehiago ditu, eta horien artean *Euzkadi* terminoarekin egindakoa dago, euskaldunak edo *euzkotarrak* adieraztea zuzenagoa litzateke:

Euzko-Gastedi zintzua, barriz  
**Euzkadi** gaizkatziati  
Gau eta egun lanian dabil:  
Ori edozeñek daki.  
Arana-Goiri'k itxartu eban  
**Euzko-semia** lotati,  
Ta Aberrijaren berbizkundia  
Dator bere erijotzati. (K035b)

Sinekdoke arruntan haria berreskuratuz, ezin aipatu gabe utzi ahozko erregistrotik aldentzen ez diren beste batzuk:

Zintzuak jarraitzen dau  
maiteki lanian  
nekiak eskiñirik  
Jauna'n ixenian  
Nagia **zurruitera**

dua geyenian,  
artarako **txanponik**  
aurkitzen daunian. (K182c)

Ardoa edatea adierazteko *zurruta* aipatuko du eta dirua edota ahalmen ekonomikoaren ordeztan *txanpon* hitza erabiliko du. Oso era herrikoian edertutako bertsoa dugu, ahozkotasanaren erregistrotik aldendu gabe, idatziz paratutako bertsoa izan arren.

### 3.2. Metonimia<sup>227</sup>

Metonimiaren erabilera mota bat nabarmentzen da besteen artean, alde handiz gainera. Elementu fisikoa aipatzeko joera dago, beste alor moralaren ordeztan. Bereziki, *bijotz* berbarekin egindako metonimia dugu nabarmenen, gizakiaren alor afektiboa edo maitatzeko ahalmena adierazteko unean. Ezaguna da, era berean, oso metonimia arrunta dugula, eta ozta-ozta ailegatzen dela irudiaren mailara. Dena dela, Urretxindorraren bertsogintzan nabarmena da eta aipatu beharra dago:

Jaupaldi eder asi zanian  
Donoki neban ikusten;  
beste aldetik gotzon-eresi  
ta abes gozuak entzuten.  
Iturri oneik neure **bijotza**  
ur gozoz asetu eusten:  
orra betiko zorionduta,  
geyau ezpa-yat legortzen. (K085e)

[...] Jel-maitasun zintzua  
Ba'dauko **bijotzak**,  
Bijotz au artu geinke...  
Euzko-eredutzat. (K051a)

*Bijotza* hitzak maitasuna adierazten badu, *buru* hitzak adimena adierazi nahiko luke, hau da, atal fisikoa alor moral baten ordeztan berriro ere:

Oin urte batzuk geure ele maite  
"Euzkera" ez ekijenak,  
Gaur dagoz ondo itz, idatzi eta  
Irakurriten dabenak;  
**Buruz** argijak, **bijotzez** onak,  
Ibilten ankaz onenak,  
Ije aratu dabez euzkeldun  
Erri ta mendi geyenak. (K035k)

Ta bijotzak zart egiten dautse  
Irakurten dabenian;

<sup>227</sup> "Es la sustitución de un término por otro, fundándose en relaciones de causalidad, procedencia o sucesión existentes entre los significados de ambos términos. Según diferentes modos de contigüidad, se producen diversos tipos de metonimia [...]", Estébanez Calderón, 1999, 668.

Lenenguaz be asetu ezin,  
 An duaz bigarrenian;  
 Ekin da ekin sartuten yake  
**Buru** ta **bijotz** erdian.  
 Orra gastien bitartez zenbat  
 Jeltzaletuten dirian. (K036d)

“Ondorioa kausaren ordezt” delako egitura metonimikoak baditu adibideak Kepa Enbeitaren bertsoen artean. Esate baterako, tristuraren ondorioa negarra izaten da batzuetan, ez beti. Bada Urretxindorrek kasu gehienetan “negar egitea” eta “negarra” aipatuko ditu, poetikoagoak direlakoan agian, eta bere kausa, tristura alegia, ez du aipatuko. Ezin dugu ahaztu negarra, ikusi, entzun eta antzeman daitekeen zerbait dela, gutxienez kanpo-zentzuen bidez. Tristura, aldiz, barru-zentzuen bidez antzeman daitekeen egora bat da, eta kanpo-zentzuekin nekezago. Horra hor, ahozkotatuen beste ezaugarri posible bat: nahiago duela kontzeptuala den oro (tristura kontzeptual izaeratik hurbilago dagoela dirudi) saihestea, eta horren ordezt kanpo-zentzunei ageriago dena, sikieran irudi legez, erabiltzen duela. Ikus ditzagun adibideotan:

[...] Ain adoretu duala aurrera  
**Negar** gustijak itxirik,  
 Itxokunak bultz eginda zuzen  
 Maitetasunez beterik. (K035d)

Osasuna baukogu  
 lan eiteko drai-drai,  
 gosia kenduteko  
 arto pizkat be bai;  
 eta zuk igestiaz  
 andra ta umiai  
**negar** eragiterik  
 Jauna'k eztailla nai. (K166c)

Testuinguruan jarrita, lehenengo bertsoan “negar gustijak” tristura edota ezkortasun guztiak aditzera datorrela ematen du. Bigarren bertsoan ordea, “negar eragiterik” perpaus nominalizatuak atsekabea ematea esan nahi du antza.

Badira “kausa ondorioaren ordezt” egitura duten metonimiak ere, baina kopuruz aurrekoak baino askoz murrizagoak dira. Esate barerako, lanetik lortzen den dirua, eta egonkortasun ekonomikoaren ordezt *lana* hitza bera agertzen da zenbait bertsoetan:

Zuzentzan aurka datozen orok  
 Jaurti daiguzan jo ta su,  
 Geure **lanagaz** bixi gadintzat  
 Euzkadi'n danok zorontsu. (K068h)

Laburbilduz, esan dezagun metonimiaren erabilera ez dela sinekdokearena bezain anitza, zeren eta *bijotz* hitzarekin egiten dena baita ugariena eta nabarmentzen den bakarra. Bestalde, metonimiak,

sinekdokearekin batera, oro har erabilera urrikoak direla ere baieztatu liteke, bestelako irudien aldean behintzat, eta agian, Urretxindorraren formazio erretoriko kontzienterik ez izatea izan daiteke kausa. Ahozko ondaretik ikasi du eta horretan metonimia eta sinekdoke bezalako irudiak antzematea eta bereiztea ez da erraza izaten, horien azalpen teoriko bat eman ezean. Metafora eta alegoriak antzematea (nahiz eta izen horrekin kategorizatu ez) askoz errazago da, eta horrela demostratzen du Kepa Enbeitak bere erabilerarekin ere.

### 3.3. Metafora<sup>228</sup>

Egile baten metaforen azterketak beti eman ohi du egile horren iruditegia hobeto ezagutzeko parada edo behintzat iruditegi horren nondik norakoa antzemateko aukera ona. Honen harira, argigarria da gogoratzea termino errealaren ordeztu termino iradokitzailea erabiltzen denean, "irudi" bat erabiltzen dela esan ohi dela. Jakina, iruditegia ez da metaforetara mugatzen, baina metaforetan egilearen mundu poetiko hori bereziki nabarmena egiten da.

Egokia iruditu zaigu irudien arabera metaforak sailkatzea, hau da, irudi bakoitzak segun eta zein motatako errealitatea agertzen duen kontutan hartuta metaforen sailkapen bat egin. Horrela, irudien izaera nabarmenago agertuko dugulakoan gaude.

#### 3.1.1. Bizidunak

Elementu bizidunekin egindako irudiak edo metaforak hartuko ditugu aintzat lehenengoz.

Elementu bizidunak hartzeak Urretxindorrarengan biziaren kontzeptua argitzeko balio du. Izan ere, bere kontzeptu poetikoak irudi bizidunekin adierazteak biziarekiko maitasuna edo txera ona adieraz lezake. Baikortasun bitalista batek ere zeresana badauka joera hau azaltzeko, egilearen izaeraren

<sup>228</sup> Bi izango dira batez ere kontutan izan beharreko definizioak. Bata Heinrich Lausberg-ena: "La *metaphora* es la sustitución de un *verbum proprium* por una palabra cuya significación *proprie* está en una relación de analogía con la de la palabra sustituida.

Por eso, la metáfora se define también como "comparacion abreviada", en tanto que lo comparado es identificado con la analogía. A la comparación (*similitudo*) <<Aquiles luchaba como un león>> corresponde la metáfora <<Aquiles era un león en la batalla>>", Lausberg, 1975, 118.

Bestea Demetrio Estébanez Calderón-en definizioa da: "Es un procedimiento lingüístico y literario consistente en designar una realidad con el nombre de otra con la que mantiene alguna relación de semejanza. [...] Desde la retórica greocolatina (Aristóteles, Quintiliano) se viene considerando la metáfora como una comparación implícita, fundada sobre el principio de la analogía entre dos realidades, diferentes en algunos aspectos y semejantes en otros. En toda comparación hay un término real, que sirve de punto de partida, y un término evocado al que se designa generalmente como **imagen**", Estébanez Calderón, 1999, 661. Adierazgarria da eta kontutan hartzekoa da termino iradotzitzaileari "irudi" (imagen), deitu diola.

ezaugarri bat izateaz aparte kristautasunarekin erlazionatuta dagoela ematen du. Besteak beste, itxaropena da kristauaren bertute bat, bere sinismenaren ondorio bat, eta hori dela eta existentzialismoak edo joera ezkorrek ez dute esparrurik Urretxindorraren bertsozko adierazpideetan.

Baina ezin da ahaztu ere izadiaren ikuspegiak garrantzi handia duela Erromantizismoan. Izadiaren mistizismoa presente egon zen Erromantizismoaren jaiotzatik eta hori islatzen da Kepa Enbeitaren metaforetan ere. Kontuak kontu, has gaitzen hegaztiekin egiten dituen zenbait metaforak aipatu.

### 3.3.1.1. Hegaztiak

Erakutsi dugu jadanik Urretxindorrek izadiaren elementuak (hegaztien presentzia tartean dela) batzutan testuaren edukia girotzeko eta edertzeko erabiltzen dituela<sup>229</sup>. Orain, ordea, erabilera metaforikoa soilik kontutan hartzea dagokigu, eta normala denez, adibideak urriagoak izatea espero litekeena da. Bestalde, Kepa Enbeitari ezarri zioten ezizena, Urretxindorra hain zuzen, arrasto bat izan daiteke edozeinentzat, bere bertsogintzan hegaztiei tratamendu berezia eskainiko diela iragartzeko. Ikus dezagun adibideen bidez ea egia ote den.

Zu bai, Lugones, “**Urrexinula**”,  
Ta ni barriz, “**Txindor**” utsa;  
Zu Argentina aundi zidartsu,  
Ta ni baso txiki latza. [...] (K145f)

Ikusten denez, Kepa Enbeitak bere buruaren metafora bat egiten du, eta horren arabera bera *txindor* (edo “txantxangorri”) bat baino ez da. Oso txori apala, txikia baina euskal kulturaren sona bereziko. Bertsolaritzaren munduan ere txindorrek edo txantxangorriak presentzia nabarmena izan du<sup>230</sup>. Beraz, uste litekeenaren kontra (esan nahi baita, bere ezizena ezagututa) berak ez zeukan bere burua urretxindortzat. Urretxindorraren kategoria beste batzuei egozten zien. Goian ikusi dugun adibidean, Argentinako Lugones poetari egozten dio. Hurrengo adibidean, oster, bere anaia Imanoli egozten dio metafora. Metafora biak mailakatuta daude, eta mailaketa horretan, apaltasuna bilatuz, besteari egokitzen dio maila gorena. Bere buruari, ordea, maila baxuagoa eskaintzen dio:

Ni enok zozo, ez birigarro,  
Eztakit, ba, abesten oik baxen arro.  
Eztirudit, ba, kuku ez miku,

<sup>229</sup> Gai hau Atal honetako B.II. azpiatalean jorratu da laburki, apelazio irudiak aztertzean hain zuzen.

<sup>230</sup> Adibide bezala 1932an argitaratu ziren *Bertsolariya* (Makazaga, 1987, 157, 220) aldizkariaren aleak hartuz gero, “Txantxangorriya” izenburua duten bi bertso sorta aurkitu ditugu. Bata Biktorkiano Iraolarena da eta 1932ko martxoaren 6an argitaratua izan zen, aldizkariaren 25. zenbakian. Bestea Emeterio Arreserena da, bere *Txindor* liburutik hartuta, eta ebagile edo ekainaren 22an argitaratua, aldizkariaren 36. zenbakian. Ezin da aipatu gabe utzi Pero Maria Otañok argitaratutako “Txepetxa” bertso sorta ere, aldizkari honen 26. zenbakiaren azken orrialdean agertu zena (Ibidem, 164).



**Txindor** bat baño anka ta piku.  
I az, ba, txori,  
**Urretxiñol** ain ospetsu ori!  
Eta ni, barriz, nok **txantxangorri**. (K191e)

Bere buruaren metafora horri “gaxua” adjektiboa eransten dio noizean behin, apaltasun hori areagotzen duen adjektibo bat hain zuzen:

Maitasunezko itz berezijak  
**Txindor gaxuak** nai ditu  
Ongilei neurritz eskartuteko  
Ezin dauz baña aurkitu. (K203j)

Bilbon bizi zen Jagoba izeneko beste anaia bat ostera, birigarroa izango da beste bertso baten:

Ameriketan **urretxiñola**,  
Eta Bilbo'n **birigarro**,  
Bizkaitar **txori** olerkarijok  
Bixi dozak ondo arro;  
Eta ni **txindor** gaxo au, barriz,  
Beti lez makal ta txiro,  
Negu bildurrez basetxetxuan  
**Lumok** astindurik nago. (K195e)

Irudi bezala alegoriak trataera berezia eskatzen duen arren, hona ekarri dugu adibide bat non hegazti mota desberdinekin egindako metafora ugari dauden. Izan ere, alegoria metaforen luzapena ei da:

**Txorijak** nun-nai abesten dabez  
Sekulako abestijak.  
Madrid'en, barriz, danen gelgarri,  
**Gaztelar txori** nausijak  
Abestu dausku eskubiderik  
Eztaula **kuku** nagijak  
Berak nai daun lez erabilteko  
Bestien **txindor abijak**. (K057l)

Hasierako *txorijak* metaforak euskaldunei egiten die erreferentzia. *Gaztelar txoria* irudiak, ordea, Espainiako agintariren bati (edo batzuei) egiten dio alusioa, eta *kuku* irudiak ere espainiarrei. Izan ere, ezaguna da kukuak ohitura duela bere arrautza beste hegaztien habietan uzteko, beste hegazti emeek hazi dezaten. Urretxindorraren mundu poetiko-politikoan horrek espainiarren jokaera irudikatzen du: norberea ez den lurraldera etorri, ondorengoak utzi eta lurralde hori Espainiaren interesetarako irabazi nahi izatea.

Emakumeen irudia edo metafora *usoa* da behin baino gehiagotan.

Euzkeldun **uso** samur polit bat

Egaz bidaltzeko agintzen daustak.  
 Euzkadi'k daukon usotegia  
 Gurgarria dok, ori egia.  
 Baña len zetan,  
 Oneik itxita, orra juantintzan  
 Orain neroni eskatzekotan? (K192d)

Ezkontzera doan bikote bat metafora bihurtuta agertzen da. Keparen anaia Imanol eta bere emaztegia horrela agertzen dira:

Onein erdijan **uso** polit bi  
 Dakustaz garbiro, apain, egoki [...] (K203c)

Pertsonak ez ezik, *Euzkadi* ere metafora bihurtuta agertzen da, irudi berberaren bidez:

[...] Zeugaz diran orreen laguntzaz  
 Dogu itxaropen osoa  
 Laster azke jarriko dala  
 Euzkadi geure **Usoa**. (K066c)

Orain arte esandakoak Urretxindorraren iruditegian dagoen hegaztieko zaletasuna islatzen duela ematen du. Barruti semantiko honek **arintasun** ukitua ematen dio adierazi nahi den termino errealari. Era berean, ukitu alai edota jostaria ere ematen dio, batez ere hegaztien kantua iradoki nahi denean. Kantu horrek, bestaldetik, badu lotura ezkutua bertsolarien kantuarekin, noski.

Txorien barruti semantikoa, esan bezala, aberatsa da Kepa Enbeitarengan eta horrek nortasun berezia ematen dio bertsolari moduan. Beste zenbait bertsolariarengan ikus daitezke honen antzeko ezaugarriak<sup>231</sup> baina Keparengan bereizgarriak direla esan dezakegu.

Azkenik, esan dezagun hegaztiekin agortzen dela Urretxindorrek abereekin egindako metaforak. Bestelako abereekin ez zuen gustuko metaforak egitea, eta horrek agian nabarmentzen du hegaztieko zuen joera.

### 3.3.1.2. Landareak eta landare atalak

Landare eta landare atalei ekingo die Urretxindorrek, era jakin bateko metaforak sortzeko. Izadiaren beste arlo bat hartzen dute kontutan metafora hauek, arlo bizidun bat baita ere, baina izaera jakin bateko tasunak eta kontzeptuak adieraziko ditu.

---

<sup>231</sup> Norbait aipatzearen, Pedro Maria Otañok berak txepetxa eta txantxangorriari jarriak zituen sortak. Arestian aipatu dugun *Bertsolariya* aldizkarian txoriekin egindako irudi, bertso eta sorta mordotxo bada. Esate baterako, "Txoritxua" bertso-sorta ekar dezakegu hona (Makazaga, 1987, 184). Xalbador bera ere oso txorizalea zen bertsotan egiteko tenorean eta badirudi bere txorizaletasuna Iparraldeko gustu estetikoetan kokatzen dela.

**Lora**

*Lora* metafora legez erabiltzea ez da berria, ezta orijinala ere, baina herrikoa eta herriak ulertzeko moduko irudi bat, tasun jakin batzuk islatzen dituena. *Lora* metaforak gauza desberdinak adieraz ditzake: edertasun xaloa, etorkizunean fruitua emango duena, emetasuna, eta abar. Emakumeak, edo emakume jakin batzuk (Ama Birjina, emakume idazle eta abertzaleren bat) adierazteko erabilia izango da sarritan:

Argi gustijen argia,  
Lore gustijen **loria**,  
Usaintsu bardin bagia,  
Jakiturijen **oxin sakona**,  
Ona baño be obia,  
Eskar gustijen jabia  
Zarian Miren garbija,  
Jaboixu Euzkelerrija! (K091i)

Argi gustien argija eta  
Lore gustien **loria**,  
Urtzi Deunaren **baratza guren**  
Usaintsu bardin bagia,  
Jakindiaren **itxaso sakon**,  
Onez ona baño obia,  
Esker gustiak zeugaz dozuzan  
Miren Sorkundez garbia,  
Eusko-abenda sendotu eta  
Jagon gure Aberria. (K108d)

Hasiera formularioa duten bi bertso hauetan<sup>232</sup> Ama Birjina “lore gustien loria” bezala agertzen da, irudi horren edertasuna, emetasuna eta maitagarritasuna aintzat harturik. Bestetik ikusten denez, metaforen pilaketari ekin dio egileak Ama Birjinaren goraipamena egiterakoan, ñabardura agonistikoak eta, azken finean, ahozko estilokoak aireratuz.

“Euzko-emakumea” eta lora irudiak oso batera joango dira ere. Garai hartako Emakume Abertzale Batzari eskainitako baten metafora hauxe topatzen dugu:

Euzko-emakumia  
Biurtu da **lora**,  
Loratik **igalija** ...  
Igalija nora?...  
- Gosez errukarri dan  
Geidien agora,  
Alikatu daizantzan  
Soña ta gogua. (K065e)

<sup>232</sup> Hasiera formularioa duela esan dugu, eta esan beharra dago badirela honelako bertso batzuk (kopuruz oso gutxi izan arren), egituraz ia-ia guztiz berdinak direnak, bertso sorta desberdinetan. Aitatutako adibideen antzerako bat aipatzearen, hona hemen kopia bat: “Lora gustien Lora/ Miren Neskutzak,/ Lora deun biurtu beiz/ Gure bijotzak” (k109o).

Barruti semantiko berberaren barruan, “Tene” olerkari emakumearen metaforizazioa egiten du, landare bihurtuz eta bere produkzioa lore legez agertu:

Zein dan landara Goi-erkardunoi?  
 Zeintzuk zimeltzen eztiran lorak?  
**Landara** ori da gure “Tene”,  
 Euzko-biotzdun emakume bat.  
**Loreak** dira onen idazki  
 Ta olerkirik mamintsubenak,  
 Maitasunezko beren biotzen  
 Erdi-erditik urten direnak. (K137j)

Baina termino erreala emakumea izateaz gain, bestelako gizakiak ere izan daitezke. Hurrengo honetan, adibidez, ezkondu berri den bikote bat adierazteko erabilia izan da, izadiko bestelako elementuez apaindurik:

—**Lore** polit ederrak  
 Diran **baratzian**,  
 Atsegin ixaten da  
 Bertara eltzian.  
 Euzko-**baratza** bitan  
 —Egimen utsian—  
 Sortutako bi **lora**,  
**Lorontzi** batian  
 Jartiaz, asmatzen det  
 Poza biotzian. (K140c)

Zenbaitetan pertsonaia garrantzitsu eta estimatuen metafora da *lora*. Irudi honetatik fruitu, emaitza ona, eta balioudun landare atala iradokitzen dituzten tasunak hartzen dira aintzat. Balendin Berriotxo (garai hartan Dohatsua izendatu berria, gaur egun Santua) Elorrioko semeari eskainitako bertso-sortan, *lore* irudiaren pean metafora bilakaturik agertzen da behin baino gehiagotan. Hona hemen bertsoetako bat:

Au zan **lora** bat argitu zana  
 Askoren atsegingarri,  
 Beti oi zana zeruko iruntz  
 Gozokoaren egarri  
 Emon dagion onoidadezko  
 Indar sendo bat berari  
 Zerren mingotzak gozotzen  
 Ixan ludian gudari. (K081b)

### **Zugatz**

Beste landare mota bat aztertzeraz igaroko gara orain: *zugatz* irudiari ekingo diogu. Irudi hau apaingarri gisa agertzen da kasurik gehienetan, batez ere izadiaren elementuen aipamen pilaketatsua egiten denean, ikuspegi

inpresionista bat islatuz<sup>233</sup>. Baina zenbaitetan metafora gisa ere agertuko da, batez ere pertsona jakin batzuen metafora gisa. Zuhaitza, besteak beste, fruituak ematen dituen landarea da, landare txiki bat izatetik, landare handi eta sendo bat izatera bilakatzen dena, zeruko hegaztien bizileku eta askoren itzalgarri dena. Sendotasun eta tinkotasunaren irudi ere bada. Ezaugarri hauek dira bada bereizi egiten direnak, pertsona jakin bat irudikatzeko.

*Zugatz* hitzaren hariari jarraituz, esan dezagun San Iñazioaren metafora egiten duen irudiari *lerdena* adjektiboa eransten zaiola ondorengoan. Metaforari segida labur bat emateko bestelako atalak aipatzen dira bertsoan zehar, esate baterako, *sustarrak*, *Belguntz-adarrik* eta *igali*:

Iñaki **Zugatz lerdena**, baña,  
ezin narreztu leikian  
**Sustarrak** dauz, ba, Euzko-Abendan,  
buru gallena Ortzian  
Belguntz-**adarrik** indartsubenak  
ikutuka gaudi-ziar  
Goitar **igali** gozatsubenak  
zabaltzen ludi gustian. (K061h)

Joseba Eltxo “Zozua” Gipuzkoako olerkariaren heriotzan bertso-sorta bat konposatu zuen “Uste bako eriotza” izenburuarekin. Metafora bilakaturik agertzen da Joseba Eltxo bertso batzuetan:

**Zugatz** ain gastia,  
eder **loraz** betia,  
**igali** ain gurgarri  
emoten eban ori  
etzan ain gasterik  
galduko zan usterik. (K088d)

Pozezko **loriaz**  
ta urrezko **igaliaz**  
beterik zan **zugatza**,  
indartsu, aberatsa,  
etzan ain gasterik  
galduko zan usterik. (K088f)

Landare edo zuhaitzaren atala den *susterra* batzutan isolaturik agertzen da, agian bere balio metaforikoa fosildurik. Hala ere, nabarmentzekoa da irudi hau eta ez bestea erabiltzea, bere iruditegiari izaera berezia emanez.

Euzkereari egin dayogun  
biar dan lako arrera,  
dalako geure zorun gustijen

<sup>233</sup> Bertso honen hasiera horren adibide bat izan daiteke; izan ere, izadiaren hainbat elementu pilatzen dira puntu gutxitan: “**Ortzia** janzki baltzagaz dakust./ **Zugatz** gustijak ulduta./ **Iturri**-urak **itxasoratza**/ Or duaz negar-uluka [...]” (K051d). Ondorengo ere tankera berekoa da: “**Negu** ankerrak oi dauzan legez/ **Lora** gustijak igertu./ **Mendijak** gorri, **zugatzak** billoiz./ **Txorijak** mutu bigurtu;/ Ta Udabarriak lorak berbiztu./ Txori ta danak alaitu;/ Geu be olantxe atsekabian/ Ondoren pozak jo gaitu” (K084g).

etorkixuna berbera,  
geure gogua, geure arnasa,  
goi-erdi eta **susterra** [...] (K040g)

### 3.3.2. Bizigabeak

#### 3.3.2.1. Baserri edo landatar munduarekin zerikusia dutenak

Urretxindorraren mundu poetikoa ez dago bere baserritar mundutik urruti. Alderantziz, baserritar mundu horretan dago sustraitua eta bertako elementuez elikatzen da; izan ere, bere iruditegiak ere handik hartzen ditu irudi asko eta asko.

Egia esan, arlo honi dagozkion irudiak ez dira maiztasun ugarikoak. Handik eta hemendik sakabanatuta daude eta bizidunekin sortutakoak bezain errepikakorrek dira. Horrek, agian, ematen die balio berezi bat; izan ere, kontutan hartzekoa da ea erabilera hori mantentzen den hurrengo belaunaldietan (Balendin Enbeitarengan adibidez). Hori ikusten ahaleginduko gara, Balendin Enbeitaren bertsogintza aztertzerakoan.

#### **Buztarri**

Uztarria, nonbaitetik hastearren, baserritarrek darabilten tresna bat da. Kepa Enbeitarentzat, bertsoak konposatzerakoan, aipatutako adieraz gain, gizakiari ezarritako lotura edo betebeharra ere bada. Lotura hori askatasunez onartua edo zapaltzailea izan daiteke, beste batek bortxaz ezarria alegia. *Buztarri* zapaltzailearen adibide bat ondorengo hau litzateke:

Dakustaz zuen otoi,  
arren, eskarriak  
Euzkadi'ri kentzeko  
arrotz-**buztarriak**. (K052l)

“Arrotz-buztarrija” esaten duen lekuan, arrotzen zapalketa edo inposaketa esan nahi omen du. Ondorengo bertso puskan agertzen dena ere era honetakoa da:

Bizkaya, Araba, Giputz ta Napar,  
Zubero eta Laburdi  
Sei neba-arrebaz sendi bakarra  
Bere ama da Euzkadi  
Len azke zana lurperatzeko  
Ezarri eutsen **buztarri**. [...] (K033e)

Bestalde, ezkontzak ezartzen duen lotura adierazteko ere *buztarri* irudiarekin egindako metafora erabiliko du behin baino gehiagotan:

Ordu onian artu genduban  
Guk bijok ezkon-**buztarri**,  
Maite-maiterik eruateko

Lagun egiñik alkarri [...] (K142l)

Edari garratzena  
Ozpiña da berez,  
Baña eztijak gozo  
Bigurtzen dau errez.  
Ezkon-**buztarrija** be  
Ozpin ori legez  
Bigurtzen da egizko  
Maitasunan bidez. (K198h)

Ezkon-**buztarri** astuna da-ta  
Askorentzat oi da eruan-gatxa [...] (K203f)

### **Korañe**

Bada beste metafora bat, Heriotzaren hiltzeko ahalmena adierazteko balio duena:

Ari batetik dingilizka dan  
Ludiko gure bixitza,  
Eriotziak Goi-baimenen zain  
Gertu **korañe zorrotza**. [...] (K204d)

Sinboloaren muga dagoen metafora hau ezaguna da, hedapen zabala izan duelako kultura askotan. Horrezaz gainera, baserritar entzulego batentzat haren bizibidetik urruti ez dagoen elementua da, eta ondorioz oso sarkorra, eta hau azpimarratu beharko litzateke. Metafora hau alegoria osatzen duten bertsoetan ere agertzen da, metaforaz jositako hurrengoan bezala:

Txakurtxu bana emon ezker  
astero, eusko bakotxak,  
"Euzkel-Laguntza"-k erosikoituz  
**korañe zorrotz-zorrotzak**  
ebagiteko bein da betiko  
**bedar txar, sasi, arantzak,**  
eragozpenik euki ez dayan  
geyago gure **baratzak**. (K065k)

### **Eguraldi eta urte sasoiei lotuak**

Baserritarrentzat hain kezagarriak diren neguko haize eta izotzak metafora bilakatuta daude zenbait bertsoetan. Alegoria baten kokaturik dago hurrengoa, Sabino Aranari zuzendutako bertso baten hain zuzen:

Uztai maitakor au dakartzugu  
Loraz eginda zeuretzat,  
Jel-aldez egin zenduzan gauza  
Sakon ederren saritzat:

Iñoiz ezingo dauna zimeldu  
**Negu baltzaren ixotzak.**  
 Lora oneik, ba, ben-benez dira  
 Jel-maite daben bijotzak! (K051h)

“Negu baltzaren ixotzak” abertzaletasunaren aurkako oztupoak edota aberriaren eraikuntzaren arerio multzoa izango lirateke.

“Negu baltza” aro kaltegarri, ilun eta baserritarrarentzat gustagarri ez den urte sasoa da. Urretxindorrarentzat, hori ez ezik, Euzkadirentzako aldi sozio-politiko kaltegarria ere bada:

Gaztela'tiko negute luze,  
**Negu baltza igungarriak**  
 Aritz deunari kendu eutsazan  
 Ezkurra eta orriak [...] (K054a)

Haizea eta lausoak, eguraldiaren gertakizun fisikoak, agertuko dira metafora bilakatuta:

Euzkera garbi, txukun argia,  
 Otoi-gai samur gozuak  
 Jakingai sakon ulert-errezak,  
 On eragile askuak;  
 Zerutar **aixe**... garbitzaia  
 Kentzeko gure **lausuak**  
 Gusti oneek dauz IZAR ARGIYA  
 Euzkel idaztiñotxuak. (K139d)

*Aixe* irudimenezko terminoak, irizpide, joera (kasu honetan kristaua) eman nahi du aditzera. *Lausuak* terminoak zalantzak, ezkortasunak edota trabak esan nahi omen ditu.

Orra, ba, nundik etorri ziran  
 Euzkadi'ren zorigatxak...  
 Emengo tentel txoriburuak,  
 Arrotz ankerren bekatxak  
 Betetiarren, opa eutsezan  
 Aran baso mendi ta atxak.  
 Ordutik ona doguz **laño baltz**  
 Ortotsak eta **ekatxak**. (K048d)

### **Artzaina**

Landatar munduko *artzaina* hitza metafora fosildua da hainbat eta hainbat testuingurutan. Besteak beste, apaiz, gotzain eta Aita Santuak *artzain* hitzarekin izendatuak izaten dira, testu askotan, eta hizkuntz askotan. Metafora horri segida emanez, kristau arruntak *ardiak* dira, eta kristau arrunten taldea *artalde*. Hemen Urretxindorrek fosildutako metafora hori erabiltzen zuela konstatatu baino ez dugu egingo. Agian original ukitua ematen dio metafora horri ondorengo bertsoan:



**Artzain** deunaren irudijaren  
 Aurrian otoika nago.  
 Opautsedala txiro ez-jakin  
 Onen bijotz eta gogo,  
**Ardi galduta** gagozan legez  
 Gaur iñoz baño geyago,  
**Txabolaratu** gaizan **otsuak**  
 Ondatu baño lenago. (K085b)

Aita Santu berri baten izendapena dela eta, pozik agertzen da alde batetik. Eskaera edo proposamen bat egiten du azkenean, eta era berean, metaforari era berezian ematen dio segida: “txabolaratzea” proposatzen du, hau da, Elizaren babes erlijioso-doktrinarioaren pean jartzea, erlijioaren arerioek eta dotrina okerrekin (*otsuak*) kaltea egin ez dezaten.

### 3.3.2.2. Bestelako tresnak edo gauzak

Badira gauza edota tresna arrunten terminoekin egindako metaforak.

#### **Iturri**

Irudi honekin egindako metafora asko fosilduta daude. Dena dela, jakinda ere, nabarmendu beharra dago irudi horrekiko Urretxindorraren joera, hainbat adibidetan ikus daitekeena, irudi fosildua bezala edo apaingarri huts bezala. Ondorengoak metafora fosildutzat har daitezke:

[...] Zorun gustijen **iturri**  
 Zarian Ama on orri,  
 Geuk be loriak ugari  
 Gura dautzuguz ekarri. (K091h)

Jaupaldi eder asi zanian,  
 Donoki neban ikusten;  
 beste aldetik gotzon-eresi  
 ta abes gozuak entzuten.  
**Iturri** oneik neure bijotza  
 ur gozoz asetu eusten [...] (K085e)

Joseba Eltxo “Zozua”-ri honako hau egin zion:

Ainbeste olerki  
 eder, sakon, egoki  
 zituan **iturrija**  
 gure itxopen aundija; [...] (K088j)

Ama Birjinari egindako baten:

Ane ta Jokin senar-emazte  
 Guraso deunen umia,

Gaurko egunez ludiratua  
 Ziñean, Miren Donia:  
 Zorun guztijen **iturburua**  
 Zu jayo ziñan unia. [...] (K108b)

### Metafora solteak

Uraren barruti semantikoarekin jarraituz, hona hemen beste metafora genitibo bat, Ama Birjinari hitz gozo bat<sup>234</sup> esan nahian:

[...] Jakiturijen **oxin sakona**,  
 Ona baño be obia,  
 Eskar gustijen jabia  
 Zarian Miren garbija,  
 Jaboixu Euzkelerrija! (K091i)

Pertsona berberari, Ama Birjinari alegia, dago zuzendua hurrengoa:

Zeruan eta lurrian zara  
 Ama benetan onena,  
 Garbitasunen **ispillua** ta  
 Onoidadetan gorena [...] (K089c)

Oso hedaturik dagoen metafora da hau ere, fosil bihurtzeko prozesuan agian, baina berriro ere tresna arrunt baten irudiarekin egina.

Euskara, bestalde, eguzkiarekin konparatzen da Kepa Enbeitaren bertsoetan (ikus B.III.2). Aipatuko dugun hurrengoan, ostera, konparatu ez, berdindu egingo dira metafora<sup>235</sup> bat sortuz:

Euzkerea da euzkeldunentzat  
 Ozkarbiko **eguzkija**,  
 Geure gogua, gure bijotza,

<sup>234</sup> Kristau otoitzen artean Arrosarioa ezaguna da. Horren atal bat Loretoko letaniak dira: Ama Birjinari eskainiriko hitz gozoak. Euretako asko eta asko metaforak dira, Ama Birjinari zuzendutako metaforak, aditza eta subjektua eliditurik dituzten esaldi atributiboetan kokaturik. Hona hemen batzuk: (Zu) jakinduriaren bizilekua (zara), (Zu) gure pozaren iturburua (zara), (Zu) Espiritu Santuaren jauretzea (zara), (Zu) arrosa aukeratua (zara), (Zu) urrezko etxea (zara), (Zu) Itun Berriko kutxa (zara), (Zu) zeruko atea (zara), eta abar, in *Ama Birjinaren otoitz liburua*, 1987, 149-150. Letania horietako bat hau da: goizeko izarra. Metafora hauxe bera aurkitu dugu Urretxindorraren bertso baten: “Agur, Josu’ren ta gure Ama/ Eta Zaindari bakarra!/ Agur, **Zeruko eguzki** eder/ agur, **goixeko izarra!** [...]” (K108e). Honek erakusten digu zein den Urretxindorraren irudi iturri bat: kristau otoitzak. Bertsoak berak ere otoitzaren egikera dauka. Aspalditik elizetan erabiltzen den kanta herriko baten arestiko irudi biok (eguzkia eta izarra) agertzen dira, eta eragin honen jatorria hortik etor zitekeen: “Agur Jesusen Ama Birjina maitea/ Agur itsasoko **izar** ditziratzailea/ Agur zeruko **eguzki** pozkidaz betea [...]”.

<sup>235</sup> Esan ohi da metafora sakonean eta inplizituki konparazioa dela, edo behintzat konparazioan duela bere jatorria. Horrela dio Estébanez Calderón-ek: “Desde la retórica grecolatina se viene considerando la metáfora como una comparación implícita, fundada sobre el principio de la analogía entre dos realidades, diferentes en algunos aspectos y semejantes en otros. [...] Según la retórica tradicional, todas estas comparaciones se convertirían en metáforas con sólo suprimir el nexos comparativo (“como”) y asociar dicho término real al de la imagen correspondiente”, 1999, 661. Estébanez Calderón-ek esandakoa egiten du Urretxindorrek, izan ere konparazioak eta metaforak irudi berberekin egiten baititu, Euskara eta eguzkia kasu (ikus B.III.2).

Poz eta atsegin gustija; [...] (K137b)

Ikus dezagun ondoren elurra adierazteko zein irudi erabiltzen duen:

[...] Bai-diraus onek: Ikusi egik  
 Deguan eguraldija.  
 Epeletatik urtenda nago  
 Orain begira jarrija,  
 O! mendi, zelai, solo ta danak  
 Daukie **jantzi zurija**. (K121f)

Irudi arrunta da eta horregatik ulergarriagoa eta herrikoiagoa. Poetikotasun maila jori eta bereziegia ez du lortuko mota honetako irudiekin baina bai poesia herriko jendearen arimetan errazago txertatu.

Alusio bezala jadanik jorratu dugu “piper pote” metafora (ikus B.IV. azpiatala). Hemen metafora ere badela aipatzea baino ez zaigu gelditzen, eta han azaldu genuen bezala, gogoratu egingo dugu nondik datorren irudi original hori (beste kulturen aldean, originala, ez garai hartako bertsolari edo euskaldunen erregistroan): garai hartako piper poteek, latetan sartuta zeudenek alegia, Espainiako banderaren koloreekin egindako bildukin nabarmen bat zuten. Beraz, espainolistekin nolabaiteko analogia aurki daiteke termino erreala (espainolista den jendea) eta irudimenezko terminoarekin (“piper-pote”, saltzen den jaki huts bat izanik, Espainiako koloreak nabarmenki dituena, nahiz eta salmentarako bildukin hori ezinbestekoa ez izan). Gogora dezagun adibideren bat:

Eztou nai piperpoterik,  
 Ez utsik ta ez beterik,  
 Euzko-eredu zintzo zolijak  
 Nai doguz bakarrik; [...] (K172f)

### 3.3.3. Sinbolora lerratuak

Metaforak metaforak dira beti, baina zenbait egileren produkzioan, zerbaiten sinboloa bilaka daitezke. Kepa Enbeitaren bertsogintzan zenbait metafora sinbolikoak izatera igarotzen direlakoan gaude bere ideologiaren sisteman giltzarriak direlako eta beste egileren aldean bereizgarriak direlako. Bestalde, badira sinbolo batzuk euskal kultura edo bertsolaritzari dagozkionak, eta horiek Kepa Enbeitak erabiltzen ditu, bere corpusean bereizgarriak izan ez arren. Metafora guzti horiek giltzarriak direla esatean hauxe esan nahi dugu: ideologiaren ildo nagusien guneak irudikaturik agertzen dira, metafora baten bidez, baina sinboloaren izaera hartzeraz ailegatzen dira.

Arestian esandakoa horrela sintetizatu daiteke eskema baten bidez:

	?	BEREIZGARRIA
METAFORA	↔	SINBOLOA
	?	EUSKAL KULTURARI DAGOKIONA

Atal honetan ez dugu bereiziko zein sinbolo den bereizgarria (Urretxindorraren bertsogintzan esan nahi baita) eta zein euskal kultura edo bertsolaritzaren eremu orokorragokoa. Izan ere, oso korapilatsua eta eztabaidagarria izan daiteke noraino ailegatzten da bereizgarria dena eta noraino orokorra dena. Hala ere, argi eta ebidenteena direnak adierazi egingo dira.

Sinboloen multzoa, egia esan, txikia da; izan ere, ahozko estiloari lotuta egonda, hizkera sinbolista batek (ulergarria eta arrazionala izan arren) ez dauka zentzurik. Horrek oztopatuko bailuke bere entzulego naturalarekiko harremana, eta bere hizkera (eta erregistro) arruntetik urrutiratuko litzateke.

Aztertuak ditugu jadanik landare eta landare atalen irudien bidez egindako metaforak (ikus C.III.1.2. azpiatala). Sinbolo izaera berenganatzen duten batzuk, ostera, atal horretan kokatuko genituzke, baldin eta sinbolo izaera izan ez balute. Urretxindorraren metafora sinbolikoen azpimultzorik handiena landare eta landare atalekin egindakoa da. Irudiak sortzeko izadiaren erabilera bera sinbolikoa ere badela dirudi. Izadia, eta bere elementu bizidun eta ez bizidunak (urte sasoiak, indar meteorologikoak eta abar) barneko kontzeptu, sentipen eta nahimenen ispilu bikaintzat ditu Urretxindorrak. Ikus ditzagun sinbolook banan-banan.

### 3.3.3.1. *Arantza*

Min, nahigabe eta bizitzako ziztaden sinboloa da. Metafora soila ez dirudi denik; izan ere, zeharo errepikakorra da, eta haren ostean dauden kontzeptuetara ailegatzeko bide bakarra dugu Urretxindorraren bertsogintzan.

Egiz maite dan maite kutuna  
Ikusi ezin danian  
Maitaliari **arantzak** sartzen  
Yakoz bijotz bigunian  
Zorun-izpirik sortuko ba' da  
Bijotz arantza dunian  
Ixa biarko beren maitiak  
Laztanduten daun unian. (K052c)

Ingurukuak zuri  
dautzuben bekatxaz,  
Begik estaldu dautzuz . . .  
guzur-zapi baltzaz  
Laster dozu bijotzoi  
josirik **arantzaz**. . .  
Jarraitzen bozu orko...  
"farriseoakaz". (K058d)

Egiz maite dan maite kutunaz  
Jaubetu nai dabentzat,  
Eragozpenak eztira ixaten  
Bidietako **arantzak**; [...] (K150c)

[...] Ordutik dira gure baratzan  
 sortu bedar txar ta sasi,  
 ta daneen arte, betiko il daiten,  
 nai dabe **arantzaz** josi.  
 Alperrik, baña ... ez bildur ixan;  
 laster da ori berbixi. (K067a)

Bestaldetik, ezaguna da hainbat kulturatan lorea eta arantzaren arteko kontrajarpen sinbolikoa, zeinen bidez adierazi egiten zaigun maitasun desiratua jadesteko sufritu egin behar dela, edota maitasunaren lorea berenganatzeak mina ematen duela, edota ez dagoela maitasunik sufrimendurik gabe.

Kontrajarpen hau (lorea eta arantzaren artekoa) tradizionalki maitasunari egokitu izan zaion arren, Kepa Enbeitak pertsona batzuen koherentzi eza salatzen du inoiz:

Batzuk dira zurijak,  
 beste batzuk baltzak,  
 danok be alkarrenak  
 bai-daukiez antzak;  
 ganetik **lora** eder,  
 azpitik **arantzak**,  
 ikaratu legikee  
 oingo aldakuntzak. (K036j)

Mintegi ontan landara guri,  
 Lerden ederrak ugari,  
 Sastrakaz bete ein zan baratza  
 biurturik lorategi. (K063j)

### 3.3.3.2. *Lora/ lorategija*

Jadanik sinboloaren azpiatalean jorratu egin dugu. Baina sinbolo legez sarritan jokutzen duela ezin dugu ahaztu, eta hori dela eta, atal honetan ikuspegi horretatik ere aztertuko dugu.

*Lora* irudia emankortasun eta etorkizuneko fruituen sinboloa da. Bestalde, emetasun edota maitagarria den zerbaiten sinboloa ere bada. Irudi hau hain erabilia da Urretxindorraren bertsuetan ezen bere estiloaren ikurretako bat bilakatu baita. Geroago komentatuko dugunez, *udabarri* irudiari lotuta omen dago, eta poza, itxaropena eta ilusioa adierazteko bide naturala (eta ia-ia bakarra) da Urretxindorraren bertsogintzan.

[...] Erdalkerijak zikindu daben  
 Euzkel-Errijen biotza  
 Garbitu eta **loraz** janzteko  
 Sortu da “Euzkel-Laguntza”. (K067d)

Zugatz ain gastia,  
 eder **loraz** betia,  
 igali ain gurgarri

emoten eban ori  
 etzan ain gasterik  
 galduko zan usterik. (K088d)

**Lorarik** onenak  
 aurten jayo diranak:  
 “Euzko-Deya” poz utza,  
 eta “Euzkel-Laguntza”  
 zeuretzat lugiña,  
 ustai loraz eginña. (K174a)

Au zan **lora** bat argitu zana  
 Askoren atsegingarri,  
 Beti oi zana zeruko iruntz  
 Gozokoaren egarri, [...] (K081b)

### 3.3.3.3. *Baratza*

Metaforaren ikuspuntutik aztertu daitekeen arren, sinboloaren ikuspuntutik aztertzea egokiagoa iruditzen zaigu, geroago horixe erakusten saiatuko garen bezala. Aurreko sinboloarekin erlazionatuta dugu *baratza* sinboloa. Lurralde edota landu behar den zerbaiten sinboloa da. *Euzkal-baratza* Euzkadiaren sinboloa da, batzutan lurraldetasun ikuspegitik eta gehienetan (lurraldetasun ikuspegia barne) euskaldungoaren ikuspegitik.

Baina sinbolo batez ari garelarik ere, ezin da ahaztu askotan irudi hau alegoria baten kokatzen dela. Alegoria geroago jorratuko dugun arren, hona hemen alegoria adibide batzuk non *baratza* sinboloa agertzen baita. Alegoria horretan agertzen diren beste irudiak ere beltzez nabarmenduko ditugu guk:

Euzkadi gure **baratz**  
**arantzaz** betian  
 gau ta egun lanian  
**ekatxen** artian  
 Jel-**azija** ereiten  
 ainbeste urtian  
 jarraitu zan lugiña . . . (G. B.)  
 sarturik **lurpian**  
 orra ixil-ixilik,  
 baztartxu batian. (K173f)

Gure **baratza**, eder alaya,  
 beti oi zan **loraz** jantzi, .  
**euzki** ederra ortzetik zabal  
 egiten zanian jatsi.  
 Ai, baña, onek, euzko-**semiok**,  
**amegandik** igesi  
 Euzkera itxita erderaz eiten  
 zituzanian ikusi  
 lotsaren lotsaz egon ezinda  
 itxaspeña zan jausi!  
 Ordutik dira gure **baratzen**  
 sortu **bedar txar ta sasi**  
 ta daneen arte, betiko il daiten,

nai dabe **arantzaz** josi.  
Alperrik, baña... Ez bildur ixan;  
laster da ori berbixi. (K067a)

Lore polit ederrak  
Diran **baratzian**,  
Atsegin ixaten da  
Bertara eltzian.  
**Euzko-baratza** bitan  
-Egimen utsian-  
Sortutako bi **lora**,  
Lorontzi batian  
Jartiaz, asmatzen det  
Poza biotzian. (K140c)

Metafora eta sinbolo sare bat ikusten dugu hemen, alegoria bat osatzeko asmotan horrela eratu direnak. Ikusten da, baita ere, metafora eta sinbolo sare hori mantentzen dela bertso sorta batetik bestera Kepa Enbeitaren bertsogintzan<sup>236</sup>.

Badago beste arrazoi bat *baratza* sinbolotzat hartzeko: tropo bezala erabiltzen duen guztietan, landu behar den kultura, nortasuna edo izaeraz ari da. *Baratza*, beraz, lantzeke dagoen arloa da. Eta ezin da ahaztu irudi hau naturaltasunez eta errez txertatzen dela, orduko euskal kulturaren ikuspegi tradizionalen. Ikuspegi horretan baserriartasunaren mitifikazioa eta sinbolizazioa puri-purian zegoen. Beraz, *baratza* euskaldunentzat zerbait hurbila da; izan ere, errural munduan bizi omen ziren benetako euskaldunak, kanpoko eraginak jaso ez dituztenak. Horregatik *baratza*, landu behar den euskal kultura eta nortasuna izateaz gain, zerbait “gurea” da:

[...] “Euzkel-Laguntza”-k erosikoituz  
korañe zorrotz-zorrotzak  
ebagiteko bein da betiko  
bedar txar, sasi, arantzak,  
eragozpenik euki ez dayan  
geyago gure **baratzak**. (K067b)

*Baratza* bera zerbait gurea da, hau da, zerbait jatorra eta garbia. Baina horren barruan *baratz-erdi*a hitz konposaketak nolabaiteko bikaintasuna edo nabarmentze bat adierazten du:

Biotz orixe gogo garbijaz  
otoika bego Donoki Goyan.  
Euzkera lore jaungoikozkuak  
Euzkadi geure **Baratz-erdi**jan  
zimeldu barik, ludia ludi,

<sup>236</sup> Sinbolo edota metafora sare honen adibide asko eman daitezke baina ez dagokigu hori atal honetan. Adibideok mota honetakoak dira: “Ordutik ona gure **baratzan**/ Ikusten dira sastraka, sasi, / Erdelkeri ta zikinkeriak/ Nai dabela ixan bertako nausi./ Orrein artian Euzkera gure/ Lore maitia ezin da bixi./ Lotsagarri au ez luzetzeko/ Zerbait biogu gaur erabaki” (K046k).

beti mardulik, iraun dagijan. (K142j)

Eta azkenik, baratza fruituak eman eta eskaintzen dituen eremua da eta euskalduna bertaratzen da edertasunaren fruitu edo igaliak eskuratzeko:

Euzko-**baratz** maiteko  
loretxu bikaña:  
orren zoragarri, nok  
egin zaituz baña? (K150a)

**Baratza** baten lora polit bat.  
Ai, a zan ikusgarrija!  
Zuri-gorrija, egimen utsa,  
Usaintsu, bardin bagia! [...] (K151d)

Zure bijotza **baratza** bat zan  
Maitasun-**loraz** egiña; [...] (K148o)

### 3.3.3.4. *Zugatza/ Aritza*

Ezaguna da gurean zuhaitza irudiari zer nolako garrantzia eman zaion euskal kulturari. Zer esanik ez, zuhaitz hori *Aritza* denean zer nolako sinbolismoa<sup>237</sup> iradokitzen den. Kepa Enbeitaren bertsogintzan “zugatza” irudiak, tropoa denean, euskaltasunaren alderdi bat sinbolizatzen du.

Batzutan euskal gizaki eredugarria sinbolizatzen du, euskal nortasunari eutsi dion gizakia beti ere, eta fruitu edo “igali” asko eman dituen gizakia. Beraz, *zugatz* irudiak duen emankortasun ezaugarria ere baliagarria da euskal gizaki zintzoaren eragina eta lorratza adierazteko.

Iñaki **zugatz** lerdena, baña,  
ezin narreztu leikian,  
**Sustarrak** dauz, ba, Euzko-Abendan,  
buru gallena Ortzian;  
Belguntz-**adarrak** indartsubenak  
ikutuka gaudi-ziar,  
Goitiar **igali** gozatsubenak  
zabaltzen ludi gustian. (K061h)

**Zugatza** ain gastia,  
eder loraz betia,  
**igali** ain gurgarri  
emoten eban ori  
etzan ain gasterik  
galduko zan usterik. (K088d)

Bestetan, euskaldunen burujabetza eta galdutako foruen sistema izan daiteke *zugatza* edo *arritza* irudiek sinbolizatzen dutena. Ezaugarri hau ez da Urretxindorrenaren bereizgarria, izan ere bere garaiko eta lehenagoko egileek

---

<sup>237</sup> Haritza den Gernikako arbolak eman dio zuhaitz mota honi bere karga sinbolikoa, euskal eskubide eta askatasunaren ikurra bilakatu delako XIX. mendetik hona.



jorratu izan zuten sinbolo hau. Honi dagokionez behintzat, Felipe Arrese-Beitiarekin antzekotasun handia dauka<sup>238</sup>. Adibideak ugariak izanik, hona hemen aukeraketa bat:

Zein ederra zan Euzkadi bere  
**Zugatz** azpiko Batzar-tokian,  
 Euzkeldunentzat egizko lege  
 Zuzenak eiten ziren aldian!  
 Jainkua goyan, Euzkera beyan, [...] (K046f)

**Zugatz deun** baten azpian oi zan  
 Asaben Batzar-tokija,  
 Erri bakotzak eukirik antxe  
 Beren aldunen aulkija, [...] (K047j)<sup>239</sup>

Gaztelatiko **negute** luze,  
 Negu baltza iguingarriak  
**Aritz deunari** kendu eutsazan  
**Ezkurra** eta **orrijak**;  
 Aspaldi, baña, gure artera  
 Eldu yakun **udaldijak**  
 Sortuko dautsoz **Aritz** orreri  
**Orri** ta **ezkur** barriak [...] (K054a)  
 Batzar-tokiko **zugatz ganian**  
 Abestu daien txorriak.  
 Azpian gixon argijak  
 Egiñik lege garbijak, [...] (K054a)

Baina euskalduntasunaren alor bat ezik, *zugatza* irudiak euskalduntasuna bera adieraz lezake, euskal nortasuna (ez bakarrik hizkuntza, baita gizarte izaera, burujabetasun legalaren aldarrikapena, eta abar).

Egoi-aldetik etorri ziran  
 Ortots eta oñaztarriak  
 Kendu eutsezan **Areitz deunari**  
 Ezkurak eta orriak, [...] (K048e)

Euzko-Abenda zar gurenaren  
 Batzar-tokiko **Zugatza**,  
 Zure kirijo ezilkorra kin  
 atonduriko bijotza, [...] (K149c)

Landaratxu bat eskatu zeustan  
 Ta damostazu **zugatz** aundija,

<sup>238</sup> Irudi mota honi dagokionez, Urretxindorra Felipe Arrese Beitiaren jarraitzailea dela esan dezakegu. *Arbola* (Gernikakoa batez ere) edota *Aritza* elementu guztiz sinbolikoak dira Arrese Beitiaren bertso-gintzan, batez ere “Arbola bat”, “Libertadea, baña Gernikako Arbolapekoa”, “Gernikako arboleari”, “Zugatzak”, “Gure Aretxagana” eta “Aritzari” bertso-sortetan (Urrutia, 1999, I. tomoa, 112-221).

<sup>239</sup> Azken bi adibide hauetan Arrese Beitiaren oihartzun argi eta garbiak antzeman daitezke, batez ere “Arbola bat” konposiziotik datozkigun oihartzunak: “Arbola bat zan Bizkaian bere,/ Neure anaia laztanak,/ Zeiñen azpian, pozez beterik/ Egoten ziran asabak,/ Kerispe zabal artan jarririk/ Eginda euren Batzarrak,/ Bustarri baga, nasai ta libre,/ Bizi ziran bizkaitarrak” (Ibidem, 112).

Ezker-eskuman dauzan adarrak  
 Orri orlegiz txukun jantzija [...]  
 Euzkotar txoriz betia dago  
 Emon daustazun **zugatz** gustija.  
 Auxe da egiz naste bagako  
 Euzko-txorien abi-tokija. [...] (K154d)

### 3.3.3.5. *Ama Euzkadi/ Ama Euzkerea*

Deigarria da oso irudi honek zenbateko presentzia duen Kepa Enbeitaren bertsogintzan. Ez da Muxikako gure egilea irudi hau erabiltzen duen bakarra, baina esan liteke modu eta maiztasun berezian erabiltzen duela. Berarengan erabilera hau ezaugarri bereizgarria bilakatzeraino ailegatzen da, eta hori atal honetan nabarmendu nahi genuke.

Euskal kulturen matriarkatuak bere eragina izan omen du. Guri ez dagokigu kontu hori aztertzea, ordea. Ama<sup>240</sup> irudiari garrantzia eman zaiola ukatzerik ez dago, garai hartako eta lehenagoko egileen lanetan ikus daitekeenez<sup>241</sup>.

Kepa Enbeitarengan *Ama* zerbait sakratuaren irudia da. Sakratua den hori oso estimu eta maitasun handian dauka Urretxindorrek. Ukitu, manipulatu eta norberaren interesen arabera jarri ezin den zerbait omen da. Norberaren bizia maitasunez eta pozik eskaintzeko arrazoia da *Ama* hori. Emetasunak ere babestua izateko betebeharra adierazten du. Horrezaz gainera, *Amaren* maitasun desinteresatu horrek erantzuna eskatzen du, eta erantzun horretan neurtzen da pertsona baten gizatasuna. Gizatasunak, era berean, leialtasuna eskatzen du. Hori dela eta, Urretxindorrek ba omen du arrazoi sendo bat euskara edo aberriarekin leialak ez direnak gaitzesteko: aberria (eta batzutan euskara) euskaldunen *Ama* da, gure *Ama*. Jakin badakigu irudi hau oso hedatua izan dela kultura askotan, baina Urretxindorren produkzioan bereziki nabarmena da.

Jatorriz metafora den sinbolo hau alegoria baten ager daiteke. Agertzen den testuinguru guztietan, hala ere, amatasunarekiko lotsa edo errespetu giroan agertzen da beti, egilearen aldetik behintzat.

Ene Aberri maite laztana,  
 Garbi, samur ta ona zarana:  
 Bijotz, gogo ta neu nazan dana

<sup>240</sup> Atal honek “*Ama Euzkadi/ Ama Euzkera*” izenburua duen arren, argi utzi nahiko genuke sinbolikoa dena “*Ama*” irudia dela eta ez “*Euzkadi*” edo “*Euzkera*”. Egia esan, sinbolo hau askotan termino errealekin batera joaten da sarritan (ez beti). Horrek, ordea, ez du lainotzen irudi horrek duen edukin sinbolikoa.

<sup>241</sup> Felipe Arrese Beitia bera hartzen badugu, ama irudia presente da haren bertsogintza osoan eta hiru konposizioetan izenburuan bertan: “*Ama baten sentimentua*”, “*Ama*” eta “*Neure adiskide Antonio Arzak jaunari bere ama zanaren naigabea*”. Iparragirreraren amazakeria ere behin baino gehiagotan agertzen da haren bertsoetan. Esate baterako “*Adio Euskalerriri*” izeneko kantan honela dio bigarren bertsoan: “*Agur nere biotzeko/ amatxo maitea!/ Laster etorriko naiz, / kotsola zaita./ Jaungoikoak nai badu/ ni urez joatea,/ ama, zertarako da/ negar egitea?*”. Guardia Zibilak Euskal Herriatik atzerriatu zueneko bertsoetan honela dio: “[...] Giltzapean sartu naute/ poliki-poliki/ negar egingo luke/ nere amak baleki” (Euskaltzaindia, 1987, 342-345).

Jauna'ntzako ta zeuretzat, Ama [...] (K038e)

Esan behar da *Ama Euzkadi* irudiaren presentzia nabarmenagoa dela *Ama Euzkera* irudiarena baino. Baina beti Ama hori bere seme alaben laguntzaren beharrean aurkitzen da. Laguntza hori jasoko du seme-alaba leialengandik. Kanpoko (atzerriko) izaerak liluraturik daudenek Amari traizioa egingo diote ordea. Egilearen eginkizuna, beraz, traizio hori saihestea da, eta modu epelean jokatzeko dutenak kontzientziaztea. Estilo honetako bertsoak Felipe Arrese Beitiaren zenbait bertsoaren oihartzun garbiak dira, nahiz eta hark *Ama* irudiarekin euskara sinbolizatu nahi zuen:

Atsekabiak gure almenak  
Ipiñi dauskuz lotuta,  
Ama Euzkadi daukogulako  
Motzen azpijan aulduta.  
Seme ustelak, barriz, lo dagoz  
Ezaueria galduta.  
Ta orain, zeñek itxartuko dauz,  
Irakaslia il da-ta? (K035b)

Ija illian aurkitzen zala  
Ama Euzkadi laztana,  
Seme maite bat agertu yakon  
Arnasa emon eutsana;  
Jasorik gora irrintz indartsu  
Goikoaz maita ebana,  
Zabal zan uri, baso ta mendi,  
Irrintz arexen esana. (K048l)

Arestian esan dugun legez, *Ama* sinboloak euskal hizkuntza edo *Euskerea* sinbolizatzen du noizean behin Muxikako gure egilearen bertso gintzan, *Ama Euzkera* binomioaren bidez enuntziaturik. Bertsoakera mota honetan Felipe Arrese Beitiaren bertso gintza osoago islatzeko agertzen da:

Ama Euskerearen seme "nagusiak" ...  
Egizko ezkelzale naiñun ikustiak  
Nagusiyei jarrai-guraz anaya "txikiak" ...  
Bata-bestien leiyar zar ta gaztiak,  
Euzkeldun litzatekez orduan guztiak. (K050d)

Ikastoletan atiak itxi,  
Urijetatik bidaldu,  
Baserrijan be, Judas antzera,  
Batzuk oi zaitue saldu,  
Arnasa nasai artzeko zeure  
Tokira ezin urbidu:  
Ama bat olan ez geunke eukiko  
Lotsaren pizkat ba'gendu. (K046c)

### 3.4. Alegoria edota parabola

Orain arte aztertutako metafora edota sinboloen adibide batzuk alegorietan kokaturikoak izan dira. Ikusten denez, atal honetan dagokigun irudi hau biltzaile edo multzotzailea da, hau da, beste motatako irudiak bildu ditzake bere baitan. Beraz, alegoria metaforen multzo bat izan daiteke. Horrezaz gain, sinboloak, apostrofeak, pertsonifikazioa eta abarreko irudiak izan ditzake bere enuntziazioan.

Alegoria aztertzean, beraz, kasu gehiago egingo diogu irudi erretoriko legez duen izaerari, biltzen dituen bestelako irudiei baino.

Urretxindorrek, bere bertso idatzietan behintzat<sup>242</sup>, sarritan jotzen du alegorietara. Joera honek bereiztu egiten du Urretxindorra beste garaikideengandik, ez beste egileek joera hauxe eta alegoria mota berberak ez zeuzkatelako, ez bada alegoria jakin batzuk era berezian jorratu zituelako.

### 3.4.1. Behi zaharra

Esate baterako, Urretxindorrek sortutako alegoria bat oso sonatua izan zen, balizko amets baten sortua hain zuzen. Orduko Euzkadi eta Estatu zentralaren arteko harremana sinbolizatzen zuen eta behi zahar baten zenbait jarduerekin irudikatzen zen: elikatzea, eraiste prozesua eta abar:

Atzo goixian ames ein nuan;  
ai, a zan amesetia!  
Ikusi neban bei nabar aundi  
eta ganera luzia.  
Euzkelerrian musturra daula  
ta Madrilen errapia.  
Emen jan ta jan, ta an zirri-zarra  
erasten esne gustia.  
Beyen aurrian euzko-mutil bat,  
errimia ta gastia  
esku batian makilla daula  
ta bestian idazkia.  
Idazki artan idazkun auxe:  
"Kendu bei oni askia,  
emon egizko gosia,  
Auxe dalako lotsabakoai  
ein biar yaken gauzia." (K066i)

*Gure Urretxindorra* liburuan bi aldiz agertzen da alegoria hauxe berbera. Goian erakusten dugunaz gain *Euzkadi* aldizkarian argitaratu zen "Entzun 'Kirikiño!'" bertso sortan alegoria berau, aldaketa gutxi batzuekin. Agian atalik bereizgarriena hasierakoa da, non gaia enuntziatzen eta bideratzen hasten den:

"Lengo gau baten ames ein neban.  
A zuan amesetia!  
Jakitun bati gomutau yakon

<sup>242</sup> Idatzitako bertsoen berri soilik eman dezakegu, jakina, bat-bateko bertso kopurua oso murrizta baita.

Sariketa bat jartia:  
 Nok edertoen margozen eban  
 España'ren ixatia.  
 Batek beinguan antzeztu eban:  
 Bei bat nabar ta luzia [...] (K172d)

Alegoria hau kontutan hartuta, honako eskema hau eskaini dezakegu bere edukia azaltzeko:

<b>hitzez hitzeko adiera</b>	<b>irudizko zentzua</b>
“bei zarra”	- Espainiaren izatea - Espainiak Euzkadirekiko duen menperatzaile jarrera
“musturra”	-Espainiak Euzkadiren ondasunen jabe izateko duen eskubidea
“jan ta jan”	- Euzkadiri zergen bidez edota legearen bidez ondasunak kentzea
“han zirri-zarra”	- Estatuko hiriburuan edota beste lekutan Euzkadin hartutakoa inbertitzea
“errapia”	- Zentralismoak duen tresna Euzkaditik Madrilera ondasunak eramateko
“euzko-mutil bat”	- Prozedura zentralista hau oztopatzen ahaleginduko den euskal gazteria
“askia” kentzea	- Estatuak komuneko “kutxa” bat galaraztea
“egizko gosia” ematea	- Ustezko gehiegikeri hori etetea - Zentralismoaren zutabea den sistema fiskalari diru iturria etetea

### **3.4.2. Kaiolaratutako txoria**

“Kaiolaratutako” uso edo hegaztia izaten ohi da beste motibo bat alegoriak sortzerakoan. Urretxindorrek alegoria hau jorratuko du Euzkadiren egoera azaltzeko, Espainiako estatuarekiko beti ere. Berez aske bizitzeko jaio den hegazti edo uso hori kanpoko indar baten eraginez kaiolaratua izango da. Kaiolan denetarik izango du: jana, edana, babes... baina txori batentzat garrantzitsuena omen den askatasuna falta zaio, eta hori da bere tristura eta bere arranguren iturburua<sup>243</sup>.

“Uxo gaixoa” izenburua duen bertso sortan, besteak beste, alegoria hau jorratzen da:

**Baratz** eder-ederrenian  
Azke bizi zan **Usoa**,  
Alai, pozik kantau ta egaz,  
Jolasten zala naikoa,  
**Lapurtzar** bik gau illunian  
Arrapau eben gaixoa;  
**Basamortu** itzal bat orain  
Da bere bizi lekua. (K065h)

Samindurik euzko-mendiak  
Oyuka dagoz ibarrai:  
“Eztozue **basamortura**  
Guri laguntzen igon nai?”  
An **usorik** maitakorrena,  
Errukorrena bere bai,  
**Burdiñazko kayolan** dago  
Erosta baten, ai! ai! ai!! (K065j)

Bertso-sorta honetan barrena alegoria honen azalpena egiten da gainera, alegoria *in praesentia*<sup>244</sup> baten aurrean gaudelarik:

Ezagun da zein dan **usoa**

<sup>243</sup> Sinboloaren ohiartzuna duen alegoria honek bide luzea egin du euskal poesian. Jose Anton Arzek bere “Txori ttikia” poeman modu berdintsuan erabiliko du, nahiz eta egoera soziala askoz geroagokoa izan: frankismoaren azken aldia. Bertan, Urretxindorren garaiko errepresioa eta “zentsura” oso era antzerakoan ageri dira, eta alegoriaren zentzua bide beretik joango da. Hori bai, kasu honetan txoria bera izango da bere egoeraren berri emango diguna: “txori ttikia nintzalarik/ esan zidaten kaiolan bizitzeko/ sortua nintzela/ orain/ arrano bihurtu naizenean/ kaiola hautsita/ aldegingo nuen beldurrez./ libro nintzela sinistarazi nahi/ didate;/ horregatik/ iriki dizkidate ateak/ egin dezadan hegaz/ bainan/ luze gabe ohartu naiz/ anka harkaitz bati/ lotu didatela/ kate motz eta astun batez”. Alegoriak, arestian izan bezala, sinboloaren kutsua dauka, kultura batean sortua baina unibertsala izan daitekeena. Hori berori ondo baino hobeto antzeman du Amaia Iturbidek bere “B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza” izeneko liburuan: “Sinboloa ore obsesiboa den bitartean, lekun jakin batera atxikia eta, beraz, hala nolako nortasun eta izan nahiaren bindikapen eta aldarrikapen mutua, arketipoa unibertsala dugu, orokorra, zerbaitetara eta norbaitengana iristeko desioa” (Iturbide, 2000, 39).

<sup>244</sup> Egokia iruditzen zaigu terminologia hau erabiltzea, alegoriei dagokienez ere. Metaforekin ari ginenean metafora garbiak eta nahastuak erabiltzen genituen bezala, metafora *in absentia* eta metafora *in praesentia* erabil genitzakeela uste dugu. Bada, bereizketa berbera egin daiteke alegoriekin ari garenean; izan ere, termino erreala edo termino errealen azalpena egiten denean alegoria nahastua edo *in praesentia* dugula esan dezakegu. Kontrako kasuan, alegoria garbia edo *in absentia* baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Ta zeintzuk diran **azeri**,  
 Bata gorri, bestia baltza ...  
 Uso zurija Euzkadi,  
 Pantzekeri t'españakeri  
 Bideko **sasitza** ori;  
**Korañetzat** Euzkera ta Jel  
 Dopaltsodaz "Laurak-Bat"-i. (K065k)

Badago beste berso-sorta bat egituraz eta zentzuz nahiko antzekoa dena eta usoaren alegoria hauxe berbera jorratzen duena. Ahapaldiaren itxura desberdina da ordea, oso neurri berezia (15/8; 15/8; 15/8; 15/8) duena. Badirudi neurri berriekin, olerkaritzara egin nahi zuen hurbilketaren harian, jolastu edo saiatu nahi zuela:

Euzko "Txalai"-rik ederrenian, azke-azkerik,  
 alai bixi zan **usua**,  
 eragozpenen apurrik barik aixe zabalán  
 jolasten zala naikua,  
**Lapurtzar** batzuk gau illunian, anka ta ego  
 gogor loturik gaxua,  
 erun eben, ta gaur **basamortu** itxel batian  
 da beren bixi-lekua. (K170i)

Aurreko bertso sortaren antzera ere alegoriaren azalpen bat dakar azkenean:

Igarri dozu, irakurlia, zein dan **Usoa**,  
 ta zeintzuk diran **azeri**?  
 Uste dot baietz: bata España, bestia antze,  
 Uso zurija Euzkadi;  
 erdalkeri ta pantzekerija lotsagarrijak,  
 bideko **sastraka** ori; **korain** zorrotzak Jeltzaletasun,  
 ta euzkereaz Euzko-Gastedi. (K171m)

Badago beste bertso sorta bat motibo hauxe jorratzen duena, antzeko alegoria baten bitartez. "Bakotxak beria" du izena bertso-sorta hark, eta haur bat eta txorikume batzuen txori amaren arteko elkarrizketa jasotzen du. Haurrak txorikumeak kaiolaratu nahi ditu, berak elikatzeko eta zaintzeko. Txoriamak, ordea, nahiago du haien askatasuna, kaiola barruko babesa baino.

- "Ene zori-txarra!  
 Nok alai abestu  
 azkatasun barik, beti  
 baldin ba'dau estu?"

"**kayolan** ez dago  
 janik ez edanik  
 azke bixitia baño  
 maiteago danik". (K056p)

Azken koplak alegoria honen zentzua azaltzen du laburki:

ArraÑak uretan,  
txorijak mendian ...  
Euzko-Abenda, barriz,  
geure Aberrijan!! (K057a)

*Euzko-Deya*-n 1916ko 30. zenbakian agertu zen bertso parean ere alegoria honi ekin zion Urretxindorrek. Txori baten jabea mintzo da lehenengo bertsoan eta leporatzen dio kantari egon ez izana. Txoriak, ordea, kantari eta pozik egoteko askatasuna behar duela erantzuten dio bere jabeari:

Beste **txorijok** basuan  
Pozez zoratute  
Yabiltzak txiro-liroka,  
Ezin aspertute.  
“- Ai, neu be, orreik lez, azke  
Baldin ba'nengoke ...  
Gustiz alai ta pozik  
Abestuko neuke!” (K039a)

Laburbildu daiteke, beraz, alegoria hauen edukia ondorengo eskemaren bidez:

<b>hitzez hitzeko adiera</b>	<b>irudizko zentzua</b>
<i>txoria, usoa</i>	- Euzkadi
<i>lapurtzarrak</i>	- kanpoko indarrak - euskaldun “traidoreak” - Espainiako agintariak
<i>sasiak, sastrakak</i>	- Espainiako eta Frantziako estatuak
<i>kayola</i>	- askatasunik eza
<i>basamortua</i>	- Atzerria, - nazionaltasuna ukatzearen egoera.
<i>jan-edana izatea</i>	- Oinarrizko premiak beteta izanda, herri nortasunaren eskubideak (askatasuna, burujabetza) bete gabe izatea



### 3.4.3. Giza harremana eta txorien arteko harremana

“Ene Anai Urretxiñola” eta “Urretxiñolari berrerantzuna” bertso-sortetan zenbait hegazti-irudi agertzen dira alegoria bat sortuz. Kasu honetan, alegoria horrek ez dauka zerikusirik “kaiolaratutako hegaztiarekin”. Txorien arteko harremana da Kepa Enbeitak bere anaiarekin duen harremanaren alegoria.

[...] Oldozmenetan sarri nenbillan  
Abia billa ete enbillan  
Usotxo zuri  
Politen bataz ... Ortan nago ni.  
Igarri ete yautsat, ba, oni? (K191c)

Ni nok txori bat etxe-inguruan  
Nabillena udan eta neguan,  
Abi ondolik urriñerako  
Nai eztodala egorik jaso.  
Naiz-ta ziñopa!! ...  
Emen ilgo nok txio-txioka,  
Arrotzen batek arriaz jota. (K191d)

Ni enok zozo, ez birigarro,  
Eztakit ba, abesten oik baxen arro.  
Eztirudit, ba, kuku ez miku,  
Txindor bat baño anka ta piku.  
I az, ba, txori,  
Urretxiñol ain ospetsun ori!  
Eta ni, barriz, nok txantxangorri. (K191e)

Euzkeldun uso samur polit bat  
Egaz bidaltzeko agintzen daustak.  
Euzkadi'k daukon usotegia  
Gurgarria dok ori egia. [...] (K192d)

Or uso polit asko ei dira  
I, barriz, orrei ta onei begira.  
Euzko-alabak orreik ba'dira,  
Eruaiekek bat eure kabira. [...] (K192e)

Ba'ekik zeren bildurrez nagon,  
Ta nire biotza ze larri dagon!  
Gabiloyen bat usotzat artu  
Te berak euri erpiak sartu, [...] (K192h)

Txorien arteko harremanek gizakien artekoak irudikatzen dituzte, batez ere gizaki horiek bertsogintza edo olerkigintzarekin zerikusia badute; izan ere, haien jarduna edertasuna bilatzea eta zabaltzea da eta, beraz, haien ekoizpen

estetikoa txori baten kantuarekin pareka daiteke, besteak beste txoriarenak daukan edertasun eta arintasunari erreparatuz.

Gerra aurreko “Tene” olerkari emakumeari eskainitako bertso-sorta baten egileak, txori bati galdetu ostean, beronek “Tene” alegoria honetan sartzen du, hura ere txori bilakaturik:

Praisku'k.- Txindorra, esan zadak ik  
 “Tene” zein dan bai al dakik?  
 Txindorrak.- Bai, ba-zekiat ondotoxo ere;  
 Gezurrak balio eztk.  
 Uraxen bai **uxotxo** polita,  
 Iñun ba'zeok pollitik! (K169d)

[...] Gogo ta biotz jeltzale utsa,  
 Euzkeldun olerkaria.  
**Kayola** gertu daukanarentzat,  
 Uraxen bai dek **txoria**! (K169g)

### 3.4.4. Baserritar munduaren alegoria

Baserritar munduko elementu eta jarduerekin alegoriak egitearen aukera ez du galtzen Urretxindorrak, bere bertso gintza herri xehearentzat izanik eta bera ere baserritar munduan sustraituta egonik. Baserritar mundu hori beste maila bateko errealitatearen sinboloa da, arestian aztertu dugunez (ikusi C.III.3), *Euzkadi* eta bere kulturaren sinboloa. Beraz, goragoko errealitate hori irudikatzeko alegoria bat egitea ondo etorriko zaio; izan ere, baserri munduko zenbait elementuk xehekiago burutuko dute eginkizun hori.



*Jeuri*, Enbeitatarren kabia

Euskal Herria eta bere egoera askotan baserri batekin edota berorren alorrekin (*baratza* irudiarekin) alderatzen da. “Gure baratza” bertso sorta da horren adibide garbi bat eta hiru bertsoak hona ekartzea merezi duelakoan gaude:

Gure **baratza**, eder alaya,  
 beti oi zan **loraz** jantzi,  
 euzki ederra ortzetik zabal  
 egiten zanian jatsi.  
 Ai, baña, onek, euzko-semiok,  
 ameagandik igesi  
 [...] Ordutik dira gure **baratzen**  
 sortu **bedar txar ta sasi**  
 ta daneen arte, betiko il daiten,  
 nai dabe **arantzaz** josi.  
 Alperrik, baña... Ez bildur ixan;  
 laster da ori berbixi. (K067a)

Txakurtxu bana emon ezkerro  
 astero, eusko bakotxak,  
 "Euzkel-Laguntza"-k erosikoituz  
**korañe zorrotz-zorrotzak**  
**ebagiteko** bein da betiko  
**bedar txar, sasi, arantzak,**  
 eragozpenik euki ez dayan  
 geyago gure **baratzak**. (K067b)

Euzkelerrija da **baratz** ori;  
 Euzkera beren **loria**  
 guretzat beintzat ludiko beste  
 orok baño be obia.  
 Jauna'k emoskun, geutzat, esanik  
 "Zaindu bakotxak beria."  
 Erdeltzaliak, kontuz, ez aitzu  
 Jaungoikua'ren Legia. (K067c)

Hurrengo alegoria honetan, Euskal Herria edo Euzkadi baserritarraren zainketa behar duen baserria edo baratza izango da. Baserritarra langilea bada, baratza ederra izango da, baina alferra bada, sasiak haziko dira eta baratza (edota baserria) hondatu egingo da, ez du fruiturik emango. Guzti horrek, jakina, zentzu pedagogiko argia dauka, maila politikoko irakaspena baita, askotan giza -moralaren mailara jaso nahi delarik:

**Sasijak** sortzen dira  
**solo** ederretan  
**nekazari alperrak**  
 ba'dabiltz eurretan,  
 gauza onari barriz  
 itzi ez **ernetan**.  
 Irudi auxe dogu  
 Euzkadi onetan. (K036i)

Euzko-**baratza** bardin bagia,  
**Lore** bikañez oi zana jantzi, [...]  
 Ordutik ona gure **baratzen**  
 Ikusten dira **sastraka, sasi,**  
 erdelkeri ta zikinkeriak  
 Nai dabela ixan bertako nausi.  
 Orren artian Euzkera gure

**Lore** maitia ezin da bixi [...]  
 Zer ein biogun? Euzko bakotxak  
**Korañe** zorrotz bana erosi  
 Ta **sustarretik sasi-sastraka**  
 Ta **bedar txar oro ebaki**; [...] (K046j, k eta K047a)

“Egizko lugiñari” izenburua duen bertso-sortak aztertzen ari garen alegoria jorratzen du baita ere. Adierazgarria da izenburua bera: “Egizko lugiñari”. Izan ere, egiazko lugina izango da herri kontzientzia daukana, “aberriaren oihua” entzun duena, eta ondorioz, bere lurrak landu ez ezik, Euzkadiren nortasuna landu bat eraiki nahi duena. Hona hemen atal batzuk:

Euzkadi gure **baratz**  
**arantzaz** betian,  
 Gau ta egun lanian  
**ekatxen** artian  
 Jel-**azija ereiten**  
 ainbeste urtian,  
 jarraitu zan **lugiña** ... (G.B.)

[...] **Sasi** ta **bedar txarrez**  
 itto biarran,  
 ikusirik **baratz** au  
 ain zori txarrian,  
**garbitzen** gau ta egun  
 guretzat onian  
 [...] Zure Jel-**azija**  
 emon ditu **sustrayak** ...  
 Bere **igali** ederraz  
 gertau dogu ben-benaz  
 zeuretzat, **lugiña**,  
**ustai loraz** egiña [...] (K173f, g, i)

Horrenbeste adibide eman ostean, garaia da, alegoria honen pentsamendua azaltzeko eskema baten bidez.

### hitzez hitzeko adiera

### irudizko zentzua

*(euzko-) baratza*

- euskal kultura, Euzkadi,  
eraiki behar den aberria

*sustrayak*

- kultura eta gizarte  
antolaketaren jatorria

*jel-azija*

- abertzaletasunaren mezua

*igalijak*

- abertzale jardueraren emaitzak  
- abertzaletutako jendea

*lugiña, nekazaria (baserritarra)*

- euzkoa edo euskalduna

<i>arantzak, sasi, sasi-sastrakak, bedar txarrak</i>	- Euzkadi eraikitzekeko oztopoak, <i>erdalkerija</i>
<i>korañe</i>	- Erdalkeria uxatzeko erabakia, erdalkeria neutralizatzeko estrategia

#### 4. Ondorioak

- a) Kepa Enbeitaren estiloa, estilo berezia dugu. Estilo berezia du ez baliabide bata edo bestea erabiltzen duelako, baizik eta baliabide edo joera berezi batzuen konbinaketa edota aukeraketa bakarra burutzen duelako.
- b) Garrantzitsuena ez bada ere, alde batetik erabiltzen duen hizkera deigarria da. Ezaguna da zortzikoaren erabilerak Gipuzkoan eta Euskal Herriko Ekialdean izan duela bereziki tradizioa. Kepa Enbeitak bere Mendebaldeko hizkera eta idazkerarekin bertso molde horiei eutsiko die tinko. Horrela, Mendebaldeko bertsogintza berezi bat sortuko du, ordura arte ia-ia ez zegoena.
- c) Bertsogintzaren hasieran, helburu politiko esplizituegirik erakusten ez zuen garaian (1903. urtera), hizkera herrikoia erabiliko du, erdararen maileguak erabiltzeko higuinik gabe. Gipuzkerako zenbait forma ere tartekatuko ditu, agian zortzikoaren tradizioa handik jaso zuelako hein handi baten.
- d) “Garai abertzalean”, jeltzaleen Mendebaldeko hizkera eta idazkera erabili zituen zenbait lizentzia eta salbuespen onarturik. Era honetan, bertsogintza hizkera berezi honetan landatzen lehenengoetakoa eta aitzindarietakoa izan zen.
- e) Kepa Enbeitaren hizkerak hoskidetza ere baldintzatuko du. Euskalki nagusi honetan berezia den lexikoa hoskidetasun eredu batzuen barruan, nolabaiteko aparteko estilo bat sortuko zuen.
- f) Ahozko produkzioetan espero litekeenaren kontra, egile honen bertsogintza ez da ugaria epitetoetan. Kopurutxo bat erabiltzen du hala ere, eta nahikotzat jotzen dugu Walter Ong-ek deskribatu zituen ahozkotasanaren produkzioen artean kokatzeko. Ahozkotasanaren psikodinamiken ondorio bat da hauxe, aldeztatik ahozko komunitatean eraturiko hitz multzoak erabiltzeko joera duelako.
- g) Kepa Enbeitaren estiloa definitzen duen beste elementuetako bat pilaketen erabilera da. Maisutasunez erabiltzen ditu pilaketen mota desberdinak, behar izan metrikoetara egokiturik. Pilaketa zenbaitek formularen itxura hartzen dute, eta hemen ere ahozkotasanaren beste ezaugarri bat betetzen da. Errekurtso honi ekiterakoan, gogoaren higidura azkarra ere ahalbideratzen du, entzulearen adimenean hainbat errealitate pasatzen direlako une labur baten.

- h) Bere garaiko semea izanik, Kepa Enbeita harridura, pozezko zein kexazko deiarrei ekiten die sarritan, beste bertsogilerekin (Felipe Arrese Beitia, kasurako) antzekotasun puntuak antzeman daitezkeelarik.
- i) Kontrajarpenetan aberatsa da Urretxindorraren bertsogintza. Hala ere, hori ez diogu leporatzen Keparen estilo bereziari soilik: bertsolaritzaren estiloari leporatzen diogu batez ere; izan ere, bertsolaritza (batez ere bat-batekoa) ahozkotasunean oinarritzen da eta testuinguru horretan kontrajarpena ezagupide bat da, jakintza jadesteko metodo ezinbestekoa.
- j) Sentiberatasunetik eta bihotzetik ateratzen den bertsogintza izan arren, ez da intimismo hertsian geratzen eta solaskide bat bilatzen du etengabe (zeruan, Jainkoarekin, santuekin edota hil berri direnekin, eta lurrean bertsoen hartzaileekin). Horren ondorioz apostrofearen erabilera aberatsa erakusten du, bere humanismo kristauaren ondorio bat izaki.
- k) Solaskide bat bilatze horretan estimuan dauzkan gauza abstraktuak pertsonifikatzen ditu bere bertsogintzan, haiekin solas bat izateko. Batez ere, euskal kulturaren enblematiko edo sinbolikoak diren elementuak pertsonifikatuko ditu, gizakiak berenganatzen dituen eskubideak elementu haiei ere eskaini nahian.
- l) Goiko puntuaren ildo beretik, eta jadanik tropoen arloan, metafora eta sinboloen erabilera oso zabala izan ez arren, ideologia baten eusleak dira hein handi baten, halako diskurtso bat arrazoitzeko tenorean modu pedagogiko bati ekiteko. Sinboloei dagokienez, beste bertsogile garaikideen haritik doa, giltzarriak diren irudi sinbolikoei eutsiz: zuhaitza–arbola, baratza, baserria, ama (*Ama Euzkadi*, *Ama Euzkerea*) eta kaiolaratutako txoria.

## **6. kapitulua**

### **Ideologia**

## O. Sarrera

Kepa Enbeitaren ideologia aztertzeari ekin nahi diogu orain, eta horretarako bi ikuspuntu nagusi hartuko ditugu kontutan:

1. Ideologiak estilistikarekin duen lotura edota harremana.
2. Ideologia azaltzerakoan egiten den ahozketasunaren erabilera.

Ideologia zer den ere kontutan hartzea komeniko litzateke. Guri ez dagokigu lan honetan ideologiaren kontzeptua aztertzea egile desberdinen arabera, ez eta kontzeptu honen historia bat deskribatzea. Definizio hau aski zaigu lan-tresna bezala:

Suele llamarse ideología a todo sistema de opiniones y creencias fundado en un orden de valores subyacentes, más o menos consciente, encaminado a encauzar las aptitudes y comportamientos de los miembros de un grupo social, clase o sociedad dados. [...] El hecho de ser un sistema implica su expresión ordenada y formal, lo que no excluye que al estar destinado a la difusión no se emplee un lenguaje persuasivo y emocional, simplificando los contenidos por medio de recursos propagandísticos (símbolos, *slogans*, etc.).<sup>245</sup>

Egile baten ideologia aztertzea dagokigu orain eta, horretarako, dauzkan ideietan sakontzea ezinbestekotzat daukagu, bere jomuga estetikoak eta bere edertasunaren ikuskera hobeto ezagutzeko. Ideologia horren alderdi bat (ez bakarra) politikoa izan daiteke, baina politikoa izateak ez du esan nahi estetikarekin zerikusirik ez duenik. Gizakiaren jarduera guztietan (politikagintza barne) modu batean edo bestean, edertasuna bilatzen da, batzuetan modu arrakastatsuan eta beste batzuetan helburua erabat edo batere lortu gabe.

Bestalde, ezin da ahaztu erretorika sortu zenean baldintza politiko jakin batzuetan sortu zela. Erretorikaren ikertzaileek esaten digute erretorika klasikoa Kristo aurreko V. mendean sortu zela eta tiraniatik demokraziarako mugimenduari lotuta zegoela, Greziako kolonietan, Sirakusan hain zuzen. Demokraziak, besteak beste, hiritarrei aukera eman zien beren burua defendatzeko tribunal baten aurrean. Horretarako oso lagungarria zen erretorikan trebatua izatea, norberaren burua onik ateratzea nahi bazen. Baina arlo judizialean ez ezik, arlo politikoan ere erretorikoki ona izateak bere abantaila ukaezinak bazituen:

Hablar bien en público no sólo servía para salir bien librado de los pleitos [...] sino que también era signo indiscutible de superioridad y por ello causa de general reconocimiento, respeto y estimación. Era, consiguientemente, el primer paso para

---

<sup>245</sup> In *Gran Enciclopedia Rialp*, XII. bolumena, 1993, 339.



alcanzar el triunfo político en aquella sociedad política por los cuatro costados (López Eire, 1997, 17).

Jakina, garai hartako estilistikak ez zuen helburu nagusizat atsegina ematea, baizik persuaditzea, entzulegoa konbenzitzea. Estilistika edota atsegina ematea aipatutako azken bi helburuen zerbitzuan zegoen. Kepa Enbeitaren bertsogintzan beste horrenbeste gertatzen dela susmatzen dugu, baina ondorioz ez dugu aurreratu nahi eta utz diezaiozun tartea azterketari.

Hasteko, kokapen ideologiko eta sozial apala egingo dugu ondorengo azpiatalean.

## **1. Kepa Enbeita baino lehenagokoak: hurbilpen bat**

Euskal artistengan nolabaiteko nazionalismo joerarik ba ote zen aztertu beharko litzateke. Patriotismo bat indarrean zegoela argi dago, eta gainera hori espero litekeena da; izan ere, edonongoa izanik guztiok dugu geure jaioterri edota gizaratearekiko halako atxikimendu bat.

Baina nazionalismoa beste kontu bat da. Botere handiago baten petik askatu nahia da, burujabeak (ahal den neurrian noski) izateko nahia. Era berean, eta arestikoa jadesteko, nazioaren aldarrikapena behar da; izan ere, nazioak baitu burujabetza<sup>246</sup> horren eskubidea.

Egin behar den azterketara hurbilpen bat agertuko dugu hemen, eta horretarako zenbait egile hartuko ditugu aintzat, Sabino Arana baino lehenagokoen artean mugarriak izan zirelako: Manuel Larramendi, Juan Antonio Moguel, Jose Maria Iparragirre, Pedro María Otaño eta Felipe Arrese Beitia.

### **1.1. Manuel Larramendi (1690-1766)**

Manuel Larramendik bere aberria maite zuen, nola ez, eta bere aberriaren hizkuntza, euskara, sutsuki defendatu eta goraiatu zuen, apologista sonatua eta ezaguna izatera ailegatu zelarik.

Bere garaian hauxe zen, laburki esanda, egoera sozio-politiko: hiru euskal lurralde zeuden (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba) eta hirurak Gaztelako erresumaren pean; beste lurralde bat (Nafarroa), ordea, erresuma zen, edo izaten jarraitzen omen zuen, baina erregea Gaztelako berbera zen.

Larramendik ez zuen Gaztelako erresuma zalantza pean jarri, edo behintzat ez zuen kontra ezer esan. Alderantziz baizik, Gipuzkoa goraiatzeko tenorean Gaztelako errege eta erresumarekiko leialtasuna bertute handitzat zeukan Larramendik. Honela zioen *El imposible vencido* liburuaren hitzaurrean:

---

<sup>246</sup> Burujabetza hau gizaki bakoitzak duen burujabetzaren ondorioa da, beti ere gizartea eta gizabanakoen onerako baldin bada.

Si queremos hablar de la lealtad, y fidelidad constantísima de GUIPUZCOA a sus Reyes, a quienes profeso obligación de obedecer, no ay ponderación, que alcance. Nunca en los siglos antiguos reconoció el yugo de algún imperio, y mando forastero, manteniendose arbitra de sus leyes, buenos usos, y costumbres, [...] ha mantenido siempre a sus Dueños legítimos una lealtad inalterable, sin desampararla jamás con pretexto alguno, ni de tiempo, ni del gobierno, ni de malignas sollicitaciones, ni de malos exemplos, ni de las mayores calamidades: siempre lealísima, constantísima, fidelísima en el obsequio a sus Soberanos [...] (Larramendi, 1979, 7-8).

Leialtasun hori goraipatu arren, Larramendik estimu handian zituen bere lurraldeko foruak. Bere idazkietatik antzematen den planteamendu politikoa, hain zuzen Antonio Elorzak azaltzen duena, hauxe da: boterea Jainkoarengandik dator, eta beraz indarrean dagoen sistema zilegizkoa da eta leialtasuna zor zaio. Arrazoi berberagatik, indarrean zeuden foruak Jainkoarengandik zetozen eta errespetatu beharra zegoen. Horrela, euskal lurraldeen burujabetza defendatzeak ez zekarren Gaztelako erresumari leialtasunik eza. Elorzak ere, beste ikerlariekin batera, ukatzen du Larramendi nazionalista zenik. Hala eta guztiz ere, zehaztaperen interesgarri bat egiten du:

Eso no excluye que el planteamiento político larramendiano no encierre un alto potencial de ruptura respecto del marco estatal español. Resulta innegable su carácter de pieza clave en esa trayectoria ideológica que puede considerarse precursora del nacionalismo vasco. Yo diría incluso que constituye la pieza esencial para entender ese recorrido y sin duda la más atractiva (Elorza, 1992, 137).

Honi lotuta, euskararen aldeko defentsa da bere ekarpen handietako bat. Langintza horretan nolabaiteko burujabetza kulturala aldarrikatzen zuen, eta era berean, zenbait espainolen aurkako sumindura erakutsi zuen<sup>247</sup>, zenbait eraso eta gutxiespen zirela eta.

Larramendi, gaztelera maisutasunez erabili arren, ez da azaltzen gaztelera euskal lurraldeetan txertatu eta hedatzearen alde. Beraz, Gaztelako erresumarekiko leiala izan arren, ez zen uniformismo estatalistaren aldekoa inondik inora. Alderantziz, euskara den balio bereizgarria bultzatu nahi zuen bere jaioterrian. Honela dio *El imposible vencido* liburuan:

El impulso, que me hizo empeñar en estudio tan espinoso, no fue sola la pasión de ennoblecer, e ilustrar nuestra Lengua, y por este lado acreditar la **Patria**<sup>248</sup>. Fue otro mayor, y más propio de mi carácter, y consiste en el gran bien, y utilidad, que espero se ha de seguir a todo el **País del Bascuenze**. Allí es necesaria esta Lengua, sirviendo muy poco el Romance para el común de la gente [...] (Larramendi, 1979, 30).

<sup>247</sup> Esandakoaren harira, hona hemen *El imposible vencido*-ren hitzaurretik ateratako zenbait aipamen: “Desacreditaban el Bascuenze de Lengua inculta, barbara, incapaz de Arte, y primor, y por aquí pretendian hallar algún vacío de luz en el honor de V.S.I”, Larramendi, 1979, 15. “Hasta ahora han tenido por imposible reducir a methodo, y reglas el Bascuenze, no solo los ignorantes, sino también los doctos, no solo los estraños, sino también los propios: y aun el dia de oy ay mil incrédulos, que juzgan, que Arte y el Bascuenze son términos implicatorios, [...] Unos quieren que sea imposible lo que aborrecen, y no pueden ver [...]”, Ibidem, 28-29.

<sup>248</sup> “Patria” hitza erabiltzean, Euskal Herria edo gutxienez Gipuzkoa esan nahi duela ematen du. Geroago agertuko den “el País del Bascuenze” sintagma ostera, Euskal Herriaren parekoa da, dudarik gabe. Juan Antonio Mogelek ere erdaraz idaztean “Patria” hitza erabiliko du Euskal Herria adierazteko.

## 1.2. Juan Antonio Mogel (1745-1804)

Juan Antonio Mogelen lanetan ez da antzematen argi eta garbi nazionalismoa dei dezakegun ideologia edo joerarik. Patriotismoa edo aberriarekiko zaletasuna bai, antzematen da. Euskaraz idaztea patriotismo horren ondorioa dela dirudi. Bere euskaltzaletasunak, gainera, ezaugarri batzuk zituen, edo behintzat euskarari ezaugarri hauek leporatzen zizkion:

- Euskara kapaza zen edozein gai jorratzeko, eta ez zuen arrotz hitzen beharrik gai horiek jorratzeko.
- Euskararen jatortasuna eta aberastasuna herri xehearengan zegoen, kanpoko eraginik jaso gabeko nekazari zintzo eta langileengan.
- Euskara aberriaren aberastasun espiritual eta materiala zen. Horri uko egiteak kalte espiritual eta materialak omen zekartzan.

Ezaugarri hauek batez ere *Peru Abarka* liburuan azpimarratu egiten dira eta apologista kutsukoak dira, euskarak jasan zituen zenbait erasoei aurre eginez. *Peru Abarka*-n pertsonai ilustratuaren arketipoa den Maisu Juan harritu egiten da Peruk anatomiar buruzko hainbeste hitz agertzean, euskara hutsean guztiak. Bere burua baserritarrak baino goragotzat eduki arren, apurka-apurka herri jakintzaren alde makurtuko da:

M. Ezneban sinistuko baserritar batek jakin leijala hainbeste izen, ta euskeria zala ain aberatsa bere berbeetan. Nik ezin artu neiz buruz izen guzti orreek illabetian bere. Iminiko ditut paperian, erakusteko beste nire opizijokuai (Mogel, 1990, 85).

Patriaren aldeko aldarriak ugariak dira, batez ere erdaraz idazten duenean, eta honek, mezu nazionalista agertzen ez duen arren, nazionalismo aurreko pausoa izan liteke. *Peru Abarka*-ren hitzaurrean euskararen eta patriaren onerako hitz ugari ditu:

¡Con qué vergüenza y confusión de muchos se debe decir que no habla el rústico doctor sino en su **bascuence patrio** sin haber jamás tomado lección alguna, y que no sea entendido de los muchísimos más de los bascongados! [...] Protesto a la faz del mundo bascongado y vizcaíno, que no hay una voz que no sea común y usual en la plebe vizcaína, y que el lector debe censurar su ignorancia, su poca curiosidad, y su ningún amor al lenguaje de su **patria**. (Mogel, 1990, 27)

Yo no he podido mirar con indiferencia los sarcasmos con que infaman algunos escritores, en otras cosas sabios, a nuestro precioso lenguaje. Quien dice con Mariana, que es lenguaje grosero, incapaz de elocuencia; quien, con los autores del Diccionario Español, que apenas quedan las reliquias de la antigua lengua de España en el idioma bascuence; quien, con el Abate Eximeno, que no es lengua adaptable a la poesía o música [...] Haría una traición a la **patria**, si no la comunicara el fruto de algunas meditaciones mías acerca del carácter e índole de nuestro idioma [...] (Ibidem, 40-41)

## 1.3. José María Iparragirre (1820-1881)

Iparragirre nazionalista izan zela badiogu, gaurko parametroekin epaituta behinik behin, oker ibiliko ginateke. Izan ere, haren mezu ideologikoan ez da eskatzen halako independentzia edo burujabetzarik. Are gehiago, zenbait bertsotan ez da ukatzen<sup>249</sup> Euskal Herria Espainiaren zati bat dela:

[...] ara, **España**, lur oberikan  
ez da Europa guztian.

Amoriozko lege santuakin,  
Gorroto gabe biotzean,  
**Iberiak**o gure anaiekin  
Bizi nai degu bakean. [...]



(Okendo ilezkoarari)  
[...] Betiko onra **España**rena,  
itxasoetan bakarra,  
eta munduan bere omena  
odeiaz goiti dagoana.

(Lersundi generalari)  
Asia, Europa eta Afrika  
Bakarrik ziran denboran,  
Gogorra, andia eta ederra,  
**Gure España** zegoan: [...]

Lurrak badira mundu onetan  
Gutxi dutenak balio  
Gure Jainkoak Iberiari,  
Lurrik onena eman dio;  
Elurte asko, eguzki gutxi  
Begira zenbat nazio,  
**Gure lur maite Españolari**  
Arren ¡ez esan adio!

[...] Ez da **España** bezelakorik  
Eguzkiaren azpian.

José María Iparragirre

[...] Orain ta beti, maita dezagun,  
**España gure patria**<sup>250</sup>.

Iparragirreraren garaian basko-iberismoa nahiko hedatuta zegoen eta Iparragirre bera basko-iberista bezala agertzen da (“Iberiak o gure anaiekin/ bizi nahi degu bakean”). Iberia, edo Espainia, euskal lurraldea balitz bezala ikusten

<sup>249</sup> Ez da ukatzen, edo behintzat, kalte edo gaitz bat balitz bezala ez da erakusten.

<sup>250</sup> Aipamen hauek *Iparragirre* izeneko liburutik hartuak dira, Euskaltzaindia, 1987, 339-399.

zen nolabait, eta hori dela kausa, Espainia maitatzea Euskal Herria maitatzea bezala omen zen: Euskal Herria hurbileko aberria zen, eta Espainia urrutiagoko aberri handiago bat. Gainera, teoria horren arabera, euskara izan zen penintsula osoko (edo ia-ia osoko) jatorrizko hizkuntza. Hori dela eta, Euskal Herriko kostaldera ailegatzean Espainiako lurraldera ailegatzen zela dio, bereizketarik egiten ez duelako: “Ara nun diran mendi maiteak/ ara nun dira zelaiak,/ [...] ara, España, lur oberikan/ ez da Europa guztian”. Honekin ez dugu zuritu nahi Iparragirreraren balizko espainiazaletasuna (bestalde, zilegizkoa den iritzi politiko bat zuritzea ere ez da behar). Hasieran esan dugu Iparragirre ez zela abertzalea. Baina azalpen honekin argitu nahiko genuke espainiazaletasun hau lotuta dagoela basko-iberismo horri.

Gainera, bi eragile hartu behar dira kontutan:

- Iparragirre, eta foruzaleak oro har, ados egongo dira Espainiako ordenamendurekin, baldin eta euskal foruak errespetatzen badira. Errespetu eskaera horretan ziharduen Iparragirrek orduan<sup>251</sup>.
- Orduan inork ez zuen ikusten Espainiatik, edo Espainian zegoen ordenamendutik ateratzeko behar izana.

Argi dago, bestalde, Iparragirrek ez zuela ikusten kulturalki berdinduta Euskal Herria eta Espainia. Euskara eta euskal izaeraren bereizgarritasunak goraiatzea horren seinalea da.

Euskal lurraldeen independentzia eskatzen lehena Sabino Arana izan zela badiogu ez dugu ezer berririk deskubritzen. Eskaera horretan oinarritzen da, hein handi baten, XX. mendean ezaguna egin zen nazionalismo edo abertzaletasuna. Baina badirudi, gai eztabaidatsua izan arren, Iparragirre, nazionalista peto petoa izan ez arren (geroagoko nazionalismoaren ikuspegitik, noski), euskal nazionalismoaren aitzindari bat izan zela. Horren arrazoiak eskematikoki hauexek lirarteke:

- *Euskalerrria* terminoa bultzatzen du, euskal lurraldeak biltzen dituen entitate bat adierazteko<sup>252</sup>, horren aitortzen eta onespen legala jaso gabekoa izan arren.
- Euskal nortasunaren elementuak bultzatzen ditu: euskara (kulturaren elementu bereizgarria)<sup>253</sup> eta foruak (nolabaiteko askatasun edota jabetza bermatzen duen legeria lez)<sup>254</sup>.

---

<sup>251</sup> “Jaungoikoa eta Arbola” izeneko bertso-sortan horrela dio: “Fueristak gara eta izango/ Mundua mundu dan artean;/ Sentimentu au bizirik dago/ Betiko Euskalerrrian”, *Ibidem*, 353. Fuerismo hori onartzen ez duena areriotzat hartzeko prest dago. Honen haritik espainolak eurak ere aurkariak izango dira euskal foruak onartu ezean: “España guztia/ jaquiñean bego/ euskaldunoc ez guera/ jo ta artzen egongo/ arbol maitagarria/ gogor eta bero/ conserbatuko degu/ oraiñ eta güero”, *Ibidem*, 388. Azken bertso honek balio berezia dauka; izan ere, halako espainiazaletasunaren aurka bakarretakoa da.

<sup>252</sup> “[...] bai eta indarra ere/ zerorren lurrari,/ eta bendezioa/ **Euskalerrriari**”, *Ibidem*, 340. “Naiz dela Italia,/ orobat Frantzia,/ bietan bilatu det/ anitz malizia./ Ikusten badet ere/ nik mundu guztia/ beti maitatuko det/ Euskalerrria”, *Ibidem*, 343.

- Euskal lurraldeen artean (Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta abar), eta lurralde horietako biztanleen artean, noski, halako batasun eta anaitasun bat bultzatzen ditu<sup>255</sup>.

Ezin aipatu gabe utzi Iparragirreraren tonu sentiberatsu eta bihozkorra, geroagoko hainbat eta hainbat adierazpen nazionalisten eredu izango zena. Eredu hau ere produkzio abertzalearen eredu izango zen, argi eta garbi.

#### 1.4. Felipe Arrese ta Beitia (1841-1906)



Otxandioko santuginaren ideologia aztertuta dago jadanik, eta besteak beste, Itziar Urrutiaren lanean (1999) ederki azalduta dago. Ekar dezagun hona berak esandakoa:

Arrese Beitiaren ikuspegi politikoaren inguruko lehenengo erreferentzia *Revista Euskaran* 'Milla zortzireunda irurogeita amargarren urteko udan ipinitako buru bidia, ur-etxe edo bañutegi bateko salan kantetako' izenburupean argitaratutako olerkian ageri da. Foruen eta monarkiaren aldeko zen eta arazo dinastikoak ez zuen garrantzirik harentzat, erregeak foruak babestuz gero" (Urrutia, 1999, 28).

Felipe Arreseren foruzaleatasuna batez ere hasierako bertsoetan agertuko da. 1880an argitaratutako sorta baten honela zioen:

Edozeñ dala Errege jarten,  
Ez galdu **geure legia**,  
Jaungoikoagandik ta antxinatik

<sup>253</sup> "Pakean bizitzeko/ gure mendietan/ euskera itz egin bear da/ batzarre denetan;/ ta euskaldunen izena/ geroko eunkietan/ famatua izango da/ alde guztietan", Ibidem, 346; "Arren ez bada galdu euskera, / nere anaia maiteak!/ Galtzen badegu ... galduak gera/ gu eta gure semeak.[...], Ibidem, 372.

<sup>254</sup> "[...] Baina gaur ere gizon biotzdunak/ Euskaldun garbi prestuak/ Beti dituzte gauzik maiteenak/ Jaungoikoa ta Fueroak", Ibidem, 377.

<sup>255</sup> "Zorioneko batasunean/ Nafarrak, gure anaiak [...] Auziak utzi alde batera/ Batu euskaldun guziak/ Besoak zabal esaten digu/ Gaur Iruñea uriak", Ibidem, 386; "Biba Rioja, biba Naparra,/ arkume onaren izterra;/ emen guztiok anaiak gera,[...]", Ibidem, 348; [...] izan gaitezen danok anaiak/ eta alkartu gaitezen./ ¡O! ez ibili, Euskal leialak,/ lurak odolez estaltzen!", Ibidem, 362.

Dogulako etorria.  
Maitatu geure **foruak** eta,  
Baita bere **euskeria**,  
Berau dalako berbeta gozo,  
Eta atsegingarria (Ibidem, 97).

Foruzale guztien antzera, tubalismoak eta basko-iberismoak justifikatuta, ez dute Espainarekiko halako bereizketa nabarmenik egiteko nahia. Espainia gauza propio bezala kontsideratzen da, baldin eta foruak gordetzen badira, noski. Foruak galtzeko arriskua hurbiletik ikustean Espainia zorigaitzekotzat hartzen da:

[...] Zori gaistuan baña aurkitzen  
Gaur **gure España** galdua,  
Ia esan leike, gizon bakotxa  
Dala nausi gurakua.

[...] Baldin ezpada ainbat lasterren  
Burua ipintzen danentzako,  
Arrisku andian aurkituten da  
**España eder au** galtzeko (Ibidem, 96).

Hala ere, badakigu Arrese ta Beitiak Sabino Arana eta berorren ideologia politikoa ezagutzera ailegatu zela. Ezagutu ez ezik, abertzaletu egin zen<sup>256</sup>. Euskal nortasuna krisian zegoen garai haietan, eta krisi horri aurre egiteko abertzaletasunak zekarrena ontzat ikusi zuen. Krisi hori Felipe Arresek Beitiak berak hartu zuen gaitzat, abertzaletasuna ezagutu eta “jaino” orduko. Beraz, kezka hori ez zen nazionalismoak bere ideologian landatua, aldeztu aurretik eta beste askorengatik zegoen kezka baizik. Abertzaletasunaren mugimendua eskape-balbula izan zen beraientzat.

Antzematen da *Bizkaya por su independencia* (Arana, 1980, 107-153) liburuxkaren berri duela, behintzat horrela adierazten du 1901ean argitaratu zuen bertso-sorta batean:

Osterantzean esan daiela  
Gaur Padurako mendiak,  
Zirealako eurak an izan  
Orduan ikuslariak,  
Burua arro ekarri arren  
**Ordoño** bildurgarriak,  
Ez etziran bere odolaz  
Gorritu anko arriak (Urrutia, 1999, 397).

Ordoño buruzagi gaztelarra ekartzen du gogora, Sabino Aranak liburuxka hartan egiten duen antzera, halako bizkaitarren garaipen militar bat goraipatuz.

---

<sup>256</sup> “Sota, Campion eta Iturralderekin batera Euskalerra elkarte foruzalearen kide izan zen. Edonola ere, 1896tik aurrera Arana Goiriren ideologiaren eragina nabaria da Arrese ta Beitiaren olerkietan”, Ibidem, 30.

Horren erreferentzia 1903ko bertso-sorta baten egiten du, Sabino Aranari haren heriotza zela eta eskainitakoa:

Bizkaia iñok lotu bagea zelan izan zan,  
Zuk argitara emon zenduan liburuan,  
Irakurrita daukaguzanak gordeko doguz  
Ill arteraño biotz barruan ta goguan (Ibidem, 524).

Abertzaletasuna zenbateraino besarkatu zuen ikusteko, aipatutako bertso-sorta berau da eredu argi bat. Nazionalismo politikoaren sortzaileari goraipamenak eskaintzeaz gain, haren mezua berenganatuta duela adierazi egiten da ia-ia bertso guztietan:

Euskal erriko eguzkia zu Sabiñ zeu zara,  
Iratzarteko erdaldun amesdun guztia,  
Argitutean oso daukagun itsumendia,  
Salbauko dogu Jaungoikoagaz Aberria (Ibidem, 525).

### 1.5. Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910)

Bertsolaritzarekin zerikusi zuzenagoa duen euskal egile bat dugu Pedro Maria Otaño, eta Urretxindorraren aurrekoen artean sonatuenetakoa. Esaten zaigunez, Pedro Maria Otañoren familia liberalen aldekoa omen zen<sup>257</sup>, Gipuzkoan gehienak foruzaleak, eta beraz, karlistak izanik. Pedro Mari bera ere, bere hasierako bertsogintzan, 1899. urtera arte behintzat, ez da agertzen foruen alde bere bertsotan. Errepublikazale agertzen da, eta *La Juventud Republicana* aldizkarira bidaltzen zituen noizean behin bere bertsoak. Foruzalea izan ez arren, bere aberriari nolabaiteko askatasuna opa dio, eta horretarako Errepublika zela onena uste zuen. “Republica ta Fueroak edo Mendiburuko maiztarra” izeneko bertso-sailean foruzaleek zeukaten askatasun grina Errepublikan ase zitekeela adierazi nahi zuen. Horretarako, aiton foruzale bat eta haren biloba errepublikazalea jartzen ditu bertsotan. Honela dio bilobak:



Republika zer dala uste du?  
Aitona, betor onuntza;

<sup>257</sup> Otañok Ameriketara egin zuen aurreneko joanaldia 1875an egin zuen, bigarren karlistada hasi orduko. Gerrara ez joateagatik alde egin omen zuen Argentinara. Honela azaltzen zaigu alderdi hau: “Pedro Mari, bere emezortzi urterekin, gerrara eramateko sasoiari batizegoan, igesi joan zala Argentinara. Alde batetik, ain pakezalea zan bera, gero bere bertsuetan agertuko zuanez. Arrazoi ori bakarrik ere naikoa zuan Pedro Mari Ameriketara alde egiteko. Bestetik, berriz, Gipuzkoa geiena, kosta aldeko erriak izan ezik, karlisten mende zeuden. [...] Baina Otañoren familia liberaletakoa zan. Orregatik, arma artuta ere, bere iritziaren kontra joan bearko zuen Pedro Mari. Ara emen, guk uste, arek emendik anka egiteko bigarren arrazoi. Pedro Mari, bere Ameriketara joaneko bertsu-sailean, onela esaten du: Argatik gerok batera kulpik ez yezkela ezertan/ biltzen joan biarra/ izandu nuben batetan;/ oso gazterik arkitu nintzan Ameriketara joan/ (Zabalza, 1997: 64-165).



eztegu ondo entenditutzen,  
 ez baita gure izkuntza;  
 bañan eskatzen du egiteko  
 denok elkarri laguntza,  
 beren modura gobernatubaz  
 probintzi t'erri bakoitza,  
 orti fuerora zer diferentzi  
 dago, aitona? Zer? Utsa!  
 (Zavala, 1993, 374)

Beraz, Pedro Marik euskaltzaletasunari eta bere herria maitatzeari bide honetatik ekingo dio, hasiera baten behintzat. Bide kulturala, hau da, euskararen aldeko defentsa, izango da gailenduko dena.

Abertzaletasun argirik ez da antzematen Pedro Maria Otañoren bertso-gintzan, hasiera honetan batez ere. Iparragirrek bezala, ez du bultzatuko

Pedro María Otaño Barriola (1857-1910)

Espainiarekiko halako bereizketa bat, 1900. urtera arte. Euskal Herria Espainiaren zati bat bailitzan kontsideratzen du, oso berezia izan arren. Espainiaren zenbait aferetan hango interesen aldekoa agertuko da bere bertsoetan. Esaterako, “Españolak eta moruak” (1893) bertso-sailean, Melillan izandako istilu batzuk hartzen ditu hizpide eta honela dio:

Erdi lotan bezela  
 joan dan aspaldiyan,  
 iñoren parragarri  
 geunden Españiyan; [...]

Españiyan biyotzak  
 daude txit jasuak,  
 legoia esnatu du  
 tximu-erasuak; [...] (Ibidem, 379)

Kubako gerra zela eta, Pedro Mari, orduko beste euskaldun asko eta asko bezala, Espainiako interesen alde agertu zen. Honetan Sabino Aranarekiko desberdintasun nabarmena ikusten da, izan ere hura (agian, bereziki espainiar nazionalismo sutsua zirikatzeke edo) Estatu Batuen interesen alde azaldu zen. Baina kontutan hartu behar da ere urte horietan Sabino Arana ezaguna ez zela eta bere ideologiaren eragina oso mugatua zela. Mondragoen 1896an ospatu ziren euskal festetan gai hau aukeratu zen eta Otañok “Kubako gure anaiai” bertso-sorta paratu zuen. Bertan parte hartutako euskaldunei eskainitakoa da bereziki, baina Espainiaren interesekiko sinpatia erakutsiz eta itxaropena adieraziz:

Noiznai arkitu izandu danez  
 España bearrean,  
 naiz emen bertan edo urruti,  
 munduaren bazterrean,  
 leku beroan edo otzean,  
 itsasoan, legorrean,

beti azaldu zaio laguntza  
kantauritarren lurrean,  
ta euskaldunak ikusi dira  
beste guztien aurrean. (Ibidem, 460)

Beraz, mabistak –ja,ja,ja! – guri  
artu nai digute goia?  
Oiek oñpean sartu nai dute  
Españiako leoia? [...] (Ibidem, 465)

Bitxia da zinez sorta hau; izan ere, euskaldun haien historia edo jarraipen kronika bat egin nahi du, eta historia horrek, Kubako gerraren parte hartzea justifikatzeko erabiltzen duen arren, geroago euskal nazionalistek erabiliko zituzten topiko historikoak erabili zituen:

- Euskotarren garaieztasuna Antzinako historian<sup>258</sup>.
- Aitorren kondaira eta Euskal Herriaren mugak<sup>259</sup>.

Bitxia da, baita ere, sabinzalea izan ez arren (hasiera honetan behintzat), zenbaitetan Sabino Aranaren neologismo bat edo beste erabiltzen duela:

Miñberatzea gerta liteke  
zenbait egiak esanez,  
bañan ez dute kejakizunik  
Aitorren semeen lanez;  
gure **dierri** edo patria  
beartu izandu danez, [...] (Ibidem, 460)

Hala ere Pedro Mari Otañoren euskaltzaletasuna eta patriotismoa ez dago zalantzan jartzerik, inondik inora. Bera izango da *Ama Euskera* irudia era poetiko batez bultzatuko duen egileetako bat. “Amets bat” eta “Ama Euskera” bertso-sortetan irudi pertsonifikatu hau izango da gaiaren muina:

Ama Euskera naiz, Pello Mari,  
etzaitezela bildurtu;  
kezketan nator beste aldera  
ote zeraden biurtu.  
Hainbeste semek iges egin dit,  
iya naiz negarrez urtu!  
Ez ote dezu zuk ere naiko  
nere malkorik legortu? (Ibidem, 345)

Euskalduntasunaren aldarrikapenetan eta definizioetan ez da nazionalismotik apenas aldentzen:

<sup>258</sup> Hamaikagarren bertsoan honela dio: “Sartu ziraden erromatarrak/ gure lur maite ontara,/ bañan etzuten euskaldunikan/ menperatzen iñontara; [...]”, Ibidem, 458.

<sup>259</sup> Honela dio bertso baten: “Zenbat eraunsi sartu diraden/ Españiako errietan,/ asko iritxi izandu dira/ agintzera egitean,/ **Ebrotik aruntz** ezagututzen/ ditugun alderdian; / bañan **Aitorren arrazak** bere/ lurra maite du ziñetan,/ ta euskaldunak **libre** bizitu/ dira beren mendian”, Ibidem, 458.

“Zer da Euskara, nor euskaldunak,  
zeiñ ta nongotarrak dira?”  
galdezka daude atzerritarrak  
alde ontara begira,  
mundu guztiyan bere berdiñik  
ez duben Euskalerrira.  
Eziñ ikusi gaituzte ondo,  
irten gaitezen argira,  
iñork mantxarrik sortu ez dezan  
gure jatorri garbia (Ibidem, 397).

Euskal Herriaren lurraldetasuna ere kontutan hartzen du, eta euskaldunen artean izan beharko litzatekeen batasuna ere:

Jeografiya nola  
gauza ona baitan,  
zuk ez dakizu zenbat  
gustatzen zaitan.  
Esan zazu euskara  
zenbat probintzitan  
mintzatutzen dan, zenbat  
kale ta erritan,  
eta al baldin bada  
zenbat baserritan.<sup>260</sup>

Beraz, patriota eta euskaltzale sutsua dugu Pedro Mari Otaño. Tradizioz jaso dituen topikoak berenganatu eta era barreneko sentiberatasun eta irudimenez birsortuko ditu. Hala ere, agian Sabino Aranaren doktrina entzuna izan arren (1897. urtetik aurrera), hasieran ez da horren alde makurtuko.

Baina apurka-apurka, orduko giro kultural eta politikoak eraginda, abertzaletasuna mamitzen joango da bere bertsoetan eta bere pentsaeran. Lehen errepublikazalea baldin bazen, orain, 1900. urtetik aurrera, foruen gaia agertuko da behin baino gehiagotan bere bertsoetan:

Bukatu bitez gaiztakeriak,  
zintzotu bitez eruak,  
eta utzi bitza jende zitalak  
urte zarreko lekuak;  
gu, euskaldunok, naspilla gabe,  
izan gaitezen linguak,  
urte berriak bekar pakea  
eta guretzat Fueroak. (Zavala, 1993, II. alea, 158).

Foruen aldeko aldarria ez ezik, hasierako etapa baten agertu ez den joera bat mamitzen hasten da: nolabaiteko morrontza egoera batetik ateratzeko nahia. Morrontza hori Espainia edota hango ordenamendua izan liteke, zeinen bidez euskaldunak hainbat desengainu jaso dituen. Bere hitzaldi baten honela zioen:

---

<sup>260</sup> Aiton batek bere bilobari egiten dion galdera dugu hauxe, Ibidem, 476.

Bai; iritxi da orduba zutitzeko, obetu ezagutu gaitzan mundubak.  
Guk geren eskubidean dauzkagun gauzak zergatik eskatu besteri?  
Zegatik izan onen umillak, ume-illak bagiñake bezala?

Ez degu ikusten, zenbat eta gehiago makurtzen geran, orduban eta karga gehiago botatzen digutela bizkarrera? [...] Jaunak, asko da nagitasunez; asko da makurtzez; aspertu gera eskatzez zor zaiguna. Artu dezagun gerok, berdin guria da ta (Zavala, 1993, II. alea, 133).

Haren heriotzaren urteurrenean, Sabino Aranari eskainitako bertso-sorta batek erakusten du abertzaletasunera hurbildu zela. Hona hemen sortaren azkena:

Jaungoikua ta Lagi zarra zan  
bere azalkai jakiña,  
eta gazterik ill zuten penak,  
o, euskaldunak, zer miña!  
Jaso dezagun bere bandera,  
egiñ zagun alegiña,  
ez dakitenai erakutsiyaz  
maisu zanaren dotriña (Ibidem, 184).

Beraz, hasieran patriota soila zen Pedro Maria Otaño nazionalismoarekin bat egitera igaroko da apurka-apurka. Bere hasierako patriotismoa, parametro ideologikotik begiratuta, Iparragirreren berdina da (nahiz eta bere produkzio estetikoak ezaugarri propioak eduki). Otañok, ostera, beste pauso bat ematen du bere bizitza eta bertsogintzaren azken aldera: nazionalismorako pausoa. Felipe Arrese Beitiaren antzera jokatu zuen, ikuspuntu honetatik gutxienez.

Aipatu beharra dago zenbait irudi eta prozedurak (*Ama Euskera* pertsonifikaturik agertzea, asmatutako pertsonaien arteko elkarriketak, ametsaren erabilera zenbait begitazio poetikoak adierazteko, eta abar) Kepa Enbeitarengan eragina izan zezaketela, guztiz parekoak izan gabe, urte batzuetan garaikideak izan zirelako (gure corpusean Urretxindorraren lehenengo bertsoak 1902koak dira, eta ordurako Pedro Mari Otañoren bertsogintza nahiko egina zegoen).

## 2. Abertzaletasuna

Urretxindorraren ideien bila gabiltzala, aurkitzen dugun lehenengo ideiarik nagusietakoa bere abertzaletasuna da. Aurreko egileen aldean, Urretxindorrak gazteagotik ezagutu eta besarkatu zuen abertzaletasuna, agian antzeko ibilbidea egin zuen arren, hau da, foruzaletasunetik hasten den bidea.

Horrekin batera, eta batzutan oso nahastuta, erlijiotasuna nabarmenki antzematen da.

Egia da patriotismoa<sup>261</sup> erlijioak edo behintzat katolizismoak bultzatzen duen balio bat dela<sup>262</sup>. Baina bi elementu ideologiko hauek, sinismena eta abertzaletasuna alegia, era berezian eta elkarri lotuta, nabarmentzen dira bai Urretxindorrarengan bai bere garaikide izan ziren abertzale askorengan. Eurek ulertzen zuten patriotismo hura, euren ustez, modu edota bide bakarra zen gizalegetsua izateko eta zentzu transzendentearekin bat egiteko.

Ez dagokigu orain zertzelada historiko eta sozialetan sartzea, baina gogoratu beharra dago euskal abertzaletasuna ez dela patriotismo huts bat, nazio burujabe bat eraiki nahi duen patriotismoaren ikuskera jakin bat baizik. Badira patriotismo mota batzuk burujabetzaren aldarrikapen edo eskakizunik egiten ez dutenak, hain zuzen ere nazio-estatu baten jabe direlako. Horren beharrik ez dute beraz. Euskal abertzaletasunaren kasuan nazio edo aberri burujabe bat eraiki nahi da, ordura arte (edo orain arte nahiago bada) jadetsi ez den helburu bat, eta lortzeke omen dagoena.

Gogoratu beharra dago baita ere, Urretxindorra hezi zen giroan abertzaletasun sabindarra puri-purian zegoela<sup>263</sup>. Abertzaletasunerako joera

---

<sup>261</sup> *Patriotismo* hitza erabili nahi izan dugu hemen; izan ere, gazteleraz “patriotismo” eta “nacionalismo” bereizi egiten dira. Patriotismoa aberriarekiko zaletasuna edota atxikimendua da. Nazionalismoa, ostera, norberen aberriarentzat burujabetasuna emateko nahia edota asmoa da. Euskaraz, bestalde, *abertzale* hitzak adiera biak ditu: “patriota” eta “nacionalista”. Filosofia mailan bi termino hauek bereizi egiten dira ere, baina nazionalismo kontzeptuak beste adiera bat hartzen du: aberriarekiko maitasun desordenatua da, aberria gurtu egiten da, absolutua da, pertsonen eskubideen gainetik dagoena. Filosofia mailan, nazionalismoak beste herrialdeak gorrotatu eta zapaltzera bultzatzen du. Gu ez gara arituko filosofia mailan, politika mailan baizik. Politikaren terminologian nazionalismoak ez du zapaltzailea edo fanatikoa izan behar. Nazionalismoak bilatzen duen gauza bakarra norberaren herria burujabea izatea da, kasurik gehienetan bide baketsuetan. Politika mailan, beraz, badira:

1. Patriotak, nazionalistak ez direnak. Hau da, euren aberriarentzat burujabetasuna eskatzen ez dutenak (jadanik burujabeak direlako edo estatu baten babesetik atera nahi ez dutenak).
2. Badira, baita ere, abertzaleak (edo nazionalistak) direnak, hau da, beren estatua nazio bezala kontsideratzen dutenak, baina ez dira alderdi abertzale (edo nazionalista) bateko kideak: jadanik burujabetza lortu dutelako, adibidez. Hauek dira, bada, arrazoietako batzuk “patriota” eta “abertzalea” (edota nazionalista) terminoak honik aurrera erabiltzeko.
3. Badira batzuk euren buruak ez patriota ez nazionalistatzat ez daukatenak.

<sup>262</sup> Patriotismoa Jainkoaren laugarren aginduaren ondorio bat da. Horrela azaltzen du Eliza Katolikoaren Katezismoak (*Catecismo de la Iglesia Católica*): “Deber de los ciudadanos es cooperar con la autoridad civil al bien de la sociedad en espíritu de verdad, justicia, solidaridad y libertad. El amor y el servicio de la patria forman parte del deber de gratitud y del orden de la caridad [...]”, 1993, 493, 2239. puntua. Baina nazionalismo idolatraz ere ohartarazten du: “Este orden a la vez cósmico, social y religioso de la pluralidad de las naciones, está destinado a limitar el orgullo de una humanidad caída que, unánime en su perversidad, quisiera hacer por sí misma su unidad a la manera de Babel. Pero a causa del pecado, el politeísmo así como la idolatría de la nación y de su jefe son una amenaza constante de vuelta al paganismo para esta economía aún no definitiva”, *Ibidem*, 26, 57. puntua.

<sup>263</sup> Gogora ekarri beharko litzateke 1903. urtetik aurrera Kepa Enbeita Eusko Alderdi Jeltzaleko kideekin harreman estuagoan jarri zela. Herrian ere, etorri berria zen osagilearekin adiskidetu zen. Osagile hau Jon Arrospide zen, ideologiaz jeltzalea, Sabino Aranarekin laguntasunezko harremana izan zuena, eta ostean jarraitzaile zintzo izan zen. Horrela kontatzen zuen Kepa Enbeitak berak: “Arrospide’tar Jon, gure osalari ta jeltzale aundiari, Sabin gure irakasle bardin-bagiaren lagun maite zanari eta jarraitzale zintzoa danari ... zor dautsot (Goikoa’z urrengo) ni Jel’entzako oleskarija ixatia [...] Euzkelerri maitia bai, baina enekijan zer zan abertzale ixatia; ta gure aberri bakarra, Euzkadi zanik bez. Arrospide’k, baña, polito-polito esan eustan gure aberrija zein zan, gu len zer giñan, gaur zer garan; zer izateko eskubidia geukan; Sabin nor zan, zelakua zan, zelako asmoak eukazan”, Onaindia, 1971, 13.

hori bakarra zen, hau da, ez zegoen abertzaletasun joera desberdinik<sup>264</sup>. Honek argibidea eman diezaguke erlijioa eta ideologia politikoaren arteko erlazioa edota elkar-eragina hobeto ulertzeko, Kepa Enbeitaren bertsogintzari dagokionez behintzat.

Hasierako abertzaletasuna aztertu izan den lanetan, Sabino Aranaren corpus doktrinarioa kontutan hartzen da ezinbesteko erreferente gisa<sup>265</sup>. Ideologia abertzaleak oster, garapen eta aldaketa batzuk jasan zituen Sabino Arana hil eta ondorengo urteetan<sup>266</sup>. Orduko jeltzaleek, euren buruak sabinzaletzat hartuta ere, ez zuten erabat Sabinen doktrina jarraitu. Abertzaletasunak orduan beste “kolore” edo ñabardura batzuk berenganatu zituen politikagintzari ekiterakoan. Politikagintza hutsean ez ezik, adierazpen estetikoetan ere nabaritu zen garapen hura<sup>267</sup>. Oinarri hau kontutan harturik, errepara diezaiogun Kepa Enbeitaren irudiari. Kepa Enbeita, ofizialki jeltzalea zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea eta propaganda ekitaldietan biziki parte hartu zuen, beste alderdikide hizlariekin batera<sup>268</sup>. Hala ere, interesgarria

<sup>264</sup> *El péndulo patriótico* izena duen ikerketa lanean haxe bera adierazi egiten da: “El PNV casi monopolizó el nacionalismo vasco hasta la Gerra Civil –e incluso hasta la aparición de ETA durante el franquismo-, debido a la debilidad de un proyecto de nacionalismo alternativo (no aranista, liberal o socialista, aconfesional y de izquierdas)”, de Pablo, S., 1999, 284.

<sup>265</sup> Abertzaletasuna bere sorreran azterten denean, Sabino Aranaren ideologia hartzen da erreferentetzat, eta askotan bera ekoizle ideologiko bakartzat. Joera honek bere logika badu. José Luis de la Granja-k egindako lanean (2000. urtekoa) dituen bost kapituluetatik bat eskaintzen dio osorik. Aipatu dugun *El péndulo patriótico* lanean ere kapitulu oso bat eskaintzen zaio, dituen bostetatik. Jean Claude Larronderen abertzaletasunari buruzko tesi doktoralak (1977an argitaratua) izenburu haxe dauka: *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. Antonio Elorzaren *La religión política* liburuan, mundu mailako pentsamendu integristak aztertzen dituen, badago kapitulu bat izenburu honekin: “El nacionalismo sabiniano”. Hor euskal abertzaletasunaren integrismorako joerak aztertzen dira, Sabino Aranaren ideologia kontutan hartuta.

Badirudi beraz, abertzaletasun jeltzaleaz hitz egiterakoan, Sabino Aranaren ideologia (bere lotsari guztiekin) dela erreferenti bakarra, edo nagusia. Guri ez dagokigu lan honetan hau errefusatzea baina, gure zalantza adierazi nahi dugu. Lan honen bidez, neurri batean behintzat eta Urretxindorri dagokionez soilik, zalantza horretatik ilkitzen ahaleginduko gara.

<sup>266</sup> Aipatutako *El péndulo patriótico* lanean azaldu nahi izaten dira Sabino Arana hil ostean EAJ-k jasan zuen garapena, eta garaiekiko egokitzapena. Antzaz, kontraesankorrak diren jarrerak (independista izatea eta autonomista jarrera estrategikoari ekitea, esate baterako) modu honetan defenditu omen zituen: “Para obviar en la medida de lo posible tales contradicciones, el PNV optó por refugiarse en una pendular y calculada ambigüedad, que comenzó a fraguarse en la crisis inmediatamente posterior a la muerte de Sabino Arana [...] Así, ni la persona ni la doctrina de Sabino Arana fueron nunca cuestionadas en el seno del partido, aunque a la altura de 1936 su praxis política se hubiera distanciado en parte de los parámetros más agresivos propuestos por Arana en sus primitivas formulaciones”, De Pablo, S., 1999, 285-286

<sup>267</sup> Esate baterako, Sabino Aranak bultzatu zuen garbizaletasunari ez zitzaion horrenbeste kasu egin ondorengo urteetan. Ebaristo Bustinza “Kirikiño” idazle abertzale eta euskaltzale sutua hartzen badugu adibidetzat, hona zer zioen bere artikulu baten: “Euskera zeatza, euskera garbia, euskera uts-utsa erabilli ezker euskaldun asko ta askorentzat kaltea dator, ulertzen ez daualako; euskerearentzat kaltea dator, euskaldun asko ta askok euskeraz irakurriko ez daualako; guretzat euskalgilleentzat kaltea dator, alperrik egiten dogulako alegin ori, aize utsari ukabilkadea jaurtiten dautsonak lez.

Euskera zeatza euskaldunik geien-geienak ez dabe irakurten; ikusi ordukoxe alde batera isten dabe”, Bustinza, 1984, 21.

<sup>268</sup> Horrela kontatzen da Kepa Enbeitaren alderdi hau *Gure Urretxindorra* liburuan: “Arrospide onegaz asi zan mitiñetara urtetan. [...] Gerorantza, amabost-ogei bat urtian, Kepa ixan zan mitin gustietan, aberri-azia Euzkelerri osuan ereiten ibilli zana; edozein erritako abertzale-batzar, batzoki-edegite, erri-jai, jeltzale naiz mendigoxale, naiz emakumeen zerbait zanean, beti aratzen zan Enbeita, bere zentzun eta jasa

iruditu zaigu saiakera hauxe egitea: Kepa Enbeitaren ideologia politikoa, bertsoen bidez adierazia beti ere, ofizialki jeltzalea izan arren, aztertu nahiko genuke zein puntutan aldentzen den Sabino Aranaren doktrina politikotik eta zeintzuetan leial irauten duen.

Historialari batzuek, eta Sabino Aranaren ideologiarekin jarraituz, XIX. mendeko bukaeraren Bizkaia nortasun krisia jasaten ari zela adierazi dute. Egoera horretan Sabino Aranaren mezuak lur ona aurkitu omen zuen:

Ciertamente, la sociedad vizcaína de finales del siglo XIX y principios del XX era una sociedad invertebrada, desestructurada por los radicales efectos de un proceso multidimensional de modernización. Una sociedad huérfana de referentes simbólicos comunitarios y de las señas de identidad que tradicionalmente habían constituido su imaginario colectivo. Pues bien, en este contexto de orfandad, el nacionalismo vasco ofrecía una nueva identidad, un nuevo sentimiento de comunidad, dotado de sus correspondientes referentes simbólicos, vínculos emocionales y comunitarios, y relaciones e instrumentos de sociabilidad<sup>269</sup>.

Hala ere, nortasun ezaugarriak aldarrikatze lanetan Sabino Arana ez zen abertzale bakarra. Aldez aurretik zenbait nortasun ezaugarri eta sinbolo landu zituzten oraindik Sabino Aranaren ideologia ezagutzera ailegatu ez ziren artista batzuek, kapitulu honen hasieran erakutsi dugunez, batez ere Iparragirrerekin.

Harrez geroztik, artista abertzale batzuek (idazle eta bertsolariak batez ere) aurrekoen tradizio eta estiloa berenganatu eta birsortu zuten. Horietako batzuk Lauaxeta, Lizardi edota Urretxindorra bera izan ziren. Birsortze horretan, euskal nortasun ezaugarriari garrantzi berezia eman zitzaion. Lanbide honetan kokatzen da, neurri handi batean, Urretxindorraren bertsoegintza, batez ere 1904. urtetik aurrera.

Baina jakina da bertsolaritzak ez zeukala, 1903. urtean behintzat (Urretxindorraren lehenengo bertsoak argitaratzean), bestelako kultur adierazpenek zeukaten prestigio bera. Esate baterako, idazleek, beren artikulu eta beren olerkiekin kultur munduko arreta erakartzen aurrenekoak izango ziren. Manuel Lekuonaren hitzaldira arte itxaron beharko da bertsolarien zeregina goratua izan arte. Hitzaldi horretan, besteak beste, bertsolaritza goraiatzeko da eta bere azterketak metodo edo ikuspegi berezi bat behar dela

---

jai gustiai ezarri ta emonik”, Onaindia, 1971, 13-14. *Bizitzaren joanean* liburuan bestetik, hitzaldigintzan nola sartu zen azaltzen da. 1903an, Algortako sariketa irabazi ostean, Bilbora joan zen eta han Bidebarrieta kaleko batzokira sartu zen beste batzuekin batera. Horrela jarraitzen du kontaketa: “ ... bertan zera esan eutsoen:

- Hauxe, “Gernika” izango litzake ona mitinetan berba egiteko.

Aitak baietz erantzun eutsoen eta nahi ebenean dei egiteko. Beran izen abizenak hartu ebezan: Pedro Enbeita Renteria – Muxika.

- Handik laster hartu eban eskutiz bat, Bermeora mitin baten hitz egitera joan behar ebala esanaz. [...]

Esan eta egin. Heldu ziran Bermeora. Don Juanek (osagileak) egin eban lehenengo hitzaldia. Ondoren, Kepa Enbeita aurkeztu eben. [...] Egun horretan ospe apur bat hartzen, eta, Don Juan irakasle ebala gure Euskal Herriko kondaira arakutzen. Euskadiko hegalak ondo arakatu ebazan. 25 urtetik 45 urterarte ez eban etxean egote askorik egingo”, Enbeita, Balendin, 1986, 125-126.

<sup>269</sup> *El péndulo ...* (op. cit.), 56-57.

aldarrikatzen da<sup>270</sup>; izan ere, ahozkotasunean sortutako ekoizpenak aztertzeke orduan olerkigintza kultura edo bestelako adierazpen literarioak aztertzeke metodoa erabiltzeko joera zegoen.

Horren haritik, eta urte berean, Aitzol ere hasi zen bertsolaritza zeregin larria azpimarratzen. 1930ean, adibidez *Euzkadi* aldizkarian bertsolaritza buruzko artikulu batzuk argitaratzen hasi zen: “El bertsolari” (1930-IV-5), “¿Desaparecerá el bertsolari? Una inquietud” (1930-V-6) (Aitzol, 1987, 9, 19). Ondorengo urteetan joera berari eutsiko zion, 1935. urteko “Bertsolari guduak” antolatu zituen arte. Zergatik bilakatu zen Aitzol horren bertsozale? Juan Manuel Lekuonak bere iritzia ematen du:

Beraz, bertsolaritza indarrean zegoen eta interesa gora zihoan. Bide jator bat ematea falta zen. Eta hori batez ere Aitzoli zor zaio. Berak aitortzen du, poesia landuaren asmoak porrot egin duela eta, euskara indartzeko, sustraitzeko, beste bide bat hartu behar dela: herriak parte gehiago hartuko duena, etab. Orduan olerki-jaiak organizatuz bertsozalearen organizaziora ere etortzen da (*Jakin*, 1987, 8).

Kontua da bertsolaritzaaren promozioan buru belarri sartu zela Aitzol eta hori dela eta 1935ean I.go Bertsolari Eguna antolatu zuen, Poxpolin antzokian. Ordurako 1930ean beste saio bat antolatu zuten “Euskaltzaleak” elkartekoek, baina sona handiena hartu zuena 1935ekoa izan zen. Aitzolen kezka bertsolaritzaaren maila morala, edukizkoa, eta aberastasuna jasotzea izan zen. Era berean, EAJren inguruan egosten ari zen “Pizkunde” kulturean bideratu nahi zuen. Gertaera hura honela azaltzen du Juan Mari Lekuonak:

Elementu guzti hauekin sartzen gara 1935era. Eta hor, esandakoez gain, oso inportantea izango da belaunaldi berri baten agertzea. Lehenengo txapelketan, alegia, Basarri aurkezten dela batez ere, eta irabazi gainera. Jendeak susmoa zuen eta barnetik bilatzen zuen zera hura, pertsona konkretu batengan gauzatua ikusi zuela: Proiektu berriak badu bere gizona, [...] proiektu hori EAJ-PNVk hartu eta bere egiten duela (Ibidem, 8-9).

Proiektu bat omen dago, eta batez ere Aitzol izango da ideologikoki gorpuztuko duena edo diseinatzen ahaleginduko dena<sup>271</sup>.

<sup>270</sup> Hitzaldi hori 1930. urtean izan zen Eusko Ikaskuntzaren Batzar batean botatakoa (Bergarako udaletxean). Hitzaldi luze samarra da eta ezaguna denez inflexio une bat izan zen bertsolaritza eta ahozko produkzioak baloratzeke tenorean. Hona hemen aipamen adierazgarri batzuk: “Por lo demás y para prevenir objeciones, téngase presente que es sumamente difícil y expuesto el hablar de gustos bárbaros y gustos finos en cuestión de arte [...] las aparentes incoherencias de las coplas vascas han sido insoportables para nuestros literatos de educación clásica. Y, sin embargo, la vanguardia de última hora, da quince y raya en este punto a nuestras producciones populares, aun las más extremistas” (Lekuona, M., 1978, 188); “A menudo se incurre en el error de creer que un pueblo no tiene literatura, porque no la tiene escrita. La inexactitud que esto supone es tamaña, como la de suponer que un pueblo no ha conocido la legislación hasta que la ha tenido en códigos escritos, o que no tiene música porque no ha producido óperas” (Ibidem, 213).

<sup>271</sup> Esan izan da Basarri izan zela bertsolaritza taberna zuloatik atera zuena. Bera izan omen zen, baina bide hori urratzeko gonbitea egin zuena (edo egiten hasi zena) Aitzol izan zela dirudi. *Euzkadi* aldizkarian 1930eko maiatzaren 6an eginiko artikuluan honela zioen: “Ya no cantan los bertsolaris en el campo ni en la heredad, sino que se esconden al calor del vino en los tugurios insanos de las tabernas. Y cuando salen de ellas oímos con dolor que sus canciones huelen a mosto y hieden, alguna vez, a pobredumbre





duen Urretxindorraren aurkezpena:

Beraz, proiektu hori gauzatu bitartean, 1935. urtearen inguruan, beste batzuk ibiliko ziren bere ahalegintxoak egiten edo terrenoa prestatzen. Langintza horretan Urretxindorra nabarmentzen dela ez dago zalantzarik. Basarrik ordezkatu zuen belaunaldiarekiko nolabaiteko aitzindari bezala agertzen da, batez ere ideologia eta bertsokera zein tematika berriaren aldetik.

Juan Mari Lekuonak egiten duen bertsolaritzaren historian aro interesgarri bat azaltzen du: 1910etik 1935era doana, “Pizkunde-aurre hurbila” deitzen diolarik. Garai honetan alde batetik, folklore munduko bertsolariak ziren, eskolatu gabeak gehienak eta “uritar-teko gizartean zeregin jakinik ez zutenak”. Garrantzitsua iruditzen zait Juan Mari Lekuonak egiten

Baina ez zen horrela gertatu K. Enbeitarekin, Muxikako urretxindorrarekin. Honek uritar-teko gizarte-sentipena kantatzen du, batez ere politika arloan, eta kontzientzia kolektiboaren interpretari gertatzen da, jendetza handien aurrean abesten duela. Guzti honekin hasten da pizkunde-garaia, Basarri eta Uztapide joera berri honen eragile eta eredu ditugula (Lekuona, J.M, 1982, 101).

Pizkunde horren aurrelari edo aitzindari bezala jartzen duela dirudi; izan ere, haren bertsogintzak ez zion horren erraz egoera lokal bati erreferentzia egingo. Euzkadiri egiten dio erreferentzia, eta bat-batean kantatzeko orduan, ez du bilatuko (Txirritak egiten ohi zuenez) taberna baten lagunarteko giroa soilik: mitinetan eta jende multzo handien aurrean arituko da; izan ere, bere bertsogintza bere ideologia “berriaren” transmisore gisa erabiliko du.

---

... [...] Nobilísimo empeño de “Euskeltzaleak”, que para dignificar y ennoblecer al bertsolari se propone fundar una Sociedad para suscitar vocaciones de jóvenes improvisadores, grabándoles los ideales que engrandezcan su estro, para que nuestra poesía popular se desborde sobre la alegre campiña, cuajada de flores y sobre las muchedumbres vascas, iluminadas por los rayos solares de un vigoroso renacimiento” (Aitzol, 1987, 20-21). Bertsolaritza proiektu kultural baten txertatzeko, ezinbestekoa zuen arrunkeria, kaikukeria eta zabarkeria bazterteza. Hori dela eta, belaunaldi gazteengan jarriko du bere itxaropena. Antolakuntzan eta bertsolarien epaimahaietan ideologia eta asmo hauek zituzten pertsonak kokatzen saiatu zen. Bera epaimahaian izateaz gain, 1935eko Bertsolari Egunean epaileak hauexek izan ziren: Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Joseba Zubimendi (EGiko idazkaria) eta Txomin Olano. Aitzolek berak azaltzen du “Euskaltzaleak” eta “Euzko Gaztedi”ren arteko harremanak: “Alako baten, ordea, Bertsolari-Egunari ere bere garaia iritxi zitzaion. Liburutxo onen asieran irakur zenezake. Euskaltzaleai, Donostiako Euzko Gaztedi gartsuak eskeiñitako laguntza anaikorrak, bertsolarien guduak orain beñere baiño biziago eta kementsuago eraberritzea erabaki auzi zion” (Euskaltzaleak, 1936, XIX).

Hori dela eta, Urretxindorraren bertsogintza ezagutuz haren ideologiaren elementuak aztertzea, edo behintzat antzematea, ez da horren konplikatua, askotan beren-berengi oso agerikoak direlako.

### **2.1. Euzkerea**

Euskarari berebiziko garrantzia ematen dio Urretxindorrek bere bertsogintzan. Gai hau, nola edo hala, bere bertso idatzietan eta gorde diren bat-bateko bakarretan ere sarri askotan agertzen da. Maiztasunari dagokionez, hau da gehien agertzen den motiboa.

Ugaritasun honek, ostera, ez dakar motibo honen pertsonifikazio edo metaforizazio nabarmenik. Euskara, bai, pertsonifikaturik eta metafora bilakaturik agertzen da behin baino gehiagotan. Baina, adibide bat jartzearren, *Euzkadi* motiboa, nahiz eta gutxiagotan agertu, metafora bilakaturik sarriago agertzen da. Egile honen corpusean *Ama Euzkadi* irudi gehiago ditugu, beraz, *Ama Euzkerea* irudiak baino. Euskararen aldeko aldarrikapen eta goraipamenak dira nagusi, gaur egungo euskaldun zein euskaltzaleei ziurrenez gehiegizkoak iruditu ahal izateraino:

Euzko-Gastedi gurgarri ori,  
Jagiko zara osuan;  
Geu be zeuekaz bat-ingo gara  
Uri, txaide naiz basuan,  
Didar eiteko, Gora Euzkera!  
Geure amaren besuan  
Ikasi gendun ele kutun au  
Bego yagokon lekuan. (K037e)

Goraipamena dela eta, ezin gogora ekarri gabe utzi ahozko estiloaren ñabardura agonistikoak. Izan ere, goraipamenaren enfatizazioa oinarrizkoa da, ahozko kulturen produkzioetan, Walter Ong-ek gogoratzen duen bezala:

La alabanza ampulosa en la antigua tradición retórica de regustos orales da una impresión de falsa, pomposa y cómicamente presuntuosa a las personas de culturas con gran tradición escrita. No obstante, el elogio acompaña al mundo oral, agonístico e intensamente polarizado, del bien y del mal, la virtud y el vicio, los villanos y los héroes (Ong, 1987, 51).

Eta hala da, euskara zerbait ona da, eskuratu eta erabili behar den *euzkoen* hizkera, beren nortasunaren ezaugarri ezinbestekoa delako. Zentzu ezkorrean esan daiteke euskara baztertzeak ekarri zituela ondorio txarrak Euzkadirentzat: kanpoko ohitura kaltegarriak, nortasuna ahaztea, Espainiarekiko morrontza kulturala eta politikoa, eta abar. Euskarari eusteak, ordea, euskal nortasunaren sendotzea ekarriko omen zuen eta, horrekin batera, herriaren eraikitzea, edota burujabetza. Euskarak euskaldunei nortasun ezaugarri garrantzitsu eta ezinbestekoa eskaintzen zenez, euskaldunen

amatzat hartzea guztiz logikoa zen; izan ere, eta poetikoki esanda, euskarak sortu egiten zituen euskaldunak eta izaera ematen zien.

Euskararen goraipamena, bestetik, nortasun ezaugarri kultural baten goraipamena legez ulertzen du Urretxindorrek, eta horrela ematen du aditzera. Bere bertso gintzaren hartzaileak diren euskaldunak kontzientziatu nahi ditu beren ondare kulturalak estimatu ditzaten:

Maite daiguzan Euzkel-Erriko  
Uri, baserri, mendiak...  
Maite asaben euzkera zarra,  
Maite oitura garbiak;  
Onetarako bidiak  
Lengo zarrak ibilliak  
Arturik gatoz gustiok, gaur be,  
Alaitzen adizkidiak. (K090f)

Ikastetxe ta irakasliak  
Euzkerazkuak Euzkadi'n  
Biarrak doguz euzko-sendija  
Argitzeko gogo ta adin,  
Euzko-abesti, dantza ta kirol  
Danakaz zaletu dedin. [...] (K042a)

### 2.1.1. Hizkuntza eta arraza

Euskal hizkuntzaren garrantzia Sabino Arana Goirenen ideologian aztertzerakoan, ikerlari gehienek hauxe azpimarratzen dute: jerarkizatuta dagoela, edo hobeto esanda, arrazaren biziraupenaren pean kokatuta zegoela. Horrela azaltzen du, adibidez, Benjamín Tejerinak:

Para S. Arana la nacionalidad vasca descansa en cinco elementos: la raza, la lengua, el gobierno y las leyes, el carácter y las costumbres y la personalidad histórica. No todos tienen el mismo peso o importancia, estableciéndose una jerarquía entre todos ellos. El elemento fundamental de la nacionalidad vasca descansa en un hecho incontestable: la raza. [...] El interés del euskara no descansa tanto en sus valores intrínsecos como en la importancia que tiene para la raza, su conexión con la raza [...] La lengua adquiere su verdadera dimensión cuando va unida al sentimiento nacional [...], (1992, 105-106).

Euskara, beraz, euskal “endaren” hizkuntza omen da, eta Sabino Aranaren hitzetan, euskaldunek ez dute galdu behar. Irakastekotan, euskal enda edo arrazakoei irakatsi behar omen zaie, eta ez erdaldunei. Jean-Claude Larronde (1977, 138) ikerlariak horrela azaltzen du afera hau:

Pero Arana concebía la lengua como una muralla que servía para proteger al vasco del contacto extranjero, y, para que esta muralla conservara su eficacia, era indispensable que los extranjeros no aprendieran el idioma nacional: “... para nosotros sería la ruina el que los maketos, residentes en nuestro territorio, hablasen euskera ... Tanto están obligados los bizkaínos a hablar su lengua nacional, como a no enseñársela a los maketos o españoles ... (*Bizkaitarra* adizkaritik aterea, 16. zenbakia, 1894-IX-31, 401).

Hau kontutan hartuta, eta Urretxindorra jeltzalea zela jakinda, espero zitekeena da bere bertso gintzan arrazaren laudorioa motiboetako bat izango zela<sup>272</sup> eta euskara gaia jorratzearekin batera oso presente izango zela. Bada, hori emaitzetan ez dago horren garbi. Arestian aipatu dugun Sabino Aranaren joera hori, hizkuntza arrazari menperatuta egotearena alegia, ez dugu Urretxindorrarengan aurkitu, behintzat esplizituki. Hori bai, euskarari eusteko deiadarra euskaldunei egingo zaie batez ere:

**Euzko-Gastedi** gurgarri ori,  
Jagiko zara osuan;  
Geu be zeuekaz bat-ingo gara  
Uri, txaide naiz basuan,  
Didar eiteko, Gora Euzkera!  
Geure amaren besuan  
Ikasi gendun ele kutun au  
Bego yagokon lekuan. (K037e)

Erdaldunei egin behar zitzaizen bazterketa hartaz ez da aipatzen ezer, hau da, pertsona erdaldunen kontrako estrategia ildorik ez da proposatzen. *Erdelkerija* kontzeptuaren kontra, ostera, bertso bitan aurkitu dugu kontrako jarduna proposatzen duen mezua. Hala ere, zertan datzan mezu hori ez da zehazten:

Euzkerak oiñ bat galtzen dauneko  
Amar oiñ ba'daiz Uzkuertzak.  
Euzkera aldeztu biogu andi  
Txiki, lekaide ta apaizak...  
**Euzkel-Erritik at bialdurik**  
**Erdalckerizko ekaitzak**, [...] (K046d)

Ezpata zorrotz ori arturik  
Deun Mikel agurgarrija,  
**Etor zakiguz kentzeko emen**  
**Daukogun erdelkerrija;**  
Berai yagokon tokijan jarri  
Daigun Euzkera garbija.  
Bestela zelan esango dogu  
Au dala Euzkelerrija? (K043d)

Ikusten denez, euskara nortasun ezaugarri bat izateaz gain, ohitura kaltegarrien kontrako hesizat hartzen da Urretxindorraren bertsoetan. Ohitura

---

<sup>272</sup> Esan beharra dago inkesta bat egin dugula, Kepa Enbeitaren mila bertso hartuta. Dakigunez, garai hartako jeltzaleen artean ez zen *arraza* hitza erabiltzen, *enda* edota *abenda* baizik. Bada mila bertso horietan termino hau behin bakarrik agertzen da “enda” hitza, eta txerri baten arrazaz ari da Urretxindorra, termino hori erabiltzean: “[...] Zorionian beraz eiñ gendun tratua./ Dalako txarri oso **enda** onekua,[...]” (K184a). *Abenda* hitza ostera, sei aldiz agertzen da. Sei adibide horietatik, bitan bakarrik egiten da euskal *abenda* edo arrazari erreferentzia zuzena: “[...] Bertoko gauza gustijak ziran/ Jauna’k eurontzat emonak; / Artzeko gero bakarrik onen/ **Abendai** darraikijonak” (K047g); eta “[...] –Ez, geure Sabin; agur au dozu/ **Abenda**-odol gordiña./ Jel-maitasunen suz goriturik/ Bijotz-yunguran egiña” (K070h).

kaltegarri horiek erdalkeriaren bidez sartzen omen ziren, eta hori dela eta, erdalkeria jaurti behar zen euskal lurretik.

*Erdalkerija* kontzeptua, gorago esan dugun legez, kontzeptu ezkor bezala agertzen da, batez ere ohitura txarrak (erlijioaren kontrakoak doazenak bereziki) euskal lurrera ekarri omen zituelako.

Udabarriak bidaltzen daun lez  
Bultz eginda negu baltza  
Ta orriz jantzi zugatz billoxak,  
Lorak apaindu baratza  
**Erdalkerijak zikindu** daben  
Euzkel-Errijen biotza  
Garbitu eta loraz janzteko  
Sortu da "Euzkel-Laguntza". (K067d)

Erdera asi da "gitarra" ... joten,  
**Erdalkeria dantza nastuan,**  
Ta zentzun bako euzko batzuk be  
Ikus-gureaz bertara juan [...] (K046i)

Dena dela, erdara, hizkuntza legez, ez dirudi berez gorrotagarria denik  
Kepa Enbeitarentzat, horrela esaten baitu bertso baten:

**Ikasi daigun erdera, prantzez,**  
Naiz **ingelesan** elia;  
**Ikaste ori ontzat daukagu,**  
Baña lenengo geuria.  
**Izkuntza danak gurgarri dira,**  
Autortu nai dot egia,  
Geuretzat, baña, gurgarriena  
Euzkera maitagarria. (K045a).

Batzutan, gainera, badirudi euskaldunei begira euskararen defentsa hori  
politika interes gabekoa bezala aurkeztu nahi zuela:

Zer baliyo dau zuri, baltz, gorri  
Edo nabar ixatiak  
Baldin ezpa-dau zer ikusirik  
Orraz Euzkera maitiak?  
**Alde batera itxirik, bada**  
**Politika ta nastiak**  
Euzkereari danok zabaldu  
Biar dautsoguz atiak. (K041g)

**Ez dago emen**  
**andi-txikirik,**  
**zuri ez baltzik.**  
**ez dago "politikarik";**  
biotz oneko  
euzkotar orok  
euzkeran alde  
egitia da bakarrik. [...] (K141f).

Onartuko bagenu Urretxindorarentzat euskara tresna politikoa zela, behintzat aitortu beharko genuke bere asmoa disimulatzen saiatu zela. Honetan Sabino Aranarekin aldea sumatzen da; izan ere, bera ez omen zen saiatu asmo hori disimulatzen:

Sabino Arana atribuyó al euskara no sólo el valor de testimonio irrefutable de la originalidad y pureza de la raza vasca, sino también una **indisimulada** función política instrumental<sup>273</sup>.

### 2.1.2. Euskara eta garbizalekeria

Ezaguna da, Sabino Aranaren garbizale joera, hizkuntzari dagokionez. Egile batzuen ustez, garbizaletasun hau arrazaren garbizaletasunari lotuta zihoan:

En sintonía con ese valor de testimonio de la pureza racial y la función política e instrumental que Sabino Arana atribuía a la lengua, la construcción lingüística sabiniana estuvo presidida por un principio básico: el purismo<sup>274</sup>.

Jean-Claude Larronderren lanean (1977) zabalago dago aztertua Sabino Aranak euskararekiko zuen jarrera:

Arana-Goiri había visto, sin embargo, la necesidad que tenía toda lengua de evolucionar: hacía falta crear nuevas palabras para adaptarse a las nuevas condiciones de la civilización [...] Arana-Goiri, interesado en el problema de la creación de neologismos, ya en 1896, en “Lecciones de Ortografía del euskera bizkaíno” había creado 72 nuevas palabras; [...] llevados de un purismo exagerado, tanto él como sus discípulos lingüistas trataban de eliminar las palabras manifiestamente derivadas del latín y reemplazarlas por otras, creadas a partir de los recursos del euskara, y que así no debían nada a las lenguas vecinas<sup>275</sup>.

Ezaguna da baita ere, Kepa Enbeitak joera garbizale hau bertsoan hasi ostean ezagutu eta berenganatu zuela. Norengandik etorri zitzaion ere aipatu dugu jada, Jon Arrospide bere herriko osagile edo medikurarengandik hain zuzen, eta *Gure Urretxindorra* liburuan agertzen da azalduta:

Arrospide'tar Jon, Muxika'ko osalari ernea, gustiz adiskide eban gaztetatik, eta onek – abertzale ta euzkeltzale jatorra bait-zan? erakutsi eutson zelan bertsoak tayutu ta biribildu [...] <sup>276</sup>

<sup>273</sup> *El péndulo...* op. cit., 40.

<sup>274</sup> *Idídem*, 41.

<sup>275</sup> *El nacionalismo...* op. cit., 135.

<sup>276</sup> *Gure...* op.cit., 13.

Urretxindorrek gainera, joera berri hura ezagutu eta gero, ez zeukan estimuan berak lehenago erabiltzen zuen hizkera. *Gure Urretxindorra* liburutik entresakaturiko aipu baten honela dio Kepa Enbeitak:

Nik gaztetxutatik neukan zaletasun andija oleskigiñen ekiteko; eta, nainoz ta naiñun, beti gertu egoten nintzan onetarako. Trabernarik traberna erabiltzen nenduen; baña nik erabiltzen neban euzkerea ... etzan euzkerea. Eta berbetia be, sarritan, ederregia ez.<sup>277</sup>

Hau guztia kontutan hartuta, azpi atal honen barruan bi aldiren berri eman beharrean gaude:

- A) Garai “herrikoa” (1904. urtera arte)
- B) Garai “abertzalea” (1904. urtetik 1942ra arte)

Goazen bada banan-banan.

### **2.1.2.1. Garai “herrikoa” (1904. urtera arte)**

Hizkeraren erabilerari dagokionez, bi aldi nagusi bereizten dira: sabinzaleen hizkera eta grafia erabili aurretikoa eta, bestea, sabinzaleen hizkera erabili zuenetik aurrerakoa. Horrela adierazten du Abel Muniategik (1995, 18):

Kepa Enbeita bi dagoz, halan be: bat, 1903-1904ra artekoa, eta, bestea, 1904tik aurrerakoa.

Xabier Amurizak ere antzerako analisi bat egiten du:

Bi aro izan zituen. Gaztaroan bertsolaritza tradizionalari ekin zion eta hortxe nabarmendu zen ibili zen plazetan. [...] (Amuriza, 1996, 102)

Jakina, hizkeraren erabilera desberdina ez ezik, tematika eta estiloa desberdinak dira aro batean eta bestean.

Lehenengo aroan, garai “herrikoian”<sup>278</sup> dei dezakegun horretan, zortziko txikirako joera ageriagoa erakusten du, eta garai horretakoak dira “Bei zarren bertsoak”, “Karabiñeruen bizi-modua” eta “Sakristauen egikerak”, *Ibaizabal* aldizkarian 1902. urtean argitaratuak. Garai horretakoa da (1903) baita ere “Etxebarriko neure loria” bertso sorta, bere emazte izango zenari eskainitakoa, hamarreko txikian konposatua izan zena. Bestalde, “Lugiñenak” bertso sorta, 1904. urtean argitaratutakoa, garai honi dagokiolakoan gaude. Azkenik, bat-batean bota zuen bertso bat eta harrezkero herri memorian gorde zen

<sup>277</sup> Ibidem, 13.

<sup>278</sup> Garai herrikoa deitu diogu; izan ere, oraindik bere bertsogintzak ez du hiritar nortasuna hartuko, eta ez dio mezu abertzaleari oraindik ekingo. Aurreko bertsolari herrikoien ezaugarriak biltzen ditu bere baitan, eta zorrotasuna, zirikatzeke trebezia edota hizkera herrikoa ez zaizkio falta, bai bat-batean (Aizarna bertsolariari bota zion bertsoa horren erakusgarri dugu) bai bertso-jarrietan (“Karabiñeruen bizimodua” bertso-sorta, adibidez, ziri eta ironia fin batez horniturik dago. Horren erakusgarri ikusi Keparen estilistika aztertzen duen kapitulua).

bakarretakoa, 1903an eta Algorta herrian hain zuzen, estilo honen barruan kokatzen dugu, Abel Muniategiren ustearekin bat eginik.

Ez dagokigu lan honetan hizkeraren azterketa bat egitea, baina, besteak beste, erabiltzen duen lexikoak edota grafiak ematen digute arrasto bat garai hartako Kepa Enbeitaren ideologia, edo ideologiarik eza<sup>279</sup>, zertan den agertzeko.

*Gure Urretxindorra* liburuak ematen digu arrastoa garai honetako iturriak edo bertsogintzaren ereduak zeintzuk ziren jakiteko. Alde batetik, bertso-paperak, gehienak Gipuzkoako joeren eraginekoak zirenak, Bizkaian nagusi zen koplagentzako<sup>280</sup> tradizioa albo batera utzirik:

- Txikitatik ei ekarren bertso-zaletasuna, eztok alan?
- Bai, batez be bertso-paperak erosten umetatik asi zan. [...] Eta mutil koskorrari geyen eder yakozanak pelota-jokua ta bertso-paperak ziran; olango paper-ingiren batzuk beti ekazan etxera. [...] Garai atan eskekuak, kitanuak, ijituak eta gañontzekoak etorten ei ziran olango kanta-paperakaz; eta gure Kepa amari arexek erosteko diru-eske beti. Aren bertso-gosea! Bertso-paper pillo itzela ei eukan etxean. [...] Bertso-paper orreik, geyenetan, zortzi ahapaldikoak ziran. Eta Kepa-k buruz ekizan<sup>281</sup>.



Nortzuekin aritu eta entrenatu zenaren berri ere ematen zaigu liburu honetan bertan. Aipamen luzea den arren, merezi duelakoan gaude:

[...] ta bere anai zarrago Antolin be, gaztetan beintzat, berau baño bertsolari joriagoa ei zan. Onek esanda jakin eban Kepa'k ba-zala Zugaztieta'n gizon giputz bat bertsotan asko ekiana; bera be iñoiz izan ei zan aregaz sayotan, baña bera baño geyago izan.

- Ez al dakizu giputz au nor zanik?
- Bai, Zugaztietan lanean ebiltzan bertsolari orreik, anai bi ziran: Jose Joakin eta Juan Jose, oñatiarrak. Biak mutil galant eta zintzoak; eta Zugaztieta'n bertan ostatur geratu arte, gero Kepa Enbeita beraren emazte izango zan Mañasi'ren etxean egiten eben lo ta jan. Gure Kepa ta mutil bardingoak al eben gustietan juan oi ziran arei bertsotan entzutera. Eta eurak, oñatiar anai biak, bizirot ta jasaz egiten ei eben alkarren artean. Beste domeka arratsalde baten, zarata ta barbail ugari zan Muxika'rako bide ondoko etxe-barruan. Zer ete? Oiz-oñean dagon Maguna'tik etorria zan Zugadi'tar Erramin, bertsolari izen andikoa. Bertsoketan jardunik, goretsi ta txalotu eban bere sorterria, bere solo, mendi, erreka, baso ta zelai; bai ta muxikarrai, gustiz piperminsu, eztenkada politak sakatu be. Kepa'rentzat zelako abagune! Muxikarren izenean erantzuten dautso, ta ez dau txarto egin. Baserritar entzuleak gogoz txalotu dabe, bai ta Zugadi'gaz

<sup>279</sup> "Ideologiarik eza" diogunean ideologia politiko sistematizatu eta eraturik ez izatea diogu soilik, izan ere, nahiz eta alderdi edo joera politiko jakin baten zalea ez izan, gizakiok beti gidatzen gaituzte ideal batzuk, ideal horiek materialistak edo gure komenientzietara egokituak izan arren.

<sup>280</sup> Ahozko tradizioan koplak, zortziko edo hamarrekoen aurreneko pausoak omen dira. Koplagentzak Euskal Herri osoan izan du hedadura baina Euskal Herriko mendebaldean (Bizkai aldean nagusiki) koplagentzak berandura arte iraun du, eta ahoz aho transmititu da. Abel Muniategik (1995) koplagentza aztertzen du laburki bere *Bertsogintza Bizkaian (koplantik bertsora)* lanean.

<sup>281</sup> *Gure ...* op. cit., 11.



beragaz kidetu be [...] Durango'ko jayetan izan zan ori (bere debuta), Kepa'k 17 urte eukazalarik. Berriz'en ba-zan, orduan, olako ospe ta entzute andi samarra eban Onbe bertsolaria; onegaz ta izan zan Kepa'ren len-sayoa [...] Kepa'k ogeita bost urte eukozala, itxas-egaleko Santurtze ta Algorta bitartean, Ondarreta'n, bertsolari-sariketa antolatu zan [...] Gipuzkoarrak ziran etorteko, Txirrita tartean zala; eta, ziñuenez, arrosko samar etozan [...] An zan Aizarna zirilariak, batez, be, gai aldrebes bat jarri gura izan eutson; seme bat eukon onek urte ta erdira eltzen etzana, ta Aizarna'k –bere semiantzat nobiya bear daula-ta– bertso batzuk eskatzen dautsoz. Kepa'k onela:

Zenbat persona dauzan  
 Ainbeste jeniño,  
 Aizarna'n errazoya  
 Aundi dok orraño:  
 Semiantzat nobiya  
 Bear daula diño;  
 Urte beta ta erdi  
 Ez ei dauz ondiño ...  
 Sopak oba leukezak  
 Nobiyia baño<sup>282</sup>.

Beraz, bertso-paperen bertso-gintza ezagutu eta berenganatu zuela ezagun da, eta bestaldetik, Gipuzkoa aldeko bertsolariekin<sup>283</sup> neurtu zela ere bai. Izan ere, lexiko aldetik Gipuzkeraren eragina ikusten dugu: *okollua* (K161a), *zer moduz* (K161f), *nai det* (K162b), *dirade* (K162l), *santu baten gisan* (K162n), *ontzia beterikan* (K162o), *apaizen erantzunak* (K163e), *gaizki* (K164a), *pizka bat* (K164f).

Bestaldetik, garai honetan Sabino Aranak proposatu zuen idazkera berriaren eraginik ez da sumatzen eta, beraz, garbizaletasunik ez dago. Jatorri erdalduna (latin edo gaztelerezkoa) duten hitzak herriak erabiltzen dituen antzera erabiltzen ditu, barra-barra.

**Kamiñotik** urrian  
 txito aldatzien,  
 dakit bixi zarena  
 baserri etxien.  
 Ze **borondate** dagon  
 zure biotzien  
 jakitera ba-nator  
**domeka** illuntzien. (K015b)

Biotzean sartu yat  
 Poztasun andia  
 Bizkaya'n ipintiaz  
**Patrona** barria,  
 Doyak eta **bertute**  
 Danen jatorria.  
 Orain dogu Bizkaya'n  
 Zeruko **gloria** [...] (K078a)

<sup>282</sup> Ibidem, 11-13.

<sup>283</sup> Ikusten denez, bertsolariak aipatzerakoan, hau da, bertsoak (koplak ez) osatzen dituztenak hain zuzen, Gipuzkoakoak aipatzen ditu soilik. Ez litzateke harritzekoa izango, itxuran eta egituran behintzat, haien tankerak berenganatzea.

Esnia zelan kendu  
 etxeke danontzat,  
 eskatzian euko dok  
**plana** bestienetzat [...] (K161c)

[...] bi **abilenak** dabiltz  
 esnia batzien,  
 Manu asarratzen da  
**golpe** bakotxien [...] (K161a)

Itxas-aldian bada  
**portu-eskiñetan**,  
 osterantzean barriz,  
**estaziñoetan** [...] (K162d)

Etorriten danian  
**portura** ontzia,  
 a **errekistaten** dauko  
 biar nagusia;  
 Baña emon ezkerro  
 ixillik saria,  
**libre** itxiko dautse  
 gauzari **pasaia**. (K162e)

Erdal jatorriko hitzen zerrendaketa egiteak luze joko luke. Adierazi beharra dago gainera, 1904tik aurrera, nahiz eta apurka-apurka Sabino Aranaren idazkera eta neologismoak berenganatzen joan, badira “erdibidean” dauden bertso sortak, hau da, neologismo sabinzaleak eta, aldi berean, erdal jatorriko hitzak, hitz herrikoiak, tartekatzen dituztenak<sup>284</sup> (lexiko eta hizkerari dagokienez, zalantzazko aldi bat izan daiteke beraz, 1904tik hasi eta 1906. urtera arte).

### 2.1.2.2. Garai “abertzalea” (1905-1942)

<sup>284</sup> Horren adibideak “Ama Begoñakuari” eta “Bizkaitarren ispillua Balentin Berio-Otxoa” izenburudun bertso-sortak dira. Lehenengoak, adibidez, honako azpтитulu hau dauka: “Bertso barriak bizkaitar batek jarriak”. Gipuzkoa aldean eskurik esku ibiltzen ziren bertso-paperen eragina sumatzen da: alde batetik izenburuan (“bertso berriak X-k jarriak”) eta bestetik aurkezpena egiten duen aurreneko bertsoan: “Bertso polit batzuek nai neukez atera,/ Baña duintasunik ez eskoren antzera;/ Mesede billa nua Zeruko atera,/ Kristau guztijen Ama Mariaz batera”, Onaindia, 1971, 72. Bestaldetik, nabarmentzekoa da erabiltzen dituen hitzak, garbizaletasunaren eraginik bakoak direlako: “[...] Bizkaya’n ixateko gozotasunakin./ **Asuntziyoko** izar eta jantziyakin” (K079l); “[...] Untziya amar leguan aurrera juana./ Zan Mariya’n bitartez **alkantzau** eban”, (K080a); “Ama Begoña’koak dau ainbat **meritu**: [...]”, (K080d); “Uraz iya itoan ta suaz erretzen./ Ziranak zenbat Amak zituan **libratzen!** [...]”, (K080f); “Eun da amazpi txingar **brillantedunetan**, [...] / Ta zenbat nai txikigaz **adornaturikan**” (K080h); eta abar (erreguak, seguruak, Aita Santu, erromesak, promesak, birtute, Patrona ...). Bitxia da, esate baterako, lexikoaren aukeraketan oraindik dituen zalantzak. Adibidez, “Ama Begoñakuari” bertso-sortan gauza bera adierazteko bi hitz erabiliko ditu: neologismo bat (“burestuna”) eta erdal jatorrikoa (“koroi”). Ezin da ahaztu neologismoen eragina 1905ean jadanik argi eta garbia dela “Sabin Arimagatik” bertso sortan ikus daitekeenez (Onaindia, S., 1971, 79). Jadanik garai horretan hitz hauek erabiltzen hasita zegoen: “ziñopa”, “ludija” eta abar.

Lehenengo eta behin argitu beharra legoke azpi atal honetan erabili dugun “abertzalea” adjektiboa. Izan ere, garai honetan, garaikideak diren bertsolariek ez bezala, Urretxindorrek abertzaletasunaren aurkezpena edo azalpena egiten digu. Sabino Aranaren irudiak liluraturik utzi du gure Kepa Enbeita, eta orduko beste abertzalek egin zuten antzera, irudi horren nolabaiteko “sakralizazioa” egiten da bere bertsoetan. Xabier Amuriza ere iritzi honetakoa da *Bertsolaritzaren historia* lanean adierazten duenez:

Bigarren aroan Kepa Enbeita garbizaletu eta kultistatu egin zen, Sabino Aranaren lagun izana zen Arrospide medikuaren eraginez. Aurrerantzean Urretxindorrek aberriari eta euskarari eskainiko zion bere bertsogintzarik gehiena, garai hartako politizazio beroari eta euskararen aranismoari jarrai (Amuriza, 1996, 103-104).

Agian gehitu beharko genuke erlijioa izan zela aipatu ez duen hirugarren zutabe funtsezkoa. Baina azter dezagun aro berri hau atalka.

### 2.1.2.2.1. Lexikoa

Lexiko berria izan daiteke garai honetako bertsoetan atentzioa deitzen digun lehenengo elementua. Hartzen badugu aurreko garaiko (“garai herrikoieko”) bertso bat eta lexikoari erreparatzen badiogu, egin dezakegu erakustaldi bat, lexiko hori zelan aldatu zen erakutsiz:

Asi ziren **mezatan**  
betiko antzean,  
baña **eskapau** eutsan  
erdiz-erdizean;  
Pelotaka ebillen  
bere **eleizpean**,  
**abade**ari gogait-  
eragin artean. (K163e)

Bertso hau *Ibaizabal* aldizkarian argitaratu zen 1902. urtean. Beltzez adierazitako hitzak jatorri latinokoak dira.

- “meza”: hitz honen ordez *jaupa* edo *jaupaldi* erabiliko da.
- “abade”: *jaupari* izango da bere ordezkoa.
- “eleiza”: *txadon* hitza hobetsi egingo da.

Hona hemen zenbait adibide:

**Jaupaldi** nagosija ospatzeko bertan  
**Jaupari** ta lekaide gertaurik egozan.  
Apaizak mai donian, lekaidiak bardin,  
**Jaupa** deuna esaten asi ziran arin. (K032i)

Gure bijotzak samurtu yakuz

**Txadon** orretan goxian,  
Autortu eta Jaunartu dogu  
Danok alkarren pozian, [...] (K033d)

Har dezagun “garai herrikoia” beste adibide bat:

Garagarrillan amalaurako  
**Zeru** gustia dau barrez;  
**Aingeru** danak zeuri begira  
“Bizkai’ko done”! didarrez [...] (K082a)

*Zeru* eta *aingeru* hitzek aurkituko dituzte beren ordezkioak “garai abertzalean”, 1915ean argitaratu zen hurrengo bertsoan bezala:

Jaupaldi eder asi zanian,  
**Donoki** neban ikusten;  
beste aldetik **gotzon**-eresi  
ta abes gozuak entzuten. [...] (K085e)

Adibideak ematen luze egon gitezke, baina dagoeneko aski erakutsi ditugula deritzogu.

“Garai abertzale” hau bertsoaren produkzioaren aldetik oparoagoa da, dudarik gabe.



#### 2.1.2.2. 2. “Euzkera garbija”

Kepa Enbeitari, bertsolaria izaki, ez dagokio lexiko “garbi” baten aldeko azalpen teorikorik. Berak jaso du joera hori, agian Aranaren “Lecciones de ortografia del euskera bizkaíno”<sup>285</sup> goitik behera, oso-osorik esan nahi dugu, irakurri gabe. Izan ere, arau guztiak ez ditu beti beteko. Noizean behin lexiko herrikoia tartekatzen du, garai “abertzalearen” muinean eta aldizkari abertzaletan. Ondorengo bertsoa 1930ean argitaratua izan zen *Euzkerea* aldizkarian:

[...] Gusti onekin gorde zagizan  
**Zeru** ta lurren Jaubiak! (K051j)

<sup>285</sup> Lantxo hau, *Obras completas de Arana-Goiri'tar*, Sabin liburuan aurkitu daiteke, 811. orrialdetik 992. orrialdera. Lehenengo aldiz Sebastián de Amorrortuk Bilbaon zeukan moldiztegi inprimatua eta argitaratua izan zen, 1896an.

n Arrospide eta Kepa Enbeita

Teorizaziorik, esan bezala, ez du egiten, baina bai lantzean behingo iruzkinak “euzkera garbi” baten aldekoak. Zertan datzan “euzkera garbi” hori zehazten ez duen arren, erabiltzen duen testuinguruan eta hartzaileak kontutan hartuta, lexikoki, gramatikalki eta sintaktikoki euskara garbi bat adierazi nahi duela dirudi, erdararen eragin gabekoa:

[...] Berai yagokon tokijan jarri  
Daigun **Euzkera garbija** [...] (K043d)

**Euzkaraz** itz-ein daigun  
**Garbi** ta ugari,  
Edonun agerturik  
Beti, Jel-gudari. (K059e)

**Euzkera garbiz** egiten eban  
Karmel'go Ama goratu, [...] (K085g)

[...] Beti **euzkera garbi** utsian  
Euzkadi zeuen erri maitian. (K203e)

Beste adibide asko jar genitzake<sup>286</sup>, baina aurrera jo beharra dago.

## 2.2. *Edestia* edo historia zertzeladak

Urretxindorraren asmoa ez da historia egitea bere bertsoen bidez, ezta historiaren berri zehatza ematea. Hala ere, ezin ukatuzkoa da lantzean behin historia zertzeladak tartekatuko dituela bere bertso jarrietan.

Har dezagun, adibidez, “Kurutzia eta euzkeria” bertso-sorta. Bertan, Arrigorriagako borrokaren zertzeladak eskaintzen dira. Gogoratu beharra dago pasarte hau Sabino Aranak jorratu zuela bere *Bizkaya por su independencia*<sup>287</sup> liburuxkan. Han azaltzen diren pertsonaietako bat agertzen da, Ordoño izenekoa hain zuzen, Alfontso III.aren anaia omen zena:

Gure asabak gaurko egunez  
Arrigorria'n Ordoño  
Betu ta jaurti eben indarrez  
Mugatik bestalderaño: [...] (K095h)

Sabino Aranaren oso antzera bideratzen du gertakizunaren kontaketa, baina, egia esan, Sabino Aranak kontaktzen duenetik oso gutxi agertzen da bertso hauetan, agian kontua ezaguna dela uste duelako. Beraz, ez du bestelako zehaztasunen beharrik, eta testuinguruan oinarriturik, gertakizun horren

<sup>286</sup> Garbizalekeri sabinzalean baztertua izan zen “kantatu” aditza agertzen da 1934ko bertso baten: “Baratz eder-ederrenian,/ Azke bizi zan Usoa,/ Alai, pozik kantau ta egaz,/ Jolasten zala naikoa [...]” (K065h).

<sup>287</sup> Sabino Aranaren liburuxka hau *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabino* (1980, 107-153) lanean argitaratu egin zen. eta horixe bera da kontsultatu dugun edizioa.

alderdi interesatu bat baino ez du gogora ekarriko. Hain zuzen, balizko diskurtso bat ekarriko du bertsoetara. Diskurtso hori asaba zaharrek Ordoñoren soldaduei bota omen zieten da:

[...] “Or konpon zeuek, guk ez dogu nai,  
Geuria bakarrik baño;  
Zuek zeuenaz, ta gu geuriaz.”  
**Edestiak** alan diño. (K095h)

“Jakín egizu nogaz zabiltzan,  
Jakín egizu, arrotza,  
Biguna eta gogorra dala  
Euzkotarraren biotza.  
Gurenda-ikurtzat ipinten dogu  
Gaur Deun Ander'en Kurutza.  
Au zapaldu daben edonok  
Artuko dau eriotza”. (K095i)

Diskurtso honen bidez garai hartako euskaldunen justizia sena agertu nahi da eta, bestaldetik, kristau erlijioetasuna (arerioaren moralgabetasunarekin kontrastatuz). Bistan da hau ez dela historia egitea, historikoa izan zitekeen zerbait asmatzea baino. Are gehiago, ematen du egileak sinetsi egiten duela berak kontatutakoa bene-benetakoa izango bailitzan. Kontua, dena dela, ez da zuzena izatea, entzulegoari eragitea baino. Honen kariaz, Benjamin Tejerinak Sabinoren garaian sortu ziren kontakizun historikoak aztertzean hauxe dio:

Lo verdaderamente relevante, desde una perspectiva sociológica, es la importancia que estas leyendas, obras literarias o relatos épicos tienen para conformar y dar valor a las tradiciones. Su gran contribución no depende de su mayor o menor rigor científico, de la autenticidad de las fuentes utilizadas, de su “verdad o falsedad”, sino de su “capacidad para impresionar la imaginación popular, forjando una conciencia colectiva”.<sup>288</sup>

Horrezaz gainera, ezin da bistatik kendu bertsogintzaren diskurtsoa, ñabardura eta zehaztasun handiko mezuak adierazteko ez dela egokiena. Bertsolaritzaren baliabideetako bat iradokizuna da, eta iradokizunekin gauza zehatzak eta “irakurketa” bakarrekoak ezin dira egin<sup>289</sup>.

Badira beste bertso-sorta edota bertso solteak non *edesti* edo historiaren erreferentziak egiten baitira. Erreferentzi horiek, ostera, guztiz zehaztugabeak dira. “Berbizkundia” izenekoa horren adibidea izan daiteke:

<sup>288</sup> *Nacionalismo y ...* op.cit., 103-104.

<sup>289</sup> Ideia honi lotuta Jon Sarasua bertsolariak zenbait hausnarketa isurtzen ditu *Jon Sarasua. Bertso ispiluan barrena* liburuan. Gaur egungo bertsolaritzaz aritzen den arren, bere hausnarketa hau beste garaietako bertsolaritzarako baliagarria dela deritzogu. Zehaztasuna behar duten gaietan, esaterako, bertsogintzatik ez dela gehiegi sakontzen baieztatzen du: “Guk gai politiko, zientifiko edo sozial bati ez zioagu asko aportatzen. Edo gutxitan, behintzat. Berezieta nahasketa duk: informazio hori beste batekin nahastea, edo publikoan gertatu den zerbaitekin. [...] ez diat uste bertsolaritzak gaur egungo hedabide handien informazio-zaparradari eragiteko ahalik daukanik, ezta? Alde horretatik, ez diagu gure funtzioa gehiegietsi behar. [...] Demagun klonazioaren gaia, adibidez. Zer esan dugu bertsoan klonazioaz? Mundu mailarako ezer berririk ez, gure hitz-joko eta konparaketa propioak egin ditiagu. Beno, hor joango zitzuan ekarpen polit batzuk klonazioa umore klabean ulertzeko, ez?”, Garzia, Joxerra, 1998, 45-46.

Aberrijaren etsayen aurka  
Gurendaz ainbat gudatan  
Buruba jaso eban Erri au  
Bere edestiaz aitzu zan; [...] (K039c)

Arek zugazti eder arteko  
Basetxe zuri egoki,  
Aldika baten ixan ziranak  
Erkabaen bixi-toki, [...] (K039d)

Historiaren erreferentzi lainotsuok eta geroago sortuko den giro amestiarra “Sabino Arana” bertso-sortan agertzen denerako testuinguru bereziaren osagarriak izango dira:

Zer jazoten da? ... Irrintzi orrek  
Nundik eta nora urten dau? [...] (K039h)

Ez olakorik, ez! Entzun daigun  
Gogoz, irrintzi-didarra  
Geutzako da-ta: “Gora Jainkua  
Eta gora Lagi-Zarra.” [...] (K039i)

Nor dala baña jaurti dabena  
Didar ori ain indartsu,  
Mendi, aitz, arro, zelai ta danak  
Gogoz dautsela erantzu? [...] (K039j)

Ikusten denez, suspentsea luzatu egiten da, eta historiari erreparatu beharrean, nolabaiteko mitifikazio bat eratzen da:

Garbitzen asi ziran odejak  
Ta agertzen ortze argija ...  
Euzko-semiak une atantxe  
Ekusen Sabin andija [...] (K040c)

Antzineko denboretara begiratzea, begitazioak izateraino batzutan, Urretxindorrek duen joeretako bat da. Begirada horretan, gauza positiboak eta onak gogora ekarri nahi dituen arren, zehazgabetasuna da nagusi:

Zein ederra zan Euzkadi bere  
Zugatz azpiko Batzar-tokian,  
Euzkelduentzat egizko lege  
Zuzenak eiten ziran aldian!  
Jainkua goyan, Euzkera beyan,  
Zorioneko bixi giñian [...] (K046f)

Noiz zen garai hori ez da zehazten. “Lehen” mitifikatu edo hanpatu batez ari da, Erromantizismoaren joera bat bizirik antzeman daitekeelarik.

### 3. Sakralizazioa

Berez orain jorratuko dugun fenomeno hau “garai abertzalean” gertatu zen nagusiki, nahiz eta “garai herrikoian” ere (beste neurri baten, jakina) joera hori antzematen den.

Sakralizatzen zer ulertzen dugun azaltzeko *Real Academia Española*-ren (RAE) hiztegiak eskaintzen duen definizioa hartuko dugu aintzat hasteko:

(Del fr. *sacraliser*) t. Atribuir carácter sagrado a lo que no lo tenía.

Izan ere, Urretxindorrek jaso zuen ideologian zenbait sakralizazio gertatzen dira. Iparragirre bera, abertzalea izan ez arren, sakralizaziora makurtzen zen batzutan, Gernikako “arbola santua” izan daitekeelarik adibide bat. Bestalde, gogoratu beharra dago ideologia politikoen sakralizazioa, neurri txikitan zein handitan, oso joera ohizkoa izaten dela.

Askotan ideologia politiko bat, sistema politiko bat edota alderdi politiko bat eratzen denean, erlijio jakin bateko joerak (elementu, jokamolde, jerarkizazioak eta abar) analogiaz berenganatzen dira. Antonio Elorza historialariak *La religión política* (1995) liburuan horren azterketa bat eskaintzen du. Bertan, besteak beste, Sabino Aranaren abertzaletasuna, integrismo islamiarra, Gandhiren ideologia, Dolores Ibarruri-ren iraultza eta José Martí-ren amets kubatarra jorratzen dira.

Ideologiaren eratzailera izan zen Sabino Aranarengandik hasita, esan beharra dago sakralizazio hori hiru ildotan nabarmenduko direla. Horrela izendatuko ditugu:

- “Iñaki deuna” eta Sabin
- “Josu” eta Sabin
- “Ziñopea”

#### 3. 1. “Iñaki deuna” eta Sabin

San Iñazioaren irudia eta Sabino Aranarena oso batera joango dira zenbaitetan. Elkarrekiko sintonia nabarmendu nahi dela dirudi, eta era berean, inplizitoki konparazio bat egiten da: euskal jendearentzat San Iñazio kristau eredu den bezala, Sabino Arana herrigintzaren eredu bat izango da.

**Iñaki**, zure goguan argi  
dagi zorun eguzkijak  
Zure bijotza sutan imiñi  
Jel-maitasun illintijak,  
Zeure su orraz suartu eban  
**Sabin**’en bijotz andijak  
**Sabin**-bijotz-su ori darabil  
gaurko euzko gastedijak. (K061j).

**Iñaki** eta **Sabin** barreka  
dirala geuri begira



goitar gustijak poz-atsegiñez  
beterik aurkitzen dira. (K110h)

Ezin da ahaztu Sabino Arana josulagunen ikastetxe baten hezi zela eta haiekiko txera berezi bat beti gorde zuela. Antonio Elorzaren esanetan (1995), Eusko Alderdi Jeltzalearen eraketak Lagundiaren ezaugarri asko txertatu zituen<sup>290</sup>, eta “Euzkeldun Batzokija”-ren jaia uztailaren 31an jartzeak ere bere zentzua du. Garai artako giroetan, beraz, guztiz normaltzat baieztatzen zen San Iñazio eta Sabino bat-bat zetoze.

### 3.2. “Josu eta Sabin”

Konparazio sakratu hau areago doa batzutan, eta Jesukristorekin egiten da. Honek nolabaiteko erlijioaren garraiaketa suposatzen du politikaren arlora:

Gixonan aldez Koskotegijan  
**Josu** Gurutzian il zan  
Euzkadi'n alde, Aren antzera  
**Sabin** be Sukarrieta'n:  
Aberri-aldez opa eutsona  
Beren ludiko bixitzan  
Azila'n ogei eta bostian  
Jaunari ordaindu eutsan. (K035a)

### 3.3. *Ziñopea*

“Josu eta Sabin” izendatu dugun aurreko joerak Sabino Arana herriaren *ziño*petzat hartzera eramaten gaitu; izan ere, Sabino Aranak bere bizia eman zuen abertzaletasunaren alde, eta ideal horretan xahutu omen zituen bere indar guztiak. Badira bi bertso-sorta modu zuzenean ikuspegi hau jorratzen dutenak, eta Santi Onaindiaren *Gure Urretxindorra* liburuan bildu eta argitaratuta daude: “Aberrijaren ziñopea” (51. orr.) eta “Ziñopearen abotsa” (54-55. orr.):

Euzkotar jator, azkar kementsu,  
Zintzo eta langilliak,  
Eta Euzkadi'n gaur argitaltzen  
Diran Jel-izparringiak...  
Dira zerorri, **ziño**pa orri,  
Dopaltzuguzan liliak  
Gusti onekin gorde zagizan  
Zeru ta luren Jaubiak! (K051j)

Itxas-ertzeko toki eskutu

<sup>290</sup> *La religión política* liburuan josulagunen Lagundiaren eragina aztertzen da: “Los objetivos eran claros, pero el modelo político faltaba. El vacío será cubierto por Sabino acudiendo al antecedente de la Compañía de Jesús, en cuanto movimiento que arranca de un puñado de hombres devotos, entregados a la opción fundamental ( “la elección inmutable”: Jesús para San Ignacio; la patria vasca, consagrada a Dios, para Sabino) y dispuestos a servirla mediante una actuación obediente y disciplinada a las órdenes del fundador [...] Es más, la prosa de Sabino, con su carga de admonición, reproduce una y otra vez el estilo de los predicadores de la Compañía”, Elorza, A., 1995, 39-40.

Baketsu baxen txirua...  
**Ziñope**aren gorpuba lotan,  
 Itxarrik baña gogua  
 Euzkadi oro zabaltzen dabil  
 Maitasunaren berua  
 Eta Jel-bidez gaizkamenera  
 Euzko-abenda darua. (K054d)

#### 4. Erlijioa

Kepa Enbeitaren erlijio ikuskera bere bertso-gintzan nabarmena da. Horren jatorria zein izan daitekeen aztertu aldera, terreno ilunean sartzen gara; izan ere, erlijioa pertsonaren kontzientzian kokatu eta oinarritzen da, nahiz eta erlijio adierazpenak publikoak izan eta edonork antzemateko moduan ageri.

Hala ere, ez litzateke zentzugabea suposatzea sanbinismoaren erlijiotasunak eragin ziola. Garai jakin batetik pertsona erlijioetsuekin adiskidetzen da (Jon Arrospide, EAJko kultur gizonak, Lauaxeta, e.a.). Lehendik zeukan erlijiotasuna<sup>291</sup> giro horretan indartzen da. Horrezaz gainera, eta jeltzaletasuna ezagutu ostean, erlijioa ez da bakarrik izango bere bizitzaren arlo isolatu bat. 1903tik aurrerako bere jardun politikoaren oinarria bilakatuko da, eta jardun politiko hori bada erakargarria, Muxika bezalako “patriota” edo “abertzale-berri” batentzat: abertzaletasunaren hazia zabaltzeak bihotz-beteko du gure Urretxindorra. Ekintza on eta onuragarri bat egiten ari delako kontzientzia izango du bere jardunbidean. Izan ere, herria abertzaletzeak onura sozial, kultural, eta erlijiosoak ekarriko baititu, eta bere herikideentzat borondate ona zuen Kepa Enbeitarentzat ez dago poztasun eta itxaropen handiagorik.

Herria erlijio bideetara eramatea eta abertzaletzea ia-ia guztiz baturik ikusten ditu Kepa Enbeitak, horregatik zaila izango da bertso-sorta erlijiosoetan abertzaletasunaren aipamenik ez aurkitzea, eta alderantziz, abertzaletasunaren propagandarako bertso-sortetan zaila da sinismenaren ikurrik ez agertzea. Honek Sabino Aranarengandik heredatutako ezaugarria dirudi; izan ere, hark uste baitzuen bere ideario politikoa erlijiotasunetik atera zela, erlijiotasuna euskal gizartean gauzatzeko modu “soziala” edo zela. Gauzak horrela, Sabinoren politikagintza balizko gidalerro edota irizpide erlijioetsuen ondorioa omen zen:

[...] el nacionalismo se inscribe en el marco de la religión y dentro de ella se empapa de sus contenidos. No hay aquí transferencia alguna, sino impregnación por parte de un ideario político de los supuestos religiosos que la inspiran (Elorza, 1995, 33).

Jean-Claude Larrondek gogora ekartzen du erlijioak edota Sabinoren sinismenak haren ekintza guztiak kutsatu egiten dituela. Ibón de Eguizale

---

<sup>291</sup> Gogoratu beharra dago 1903an *Ibaizabal* aldizkarian argitaratu zituela, “estilo zaharrea”, bertso batzuk Begoñako Ama Birjina Bizkaiko “Patronari” eskainiak. Hizkeran behintzat ez da nabaritzen sabinzalekeriarik, eta bai ostera halako erlijiotasun herrikoi bat.

abertzalearen aipua ekartzen du eta gaztelerara itzuli ere bai bere 1977ko lanean:

Sabino llega, pues, al patriotismo a través de la Fe y únicamente para servir a la Fe. Toda su obra está impregnada, vivificada y dirigida por la Fe cristiana. Divisa, programas, libros, escritos, actividades ... Desde sus estudios históricos, hasta sus controversias políticas, desde las poesías que compuso para el pueblo hasta las palabras que concibió para el himno nacional; desde las simples reuniones del partido hasta la fórmula solemne por medio de la cual los dirigentes tomaban posesión de su cargo; desde sus cartas íntimas hasta sus más resonantes declaraciones; desde su vida familiar hasta su actividad en los organismos públicos, todo lleva en él el sello de la Fe Religiosa (Larronde, 1977, 90-91).

Zentzu honetan, Urretxindorraren adierazpen gehienek erlijioaren eragina dute.

#### **4.1. Abertzaletasuna eta erlijioa: elkarrekiko kutsadura**

Bistan da Urretxindorraren ideologian abertzaletasuna eta erlijioa oso eremu berdintsuetan mugitzen direla. Behintzat haren bertsogintzan horixe ematen da aditzera. Ondoren elkarrekiko eragin hori aztertzen saiatuko gara.

##### **4.1.1. Erljioa eta Euskara-Euzkadi**

Santi Onaindiaren lanean (1971) badira, besteak beste, bi kapitulu: bata "Aberkoyak" izenburuarekin, eta hurrengoa "Uzkurtzakuak". Izenburuek dioten legez, lehenengo kapituluak gai abertzaleak jorratzen ditu bereziki, eta bigarrenak, erlijiozkoak. Bada, lehenengo kapituluan, eta "Deun Mikel eta Euzkerea" bertso sortan, adibidez, ez dira falta erlijio erreferentziak:

Entzun, ba, entzun, euzkotar orok,  
Batez bere gurasoak;  
Entzun, ba, ondo zer dirauskun gaur  
Deun Mikel Aralar'koak:  
"Or Ikastetxe, zeuen umiei  
Euzkera irakastekoak.  
Bidaldu, bada, dan-danok ara,  
Onetsi zaizen Jainkoak. (K043g)

Santuak eta goiaingeruak, Urretxindorraren bertsoetan, euskara eta euskal nortasunaren defendatzaile legez agertzen dira. Euskararen defentsa hori, goiko zeruko bedeinkazioarekin jantzi nahi du; izan ere, orduko bere entzulego euskaldunarentzat oso arrazoi edo motibazio indartsua zen.

Ama Birjina ere Euskal Herriaren zaindari legez jarri nahi du, eta badugu ustea ez dela bakarrik arimen salbaziorako (arrazoi nagusienetakoa izan arren), Euskal Herriaren askapen nahiak gauzatu daitezzen ere bai:

Miren'en bidez egin dayogun

Jainkoari eskarija,  
 Semia'gandik jaritxi dayan  
 Ama'k biar dan gustija.  
 Zeugan jarten dogu, ba, danok  
 Itxaropen andija:  
 Zuk gaizkatuko gozuzala gu  
 Ta geugaz Euskalerrija. (K088a)

Argi gustien argija eta  
 Lore gustien loria,  
 Urtzi Deunaren baratza guren  
 Usaintsu bardin bagia,  
 Jakindiaren itxaso sakon,  
 Onez ona baño obia,  
 Eskar gustiak zeugaz dozuzan  
 Miren Sorkundez garbia,  
 Eusko-abenda sendotu eta  
 Jagon gure Aberria. (K108d)

Maitasunaren maitasun oro,  
 Zuzentzearen Zuzentza,  
 Edertasunen Eder gurena,  
 Sortzez Garbiko Neskutza,  
 Arren, ba, Euzko-Abenda oni  
 Eyozu Zeure laguntza,  
 Maite be maite doguzalarik  
 Euzkera eta Uzkuertza,  
 Jel-bide ziar lortu daiguntzat  
 Aberri-zorun-garaitza. (K111k)

San Iñaziori ez zaio faltako zuzendutako bertso edo otoitza bat, non Euzkadi eta euskotarren nahiak azaltzen diren:

Iñaki, zure goguan argi  
 dagi zorun-eguzkijak  
 Zure bijotza sutan imiñi  
 Jel-maitasun illintijak  
 Zeure su orraz suartu eban  
 Sabin'en bijotz andijak.  
 Sabin-bijotz-su ori darabil  
 gaurko euzko-gastedijak. (K061j)

Urretxindorraren bertsoetan zertzelada eta ñabardura guzti hauek erakusten digute ondo baino hobeto berenganatu zuela sabinzaleen erlijiotasuna, eta horretarako ez zuela gehiegi behartu behar izan lehendik bizi zuen erlijiotasuna, ezaugarri hauek zituena:

- Herrikoia: herriko santuen zalea, Begoñako Amarekin bezala<sup>292</sup>, bertoko izenekoen zalea.

---

<sup>292</sup> “Zainduko gaitu” herriko kutsuko bertso sortak Urretxindorraren hasierako erlijiotasunaren ikuspegi bat eskaintzen digu.

- Era berean unibertsala: San Iñazio bera herrikoia eta unibertsala da Santa Ageda den bezalako; eta Aita Santuekiko ere batasuna adierazten du sarri<sup>293</sup>.

#### 4.1.2. “Bakotxak beria”

Urretxindorrek badu lelo edo lema bat sarritan erabiltzen duena eta ondorengo Enbeitatarrengan (besteak beste, Balendinekin ikusiko dugun bezala) eragin nabarmena utzi zuena. “Bakotxari beria” edo “bakotxak beria” da lema hori, eta han-hemenka agertzeaz gain, hiru bertso-sorten izenburuan ere agertzen da: “Bakotxak beria maite”, “Bakotxak beria”, eta “Bakotxari beria”.

Bertso horietan lema hori kristau dotrinan oinarritzen dela azaltzeko egiten ditu ahaleginak egileak:

Ez al dakixu zein dan  
Jainkoaren legia?  
“Bakotxari beria ...  
Bakotxari beria”. (K093i)

Bakoitzari beria,  
Jainkoen Legia [...] (K112g)

Gorde den bat-bateko bertso bakarretakoan ere arrazoi hau agertzen da:

[...] Katolikuok jakin dagigun  
zer diñon goiko Juezak:  
“Besten gauzari bakian itxi,  
zaindu beria bakoitzak” [...] (K071a)

Nondik sortu duen lema hori ez da gauza guztiz garbia. Bertsoetan antzematen denez, badirudi moral erlijiosoan kokatutzat jotzen duela Urretxindorrek. Agian Itun Berriko Lukasek 20. pasartearen 20. bertsikuluan kontatzen duena<sup>294</sup> izan dezake bere jatorria. Bertan, Jesusek, lurreko aginpideari zor zaion begirunea edota esanekotasuna azpimarratzeaz gain,

<sup>293</sup> Erreferentziaren bat ematearren, “Artzain barrija” izenburuko bertso-sorta, *Euzkadi* aldizkarian 1913ko irailaren 7an argitaratua horren adibide bat izan daiteke, Onaindia, 1971, 84-85.

<sup>294</sup> Horrela kontatzen du Lukasek: “Lege-maisuak eta fariseuak Jesus zelatatzen hasi ziren. Zirikatzaile batzuk bidali zizkieten, zintzoarena eginez, hura hitzen batean harrapatzeko eta, hala, gobernariaren esku eta mende jartzeko asmoz. Honela galdetu zioten, bada:

- Maisu, badakigu zuzen hitz egiten eta irakasten duzula eta ez duzula kontuan hartzen gizakiaren itxura, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzula. Zilegi al zaigu Zesarri zerga ordaintzea, bai ala ez?

Haien maltzurkeria antzemanik, Jesusek esan zien:

- Ea, erakutsi txanpon bat. Norenak dira daramatzen irudia eta izena?

Haiek erantzun:

- Zesarrenak.

Jesusek, orduan.

- Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari”, Lk 20, 20-25 in *Elizen Arteko Biblia* (1994).

betierekoari zor zaiona ere agertzen du. Batzuentzat bateraezina suerta daitekeena Jesusek konpontzen du, bateragarria bihurtzen du. Hori bai, “bakoitzari berea” leloa, hitzez behintzat ez da inondik agertzen. Zentzuz ostera, lema hau nolabait agertzen dela esan daiteke.

Bestaldetik “bakoitzari berea” justizia naturalarekin bat datorren esaera dugu, herriak (euskaldungoak) erraz ulertzeko moduko esaldia da, eguneroko bizimoduari oso lotuta doan zentzuzko esaldia hain zuzen; izan ere, eguneroko une arrunt askotan erabil daiteke. Honek berriro ere Walter Ong-ek antzeman zuten psikodinamika edo gogohigidura batera garamatza:

En ausencia de categorías analíticas complejas que dependan de la escritura para estructurar el saber a cierta distancia de la experiencia vivida, las culturas orales deben conceptualizar y expresar en forma verbal todos sus conocimientos, con referencia más o menos estrecha al mundo vital humano, [...] (Ong, 1987, 48).

Hala ere, lema honen azalpen argirik ez du egiten bertsoetan. Erlijiozkoa omen den printzipio hau erabili egiten du bere mezuari (euskara edo askatasunaren aldekoa) indar morala eransteko. Mezu hori izan daiteke Euzkadiren askatasunaren aldekoa:

Arrañak uretan  
Txoriak mendian ...  
Euzko-Abenda, barriz,  
geure Aberrijan! (K057a)

Bestetan euskara maitatzeko aldarria izaten da, euskara kanpoko eragin txarren aurkako harresi bat bezalakoa izan delako. Ondorengo bi koplak jarraian agertzen dira “Bakotxari beria” izenburua duen koplak-sortan, eta jarraian jartze horrek barne lotura bat iradokitzen du:

Ezkara guzur-zale,  
Eztogu nai azurrik ...  
Euzkadi geure ama  
Nai dogu oso-osorik. (K093h)

Ez al dakixu zein dan  
Jainkoaren legia?  
“Bakotxari beria ...  
Bakotxari beria”. (K093i)

#### **4.1.3. Euskara eta erlijioa**

Jean-Claude Larrondek euskararen funtzioa Aranaren ideologiaren barruan aztertzerakoan honela dio:

La lengua debía servir para diferenciar al vasco, para preservarle del contacto extranjero que arrastraba tras sí la irreligión y la inmoralidad; era una defensa eficaz contra la invasión extranjera [...] La lengua tiene un papel defensivo en esta concepción; es un medio de protegerse, de preservarse de la invasión de los extranjeros y de conservar las tradiciones [...] (Larronde, 1977, 134).

Beraz, euskarak euskal gizartean funtzio bat izateaz gainera, erlijioaren zerbitzurako ere baliagarria izango da. Euskararekiko jarrera hau bai, argi eta garbi ikusten da Kepa Enbeitaren bertsoetan:

**Uzkurtz-aldezko guda burua**

**Euzkera ixan da beti,**

arrotz-obenik igaro ez dein  
euzko-mendijen ganeti. [...] (K040i)

**Euzkerak oiñ bat galtzen dauneko**

**Amar oiñ ba'daiz Uzkurtzak. [...]**

Euzkel-Erritik at bialdurik  
Erdalkerizko ekaitzak,  
Jaungoikoantzat zuzenduteko  
Egizko euzko-biotzak. (K046d)

Azken adibidean bitxia da ikustea agertu dugun ideia adierazteko nola Urretxindorrek neurriekin egindako metafora bat sortu duen. Bestalde, irudi hori baserritar giroari oso lotuta dago: atzerakada oinkadaka neurtzea. Gure egilearen bertso gintza giza-bizipenei estuki atxikitakoa dela berriro ere bistan da.

Adierazgarria da, bestalde, “Kurutzia eta euzkeria” bertso-sorta. Bertan, erreferentzi historikoak eskaintzen dira eta, besteak beste, euskara defentsarako harresia ez ezik, erasorako arma bezala ere kontsideratzen da (erdalkeriak babesten omen zuen moralgabekeriaren kontra). Horrela, alde batetik ekinbide estrategiko bat proposatzen du, eta bestetik jarduera bortitzak baztertu nahi ditu:

Aupa mutillak! Itxartu, jagi!  
Guazen danok gudara!  
Lenauko gure asabak legez  
Benetakuak ba-gara.  
Suizkilluakaz alkar ilteko?  
Ez, olakorik ez! ... Ara:  
Gure izkilluak izango dira  
Kurutzia ta Euzkera. (K096b)

#### **4.2. Erlijoa bera “soilik”**

Orain arte Urretxindorren bertsoetan iradokitzen dena beste zerbaiti lotuta ikusi eta aztertzen saiatu gara. Egia da erlijiotasuna bere jarduera politiko eta kulturalari oso itsatsirik doala. Hala ere, azpiataltxo honetan erlijiotasunari berari begiradaxo bat ematen ahaleginduko gara; izan ere, badira bertso-sorta batzuk gaiaren aldetik erlijioso hutsak direnak. Berauetan politika eta bestelako gai kulturalak ez dira tartekatzen, eta horregatik erlijioso hutsak dira, edo behintzat guk horrela hartzen ditugu.

Garai “herrikoieko” “Zainduko gaitu” bertso-sorta horren adibide goiztiarra litzateke. Begoñako Ama Birjina Bizkaiko *patrona* izendatu zutenean, lekuzko erreferentzi batzuk kenduta, hausnarketa erlijiosoak egiten ditu, garai hartako entzulego edota irakurlego elizkoiarentzat:

Biotzean sartu yat  
 Poztasun andia  
 Bizkaya'n ipintiaz  
 Patrona barria,  
 Doyak eta birtute  
 Danen jatorria.  
 Orain dogu Bizkaya'n  
 Zeruko gloria,  
 Zein dan Jesus'en Ama  
 Birjiña Maria. (K078a)

Geroagoko garai “abertzalearen” hasieran badago beste bertso-sorta bat oraindik kutsu herrikoia gordetzen duena (ikusi kapitulu honetako 2.1.2. atala), “Ama Begoñakuari” hain zuzen (badirudi Begoñako Ama eta herrikoitasuna lotuta doazela), non erlijiotasun huts honen zantzuak antzematen hasten baitira:

Sortu giñian bizkor ezer-ezetatik,  
 Baña geixotu giñan utz-egin batetik:  
 Sugeari jaramon Eba'k egiñaitik,  
 Gu aldendu genduzan Zeruko bidetik. (K079g)

Sugeak eukan guzur edo erejiya,  
 Galdu nairik Eba ta bere jatorriya,  
 Baita bere urrengo jarraipen gustiya;  
 Au da liburuetan daukagun egiya. (K079h)

Aipamen biblikoak, beraz, ez dira falta, eta kristau herriaren adimenera ailegatzea dute helburu. Salbazioaren Historian kokatu nahi du, beraz, Begoñako Ama Birjinaren koronazioa, ekitaldi horri eite solemneagoa erantsiz. Koronazioaren xehetasunak emateaz gain, otoitz giroaren deskripzioa egiten du, hasierako hari eta motibo trszendenteei utsiz:

Eleiza bete zan, baita inguruak;  
 Dana estaltzen eben kristiñau buruak,  
 Auzpezturik Amari eiten erreguak,  
 Beragan ipiñita uste seguruak. (K080k)

Gizakundearen salbazio-bidea gogoratzea gustuko du Urretxindorrak, batez ere zenbait mugarriei men eginez. Hauexek dira mugarriok:

- jatorrizko bekatua;
- Salbatzailearen jaiotza;
- Ama Birjinaren parte hartzea;
- Kalbarioa.



Ikus ditzagun zenbait adibidetan adierazitako “mugarriak”:

**Lehenengo adibidea: “Gogoangarrizko abestijak”**

“Gogoangarrizko abestijak” bertso-sortan, “mugarri” horietatik lehenengo hirurak agertuko dira:

(Jatorrizko bekatua)

Atxegiñezko ortuan  
Adan'en aukera  
Aldatua zan une  
Batetik bestera.  
Eguna biurtu zan  
Gaua ixatera;  
Illundu zan bidia  
Zeruko atera. (K082d)

(Jesusen jaiotza-salbazioa)

[...] Jesus etorri arte  
Gu gaizkatutera. (K082e)

(Ama Birjinaren parte hartzea)

Miren'en sabelian  
Jaunaren Semia,  
Aragijaz jantzirik  
Jaungoiko Umia [...] (K082g)

Jesus edo Salbatzailearen etorrera horretan nabarmendu egiten du Urretxindorrak Belengo pasarte. Urretxindorrak, Erromantizismoaren oinordekoa izanik, emotibitate handiko bertsogintza lantzen du. Erljioaren arloan Jesusen jaiotzan aurkituko du emotibitate hori isurtzeko gunea, eta era berean, bere ahozkoatasunaren joerek erlijioaren makrotestuan aurkitzen dute komuna den testuinguru bat herriarekiko enpatia eta konplizidatea lortzeko. Ondoren Jesusen jaiotzarekin erlazonatutako bertsoak aipatuko ditugu, bertso-sorta beretik aukeratuta:

Ixanik donoki ta  
Lurreko Bakaldun,  
Aska baten billoxik  
Orra nun daukagun  
Astoa ta idija  
Daukoz bere lagun:  
Jesus'en maitasuna  
Gogoratu daigun. (K082h)

Ahokotasunaren erretorikak badu kontrajarpenak egiteko ohitura. Azken bertso honetan kontrajarpen nabarmen bat ikusten dugu, ahazko kulturaren bizi den entzulegoak berehala antzematen duena: “donoki ta lurreko Bakaldun izatea” alde batetik, eta bestetik “aska baten billosik” jaiotzea asto eta idi batek lagunduta. Ez da kontrajarpen orijinala, gabon kanta askotan agertzen baita. Baina herriak ezagutzen duen makrotestuan kokaturik dago, eta ahokotasunaren baliabide hori erabiliz errazago berenganatuko du.

Goyezan kistar onak,  
Goazen Belen'era,  
Billoxik aurkitzen dan  
Jesus'en aurrera. [...] (K083a)

Hainbeste gabon kantetan aurkitzen den gonbidapena dugu hauxe, *verbomoteur*<sup>295</sup> kulturen joeraren oihartzuna dela ematen du. Era horretako kulturetan hizkuntzaren bidez gauzak ez dira soilik enuntziatzen. Hizkuntza gizakien arteko elkarreraginera bideratuta dago, eta hori dela eta, aginduak, apostrofeak ugariak dira, beti ere pertsuasioa helburu dutela. Horrela azaltzen du kontu hau Walter Ong-ek:

[...] la oralidad puede utilizarse para identificar lo que puede llamarse culturas “verbomotoras”, es decir, culturas en las cuales, por contraste con las de alta tecnología, las vías de acción y las actitudes hacia distintos asuntos dependen mucho más del uso efectivo de las palabras y por lo tanto de la interacción humana; y mucho menos del estímulo no verbal (Ong, 1987, 72).

Aztertzen hasi garen “Gogoangarrizko abestijak” bertso-sortarekin jarraituz, hona hemen ahokotasuna agerian uzten duen bertsoa:

Zetan etorri zara  
Zu, Jesus maitia?  
- Jaingua ta gixona  
Egiten bakia!  
- Zer gura dozu, bada,  
Oin guk egitia?  
- Zeuen bijotz osoaz  
Neu maitatutia! (K083b)

Egilea eta Jesus jaioberriaren arteko elkarrizketa bat dugu hemen; izan ere, Ong-ek dioen bezala, “idazkera hizkeraren nolabaiteko imitazioa izaten ohi da” (1987, 103). Ez da harritzekoa, Ong-ek berak dionez, hasierako idazkera sistemek irakurleari baliabide batzuk eskaintzea irudimenarekin testuingurua irudikatzeke. Gauzak horrela, eta zentzuzkoa izanik, Socrates eta Platonen

<sup>295</sup> Ong-ek azaltzen du termino honek Marcel Jousseren lan batean izan zuela bere jatorria. Berak, hala ere, termino horren adiera zabaltzen du horrela: “En este libro, ampliamos su acepción para incluir a todas las culturas que conservan huellas de su tradición oral en una medida que les permita seguir prestando a la palabra –antes que a los objetos– una atención considerable en un contexto de interacción personal (el contexto de tipo oral)”, 1987, 72.

material filosofikoa elkarrizketen bidez aurkeztu ziren, irakurleak irudimenarekin “entzun” zitzan.

### **Bigarren adibidea: Miren Deuna**

Ama Birjiñari zuzendutako laudorioek betetzen dituzte sorta honetako bertsoak, gorazarre ariketa bat eginez:

Ortze goyetan izarrik ezta,  
Ez baratzetan lorarik,  
Miren Jayone, Zeruko Ama,  
Zu zaran baxen ederrik.  
Sortu ta jayo, bixi ta il  
Ziñean orban bagarik.  
Algustidunak Bere amatzat  
Egiña zarialarik,  
Ezin leiteke beste bat ixan  
Ederrago ez obarik. (K108c)

Ikus daitekeenez, goraiatzeko unean ahalegin bereziak egiten ditu egileak, esaten duena enfatizatzeko. Pilaketek enfasi horretan laguntzen dute:

#### 1. puntuan

Egitura paralelistikoa lehenengo eta bigarren lerroan:

NON

EZ DAGO

Ortze goyetan  
ez baratzetan

izarrik ezta  
lorarik

#### 2. puntuan

Bokatiboa egiterakoan, atribuzioen pilaketa dago: “Miren Jasone” eta “Zeruko Ama”.

#### 3. puntuan

Aditzak bikoteka eta jarraian (pilatuta) egokiturik daude, ekintza pilaketa, edota adimenaren mugimendu azkarra eraginez: “Sortu ta jayo” eta “bixi ta il”

#### 4. puntuan

Jainkoaren Jaiotza berriro ekartzen da gogora: “Algustidunak Bere amatzat/ Egiña zarialarik”.

Sorta honen 5. bertsoa adierazgarria da baita ere. Sorta osoan zehar ehotzen ari den gorazarre horretan erlijio edukiak zein garrantzitsuak diren kontutan hartzekoa da; izan ere, gorazarreari ematen diote benetako mamia.

Zehazki esanda, Hirutasun Santuarekin erlazionatuta izatea, eta Birjina bekatu gabekoa izatea dira eduki erlijiosook:

**Aiten alaba, Semien Ama,  
Goteun-emazte doatsu,**  
Irukoitz Deunak eskar bereziz  
Egiñikua zara zu;  
Izar-burestun, euzki-soñekoz  
Illargijen gain dizditsu,  
**Neskuntz orbange zarialarik  
Zeure Semia da Josu,**  
Orixegandik guk biar dogun  
Gustia lortu eiguzu. (K108f)

### **Hirugarren adibidea: “Belen urian”**

Izenburuak berak iradokitzen duen legez, Jesusen jaiotza da bertso hauen gunea, hain zuzen ere arestian aipatu dugun “mugarri” bat. Eta mugarri hori, bestetan egin ohi duen bezala, kontrajarpenez josiko du, ahozko kulturatik asko duen entzulearengana errazago ailegatzeko:

Belen urian agertu yaku  
Josu Jaungoiko-Umia,  
Irudiz txiro, baña izatez  
Aberats amai bagia,  
Bakaldun guren Alguztidun  
Zeru ta lurren Jaubia.  
Berau gurtu ta otoi eiteko  
Eldu naz Belen urira:  
Gosez diranak asetuteko  
Berau da Gotzon-ogia,  
Egarriz diran guztientzako  
Berau Zorun-iturria. (K095d)

Hauek dira, beraz, kontrajarpenok:

- irudiz txiro / izatez aberats
- gosez / asetu
- egarriz / iturria

Lehenengoa puntu barruko “kontrajarpen gurutzatua” dei dezakegu; izan ere, adberbioari beste adberbio bat kontrajartzen zaio eta atributuari beste atributu bat<sup>296</sup>. Hurrengo biak puntu barruan suertatzen diren kontrajarpenak dira, baina “kontrajarpen gurutzatua” puntuen artekoa da, ez puntu barrukoa (honetaz ikus Kepari dagokion arlotik B.III.3. azpiatala). Izan ere, mezu eta

<sup>296</sup> Txirritak, ahozko estiloaren jabe izanik, mota honetako kontrajarpenetara jotzen du sarri askotan. Horrela azaltzen du Juan Garziak: “Oposaketazko elementu-bikote sinpletan (orain/ lehen, igo/ jaitsi, on/ gaizto ...) oinarrituriko kontrastatze hori dugu, hain zuzen ere, Txirritaren baliabide erretorikorik nagusietakoa. [...] Maiz asko, gainera, oposaketa bikoitza gertatzen da, aurreragoko adibidean bezala (orain-otz/ lehen-irakin)”, 1997, 51-52.

testu erlijiosoak beti izan dira ahozko estiloren zaleak, besteak beste, ahoz aho transmititu direlako hein handi baten.

Hurrengo bertsoan ere kontrajarpenez baliatzen da Ama Birjinaz ari delarik:

Gexo ta txiro diranentzako  
Osasuna ta Urria,  
Biotz garbidun ongillentzako  
Sarri gurenen Saria ... [...] (K095e)

Lehenengo puntua da batez ere “kontrajarpen gurutzatu” horren jabea elementu hauekin:

- “gexo”  $\approx$  osasuna
- txiro  $\approx$  “urria”

## 5. Ondorioak

- a) Kepa Enbeitak Sabino Aranaren abertzaletasun mezua ez zuen ezagutzen bertsoan hasi zenerako. Erabili dugun corpusean aurreneko produkzioetan ez da ikusten jeltzaletasunaren eraginik, ez lexikoan, ez gaietan (patriotismo ukituekin bada ere, nazionalismoaren ezaugarriak ez dira ageri).
- b) Abertzaletasunaren ezagutzak bere bertsogintzaren tematika eta hizkera eraldatuko ditu. Horrela, egile honengan bi garai desberdin antzematen dira:

- Garai “herrikoia”: 1903. urtera artekoa.
- Garai “abertzalea”: 1904. urtetik aurrerakoa.

Zoritarrez, lehenengo garaiko corpora oso murrizta da; izan ere, jasotako idatzizko zein bat-bateko bertso kopurua oso murrizta baita.

- c) Bigarren garaian mezu abertzalea zabaltzeari ekingo dio bere bertsogintzaren bidez. Hori dela eta, aurreneko garaian, garai “herrikoian”, presentzia handiagoa zuten gai herrikoiak, ironia eta satira baztertuagoak izango dira (nahiz eta erabat desagertu ez).
- d) Ideologia berri bat besarkatu zuen arren, abertzaletasuna alegia, bera baino lehenagoko beste egile batzuek jorratu dituzten gaiak eta sinboloak berenganatu eta birsortuko ditu:

- *Ama Euzkerea*;
- arbolaren sinbologia;
- “goi” eta “behe”-aren arteko kontrajarpen sinbolikoa.

- e) Ideologia sabindarra berenganatu arren, ez du erakusten jarrera arrazistarik, hitz hori inoiz erabili arren. Euskararen defentsa egin arren, ontzat ikusten du beste hizkuntzen ezagutza. Jarrera baztertzailerik bakarria zenbait ideiekiko erakusten du, ez pertsonetikiko edo jende taldeekiko. Gauzak horrela, bere bertsoen diskurtsoa gozoa suertatzen da batzutan, zentzuzkoa eta abegikorra, erradikalismo eta gogorkeria salbuespen modura agertzen direlarik.
- f) Kepa Enbeitaren ideologian beste zutabe garrantzitsu bat, garrantzitsuena hain zuzen, bere erlijioetasuna da. Bere pentsaeran, abertzaletasuna, euskal fededun baten ideologia posible bakarria da; izan ere, abertzalea izatea benetako euskal fededun baten ondorio logikoena omen da. Erdalkeariara makurtzea moralgabekerira makurtzea ere bazen (ohitura lizunak, menperatzaileak izateko irrika, arbasoekiko errespetu falta, e.a.). Erlijioa eta abertzaletasuna oso lotuta eta nahasirik joan arren, zenbait bertsoetan erlijioa izaten da gai bakarria. Beroietan kristau formazio zabal eta aberatsa erakutsi arren, ez dirudi bere estiloak halako ekarpen berezirik dakarrenik; izan ere, estilo tradizional eta topifikatu batetik ez da aldentzen tematika honi dagokionez.
- g) Bere baliabide estilistikoak, bere erretorika azken finean, mezuaren arrakastaren zerbitzuan jartzen ditu. Lirika jorratuz bihotzari eragin nahi dionean ere jarrera edo ekintzabide bat sortarazi nahi du, beti ere herria eta gizakiaren onerako izango delakoan. Entzulearen ona bilatzea eta herriaren ona bilatzea halako transzendentzia erlijiosotik igarotzen da.

**BIGARREN ATALA**

**BALENDIN ENBEITA**  
**(1906 – 1986)**





## **7. kapitulua**

### **Hoskidetza**



Balendin Enbeita (1906-1986)

## 0. Sarrera

Atal honetan Balendin Enbeitaren hoskidetza aztertzeari ekingo diogu eta gure helburuak Kepa Enbeitaren hoskidetza aztertzean genituen berberak dira.

Beraz, ez dagokigu besterik hastea baino. Urretxindorraren bertsogintzarekin egin genuen bezala, hemen ere berrehun bertsoko inkesta egin dugu eta saiatu gara hoskidetza (batez ere azken puntuko hoskidetza) ereduak sailkatzen. Saiakera honen emaitza hau da: 40 hoskidetza eredu aurkitu dugu Balendin Enbeitaren bertsoetan. Aukeratutako bertsoak idatziak eta bat-batean botatakoak dira. Agian interesgarria litzateke bi bertso motak desberdintzea, baina Kepa Enbeitarekin ezin izango genuke gauza bera egin eta, beraz, azterketa konparatibo baterako prozedura horrek ez luke balioko. Ez dugu baztertzen, hala ere, bestelako lanetan eginkizun horri ekiterik.

Balendin Enbeitari antzemandako hoskidetza eredu horiek, bestetik, maiztasun desberdinetan suertatzen dira. Hoskidetzaren azterketa maiztasun gehien dutenetatik hasiko da eta gutxiago dutenekin bukatu.

Bi sail egin ditugu. Lehenengo sailean 10 alditatik 20 alditara bitartean errepikatzen diren hoskidetza ereduak ditugu. Bigarren sailean 5 alditatik 9 alditara errepikatzen diren hoskidetza ereduak daude. Bost aldiz baino gutxiagotan agertzen diren hoskidetza ereduak ez dute azterketa sakonik merezi, deskripzio arinago bat baino; izan ere, Balendin Enbeitaren estiloaz jabetzeko ez digute lagunduko.

**10 - 20 aldiz**

1. -IA(K)	- 19
2. -U	- 18
3. -T(Z)EN	- 15
4. -IAN	- 15
5. -NA	- 11
6. -RA	- 11
7. -RI	- 11
8. -TAN	- 10
9. -TSA	- 10

**5 - 9 aldiz**

10. -TA	- 5
11. -OA/ -UA(K)	- 7
12. -T(Z)EKO	- 6
13. -RIK	- 7
14. -OAN	- 6
15. -AZ	- 5
16. -LA	- 6
17. -RRA(K)	- 5

**1 - 4 aldiz**

18. -ZU	- 3
19. -KIN	- 1
20. -RRI	- 2
21. -KA	- 1
22. -AK	- 1
23. -(A)TS	- 1
24. -GI	- 1
25. -TIK	- 1
26. -EN	- 2
27. -IÑA	- 1
28. -AI	- 1
29. -ZAN	- 2
30. -KE	- 1
31. -ON	- 2
32. -(T)SO	- 2
33. -BE	- 3
34. -MA	- 1
35. -ZI	- 2
36. -KI	- 1
37. -SA	- 2
38. -TSI	- 1
39. -ES	- 2
40. -NTZAT	- 1

**1. Ereduak****1.1. Maiztasunez erabiltzen diren ereduak**

Hoskidetza ereduak aztertzeari ekitean, maiztasunez erabiltzen direnak dira gure arreta erakartzen dutenak, noski. Horiei erreparatzea gure lehenengo eginkizuna da, batez ere Urretxindorraren ereduarekin konparatu ahal izateko, baina baita ere Balendinen joera estetikoak gertuagotik ezagutzeko. Eredu hauek 200 bertsoko inkesta bat egin eta gero antzeman ditugu eta 10 adibide baino gehiago dituzten ereduak maiztasun handikoen arloan kokatu ditugu. Ondorengo epigrafeetan ereduaren “izenburua” agertuko da eta ondoren inkesta horretan eman dituen adibideen kopurua ere agertuko da.

### 1.1.1. -IA(K) (19 )

Maiztasunari dagokionez lehenengo postuan **-ia(k)** bukaerarekin egindako hoskidetasuna dugu (20 bertsotan).

Santa Kurtze bezperaz  
 asten dira **jaiak**,  
 orduan eiten dira  
**barrabeskeriak**; (ep)  
 zaragi **aundiak**  
 gure **gaztediak**  
 jaietan edateko  
 daukaz **ekarriak**,  
 duban edan dagien  
 datozen **guztiak**. (B026b)

Argi eta garbi dago *-iak* fonemetan dagoela hoskidetasuna. Puntu luzea dela ere esan liteke, zeren eta hoskidetasunak erroaren *-i* fonema ere harrapatzen baitu: jai-ak, barrabaskeri-ak, aundi-ak, ekarri-ak, guzti-ak. Oso garbi ez badago ere, aurreagotik puntuetan agertzen diren /a/ eta /e/ (lehenengo puntuan izan ezik) bokalak hoskidetasunaren barruan sartuko lirateke:

***jaiak***  
***barrabaskeriak***  
***gaztediak***  
***ekarriak***  
***datozen***  
***guztiak***.

Puntu luzea ez da askotan erabilia Balendinen bertsoetan, baina hau adibide eredugarria dela esan liteke. Izan ere, puntu luzea izan arren (erroaren hotsak harrapatuz), hoskidetasunari dagokionez hiru fonema baino ezin dira sartu (ziurtasun osoaz). Hala ere, arestian aipatu bezala, hoskidetasuna beste zenbait bokaletan bilatu daiteke, nahiz eta puntu guztietan eta orden berean ez egon.

Eredu berekoa da ondoren datorren bertsoa:

Gau illunian itunik ziran  
 zugazti, baso, **zelaiaik**,  
 aurpegi alaiz irri-barreka  
 jarri dauz zure **argiak**;  
 eta pozezko abestietan  
 txiroliroka **txoriaik**,  
 “Ongi etorri, argi gozoa!”  
 diñoelarik **guztiak**. (B037b)

Bistan da bukaerako **-ia** hiatoarekin eraikitako hoskidetza oso erraza dela eta oin hoskide asko aurki daitezkeela. Baina ez da ahaztu behar ere azken puntuak baldintzatu egiten duela bertso osoa oin hoskideak bilatzeko orduan. Bigarren adibide honetan, lehenengoan bezala, *guztiak* da azken oina. Beraz, oin honek baditu gutxienez bi ezaugarri:

- hoskide asko izan ditzakeela.
- osotasun bat adierazten du, enfatizazio ukitu batekin. Izan ere, bertso baten azken puntuak horixe behar du, enfatizazioa, hiperbolea eta abar, arreta erakartzeko. Era berean, oin hori bertsolariak behar duen tresna da azken puntuari indar semantikoa emateko. Puntu horretan, beraz, deskantsatu behar du bertsoaren indarrak, edo nahiago bada eta beste modura esanda, bertan isuri egiten da mezuaren zati garrantzitsuena<sup>297</sup>.

Hoskidetza eredu hau aztertzen erabili dugun aurreneko bertsoari lotuta, beste adibide bat ekarriko dugu hona:

Sanpedroak ditugu  
 Mungiako **jaiak**  
 Gazteak egiteko  
 jolasean **naiak**.  
 Zaharrentzako be bardin  
**atseingarriak**  
 Ikustekoak dira  
 gure **erromeriak**. (Bb168 b)

Bere auzoko jaiei eskainiriko bertso sortan bezala, hemen ere *jaiak* da agertzen den oinetako bat: leku berean eta antzerako gai baten inguruan (Mungiako jaiak). Santoralari egindako erreferentzia ere bertso bien lehenengo puntuetan agertuko da: *Santa Kurtze* eta *Sanpedroak*. Hortaz, elementu paraleloak aurki ditzakegu bertso bion artean.

Horrezaz gainera, *jaiak* oinaren inguruan Balendinek eremu semantiko bat eratua daukala dirudi. Bistan da *jaiak* semari lotuta *gazteak* edo *gazteria* semak agertuko direla bertso bietan, hau da, jaiak aipatzean aipatu behar dira ekitaldi horretan protagonismorik gehien duen jende multzoa edo taldea.

<sup>297</sup> Honek lotura zuzena du “atzeko aurrera” deituriko teknikarekin, zeinen bidez bertsolariak lehenengo bertsoaren azken esaldia moldatuko duen (Lekuona, J.M., 1982, 125-126).

Aipatze horrek aukera ematen du semen kontrajarren bat emateko gazte eta zaharren artean: "Gazteak egiteko/ jolasean naiak/ Zaharrentzako be bardin/ atsegingarriak". Azkenik, bertso honetan ikus dezakegunez, *erromeria* oina ere eremu semantiko horren barruan sartzen da, *jaia* oinaren sinonimo eta hoskide bezala. *Atsegingarria* oina ere ez da *jaiak* oinaren eremu semantikotik kanpo geratzen; izan ere, *jaiak* oinaren adjektiboa baita, eta era berean, *jaia* izenak eduki dezakeen tasun bat izan liteke. Eremu semantiko honen barruan ere, arestiko bertsoaren *barrabeskeriak* oina sarturik dagoelakoan gaude; izan ere, *jaia* ospakizun mota bat denez, eta festa giro horretan, askatasun sententzia sumatzen da, eta sententzia hori hobeto antzematen da bihurrikeriak, hau da barrabeskeriak, egiten direnean: betiko arauen apurtze bat, gauza nimino edota garrantzi gutxikoetan bada ere.

Bertso biotan deskripzioak egiten dira: lehenengoan ekintza batzuen deskripzioa eta bigarrenean naturaren deskripzio inpresionista dugu. Bigarren bertsoan, gainera, gauzen pilaketa bat dugu, aipatutako enfasi horretan nolabait sakonduz: "Gau illunian itunik ziran / zugazti, baso, zelaiak".

Pilaketa enfasi mota bat da, non osotasun ideia bat transmititzen den, gauza desberdinen zerrenda baten bidez. Juan Garzia kritikoa iritzi horretakoa da eta horrela adierazten du bere *Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik* izeneko liburuan. Bere ustez, pilaketa arrunta enfasi modu bat da eta Txirritaren bertso batetik ateratzen du adibide bat:

Linea orrek badauka zenbait  
tunel, zubi ta erriyo, [...] <sup>298</sup>

Pilaketa mota hau oso ugaria da bai Balentinengan bai bere aita Keparengan. Keparengandik hasita, hona hemen adibide batzuk, askoz adibide gehiago aipa daitezkeen arren:

Andi ta txiki, zar eta gazte  
Berton zagozan danori [...]<sup>299</sup>

Abestu gura neuke oraintxe  
samur ta maiteki oso;  
Biotz-abes au entzun dagien  
Ibar, aran, mendi, baso  
Uri, baserri, txiro ta aberats  
nun-nai lior ta itxaso [...] (K145d)

[...] Uri, baserri, zelai ta mendi  
Or dabil euzko-gaztedi [...] (K040f)

Uri, mendi, baserri, aran, mendi, baso,  
lior eta itxaso [...] (K055l)

<sup>298</sup> Zavala, in *Txirrita*, 1992, 469.

<sup>299</sup> Kepak 1933an Sondikan egin zen mitin batean bat-batean kantatutakoa (K062a).

Ondoren, Balentin Enbeitaren bertsoetatik ateratako beste pilaketa batzuk:

Marti-zozotxu, piku gorrie,  
zure abestiak entzunik,  
baserri, uri, mendi ta zelai  
daukazuz pozez beterik [...] (B201c)

Euskalerriko mendi ta zelai,  
erreka eta ibaiak  
euskeriaren babez gozoan  
bizi zirian erriak [...] (B086a)

Uri, baserri, baso, zelaien  
zoragarrizko abotsa, [...] (B099c)

Aztertzen ari garen hoskidetza honetan *zelaia* da oin garrantzitsu bat eta Enbeitatarren ganbaran pilaketa baten elementu bat da. Elementu hori lekuz aldatu daiteke neurri eta, batez ere, hoskidetza beharren arabera. Oin horrek maila desberdinetako balioak gordetzen ditu bere baitan:

1. Hoskidetza emankor baten jabe da: **-ia(k)**.
2. Eratutako pilaketa baten elementua da.
3. Naturaren elementuen eremu semantikoan kokatzen da.
4. Aurrekoaren ondorioz, naturaltasunaren joera estilistikoan ere kokatzen da.

Baina jakina, bertso baten entzuleak ez daki **zelaia** hitza aurrez prestaturiko pilaketa baten elementua denik, eta pilaketa hori formula bihurturik dagoenik. Hori jakiteko bertsolari horren bertso gintza oso ondo ezagutu behar da (entzule batek ehunka aldiz entzun beharko luke bertsolaria eta irakurle batek begi zorrotzez irakurri beharko luke eta biek oroimen ona izan beharko lukete). Pilaketa mota hau lehenengo aldiz entzun duenarentzat arretaren pizgarria izango da:

- a) Enfasi bat egiten delako.
- b) Enfasi hori egiteko, aipamen inpresionista baten antzera, naturako elementuak, *flash* baten moduan aurkezten direlako, naturazale giro horretaz beti ere kutsaturik.
- c) Pilaketa hori ondo neurtuta dagoelako.
- d) Pilaketa horren elementu bat hoskidea delako bertsoaren beste oinekin.

Zer gehiago eska dakioko bat-bateko bertso bati?

Hau da bat-batean aritzen den bertsolariak bilatzen duena bere kantuzko jardunean. Bere prestakuntza, bere entrenamendua, horri begira dago. Bere bertso gintzaren joera eta lan egiteko modu hauek bertso idatzietan ere islatu egingo ditu, aztertutako bertso honetan ikus daitekeenez.

Ondoren erakutsiko dugun bertsoan bokalismoaren fenomeno bat ikus dezakegu: azken bokal zabalaren (artikuluaren) itxidura aurreko bokal itxiaren eraginez, alegia, **-i-** bokalaren eraginez. Aipatzekoa da, zeren eta Muxika aldean eta Gernika aldean ez baita fenomeno hori gertatzen. Balendinen inguruko hizkera mintzatuan **-dxe**<sup>300</sup> bilakatzen da eta horrekin batera itxidura<sup>301</sup>:

-I + A > -IDXE  
 egia > egidxe  
 herria > herridxe  
 guztia > gustidxe

Beraz, bertso honetan erabiltzen dituen oinetan gehiago islatzen da Arratia aldeko bokalismoa bere herrikoa baino. Badirudi Balendinek batzutan Bizkaiko fonetika sartzen ahalegintzen dela, baina bere inguruko bokalismoa saihestu egiten du idazterakoan. Balendin Enbeitaren aitak, Kepa Enbeitak, idazterakoan *-i-* bokala eta ondorengo bokalaren artean *-j-* idazten ohi zuen, bere inguruko hizkeraren palatalizazio hori hobeto adierazten zuena, baina oin edota hitz bukaerako itxidura adierazi barik. Lan honen lehenengo atalean, 1. kapituluhan hain zuzen, honen zergatia azaltzen genuen: Sabino Aranaren ortografiari jarraitzen zion. Honen adibide asko aipa daitezke. Hona hemen horietako bi:

Zugatz deun baten azpian oi zan  
 Asaben Batzar-**tokija**,  
 Erri bakotxak eukirik antxe  
 Beren aldunen **aulkija**;  
 An eiten ziran lagi gustiak,  
 An artu **erabagija**  
 Ondoan zelan zainduko eben  
 Euren euzkeldun **Errija**. (K029a)

Edo:

Ezpata zorrotz ori arturik,  
 Deun Mikel **agurgarrija**,  
 Etor zakiguz kentzeko emen  
 Deukogun **erdelkerija**;  
 Berai yagokon tokijan jarri  
 Daigun euzkera **garbija**.  
 Bestela, zelan esango dogu  
 Au dala **Euzkelerrija?** (K043d)

Azken bokalaren itxidura Balendinen oso bertso murrizetan ikus daiteke. Hona hemen adibide gutxietako bat:

Berrogei eta amabi urteko

<sup>300</sup> Echaide, Ana M<sup>a</sup>, 1984, 41: "una prepalatal africada o fricativa rehilada sonora".

<sup>301</sup> Ibidem, 64.



udabarriko **txorie**,  
 Oka-Andorra beko errotan  
 jaioa eta **azie**.  
 Esan legike ez dala txarra  
 Barroeta'ren **begie**,  
 norantza egaz egin badaki  
 topetan urre **gorrie**. (B066b)

Antzerako fenomenoa gertatzen da ondoko bertso honekin. Hiatoa egon ez arren, azken bokal irekia ere (-a, kasu honetan) itxi egiten da aurreko bokal itxien eraginez (-i- eta -u-):

Danak egiten dautse  
 ardauari **tire**,  
 eta bizkortzen ditu  
 gizon ta **agure**;  
 gero asten **dire**  
 jira eta **bire**  
 gorputza astun baña  
 bizkor jarri **gure**;  
 ardaua ez dok, mutillak,  
 iturriko **ure**! (B027a)

Baina aitortu behar da bokalismo berezia erakusten duten bertsoak salbuespenak direla Balentinen bertsogintzan. Horren lekuko dira hoskidetza eredu honen barruan sailkatu ditugun beste bertso guztiak, zeinetan bokalismoa fenomeno batzuk gerta daitezkeen arren ez da horren aztarnarik antzematen (ia-ia bertso guztietan). Horrela ikus dezakegu hurrengo bertsoan:

Alperkeria dogu munduan  
 gose guztien **sustraia**,  
 lan egitetik iatorku barriz  
 zoriona ta **ogia**.  
 Alde batera itxi dagigun  
 betiko **alperkeria**,  
 gura badogu alkar arteko  
 zoriona ta **bakia**. (B053c)

Bokalismoari dagokionez, azken oina bakarrik aipatuko nuke: *bakia*. Itxidura bat ikusten da **-ea** hiatotik **-ia** hiatora pasatu delarik. Hala ere, Enbeitatarren lurralde/ jaioterriko hizkeran **-ie** hiato legez bilakatuko litzateke<sup>302</sup>. Baina fonetika lokalista zarratuari muzin egiten dio eta fonetika zabalago bati ateak zabaldu eta, beraz, **-ia** hiatoarekin geratzen da oraingo honetan. Hala ere, *bakia* dugu oinetako bat bertso honetan, jatorrizko hiatoa **-ea** izanik: *bakea*. Beste oinekin egin ez bezala, honetan aldatu egin du hiatoa, -e- bokala gradu batean itxiz; izan ere, hoskidetzak horretara behartzen du. Hori dela eta, Xalbador bertsolariaren ustetan azken puntu honetan hartutako soluzioa arbuia garria da. Horrela dio Xalbadorrek:

<sup>302</sup> Ibidem, 61.

Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzege izaiteagatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konparazione:

Deitogarri zaut hiltzia  
maitatzen baitut bizia

Bizia'rekin ongi joanarazi nahiz, erran du horrek hiltzia, hiltzea delarik hitz xuzena. Poto egitea baino lotsagarriago zaut eni hori. Poto egiten duenak, ez du nehor enganatzen; hura agerian gelditzen da. Aldiz, hiltzia erran duenak, enganatu nahi izan du.

Holako zerbait ezin bertzean egin izan ez duen pertsularirik ez ditaike; bainan zer egiten duten ongi dakitela ez noiz nahi egiten dutenak badira.

Pertsu idatzietan ere agertzen da maiz huts hori. Han oraino itsusiakogo egiten du.

Badakit ber horier etzaiotela bekatu; baina nik ez dut hori onartzen. Denek behar dugu gure hizkuntza ongi ahozkatu, eta pertsulari batek bietan (Aire, 1976, 79-60).

Beraz, *bakia* bezalako oin behartua ez da egokiena Xalbadorren ustetan. Agian Xalbadorrek berak ere ulertuko zuen eta barkatu hitz horren erabilera; izan ere, batzutan "ezin bertzean" egiten baitira honelako hoskidetzak, beste aukera askorik ez dagoelako, edo gaia dela eta bertsolaria horretara beharturik dagoelako. Bistan da fonetikaren eta hoskidetzaren balorazio bat dela hau. Hoskidetzaren balioa poesiarako epaitzen da hitzaren etimologia kontutan hartuta, bere morfema jatorrei erreparatuz. Maila fonetikoaren kontu bat bakarrik ez da hoskidetza, gutxienez morfologiarekin zerikusia badauka, Xalbador bertsolari ospetsuaren ustetan behintzat.

Hoskidetzari buruzko zenbait epaiketa, beraz, morfologiaren ikuspuntutik egiten dira. Esate baterako, Xabier Amuriza bertsolari eta kritikoak, bertsoetan erabilitako oinen inguruan diharduenean, esaten du errima kategorialak pobreak direla, hau da, kategoria bereko oinek, hoskideak izan arren, hoskidetza pobrea osatzen dutela. Eta noiz dugu kategoria bereko oinik? Atzizki berberarekin egindako hitzak baditugu, adibidez:

Oro har, sail edo aukera ezberdinen aberastasun hori guztiena da. Beraz, errima pobrea litzateke ebatuta edo egitura bereko errima erabiltzea, aukera egonik. Hona pobretasunaren zenbait ezaugarri:

-Atzizki berarekin errimatzea: maitagarri, izugarri ... maitasuna, askatasuna ... aitari, denari, daudenari ... dituztela, gaituztela ... galtzen, afaltzen ... galtzeko, saltzeko ... jatera, edatera ... onerako, bakerako eta abar. Eta hala beste atzizki batzu: DU-TU, TZERA, TZETIK, TZEAN eta abar.

- Aditz beraren jokoak: nator, hator, dator ... nabil, dabil ... gabiltza, zabilta ... nago, dago ... gaude, zaude, daude ... dauka, nauka ...

[...] Hau guztia kontuan edukirik eta errima barruan aukera ezberdinak badaudela emanik, zenbat eta gehiago konbinatu, aberatsago izango da. Edo behintzat bariatuagoa. Horrela esaldiari eta bertso osoari ere zaulitasun eta freskotasan gehiago emango zaio (Amuriza, 1997, 277-278).

Honen azpian poesiaren ikuspegi bat dago. Arestiko aipamenak funtzio metalinguistikoko eremukoak dira eta bertsolaritzan arauak ezartzen ahalegintzen dira. Jakina, Jakobsonen esaten duenez, poesiaren barruan

funtzio poetikoa ez da dagoen bakarra: funtzio erreferentziala eta emotiboa ere badaude eta batzutan metalinguistikoa (edo metabertsolaristikoa) eta beste batzuk ere bai. Eta hoskidetzari berriro ere helduz, badirudi Xabadorrek eta X. Amurizak segitzen diotela R. Jakobsonen teoriari (R. Jakobsonen irizpide hau ezagutu ez arren agian):

Aunque por definición la rima se basa en una repetición regular de fonemas o grupos de fonemas equivalentes, constituiría una simplificación errónea el tratar a la rima sólo desde el punto de vista del sonido, puesto que incluye, por necesidad, la relación semántica que hay entre las unidades de rima. En el examen de una rima tenemos que hacer frente a la cuestión de si se trata o no de un homeoteuton el que confronta sufijos derivativos similares y/o de flexión, o de si las palabras que riman pertenecen a categorías gramaticales idénticas o diferentes. [...] Si un poeta tiende a evitar rimas gramaticales, para él –según Hopkins- “existen dos elementos de la belleza de la rima para la mente: la igualdad o semejanza de sonido y la desigualdad o diferencia de sentido”. Cualquiera que sea la relación que hay entre sonido y sentido en las distintas técnicas rítmicas, ambas esferas están necesariamente involucradas (Jakobson, R., 1988, 56-57).

Usparitxako baserri baten  
daukat nire **jatorria**  
Ezkontza bidez gero Zabale  
Hormetxera **etorria**  
Hemen daukadaz emazte, sendi,  
aurrerako **oinharria**  
belaunik belaun bizirik daigun  
zutik gure **baserria** (Bb184d)

### 1.1.2. –U (18)

Ludi ontako izaki danak  
zuk alikatzen **dituzu,**  
laño illunez estalduriko  
ortze oztiña **argitu;**  
lurbira danai bizitza emon,  
itxas-orruak **baretu,**  
gogo itunak poztuta jarri  
eta gaxoak **osatu.** (B037c)

Hau da hoskidetza eredu honekin aurkitu dugun lehenengo bertsoa Balendinen *Nere apurra* liburuan. *Arantzazuko Amaren Egutegia* izenekoan agertu zen 1951ean. Isilune aldiko bertsoa dugu beraz, bertsolaritza pixka bat utzia zuen garaikoa. Urte horretan bat-bateko saioetan parte hartzeko aukerarik ez zuen, eta *Garriko* bertso-eskola oraindik ez zegoen sortua<sup>303</sup>:

<sup>303</sup> “1955an hasi nintzan barrero bertso kantari. Nire koinetu Pedro Ajuria eta Urrufino Sardui lagun nituala Bergarara joan nintzan”, Enbeita, B., 1986, 64.

zenbait kritikok esaten dute garai hartan hoskidetzari ez ziola horrenbesteko garrantzirik ematen<sup>304</sup>.



*Garriko bertso-eskola*

Kritiko haien esana mota honetako bertsoekin frogatu daiteke. Bokal bakarreko hoskidetzak oso nekez aurki daitezke hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Ageria da hoskidetza pobrea dela<sup>305</sup>. Azken kontsonanteen artean ez dago hoskidetasunik, ikus daitekeenez: *dituzu*, *argitu*, *baretu*, *osatu*. Ikusten da hiru oinetan hoskidetasuna atzizki berberarekin lortu dela: **-tu**, aditzak sortzeko atzizkia hain zuzen. Hoskidetza honi kategoriala dei geniezaioke. Baina bada zerbait gehiago: hiru horiek lehenengo puntuarekin komunean bukaerako **-u** baino ez dute, hau da, bokal bateko hoskidetza. Lehenengo puntuan aditza jokatuta dagoen bitartean -*alikatzen dituzu*-, hurrengoak alborakuntza egoeran egonik ez daude jokatuta eta, beraz, aditz laguntzailea eta aspektuaren markak eliditu egiten dira. Esan bezala, partzipioan dauden oinek silaba bateko hoskidetza dute, baina lehenengo puntuak besteekiko hizki bakarreko hoskidetza dauka, azkeneko **-u** bokala hain zuzen. Honek aztarna bat ematen digu sumatzeko garai hartako Balendinek zer nolako hoskidetza-kontzientzia zeukan. Badirudi ez zuela txartzat jotzen gaur egunean zenbait bertsolaritzaren teorikoek txartzat jotzen dutena. Edo mota horretako hoskidetza pobreak guztiz zilegizkoak omen ziren, baldin eta bertsoaren mezua mamitsua eta ulergarria baldin bazen.

Ez da horrela gertatzen –beti ere momentuz eredu honen barruan ari garelarik– hirurogeita hamarreko hamarkadan argitaratutako bertsoen artean:

Bakea nai badogu  
ez iñor **zapaldu**,

<sup>304</sup> “Hasieran ez dio bertsoaren formari garrantzi gehiegi ematen. Hobeto esanda, neurriari bai, baina rimari ez dio kasu haundirik egiten. Rima estuegia ez da ona, baina behar hainbatekoa ez erabiltzea ere eskas gelditzen da. Nolanahi ere, egia osorik esateko, badirudi Balentin konturatu dela akats honetaz eta gaur rima ederra erabiltzen du”, Muniategi, 1980, 20.

<sup>305</sup> Xabier Amurizak (1997, 267-268) gai hau jorratu izan du batzuetan. Horrela azaltzen du afera: “Materialki hoskidetasun ona ematen duten hitzak errima txarra izan daitezke eta alderantziz, hoskidetasun hain ona ez emanik, oso errima ona egin. [...] Atzizki berarekin errima osatzea teiltatu merkea eta arrunta da”.

menpean daguanari  
 jasoten **lagundu**;  
 baña gizona ez da  
 malla ortara **eldu**,  
 naiago dau munduan  
 indarrez **agindu**. (B254b)

Edo bere emazteari eskainitako baten, ezkontzaren 48. urteurrena zela eta, 1978. urtean hain zuzen, honela zioen:

Alkartu ginan une berean  
 maitasuna zan **indartu**  
 Eta gaur arte eroatea  
 garbi egin dogu **lortu**  
 Batak besteai behar dautsagu  
 egin doguna **eskartu**  
 Zeure eguneko besusa ordez  
 senarran bihotza **hartu** (Bb179a)

Azken bertso biok materialki hoskidetza ona dute. Lehenengoak **-ldu** eta **-ndu** bukaerak ditu. Bigarrenak **-rtu** bukaera hartzen du. Honen bigarren oina kenduta, **-artu** bukaera da hoskidea. Oinen kategoriari men eginik, ostera, ez da hain hoskidetza ona, guztiak aditzak direlako, eta **-tu** atzizkia behar duten aditzak gainera. Gaur egungo gustu estilistikoekin ez dator bat joera hau, jakina.

Orain ekar dezagun gogora azpiatal honetan aipatu dugun lehenengo bertsoa (B037c). Semantikari erreparatzen badiogu, eguzkiari eskainitako bertsoa dela esan daiteke. Bertso honetan, beraz, eguzkiaren ekintzak zeintzuk diren azaldu egiten da edo, beste modura esanda, egilea eguzkiari zuzentzen zaio, 2. pertsona erabiliz hain zuzen, hark zer egiten duen azalduz eta gorai patuz. Egileak ez du bilatzen bertsoaren edertasuna soinuan edota erritmoan. Edertasuna ekintza horien deskribapenean dago, non zenbait errekurtsio jorratzeko bere ahalmena enplegatzen duen<sup>306</sup>. Eguzkia pertsonifikaturik agertzen dela esan dugu arestian. Agian esan beharko genuke jainkoturik agertzen dela; izan ere, bere ekintzak nolabaiteko ahalguztiduntasuna adierazten dute: “itxas-orruak baretu” edota “gaxoak osatu” besteak beste. Jakina, hau irudi erretoriko bat baino ez da, eguzkiari horrenbesteko garrantzia eman nahi dio non pertsonifikatu edo jainkotu egiten duen<sup>307</sup>.

Bertsoari edertasuna eta batez ere indarra ematea da helburuetariko bat, grafikotasuna areagotuz eta, beraz, entzulearen (edo irakurlearen)

<sup>306</sup> B037c bertsoan zenbait ekintza azaltzen dira, ahozkotasanaren estilizazioaz horniturik. Esaterako, azken hiru puntuetan izaten diren kontrajarpenak: “laño illunez estaldu-“ eta “argitu” lehenengoan; “itxas-orruak” sintagma eta “baretu” aditza bigarrenean; laugarrenean, ostera, batetik “gogo itunak” eta “poztuta jarri” eta bestetik, “gaxoak” izen sintagma eta “osatu” aditza.

<sup>307</sup> Honek berriro ere agerian uzten du Balendin Enbeitaren adierazpidea agonistiko kutsukoa dela (bera bezalako bertsolari askoren adierazpideak agonistikoak ere badira). Kasu honetan eguzkiari zuzendutako laudorioetan ikusten da: “el elogio acompaña al mundo oral, agonístico e intensamente polarizado, del bien y del mal, la virtud y el vicio, los villanos y los héroes”, Ong, W., 1987, 51.

sentsibilitatea piztuz eta arreta erakarriz. Badakigu Balendinek zentzu hornitzailean esaten zituela honelako gauzak, eta ez zuela eguzkia gurtzen (bere sinismen kristauarekin bat ez bailetorke). Bazeukan, hala ere, Ama naturarekiko txera berezi bat, non frantziskotar kristau espiritualitatearen eragina suma daitekeen eta honek laguntzen dio bertsoari izaera agonistikoa eransten. Honek, gainera, bertsoaren memorizazioa errazten du.

Ondoren, “Juana Bixenta Olabe” izeneko neurrian idatziriko bertso bi ekarriko ditugu hona:

Etxeko jaunak esaten eban:

<<Neuk elduko deusat buztenetikan,  
eta zu bizkor egon gantxoaz,  
eta bestiak gero eskuekaz!>>

Baña nok **eldu**?

Ez gantxo, ez buztan eta ez **esku**,  
ezin genduan geure **eskuratu**. (B047b)

Entzuten gendun uste ebela  
amar bat arroba egingo zala.

Gero bost eta iru kiloan  
gelditu zuen justo-justoan,

etxeko **pentzu**

geienak zituala **amaitu**.

Zenbat eingo zan jan ez **balitu**? (B047d)

“Joana Bixenta Olabe”-ren doinuan kantatzekoak diren bertso hauetan gutxienez kointzidentzia bat antzematen da: hoskidetza eredu berberari dagozkio hain zuzen ere posizio berberean dauden oinak. Hau da, azken hiru oinak hoskidetza eredu berberekoak dira bertso bietan. Baina kointzidentzia hutsa ote den zalantzan jartzerik badago gure ustez.

Hoskidetza erraza, sarritan erabilia dela bistan da. Hain zuzen, bertsoak azken zatian deskantsatzen du, han isurtzen du bertsoaren indarra. Indarra, kasu honetan, kontrajarpenarekin batera dator. Bertso biotan zenbait paralelismo edo joera antzerakoak ikus daitezke. Testuingurua zera da: txarriboda baten gorabeherak kontatzea. Erakutsi ditugun bi bertsoetan egoera bertsoaren lehenengo zatian erakusten da. Lehenengo bertsoan, esate baterako, etxeko jaunak aginduen bidez txarriboda nola antolatzen duen erakusten da: <<Neuk elduko deusat buztenetikan/ eta zu bizkor egon gantxoaz,/ eta bestiak gero euskuekaz>>.

Hoskidetza aldaketa *baña* partikula adbersatiboaz hasten da, “Baña nok eldu?”. Narratzailearen galdera erretorikoa da, kanpotik jazoera ikusten duen narratzailearena, errealismo eta objetibitatearen zama daramana. Galderak inplizituki ukapen bat dakar, hau da, etxeko jaunaren aginduak gorabehera, inork ezin zion txerriari heldu, eta antolakuntza horrek guztiak porrot egiten du. Ekintza hori burutzeko erabiliko ziren euskarriak ere ez dira baliagarriak (eraginkorrak): “Ez gantxo, ez buztan eta ez esku/ ezin genduan geure eskuratu”. Gertaera hau ezin da esan tragikoa denik, umore aldera (kutsu jokoso edo burlesko aldera) gehiago makurtzen da tragediara baino. Gizakiaren jakituria, talde lana eta gizarte antolakuntza pikutara doaz txerri indartsu baten

aurrean –azken finean pizti huts baten aurrean– . Hori nolabait nork bere buruaz barre egitea bezalakoa da, giza izaeraz barre egitea da zelanbait.

Deskribatu dudan efektu hau hoskidetza errez honek lagunduta eta erraztuta dago. Oin asko berenganatzen dituen hoskidetza honek malgutasuna ematen dio bertsolariari bere kontrastea nahi duen eran eta zehaztasunez edota egokitasunez adierazteko. Hoskidetza honen barruan, arestian aipatu bezala, *-tu/ -du* amaiera duten partizipioak sartzen dira, hoskidetza kategoriala sortuz. Aipatutako azken bi kasu hauetan, partizipioan dauden oinak agertzen dira, baina partizipioan ez daudenak ere bai; izan ere, aukera zabala ematen du *-u* bukaerak (hoskidetzarako esan nahi baita).

Bigarren bertsoaren lehenengo zatian ere egoeraren beste deskripzio bat egiten da: “Entzuten gendun uste ebela/ amar bat arroba egingo zala./ Gero bost eta iru kiloan/ gelditu zuen justo-justoan”. Txerriak zenbat pisatuko zuelako kabilazioak agertzen dira hasieran, eta benetako pisua zein den ondoren erakusten da patuak (edo txerriak) egindako iruzurra bailitzan. Hasierako kalkulu baikorrak ondorengo neurketa eskasekin kontrastean daude. Eta pozik gutxiago pisatu ez duenean: “bost eta iru kiloan/ (..) justo-justoan”. Arroba bakoitza 11 kilo eta erdi izaten da gutxi gora behera. Bertso honetako bost arroba horiek ez dira hurbiltzen 6 arrobetara (5 arroba + 11,5 kilo). 5 arroba eta 3 kilo besterik ez (= justo justoan): 5 arrobaren marka *justu justu* pasatzen duela ematen du aditzera (eta pozik!). Ondoren, eta hemen dator bertsoaren kolpea, non narratzailearen mina erakusten den eta txerri “madarikatu” horrek egindako iruzurra ageriago jartzen den: “etxe**ko pentzu/** geienak zituala **amaitu.**/ Zenbat eingo zan jan ez **balitu?**” (B047d). Hain pisu gutxi izanda etxe**ko pentsu** guztiak edo gehienak jan egin ditu hala ere. Galdera erretoriko batek ixten du ahapaldia: “zenbat eingo zan jan ez balitu?”, esan nahi baita, zer pisu kaskarra izango zuen pentsu horiek jan ez balitu? Narratzaileak eman nahi du aditzera are eta pisu kaskarragoa izango zuela. Ikusten da hemen ere hoskidetza emankor bat erabiltzen duela egileak, hain zuzen ere (goian aztertutako ahapaldian bezala) eman nahi duen azken kolpe hori zehaztasun gehiagoz eman ahal izateko. Egia da hoskidetza mota honen barruan badagoela aukera zabala hoskidetza kategorialak egiteko (eta horrela konprobatzen dugu beste ahapaldi askorekin). Baina hoskidetza kategoriala ez ezik beste kategoria askorekin hoskidetasunak sortzeko aukera zabala ematen du. Aztertu berri dugun ahapaldi honetan, esate baterako, kategoria diferenteei dagozkien oinak ditugu: lehenengo oina izena dugu, bigarrena, partizipioa eta hirugarrena, aditz laguntzailea.

Doinu eta neurri berekoa da ondoren erakusten dugun ahapaldia, baina askoz beranduagokoa:

Garai haretan ez gendun **uste**  
 Izango gendunik gaur hainbat **naste**  
 Hitzak ederrak, egintzak **labur**  
 Eta bakeak egin dau **agur**  
 Kurutzaz **ahaztu**  
 Behar ez diran gauzakaz **nastu**  
 Lehengo bakerik Herriak **ez du** . (Bb182e)

Ikusten denez, bai ahapaldi osoan, bai orain aztertzer goazen hoskidetza ereduari (azken hiru puntuak), hoskidetasuna aberatsagoa darabil lehengoetan baino. Bi silabako hoskidetza dugu beraz, eta hau lehengoarekin bat dator, alegia, zenbat eta beranduagoko bertsoa izan, hainbat eta hoskidetza aberatsagoa, edo behintzat luzetasun handiagokoa: **-aStu**<sup>308</sup>. Aurreko bien doinu eta neurri berekoa da ahapaldi hau, lehenago esan bezala. Eta hoskidetza mota honek, nahiz eta kasu honetan aberastuta egon, leku berbera hartzen du hemen ere: azken hiru puntuak. Berritro frogatzen da hoskidetza honen malgutasuna bertso-lerro laburretarako: “kurutzaz ahaztu” (“etxeko pentzu” edo “baña nok eldu?”) bost silabakoa; izan ere, partizipioaren erabilerak aditz laguntzailearen elipsia errazten du, eta bestelako elipsiak ere bai. Ahozko jardunean ere horrela gertatzen da. Bertso-lerro luzeagoetarako ere aukera zabala eskaintzen du partizipioak: “behar ez diran gauzakaz nastu / Lehengo bakerik Herriak ez du” (hamarna silabakoa).

### 1.1.2.1. -SU: -U ereduaren aldaera aldaera

Ondoren, gure egilearen bertsogintzan agertzen den **-u** hoskidetza ereduaren azpiataltxo bat aztertzei ekingo diogu. Ezaguna da bat-bateko bertsogintzan aditz laguntzaileetan oinarritutako hoskidetza maiz erabiltzen dela. Horren barruan bigarren pertsonako aditz laguntzaileek aukera emankorra eskaintzen dute: alde batetik, bertsokideari erreferentzia egin beharrak horretan lagundu egiten duelako edo horretarako aukera ematen duelako, eta, bestetik, aztertzen ari garen **-u** hoskidetza eredu emankorreak kokatzen delako.

Hona hemen hoskidetza eredu honen adibide pare bat:

Gogor samartxo artzen bazaude  
aupada egin **daikezu**,  
pozez beterik lagunduteko  
gerturik emen **naukozu**;  
Muxika nere baserritxura  
baldin etorri nai **bozu**,  
zar eta gazte kezkarik bage  
biziko gara **ni ta zu**. (B085b)

Erro.: Zure lanaren irabazia  
egunero artzen **dozu**,  
lasto sikua, zatozanean,  
kortan naikua **daukazu**;  
beste gauzarik ez dozu bear,  
arrantza gitxi **eidazu**,  
eta lanera, zure bizkarra  
berotzia nai ez **bozu!** (B103a)

<sup>308</sup> **-aStu** idatzi dugunean, “S” maiuskulaz idatzi dugu eta honekin hauxe esan nahi dugu: S hizkiak euskal sibilante afrikatuak adierazten dituela. Hemendik aurrera irizpide hau erabiliko dugu.



Alde batetik adierazi beharko litzateke, **-u** hoskidetzaren barruan sar daitekeen eredu bat izanik, izaera berezia duela zeren eta guztiek dute **-u** horren aurretik sibilante bat (kasu honetan **-z-** oin guztietan). Mota honetako bertsoetan Balendin Enbeitak ez du erabiliko **-su** bukaera ez duen oinen bat. Horrek garbi adierazten du hoskidetza bereizgarritzat har daitekeela, nahiz eta salbuespen modura inoiz nahastu egin dituen<sup>309</sup>.

### **Zu-arekiko erreferentzian**

Aditz laguntzaile eta adizkiak bigarren pertsona jokatuak dira nagusi hoskidetza azpi-eredu honetan. Hoskidetzarako silaba **-zu** dugu eta jakina da, adizki zein aditz laguntzaileen kasuan, bigarren pertsonaren marka unibertsala dela hauxe (**-zu**). Azken puntuan **zu** izenordea erabili du bereizirik. Hemen ere ez dio Balendinek puntuaren edo errimaren luzetasunari larregi begiratzeko. Agian bere otoz-otoko jardunean errima errazak erabiltzen dituen bezala, hemen ere **-zu** partikuladun adizki zein aditz laguntzaileak erabiltzen ditu. Badirudi eduki semantikoari gehiago erreparatzen diola oraingo honetan ere.

Bertsolaritzaren arlo bizi eta ezinbesteko bat dialektika da, batez ere bertsolaria eta beste bertsolari zein entzulearen arteko dialektika<sup>310</sup>. Bertsolaritzaren ekoizpenak hizkera arruntaren erara eratuak izaten dira, izan ere, askotan (gutxienez) bi bertsolariren arteko jarduna izaten da proposatzen dena, eta beroietan funtzio apelatiboa bizi-bizia izaten da. Bertsolariak teman txandaka aritzen direnean **zu**-arekiko erreferentzian ibiltzen dira, izan ere bertso baten ostean, bertso-kidearen ordaina etorriko baita. Are gehiago, ondokoak esan berri duena norberaren bertso-oinarritzat hartzen da sarri. Hizkuntza ororen joera da hau, eta bertsolaritza bezalako jeneroetan ageriagotzen da<sup>311</sup>.

<sup>309</sup> Arestian agertu diren zenbait bertso horren adibideak dira: “Ludi ontako izaki danak/ zuk alikatzen **dituzu**,/ laño illunez estalduriko/ ortze oztiña argitu;/ lurbira danai bizitza emon,/ itxas-orruak baretu,” [...] (B037c).

<sup>310</sup> Bertsolaritzaren historiari dagokionez, jaso diren lehenengo aztarnak edo dokumentuak 1800. urtetik aurrerakoak dira gehien bat. Juan Mari Lekuonak (1982, 111) zehazten digu, adibidez, 1800-1839 tartean bat-bateko bertsogintza nagusitu zela eta bertsolarien arteko desafioak izaten zirela erakargarrienak. Dialektikarako joera aspalditik dator, beraz. Joseba Zulaikak (1985, 7-9) ere bertsolaritza jolasa eta jokoa dela gogorazten digu. Jokorako lehia behar da, eta bertsolaritzaren kasuan lehia hori bertsolarien arteko dialektikan bistaritzen da. *Bertsoen mundua* izena duen CD-romean (Elhuyar, 1997) Xabier Amurizak zehazten dizkigu entzulego aurrean bertsolariek dituzten modalitateak. Horietako bat “binaka ofizioka” deritzona da: “Txapelketako saio batean, adibidez, bertsolari bakoitzak hiruzpalau aldiz kantatu beharko du binaka, bakoitzari ofizio bat emanda”. Egoera horretan, bistan da dialektikak garrantzi handia hartuko duela. Bestalde, ezin da ahaztu ahozko produkzioetan ezinbestekoa dela entzulearekiko enpatia (Ong, W., 1987, 51-52) edota erreferentzia. Entzulea publikoa izan daiteke, baina baita ere bertso-kidea. Horregatik, publikoari zein bertso-kideari zuzentzen zaionean, bigarren pertsonaren erabilera usua izango da.

<sup>311</sup> Eugenio Cascón Martín-ek (1995, 61) espainiera kolokiala aztertzen du eta kapitulu oso bat eskaintzen dio funtzio apelatiboari. Bertsolaritzan bezala, hizkera elkarrizketatua bada bigarren pertsonaren erreferentzia ezinbestekoa da: “Dicha existencia (hartzailearena) es en el coloquio oral una presencia física que el hablante no puede obviar en ningún momento, dado que es a él a quien se dirige y quien a continuación tomará la palabra para efectuar la réplica. Por ello, estos actos de habla alternados

### **Bozu**

Nabarmendu beharko litzateke agian arestiko bertso hauetan ageri den oin bat: *bozu*. Jorratzen ari garen hoskidetza mota honen barruan oin giltzarri bilakatzen da zenbait bertsoan beti ere azken puntuaren inguruan. Aipatu dugun oin hau aztertzeko tenorean, azken puntua, diskurtsoaren unitatetzat baino, nahiago dugu mezu semantikotzat hartzea. Izan ere, sarri askotan Balendin Enbeitak baldintza erabiltzen du azken puntuaren esanahiaren euskarri moduan eta baldintza horrek azken puntua ez ezik, azkenurrekoa ere har dezake.

Balentinek erabiltzen duen errekursoetako bat da azken puntuari ondorio baten indarra ematea, eta horretarako *bozu* bezalako hitza da gakoa eta horretan oinarritzen da. Aipatu dugun azken bertso honetan, hitz hori hoskidetzaren partaide da (hoskidetza kategorial honen barruan dago, **-zu** bukaera bigarren pertsona adierazten duen atzizkia baita). Beste batzuetan hoskide ez den arren, ez du galtzen bere giltzarritasuna. Hala ere, aitortu behar da indarrak gehiena bere hoskidetasunarekin datorkiola, honako bi arloak garrantzitsuak izanik:

- hoskidetzaren balio erantsia;
- esaldiaren borobiltasuna: baldintza eta ondorioaren arteko erlazioak zentzuz ez ezik, formalki ere (entzumenez) adierazten dira.

Arestian aipatutako bertsoan hauxe agertu zaigu: “[...] beste gauzarik ez dozu bear,/ arrantza gitxi **eidazu**,/ eta lanera, zure bizkarra/ berotzia nai ez **bozu!**” (B103a). Hemen *bozu* azken puntutzat erabilia dago. Ondorioaren zati bat ere azken puntuan dago sartuta: “eta lanera (joan zaitez)”. Esana da, baldintza eta ondorioa azken puntuaren inguruan sarritan ibiltzen direla Balentinen bertso gintzan. Kasu honetan, ez azken puntuaren inguruan, azken puntuan bertan baizik.

Baldintza modu honetara erabilia, hau da, mezuaren indartzaile bezala, ez da beti hoskide. Agian hoskidetasunaren balio erantsia galtzen du horrela, baina ez Balentinen bertso gintzan oso baliagarria den funtzioa:

Egin da gero atxaki billa,  
ori da gizontasuna!  
Zeu izan zara baratz onetan  
agindu bear dozuna.  
Andreagaitik galdu **badozu**  
baratzeko ondasuna,  
aurrerantza be izango zara  
nere menpeko gizona. (B165c)

---

no sólo se estructuran en función de los conocimientos que el hablante supone en el oyente, sino que contienen múltiples referencias directas al mismo, elementos apelativos que responden a distintas motivaciones, que unas veces forman parte de la propia dinámica del diálogo, a modo de iniciación, mantenimiento o cierre del mismo”.

Arrazoi metrikoak direla medio, kasu honetan ez du *bozu* erabiltzen Balentinek, bestela ez litzateke izango bost silabako hemistikio bat: *galdu badozu* hemistikioak, ostera, baditu bost silaba.

Udabarrian dozuz  
umetxuak azten,  
zugatz-zuloan edo  
orma zarren baten,  
kuku zarren **bat ez bok**  
eugana etorten,  
eure jauregitxuan  
arrautza egiten. (B126a)

Goian aipatu dudan bertso honetan, azken bi puntuak baldintza edo protesiaren barruan sartzen dira, ez dago ondoriorik eurretan. Ondorioa, nolabaiteko efektu bat bilatuz agian, aurreneko bi puntuetan dago. Baldintza honekin, nire ustez, txepetxaren bizitza baldintzatua eman nahi du aditzera, hain zuzen ere baldintza hori azkenera utziz eta bi puntuetan luzatuz. Beharbada bertsolariak bertsoa egitean horretan pentsatu duela larregi suposatzea da, baina lortu duena horixe da: txepetxaren bizitza arriskuz beterikoa dela adieraztea.

Aipa dezagun beste bat:

Txin.:  
Kuku gaxoa, ondo bizi az,  
olan autortuten **dozu**,  
gerokoaren itxaropenik  
guk legez ete **daukazu**?  
Jaunak agintzen daben bidian  
batera ez gagoz **ni ta zu**;  
azken orduan erruki zaitut  
olan jarraitzen **badozu**. (B119c)

Berriro ere *badozu* ointzat erabiltzen du, protasia eta apodosia puntu berean, azkenekoan hain zuzen, biltzen direlarik: *azken orduan erruki zaitut* (apodosia) *olan jarraitzen badozu*.

Hona hemen beste bat:

Euskera maite, gaxorik zagoz  
eta osakairik ez **dozu**,  
zeure semiak itxi zaituez,  
errukarria zara **zu**.  
Ene, euskera, ilgo al zara?  
Arren erantzun **eidazu**!  
Zu il ezkeru ez dot nai bizi,  
zeugaz eruan **nagizu**! (B088c)

Kasu honetan baldintza markatzen duena ez da **ba-** partikula. Kasu honetan **-z gero** egiturako baldintza dugu: *zu il ezkeru*. Bertso honetan ari

garelarik, errepara diezaiegun azken bi puntuei. Biak aginduen adizkiak dira. Baldintza eta ondorioa binomioa agertzeaz gain (azken puntuan), bi agindu ditugu, hoskidetzan parte hartuz gainera. Honek bertsoari dramatismoa eransten diola argi dago, ahozko estiloko dramatismoa hain zuzen. Erretorikaren helburua pertsuasioa da, entzulearengana ailegatzea. Bertso honetan egoera agonistiko baten estualdian nabarmentzen da, galdera larri baten ostean hain zuzen: “Ene euskera, ilgo al zara?”. Egoera horretan euskararen erantzuna irrikatzen da: “Arren erantzun eidazu!”. Euskararekiko identifikazioa azken puntuan areagotzen da, bizitza baino gorago jarriaz: “Zu il ezkerero ez dot nai bizi,/ zeugaz eroan nagizu!”.

Orain arte aipatu ditugun adibide hauek ikusita (B085b, B088c, B103a, B119c) beste gauza batez ohar gaitzke: oso oin antzerakoak erabiltzen dituela. Esate baterako, *dozu* oina lau bertsoetan agertzen da. *Badozu/ bozu* oin berberaren aldaera biak hiru bertsoetan. *Daukazu, eidazu, zu* eta *ni ta zu* oin bikoitza birritan agertzen dira lau bertso hauetan. Aztertzen ari garen **-U** bukaeradun hoskidetza ereduaren azpi-sail bat osatzen dutela argi dago. Azpi-sail honek aukera ematen du bigarren pertsonaren erreferentzi argi eta garbia egiteko eta bere oin propioak ditu, beste oinekin batera<sup>312</sup> oso gutxitan joaten direnak.

Eremu semantiko berezi bat osatzen da, beraz, azpi-sail honetan. Eremu semantiko honetan bigarren pertsonarekiko erreferentzia areagotu egiten da modu ezberdinez:

a) *zu/ ni ta zu* izenordea erabiliz.

b) Edukitzea adieraziz, *dozu* oina dela medio. Edukitzea adierazteko modu sinplea den arren, batetik hoskidetza ahalbideratzen du eta bestetik bigarren pertsonarekiko erreferentzia ere agerian uzten du. Ezin da ahaztu Balentin baserri girokoa dela eta giro horretan ondasunak (abereak) oinarrizko elementuak direla eta kontutan hartu beharrekoak bizimodu hori aurrera ateratzeko. Ahozko kulturaz gauzak edukitzea zerbait oinarrizkoa da.

c) Baldintza bigarren pertsona horri adieraziz, *bozu/ badozu* adizkien bitartez. Horrela ondorio edo apodosis bat gehitzeko aukera eskaintzen da. Baina horren ostekoak ez du zertan ondorio bat izan behar (formalki behintzat): agindu bat ere izan daiteke. Baliteke ere baldintza puntuaren azken elementua izatea (B085b, B103a), hain zuzen ere baldintzatasun zentzu horretan sakonduz, bitartean ondorioa, baldin balego, iragartzen delako.

d) Aginduaren bidez: *eidazu/ nagizu* bezalako oinekin. Aipatu ditugun bi hauek bigarren pertsonarekiko erreferentzia ez ezik igorlearen erreferentzia, alegia lehenengo pertsonarena, egiten dute. Hala ere, lehenengo pertsonaren erreferentzia eliditu daiteke: *egizu, ezazu* bezalako oinekin.

<sup>312</sup> Esate baterako, -SU ereduko oinak, salbuespen batzuk kenduta, ez dira nahasiko -TU bukaeradunekin, nahiz eta -U hoskidetza erudian kokatu dugun. Izan ere, nortasun bereziko azpisail batekoak dira.

Bat-bateko bertsogintzan gaur egun ere azpi-sail honetako oinak bertso askotan entzun daitezke. Izan ere, bat-bateko jardunaren estutasunpean dagoen bertsolari batentzat atsedena da hoskidetza erraz bat topatzea. Horrela bertsoa hobeto hezurmamtuko du eta egin behar duen ahalegina, ez oinak bilatuz, baizik eta bere mezua egokiro adieraziz enplegatuko du. Ez dago oso baloraturik baldin eta oinak kategoria berberekoak diren. Adizkiak, kasu honetan baina, mezuaren erakargarritasunaren aldetik irabazten du agian.

Hoskidetasunaren balioa igotzen da kategoria desberdineko oinak nahasterakoan. Esate baterako, hauek lirateke kategoria desberdinetako hoskideak: duzu (adizkia), zu (izenordea), kasu (izena), usu (adberbioa). Badirudi horretaz Balendin bera ere konturatu zela, zenbait bertsoan kategorien nahasteko asmoa antzematen baita:

Laztan gozo artian  
ni azi **ninduzu**,  
sarritan emonagaz  
kontau ala **mosu**  
umetan eta gero  
egiñagaz **kasu**;  
gaur be zu gabe, ama,  
umezurtz **naukazu**,  
zerura ere zeugaz  
eruan **nagizu**. (B184b)

Kategoria bi baino ez ditu erabiltzen, baina, zalantzarik gabe, aurrerapauso bat da eredu honetako beste bertsoen aldean. Baina une honetan nabarmendu egin beharko litzateke kategoria kontzeptua (esplizituki zein implizituki erabilita) kultura idatziari dagokiola<sup>313</sup>, eta zenbat eta kultura horretan sartuago egon kategoria ezberdinak nahasteko joera handiagoa dago. Balendin Enbeitari hori gertatu zitzaioelakoan gaude; izan ere, euskal kultura gero eta alfabetatuagoa izan da XX. mendean. Honetan, Balentin, batez ere bere bertsogintzaren hasierako urteetan, ahozko kulturari lotzen zaio. Euskal Herriko Mendebaldeko ahozko tradizioan gorde diren koplak eta bertsoetan hoskidetza kategoriala barra-barra erabiltzen da<sup>314</sup>. Adibide bat jartzearen, “Prantzie kortekoa” izenburuko baladatik koplak haxe ekarriko dugu hona:

<sup>313</sup> Honen harian argigarria da Walter Ong-ek (1987, 55) egiten duen iruzkin bat A.R.Luriaren (1976) ikerketa bat dela eta: “A los analfabetos se les mostraron cuatro dibujos de un objeto cada uno, de los cuales tres pertenecían a una categoría y el cuarto a otra. [...] Los analfabetos consideraban invariablemente el grupo no en términos de categorías sino desde el punto de vista de situaciones prácticas –“pensamiento situacional”- [...]”. Kategorietan egindako sailkapenak ez datoz bat lehen mailako ahozkotasunean bizi direnentzat, ezta ere, kultura idatzia ezagutu arren, ahozko kulturaren joerak biziki erroturik dutenentzat.

<sup>314</sup> *Bizkaiko bertsogintza I* lanetik (Amuriza, X, 1995, 433) ateratako adibide bat jar daiteke. Ezaguna da Bizkaiko usadioan bertsoek bi hoskidetza zitzutela: lehenengo lau lerroetan hoskidetza bat eta hurrengo bietan bestea. Honelakoa da hurrengoa: “Bizkaitar linargiak/ jauna **ikusirik**/ pozaren pozez dagoz/ erdi **zoraturik**/ Adurra dariue/ gaur **ezpanetatik**/ bedeinkatuten dabe/ bihotz **bihotzetik**”. *Bizkaiko bertsogintza II* liburuan (Ibidem, 1998, 235) **Nori** kasuarekin egindako hiru puntuko koplak bat, Eusebio Maria Azkuek paratua, jar dezakegu adibidetzat: “Mutil gaztiak esaten deutse/ euren mahitasuna **neskai**/ honek emoten dabe baietza/ pozez beterik **mutilai**/ ta ordurik gora neke gogorra/ jatorke eperdira **biai**” (235. orr.). Enbeitatar sendiaren hariari eutsiz, “Txoxojeuri” edo Juan Antonio Enbeitaren

- Esan dozun berbiaz urten biar **bozu**
- Urten bidera eta il ein bear **dozu**<sup>315</sup>.

Kopla honetan, bertsogileak (bai balada honen bertsogileak zein Balendin Enbeitak) ez du oztoporik adizki biak erabiltzeko. Are gehiago, puntua luza daiteke beste hitz komunetara ere:

[...] urten **biar bozu**  
 [...] ein **bear dozu**.

*Bozu* hitzaren hasierako *b-* eta *dozu* hitzaren hasierako *d-* hoskideak dira eta bertsolaria jakitun da aldakuntza horrekin esanahiaren aldetik aldea dagoela hitz bien artean. Lehenengoa baldintza edo protesiaren adizkia da *ba-* aurrizki baldintzazkoa eta guzti, eta bigarrena ondorio edo apodosiaren adizkia. Bertsolariak ez du kategoria hauen ezagutza izango, baina dagoen aldeaz kontzientea da.

Ahozko kultura baten ez da metalengoaia egiteko joerarik. Beraz, kasu honetan bezala, ez du horrenbeste axola kategoria bereko bi hitz erabiltzen badira. Bertsolariaren buruan badago zantzu minimo bat *bozu* eta *dozu* identikoak ez direla adierazten duena. Ondorengo adibidea ere joera antzeratsuan koka daiteke.

Bakezko bizitza  
 lortu nahi badozu  
 bakoitzari berea  
 emon egiozu (Bb062a)

### 1.1.3. -IAN (15)

–*IAN* ereduak arestiko –*IA(K)* ereduaren aldaera dirudi; izan ere, –*i* bokalez amaitzen diren hitzei –*an* inesiboaren atzizkia eransten bazaio –*IAN* bukaera dugu. –*IA(K)* ereduan, ordea, bukaera berbera zuten hitz erroei inesiboaren marka erantsi beharrean –*a* edo –*ak* artikulu markak erantsi behar zitzaizkion. Hala ere, –*IAN* izena duen hoskidetza ereduak bestelako jatorriak baditu, eta tratamendu berezia behar duelakoan gaude.

Naiz-ta egon zutunik  
 egon **eziñian**,  
 asarrerik sekula  
 ez da gure **artian**;

---

(1850-1930) bertso bat ekar dezakegu gogora. Partizipioak erabiltzen ditu soilik oin gisa: “Lumo aldetik jaku/ kontrakoa **agertu**/ Joakin Agerrekoak/ posture **zarratu**./ Baina haren esanaitik/ ez gendun **pentsatu**/ Astelarren eingo zan/ probarik **jokatu**” (Enbeita, B., 1986, 83).

<sup>315</sup> Arejita, 1995, 31.

**biaramonian**  
 sendo **gorputzian**;  
 naiz biamona euki  
 polite **aldian**,  
 edanaren kezkarik  
 ez da **biotzian**. (B027b)

Bertso lerro bukaeren artean *-ian* bukaeran dago hoskidetasuna. Era berean, azken oinen erroak edo kontsonantez edo *-e* bokalaz amaitzen dira: *ezin*, *arte*, *gorputz*, *alde*, *biotz*. Horrela, deklinazioa egiterakoan *-ean* izan beharko du bukaerak. Mendebaldeko bokalismoak hizkeran eragina duela ezaguna da. Bokalismo hori izan daiteke arrazoi bat bitarteko *-e-* hori itxi eta *-i-* bilakatu dadin:

*ezin-(e)an* > *ezinian*  
*gorputz -(e)an* > *gorputzian*  
*alde-an* > *aldian*  
*biotz-(e)an* > *biotzian*

Hala ere, bitxia da baita ere Balendinek noizean behin, goiko kasuan bezala, erabiltzen duen bokalismoa. Izan ere, Gernikaldeko hizkeran gehien (edo soilik) erabiltzen den joera hauxe da: *biotz -(e)an* > *biotzi**en***. / *arte -an* > *arti**en***<sup>316</sup>. Idatzitako bertsoetan eta kantatutakoetan ere *-ian* aldakia nahiago izaten du, salbuespen batzuk egon arren. Horren arrazoi zehatza ez dakigu baina baliteke zabalduago dagoelakoan hori erabiltzea eta *-ien* ez erabiltzea lokalago edota itxiagoa delakoan.

Bertso berberaren oinek bukaera desberdina izan dezakete, *-i* edo *-e* alegia. Artikulua eta inesiboa gehitzerakoan *-ian* eta *-ean* bukaerak izango genituzke. Balendin Enbeitak sarritan egiten duena da bukaera biak berdintzea hoskidetasunaren mesedetan:

“Aintza goietan, bakea emen”  
 Belengo portal **zarrian**;  
 artega eta egon-ezina  
 onek sortu dau **errian**;  
 nausi diranak beste erregerik  
 ez dabe gura **lurrian**,  
 gauza bardiña jazoten iaku  
 bi millagarren **urtian**. (B249a)

Jatorriz<sup>317</sup> hauexek lirerateke oinak:

zaharrean  
 herrian

<sup>316</sup> Echaide, Ana María, 1984, 60.

<sup>317</sup> Hemen jatorriz diogu eta euskara normalizatuan eman ditugu oinak. Badakigu euskara normalizatu eta jatorrizko euskara ez direna gauza bera. Jatorriz diogunean, batez ere hitzaren bokalismoari men egiten diogu, hau da, hitza beraren bokalismoa eduki nahi dugu kontutan, euskalki edo erabileraren higadura jaso gabe.

lurrean  
urtean

Ondorengo bertsoan agertzen diren oinak jatorriz ez dira **-ian** bukaeradunak, nahiz eta bertsoan denak berdinduta agertzen diren:

Ixil-ixillik jarri **giñian**  
txarri egon kortako **atian**;  
karnazerua bere gantxoaz  
eta ugazaba arto naikuaz,  
**iñozentzian**,  
oratuteko bere **tokian**,  
baña amesak utsak **zirian**. (B046d)

Beltzez adierazitako oinak bokalismoaren eragin “berdintzailea” jasan gabe horrelakoak lirateke: *giñean*, *atean*, *iñozentzian*, *tokian*, *zirean*. Bi multzo ditugu beraz: **-ean** bukaeradunak (*giñean*, *atean*, *zirean*) eta **-ian** bukaeradunak (*iñozentzian* eta *tokian*). Balentin Enbeitak darabilen hoskidetzan, oster, ez da bereizketa hori egiten bertso askotan. Hala ere, egile honen bertsogintzan apurka-apurka mota honetako itxidurak gero eta gutxiagotan erabiltzen direla antzematen da. Aipatu dugun azken bertsoa *Karmengo Amaren Egutegia* deritzonean agertu zen, 1954an. Orduan bat-bateko bertsogintza, publikoki behintzat, galazota zeukan. Ondorengo berriz, 1973. urtekoa da (bat-batean aritzen zeneko garaikoa), eta ez dago bokalismoak aldatutako oinik:

Aingerutxo bi goian egazka  
aita dabela **erdian**,  
ama bateri kendutakoak  
bata besteen **jarraian**.  
Goian zorontsu izan legikez  
atsegin-**lorategian**,  
baiña ama itun, lorak galduta,  
daukagu negu **gorrian**. (B256b)

#### 1.1.4. **-T(Z)EN (15)**

Ondoren Balentin Enbeitak sarritan erabiltzen duen beste hoskidetza eredu hau aipatu eta aztertu beharra dago.

Gauza bi esan beharrekoak dira hoskidetza mota honekin ari garelarik. Batetik, hoskidetza kategoriala nagusitzen dela kasu gehienetan. Esan nahi baita, gehienetan (ia-ia kasu guztietan, salbuespenen batzuk kenduta) gerundioaren marka daramaten aditz oinak dira: *-ten* edo *-zen* marka-atzizkia daramatenak alegia. Bestetik, Balentin Enbeitarengan honako eredu hau oso hoskidetza erabilia dela.

Hona hemen bi adibide:

Argi eder oi, guri laguntzen



etzara iñoiz aspertzen,  
goizian goiztik irri-barreka  
pozkiro zara agertzen;  
gizarte onek ez dautzun arren  
eskar aundirik eskeintzen,  
argi gozo oi, apal-apalki  
beti zatoz zu laguntzen. (B038a)

Udabarrian abes-soiñuan  
txoriak umiak azten,  
mendi ta baso, zelai ta baratz  
jantzirik ziran ikusten;  
mitxeletiak lorarik lora,  
kukua kuku abesten,  
uda azkenak bana-banaka  
guztiak ditu ixiltzen. (B055a)

Hoskidetza horren semantika ekintzak adieraztea mugatuta dago. Muga bat da bai, baina esparru nahiko zabala ere (mugatuta egon arren); izan ere, semantikoki mota guztietako ekintzak adieraz daitezke hoskidetza mota honekin. Sarritan ekintzen deskripzioetarako erabiltzen da. Arestian aipatutakoaren kasuan<sup>318</sup> pertsonaia desberdinen ekintzak agertu eta kontrastatu ahal dira, hau da, eguzkiak egiten dizkigun onurak eta gizakion eskergabetasuna deskribatzen dira.

Hoskidetza mota hau aztertzen ari garela, aipatu beharra dago poesia lizentzia bihurtu den orden aldaketa bat sarritan gertatzen dela aditz perifrastikoekin. Alegia, baiezko esaldietan, aditz laguntzailea aditz oinaren ostean egon beharrean, aurreratu egiten da. Horrela, aditz oinak gerundio markarekin batera azkeneko posizioa hartzen du.

Hoskidetza eredu honetan, eta salbuespen moduan, kategoria berberekoak ez diren oinak agertzen dira noizbehinka:

Gure arimen lapikotxua  
otzik geratu ez **daiten**,  
sarritan juan bearra dogu  
geure utsak **autortuten**;  
mixiñoietan egin dala-ta  
naikotzat badogu **ixten**,  
sustantzi bako katolikuen  
antza dogu **erakusten**. (B054a)

Lehenengo oina *daiten* dugu, adizki bat hain zuzen. Bigarrena *autortuten* dugu: zentzuz ez da gerundioa, **-tzera** atzizkiaren Mendebaldeko aldaera baizik<sup>319</sup>.

<sup>318</sup> Ikusi B038a.

<sup>319</sup> Horrela azaltzen da: “Geroaldi hurbila adierazteko, <<-T(Z)era joan>> egituraz balia gaitzke. Bizkaieraz, <<-T(Z)ERA>> barik, <<-T(Z)EN>> erabiltzen da. Adibidez: “Goazen arin, filma hasTERA (hasten) DOA eta!”, Zubiri, I., 2000, 417.

Aipatuko ditut hoskidetza kategorialetik pixka bat aldentzen diren beste bertso-salbuespen bi:

Dan, dan, dan, Jose eta Maria  
ostatu billa Belenen;  
dan, dan, dan, gabeko amaiketan  
dan, dan, dan, atia joten.  
Eta barrutik dan, dan, asarrez  
gogor dautse erantzuten:  
“Dan, dan, dan gabeko amaiketan  
dan, dan, zer dakazue emen?”. (B059a)

“Dan, dan dan, aintza zero goietan,  
dan, dan, dan, bakia emen!”  
Dan, dan, dan, aingeruak diñoë:  
“Jesus jaio da Belenen!”  
Artzaiñak ere pozagaz dabe  
Jesus nun dagon itantzen.  
Lenbailen danak joan nai dabe  
Jesus Aurtxoa gurtutzen. (B060c).

Inesibo marka eta gerundio itxura daukaten aditz oinak hoskidetasunean daude, bistan denez. Semantikoki inesiboan dauden *emen* eta *Belenen* oinek oinarria ematen diete ekintza adierazten duten oinei (*joten*, *erantzuten*, *itauntzen*, *gurtutzen*); hain zuzen ere, ekintza hori kokatzeko egileak leku erreferentzia batez baliatu behar duelako.

Hortaz, bertso mota honekin ez da ekintzen deskripzio edota zerrendaketarik egiten. Ekintzak aipatutako oinei esker kokaturik daude leku zehatz baten eta leku horrek indarra hartuko du, hoskidea den unetik<sup>320</sup>.

### 1.1.5. –RA (11)

Kasu honetan ere hoskidetza kategoriala da nagusi, nahiz eta NORA kasuko kategoriari oin kopuru handitxoa ez egokitu.

Hona hemen 1951an (isilaldia hautsi baino lehen beraz) egindako bertso bat:

Eguzki, argi gozo biguna  
bazatoz neure **leiora**,  
bagarik goizian goiztik  
egun onak **emotera**,  
pozez beterik jarten nozula  
zeu ikusiaz **batera**;  
eskarrik asko eta egun on,  
etorri zaitetz **aurrera!** (B036a)

<sup>320</sup> Argi utzi du Pello Esnalek, bere ustez, zein izan den hoskidetzaren (“puntuaren”) zeregina tradizionalki: “Ahozko literaturan baliabide mnemoteknikoa da batez ere puntua: bertsoak gogoan errazago hartzeko erabiltzen den baliabidea; baina sortze-baliabidea ere bada: bertsoak errazago sortzeko erabiltzen dena. Pixkana-pixkana, baliabide estetiko bihurtuko da errima literatura idatzian: poemak-eta apaintzeko baliabide” (Esnal, 1994, 1267).

Izena zein aditz izena NORA kasuarekin dira nagusi, esan bezala. Oinen arteko loturaren bat argitze aldera esan dezagun lehenbizi aditz izena NORA kasuan egonda, erraz gehituko zaiola NORA kasuan dagoen sintagma bat. Alderantziz ere gerta daiteke. Arestiko bertsoan horrela gertatzen da: norabidea adierazten duen aditz lagun bati (*leiora*) helburua adierazten duen beste batek (*emotera*) jarraipena ematen dio, nahiz eta itxuraz biak *nora* kasuan egon. Azken honen beste adibide bat hauxe litzateke:

Esaten eben: "Sasoi orretan  
zertarako **Amerikara?**  
Berrogei eta amabi urtegaz  
beren ezurak **iztera?**"  
Baña oragin ikusten danez  
mutil ona iagok bera,  
amaikatzuri barre eingo` tso  
datorrenian etxera. (B068a)

Berrogeiko hamarkadan Balentin Enbeita, eredu honi dagokionez, kategoria berdinean oinarritutako hoskidetasunaren alde makurtzen da, azkeneko adibide biotan ikusi ahal denez. Geroagoko bertsoetan, ostera, kategoria ezberdinetako oinak nahasteko joera mamitzen doa edo behintzat horrela antzematen da bere bertsoetan:

Euskalerriko baratz urdiñak  
baditu ainbeste **lora,**  
danen artean begiko zaitut,  
besterikan ez dot **gura.**  
Pozik nintzake baneki ondo  
zelan ekarri **eskura,**  
ala zu barik bizi izateko  
eldu ete naz **mundura?.** (B245c)

Hiru kategoria desberdin erabiltzen ditu honetan: izena (*lora*), aditza (*gura*), eta deklinatutako izenak (*eskura, mundura*).

Biok zarie sasoiko lora,  
zoiaze frutu-**bidera,**  
Euskalerria urduri dago  
zuen frutuai **begira;**  
euskal fedea eta euskera  
indartuteko **badira,**  
orduante bai, zuen frutuak  
ederrak izango **dira.** (B260c)

Azken honetan ere kategoria desberdinak nahasten dira: deklinatutako izena (*bidera*), adberbioa (*begira*), adizkiak (*badira, dira*). Azken bertso biok 1973. urtekoak dira eta nabaritzen da kategorizazioaren joera errotuago dagoela Balendin Enbeitaren bertso gintzan, Euskal Herriko bertso gintzan, maila orokorrean, gertatu zen bezala.

### 1.1.6. -TAN (11)

Hoskidetza eredu hau, **-ian** eredutzat bataiatu dudana bezala, inesiboarekin egindako hoskidetza mota bat da. Aparteko eredutzat hartu dugu, zeren eta **-t-** kontsonantea hoskidetza horren barruan kokatzen baita, eta horrekin beste sail hau osa daiteke. **-t-** kontsonanteak nortasun berezia ematen dio hoskidetza honi, leherkari gorra izatean agian, fonetikaren aldetik ez da oharkabekoa, nahiko nabarmena baizik.

Bestaldetik, **-tan** eredu honek inesiboaren mugagabe kasua adieraz dezake, edo inesiboaren marka pluralaren zati bat izan daiteke: **-etan**. Azken adierazi gramatikal hau kasurik gehienetan gertatzen da. Kasuren baten inesiboaren marka singularra izan daiteke erroaren zati bat, **-t-** kontsonantea hain zuzen, hartuta ere. Argiago ikus daiteke Balentin Enbeitaren oinetatik ateratako adibideekin:

- Mugagabeen: *umetan* (hautzarroan esan nahian), *danetan* (B046a), *askotan* (B224b).
- Pluralean: *tontorretan* (B050a), *gauzetan* (B029a), *lotan* (B139c).
- Singularrean: *benetan* (B064a).

Esango genuke eredu hau horren erabilia baldin bada, enfasirako aukera ematen duelako dela. Enfasia ez ezik, zehaztugabetasuna eta orokortasuna ere bai. Pluraleko marka daramaten oinek ere orokortasun zehaztugabe hori adierazten dute, dudarik gabe, zehazte hori beharrezkoa ez bailitzan, entzule edota irakurlearengan konfiantza hori jarriz, testuingurua ezaguna delakoan. Ondorioz, irakurle edota entzulearekiko konplizitatea eta enpatia areagotu egiten da.

Ariatzako jaiek  
 Santa **Kurtzietan**  
 Irailan amalauan  
 urte **guztietan**  
   naiz **aberatsetan**  
   bardin **txiroetan**  
 jan-edanen paltarik  
 ez da **etxietan**  
 naiz-ta eskas ibili  
 beste **egunetan**. (B025a)

Egoera orokor bat deskribatzen zaigu, Airatzako Santa Kurtziak hain zuzen, baina ez urte jakin batekoak, baizik eta urterik urte edo bigarren puntuan esaten denez “irailan amalauen urte guztietan” errepikatzen direnak. Bosgarren puntuan *etxietan* oinarekin “Ariatza auzoko etxeetan” edota *baserrietan* eman nahi du aditzera, nahiz eta zehaztu ez. Testuinguruarekin kontatzen du eta **-etan** eredu honek, inesiboaren marka pluralarekin egindakoa, orokortasun zehaztugabeari esparrua eskaintzen dio.

Esandakoaren haritik doaz bertso honen oinak ere:

Zure atzeko mendi  
goiko **tontorretan**  
azke jolasten neban  
mutil koskorretan;  
amak dei egin arte  
beti **jolasetan**,  
gomuta asko gabe  
munduko **gauzetan**. (B050a)

Lehenengo oinak inesibo pluralaren marka darama eta beraz ez du zehazten edo murrizten zeintzuk izan ziren egilearen haurtzaroko jolaslekuak. Orokortasuna adierazten du "zure atzeko mendi goiko tontorretan" adierazten duenean, mendirik mendi leku askotan ibili izan balitz legez, enfasia areagotuz. Hirugarren puntuan ere enfasi hori pluralarekin ez ezik, *beti* adberbioarekin ere adierazten da. Azken puntua ere orokortasun horren adierazlea da, plurala erabiltzen duelako eta *munduko gauzetan* bezalako sintagma esanahi orokorrekoa eta zehaztugabea erabiltzen duelako.

Eredu honek beste oin motetarako ere ematen du aukera:

a) mendebaldeko euskalkiaren aspektu ezburutuaren *-etan* marka erabiltzeko aukera<sup>321</sup>.

b) *benetan* edota *danetan* bezalako oinak, zentzuz enfatikoak direnak, erabiltzeko aukera.

Jakina, lehenengo oin motari dagokionez, hoskidetasunaren barruan sartzen da bizkaierazko aldakia baldin bada bakarrik.

[...] maitasun orrek daukan ixilla  
ez da erreza **topetan**  
oba izango da bakean itxi  
Egillien eskuetan. (B064a)

[...] Juan ziñian ezketiñoko  
asko dauz zure gomutan,  
orrantza egaz egin gurian  
urre gorrie **topetan**. (B066c)

[...] baiña nok daki eperdi bataz  
zillo bi ondo **tapetan**? (B120a)

Balentin Enbeitak gipuzkeraz edota beste euskalkiaz kantatu eta idatzi izan balu ez zukeen oin mota hau erabiliko.

Aipatutako bigarren oin motari dagokionez, askotan errepikatzen den oina dugu, eta estilo agonistikoaren barruan kokatzen da; izan ere, enfasirako lagungarria da:

<sup>321</sup> "Beste toki batzutan *-etan*" hartzen du: **pentsetan, olgetan, betetan, kostetan**. Hori suertatzen da **-atu** bukaera **-au** bihurtzen duten lekuetan, nahiz ez beti", *Euskal Gramatika. Lehen urratsak II*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1987, 117.

Gizonen ona ikustiarren,  
 ustu arte odoletan,  
 maitasun arren Kristo illa zan  
 kurutz batian Golgotan.  
 Esker txarreko gu izan arren  
 maitatzen gaitu **benetan**, [...] (B064a)

Egien alde agertu ziñan  
 zeure **arazo danetan**;  
 [...] Karmengo Aman ikur donea  
 maite zenduan **benetan**: [...] (B129c)

Aukeran bizi gura dabena  
 bere **arazu danetan**,  
 beti ezin lei ondo ibilli  
 giza-bideko **gauzetan**. (B168b)

*Emaz.:*  
 Ama beti da biotz makala  
 sendiko **arazuetan**,  
 aita bear dau ardura artu  
 seme-alaben **gauzetan**.  
 Itzez ta egitez bardin bazabiz  
 gizon gauza guztietan,  
 zure onuak seme-alabak  
 zainduko dituz **benetan**. (B187a)

[...] itxaropenak lotuten gaitu  
 bear ez diran **gauzetan**.  
 [...] itxaropenik bako bizitza  
 gauza utsa da **benetan**. (B224b)

Oinen sare baten aurrean gaudela esan dezakegu. Urretxindorraren atalean, 1. kapituluan, honetaz ere aritu gara. Kepa Enbeitak oin hau erabiltzeko joera nabarmena zuen eta pentsatzekoa eta susmatzekoa da Balendin Enbeitak berarengandik joera hau jasotzea.

[...] Lotan eguan, eta lo-zorro  
 Negargarrian **benetan**:  
 Illuntasuna baño besterik  
 Ez eban ingurubetan. (K039c)

Geure asaba zarreen odola  
 Daukagun arte zanetan,  
 Agertu daigun euzkeldun antza  
 Geure arazo **danetan**;  
 Euzkera zarra egarriz ito  
 Ez dein legorte onetan,  
 Egarrri ori ase dayogun  
 Maite ba'dogu **benetan**. (K044n)

Jaso, euzkuak, ikurrin ori  
 Aitz eta mendi ganetan,

Uri, baserri, udaletxe ta  
 Gure untzijen agetan;  
 Sabin Arana'n jarraitzaliak  
 Ixan gaitez **benetan**,  
 Estuntzetatik azkatutia  
 Nai ba'dogu lur onetan. (K049b)

Antzematen da, beraz, *benetan*, *onetan* eta *danetan* oin horiek, Balendinek erabiliko zituen berberak, sare bat osatzen dutela jada Urretxindorraren bertsogintzan.

### 1.1.7. –RI (11)

Hoskidetza mota honek, bistan denez, hoskidetza kategoriala izateko joera izan lezake, baldin eta bertsolariak ez badu ahalegin bat egiten kategoriala desberdinetako oinak bilatzen. Erosotasunak bultza dezake bertsolaria NORI kasuko oinak aukeratzera; izan ere, NORI kasutik ehunka oin bila daitezke, eta bertsoa ekoizteko estutasunean hori izan daiteke konponbiderik errazena. Beste kategoriala jakin batetik hartutako oinak askoz murrizagoak izan daitezke eta, beraz, kategoriala desberdinetatik hartzeko beharra dago. Hori bai, bertsolaria konturatzen da hoskidetza kategoriala, nahiz eta erraztasuna eman bertsoa osatzeko, gaizki kontsideratua dagoela eta gainera mezua ere baldintzatzen du, NORI kasuarekin egindako esaldiak eta bertsoak egin behar baititu: sintaxia eta morfologiak baldintzatuta geratzen dira horrela.

Balentin Enbeitaren kasuan esan behar da, nahiz eta hoskidetza kategoriala edo NORI kasuan oinarritutako hoskidetza ugariena izan, eredu honetan nabaria dela kategoriala desberdinetako oinak erabiltzeko ahalegina. Ahalegin hori ez da bakarrik Balendinen azken aroan antzematen, alegia 70ko eta 80ko hamarkadetan, beste ereduarekin gertatu zen bezala (Ikusi –U edo –T(Z)EN ereduak). Ahalegin hori haren bertsogintzaren hasieran ere ikusten da:

Aloiña mendi gaiñian nago  
 begira egal danari:  
 artaldetxuak agiri dira  
 bedar gozoan urduri,  
 txoriak ere bake ederrian  
 guztiak dabiz kantari,  
 Arantzazuko Ama dabela  
 guzti-guztien zaindari,  
 mendi onixek egiz benetan  
 zeru txiki bat dirudi. (B039a)

“Isilaldiko” bertso honetan behin bakarrik agertzen da NORI kasuan oinarritutako oina. Beste oinak beste kategoriei dagozkie:

- Adberbioak: *urduri*, *kantari*.
- Izena: *zaindari*.
- Adizkia: *dirudi*.

Egia esan, lehenengo aro horretan, “isilaldian”, gure ustez eta erakusten duenaren arabera, ez du Balentin Enbeitak eredu honen oso ikuspegi zorrotza. Oin hoskideen peskizan ez du bilatzen erabateko hoskidetasunik (edo hoskidetasun material luzerik behintzat), eta irizpide malguia erabiltzen du:

Lege txiki bat jarriko neuke  
guztion onuragarri:  
lege au da, ba, janik ez emon  
lanik gura ez dabenari;  
era onetan ainbeste alper  
ez genduke ingo ikusi,  
eta danontzat izango geunke  
naikua arto ta ogi. (B053b)

Hasteko, lehenengo puntutzat *onuragarri* oina erabiltzen du. Guk egindako sailkapenean oin hori beste eredupean sarturik legoke; izan ere, horren hoskideak diren oinak normalean aparteko bertsoetan erabiltzen dira, hau da, **–arri** bukaera duten oinak ez dira (kasurik gehienetan) **–ri** bukaera duten oinekin bertso berean erabiltzen<sup>322</sup>. Bestaldetik, hoskidetzat *ikusi* oina erabili du. Oin horren **–s–** sibilantea eta **–r–** dardarkaria parean jartzen ditu, nahiz eta hau Balentin Enbeitarengan salbuespen bat izan. *Ogi* ere hoskidetzat darabil. Aurrekoan bezala **–g–** belarea eta **–r–** dardarkaria hoskideak dira Balentin Enbeitaren bertso honetan. Dena dela, eta adierazi den bezala, honelako hoskidetasun uztardurak oso gutxitan gertatzen dira Balentin Enbeitaren bertsoetan eta **–ri** silaba hoskidea horrela mantentzen da, aldaki bat edo beste:

Ariatza'ko Puenterrabian  
astera goiaz kant**ari**  
bertso batzuek jarri gurian  
Gergorio Barrueta'**ri**  
Amerikara juna da bera  
agur egiñaz dan**ori**,  
gura genduke Goiko Jainkoak  
lagun daiola ber**ari**. (B066a)

Goizean ogetik **jagi**,  
gelako leioa **edegi**  
eta jartzen naz ni **adi**:  
Etxe ondoko intxaur gaiñian  
txantxangorria **kantari**,  
eguzkia **dizdizari**,  
nere **baserritxuari**  
bake gozoan **geznari**. (B138a)

<sup>322</sup> Hona hemen honen pareko beste adibide bat: "Egarria ondo asetu eta/ biotza pozkiro **jarri**, / ogi zuriaz gazigarria/ piska bat dala **janari**; / ondo ibilli gura dabena,/ bardin zar eta **gaztedi**;/ Muxika-Ormetzen Enbeitak daukan/ txakoliñera **etorri**. (1950)" (B062a). Edo: "Euskalerriko gure lur maite /siñismenaren **iturri**;/ zure emaitzak agertzen ziran/ nun-nai eder ta **ugari** / [...]", (B131a).



Hoskidetza eredu emankorra delako froga da puntu luzeko bertsoetan erabili zuela Balendin Enbeitak behin baino gehiagotan. Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarrean, 1966an, bazkalostean honela kantatu zuen:

Nere gorputza dardarka daukat  
 eta biotza **kantari**,  
 niretzat beintzat gaur Arantzazuk  
 zeru txiki bat dirudi:  
 Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar,  
 Zubero eta Lapurdi,  
 gaur Arantzazun besarkaturik  
 berba emonaz elkarri,  
 erabagia artuten dabe  
 laguntzeko euskerari,  
 Ama Arantzazu jarten dabela  
 batzar onen ziñaldari.  
 Eskerrak emon bear deusoguz  
 jai au egin dabenari,  
 indar berri bat eskatuagaz  
 Arantzazuko Amari. (B090a)

Baita ere Bilbon, 1983an berari egindako omenaldi baten honela kantatu zuen:

Udabarrian zelai baratzak  
 loretan gorri ta zuri  
 Txoriak po(s)ez, kantuz eskerrak  
 emonaz Egileari  
 Neu ere danok eskertu nahian  
 pozarren nator **kantari**  
 Hainbeste lore ikusten ditut:  
 haundi, txiki, zahar, gazteri  
 omenaldi bat pozik eskeintzen  
 txori txiki zahar bateri  
 Hainbestekorik izango zanik  
 ez neban uste nik hori  
 Ordaintzekorik ez daukat baina  
 bihotzat daukat opari  
 Nire besarka anaikorrena  
 jai honen ongileari  
 eta Euskara Amaren partez  
 eskerrik asko danori. (Bb174a).

### 1.1.8. –NA(K) (11)

Hoskidetza eredu hau Kepa Enbeitaren bertsogintzan bigarren postuan dago erabileraren maiztasunari dagokionez. Balendinek, ordea, maiztasunez erabiltzen duen arren, ez du horrenbeste erabiliko.

Ariatza da gure  
 tokirik gurena  
 Ariatzarrok beti  
 maitatzen doguna

Santa Kurtz eguna  
barriz maitiena  
aztu barik goguan  
beti daukoguna;  
Ariatza da gutzat  
munduan onena. (B026a)

Au da lotsari emon daustana  
lagun artian gizonak,  
emen ez dira danak izango  
zuk legez itz dagienak;  
neuk be arpeira esango dautzut  
gaur entzun dagien danak:  
maskararikan ez daula biar  
zuk lango arpeia daukonak. (B033b)

Hoskidetzaren luzetasunari buruz esan behar da orokorrean ez dela arduratzen, hau da, konformatzen dela azken silabako hoskidetzarekin. Azken silaba hori batez ere aukera hauen arteko bat izaten da: **-en(a)** atzizki hiperlatiboa (*onena, gurena*, e.a.), **-(e)n(a)** erlatibozko menperagailua (*doguna, dagienak, daukonak*, e.a.), **-(ta)sun(a)** atzizkia (*ixiltasuna, edertasuna*, e.a.) edo zenbait izen, adjektibo zein adberbioren azken silaba (*gizonak, amona, azkena*<sup>323</sup> e.a.).

Balendinen bertsogintzan hoskidetza hau laburra izaten da, gehienetan silaba bakarreakoa, baina aberatsa, kategorietarako erabiltzen duen pluraltasunagatik orain arte erakutsi dugun bezala. Bertso bakan batzuetan izan ezik<sup>324</sup>, normalean oinak kategoria desberdinekoak izango dira. Hurrengo adibide tipiko bat dugu:

Neu naiz gizonen egizko artzaiñ  
baketsu eta **zuzena**,  
naigabetuak poztuko dauzan  
biotz maitale **onena**;  
niregan bati aurkituko'zu  
zeuretzat biar **dozuna**,  
zorioneko izan nai bozu  
etorri zaitez **neugana**. (B065b)

Hoskidetzaren aldetik komunean daukatena **-na** silaba da, nahiz eta lehenengo bi oinen artean **-ena** silaba t'erdia izan. Oinen kategoriak, bestalde, desberdinak dira: *zuzena* adjektibo soila, *onena* adjektiboa baina gradu

<sup>323</sup> “Mendiak gorri, zugatzak billoiz,/ txorien **ixiltasuna**,/ zelai baratzak galdurik euren/ udako **edertasuna**,/ Negu bildurrez jarten dituna/ aitona eta **amona**/ orixe dogu uda ondoren/ iatorkun uda **azkena**.” (B056a)

<sup>324</sup> Bada bertsoen bat edo beste non **-(t)asun** atzizkia duten oinak ugariegiak diren. Hona hemen adibide bat: “Maitasun ori zelangoa dan/ ta bere **aunditasuna**,/ au jakiteko bearrezko da/ goi-eskar **argitasuna**,/ Bere zuztarra arakatzeko/ ez da naikua gizona;/ ez da aukeran bizi izatia,/ ez diru, ez **osasuna**,/ Zeñek azaldu, bear dan legez,/ bere **aberastasuna**?/ Ezegaz neurtu ezin leikena/ benetan dan **maitasuna**” (B063a). Salbuespen hau gai kontzeptual bat jorratzen duen bertso-sorta baten aurkitu dugu. Kontzeptualtasun hori oinetan isladatzen da; izan ere, kontzeptu abstraktoak adierazten dituzten bost oin erabiltzen baititu, hain zuzen ere maitasunaren nondik norakoak azaltzeko.

superlatiboan (–*en* atzizkiarekin), *dozuna* adizkia erlatiboazko lokailuarekin, eta *neugana* izenordea NORENGANA kasuaren atzizkiarekin.

Oinen sarerik ez dugu deskubritu baina aipatu behar da badirela zenbait oin bertso desberdinetan errepikatzen direnak, sarerik osatu gabe baina. Horietako bat *gizona* oina dugu. Oin honek gizakiari eskaini nahi zaion arreta erakusten digu, izan ere gehienetan berorren abstrakzioa egiten delarik erabiltzen da. Kristau-humanismo jakin bat honen atzean dagoela pentsatzekoa da, izan ere bertso hauekin gizakiaren eredu hori zizelkatu nahi duela ematen du:

Jakintsu izan, ez-jakin bizi,  
il da gero jakituna,  
bizi dan arte ez da ezautzen  
gizonaren altasuna;  
jakitunetan goirenengua  
genduan Orixe jauna  
il ondorian asi da erria  
goratzen bere izena,  
eriotzia bearreko al da  
ezagutzeko **gizona**? (B141a)

[...] Gizona dogu neurritz kanpora  
Jaunagandik dabillena,  
guztiok ondo biziko gara  
ontzen danian **gizona**. (B171c)

*Zoriona* oina da sarri agertzen den beste bat. Arestian aipatu dugun kristau-humanismoaren kariatz agertzen dela iruditzen zaigu. *Zoriona* edo zoriontasuna sakonera handiko kontzeptua dugu, gizakiaren bizitzari oso lotua, kezka nagusietako bat da eta:

Alkarraz maite bizi diranak  
badauke maitetasuna,  
bikoitz orretan ikusten dogu  
bakia ta **zoriona** [...] (B121c)

Lorarik lora geienok gabiz,  
nai dogu edertasuna,  
bide ortatik iatorkula ustez  
bakia ta **zoriona**,  
eta etxaku gogoratuten  
lorak arantzak dituna; [...] (B161a)

### 1.1.9. -TSA(K) (10)

Atal honen barruan eta beste hoskidetza bati helduz, –**TSA** amaieraduna nabarmentzera goaz azpi-atal honetan.

Oso hoskidetza enbeitarra dela esan genezake; izan ere, Kepak (ikusi 1. ataleko 4. hoskidetza eredu) zein Balentinek maiztasunez erabili izan zuten.

Hoskideak diren oinak lotura semantiko batzuen pean daudela badago esatea, egile bion bertsogintzan behintzat. Balentin Enbeitari dagokionez behintzat, arreta erakartzeko modukoa da hoskidetza honen barruan dagoen oinen sarea.

Emaitza aurreratu ordez, ekin diezaiogun oin horiek aztertzeari adibide batzuetan oinarrituta:

Zorioneko erri batentzat  
bertsolarien **jaiotza**,  
errei-maitale baldin badakar  
ongille bere **biotza**.  
Orra nun dagon bertsolari bat  
Jaunari eska **laguntza**,  
bere erriari emon daiola  
egizko zero-**bizitza**. (B098b)

Balentin Enbeitaren bertsogintzan lotura semantiko bat nabaritzen da oin giltzarri hauen artean: sare horretan egoera desberdin asko sar daitezke. Kasu honetan bere aita Kepa Enbeitaren heriotzaz ari da (nahiz eta hau gaiaren sarrera orokorra izan), baina hurrengo honetan:

Ludi onetan bakoitzak dauka  
neurtuta bere **bizitza**,  
zenbateko izan leiteken  
Aita Goikoak dau **giltza**.  
Berak damotso gure izanari  
bizi-bideko **laguntza**,  
nai ta nai-ezik, on artu bear  
zor dautsagun **eriotza**. (B128a)

Susmatzekoa da logika berbera dagoela oinen semantika loturen artean. Alegia, antzerako egoera izanik (karmeldar lagun baten heriotza zela eta), *bizitza* hori Goiko Egilearen *laguntza*ren beharrean dago eta horregatik Jaungoikoak dauka *giltza*. Azken metafora hau, beste elementu poetiko simple bat izan arren, beste poetikotasun tanta bat da bertsoan, eta bere esanahia da Jaungoikoaren eskuetan dagoela konponbidea.

Hari honi eutsiz, hona hemen beste adibideak:

Gabon-egunak dira,  
oroitu bakoitza,  
poztu samiñez diran  
anaien biotza;  
erriak izan daian  
biarko **bizitza**,  
bearrekoa dabe  
gaur gure **laguntza**. (B255a)

Bertso honen testuinguruak ez dio erreferentzia egiten pertsona jakin bati. Gabonak zirela eta ateratako bertso batzuk dira. Orain herriaren abstrakzioa eginez bere *bizitza* aipatu du, eta berriro lotura semantikoa

aktibatu da: “bearrekoa dabe/ gaur gure laguntza”. Bizitzak laguntza behar omen du Balentin Enbeitaren sare semantikoetan.

“Zeru-bizitza” hori jadesteko -bertso honetan ere beraz- Goikoaren laguntza behar ei da.

Beraz, badira oin batzuk sarritan eta egoera diferenteetan erabiltzen direnak: *otsa, laguntza, bizitza, eriotza, joiotza, arantza, aberatsa*.

Izenak dira guztiak eta gainera batzuek komunean duten **-tza** atzizkia da hoskidetza lortzen duena. Gehienetan kontzeptu oso orokorreari erreferentzia egiten dieten izenak dira.

Beste hiruk, ordea, gizakiaren hiru aro desberdinekin dute zerikusia: *jaiotza, bizitza, eriotza*. Atzizki berbera duen *laguntza* oinak gogoratzen digu bizitzeko zer behar dugun: zerbaiten edo norbaiten (norbait hori Jainkoa izan daiteke, hau da, izadiz gaineko izate ahalguztiduna) *laguntza* hain zuzen.

Alde batetik, hizkera arruntetik hartutako hitzak dira, edozeinek ulertzeko modukoak. Agian, abstrakzio maila batekoak dira, nahiz eta sarritan egoera zehatza bati lotuak izan (sarritan, ez beti). Baina batez ere azpimarratu beharko litzateke oinen sare hau ondo ahokatzeko dela Balendinen ideologian. Bera sinestuna izanik, *bizitza, jaiotza*, edota *eriotza* bezalako ekintzak, zerbaiten eta, batez ere, Norbaiten laguntzaren beharrean ikusten zituen.

Bestaldetik, adierazgarria da Balendin Enbeitak *otsa* edo *biotza* oinen artean hoskidetasuna ez ezik, lotura semantikoa ere ezartzen duela. Hori argi samar ikusten da bertso hauetan:

Goizeko bostak, egunsentia,  
eluz-kanpaien **otsa**,  
durundi onek pozez zoratzen  
jarten dau nere **biotza**;  
urruntzen doa nere barruko  
gau-ames minkor zorrotza,  
ordu onian eldu da nigan  
goi-eskarrezko laguntza. (B078b)

Uri baserri, baso, zelaien  
zoragarritzko **abotsa**,  
amaika aldiz poztu ebana  
entzuliaren **biotza**.  
Erriak guren eban orduan  
bere lanaren laguntza,  
orra nun dagon zerraldo baten  
ill-otzik bere gorputza. (B099c)

Negu ankerrak billozten dituz  
zelaiak eta baratzak,  
soiñeko barik jarten ditula  
aran, baso ta zugatzak;  
baña Martiko zozo kantari  
zoli bizkorren **abotsak**  
berbiztu eta alaitzen dituz  
uda-zalien **biotzak**. (B200a)

Lotura semantiko berbera antzematen da hiru bertsoetan. Kanpoko *abots* horrek (bai eliz kanpaiarena zein Kepa Enbeita bere aitarena zein Marti zoroarena) barneko sentimenduen gunea den *biotza* pozten du. Poetikotasuna badago bertso honetan, poetikotasun herrikoa, herriaren erregistroan komuna den poetikotasuna<sup>325</sup>. Bertsolaria da poetikotasun urrats hori herriaren aurrean aurkeztera ausartzen dena, elementu poetiko arrunt batez: *biotz* oina erabiliz.

Sentiberatasunaren adierazpenari loturik, *biotza* oina ez ezik, *arantza* agertuko da, hain sentibera den bihotz samur eta bigun hori zauritu dezaketen *arantza* (bizitzaren nahigabeak, edo kasu zehatz honetan maitasunaren ukapena). *Baratza* oina ere, izadiaren eremu semantikoarentzat beste ekarpen bat izanik, gauza onen bilketa alai modura agertuko zaigu Balentin Enbeitaren bertso hauetan.

Kepa Enbeitaren bertsoetan eta hoskidetza eredu honi dagokionez, ezin da esan aipatu dugun azken sare semantiko hau horren agerikoa denik. Hala ere, argi eta garbi dago *biotza* oinaren presentziak bertsoari ukitu poetiko-sentimentala ematen diola. Oin honekin mezu poetiko edota funtzio emotiboa (barne mundua) areagotzea lortzen da.

## 1.2. Maiztasun ertaineko ereduak

Arestian aipatu dugun 200 bertso inkesta horretan badira 5etik 10era adibide eskaintzen dituzten ereduak. Maiztasun ertaineko ereduak dira hauek. Zenbait aipatu eta aztertuko ditugu, aurrekoak bezala, adierazgarriak izan daitezkeelakoan. Maiztasun gutxiagokoak izanagatik, Balendinen bertso gintzari buruz ezaugarri asko eskaintzen dizkigute eta, beraz, ezin albora laga.

### 1.2.1. –OA(K)/ –UA(K) (7)

#### 1.2.2.

Maiztasun gutxiagoz erabiltzen diren hoskidetasun ereduaren artean, *-OA/ -UA*<sup>326</sup> ereduata bataiatu duguna daukagu aipagai lehenengo postuan. Eta eredu honen barruan bi aldaera dira nagusi, *-OA* eta *-UA* alegia, nahiz eta beste aldaeraren bat ere eredu honetan kokatu dugun. Maiztasun gutxiagoko

<sup>325</sup> Bertso gintzaren poetikotasunaz ari garelarik, zerbait zehaztu beharrean gaude. Xabier Amurizak poesia eta bertsolaritza arteko aldea bereizten saiatu da: bertsolaritza jenero herritarra da. Poesiak ez dauka herritar izan beharrik eta gehienetan izan ere ez da. [...] Zer portzentaia behar da jenero bat herritarra edo hizkuntza mintzatuaren barrutikoa dela esateko? [...] Zerbait esateko, erditik gora ulertzekoa izan behar duela bai. Norbaiti hiztun medioak ehuneko hamar edo hogeitak bakarrik ulertzen badio, jenero hori nekez jo daiteke herritartzat edo ahozko literaturatzat”, Amuriza, 1997, 210. Azalpen honekin bertsolaritza ez dio poetikotasuna kentzen; izan ere, poetikotasuna nolakotasun bat da. Poesia, ordea, jenero bezala hartzen du hausnarketa honetan, batez ere idatziz konposatzen den jenero bezala.

<sup>326</sup> Ereduaren izena –OA(K) / -UA(K) izan arren, erosotasunagatik honik aurrera –OA/-UA erabiliko dugu. Aldaera plurala inplizituki eredu honen barruan sartuzat ematen dugu.

ereduen artean hau da oparoena, eta horren arrazoiak, besteak beste, hauek direla susmatzen dugu:

- **U** edo **-o** bokalaz amaitzen den hitz orori artikulua gehituz gero, eredu honen barruan sar daitekeen oina sortzen da. Honek aukera oparoa eskaintzen du oin hoskide kopuru handia sortzeko.

- Bi aldaerak nahas daitezke, Balentin Enbeitak behintzat horrela egiten du, bertso berberaren barruan hoskidetasun eredia berdina delarik.

Adierazi dugun honen frogagarria, topatu dugun lehenengo bertsoa da:

Txiro ta ixilik da  
Belengo **askatxoa**,  
ta betan jaio biar  
Jesus **Jaungoikoa**;  
emon daiogun pozez  
ostatu **beroa**,  
geure biotz barruko  
maitasun **sutsua**;  
ordez emongo dausku  
betiko **zerua**. (B0302)

Bertso honetan bi aldaerak agertzen dira:

- *OA* aldaerari dagozkion oinak: *askatxoa, Jaungoikoa, beroa*.
- *UA* aldaerari dagozkionak: *sutsua, zerua*.

Batzutan bokalismoa behartu egiten da, eta jatorriz *-OA* aldaerari zegokiona, *-UA* aldaerarekin berdintzearren, **-ua** bilakatzen da oinaren bukaera.

Uzparitxako auzonetxua  
neure jaiotza-**lekua**,  
amaika aldiz zure altzuan  
egin dot amts **gozua**  
geruago ta geiau maite dot  
neu jaio nintzan **txokua**,  
maiteko ez banu izango nintza  
zentzunik bako **zorua**. (B042a)

Hemen **lekua** oina *-UA* aldaerari dagokio, jatorriz horrela delako. Baina beste hirurek aldatuta daukate euren bokalismoa, eta **-o-** bokala itxi egiten da **-u-** bokala bilakatuz. Hizkera mintzatuan gertatzen den fenomeno bat da eta bertsogintza idatzian ere islatzen da. Balentin Enbeitaren bertsoetan ere horrela gertatzen da, eta hau gure ustez ahozkotetasunaren beste zantzu bat da, bertsogintza idatzian islatzen dena.

Baina aipatutako bi aldaeraz aparte, beste hirugarren aldaeraren berri eman behar da: *-UE* aldaera. Batzutan aldera hori jatorrizkoa da eta beste batzuetan bilakaera fonetiko baten ondorioa. Noizean behin biak nahasten dira bertso berean, hoskidetasuna berdintzeko. Ondorengo bertsoa bat-batean

botatakoa da 1960ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan eta *Bizitzaren joanean* liburuan jasota eta argitaratuta dago:

Arenaleko giro ederra  
 bildurrez kendu **deuskue**  
 Bertso txapela jokatuteko  
 berebiziko **lekue**  
 Gorri-adardunok burrukarako  
 hartu ez daigun **eskue**  
 Badaezpadan zezen plazara  
 torotzat sartu **gaitue**. (Bb068a)



Jon Azpillaga eta Balendin Enbeita Bilboko Arenalean

Bertso honetan *deuskue* eta *gaitue* oinei jatorriz -UE aldaerari dagozkie. *Lekue* eta *eskue* oinak, ordea, Balentin Enbeitak hoskidetasuna berdindu nahi izan duelako horrela daude idatziak. Hoskidetzaren behar izanak bultzatuta suertatzen da aldaera hori. Baina ez hori bakarrik: Muxika (eta Gernika) aldeko bokalismoak horretara laguntzen du<sup>327</sup>. Agian bat-bateko bertsoetan eta oso kutsu herrikoia dutenetan<sup>328</sup> erabiltzen du aldaera hori eta gainontzekoetan – UA hobesten du, nahiz eta horretarako aukera izan<sup>329</sup>.

Hurrengo kasuan, ordea, ez dago jatorrizko oinekin berdindu beharrik, sinpletasun eta egiazaletasunaren laguna den herrikoitasuna badirudi islatu nahi dela, Areatza auzoan hain erabilia den txorien gaia tratatzerakoan.

Biotz onekoa da

<sup>327</sup> Echaide, A.M., 1984, 85.

<sup>328</sup> 1960. urtean Olerti aldizkarian argitaratua izan zen “Txepetxa” bertso-sortan –UE azpialdaera hiru bertsotan agertzen da hoskidetza eredu bezala.

<sup>329</sup> “Errekartetxo baserria zan/ bigarren bizi-**lekua** [...]”, (B145b). “Uzparitxako auzonetxua,/ neure jaiotza-**lekua**, [...] maiteko ez banu izango nintza/ zentzunik bako **zorua**” (B042a).



gure **txepetxue**,  
 ain ondo artuteko  
 etxian **kukue**;  
 onek kenduten dautsa  
 umien **lekue**,  
 atzerritarrak ori  
 maiz **egindakue**. (B126b)

Hoskidetasun aldaera honek hobeto islatzen du Enbeitatarren auzoko bokalismoaren (eta ondorioz, hizkeraren) joera. Bertsoaren gaiak ere Enbeitatarrek eta ingurukoek (“Garriko” bertso-eskolakoek<sup>330</sup>) jorratu zuten tematika ondo islatzen du. Maila desberdineko gertaera hauek bertso berean agertzea ez da kasualitate kontua gure ustez. Bertsolaria horren jabe izan ez arren, inkontzienteki mezuaren eduki samurrak fonetika familiar batek lagundurik joan behar du.

Hurrengo bertsoa 1963koa da. Ordurako Balentin Enbeita berriro hasita zegoen bat-bateko eta plazako (jendaurreko) bertso gintzan:

Ikusten dira filosofoak  
 gizon argi ta altsuak,  
 teknika eta rima-kontuan  
 bertso-zale jakintsuak.  
 Baña gatzta ta piperra palta,  
 ez dira orren gozuak;  
 erriak askoz naiago ditu  
 Uztapideren bertsuak. (B154a).

Aztertzen ari garen hoskidetza eredu honen aldaera bat dugu hau: -UAK. Oin guztiak pluralean daude eta hori da azkenean **-ak** artikulua plurala eramatearen arrazoia. Nabarmentzekoa da **-uak** bukaera baino lehenago sibilantea agertzen dela, afrikaria hiru kasutan eta frikaria kasu baten: *altsuak*, *jakintsuak*, *gozuak*, *bertsuak*. Honek hoskidetasuna aberastu egiten du, Balentin Enbeitaren bertso gintzan antzematen den prozesu bat. Aberastasuna aipatu dugu, eta kasu honetan aberastasuna horrela ulertzen dugu: hoskidetasunaren zabaltzea, hoskidetasunak fonemen kopuru handiagoa hartzen duelarik. Eztabaidagarria da, bestaldekik, “aberastasun” horrek benetako ekarpen positiboa edota onura dakarkion bat-bateko bertso gintzari.

### 1.2.2. –(R)IK (8)

<sup>330</sup> Garriko bertso-eskolakoek zaletasun berezia adierazten dute txori eta hegaztiei, Balentin Enbeitak bezala. Esaterako, 1960. urteko martxoaren 5ean bi bertso-sorta erregistratu ziren hegaztiei eskainitakoak. Deunoro Sarduik “Birigarroa” izenekoa paratu zuen eta Jon Lopategik “Txindorra”: “Txindor polita sasirik sasi,/ bizi da apal ta ixillik/ txiolioka ixil-mixilka/ ez dau maite zaratarik [...]”, Aldana, P.M., 2000, 165.

Bistan da nagusiki partitiboaren atzizkiarekin egindako hoskidetza dela haxe. Deigarria da, maiztasun handiz erabili ez arren, nolabaiteko maiztasunez erabiltzen dela, eta hori dela kausa aztertzea interesgarria iruditzen zaigu. Oinak egon daitezke partitibo funtzioan edota partizipioan moduzko adberbioaren funtzioan. Funtzio biak bertso berean nahastea izango da ohizkoena Balendin Enbeitarengan, adberbio zentzua nagusi delarik:

Gaurko munduan apaltasuna  
ia dakusta **galdurik**,  
alkar-maitasun zorionsua  
gorroto-soinez **jantzirik**;  
eguzkiaren argia bage  
ezek ez daun lez **bizirik**,  
alkar-maitasun barik be ez dau  
munduan iñoiz **bakerik**. (B038b)

Bertso honetan partitibo zentzua azken oinak bakarrik dauka: “alkar-maitasun barik be ez dau/ munduan iñoiz **bakerik**”. Beste guztiak adberbioak dira funtzioz, partitibo marka daraman lexema partizipio edo adjektiboa izanik.

Erreka-muño guztiak ziran  
lora txukunez **beterik**,  
errekaxua lora artian  
euren orpoa **bustirik**;  
uda azkena eldu da eta  
ez da ikusten **lorarik**,  
errekaxua lengo tokian  
mur-murka doia **bakarrik**. (B054c)

Goiko bertso honetan oin bakar bat ere partitiboan dago. Besteek moduzko adberbioaren zentzua dute (*beterik*, *bustirik*, *bakarrik*).

Mota honetako hoskidetza ugariagoa da hasierako aroetan: isilaldi aroan eta bat-bateko bertsogintzaren hasieran. Hoskidetza honen maiztasuna beherantz doa 70eko hamarkadan eta 80koan. Argi dago, eta agian horrek zerikusia dauka beherakada honetan, hoskidetza kategorialaren antza duela eta bertan oinak bi kategoriei bakarrik dagozkie (funtzioaren aldetik), eta bakar bati morfologiaren aldetik; izan ere, **-(r)ik** atzizki partitiboa dute oin guztiek. Beste eruedetan erakutsi dugun bezala, hoskidetza kategoriala gero eta gutxiago erabiliko du Balendin Enbeitak urteak aurrera joan ahala (70 eta 80eko hamarkadetan batez ere), eta erabiltzen duenean hoskidetza nolabait sofistikatu egiten da:

Gazteak ez dau ezik ikusten,  
zarrak ez dauka **indarrik**;  
bere kemenak amaitzen doiaz,  
ezin jaso dau **adarrik**;  
bere sasoiaren emongo eban  
al eban frutu **ederrik**,  
baña gaztea gaurkua da ta  
ez daki lengo **barririk**. (B239a)

Hemen hoskidetza aberasturik agertzen da; izan ere, **-ik** partikula partitiboaz aparte, aurreko **-rr-** eta **-d-** kontsonanteen presentziak homofonia zabaldu egiten du. Gure ustez ez da kasualitatea 70 hamarkadan egindako bertsoa izatea<sup>331</sup>; izan ere, orduan, beste adibideekin erakutsi dugun legez, sortu zitzaion Balendin Enbeitari hoskidetza aberasteko ardura eta kezka.

### 1.2.3. -LA (6)

Hoskidetza eredu honetan, besteetan bezala, kategoriala izateko joera erabatekoa izan ez arren, badago kategoria bat besteengandik nabarmentzen dena: **-la** konpletibozko juntagailuarekin puntuaren azken lekuan egoten den adizkia (*dala*, *dabela*, *dogula* eta abar). Badaude beste kategoriei dagozkien oinak ere: izenak (*arbola*, *yabola*, *upela*), adjektiboak (*apala*, *motela*, *makala*, *txepela*), adberbioak (*iñola*, *beñola*, *bezela*, *ala*).

Hoskidetza eredu honen erabilera orekatua dela baieztatuko genuke, kategorien aldetik dagoen barietateagatik. Etekin oneko hoskidetza dela ikusten da baita ere, ertaineko maiztasunez erabiltzen delako. Orokorrean erabilera orekatua, beraz. Baina salbuespenik badago, batez ere beste baten mezua azaldu nahi denean edo ustea adierazi nahi denean:

Finlandiako Kirsti Liikanen,  
erakusten daun bezela,  
ikusten dogu biotz aundiko  
garbi ta zintzoa **dala**;  
Euskalerrira etorri iakun  
euskera ikasten beñola;  
ikusten dogu euskera ikasi  
ederto egiten **dabela**,  
esaten dausku euskotar danok  
jakin bear **gendukela**,  
norbere izkuntza ez jakitea  
lotsagarria **dogula**. (B136a)

Bestaldetik, hoskidetza eredu honen peskizan Kepa Enbeitaren bertsoetan bilaketa bat egin dugu eta esan beharra dago oso aldi bakanetan agertzen dela eredu hau<sup>332</sup>. Honetatik ondorioztatu daiteke Balendin Enbeitak ez zuela heredatu eredu hau bere aitaren bertsogintzatik, baizik eta ziurrenera bere bat-bateko jardunean beste lurraldetako (batez ere Gipuzkoako) bertsolariengandik ikasi zuela.

Nabarmentzekoa da Balendin Enbeitak zenbait oin errepikatzeke duen joera. Ez dirudi kasualitatez errepikatutako oin batzuk direnik, baizik eta sare semantiko bat osatzen duten oin batzuk direla. Horixe da behin baino gehiagotan oin hauek agertzearen arrazoa: *arbola*, *bezela*, *iñola*, besteak beste.

<sup>331</sup> 1972an *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratua izan zen.

<sup>332</sup> Berrehun bertsoa inkesta baten lau aldiz baino ez da agertzen -LA hoskidetza eredu. Zehazki hauexek dira aurkitutako bertsoak: K045e, K067g, K088k, K168d.

[...] jarraitu daigun beti lenauko  
euskaldun onak **bezela** [...] (B058b).

Basarrik baita esaten dizu  
letrau bat balitz **bezela** [...] (B084a)

Finlandiako Kirsti Liikanen,  
erakusten daun **bezela** [...] (B136a)

Honelako puntuek aukera ematen dute ondoren konpletibozko esaldi bat egiteko, eta beraz hoskidetza eredu berean jarraitzeko aukera<sup>333</sup>. *Arbola* eta *iñola* oinak, bestalde, maiztasunez erabiltzen dira:

[...] Aundia dogu baña apala,  
ez da arrotuko **iñola** [...] (B153a).

[...] frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere **arbolak** [...] (B155a)

Sinesmena ta itxaropena  
zuzter bateko **arbola**,  
[...] Alguztidunak sortua dala  
ezin ukatu **iñola**. (B225a)

Len bi ziñaten, bat egin zare,  
zuzter bateko **arbola**  
buztarri ori ezin legike  
legez apurtu **iñola** [...] (B260b)

Larogei ta amairu  
urte dituzula  
zortzi seme-alaben  
euskaldun **arbola** [...] (B264a)

*Arbola* oina, hoskidetza honen barruko oin garrantzitsu bat izateaz landa, metafora legez erabiltzen du Balendin Enbeitak sarritan. Hoskidetzarako balioa daukan metafora bat sortzen da horrela, eta hori bertsoaritzaz bezalako ahozko genero baten soililk da ondo baloratua. Bigarren eta hirugarren aipamenetan egitura berbera ikusten da: hasteko, zerbaiten metaforatzat *arbola* oina agertzen da, zerbait sakratu bezala, kontutan harturik ere euskal kulturaren eta batez ere Sabino Arana eta aurrekoengandik<sup>334</sup> jasotako eraginagatik, arbola, eta arbolaren arketipoa den Gernikakoa, gauza sakratutzat hartu izan dela. Metafora hau ezkontza eta fedearen eremu batzuk adierazteko erabilia izan da.

<sup>333</sup>"[...] jarraitu daigun beti lenauko/ euskaldun onak **bezela**/ esan dagien gaur be egizko/ katolikuak **garala**" (B058b); "Finlandiako Kirsti Liikanen,/ erakusten daun **bezela**/ ikusten dogu biotz andiko/ garbi ta zintzoa **dala** [...]" (B136a); . "Basarrik baita esaten dizu/ letrau bat balitz **bezela**/ uste izan arren jantziaren duin/ gizona beti ez **dala** [...]" (B084a).

<sup>334</sup>Gogoratu Jose Mari Iparragirreraren "Gernikako arbola" kantuan "da bedeinkatua" eta "adoratzen zaitugu, arbola santua" esaten dela.

Horren ondorioa oso ondo adierazita dago *iñola* oinarekin; alegia, *arbola* hori ezin dela ez apurtu ez ukatu, hain zuzen ere sakralitatea argi eta garbi lehenago adierazia izan delako.

#### 1.2.4. –(tze)KO (6)

Eredu honen pean kategoria ezberdinetako oinak sartzen dira. Besteetatik gehien nabarmentzen direnak, baina ez alde handiz, bi hauek dira:

- Helburuzko zentzua adierazteko ZERTARAKO kasua, hau da, **–t(z)eko** atzizkia duen sintagma.

- Aditz oina **–ko/ –go** etorkizunaren markarekin.

Maiztasun gutxiagorekin bada ere, NONGO kasua sarri erabilia da, helburuzko zentzuaz eta **–rako** atzizkiaz sortutako sintagma bezainbeste. Hauek dira, beraz, eredu honetan gehien erabiltzen diren kategoriak.

Gaztetxu zagoz aitan biotzan  
maitasuna **ezautzeko**,  
zenbateraiño maite zaitudan  
ez dozu errez **jakingo**.  
Esakun zar bat esango deusut  
gogoan **erabilteko**:  
eun sementzako dala aita bat,  
seme bat ez **aitantzako**. (B032b)

Kategorien nahasketa nabarmenagoa da beste hoskidetasun eruedetan baino. Hoskidetza ere silaba batekoa da: **–ko/ –go**, nahiz eta oin batzuen artean luzeagoa izan:

**ezautzeko**  
**erabilteko**

**ezautzeko**  
**aitantzako**

Eredu honetan, Balendin Enbeitak hoskidetasunari ez dio gehiegi eskatzen, gutxienezko hoskidetasun bat baino ez:

Alperra beti atxaki billa  
nundik lanai iges **eingo**,  
ta fiña barriz bizko lanera  
nun ogia **irabaziko**.  
Janagaz baño bere lanagaz  
gogoratzen da **geiago**,  
alperra barriz mairako gertu  
nok jaten emon **balego**. (B052b)

Nahiz eta hoskidetasuna azken silaban kokatzen den, hartan ere aldaera bat dago: **-ko/ -go** aldaera hain zuzen.

Beste ereduekin erabili zuen ohiturari jarraituz, bere bertso gintzaren azken aldera kategorien erabilera aberastu zuen Balendinek. Horren froga bat 1986an argitaratutako bertso idatzi batean ikus daiteke:

Agur ta erdi Satur  
Baina ez **betiko**  
Egunen baten berriz  
Gara **alkartuko**  
Nahizta lurrak iruntsi  
aldi **baterako**  
Zure espiritua  
Ez da **ustelduko**  
Zer da gure bizitza  
Hori ez **baleko** .(Bb165a).

### 1.2.5. -TA (5)

Eredu hau aztertzean gauza bat argi eta garbi nabarmentzen da: oin gehienak partizipioaren kategoriari dagozkio eta, funtzioa kontutan hartuta, adberbioak dira: **-ta/ -da** partizipioaren atzizkia daramate nagusiki. Askoz maiztasun gutxiagorekin baina beste kategoriak baino sarriago **Adizkia + eta** egitura kausala dugu. Izen arrunta ere honen pareko maiztasunez agertzen da. Gure inkestan, ustea adierazteko erabiltzen den **-ela eta** egitura birritan aurkitu dugu.

Ariatzako jaiek  
amaitu **dira-ta**,  
gaztedi guztia dau  
erdi **tristetuta**;  
janak **amaituta**  
zagiak **ustuta**,  
gitxi ardura barriz  
balegoz **pageuta!**  
Pazentzia artu biar  
egingo **dira-ta!** (B029b)

Lehenengo bertso hau, nahiz eta oso goiztiarra izan, “ixilune” aldikoa (1944an idatzitakoa) hain zuzen, ikusten da kategoria desberdinak erabiltzeko ahalegin bat. Bi *dira-ta* erabiltzen ditu baina lehenengoa neurri txikiko kausa edo arrazoa adieraziz (*dira eta*<sup>335</sup> egituraren parekoa litzateke, zeina erabiltzen baita ustea ere adierazteko) eta azkenekoan indar gehiagoko kausa adieraziz.

<sup>335</sup> “Egitura honek zer dela eta? galderari erantzuten dio, eta normalean <<-LAKO>>k baino kausaltasun ahulagoa adierazten du. Bistan denez, <<-LA>> konpletiboari eta juntagailua gehituz osatzen da”, Zubiri, I., 2000, 706.

Ainbesteraño maite ninduen  
 neure ama eta **aita**,  
 ainbeste jolas pozezko ein neban  
 neure baserri **polita**,  
 nire biotzak itxiko ete dauz  
 baztertu edo **aztuta?**  
 Ez, lur onetan jarten ez baiat  
 neure zentzuna **galduta!** (B044b)

Erakusten dugun bigarren bertso honetan lehenengo bi oinak ez dira partizipioak, izena eta adjektiboa baizik. Hirugarren eta laugarren oinak, ordea, bai, partizipioak dira: *aztuta* eta *galduta*.

Bertsoak zentzu deskriptiboa berenganatzen duenean oso ondo dator partizipioaren erabilera, mezua zertzelada askorekin transmititu edo komunikatzeko. Ñabarduraren indarra horrela agertzen da eta hori ahozotasunean berebizikoa da; izan ere, ñabardura baten bidez grafiko bilakatzen da atzean legokeen teoria abstraktuago bat. Komunikazioa bat-batekoa da (bertsolaritza bezala). Hori bai, gramatikaltasunaren pluraltasunaren aldetik aberastasuna galtzen du. Hona hemen adibide bat, non Jesusen Nekaldia deskribatzen den:

Zigorkadakaz gorputz guztia  
 goitik beraño **aulduta**,  
 Jesus badoia Golgotarantza  
 kurtze astuna **artuta**;  
 jausi ta jagi, badoia aurrera  
 gorputza **indargetuta**,  
 obenen erruz laster da Jesus  
 kurutze baten **josita**. (B151a)

Oin guztiak kokatzen diren sintagmetan funtzio berbera antzematen da: modua adierazten da, ekintza hori, kasu honetan Jesus heriotzara bideratzea, nola burutzen den azaltzen duena, beti ere moduaren muina partizipioarekin adierazten delarik. Deskripzioa nagusi denez ez dago dialektikarik, kontrajarpen nabarmenik: bertso honekin Balendin Enbeitak bilatzen duena egoera baten deskripzio egokia egitea da, eta horretarako erabiltzen du “Jesusen eriotza” bertso-sortaren aurrenekoa. Ekintzaren narrazioa, galdera erretorikoak eta gogoetak geroago etorriko dira, eta oinei erreparatuz kategoria desberdinen erabilera beharko da, baina bertso-sortako lehenengorako ez, egoera bat baizik deskribatzen ez delako.

Beste egoerak deskribatzeko ere partizipioaz (adberbioaren funtzioaz) baliatuko da Balendin Enbeita:

Zorioneko gau illuneko  
 ibilleria dala-ta,  
 eleiz-gizonak aspalditxuan  
 dabile naiko zarata;  
 gaztiak barriz zetan esan bez,  
 gaur asko dakie eta,  
 eurai begira gurasoak be

gabiz erdi **txoratuta**,  
 diñogularik: Gaurko gaztiak,  
 asko ikusten dabe-ta,  
 gau-txoriaren filosofian  
 asko dauz **aurreratuta**;  
 orgaitik dabiz listotxuenak  
 gaba eguntzat **artuta**.  
 Eta ondiño guraso asko  
 pozarren au **ikusita ...**  
 Ostera ere ibil biarko  
 abarka zarrak jantzita. (B161b)

Guraso eta seme-alaben arteko erlazioa nola gertatzen den adierazteko partizipioa erabili du. Azken oina partizipioan ere badago: *jantzita*. Azken hau ez da erabiltzen egoera berbera adierazteko, profetizatu duen etorkizuneko egoera deskribatzeko baizik, metafora baten bidez. Ondorioztatu daiteke, beraz, hoskidetza eredu hau egokia dela zama deskriptiboa duten bertsoetan adierazteko. Behintzat Balendin Enbeitak horrela erabiltzen duela ikusi dugu.

### 1.2.6. –AZ (5)

Hoskidetza eredu honi bagagozkio bi dira nabarmentzen diren kategoriak. Aurreneko postuan maiztasuna kontutan hartua –**z** atzizkiarekin eratzen den kasu instrumentala dugu. Bigarren postuan bizkaierazko soziatibo kasua (-*agaz*, -*gaz*, -*ekaz* atzizkiekin<sup>336</sup>).

Ez da harritzekoa instrumentalarekin hoskidetza eredu bat sortzea; izan ere, kasu honen erabilera oso zabala da<sup>337</sup> eta egoera askotarako erabilgarria. Bertsolariek erabilgarritasun edota malgutasun hau eskertzen dute; izan ere, bat-batean aritzeko aukera zabalak ematen ditu.

Urtia jua, urtia etorri  
 neure zentzuna **betiaz**,  
 geruau geiau gogoratzen naz  
 neure baserri **politaz**;  
 gazte aldiko zorun-bizitza  
 eta jolasak an **dodaz**,  
 au dala bide ezin naz aztu  
 neure jaiotza-**lekuaz**. (B044a)

Ego aldeko aize epelak  
 bere irrintzi ta **orruaz**  
 zugatz guztien orri igarrak  
 lurrera jaurti **daruaz**;  
 eta lur onek arutzen ditu  
 “neuriak zare!” **oiuaz**,  
 udako jazki apain guztiak

<sup>336</sup> “Jakina denez, -ekin kasu-marka honekin batera -gaz (-kaz, pluralean) ere erabiltzen da bizkaieraz:

? mugagabea: (a) Zein adiskidegaz (b) Jonegaz

? mugatua: (a) Txakurragaz (b) Zaldiagaz”, Euskaltzaindia, 1985, 426.

<sup>337</sup> Ibidem, 431-433.



lur bigurtzera or **duaz**. (B054b)

*Dodaz* eta *daruaz* oinak hoskidetasunaren barruan sartzen dira, nahiz eta instrumentalaren kasukoak ez izan. Salbuespenak dira honelako oinak, baina nabarmenduko genuke bizkaierak kasu honetan Balendin Enbeitari aukera ematen diola, hoskidetza honen zerrenda zabaltzeko<sup>338</sup> –**az** pluralgile bizkaitarrari ezker (azken bertsoaren *daruaz* oina horren adibide bat dugu). Gauza bera gertatzen da bizkaieraren sozietiboarekin: kasu hau erabiltzeak hoskidetza eredu honi dagozkien oinak sortarazten ditu. Hona hemen adibideak:

Ai, ze pozik gagozan  
geure Goiz-**Argi'gaz**,  
baserritarrentzako  
daukazen **gauzakaz!**  
Asko ikasi geinke  
berau **artuagaz**,  
eta polito bizi  
**irabaziakaz**. (B109b)

Kas-kas atea joten eutsien  
bardin egun eta **gabaz**,  
eta guztiak artzen ebazan  
“Ator aurrera!” **esanaz**.  
Gaiñera zenbat alikatu be  
beretzako **eukanagaz**,  
guztiak pozez geratzen ziran  
bere esku **zabalagaz**. (B146a).

Hau da Enbeitatarren ezaugarri berezietako bat. Bizkaian Gipuzkoako zortzikoaren tradizioa sartzen ahalegindu ziren arren, gipuzkoarrek erabili ezin dituzten oin batzuk (bizkaierazko kasuek aldaera berezi bat dutelako) erabiltzen dituztela. Ez bakarrik hoskidetza eredu honetan, besteetan ere bai. Adibidez:

*dautsa* / *baltza*<sup>339</sup>  
*deuskue* / *lekue* / *eskue* / *gaitue*<sup>340</sup>

<sup>338</sup> Gaur egun normalduz doa bizkaieraren erabilera bertsoan aritzeko. Lan tresnak ere argitaratu dira. Xabier Amurizak (1996), esaterako, bizkaieraren hiztegi errimatu bat eskaintzen du. Horren barruan AS-AZ eta KAZ-TAZ hoskidetza ereduarentzako eskaintzen du oinen zerrenda bat (Ibidem, 96-97). Berorren barruan adizkiak ditugu pluralgilearen markarekin (*daukadaz*, *daroadaz*, *jataz...*), adberbioak (*aurretiaz*, *hegaz*, *tarras*, *berariaz...*) eta sozietiboaren markarekin sortutakoak (*zugaz*, *amagaz...*).

<sup>339</sup> “Goizean zuria ta/ atsaldian **baltza**,/ eten bako txurrutai/ an ekiten **dautsa**,/ artzen dabe matsa,/ ezin dira alta,/ gorputza kili-kolo,/ aurpegia motza,/ ez dabe falta izaten/ kokoloen antza.” (B028a)

<sup>340</sup> Zenbait kasutan Balendin ondo baliatzen da Mendebaldeko bokalismoaz hoskidetzarako komeni zaionean. Esate baterako, 1960. urtean plazan kantatutako bertso baten honela zioen: “Arenaleko giro ederra/ bildurrez kendu deuskue/ Bertso txapela jokatuteko/ berebiziko lekue/ Gorri-adardunok burrukarako/ hartu ez daigun eskue/ Badaezpadan zezen plazara/ torotzat sartu gaitue” (Bb068a). Balendinek, bai idatziz bai bat-batean, nagusiki *eskua* edota *lekua* bezalako formak erabiliko ditu, erabilera hedatuagora makurtuz, azken silabaren itxidura egin gabe. Honelako kasuetan ostera, hoskidetzaren behar izanak bultzatuta, joera lokalagoa hartzen du, *deuskue* adizkiarekin bat datorrena.

*danetan/ ernetan/ tapetan*

### 1.2.7. -RRA(K) (5)

Atal honetako azken eredu honi dagokionez, nabarmenduko genuke izenak eta adjektiboak direla gehienbat ointzat erabiltzen direnak. Jentilizioak ere ematen du aukera zenbait oin sortzeko.

Guztiak maite genduan geure  
Aita Matin **karmeldarra**,  
euskaldun sendo, biotz aundiko,  
jakintsu, apal, **azkarra**.  
egi biribil mamitsu askon  
egizko egille **bakarra**;  
nai ta nai-ezik, on artu bear  
bere betiko **agurra**. (B128b)

Azken bertso honetan aipatutako hiru kategoriei dagozkie oinak:

- Jentilizioa: *karmeldarra*.
- Adjektiboak: *azkarra, bakarra*.
- Izena: *agurra*.

Aipagarria da, baita ere, Balendin Enbeitak behin baino gehiagotan erabili zuela eredu hau neurri luzeetarako (9 eta 12 puntuetako bertsoetan) bat-batean kantatzen zuenean. Hona hemen bi adibide:

(Donostiako "Astoria" antzokian egin zitzaion omenaldi baten. 1975eko otsailaren 3an)  
Bertsolarien garaitza dala  
dirudi gaurko **batzarrak**  
Holan dinoe heldu jakuzan  
telegramaren **izparrak**  
Gaur Donostian ikusten ditut  
Areitzan zazpi **adarrak**  
Bertso kantuan pozez jolasten  
bere orri ta **ezkurak**  
Bidasoz handi, Benaparrakin  
zubero, **Lapurditarrak**  
Urez hemendik, Bizkai, Gipuzko  
Arabar eta **Naparrak**  
Bertsolari bat omendu guran  
heldu diran **euskotarrak**  
Hainbestekorik entzun merezi  
kantuan dagon **txindorak**  
Guzti haugaitik anai arreboi  
danoi bihotzez **eskarrak**. (Bb170a)

Erroman, 1983ko urtarrilaren 30ean Aita Domingo Iturrarte Dohatsu egin zutenean, San Pedron. Aita Santu eta Kardinaleen aurrean kantatutako bertso bat.

Aita Santu Jaun Agurgarria  
 Agur eleiza **kistarra**  
 Ate zabalik hartu gaituzan  
 aberri **italiarra**  
 Aita Domingon omenez dogu  
 eratu garuko **biltzarra**  
 Eusko fedea bizirik dala  
 argi dirasukun **lizarra**  
 Baina mirabe, nekez bizi da  
 gure Euskalerra **zaharra**  
 Justizi eta nortasun eske  
 urratu dau **deadarra**  
 Aita Domingo, zure bitartez  
 betor Jaunaren **indarra**  
 Amaitu hainbat Herri ta gizon  
 erru bakoen **negarra**  
 Hil gorrotoaren **garra**  
 Biztu maitasun **izarra**  
 Mundu hau dadin Herri ta gizon  
 askeen sendi **bakarra**  
 Hau da Euskadik nire bertsoan  
 gaur dakartzuen **izparra**. (Bb177a)

Ikus ditzagun oinen kategoriak. Lehenengo bat-bateko bertsoan izenak eta jentilizioak besterik ez ditugu:

- Izenak: *batzarrak, izparrak, adarrak, ezkurak, txindorrek, eskarrek.*
- Jentilizioak: *lapurditarrak, naparrak, euskotarrak.*

Bigarren bertsoan, ordea, beste kategoria bat ere erabiltzen da, adjetiboa hain zuzen:

- Izenak: *biltzarra, lizarra, deadarra, indarra, negarra, garra, izarra, bakarra, izaparra.*
- Jentilizioak: *italiarra.*
- Adjetiboak: *kistarra, zaharra, bakarra.*

Oin asko eskaintzen dituen eredua dugu hau, eta bat batean aritzeko Balendin Enbeitaren gustukoa.

Oinen sare bat edo beste antzematen da. Adibidez, jentilizioek ematen dute sare semantiko txiki bat osatzeko aukera: “[...] Bidasoz handi, Benaparrakin/ zuberu, **Lapurditarrak**/ Urez hemendik, Bizkai, Gipuzko/ Arabar eta **Naparrak**/ Bertsolari bat omendu guran/ heldu diran **euskotarrak** [...]”. Atzizki berberarekin eratutako oinak dira baina progresio bat adierazten dute. Lehenengo biak lurralde zehatz bateko jentilizioak dira. Hirugarrena<sup>341</sup>, ostera, aurreko biak hartu edo biltzen dituen jentilizioa da,

<sup>341</sup> Hain zuzen hiru jentilizioak aipatzea, eta hirugarrenean tasun hori gehitzea (orokortasuna edo biltzaile izaera duen euskaltasuna) ez da kasualitatez egina. Izan ere, Jon Kortazarrek (2000, 18) adierazten duen

*euskotarrak*. Kepa Enbeitaren azterketa aurreko atal baten egina dugula aprobetxatuz, gogora dezagun bere bertso bat:

Anayak gara laburditarrak,  
Zuberotar ta **naparrak**,  
Anayak baita gipuztarrakin  
Arabar ta **bizkaitarrak**;  
Gustijon Ama dogu Euzkadi,  
Gu beren seme **bakarrak**:  
Au ezaturik alkartu dira  
Argentina'n **euskotarrak**,  
Anayak alkar lagundu eta  
Jaboteko Lagi-Zarrak. (K122h)

Hemen ere hiru jentilizio erabiltzen ditu hoskidetzarako eta hirugarrena aurreko biak biltzen dituen da: *euskotarrak*. Hau Enbeitatarren ideologiarekin bat datorren baliabide bat da. Gainera honen bidez argi geratzen da arlo morfologikoak eta *dispositio*-aren ordenamendu zehatzak esanahiarekiko (semantikarekiko nahiago bada) duten lotura. Gure ikerketaren helburuen artean ez dago Jon Enbeitaren bertso gintza aztertzea. Hala ere, argigarria delakoan, ondorengo azterketa baterako ildo bat iradokitzen dugu ondorengo adibidea aipatuz. Izan ere, badirudi Jon Enbeitak zerbait jaso duela joera honetatik. Bere aitite Urretxindorrari bat-batean botatako bertso baten honela zioen:

Ekaitzak ez dauz onoz lehertuko  
zuk ereindako zuztarrak.  
Lehenengo arkaitzak haustuko dira  
zerutik jausi izarrak.  
Zin dagitzugu bizkai, gipuzko  
araba eta **nafarrak**  
lapurdi eta ziberorekin  
Amaren seme **bakarrak**. (zin24)

Hemen ere, aurretik agertzen diren jentilizioak (nahiz eta oinak ez izan) “bizkai, gipuzko, araba eta nafarrak” jentilizioa zentzuz bilduta dago “Amaren seme bakarrak” sintagman.

## 2. Ondorioak

- a) Balendin Enbeitaren hoskidetza ereduak ildo nagusitan bat datoz bere aita Urretxindorraren ereduarekin, batez ere maiztasunez erabiltzen diren ereduarekin. Hala ere, esan behar da ereduaren zerrenda antzerakoa den arren, Balendin Enbeitak maiztasuna banatuago duela, hau da, eredu nagusien artean ez dago horrenbesteko alderik. Urretxindorrek 6 eredu erabiltzen

---

bezala, ahozkotasanak gogoko du hirukoiztasuna: “Oralitaren baliabiderik garrantzitsuenetako bat hirukoiztearen formula litzateke: bai ekintzei dagokienez, bai pertsonaiei, bai esaldiei, bai objektuei; hiru bider agertzen dira”.

zituen nagusiki, eta beste 33 ereduak askoz gutxiagotan. Balendinek, ostera, badu maiztasun ertaineko eredu en multzo bat, Urretxindorrarena baino zabalago eta aberatsagoa. Badirudi beste bertsolariekin izan zuen harremana (bere auzoko bertso eskolakoekin, Gipuzkoakoekin) alde horretatik aberasgarria suertatu zitzaioa.

- b) Zenbait kasutan ikusten da Balendin Enbeitak eusten diola bere aitaren tradizioari oinen sare batzuetan. Beste sare batzuk bidean galdu dira, ostera.
- c) Oinen sarea aztertuta haxe antzematen da: lotura semantiko esanguratsu bat eratzen den kasu jakinetan, oinen sare horiek erabiltzen jarraituko dira eta tematika antzeratsua duten bertsoak osatzeko erabiliko dira, behar diren moldaketa eta aldaketak burutuz. Esate baterako, euskal lurraldeen jentilizioak (bizkaitarrak, nafarrak, e.a.) “bakarrak” adjektibo biltzailearekin batera egindako sarea adibide argigarria da.
- d) Hoskidetza eredu batzuk bizkaiera edo mendebaldeko euskalkien ezaugarriak aprobetxatuta lantzen ditu. Hala ere, forma hedatuenetara jotzen du gehienetan, eta hori dela eta ez du egiten mendebaldeko euskalkiaren erabilera sakonik, lantzean behingo kasutan baino.



## **8. kapitulua**

### **Azken puntua**

## **0. Sarrera**

Ahapaldiaren alderdi hau aztertzeko egokia iruditu zaigu Balendin Enbeitaren bertsoen inkesta bat egitea. Hoskidetza aztertzeko egin dugun bezala, kapitulu honetan aztertzen diren emaitzak berrehun bertsoen azken puntuak kontutan hartu ondoren jasotakoak dira. Bertso haien azken puntuen sailkapen bat egiten ahalegindu gara puntuaren izaera eta sintaxia kontutan hartuta. Eredu nagusi batzuk ateratzen saiatu gara.

Arlo semantikoari erreparatuta, hauexek dira azken puntuetan aurkitu ditugun mezu motak:

enfasia  
helburua (- agindua)  
ondorioa (- baldintza)  
sententzia  
kexa  
desioa  
deskripzioa  
azalpena  
inprekazioa  
apelazioa  
aholkua  
kontrastea  
predikzioa  
modua  
esker ona  
harridurazko deiadarra  
galdera erretorikoa  
zehir galdera.

Mezu mota hauen sailkapena maiztasunaren arabera egin daiteke:

- A) Maiztasun handiz agertzen diren azken puntuak.
- B) Maiztasun ertainez agertzen diren azken puntuak.
- C) Gutxitan agertzen diren azken puntuak.

Azken puntuaren azterketari ekiteko orduan, egokia iruditu zaigu inkesta bat egitea; garai desberdinetako bertsoak ikusterakoan, azken puntu horien ezaugarri nagusiak zeintzuk diren eta maila desberdinetako arloak kontutan



hartuz eredu nagusiak antzematea. Esan bezala, berrehun bertsotako azken puntuak aukeratu eta sailkatzen saiatu gara. Bereziki ezaugarri sintaktiko eta semantikoak dira aztertutako bi alderdiak.

## **Azterketa, “mezu motak” edo alderdi semantikoa eta agerpenen maiztasuna kontutan hartuta.**

### **1. Maiztasun handiz agertzen diren azken puntuak**

Neurriak edota zenbakiak baloratzeko tenorean arbitrietateren bat egin behar izatea usua izaten da. Gu horixe bera egin beharrea aurkitu gara eta, beraz, erabaki dugu maiztasun handikotzat ematea azken puntuak baliabide edo egitura jakin bat hamar aldiz baino gehiagotan agertzen baldin bada.

#### **1.1. Agindua-helburua binomioa**

Helburua adierazten duten azken puntuak ugariak dira Balendin Enbeitaren bertsoetan, eta egin dugun inkestak horixe adierazten digu; izan ere, helburua adierazten duten egitura gramatikalak 13 aldiz agertzen dira. Desio baten adierazpena da askotan helburuzko subjuntiboarekin aditzera eman nahi dena. Desio horiek kategoria hauetan sailkatuko genituzke:

- Arazo zenbait konpontzeko nahia.
- Pertsona zein izaki batzuei ona opatzea.
- Entzuleari jardunbide bat proposatzean, horren helburua azaltzea, arrazionalki berengana dezan.

Hauexek, besteak beste, izaten ohi dira helburuon norabidea, beti ere ukitu didaktikoa eskaintzen delarik.

Jadanik Kepa Enbeitaren azken puntuoen erretorika aztertu dugunean (bigarren kapituluak), binomio honetaz aritu ginen.

Forma aldetik, helburua adierazteko modu bi erabiltzen ditu Balendin Enbeitak:

- **T(z)eko** atzizkia.
- Subjuntibozko aditzak (beste guztiak).

Baina, arestian esan bezala, ekintza baten helburua azaldu ez ezik, agindu baten helburua zein den azaldu egiten da sarritan. Hona hemen horren adibide batzuk:

[...] **egin daiguzan** gauzak  
al danik onduen,  
urrengoak be **euki**

**daien** akorduen. (B028b)

[...] Belen **maite dagigun**  
gogo, biotz ta adin,  
pozez **bizi gaitazan**  
Sendi Deunarekin. (B031b)

[...] **emon egizu** indarra, Ama,  
arantzak **eruateko**  
or goian gero lora artian  
Zeugaz **bizi izateko**. (B041a)

[...] **jarraitu daigun** beti lenauko  
euskaldun onak bezela  
**esan degien** gaur be egizko  
katolikuak garala. (B058b)

Baldintza-ondorioa binomioa (egitura sintaktiko eta esanahiaren aldetik) errekurtso erabilienetariko bat da. Bertsoari amaiera ematerakoan, oso errekurtso erabilia da beste bertsolariengan ere. Hortaz, Balendin Enbeita honetan orijinala denik ezin da esan. Erabilera ugari hau bertsolaritzaren izaera tradizionala frogatzera dator, beraz: orijinaltasuna ez da bilatzen. Bertsoaren indarra azken puntuan baldintza eta ondorio batekin adieraztea errentagarritasun komunikatibo handikoa da, hain zuzen entzulegoaren erregistro sintaktiko eta semantikoan errez aurki eta berenganatu daitekeelako, eta mezua esaldi grafiko baten laburbiltzen delako.

Hau, bistan da, bere aita Keparengandik jaso duen ezaugarria edota joera da. Aita-semearengan ezaugarri bereizgarria da beste bertsolarietako: ez beste bertsolarietako erabiltzen ez dutelako, enbeitatar hauek nabarmenki eta maiztasun bereziz erabiltzen dutelako baizik.

## 1.2. Ondorioa sententzia zentzuaz

### 1.2.1. Baldintza-ondorioa

Askotan, baldintzatik ondoriora doan lotura izaten da azken puntuaren ardatza. Sarri askotan, eta bertsoan esandakoaren laburpen modura, baldintza eta ondorio bat planteatzen du Balendin Enbeitak. Gehienetan, ondorioa azkenerako uzten da. Ondorioa (gutxiagotan baina) baldintza puntu baten inguruan kokatzen da eta ondorioa hurrenagokoan, "baldintza-ondorioa" ordena usuena izaten delarik. Beste batzutan, azken puntuan bertan ager daitezke elementu biak.

Hurrengo bertsoa, baldintza-ondorioa egituraduna da goitik behera:

Jauntxoak ez **badira**  
kontzentzian **jarten**  
eta gerrako tresnak  
ogi bihurtuten  
Herri menperatuen

kateak kenduten  
 Bakoitzari berea  
 on bidez emoten  
**Zaila dabe indarrez**  
**Bakea egiten.** (B174a)

Lehenengo puntuan egiten da lehenengo baldintza, eta ondorengo hiruretan, alborakuntzan, beste hiru baldintza ditugu. Azken puntua baldintza horien ondorioa dugu, maxima edo baieztapen kategorialaren izana berenganatuz.

Baldintza-ondorioa egitura, ordea, inplizituki ager daiteke, edo beste modura esanda, baldintza batzutan ezkutuan doa bertsoaren zentzuan, ez ageriko egituran:

Gaurko munduan apaltasuna  
 ia dakusat galdurik,  
 alkar-maitasun zoriontsua  
 gorroto-soinez jantzirik;  
 eguzkiaren argia bage  
 ezek ez daun lez bizirik,  
**alkar-maitasun barik be ez dau**  
**munduan iñoiz bakerik.** (B038b)

Bertso honetan, zenbait balio onen galeraz kexu agertzen da egilea. Hirugarren puntuan moduzko konparazio bati hasiera ematen zaio. Konparazio horren bigarren atala azken puntua da, ondorio modura adierazia. *Alkar-maitasun* hori galzorian dagoen balio on bat da, eta laburbilduz, horren fruitua den bakea ere galzorian dago. Beraz, *alkar* maitasun hori galtzen bada, eta haxe da baldintza inplizitua, bakea arriskuan dago. Hau guztia kontudentzia gehiagoz adierazten du, jakina, ukazio kategorial baten bidez, hain zuzen: "alkar-maitasun barik be **ez dau** munduan **iñoiz**<sup>342</sup> bakerik".

### 1.2.2. Ondorio sententziosoa

Ondorioa adierazten denean ez da agertzen beti eta derrigorrez baldintza baten ondoan. Askotan<sup>343</sup> ondorioa bertsoan adierazitakoaren hondarra edo laburpena izaten da. Ondorio hori sententzia modura adierazia izaten da, baieztapen kategorialetarako aukera nabarmena eskaintzen duelarik. Ondorio hauek, gainera, badute zenbait ezaugarri, nahiko usuak direnak:

- Esaldi bakunak izaten dira, kategorialtasun argirako aukera emanez.

<sup>342</sup> *Iñoiz* adberbio honek, gogoratu beharra dago, enfasi ukitua ematen dio ukazioari. Zentzu enfatiko berbera dauka *iñoik* adberbioak hurrengo bertsoan: "Bezperan batzen gara/ eliza aurrera,/ emetik juateko/ Bixenten <<labara>>,/ guztiok batera/ ardaua edatera,/ zuri eta baltzari/ apuroa eitera;/ ez dau **iñoik** esaten:/ <<Nik etxuat gura!>> (B026c).

<sup>343</sup> Egindako berrehun bertsoetako inkestan, 23 aldiz agertu dira sententzia kutsuko azken puntuak, hau da, emaitzen artean altuena sententziarena da.

- *Izan* edo pareko aditzak erabiltzen dituzte sarri, baieztapen edo ezeztapenetan kategorialtasun hori areagotzeko.
- Ondorio kutsuko sententzia hauetan ez dira falta izaten enfasia adieraz lezaketen zenbait elementu estilistiko.

Errepara diezaiogun bertso honen azken puntuari:

Neure sendiaz jolastutia  
 beti iat atsegingarri  
 maitasunezko jolas orretan  
 zoriontsua naz beti.  
 Jolas ortatik buruko minik  
 iñoiz be ez iat etorri,  
**ardau-gizonak ez dira izaten**  
**bake-bizitzen ongarri.** (B034b)

Bertso hau hobeto ulertzeko jakin behar da beste bertsolari batek botatako bertso baten erantzuna dela. Beste bertsolari horrek, *Tretatxu* ezizenez, iseka egiten dio Balendin Enbeitari tabernatik etxera oso goiz joaten delako, gizon arduratsuegia eta kezkatia dela adieraziz. Balendin Enbeitak bertso honetan argitzen du bere ustez gizon etxekoia izatea oso onuragarria dela eta gizarte zein familiaren bakearen bermea dela. Taberna-gizonak (*ardau-gizonak*), ostera, kalterik baino ez du ekartzen, egilearen esanetan, batez ere familian. Kontrajarpena azkenerako uzten duen arren (gizon etxekoi eta taberna-gizonaren arteko kontrajarpena) esan nahi duenaren laburpen eta ondorioa da.

Ondorengo bertsoa 1983an bat-batean Urkiolako santutegian botatakoa da. Balendin Enbeitak eta bere emazte Klara Ealo ezkondu zirenetik 48 urte pasatu zirela eta, ospakizun bat egin zuten han eta zenbait bertso bota ere:

Urkiolako eleizan gendun  
 buztarria hartu lehenbizi  
 Ordutik ona gorabehera asko  
 egin ditugu ikusi  
 Baina buztarri hori gaur arte  
 ez da lokatu ez hausi  
**San Antoniok bizkar gainean**  
**ondo egin euskun josi.** (Bb179b)

Azken puntua sententzia bat da, metaforaren balio erantsiarekin aberastua. Aurretik esandakoaren ondorio edo laburpena ere badela esan daiteke.

Ondorengoak ama baten egoera latz bat deskribatzen digu:

Begiak malkoz, soiña samiñez,  
 kantua nere otoitza,  
 bertso-kantuan poztu al banei  
 ama minduen biotza.  
 Senarra eta aingerutxo bi,  
 orra iru eriotza,

**amari onek kenduten dautsa**  
**lengo pozezko bizitza.** (B256a)

Badirudi istripuz ama horri senarra eta bi semeak hil zaizkiola. Lehenengo hiru puntuetan, zehaztasun gabe, baina dramatismoz, egoera hori deskribatzen da. Azken puntuak hari mataza guztiak biltzen ditu sententzia batekin: “amari onek kenduten dautsa/ lengo pozezko bizitza”.

*Izan* aditzaren erabilerak ondorioari zama sententziosoagoa ematen dio:

Baseri txuri polit  
 baketsu otzanak,  
 solo, landa, sagardi,  
 zugazti lerdanak,  
 txorien txorrotxio  
 alai gozoenak,  
**menditik begituta**  
**dira ederrenak.** (B049b)

Azken puntuak esaldi bakunaren egitura dauka, eta *izan* aditza erabiltzeaz gain, enfatizazio ukitua dager, *ederrenak* adjektiboarekin gehientasunezko mailan egonik.

Ondorengo azken puntuek erabiltzen dituzten aditzak sententzia argiago adierazteko lagungarriak dira.

[...] Uzparitxa ez **daukat**  
 aztuta uzteko. (B051a)

[...] Oba **izango da** bakean itxi  
 Egillien eskuetan. (B064a)

Azken puntuaz ari garela, arrazonamendu baten ondorioa den edota zioa den bereiztea ez da erraza izaten. Zenbait bertsoan, azken puntua esandakoaren ondorioa izaten da, baina baita esandakoaren zioa edo zergatia ere. Horren adibide bat hauxe litzateke:

Alperrik dira gure  
**mingañezko** lanak,  
**egintza**z ez bagara  
 agizko gizonak;  
 laguntza bearra dau  
 menpean dagonak,  
**onentzat ere bardin**  
**dituguz Gabonak.** (B254c)

Bertso hau “Gabonak dirala-ta” bertso sortan agertzen da, 1972an konposatua. Gabonetan solidaritatearen garrantziaz dihardu Balendin Enbeitak. Gizakion inkoherentziak salatzen ditu sarritan egileak bertso hauetan, beren kontrajarpenak agerian utziz. Kasu honetan ere, horrela egiten du. Beste askotan bezala, hemen ere *mingañez* esaten dena eta benetan egiten

dena (*egintzak*) kontrajartzen ditu. Baztertuta eta menpean daudenen behar izanak agertu nahi ditu, hirugarren puntuan adierazten duenez. Azken puntuan horren ondorioa eta era berean horren zergati simple bezain indartsua, zehazten du: "onentzat ere (pobreak, menpean daudenak) bardin/ dituguz Gabonak".

### 3. Kontrajarpena edo antitesia

Kontrajarpena edo antitesia da, egindako emaitzak adierazi duenez, Balendin Enbeitak azken puntuan maiz erabiltzen duen beste errekurtsioetako bat. Kontrajarpen hori esanahiaren mailan ematen da batez ere, eta alde horretatik semantika arloari dagokion errekurtsioa da.

Sintaktikoki, hala ere, bere isla badu eta bi motatako esaldiekin adierazten da kontrajarpen hau:

- Aurkaritzarekin (*baina* juntagailu aurkariarekin batez ere).
- Menpeko perpaus kontzesiboekin (*nahiz ta, arren, ba ... ere*).

Ikus ditzagun banan-banan.

#### 1.3.1. Aurkaritza

Ixil, ixillik jarri giñian  
txarria egoan kortako atian;  
karnazerua bere gantxoaz  
eta ugazaba arto naikuaz,  
iñozentzian  
oratuteko bere tokian,  
**baña** ametsak utsak ziran. (B046d)

Bertso osoan barrena aipatzen diren asmoak eta planak antitesian daude azken puntuak adierazten denarekin. *Baña* juntagailua da kontrajarpen hori lehenengoz adierazten duena.

[...] gizona beti dabil  
ames aundietan,  
**baña** zorioneko  
amagaz umetan. (B050c)

[...] uda ta negu abesten zendun  
naiz lorak eta edurra,  
**baña** geiago ez dogu entzungo  
zure abesti samurra. (B079c)

Azken puntu hauetan ere *baña* juntagailuak iragartzen du kontrajarpenaren hasiera.

[...] Gu maitasunez aberats ginan  
nahiz ta eukietan pobre  
**Baina** gaur gara sei seme alaba

ta hamairu lobaren jabe. (Bb179c)

Azken adibide honetan kontrajarpena bi aldiz agertzen da azken bi puntuetan. Azkenurrekoan, *maitasunez aberats* eta *eukietan pobre* kontrajarrita daude. Jokabide materialistak garrantzi handiagoa ematen dio ordea, *eukietan* (ondasun materialetan) aberatsa izateari, jakina. Maitasunez aberatsa izatea ez da horren garrantzitsua pentsaera horretan. Balendin Enbeitak, ostera, horixe azpimarratu nahi du alde batetik. Eta bestetik, *eukietan pobre*-ari azken puntua kontrajartzen zaio, beti ere *baina* juntagailuaren iragarpenarekin. Lehen pobre omen ziren baina gaur sei seme-alaba eta hamahiru loben jabe dira; beraz, sendi aberatsa dugu hauxe, familiaren aberastasun bat diren seme-alabei erreparatuta behintzat.

### 1.3.2. Menpeko perpauk kontzesiboak

[...] txiro ta ezer gabe  
Gabon izan arren. (B030a)

Azken puntu honetan kontrajarpena *Gabon* hitzak ekartzen du; izan ere, garai hori eskuzabaltasunaren garaia da, txiroak zaintzeko ardura handiagoa dagoen garaia, errukizko ekintzak praktikan jartzeko deia bortitzagoa den garaia. Hain zuzen ere, garai horretan pertsona baten nahigabeak deskribatzen dira, eta azkenik bere egoera ere bai: txiro eta ezer gabe dago, inor ez da errukitzen beratzaz, bakarrik dago, elkartasuna praktikan jarri behar den garaian. Hementxe dago, beraz, kontrajarpena.

[...] Nahiz ta **gorputza** lurak iruntsi  
**arima** ezin zapaldu. (Bb 173, a)

Ezagun baten aurrean kantatutako bertso baten bukaeran, gorputzaren iragankortasunari arimaren iraunkortasuna kontrajarri zion Balendin Enbeitak.

[...] Hainbat **ikusi** badogu ere  
ez dogu asko **ikasi**. (Bb186 b)

Euskal jendeak gauza asko ikusi omen ditu, baina ekintza horri beste bat kontrajartzen zaio: ikastea. Izan ere, Balendinek euskal jendeak historiaz, lehenaz ez duela eskarmentatu sinisten du, edo behintzat horrela adierazten du bertso horretan.

### 1.3.3. Bestelako antitesiak

Antitesia inongo ezaugarri sintaktiko agerikorekin ere adieraz liteke. Balendin Enbeitak ondotxo zekien hori (ez dakigu teorikoki ala praktikoki), eta horretaz baliatzen da. Maila semantikoan dira interpretagarri kontrajarpen

horiek, eta Urretxindorrek gertatzen zen legez, “ahapaldiko antitesia” eta “azken puntuko antitesia” dira nabarmentzen direnak.

### 1.3.3.1. Ahapaldiko antitesia

Ondorengo bertsoan, Balendin Enbeitak bere arreba hil berriari mezu hau zuzentzen dio:

**Zuzter bateko** larrosak giñan  
 lurrian sortu giñandi,  
 baratza **baten** jantzi zirian  
 gure lorak eta orri;  
**beti alkarraz** pozez beterik  
 bizi zirian lora bi,  
 azken epaiak **banandu** gaitu  
 ene Mirentxu zu ta ni. (B079b)

Lehenengo egoera onari oraingoa kontrajartzen zaio. Lehenengo hiru puntuetan, bere arreba bizi zelarik zer nolako batasuna zeukaten azpimarratzen da. Azkenean, ordea, heriotzak ekarri duen banaketa azpimarratzen da. Azken puntua, beraz, aurreko hiru puntuekiko dago kontrajarririk.

### 1.3.3.2. Azken puntuko antitesia

Antitesia azken puntuan adierazten denean, bi termino antitetiko edo kontrajarriak igartzea erraza izaten da. Horrek esaera zaharraren estilistikarekin zerikusia dauka<sup>344</sup>, eta azken finean, ahozko estiloarekin ere bai.

[...] **Gorrotoa kendu ta  
 Bakea ekarri**" (Bb173b)

<sup>344</sup> Gotzon Garate ikerlariak euskal atsotitzen estilistika aztertzen du eta antitesirako joera “paralelismo antitetikoa” izenburudun epigrafearen pean jorratzen du. Horrela dio: “Esaera askok paralelismo antitetikoaren egitura dute. Bi errealitate elkarren kontra ipintzen dira. [...] Gehienetan bi hemistikiotan osatzen dira. Jazargoa lexema guztietan azal liteke:

<<Aberatsa inpernuko laratza, pobrea zeruko lorea>>.

<<Gizonak ekin, Jaungoikoak egin>>.

[...] Semantikazko kontrastea sarritan aldiari lotua dago:

<<Gau alaiak, goiz tristeak>>

<<Gaur irriz, bihar negarrez>> [...]” (Garate, 1998, 67-68). Bertsolaritzan erabiltzen diren azken puntuetako antitesi asko aldiari lotuta izaten dira ere. Txirritaren bertso bat har dezagun (in Txirrita, Zavala, A., 1992, 469), dozenaka har litezkeen arren: “[...] **lengo segunda** beziñ ederrea/ dago **oraingo tertzera**”. Balendin Enbeitak bera ere horretara jo ohi zuen: “[...] **Gaur sasiz** dagoena/ **lehen** gendun **baratza**” (Bb186a).



Urte berriari egindako eskaera dugu goikoa. Edozein entzulek berehala ulertu eta onetsiko lukeen mezua dugu. Entzulegoarekiko enpatia bilatzen duela argi dago berriro ere.

[...] Geroago ta gogorrago da  
anai arteko ekaitza  
Ta bitartean sasiak jazten  
Euskalerriko baratza. (Bb186c)

Azken honek agerian uzten du egoera salagarri bat, alegia, anaien (euskaldunen) arteko ekaitza (borrokak, liskarrak, beren alde negatiboarekin) goraka doala. Horri, bestaldetik, beste egoera bat kontrajartzen zaio: aberrigintza (bere zentzu posiboan) kontzeptuaren metafora, *Euskalerriko baratza*, alegia, sasiz janzten da, hau da, albo batera lagata, landu gabe dago, usteltzen.

Azken adibidea aipa dezagun, askoz gehiago aipa daitezkeen arren:

[...] **etxondokoa** iñok eruan  
eta **kanpoan** topau ez. (B035b)

Mutilzahar askori gertatzen zaiena deskribatzen du oraingoan. Beren handinahiagatik *etxondoko* neskei ez diete arretarik jartzen, arruntegiak direlakoan akaso. Kanpokoen ametsez bizi dira, eta haiekin liluraturik. Hala ere, ez dute lortzen haien onespena. Bien bitartean, *etxondokoei* beste batzuek erreparatu diete eta haiekin ezkondu dira.

## 1.4. Deskripzioa

Azken puntuan gehien erabiltzen diren errekurtsoen artean deskripzioa dugu. Gure inkestan 21 aldiz agertzen da. Bereiztu egingo genituzke egoera edo itxuren deskripzioak alde batetik, eta bestetik, ekintza edo gertakizunen deskripzioak.

### 1.4.1. Egoera zein itxuraren deskripzioa

Suposatzekoa denez, eta azken puntuaz ari garenez, deskripzio hori ez da izango zeharo objektiboa edota aseptikoa: batzuetan enfasi karga izango du, besteetan subjektibitatea (afektua edo arbuioa adieraziz), edota joera biak batera.

[...] gorputza kili-kolo,  
aurpegia motza,  
ez dabe falta izaten  
kokoloen antza. (B028a)

Gazte batzuen deskripzioa egiten da hemen. Deskripzio honi adierazkortasun sakonagoa emateko asmoz, egilea ukapen batez baliatu da: “ez dabe falta izaten / kokoloen antza”. Badirudi erridikuluan jarri nahi dituela gazte horiek, deskripzio ironiko horrekin: gazteen kezka da itxura bat ematea, baina itxura emate hori gauza arbuigarria da: kokoloaren itxura eman nahi izatea. Horrek ematen du zantzu bat gazte haiei buruz: probetxua eman dezakeen itxura bat eskaini beharrean, gazteon ardura da kokoloen itxura ematea, baita lortu ere. Ironia, beraz, honetan dago: bere arbuioa laudorio batez adierazten da: "ez dabe falta izaten kokoloen antza" (faltatzen ez zaiona gauza ganorabako, eta baliorik gabea da, kokoloen antza, alegia). Litotes irudiaren aurrean gaude.

[...] txiro ta ezer gabe  
Gabon izan arren. (B030a)

Arestian, kontrastea aztertu dugunean, azken puntu berau agertu da ere. Azpisail honetan ere sartzekoa dela uste dugu; izan ere, deskripzio bat eskaintzen da bertan. Bistan da, baita ere, perpaus kontzesiboak funtzio espresiboa bilatzen duela. Deskripzio horrekin batera egilearen sentiberatasunean harrigarria dena adierazia izan da: inolako laguntzarik gabe (*txiro ta ezer gabe*) bizi dela, *Gabon izan arren*, hau da, elkartasun garaia, errukitasuna praktikan jartzen den garaia izan arren.

Gauzen deskripzioaz landa, egoera edo moduaren deskripzio bitxiak ere eskaintzen dira:

[...] Juan ziñian ezketiñoko  
asko dauz zure gomutan,  
orrantza egaz egin gurian  
urre gorrie topetan. (B066c)

*Urre gorrie* dirua edo ondasunen metafora fosildua dugu, eta *orrantza egaz egin* beste metafora fosildua genuke, *horrantz joan nahiean* dabiltzala esan nahi delarik. Egoera bat deskribatzen da beraz: nola dauden Gergorio Barruetaren berri daukatenak (Ameriketara joandako bat, diruz ondo dabilena). Herriko batzuek zorte berbera izan nahi dute eta desio hori daukate: Barrueta bezala, Ameriketara joan eta aberastu.

#### 1.4.2. Ekintzen deskripzioa

Ekintzen deskripzioa kontakizuna dela ere esan daiteke. Hala ere, guk nahiago izan dugu epigrafe honi eustea; izan ere, ekintzak aipatu eta deskribatzean, Balendin Enbeitak ez du kontapoesiarik egiten, ez du asmo narratiborik.

[...] Argi gozotan jarten dozula  
pozez gizadi osoa. (B037a)

Azken puntu honetan ekintza baten deskripzioa eskaintzen da: eguzkiak izadia argitzen du. Deskripzio huts batek ez du indarrik nahiko azken puntuan erabilia izateko. Beraz, bestelako konnotazioekin joan behar du deskripzio horrek. Kasu honetan, egilea pertsonifikatu duen eguzkiarekin agertzen da hizketan: “argi gozotan jarten dozula”. Izadiari ere bizidun baten tasuna ematen dio, *pozez* aditz laguna erabiltzean. *Osoa* determinatzailea erabiltzean, ukitu enfatikoa gehitzen zaio azken puntu honi. Errekurtso eta joera desberdinez osaturiko azken puntua, beraz, bertsoaren indarra gehitzen duena, dudarik gabe.

[...] gogo itunak poztuta jarri  
eta gaxoak osatu. (B037c)

Bi proposizio elkartu agertzen dira hemen. Egileak eguzkiak zer egiten duen ari da deskribatzen. Deskripzio enfatikoa delakoan gaude; izan ere, eguzkiaren ekintza onak pilatzen dira (pilaketa aditz laguntzaileen elipsiaz areagotzen da) eta kontrastez deskribatzen dira: “gogo itunak poztuta jarri” egiten ditu eguzkiak. *Gaxoak* ere *osatu* egiten ditu. Gizaki, edo gutxienez, bizidun bati edo agian boteretsua den izaki bati dagozkion ekintzak dira, eta egileak eguzkiari egozten dizkio. Hortxe dago, beraz, deskripzioaren harrigarria, bertso osoan ez ezik, azken puntuan areagotzen dena.

Ondorengo bi aipamenak “Gabaz ameslari” bertso-sortatik entresakatutakoak dira. Bietan egoera eta zenbait gertakizunen deskripzioa egiten da:

[...] errekatxuan ura mur-murka  
bere eresi itunez,  
noizik noizera kanpaien otsa  
gaben orduak esanez. (B076a)

[...] begi zorrotzez begira dabiz  
nun aurkituko apari. (B077a)

Giro bat sortzeko behar denean, Balendin Enbeitak izadiaren deskripziora jotzen du, eta azken puntua horretarako ere aprobeztatzen da. Izan ere, azken puntua deskripzioa izateak badu bere poetikotasuna: bukaera deskriptiboak arreta gauza zehatz baten uzten du, eta bertsoaren bukaerak ondorengo iradokizun eta hausnarketarako “ixiltasuna” zabaltzen du.

Udazkenari eskainitakoa da hurrengoa:

[...] udako jazki apain guztiak  
lur bigurtzera or duaz. (B054b)

Metafora batekin hasten da azken puntu hau: “udako jazki apain guztiak”. Irudi honek udan zuhaitzek dituzten hostoak eman nahi ditu aditzera, hau da, udan arbolaren *jazkia* izan zirenak, orbelak alegia, lur bihurtzera doaz, hau da, lurrera jausten dira eta bertan usteldu, eta (humus edo lohia) lur bihurtuko dira. Ekintza baten deskripzio laburra da, besteak bezala. Deskripzioa metafora

batez lagundurik doa oraingo honetan ere, ez da deskripzio hutsa. Izadiaren gertaera arrunt bat, hostoen jaustea alegia, nolabaiteko poetikotasunez apaintzen da, izadian lirismoa isurtzeko esparrua aurkituz. Hau Balendin Enbeitaren ezaugarri nabarmena da.

Bertso sorta berberari dagozkio ondoren datozen azken puntu biok:

[...] errekatxua lengo tokian  
mur-murka doia bakarrik. (B054c)

[...] ez da entzungo birigarro ta  
zozoaren abestia. (B055c)

Izadiaren deskripzioa, lehenago adierazi den bezala, Balendin Enbeitaren gustukoa da. Izadiari gizaki edo Jainkoaren tasunak onartzen zaizkio deskripzio hauetan, kasu askotan naturako zenbait elementuen pertsonifikazioa ematen delarik. Azken puntu bi hauek joera horien ispilu dira. “Errekatxoaren murmurka” zein “birigarro eta zozoaren abesti” ezaren aurreikuspen horren adibideak dira.

Gertakizunen deskripzioaz mintzatzea nahiago dugun arren, ez dago garbi non dagoen ekintzen deskripzioa eta kontaktaren arteko muga. Azken puntu batzuek badirudi bietarik dituztela:

[...] baserritxuan amona zarrak  
egin dau lenengo loa,  
ondoan daukan illobatxoa  
lo badau ikusten doa. (B077b)

[...] azken epaiak banandu gaitu  
ene Mirentxu, zu ta ni. (B079b)

[...] Josun on-onak eroan zaitu  
bere eskutik artuta. (B080a)

Dena dela, narratibiteatea egotekotan, oso eskasa eta ahula dela bistan da.

Azken puntua eta azkenaurrekoa lotuta joaten dira Balendin Enbeitaren bertsogintzan, batez ere idatzi egin zuen bertsogintzaz ari bagara. Erakusten ditugun azken puntu hauek, esate baterako, lehenago –azkenaurreko puntuan hain zuzen– aipatu den ekintza baten helburua azaltzen dute:

[...] jaietan edateko  
daukaz ekarriak (zahagiak)  
duban edan dagien  
datozen guztiak. (B026b)

[...] neure gilborra asetu arte  
ugatza emonaz ganoso,  
barrero ere seaskatxura  
egin dagidan lo gozo. (B043a)

## 2. Maiztasun ertainez agertzen diren azken puntuak

Goiko epigrafeak ondoren datozen azken puntu motak maiztasun ertainez agertzen direla baino ez du adierazten. Beraz, asko nabarmendu ez, baina nolabaiteko presentzia duten baliabide edo estrategien berri ematen ahaleginduko gara.

### 2.1. Predikzio edo aurreikuspena

Maiztasun ertainaz bada ere (egindako inkestan 8 aldiz agertzen da), nabarmena da azken puntu mordotxo batek aurreikuspen kutsua daukana. Gehiegikeri bat eaginez profeta funtzioa ematen zaio horrela bertsolariari, ahozko kultura baten honelako dohaina daukana (aurreikuspenak egitearena, alegia) *gizaki prestigiosotzat* hartzen delarik<sup>345</sup>.

Aurreikuspenak, normala denez, etorkizunean daude formulatuta, eta hartzaileari zerbait gertatuko denaren esperantza, edo areago, segurantzaz adierazteko erabiltzen dira. Segurantzaz hori egilearen sinesmen erakusgarri ere izaten da:

[...] emon deiogun pozez  
ostatu beroa  
[...] orde emongo deusku  
betiko zerua. (B030b)

Ez da kasualitate hutsa aurreikuspen joerako azken puntuak erlijio gaia duten bertsoetan agertzea, azken honetan ikus daitekeenez. Erlijiotik gertu

---

<sup>345</sup> Munduan barrena ikertu izan diren ahozko kulturetan, herri poeta ikusketari, bisionario edo ameslaritzat hartua izan ohi da. Profeta izaera ere leporatu izan zaio. Jarrera horiek aztertzen ditu Ruth Finneganek (1992, 207-210): “Another interpretation of the role of oral poets has been put forward by some scholars: namely that the poet is essentially and always a seer or prophet, who reveals what is hidden through divine inspiration and communication with spirits”. Izan ere, herri poetaren eginkizuna erlijioari oso lotuta izan da: “poets indeed often have religious roles. There are the established poets of official religion and the carriers of authoritative religious tradition”. Zentzu honetan, XIX. mende bukaera zein XX.aren hasierako euskal mundua bat dator deskripzio horrekin; izan ere, gehien baten ezagunak ziren bertsolariak erlijioarekiko lotsa eta errespetua erakusten zuten. Bertso asko eta asko (bat-batekoak eta jarriak) gai horren ingurukoak izaten ziren. Xenpelarrek, Pello Errotak edota Udarregik, gutxi batzuk aipatzearen, zeukaten prestigioa, beren gizalegetasunetik ez ezik, euren erlijiotasunetik ere zetorkien. Kepa Enbeita bera bere erlijiotasunean nabarmendu zen. Kultura zaharretan (R. Finneganek ikertutakoetan adibidez), inspirazioa musengandik edo Jainkoarengandik zetorren, eta horregatik poeta beste plano baten kokatzen zen: Jainkoa eta herri xumearen arteko plano baten. Inspirazioa aipatzearen poderioz, topiko bilakatu da joera hori, eta konbentzionala izatera igaro da: “In some cases, references to inspiration to the muse are not evidence that they composed the rest of the poem in an inspired shamanistic trance. So claims to inspiration from supernatural or mystical sources cannot be taken at face value, and do not necessarily mean that the poet speaks in inspired ecstasy” (ibidem). Hala ere, eta Enbeitatarren eremura itzuliz, esango genuke inplizituki nolabaiteko joera zahar horren lorratz bat dagoela zenbait adierazpideren tonuan eta estiloan. Mistizismo horrek, gainera bazeukan giro emankorra garai haietako erlijiotasunean eta sentiberatasun handiko abertzaletasunean. Aurka zeuzkan, osteraz, jadanik sustraiak botata zituen razionalismoa eta errealismo kristaua bera.

dagoen morala edo (agian Kepak sekula erabili ez zuen termino bat erabiliz), etika ere profezia kutsuko aurreikuspenak egiteko eremu emankorrak izaten da:

Alperra sarri ibiliko da  
gizon zintzoen ondotik,  
aingeruak lez itz egin baña  
malizi baltza barrutik;  
zintzoa barriz lanera doia  
sendiaren onagaitik  
**baña** alperrak lasai jango dau  
langillearen lepotik. (B053a)

Moral erlijiosotik herri moralera igaro zen Balendin Enbeita bere azken urteetan. Profeziarako joera, ostera, ez zuen albo batera laga:

Bertsolariok, gogoan izan  
Ez daigun galdu zentzuna  
Bertsolaria dogu Herriko  
bizitzaren oihartzuna  
Herriak argi gordeko deusku  
bertsolarioi entzuna  
Toki danetan agertu daigun  
euskaldun gizontasuna  
Bestela Herriak **emongo deusku**  
justiziko erantzuna. (Bb 192a)

Aurreikuspen horri lotuta oharkizun eta aholku zentzua batera doazela agerikoa da.

## 2.2. Desioa edo nahia adieraziz

Desioren bat edo barne irrikak adierazteko, azken puntua une egokia izaten ohi da. Balendin Enbeitaren bertsogintza sentiberatasunerantz lerratzen denez, suposatzekoa da askotan agertzea. Emaitzetan, ordea, ez da horren agiria joera hori, maiztasun ertainez agertzen baita desio edo ospakizun bat azken puntuetan. Agertzen denean asmo bi hauek sumatzen dira:

- Arazoren bat konponduta izateko desioa.
- Gauza onen desioa.

- Desioa: otoitza baten modura.

[...] baserri eta zelai,  
sagardi, soloak  
euskaldun zaindu bediz  
Aita Jaungoikoak. (B051b)

- Galdera erretoriko baten moduan formulatua.

[...] Olango gauzak emen entzunda

asko dabiz amesetan,  
diñuelarik: <<nor egon leiken  
Barroetaren praketan!>> (B067c)

- Eskaera edo entzuleari zuzendutako apelazioaren bidez.

[...] Parkatu ondo bete ez baditut  
neure Herriko arazoak. (Bb169 b)

- Desioa adierazten duen aginterazko aditzaren bidez.

[...] Baina ahalegina egin dagigun  
garaia datorrenean  
Egiten dana izan daitela  
Aberriaren onean. (Bb170, a)

### 2.3. Apostrofea

Jadanik aurreko ataletan agertu den arren, apostrofeak aparteko trataera merezi duelakoan gaude, eta ataltxo honetan eskainiko diogu geure arreta.

Askotan, bertsoa apostrofe batekin amaitzen da, eskaera batekin, desioa adierazten duen eskaera beharbada, baina eskaera azken finean. Apostrofe edo apelazio hori entzuleari zein beste pertsona edo izaki bati zuzendua izan ohi da. Horren jasotzailea, beraz, zehaztugabea izan daiteke (entzulegoa orokorrean) edota pertsona jakin bat. Bat-bateko bertsogintzan bertsokidea izan ohi da sarri. Gehienetan, agindu baten itxura pean etortzen da, baina batzutan betebeharrak bat enuntziatuz ere bai:

[...] Pazentzia artu biar  
egindo dira-ta! (B029b)

Formaren aldetik, apostrofeotan aginterazko aditza izaten da nagusi:

[...] ondo ibilli gura dabena,  
bardin zar eta gaztedi,  
Muxika-Ormetzen Enbeitak daukan  
txakolinera **etorri**. (B062a)

[...] eta onantza zatozenian  
txanpon askogaz **etorri**. (B068b)

[...] Ariatzako gure  
Garrikoi **deitu**. (B070b)

[...] **Yuadi** ortik eta **itxidak**  
bake deunian bizitzen! (B078a)

[...] or zeru goitik **emaiozue**  
pozaren zatitxu bana. (B080c)

[...] Zahar eta gazte danok

**dagigun jolastu.** (Bb168c)

Apostrofearen eginkizuna ez da bakarrik zerbait eskatzea: zerbait aholkatzea edota zerbaitetaz ohartaraztea ere bada:

[...] Gura badozu artu  
egizko laguna,  
ez aukeratu, Mari  
gabaz iatortzuna. (B075a)

[...]Gure Ama Euskera  
ta ohitura zaharrak  
Horrek doguz Herriko  
jostailu bakarrak  
Kendu guran badatoz  
toreru azkarrak  
Burrukarako ondo  
zorroztu adarrak. (Bb169 e)

Aholkua agindu itxurarik gabea izan daiteke. Esate baterako, baieztapen kategorial soila legez ager daiteke, bokatibo batek lagundurik:

[...] ardaa ez dok, mutillak,  
iturriko ure! (B027a)

Azken kasu honetan, apelazio horrek kontudentzia irabazten du egiten duen esanahien kontrastearekin: *ardaa* eta ura ez dira berdinak, alegia, gauza jakina eta ebidentea dena gazte batzuei azaldu behar izateak, gure ustez, zentzumenaz jokatzeko dei bat gordetzen du bere baitan.

**2.4. Galdera erretorikoa**

Urretxindorraren azken puntuaren estilistika aztertzean, 4. Atalean, hauxe bera aztertzen genuen luze eta zabal. Galdera erretorikoarekin egileak zer bilatzen duen azaltzen genuen eta 4.2. azpiatalean galdera erretorikoak ahozko estiloarekin duen hartu-emanari beha bat bota genion.

Oraingoan ez zaigu geratzen Balendinen erabilera konstatatzea baino. Balendin Enbeitak, bere aitak bezala, ez du baztertzen baliabide hau bertsoan barrena erabiltzeko, eta bereziki azken puntuan erabiltzeko.

Ondorengo hiru adibideak bertso-sorta beretik atereak dira, "Arratia'ko basurdia" izenekoetik hain zuzen. Deigarria da hiru galdera erretoriko agertzen direla azken puntuetan:

[...] badau artoa,  
gari, garagar, baba, pentzua,  
ez al dira, ba, onek naikua? (B046b)

[...] etxeko pentzu  
geienak zituala amaitu.  
Zenbat eingo zan jan ez balitu? (B047d)



[...] eta nok oni  
ain ago fiñeko gizon orri,  
lukainkan egin asto zar ori? (B048c)

Tonu jokosoa duen bertso-sorta da hau eta gai lokal bat jorratzen duena. Gai lokal bat izanik, galdera erretorikoez ez dute dramatismo ukiturik, humore ironikoa baizik. Humore horri eusteko, egileak entzulearen konplizitatezko keinu bat bilatzen du galdera erretorikoen bidez.

Konplizitateaz ari garela, entzulearena bilatzen duten bestelako azken puntuak ekar ditzakegu hona:

[...] gai ontan zuzen ez al dabil, ba,  
Arantzazuko aitona? (B083b)

[...] egun berian gaixotu ta il zan,  
ez al da au miragarri? (B147c)

Dramatismo karga ondorengo galdera erretorikoetan sumatzen dugu; izan ere, bertso-sortaren gaia garrantza da berez: senarra eta seme bi hil zaizkion ama bati eskainitakoa da, "Igor il zaneakoak" izenburuarekin:

[...] beian poz ori nok emon leio  
ama naigabetuari? (B256c)

[...] Batzuk aukeran, nai daben eran,  
beste batzuek sufritzen,  
guztion Aita izanda, Jauna,  
zergaitik gozuz banatzen? (B257a)

Bizitzaren une ilun eta gogorretan gizakioi galderak sortzen zaizkigu, erantzun argirik eta azkarrik ez daukaten galderak. Sentsazio hori adierazteko, Balendin Enbeita galdera erretorikoez baliatzen da berriro ere.

Galdera erretorikoa pozezko zein harridurazko deiadarrarekin nahasten da behin baino gehiagotan. Maitasuna bezalako gai sakon, barnerakoi eta sentibera jorratzen duenean, horrelakoak sortzea usua da:

[...] Maitasunaren azkena, baiña,  
zelan dot nik azalduko?  
Nire biotzak maitasun bako  
unerikan ez badauko? (B121a)

[...] Bizitza dongez galtzen badabe  
goikoan itxaropena,  
lortu ete dabe goi eta beko  
maitasunaren azkena? (B121c)

Balendin Enbeitak egindako galderak izaten du erantzuna ere, modu pedagogikoan adierazitako azken puntutan:

[...] Maitasunaren azkena zer dan?  
Ilda dagoan biotza. (B122a)

### **3. Gutxitan agertzen diren azken puntuak**

#### **3.1. Deiadarra (2)**

Deigarria da deiadarretan horren emaitza gutxi jasotzea, batez ere Urretxindorraren bertsogintzan kopurua handiagoa izanik. Inkestan 2 baino ez ditugu aurkitu, eta beraz portzentualki murrizta da. Hala ere, erabiltzen dugun corpusean beste bilaketa bat egin ostean, beste pare bat adibide aurkitu dugu.

[...] eta aurtxoan irri barria  
ai ze pozgarri amentzat! (B043b)

[...] ordu onian eldu da nigan  
goi-eskarrezko laguntza. (B078b)

[...] baña ixildu zara betiko,  
au tamalaren astuna! (B079a)

Baña ugazaba ez da mankoa,  
tratu barria ein dau sekulekua:  
erosi eban asto gaztia,  
ogei bat urte ondo betia,  
giarratsua,  
lukainkarako aukerakua,  
ez dok makala ein daun tratua! (B048b)

Ezin dugu ahaztu Balendin Enbeitak inguratzen duen giro kulturala desengainuaren giroa dela, zenbait ikuspuntutatik behintzat. Alde batetik, Enbeitatarren pentsaera sostengatzen zuen sinesmenak krisi batzuk jasan zituen 60ko hamarkadatik aurrera. Europako eta Euskal Herriko sinesmen tinkoa ahula bilakatuko da, dogmatismoak arbuiatuko dira, zenbait baieztapen zalantzapean edo erlatibizatuko dira. Erromantizismo berankorreen indartu zen abertzaletasun sutsu eta xaloa kritikatu izango da. Abertzaletasunean hezi ziren batzuk (ETAkoak kasurako, edo Gabriel Aresti arlo literarioan) jarrera kritiko bat hartuko dute tradizio horrekiko, eta marxismo zein existentzialismo jarrerak besarkatuko dituzte. Desengainuaren aroa bizi zen orduan. Balendin Enbeitak hori nola edo hala jasoko du, lurralde baserritar baten bizi arren.

Lehenagoko deiadarrak hiru motatakoak ziren batez ere: pozezko zein harridurazkoak, arrenka eskatzekoak eta jokosoak. Balendinen bertsogintzan beste mota bat agertzen hasten da: atsekabe edo saminezkoa (B079a), existentzialismoaren urrutiko (edo hurbileko) oihartzuna izan daitekeena. Pozezko deiadarrak, osteraz, ia erabat desagertuko dira.

#### 4. Ondorioak

- a) Balendin Enbeitak bere aitak erabiltzen zituen antzerako tresnak erabiltzen ditu azken puntuari dagokionez, hein handi baten ideologia antzerakoa delako.
- b) Entzuleari aholkuak ematearen prozesua, sintaktikoki agindua-helburua binomioarekin burutzen da, bigarren kapituluan aipatzen genuen xede berberarekin (xede implizitu edo inkontzientea izan daitekeen arren): Balendinek bere bertsoekin proposatzen duen jokaera ildoa arrazoizkoa da, zentzuzkoa, gizalegearekin bat dator eta beraz azalpen bat dauka (edo izan dezake). Ez da adimenari kontrajartzen zaion eginbehar zentzubako bat.
- c) Desio bat adierazteko, orokorrean arestiko agindua-helburuari eusten dio Balendinek, baina semantikoki hiru motatan sailkatu daitezke:
  - Zenbait arazo konpontzeko nahia.
  - Pertsona zein izaki batzuei ona opatzea.
  - Entzuleari jardunbide bat proposatzean, berorren helburua azaltzea, arrazionalki berenganatu dezan.

Ez da baliabide orijinala, beste bertsolariek ere erabiltzen dute eta. Baina azpimarratzekoa da Balendinek, bere aitak bezala, besteek baino maiztasun handiagoz erabiltzen duela eta, beraz, bi Enbeitatar hauen ezaugarri bereizgarria dela esan liteke.

Bestalde, orijinala izan ez arren, errentagarritasun komunikatibo handikoa da honako egitura hau (agindua-helburua, alegia); izan ere, sententzia bat agertzen du baldintza baten oinarriturik. Honek azken puntua indartzen du eta lotura hori (azkenaurreko puntuarekiko) balio erantsia da, bertsoaren barneko atalen loturak tenkatzen dituena.

- d) Bertsoaren bukaeran sententzia edo “ondorio sententzioso” bat agertzea Balendinen baliabide erabilienetako bat da. Tinkotasuna adierazteko zenbait ezaugarri morfosintaktiko erabiltzen dira:
  - esaldi bakunak (baiezkoak edo ezezkoak) izaten dira;
  - esaldi atributiboaren kutsukoak izaten dira *izan* edo pareko aditzak erabiliz;
  - enfasia adierazteko adjektiboez baliatzen da: adjetiboaren hiperlatibo gradua, kasurako.
- e) Baldintza-ondorioa binomioaren erabilera da Urretxindorraren estiloarekin berdintzen duen beste ezaugarri bat egile honen bertsogintzan.

- f) Kontrajarpena, Kepa Enbeitaren bertsogintzaren aldean, sofistikatuagoa edo aberatsagoa dela ematen du. Agian bere inguruko bertsolaritza garaikidearen eraginez, baliabide honetaz gehiago baliatzen da. Balendinek bertsolaritzaren baliabide usua den hau modu desberdinetara erabiltzen du trebeki. Alde batetik, esaldi aurkariak erabiltzen ditu, *baña* delarik juntagailuri erabiliena. Menpeko perpauk kontzesiboak ere kontrajarpena adierazteko erabiltzen ditu. Elementu sintaktikoak erabili ordez, kontrajarpen hori semantikarekin ere baliatzen da, bai bertso osoari kontrajarpena adieraziz (azken puntuan) bai azken puntuan bertan kontrajarpen bat eratuz.
- g) Deskripzio soilak ere azken puntuan izan dezake bere kokalekua, beti ere sententziaren mugetara hurbilduz, zeharkatu nahian bezala. Hala ere deskripzioa bera, batez ere zerbait xelebrea adierazten denean izaten da nabarmenen. Deskribatu, gizakiak eta gauzak (batez ere izadia eta bere elementuak) deskribatzen dira bereziki. Deskripzioan bertan bilatzen da edertasuna, eta honakoetan azken puntua oso indartsu ez den arren, Balendinen behaketarako joera islatzen du.
- h) Azken puntuak ukitu profetikoa izaten du noizean behin, eta honek zerikusia dauka Balendin Enbeitak duen ideologiarekin. Balendinek esaten zituen gauzak sentitu egiten zituen, sakonki bizitu ere. Hori dela eta, ez du oso gustuko ironia edo satira (horiek erabiltzen badakiela erakutsi arren), edo behintzat ez du horietaz abusatzen. Izan ere, Balendinek badaki seriotasuna erabili behar duela mezu batzuetan, txantxetakoak ez dira eta. Ironia edo satiraren gehiegizko erabilerak itzala edota autoritatea kenduko liokete Balendini (edo hala pentsatzen duela ematen du). Ukitu profetiko horretaz ere ez da gehiegi baliatuko, neurritz erabiliko du, lantzean behingo erabilera horiek indarra gal ez dezaten.

## **9. kapitulua**

### **Ahapaldia**

## 0. Sarrera

Kepa Enbeitari eskainitako zatian bezala, azken puntuen azterketa eta sailkapena egin ostean, ahaleginak egingo ditugu azken puntu horiek estrofarekin dituzten harremanak eta goranzko loturak aztertzen. Era berean, lotura horiek ikusi ahala, ahapaldien egitura aztertuko dugu.

Semantikaren ikuspegitik zenbait azken puntu aztertu ditugunean jadanik, izenburuan bertan azaldu dugu (edo aipatu, gutxienez) zein den azken puntuak ahapaldiarekin duen lotura<sup>346</sup>. Dena dela, kasu horietan zein besteetan saiaturako gara lotura hori azaltzen.

Azterketa ahapaldi motaren arabera izango da, hau da, zortzikoak alde batetik, koplak bestetik, hamarrekoak bestetik, sei puntukoak bestetik eta abar. Abiapuntua ahapaldiaren eredu posible bakoitza izango da. Hortik hasita, ikusten saiaturako gara eredu bakoitzak zenbateko maiztasuna duen gai bakoitzarekin.

Kepa Enbeitaren atalean badirudi frogatu zela ahapaldiaren egitura ez zegoela gaiaren eragin pean. Hori kontutan hartuta, hemen beste ikuspuntutik ekiten diogu azterketari: arestian aipatu dugun ahapaldi ereduaren arabera, hain zuzen.

Ahapaldiaren ereduak aipatu baino lehen, aipa ditzagun gure aburuz zeintzuk diren *Nere Apurra* liburuan agertzen diren bertsoen gaiak:

1. - Ohiturazkoak.
2. - Natura.
3. - Euskara.
4. - Erljioa.
5. - Gertaerak.
6. - Maitasuna.
7. - Hileta-bertsoak.

Eredu mota posibleen aukerak eskaini baino lehen, zehaztu beharko genuke zein ahapaldi motaz ari garen. Erabilienetik hasiko gara.

### 1. Zortzikoak

Zortzikoak –txikiak zein nagusiak– aukera jakin batzuk eman ditzake, 3. kapituluaren ikusi ahal izan genuenez. Gogora ditzagun orain:

#### Lehenengo eredua

##### a)

1. puntua
2. puntua

---

<sup>346</sup> *Sententzia* edo *Ondorioa* izenburuek adierazten dute jadanik zein den azken puntu horien ahapaldiarekiko lotura.

3. puntua  
**b)**  
 4. puntua

### **Bigarren eredua**

- a)**  
 1. puntua  
 2. puntua  
**b)**  
 3. puntua  
 4. puntua

### **Hirugarren eredua**

- a)**  
 1. puntua  
 2. puntua  
**b)**  
 3. puntua: inflexio gunea  
**c)**  
 4. puntua: itxidura

### **Laugarren eredua**

1. puntua  
 2. puntua  
 3. puntua  
 4. puntua

Eredu bakoitzaren joerak zeintzuk diren bertan azaldu genituen. Arcadio López-Casanova-k ere nahiko antzera banatzen ditu poema baten ahapaldiek izan ditzaketen egitura motak. Egitura mota bakoitzari izen bat ezarri zion, zer motatako mezuak hedatzeko balio dutenaren arabera:

LINEAL	ANALÍTICO	SINTÉTICO	SIMÉTRICO
a) puntua	a. puntua	a. puntua	a. puntua
b) puntua		b. puntua	b. puntua
c) puntua	b. puntua	c. puntua	_____
d) puntua	c. puntua		c. puntua
...	d. puntua	d. puntua	d. puntua <sup>347</sup>

---

<sup>347</sup> López-Casanova, 1994, 36-37.

Hala ere, bigarren eredukorik ez dugu aurkitu gure corpusean; izan ere, azken puntuaren pisua dela eta oso zaila baita horrela egituratzea. Horren ordez, goian aipatu dugun hirugarren eredua genuke.

Ekin diezaiogun bada eredu bakoitzaren azterketari.

### 1.1. Lehenengo eredua

Arcadio López-Casanovak “sintetikoa” deitzen duen eredua dugu hauxe. Ahapaldiaren lehenengo zatia egokia da ideia baten inguruan anpliazioa egiteko. Azken zati laburrak izaera biltzailea du, mezua azpimarratuz sententzia baten bidez, adibidez, edo hasierako ideia horri beste bat kontrajarriz.

Ohiturazko bertso-sorta bat hartzen badugu, honelako egituradunak aurki ditzakegu erraz. Esate baterako, badago bertso-sorta bat ohiturazkotzat har dezakeguna: “Zezterua” da bere izenburua. Bertan *Zezteruen* bizimodua azaltzen digu *zezterua* izan zen Balendin Enbeitak berak.

Ohiturei garrantzia ematen dien bertso bat aukeratu behar izanez gero, hauxe dugu bat:

Goizian izarrakaz  
lanari oratu,  
gaubian beranduan  
ondiño jarraitu,  
neguan sarri busti  
ta udan berotu ...  
Aberastasun orrek  
zesteruak ditu. (B124a)

Bertso hau bi zatitan banatu daiteke.

- a) zatia (1., 2. eta 3. puntuak): *zesteruaren* nekeak eta lanak deskribatzen dizkigu, denbora erreferentziak emanez. Puntu bakoitzean neke edo lan mota baten berri ematen zaigu.
- b) zatia (4. puntua): ondorioa. *Zesteruaren* nekeak eta lanak aurkeztu ondoren, ironiazko ondorio bat ematen du: “aberastasun orrek/ zesteruak ditu”.

Hurrengo bertsoa sorta berekoa da:

Txistularia gogoz  
asten bada jotzen,  
gazteak dantzan laster  
eingo dabe urten.  
Atso ta agurak be  
ditu bizkortuten,  
txistu ta tanboliñak  
nor ez dau poztuten? (B222c)



Bertso honek ere aurrekoaren antzekoa da egiturari dagokionez. Baina aurrekoan sententzia batek biltzen zuen mezua, eta hemen, ostera, galdera erretorikoa aireratzen da, baita ere mezuaren bilgune legez, baina era inplizituan.

- a) zatia (lehenengo hiru puntuak): txistuaren jotzeak adin guztietako jendea poztu eta bizkortzen duela adierazten zaigu.
- b) Ondorioa (4. puntua): galdera erretoriko baten bidez heltzen zaigu: “txistu ta tanboliñak/ nor ez dau poztuten?”.

“Baserritarrak kejaz” bertso-sortak ohiturazko ikuspegi batetik jorratzen ditu zenbait gai, eta beraz ezin aipatu gabe utzi bertsoen bat edo beste.

Egun osoan lanian eta  
 ondiño lanak aurrera,  
 baserritarren lanbide onek  
 ez dakit nun daun barrera;  
 eta kalia izaten dogu  
 oso eskasa arrera,  
 giza-legean ez al da sartzen  
 baserritarren karrera? (B243a)

- a) zatia (lehenengo hiru puntuak): baserritarren nekeak eta oztopoak azaltzen dira. Horretarako hiru pauso ematen dira.
- b) zatia (laugarren puntua): barne kexa horren katalizadorea den azken puntuaren bidez bertsoa ixten da, erdi harridura erdi kexa den galdera erretorikoa formulatuz.

Hurrengo bertsoa, “hileta-bertsoak” izeneko sailean koka genezake; izan ere, Balendinek bere arreba hil berriari eskaini zion.

Urte bi ta erdi igaro dozuz  
 gaixo txar batek minduta,  
 egun beteko atsedean barik,  
 gorputza miñez auldata;  
 egin iatzuzan alegin danak  
 alperrikoak ziran ta  
 Josu on-onak eruan zaitu  
 bere eskutik artuta. (B080a)

Bere egiturari erreparatzen badiogu, hauxe izan litekeela esan dezakegu:

**a)**

Urte bi ta erdi igaro dozuz  
 gaixo txar batek minduta,  
 egun beteko atsedean barik,  
 gorputza miñez auldata;

egin iatzuzan alegin danak  
alperrikoak ziran ta

Balendin Enbeitak, oraingo honetan, bere arrebaren alde onak agertu beharrean, berak igarotako gaixoaldia kontatzen digu. Gertaera negatiboak dira deskribatzen direnak: "gaixo txar batek minduta", "atseden barik", "gorputza minez aulduta", "alegin danak alperrekoak".

**b)**

Josu on-onak eruan zaitu  
bere eskutik artuta.

Aurreneko hiru puntuekin kontrajarpenean, "Josu ona"-ren etorrera kontatzen da gertaera positibo legez. Gaixotasunaren oinazeak atzean lagata, *Josu* salbatzailearekin batera *Mirentxuk* alde egin zuela kontatzen da. Alderdi negatiboen aldean ikuspegi positibo agertuz egiten da kontrajarpena, beraz.

Hauxe litzateke egituraren eskematizazioa:

**a)** Gaixotasunaren alderdi txarrak.

_____	10
_____ 8A	
_____	10
_____ 8A	
_____	10
_____ 8A	

**b)** Josuk Miren zerura eramaten du eta nahigabeak amaitzen dira:

_____	10
_____ 8A	

Sorta beretik aukeratu dugun hurrengoa ere goiko eskeman egokitu daiteke:

Bizitzan oso apala ziñan,  
Josu-maitale kutuna,  
geidiarentzat beti zenduan  
biotz zabal ta biguna;  
ez-biarretan agertzen zendun  
zintzoen eroapena,  
zorioneko zeure antzera  
bizi diranen azkena. (B080b)

**a)**

Bizitzan oso apala ziñan,  
Josu-maitale kutuna,  
geidiarentzat beti zenduan  
biotz zabal ta biguna;

ez-biarretan agertzen zendun  
zintzoen eroapena,

Bertsoaren aurreneko hiru puntuetan Mirentxuren kristautasuna eta gizalegea goraiatzaren du. “Ez-biarretan” aditz lagun horretan bere bizitzaren azkenean izan zuen gaixaldiari egiten diola erreferentzia suma daiteke. Horren aurrean, Balendin Enbeitak bere arrebak izan zuen “zintzoen eroapena” agertzen du modu positiboan. Horrek azken puntuan ondorio bat ateratzeko beta ematen du eta horrela egingo du:

**b)**

zorioneko zeure antzera  
bizi diranen azkena.

Hemen ikusten dugun ondorioa bedeinkazio modura ematen du egileak. Bedeinkazio horren arrazoia aurreko puntuan, hirugarrenean hain zuzen, iradoki egin da: gaixotasunaren nahigabeen artean “zintzoen eroapena” izan duelako hain zuzen.

## 1.2. Bigarren eredua

Bigarren eredua “simetrikoa” dei dezakeguna dugu. Simetria bera elementu edo balio estetikoak dela antzematen da bertsoa entzun edo irakurtzean. Oso baliagarria da konparazio grafikoak egiteko.

Erljioa gaitzat duen bertso-sorta batetik hartutakoa da ondorengoa: “Sortzez garbiko Amari” du izenburutzat eta bertso-sorta honetako bertso batzuek bi zatiko egitura dute. Azken puntuak bere garrantzia eta nortasuna galtzen ez duen arren, bertsoa ez dago horren zuzendua azken puntuaren efektura eta horrek agian sinpleagotzen du egitura. Bertso barruan azaltzen dena, argitasunez eta pausoz pauso egoki azaltzean pisu gehiago hartzen du:

Gauza gaitzikan baldin ez bada  
gure Jaungoikoarentzat,  
nola aukeratu obendun Ama  
Jauna bere Semearentzat?  
Ezkutapen au illuna baizan  
gizonen argiarentzat,  
ainbat urtean ez autortzeko  
Ama Birjiña garbitzat. (B196b)

Gure ustez bi zati edo ziklotan banatu daiteke bertso honen egitura. Ziklo hitza erabiltzen dugu zeren eta zati bakoitzean mezuak nolabaiteko autonomia du eta progresio semantikoa neurri baten borobildu edo osatu egiten da (beti ere zirrikitua uzten duelarik hariak segi dezan).

**1. zikloa:** lehenengo bi puntuak bertsoaren lehenengo parte osatzen dute. Baldintza batek kontestualizatu egiten du ondoren datorren galdera erretorikoa.

**2. zikloa.** hurrengo bi puntuak osatzen dute. Lehenengo zikloari erreferentzia eginez “ezkutapen au” sintagma anaforikoa daukagu. Misterioaren iluna azaltzen du egileak eta horren ondorioa azken puntuan: “ainbat urtetan ez autortzeko/ Ama Birjiña garbitzat”. Beraz, Misterioaren sakona eta iluna oztopo edo izan ziren egia hori hainbat urtetan Elizak aitorturik ez izateko.

Hurrengo bertsoak ere antzerako egitura du:

Sortzez garbia zala ta etzala  
 mundu dana eztabaidan,  
 ez al du, Ama, gizadi onek  
 Jaunagan federik izan?  
 Alguztiduna bera izanda  
 nola egingo ez eban,  
 bere sabelean Jesus Jainkoa  
 sortu ta jaio bear bazan?. (B196c)

Bi ziklotan banatuko dugu hau ere:

**1. zikloa** (aurreneko bi puntuak): hasieran Ama Birjinaren sorrera garbiaren inguruan egon diren eztabaidak ditu aipagai, eta horren aurrean Ama Birjinarengana jotzen du zuzenki, itxuraz galdera erretorikoa eginez baina zentzuz bere atsekabea adieraziz.

**2. zikloa** (ondorengo puntuak): egileak Ama Birjinaren sorrera garbia Jainkoaren Ahalguztiduntasunean azaldu eta kokatzen du beste galdera erretoriko baten bidez.

Hurrengo bertsoan ere bi ziklo horiek suma daitezke:

Benetan Sortzez Garbia zara  
 emen ez dago dudarik,  
 Jaunak onela nai eban eta  
 Zugan ez dago obenik;  
 gorputz ta arimez igon zenduan  
 zerura oso-osorik,  
 garbitasunen ezaugarritzat  
 aingeru-loraz jantzirik. (B197a)

**1. zikloa:** Ama Birjinari zuzentzen zaio egilea eta Sortzez Garbia izatea Ama Birjinari aitortzen dio arrazoia emanda: "Jaunak onela nai eban".

**2. zikloa:** zerura igotzea ere aitortzen dio. Kasu honetan azken puntua hirugarrenaren jarraipen hutsa baino ez da, hau da, Ama Birjinaren zerura igotzea –hirugarren puntuan aipatua–deskribatu eta apaindu egiten du, besterik ez.

Azken bertsoak, arestikoak bezala, bi zati ditu:

Edurra baizen zuria zara,

eguzki baizen argia,  
garbitasunen iturburua,  
lora guztien loria.  
Ama ederrik Jaunak ein badau,  
Zu zara, Andra Maria,  
Jaungoikoaren alatz gurena  
zure Sorrera Garbia. (B197b)

**1. zikloa:** alborakuntzan daude Ama Birjinaren atribuzioak. Lehenengo puntuan esaldi nagusia dago eta bigarreanean atribuzioen pilaketa bat.

**2. zikloa:** beste esaldi bati ekiten dio egileak. Esaldia atributiboa da, aurreneko ziklokoa bezalakoa, eta ondoren, alborakuntzan, Sorrera Garbiari erreferentzia bat.

Nabarmentzekoa da aditz nagusiak 1. eta 3. puntuetan daudela, hau da, 1. eta 2. zikloaren hasieretan. Aditzak, kasu honetan aditz kopulatibo batek, markatzen du ziklo bakoitza, eta horiei atribuzioak atxikitzen zaizkie. Hona hemen eskema:

1. zikloa:

\_\_\_\_\_ (**zara**),  
\_\_\_\_\_,  
\_\_\_\_\_,  
\_\_\_\_\_.

2. zikloa:

\_\_\_\_\_ (ein badau)  
\_\_\_\_\_ (**zara**),  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_.

Bertso sorta honetan ikus daitekeenez, laudorio horrek bizitasun gehiago izan dezan, Balendin Enbeitak zuzenean eta bigarren pertsonaz hitz egiten dio pertsona horri, kasu honetan Ama Birjinari. Naturazko elementu bati zuzentzen zaionean ere bigarren pertsona ere erabiliko du, elementu horren pertsonifikazioa eginez.

Erljioa gaitzat duten bertso kopurua ez da Kepa Enbeitak zeukan bezain handia (tesi honen aurreneko zatian ikusi dugunez). Baina badira beste sorta batzuk gai honi eusten diotenak. Zortzikoekin jarraitu nahi izanez gero, "Gabonak dirala-ta" bertso-sorta dugu. Gai erlijiosoa eta soziala nahiko nahastuta daude, tonu garratza erabiliaz. Har dezagun lehenengoa:

Belengo oiartzuna  
urte guztietan:  
Bakea eta poza  
bego sendietan!  
Baña bakerik ez da  
mundu zabaletan,

bake ordez negarra  
sendi geienetan. (B253a)

Hemen ere arestian aipatutako bi zikloak ikusten dira:

**1. zikloa** (aurreneko bi puntuak): Jesusen Jaiotzaren ospakizuna dela eta, bakezko eta pozezko nahia ezpainiaratzen zaio Balendini.

**2. zikloa** (ondorengo bi puntuak): nahi horri errealitate garratza kontrajartzen dio egileak berak.

Erlijioa zeharo alde batera laga gabe, baina hileta-bertsoetan zentratuz, eredu hau behin baino gehiagotan agertuko zaigu. Bere arreba hil berriari eskainitako bertsoen artean hauxe dugu:

On-ona izan ziñialako  
danontzat ludi onetan,  
zeru goitik be lagundu, Miren,  
geure esturaldietan;  
zeure antzera bizi ondoren  
bizitzako nekeetan.  
or goian gero beti-betiko  
danok alkartu gaitazan. (B081a)

Badirudi bertsoak bi zati nagusi hauek dituela:

**a)**

On-ona izan ziñialako  
danontzat ludi onetan,  
zeru goitik be lagundu, Miren,  
geure esturaldietan;

Berriro ere, zeruan dagoela sinetsirik, arrebari beste eskaera bat egiten dio, baita eskaeraren helburua azaldu ere.

**b)**

zeure antzera bizi ondoren  
bizitzako nekeetan,  
or goian gero beti-betiko  
danok alkartu gaitazan.

Arestian egindako eskaeraren helburua zehazten da bi puntu hauetan. Helburu hau azaltzerakoan desio edo itxaropen jakin bat adierazten du Balendin Enbeitak: berriro ere zeruan elkartuko direla. Elkartasuna eta elkarrekiko identifikazioa izan dira bertso sorta honetan indar ildorik nagusienetakoak. Barne munduko sentimendu hori bertso-sortaren azken puntuan agertzeak erakusten du zer nolako garrantzia daukan Balendin Enbeitarentzat. Bertso-sorta osoak atsekabea erakutsi arren, une gazi gozoak erakusten ditu. Bertso honen azken puntua une gozo bat delakoan gaude, berriro elkarrekin egoteko aukera eskatu eta itxaroten delako. Konposizio

honen zapore mingotsak ez dio itxaropenari atea ixten, guzti guztia kristau ikuspegi baten kokatzen delarik.

Hileta bertsoetatik azken adibidea dakargu hona:

Ireneotxu zeure semia,  
Bedatxu alaba kutuna,  
Kepa senarra bizi guztian  
biotzez maite zenduna;  
atsekabian izan dagien  
biar dan eruapena,  
or zeru goitik emaozue  
pozaren zatitxu bana. (B080c)

Bi ziklo desberdin antzematen dira ahapaldi honetan:

**a)**

Ireneotxu zeure semia,  
Bedatxu alaba kutuna,  
Kepa senarra bizi guztian  
biotzez maite zenduna;

Egileak Mirentxuren heriotzak ekarri dituen ondorio txarrez dihardu bertso honetan. Hain zuzen ere, hainbeste maite zituen eta bakarrik utzi dituen familiakoak aipatzen ditu.

**b)**

atsekabian izan dagien  
biar dan eruapena,  
or zeru goitik emaozue  
pozaren zatitxu bana.

Lehenengo zatian aipatutako familiakoen alde eskaera bat egiten dio Balendin Enbeitak bigarren zati honetan, eta horrekin batera eskaeraren helburu onuragarria zehazten du.

Egitura mota hau ondo dator laudoriozko bertsoak sortzeko, hemen ikus daitekeenez. Eskematikoki horrela definitu daiteke egitura hau:

**1. zikloa** (bi puntu): Lehenengo ideia eta berorren zehaztasuna.

Errealitate edo alderdi bat azaldu egiten da, zertzelada desberdinak eskainiz. Gehienetan adibide edo irudi bat ekartzen da, ondoren esango denak testuinguru grafiko bat izan dezan.

**2. zikloa** (bi puntu): bigarren ideia eta beren zehaztasuna.

Azken puntua bilgune bezala aurkezten da. Aurrekoaren mezua trinkotzen du, ondorio moduko bat formulatuz, galdera erretoriko zein harridurazko deiadarrez formulaturik.

### 1.3. Hirugarren eredua

#### a)

1. puntua

2. puntua

#### b)

3. puntua: inflexio gunea

#### c)

4. puntua: itxidura

Eredu hau emankorrena dela ematen du, Balendin Enbeitaren bertsogintzari dagokionez beti ere.

Beste azpiatal baten “Zezterua” izeneko ohiturazko bertso-sorta aipatu dugu. Bertan *zezteruen* bizimodua azaltzen digu *zezterua* izan zen Balendin Enbeitak berak. Lehenengo ereduko adibideak aurkitu genituen han, baina baita hirugarren eredukoak ere:

Zestoak egiteko  
falta josgarria,  
aurrez ordaindu bear  
nai bada barria;  
baso-dunak eskuan  
gura dau txindia,  
ordaindu ezin bada  
istillu gorria (B124b)

Honek beste egitura hauxe duela dirudi:

- a) **Arazo bat aurkeztu egiten da** (1. eta 2. puntuak): lan egiteko tresnak eta materialak lortzeko zailtasuna azaltzen da.
- b) **Inflexio gunea** (3. puntua): aurreko zatian agertu den ordaintzeko arazoari eusten dio egileak, baina era berean beste elementu bat agertu da: “baso-dunak”. Haien zekenkeria iradoki egiten da: “... eskuan/ gura dau txindia”.
- c) **Ondorioa** (4. puntua): afera osoa esaldi baten grafikotasunarekin laburbiltzen da: “ordaindu ezin bada/ istillu gorria”. Bertsoaren lehenengo esaldiak eta azkenak ez dute erlazio argirik. Horrek esan nahi du bertsoan barrena eboluzio bat izan dela, eta erakutsi dugun egitura honekin hori bistaratzen dela dirudi.

Ohiturazko beste bertso-sorta batetik, “Txistularia” izenekoetik hain zuzen, bat aldatuko dugu hona:

Euskaldunen txistuai  
ondo begiratu,  
iru zulo besterik



beragan ez ditu  
 Au ikusi ta asko  
 oi dira arritu,  
 zelan jotzen dituan  
 ainbat kontziertu. (B222b)

Bertso honetan egitura hau antzematen da:

- a) **Errealitatearen aurkezpen edo deskripzioa** (1. eta 2. puntuak): arreta jartzeko deia agertu ondoren (“ondo begiratu”), zertzelada bat eskaintzen da: “iru zulo besterik/ beragan ez ditu”.
- b) **Inflexio gunea** (3. puntua): *Au* erakusle anaforikoa dela bide, mezua aurrekoari lotuta dago baina beste jazoera bat aurkezten zaigu “... asko/ oi dira arritu”. Honek azken puntuaren terrenoa prestatzen du.
- c) **Itxidura** (4. puntua): harriduraren arrazoia erakusten zaigu.

Beraz, hiru fasedun ahapaldiak dira eredu honetakoak:

- Errealitate baten aurkezpena.
- Inflexio gunea: aurreko atalari lotuta egon arren, beste pauso baterako bidea prestatzen du.
- Azken pauso hori bertsoaren amaiera da.

Igaro gaitezen “Euskara” gaia duten beste bertso batzuetara. Gai honetaz Balendin Enbeitak dauzkan bertso-sortak kopuru mardul bat osatzera ailegaten dira. Goiztiarrenetik hasiko gara eta 1949an egindako bat aukeratuko dugu. Bere izenburua hauxe da: “Modan balego zorioneko litzake Euskera”. Zortziko nagusia da aukeratutako neurria. Hau da lehenengoa:

Euskalerriko mendi ta zelai,  
 erreka eta ibaiak,  
 euskeriaren babes gozoan  
 bizi zirian erriak,  
 gaur bazterturik ikusten doguz  
 bere oitura legiak,  
 jazokun orren errudun gara  
 euskaldun erdelzaliak. (B086b)

Lehenari begira abiatzen da bertsoa, ikuspegi mitiko-epiko batekin. Zerrendaketa batekin hasten da Balendin Enbeita (tesi honen lehenengo atalean ikusi dugunez), bere aita Kepa Enbeitaren bertsogintzan hain usua zen errekurtsio bati etekina atereaz. Irudien metatze horrekin erritmoa azkartzen da. Irudimen bisualari eragiten dio bertso honek; izan ere, izenen zerrendaketa honek gauza errealak ekartzen ditu gogora, izadiko elementuak hain zuzen. Alborakuntzaz jarrita daude eta, beraz, irudimen bisualak azkar egingo dio

begirada bat paisai erromantiko horri, eta entzulea edo irakurlea berehala kokatuko da arimaren egoera malenkoniatsu horretan.

Bigarren puntuan euskara pertsonifikatu egiten du Balendin Enbeitak tasun eder bat egozten dionean: euskarak babestu egiten zituela bai mendi, zelai, erreka eta ibaiak, bai herriak ere. Fosildutako irudi sinestesiko baten zantzua sumatzen dugu hemen “babes gozoan” sintagma erabiltzen duenean. Egilearen identifikazio afektiboa bistan da.

Inflexio unea hirugarren puntuan kokatzen delakoan gaude. *Gaur* hitzak adierazten du inflexio puntu hori; izan ere, horraino lehenaren ikuspegi erromantikoa eskaini izan zaigu, fabula zoragarri baten ukitua daukana. Egilearen samindura ondorio guztiz logikoa eta naturala litzateke. Inflexio gune honekin beraz azken puntuaren giroa prestatu egin da eta horrela dator: “jasokun orren errudun gara/ euskaldun erdelzaliak”.

Ondorioa da hemen adierazten dena. Ondorioa ez ezik, kontrajarren semantiko bat erakusten da, indar gehiago ematen diona. Indarra diogunean, eduki eta errekurso semantikoak adierazi nahi ditugu. Errudunak nortzuk diren adieraztean, egileak bere burua sartzen du talde horretan nolabaiteko fariseokeria saihestu nahian: besteei errua bota eta nork bere akatsak ikusi ez. Beraz, barne mina eta atsekabea dira egilearen afektibitatean nabaritzen dena.

Bertso hau kontutan hartuta, ahapaldiaren eskema hau aterako genuke (beti ere zortzikoekin ari garela eta gaia euskara dela):

- a) **Errealitate baten aurkezpena** edota deskripzioa eta horren zehaztasunak (lehenengo bi puntuak)
- b) **Inflexio gunea** (3. puntua): normalean beste errealitate baten aurkezpenarekin dator. Kontrajarren edo esaldi adbertsatiboekin etortzen da sarritan.
- c) **Itxidura** (4. puntua): Askotan **ondorio** bat izaten da, bertsoaren eboluzio semantikoaren ondorioa hain zuzen. Baina ondorio horrek zertzelada desberdinak berengana ditzake: eskaera bat, deiadar bat, baieztapen sententzioso bat (bestelako errekurso semantikoak tartekatuz: kontrajarpena, e.a.), egite baten helburua azaltzea, agindu bat.

Eskema hau berau bertso sorta honetan ondoren datozen bertsoei aplika dakieke:

“Euskalduna naz!” entzun nai dogu  
ta gañera arrokeriz,  
esaten dogu: “Euskalduna naz  
izkuntzaz eta jatorriz!”  
Baña biotzez euskera itxita  
erdera maitatzen gabiz,  
olango euskaldun erdelzalia  
obe zan jaio ez balitz. (B087a)

Arestiko eskema aplikatuz:

a) **Errealitate baten aurkezpena** (1. eta 2. puntuak). Lehenengo bi puntuak errealitate bat jorratzen dute, bete betean: “Euskalduna naz” esateko joera harroputza, hain zuzen ere, euskararen aldeko apustua egiten ez dutenen ahotik. Beste modu batera adierazita, badaude euskaldun batzuk (familiar edo komunitate linguistikoan ikasi dutenak), egunero eta ahalik eta egoera gehienetan euskara erabiltzen ez dutenak. Horren arrazoiak zeintzuk diren ez ditu azaltzen, baina zenbait giro eta esparrutan (giro kultuetan, administrazioan, maila goragoko zenbait pertsonekin) euskararen desprestijio soziala dela eta gaztelerara jotzeko joera dago. Baita ere batzuek bere ama hizkuntza ez lantzearen ondorioz nagitasuna erakusten dute erabiltzeko, batez ere zenbait gaietarako (hain zuzen hizkera, joskera eta esamoldeak landu ez dituzten gaietan).

b) **Inflexio gunea** (3. puntua). Esaldi adbertsatibo batekin ematen zaigu: “Baña biotzez euskera itxita/ erdera maitatzen gabiz”.

c) **Itxidura** (4. puntua). Kasu honetan, ondorio baten indarrak datorkigu: “olango euskaldun erdelzalia/ obe zan jaio ez balitz”. Hemen “olango euskaldun erdelzalia” sintagma anaforiko bat dugu; izan ere, bertsoan deskribatutako pertsonari egiten dio erreferentzia, nahiz eta pertsona hori *gu* izan. *Gu* horretan, beraz, egileak euskaldunen deskripzio autokritikoa egin du. Baina azken epaian singularizatu egiten du, “olango euskaldun erdelzalia”. Kontutan har dezagun ere sintagma horretan egileak kontrajarpen bat bilatu duela *euskaldun* adjektibo nominalizatua eta *erdelzalia* adjektiboaren artean<sup>348</sup>. Ondoren datorrena formalki ondorioa eta horren baldintza dira: “obe zan jaio ez balitz”. Zentzuz desio bat adierazten dute baldintza eta ondorio horiek, oso desio erradikala: existitu ez izana, erabateko mesprezua beraz.

Honelako mezu semantiko bortitzak lagungarriak suertatzen dira egilearen –kasu honetan Balendin Enbeitaren– barne mundua ezagutzeko. Euskarari horrelako saldukeria egitea sekula ez du Balendin Enbeitak ulertuko: bere irudikoz, gizatasun eskasa eta murrizaren seinalea da, are gehiago kontutan hartuta ahalegin gutxi eginda zenbat irabazten duten euskaldunek, Euskal Herriak, bere kulturak eta nortasunak. Euskaldunak ez direnen kasuan, Balendin Enbeitak goraiatu eta laudatu ez ezik, eredutzat jartzen ditu euskara ikasteko ahalegina egin dutenak<sup>349</sup>.

Bertso sorta honetako hirugarren bertsoaren hasieran ere beste errealitate bat azaltzen da gure begien aurrean:

<sup>348</sup> “Euskaldun erdelzalia” epiteto egin dugu Balendin Enbeitarengan. 1956an biltzar baten bapatean kantatu zituen bertsoen artan honela zioen: “jazoera onen errudun gara/ **euskaldun erdalzaliak**” (Enbeita, B., 1974, 92).

<sup>349</sup> Kirsti Likanen finlandiarrari bertso sorta bat eskaini zion Balendin Enbeitak 1961ean eta *Nere Apurra* liburuan argitaratu ere. Hiru hilabetez Balendin Enbeitaren baserrian egon omen zen euskara ikasten. Horrela agertzen da bertso-sorta horretan: “Iru illabete barruan dausku/ euskera ederto ikasi,/ gura dabenak egin leikela/ Kirstigan dogu ikusi; esaten dausku euskera dala/(...) au ta guzti be euskaldun asko/ kontuan ez gara jausi” (B136b).

Euskaldunaren ama euskera da  
 eta ez dogu ezautzen,  
 edo ez dogu ezautu gura,  
 onela dogu autortzen;  
 Jainkoak diño bestenai itxi,  
 zeuria jarrai maitatzen,  
 eta gu gabiz ama itxita  
 ama-ordia goraltzen. (B087b)

Lehenengo eskemarekin jarrai dezakegu, beraz, bertso honen egitura azaltzeko:

a) **Errealitate baten aurkezpena.** “Euskaldunaren ama euskera da/ eta ez dogu ezautzen/ edo ez dogu ezautu gura,/ onela dogu autortzen”. Lehenengo puntuan bi esaldi koordinatu agertzen dira: lehenengo esaldia enuntziatu bat baino ez da, baieztapen bat, kutsu kategoriala daukana, eta bigarrena ezeztapen bat, lehenengoarekin kontrajarpenean dagoena. Bigarren puntuan (“edo ez dogu ezautu gura/ onela dogu autortzen”) lehenengo puntuan agertu zaigun panorama ñabartu egiten du egileak, *edo* juntagailu hautakariaren bidez aurreko errealitatearen beste interpretazio posible bat eskainiz.

b) **Inflexio gunea:** “Jainkoak diño bestenai itxi,/ zeuria jarrai maitatzen”. Beste elementu bat agertu da bertso honen arrazonamenduan: Jainkoa eta horri lotuta Berak agintzen duena. Jainkoaren borondatea kontrastean dago kristauok eta batez ere kristau euskaldunek egiten omen dutenarekin. Honek azken puntuaren mezua prestatzen du, kontrajarpen baterako lekua eskainiz.

c) **Azken puntua:** “eta gu gabiz ama itxita/ ama-ordia goraltzen”. Aurreko puntuarekin kontrastean agertzen da, eta hori batez ere *Jainkoak* eta *gu* subjektuen artean agertzen da. Baina puntu barruan ere kontrajarpen gurutzatuak ikus ditzakegu: “ama itxita ama-ordia goraltzen”.

Bertso-sorta honetan, ahapaldi guztiek orain arte ikusitako egitura berdina dute. Sorta honetako azken bertsoak egitura berbera izan arren berezia da:

Euskera maite, gaxorik zagoz  
 eta osakairik ez dozu,  
 zeure semiak itxi zaituez,  
 errukarria zara zu.  
 Ene, euskera, ilgo al zara?  
 Arren erantzun eidazu!  
 Zu il ezkerok ez dot nai bizi,  
 zeugaz eruan nagizu! (B088c)

Hemen sumatzen den desberdintasuna ez da egiturazkoa, semantika arlokoa baizik. Beste bertsoetan ez bezala, bertso honetan egileak euskararekin duen hizketaldia eskaintzen zaigu. Orain arte, irudi eta metaforen bidez euskararen pertsonifikazioa egin izan da. Oraingo honetan, elkarrizketaren bidez, euskarari apelazioa eginez eta alegoria hori luzatuz, euskara bizitasun

gehiagoz pertsonifikatu egiten da. Pertsonifikatu ez ezik, euskararekiko txera ona adierazi egiten da modu desberdinetan:

- Bokatiboaren bidez: “Euskera maite”, “Ene euskera”.
- Erabateko identifikazioaz: “Zu il ezkerero ez dot nai bizi/ zeugaz eroan nagizu!”.
- Errukia agertuz: “errukarria zara zu”.

Hauxe litzateke ahapaldiaren eskema:

- a) **Errealitate baten aurkezpena:** “Euskera maite, gaxorik zagoz/ eta osakairik ez dozu,/zeure semiak itxi zaituez,/ errukarri zara zu”. Egileak elkarrizketa hasi eta *Ama Euskeraren* gaixotasunaren berri ematen du bidenabar. Egoera are eta mingarriagoa da seme bere ama zaintzen ez duten seme-alabak daudelako.
- b) **Inflexio puntua:** “Ene, euskera, ilgo al zara?/ Arren erantzun eidazu!”. Galdera bat planteatzen dio egileak pertsonifikaturik dagoen *Ama Euskerari*: ea hilgo ote den. Hau da hain zuzen azken puntura garamatzen elementu berria: heriotza. Egilea, euskararen egoera latza ikusirik, heriotza hurbil egon litekeela sumatzen ari da.
- c) **Azken puntua:** “Zu il ezkerero ez dot nai bizi,/ zeugaz eruan nagizu!”. Heriotza hurbil egon litekeela eta, egileak identifikatu egiten du bere biziaren zentzua *Ama Euskararen* biziarekin. Identifikazio erradikala beraz, azken puntu batek behar duen heinekoa agian. Bertso honek Felipe Arrese Beitiaren zenbait bertsoen oihartzunak ekartzen dizkigu gogora: “[...] euskera laztan maite,/ zabiltz gugaz beti/ Euskera ill ezkerero/ ez dogu nai bizi” (Urrutia, 1999, 155).

### 1.3.1. Beste ahapaldi motaren bat

Orain arte zortzikoaren egitura motak aztertu ditugu. Gure ustez, zortziko ez izanda ere, baliteke hirugarren eredu hau zenbait ahapaldi luzexeagoetan ere agertzea. Hala gertatzen da adibidez “ohiturazko” bertso-sorta baten, “Ariatza’ko kurutz deunaren jaiak” izenekoan hain zuzen. Sorta horretan azken puntuen eredu ia-ia gehienak aurki ditzakegu. Ohiturazkotzat jo dezakegu bertso-sorta hau; izan ere, nagusiki Ariatza auzoko Santa Kurtze jaiak deskribatzen baitira.

Izenburu hau duen bertso-sortak neurri bereziko bertsoak biltzen ditu bere baitan. Ez da gehien erabiltzen den neurria, bistan da, neurri berezia da sei puntukoa eta hamar bertso-lerrokoa. Hona hemen egitura:

\_\_\_\_\_ 7  
 \_\_\_\_\_ 6A

\_\_\_\_\_ 7  
 \_\_\_\_\_ 6A  
 \_\_\_\_\_ 6A  
 \_\_\_\_\_ 6A  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_ 6A  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_ 6A

Ikus ditzagun bertso batzuk:

Ariatzako jaiek  
 Santa Kurtzietan  
 Iraillan amalauan  
 urte guztietan:  
 naiz aberatsetan,  
 bardin txiroetan,  
 jan-edanen paltarik  
 ez da etxietan,  
 naiz-ta eskas ibilli  
 beste egunetan. (B025a)

Bertso honen hasiera ikusita, zaila izango litzateke bertsoaren bukaera zein izan litekeen igartzea. Azken puntuak ez dauka harreman argirik aurreneko puntuan adierazten denarekin. Horrek esan nahi du, gutxienez, gauza bat: bertsoaren barruan eboluzio bat dagoela mezuan. Bertso-sorta honetako bertsorik gehienetan, azken puntuak aurrekoa edo aurreko puntu biek izaten du harremana edota lotura zuzena, eta ia inoiz ez aurreneko puntuarekin. Horrek berresten digu ahapaldia dinamikoa dela eta bertan pauso semantikoak ematen direla.

Bertso honen egitura nahiko komuna da bertso-sorta honetako beste bertsoekin. Hauxe litzateke:

- a) **Errealitate nagusia eta orokorra azaltzen da** (baieztapen kategorial soilekin, batzutan aditzaren elipsia suertatzen delarik, nolabait ebidentzia hori areagotuz): “Ariatzako jaiek /Santa Kurtzietan/Iraillan amalaua/ urte guztietan (izaten dira)”.
- b) **Inflexio gunea**. Gehienetan gunea hau erdiko sei silabatako bi puntu laburrek hartzen dute. Ezin dute mezua ñabartu hain puntu laburrak izanik. Baina errealitate berri baten aurkezpena ekartzen dute: zenbait kasutan, aurkeztutako errealitatearen zehazpena izaten da, edo zehaztasunaren hasiera: “naiz aberatsetan/ bardin txiroetan”.
- c) **Azken puntuaren bideratzea**. Azken puntu biek osatzen dute zati hau. Azken aurreko puntua azken puntuaren prestaketa izaten da. Prestaketa hori modu askotara ematen da:

- Baldintza baten lehenengo zatia adieraziz.
- Errealitate berri bat eskainiz gero, errealitate hori ñabartuko duen adbertsatiboari aukera emateko.
- Ekintza baten kontaketa azalduz, ondoren ekintza (agindu edota aholku bat izan daiteke ere) horren helburua azken puntua adierazteko.

Lehenengo bertsoan honela eratzen da bukaera: "jan-edanen paltarik/ ez da etxietan". Errealitate berri bat agertu egiten da: Jaiak direla eta, jan-edanari ekiten zaio, eta horren faltarik ez da izaten, baina: "naiz-ta eskaz ibilli/ beste egunetan".

Aurreko errealitatea ñabartu egiten da perpaus kontzesibo batekin, eta bide batez beste errealitate bat agertu egiten da: Ariatza ez da auzo aberatsa, jeneroak, jan-edanak ez daude sobran, hau da, urtean zehar eskasia izatea gauza normala da.

Hona hemen bertso sorta honetako hirugarren bertsoa.

Santa Kurtze bezperaz  
 asten dira jaiak  
 orduan eiten dira  
 barrabaskeriak  
 zaragi aundiak  
 gure gaztediak  
 jaietan edateko  
 daukaz ekarriak,  
 duban edan dagien  
 datozen guztiak. (B026c)

Bertso hau aurreko eskemarekin bat datorrela esan genezake:

- a) **Errealitate nagusia edo orokorra azaltzen da:** "Santa Kurtze bezperaz/ asten dira jaiak/ orduan eiten dira/ barrabaskeriak". Hemen, jaien hasiera zein den eta orduan zer gertatzen den azaltzen da.
- b) **Inflexio gunea:** errealitate berri baten aurkezpena egiten da, oso gainetik zehaztua: gazteek ekarritako zahagi handiak (ardo betetik, suposatzen da).
- c) **Azken puntuaren bideratzea.** Ekintza horren helburua zehazten da azken puntu bietan. Azken puntua da indarrik gehien daukana; izan ere, mezu harrigarria berak darama bai enfasi aldetik ("datozen guztiak") bai mezuaren harrigarritasunaren aldetik ("duban edan dagien").

Sortaren laugarren bertsoa honako hauxe dugu:

Bezperan batzen gara  
 eliza aurrera,  
 emetik juateko  
 Bixenten "labara",  
 guztiok batera  
 ardua edatera,  
 zuri eta baltzari

apuroa eitera;  
ez dau inok esaten  
“nik etxuat gura”. (B026c)

Egitura berberean egokitu daiteke bertso hau ere:

- a) **Errealitate nagusia edo orokorra azaltzen da.** Jai hauen inguruko beste errealitate bat: zein den euren biltokia eta horren helburua.
- b) **Inflexio gunea.** Beste errealitate baten aurkezpena egiten da: “guztiok batera/ ardaia edatera”. Ardoa edatea izango da hurrengo zatiaren gaia.
- c) **Azken puntuaren bideratzea.** Ardoa edatearen errealitatea zehaztu egiten da: “zuri eta baltzari/ apuroa eitera”. Deskripzio hutsa dirudien azken puntuak zer edo zer gehiago adierazi edo iradokitzen du. Gure ustez, humorea eta ironia nahasirik doaz puntu horretan. Inork ez duela esaten ezetz ardoari aipatzen duenean, ironiaz guztiek itzelezko zaletasunez edaten ari direla esaten ari da, eta denok Bixenten *labara* joateko ohitura hori ez dutela hartu obligazio astuntzat (nahiz eta “zuri eta baltzari/ apuroa eitera” adieraztea deskontestualizaturik obligazio kutsukoa den) baizik eta gustura egiten den gauza bat legez.

Lenauko zarrak guri  
erakutsi euskuen  
zelan ibil biar dan  
zaragi kontuen;  
ikasi genduen  
biar dan moduen;  
egin daiguzan gauzak  
al danik onduen,  
urrengoak be euki  
daien akorduen (B028c).

Bertso hau ere honela egokitzen da guk eskaini dugun eskeman:

- a) **Errealitate nagusia edo orokorra azaltzen da.** Bertso sorta honetan lehendabizikoz ematen zaigu lehengo zaharren irakaspenen berri. Errealitate berri bat eskaintzen zaigu beraz, hemen ere. Bigarren puntuari zehaztu egiten da irakaspen hori: “zelan ibil biar dan/ zaragi kontuen”.
- b) **Inflexio puntua.** Aurrekoari lotuz gauza berri bat eskaintzen digu bertsolariak ondorengo puntu bietan, alegia irakaspenez ondo ikasia izan zela: “ikasi genduen/ biar dan moduen”.
- c) **Azken puntuaren bideratzea.** Azken puntu bietan, bertsoak beste izaera hartzen du. Kontaketa alde batera lagata, gazteriari apelazioa egiten zaio: “egin daiguzan gauzak/ al danik onduen”. Aginduaren ostean, Balendin Enbeitaren bertsoetan behintzat, aginduaren helburua zehazteko joera dago, bertsoari halako didaktismo kutsua erantsiz: “urrengoak be euki/ daien akorduen”. Didaktismo kutsua ez ezik, semantikoki eboluzio bat burutu egiten da: bertsoaren hasieran “lenauko zarrak” aipatu egiten dira. Haien ekintza gaur egunekoengan izan du eragina (“ikasi genduen”) eta



izan nahi du eragina (“egin daiguzan gauzak/ al danik onduen”). Azkenik ere kateak aurrera jo behar duenez, hurrengoan kontuan hartzea erakusten da: “urrengoak be euki/ daien akorduen”. Garapen horren buruketa eta bertsoaren borobiltasuna, inon baino hobeto azken puntuan antzematen da beraz.

Bertso erlijiosoetan ere egitura hau erraz topatuko dugu. Horietariko bat “Sortzez Garbiko Amari” izenburua daukana da. Erronka sakon bati egiten dio aurre Balendin Enbeitak gai hau aukeratu duenean, izan ere, bertan seriotasun eta errespetu handiz Ama Birjinaren sortze garbia azaldu eta goraiatzaren ahalegintzen da.

Baratz erdiko lili usaintsu  
urrezko orriz jantzia,  
zure mosuan orni goxoan  
eztigai billa erlia.  
Biotz barruko maitasunaren  
antzukur zaran loria,  
zure ezti az idatzi nai dot  
Aman sorrera garbia. (B195a)

Lehenengo bertsoa sarrera moduko bat da. Egilea lili bati mintzatzen zaio (aitzineko poetak musei, izarrei, ilargiari inspirazio eske mintzatzen zitzairen moduan). Lehenengo hiru puntuetan apelazioa egiten dio egileak loreari eta bide batez lorearen dohainak goraiatzaren ditu: “lili usaintsu”, “urrezko orriz jantzia”, “maitasunaren antzikur”. Azken puntuan, lili horrekin mintzatzen jarraitzen duen arren, egilearen desio bat adierazten da, desio poetikoa, nolabaiteko ukitu lirikoa eranstean diona bertsoari, baina orijinaltasun handirik gabea (eta horregatik ulergarriagoa): “zure ezti az idatzi nai dot/ Ama sorrera garbia”.

Aztertu dugun lehenengo bertso hau, esate baterako, hiru zatiko egitura horretan sar dezakegu:

- a) **Errealitate baten aurkezpena:** Liliari mintzatzen zaio egilea eztegiaren iturria dela adieraziz (lehenengo bi puntuak).
- b) **Inflexio gunea:** “biotz antzikor maitasunaren antzikur” deitzen dio, barne munduari konnotazioa eginez (hirugarren puntua).
- c) **Azken puntua:** Orain arteko dena liliari erreferentzia egitea baldin bazen, hemendik aurrera egilearen desio poetiko bat argitaratzen da, alegia, liliaren ezti az Ama Birjinaren sorrera garbia azaltzea (laugarren puntua).

Bertso honetan azken puntua eta beste hiru puntuen artean dagoen desberdintasuna nabarmenagoa da bigarren puntutik hirugarren puntura (inflexio puntura) dagoen aldaketa baino.

“Hileta-bertsoak” deiturikoen artean mota honetakoak badira. Balendin Enbeitaren hileta bertsoak ugariak izan ziren. Bihotz handiko pertsona izanik, lagun edo senitarteko bat hiltzen zitzaionean, mindurik geratzen pertsona bat

zen eta hildakoaren omenez sentimenduz eta xamurtasunez beteriko bertso-sorta bat egitea nahiko usua zen. *Nere Apurra* liburuan aurkitzen dugun lehenengo hileta bertsoak bere arreba Mireni eskainitakoak ditugu. 1946an egindako bertsoak dira bere arreba hil zenetik denbora gutxira. Zortziko nagusia da aukeratu duen neurria. Bertso barruko loturak eta tentsio ildoak kontutan hartuta, esan daiteke ez dela egitura bakar bat guztientzat komuna dena.

Hala ere, ahapaldiaren egitura osoa ez bada, lehenengo lau bertsoan aurkitu ditugu antzerako joera batzuk. Ikus ditzagun zenbait bertso:

Agur, Mirentxu, biotz erdiko  
ene arreba kutuna,  
sendi arteko bake ta poza,  
maitasunaren laguna;  
zu ziñan gure itxaropena,  
txori kantari otzana,  
baña ixildu zara betiko,  
au tamalaren astuna! (B079a)

Hasiera hasieratik, hil den bere arrebari zuzentzen zaio. Honek giro espiritual batera garamatza: bere arreba hilda egon arren, badirudi Balendin Enbeitak sinesten duela pertsona bakoitzaren arima hilezkorra dela, eta horren ondorioz berari zuzentzen dizkio bere sentimenduak eta penak. Deskribapenak egiten dituenean bere arrebari kontatzen dizkio –ez entzule edota irakurleari–, bigarren pertsona erabiliz eta, hortaz, berarekin identifikatuz.

**a)**

**a.1.**

Agur, Mirentxu, biotz erdiko  
ene arreba kutuna,  
sendi arteko bake ta poza,  
maitasunaren laguna;

Lehenengo bi bertsoak bokatibo eta aposizioan dauden adjektiboak ditugu. Agertzen diren izen sintagmak eta horren adjektiboak konnotazio positibokoak dira, beti ere arrebaren laudorioa eginez eta zer nolakoa izan zen gogoratuz.

**a.2.**

zu ziñan gure itxaropena,  
txori kantari otzana,

Hirugarren puntuan jarraipena ematen dio deskripzioari, konnotazio oneko izen eta adjektiboekin.

**b)**

baña ixildu zara betiko,  
au tamalaren astuna!

Azken puntuak apurketa semantikoa suposatzen du gainontzeko puntuekiko. Alde batetik kontrajarren bat sumatzen da berehala *baña* juntagailu aurkariarekin. Hirugarren puntuko “txori kantari otzana” izen sintagmari “ixildu zara betiko” aditz sintagma kontrajartzen zaio. Kontrajarren horren arrazoia, esplizitatu ez arren, erraza da antzematen: heriotza da. Bertsoaren giro xamura eta positiboari azken puntua kontrajartzen zaio, heriotzaren berri ematen digun puntua hain zuzen. Azken puntu honek heriotzak iradokitzen duen apurketa bat suposatzen du.

Zuzter bateko larrosak giñan  
lurrian sortu giñandi,  
baratza baten jantzi zirian  
gure lorak eta orri;  
beti alkarraz pozez beterik  
bizi zirian lora bi,  
azken epaiak banandu gaitu,  
ene Mirentxu, zu ta ni ... (B079b)

**a)**

Zuzter bateko larrosak giñan  
lurrian sortu giñandi,  
baratza baten jantzi zirian  
gure lorak eta orri;

Egilea bertan inplikaturik, deskripzio positiboak aurrera darrai. Anai-arreba bion arteko identifikazioaren kontaketa eta deskripzioa dela esan genezake. Denbora iragana da aukeratzen dena eta iragan horretan kokatzen dira gertaera eta ezaugarri positiboak.

**b)**

beti alkarraz pozez beterik  
bizi zirian lora bi,

Aurreko giro eta batasun berbera erakusten digu egileak, baina azken puntuan gertatuko den kontrajarpenera prestatzen du apurtuko den batasun hori zenbait sintagmez azpimarratuz: “beti alkarraz”, “pozez beterik”, “lora bi”. Iraganaren erabilerak (*bizi zirian*) apurketaren berri ematea ahalbideratzen du.

**c)**

azken epaiak banandu gaitu,  
ene Mirentxu, zu ta ni ...

Formalki kontrajarpenik ikusten ez den arren (“baina” juntagailu adbertsatiboa ez da agertzen adibidez) kontrajarren semantiko baten aurrean gaude. Lehenengo hiru puntuetan deskribatu den iragan positibo eta elkartu horri “azken epaiak”, hau da, heriotzak egindako banaketa kontrajartzen zaio. Hirugarren puntuko *alkarraz* adberbioari berriz ere “banandu gaitu (...) zu ta ni” aditz sintagmak kontrastea erakusten dio. Ikus dezagun sorta honetako hirugarren bertsoa:

Benetan ziñan alaia, Miren,  
txoria baizen bizkorra,  
zure abotsa pozik entzunaz  
deitzen eutsuen txindorra;  
uda ta negu abesten zendun  
naiz lorak eta edurra,  
baña geiago ez dogu entzungo  
zure abesti samurra. (B079c)

**a)**

Benetan ziñan alaia, Miren,  
txoria baizen bizkorra,  
zure abotsa pozik entzunaz  
deitzen eutsuen txindorra;

Bere arrebaren deskripzio positiboarekin jarraitzen du egileak. Kantuaren arlo semantikoak hartzen du garrantzia bertso honetan: txoria, ahotsa, txindorra (alaia, bizkorra, entzunaz).

**b)**

uda ta negu abesten zendun  
naiz lorak eta edurra,

Bere arrebaren kantuaz ari da, etengabeko kantua zela adieraziz. Honek azken puntuari giroa prestatzen dio heriotzak suposatu zuen etena eta apurketa kontrajarpen modura jartzeko, gerotxoago ikusiko dugunez. “Uda ta negu” izen adberbializatuak (bikote antitetikoa) enfasia eransten diote adierazi nahi den etengabeko kantu horri, eta puntu berean “naiz lorak eta edurra” pareko sintagma distributiboak ere beste horrenbeste egiten du.

**c)**

baña geiago ez dogu entzungo  
zure abesti samurra.

Lehenengo bertsoan bezala, *baña* juntagailu aurkaria agertzen zaigu hemen ere. Apurketa semantikoa nabarmena da azken puntu honetan. Apurketaren arrazoia eliditurik hemen ere, baina dagoeneko aski ezaguna. Heriotzaren zantzua iradokitzen digun azken puntu honek, lehenengoan bezala, apurketa bat suposatzen du bertsoaren eboluzio semantikoan.

Orain arte aztertutakoaren arabera, hiru puntu hauen egitura hauxe dela esan genezake:

**a)**

Egilea bere arrebari zuzentzen zaio, bion arteko identifikazioa azpimarratuz, bere arrebaren tasun onak agertuz, eta iraganaren giro positiboa malenkoniatsuki gogoratuz. Hauxe eskema:

\_\_\_\_\_ 8A  
 \_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8A

**b)**

Giro positibo horren deskribaketak edota kontaktak aurrera jarraitzen du, baina azken puntuaren kontrajarriko den ezaugarri positibo bat (adjektibo, izen sintagma edota adberbio bat) azpimarratu egingo da:

\_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8A

**c)**

Aurreko puntuaren azpimarratu den ezaugarri positibo bati kontrajarpena egiten zaio. Semantikoki aurreko hiru puntuetan egon den giro positiboa apurtzen da eta horrekin batera heriotzaren agerpena iradokitzen da.

\_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8A

Hortaz, egitura hau, orain arte ikusten joan garen bezala, hiru gune nagusitan banatzen da:

- Errealitate nagusia edo orokorra azaltzen da.
- Inflexio gunea.
- Azken puntuaren bideratzea.

**1.4. Laugarren eredia**

Jakina denez, eredu hau deskripzio edo aipamenen pilaketarako egokia izaten da:

1. puntua
2. puntua
3. puntua
4. puntua

Izadiaren deskripzioetarako abagunea eskaintzen da eta, hori dela eta, gai jori jorratzen duten bertsoek egitura hau agertzen dute sarritan. Isilune garaiko bertso sorta bat aukeratzen dugu azterketa honi hasiera emateko. “Eguzki argi laguntzallia” izenburudun bertso-sortatik aterea da eta hau da bere lehenengo alea:

Eguzki, argi gozo biguna  
 bazatoz neure leiora,  
 nagi bagarik goizian goiztik

egun onak emotera,  
 pozez beterik jarten nozula  
 zeu ikusiaz batera;  
 eskarrik asko eta egun on,  
 etorri zaitetz aurrera! (B036a)

Bertso sorta honetako bertsorik gehienak eguzkiari zuzendutako bakarrizketa bat dira. Eguzkiari zuzentzen zaionean, bigarren pertsona erabiltzen du, alde batetik eguzkiarekiko hurbiltasuna eta apelazioa areagotuz eta bestaldetik eguzkiaren pertsonifikazioa eginez, egilea berarekin hizketan dagoelarik pertsona bat bailitzan. Balendin Enbeitak deskripzioaren bidez eguzkiari egozten dizkion tasunak ere pertsona batenak (edo Jainko batenak) dira, eta, beraz, horren bidez ere pertsonifikatu egiten du.

Eguzkiaren jardunak dakartzan ondorio onak kontatzea edota deskribatzea da bertso-sorta honetan elkarriketaren bidez egileak agertu edo bilatu nahi duen helburu bat. Hori dela eta, zentzuzkoa da hasierako bertso honetan egileak eskerrak adieraztea. Esker emate hau bertsoan esandakoaren ondorioa da, deskripzio hori herren geratuko litzatekeelakoan dago egilea, eta gizalegezkoa da, zehar bidez goraiatzea ez ezik, zuzenean ere eskerrak ematea. Hori bera gertatzen da aurreraxeago:

Gau illunian itunik ziran  
 zugazti, baso, zelaiak,  
 aurpegi alaiz irri-barreka  
 jarri dauz zure argiak;  
 eta pozezko abestietan  
 txiroliroka txoriak,  
 "Ongi etorri, argi gozoa!"  
 diñoelarik guztiak. (B037b)

Egileak naturako beste izakien ahotan jartzen du esker oneko adierazpen hori, bide batez izaki horiek pertsonifikatuz. Pertsonifikazioaren progresioa dagoela esan liteke; izan ere, azken puntuak ematen du pertsonifikazio horren indarrrik gehiena bertso honetan: izadiko izakiek giza-hizkera erabiliz, gizaki batek bakarrik egin lezakeen gauza egiten dute, eskerrak ematea alegia.

Hala eta guztiz ere, dena ez da eskerrak ematea, eguzkiaren ondasunak deskribatu ere egin behar dira. Deskribatu ez objetibitate hutsez, subjektibitatea ere tartean dela baizik. Erromantizismoaren lorratza delakoan gaude, naturaren goraiatze hau, pertsonifikatze hau eta naturaren bidez sentimendu adierazte hau. Hortaz, pertsonifikazioa eta afektuzko tratu hori puri-purian agertuko da. Bertso sorta honetako beste azken hiru puntuak deskripzio horren azken alea baino ez dira izango, agian grafikotasun gehiagoz adieraziaz, azken esaldi batek izan lezakeen kutsu sententziosoaz edo kontrajarpenaren bat tarteko.

Ludi ontako izaki danak  
 zuk alikatzen dituzu,  
 laño illunez estalduriko  
 ortze oztiña argitu;

lurbira danai bizitza emon,  
itxas-orruak baretu,  
gogo itunak poztuta jarri  
eta gaxoak osatu. (B037c)

Argi eder oi, guri laguntzen  
etzara iñoiz aspertzen,  
goizian goiztik irri-barreka  
pozkiro zara agertzen;  
gizarte onek ez dautzun arren  
eskar aundirik eskeintzen,  
argi gozo oi, apal-apalki  
beti zatoz gu laguntzen (B038a)

Enfasia, kontrastea edota irudi sinestesikoren bat dira bertso hauetako azken puntuei nolabaiteko kontudentzia gehixeago ematen dietenak<sup>350</sup>. Esate baterako, *argi gozoa* sintagmak, fosilizatutzat eman dezakegun arren, irudi sinestesikoaren zantzua dauka eta lirikotasun tanta bat gehitzen dio azken puntuari, arrunt samarra bada ere. Bestaldetik, egileak eguzkiari *gogo itunak* poztea egozten dio, deskripzio horretan kontrajarren semantiko bat bilatzen duelarik. Eta hurrengo bertso-lerroan “gaxoak osatu” adierazten du, puntu berberean bi kontrajarren agertzen direla. Ekintzen erritmoa ere areagotu egiten da, aditz laguntzailea omititzen delako eta esaldi elkartuak pilatzen direlako. Enfasi ukitu bat ere antzeman dezakegu hirukote honen azken puntuan: “argi gozo oi, apal-apalki/ beti zatoz gu laguntzen”. *Beti* hitzak, horretaz konturatzea erreza ez den arren –askotan erabiltzen delako–, azken puntu horri falta zaion indar puskatxoa ematen dio, nahiz eta jakin kasu guztietan ez dela horrela gertatzen (neguko egun ilun eta hotzetan eguzkiaren laguntasuna ez da nozitzen, adibidez).

Bertso-sorta honetako azken bertsoak gaiak aldatzen du. Irakaspen kutsuko bertsoa da. Lehengo bost bertsoek zeukaten zentzu fabulistikoa (naturako izakien pertsonifikazioa, eurekin daukan bakarriketa, tasun boteretsuak egozte) albo batera lagatzen da. Orain alegoria horren azalpena dator, esnatze moduko bat, eta irakaspen bat. Azken puntua berriz, azalpen horren ondorioa izango da:

Gaurko munduan apaltasuna  
ia dakusat galdurik,  
alkar-maitasun zoriontsua  
gorroto-soinez jantzirik;  
eguzkiaren argia bage  
ezek ez daun lez bizirik,  
alkar-maitasun barik be ez dau  
munduan iñoiz bakerik. (B038b)

<sup>350</sup> Hala ere, errealitatetik urrun ez gabiltzalakoan gaude esaten badugu bertso hauen azken puntuak indarririk gabekoak direla. Azterketa honetan ikusten denez, estiloaren aldetik ez daukate nabarmena den errekurtsorik.

Hasierako bertsoek (arestian aipatuta: B037c eta B038a) errealitate bat ekartzen digute gogora, azkeneko bertsoan agertu denetik guztiz beste maila batekoa. Orain arte elementu errealekin (eguzkia, mendiak, txoriak, basoak, arbolak) alegoria bat eraiki da. Hemendik aurrera kontzeptuak izango dira protagonista: apaltasuna, gaurko mundua, alkar-maitasuna, gorrotoa. Azken bertso honen hirugarren puntuak gogora ekartzen digu aurreko alegorian deskribaturikoa eta moduzko konparazio baten lehenengo atala eskaintzen zaigu: “eguzkiaren argia bage/ ezek ez daun lez bizirik”.

Eguzkia, beraz, *alkar-maitasunaren* irudia zen (metafora hain zuzen). Azken puntuan konturatzen gara horretaz, “ustekabeko efektoa” azkenerako atzeratu da<sup>351</sup>. “Ustekabeko efektu” hori ez ezik, esaldi sententziosoa da bertsoaren bukaera, eduki pedagogikoa daukana: “alkar-maitasun barik be ez dau/ munduan inoiz bakerik”.

Azpiatal honetan esandakoa bilduz, hauxe esan dezakegu: eredu hau, beste gaietara lotuta ager daitekeen arren, izadiaren gaiari oso lotuta dago; izan ere, gai honek deskripzio eta aipamenen pilaketarako beta ematen du. Bertso lasaiak dira, kontraste eta aurrerapauso semantiko bortizik gabekoak.

## 2. Zazpi puntuko ahapaldiak

Orain arte zortzikoak izan ditugu aztergai. Beste motatako ahapaldi moten azterketari ekin beharko zaio. Horren aurretik baina, adierazi behar da bestelako ahapaldi moten korpua askoz murrizagoa dela. Orokorrean guk erabili dugun Balendin Enbeitaren korpua 710 bertsoak da: horretan *Nereapurra* eta *Bizitzaren joanean* liburuetan argitaratutako bertso guzti-guztiak sartu ditugu. Horretaz aparte, bat-batean botatako batzuk ere sartu ditugu. Kepa Enbeitaren bertsozko korpua 1015eko bertsoak da eta berorretan ez daude sartuta *Gure Urretxindorra* liburuan dauden guztiak, bi heren inguru baino. Kepa Enbeitaren corpus idatzia handiagoa da beraz, eta horrek ematen du aukera zortzikoak ez diren ahapaldiak hobeto aztertzeke, zortzikoaren aldean murrizagoak izanik, kopuru absolutoak aukera ematen duelako. Balendin Enbeitaren kasuan adibidez hori zailagoa da. Zazpi puntuko ahapaldiak, esate baterako, pare bat bertso-sortetan baino ez dira agertzen<sup>352</sup>. Bertso kopurua hain murrizta izanik, zaila da joera nagusiak asmatzen, baina ahaleginduko gara.

<sup>351</sup> Marko Kunz (1997, 64-67) bere *El final de la novela* liburuan gibel solasa eta eranskinari buruz aritzen da. Aipatu dugun azken bertsoa, osorik hartuta, gibel solasa bat dela esan liteke, izan ere fikziotik aldentzen da, eta aurreko alegoriaren zentzua argitu nahi digu. Bistan da Balendin Enbeitaren produkzioak ez zirela nobelak, baina nobelaren atalak aztertzeke dauden teorizazio eta metodologi tresnak baliagarriak suerta daitezke, bere neurrian, bertso eta bertso-sorten azterketarako. Iruzkina honekin hauxe esan nahi dugu: agian ikusi beharko litzateke hizkuntzaren bidez ekoizten den gai artistiko edo estetiko nola aztertu. Generoen arteko mugak ezabatu daitezke, ikuspegi berri horrekin; izan ere, nobelarako balio duenak, beste neurri baten, eta beste modu baten bertso-sorta baterako balio dezake. Gure tesiak, oster, bere mugak ditu eta beste baterako laga behar ikerketa ildo hori.

<sup>352</sup> “Arratia’ko basurdia” *Nereapurra* liburuan eta “<<Atxeli mendi>>ko gurutzeta” *Bizitzaren joanean* liburuan.



Balendin Enbeitak ahapaldi mota hau zenbait gertaera kontatzeko erabiltzen du. Ez da kopuru handikoa Balendin Enbeitak gertaerak kontatzeko ekoiztu duen bertsoen multzoa. Agian haxe izan liteke horren azalpena: Bizkaian, Balendin Enbeitaren garaian, ez zegoen erroturik gertakizunen bat zela eta bertsoak agintzeko ohitura<sup>353</sup>. Gainera gogoratu behar da Balendin Enbeitak Gerra Zibilaren ostean isilaldi bat igaro zuela. Horrezaz landa, Balendin Enbeita bertsolari urbano baten semea zen (nahiz eta baserri baten bizi), hau da, bertsolaritza urbeetara eramaten ahalegindu zen bertsolari baten semea<sup>354</sup>. Gai tradizionalak (taberna bertsoak, ziri bertsoak e.a.) eta gertakizun lokalak (jaiak, apostuak, nobioen hausturak e.a.) ez ziren garrantzi handikoak edo ez ziren Kepa Enbeitaren tematikakoak.

Mota honetako bertso sortetan gertaera xeble baten kontakizuna egiten da. Kontakizunak, beraz, bere garrantzia du eta ahapaldiaren egitura baldintza dezake.

Aztertzera goazen bertso sorta honetan, kontaketak ez ezik ahapaldiaren neurriak ere eragin lezake ahapaldiaren egitura; izan ere, “Juana Bixenta Olabe”-ren doinu eta neurrian kantatzekoak dira bertso hauek. Hona hemen eskema:

-----10 A  
 -----11 A  
 ----- 10 B  
 ----- 10 B  
 ----- 5 C  
 ----- 10 C  
 ----- 10 C

Zazpi puntuko bertsoa da eta hiru hoskidetza mota erabiltzen dira. Lehenengo motari bi oin dagozkio, bigarrenari beste bi eta azkenari hiru. Sorta honetako lehenengo bertsoa haxe da:

Arratiako erri batian  
 jazorikua da aurtengo urtian:  
 txarri bat artu eben azteko  
 urte guztiko koipetarako  
 ederra ei zan

<sup>353</sup> Ezaguna da bertso-paperak batez ere Gerra Zibila aurretik izan zirela ospetsuak. Horrela azaltzen du fenomeno Juan Mari Lekuonak: “Azkeneko gerra zibilarekin batera ezkutatu eta gorde ziren bertso berriz hornituriko orrialde hauek. Gerraosteko bertso-jartzaileek aldizkari eta izparringietan argitaratu dituzte beren poema herrikoiak, ahozko poesigintzaren girokoak, ez ordea bapatekoak” (1982, 105).

<sup>354</sup> Orain ez dagokigu sartzea Kepa Enbeitaren bizitzaren zertzeladetan. Baina harira dator gogoratzea bere bertsolari jarduna ez zela folkloriko hutsa izan. Mitin politikoetan parte hartu zuen, biztanleria dezente zuten herrialde urbanoetan. Ekitaldi horietan idazle eta jende eskolatuarekin batera ibiltzen zen, eta garai haietan hori zerbait bazen. Horrela azaltzen du Juan Mari Lekuonak (1982, 101): “Txirritaren garaian, bertsolari asko eskolatu gabeak zirenez, orduan bertsolariak folklore mailako zerbait ziren batez ere, uritarteko gizartean zeregin jakinik ez zutela. Baina ez zen horrela gertatu K. Enbeitarekin, Muxikako urretxindorreakin. Honek uritarteko gizarte-sentipena kantatzen du, batez ere politika arloan, eta kontzientzia kolektiboaren interpretari gertatzen da, jendetza handien aurrean abesten duela”.

txarri ederrik inun an bazan  
esangotzuet zelangua zan (B045a)

Bertso honek, arestian azaldu ditugun neurriak eta hoskidetzak horrela bultzatuta, hiru zati nagusi ditu, eta zortzikoen hirugarren ereduarekin zenbait antzekotasun ditu:

a) Lehenengo gaia.

----- 10 A

----- 11 A

b) Bigarren gaia.

----- 10 B

----- 10 B

c) Hirugarren gaia.

----- 5 C

----- 10 C

----- 10 C

[c.1. Inflexio gunea (gai berriari sarrera)

----- 5C

c.2. Azken gaiaren eta azken puntuaren zehazpena.

----- 10 C

----- 10 C]

Lehenengo bertso honi aplikatuz:

**a)** Gertakizuna denboraz eta lekuz kokatzen da (zehaztasun murriztez).

**b)** Gertakizun nagusia zein den azaltzen da: *txarri* bat hartu zutela (ez du zehazten nortzuek) urte betean hazteko.

**c)**

**c.1.** Txerriaren ezaugarri bat aipatzen da: “ederra ei zan”.

**c.2.** Txerriaren deskripzioa iragartzen da, lehenagoko “ederra ei zan” hori pixka bat zehaztu ondoren: “esangotzuet zelangoa zan”.

Iragarri den deskripzio hori hurrengo bertsoan dator beraz:

Gorbean euken txarria artuta,  
basurdia ei zan beraren aita,  
txarri polita bera benetan,  
oso bizkorra gauza danetan,  
bera zaintzeko  
etxeke danak etziran naiko,  
kortako atia edei ezker. (B046a)

Hauxe litzateke bertso horren egitura:

**a)** Txerriaren jatorria zehazten da.

**b)** Txerriaren itxura eta izaera ederra goraiatzen da.

**c)** Txerriaren basatikeria grafikoki deskribatzen da.

**c.1.** “bera zaintzeko”: gai berri bat iragartzen zaigu, hau da, itxuraz ederra izan arren, txerri bat erosteak beste arazoa dakar, zaintzea edo gobernatzea (garraiatzea, kortan sartzea, e.a.) hain zuzen.

**c.2.** Etxeko guztiei laguntza eskatuta ere, ezin zen txerria maneiatu (kortako atea edegiz gero, hau da, txerria aske utziz gero). Horrek, lehen adierazi bezala, zehar bidez eta elipsiaren bitartez txerriaren basatitasuna azaltzen digu.

*Txarribodaren eguna da laugarren bertsoan jorratzen hasten den gaia.*

Eldu zan, bada, bere sasoi,  
ill biar ebena urte-txarria.  
Muxikatikan iru morrosko;  
juan zirian orretarako  
danak bildurrez,  
zer jazoko ete zan ardurez  
zauritu ezkagizan agiñez. (B046c)

Harrigarria da hemen ere zein ondo egokitzen den bertso honen egitura arestian emandako egiturari.

**a)** Txerri hiltzearen ekintza aipatzen da, hurrengo bertsoetan mintzagai izango dena.

**b)** Txerria hiltzera hiru gazteak joan zireneko datua ematen da.

**c)**

**c.1.** *Morrosko* haien barne egoera iragartzen da: beldurrez zeuden.

**c.2.** Beldurraren arrazoia azaltzen da, eta azken puntuak arrazoia grafikoki adierazten da, *aginez* hitzak tentsioaren zamarik handiena biltzen duelarik.

Bertso honetan inkoherentzia bat sumatzen da, izan ere, hirugarren eta laugarren puntuetan hiru *morroskoak* joan zirela kontatzen du narratzaileak hirugarren pertsona pluralean. Baina azken puntuan, *morroskoen* barne egoera azaltzerakoan, narratzaileak bere burua inplikatzeko du, bera hiru *morrosko* haietariko bat bailitzan: “zauritu ezkagizan agiñez”. Lehenengo pertsona pluralean erabiltzeak kontalariak istoriotxo honetan parte hartu omen zuela adierazten digu.

Laugarren bertsoetik zortzigarrenean, txerriaren hilketa kontatzen da: antolakuntza eta estuasunak. Ohituren deskribaketa ere egiten da bide batez. Baina lortzen duen efekturik garrantzitsuenak da igarotako estuasunak satirikoki kontatzea. Hona hemen zazpigarren bertsoa:

Etxeko jaunak esaten eban:  
“Neuk elduko deusak buzetan,  
eta zu bizkor egon gantxoaz,  
eta bestiak gero eskuekaz!”  
Baña nok eldu?  
Ez gantxo, ez buztan eta ez esku,  
ezin genduan geure eskuratu. (B047b)

Bertso honen egiturak aldaketa bat dauka bertso sorta honen beste bertsoekiko: lehenengo lau puntuak gai berberari dagozkie. Hau litzateke eskema:

**a)** Etxeko jaunaren aginduak txarriboda antolatzeko.

**b)** Kontalariak (txerri hiltzaileetako bat) antolaketa horren porrota kontatzen du.

**b.1.** Kontalariak galdera erretoriko baten bidez antolaketa hori zalantzan jartzen du. Egoera hau da: inork ezin zion txerriari heldu. Baina mezuari indar gehiago eman nahian galdera erretoriko bat egiten da sarritan. Galdera mota hau (subjektuagatik galdetzea) ahozko euskaraz eta batez ere Mendebaldekoan, usua da: “Baña nok eldu?”. Berez ez da galdetzen erantzuna ezagutzeko asmoz, zeren eta erantzuna ezagutzen baita: ezin zion inork heldu. Entzuleari erronka moduan planteatzen dio igorleak: ea kapaz den esateko ekintza hori nork burutu zuen, jakinik ezin izango duela erantzun, inork ez baitzuen ekintza hori burutu. Beraz, bertso honetan, galdera erretoriko honen mezua da inork ezin zuela txerriari heldu, hain zen handia bere indarra eta. Ahozko estiloaren errekurtsio bat erabiltzen du hemen ere Balendin Enbeitak, bertsoak puntu honetan jira bat ematen du, baina gradualki.

**b.2.** Txerria kontrolatzeko ezintasuna kontatzen da. Hasiara baten polisindeton bat dirudien ukazio enfatikoa ikus dezakegu: “**ez** gantxo, **ez** buztan eta **ez** esku”. Txerriari oratzeko erabili nahi ziren euskarriak baliogabeak suertatu zirela ematen du aditzera. Azken puntuan, aurreko bi puntuetan iradoki dena esplizituki adierazten da, agian adierazkortasun eskasez baina sententziosoki: “ezin genduan geure eskuratu”.

Bederatzigarren bertsoaren gaia beste arlo bat ukitzen hasten da.

Entzuten gendun uste ebela  
amar bat arroba egingo zala.  
Gero bost eta iru kiloan  
gelditu zuen justo-justoan,  
etxeko pentzu  
geienak zituala amaitu.  
Zenbat eingo zan jan ez balitu? (B047d)

Txerria hilda gero, okelaren pisua da mintzagai bertso honetan, eta hau da bere egitura:

**a)** Pisua zenbatekoa izango zenaren ustea.

**b)** Benetan zenbat pisatu zuen, kontraste modura adierazita.

**c)**

**c.1.** Egileak egoera horretan sortu zen kezka bat planteatu eta gogora ekartzen du: txerriak pentsu asko jan zuen, eta beraz bera haztea garesti ateratzen. Hala eta guztiz ere (arestian adierazi bezala), txerriaren pisua eskasa izan

zen. Honek azken puntura garamatza, egileak egiten duen galdera erretorikora hain zuzen.

**c.2.** Galdera erretoriko honekin, zera eman nahi da aditzera: txerri hau haztea garestia atera da eta ez oso errentagarria. Hala ere, bere hazkundean inbertitu izan ez balitz, emaitza askoz kaxkarragoa izango zen: “zenbat eingo zan jan ez balitu?”. Hemen berriro ere balizko entzuleari erronka bat aurpegiratzen dio: ea kapaz den esateko zenbat pisatuko zuen txerriak, hau da, zer etekina emango lukeen txerriak, nagusia zekena izan balitz, janaritan gutxi gastatu izan balu, alegia.

Bertso-sorta honen azken bertsoak ere beste gai batera makurtzen dira. Azkena ikus dezagun:

Etxeko jauna mindu ez daiten  
 enoa larregirik luzatuten;  
 ez dogu gura asarratzerik,  
 baizikan bizi maite-maiterik;  
 oldoztu ondo,  
 txarri obia urrengorako  
 San Antoniori eskatuteko. (B048d)

Hemen ere beste bertsoetarako erabili dugun egitura aplika dezakegu:

**a)**

Etxeko jauna mindu ez daiten  
 enoa larregirik luzatuten;

Egileak lehenengo pertsonan adierazten du ez duela gaian sakondu nahi eta horren helburua hau da: “Etxeko jauna mindu ez daiten”. Etxeko jaunak txerri horrekin izan duen zorte txarra adierazia izan da eta baita ere bestelako trapu zikinak. Baina kontaktaren helburua ez da izan pertsona hori mintzea, gertaera xeble bat kontatzea baizik, eta, bide batez, txerri hiltzearen gorabeherak modu satirikoan azaltzea.

**b)**

ez dogu gura asarratzerik,  
 baizikan bizi maite-maiterik;

Hemen kontalariak lehenengo pertsona pluralean, etxeko jaunarekiko atxikimendua eta txera ona berriro ere adierazi nahi du. Erredundantea izanik ere, badirudi egileak argi utzi nahi duela kontu hori. Nahiz eta bertso sorta osoak kutsu isekari eta satirikoa izan asmo txarrez eginda ez dagoela azaldu nahi du Balendin Enbeitak.

**c)**

oldoztu ondo,

**c.1.** Mezuaren hartzailea aldatzen da. Oraingoan etxeko jaunari zuzentzen zaio aholku kutsuko agindu bat emanaz. Aholkua kontatu denaren ondorioa izango da, eta intentzio onez emana gainera.

txarri obia urrengorako  
San Antoniori eskatuteko.

**c.2.** Aginduaren helburua zehazten da erlijioaren erreferentzia eginez. Narratzaileak etxeko jaunari San Antonio gomendatzen dio bitartekari legez. Irakaspena ere badakar bere baitan aholku horrek: ganadu kontuetan santu baten bitartekaritza alperrekoa ez dela irakatsi nahi dio, eta gertatutakotik ondorioak atera behar dituela arazo hori berriro gerta ez dadin.

### **3. Sei puntukoak**

Badu Balendinek sei puntuko bertso kopuru bat, “hamabikoak” dei ditzakegunak, hamabi bertso-lerro dituztelako hain zuzen. Barne bizitzarekin erlazionatuta dauden zenbait gai jorratzeko erabiltzen ditu. Badirudi gaiak nolabaiteko zabaltasuna eta zehaztasuna behar duela. Zortziko bat motz geratuko litzateke behar dituen ñabardurak eta alderdiak ondo agertzeko. Gai horietako bat maitasuna da, nolabaiteko koiuntura jakin batetik at azaldu nahi denean.

Balendin Enbeitaren ideologia aztertzea ez dagokigu atal honetan baina bere ideologiaren ardatzak zeintzuk diren gogoratzea ez da alperrik izango, aztertzen ari garen bertsoetan eta beraien egituretan eragina izan dezaketelako. Ardatz bat abertzaletasuna da eta horri lotuta dauden inplikazioak. Beste ardatz bat, Kristautasuna barik, humanismo kristaua dela esango genuke zeren eta gai batzuk beren-berengi erlijiozkoak ez diren arren, nolabaiteko humanismo baten islak dira. Humanismo horrek giza bizitzaren eremu desberdinak hartzen ditu eta haietan bere inplikazioak ditu. Eremu horietako bat giza maitasunaren ikuspegia da. Ez da edozelako gai bat Balendin Enbeitarengan, oso gai samurra eta seriotasun handiz tratatzen duena baizik. Hemen ikuspegi satirikoak ez du lekurik, aurreko gaian bezala. Tonu grabea ere ez da gailentzen dena. Bertso hauetan begirunea ez dago tonu atseginarekin borrokan, geroago ikusiko dugunez.

*Nere apurra* liburuan gai honi ekiten dion lehenengo bertso-sorta “Maitasuna zer da?” izenburukoa dugu. Hiru bertso baino ez dira. Gogoeta bat da horren inguruan eta gaiari zuzen oratzen dio inolako kontaketa baten girotu orde. Horrek gure ustez zera esan nahi du: giza maitasunaren alderdi bat jorratu nahi duela eta gaia bere osotasunean ez duela tratatu nahi. Hori bai, jorratuko duen alderdia garrantzitsutzat jotzen du eta irakatsi beharra susmatzen du egileak.



Balendin Enbeita bere emaztearekin

Usua ez den neurri bat erabiltzen du oraingo honetan Balendin Enbeitak: sei puntuko bertsoak hain zuzen. Hamabiko nagusia deituko genuke. Gai kontzeptual bati ekiten dio egileak eta horretarako neurriaren zabalera lagungarri suerta lekiokela dirudi. Kontuak kontu, egileak neurri hori aukeratu du eta gure ustez arrazoi horregatik hain zuzen: gai hori tratatzeko behar omen dela zertzeladak, zehaztapenak eta azalpenak isurtzeko neurri zabal bat. Hauek dira aipatutako hiru bertsook:

Maitasun ori zelangoa dan  
ta bere aunditasuna,  
au jakiteko bearrezko da  
goi-eskar argitasuna.  
Bere zuztarra arakatzeko  
ez da naikua gizona;  
ez da aukeran bizi izatia,  
ez diru, ez osasuna.  
Zeñek azaldu, bear dan legez,  
bere aberastasuna?  
Ezegaz neurtu ezin leikena  
benetan dan maitasuna (B063a)

Neska-mutil bi jarriko ditut  
gaur esate baterako:  
egiz alkarraz maite badira  
ez dirade bananduko;  
alperrik jarri ibai, itxaso,  
maite bion bitarteko,  
bizi badira danen gañetik  
zigur dira alkartuko.  
Eta nik diñot: Maitasun orrek  
bere indarra nun dauko?  
Goi-eskarrezko indarra da ta  
gizonak ez dau neurtuko (B063b)

Gizonen ona ikustiarren,

ustu arte odoletan,  
 maitasun arren Kristo illa zan  
 kurutz batian Golgotan.  
 Esker txarreko gu izan arren  
 maitatzen gaitu benetan,  
 ezaugarritzat or dogu beti  
 deika Eukaristietan:  
 maitasun orrek daukan ixilla  
 ez da erreza topetan  
 oba izango da bakean itxi  
 Egillien eskuetan. (B063a)

Ahapaldien egituraren eskema eta azken puntuarekin beste puntuak daukaten lotura azaltzerakoan, aldaketak egongo direlakoan gaude. Bertso-sortaren irakurketa egin ostean, komunean egitura bat badagoela uste dugu, nahiz eta egituraren atalak oso markatuak ez izan. Hona hemen guk proposatzen dugun eskema:

**a) Arazoa planteatzen da** –bigarren puntuan– eta **ondorioa** edota egia nagusia **aurreratzen da**.

\_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A  
 \_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A

**b) Plazaratutako arazoa eta ondorioak zehaztasunez azaltzen dira** eta kasuren baten adibidetu ere.

\_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A  
 \_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A

**c) Azken puntua bideratu egiten da.** Kasu bitan galdera eta erantzuna egiturarekin bideratzen da azken puntua. Azken bertsoan azaltzeko ezintasunaren aurrean aholku bat eskaintzen da. Kasu guztietan planteatzen den arazo kontzeptual bati konponbidea eskainiz azaltzen zaigu egilea:

\_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A  
 \_\_\_\_\_ 10  
 \_\_\_\_\_ 8 A

Ekin diezaiogun ba bertso hauen egitura aztertzeari.

Lehenengo bertsoa:



Hiru bertso hauen lehenengoak egitura hau dauka:

**a)**

Maitasun ori zelangoa dan  
ta bere aunditasuna,  
au jakiteko bearrezko da  
goi-eskar argitasuna.

Hasiera hasieratik planteatzen zaigu zein den gaia. Eta hasiera horretan bertan azaltzen zaigu gizakiari gailentzen zaion kontzeptu bat dela, misterio bezalako bat, suma eta nozitu daitekeena baina gizakien jakituriaz bere osotasunean esplika ezin daitekeena. Misterio hori hobeto ezagutzeko ematen zaigu konponbide bat: “goi-eskar argitasuna” eskatzea.

**b)**

Bere zuztarra arakatzeko  
ez da naikua gizona;  
ez da aukeran bizi izatia,  
ez diru, ez osasuna.

Gizakiaren ezintasuna berriro ere eta beste modu batez azaltzen da. Era berean, maitasuna zer ez den adierazi egiten da. Gaiari hurbiltze bat da, baina ingurumarien bidez, zuzenean ez.

**c)**

Zeñek azaldu, bear dan legez,  
bere aberastasuna?  
Ezegaz neurtu ezin leikena  
benetan dan maitasuna.

Gaiari berriro helduz, egileak galdera erretoriko bat planteatzen du. Azken puntuan, galderari zuzenean erantzun gabe, kontrajarpen bat agertzen du Balendin Enbeitak “Ezegaz neurtu ezin leikena” definizioa ematen duenean.

Bigarren bertsoa

**a)**

Neska-mutil bi jarriko ditut  
gaur esate baterako:  
egiz alkarraz maite badira  
ez dirade bananduko;

Estrategia aldaketa bat gertatzen da bertso honetan eta hori ez zaigu ezkututzen. Alderantziz, hasiera hasieratik esaten zaigu zertan datzan estrategia aldaketa hori: adibide bat jarriko du egileak, neska-mutil bi jarriko ditu adibidetzat. Elkar maite dutenean hasiera hasieratik ere esango zaigu zer gertatuko den: ez dira banatuko. Estrategia berria, beraz, eskaini digu egileak, eta egoera horretan azkenean zer gertatuko den aurreratu egiten digu.

**b)**

alperrik jarri ibai, itxaso,  
maite bion bitarteko,  
bizi badira danen gañetik  
zigur dira alkartuko.

Jarritako adibide honetan, lehenengo zatian iragartzen zen emaitza zehaztu egiten da, bi maitaleak elkartu egingo direla alegia.

**c)**

Eta nik diñot: Maitasun orrek  
bere indarra nun dauko?  
Goi-eskarrezko indarra da ta  
gizonak ez dau neurtuko.

Lehenengo bertsoan gertatu zen bezala, azkenaurreko puntua galdera moduan eskaintzen zaigu, azaltzen zaigun kontzeptu horri nolabaiteko esplikazioa bilatu nahian. Azken puntuak galdera horri erantzun nahi diola dirudi, izan ere, maitasun indartsuaren jatorria “Goian” kokatzen du, hau da, Jainkoarengan eta Berak emandako “Goi-eskarrezko”-an edo laguntzan. Atzera ere maitasun hori neurtzeko orduan gizonaren ezintasuna agertzen zaigu azken puntu honetan.

Hirugarren bertsoa**a)**

Gizonen ona ikustiarren,  
ustu arte odoletan,  
maitasun arren Kristo illa zan  
kurutz batian Golgotan.

Bertso sorta honen helmuga non kokatzen den antzematen hasteko, Balendin Enbeitak Kristoren maitasuna planteatzen digu hirugarren bertsoaren hasieran. Maitasunaren gaindia da Kristoren egintza hori, eta berori adierazteko bere gurutzeko heriotza azaltzen digu Balendin Enbeitak, ukitu agonistiko batekin: “ustu arte odoletan”.

**b)**

Esker txarreko gu izan arren  
maitatzen gaitu benetan,  
ezaugarritzat or dogu beti  
deika Eukaristietan:

Maitasun agerpen horri kontrajartzen zaio gizakion esker txarra. Hala ere, Kristoren maitasunak ez du etsitzen eta beste zehaztapen bat ematen zaigu: Eukaristian Kristok duen presentzia. Zehaztasunerako progresioan azaltzen zaizkigu gauzak horrela.

**c)**

maitasun orrek daukan ixilla  
 ez da erreza topetan  
 oba izango da bakean itxi  
 Egillien eskuetan.

Maitasun honek duen logika azaltzen zein zaila den berriz esaten zaigu eta Jainkoaren esku uzten da misterio honen argitzea. Konfiantza keinu honek eta gizakia baino goragoko errealitatea dela apalki onartzeak gaiari balioa gehitzen dio eta erakartasuna erantsi.

**4. Ondorioak**

- a) Balendin Enbeitak hasieran adierazi ditugun eredu estrofiko asko eta asko erabiltzen ditu, eta erabiltzen badaki.
- b) Eredu moten artean, erabileraren maiztasunari dagokionez, ez dago alde nabarmenik. Hala ere, azpimarratu beharko litzateke hirugarren eredu dela sarrien erabiltzen dena. Badirudi egile honek daukan bertsoaren kontzepzioa garatzailea (edo ebolutiboa, nahiago bada) dela. Hau da, estimu handiagoan dauka, bere baitan nolabaiteko arrazoiketa garatzailea edota kontraera garatzailea duen bertso bat.
- c) Egitura garatzailea izateak entzulegoari ustekabeak eragiten dizkio, eta, beraz, arreta hobeto mantentzen du, eta hau bat dator ahozkotasanaren psikodinamikarekin eta testuak produzitzeko mekanismoekin. Egitura garatzaile honen barruan batez ere lehenengo eta hirugarren ereduak kokatzen dira. Lehenengo eredu (1., 2. eta 3. puntua alde batetik eta 4.a bestetik), beronen azken puntuak esanahiaren aldetik ustekabe bat ematen duelako, kontrajarpena edo ezusteko mezu bat kokatzen duelako han. Laugarren eredu (1-2/3/4) eboluzio semantikoa progresiboa eta ondo jokaturia delako.
- d) Bigarren ereduak (1-2/3-4) ere nolabaiteko garapena erakusten du, baina simetrikoa izanik, ziklo edo simetria bakoitza nahiko askea da eta garapena bi katebegietan sinplifikatzen du. Bertso hauen zati simetriko bakoitzari "zikloa" deitu diegu, bakoitzak gai itxi bat jorratzen duelako. Agerian erlazorik izan ez arren, hau da, autonomoak iruditu arren, egileak bata bestearen ondoan jartzean nolabaiteko lotura bilatzen die. Horrela, sakonean edota egilearen irudimenean omen duten lotura hori agerian utzi nahi du egileak.
- e) Baina, bigarren ereduarekin jarraituz, ziklo bien artean izaten den aldea ez da beti izaten gaiari dagokiona. Tonua bera izan daiteke bereizgarria. Adibidez, badira mota honetako bertsoak lehenengo zikloan deskripzioa egiten dutenak eta bigarrenean apelazioa bigarren pertsona erabiliz (gai bera jorratu arren).

- f) Hirugarren ereduak teknika baten sofistikazioa ematen du aditzera, batez ere inflexio gunearen erabilerari erreparatuz. Baina era berean bat-bateko teknikarekin lotura handia izan dezakeela ere esan daiteke. Bat-bateko produkzioan azken puntua izaten da lehenengoz konposatzen dena. Horri lotuta, azken aurrekoa oso garrantzitsua izaten da; izan ere, azken puntuak bere esanahi osoa berenganatuko du azken aurreko puntuaren prestaketari esker. Aurreneko biak betelana izaten dira, betelan kalitatezkoa batzutan, baina azken puntuarekin zerikusi zuzena izan behar ez dutenak. Bertsoa horrela osatuta, garapen semantiko bat eratu egingo da, entzuleak edo bertsoaren jasotzaileak gozatuko duena, eta ezustean harrapatuko duena.
- g) Laugarren ereduko bertsoak badira, baina ez aurreko ereduek duten maiztasun berekoak. Zenbait bertso-sortetan betegarrien papera jokatzeko dute. Betegarria izateak, ostera, ez die garrantzia kentzen; izan ere, bertso-sorta horietan ezinbestekoak dira zehaztasunez aberasteko, egilearen barne mundua hobeto agertzeko eta nolabaiteko “klimak” sortzeko. Deskripzioa eta irudien pilaketa izaten da nagusi haietan, eta nahiko linealak eta ezuste gabekoak izan arren, azken aldera tentsioa pixka bat indartzen da. Bertsoaren bukaera ez dago oso markatua, eta horrek entzulea iradokizunez beterik uzten du.
- h) Zortzikoetatik ateratzen bagara, sei edo zazpi puntuko bertsoak ditugu aztergai bigarren maila baten. Kopuruz askoz gutxiago dira eta beraz zaila da halako egitura-arau batzuk antzematea. Kapitulu honetan, eta sei puntuko ahapaldiak kontutan hartuta, eredu posible bat azaltzen dugu, baina geroagoko azterketarako proposamen bat baino ez da.

# **10. kapitulua**

## **Bertso-sortak**

## **0. Sarrera**

Kepa Enbeitaren bertsogintzarekin egin genuen bezala, Balendinen bertso-sortak aztertzeari ekingo diogu. Gogoratu beharra dago bertso-sortei buruz ari garela, ekoizpen idatziak direla, nahiz eta ahozko estilokoak izan eta bat-bateko jardunean aritzen den bertsolari batek paratuak izan<sup>355</sup>. Erdi-ahozkotasunaren estiloan mugitzen garela auresuposatu daiteke, geroagoko azterketak eta emaitzek kontrakoa adierazten ez duten bitartean.

Sorta barruan gai bakoitza nola garatzen den aztertzen saiatuko gara horrela. Era berean ahaleginduko gara ikusten ea Balendin Enbeitak egitura mentalik ba ote zuen bertso sorta hauek garatzerakoan. Baiezko kasuan, ikusten ahaleginduko gara ea egitura berbera erabiltzen ote zuen bertso-sorta mota desberdinetan edo motaren arabera egitura desberdina ote zuen. Gaiaren ikuspuntutik zazpi bertso mota daudela ezarri dugu.

### **0.1. Hipotesia**

Gure hipotesia hau da: Balendin Enbeitak ez zuen erabiltzen egitura finkorik bertso-sortak idazterakoan. Ez zeukan garbi nolakoa izan behar zuen bertso-sorta baten egiturak eta honen arrazoiak hauek izan daitezke:

- Ikasitako bertso-papergintza irakurriz eta kantatuz berenganatu omen zuen, ez prezeptiba modura edo, esate baterako, manual baten bidez. Ondorioz, egitura kezkarik ez zeukan. Egituraren zantzu apurrak intuizioz ikasi zituen.

- Gai bakoitzari senak esaten zion egitura aplikatzen zion. Horrela egitura aldakorak sortzeko erraztasun gehiago zuen.

- Bertso-sorten luzapena ere aldakorra da: momentuko behar komunikatibo eta sortzaileei erantzunez idazten zituen bertso-sorta haiek.

- Bizkaia aldean, ez zegoen bertso-paperean tradizio handirik eta, beraz, ereduak (eredu estilistikoak alegia, edota bertso sorten egiturarenak) ez ziren horren erraz ezartzen Bizkaiko bertsogintzan.

Dena dela, hipotesi hau eta bere ondorioak bertso sorten egitura aztertu ahala baieztatu edo ukatuko ditugu.

### **0.2. Bertso-sorten gaiak**

Batez ere tematika kontutan hartuta, bertso-sorten sailkapen hau egitera iritsi gara:

1. - Ohiturazkoak.
2. - Natura.
3. - Euskara.

---

<sup>355</sup> Kontu hau Kepa Enbeitaren bertso-sorten egitura aztertzean aipatu genuen. Kapitulu berorren ondorioetan azaltzen saiatu ginen idatzizko estiloak, eta bereziki, aldizkarietakoak, zer nolako ezaugarriak erantsi zizkion Urretxindorren bertsogintzari.

4. - Erlijioa.
5. - Gertaerak.
6. - Maitasun bertsoak.
7. - Omenaldi-bertsoak.
  - 7.1. Despedida edo ongi etorri bertsoak.
  - 7.2. Hiletak direla eta paratutakoak.

## 1. Ohiturazko bertso-sortak

Ohituren deskripzioak bertso sorta askotan aurki ditzakegu baina badira bertso-sorta batzuk non ohituren deskripzioa eta ohiturazko gertaerak eskusibotasunez tratatzen diren.

### 1.1. “Ariatzako Kurutz Deunaren Jaiak”

Horren adibide bat *Nere apurra* liburuaren lehenengo bertso sorta dugu. Bertso sortaren izenburua “Ariatzako Kurutz Deunaren Jaiak” da eta hamabi bertso biltzen ditu bere baitan. Hau da antzeman dugun egitura:

a) Lehenengo bi bertsoak:

- **Gaiaren kokapena.** Bi bertso hauen helburua garatuko den gaia hasieratik aurkeztea da, eta zein den argi eta garbi adieraztea. Aurkezpen honetan jadanik zehaztasun batzuk ematen dira baina geroago garatuko den gai nagusia ez da agertzen oraindik. Beraz, zati hau gero garatuko denaren kokapentzat jo dezakegu. Kokapen honetan bere atxikimenduaren bi ardatzak argi eta garbi jarri nahi ditu egileak: bere herria eta bere herriko jaiak. Hona hemen bigarren bertsoa:

Ariatza da gure  
tokirik gurena  
Ariatzarrok beti  
maitatzen doguna  
Santa Kurtz eguna  
barriz maitiena  
aztu barik goguan  
beti daukoguna;  
Ariatza da gutzat  
munduan onena. (B026a)

b) Hirugarren bertsoetik hamargarrenera:

- **Gai nagusiaren garapena.** Kasu honetan jaiak dira mintzagai eta, zehatzago izanik, jaien pizgarri den ardoa eta horri lotuta ardoaren kontsumoa. Egilea ez dago ardoa edatearen kontra ezta zeharo alde ere. Neurritasunez edatearen alde dago, beti ere didaktismo helburu horrekin. Hona hemen atal honetako bertso batzuk:

3/  
Santa Kurtze bezperaz

asten dira jaiak,  
 orduan eiten dira  
 barrabeskeriak;  
   zaragi aundiak  
   gure gaztediak  
 jaietan edateko  
 daukaz ekarriak,  
 duban edan dagien  
 datozen guztiak. (B026b)

5/  
 Danak egiten dautse  
 ardauari tire,  
 eta bizkortzen ditu  
 gizon ta agure;  
   gero asten dire  
   jira eta bire  
 gorputza astun baña  
 bizkor jarri gure;  
 ardaua ez dok, mutillak,  
 iturriko ure! (B027a)

10/  
 Lenauko zarrak guri  
 erakutsi euskuen  
 zelan ibil biar dan  
 zaragi kontuen;  
   ikasi genduen  
   biar dan moduen;  
 egin daiguzan gauzak  
 al danik onduen,  
 urrengoak be euki  
 daien akorduen. (B028c)

c) Hamaikagarren bertsoa:

- **Kontatutakoaren ondorioa eta laburpentxo bat** da. Bertan, eta ondorio moduan hau ere, irakurleari gonbidapena egiten zaio Ariatzako Santa Kurtzietara etor dadin. Gonbidapen hori egin baino lehen gai nagusiari ez dagokion aparteko aipamen labur eta positibo bat egiten du egileak: dantzan eta jan edanetan aukera izango duela Ariatzara doana. Izan ere gai nagusiak ukitu negatiboren bat izan du: ardoaren arriskuak eta ondorioak, prebentzioa hartu beharra eta abar.

Ariatzarrak beti  
 aldi guztietan  
 eurenak ein oi dabez  
 Santa Kurtz jaietan,  
   dantza aurrekuetan  
   naiz jan-edanetan;  
 gaur be nai daunak olgeu  
 olango gauzetan,  
 Ariatzara etorri  
 Santa Kurtzietan. (B029a)



d) Hamabigarren bertsoa:

- **Epilogo**<sup>356</sup>. Bertan gai nagusi izan diren jaien ostean zer gertatu denaren berri laburra ematen zaigu.

Ariatzako jaiek  
amaitu dira-ta,  
gaztedi guztia dau  
erdi tristetuta;  
janak amaituta  
zagiak ustuta,  
gitxi ardura barriz  
balegoz pageuta!  
Pazentzia artu biar  
egingo dira-ta! (B029b)

## 1.2. “Zesterua”

Ohiturazko sorten artean zenbait konposizio sar daitezke, nahiz eta batzuek ohiturazko edukia nabarmenagoa izan beste batzuek baino. Esate baterako, sail honetan argi eta garbi sar daiteke “Zesterua” bertso-sorta, bere edukian ohiturei arreta berezia eskaintzen zaielako. Sei bertso ditugu sorta honetan eta hauxe omen da bere egitura:

**1. Sarrera** (lehenengo bertsoa). Gaiaren sarrera oso era berezian egiten da, ahozkotasunaren kutsua, kiratsa izatera ailegatuz:

Esaera zar batek  
onela dirausku:  
Lepo bete palugaz,  
esku bete diru;  
nire ogibidea  
beti da zesteru,  
lan asko ta lo gutxi  
guretzat seguru. (B123a)

---

<sup>356</sup> Honi epilogoia deitzeko gure zalantzak izan ditugu. Hala ere, hala dei diezaiokegula uste dugu; izan ere, jaietan zer gertatzen den kontatu izan zaigu jadanik eta, gainera, Karmengo Amaren Egutegian, 1953an argitaratu zen bertso-sorta honetan esalditxo paratextual bat dago bertso honen aurretik: “(Jai osterako)”. Horrela definitzen du Marco Kunz-ek (1997, 64) epilogoia bere *El final de la novela* liburuan: “El segmento final de un texto (o de un libro entero que contiene varias obras) se llama epílogo cuando se trata de una especie de anejo, a menudo de carácter paratextual, separado del cuerpo principal mediante diversas técnicas demarcativas”. Kunz-ek, aipatutako liburuan, epilogoen sailkapen bat egiten du: bost epilogo mota bereizten ditu. Bertso-sorta honetan agertzen dena laburpen-epilogoia dela esan liteke; izan ere, jaien gorabeherak kontatu ostean, kontakizunaren arreta jaien ostean jartzen du (“Ariatzako jaiek/ amaitu dira-ta/ gaztedi guztia dau/ erdi tristetuta) eta horren ondorenak deskribatzen dizkigu: batez ere gazteriarengan jartzen du arreta, eta jaien ostean duten zereginen (ardo-zahagiak ordaindu behar izatea). Horrela definitzen digu Kunz-ek laburpen-epilogoia: “El epílogo-resumen, muy difundido en la novelística decimonónica, consiste en contar rápidamente cómo continuaron las vidas de los protagonistas y de los diversos personajes secundarios después del punto culminante del desenlace” (Ibid., 70). Hala ere, esan beharra dago ohiturazko sortetan epilogorik ez dela izaten, aipatutakoaz aparte.

Gaia kokatu egiten digu egileak. Arreta erakartzeko esaera zahar bat aurpegiratzen digu. Horrek, noski, jakin-mina pizten du, hau da, zer esan nahi ote zuen jakiteko gogo. Hirugarren puntuak, ostera, beste datu bat gehitzen digu: egilea *zesterua* dela. Azken puntuak argituko digu gauza bat: esaera zahar horrek ez duela balio *zesteruaren* ogibiderako; izan ere, lan gutxirekin ez du lortuko irabazi handirik. Seguru izango duen bakarra “lan asko eta lo gutxi” da.

## **2. Gai nagusiaren garapena** (bigarren bertsoetik bosgarrenera):

Sortaren zati honetan *zesteruaren* gorabeherak kontatu eta deskribatzen dira. Enfasi berezia egiten du egileak zabaldurik zeuden usteak desegiten; izan ere, *zesteruaren* langintza erraz eta erosoan artekoa ikusten baitzen, antza denez. Uste hori deuseztatzen bigarren bertsoetik hasten da:

Zesteruak ei dira  
 ia aberastu,  
 nik ez dot diru asko  
 egin aurreratu;  
 lepoa makurtu ta  
 belaunak okertu,  
 par egin ezketiño  
 egiten naz poztu. (B123b)

Zabaldurik dagoen usteari (“Zesteruak ei dira/ ia aberastu”) Balendinek bere testigantza kontrajartzen dio: “nik ez dot diru asko/ egin aurreratu”. Bera *zesterua* izanik, bere testigantzak badu indarra. Ondoren esaldi ironikoa botatzen du: “lepoa makurtu ta/ belaunak okertu/ par egin ezketiño/ egiten naz poztu”.

Laugarren bertsoan, *zesteruen* lanak deskribatu ondoren, ironiazko esaldi batekin amaituko du bertsoa:

Goizian izarrakaz  
 lanari oratu,  
 gaubian beranduan  
 ondiño jarraitu,  
 neguan sarri busti  
 ta udan berotu ...  
 Aberastasun orrek  
 zesteruak ditu. (B124a)

Langintza honen zailtasun eta nekeak aipagai ditu bosgarren bertsoan, oso era zehatzean gainera:

Zestoak egiteko  
 falta josgarria,  
 aurrez ordaindu bear  
 nai bada barria;  
 baso-dunak eskuan  
 gura dau txindia,

ordaindu ezin bada  
istillu gorria. (B124b)

### 3. Esandakoaren ondorioa (seigarren bertsoa):

Lan egitia danok  
bearreko dogu,  
geure bizigarritzat  
ogia nai bogu;  
baña egi aundi au  
sekula ez aitzu:  
lanaz bakarrik iñor  
ez dala aberastu. (B124c)

Bertso honetan otzaragintzaren aferatik aldentzen da pixka bat eta ikuspegi orokorrago bati heltzen dio: lan arrunt batekin aberasteko ezintasunari hain zuzen.

#### 1.3. “Neure baserriko bizitza”

Zenbait ohituren berri ematen duen sorta bat honako hauxe dugu zalantzarik gabe. Ohiturazko eleberri baten kontatu eta zabaldu litezkeen kontu asko agertzen dira bertan. Hain da ohiturazkoa ezen lehenengo bertsoetik hasten da eguneroko jardunean zer egiten duen azalduz, kontaketa kutsu poetiko bat eman nahi diolarik.

**a) Sarrera:** izenburuak berak egiten dio sortari sarrera, oso laburra bada ere. Izan ere, sortan kontatuko zaiguna horixe da, Balendin Enbeitaren baserriko bizitza, baserrian burutzen duen eguneroko jarduna. Beste azalpenetan ez da sartzen eta lehenengo bertsoetik burubide horri lotuko zaio.

**Goizean ogetik jagi,  
gelako leioa edegi  
eta jartzen naz ni adi:**  
Etxe ondoko itxaur gaiñian  
txantxangorria kantari,  
eguzkia dizdizari,  
nere baserri txuari  
bake gozoan geznari. (B138a)

Lehenengo bertso honek ez digu zuzenean aurkezpenik egiten, baina, lehenengo pertsona erabiltzean eta egunaren hasiera dela adieraztean, kokatu egiten gara gaian: egun “arrunt” edo eder baten hasieran gaude, eta bertsolariak bere jardunbide landatarra kontatuko digu.

Hemen oso gardenki ikusten da idatzizkotasunaren eragina; izan ere, sorta honek izenbururik izango ez balu<sup>357</sup> kostatuko litzaiguke gaian kokatzea hasiera hasieratik.

---

<sup>357</sup> Bat-bateko jardunean, batez ere bertsolariak gai librean aritzen direnean, bertsoetan bertan esaten zaigu zeri buruz kantatzen den. Bertso-paperak plazetan saltzen zirenean izenburua ez zen aipatzen.

b) **Gai nagusiaren garapena** (bigarren bertsoetik seigarrenera).

Kronologikoki ordenaturik, egunean zehar bertsolari eta bere inguruko langintzak eta jardunbideak kontatzen dira.

Otorduak agertzen dira: “gosaldu eta lanera”; “Artuten doguz arto ta gari,/ babarrun, patata, sagar”; “Danok batera gero apaldu/ sendiko bako gozotan”. Lan modu desberdinak ere bai: “bardin baso nai solora”; “Etxe barruko lanetan/ abeslari bertsoetan/ aberiak gobernetan”. Jardunbide horietan zenbait balio ez dira albo batera lagatzen, alegia, euskara, sinismena eta familiartasuna:

Jagi ta lenengo lana  
 auxe egiten doguna  
 zuzendu Jaunarengana [...] (B138b)

[...] sendi arteko izkera  
 aurreko zarren antzera,  
 egiten dogu euskera. (B138c)

[...] Emazte ona begira daukat  
 irri-barreka atian;  
 senarra ondo ikustian  
 poza dauka biotzian,  
 ondo artzen nau etxian. (B139a)

[...] Danok batera gero apaldu  
 sendiko bake gozotan;  
 ogerako orduetan  
 agurtza deuna errezetan,  
 ondoren ogera lotan. (B139c).

c) **Esandakoaren bilgune edota ondorioa** (zazpigarren bertsoa)

Baserritartasun bizitzaren sinboloa den baserriari zuzentzen dio Balendinek bere azken bertsoa. *Desideratum* bat adierazten du, laguntasunezko aginduen bidez. Izan ere, sorta osoan baserri giroaren ikuspegi gozo eta ia-ia bukolikoa adierazi du eta horrek azken gogoeta-bertso hau eskatzen du, eguneroko jardunetik at kokatuta:

Neure baserri kutuna,  
 aita ta amak emona,  
 nai dot zure iraupena.  
 Ondorengoak ez beie galdu  
 zuk dozun edertasuna,

---

Lehenengo bertsoarekin entzuleak bazekien zeri buruz kantatuko zen. Adibide asko eta asko eman daitezke. Esaterako Xenpelarren honako hau: “Dozena bat bertso berri/ gaztien kontsolagarri/ nere mingaña sano dan arte/ nai nituzke jarri:/ begiratuaz alkarri/ andrerik ezin ekarri,/ mutil zarren despeira zer da/ esango det sarri” (Jauregi, 1958, 59). Demagun bertso hau entzun dugula. Entzunda gero gaiaren sarrera gutxi gorabehera egiten zaigu eta badakigu (edo suposa dezakegu) nondik nora joango den, nahiz eta zehaztasunak ez ezagutu. Horretan datza hain zuzen eta neurri handi baten bertso-sorta horren arrakasta: ezagutzen ez ditugun xehetasun bitxietan, ezustekoetan edota kontraera xelebrean.

oitura ta siñismena;  
beti izan zentzuduna,  
egiazko euskalduna. (B140a).

## **2. Natura gaitzat duten sortak**

Izadia motibo nagusia duten bertso-sorten egitura aztertzea dagokigu orain. Badira mordotxo bat, baina era desberdin askokoak eurak ere.

### **2.1. “Eguzki, argi laguntzallia”**

Sei bertso dira sorta hau osatzen dutenak, eta egiturari dagokionez banaketa hau proposatzen dugu:

#### a) Gaiaren aurkezpena (lehenengo bertsoa)

Egileak harrera ona erakutsi nahi dio naturako elementu horri, kasu honetan pertsonifikaturik agertzen den eguzkiari.

Eguzki, argi gozo biguna  
bazatoz neure leiora,  
nagi bagarik goizian goiztik  
egun onak emotera,  
pozez beterik jarten nozula  
zeu ikusiaz batera;  
eskarrik asko eta egun on,  
etorri zaitetz aurrera! (B036a)

Sarrera honek hiru giltza dauzka:

1. Eguzkiaren etorrera iragarri egiten da (“Eguzki, argi gozo biguna,/ bazatoz neure leiora”).
2. Horrek bertsolaria pozten du (“pozez beterik jarten nozula/ zeu ikusiaz batera”).
3. Egilearen esker ona (“eskerrik asko eta egun on,/ etorri zaitetz aurrera!”).

Sorta osoa gidatuko dituzten hiru ardatzak, ia ezer ñabartu gabe egon arren, jadanik lehenengo bertsoan agertu zaizkigu. Hortaz, sarrerarako eduki mamitsua badela esan dezakegu.

#### b) Gai nagusiaren garapena (bigarren bertsoetik bosgarrenera)

Anplifikazioaren teknikaz eta harrera on horri arrazoia eta oinarria emanez, naturako elementu horren onurak gorai patzen dira. Horren adibidetzat laugarren bertsoa erakusten dugu:

Gau illunian bultz eraginda  
 bazatoz, argi gozoa,  
 egunsentiko zure dizdiraz  
 argitzen neure txokoa;  
 mendi ta zelai, uri, baserri,  
 errekek eta itxasoa,  
 argi gozotan jarten dozula  
 pozez gizadi osoa. (B037a)

Ludi ontako izaki danak  
 zuk alikatzen dituzu,  
 laño illunez estalduriko  
 ortze oztiña argitu;  
 lurbira danai bizitza emon,  
 itxas-orruak baretu,  
 gogo itunak poztuta jarri  
 eta gaxoak osatu. (B037c)

c) Esandakoaren bilgune edo laburpena (seigarren bertsoa):

“Moraleja” edo ikasbide kutsuaz egindako bertsoa dugu hau. Erakutsi egiten da naturako elementu hori benetan azaldu nahi denaren alegoria izan dela, edo behintzat sortaren gaitik aldentzen da egilea, distantzia batera jartzen da gogoeta etiko bat egiteko. Esan bezala, gogoeta etiko hori ikasbidea ere bada

baina, era berean, epilogoaren zantzua hartzen duela dirudi<sup>358</sup>.



Naturako elementu hori konparazio bezala agertzen da orain eta alegoria horren ondorioa eskaintzen da, ondorio horrek moral zentzua duelarik.

Gaurko munduan apaltasuna  
 ia dakusta galdurik,  
 alkar-maitasun zoriontsua  
 gorroto-soinez jantzirik;  
 eguzkiaren argia bage  
 ezek ez daun lez bizirik,  
 alkar-maitasun barik be ez dau  
 munduan iñoiz bakerik. (B038b)

## 2.2. “Txepetxa”

a) Sarrera (lehenengo bertsoa)

<sup>358</sup> Ohiturazko sorten artean, “Ariatzako kurutz deunaren jaiak” izenekoak epilogo bat bazuela ikusten genuen. Epilogo hura, oster, ondoriotik aparte zegoen. Orain dagokiguna, ondorioa eta epilogoia da batera.

Egia esan, bertso honetan motibo nagusia aurkeztea besterik ez da egiten. Aurkezpenak gainera ez du lorratzik ematen garapenaren nondik norakoak

Balendin, izadiaren kontenplatzaile

zeintzuk izango diren jakiteko:

Sasipetan dabillen  
gure txepetxue,  
buzten laburra eta  
zorrotza pikue;  
txori danen errege;  
batzarrak autue,  
ez dok txantxetakoa  
txepetx txikitxue. (B125a)

b) Aurkeztutako gaia jorratu egiten da (bigarren bertsoetik laugarrenera)

Anplifikazioaren bidez, aipatutako txori mota haren goraipamena egiten da deskripzioen bidez. Bigarren eta hirugarren bertsoetan egilea txepetxari zuzentzen zaio, bigarren pertsona erabiliz. Hona hemen hirugarren bertsoa:

Udabarrian dozuz  
umetxuak azten,  
zugatz-zuloan edo  
orma zarren baten,  
kuku zarren bat ez bok  
eugana etorten,  
eure jauregitxuan  
arrautza egiten. (B126a)

c) Ikasbidea edo mezuaren bilgunea (bosgarren bertsoa)

Aurreko bertsoak alegoria bat izan direla erakutsi egiten da. Ondorio moral bat eskaintzen da, txepetxaren bizimodua eta izaera deskribatu ondoren. Egilea berriro ere motibo nagusitik aldentzen da bere ondorio morala ateratzerakoan. Ikasbide horrek abertzaletasunarekin zerikusia dauka kasu honetan:

Zaindu daigun bakotxak  
norbere etxia,  
txori kaltegarriai  
itxiaz atia;  
kenduten badauskue  
geure euskeria,  
amaitu zan betiko  
gure Euskalerria. (B126c)

### **2.3. “Edurra eta zozoaren autua txepetxak erabagi”**

Izadiaren gaiaren barruan beste modalitate bat erabiltzen du Balendin Enbeitak: elkarrizketaren modalitatea. Bertan, pertsonifikaturik agertzen diren naturako elementu batzuek bertsozko elkarrizketa bati ekiten diote, zenbait gai arrazoituz eta errefusatuz.

Horietako bat epigrafean aipatutako sorta da. Gehiago ere badira, baina denak zehatz-mehatz hona ekartzea ez du merezi, egitura oso antzerakoa baitute. Hala ere, argigarritzat aipameneren bat edo beste egingo dugu.

*Edurra* eta zozoaren arteko autu edo elkarrizketa honetan hiru dira pertsonifikaturik eta eztabaidan parte hartuz agertzen diren pertsonaiak: *Edurra*, zozoa eta txepetxa. Sei bertso ditu bertso sorta honek eta hau da bere egitura:

a) Aurkezpena (izenburua bera)

Berez, aurkezpena bertso-sortaren tituluarekin egiten zaigu. Esan zitekeen aurkezpena lehenengo bi bertsoekin ere egiten dela; izan ere, beraietan autua edo eztabaidaren nondik norakoak esplizituagoak egiten zaizkigu. Baina era berean, hasierako bi bertso horietan eztabaidaren gunea ere badagoela esan daiteke. Horrezaz gainera, kontutan hartu behar da eztabaida lau bertsoetan baino ez dagoela. Beraz, Eztabaidaren *gorputzari* bi bertso “kentzea” larregi litzateke.

b) Gorputza

Afera nagusiaren nondik norakoak erakusten dira, naturako elementuek elkarri salaketak leporatzen dizkiotelarik.

b.1. Lehenengo bertsoa:

- Pertsonaia batek afera edo gatazka aurkezten du.

Zozoa:

Mendi ta baso bide ta zelai,  
edurrak dauz estaldurik,  
zozo gaxook lurmenen billa  
gosiak amurraturik.  
Zelan gabizen ikusi ta be  
ez dau gure errukirik,  
eneban uste edur zuriak  
ain biotz baltza eukanik. (B112a)

b.2. Bigarren bertsoa:

- Beste pertsonaiak errefusatu egiten du lehenengoak esandakoa beste datu argigarri batzuk gehituz.

Edurra:

Udan kantari pozez ziñian  
mendi baso zelaietan,  
edurrai barre eginik arro



zebiltzan une aretan.  
 Ta orain neure aldia da ta  
 zetan zatoz ni tentetan?  
 Zeure lekuan konpondu zaitez,  
 ez sartu iñon praketan. (B112b)

b.3. Hirugarren bertsoa:  
 - Aurrekoaren ukazioa eta beste arrazoiak gehitu.

Zoz.:  
 Udan kantari ibilli arren  
 eneutzun kalterik egin,  
 eta zuk barriz emen naukazu  
 otzez eta gosiakin.  
 Orrenbesteko biotz gogorra  
 zelan zara zu nirekin?  
 Bizi izaten ez dago errez  
 zu lango jauntxuarekin. (B112c)

b.4. Laugarren bertsoa:  
 - Beste pertsonaiak esandakoa ñabartu, eta ukatu.

Edu.:  
 Gauza gatxa da mesede egiten  
 iñori kalte egin barik,  
 nik edurragaz lurra izten dot  
 uragaz ondo aserik;  
 zuk barriz lurak dakarrena jan  
 lanikan egin bagarik,  
 nor garan jauntxu aundiagoa  
 ori jakin nai nuke nik. (B113a)

c) Itxiera: aferaren ebazpena (bosgarren eta seigarren bertsoak)

Eztabaidan parte hartu ez duen beste **personaia batek bere iritzia ematen du**. Iritzi hori agertzen da inpartzialidade gehiago balu bezala, gatazkan interesatuta ez dagoelako. Ukitu moralen bat izan arren, ez da makurtzen ez bataren ez bestearen alde, halako joera integratzaile bat erakutsiz. Une honetan, eta ez sortan zehar, konturatzen gara egilearen benetako mezua zein den. Eztabaida alde bien jarrera argitzeko izan da, ez egilearena<sup>359</sup>:

Txep.:  
 Edurra eta zozoa emen  
 biak agindu gurian,

---

<sup>359</sup>Zentzu honetan, Barbara Herrsteinek poemaren bukaerari buruz esaten duena betetzen da: “As we read the poem, it is a hypothesis whose probability is tested as we move from line to line and adjusted in response to what we there. And [...] the conclusion of a poem has special status in the process, for it is only at that point that the total pattern [...] is revealed” (Herrstein, 1968, 13).

biak aukeran bizi nai dabe  
arantza barik lurrian.  
Ni emen nabil uda ta negu  
al dodan lez sasipian,  
pozik gaiñera kuku maltzurak  
itxi ezkeru bakian. (B113b)

Udaran loraz apaintzen dira  
gure baso ta zelaiak,  
eta neguan edurrak dituz  
zuriz estaltzen guztiak.  
Edurrak negu eta guk uda,  
maite bakoitzak beriak,  
nor nundik eta zelan ibilli  
erakusten du sasoiak. (B113c)

#### **2.4. “Kukua eta txindorraren autua txepetxak erabagi”**

Ondoren aztertuko dugun bertso sorta aurrekoaren antzekoa da. Hemen ere hiru pertsonaia dira arrazoiak emanez agertzen direnak: kukua, txindorra eta txepetxa. Adierazgarria da txepetxak berriro epaia eman izana. Harekiko begirunearen seinalea da zalantzarik gabe. Hauxe da bere egitura:

##### a) Aurkezpena

Aurreko sortan bezala, hemen ere izenburuak berak egiten digu gaiaren aurkezpena. Titulua irakurrita badakigu jadanik bi txoriren arteko eztabaida bat izango dela eta azkenean txepetxak bere epaia emango duela.

##### b) Gorputza (Lehenengo bertsoetik seigarrenera)

Bi pertsonaien arteko eztabaida erakusten da. Pertsonaiok txandaka bere arrazoiak, salaketak eta justifikazioak agertuko dituzte.

##### a.1. Lehenengo bertsoa:

- A pertsonaiak bere bizimoduaren berri ematen digu, nolabaiteko buruaskitasuna agertuz.

Kuk. :  
Udabarria eltzen daneko  
kukuka nago basuan,  
guztiak pozez artuten nabe  
elduten nazen lekuan.  
Neure arrautza ipinten yuat  
txindorren jauregitxuan,  
ni baño obeto bizi dan iñor  
ez dok egongo munduan. (B118a)

##### a.2. Bigarren bertsoa:

- B pertsonaiak A salatzen du:

Txin.:  
Txikia beti aundi-gurian,  
ez da arritzeko gauzia,  
aundiai barriz gustatzen iako  
txikia zapaldutia,  
kukuai barriz bere umiak  
iñon etxian aztia;  
jakin nai neuke nok emon dautsan  
ortako eskubidia. (B118b)

a.3. Hirugarren bertsoa:

- A pertsonaiak bere burua justifikatzen du:

Kuk.:  
Eskubidea norberak artu,  
arpei gogorra izan oso,  
udarik uda lanari iges,  
beti ibilli eroso;  
beste txoriai geure bearra  
dabela siñistu-erazo,  
ori egiten ez badok, ez dok  
bururik egingo jaso. (B118c)

a.4. Laugarren bertsoa:

- Emandako arrazoia arbuiatu egiten du B pertsonaiak, bere salaketarako beste arrazoi bat aurkituz.

Txin.:  
Ori dok, ori, onua edo  
konseju emon daustana;  
ondo dakigu alperrarentzat  
lanbide onik ez dana.  
Baiña guztiok eingo bagendu  
zuk nigaz eiten dozuna,  
jakingo geunke nok jango leuken  
eguneko ogi biguna. (B119a)

a.5. Bosgarren bertsoa:

- Are eta harrogo, A pertsonaiak berriro ere bere burua justifikatzen du.

Kuk.:  
Eguneroko egi biguna  
beti iaukoat gaur arte,  
toki danetan aurkitzen iuat  
jana t'edana nai beste;  
geidia zelan bizi ete dan  
enok arduratzen bat be;  
norbera ondo egon ezkerro  
oba da bizi aparte. (B119b)

## a.6. Seigarren bertsoa:

- Mehatxu moduan, Jainkoaren justizia gogorazten dio B pertsonaiak A pertsonaiari.

Txin.:

Kuku gaxoa, ondo bizi az,  
olan autortuten dozu,  
gerokoaren itxaropenik  
guk legez ete daukazu?  
Jaunak agintzen daben bidian  
batera ez gagoz ni ta zu;  
azken orduan erruki zaitut  
olan jarraitzen badozu. (B119c)

Puntu honetara ailegatuta, esan beharra dago eztabaidak agortuta dagoenaren seinale bat iragarri duela honetan; izan ere, txori batek beste bati Jainkoaren justizia gogoratzeak lartxo dela dirudi. Neurri baten ulertzen da egileak txoriak gizakiak bezala hitz egiten eta arrazoitzen jartzea, baina gizakiontzat soilik den erlijio edota beste munduaren erreferentziak argumentuen eskasia adierazten du.

## c) Itxiera:

(Zazpigarren bertsoa):

**Hirugarren pertsonaia baten epaia** eta eztabaidatuaren hausnarketa eskaintzen dira. C pertsonaia izango litzateke hau. Aurreko bertso sortan bezala C pertsonaia txepetxa da eta egiten duen epaian saiatzen da aurreko pertsonaia bion jarrera desberdinak uztartzen edo bateragarri bihurtzen.

Txep.:

Kukua emen ikusten dogu  
munduko atsegiñetan,  
txindorra barriz gerokoaren  
zorion ames gozotan.  
Zorion biak bear gendukez  
orduan pozik benetan;  
baiña nok daki eperdi bataz  
zillo bi ondo tapetan? (B120a)

Elkarrizketa edo eztabaida honen argumentuak eta arrazoiak, beraz, “tesis-antitesis-sintesis” ardatzetan koka daitezke. A eta B pertsonaien arrazoiak “tesis-antitesis” ardatz dialektikoetan kokatzen dira. C pertsonaia edo hirugarren pertsonaiaren argumentazioa sintesis moduko bat da.

Badirudi honelako bertso-sortetan egitura finkatu bat dugula:

a) Aurkezpena: izenburuak berak egindakoa.

b) Eztabaidaren gorputza: pertsonaia bakoitza txandaka bere arrazoiak, salaketak eta errefusapenak aletzen joango da.

c) Itxiera: eztabaidan parte hartu ez duen batek aferaren epaia ematen du. Normalean ez da makurtuko inoren alde. Jarrera bateratzaile bat izango du eta era berean arazotik nolabaiteko urruntasuna adieraziko du<sup>360</sup>.

Egitura hau ez da aldentzen orain arte ikusitako egituratik, alegia, sarrera, gorputza eta itxiera urrats nagusi bezala dituen egituratik. Baina horren barruan nortasun berezia hartzen dute eztabaida-sorta hauek. Izan ere, sarrerako izenburua hartzeak beste sortetatik bereizten du eredu hau. Horrezaz gainera, itxierarako hirugarren pertsonaia edo ahots batek bere epaia emateak dezente markatzen du.

### 3. Euskarari buruzko sortak

Suposatzekoa denez, euskarari eskainitako bertsoak ugariak dira Balendin Enbeitaren bertso-lanetan. Bere ideologian eta sinbologian hain elementu garrantzitsua da, ezen sorta askok horixe dute gai nagusizat. Orain sorta horien egiturari arreta jartzea dagokigu.

#### 3.1. “Modan balego, zorioneko litzake euskera”

Zazpi bertsoko bertso-sorta batekin hasiko gara. Ordenez lehenengoa da *Nere apurra* liburuan eta horri ekingo diogu.

a) Sarrera (Lehenengo bertsoa)

Egileak lehenengo egoera hobe batera begiratzera gonbidatzen gaitu, eta era berean oraingo egoerarekin konparatzera. Txartze horren arrazoa ere iradokitzen digu azken puntuan:

Euskalerriko mendi ta zelai,  
erreka eta ibaiak,  
euskeriaren babes gozoan  
bizi zirian erriak,  
gaur bazterturik ikusten doguz  
bere oitura legiak,  
jazokun orren errudun gara  
euskaldun erdelzaliak. (B086a)

---

<sup>360</sup> “Astoa eta Errotaria” bertso-sorta era honetakoa da, nahiz eta tematika naturari buruzkoa ez izan. Nonbait kokatzekotan, ohiturazko sortetan kokatuko genuke; izan ere, baserriartasunaren zenbait egoera islatzen dira bertan. Bost bertsoan, astoa eta errotariaren arteko autu edo eztabaida bat eskaintzen da. Seigarren bertsoa “Erabagiya” izendaturik, ahots anonimo batek (egilearenak, noski) bere iritzia edo epaia eskaintzen du.

Argi eta garbi aurkeztu beharrean, gaia zintzilik edo uzten da, entzulearen arreta pizteko.

b) Gaiaren gorputza (Bigarren bertsoetik laugarrenera)

b.1. Gai nagusiaren amplifikazioa

Sarreran iragarri den ideia hori garatu egiten da. Hiru bertsoetan eta arlo desberdinen ikuspuntutik **ideia nagusi hori amplifikatu egiten da.**

<<Euskalduna naz!>> entzun nai dogu  
ta gañera arrokeriz,  
esaten dogu: <<Euskalduna naz  
izkuntzaz eta jatorriz!>>  
Baña biotzez euskera itxita  
erdera maitatzen gabiz,  
olango euskaldun erdezalia  
obe zan jaio ez balitz. (B087a)

Ikus daitekeenez, arrazoiaren arrastorik ez dago ez bertso honetan ezta hurrengoetan ere.

b.2. Ikuspuntu berri bat jorratu eta azaltzen da (bosgarren eta zazpigarren bertsoak).

Ildo berri hori da hain zuzen bertso-sortari izenburua emango diona: emakumeak modarekiko duen atxikimendua eta zein onuragarria litzateke joera hori euskararen alde aprobetxatzea erakusten du egileak. Hona hemen bosgarrena:

Emakumia lurbira ziar  
dabil modia begira,  
nundi edo andi elduko iaku  
modia dauan tokira;  
jantziko iaku, naiz-ta nabarmen  
izan, modien jazkera,  
modan balego zorioneko  
litzake gure euskera. (B088a)

c) Itxiera (azken bertsoa)

Sortari burutuaren izaera ematen dio azken bertso honek. Bertan alegoria<sup>361</sup> batera egiten du jauzi egileak; izan ere, bigarren pertsona erabiliz pertsonifikaturik agertzen den Ama Euskarari zuzentzen dio bere diskurtsoa.

Euskera maite, gaxorik zagoz  
eta osakairik ez dozu,  
zeure semiak itxi zaituez,  
errukarria zara zu.  
Ene, euskera, ilgo al zara?  
Arren erantzun eidazu!  
Zu il ezkerero ez dot nai bizi,  
zeugaz eruan nagizu! (B088c)

Begi bistakoa da bestalde, Felipe Arrese Beitiaren bertsogintzaren oihartzuna azken puntuan. Bertso honen dramatismoak Balendin halako klimax baten bila zebilela adierazten digu.

### 3.2. “Ama Euskera”

Euskara enblematikoa bada, izenburu hau Enbeitatarrengan are enblematikoagoa da. Ezinbestekoa zaigu, beraz, sorta hau hona ekartzea.

Hasteko, harrigarria suerta daiteke hain garrantzitsua zen gai bati Balendinek, sorta honetan behintzat, bost bertso bakarrik eskaintzea. Hala ere, ulergarria da; izan ere, beste askotan jorratu izan du gaia (bere aita Kepak bezala). Gainera, esan beharra dago hemen, besteak beste, euskararen amatasuna azpimarratzera mugatzen dela.

#### a) Sarrera (lehendabiziko bi bertsoak)

Kontzeptu bati ekin aurretik (amatasunaren kontzeptua), irudi bat eskaintzen zaigu: ama bat eta bere jarduna. Ederki asko daki Balendinek bere hartzaileak izango direnek ez dutela gogoko kontzeptu hutsetatik hastea. Euren eremu bitala gauza zehatzei biziki lotuta dago, eta kontzeptualizazioa beren eguneroko bizitza eta jardunaren elementuekin irudikatzea hobe da. Euskara gauza erreal batekin, ama on batekin hain zuzen, konparatzen da hemen, nahiz eta hirugarren bertsora arte konparazio bat denik ez dugun jakingo. Hona hemen lehenengo bi bertso horiek:

Ama on batek sendian dauko  
ardurazko zeregiña,  
dakialako bere autxoak  
daukela aman premiña;  
ikusten badau ezin dabela  
lortu sendi-atsegiña,  
oso mingotza izan bear dau

<sup>361</sup> Estrategia honek apurketa bat suposatzen du bertso sortaren estiloarekiko; izan ere, seigarren bertsoraino dena hausnarketa sorta bat izan bada, zazpigarrenean egileak *Ama Euskerari* esaten dionaren testigu jartzen du irakurlea.

amagan dagon samiña. (B247a)

Ixiltasunez eroango dauz  
sendiko lora arantzak;  
aman magalak asetzen ditu  
seme-alaben biotzak;  
amagan dagoz famili baten  
maitasun-bakezko giltzak,  
errukarriak izaten dira  
ama bako umezurtzak. (B247b)

b) Sortaren gunea (hirugarren bertsoetik bosgarrenera)

Hirugarren bertsoan jauzi bat ikusten da: bat-batean, egileak pertsonifikaturik *dagoen Ama Euskeraren* bertso bat transkribatu edo idatzi egiten digu, non *Ama Euskera*, lehenengo pertsona erabiliz, berari buruz mintzo den. Hurrengo bertso bietan ere (laugarrenean eta bosgarrenean) *Ama Euskeraren* mezua, bere nahiak, kezkak eta nekeak ezagutu ahal izango ditugu. Mintzagaiaren pertsonifikazioaren aurrean gaude.

Pertsonifikaziotik alegoriara igaroko gara; izan ere, *Ama Euskerak* giro horretan euskaldunen papera zein den ere azaltzen du: seme-alaben papera, hain zuzen.

Erri bat daukat, bere ama naz,  
semeak ditut ugari;  
amak maite dauz, baiña semeak  
igeska dabiz amari.  
Ardura aundiz begira nago  
euren etorkizunari:  
ama galtzean zein izango dan  
nere umezurtzen gidari. (B247c)

c) Itxiera (bosgarren bertsoa)

Dramatismoaren gailurrera iritsi gara eta bertan badirudi *Ama Euskerak* entzulearengan jartzen duela bere arreta eta eskaera urragarri bat zuzentzen dio, zuzentzen digu:

Ene semeok, batu zaitzeze,  
oroitu zeuren amagaz;  
niregan beti izangozue  
erri-bizitzaren arnas.  
Ni iltzen banaz, ez didar egin,  
ez da erantzunik nigaz:  
semen erruz neure lurrean  
betiko ixilduko naz. (B248b)

#### 4. Sorta erlijiosoak



Sinismenak eremu handia hartzen du aztertzen ari garen Enbeitatar bion tematikan. Beste gaiekin nahasita sarritan agertzen den arren, bereizita eta berariaz erlijioari buruzko sortak ere ugari dira.

#### 4.1. “Sortzez garbiko Amari”

Zortzi bertso biltzen ditu sorta honek. Saia gaitezen bere egitura bereizten.

##### a) Sarrera (Lehenengo bertsoa)

Bertsolariak bere baratz erdiko lili bati egiten dio eskari bat, bere bertsogintzaren “musa” izango bailitzan:

Baratz erdiko lili usaintsu  
urrezko orriz jantzia,  
zure mosuan orni goxoan  
eztigai billa erlia.  
Biotz barruko maitasunaren  
antzikur zaran loria,  
zure ezti az idatzi nai dot  
Aman sorrera garbia. (B195a)

Eskari hori egitean, gaiaren sarrera iragartzen digu era berean: Zeruko Amaren sorrera garbia kontatu nahi duela.

##### b) Sortaren gunea edo gorputza

Bi zati dituela dirudi:

##### b.1. Lehenengo laudorioa (bigarren bertsoa)

Sortzez garbia bere sorrera,  
garbi dizdiraz jaiotza,  
Jesus Jaunaren sorreran bardin  
garbirik bere gorputza.  
Garbi dalarik Semea jaio,  
gero be garbi bizitza,  
sortzez garbiko Ama on ori,  
au da Jaunaren alatza! (B195b)

##### b.2. Misterioaren azalpen saioak (hirugarren bertsoetik zazpigarrenera)

Paris Sorbona'n Juan Duns Eskoto'k  
itz onek zituan esan:  
<<Al izan eban, al izan eban,  
beretzat egokia zan;  
Jaunak nai eban, al izan eban,  
eta bearreko zuan,

Ama Birjiñak nai izanda be  
obenik ezin lei izan>>. (B196a).

c) Azken bertso-bilgunea

Itxiera ere dei diezaiokegu, eta bertan egileak sortaren tentsioa mantsotzen du, Ama Birjina goraiatu eta motibo nagusia –azken puntuan-gogora ekartzen du:

Edurre baizen zuria zara,  
eguzki baizen argia,  
garbitasunen iturburua,  
lora guztien loria,  
Ama ederrik Jaunak ein badau,  
Zu zara, Andra Maria,  
Jaungoikoaren alatz gurena  
zure Sorrera Garbia. (B197b).

#### **4.2. “Adan eta Eba sagarra jan da gero”**

Berriro eztabaida-bertsoen aurrean aurkitzen gara. Kapitulu honen bigarren atalean horren antzeko adibide batzuk ikusi ditugu jadanik.

a) Sarrera

Izenburuak egiten du sarreraren funtzioa; izan ere, bertsoetan jadanik jorratuko duten gaiari eusten diote jadanik: mamian zuzenean sartzen dira ezelako aurkezpenik barik.

b) Eztabaidaren gorputza (lehenengo bertsoetik bosgarrenera)

Azken finean jatorrizko bekatuaren errua batak besteari leporatzen dio, edo hobeki esanda, bakoitzak norberen errua onartu beharrean, bestearena nabarmentzen saiatzen da. Hori bai, Adan eztabaida zabaltzen duena denez, Ebak jarrera defentsibagoa hartzen du, Adanen salaketari buelta emanez.

*Adan:*  
Atsegiñezko baratzan giñan,  
bear genduana sopra;  
sagar bat geunkan galazorikan  
ta bera andreak proba.  
Zorioneko giñian eta  
zer egin daustazu, Eba?  
Pentsetan nago sortu ez baziña  
izango nebala oba. (B164a)

*Eba:*  
Atxaki billa zabiltzaz baña  
etzagoz ondo, senarra,

zeu ziñan baratz eder ontako  
 jaun eta jaube bakarra;  
 etzendun zetan ezer parkatu  
 naiz t'entzun nire negarra,  
 baña zeuk ere neuk lez gustora  
 jan egin dozu sagarra. (B164b)

c) Itxiera (seigarren eta zazpigarren bertsoak)

Sorta honen itxieran halako madarikazio bana zuzentzen diote batak besteari:

Eba:  
 [...] Andreagatik galdu badozu  
 baratzeko ondasuna,  
 aurrerantza be izango zara  
 nere menpeko gizona. (B165c)

Adan:  
 [...] Zuregan ere sortuko dira  
 une estu ta garratzak,  
 pena gogorrez izango dozuz  
 zeure aurtxoen jaiotzak. (B166a)

Bigarren ataltxoan aipatzen genuen egituraren antzekoa, beraz.

### 4.3. “Alperra eta fiña”

Bada erlijioari eskainitako atal honetan azpisail moduko bat etikari edo eskainia. Erlijio ikuspuntua dago “background” bezala, hau da, horrelako marko zabal bat bezala, non jokaera morala kokatzen den. Jokaera moral horixe daukate aztergai mota honetako bertso-sortek. Horietako bat “Alperra eta fiña” sorta dugu, bost bertsoak.

a) Sarrera (izenburua eta aurreneko bertsoa)  
 Arazoa planteatzen da, besterik ez:

Lagun ez diran izakera bi  
 daukaguz emen munduan:  
 bata da fiña, bestia alperra,  
 beti alkarraz autuan.  
 Egi aundi au euki dagigun  
 aztu bagarik goguan:  
 alperra ez dala txarto izango  
 fiñak dabizen lekuan. (B052a)

b) Gaiaren gorputza (bigarren bertsoetik laugarrenera)

Enuntziatutako gaian sakontzen du egileak, batez ere *alperraren* joerak gutxiesten.

Alperra sarri ibiliko da  
gizon zintzoen ondotik,  
aingeruak lez itz egin baña  
malizi baltza barrutik;  
zintzoa barriz lanera doia  
sendiaren onagaitik,  
baña alperrak lasai jango dau  
langillearen lepotik. (B053a)

c) Itxiera (bosgarren bertsoa)

Esandakoaren ondorioa dugu bertso hau. Lehenengo bi puntuen sententzia tonuak horixe adierazten du, eta azken bi puntuen gomendioak ere bai:

Alperkeria dogu munduan  
gose guztien sustraia,  
lan egitetik iatorku barriz  
zoriona ta ogia.  
Alde batera itxi dagigun  
betiko alperkeria,  
gura badogu alkar arteko  
zoriona ta bakia. (B053c)

## 5. Gertaerei buruzko sortak

Zenbait gertaera gaitzat duten bertso-sortak ez dira asko Balendin Enbeitaren bertsogintzan. Bere sorta kopuruari erreparatuz, esan daiteke Balendinen alderdirik emankorrena ez dela kontakizuna. Eta halaxe da, baina horrek ez du esan nahi gauzak kontatzen ez dituenik. Balendinek gertakizunak, pasadizoak eta abar bertsoen bidez badaki kontatzen, eta ez da murrizta horretarako duen gaitasuna.

### 5.1. “Arratia'ko basurdia”

Edukiz bertso sortarik luzeenetakoa da; izan ere, hamahiru bertsoz osaturik dago. 1954an argitaratutako sorta dugu. Oraindik Garriko bertso-eskola sortu gabe zegoen. Oraingo honetan gertakizun xeble bat kontatzen digu Balendin Enbeitak, antzinako bertso-jartzaileen antzera.

a) Sarrera (lehenengo hiru bertsoak)

Gaiaren kokapena eta txerriaren deskripzioa egiten dira.

a.1. Bertso-sortaren aurkezpena (lehenengo bertsoa)

Bertso-paperen estiloa berreskuratuz, gaiaren aurkezpen formal bat egiten da. “In media res” zuzenean sartzea ekiditen da eta (balizko) entzulego bati egiten zaio aurkezpena:

Arratiako erri batian  
jazorikua da aurtengo urtian;  
txarri bat artu eben azteko,  
urte guztiko koipetarako;  
ederra ei zan,  
txarri ederrik iñun an bazan,  
esango `tzu et zelangua zan. (B045a)

a.2. Txerriaren ezaugarriak eta zenbait egoerazko zertzelada aurkezten dira (hurrengo bi bertsoak)

Gorbean euken txarria artuta,  
basurdia eizan beraren aita;  
txarri polita bera benetan,  
oso bizkorra gauza danetan;  
bera zaintzeko  
etxeke danak etziran naiko,  
kortako atia edei ezker. (B046a)

b) Kontaketaren gunea (laugarren bertsoetik hamabigarrenera)

Ekintza nagusia den txerri-hilketa edo txarriboda kontatzen da.

b.1. Txarriboda eta berorren prestakizunak  
(Laugarren bertsoetik zortzigarrenera)

Agian sortaren unerik aberatsena da. Oso gutxitan agertzen da Balendin kontalari moduan. Hemen bere kontalari sena, oso gutxi ezagutua, agertzen du bere baliabide gehienak erabiliz. Kontaeraren tonua jokosoa da guztiz, erabiltzen dituen adjektibo eta adberbioek salatuta.

Ixil-ixillik jarri giñian  
txarri egon kortako atian;  
karnazerua bere gantxoaz  
eta ugazaba arto naikuaz,  
iñozentzian,  
oratuteko bere tokian,  
baña amesak utsak zirian. (B046d)

b.2. Ekintza nagusiaren ondorioa: txarriboda eta txerriaren emaitza eskasa (bederatzigarren eta hamargarren bertsoak)

Espero zitekeenaren kontra, hiltzea hainbeste kostatako txerriak ez du emaitza onik ekarri. Oso etekin eskasa atera ahal izan zioten. Hori ere, kontari onaren senari eutsiz, apurka-apurka iragartzen joango da Balendin:

Urte guztiko lukainka-ametsak,  
 orduan amaitu zirian danak.  
 Txarri-bodara barriz askotxu  
 eta txarriak pixu gitxitxu.  
 Txarri-gauzarik,  
 baldin ilte ez badau besterik,  
 etzan geratu gauza askorik. (B048a)

Azpiataltxo honetan, eta txarribodaren ondorioetan, kolpe berezia ematen du hamaikagarren bertsoak; izan ere, bertan, etxeko jaunak txarribodaren emaitza eskasa zuritzeko izan zuen ateraldi xelebrea kontatzen da:

Baña ugazaba ez da mankoa,  
 tratu barria ein dau sekulekua:  
 erosi eban asto gaztia,  
 ogei bat urte ondo betia,  
 giarratsua,  
 lukainkarako aukerakua,  
 ez dok makala ein daun tratua! (B048b)

### c) Itxiera (hamahirugarren bertsoa)

Etxeko jauna mindu ez daiten  
 enoa larregirik luzatuten;  
 ez dogu gura asarratzerik,  
 baizikan bizi maite-maiterik;  
 oldoztu ondo,  
 txarri obia urrengorako  
 San Antoniori eskatuteko. (B048d)

Kontaketa amaitzeko erabakia agertu egiten du (“enoa larregirik luzatuten”) eta konplizitatezko aholku bat egiten die, ironia umoretsu baten bidez.

## 5.2. “<<Atxeli>> mendiko gurutzea”

Honako hau *Bizitzaren joanean* liburuan argitaratuta dago eta 1932an gazte batzuek –tarteetan Balendin Enbeita bera zegoela– Atxeli mendian gurutze bat nola jarri zuten gogoratzen du. Erreferentzia erlijiosoak ugariak diren arren, gertaerei buruzko sorten artean koka daitezke.

### a) Sarrera (lehenengo bertsoa)

Gertaera nagusia iragartzen du, gurutzea gazte batzuen artean Atxeli mendian jartzea alegia:

Gazte nintzala talde bat gendun  
 Euskaldun jatorra eta fededun

Hartu genduan erabagia  
jartzeko gurutz paregabia  
Esan ta egin  
Jarri genduan Atxeli mendin  
Herri osoan ikusi zedin. (Bb181a)

b) Kontaketaren gunea (bigarren bertsoetik laugarrenera)

Behin ekintza nagusia aipatuta izan, nola burutu zen kontatzeari ekiten dio egileak, eta horrekin batera gurutze eta gazte taldearen deskripzioak agertuko dira. Kontaketaren gailurra gurutzea jarri zutenean suertatzen da:

Kurutza jarri genduan  
belaunikaturik lurran gainean  
Agurtza deuna hasi genduan  
Zazpi mutilok fede senduan  
Hura zan poza!  
Bete zalako gure amesa  
Kurutzeagaz gendun promesa. (B182c)

c) Itxiera edota azken gogoetak (bosgarren eta seigarren bertsoak)

Topikora itzultzen da, hau da, gurutzea hartzen da berriro hizpide (gauzen gorabeheren gainetik, gurutzearen iraunkortasunari garrantzia eman nahian). Horren aitzakian, orduko eta gaur egungo (laurogei hamarkadako) giroak konparatzen dira: horrekin Balendinek irakaspen bat atera nahi du.

Garai haretan ez gendun uste  
Izango gendunik gaur hainbat naste  
Hitzak ederrak, egintzak labur  
Eta bakeak egin dau agur.  
Kurutzaz ahaztu  
Behar ez diran gauzakaz nahastu  
Lehengo bakerik Herriak ez du. (B182d)

Usparitxako mendi gaineko  
Kurutzea beti dogu gogoko  
Jarri genduan zazpi mutilak  
Talde horretan lau dira hilak  
Baina testigu  
Egin genduanaren eredu  
Mendi gainean kurutza dogu. (B182e)

Kontakizunaren emaitzak zein erreala eta eraginkorra izan zen azpimarratzeko, gurutzea han zutik dagoela gogoratu nahi izan du sortaren azken puntuan, sinesgarritasunaren topikoa<sup>362</sup> berriro ere bertso-kontakizun batera ekarriaz.

---

<sup>362</sup> Bertso-paperetan topiko honetara jotzen zen sarritan, batez ere Xenpelar, Txirrita eta mota honetako bertso-jartzaileen bertso gintzan. Xenpelarrek honela dio sorta baten aurreneko bertsoan: “Pasaya’ko erritik/ dator notiziya/ zezen bat izan dala/ jeniyo z biziya;/ kantatutzera nua/ **bistan ikusiya** [...]”

## 6. Maitasunari buruzko sortak

Mota honetakoak bertso kopuruz laburrak izaten dira<sup>363</sup>, nahiz eta ugari xamarrak izan (besteen aldean).

Maitasunari berari ekiten diotenak laburrenak izaten dira: hiru bertsokoak soilik, bat baino gehiago. Maitaleen arteko autu edo elkarrizketa bat ekartzen dutenak, aldiz, pixka bat luzeagoak.

Has gaitezen autuekin:

### 6.1. “Maitasun garbia”

Neska eta mutil baten arteko elkarrizketa da. Bertan, elkarri maitasuna aitortzen diote, beti ere maitasun garbiaren inguruan gogoetak eginez.



a) Sarrera  
Izenburuak berak adierazten duela dirudi.

b) Elkarrizketaren gunea (lehenengo bertsoetik laugarrenera)

Maitasun aitorpenera doan goranzko bide bat dira lau bertso hauek. Mutilaren lehenengoak, gainera, giro erromantiko bat deskribatzen digu:

Illunabarran gerizpe baltzak  
ixiltzen ditu basoak,  
mendi-zelaiak ixilik dagoz,  
murmurka errekatxoak.  
Une onetan adierazten dit  
neure maitasunen suak  
etxe inguruan dirala oraingo

nere maitean pausuak. (B104a).

Balendin bere emazte Klararekin

Maitasun aitorten hori hirugarren eta laugarren

(Jauregi, 1958, 40). “Bretoi baten tratua” sortaren azken bertsoan ere honela dio: “[...] **Desterratu nazazu/ gezurra bada**” (Ibid., 85). Bat-batean ere, horretara jotzen da noizean behin. Xabier Amurizak, esate baterako, horixe bera egin zuen 1980. urteko txapelketan kantatutako zenbait bertsoan: “[...] **esan dudana gezurra bada/ urka nazazue bertan**” eta “[...] **biur bekizkit esteak arri/ ori ez bada orrela**” in *Bertsolari txapelketa nagusia*, 1980, 36.

<sup>363</sup> Hiru eta bost bertsoen artekoak izaten dira gehienak.



bertsoetan etorriko da. Bertso bion arteko paralelismo jakin batek bien arteko identifikazio hori nabarmentzen du:

Maite bazaitut, maitatzen zaitut  
nik beti maitasun garbiz [...] (B105b)

[...] Maite bazaitut, maitatzen zaitut  
garbi-zale zarelako,  
eta biotzez esaten dautzut  
ez zaitudala itxiko. (B105c)

c) Itxiera (bosgarren bertsoa)

Neskak eta mutilak, biok batera, (fikzioz) eratutako bertsoa da. Bien irizpideak garbitasunarekiko bat datozela azpimarratuz eta sortaren mezua bilduz, honela diote:

Abestu daigun biok batera  
alkaturikan biotzak,  
bata besteen maitasunean  
jarraitu daigun bakoitzak.  
Loraz jantziak izango dira  
gutzat munduko arantzak,  
zorioneko benetan dira  
olangoaren ezkontzak. (B106a)

## 6.2. “Senar-emaztiak autuan”

Aurrekoaren tankera berdinekoa da honako hau; izan ere, emazte eta senar batzuen arteko fikziozko elkarrizketa bat eskaintzen da bertan.

a) Sarrera (izenburua eta lehenengo bi bertsoak)

Izenburuak iragartzen digu senarra eta emaztearen arteko elkarrizketa bat izango dela, eta aurreneko bi bertsoek, zein den gaia:

Emaz.:  
Senar maitea, zer jazoten da  
asarrez ibiliteko?  
Gauza txarren bat egin al dautzut  
ain illun begiratzeko?  
Txoria baizen alaia ziñan  
sendi guztiarentzako,  
zu era ortan ikusitia  
tamalgarri da nitzako. (B185a)

Sen.:  
Gure jazkera eta oitura,  
euskaldun jolas garbiak,  
alde batera iztera doiaz  
gaur eguneko gaztiak.

Amak alabai dana azketsi,  
nai dabena egin bestiak,  
ori dala-ta daukadaz neure  
bekozko ta asarriak. (B185b)

Orduko hezkuntzaren kezketako bat da eztabaidaren gaia: janzkera. Egia esan, horixe baino zabalagoa da gaia; izan ere, janzerari lotuta kanpoko eraginak, moralkeria, utzikeria eta euskal nortasuna nahasten dira. “Ohitura onak” hain estimu handian zituen abertzale batentzat ez da edozelako gaia beraz.

#### b) Eztabaidaren gunea (hirugarren bertsoetik zortzigarreneira)

Ezkontide bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu. Espero litekeena da egilea, Balendin, aitaren arrazoiaren aldekoa izatea, baina harritzekoa da, nola amaren arrazoiak (berrizalea, moda berrien aldekoa) zein ondo agertzen dituen:

Emaz.:  
Gaurko mundu ikusi eta  
ez dozu ondo oldozten,  
lengo erara ez iaku iñor  
jolastu eta apaintzen.  
Zuk nai dozun lez baldin badabiz  
txistuka dituez artzen,  
alabak olan ikusi eta  
ez al zara errukitzen? (B185c)

#### c) Itxiera (bederatzigarren bertso)

Mota honetako sortetan legez, azken bertsoa esandakoari buruzko epai bat da. Kasu honetan, ez da ez emaztea ez senarra epaia egiten duena. Badirudi egilearena berarena dena:

Erabagia:  
Aita ta ama biok zarie  
sendian onugarriak,  
errukarien gaiñetik bete  
zuzentzak ditun legiak.  
Ori egiñaz ez dira galtzen  
ez alaba ta semiak,  
guraso onen bearra bauka  
gaur gure Euskalerrriak. (B187c)

Bistan denez, epaian egilea eztabaidaren txikikerietatik aldentzen da eta aferaren ikuspegi orohartzaileagoa eskaintzen du, sakonera joaz.

### 6.3. “Maite mindua”

1973an *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratutako bertso sorta dugu hauxe, eta lau bertsoz osaturik dago.

Hauxe da egitura:

a) Sarrera (lehenengo bertsoa)

Egileak bere barne egoeraren berri ematen digu: maitemindua dago baina maite duena ezin eskuratuz. Horrek barne mina eragiten dio.

Aldi luzean maitatzen dodan  
lora batek nauka miñez,  
geientsuetan biotzez eta  
beste batzuetan soiñez.  
Maite dodana ezin neugandu,  
orrek jarten nau samiñez;  
geroan bere lortuko badot  
ondiñokarren jakiñ ez. (B245a)

b) Sortaren gunea (bigarren eta laugarren bertsoak)

Maitasunaren inguruko bestelako gogogoetak dira bertso hauen osagarriak. Maitea eskuratu ezina da batez ere gogoeton eragilea.

Euskalerriko baratz urdiñak  
baditu hainbeste lora,  
danen artean begiko zaitut,  
besterikan ez dot gura.  
Pozik nintzake baneki ondo  
zelan ekarri eskura,  
ala zu barik bizi izateko  
eldu ete naz mundura? (B245c)

c) Itxiera (laugarrena)

Maiteari zuzendutako diskurtso suhar baten aurrean gaude eta bertan pertsonaiak bere mezu sentibera bildu egiten du ahapaldi bakar baten:

Baratz erdiko lora urdiña  
nai zaitut nere onduan,  
zure biotzak maite nagilla  
neureak zaitun moduan.  
Abegi onez artu nagizu  
zugana noian orduan,  
zure laguntza bearrezko dot  
bizi izateko munduan. (B246a)

#### **6.4. “Maitasuna zer da?”**

Sorta bereziki laburra dugu hau, hiru bertso baino ez ditu. Hala ere, bertso bakoitza urrats desberdinei dagokiela ematen du:

## a) Lehenengo urratsa – lehenengo bertsoa:

Izenburuak planteatzen duen gaia zein sakona eta heldu-ezina den adierazten da.

Maitasun ori zelangoa dan  
ta bere aunditasuna,  
au jakiteko bearrezko da  
goi-eskar argitasuna.  
Bere zuztarra arakatzeko  
ez da naikua gizona;  
ez da aukeran bizi izatia,  
ez diru, ez osasuna.  
Zeñek azaldu, bear dan legez,  
bere aberastasuna?  
Ezegaz neurtu ezin leikena  
benetan dan maitasuna. (B063a)

## b) Bigarren urratsa eta bertsoa

Adibide bat jarri beharrean aurkitzen da egilea; izan ere, gaian sakontzeko gaia irudikatzea beharrezkoa baita. Adibide horren bidez, maitasun horren sakona eta gizagaindintasuna iradoki egiten da.

Neska-mutil bi jarriko ditut  
gaur esate baterako:  
egiz alkarraz maite badira  
ez dirade bananduko;  
alperrik jarri ibai, itxaso,  
maite bion bitarteko,  
bizi badira danen gañetik  
zigur dira alkartuko.  
Eta nik diñot: Maitasun orrek  
bere indarra nun dauko?  
Goi-eskarrezko indarra da ta  
gizonak ez dau neurtuko. (B063b)

## c) Hirugarren urratsa eta bertsoa

Hausnarketa prozesu hori ez da gelditzen giza-maitasunean. Harago joan nahi du egileak eta Kristoren maitasuna benetako maitasunaren jatorritzat aurkeztu nahi digu.

Gizonen ona ikustiarren,  
ustu arte odoletan,  
maitasun arren Kristo illa zan  
kurutz batian Golgotan.  
Esker txarreko gu izan arren  
maitatzen gaitu benetan,  
ezaugarritzat or dogu beti  
deika Eukaristietan:

maitasun orrek daukan ixilla  
 ez da erreza topetan  
 oba izango da bakean itxi  
 Egillien eskuetan. (B064a)

## 7. Omenaldi bertso-sortak

Omena edota laudorioa egitea ahozkoatasunaren joeretako bat da. Ahozkoatasunean bizi direnentzat harreman pertsonalak oso garrantzitsuak dira eta lehen maila hartzen dute eguneroko komunikazioan. Harreman horiek eraginkorrak izan daitezzen, hizkeraren bidezko pertsuasioa, edo behintzat nolabaiteko arreta piztu behar da. Horretarako, laudorioek zein gaitzespenek izaera bortitza hartu behar dute. Guretzat, idatzizko kultura ezagutu dugunontzat, batez ere laudorioetan, halako artifizio keinu bat iruditu dakiguke, baina ahozkoatasunean badu bere zentzua:

El elogio acompaña al mundo oral, agonsísitco e intensamente polarizado, del bien y del mal, la virtud y el vicio, los villanos y los héroes (Ong, 1987, 51).

Oraindik bizirik dirauten ahozko kulturetan, handiespen poesia oso garrantzitsua da. Afrikako ahozko kulturaren horixe bera gertatzen da:

In its specialized form panegyric is the type for court poetry and is one of the most developed and elaborate poetic genres in Africa (Finnegan, 1970, 111).

Balendinek handiespen bertsoak paratzen dituela argi dago: are gehiago, joera hau Balendin Enbeita zelanbait bereizgarria egiten duen ezaugarrietako bat da. Berarengan handiespenak ez dauka artifizialtasun zentzurik, afektibitateari oso lotuta dauden laudorioak direlako, edo behintzat hori ematen du. Honek lotura zuzena du ahozkoatasunarekin, oralistek azaltzen dutenez.

- Omenaldi bertsoak (7.1.) ez ezik, bestelako hauek ere sail honetan sar daitezke.
- Agurketa edo ongi etorrietarakoak (7.2.).
- Hileta bertsoak (7.3.).

Has gaitzen omenaldi bertso-sortetatik.

### 7.1. Omenaldi bertsoak

#### 7.1.1. "Uztabide, txapeldun"

Zazpi bertsoarekin, Balendinek Uztabide zenari bere omenaldia egiten dio, hari gorazarrea eginez. Bertsoan irakurrita edo entzunda, Balendinek Uztabide miresten zuelako inpresioa geratzen zaigu, benetan miretsi ere.

Egiturari dagokionez, ordea, ez dirudi oso orijinala denik:

## a) Sarrera (izenburua eta lehenengo bertsoa)

Uztapideren aurkezpena egilearen ikuspuntu eta subjektibitatek egiten zaigu, noiz ezagutu zuen esanez. Egilearen balorazioa ere badakar lehenengo bertso horrek:

Nik Uztapide ezautu neban  
bertso kantari beñola,  
bertsolari lez onena dala  
erri guztiak diñola.  
Aundia dogu baña apala,  
ez da arrotuko iñola,  
Uztapide da Euskalerriko  
txapeldun urretxiñola. (B153a)

## b) Sortaren gunea (bigarren bertsoetik seigarrenera)

Iragarritako gaiari buruz ari da bertso hauetan. Uztapidek daukan herri-jakituria da azpimarratzen eta goraiatzten den ezaugarri bat, jakituri eruditoari kontrajarriz.

Ikusten dira filosofoak  
gizon argi ta altsuak,  
teknika eta rima-kontuan  
bertso-zale jakintsuak.  
Baña gatza ta piperra palta,  
ez dira orren gozuak;  
erriak askoz naiago ditu  
Uztapideren bertsuak. (B154a)

## c) Itxiera (zazpigarren bertsoa)

Sortari itxiera kutsua emateko, egileak berriro ekiten dio gorespenak egiteari. Azken puntuaren metaforak eta sententziak bereziki buruketa zentzua ematen die:

Omen-jai asko merezi ditu  
Uztapideren txapelak,  
frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere arbolak.  
Ikasbidetzat artu daiguzan  
bere bertsozko eskolak,  
bera da gure arbola eta  
gu gara bere orbelak. (B155a)

**7.1.2. “Amari biotzez”**

Sorta laburra izan arren, lau bertsokoa zehazki, hona ekartzea mereziko duelakoan gaude. Balendinek bere amari (Maria Iñasia Benita Goiria) eskaintzen dizkio *Nere apurra* liburuaren hondarreko bertsoak. Hain sorta

laburretan egitura oso oinarrikoa izango dela suposatzekoa da. Baina honako kasuan, halako sarrera bat eta garapen bat badirela esan daitekeen arren, itxierarik ez dago, edo behintzat ez dago batere markatuta:

a) Sarrera (lehenengo bertsoa)

Larogei ta amairu  
urte dituzula,  
zortzi seme-alaben  
euskaldun arbola;  
zugandik artu dogu  
euskaldun odola,  
zuri eskerrak, ama,  
euskaldun garala. (B264a)

Amaren adina eta zer nolako itzala duen familian aipatuz ematen dio hasiera bertsozko konposizio honi.

b) Garapena (bigarren eta hirugarren bertsoak)

Amari bere diskurtsoa zuzenduz, laudorioz josten du, maitasun bidezko identifikazioa agerian utziz:

Beti izan zaitugu  
sendiaren lema,  
etxeke batasuna,  
poza eta broma;  
zenbat aldiz baretu  
asarrezko tema;  
zugandik urruntzian  
dakit zer dan ama. (B264c)

Ondoren ikusiko dugunez, azken bertsoak ez du markatzen sortaren itxierarik:

Sarritan jarri nozu  
samiñak kendurik,  
zure irriparriaz  
biotza pozturik;  
naiz-ta baldin banego  
urrez gañezturik,  
zure babesik gabe  
ez daukat bizirik. (B265a)

Sorta hain laburra izanik, amari zuzendutako azken laudorioa nahikotzat eman du egilea sorta ixteko.

## **7.2. Agurketa edo ongi etorrietarakoak**

### **7.2.1. “Goiz-Argi, ongi etorri!”**

Agurketa edo despedida sortei dagokienez, hauxe da luzeenetako bat, zazpi bertso biltzen baititu. Baserritarrentzako aldizkari bat sortu dela eta paratutako bertsoak dira. Agurketa bertsoak dira, beraz, izenburuak berak nahiko garbi adierazten duenez.

a) Sarrera (izenburua eta lehenengo bertsoa)

Jaiki, mutillak, jaiki  
badator *Goiz-Argi*,  
eta etxeko ate  
leioak edegi,  
pozik artu dagigun  
argi eder ori,  
biotzez emonagaz  
geure ongi etorri. (B109a)

b) Edukiaren gorputza (bigarren bertsoetik seigarrenera)

Balendin Enbeitak asmatu egiten du fikziozko hartzaile bat eta hari zuzentzen dizkio bere aholkuak. Zer esanik ez, hartzaile hori euskal baserritar arruntaren sinboloa da, izena eta guzti asmatu duelarik (Patxi), eta harengan *Goiz-Argi*ren irakurlegoa ordezkaturik dago.

Patxi, jakin nai bozu  
baserria ibiltzen,  
artu *Goiz-Argi* eta  
asi irakurten;  
onek diñozan danak  
badozuz egiten,  
laster asiko zara  
polito biziten. (B110a)

c) Itxiera (zazpigarren bertsoa)

Hasi den antzera bukatzen du, argitalpen berriari agur eginez, eta gauza ederrak opatuz:

Agur dagitzut geure  
pozezko *Goiz-Argi*,  
Arantzazuko Amak  
ondo zaindu begi;  
baserritarrentzako  
on asko ekarri,  
batez be gure euskaldun  
baserritxuarik. (B111a)

**7.2.2. “Muxika’tik Ipar-Amerika’ra”**



Hauek despedida bertsoak dira, paratutako beste batzuk bezalakoak, edo behintzat agurra egiteko asmo berdintsuarekin<sup>364</sup>.

a) Sarrera (aurreneko bertsoa)

Oraingo honetan, Gergorio Barrueta da Ipar Ameriketara joango den muxikarra. Horren aurkezpena hasierako bertsoak egiten digu:

Ariatza'ko Puenterrabian  
astera goiaz kantari,  
bertso batzuek jarri gurian  
Gergorio Berrueta'ri.  
Amerikara jua da bera  
agur egiñaz danori,  
gura genduke Goiko Jainkoak  
lagun daiola berari. (B066a).

b) Sortaren gunea (bigarren bertsoetik zazpigarrenera)

Partitzearen zertzeladak eskaintzen dira erdigunearen bertsoetan:

Len be lagunak badituz andik  
juanak era orretan,  
polito baten bizi diranak  
Amerikako lurretan.  
Juan ziñian ezkeitiñoko  
asko dauz zure gomutan,  
orrantza egaz egin gurian  
urre gorrie topetan. (B066c)

c) Itxiera (zortzigarren bertsoa)

Egileak esplizituki adierazten du itxiera emango diola sortari, eta azken aholku eta desio onak igortzen dizkio protagonistari:

Ia koplarik nahiko da ta  
amaitutera nua ni,  
anaiarentzat besarkada bat,  
zuretza milla goraintzi.  
Gaurko antzera beti alai ta  
osunagaz ibilli,  
eta onantza zatozenian  
txanpon askogaz etorri. (B068b)

### 7.3. Hileta bertsoak

---

<sup>364</sup> Esate baterako, “Australia’ra jua ziran gazteai” da adibide bat. “Oiz’ko belea Oiz’era” sorta, Amerikera alde egin zuen Aita Gabino izeneko apaiz bati eskainitakoa da. Bada beste bat izenburu hau daukana: “Ameriketara diru billa joateko ametsean dagoan semia eta ama”. Bertan, Ameriketara joateko asmoa duen seme batek bere amarekin eztabaida bat dauka. Azkenean, semeak harako asmoa beteko duela adierazten du eta aberats bueltatuko dela adierazi ere.

### 7.3.1. “Agur Mirentxu”

Hileta bertsoekin ari gara orain.

Bertso hauen banaketa ohiko egituraren arabera egin genezake hemen ere. Baina oraingo honetan beste ikuspegi bat hartuko dugu kontutan. Izan ere, bertso hauetan egilea Mirentxu bere arrebarengana zuzentzen zaio behin eta berriz. Baina harengana zuzentzeko moduaren arabera, beste egitura hau topatzen dugu:

a) Laudoriozko diskurtsoa identifikazioa nabarmenduz (lehenengo bertsoetik bosgarrenera)

Egilea hil den bere arrebari zuzentzen zaio, eta Mirentxu nolakoa zen eta bere jarduera azaltzen du. Era berean, heriotzak zer nolako galera ekarri duen ere agertzen du.

a.1.

Lehenengo bertsoetik hirugarrenera

Egilea bere arrebari zuzentzen zaio eta bere alde onak agertuz heriotzak suposatuta duenarekin kontrastatzen du:

Agur, Mirentxu, biotz erdiko  
ene arreba kutuna,  
sendi arteko bake ta poza,  
maitasunaren laguna;  
zu ziñan gure itxaropena,  
txori kantari otzana,  
baña ixildu zara betiko,  
au tamalaren astuna! (B079a)

a.2.

Laugarren eta bosgarren bertsoak:

Gaixotasunaren erreferentzia egiten da eta kontrastea Mirentxuk izan duen azken onarekin egiten da: Jesusek eraman du eta “zintzoen eroapena” izan du (eredu ona eman du).

Urte bi ta erdi igaro dozuz  
gaixo txar batek minduta,  
egun beteko atsedean barik,  
gorputza miñez aulduta;  
egin iatzuzan alegin danak  
alperrikoak ziran ta  
Josu on-onak eruan zaitu  
bere eskutik artuta. (B080a)

b.

Seigarren eta zazpigarren bertsoak.

Egileak eskaerak egiten dizkio zeruan dagoen bere arrebari bizirik dauden bere familiakoen alde, eta berriro zeruan elkartzeko itxaropena agertzen du.

On-ona izan ziñialako  
 danontzat ludi onetan,  
 zeru goitik be lagundu, Miren,  
 geure esturaldietan;  
 zeure antzera bizi ondoren  
 bizitzako nekeetan.  
 or goian gero beti-betiko  
 danok alkartu gaitezana. (B081a)

Hala ere, eta arestian esan bezala, erakutsi dugun egitura honek ez du galarazten bestelako estrategia bat ezartzea, sarrera, garapena eta itxiera izeneko urratsak dituen estrategia alegia. Begi bistakoa da, adibidez, erakutsi dugun azken bertso hau sortaren itxiera ere badela.

### 7.3.2. “Bertsolari baten eriotza”

Aitari eskainitako bertsoak dira hauek, 1942ko abenduaren 11an, aitaren hilkutzaren aurrean kantatutakoak.



Kepa Enbeitaren gorpua

Sorta honen egitura eztabaidagarria da; izan ere, gaiaren sarrera nola egiten den galdetuz gero bi erantzun posible izango genituzke:

- Egoera komunikatiboak berak egiten du gaiarentzako sarrera: izan ere, Kepa Enbeita, Urretxindorra, hil berria da, eta hori bertso hauek kantatu ziren giroan aski ezaguna zen, besteak beste, hilkutxa hortxe aurrean, begi-bistan baitzegoen. Gaia kokatuta dago guztiz: beraz, datu horiek entzulegoari ez zaizkio eman behar.
- Sortaren aurreneko bi bertsoak izan daitezke gaiaren aurkezpena, bertsolari arketipo baten garrantzi herrikoiaz ari baita.

Gu lehenengo aukeraren aldekoak gara, alegia, sarrera edo gaiaren kokapenak egoera komunikatiboak edo testuinguruak egiten

duela. Beraz, honela eratuta dagoela iruditzen zaigu:

- a) Sarrera: testuinguruak egiten du.
- b) Sortaren muina (lehenengo bertsoetik laugarrenera)

b.1. Orokorretik zehatzera egindako ibilbidea: 1. urratsa (aurreneko bi bertsoak)

Balendin Enbeitak ez dio oratzen egoera zehatzari hasiera hasieratik. Zirkulu zabal batetik estuagoetara joango da apurka-apurka. Bere bihotza zabalduz, bertsolariaren eginkizun transzedente, eta era berean, apalaz arituko da hasieran:

Ludi-bizitza abesti gozoz,  
biotz-abesti samurrez,  
jakintsuaren gauzak azaltzen  
naiz-ta jakitun izan ez.  
Bertsolariak egin daroa,  
goi-irudimen indarrez,  
jakintsu askok ezin dabena  
bere erriaren aldez. (B098a)

b.2. Orokorretik zehatzera egindako ibilbidea: 2. urratsa (hirugarren eta laugarren bertsoak)

Hemendik aurrera bere aita hil berriari zuzentzen zaio. Ezaguna den testuinguruaren muinera hurbiltzen da are gehiago. Espektazioa handia da, hildakoaren semea (bere aita bezala bertsolaria ere) kantari hasi orduko. Baina espektazioa areagotu da, kantari hasi denean: gaiari itzulinguruka ekin dio, aitaren heriotzaren gaia gerorako utziz.

Une honetan, ostera, bere aitarekin hitz egiteko unea da, eta Balendini, sinestuna izanik, ez zaio gaitz egingo aita entzule izango duela jakitea:

Erri osoa euki zenduan  
adi zeure inguruan,  
belarriak zur azken orduan  
zer esango ote zenduan.  
Gizona ez da iñoiz goratu  
bizi dan arte munduan,  
bera goratzen asi oi dira  
eriotzako orduan. (B098c)

c) Itxiera (azken bi bertsoak, bosgarrena eta seigarrena hain zuzen)

Sortaren itxiera azkenaurreko bertsoarekin hasten da; izan ere, “azken agurra” sintagmak horixe iradokitzen baitu. Azken finean, sorta hau horretarakoxe egina dago, Urretxindorrari azken agurra egiteko:

Azken agurra biotz barruan  
betiko dago josita,  
ordutik ona umezurtz nago  
maixu onena galduta.  
Nik gaur dakidan apur au daukat

beragandikan artuta,  
eneban jakin zer falta neban  
galdu arte neure aita. (B099b)

Orokorretik zehatzera egindako ibilbidea burutzen duela genion sorta honen b) ataltxoan. Bada, azken bertsoaren azken puntuarekin zehaztasunaren puntu gorena lortzen da. Zehaztasun horrek kontrastatzen du, herria eta bere lagunaren nahiekin jakina:

Uri, baserri, baso, zelaien  
zoragarritzko abotsa,  
hamaika aldiz poztu ebana  
entzuliaren biotza.  
Erriak guren eban orduan  
bere lanaren laguntza,  
orra nun dagon zerraldo baten  
ill-otzik bere gorputza. (B099c)

## 8. Ondorioak

- a) Balendin Enbeitaren bertso-sortek nagusiki hiru pausoko egitura dute. Behintzat egin den azterketaren ezaugarri nagusia eta argiena horixe da.
- b) Lehenengo pausoa sarrera bat egitean datza. Sarrera hori era desberdinetakoa izan daiteke. Bertso bakarrekoa izaten da batzutan, eta bertan sortan jorratuko den gaia iragarri edota planteatzen da. Bi edo hiru bertsokoa ere izan daiteke. Holakoetan, sarrera ikuspegi desberdinak eta elkarren osagarriak emanez egiten da, sarritan irudi bat bertsora ekartzen delarik. Zenbaitetan, sarrera izenburuarekin egiten da, bertan gaia jorratzeko gutxienezko informazio bat eskaintzen da eta. Azken modu hau fikziozko zenbait pertsonaiaren arteko elkarrizketa bat dagoenetan erabiltzen da; izan ere, pertsonaiek eurek ez dute sarrera egiten hasiera hasieratik eztabaidan murgiltzen direlako.
- c) Bigarren pausoa sortaren “gorputza” dei genezakeena da. Bertan gaia jorratzen da anplifikazioaren bidez, edo gaiari puntu desberdinetatik oratuz. Batzutan, gorputzak zati nagusi bi edo hiru izan ditzake. Baina ez da nabaritzen halako estrategia estrukturalik pauso hau jorratzeko orduan. Zenbaitetan, eta hau da Enbeitatarrek jorratu zuten eredu bat, sortaren gorputza hauxe izaten da: bi fikziozko pertsonaiaren arteko elkarrizketa bat, normalean gai baten inguruan eztabaidatzen, arrazoiak eta errefusapenak eskainiz, halako joko dialektiko bat burutuz. Pertsonaia horiek animaliak edo gizakiak izan daitezke.
- d) Hirugarren eta azken pausoa “itxiera” deitu duguna da. Gehienetan bertsoaren tonuak berak adierazten ditu sorta eta gaiaren itxierara heldu garela. Zenbait motiboen bilgunea ere izateko joera du. Sentimendu eta tentsioaren katalizadorea izatera irits daiteke zenbaitetan; izan ere, bertan

isurtzen dira batzutan laudoriozko edo pozezko deiadarrak. Sortaren gorputza bi pertsonaiaren arteko elkarrizketa izan den kasuetan, ondorioa hirugarren pertsonaia batek agertzen du, halako ebazpen bat eginez gaiarekiko inpartzialtasuna erakutsiz. Epai honek joera bateratzaile bat izango du sarri, hau da, ez da ez baten ez bestearen alde makurtuko: bakoitzari bere arrazoia emango dio, eta konponbide bat proposatuko du.

- e) Egitura sinpledunak dira, beraz, Balendinen bertso-sortak. Konposizio senak eraturako egiturak sortzen ditu. Inolako irizpide espliziturik gabe aritzen dela ematen du, baina zentzunak sarrera, gorputza eta itxiera bat eratzeko bultzatzen du, batez ere Balendinek entzulegoa edo sortaren hartzailea kontutan hartzen duelako, eta haientzat ulergarria suerta dadin beharrezkoak dira hiru pauso nagusiok.

# **11. kapituluua**

## **Estilistika**

## **O. Sarrera**

Kepa Enbeitaren bertsogintza aztertzean bosgarren kapituluan egin genuen bezala, orain Balendin Enbeitaren alderdi orokorrago bat aztertzea igaroko gara, estilistikara hain zuzen. Alor honetan Balendin Enbeitaren estiloa aztertzeari ekingo diogu modu zuzenagoan. Dagoeneko, Balendinen bertsogintzaren hoskidetasuna, azken puntuaren erabilera, ahapaldi zein sortaren egitura aztertu ditugu, beti ere estilistikaren ikuspuntua baztertu gabe. Baina (hauxe bera genioen Urretxindorrarekin) hori ez da nahikoa: izan ere, bertsoa ez da agortzen arestian aipatu ditugun lau alderdietan, zer edo zer gehiago ere bada. Horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu azterketa estilistiko hau, bertso osoan barrena azaltzen dena kontutan hartuko duena.

Erabiliko dugun metodoa jadanik bosgarren kapitulu horren hasieran azalduta dago, eta hemen ez gara luzatuko berorren azalpenetan.

Bertsolaritzak, genero ez tradiziozkoa<sup>365</sup> den arren, izaera tradiziozalea du, hau da, itxuraz tradiziotik ateratako neurriak, ahapaldi motak, hoskidetza ereduak eta gaiak erabiltzen ditu. Hortaz, egoki iruditu zaigu estilistika tradizionalaren<sup>366</sup> ikuspuntutik azterketa hau egitea. Beraz, irudi erretorikoak eta tropoak deskribatzen eta aztertzen hasiko gara. Ondoren, eta aipatu dugun azterketak emandako argipean, estiloaren izaera nolakoa den azaltzen ahaleginduko gara.

Bertsolaritzan erabiltzen den hizkerak balio estetiko<sup>367</sup> bilatzen duela edo estilo jakin bat bilatzen duela esan liteke. Hizkera mota hau irudikorra da<sup>368</sup> eta ondorioz irudi estilistikoak eta tropoak erabiliko ditu. Horiek guztiak aztertzeko pauso batzuk emango ditugu alderdi estilistikoaren eskema bati jarraituz. Eskema hori 5. kapituluan aipatu genuen arren, hona ekarriko dugu berriro ere:

### **A) AHOSKATZE IRUDIAK**

#### **I. Hitzzen eransketa**

Pleonasma, sinonimia, epitetoa, eta abar.

#### **II. Hitzzen elipsia**

Elipsia, asindetona...

---

<sup>365</sup> "Bi ahozko literatura mota daude: alde batetik, tradiziozkoa, gero igortzen dena, komunitateak berea egiten duena; bestetik, ez tradiziozkoa: komunikazio estetiko behin bakarrik egiten da [...]. Bertsolarien produktu asko arlo honetan sartu beharko genituzke: behin bakarrik kantatuak izateko egiten dira". Kortazar, 2000, 15-16.

<sup>366</sup> Estilistika tradizionala diogunean, 5. kapituluan azaltzen dugun estilistika esan nahi dugu, Lausbergen erretorika metodoetan oinarrituta dagoena.

<sup>367</sup> Nahiz eta literarioa adieraztean idatziarekin erlazionatzen duen konnotazioa azaldu.

<sup>368</sup> Fernández, Pelayo H., 1975, 26.



**III. Hitzen errepikapena**

Anafora, kateamendua, polisindetona, egitura paralelistikoa...

**IV. Hitzen konbinazioa**

Aliterazioa, deribazioa, hiperbatona...

**B) PENTSAMENDU IRUDIAK****I. Deskriptiboak**

Deskripzioa, zerrendaketa...

**II. Patetikoak**

Harridura, galdera erretorikoa, apostrofea, hiperbolea, prosopopeia edo pertsonifikazioa.

**III. Logikoak**

Sententzia, errefraua edo esaera zaharra, konparazioa, antitesia edo kontrajarpena, paradoxa, gradazio edo mailaketa, ñabardura...

**IV. Zeharkakoak edo oblikuak**

Itzulingurua, alusioa, eufemismoa, ironia, sarkasmoa...

**C) TROPOAK**

Sinekdokea, metonimia, metafora, alegoria eta parabola, sinboloa...

Hauxe da 5. kapituluaren erabili genuen oinarritzko eskema. Onartzen dugu estilistika ez dela mugatzen eskema honetara, hau da, irudi hauek ez dutela erakusten estilistikaren ezaugarri, baliabide edo alderdi guztiak. Hala ere, zenbait zertzelada, edo estilistikaren errainu batzuk agertzen laguntzen digutelakoan gaude, eta agian hori guztia lagungarria izan daiteke bertsolari baten estiloan elementu giltzarriak esplizituagoak egiten, eta hori bada zerbait. Beste barik, ekin diezaiozun agindutako azterketari.

**1. Ahoskatze irudiak****1.1. Hitzen pilaketaz sortutako irudiak****1.1.1. Eпитetoa**

Ahozko literatura epikoan ez bezala, Balendin Enbeitaren bertso gintzan epitetoak erabiltzeko joera nabarmenik ez dago. Hori bai, epiteto batzuk aurkitu ditugu, formula izaera dutenak, eta horiei ekin nahi diegu.

**- *Txori kantari (<txori abeslari)***

Epiteto horietako bat formulen arloan deskribatu ahal duguna da: *txori kantaria*. Txoriaren kontzeptua *kantaria* adjektiboari oso lotuta dago Enbeitatarrengan<sup>369</sup>. Bertsolari leinu honek naturari adierazten dion maitasuna erakutsi dugu dagoeneko. Enbeitatarrek txoriei dioten maitasuna ere agertu dugu: erabiltzen dituzten ezizenengatik eta irudigintzan erabiltzen

<sup>369</sup> Honekin ez dugu esan nahi beste bertso gileek erabiltzen ez dutenik. Urrutiei joan gabe, Felipe Arrese Beitiaren bertsoetan inoiz agertzen da epiteto hau: “ Nik esan neutsan orduan: **Txori kantaria**, / Esan eidazu baña benetan gaur egia; [...]” (Urrutia, 1999, 699).

diren txorien irudiak direla eta. Lan honen lehenengo zatian, Urretxindorrari dagokionean, 5. kapitulukoan haxe bera jorratu genuen<sup>370</sup>. Testuinguru honetan konkatzen da aipatutako epitetoa:

Agur, Mirentxu, biotz erdiko  
ene arreba kutuna,  
[...] zu ziñan gure itxaropena,  
**txori kantari** otzana, [...] (B079a).

Gainontzeko adibideetan *kantari* hitza *txori* izenarekin doan arren, adberbio bezala agertzen da:

Udabarriak berbizten ditu  
mendi, baso ta zelaiak  
Zoragarrizko txirolirotan  
**kantari** jarri **txoriak** [...] (Bb171b)

[...] eta **txoriak**, aundi ta txiki,  
pozez zorutzen danak **kantari** [...] (B230b)

[...] **txoriak** ere bake ederrian  
guztiak dabiz **kantari** [...] (B039a)

### **-Frutu emoille**

Noizean behin erabiltzen duen beste epiteto bat edo, nahiago bada, formula kutsuko sintagma bat *frutu emoille* dugu.

Euskalerriko emakumea,  
kantuz nator esatera:  
lur maite onen loria eta  
**frutu emoille** zeu zera; [...] (B137a)

**Frutu onen emoille**  
genduan zugaitzak,  
danentzako zituan  
bardin bere emaitzak; [...] (B227a)

Gazte ta sendo, **frutu emoile**  
lerden genduan zugatza [...] (Bb172a)

Ez dirudi Balendinek, adjetibazio mailan behintzat, ekarpenik egiten duenik. Hala ere, bere bertsogintzan behin eta berriz jo behar du erakutsi dugun epiteto mota hauetara.

<sup>370</sup> Kepa Enbeitaren bertsogintzan *txori kantaria* sintagma ez da agertzen, *kantari* hitzak jatorri latinoan duelako. Agertzekotan *txori abeslari* agertuko da, edo *txori* eta *abes-* erroa baturik zein puntu berean. Ingurunea deskribatzean honela dio Urretxindorrak: “[...] pozik alikatzen naz/ gerizpen batian/ **txorijak abeslari**/ diran bitartian” (K057d). Bestelako adibideak aipatutako A.I.1. azpiatalean aurkitzen dira.

**- Lore usaintsu**

Sinplea bezain herrikoia da epiteto hau, ahozkotasunaren joeretan bere justifikazioa aurkitzen duena<sup>371</sup>:

Baratz erdiko **lore usaintsu**  
irribarredun larrosa [...] (Bb175a)

[...] **lora** danak **usaintsu**,  
amesak gañezka,  
gogamen asko barik  
geroaren kezka. (B232b)

**Lorak usaintsu**, txoriak kantuz,  
udabarrien ederra!  
Aize biguna, eguzki gozo,  
bakearen antz-ikurra. [...] (B188c)

**- Bide zuzena**

Jazkeran piskat apaindutzia  
danoi atsegin zaiguna,  
besten gauzetan ardura artzia  
au ez da **bide zuzena**; [...] (B083b)

Falta dabena billa ibiltia  
ori da **bide zuzena**,  
ikusten dogu urte askotan  
andra billa zabizena; [...] (B107c)

Joanes artzaiñan **bide zuzena**  
eredutzako arturik,  
garbi jokatu bearra dogu,  
ez dago beste biderik. [...] (B133a)

**- Kontzentzi garbiz**

[...] au ikusi ta **kontzentzi garbiz**  
gu ezin geintekiz bizi,  
eta euskaldun izenik ere  
askok ez dogu merezi. (B136b)

**Kontzentzi garbiz** asi gaitzean  
geure barrenak astintzen, [...] (B249b)

---

<sup>371</sup> Honen harian gogoratu behar da ahozkotasuna bizirik dagoen kulturetan, epitetoek dagokienez kontserbatzaileak direla; izan ere, urteak eta urteak sortzen behar izan dena galtzea kultura batentzat galera handia da, pobretasun handia: “Los elementos del pensamiento y de la expresión de condición oral no tienden tanto a ser entidades simples sino grupos de entidades, tales como términos, locuciones u oraciones paralelos; [...] o epítetos. [...] Las expresiones tradicionales en las culturas orales no deben ser desarmadas: reunir las a lo largo de generaciones representó una ardua labor, y no existe un lugar fuera de la mente para conservarlas. [...] Así pues, los soldados serán siempre valientes; las princesas, hermosas; y los robles, fuertes” (Ong, 1987, 45).

Geure bizitza **kontzentzi garbiz**  
eroaten dogunean  
Gizona lasai aurkitu leike  
zahartzera heltzen danean [...] (Bb170a)

Gizon bezala **kontzentzi garbiz**  
egia nahi dot aitortu  
Nire bizitza begiratuta  
badaukat zertaz ohartu [...] (B175a)

Azken bi epiteto hauek badute zerikusia sermoigintzaren estiloarekin edo gutxienez moralari lotuta daudela ematen du, nahiz eta esplizituki gai moralik ez jorratu.

### - **Arantza miñak**

[...] **arantza miñak** euki arren be  
beti kantari biotza, [...] (B096b)

Arrokeria, aundikeria,  
ekaitz guztien zuztarra,  
zuzen-zalien **arantza miña**,  
menpekoaren negarra [...] (B168a)

Zorioneko nai dogu izan?  
Txoriak legez ibil gaitezán.  
Alkar arteko ikusi eziñak  
dakaz munduko **arantza miñak**. [...] (B231b)

[...] igaro ditut **arantza minak**  
bai eta egun gozoak [...] (Bb169a)

Tropo bezala ere aztertu liteke irudi hau, eta halaxe egingo dugu geroago. Hala ere, ezinbestekoa iruditu zaigu azpiatal honetara ekartzea Balendin Enbeitaren epitetoekiko zaletasuna erakustearren. Sintagma mota honen gunea *miña* hitza da, eta *arantza* hitzak modifikatzaile edota kalifikatzaile legez jokatzen du. Sintagma mota hau ez dugu horrela aurkitzen Urretxindorraren bertso gintzan. *Arantza* irudi bezala bai, baina ez *miña* hitzaren modifikatzaile legez. Beraz, Enbeitatarren artean Balendin izan zen irudi hau erabiltzen aurrenekoa.

## 1.2. Hitzen elisioa

### 1.2.1. Elipsia

Hitzen elisioaz sortutako irudien artean nabarmentzekoak dira elipsia eta asindetona. Elipsia hizkera poetiko guztietan oso erabilia bada, euskaraz, ikerlari batzuen ustez, are erabiliagoa, hizkuntzak berak horretarako erraztasunak ematen dituelako. Horretaz mintzatu gara jada Urretxindorraren

atalean, bosgarren kapituloan. Bertan, Urretxindorraren elipsi mota nagusiena aditzarena zela genioen.

Azter ditzagun Balendin Enbeitak egiten dituen elipsiak.

**- Aditz nagusiaren elipsia:**

Ariatzako jaiek  
 Santa Kurtzietan  
 Irailan amalauan  
 urte guztietan  
 naiz aberatsetan  
     bardin txiroetan  
 jan-edanen paltarik  
 ez da etxietan  
 naiz-ta eskas ibili  
 beste egunetan (B025a)

Aurreneko bi puntuetan aditz nagusia falta da. "Izaten dira" da ondo etorriko litzaiokeen aditz bat. Xabier Amurizak azaltzen duenez, *izan* aditza sarriak diren aditzen taldekoa da: hizkera arruntean askotan erabiltzen dira aditz horiek eta horregatik baliagarriak dira elipsia egiteko (Amuriza, 1997, 302). Komunikazioan testuinguruak bere garrantzia duela ezaguna da eta zenbaitetan testuinguruan oinarritzen da, hein handi baten, komunikazioaren mezua. Honek konplizitatea eta entzulearekiko enpatia bideratzen ditu, bertsolaritzan oso garrantzitsuak diren alderdiak hain zuzen<sup>372</sup>. Goian aipatu ditugun puntuak Ariatza auzoko jaiak dituzte mintzagai. Puntu horiek dauden bertso-sortan Ariatza auzoko jaien inguruko ohiturak deskribatzen dituzte. Deskripzio hau hobeto ulertzeko testuinguruaren ezagutza komun bat beharrezkoa da igorle eta hartzailearen aldetik. Horrela, bion arteko konplizitaterako esparrua izango da eta, beraz, elisio enpatikoak egiteko aukera.

Bestelako egoerak deskribatzerakoan ere aurkitu dugu elisioa egiteko joera hori:

Arantza artean irri-barreka  
 or Ama Arantzazuko,  
 geure bizitza zelan eruan  
 munduan erakusteko; [...] (B041a)

Kasu honetan oso erabilia den *dago* ondo letorkioke aditzik gabeko perpauk honi. Honek erakusten du Balendin Enbeitarentzat bertsoa egitea ez

<sup>372</sup> Jon Sarasua bertsolariak, adibidez, entzulearekiko enpatiaren garrantziaz hau adierazten du: "Nonahi asko aipatzen duk gaur egun *feed-back* kontu hori: *feed-back*, edo hartzailearen erantzuna igorlearen jardunean integratzea, hori baita azken batean benetako komunikazioaren gakoa. Bertsogintzaren kasuan, jardunaren arima duk hori ia-ia. (...) esan liteke bertso-sorkuntzaren beraren iturri nagusietako bat dela hartzailearen erreakzioa bertso-jardunean integratze hori. [...] Publikoa ikusi beharra zaukaagu: bertso bat kantatzen ari garela, ezinbestekoa zaiguk gure entzuleen aurpegiak eta begiak ikustea, bestela ez baita ukagu jakiterik hurrengo bertsoan ildo beretik segitzea komeni zaigun ala ez, adibidez. Hori dik bertsoak edertasun eta, aldi berean, hori dik morrontza". Garzia, Joxerra, 1998, 15-16.

zela hizkera gramatikala erabiltzea, baizik eta entzuleari adierazi edo komunikatu nahi ziona egoki transmititzea, komunikaziorako pertinente ez zena baztertuz.

Ondoren elipsiez jositako bertso bat agertuko dugu. Parentesi artean eliditu den aditz nagusi posibleak jarrita daude, edo nahiago bada, jarri ditugu:

Aingerutxua jaio nintzan da  
seaskatxuan eroso (*egoten nintzen*),  
neure amatxuk ugatza edaten  
altzora egin arte jaso; (*jaso egin ninduen artej*)  
neure gilborra asetu arte  
ugatza emonaz ganoso, (*egoten nintzen*)  
barriro ere seaskatxura (*eroaten ninduen*)  
egin dagidan lo gozo. (B043a)

Bertso-sorta horretan, ondoren datorren bertsoak ez dauka bertso nagusirik. Daukan aditz bakarra erlatibozko menpeko perpaus bati dagokiona da.

Amen ezpanak esan leikezan  
itz gozoenak neretzat,  
jateko gozo bigun ezta  
geienak aurtxoarentzat;  
beso artian laztan ta txera  
maitsun ezaugarritzat,  
eta aurtxoen irri barria  
ai ze pozgarri amentzat! (B043b).

*Egon* aditza aditz nagusia denean, sarritan gertatzen da elisio hori, hain zuzen ere askotan erabiltzen den aditza delako eta bere elisioak mezua iluntzen ez duelako. Perpaus nominalak sortzen dira horrela, eta beraietan ekintzak ez dauka garrantzirik: kontzeptuak eta nolakotasuna dira garrantzitsuenak. Adibide asko topatu ditugu. Hona hemen euretariko bat:

Mendi goietan Kurutza Deuna, (*dago*)  
ermitatxuak ugari, (*daude*) [...] (B114b)

Paisaien edo inguruko izakien egoera deskribatzerakoan, aditz nagusiaren elisioa egiteko joera dago baita ere. Honek deskripzioaren abiadura areagotzen du eta ikuspegi inpresionista eskaini. Adberbioek ere indarra hartzen dute, egoera adierazkorrago deskribatuz.

Mendi gaiñik-gain miruak egan,  
kukuak kuku basoan,  
eztigai billa ara ta ona  
erliak lora gozoan;  
pagodeietan usuak urru,  
eperrak landa soloan,  
artzainak txistu, ardiak beka,  
dank dauz kanta-soiñuan,  
mendi onetan aurkitutzen naz

zorioneko lekuan. (B040a)

Lehenengo hiru puntuetan alborakuntzaz jarritako perpaus batzuk ditugu eta guztiei aditz nagusia falta zaiela antzematen da: *daude*, *dabiltza*, eta *ari dira* izan daitezke aditz nagusi horiek.

Pertsona baten deskripzioa egiterakoan (dela prosopografia, dela "etopeya", dela erretratua) *izan* aditza eliditzeko joera izaten da, batez ere esaldi kopulatiboetan, hain zuzen ere horrelakoetan *izan* aditza auresuposatzen delako.

*Eduki* aditza ere, edo posesioa adierazten duten aditzak, askotan erabiltzen direla eta, eliditzeko egoeran daude Balendin Enbeitaren bertsoetan.

Sasipetan dabillen  
gure txepetxue,  
buzten laburra (*dauka*) eta  
zorrotza (*dauka*) pikue; [...] (B125a)

### - Laguntzailearen elipsia:

Aditz laguntzailearen elipsia usua da alborakuntzan dauden perpausetan. Elisio honek bi efektu sortarazten ditu:

a) Partizipioan dauden aditzak puntuen oin hoskideak bilaka daitezke ahapaldiaren barruan.

b) Lehenengo perpausaren aditza jokatzeko bada, ondorengo aditzak jokatu gabe utzi daitezke, hau da, gramatikalki zuzena den aditz laguntzailearen elisioa egin daiteke. Horrela, egitura paralelistikoak sor daitezke aditzaren hoskidetasunak lagundurik.

Horren adibideak asko dira bertsolaritzan eta baita ere Balendin Enbeitaren bertsogintzan. Hona hemen bat:

Ludi ontako izaki danak  
zuk **alikatzen dituzu**,  
laño illunez estalduriko  
ortze oztiña **argitu**;  
lurbira danai bizitza emon,  
itxas-orruak **baretu**,  
gogo itunak poztuta **jarri**  
eta gaxoak **osatu**. (B037c).

Zenbait ohituren deskripzioetan ere elipsi mota hau sarri erabiltzen da, ohitura horiek deskribatzen dituzten ekintzak dinamikoki aurkez daitezkeelako alborakuntzan, bata bestearen atzean.

Goizian izarrakaz  
lanari **oratu**,  
gaubian beranduan  
ondiño **jarraitu**,

neguan sarri **busti**  
ta udan **berotu** ...  
Aberastasun orrek  
zesteruak ditu. (B124a).

### - Izenaren elipsia:

Zenbait izenen elipsiaz ere arituko gara ondoren. Izen arruntak dira eliditzen direnak. Zenbait izen eliditzen direnean, eurekin batera doazen adjektiboak nominalizatu egiten dira, jerga berezi bat sortzen delarik. Jerga hori ulertzeak ere (nahiz eta jerga hori oso arrunta eta erabilia izan eta, beraz, efekturik gabekoa) laguntzen du bertsolari eta entzulearen (edo irakurlearen) arteko enpatia sortzeko:

**Goizean zuria ta  
atsaldian baltza,**  
eten bako txurrutai  
an ekiten dautsa;  
artzen dabe matsa  
ezin dira altza  
gorputza kili-kolo,  
aurpegia motza,  
ez dabe falta izaten  
kokoloen antza. (B028a)

Bertso honetan *zuria* eta *baltza* dira nominalizaturik agertzen diren bi adjektiboak. Izenaren elisioa dugu kasu honetan: *ardau zuria* eta *ardau baltza* esan nahi baita. Izenaren elisioa ez ezik, perpaus horren aditzaren elisioa dugu: "edaten dabe" da ondo letorkiokeen aditz nagusia. Baina testuingurua ezagutzen da: auzoko jaiez ari da bertsolaria. Horrezaz gainera, *zuria* eta *baltza* aipatu ditu egileak, hau da, ardo mota bi. Testuinguru horretan igartzen da oso erraz zein den adierazten den ekintza: edatea, zalantzarik gabe.

### 1.2.2. Asindetona

Asindetonak konjuntzioak eliditzen ditu esaldiari indar gehiago emateko eta mugimendu azkarraren irudia lortzeko<sup>373</sup>. Balendin Enbeitaren bertsogintzan adibide adierazgarri batzuk aurkitu ditugu, eta sarritan hain gustuko duen pilaketari lotuta dago.

[...] **neba, arreba, senide,**  
**sendi-gurasoak,**  
Gabon eta Urte barri  
zorionekoak [...] (B031a)

<sup>373</sup> Pelayo H. Fernandez-en hitzetan horrela gertatzen da fenomeno hori: "El asíndeton omite las conjunciones para darle mayor vigor a la frase y conseguir la ilusión de movimiento rápido", Fernández, 1975, 38.



Familiako partaideen aipamen azkarra da. Entzulearen (edo irakurlearen) irudimenean pertsonaia horiek azkar desfilatuko dute bere begien aurrean eta pertsona askori aipamena egiten diola irudituko zaio.

[...] egunsentiko zure dizdiraz  
argitzen neure txokoa;  
**mendi ta zelai, uri, baserri,**  
**errekak eta itxaso,**  
argi gozotan jarten dozula  
pozez gizadi osoa. (B037a)

**Uri baserri, baso, zelaien**  
**zoragarrizko abotsa,**  
amaika aldiz poztu ebana  
entzuliaren biotza. [...] (B099c)

Konjuntzioren bat edo beste agertzen den arren, leku edo gauzen pilaketa bat eskaintzen zaigu hemen. Irudimenaz leku asko igaro ditu entzuleak (edo irakurleak), hori delarik lortu nahi den efektua.

Mendi gaiñik-gain miruak egan,  
kukuak kuku basoan,  
eztigai billa ara ta ona  
erliak lora gozoan;  
pagodeietan usuak urru,  
eperrak landa soloan,  
artzainak txistu, ardiak beka,  
danak dauz kanta-soiñuan,  
mendi onetan aurkitutzen naz  
zorioneko lekuan. (B040b)

Elipsiak ez ezik, azken bertso honetan gertatzen den egoeren pilaketak bertso osoa hartzen du. Naturaren egoera jakin bat deskribatzeko balio du bertso honek eta asindetonaren bidez egileak lortzen du abiadura handiz bere arreta naturaren egoera desberdin askotara erakartzea, naturan zehar bidaia azkar eta bukoliko bat eginez.

### **1.3. Hitzen errepikapena**

#### **1.3.1. Anafora**

Balendin Enbeitak anafora<sup>374</sup> ez du erabiltzen ahapaldiaren barruan. Hala ere, ahapaldien arteko prozedura anaforikoren bat aurkitu dugu (salbuespen bakarretariko bat). Esate baterako, "Maitasunaren azkena" izenburudun bertso

---

<sup>374</sup> Hau da Demetrio Estébanez Calderón-ek egiten duen anaforaren definizioa: "Término griego con el que se denomina una figura retórica consistente en la reiteración de una o más palabras al comienzo de una frase o verso, o al inicio de varias frases o versos integrantes de un período o de una estrofa o poema", 1999,35.

sortan Balendin Enbeitak bertso modu berean ematen die hasiera hiru ahapaldiei: antzerako galdera planteatuz.

**Maitasunaren indarra zer dan**

bear dan lez azaltzeko,  
gizonak daukan argia ez da  
naikoa orretarako. [...] (B121a)

**Maitasunaren azkena zer dan**

azalduteko dirauste,  
agindu ori ez dakit ondo  
egingo dodanik bete. [...] (B121b)

**Maitasunaren azkena zer dan?**

Nai ta nai ez da mingotza.  
Maitasun barik ezin jaritxi  
goi eskarrezko laguntza. [...] (B122a)

Lehenengo bi bertsoetan zehar galderak ditugu lehenengo bertso lerroetan. Hirugarrenean galdera erretoriko zuzena dugu.

“Arro aundia eta arro apala” bertso-sortan prozedura anaforiko moduko bat antzematen da. Agian asmorik gabe egindakoa da, baina ezin aipatu gabe utzi:

**Arro aundia** ezaguna da,  
baiña ez arro apala; [...] (B262a)

**Arro apala** ezagutzeko  
argi ibili bear da [...] (B262b)

**Arro aundi** arro apalak  
ulie artuko dautso [...] (B262c)

Bi pertsonaia antitetikoak deskribatu eta aztertzeko asmoa hartu du Balendin Enbeitak sorta horretan. Hori dela eta, bertsoaren hasieran jorratuko duen pertsonaia mota aipatzen du. Horrek sortari erritmo zikliko bat ezartzen dio.

Dena dela, ahozko jardunean bezala (bertsorik bertsorako prozedura anaforikoa esan nahi dugu), hain gutxitan agertzeak bertsogintza hau ahozko estiloari lotuta dagoela adierazten digu.

### 1.3.2. Epifora<sup>375</sup>

Errepikapenen atala amaitzeko prozedura epiforiko bat aurkitu dugu “Aita Martin (G.B.)” izenburudun bertso sortan. Ahapaldi guztiek egituraz amaiera

---

<sup>375</sup> Egile berberaren definiziora jotzen dugu, ulergarritasunaren mesedetan: “Términos procedentes del griego con los que designa una figura retórica, consistente en la reiteración de una o más palabras al final de una frase o frases de un período, o, si se trata de un texto versificado, al final de un verso o de una estrofa” (Ibidem, 341).

antzerako bat dute, azken aurreko bertso lerroa errepikatzen delarik. Azken puntu horretan, kasu baten izan ezik, perpausaren objektu zuzena da aldatzen dena.

[...] Berak damotso gure izanari  
bizi-bideko laguntza,  
**nai ta nai-ezik, on artu bear  
zor dautsagun eriotza.** (B128a)

[...] egi biribil mamitsu askon  
egizko egille bakarra;  
**nai ta nai-ezik, on artu bear  
bere betiko agurra.** (B128b)

[...] Zure betiko azken agurrak  
gugan itxi dau samiña;  
**nai ta nai-ezik, on artu bear  
aren lertze eriozkiña.** (B128c)

[...] Eriotzaren naimenik etzan  
gugan Aita Martinentzat;  
**nai ta nai-ezik, on artu bear  
siñismen ezaugarritzat.** (B129a)

[...] Jaunak danori emongo dausku  
merezi dogun epaia,  
**nai ta nai-ezik, on artu bear  
Jaunaren erabagia.** (B129b)

[...] Karmengo Aman ikur donea  
maite zenduan benetan:  
**nai ta nai-ezik on artu bear  
Aita Martin zeruetan.** (B129c)

Antzerako ideia berberaren errepikapena nabaria da. Aholku modura dago adierazita ideia hori, eroapenera izateko deia delarik: “nai ta nai-ezik on artu bear”. Esaldi hau dela eta, esan liteke informazio berriak ez duela garrantzirik eta aurrerakuntzarik ez dagoela. Nabarmentzen da ostera, ideia berberaren inguruan egiten den anplifikazioa. Azken esaldi horietan, adierazi den bezala, objektu zuzenaren eduki semantikoa da bertso bertsorik bertso aldatzen doana. Aldaketa horrek hartzailearen arreta erakartzen du: esaldiaren lehenengo zatian ideia berbera errepikatu arren, objektu zuzenak zehaztaperen berri bat ekartzen dio prozedura epiforiko honi. Are gehiago, epifora honen aldaketan mailaketa semantiko bat antzeman daiteke. Gradazio edo mailaketa hori hauxe da: heriotzaren berri txar eta mingarritik zeruko itxaropenaren poztasunera.

Bertso idatzietan prozedura epiforiko bakarra izan arren, badirudi Balendin Enbeitak menperatzen duela errekurtsu estilistiko jaso honen erabilera. Hori bai, idatziz bakarrik erabiliko du.

### 1.3.3. Aliterazioa eta onomatopeia<sup>376</sup>

Ez dugu aurkitu Balendin Enbeitaren dugun corpusean aliterazio adibiderik, salbuespenen bat izan ezik.

Danak egiten dautse  
arduari tire,  
eta bizkortzen ditu  
gizon ta agure;  
gero asten dire  
**jira eta bire**  
gorputza astun baña  
bizkor jarri gure;  
ardaua ez dok, mutillak,  
iturriko ure! (B027a)

Egitura honek kakofonia gordetzen du bere baitan, baina zalantzazkoa da Balendin Enbeitak egitura hori erabili izana aliterazioa bilatzeko. Hoskidetzarako eta neurrirako ondo zetorrelako erabili izanak funtsa gehiago duela dirudi; izan ere, fosilizatutako egitura hori hizkera arruntean ere erabiltzen da, balio estetikoa duelako baina ez aliterazioa bilatuz. Beraz, bestelako aliterazio kasurik ez topatzean, pentsatzekoa da egitura hori aliterazio asmorik gabekoa dela, beti ere kabala eta ustearen eremuan hau baieztatzen dugularik (egilearen barneko asmoez ezer ziurtatzerik ez dagoelako).

Salbuespenen bat kenduta<sup>377</sup>, esan daiteke Balendin Enbeitak ez duela erabiltzen onomatopeiarik bere bertso idatzietan ezta bere (salbuespenik gabe) bat-bateko bertsoetan ere. Beste kontua da jatorri onomatopeikoduna duten esaerak edota hitzak erabiltzeko joera. Zenbait bertsoetan horrelako hitzak barra-barra erabiltzen dira, bai substantibo zein adberbio kategoriaren barruan.

Jatorri onomatopeikoduna duen *txorrotxio* substantiboa eta *txorrotxioka* adberbioa hiru aldiz topatu ditugu:

[...] txorien **txorrotxio**  
alai gozoenak,  
menditik begituta  
dira ederrenak. (B049b)

[...] Marti-zozotxu, piku gorrie,  
zure abestiak entzunik,  
baserri, uri, mendi ta zelai  
daukazuz pozez beterik;

<sup>376</sup> Irudi bi hauek jorratu dugu jada Urretxindorren zatian, A.IV.1. azpiatalean.

<sup>377</sup> Badago bertso sorta bat "Gabon-abestiak" izenburua daukana, non kanpaiaren soinua islatzen saiatzen den "dan, dan dan" onomatopeiaren bidez: **Dan, dan, dan**, Jose eta Maria/ ostatu billa Belenen;/ **dan, dan, dan**, gabeko amaiketana/ **dan, dan, dan**, atia jotena./ Eta barrutik **dan, dan**, asarrez/ gogor datse erantzuten: / **Dan, dan, dan** gabeko amaiketana/ **dan, dan**, zer dakazue emen?" (B059a). Beste bertso baten, atea jotzean sortzen den hotsa antzeztu egiten da: **Kas-kas** atea jotena eutsien/ bardin egun eta gabaz, [...]" (B146a).

zeure betiko **txorrotxioa**  
ez dogu gura besterik, [...] (B201c)

Ariatza'ko ibar zelaietan  
loraren usain gozua!  
Zugatz gañetan **txorrotxioka**  
birigarro ta zozua. [...] (B176a)

[...] eta pozezko abestietan  
**txiroliroka** txoriak,  
“Ongi etorri, argi gozua!”  
diñoelarik guztiak. (B037b)

Ikusten denez, *txiroliro* substantiboa, *txirolirotan* inbesibo kasua eta *txiroliroka* adberbioa ere agertzen dira:

[...] zoragarritzko abestietan  
**txiroliroka** txoriak,  
benetan dira atsegingarri  
Bizkaiko gure mendiak. (B114b)

Udabarriak berbizten ditu  
mendi, baso ta zelaiak  
Zoragarritzko **txirolirotan**  
kantari jarri txoriak [...] (Bb171b)

Bertso baten zenbait animaliren soinuak adierazten dira aipatutako jatorri onomatopeiko duten hitzekin:

Mendi gaiñik-gain miruak egan,  
kukuak **kuku** basoan,  
eztigai billa ara ta ona  
erliak lora gozoan;  
pagodeietan usuak **urru**,  
eperrak landa soloan,  
artzainak txistu, ardiak **beka**,  
danak dauz kanta-soiñuan, [...] (B040a)

*Orru* hitza, jatorri onomatopeikoduna ere, zenbaitetan agertzen da:

Ego aldeko aize epelak  
bere irrintzi ta **orruaz** [...] (B054b)

[...] Emen alperrik egingo dogu  
**orrua** egun eta gau, [...] (B174b)

Korneta jo ezkerro  
**orrua** eiten du, [...] (B203c)

Hitz hauek, nahiz eta onomatopeiaren efektu berbera sortu ez, sonoritate berezia ematen diote bertsoari. Horrela, fonetikoki aberastu egiten da bertsoa.

Hala ere, aberastasun lexikoa ere ez da ahazteko modukoa; izan ere, erabilpen horrek adierazten du egileak erregistro zabala duela jatorri onomatopeikoduna duten hitzei buruz.

## **2. Pentsamendu irudiak**

### **2.1. Irudi deskriptiboak**

#### **2.1.1. Deskripzioa**

Balendin Enbeitak egiten dituen deskripzioak aztertu baino lehen, gogoratuko dugu Demetrio Estébanez Calderón-ek egiten duen deskripzioaren definizioa eta berorren sailkapena:

Figura consistente en la presentación de personajes, objetos, paisajes, acontecimientos, etc., en el marco de un texto del que pueden formar parte otras modalidades discursivas, como la narración, el diálogo y el monólogo. La retórica tradicional distingue diversos tipos de descripción: del aspecto físico de un personaje (prosopografía), de su índole psicológica y moral: pasiones, costumbres, virtudes, etc. (etopeya), de la personalidad física y moral de un individuo (retrato), de un lugar físico o paisaje (topografía) y de los rasgos conformadores de un período histórico (cronografía) (Estébanez Calderón, 1999, 279).

Aztertzen ari garen egilearen bertsogintzan erretratua da deskripzio motarik erabiliena. Ikusiko dugun bezala, erretratuaren luzaera oso laburra da eta erabiltzen dituen adjektiboak eta sintagmak oso arruntak dira: deskripzioetan ez du erabiltzen erregistro zabalik. Pertsonen deskripzioak dira nagusi baina natura (topografía) edo egoera sozial jakin baten deskripzioak ere badira.

Benetan ziñan alaia, Miren,  
txoria baizen bizkorra,  
zure abotsa pozik entzunaz  
deitzen eutsuen txindorra;  
uda ta negu abesten zendun  
naiz lorak eta edurra,  
baña geiago ez dogu entzungo  
zure abesti samurra. (B079c)

Sasipetan dabillen  
gure txepetxue,  
buzten laburra eta  
zorrotza pikue;  
txori danen errege;  
batzarrak autue,  
ez dok txantxetakoa  
txepetx txikitxue. (B125a)

Gorputzez txiki baña  
izatez aundie, [...] (B125b)

Guztiak maite genduan geure  
 Aita Martin karmeldarra,  
 euskaldun sendo, biotz aundiko,  
 jakintsu, apal, azkarra.  
 Egi biribil mamitsu askon  
 egizko egille bakarra;  
 nai ta nai-ezik, on artu bear  
 bere betiko agurra. (B128b)

Egien alde agertu zifian  
 zeure arazo danetan;  
 ifioiz kikildu bako gizona  
 egi-bideko gauzetan.  
 Karmengo Aman ikur donea  
 maite zenduan benetan:  
 nai ta nai-ezik on artu bear  
 Aita Martin zeruetan. (B129c)

Don Ilario izan genduan  
 egizko abade zintzua,  
 beartsuaren errukiorra,  
 pozgille arduratsua.  
 Jakintzaz aundi, baia apala,  
 borondatez indartsua,  
 nagirik bako langille trebe  
 erri maitale sutsua,  
 nok kantau leiken bear dan legez  
 au goratzeko bertsua? (B158c)

Irribarrezko aurpegi alai,  
 urre gorrizko biotza,  
 arimen artzai egiazkua,  
 santua bere bizitza;  
 Don Ilarion borondatea  
 azken bako aberatsa,  
 berak landua erri onetan  
 sasiz eguan baratza,  
 Iorretarrak gizon oneri  
 mesede asko zor dautsa. (B159a)

Gaztea zara, gorputzez sendo,  
 baiia zentzunez txirua,  
 olgantzan eta libertadian  
 daukazu zeure burua;  
 zeure izatez gaurkoa zara,  
 ez dozu ikusten gerua,  
 olanguari euskaldun askok  
 deitzen dautsagu erua. (B221b)

Orain arte erakutsitako bertsoetan erretratuak egiten dira, gehienetan pertsonenak eta inoiz animalia batenak, bigarren bertsoan kasu. Deskripzio horiek hirugarren pertsonan egiten dira, baina baita ere bigarren pertsonan.

Hau bertso-jarrien joera bat da<sup>378</sup>, alegia, deskripzioa egitearekin batera apostrofea<sup>379</sup> gertatzen da: pertsonaiaren deskripzioa pertsonaia horri zuzenduta egiten da, bigarren pertsona gramatikala erabiliz. Balendin Enbeitaren beste bertsolari garaikideengan ere topatu dugu joera hau<sup>380</sup>.

Billozik ziran mendi-zelaiak,  
udabarrian jantzirik danak;  
eta txoriak, aundi ta txiki,  
pozez zorutzen danak kantari;  
baserrietan  
lugiñak bizkor euren lanetan,  
azientzako lurra gertetan. (B230b)

Beti izan zaitugu  
sendiaren lema,  
etxeke batasuna,  
poza eta broma;  
zenbat aldiz baretu  
asarrezko tema;  
zugandik urruntzian  
dakit zen dan ama. (B264c)

Burua goian altu daukagu

<sup>378</sup> Joera hau agian bat-bateko jardunaren dinamikak kutsatua izan liteke; izan ere, bat-bateko jardunean, bertsolariak askotan bere bertsokideari zuzendu behar dio konposatzen eta antzezten ari den bertsoa. Fikziozko elkarrizketak dira batzutan planteatzen direnak (gaijartzaileak bertsolari bakoitzari "rol" bat esleitzen diotenean. Beste batzutan bertsolariak ez dute "rol" jakin bat jokatzeko (bertsojartzailerik gabeko bertso saioetan, adibidez) baina egoera horretan ere bertsolarien artean elkarrizketa sortzea zeharo naturala eta ohizkoena den errekurtsoa da. Bat-bateko bertso jardunetan, beraz, bertsokidearekiko erreferentzia oso usua da eta bertsolaria horretara ohituta dago. Elegia bertsoetan ere (gaijartzaileak horretarako agindua ematen duenetan), eta fikzio errekurtso legez, bertsolaria bigarren pertsona erabiliz hildakoari zuzentzen zaio, aurrez aurre baleuka bezala, efektu poetikoa areagotzen delarik.

<sup>379</sup> Pelayo H. Fernández-en definizioa hau da: "El apóstrofe es la exclamación o pregunta dirigida con vehemencia a un ser animado o inanimado, presente o ausente, real o imaginario. [...] Cuando los seres que se invocan son inanimados o abstractos, el apóstrofe presupone una personificación", Fernández, 1975, 60.

Kurt Spang akademikoak definizio honen beste zertzelada ematen du: "[...] el hablante ya no se dirige directamente a sus oyentes sino a su adversario en el discurso (en los discursos deliberativos y forenses), a personas ausentes (mitológicas, imaginarias, históricas), o por último a cosas o conceptos abstractos.", Spang, 1979, 208.

<sup>380</sup> Faustino Etxebarria Diman 1917an jaiotako bertsolariak Balendin Enbeita hil eta gero haren omenez bertso sorta bat jarri zuen. Horretan honela zuzentzen zaio: "**Zu** nor **ziñan** be nire aldetik/ zerbait esatera noa/ [...] aita prestu bat **zu izan ziñan**/ Euskal-Erri guztikoa,/ nik orregatik deituten neutzun/ <<Bizkaiko bikarioa>>/ Urretxindorra aita zenduan/ maixu berdiñik bakoa/ [...] Gero zu, seme, etorri ziñan/ zure aita bezelakoa,/ gure errian euskera zaintzen/ egiña dozu naikoa,/ gitxi lez emen **izan zara** zu/ Euskadin benetakua", Etxebarria, Faustino, 1990, 91. Deskripzio oso azalekoa bada ere, eduki deskriptibo duela esan daiteke.

Zeanuriko semea den Basilio Pujana bertsolariak zenbait hil-bertso jarri eta argitaratu ditu bere hiru liburuetan. Horretako batean, *Oiuak* liburuan hain zuzen, horrela jarri zion bertso bat Lauaxeta zenari: "Lauaxeta, bai **zu izan ziñan**/ euskal loratxo liraiña,/ ta badakigu zein izan zendun/ azken orduko samiña/ zure gogoak nai izan eban/ lora agertu eziña; / [...]", Pujana, 1997, 29. Balendin Enbeitari ere jarri zizkion hil-bertsoak: "[...] Euskal Erriak ikara egin dau/ zure aldakuntzarekin/ zuk egindako lan frututsua errez ezingo da jakin [...]", Ibidem, 132. Lazkao Txikiri jarritako hil-bertsoetan ere berari zuzentzen zaio: "Ze eratako gizona ziñan/ bertsoz ezin esan leike/ gure erria askatu daiten/ beti justizia eske./ Naita biotza samieñez euki eta gorputzean neke, erri ta lagun urkoen alde / **zu** beti **ziñan** jo ta ke.", Ibidem, 17.



eta bajuan behatza  
 Bitarte hontan nabarmendurik  
 naspil artean gabiltza  
 Geroago ta gogorrago da  
 anai arteko ekaitza  
 Ta bitartean sasiak jazten  
 Euskalherriko baratza. (Bb186, b)

Ezaugarri batzuk biltzen ditu, beraz, Balendin Enbeitaren deskripzioak:

- Deskripzio laburrak izaten dira, bertso osoa nekez hartzen dutenak, eta inoiz ez bertso sorta osoa.
- Deskripzio sinpleak, topifikatuak eta erregistro murriztekoak izaten dira, herri xeheak ulertzeko modukoak beraz. Deskripzioen balio poetikoa lausotu egiten da deskripzio kultuekin alderatzen bada (aipatutako sinplekeria hau dela eta). Erabilitako aditza *izan* izaten da gehienetan (nahiz eta batzutan horren elisioa egiten den) eta adjektiboak sintagma atributiboari dagozkio.
- Deskripzioa arinagoa eta dinamikoagoa egiteko asindetonari lotuta egoten da<sup>381</sup>.

### 2.2.1. Zerrendatzea<sup>382</sup>

Balendin Enbeitak bere bertsoetan egiten dituen enumerazioak asindetonari lotuta daude, hau da, enumerazioa egitean asindetona egiten da gehienetan.

Entzun Gabonetako  
 Jesusen bertsoak,  
 diralako Balendik  
 bidaldurikoak;  
**neba, arreba, senide,**  
**sendi-gurasoak,**  
 Gabon eta Urte barri  
 zorionekoak,  
 danoi eskintzen dauskuz  
 Jesus umetxoak. (B031a)

<sup>381</sup> Horren adibide bat, orain arte ikusitakoez apartekoa, Jon Arrospide bere herriko osagileari eskainitakoa dugu. Hura hil zenean bertso batzuk jarri zizkion eta horietako batean haren deskripzioa egiterakoan asindetona ere egiten du: "Osalar lez aundi,/ geiago gizona,/ borondatez indartsu,/ maitasun sakona;/ neurri bako ongille,/ apal ta zuzena,/ ezin leike azaldu/ bere nortasuna" (B227b).

<sup>382</sup> Guk zerrendatzea zein enumerazioa erabiliko ditugu honik aurrera: "La *enumeratio* es la acumulación coordinante en el tipo de agrupación de contacto. Los límites con el tipo de agrupación a distancia son fluidos fenomenológica y terminológicamente", Lausberg, 1975, 147. Beharbada beste definizio honekin borobilduago geratzen da kontzeptua: "La enumeración como figura retórica divide un tema en sus partes, es decir: el tema se comunica a través de una serie de detalles. Estos detalles debn ir en contacto, asindética o sindéticamente ordenados. Los límites entre esta figura y la distribución son fluidos", Spang, 1979, 166.

Psikearen mugimendu azkarra eragiten du zerrendatze hau; izan ere, puntu bat irakurri edo kantatzen den denboran familiako hainbat partaide gogoratu dira. Irudimenaren ikuspegian azkar desfilatu dute pertsonaia horiek guztiek eta hori da sortarazi nahi den efektua hain zuzen.

Gau illunian itunik ziran  
**zugazti, baso, zelaiak,**  
 aurpegi alaiz irri-barreka  
 jarri dauz zure argiak; [...] (B037b)

Naturaren hiru elementu aipatu dira aurreko adibidean, arestian aitatutako gogo higidura azkarra sortzen delarik.

### **Zerrendatzea bikote antonimoetan**

Gau illunari bultz eraginda  
 bazatoz, argi gozoa,  
 egunsentiko zure dizdiraz  
 argitzen neure txokoa;  
**[mendi ta zelai], [uri, baserri,]**  
**[errekak eta itxasoa,]** (B037a)

Gauza bera gertatzen da paisai erromantiko honen elementuekin: erreskadan jartzen dira eta horren zerrendaketa azkarra egin. Asindetona ez da horren nabarmena hemen. Enumerazioaren elementuan bikote antonimoetan jartzeko joera antzeman daiteke hori. Bikote horien elementuak lotzeko *eta* da erabiltzen den konjuntzioa<sup>383</sup>. Bikote horietan nolabaiteko esanahi kontrajarria duten izenak uztartzen dira:

- “Mendi ta zelai”: mendia malkartsua da, eta zelaia, lauagoa.
- “Uri, baserri”: *uria* edo hiria egitura urbano bat da. Bertan jendea bizi da eta etxebizitzaren artean kaleak daude. *Baserria*, oster, bizitzeko leku bat den arren, baserritar eremuan kokatzen da eta landez edo lur sailez inguraturik dago.
- “Errekak eta itxasoa”: errekak lehorrean diren ur korronteak eta emari estua dutenak. Itsasoak ura daukan arren, ez dauka emari esturik eta ez da lehorrean igarotzen den zerbait. Erreka baino izugarri askoz zabalagoa da.

Hona hemen adierazitakoaren beste adibide zenbait:

**[Mendi ta baso] [bide ta zelai],**  
 edurrak dauz estaldurik, [...] (B112a)

Mendi gañetik ikusten dira  
**aran, [baso ta zelaiak,]**  
**[uri, baserri], lugintza eder,**  
**[errekak eta ibaiak];** [...] (B114, 2)

<sup>383</sup> Arrazoi metrikoak direla eta, bi aldaera erabiltzen dira: *eta* bi silabatakoa eta *ta* silaba bakarrekoa.

Bestaldetik, zerrendaketak berak bertso osoa osa dezake. Ondorengo kasuan, Balendin Enbeitaren bertsogintzan bakarretakoa, bertsoa bertsolari ona izateko ezaugarrien eta eginbeharren zerrendaketa soil da:

Bertsolariak, ona izateko,  
baldintza onek bear ditu;  
**buru argia, biotz zabala,**  
nai badau ondo jarraitu;  
**irugarrena eztarri ona,**  
**neurriai ondo begitu;**  
bertsolaria ona izango da  
baldintza onek baditu. (B116b)

## 2.2. Irudi patetikoak

### 2.2.1. Galdera erretorikoa<sup>384</sup>

Balendin Enbeitak sarritan erabiltzen du kultutzat<sup>385</sup> jo dezakegun errekurtsu hau.

**Baña zoruntsu zu izanikan  
zelan daukazuz arantzak?  
Txiro izanik aberatsaren  
urre gorrizko meatzak?**  
Ezkutapena dala dirudi  
darakuskuzun bizitzak!  
Zugan badogu zer ikasia,  
gura badogu, bakoitzak. (B097b)

Pertsonifikatu duen pertsonaia bati (berez materia besterik ez den gauza bat, baserriko sukaldea hain zuzen) zuzentzen dio galdera bat. Suposatzekoa da erantzunik ez jasotzea, baina egileak apelazio desio bat adierazten du. Egileak bizia eta arima eman dion elementu horrekin komunikazioa ezarri nahi du, bere sentimenduekin identifikatu nahi du.

<sup>384</sup> Galdera erretorikoak Urretxindorraren zatian jorratzen dira, baina honetara Lausberg-en definizioa ekarriko dugu: "La 'interrogación retórica' fustiga los afectos por la evidencia de la superfluidad de la formulación interrogativa. De ahí que tampoco se espere respuesta a la interrogación, pues es la formulación, próxima a la *exclamatio*, de un enunciado", 1975, 222.

Kurt Spang akademikoak ordea, horrela definitzen du: "La pregunta retórica consiste en una oración interrogativa que no precisa o de la que no se espera respuesta, porque ya la contiene implícitamente. Es por tanto sólo una pregunta aparente que sustituye un enunciado o una exhortación intensificándolos. A menudo expresa los afectos del orador", Spang, 1979, 202.

<sup>385</sup> Badirudi galdera zuzena egitea eta erantzuna jasotzea lehen mailako oralitateari dagokiola. Errekurtsu kultua da galdera bat egitea eta erantzunik ez itzarotea. Hor idazkeraren eragina suma daiteke; izan ere, galdera erretorikoarekin sortzen den komunikazio mota ez da zuzena. Egileak badaki entzulego edo irakurle goaren aldetik ez duela bat-bateko erantzunik jasoko. Idazkerak komunikazio mota hori sortarazten du hain zuzen, non hartzailearekiko homeostasia eta enpatia ez diren horren garrantzitsuak eta mezua independenteagoa den.

**Bertsolariak atarateko  
zein dan biderik onena?**

Lenengo euki biar dabena  
berezko etorkizuna;  
gero ikasi, sarri abestu,  
ez galdu zaletasuna;  
bertsolaria izan leiteke  
ori egiten dabena. (B116a)

Fikziozko galdera bat auresuposatuz ematen zaio hasiera bertsoari eta bertso sortari. Eta auresuposatutako galdera hori berori, zehar estiloan, errepikatu egiten du egileak. Badirudi errepikatze horrek bi helburu dituela:

a) Galdera berbera errepikatuz eta ea horrela den ala ez galdetuz, hasierako balizko galderaren edukia konfirmatzeko.

b) Bertso honen hartzaileak (entzuleak edota irakurleak) jakingo du horrela zein den bertso sorta honetan garatu nahi den gaia.

Kukua emen ikusten dogu  
munduko atsegiñetan,  
txindorra barriz gerokoaren  
zorion ames gozotan.  
Zorion biak bear gendukez  
orduak pozik benetan;  
**baiña nok daki eperdi batz  
zillo bi ondo tapetan?** (B120a)

Azken bertso hau bertso sorta baten azkena da eta bertan pertsonifikaturik agertzen den txepetx batek entzundakoaren epaia ematen du, ikuspuntu desinteresatuago batetik. Orekaren aldeko apustua dela dirudi, baina azken galdera erretorikoarekin adierazten du orekatsua edo bi helburu batera jadestea oso zaila dela, ia-ia ezinezkoa. Beraz, azken puntuko galdera egitean ez du erantzunik itzaroten, egileak berak baitaki zein den erantzuna. Mundu adierazkorrean adierazi nahi izan du bere iritzi sendoa.

Maitasunaren indarra zer dan  
bear dan lez azaltzeko,  
gizonak daukan argia ez da  
naikoa orretarako.  
**Maitasunaren azkena, baiña,  
zelan dot nik azalduko?  
Nire biotzak maitasun bako  
unerikan ez badauko?** (B121a)

Alkarrak maite bizi diranak  
badauke maitetasuna,  
bikoitz orretan ikusten dogu  
bakia ta zoriona;  
bizitza dongez galtzen badabe  
goikoan itzaropena,  
**lortu ete dabe goi eta beko  
maitasunaren azkena?** (B121c)

Azkeneko bi bertsoak bertso sorta berberari dagozkio. Beraietan hartzaileari zuzentzen dio galdera bat, berari apelazioa eginez: galdera horren bitartez hartzailearen sentsibilitateari eragin nahi dio, eta nahiz eta erantzunik jaso ez, interpelatua sentitzen da, eta zenbaitetan galdera haiei erantzun mentala emango die.

Goiko ta beko naspildu dira,  
oinpean dabil egia,  
au ikustean kistar erriak  
galdu dau bere lotsia.

**Nun eta dago Aitzgorri-peko  
Joanes artzaian fedia,  
zuzenduteko gaurko artzaiñen  
Egizko zeru-bidia?** (B131c)

**Zer dala baña jazoten dana:  
txikia beti errudun?**

Apaingarri dan soiñaz bakarrik  
ezin leike jua urrun.  
Geure barrenak askatu eta  
egia autortu daigun,  
Jaungoikoa ta Kurutziagaz  
egin nai badogu lagun. (B132b)

Ai, Urbiako Joanes artzaiña,  
zure siñismen sendoa!  
Gizontasunez eusko eredu,  
egizko sendi-burua!

**Artzain lagunak itxi zaituez,  
nok dauka orren errua?**

Autortu bear izango dogu  
datorrenean ordua. (B132c)

Balendin Enbeitak gai serio bat eta kezka bat jorratzen duenean galdera erretorikoa egiteko joera izaten du. Ez du tonu dogmatikoa gustuko, eta hartzailearengan berak duen kezka sortarazi nahi du galdera bat aireratuz, gai horri buruz pentsaraztearren. Joera hori antzematen da azkeneko hiru bertsoetan eta aurreko bietan ere bai. Azken hiru bertsoetan, esate baterako, egilearen kezka nagusietako bat nabaritzen da: eleberri baten pertsonaia gogoratzearekin batera, ohitura onen galerak egilearengan eragiten duen mina eta herriari egin diezaiokeen kaltea dira kezka nagusietako batzuk.

### 2.2.2. Deiadarrak<sup>386</sup>

---

<sup>386</sup> Harridurazko deiadarrak aztertu ditugu jada Urretxindorrarenean. Hala ere, haren 5. kapituluaren B.II.2. azpiatalean ez genuen ematen definiziorik. Hona hemen bat: "La *exclamatio* consiste en la transformación de una oración enumerativa en una exclamación (mediante *pronuntiatio* reforzada) que la mayoría de las veces va acompañada de vocativos (a menudo apostrofos) o construcciones parecidas", Lausberg, 1975, 223.

Pozezko eta harridurazko deiadarrak izaten dira Balendin Enbeitak egiten dituenak. Deiadar horietan zerbait handitzeko edo puzteko joera dago (hiperbolea sortuz). Zerbaiten edo norbaiten laudorioa ere egiten da. Horrekin batera aditzaren elisioa burutzen da sarri:

Amen ezpanak esan leikezan  
 itz gozoenak neretzat,  
 jateko gozo bigun ezta  
 geienak aurtxoarentzat;  
 beso artian laztan ta txera  
 maitsun ezaugarritzat,  
**eta aurtxoan irri barria**  
**ai ze pozgarri amentzat!** (B043b)

[...] nire biotzak itxiko ete dauz  
 baztertu edo aztuta?  
**Ez, lur onetan jarten ez baiat**  
**neure zentzuna galduta!** (B044b)

Mendi gañetik ikusten dira  
 aran, baso ta zelaiak,  
 uri, baserri, lugintza eder,  
 errekek eta ibaiak;  
 zoragarritzko abestietan  
 txiroliroka txoriak,  
**benetan dira atsegingarri**  
**Bizkaiko gure mendiak.** (B114b)

**Ai, Urbiako Joanes artzaiña,**  
**zure siñismen sendoa!**  
**Gizontasunez eusko eredu,**  
**egizko sendi-burua!**  
 Artzain lagunak itxi zaituez,  
 nok dauka orren errua?  
 Autortu bear izango dogu  
 datorrenean ordua. (B132c)

Adibideetan antzeman daitekeenez, pozezko laudorioak deiadarren artean aldarrikatzen dira. Azkeneko bertsoan apostrofea (Spang, 1979, 208) eta harridurazko deiadarra batera doaz; izan ere, egileak "Joanes artzaina" pertsonaia nobeleskoari zuzentzen dio bere diskurtsoa, bigarren pertsona erabiliz. Aipatu dugun azken bertso honetan laudoriozko deiadarra botatzean aditzaren elisioa egiten da: mezuaren pisua izenetan eta adjektiboetan zamaten da.

### 2.2.3. Apostrofea

---

Kurt Spang-en definizioak kontzeptu berberaren beste ikuspegi bat eskaintzen digu: "La exclamación es expresión de los afectos y consiste en la modificación de una oración mediante una pronunciación adecuada y frecuentemente mediante vocativos o intersecciones", Spang, 1979, 207.

Balendin Enbeitak ez du baztertuko apostrofea<sup>387</sup> egitea ahal duenetan eta egoki irizten dionean. Joera hau tonu "inbokatiboan" kokatzen da, beti ere hartzailearengana (entzulegoa, irakurlegoa, bertsokidea, hil den pertsona bat, pertsonaia garrantzitsu bat, e.a) iristeko asmotan eta hari zein haren sentimenduei eragiteko. Arestian erakutsi den bezala, deskripzioa egitearekin batera apostrofea egiten zen. Badira bertso batzuk oso osorik inbokazioak direnak.

Euskalerriko gure lur maite  
siñismenaren iturri,  
zure emaitzak agertzen ziran  
nun-nai eder ta ugari.  
Bake deunaren gorde-lekua,  
kurutza zendun gidari,  
baña gaur ia kendu dautzue  
zeure edertasun ori. (B131a)

Be-aldietan ez da ikusten  
len euki zendun bakia,  
mendi goietan ixillik dago  
artzaiñen txistu alaia;  
sukalde askotan ukatu dabe  
mar-mar gozozko otoia,  
txorakerizat artzen dabela  
aurreko zarren fedia. (B131b)

Beste bertso batzuetan, ostera, momentu jakin batean (ez bertso osoan zehar) inbokazioa egiten da, bertsoak tonu aldaketa bat jasaten duelarik.

Arantza artean irri-barreka  
or Ama Arantzazuko,  
geure bizitza zelan eruan  
munduan erakusteko;  
arantzak emen maite dauzana  
gero da zorioneko,  
**emon eiguzu indarra, Ama,**  
**arantzak eruateko,**

---

<sup>387</sup> Honen definiziorako Lausberg-ek egiten duen azalpena egituratua dela deritzogu: "La desviación con respecto a los oyentes se llama *apostrope*. El orador se dirige:

- 1) A la parte contraria, la mayoría de las veces presente.
- 2) A personas ausentes: a) a seres supraterrénos. b) A personas imaginadas como presentes en la vida de la fantasía.
- 3) A cosas:
  - a) A fenómenos geográficos y meteorológicos.
  - b) A abstractos.
  - c) A partes del cuerpo y del alma o a sus afecciones.
4. A colectivos ", 1975, 221.

Kurt Spang-ek ematen duen definizioa argigarriagoa da, ordea: "El apóstrofe pertenece a las figuras de la *aversio*, en este caso es un apartarse del público. Es decir, el hablante ya no se dirige directamente a sus oyentes sino a su adversario en el discurso (en los discursos deliberativos y forenses) a personas ausentes (mitológicas, imaginarias, históricas, o por último a cosas o conceptos abstractos)", 1979, 208.

**or goian gero lora artian**  
**Zeugaz bizi izateko.** (B040a)

Erakutsitako azken bertso honetan, apostrofea ezker bertsoak aurreranzko mailaketa bat da. Deskripzio eta azalpen batekin hasten da bertsoa: Ama Birjina gaia dela adierazten da eta hori girotu egiten da. Hurrengo pausoa, non egilearen sinismen agerpen bat gertatzen den, bertsoaren gaia den Ama Birjinarengana zuzentzen da, eskaera bat eginez. Nabarmen geratzen da horrela pertsonaia horren hurbiltasuna, kasu honetan Ama Birjinaren hurbiltasuna, eta berarengandik zer espero den berehala adierazten da.

Pertsonifikazioaren atalean ikusiko dugunez, pertsonifikaturik agertzen den pertsonaia bati apostrofea egitea joera guztiz naturala izaten da Balendin Enbeitarengan. Zenbait bertso sortetan elkarrizketa bat edo -sarriago-bakarrizketa bat mantentzen du pertsonifikatutako izate horrekin. Bokatiboa erabiltzea ere horrela justifikatzen da. Ondorengo bertsoaren lehenengo puntua bokatiboa da:

**Uzparitxako auzonetxua**  
**neure jaiotza-lekua,**  
**amaika aldiz zure altzuan**  
**egin dot amets gozua;**  
geruago ta geiau maite dot  
neu jaio nintzan txokua,  
maiteko ez banu izango nintza  
zentzunik bako zorua. (B042a)

#### **2.2.4. Pertsonifikazioa**

Balendin Enbeitaren bertso paperak irakurtzerakoan, berehala konturatzen gara zein ugaritasunez egiten diren pertsonifikazioak. Badirudi erromantizismoan izan dezakeela jatorria joera honek. Beste poeta kultuetan, Lauaxeta bizkaitarrarengan esate baterako, joera berankor hori argi eta garbi nabarmentzen da beren lanetan. Kepa Enbeitarengan joera hau antzematen da eta dagokigun fenomeno honi azalpena ematerakoan ez da baztergarria Kepa Enbeita eta Lauaxetaren arteko harremanetan oinarritzea; izan ere, sarritan elkarrekin jardun zuten zenbait ekitalditan. Balendin Enbeitak egiten dituen pertsonifikazio ugariak, beraz, neurri batean behintzat, hari horretatik datozela susmatzea ez da baztertzekoa<sup>388</sup>.

Pertsonifikazioaren barruan nabarmentzen da naturako elementuen pertsonifikazioa. Onartzen baldin bada Erromantizismoaren lorratzek Balendin Enbeitarengan eragina izan zutela ezin da ahaztu Erromantizismoan naturarekiko jarrera berezi bat garatzen dela, eta zenbait autorek unibertsoa zerbait bizia bezala ikusten dute, espiritudun zerbait bezala. Jainkoarengan

<sup>388</sup> Honekin ez ditugu baztertzeko beste bertsolarien eraginak. Esate baterako, Emeterio Arrese bertsoegileak “Txantxangorriya” izenburuko bertso-sortan txori horren pertsonifikazioa egiten du: “[...] begiyak xabal-xabal jarrita/ adar me baten gañean/ egoten zera, txantxangorriya,/ negarrez uda azkenean” (in *Bertsolariya*, 1987, 225).



doan unibertso hori espiritualizatu egiten da Berarekiko hurbiltasunean. Jainkoarenganako bidai horretan gizakia une berezi bat da; izan ere, gizakia, eta gizakien artean batez ere poeta, bere indar espiritualaz jabetzen da eta Natura iratzarri eta espiritudun bihurtzen du<sup>389</sup>. Honek bultzatuko du poeta pertsonifikazioak egitera.

Balendin Enbeitaren bertsogintzan, eguzkia, esate baterako, pertsonifikaturik agertzen da "Eguzki, argi laguntzaillia" izenburuko bertso sortan. Apostrofeari lotuta dago pertsonifikazio hau; izan ere, egilea eguzkiarengana zuzentzen da, berari pertsona edo jainko baten dohainak edota ezaugarriak egotziz eta deskribatuz. Hona hemen sorta horren ale bat:

Eguzki, argi gozo biguna  
bazatoz neure leiora,  
nagi bagarik goizian goiztik  
egun onak emotera,  
pozez beterik jarten nozula  
zeu ikusiaz batera;  
eskarrik asko eta egun on,  
etorri zaitez aurrera! (B036a)

Pertsonifikazioarekin batera tonu fabulistikoa dator eta horren ereduak bi bertso sorta ditugu: "Edurra eta zozoaren autua txepetxak erabagi" bata, eta "Kukua eta txindorraren autua txepetxak erabagi" bestea. Sorta bietan naturako elementu horiek pertsonifikaturik agertzen dira eta bertsozko elkarriketa bat izaten dute. Sorta bakoitzetik hona hemen ale bana:

Zoz.:  
Mendi ta baso bide ta zelai,  
edurrak dauz estaldurik,  
zozo gaxook lurmenen billa  
gosiak amurraturik.  
Zelan gabizen ikusi ta be  
ez dau gure errukirik,  
eneban uste edur zuriak  
ain biotz baltza eukanik. (B112a)

Kuk.:  
Udabarria eltzen daneko  
kukuka nago basuan,  
guztiak pozez artuten nabe  
elduten nazen lekuan.  
Neure arrautza ipinten yuat  
txindorren jauregitxuan,  
ni baño obeto bizi dan iñor  
ez dok egongo munduan. (B118a)

Erromantizismotik jaio den abertzaletasun giroak bultzatuta, mundu landatarraren mitifikazioa egiten da sarritan. Balendin Enbeita joera horren partaidea da eta mitifikazio horren ondorio bat izango da zenbait elementuren

---

<sup>389</sup> Handenberg, Friedrich von ("Novalis"), 1975, 18.

pertsonifikazioa. Ondorengo bertsoan, esate baterako, egileak bere jaioterriko auzoa inbokatuko du:

**Uzparitxako auzonetxua  
neure jaiotza-lekua,  
amaika aldiz zure altzuan  
egin dot amets gozua;**  
geruago ta geiau maite dot  
neu jaio nintzan txokua,  
maiteko ez banu izango nintza  
zentzunik bako zorua. (B042a)

Baserria mundu landatar horren ardatz nagusietako bat da. Enbeitatarrek baserriari dioten eraspena nabarmenki agertzen da zenbait bertso-sortetan eta berorietan egiten dituzten pertsonifikazioetan. Sarritan, egileak mundu landatarreko elementu horri zuzentzen dio bere diskurtsoa, entzuten dagoen pertsona bat bailitzan. Ondoren erakusten duguna Balendin Enbeitak 1958an bat-batean kantatutakoa da, Bizkaiko bertsolari txapelketaren finalean hain zuzen:

**Biotz erdiko baserritxua,  
nere jaiotza-tokia  
zenbateraño maite zaitudan  
ez da errez esatia  
Zu zara gure bizi-bideko  
egunoroko ogia,  
egunsentiko txori-abesti  
zoragarri ta pakia;  
zu zara gure izaki danen  
emoille eta jaubia**  
Berialaxe ilgo litzake  
baserri bako uria,  
beragandikan iatorkulako  
guk bear dogun guztia.  
Baserrian da gure izkuntza,  
euskera maitagarria,  
euskal oituren gorde-lekua,  
fede sendoen aulkia;  
**askok txikitat zaukezan arren  
benetan zara aundia,**  
Euskalerrria jaso nai bogu  
zaindu daigun baserria. (1958. urtean Arriaga antzokian kantatua)

Beste zenbait bertso-sortetan<sup>390</sup> pertsonifikazio eta inbokazio horiek nabarmen agertzen dira:

Euskalerrriko gure lur maite  
siñismenaren iturri,

---

<sup>390</sup> "Baserri uts gaxoari"; Enbeita, Balendin, 1974, 212-213. "Usparitxa mendi ganetik begira nere baserriari", *Ibidem*, 49-51. "Neure baserriko bizi-tza", *Ibidem*, 138-140.

zure emaitzak agertzen ziran  
 nun-nai eder ta ugari.  
 Bake deunaren gorde-lekua,  
 kurutza zendun gidari,  
 baña gaur ia kendu dautzue  
 zeure edertasun ori. (B131a)

Neure baserri kutuna,  
 aita ta amak emona,  
 nai dot zure iraupena.  
 Ondorengoak ez beie galdu  
 zuk dozun edertasuna,  
 oitura ta siñismena;  
 beti izan zentzuduna,  
 egiazko euskalduna. (B140a)

"Baserriko sukaldea" bertso sortan, baserriko elementu bat den sukaldea pertsonifikaturik agertzen da (baserriaren partez):

Baserri txukoko sukalde samur,  
 apal, maitati, otzana,  
 arantza artian arantza barik,  
 itxaropentsu barrena.  
 Benetan baida zorioneko  
 zuga sinisten dabena,  
 zu zara gure Betikoaren  
 oin-arri tinko onena. (B096a)

Beste bertso sorta batean ere elementu berberaren pertsonifikazioa eskaintzen digu:

Gure sukalde apal biguna  
 maitaki nator kantatzen  
**Zure saminen negar malkoak**  
 ahal badot kantuz legortzen  
 Gaur egun askok utzi bazaitu  
 bakardadean **sufritzen**  
 Zuga sortu zan bertsolari bat  
 kantuz jatortzu laztantzen (Bb183 a)

Baserriko elementuekin jarraituz, ona litzateke gogora ekartzea Balendin Enbeitak egiten dituen beste pertsonifikazioak. Esate baterako, baserrietan haga zaharretan dagoen *kurtzulua* bertso honen bidez nolabait elementu bizia dela adierazten du:

**Bizitza** labur arantzatsua  
 ilunpekoak argitzen  
 zeure lanaren ordainik ere  
 ez zenduala **eskatzen**  
 Orain betiko itzali zara  
 ta ilun gara gelditzen  
 Argiak iges egin ondoren  
 zurekin gara oroitzen (Bb190b)

Tximiniapeko hauspo zaharrari ere beste bertso baten bizidunen kategoria ematen dio, nahiz eta bertso horretan inbokaziorik ez egon:

Untze zaharretik zintzilik dago  
tximiniaren erdian  
Bere beharra daukenen **adi**  
**beti gertu** sukaldean  
Oinik-oinera, eskutik esku  
danak dabile aidian  
**lanen ordainik bage bizi da**  
**ernai suaren guardian.** (Bb190d)

### 2.2.5. Hiperbolea<sup>391</sup>

Lauserbeg-ek adierazten duen bezala, hiperbolearekin errealitatetik alde egiten dugu esandako (edo idatzitako) gehiegikeria bat dela medio. Errekurtso honek irudimena aktibatze duen gaitasuna handia da<sup>392</sup> eta ahozko jardunean (ahozko generoetan esate baterako) askotan erabiltzen den trepeta da. Bertsolaritzan ere horrela gertatzen da. Hainbeste erabiltzen da askotan fosilizatu egiten dela eta bere efektu inpaktantea galdu egiten duela<sup>393</sup>. Balendin Enbeita ez da atzean geratzen erabilera honi dagokionez.

Ariatza da gure  
tokirik gurena  
Ariatzarrok beti  
maitatzen doguna  
Santa Kurtz eguna  
barriz maitiena  
aztu barik goguan  
beti daukoguna;  
Ariatza da gutzat  
munduan onena (B026a).

Egileak bere auzoko jaiei egindako laudorioetan hiperboleaz baliatzen dela esan liteke. Lehenengo lau puntuak gehiegikeriak irudi lezakete: ariatzar guztiek Ariatza auzoa eta "Santa Kurtz" egunarentzat hain maitasun agerpen handia adierazteak gehiegikeria bat izateko aukera asko dauzka. Hala ere,

<sup>391</sup> "La *hyperbole* es una amplificación creciente aplicada a los *verba singula*, y precisamente a la verosimilitud. El tropo que pertenece a la *audacior ornatus* tiene un efecto poético-evocador y sirve en la retórica para la evocación patética de afectos en el público, y en la poesía sirve para la provocación afectiva de representaciones que superan la realidad", Lausberg, 1975, 113.

<sup>392</sup> Spang, 1979, 218.

<sup>393</sup> Esamolde batzuk, euren esanahiaren edukia aztertuz, jatorri hiperbolikoak izan arren, hizkera arrunta bilakaturik aurkitzen dira. Esate baterako, harridurazko deiadarrekin batera hiperboleak egiteko joera dago. "Ume hori itzelezko polita da" kontutan hartzen badugu esaldia hiperbolea dagoela esango genuke. Esaldi horretan subjektibitatea sartzen da jokoan eta objetiboki ume hura miragarria ez bada ere, igorleari oso polita iruditu ahal zaio. Baina "oso polita" esatetik "itzelezko polita" esatera aldea dago, eta bigarren sintagma errealitatetik ateratzeko muga egon liteke. Hala ere, honelako baieztapenak erabiliaren erabiliaz fosilizaturik geratu dira, eta efektu enfatikoak baino ez dute.

horrelako mezu bat bertso baten adieraztea, eta jai batzuen berotasunean ez dago giroz kanpo. Bosgarren puntua, ostera, gehiegikeria baino gehiago izan daitekeelakoan gaude: “aztu barik goguan/ beti daukoguna”. Auzoko jaiak “beti” eta “aztu barik” gogoan izatea hiperbolea da; izan ere, ez dago gizakirik ideia berbera buruan mantentzeko kapaz dena. Gizakion irudimenak objektu ezberdinak ditu egunean zehar, baita lo dagoenean ere: antinaturala da gizaki batek ideia berbera mantentzea “beti” eta denbora osoan. Era berean, azken puntua beste hiperbole bat da, subjektiboki igorleari horrela iruditu ahal zaiona baina objetiboki hausnartuta ezin esan litekeena: “Ariatza da gutzat/ munduan onena”. Munduko gauza onena Bizkaiko herri bateko auzotxo bat dela esatea laudoriozko jai baten giroan kokaturik ulertzen da<sup>394</sup>, baina ez gauzak xehetasun eta zehaztasunez adierazi nahi direnean.

Goizean zuria ta  
atsaldian baltza  
eten bako txurrutai  
an ekiten dautsa;  
artzen dabe matsa  
ezin dira altza  
gorputza kili-kolo,  
aurpegia motza,  
ez dabe falta izaten  
kokoloen antza (B028a)

Bertso sorta beretik aukeratuta dago goian aurkezten dugun bertsoa. Egoera eta giro baten deskripzio enfatikoa da orokorrean, baina bigarren puntua hiperbole fosilizatua da: “eten bako txurrutai/ an ekiten dautsa”. Ezaguna da txurruta bat ezin dela eten gabekoa izan; izan ere, noiz edo noiz izan beharko du bukaera, oso txurruta luzea izan arren. Hiperbole horren atzean mezua ulertzen da: zurrut asko egiten dituztela han, edo asko edaten dela han. Aurreko bertso batean aipatu den “Bixenten laba” izeneko tabernan hain zuzen.

Tankera horretakoa da ondoren agertzen den adibidea:

[...] Pozez bizi gaitez  
danok alkaturik,  
Ariatza beti goraturik!  
Auxe eskatzen dot  
gau eta egun nik  
Ariatzagatik! (B127a)

Bertso honetan egileak hartzaileari eskaera egiten dio, elkartasunerako dei bat. Horren ostean, elkartasun asmo horren alde “gau eta egun” eskatzen duela adierazten du: literalki ezin da onartu esaten duena, ezinezkoa delako “gau eta egun” horren alde beti eske egotea. Esaera hiperbolikoa den arren, fosilizatua dagoela esan liteke eta gaur egun esamolde enfatiko bezala ulertzen

---

<sup>394</sup> Batez ere "gutzat" destinatiboa tartekatzen bada, zeinen bidez subjektibitatez egindako baieztapena dela adierazten baita.

da. Dagokigun kasuan, “askotan elkartasun horren alde eskatzen duela” adieraztera dator.

Jende anitza edo jende kopuru handia adierazteko, “mundu osoa” bezalako hiperbole fosilizatuak erabiltzen dira.

Mendi onixen oñian dauka  
 eleiza eder bat baketsu,  
 bere inguruak zeruko argiz  
 jantzirik daukaz loratsu;  
 gizaldietan emon izan dauz  
 ainbat eliztar jakintsu,  
 lurbira ziar zabaldu be bai  
 Kristoren egi mamitsu,  
**mundu guztiak gaur goratzen dau**  
**Euskalerriko Arantzazu.** (B040b)

Kuk. :  
 Udabarria eltzen daneko  
 kukuka nago basuan,  
 guztiak pozez artuten nabe  
 elduten nazen lekuan.  
 Neure arrautza ipinten yuat  
 txindorren jauregitxuan,  
**ni baño obeto bizi dan iñor**  
**ez dok egongo munduan.** (B118a)

Euskaldun orok gogoan artu  
 asabai dautsegun zorra:  
 eurari esker guk daukagula  
**geure izkuntza ederra,**  
**mundu guztiak txalotzen dauan**  
**aberats, garbi, bakarra.** (B130a)

## 2.3. Irudi logikoak

### 2.3.1. Sententzia

Balio sententziala duten esaldiak ugariak dira Balendin Enbeitaren bertsogintzan. Horren zergatiaz hausnartzerakoan, ezin dira ahaztu bere bertsogintzaren alderdi didaktikoak eta moralizanteak. Era berean, ez da baztertzekoa ahozko estiloak duen enfasia, hiperbolea eta baliabide mnemoteknikoetarako joera, batez ere azken puntuan biltzen delarik baliabide multzo hori<sup>395</sup>. Horiei laguntzera dator estilo sententzioso hau. Esaldiak

<sup>395</sup> Sententzia kutsuko izaera hau ahozko kulturen psikodinamikei dagokie. Ezaguna da bertsolaritzan azken puntuari garrantzia eta enfasi berezia emateko dagoen joera. Enfasi hori memoriaren sistemekin lotuta dago; izen ere, ahozko estiloan gorde eta mantentzen denak memoria izan behar du lagun. Walter G. Ong ikerlariak fenomeno hau aztertu du eta horrela azaltzen du: “¿Cómo se hace posible traer a la memoria aquello que se ha preparado tan cuidadosamente? La única respuesta es: pensar cosas memorables. [...] El pensamiento debe originarse según pautas equilibradas e intensamente rítmicas, [...] con marcos temáticos comunes, proverbios que todo el mundo escuche constantemente, de manera que

hartzailearen oroimenean gelditzen ez badira, ez dira baliagarriak ez eraginkorrak. Bertsolaritza jenero ez tradizionala izan arren<sup>396</sup>, bat-batean kantatutako bertsoek badute beren iraupena entzulearen oroimenean<sup>397</sup>, kasurik gehienetan oso laburra bada ere. Iraupen hori laburragoa edo luzeagoa izango da bertsoak entzulearen sentikortasunean eragindako zirkin edo efektuaren arabera. Iraupen horretan bertsolarien sententzia borobilek badute zerikusia, oroimenaren euskarri bihurtzen direlarik.

Hiru sententzia mota desberdintzen dira:

1. **Maxima**, sententzia edo apotema. Balendin Enbeitaren bertsoen artean ez dago maximaren izaera duenik. Erreferentzia kultuak edota egile ezagunen aipamenak nekez agertuko dira; izan ere, bere marko tematikoa (bertsolari askoren antzera) oso herrikoa da.

2. **Errefraua**, adagioa edo atsotitza. Atsotitzak jatorri herrikoa dauka eta bertan ikasbide, hausnarketa edo aholkuren bat hitz gutxitan eta oroitzeko zenbait euskarriekin adierazten da. Balendin Enbeitak ez ditu ugaritasun handiz erabiltzen honelako atsotitzak, baina argi dago zenbait bertsoan horren aldeko apustu argi eta garbia egiten duela.

Atsotitzak batzutan zuzenean, herriak esaten dituen bezala aipatzen ditu. Beste batzuetan, ostera, egileak horren moldaketa egingo du behar izan metrikoen arabera edota atsotitz berberaren aldakiak sortuz.

Txep.:

Kukua emen ikusten dogu  
munduko atxegiñetan,  
txindorra barriz gerokoaren  
zorion ames gozotan.  
Zorion biak bear gendukez  
orduak pozik benetan;  
baiña nok daki **eperdi bataz**

---

vengan a la mente con facilidad, y que ellos mismos sean modelados para la retención y la pronta repetición, o con otra forma mnemotécnica”, 1987, 41.

<sup>396</sup> Bertsolariak bere bat-bateko jardunean produzitzen duena ez da gordea izaten komunitatearen oroimenean, eta ez da izaten produkzio horren hedapenik, "bertso antologiko" dei ditzakegunak salbuespen modura kenduta. Bertso antologiko horiek, gordeak izateko dituzten balio eta ezaugarriengatik mantentzen dira herri oroimenean eta bertsolari ezagun batzuen bertsoak izaten dira gehienetan, bat-batean botatakoak, bere garaian efektu bereziak sorrarazi zituztenak. Adibide asko aipa daitezke. Esate baterako, Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" bertsolariak inprobisazioan aritzen zen gehienetan baina bere bertso asko, inprobisatuak, herriaren oroimenean gelditu dira. Adibidez, "Txirrita" eta "Pello Errota"-ren bi bertso hauek ahoz aho transmititu dira euskal komunitatean: "(Pellok) Ari naizela, ari naizela/ or ikusten det Txirrita/ eta zein ez da arrituko gaur/ gizon ori ikusita,/ dudarik gabe egiña dio/ andregayari bixita,/ oso dotore etorri zaigu/ bi alkandora jantzita". Eta Txirritaren erantzuna: "Auxe da lotsa eman didana/ gizon artera sartuta,/ edozer gauza esaten degu/ edan tantokin poztuta,/ bi alkandora ekarri ditut/ bat erantzita aztuta,/ Pellok bi nola jantziko ditu/ bat besterikan ezta ta", Zavalá, 1962, 105.

<sup>397</sup> Euskaldunen gizartea orokorrean oralagoa zen garaietan, ez zen arraroa izaten baserritarrek azokan edo jai egunetan goizean plazan entzundako bertsoak bota ahala buruz gordetzea eta egun berean ordu batzuk pasatuta baserrira ailegatzean etxekoei berriro ere buruz kantatzea. Argigarritzat esan dezagun Udarregi (1829-1895) bertsolariaren bat-bateko bertso asko eta asko herriaren memorian gorde izan direla eta Antonio Zavalak jaso eta 1966an argitaratu zituela *Udarregi Bertsolaria* izeneko liburuan. 38 orrialde eskaintzen dizkio herriaren ahotik jasotako bertso eta pasadizoak agertzeari.

**zillo bi ondo tapetan?** (B120a)

Arro aundiai arro apalak  
 ulie artuko dautso,  
 azeria lez lagun artera  
 agertuko iaku mantso;  
**izketan bildots otxana dogu**  
**baiña egikeraz otso,**  
 erruki gabe engañatzen dauz  
 gazte, agure ta atso. (B262c)

Itzak bakarrik indarge dira,  
 egipenak ziñaldari,  
 nor zelako dan bere egipenak  
 erakusten dute argi;  
**mingañez uso txuria eta**  
**egikeretan gau-txori,**  
 alperrik esan: **“Bildots ona naiz”,**  
**otso gaiztoa da ori.** (B084b)

**“Oiz’ko belea beti Oiz’era”**<sup>398</sup>  
 esakeriak diñon lez,  
 beste mendiak maite izango dauz,  
 baña Oiz langorikan ez. (B071e)

Esaera zar batek  
 onela dirausku:  
**Lepo bete palugaz,**  
**esku bete diru;**  
 nire ogibidea  
 beti da zesteru,  
 lan asko ta lo gutxi  
 guretzat seguru. (B123a)

Nai dogun salneurrian  
 otzarak saldute,  
 irabazten ei dogu  
 gura dogun beste;  
 alegiñak ein arren  
 diruak poztute,  
**urtien azkenian**  
**beti San Silbestre**<sup>399</sup>. (B123c)

Bigarren eta hirugarren bertsoetan “kanpoan uso etxea otso” atsotitza hartzen da oinarritzat zenbait puntuetan, eta era berean horren aldakiak agertzen dira, bertsoaren garapenari eduki semantikoa emanaz. Azken bi bertsoetan atsotitza aurkeztu edo bereizi egiten da gainontzeko kate diskurtsibotik “Esaera zar batek/ onela dirausku” eta “esakeriak diñon lez”

<sup>398</sup> Esaera hau Gotzon Garateren atsotitzen liburuan aurkitu ez dugun arren, pareko beste bat aurkitu dugu: 10872. “Orhiko xoria, Orhin laket” edo “Orhiko xoriak Orhin du laketzen” (1998, 349).

<sup>399</sup> Honen pareko atsotitzak jaso izan dira: 11826. “Lana zeñ eiñ, zeñ ez eiñ, urtien azkenien San Silbestre”. 11827. “Onegaittik urtien atzenien San Silbestre”. 11828. “Urtean azkenean San Silbestre”, Garate, 1998, 372.



perpausen bidez. Horrela, nabarmenago geratzen da egilearen borondatea atsotitz horiek erabiltzeko.

Hurrengo bertsoetan agertzen diren adagioak atsotitz ezagunak izatera ailegaten ez diren arren, beraietan mezu aholkatzaile bat transmititzen da, grafikoki eta trinkoki.

Udaran loraz apaintzen dira  
gure baso ta zelaiak,  
eta neguan edurrak dituz  
zuriz estaltzen guztiak.  
Edurrak negu eta guk uda,  
maite bakoitzak beriak,  
**nor nundik eta zelan ibilli**  
**erakusten du sasoiak.** (B113c)

Asabakandik oiñik-oiñera  
fedia beti da egon,  
kurutza deuna goiburu dala  
bere itzala da jabon.  
Batzuk nai dabe guzur egiztu,  
kurutz-zaleai or konpon!  
**Artzain txarragan artalde onik**  
**ezin legike itxaron**<sup>400</sup>. (B132a)

Gaztetxu zagoz aitan biotzan  
maitasuna ezautzeko,  
zenbateraiño maite zaitudan  
ez dozu errez jakingo.  
Esakun zar bat esango deutsut  
gogoan erabilteko:  
**eun sementzako dala aita bat,**  
**seme bat ez aitantzako**<sup>401</sup>. (B032b)

Azken bi adagioak kontrajarpenaz baliatzen dira mezua hobeto gogoratua izateko, hau izan daitekeelarik baliabide mnemotekniko bat.

3. **Epifonema** edo ikasbidea (moraleja). Balendin Enbeitaren bertsoetan sarritan agertuko da bertsoaren mezua laburbiltzen duen perpau sententzioso bat edo transmititu nahi denaren ondorioz egiten den aholku edo apostrofe bat. Epifonema bertsoaren azken aldera (azken puntuetan), azken puntuan gehienetan, kokatzeko joera du egileak, baina inoiz bertsoaren hasieran edo erdialdean ager daiteke.

Txiro ta ixilik da  
Belengo askatxoa,  
ta bertan jaio biar  
Jesus Jaungoikoa;

<sup>400</sup> Hona hemen antzerako batzuk: 1335. "Artzai onak, ardi onak"; 1338, "Artzai txarrak, ardi txarrak", *Ibidem*, 1998, 119.

<sup>401</sup> Aramaio (Araba) herrian kokaturik dagoen "Ipurtotz" baserrian jasoia izan da antzerako hau: "Aita bat ehun umentzat, ehun ume ez aita batentzat", Garate, 1998, 96.

**emon daiogun pozez  
ostatu beroa,**  
geure biotz barruko  
maitasun sutsua;  
**ordez emongo dausku  
betiko zerua.** (B030b)

Mendi gañeko bake-bizitzaz  
ondo ausnartzen badogu,  
beian ez dogun arako zerbait  
mendian izango dogu.  
Euskera zarrak mendian dauka  
lenengo bere jarleku,  
**mendi-zaleak izan gaitzean  
garbi nai bogu jokatu.** (B115a)

Etzaitetze aspertu  
nire bertsoakin,  
diralako egiñak  
maitasunarekin;  
eurak diñoena ondo  
ikasi ta egin,  
**Belen maite dagigun  
gogo, biotz ta adin,  
pozez bizi gaitzean  
Sendi Deunarekin.** (B031b)

Hauek bertso apelatiboak direla esan liteke eta apostrofean bertan azalduta dago bertsoaren mezu nagusia: entzule edo irakurleari eragin nahi dio jokaera jakin bat har dezan. Ondorengo bertsoak ere tonu apelatiboa dauka baina agertzen den epifonema fikziozko beste pertsonai bati zuzendurik dago, zozoari hain zuzen:

Edurra:  
Udan kantari pozez ziñian  
mendi baso zelaietan,  
edurrai barre eginik arro  
zebiltzan une aretan.  
Ta orain neure aldia da ta  
zetan zatoz ni tentetan?  
**Zeure lekuan konpondu zaitetz,  
ez sartu iñon praketan.** (B112b)

Jarraian aurkezten den bertsoa bi bertsolarien arteko bertsozko elkarriketa baten kokaturik dago:

Enbeitak:  
Neure sendiaz jolastutia  
beti iat atsegingarri,  
maitasunezko jolas orretan  
zoriontsua naz beti.  
Jolas ortatik buruko miñik  
iñoiz be ez iat etorri,

**ardau-gizonak ez dira izaten  
bake-bizitzen ongarri.** (B034b)

Ikusten denez, esaldi orokor eta generiko baten bidez, (testuinguruko erreferentziak egin gabe) mezua azken puntuan laburbiltzen da eta aurreko arrazoiketa osoaren iturburua eta zioa adierazten da. Azken perpaus hau ondorio bezala ere irakur eta interpreta daiteke.

Mendi gañetik ikusten dira  
aran, baso ta zelaiak,  
uri, baserri, lugintza eder,  
errekak eta ibaiak;  
zoragarrizko abestietan  
txiroliroka txoriak,  
**benetan dira atsegingarri  
Bizkaiko gure mendiak.** (B114b)

Goiko honetan ere azken puntua dugu mezu nagusia laburbiltzen duen esaldia. Esaldi enuntziatiboa da, aurreko bertsoko azkena bezala, eta kasu honetan baiezkoa, *izan* aditza aditz nagusia delarik.

Askok eta asko dira jar daitezkeen adibideak. Bukatzeko, bi bertso ekar ditzagun hona, non azken puntuetan aholku bat iradokitzen zaigun:

Mendi gañeko bake-bizitzaz  
ondo ausnartzen badogu,  
beian ez dogun arako zerbait  
mendian izango dogu.  
Euskera zarrak mendian dauka  
lenengo bere jarleku,  
**mendi-zaleak izan gaitzean  
garbi nai bogu jokatu.** (B115a)

Bertsolariak, ona izateko,  
baldintza onek bear ditu;  
buru argia, biotz zabala,  
nai badau ondo jarraitu;  
irugarrena ez tarri ona,  
neurriai ondo begitu;  
**bertsolaria ona izango da  
baldintza onek baditu.** (B116b)

### 2.3.2. Konparazioa

Metaforaren atarian dagoen konparazioaz baliatzen da Balendin Enbeita zenbaitetan. Bi modutara egiten du Balendin Enbeitak konparazioa:

- Konparazioa egiten duela adierazten duten partikulak erabiliz (*lez, antzera, dirudi*).
- Bi ekintza parekatu eta gero inplizituki biak konparatuz.

*Lez* partikularekin hona hemen bi konparazio:

[...] eguzkiaren argia bage  
ezek ez daun **lez** bizirik,  
alkar-maitasun barik be ez dau  
munduan iñoiz bakerik. (B038b)

Landaratzua juan oi dan **lez**  
apurka aundi izaten,  
neu be alantxe ogei urtera  
igarri bage eldu nintzen; [...] (B043c)

*Antzera* partikularekin, elementu nagusia natura edo bizitza arruntetik ateratako adibide batekin alderatzen da.

Udabarriko txorikumea  
egaz asten dan **antzera**,  
ames gozotan juaten nintzan  
lora billa baratzera; [...] (B258b)

Guardia zibil hau hemen hasi da  
fanfarroitzuben **antzera** [...] <sup>402</sup>

*Dirudi* adizkiak ere konparaburuetako batek beste konparaburuarekin antza duela edota ezaugarri berdintsuak dituztela adierazten du:

Aloiña mendi gaiñian nago  
begira egal danari:  
[...] mendi onixek egiz benetan  
zeru txiki bat **dirudi** (B039a)

Kantabriako egal danetan  
goratuenetaikoa  
beti izan da Arantzazuko  
Amaren eleizatxoa;  
toki alaitsu baketsua da,  
**dirudi** berak zerua, [...] (B040c)

[...] Bizkaiak mendiz apainduriko  
gatzelu zar bat **dirudi**. (B114a)

Beste zenbaitetan konparatzen diren bi elementuak bata bestearen atzean kokatzen dira eta euren jarduera konparatzen da inolako lokailu edo partikula konparatiborik erabili gabe:

Biotz onekoa da  
gure txepetxue,  
ain ondo artuteko  
etxian **kukue**;  
onek kenduten dautsa  
umien lekue,  
**atzeritarrak** ori

---

<sup>402</sup> Bat-batekoa, Euskadi Irratiak utzitako grabazio batetik. Ez zaigu zehazten noizkoa den baina teman Irineo Ajuria eta Jon Lopategirekin aritu ziren horko horretan. Lekua bai, ezagutzen da: Gernika.

maiz egindakue. (B126b)

### 2.3.3. Kontrajarpena edo antitesia

Kontrajarpena oso elementu erabilia da bertsoalaritzan, eta horretan Balendin Enbeita ez da salbuespen, izan ere egile honek ugaritasunez erabiltzen du errekurtsio hau. Baliabide honen erabilera modu desberdinetara egiten du:

1. Esaldi kontzesiboekin (azken puntuetan batez ere).
2. Hitzen arteko kontrajarpena edo antitesia bilatuz.
3. Sakoneko kontzeptuen kontrajarpena edo antitesia bilatuz.

1. Sarritan eta esaldi **kontzesiboen** bitartez ideia nagusi bati beste bat kontrajartzen zaio esanahia edo mezua ñabartzeko asmoarekin. Ñabardurak mezu nagusiaren indarra azpimarratzen du; izan ere, baieztapen nagusiak indarrean dirau ñabardurak adierazten duenari garaiturik.

Ariatzako jaiek  
 Santa Kurtzietan  
 Irailan amalauan  
 urte guztietan  
   naiz aberatsetan  
   bardin txiroetan  
**jan-edanen paltarik  
 ez da etxietan  
 naiz-ta eskas ibili  
 beste egunetan.** (B025a)

Jose Nazareteko,  
 Jerusalengo Miren,  
 ostatu billa dabiz  
 biak gaur Belenen.  
 "Ez dago ostaturik!"  
 dautsa erantzuten,  
 eta sartuten dira  
 estalpe zar baten,  
**txiro ta ezer gabe  
 Gabon izan arren.** (B030a)

[...] gaztetasunak bultz eraginda/ etxetik nintzan urruntzen,  
**au ta guzti be aita ta amak  
 bardin ninduen maitatzen.** (B043c)

Ikusten denez, azkenerako uzten ditu Balendin Enbeitak kontzesiboen bidez egiten dituen kontrajarpenak: azken puntuetan kokatzen dira nagusiki, hain zuzen ere bertsoaren indarra eta efektuzko kolpea ematen denean. Honek adierazten du Balendin Enbeitaren estiloan kontrajarpenak funtzio garrantzitsu eta baliotsu bat jokatzeko duela.

## 2. Hitzaren arteko kontrajarpena edo antitesia bilatuz.

Kontrajarpenean edo **antitesian dauden hitzak** ere aukeratzen dira aipatutako efektua lortzeko. Hitz antitetikoak izaten dira gehienetan, agian inkontzienteki aukeratzen diren arren, kontrajarpena areagotzen delako eta estilo agonistikoarekin hobeto bat egiten dutelako.

Hona hemen *asko* eta *gutxi*-ren arteko antitesi bat:

Esaera zar batek  
onela dirausku:  
Lepo bete palugaz,  
esku bete diru;  
nire ogibidea  
beti da zesteru,  
**lan asko ta lo gutxi**  
guretzat seguru. (B123a)

Bestelako antitesiak ere erabiltzen dira eta haietako asko puntu berean kokatzen. Erakusten dugun hurrengo bertsoaren azken puntuak *txarra* eta *ona* adjektibo antitetikoak biltzen ditu bere baitan, sintagma biek erakusten duten antitesia bateragarriezina dela adierazi nahian.

Asabakandik oiñik-oiñera  
fedia beti da egon,  
kurutza deuna goiburu dala  
bere itzala da jabon.  
Batzuk nai dabe guzur egiztu,  
kurutz-zaleai or konpon!  
**Artzain txarragan artalde onik**  
ezin legike itxaron. (B132a)

*Goi* eta *bee* adberbio edo izen bihurtutako adberbio antitetikoekin sarritan kontrajarpen jokoak egiten ditu Balendin Enbeitak.

Alkarraz maite bizi diranak  
badauke maitetasuna,  
bikoitz orretan ikusten dogu  
bakia ta zoriona;  
bizitza dongez galtzen badabe  
goikoan itxaropena,  
lortu ete dabe **goi eta beko**  
maitasunaren azkena? (B121c)

**Goiko ta beko** naspildu dira,  
oinpean dabil egia, [...] (B131c)

[...] Bake osoan jaube, emolle,  
Aita Goikoa dalako,  
**zeru goietan** izan ezian  
**beian** ez dogu lortuko. (B189b)

Gizona beti aundikerizko

nortasun-zalia dogu,  
norbera baño geiago dana  
beratu egin gura du.  
Gauan illunak **goiko ta beko**  
bardintsu artuten gaitu, [...] (B191b)

[...] **goiko ta beko, esker ta eskubi**  
dantzan jarten dauz diruak. (B241c)

Dirua dogu injustizia  
eta dirua justizi,  
**goiko ta beko** erreztasunez  
geiten gaituz erosi, [...] (B242a)

[...] Nire eritxian omenaldirik  
ez genduke eskatuko  
**Goiko ta beheko** jaio bagara  
herri baten onerako [...] (Bb171c)

Egun sentiko ames gozotan  
bakean **goia ta behea** [...] (Bb185a)

### 3. Sakoneko **kontzeptuen kontrajarpena** edo antitesia bilatuz.

Kontzeptuak ere kontrajartzen dira bertsoetan zehar, baina kasu honetan kontrajarpen hori ez da puntu baten edo bitan kontzentratzen beti (kontzesiboekin gertatzen den moduan). Kontrajarpen zabalagotzat har dezakegu hau, beraz. Kontzeptuak kontrajar daitezke bertso osoan zehar edo bi puntutan baino gehiagotan.

#### ***Bizirik-zerraldo***

Balendin Enbeitak bere aitari egindako hil bertso baten, esate baterako, inplizituki bere aitaren bi egoerak kontrajartzen ditu: bizirik zegoela eta hilda zegoelako egoera. Bizirik zegoelako egoera lehenengo hiru puntuetan ematen da aditzera eta bere heriotzaren kontrajarpena azken puntuarekin batera agertuko da:

Uri baserri, baso, zelaien  
zoragarrizko **abotsa**,  
amaika aldiz poztu ebana  
entzuliaren biotza.  
Erriak guren eban orduan  
bere lanaren laguntza,  
orra nun dagon **zerraldo** baten  
ill-otzik bere gorputza. (B099c)

#### ***Goi-bee***

Euskal produkzio literarioan eta ahozkoan oso erabilia den kontrajarpena da **goi** eta **behe**aren artekoa, bakoitza bizimodu, ohitura eta joera batzuen irudia delarik. Goiak eta mendiak ohitura onen gordeleku dira, hau da, euskal ohiturak, ohitura zuzenak eta gizalegezkoak, eta euskal hizkuntza jakina gordetzen dituen babeslekua. Behea, kanpoko eragin txarren topagunea da, eta balio onen hondamendia<sup>403</sup>. Hona hemen horren adibide pare bat:

**Be**-aldietan ez da ikusten  
len euki zendun bakia,  
**mendi goietan** ixillik dago  
artzaiñen txistu alaia;  
sukalde askotan ukatu dabe  
mar-mar gozozko otoia,  
txorakeritzat artzen dabela  
aurreko zarren fedia. (B131b)

**Mendi gañeko** bake-bizitzaz  
ondo ausnartzen badogu,  
**beian** ez dogun arako zerbait  
mendian izango dogu.  
Euskera zarrak **mendian** dauka  
lenengo bere jarleku,  
mendi-zaleak izan gaitezaz  
**garbi** nai bogu jokatu. (B115a)

Apostrofe tonuak argi eta garbi adierazten du, errez ondorioztatu daitekeenez, Balendin Enbeita mendizalea eta goizalea dela, horrek euskal kulturaren suposatzen dituen ondorioekin.

### ***Goi maitasuna-giza maitasuna***

Zenbait bertso sortetan bi ideien arteko kontrajarpenaz jokatzen du: bien arteko loturak eta aldeak bertsoaren osagai bihurtzen dira. Adibidez, “Maitasuaren azkena” izeneko bertso sortan “goi maitasuna” (Jainkoarekiko maitasuna) eta “behe maitasuna” (gizakien arteko maitasuna) alderatzen ditu, ez mutur antitetikoak bezala, baizik eta erlazonaturik eta batzutan kontrajarpenean dauden bi maitasun mota bezala.

Maitasunaren azkena zer dan  
azalduteko dirauste,  
agindu ori ez dakit ondo  
egingo dodanik bete.  
**Lurreko gure maitasuna** ta  
**goikoai** begiratute,  
uste bagian geratu leike  
maitasun **biak** galdute. (B121b)

<sup>403</sup> Felipe Arrese Beitiaren bertsoetan mendiak euskaltasunaren gotorlekuak dira: “Erri onetan gaur arte beti/ Mendi eta atx altuak,/ Izan zirean gure gaztelu/ Jagola guztiz senduak,/ Eurak buruak daukezalako/ Iya zeruan sartuak,/ Augaitik ziran kanpotarrentzat/ Jaritxi ezindakuak,/ Agaitik emen ez eben artu/ Orpotik kasta gaiztuak” (Urrutia, 1999, 190).



Alkarraz maite bizi diranak  
 badauke maitetasuna,  
 bikoitz orretan ikusten dogu  
 bakia ta zoriona;  
 bizitza dongez galtzen badabe  
**goikoan** itxaropena,  
 lortu ete dabe **goi eta beko**  
**maitasunaren azkena?** (B121c)

Neska-mutil bi jarriko ditut  
 gaur esate baterako:  
 egiz alkarraz maite badira  
 ez dirade bananduko;  
 alperrik jarri ibai, itxaso,  
 maite bion bitarteko,  
 bizi badira danen gañetik  
 zigur dira alkartuko.  
 Eta nik diñot: **Maitasun orrek**  
**bere indarra nun dauko?**  
**Goi-eskarrezko indarra da ta**  
 gizonak ez dau neurtuko (B063b)

### **Asmoa-errealitatea**

Asmoen eta errealitatearen arteko kontrajarpena ere agertu egiten da batzutan. Esate baterako, bertso baten saiatzan da bateragarri bihurtzen joera desberdin bi. Baina azkenean, eta asmo horri aurrejartzen, horren zailtasuna laburbiltzen da azken puntuarekin.

Txep.:  
 Kukua emen ikusten dogu  
 munduko atsegiñetan,  
 txindorra barriz gerokoaren  
**zorion ames** gozotan.  
 Zorion biak bear gendukez  
 orduan pozik benetan;  
**baiña nok daki eperdi batz**  
**zillo bi ondo tapetan?** (B120a)

Azken puntuak ematen du aditzera asmo desberdin bi bateraezinak baldin badira ez dagoela erdibide edo konponbide bat bilatzerik, asmo hori daukatenak bat baino gehiago diren arren. Errealitateak dakartzan zailtasunek eta oztopoek ia-ia ezinezko bihurtzen dute egitasmo hura. Paradoxa bat aurkezten zaigu beraz, egitasmo/ errealitatea oposizioan oinarrituta. Bertso honetan, zehazkiago esanez, "txepetxa" saiatzan da beste bi txorien joerak bateragarri bihurtzen baina ezin du. Joera horiek zerikusia daukate bi kezka hauekin:

- orain eta gaur ondo eta gustura bizitzeko kezka, atsegina eta berehalako plazer azalekoak lortuz, gerokoaren kezka izan gabe;
- etorkizuna gaurdanik lantzeko kezka, lan gogorak saihestu gabe, zorioneko etorkizun hura hobe eta oparagoa izan dadin.

Sakonean kezka berberak antzematen dira “Edurra eta zozoaren autua txepetxak erabagi” izenburuko bertso sortan. Bertso baten pertsonifikaturik agertzen den *Edurra* pertsonaiak leporatzen dio *zozoiari* gerokoaren kezkarik ez izana.

Edu.:

Gauza gatxa da **mesede** egiten  
 inori **kalte** egin barik,  
 nik edurragaz lurra izten dot  
 uragaz ondo aserik;  
 zuk barriz lurak dakarrena jan  
 lanikan egin bagarik,  
 nor garan jauntxu aundiagoa  
 ori jakin nai nuke nik. (B113a)

Kontutan hartzekoa da bertso honetan bertan agertzen den beste kontrajarren bat, lehenengo puntuan hain zuzen. Puntuak dioen bezala, mesede egitea inori kalte egin gabe zein zaila den adierazten da, gaztelerazko "nunca llueve a gusto de todos" edo euskarazko “Danen gustora beinere euririk ez”<sup>404</sup> esaera edo atsotitzaren haritik doala dirudiena.

### ***Itzak-egipenak***

Balendin Enbeita, orokorrean, idealista da eta horrek koherentea izatera bultzatzen du, edo behintzat koherentziaren aldeko aldarriak egiteko behin eta berriz. Jokaeran koherentziarik eza akatsik handienetakoa da bere pentsaeran eta hori islatu egiten da agerian uzten duen kontrajarren baten: *Itz* eta *egipenen* arteko kontrajarpenean, salaketa edo aholku larri modura formulaturik:

Jakin dagigun **itzak** bakarrik  
 aixiak daruazala,  
 eta **egipenak** gizona nor dan  
 ondo erakusten dabela; [...] (B058b)

**Itzak** bakarrik indarge dira,  
 egipenak ziñaldari,  
 nor zelako dan bere **egipenak**  
 erakusten dute argi; [...] (B084b)

Gure artian maitasun-**itzez**

---

<sup>404</sup> Garate, 1998, 203 (4800. atsotitza).

sarritan gara laztantzen,  
 maitasun orren ezaugarria  
**egipenak** dau agertzen;  
 txiruarentzat maitasun otza,  
 diruak gaituz berotzen,  
 urregorritzko maitasun-**itzak**  
**gorroto** daki bigurtzen. (B240c)

**Egipenakaz** erakusten da  
 argi ta garbi nor garan  
Euskara maite dogula eta  
asko gabiltza erdarán  
 Euskaragaitik nori ardura  
 bizi ezkeru aukeran?  
 Era hontako porru saldarik  
 gatx da egosten galdaran. (Bb188a)

Azken bertsoan azpimarratu dugun puntua salaketa argi eta garbia da. Izan ere, Balendinek bere bertsoetan argi utzi nahi du egipenak direla hitz polit eta asmo onen ziurtagiria edota zintzotasun agerpena.

#### 2.3.4. Paradoxa<sup>405</sup>

Kontrajarpen eta antitesietan geratzen da Balendin Enbeita kontzeptuak edo hitzak kontrajartzeko orduan. Paradoxa oso gutxi landuta antzematen den alderdi bat da, agian irudi horrek kontrajarpenaren jokoan aurrerapauso bat suposatzen duelako, egilea zenbait entzule edota irakurleengandik urrunduko lukeena. Berez, paradoxa baten, antitesi bat aurkezten da. Baina antitesi hori gaudituta balego bezala aurkezten da, hau da, itxuraz bateragarri ez diren bi kontzeptu parez pare jartzen dira eta bion arteko bateraezintasuna gauditzen da inplizituki edo esplizituki (azalpen baten bidez). Balendin Enbeitaren kasuan inplizituki eta testuinguruan oinarrituz kontrajarpen hori gauditzen da, azalpenik eman behar izan gabe.

Asabakandik oiñik-oiñera  
 fedia beti da egon,

<sup>405</sup> Kepa Enbeitaren atalean ikusi genuen paradoxa antitesiaren aldaera bat dela, Heinrich Lausberg-en arabera behintzat. Berak ez du paradoxaren definiziorik egiten. Egiten duena da pentsamendu irudi hau erretorika tradizionalaren barruan kokatzea: “La paradoja intelectual se presenta no sólo como materia, sino también como fenómeno de alienación, por tanto como una idea que ha de hallarse en la *inventio* o como figura de pensamiento y dicción. Los fenómenos paradójicos de la elaboración están resumidos en el *acutum dicendi genus*, entre los que podemos citar: ironía, énfasis, lítote, hipérbole, ciertas perífrasis, oxímoron, zeugma semánticamente complicado, quiasmo y fenómenos emparentados del *ordo artificialis*”, Lausberg, 1975, 31.

Beste egile batzuek, praktikotasunaren mesedetan, definizio zehatzagoak ematen dituzte. Esate baterako María Victoria Reyzábalek honela definitzen du: “Figura que consiste en relacionar y conciliar dos ideas supuestamente contradictorias. Es común en el lenguaje coloquial y en el literario, pues refuerza la carga expresiva del mensaje [...]”, Reyzábal, 1998, II. alea, 13.

Fernando Lázaro Carreter-ek bi definizio labur ematen ditu: “1.- Opinión, verdadera o no, contraria a la opinión general. 2. Unión de dos ideas en apariencia irreconciliables”, Lázaro Carreter, 1990, 331.

kurutz-a deuna goiburu dala  
 bere itzala da jabon.  
 Batzuk nai dabe **guzur egiztu**,  
 kurutz-zaleai or konpon! [...] (B132a)

Hemen aditza eta objektuaren arteko paradoxa aurkezten da. Baina testuingurua kontutan hartuta ulertzen da zer esan nahi den: gezurra egia balitz bezala aurkeztu nahi dela, eta gauza okerrak jendeari onarrarazi nahi dizkiotela.

Kristautasunak askotan paradoxekin plazaratzen ditu bere irakaskuntzak, ahozko estiloari oso ondo datorkion estilo batez. Itun Berrian bertan, Jesusen ahotik paradoxa asko bilduak izan dira<sup>406</sup>. Balendin Enbeitak tematika hori erabiltzen duenean baieztapen paradoxikoak erabiltzeko joera izango du. Baieztapen paradoxiko horiek kristautasunaren logikaren ikuspegitik bakarrik izango dira ulergarriak.

**Arantza artean irri-barreka**  
 or Ama Arantzazuko,  
 geure bizitza zelan eruan  
 munduan erakusteko;  
**arantzak emen maite dauzana**  
**gero da zorioneko,**  
 emon eiguzu indarra, Ama,  
**arantzak** eruateko,  
 or goian gero **lora** artian  
 Zeugaz bizi izateko. (B040a)

“Arantza artean” irribarreka egotea paradoxikoa dela izan daiteke; izan ere, arantzak mina eta nahigabearen sortzaileak izaten dira. Era berean, arantzak geroko zoriona lortzearen maitatzea, nahigabe eta minaren metaforak direnean, paradoxikoa da eta kristautasunaren azalpenak bakarrik gaindi dezake kontrajarren hori: eguneroko sakrifizio edo gurutzeari hartzeak ahalbideratzen du Jainkoa den Jesukristorekin identifikatzea, berarekin bat egitea. Identifikazio horretan kristauak jadesten du bere maitasunaren helburua eta beraz lorpenaren zoriona.

*Arantza* irudiarekin beste paradoxaren bat bilatzen du ere:

Baserritxuko sukalde samur,  
 apal, maitati, otzana,  
**arantza artian arantza barik,**  
**itxaropentsu barrena.**  
 Benetan baida zorioneko  
 zuga sinisten dabena,  
 zu zara gure Betikoaren  
 oin-arri tinko onena. (B096a)

<sup>406</sup> Hona hemen paradoxa bat: “Izan ere, bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia Niregatik eta berri onarengatik galtzen duenak, salbatu egingo du”, (Markos 8, 35), Euskal Herriko Elizbarrutietako Gotzainak, 1993, 130. Gurutzeari bera ere paradoxa bat da; izan ere, itxuraz gizon baten porrotarekin gizateriaren salbazioa etorriko da.

“Arantza artean arantza barik” egotea paradoxikoa da inondik ere. *Arantza* bizitzako nahigabeen metafora da. Alde horretatik arantza artean egotea mingarria da, nahigabeak pairatzea da. Baina, testuinguruak argitzen duenez, posiblea da “arantza artean” egotea, hau da, oinaze edo gabezien artean, eta era berean “arantza barik” egotea, barrena itxaropentsu izatea. Hau posiblea da barne bizitza pakez beterik izaten den neurrian, kezka materialik izaten ez den heinean, gabezi horiek jasateko gaitasuna eta gizalegetasuna izaten delako.

Baieztapen paradoxiko horren mamian sakontzen du Balendin Enbeitak ondorengo bertsoetan. Hona hemen aurreko paradoxa argiago azaltzen duten bertso pare bat:

Txirua dozu izakeria  
alan be urrezko bizitza;  
ez-eukiaren laguna zara,  
baña zoriz aberatsa;  
**arantza miñak euki arren be**  
**beti kantari biotza,**  
zeure samiñen asegarria  
Betikoari otoitza. (B096c)

Ezkondutia beti da ona  
biak diranian onak;  
izango dabez euren bizitzan  
**arantzak** eta bai penak,  
baina maite-min diran arantzak  
**loraz** apaintzen dau Jaunak,  
eta saritzat jasoten dabez  
umetxoaren laztanak.  
Olangoaren barri ez daki  
mutilzar gelditzen danak. (B174a)

### 2.3.5. Klimax eta mailaketa<sup>407</sup>

Balendin Enbeitaren bertsogintza mailaketaz baliatzen da ahapaldiaren tentsioa nabarmentzeko. Eta goranzko mailaketa horretan, noski, azken puntua izaten ohi da punturik gorena, gorengo tentsioa berenganatzen duena alegia. Joera hau bertsoaren konposizio lege bati lotuta dago, “atzekoz aurrera” izeneko legeari hain zuzen, zeinen bidez azken punturako uzten baita bertsoaren efektu, kolpe edo indar nagusia. Hala ere zenbait bertso eta sortetan mailaketa hori bereziki landuta dago eta era distiratsuan agertzen da.

<sup>407</sup> “En la época moderna, el término <<clímax, gradación>> es empleado en un sentido más amplio, a saber, no solamente el relativamente raro clímax <<que yuxtapone en cada caso nuevamente>>, sino además para toda situación de palabras aisladas o grupos de palabras cuando muestra claramente una gradación para la sinonimia creciente, para la *repetitio crebra sententiae* creciente, para la acumulación creciente. El clímax decreciente se llama <<anticlímax>>”, Lausberg, 1975, 128.

Lázaro Carreter akademikoak horrela definitzen du: “Enumeración en que se sigue un determinado orden de valores: intensidad significativa, expresividad, extensión, comprensión, etcétera. Puede ser ascendente o clímax [...], y descendente”. Carreter, 1990, 213.

Arestian aipatu bezala “gradación” esateko “mailaketa” hitza erabili nahi izan dugu.

### 2.3.5.1. Bertso-sortetan

Bertso-sorten kapituluan aztertu dugun arren, bertso-sortetan goranzko mailaketa nolakoa den erakustea dagokigu orain.

“Bake osorik ez” bertso-sorta hartzen badugu goranzko mailaketa hori aurkituko dugu. Gizakiaren barne bakeaz ari da sorta horretan eta esaldien tentsioa motela da hasieran, gauza orokorrak esaten dituelako: “Gauza aundia da gizonarentzat/ bakean bizi izatia [...]” (B188a). Gero irudietara igaroko da: “Itxas-untzia baketsu, arro,/ doia itxaso barian [...]” (B188b); “[...] Aize biguna, eguzki gozo,/ bakearen antz-ikurra [...]” (B188c). Ondoren Naturatik gizakiarengana igaroko da: “Gizona doia mendian gora/ bakea lortu gurarik [...]” (B189a). Azken bertsoan dago, ordea, benetako bakearen iturburua:

[...] Bake osoan jaube, emoile,  
Aita Goikoa dalako,  
zeru goietan izan ezian  
beian ez dogu lortuko. (B189b)

Aurreko sortan gai unibertsal eta abstraktu bat jorratu duen antzera (bakea), “Maitasunaren azkena” izenekoan beste bat jorratuko du: maitasuna. Joera du sorta sententzia harrigarri batekin amaitzeko, egia unibertsal bat formulatzen ari den handitasunez. Sortaren hasieran arrazoiketak ez du tentsio handiegirik:

Maitasunaren indarra zer dan  
bear dan lez azaltzeko,  
gizonak daukan argia ez da  
naikoa orretarako [...] (B121a)

Azken bertsoan, osterara, mezuaren gunea agertuko da, aldarrikapen bat diruditen sententziez josita:

Maitasunaren azkena zer dan?  
Nai ta nai ez da mingotza.  
Maitasun barik ezin jaritxi  
goi eskarrezko laguntza.  
Maitasunetik iatorku geure  
betiko zorun bizitzan.  
Maitasunaren azkena zer dan?  
Ilda dagoan biotza. (B122a)

Tranzendentzia girotik atera gabe baina oraingo honetan pertsona bati zuzendurik, “Sortzez garbiko Amari” sorta daukagu. Dogmaren egia hau azaltzen edota iruzkintzen saiatzen da sortan barrena. Azken bertsoan, osterara, bere ahozko lorerik sutsuenak ahoskatuko ditu, Ama Birjinarekin identifikazioa agertuz:

Edurra baizen zuria zara,

eguzki baizen argia,  
garbitasunen iturburua,  
lora guztien loria.  
Ama ederrik Jaunak ein badau,  
Zu zara, Andra Maria,  
Jaungoikoaren alatz gurena  
zure Sorrera Garbia. (B197b)

Pertsonifikatu duen baserriari eskainiko dio “Baserri uts gaxoari” izenburudun sorta. Hasieran azaltzen du zein izan den bertso hori eskaintzeko arrazoiak: “Baserritxua, itun naukazu/ zu orrela ikusirik:/ bakardadean itxi zaitue,/ or zagoz sasiz jantzirik [...]” (B212a). Hala ere egileak baserriarekin zenbateraino identifikatzen den azaltzeko azken bertsoa erabiliko du, bere bizitzaren hasiera eta bukaera baserriarekin lotuaz:

Baserri baten jaio nintzan ni  
Lore-illaren ogeian,  
Uzparitxako auzonetxuan,  
bertsolarien kabian.  
Baserri baten gaur be bizi naiz  
poz-atsegiñen artian,  
azken arnasa ere nai nuke  
emon nere baserrian. (B213a)

### **2.3.5.2. Ahapaldi barruan**

Zenbait bertso, afektibitateari gagozkiola, goranzko mailaketa dutela antzematen da erraz. Ondorengoan, Balendin Enbeitak fikziozko aita eta bere semearen arteko elkarrizketa bat sortzen du, bertsoen bidez. Semeak bere aitarekiko duen identifikazio afektiboa adierazten da bertan, eta goranzko mailaketa dagoela ikusten da.

Semiak:  
Emen daukazu semia, aita,  
zorun-agurra ematen,  
jakin dagizun nire biotzak  
egiz zaitula maitatzen.  
Zenbateraiño maite zaitudan  
ez da erreza azaltzen,  
semiak aiña maite banozu  
ez dot geiago eskatzen. (B032a)

Hiru perpaus nagusi ditu bertso honek. Lehenengoan semeak bere agur adeitsuaren berri ematen du eta menpeko perpaus baten bidez maitasunezko helburua adierazi egiten da. Bigarren perpausan maitasun horren adieraezintasuna azpimarratzen da, bere handitasuna nabarmentzeko modu bat legez. Azken perpausan semeak bere maitasunarekin neurtu nahi du aitarengandik espero duen erantzuna, berearen heinekoa izanez konformatzen delarik, hain handitzat jotzen baitu. Beraz, agur afektibo batetik, neurri handiko maitasun bat agertzera eta aipatzera igaro da Balendin Enbeita,

pertsonaia honen bidez. Goranzko mailaketa agerikoa da, eta azken puntuak bildu eta **baretu** egiten du tentsio hori, indar handiko perpaus batekin.

Gau illunari bultz eraginda  
bazatoz, argi gozoa,  
egunsentiko zure dizdiraz  
argitzen neure txokoa;  
mendi ta zelai, uri, baserri,  
errekak eta itxasoa,  
argi gozotan jarten dozula  
pozez gizadi osoa. (B037a)

Prosopopeiaren bidez egilea eguzkiari eta bere argiari zuzentzen zaie. Bertso hasierako lehenengo puntuan eguzkiaren etorrera agertu egiten da eta bigarren zein hirugarrenean eguzkiaren argiak hainbat lekutan egiten duen onura aldarrikatzen da. Onura hori laugarren puntuan nabarmentzen da gehien, goranzko mailaketa dagoela baieztatu daitekeelarik.

Aloiña mendi gaiñian nago  
begira egal danari:  
artaldetxuak agiri dira  
bedar gozoan urduri,  
txoriak ere bake ederrian  
guztiak dabiz kantari,  
Arantzazuko Ama dabela  
guzti-guztien zaindari,  
mendi onixek egiz benetan  
zeru txiki bat dirudi. (B039a)

Azken bertso honek deskripzio bat eskaintzen du eduki garrantzitsutzat. Deskripzio horretan agertzen diren elementuei bagagozkio, ikusten da elementuen entitatea mailaz igotzen dela. Atalaia bihurtutako menditik:

- *Hegalak* dira ikusten dituen lehenengo elementuak.
- *Artaldetxuak* bazkatzen ondoren.
- Txoriak kantari geroago. Elementu bizigabeetatik bizidunetara igaro da. *Artaldea* izenak elementu bizidunez osatutako talde bat adierazten du berez. Elementu honek poetikoki bukolikotasuna ematen dio bertsoari. Baina hurrengo elementuek, txoriek hain zuzen, kutsu etereoak gehitzen diote bertsoari, espiritualitatera bidean aurrerapauso bat suposatzen dutelarik.
- Hurrengo pausoa Ama Birjinaren aipamena dugu.
- Azkenik, poezko deiadarra dugu, ikusten duen paisaia “zeru txiki” batekin konparatzen duenean. Barne munduaren kanporatzea gradualki egiten da, eta horren intentsitatea azken deiadarrak biltzen du.

Izaera berekoak dira bertso sorta bereko hurrengo bi hauek, azken puntuko sententziak oso solemneak direlarik:



Mendi gaiñik-gain miruak egan,  
 kukuak kuku basoan,  
 eztigai billa ara ta ona  
 erliak lora gozoan;  
 pagodeietan usuak urru,  
 eperrak landa soloan,  
 artzainak txistu, ardiak beka,  
 danak dauz kanta-soiñuan,  
 mendi onetan aurkitutzen naz  
 zorioneko lekuan. (B040a)

Kantabriako egal danetan  
 goratuenetaikoa  
 beti izan da Arantzazuko  
 Amaren eleizatxoa;  
 toki alaitsu baketsua da,  
 dirudi berak zerua,  
 gure erriai ainbat besede  
 bidalduriko txokoa,  
 Euskalerrriak maite dau beraz  
 Ama Arantzazukoa (B040c)

Lehenengoan deskripzioak ahalbideratzen du mailaketa hori, eta azken puntuak, ondorio bezala formulaturik, laburbiltzen du egileak aurreko elementuak deskribatzean sortuz joan den pozezko zirrara eta emozioa. Hurrengoan ere azken puntuak, hiperbaton baten bidez, sinpatia honen adierazpenik gorena eskaintzen da.

Ondorengo bertsoan Balendin Enbeitak bere azalpenak ematen ditu “bertsolariak ateratzeko” zer egin behar den agertuz. Azalpen horietan orden eta mailaketa bati jarraikitzen zaiola dirudi:

Bertsolariak atarateko  
 zein dan biderik onena?  
 Lenengo euki biar dabena  
 berezko etorkizuna;  
 gero ikasi, sarri abestu,  
 ez galdu zaletasuna;  
 bertsolaria izan leiteke  
 ori egiten dabena. (B116a)

Azken bertso hau entzun edo irakurrita urrats batzuk ematen direla berehala antzematen da. Azkeneko puntuan eta sententzia legez laburtzen da mezua *ori* anaforiko batekin, alegia, aurretik aipatu diren urratsei erreferentzia eginez.

Kuk.:  
 Eguneroko egi biguna  
 beti iaukoat gaur arte,  
 toki danetan aurkitzen iuat  
 jana t’edana nai beste;  
 geidia zelan bizi ete dan

enok arduratzen bat be;  
norbera ondo egon ezkerro  
oba da bizi aparte. (B119b)

Kukua eta zozoaren arteko bertsozko elkarrizketan pertsonifikatutako kukua bere buruaz mintzo da eta zinismo handia isuriz berekoikeria handia erakusten du. Zinismo erakustaldi hori “in crescendo” doala antzematen da eta azken bi puntuetan horren adierazpide gorenera iristen da: “geidia zelan bizi ete dan/ enok arduratzen bat be;/ norbera ondo egon ezkerro/ oba da”.

## 2.4. Zeharkakoak

Zeharkako irudiek modu zeharkakoan adierazten dituzte pentsamenduak eta egilearen asmoak jakinarazten dituzte.

### 2.4.1. Ironia

Balendin Enbeitak ez du ironia ia-ia inoiz ere erabiltzen. Bertsolaritza oso dialektikoa izan arren, eta ondorioz argumentatzeko zein eztabaidarako joera duen arren, Balendin Enbeitarengan behintzat ez da izango ironiazalea. Nahiago du arrazoiketak egin, pisuzko arrazoiak eta balio positiboak erabiliz, kontrarioaren iseka edo arbuiapena bilatu gabe. Balio positiboen aldarrikapena eta balio negatiboen salaketa zuzena baliagarriagoak dira Balendin Enbeitarengan, ironia bezalako zeharkako prozedura baino. Zaila suertatu zaigu ironia adibideak aurkitzea, eta aurkitu ditugun adibide bakanak ironia berezi eta leunekoak dira. Ironia kasu apur horiek umore mota fin batekin zerikusia dute:

Bezperan batzen gara  
eliza aurrera  
emetik juateko  
Bixenten “labara”  
guztiok batera  
ardaua edatera  
zuri eta baltzari  
apuroa eitera  
**ez dau inok esaten**  
**“nik etxuat gura!”**. (B026c)

Bertso honen azken puntuak ukazio bat biltzen du bere baitan: “ez dau inok esaten / 'nik etxuat gura!'”. Ukatzen duena, objektu zuzena, menpeko perpausa da, aipamen literal bat, estilo zuzenean eta era berean beste ukazio bat. Bi ukazio beraz. Egileak, era horretan, ez du esaten haiek esan zutena. Hori ironia umoretsu hau irakurrita edo entzunda antzematen da. Egileak bi ukazio hauen bidez inplizituki mezu hau ematen du: hango jendeak, gozamen eta poz handiz, ardoari ekiten zion eta behin eta berriz ardoa eskatzen zuen eta ardoz betetzen zuen edalontzia.

Noizbehinka Balendin Enbeitak esaldi ironikoak erabili beharrean hitz ironikoak<sup>408</sup> erabiltzen ditu:

Goizian izarrakaz  
lanari oratu,  
gaubian beranduan  
ondiño jarraitu,  
neguan sarri busti  
ta udan berotu ...  
**Aberastasun** orrek  
zesteruak ditu. (B124a)

Ironikoki *aberastasun* hitza erabiltzen du Balendin Enbeitak jakinik bertso honen hartzaileak ulertuko duela benetan esan nahi duena kontrakoa dela eta ironikoki bere kexa adierazten ari dela.

### 2.4.2. Zeharkako aipamena edo alusioa

Bertsolaritza bezalako ahozko genero bat alusioz beteriko generoa izango da, egoera normaletan. Bertsoak idazten direnean ere sarritan gordeko du ezaugarri hau. Balendin Enbeitaren bertsogintzak behintzat ezaugarri hau gordetzen duela esan daiteke argi eta garbi. Izan ere, bat-bateko komunikazioa testuinguruan eta herri jakintzan<sup>409</sup> oinarritzen da behin baino gehiagotan. Ondorioz, hiztun komunitateak duen ezagutza orokor horri (inplizituki zein esplizituki) alusioa egitea usua izaten da. Adibidetzat "Zesterua" izenburua duen bertso sorta har dezakegu. Balendin Enbeitak otzaragintza zuen ogibideetako bat. Bertso sorta honetan langintza horren gorabeherak hartzen ditu mintzagai.

Esaera zar batek  
onela dirausku:  
**Lepo bete palugaz,**  
**esku bete diru;**  
nire ogibidea  
beti da zesteru,  
lan asko ta lo gutxi  
guretzat seguru. (B123a)

<sup>408</sup> "La ironía como tropo de dicción es la utilización de vocabulario parcial de la parte contraria con el firme convencimiento de que el público conoce la inverosimilitud de este vocabulario, por lo que entonces se asegura tanto más la verosimilitud de la parte propia, hasta tal punto que las palabras irónicas en el éxito final se han de entender en un sentido que está contrapuesto a su sentido propio.", Lausberg, 1975, 118.

<sup>409</sup> Hau dela eta Alexis Díaz-Pimienta ikerlari eta inprobisadoreak hau adierazten du: "Otra de las características más importante -y desconocida- de la improvisación es su contextualidad [...] La contextualidad es un aspecto inherente a toda poesía oral, no sólo la improvisada . [...] También la poesía improvisada se halla indisolublemente ligada a determinadas circunstancias, a determinado contexto, fuera del cual pierde un alto grado de validez y de sentido.", Díaz-Pimienta, 1998, 184.

Jadanik lehenengo bertsoan esaera zahar baten aipamena egiten zaigu. Berez, esaera zaharra baino Bizkaiko koplak zahar baten moldaketa dela esan dezakegu<sup>410</sup>. Hala ere, ez dago oso garbi esaera zaharra eta koplak zaharren arteko muga, Mendebaldean behintzat; izan ere, zenbait koplak zahar esaera zaharrak legez erabiltzen da. Muga hau ez da garbia batez ere bertsolaritzan, esaera zaharrak tartekatzen direlako. Balendin Enbeitarengan joera hau nabarmentzen da askotan baina Euskal Herriko bertsogintzan ere bai<sup>411</sup>. Esaera zaharrak garrantzizkoak dira ahozko kulturetan eta esaldi grafiko horren azpian gehienetan irakaspen moral bat edo mezu kontzeptual bat ezkututzen da. Beraz, mezu horri egiten dio erreferentzia. Aipatutako bigarren puntu hori ez dugu aurkitu Gotzon Garateren *Atsotitzak* liburuan, non 14.458 euskal atsotitz biltzen diren. Baina koplak zahar moduan bai, arestian adierazi bezala.

**Zesteruak ei dira  
ia aberastu,**

nik ez dot diru asko  
egin aurreratu;  
lepoa makurtu ta  
belaunak okertu,  
par egin ezketiño  
egiten naz poztu. (B123b)

Balendin Enbeitak bere ogibidearen duintasuna defendatu nahi du bertso hauen bitartez. Langintza honen kontra dauden zurrumurruak eta salaketak deuseztatu nahi ditu. Horregatik bigarren bertso honetako lehenengo puntuan besteen zurrumuru horiek hasten da aipatzen eta duten objetibotasuna zalantzan jartzen da *ei* partikula modalarekin. Zurrumurruetako bat<sup>412</sup> otzaragileek dirua erraz lortzen dutela omen da: lan ez oso gogorra eginda

<sup>410</sup> Badago koplak bat, Deunoro Sardui bertsolariak tesi honetarako egindako elkarrizketa baten jakinarazi diguna eta Areatza auzoan ezaguna dena: "Errementeria baño/ oba da zesteru,/ lepo bete palugaz/ esku bete diru". Badaude bestelako aldakiak ere bai. Esate baterako, Ereño herrian, eta Gernikaldetik atera gabe, Abel Muniategi akademikoak hau bildu zuen: "Errementari baño/ oba da zesteru,/ lepo bete palogaz/ kolko bete diru", Muniategi, 1995, 10. Juan Manuel Etxebarria doktore eta ikerlariak bere herrian, Zeberion (Arratia ibarrean), beste aldaki hau aurkitu du: "Errementari baño/ oba da zesteru:/ lepo bete egur artuta/ kolko bete diru", Etxebarria, J.M., 1999, 21. Balendin Enbeitak tradizio horren barruko koplak hau ezagutzen du eta bertso sorta honetako lehenengo alean antzeman daitekeenez bigarren puntua koplak zahararen moldaketa bat da: "Lepo bete palugaz, esku bete diru". Topikoa hartu eta erakusten du, baina topikoari ñabardurak ezarri nahi dizkio edo baliteke ere topikoa eztabaidatu eta deuseztatzeko asmoa izatea.

<sup>411</sup> Hona hemen zer dioten Gotzon Garatek honetaz: "Bertsolaritza eta atsotizgintza zenbait alorretan ildo beretik doaz. Bertsolariek maiztxo erabiltzen dituzte erran zuhurrak zuzen edo zeharka.

Euskararen jabe direnez gero, atsotizzetan dagoen ziriak, piperrak eta jakituriaz ongi ohartuak dira. Sarri atsotizzetan eztenkada ederrak gordeak daude. Bertsolariaren ahotan lehegailu biur litezke". Ondoren eta esandakoa irudiztatzeko, zenbait adibide jartzen ditu. Hau da adibideotako bat: "<<Kopradiyan daonak kandelak jasoko du>> edo <<Kofradikoa ez danak ez dezala kandelarik jaso>> atsotitzak hauxe esan nahi du: besteak ez ohartu arren, erruduna beragatik gaizki esaka ari direla ohartuko dela.

Honatx Txirritaren bertsoa: "<<Norbaitek esango dik/ neroni akaso/ kantak jartzia gaizki/ egin dezu oso./ Gona motz, ille kate/ petxu eta beso/ neskata gaztientzat/ orrenbeste bertso/ kofradian eztanak/ ez kandelarik jaso>>", Garate, 1998, 55.

<sup>412</sup> Zurrumuru hau igartzeko beharrezkoa da pixka bat ezagutzea egilearen orduko egoera sozioekonomikoa eta orduko herrikoen iritziak.

(*lurginen* lanarekin alderatuz), eta produktuak nahi duten salneurritan jarrita. Hau berau da hirugarren bertsoaren gaietako bat.

Nai dogun salneurrian  
otzarak saldute,  
irabazten ei dogu  
gura dogun beste;  
alegiñak ein arren  
diruak poztute,  
**urtien azkenian**  
**beti San Silbestre.** (B123c)

Berriro ere, eta alde z aurretik iragarri gabe -lehenengo bertsoan ez bezala-, hirugarren bertso honetan esaera zahar bat eskaintzen zaigu<sup>413</sup> eta honek kontuak edota balantze ekonomikoa egitea, eta beste kudeaketa bati ekitea gogorarazten digu<sup>414</sup>. Hemen ere auzokide edota herrikideen esaera bati egiten dio alusioa, transmititu nahi duen mezua atsotitz horretan bilduz, eta beraz entzule zein irakurlearekin konplizitatea bilatuz.

Goizian izarrakaz  
lanari oratu,  
gaubian beranduan  
ondiño jarraitu,  
neguan sarri busti  
ta udan berotu ...  
Aberastasun orrek  
zesteruak ditu. (B124a)

Zestoak egiteko  
falta josgarria,  
aurrez ordaindu bear  
nai bada barria;  
baso-dunak eskuan  
gura dau **txindia**,  
ordaindu ezin bada  
istillu gorria. (B124b)

Laugarren eta bosgarren bertsoetan otzaragintzaren zailtasunak eta nekeak deskribatzen dira. Agertzen diren elisio ugariak ez dute esanahia lausotzen, zeren eta testuingurua ezaguna da bertso hauen hartzailearentzat. Hizkeraren ekonomia honek hartzailearekiko konplizitate hori sortzen laguntzen du. Alde horretatik esan daiteke egileak alusioa egiten diola hartzaileak eskulangintzei buruz duen ezagutza orokorrari.

<sup>413</sup> Esaera zahar hau aztertu dugu dagoeneko esaera zaharren azpiatalean eta bertan azaltzen genuen bere esanahia.

<sup>414</sup> Deunoro Sardui Muxikako bertsolariari egindako elkarrizketa baten esaera zahar honen azalpen bat eman digu. Bere ustez, esaera hau diruaren ardura ahaztarazteko erabiltzen omen zen: norbaitek gastu bereziren bat egiten bazuen eta kezkatzen hasten bazen, esaera hau esaten zitzaion eta horrekin batera kezka hori ahazteko animatu. Izan ere, urtearen azken egunean balantze ekonomikoa egiten zen eta balantzea positiboa izan zitekeen, nahiz eta urtean zehar aurreikusita ez zegoen gastu extraren bat egin. Saldo edo balantze negatiboa izanez gero, urte berriko kudeaketa berrian gauzak hobeto joan zitezkeelako itxaropena gelditzen zen beti ere.

Lan egitia danok  
 bearreko dogu,  
 geure bizigarritzat  
 ogia nai bogu;  
 baña egi aundi au  
 sekula ez aitzu:  
**lanaz bakarrik iñor**  
**ez dala aberastu.** (B124c)

Azken puntuan esaldi sententzioso bat dugu. Bertan metonimia bat agertzen da *lanaz* sintagma modala adieraztean. Sintagma horrek aditzera eman nahi duena hau da: eguneroko lan arruntaz irabazitakoarekin inor ez da aberasten. Pertsona bat aberastuko da baldin eta nolabaiteko "negozio" berezia baldin badu, edo modu susmagarri eta amoralen bidez etekin onak lortzen baditu. *Iñor* esatean hiperbolearen muga jartzen du sententzia hau Balendin Enbeitak baina estilistikoki ondo uztartzen da ahozko izaerarekin:

- Azken puntuak beti behar duelako indar berezi bat.
- Ahozko estiloa sententzia tinko eta ahoberokoen aldekoa da, hartzailearen arreta erakartzeko eta esandakoa memorian errazago gordea izan dadin.

### 2.4.3. Eufemismoa<sup>415</sup>

Eufemismoa beste kulturetan eta ahozko generoetan aztertua izan da. María Teresa Cáceres irakasleak, esate baterako, errekurtsu hau aztertzen du Kanarietako hamarrekotetan<sup>416</sup> eta hiru motatako eufemismo sailkatzen ditu: erlijioso izaerakoak, sexualak eta sozialak. Alexis Díaz-Pimienta ikertzaileak beste bat antzematen du: poetikoa edo estetikoa.

Bertsolaritzaz ari garelarik eta, zehazkiago esanik, Balendin Enbeitaren bertsogintzaz ari garelarik, hirugarren motako eufemismoa nabarmentzekoa da: izaera sozialduna. Alexis Díaz-Pimientak deskribatzen duenari<sup>417</sup> bertsolaritzan agertzen denak ñabardura bat ematen dio: salaketa sozialak egiteko era eufemistikoa. Gogoratu behar da, Balendin Enbeitaren bertsogintza Francisco Francoren diktaduraren garaian egon zela indarrean. Garai horretan bazen beldur bat agintariak zuzenki kritikatzeko, horrek ondorio gogorrak izan

<sup>415</sup> "Término de origen griego (*euphemismo*: buen decir) con el que se designa una figura retórica que consiste en la sustitución de una palabra o expresión que se considera hiriente, inoportuna o "peligrosa", por otra que atenúe su significado molesto. Existen ciertas palabras tabú, relativas a los excrementos humanos, al sexo, a la muerte, a determinadas condiciones de vida no deseada, a situaciones de marginación social, política, etc., que obligan a los hablantes a sustituirlas por expresiones y perífrasis eufemísticas que suavicen y hagan menos estridente el contenido implícito en las mismas", Estébanez Calderón, 1996, 391.

<sup>416</sup> María Teresa Cáceres-ek justifikatzen du joera hau arrazoi honekin: "El uso de este recurso es muy lógico, ya que la aceptación de las décimas por el público parece condicionar el estilo y la lengua empleada por el decimista", Cáceres, 1994, 187-199.

<sup>417</sup> "[...] el 'respeto' social hacia la edad, o la intención de suavizar conductas como el robo, el vicio de beber u otros vicios.", Díaz-Pimienta, 1998, 332.

zitzakeelako. Beraz, salaketak alegien bidez eta esanahi estalia zuten izen batzuen bidez egiten ziren.

Biotz onekoa da  
gure txepetxue,  
ain ondo artuteko  
etxian kukue;  
onek kenduten dautsa  
umien lekue,  
atzerritarrak ori  
maiz egindakue. (B126b)

Salaketa eufemistikoa dela esan liteke azken bertso hau<sup>418</sup>. Bertso honetan esaten zaigu txepetxa euskaldunaren irudia dela eta kukua kanpoko indarren irudia. Balendin Enbeitaren egoera, ideologia eta testuingurua pixka bat ezagutuz gero, berehala konturatu gaitzke gauza jakin batzuk salatzen ari dela: euskaldunei subiranotasuna kentzea, nortasun kulturala lantzeko eskubidea galaraztea, Estatuak egiten duen jarduera ekonomikoaren kontrola eta abar.

Ikusten doguz gure etsaiak  
gorrotoz zelan dabizan  
eta gu hemen geure lurrean  
menpean zelan gabizan  
atzerritarrak agintzen dabe  
kaletan eta eleizan

guzurra libre izten dauskube  
egirik ezin leike esan.<sup>419</sup>

Hari beretik doa azken bertso honetan antzematen den salaketa, nahiz eta aurrekoa baino nabarmenagoa den. Gaur egun, ezker abertzaletasunak berea egin duen terminologia erabiltzen du hemen Balendin Enbeitak. Salaketa zuzenagoa da baina hala ere ez dira zehazten salaketaren arrazoiak edota pertsonak. *Etsaiak* hitza erabiltzen da, “gu” baten kontrajarpenean dagoena. “Gu” horien zapalkuntza egoera aipatzen da. Hirugarren puntuan *atzerritarrak* azaltzen dira: kanpoko eta Estatu espainiarraren indarrak aditzera eman nahi duela dirudi, eta zehatzago adierazita agian, agintariak. Azken puntuak (“guzurra libre izten dauskube/ egirik ezin leike esan”) adierazpen askatasunik eza salatzen duela dirudi: iritziak eta kritikak argitaratzeko galerazpena sumatzen da, eta zigorraren beldurra ere bai. Diktaturako sistema politikoaren

<sup>418</sup> Irudi berberak erabiltzen zituen bere aita Kepak: "Txoriak nun-nai abesten dabez / Sekulako abestijak./ Madriden barriz, danen gelgarri/ Gaztelar txori nausijak/ Abestu dausku eskubiderik/ Eztaula **kuku** nagijak/ Berak nai daun lez erabilteko/ Bestien txindor abijak" (K0571).

<sup>419</sup> Zinta batetik transkribatutako bertsoak dira. Euskal preso batzuei egin zitzairen bisitaldi baterako paratutako bertsoetatik bat da. Presondegia Larrinagakoa da eta data jakin ez badakigun arren, 80ko hamarkadan izan zela suposatzea da.

ondorioak salatu nahi dituela ematen du, aipatu ditudan adierazpide eufemistiko batzuen bidez.

Baina prozedura eufemistikoak ez dira erabiltzen egoera politiko eta sozialak salatzeo bakarrik. Egoera moralak salatzeo ere erabiltzen du Balendin Enbeitak. Horren adibide bat "Joanes artzaiñaren siñismena" bertso sorta dugu. Han egoera soziala ez ezik egoera morala ere salatzen da, zenbait abade salaketa horretatik libratzen ez direlarik.

Goiko ta beko naspildu dira,  
oinpean dabil egia,  
au ikustean kistar erriak  
galdu dau bere lotsia. [...] (B131c)

[...] Batzuk nai dabe guzur egiztu,  
kurutz-zaleai or konpon!  
Artzain txarragan artalde onik  
ezin legike itxaron. (B132a)

Ai, Urbiako Joanes artzaiña,  
[...] Artzain lagunak itxi zaituez,  
nok dauka orren errua? [...] (B132c)

[...] Egia beti autortu daigun  
etsaien bildur bagarik,  
guzurrarekin ez dagolako  
maltzurkeria besterik. (B133a)

Metaforen bidez egindako kexuak eta salaketak dira hemen ere aurkitzen direnak. "Artzain txarragan artalde onik/ ezin legike itxaron" esaten duenean, apaiz txarrak agerian utzi nahi dituela sumatzen da. Zehatzago izanik agian, gezurra salatzen ez duten sasi-artzainak nabarmen utzi eta erruduntzat hartzen ditu. Benetako artzainen eredu Joanes artzaina izango da, Txomin Agirreren *Garoa* eleberriko pertsonaia nagusia hain zuzen. Baina *artzaiña* hitzarekin apaizak eta herriko gidariak ordezkatu nahi ditu eta seigarren bertsoan artzain horiek Joanes artzaina bakarrik utzi dutela salatzen du, hau da, hark proposatzen duen "bide zuzena"<sup>420</sup> ez dutela jarraitzen eta *artaldean* (kristau herrian) irizpide nahasketa erein dutela.

Sorta honen azken bertsoan *etsaien* beldurrik gabe egia aldarrikatzeko deia egiten du egileak. *Etsaiak* nortzuk diren zehaztasunik ezak prozedura eufemistikoa nabarmenarazi egiten du, hemen ere.

---

<sup>420</sup> "Bide zuzena" irudi eufemistikoa formula bihurturik agertzen da beste bertsoetan. Irudi hau erabiltzen denean jokaera morala eman nahi da aditzera, kontzientzia zuzen eta onari jarraitzen dion jokamoldea hain zuzen. Bertso askotan agertzen da formula hau eta adierazitako esanahiarekin gehienetan: "[...] besten gauzetan ardura artzia/ au ez da bide zuzena [...]" (083b); "Falta dabena bila ibiltia/ ori da bide zuzena [...]", (B106c); "[...] lengoaz dabilena/ ez da ain pobrea/ oingoak eiten dabe/ barrikaz probea/ agaitik ei jatorke/ bide erratzea" (bat-batekoa).



### 3. Tropoak

#### 3.1. Sinekdokea

Hizkera arrunta sinekdokearen zalea izaten ohi da. Bertsolaritzak hizkera arrunta du elikagai eta, hortaz, ezin zaletasun horretatik at gelditu.

[...] guztiok batera  
ardaua edatera  
**zuri eta baltzari**  
**apuroa eitera**  
ez dau inok esaten  
“nik etxuat gura!” (B026c)

**Goizean zuria ta**  
**atsaldian baltza**  
eten bako txurrutai  
an ekiten dautsa;  
artzen dabe **matsa**  
ezin dira altza[...] (B028a)

“Zuri eta baltzari” esaten denean “ardo zuria” eta “ardo beltza” eman nahi da aditzera. Badago sinekdoke mota bat gauza bat adierazi ordez bere materia adierazten duena. Kasu honetan, materia adierazi ordez, materia edo zehatzago esanda likidoaren kolorea adierazten da: *zuria* edo *baltza*. Sinekdoke hau nahiko erabilia da ahozko hizkuntzan, eta fosilduta dagoela esan liteke. *Matsa* hitza ere ardoaren beste sinekdoke bat dugu, izan ere, ardoa mahatsaren zukuaz eginda dago: gaia produktuaren ordez beraz.

[...] gizaldietan emon izan dauz  
ainbat eliztar jakintsu,  
**lurbira ziar** zabaldu be bai  
Kristoren egi mamitsu,  
mundu guztiak gaur goratzen dau  
Euskalerriko Arantzazu. (B040b)

[...]Arantzazuko  
Amaren eleizatxoa;  
toki alaitu baketsua da,  
dirudi berak zerua,  
gure erriai ainbat besede  
bidalduko txokoa,  
**Euskalerriak** maite dau beraz  
Ama Arantzazukoa. (B040c)

“Lurbira ziar” kristauek Kristoren egia zabaldu zutela esaten denean mundu osoko (edo agian hau hiperbolea denez, munduko leku askotan esan nahi da) jende askori Kristoren berria irakatsi ziotela esan nahi da. Zatiaren ordez osoa esaten da, beraz, aldi berean hiperbole bat esaten delarik. Mota bereko sinekdokea da *Euskalerriak* hitzarekin sortutakoa: *Euskalerriak* Ama

Arantzazukoa maite duela esaten denean Euskal Herriko jende asko Ama Birjina hori maite duela adierazi nahi da.

Alderantzizkoa da ondoren datorren bertsoaren sikekdokea. Bertan, osoaren orde zatia aipatzen da.

Dama gazterik bator  
 auto ederrakin,  
 nasai geratuko da  
 izketan eurakin;  
 ez da konturatuko  
 atzekuarekin,  
 gustora egoten da  
**ezpan-gorriakin.** (B203b)

*Ezpan-gorria* sintagmak emakumea esan nahi du, eta bertso sorta osoa irakurrita edo entzunda oso erreza da ulertzen horren esanahia.

Ondorengo adibideetan ere zatia aipatzen da errealitate zabalago baten orde z.

Kuk.:  
 Eguneroko **ogi biguna**  
 beti iaukoat gaur arte, [...] (B119b)

Lan egitia danok  
 bearreko dogu,  
 geure bizigarritzat  
**ogia** nai bogu; [...] (B124c)

[...] Baiña guztiok eingo bagendu  
 zuk nigaz eiten dozuna,  
 jakingo genduke nok jango leuken  
 eguneko **ogi biguna.** (B119a)

*Ogia* edo *ogi biguna* aipatzean errealitate zabalagoa diren elikagaiak eta, agian, bizitzeko behar diren ondare materialak adierazten dira.

Omen-jai asko merezi ditu  
 Uztapideren **txapelak**  
 frutu ederrik asko emon dau  
 gaur arte bere arbolak.  
 Ikasbidetzat artu daiguzan  
 bere bertsozko eskolak,  
 bera da gure arbola eta  
 gu gara bere orbelak. (B155a)

Balendin Enbeitak “Uztapideren txapela” esaten duenean, Uztapideren garaipena esan nahi du. Gauza zehatz eta material bat erabili du gauza abstraktu baten orde z. Mota honetako sinekdokeak oso ondo uztartzen dira ahozotasun bizia duten kulturekin eta beren espresibideekin. Gauza bera gertatzen da ondorengo bertsoan:

[...] Ustez txikia zarean arren

ezta zu lango aundirik:  
zure **ezpanetan** egia dager,  
barruan ez gorrotorik. (B096a)

*Ezpanetan* esaten duenean “hitzetan” edo “diskurtsoan” esan nahi du, egiazkoa dela adierazirik. Elementu zehatzei, *ezpane* hain zuzen, aipamena egiten die kontzeptu abstraktu bati erreferentzia eginez.

### 3.2. Metonimia

Efektua kausaren ordean erabiltzen da metonimia bezala. Arlo honetan oso metonimia erabiliak, eta horregatik lexikalizatuak, erabiltzen ditu. *Buru-austea* eta *buruko miña* sintagmek kausa baten ondorioa adierazten dute. Kausa horiek “kezka” edo “ardura” jakin batzuk lirateke.

[...] uste onian izan bada be  
zarrenak nunbait errua,  
baña berari ere eman die  
**buru-austerik** naikua. (B084c)

Neure sendiaz jolastutia  
beti iat atsegingarri,  
maitasunezko jolas orretan  
zorionsua naz beti.  
Jolas ortatik **buruko miñik**  
iñoiz be ez iat etorri, [...] (B034b)

Errealitate fisikoek batzutan ezaugarri edo gertaera moral bat adieraz dezakete Balendin Enbeitaren zenbait bertsoetan.

[...] ori egiten ez badok, ez dok  
**bururik** egingo **jaso**. (B118c)

[...] Gaur egunian maitasun ori  
ia dakusta galdurik,  
zer jazoten dan itandu eta  
ez dago erantzupenik  
danok eskuak garbitzen doguz,  
iñok ez dauko errurik  
onexek dauka gure euskera  
**burua jaso** eziñik. (B091b)

Iñor errudun olan jarteko  
geu garbirik ete gagoz?  
Geure **buruak jasoko** geunkez  
ezautu barik balegoz. [...] (B151c)

“Burua jasotzea” esaldi nominalizatuak animua eta adorea jaso edo piztea esan nahi du.

Batzutan kontzeptu bati lotutako zeinua nahiago izaten du Balendin Enbeitak, kontzeptu hori berori adieraztea baino.

Be-aldietan ez da ikusten  
len euki zendun bakia,  
mendi goietan ixillik dago  
artzaiñen txistu alaia;  
**sukalde** askotan ukatu dabe  
**mar-mar gozozko otoia,**  
txorakeritzat artzen dabela  
aurreko zarren fedia. (B131b)

*Sukalde* hitzak familiako biltokia ematen du aditzera, edo agian, familiako giro xamurra. Baliteke familia bera adierazi nahi izatea ere. “Mar-mar gozozko otoia” ukatu dutela esatean, ez bakarrik otoitza baztertu nahi dutela, erlijioaren lorratzak ere deuseztatu nahi dituztela esan nahi du.

### 3.3. Metafora<sup>421</sup>

Balendin Enbeitaren metaforak zenbatu, sailkatu eta aztertzerakoan, kontutan hartu behar da gure ustez nor izan zen eta zelako pentsaera zeukan.

Berak kontatzen digunez, baserri giroan bizi izan zen bere bizitza gehienez, gerra osteko kartzela urteak eta kamioilari urteak kenduta<sup>422</sup>. Beraz, baserritarra izan zen hein handi baten. Eraikuntzan ere lan egin zuen bolada batez.

Balendin Enbeitaren (eta beste edozein egileren) metaforak aztertzerakoan, kontutan hartu behar da zer nolako ezaugarriak dituen berak darabilen jeneroak, bertsolaritzak hain zuzen. Herri poesia da, nolabait. Herriak ahoz erabiltzen dituen esaerak, epitetoak, formulak agertzen dira Balendinen bertsogintzan. Elementu hauekin bertsolariak ez du bilatzen sofistifikazio maila gorenik, baizik eta herriarekin konektatzea (ulergarritasunaren aldetik) eta era berean ahozko poesia edo literatura egitea. Beraz, alferrik da oso irudi landuak edo ulergaitzak itxarotea. Normalagoa da irudi arruntak agertzea, baina horrek ez du esan nahi barne aberastasun bakoak direnik.

Metafora, beraz, tropo mota bat da<sup>423</sup>, adituen esanetan eta tradizionalki egin diren definizioen arabera. Tropoa, hortaz, errealitatearen interpretazioa da irudi baten bidez.

Tropo bat eraikitzeke lizentzia batez baliatu behar da. Lizentzia horietako bat trukaketa edo substituzioa da<sup>424</sup>. Esan genezake metafora troporik garrantzitsuena edo dela eta erabilienetakoa ere bai. Bertan hitzak

<sup>421</sup> Urretxindorraren zatian eman ditugu dagoeneko gure ustez baliagarriak izan daitezkeen metaforaren definizioak.

<sup>422</sup> *Bizitzaren joanean* liburuan kontatzen zaigu hauxe, zabal eta polito, Enbeita, 1986.

<sup>423</sup> Honen definizioak eskaini genituen Urretxindorrari dagokion zatian.

<sup>424</sup> Spang, 1984, 99.

adierazkortasun tentsiorik gorena lortzen du<sup>425</sup>. Metafora identitate bat da bi planoen artean: errealak eta irudimenezkoa. Metaforak eta similak, alderdi antzerakoak izan arren, ezberdintasunak dituzte euren artean, eta horietan bereiztea komeni zaigu orain. Simila konparazio mota bat da, antzerako ezaugarriak dituzten bi gauzen artean, eta konparazio lokailuak behar ditu bere zereginetarako. Metafora, ordea, identitate bat da, ausartagoa. Ez du juntagailu konparatiboen beharrik eta bi planoak ager daitezke edo ez<sup>426</sup>.

### 3.3.1. Metafora nahastuak

Estilistek metaforak sailkatzerakoan haxe xedatu dute: alde batetik metafora *inpuro* edo nahasiak eta bestaldetik metafora *puroak* edo garbiak. Hau da sailkapenik arruntena eta erabiliena<sup>427</sup>. Segun eta zein alderdi hartzen den kontutan, beste sailkapenak egon badaude. Adibidez, Carlos Bousoñok irudi tradizionalak aztertu zituen, aurreko sailkapena albo batera utzi gabe, jakina. Metafora bat existitzeko ezkutuko elementua eta agerikoa behar dira. Bien artean antzekotasun bat egon behar du, ondoren identifikazioa egin ahal izateko. Antzekotasun hori zein mailatan dagoen arabera, hiru metafora tradizional sortzen dira:

1. Metafora: plano errealak eta gogoratutako planoen arteko antzekotasun fisikoa dagoenean.
2. Metafora: bi planoen arteko antzekotasun moralak edota espirituala dagoenean.
3. Metafora: bi planoen arteko baliozko antzekotasuna dagoenean.<sup>428</sup>

Dena dela, hiru mota hauek bai metafora nahasiak eta garbietan gertatzen dira, eta horrek erakusten du lehenengo sailkapena erradikalagoa dela.

Has gaitzen ba metafora *inpuro* edo nahasiek. Esan dugunez, plano bi agertzen dira berauetan: errealak eta irudimenezkoa. Guk *Nere Apurra* eta *Bizitzaren joanean* liburuetan 36 bertsoetan metafora nahastuak aurkitu ditugu. Azter ditzagun pixkanaka-pixkanaka.

Gure lehenengo sailkapena metafora nahastu hauen artean izaki bizidunei dagokie. Ugariak dira irudi hauekin eraikitzen dituen metaforak: 18 zenbatu ditugu. Izaki bizidun hauek hauexek dira:

#### 3.3.1.1. Txoriak eta bestelako hegaztiak

Bere bertsoen artean Balendinek hegaztien aldeko maitasun berezi bat erakusten du. Irudi honekin (txori edo beste hegaztiren batena) tropo ugari sortzen du. Bere arreba hilberriari egin bertsoan “txori kantari otzana” irudia

<sup>425</sup> Ibidem, 108.

<sup>426</sup> Ibidem, 110.

<sup>427</sup> Ibidem, 115.

<sup>428</sup> Bousoño, 1985, 192-194.

eskaintzen dio. Gaur eguneko “tipo” edo “morroi” hitzen ordezkotan erabiltzen zuen “txori” hitza, batez ere “tipo” hori bertsolaria bada.

Joera hau aspalditik zetorren, batez ere erromantizismo garaitik, orduko lore-jokoak ospatzen hasi zirenetik. Lan honetan hainbestetan agertuko den Arrese Beitiak berak *lore* eta *txori* irudiak erabiliko ditu sarritan. Bertso sorta baten Ama Birjinari dedikatzen dizkio irudi hauek:

[...] Au zan andia, baña **lora** bat Zerutarra  
Neguan sortu an egiten da uste baga;  
[...] Bera zan bada moduren baten **larrosea**,  
**Lirio** zuri ta **bioleta** umildea;  
[...] Nik esan neutsan orduan: “**Txori kantaria**,  
Esan eidazu baña bene benetan gaur egia;  
¿Zelan deitzen zan alako **lora zurgarria**?”  
Diñost: «Loi baga sortu ta jayo zan Maria»<sup>429</sup>

Iparraldeko tradizioari men eginez, gaineratik bada ere, gogoratu behar da Ferrando Aire “Xalbador” (1920-1976) bertsolariak ere irudi honi atxikimendu handia ziola, poesia mailan ia-ia topikotzat har daitekeen arren. “Xoria” irudia sarritan ekarriko du bere bertsoetara, bai bat-batekoetan bai bertso jarrietan ere. “Xoria” irudia batzutan edergailutzat<sup>430</sup> erabiliko du. Besteetan konparazioak edo simalak<sup>431</sup> egiteko eta baita metaforak egiteko ere, batez ere pertsonen metaforak egiteko eta are gehiago pertsona horiek kantari edo bertsolariak izan baldin baziren. Xalbadorren laguna zen Mixel Monako hil zenean bertso batzuk jarri zituen Xalbadorrek. Honela dio horietako baten:

Zu ardi leialena gure artaldean,  
**xori kantariena** gure oihanean;  
hartu zaituenean Jainkoak aldean,  
jar arazi zaituzte kantari taldean<sup>432</sup>.

Balendin Enbeitak *txoria* irudia erabiltzerakoan irudi horretatik inplizituki ezaugarri batzuk aukeratzen ditu: arina, espiritualala nolabait, polita, sinplea, alai, maitagarria. Baina dena ez da izaten laudoriozkoa *txori* hitza aukeratzen duenean. Batzutan hegazti mota horretatik beste ezaugarriak hartzen ditu: mezularia, entzun behar zaion norbait.

Zar eta gazte pekatariak  
diño Zarauzko **txoriak** [...] (B082a)

<sup>429</sup> Urrutia, 1999, 699.

<sup>430</sup> "Sasu-zokotan gordez egonik neguko hotz gogorretan,/ egun xoriak kanta ta kanta ari dira arboletan; [...]", Aire, 1976, 197.

<sup>431</sup> "Irakurri gaberik nehoiz liburuan,/ euskal kanta guziak zintuen buruan;/ kantatzen zinauzkigun **xorien moduan**,/ beti primadera zen zure inguruan", Ibidem, 189.

<sup>432</sup> Aire, 1976, 190.

Ondoren ikusiko dugun metaforak identifikazioa egiten du baserria eta “txori-abestiaren” artean. “Txori-abesti”-tik zera hartzen du beraz: bakezko kantua eta naturala den izaki bat. Hona hemen puntua:

[...] egunsentiko **txori** abesti  
zoragarri ta pakia[...] (B100a)

Badirudi *txori* hitzak balio estetiko hutsa hartzen duela sarritan, afektu edota dohain espiritualak subjektuari atxikitzeko. Horrela gertatzen da bere arrebari eskainirikoan:

[...] zu zinan gure itxaropena  
**txori** kantari otzana [...] (B079a)

Bestetan, ordea, metafora honek beste kutsu bat hartzen du, ironiazkoa hain zuzen. Hori ere ahozko jardunean nahiko zabalik dago, baita gaur egun ere, bai euskaraz zein gazteleraz. Horrek Balendinen estiloaren aberastasuna adieraziko luke, edo behintzat balizko aberastasunaren erakusgarri bat. Hona hemen batzuk:

[...] ixil on diran **txori** guziak  
jarri dituzuz kantari. (B082b)

Arestiko azken irudiak gazte jendea esan nahi du.

[...] Onen antzeko **txori** nabarrak  
noizbaiten dira ikusten [...] (B220b)

Goiko *txori* horrekin gaur eguneko neska modernoek ari da.

Aipatzekoa da ironia tartean sartzen denean, jadanik termino erreala desagertzen dela, jakintzat ematen dela.

Esaera zahar eta epiteto erabilenei ere etekin ona ateratzen badaki Enbeitak:

[...] mingainez **uso** txuria eta  
egikeretan **gau-txori** [...] (B084b)

[...] Mingañez **uso**, barruz **gau-txori**,  
Pilatos asko gabiltza [...] (B152a)

[...] mingañez **uso**, barrutik **otso**,  
umea egikeretan. (B168b)

Alde batetik, *mingañez uso* metafora eta era berean epitetoa nahiko finkatuta dago Balendinen bertsogintzan. Epiteto hori bost silabakoa da eta beraz neurri handiko bertsoetan lehenengo hemistikiorako ezin egokiagoa. Aldi berean, esaera baten hasiera da, bariantek ametitzen dituen adibide hauetan

ikus daitekeenez. Demostratzeke dagoen arren, seguruenez formula hori, *mingañez uso* alegia, bere aitarengandik jaso zuen Balendinek. Eta “etxean uso, kanpoan otso” esaera ezaguna, bere bariante aunitzekin, bera bizi zen giro kulturalean jaso zuen ziurrenik. Albert B. Lord ikerlariak, Jugoslavia aldeko kantarien jarduna ikertu zuenak, hauxe esaten zuen: ahozko kulturako historia kontalariak maisu batengandik ikasten dute antzezten hasi aurretik. Berarengandik eta entzutearen entzunez ikasi egiten dituzte hainbat formula, epiteto, esaera eta egindako esaldiak, geroago bere antzeppenetan erabiliko dituztenak eta agian birmoldatuko dituztenak, egoki iruditzen bazaie:

[...] over many generations there have been developed many phrases which express in the several rhythmic patterns the ideas most common in the poetry [...] the young singer must learn enough of these formulas to sing a song. He learns them by repeated use of them in singing [...] until the resulting formula which he has heard from others becomes a part of his poetic thought. He must have enough of these formulas to facilitate composition.<sup>433</sup>

Esan genezake antzerako gauza gertatzen dela Balendin Enbeitarekin. Esan bezala, ahozko kulturako kantari batek jaso egiten ditu epitetoak eta esaerak. Jaso eta erabili ez ezik, noizean behin birmoldatu. Arestian aipatutako “kanpoan uso, etxean otso” Balendinek beste modu honetara erabili zuen: “mingainez uso, barrutik otso”. Beraz tradizionala eta gordetzailea izateak ez du oztopatzen egileak moldaketa txiki batzuk ezar ditzan. Egileak, eta kasu honetan bertsolariak, bere burua tradizionaltzat dauka baina ez da konturatzen aldaketa txiki horiekin bere kantagintza edota bertsogintza garatzen ari dela. Garapen hori ahozko kotasuna eta ahozko jarduna bizirik dagoenaren adierazgarri da eta ondorioz bertsogintza bizirik dagoenarena ere bai. Albert B. Lord-ek esaten duenez:

The singer never stops in the process of accumulating, recombining and remodeling formulas and themes, thus perfecting his singing and enriching his art. He proceeds in two directions: he moves toward refining what he already knows and toward learning new songs.<sup>434</sup>

### 3.3.1.2. Bestelako abereak

Bestelako zenbait abere ere iruditzen erabiltzen ditu.

[...] Alperrik esan: **Bildots** ona naiz  
**otso** gaiztoa da ori. (B084b)

Hona hemen gorago aipatutako “kanpoan uso, etxean otso” esaeraren beste aldaki bat, metafora izaera daukana. Hemen ere bi abere mota kontrajartzen dira: bildotsa eta otsoa. Lehen usoa eta gau-txori kontrajartzen

<sup>433</sup> Lord, 1960, 22.

<sup>434</sup> Ibidem, 26.



ziren eta baita usoa eta otsoa. Oraingo honetan *bildots* hitza erabili du iruditzat: izan ere, usoak daukan zenbait ezaugarri ditu eta: errugabetasuna, apaltasuna, jasatzailea eta abar. Esaera honekin, *usoa* zein *bildotsa* erabili, esanahiaren aldetik bertsolariak antzerako gauzak adierazten ditu.

Eta antzerako beste bat:

[...] izketan **bildots** otzana dogu  
baina egikeraz **otso** [...] (B262c)

Formulekin jarraituz, *izketan bildots*, esanahi eta neurriaren aldetik, *mingañez uso* formularen parekoa da. Hemen ikusten da Balendin, gauza bera adierazteko, saiatu dela bere estiloa zorrozten eta bere erregistroa zabaltzen. Jakiki *mingañez uso* formula (eta era berean metafora) etekin handikoa dela, saiatu da pareko bat lortzen eta lortu ere. Are gehiago, *mingañez* sintagma sei aldiz agertzen da *Nere Apurra* liburuan, metonimia zentzuarekin; izan ere, “hitzez” esan nahi du, *egikeretan* sintagmak daukan zentzuarekin kontrastatuz.

Euskaldun askok gure izkuntza  
mingañez goratuten dau [...] (B172b)

Mingañez eta biotzez bardin  
erabiliko bagendu (B172c)

[...] Zugaz mingañez oroitzen dira  
baña ez dau errukirik [...] (B212a)

Hala ere, alderdi hau jadanik jorratuta dago kontrajarpena aztertu dugun azpiatalean.

### 3.3.1.3. Landareak

Balendin Enbeitak landareen irudiak ere erabiltzen ditu bere metaforak eraikitzeko. Haien artean *arbola*, *lora* eta *arantza* dira nabarmenenak:

[...] lur maite onen **loria** eta  
frutu emoile zeu zara [...] (B137a)

Uztapide bertsolariari dedikatutakoa:

[...] frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere **arbolak** [...]  
bera da gure **arbola** eta  
gu gara bere **orbelak**. (B155a)

Sinismena ta itxaropena  
zuzter bateko arbola [...] (B225a)

Azken formula hau sarri erabilia dago. Balendinen bertsogintzan kasu honetan sinismena eta itxaropenaren metafora da. Beste kasuetan ezkonduen metafora, askotan erabilia ere:

Len bi ziñaten, bat egin zare  
zuzter bateko **arbola**  
 buztarri ori ezin legike  
 legez apurtu iñola; [...] (B260b)

Sinesmena ta itxaropena  
zuzter bateko **arbola**, [...] (B225a)

Zuzter bateko larrosak ginan  
 lurrian sortu giñandi [...] (B079b)

Esan bezala, formula eta era berean metafora. Hau formula moduko bat izango litzateke, errimaren behar izanen arabera sortua eta behin eta berriz errepikatu daitekeena, bi arrazoiengatik:

- a) zortzi silabakoa delako eta beraz zortziko eta hamarreko nagusietarako (besteak beste) balio du.
- b) *-la* bukaerakoa da eta ondorioz hoskidetza etekin handikoa.

Milman Parry-k, ahozkoatasuna sakonki aztertzen hasi zenak, Homeroren metaforak ikertu zituen. Deskubritu zuen poesiarako eraikitako metaforak zirela askotan, neurriak baldintzatuta, eta poesia barruan bakarrik hartzen zuten beren zentzu osoa:

[...] these phrases are not at all what they are in their place in the poems. There the way they are used and their use over and over have given them a sense which is utterly lost when they are torn from the poetry. They are fixed metaphors.<sup>435</sup>

Gauza bera aplika dakieke orain arte agertu diren metaforei. Aurretik egindako edo sortutako metaforak dira, Balendinen bertsogintzan zentzua daukatenak baina hortik kanpo, ulergarriak izan arren, beraien zentzua galtzen dute edo behintzat ez da lehengoa. Balendinek, bertsogile eta bertsolari tradizionala denez, tradizioan aurkitutako irudiak erabiltzen ditu bere bertsogintzan. Hau, idatzizko kultura baten, kopia egitea bezalakoxea izango litzateke, hau da, arbuiatu beharreko gauza bat. Idazkerak ekoizpenerako denbora gehiago ematen du eta beraz bide berriak saiatzeko eta hizkera analitikoagoa erabiltzeko aukera ere bai. Ikuspuntu honetatik tradizioari eusteak atzean geratzea edota pentsamendua ez garatzea suposatuko luke. Ahozkoatasuna indartsu dagoen kulturetan, ordea, meritua ez datza horretan. Poeta tradizionalak segun eta nola erabiltzen duen berak jasotako tradizioa, lortuko du arrakasta gehiago edo gutxiago.

---

<sup>435</sup> Parry, 1987, 367.

Aristotle's view of the nature of metaphor, in which case we must condemn Homer as mere copier, and the view that a traditional poet is good not because of the new that he brings into verse but because he knows how to make use of the traditional.<sup>436</sup>

Ahozko kulturetan poeta tradizionalak bere poema egin eta antzeztu aldi berean egiten ditu. Hori dela eta, ez du astirik pentsatzen eta hausnartzen egoteko. Antzezpenak aurrera joan behar du, ezin da eten. Zuzenketak ez dira onartzen ahozko jardunetan, esandakoa esanda gelditzen da, ez dago atzerabiderik. Lehentsuago esandakoa behin eta berriz zuzentzeak poeta tradizionalaren prestigiorik eza ekarriko luke. Eta gauza bera gertatzen da bertsolariekin: nahiz eta zer esatekorik asko ez izan, bertsolariak ezin du denbora luzean pentsatzen egon. Beraz, buruan daukan erregistroari azkar oratu behar dio eta modu egokian erabili. Hori lortzen badu entzulegoaren atsegina eta onarpena jasoko du. Erabilitako erregistro edo formula hori komunitate osoarena izango da, bestela ulergaitza edo onartezinezkoa bihurtuko da, oso sakona eta idatzizko kulturaren prestigiotsua izan arren.

Irudi berberekin jarraituz, landareekin alegia, formularen definizioa betetzen duela esango genuke:

[...] a group of words which is regularly employed under the same metrical conditions to express a given essential idea<sup>437</sup>.

Errepikapen bat baino zerbait gehiago da. Ahozko kulturetan murgildurik dauden pertsonen hitz egiterakoan formulak erabiltzen dituzte, hau da, aldeztu aurretik egindako hitz multzo bat zerbait esateko balio duena eta errepikapenaren poderioz jende guztiak ulertzen duena. Ahozkotasuna bizirik dagoen lekuetan hizkuntzek egitura formularioa dute gehien baten. Horretaz konturatu zen Milman Parry ikerlari estatubatuarra *Iliada* eta *Odisea* liburuak aztertu zituenean. Hizkuntz primitiboaren lehenengo produkzio estetikoak poesiazkoak izaten dira, poesiak eskaintzen baitu hobeto gordeta izateko aukera: poesian egitura formularioa behar beharrezkoa da, errima eta neurria askotan kontutan hartu behar dira eta. Bestaldetik, poesiarako oso erabilgarria da erreduzantzia eta behin eta berriz errepikatzen diren leloak. Hau aipatu eta gero, berriro gatz Walter Ong-engan; izan ere, ahozko kultura baten pertsona batek daki gogora dezakeena, ez besterik.

Una cultura oral no dispone de textos. ¿Cómo reúne material organizado para recordarlo? [...] En una cultura oral primaria, para resolver eficazmente el problema de retener y recobrar el pensamiento cuidadosamente articulado, el proceso habrá de seguir las pautas nemotécnicas, formuladas para la pronta repetición oral.<sup>438</sup>

“Zuzter bateko arbola” bezalako beste formula-metaforak aurki ditzakegu Balendin Enbeitaren bertsozintzan. Besteak beste, “baso ta zelaiak”: sei

<sup>436</sup> Ibidem, 375.

<sup>437</sup> Lord, 1960, 30.

<sup>438</sup> Ong, 1987, 40.

silabaduna eta *-iak* hoskidetzarako balio duena<sup>439</sup>. Esaldi bat edo hitz multzo bat errepikapenaren poderioz bihurtzen da formula, batez ere errima eta neurrirako ezaugarri egokiak baldin baditu.

[...] a phrase becomes set in the poet's mind, and he uses it regularly. Then, and only then, is the formula really born (...) it is not a formula for our singer until its regular use in his songs is established. (Lord, Albert B., *The singer of Tales*)

*Lora* eta bestelako landare motak ere metafora ugarietan agertzen dira:

[...] Baña, Ariatza, niretzat ez dau  
zu bezelako **lorarik** [...] (B176b)

Ixiltasunez eroango dauz  
sendiko **lora arantzak** [...] (B247b)

[...] Eusko fedea bizirik dala  
argi dirauskun **lizarra** [...] (Bb177a)

Alperkeria dogu munduan  
gose guztien **sustraia** [...] (B052b)

Hemen *sustraia* ez da berez izaki bizidun bat, bizidun baten atal bat baino. Hala ere bertsolariak nahiago izan du irudi hori erabiltzea hitz analitiko baten ordean. Esana dago Balendin Enbeita baserritarra dela eta hortaz baserritar pentsaera daukala. *Sustraia* bezelako hitzak berarentzat esanahi sakona eta argiagoa dauka, "arrazoia", "zergatia" edo "kausa" hitzek baino, gure ustez. Hitz hauek abstraktuak dira, ez daude estuki lotuta eguneroko bizitzari eta horrek ahozko kultura baten ez du arrakastarik lortuko, ez du enpatiarik lortuko. Walter J. Ong ikerlariak ahozkotasunaren psikodinamika azaltzerakoan zera esaten du: adierazpideak egoerazkoa izateko joera dauka eta ez abstraktua. Hau zazpigarren psikodinamika azaltzerakoan adierazten du, alegia, "esperientziatik hurbil" dagoela adierazten duenean, izan ere, ahozko kultura bateko giroan, adierazpenak esperientziatik hurbil egon ohi dira:

En ausencia de categorías analíticas complejas que dependan de la escritura para estructurar el saber a cierta distancia de la experiencia vivida, las culturas orales deben conceptualizar y expresar en forma verbal todos sus conocimientos, con referencia más o menos estrecha con el mundo vital humano.<sup>440</sup>

Era berean, minaren metafora *arantza* da Balendinengan. Aunitzetan aipatua da *arantza* irudia Balendinen bertsogintzan. *Nere Apurra* liburuan, esaterako, hogeita lau aldiz agertzen da. "Bizitzaren arantzak", bizitzaren ezbeharrak edo nahigabeak dira. Hona hemen beste adibide bat:

[...] Sentitzen ditut orain arteko

<sup>439</sup> "Udaran loraz apaintzen dira, /gure baso ta zelaiak [...]" (B113c); "Mendi gañetik ikusten dira / aran baso ta zelaiak [...]" (B114b); "Udabarriak berbizen ditu / mendi, baso ta zelaiak [...]" (Bb171a)".

<sup>440</sup> Ong, 1987, 48.

bizitzaren erasoak,  
igaro ditut **arantza** minak  
bai eta egun gozoak [...] (Bb169b)

Goian aipaturiko *arantza miñak* edo, hizkera analitikoan, bizitzaren ezbeharren minak, epiteto bihurtuta dago askotan. Honetaz mintzatu gara jadanik kapitulu honetan bertan. Beste epitetoetaz esandakoak balio du honetaz ere, bost silabatakoa delako eta esanahi jakina eta jadanik ezaguna delako errepikapena dela medio.

Irudi edota metafora hau sano ezaguna da poeta eta garai bateko bertsolarien artean. Zenbait kasutan erlijioan eduki dezake bere jatorria: Jesusen arantzazko koroa. Horrek erakusten digu bertsolariak herriak darabiltzan irudiak erabiltzen dituela, kontserbatzailea da eta. Walter J. Ong-ek puntu honetan ere badauka zeresana, zeren eta arestian aipatu dugun ahozketasunaren psikodinamika aztertzen duenean ezaugarri hauxe aipatzen baitu: gordetzailea eta tradiziozalea izatea (seigarren psikodinamika).

Dado que en una cultura oral primaria el conocimiento conceptuado que no se repite en voz alta desaparece pronto, las sociedades orales deben dedicar gran energía a repetir una y otra vez lo que ha aprendido arduamente a través de los siglos. Esta necesidad establece una configuración altamente tradicionalista o conservadora de la mente, de la que con buena razón, reprime la experimentación intelectual.<sup>441</sup>

Urretxindorrek naturara jotzen zuen sarri bere bertsogintzan: deskripzioak eginez eta noizean behin pertsonifikazioak eginez Arrese Beitiaren antzera<sup>442</sup>. Hala ere, oso gutxitan izan arren, metaforaren bat agertzen da<sup>443</sup>. Kepa Enbeita "Urretxindorrek" izadiaren deskripzioa barne egoeraren adierazletzat erabiltzen zuen. Adibide asko aurki ditzakegu bere bertsoetan:

Iturri eta errekatxuak  
Jasteira beko ibaira;  
Ibaya dua oneik artuta  
Itxaso zabal andira ... [...]  
Aixe-bolada batek artu dauz  
Baratzeko loriak  
Gaudi gustija betian duaz  
Usainduagaz goi-beiak [...] (K045b)

<sup>441</sup> Ibidem, 47.

<sup>442</sup> "Udabarriak dagerskunia / Beren aurpegi alai argia, / Negu-lapurak billoistu dauzan / Baso-baratzak poztuten dira // Oneik dirautse: "Zuk Orrilean / emon zeuskuzan janzki ederrak, / Lotazillean kendu euskuzan / Zure areyo negu ankerrak [...]" (K137b)

<sup>443</sup> "Goyan zerua eta / beyan itxasoa, / onek damotsolarik/ besarka gozoa;/ bera da ugazaba, / bera gurasoa, / beti azke bizi dan / zorionekoa" (K142c). Kasu honetan ez dago garbi pertsonifikazioa eta metaforaren arteko muga. "Urretxindorren" bertsoetan metaforak aurkitzea gaitza izanik, hau da metaforaren antzik handiena daukana, lehen aipaturiko "bera da ugazaba / bera gurasoa" alegia.

Balendin Enbeitak era horretako bertsoak baditu:

Ortze oztiña dizdizka dago  
milla milloika izarrez,  
mendi zelaiak ixil-ixillik  
gauan itzalen bildurrez;  
errekaxuan ura mur-murka  
bere eresi itunez  
noizik noizera kanpaien otsa  
gaben orduak esanez. (B076a)

Baina aurrerapauso bat ematen du: idatzizko kulturakoa den metafora maizago erabiltzen du, baina horretarako naturaren irudiak erabili egiten ditu, tradizioari jarraituz. Enbeitarengan arbola beti da pertsona baten irudia:

[...] frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere **arbolak** [...] (B155a)

**Arbola** zarrak emon ez baleu  
geroko kimu barririk [...] (B239a)

[...] zortzi seme-alaben  
euskaldun **arbola** [...] (B264a)

Guztietan arbola pertsona jakin batzuen irudia eta metafora da: Uztapide, Zarauzko bertsolari bat eta Balendinen ama hirugarrena. Lehenengo arbolaren metafora hau dela eta<sup>444</sup>, egokia da gogoratzea arbolaren sinboloa aspaldiko sinboloa dela gurean. Iparragirrek mito hau berpiztu zuen itxura erlijiosoa emanaz. Arrese Beitiaren olerkigintzan elementu hau sarri agertzen da eta euskaldunen ikurra da, batez ere Gernikako arbola, batzar lekua da eta antzinean, legeak egiteko lekua, gure nortasunaren gordelekua beraz<sup>445</sup>.

### 3.3.1.4. Eguneroko tramankulu, tresna edota bestelako gauzak

Elementu hauekin eginiko metaforak ere arlo eder baten osagaiak dira. Adibide hauek aipa ditzagun:

Euskalerriko gure lur maite  
siñismenaren **iturri** [...] (B131a)

[...] Geienok gabiz ospia edo

<sup>444</sup> "Len bi ziñaten, bat egin zare / zuzter bateko **arbola**, [...]", (B264a).

<sup>445</sup> Esandako hau argi ikusten da "Arbola bat" izeneko olerkian. Bertan Gernikako arbolaren idealizazioa egiten da: "Arbola bat zan Paradisoan / Jaunak apropos jarria, Mundu guztiak artu egion / Lotsa ta itzal andia; Bere azpian bizitzea zan / Aita Adanen gloria, (...) Arbola bat zan Bizkayan bere, / Neure anaya laztanak, / Zeiñen azpian, pozez beterik / Egoten ziran asabak; / Kerizpe zabal artan jarririk / Eginda euren Batzarrak / Buztarri baga, nasai ta libre, / bizi ziran bizkaitarrak" (Arrese Beitia, Felipe, *Olerki sorta bat*, Elkar, Klasikoak bilduma, Zarautz, 1987).

aundi izateko egarriz;  
 au ikusiaz Ama Euskera  
 negar-**malkozko iturriz** [...] (B092b)

[...] aberats askok udia nai dau,  
 au da euren pozgarria;  
 baserritarrak udazkenian  
 lan egiñen **iturria**; [...] (B226b)

Urte zaharra izan da  
 askoren mingarri  
 Hainbat sendi gaxotan  
**malkozko iturri** [...] (Bb173a)

Gaur egunean erabiltzen dugun “jatorri” esanahiarekin erabiltzen du Balendinek *iturri* hitza. “Jatorri” hitza analitikoa da, abstraktua nolabait, eta hori berori adierazteko *iturri* hitza erabiltzea nahiago izan du gure egileak. Hasieran *iturri* metafora izan zitekeen, nahiz eta gaur egun fosilizaturik mantendu. Ikus daitekeenez, *iturri* metafora beti dago aurretik lagunduta genitiboeko sintagma batez (-en edo -ko). Lokuzio hauek herri tradizioaren gustukoak izaten dira, Walter Ong-ek azaltzen duen legez. Ahozkotasunaren psikodinamikak aipatzean ezaugarri bat gogoratu behar dugu: adierazpidea pilatzailea izaten da, analitikoa izan beharrean. Ezaugarri hau laugarren psikodinamikaren barruan kokatzen da<sup>446</sup> eta horrek errazten du etorkizunean kontzeptu hori gogoratu ahal izatea.

Esta característica (acumulativo antes que analítico) está estrechamente ligada a la dependencia de las fórmulas para practicar la memoria. Los elementos del pensamiento y de la expresión de condición oral no tienden tanto a ser entidades simples sino grupos de entidades [...] La tradición popular oral prefiere, especialmente en el discurso formal, no al soldado, sino al valiente soldado; no a la princesa, sino a la hermosa princesa, no al roble sino al fuerte roble. [...] Una vez que se ha cristalizado un expresión formularia, más vale mantenerla intacta. Sin un sistema de escritura, el pensamiento que divide en partes -es decir, el análisis- representa un procedimiento muy arriesgado.<sup>447</sup>

Gauza bera aplika dakieke hurrengo metaforei:

Gure arimen **lapikotxua**  
 oztik geratu ez daiten [...] (B058a)

Biotz erdiko baserritxua,  
 zu zara jaiotza-tokia  
 zenbateraino maite zaitudan  
 ez da errez esatia  
 zu zara gure bizi-bideko  
 eguneroko **ogia**. [...] (B100a)

<sup>446</sup> Psikodinamika hau antzerako bi joeretan adierazten da. Ahozkotasunaren izaera pilatzailea kontrastean dago zenbait hizkera eta idazkera analitiko eta sintaktikoki menperatuaren aldean.

<sup>447</sup> Ong, 1987, 44-45.

Azken honetan Balendinek parekatu egiten ditu baserria eta eguneroko ogia. Euskal kulturaren barna, etxea eta ondorioz baserria hagitzen garrantzitsua eta ahaztu ezinezko elementuak dira. Joxemiel Barandiaranek horrela esaten zuen Euskal Herriko hainbat lekutan ikerketa etnologikoak burutu ondoren:

La casa es soporte material de numerosas generaciones que van sucediéndose en su recinto y es símbolo que representa al linaje (*askazi*) formado por tales generaciones. Y como tal símbolo de la tradición familiar posee marcada personalidad, constituyendo así el eje de la vida jurídica vasca.

Por eso la casa tiene nombre propio, del que toman el suyo sus habitantes. [...] Esta preeminencia simbólica hace que la casa vasca se considere como asistida de derechos y sujeta a deberes. Así debe **cobijar y sustentar** a la familia que la ocupa y la cultiva. [...]

La casa tiene funciones que, en cierto modo, le equiparan al templo.<sup>448</sup>

Ikuspegi honetatik esanahi berezia hartzen dute hurrengo puntuek:

[...] Uzparitxako auzonetxuan,  
bertsolarien **kabian** [...] (B213a)

Mendipe baten dago  
Uzpitxa-Jauregi,  
nere txikitxutako  
jolasen **lantegi** [...] (B049c)

[...] lengo jolas-lekua  
gaur amesen **kabi** [...] (B050b)

Azkeneko bi metaforak baserriari eskainitakoak dira. Baserri inguruko elementu bat hartzen du azkenekoan, *kabi*, hain zuzen baserriaren metafora egiteko. Urte dezente geroago bere semeak, Jonek, berriro erabili zuen 89ko Bizkaiko bertsolari txapelketa irabazi zuenean, azken agurreko bertsoen artean:

Zer ez neuskizu zuri emongo  
bihotzeko ama Klara?  
bertsolarien **kabi** hartako  
beroa izan baitzara, [...] (bat-batekoa).

Hemen, *kabi* hitza bilgune gozo eta sendikorraren ezaugarriak gordetzen ditu eta Jon Enbeitak erakusten digu *kabi* metafora moduan etekin handikoa dela.

Baserria Balendinen bertsogintzan oso elementu garrantzitsua da zalantzarik gabe. Metafora hauek, egia esan, ez dute adierazten garrantziaren zentzu osoa. Horretarako beste irudi erretorikoak, beste errekurtsio edota epitetoak ikusi eta aztertu beharko genituzke. Pertsonifikazioak eta metonimiak haietariko batzuk izango lirarteke, baina horiek atal honen beste azpiataletan agertzen dira aztertuta.

<sup>448</sup> Barandiaran, 1974, (VI. alea), 264-265.



Esango genuke euskal kulturaren mugimendu askok jatorria daukatela letradunengan, nahiz eta euskal kultura ahozkoa izan nagusiki (aitzinean). Honek zera adierazten digu: mugimendu batzuek oihartzun eta arrakasta handia dutela ahozko kulturetan. Mitifikazioa errazagoa da mota horretako kulturetan. Ahozkotasunaren psikodinamikaren barruan ezaugarri bat aipatzen zuen Walter Ong-ek: agonistiko eta borrokazalea izatea. Laudorioak ere oso entusiastak izaten dira: dena dago entzulearen arreta eta inplikazioa erakartzeari begira. Giro horretan mitifikazioa sortzeko joera dago, entzulearen arreta erakartzeko asmoz behin baino gehiagotan. Jose Urrutikoetxeak esaten duen moduan:

Es cierto que estos procesos de mitificación, generales en todo tipo de culturas, encuentran vías de más fácil desarrollo y desenvolvimiento en las culturas orales que en las escritas. Quizá merezca retener este dato a la hora de comprender lo que ocurre con la tendencia mitificadora de la cultura vasca. Más aún si se tiene en cuenta que parte importante de la literatura vasca del siglo XIX tiene, en palabras de Jon Juaristi, una función movilizadora, vehículo claro de contenidos políticos.<sup>449</sup>

Adibidez, euskal abertzaletasuna askotan letradunen buruetan egosi, atondu eta itxuratu da. Abertzaletasun horrek tradizioa hartu du ikurtzat eta horrek ahozko kultura baten posibilitate asko ditu arrakasta izateko. Euskal ahozko kulturaren horrelaxe gertatu da. Baserria eta baserritarrak oso elementu oinarritzkoak dira abertzaletasunaren ideologian.

[...] eta gerrako tresnak  
ogi bihurtuten  
herri menperatuen  
**kateak** kenduten [...] (Bb174a)

Baserri inguruko elementu bat izan arren, poesia sozialaren elementu oso arrunta dugu *katea* hitza, menpekotasuna edo askatasunik eza adierazi nahi duena.

[...] **osin** sakona dogu  
amaren biotza. (B184a)

*Ama* irudia oinarritzkoa da Balendinen bertsogintzan. Arestian aipatu bezala, askotan zerbaiten irudia da, maitatu behar den zerbaiten irudia: euskara, Euskal Herria eta abar. “Andra Maria” ere ama guztien eredu lez agertzen da askotan. Kasu honetan zehatzagoa da Balendin: bere lurreko amari eskaintzen dio bertso sorta hau, “Ama” izenburu hutsez, nolabaiteko kategorizazio kutsua emanaz. Puntu honetan *amaren biotza* agertzen da: hau sentimenduaren metonimia litzateke. “Ama” gaitzat hartuta, Balendinek

<sup>449</sup> Urrutikoetxea, 1992, 63. Aipamen hau *En una mesa y compañía* izenburuarekin argitaratutako liburuan aurkitzen da, 1. kapituluko 2. epigrafean, eta tesi doktoral baten argitaralpena da. Bigarren epigrafe horretan baserri giroaren mitifikazioaren historia interesgarria egiten du, literatura eta egoera sozialen ikuspuntuetatik.

metaforak egiteko joera erakusten du. Adibidez, gai bera duen “Amari biotzez” bertso sortan bi metafora nahastu aurkitu ditut:

[...] zortzi seme- alaben  
euskaldun **arbola**; [...] (B264a)

Beti izan zaitugu  
sendiaren **lema** [...] (B264c)

Bertso sorta horiek samurtasunez gainezka daude, eta batez ere sinpletasunez, gehiegizko apaingarririk gabe eta hipokresi izpirik ere ez antzemanaz. Azken bi hauetako lehenengoan *ama* eta *arbola* parekatzen dira. Beste metaforetan *arbola* euskal ohituren gordelekutzat erabiltzen du Enbeitak. Arbolaren sendotasuna, iraunkortasuna eta naturazko izaera hartzen zituen ezaugarritzat, euskal kulturaren sinbolo bilakatu den irudi horretatik. Oraingo honetan, ordea, arbolaren emankortasunean dago oinarrituta metafora hau, eta agian arbolaren edertasunean ere bai. Irudi beretik ezaugarri diferentek hartzen ditu gure egileak mota bateko edo besteko metafora bat eraikitzeko, eta horrek estiloa aberastu egiten du. Hori bai, irudi tradizionala da, egileak ez baitu saiakerarik egiten beste motatako metaforekin edota gaur eguneko irudi irrazionalekin. Emozioa erakutsi baino lehen, aurretik bazegoen antzekotasun objektiboak ezagutzeko helburu bat, ego behintzat ezagupen objektiboa jakintzat ematen da. Bousoñok horrela esaten zuen, irudi tradizionalaz ari zenean:

La divergencia más notable que existe entre una imagen tradicional y una imagen visionaria es que la imagen tradicional exhibe una estructura racionalista que difiere radicalmente de la estructura irracionalista que manifiestan las imágenes peculiares de nuestro siglo. [...] las tres posibilidades de la imagen tradicional coinciden en un punto: basarse siempre en una semejanza objetiva (física, moral o de valor) inmediatamente perceptible por la razón, entre un plano real A y un plano imaginario B.<sup>450</sup>

Eta ezaguna da Balendinen irudi guztiak irudi tradizionalen mailan sar daitezkeela.

Ikus dezagun, besteak beste, *oinarri* irudiarekin egindako metafora:

Gizonak alkar aitu ezina  
gorrotoaren **sukarra** [...] (B168a)

[...] hil gorrotoaren **garra**  
biztu maitasun **izarra** [...] (Bb177a)

*Garra* eta *sukarra* hitzek *-gar-* lexema partitzen dute. Biak, *garra* eta *sukarra* gorrotoaren metaforak ditugu. Oso irudi egokia da Balendinek kasu honetan erabili duena. Irudi horiek beste gauzen artean, beroa adierazten dute eta baita suari darion argi mugikor eta kontrolaezina. Ezaugarri hauek gorrotoarekin identifikatzen ditu: kontrolagaitza den grina sakon eta erretzaile

<sup>450</sup> Bousoño, 1985, 192-195.

bat, pertsona kontsumi lezakeena eta indar suntsitzailea daramana. Bousoñoren sailkapenean "B de A" (A-ren B) motako metafora nahasia izango litzateke. Euskaraz errealitateari dagokion terminoa aurretik dator eta ondoren datorrena azaltzeko baliagarria da, hau da, *gorrotoa* hitzak *garra* edo *sukarra* hitzen esanahia azaltzeko balio du.

Eredugarria eta zerutarra den zerbait azaltzen denean *izarra* erabiltzen du Areatzakoak:

[...] Arraten bada **izar** eder bat  
aundia da bere fama [...] (B205a)

Aita Domingo Dohatsuari honako hau eskaini zion:

[...] Euskal Herriko mendi gainean  
**izar** berri bat da sortu [...] (Bb178a)

Bestalde, Erroman, 1983an Aita Santuaren aurrean kantatutako bertsoetan birritan erabili zuen *oin-arri* irudi bezala.

[...] zu zara gure Betikoaren  
**oin-arri** tinko onena. (B096a)

[...] Hemen daukadaz emazte, sendi,  
aurrerako **oinharria** [...] (B184a)

Beraz gaur ezagutzen dugun *oinarri* hitza, gazteleraren *base* hitzaren parekoa bilakatu dena, hasieran metafora baten izaera zeukan azkeneko bi adibideetan ikusten den bezala. Noiz jaio zen metafora hori ez dakigu, baina Balendinengan metaforaren kutsua gordetzen du oraindik. "Harri" lexema askotan bereiztuta agertzen da, eta hori bere jatorrizko zentzuaren erakusgarri dela esango genuke.

### 3.3.1.5. Ama (eta ahozkoatasuna)

Antzinako garaietan usua izan zen bezala, *Ama Euskera* irudia nahikotxo erabili zuen Balendinek. Berarentzat irudi literario bat baino, errealitate bat da, bizirik dagoen errealitatea, edo behintzat hori ematen du aditzera. Bere kultur giroan irudi hau sano indartsua zen, ahozko erabileran ere bai, metonimiak ahozko kulturaren naturalagoak izan arren. Honen adibideak bere bertso-gintza osoan aurki ditzakegu. "Modan balego zorionekoa litzake euskera" izeneko bertso-sorta honen erakusgarri bikaina da. Hona hemen handik ateratako bertsoen batzuk:

Euskaldunaren ama euskera da  
eta ez dogu ezautzen [...]  
eta gu gabiz ama itxita  
ama-ordia goraltzen. (B087b)

Balendinek, ahozko kulturaren sartuta dagoenez, ezin du hitz egin euskarari buruz modu abstraktuan. Bere irudi bat behar du eta amaren irudian aurkituko du. Gorago esan bezala ahozko kultura gertu dago giza bizimodutik eta testuinguru jakin baten hartzen du bere esanahi osoa. Bertsolariak entzulegoa hartzen du kontutan bere bertsoaren egikeran, eta entzulegoak, herriak hobeto ulertzen du ahozko jarduna testuinguru bizi baten kokatzen denean. Horri Ong-ek enpatia (ikus psikodinamika ezaugarrien zerrendan 10. lerroa) deitzen dio, hau da, kantaria (kasu honetan bertsolaria) eta entzulearen arteko identifikazioa nahiko argia dago:

Para una cultura oral, aprender o saber significa lograr una identificación comunitaria, empática y estrecha con lo sabido, identificarse con él.<sup>451</sup>

Ageria denez, Balendinentzat euskara errespetatu eta maite beharra dago, eta hori argi ikusten da euskara ama bat dela esaten duenean. Abstrakzio kontuak<sup>452</sup> idatzizko kulturarako laga egiten dituzte bertsolariak edo garai hartakoek behintzat.

Estiloaren alderdi hau, edo zehazki *Ama Euskera* metafora alderdi hau komentatzerakoan, ezin dugu ahaztu aurrekoengandik datorción tradizioa. Balendinek zalantza barik handik edan zuen. Hurbileko pertsonengandik hasita, bere aita Kepa da behin eta berriz irudi hau erabili zuen bertsolaria, bai ahoz bai idatziz. Adibidetzat hau:

[...] Besarkatu ama zar Euskera kutuna  
 [...] Seme biotzekuak maite dituz amak,  
 Baña semiek ama ... ete dabe danak?  
 [...] Ama Euskerearen seme "nagusiak" ...  
 Egizko euzkeltzale naiñun ikustiak. (K050b,c)

Beste zenbait kritikalarik esaten duten moduan<sup>453</sup>, Balendinengan Felipe Arrese Beitiaren eragina antzeman daiteke eta momentu honetan ez dakigu eragin hori zuzenki etorri ote zitzaion edo bere aitaren bidez. Ama Euskera aipatu dugunez, ezin ahaztu gai horretaz Arrese Beitiak idatzirikoko poemak: "Ama euskeriari azken agurrak" eta "Bizi da ama euskera" besteak beste. Poema edo bertso sorta hauetan aipaturiko gai honekin bete betean topatuko gara. Arrese Beitiaren beste poemetan ere gai hau agertzen da sarri. Hona hemen adibideren bat:

Neure biotzeko Amatxo zarra,  
 Antxiñako ama Euskera,  
 Seme leyal bat orain datortzu  
 Azken agurra emotera [...] <sup>454</sup>

<sup>451</sup> Ong, 1987, 51.

<sup>452</sup> Hizkuntzaren kontzeptualizazioa, hizkuntza komunikazio tresnatzat kontsideratzea, zentzu abstraktuan Balendin Enbeita bezalako egile batengan nekez aurkituko dugu, ahozkotasunean ia-ia erabat kokaturik baitago bere estiloa.

<sup>453</sup> Muniategi, 1995, 24.

<sup>454</sup> Urrutia, 1999, 81.

Arrese Beitiaren kasuan gehiago da personifikazioa eta batzutan alegoria bat, metafora bat baino. Euskararekin hitz egiten du seme leial bat lez eta gaixorik dagoen ama bat bezala deskribitzen du. Balendinengan nahiz eta pertsonifikazioa agertu<sup>455</sup>. Ama Euskera irudiak metafora ere bada, identifikazio bat egiten duelako:

Euskaldunaren ama euskera da. [...] (B087b)

Ama Euskera irudia aspalditik sortua da beraz. Erromantizismoan aurki diezaiokegu jatorria. Eta gaur egungo kulturaren bizirik dagoela esan dezakegu, erromantizismoko mitoak eta ideiak maldan beheran egon arren eta arbuiatuak izan arren. Laurogeita hamar hamarkadako rock talde euskaldun baten letretan antzeman daiteke irudi honen oihartzunak. Urtz rock taldea dugu hori eta talde horren kantu batek honela dio:

“agurearen hitzak ttut gogoan  
geure **ama** hizkuntzaz mintzerakoan  
«ni banoak seme, harzak hitza,  
emaiok euskerari hire bizitza»”<sup>456</sup>

### **Formulak**

Formulak erabiltzea, edo nahiago bada, metafora formulatuak, gure ustez ahozkoatasunaren indarraren seinale bat izan daiteke, ideologiak gora behera. Irudi honek euskal kulturaren arrakasta lortu edo behintzat ezaguna izan arte, denbora eta belaunaldiak pasa behar izan dira. Ez da izan egile baten lana, hori ezinezkoa da ahozko kultura baten, edo ahozkoatasunak indarra daukan kultura baten. Berez sormen lan itzela da irudi hau, zein mota honetako edozein irudi. Milman Parry-k dioen moduan:

A single man or even a whole group of men who set out in the most careful way could not make even a beginning at such an oral diction. It must be the work of many poets over many generations<sup>457</sup>.

Egindako metafora hori erraz erabiliko du egile batek, behin eta berriz errepikatua izango delarik. Beste poeta tradizionalak entzun egingo dute eta ondoren ideia bera adierazi nahi izaten dutenean eta neurri egoera berdinean aurkitzen direnean behin eta berriz entzundako irudi hori erabiliko dute.

[...] If the phrase is so good poetically and so useful metrically that it becomes in time the one best way to express a certain idea in a given length of the verse, and a such is

<sup>455</sup> "Ama Euskera" izeneko bertso-sortan euskararen pertsonifikazioa ikus dezakegu hirugarren bertsoan: "Erri bat daukat, bere ama naz, / semeak ditut ugari; amak maite dauz baina semeak / igezka dabiz amari. / Ardura aundiz begira nago / euren etorkizunari: / ama galtzean zein izango dan/ nere umezurtzen gidari", (B247c).

<sup>456</sup> "Oh, Lur" izeneko kantua, Urtz taldearena. Gor disketxea, 1994.

<sup>457</sup> Parry, M., 1987, 330.

passed on from one generation of poets to another, it has won suit in every way, (...) it is straightway forgotten, or lives only for short time<sup>458</sup>.

Honela funtzionatzen du egitura formularioa duen hizkuntza batek. Milman Parry-k esan zuen poeta gazte batek beste poeta zahar batengandik ikasten duela bere poesiagintza. Poesiagintzaren estilo orokorra ez ezik, izaera formularioa ere ikasiko du poeta gazteak. Hau entzuten eta gogoratzen lortuko du, eta azkenean poesia sortzeko modu hau ohizkoa bihurtuko da bere adimen poetikoan. Poeta gazte honek literatur kultura ez badu ezagutzen, ez du beste estilorik ezagutuko, tradizioz jaso duena baino. Bere poemak ekoizteko orduan ez du aurkituko gauza errazagorik eta atseginagorik, tradiziozko formulak, epitetoak, similak, metonimiak eta metaforak baizik. Metaforak, hala ere, gehiago dira idatzizko kulturaren produktuak, ahozko kulturarenak baino. Dena dela, idatzizko kultura pixka bat ezagutzen duen poeta tradizionalak, metaforak sortzerakoan, tradiziozko irudiak eta esaerak erabiliko ditu osagaitzat, eta beraz tradiziozko katea ez da etengo. Parry-ren ustez poeta tradizionala ez dago arduratuta estiloaz, edo behintzat ez dauka estiloaren oso iritzi kontzienterik. Estiloa inplizituki landutako alderdi bat da, aurrekoengandik datorkiona eta ez du egiten estiloari buruzko abstrakziorik. Bakarrik antzeppenaren presio pean arduratuko da estiloaz, eta betiko legez egitura formularioari eutsiko dio.

Milman Parry-k azaltzen duen hauxe bera gertatzen da bertsolariekin modu orokorrean eta zehatzago aztertzen ari garen bertsolari honekin. Balendinek metaforetarako erabiltzen dituen irudiak tradiziozkoak dira, naturatik hartutakoak hein handi baten edota euskal erromantizismoan sinboloa den baserriko girotik hartutakoak. Balendin bertsolari handi eta ezagun baten semea zen. Berak aitortua, bere aitarengandik asko ikasi zuen eta berak lehenengo bertsoa bere aita Kepari kantatu zion, txiki txikia zela:

Nire bertso mundua oraindik ume nintzala hasi zan.  
Bost urte inguru neukazan aitagaz  
Bizkargin ikasitako bertso bat abestu nebanean.  
Bardigotan, Ariatza Astelarreko  
tabernetan aititegaz ibiltzen nintzan bertso kantari<sup>459</sup>.

Urretxindorreneengandik esamolde eta errekurtsio asko bereganatu zituen. Lehenago esandakoaz aparte, beste bat aipatuko genuke, txikia eta garrantzirik gabekoa izan arren:

Zure musu zurian  
**eguzkiak diz-diz** [...] (B207b) (Balendinena)

Ortzia jarten dala  
**Eguzkia diz-diz** [...] (K065a) (Urretxindorrena)

“Zar eta gazte” edota “aundi ta txiki” formulak bai Kepak bai Balendinek askotan erabili zituzten. Horren erakusgarri hona hemen adibide hauek:

<sup>458</sup> Parry, M., 1987, 330.

<sup>459</sup> Enbeita, B., 1986, 63.

[...] eta txoriak, **aundi ta txiki**,  
pozez zorutzen danak kantari; [...] (B230b)

[...] **Andi ta txiki, zar eta gazte**  
Berton zagozen danori [...] (B062a)

Horrelako adibideak parra-parra daude bi bertsolarien bertsoetan. Aita-  
semeak ez ezik, beren garaiko beste bertsolari bizkaitarrak ere horrelako  
epitetoen zaleak dira. Basilio Pujana zeauritarrak honela zioen bertso baten:

[...] **aundi ta txiki** guztiok baiña  
batez bere jakitunak [...] <sup>460</sup>

Bertsolari beronek ere Ama Euskera irudia sarri erabiltzen du bere  
bertsogintzan eta ziurrenik Enbeitatarren eraginez; izan ere, Balendinez eta  
berak irabazitako txapelketa batez ari denean honela dio:



[...] Bear izana badauko baiña  
**Euskera Ama** laztanak [...] <sup>461</sup>

**Ama Euskera** ilten bajaku  
danok gara errudunak [...] <sup>462</sup>

Artzaiñak esan oi daben legez  
«Bildu artalde batera»  
guztiok bildots egin dagigun  
ta artzain **Ama Euskera** [...] <sup>463</sup>

Honek balio lezake frogatzeko ahozko  
kultura baten irudi batek bizirik irauteko eta  
nolabaiteko indarra izateko, komunitate osoan  
ezaguna izan behar duela, eta komunitateak  
maiz erabili behar duela. Osterantzean, irudi  
hori aldi labur baterako bizitza baino ez du  
izango.

Basilio Pujana

### 3.3.2. Metafora garbiak

<sup>460</sup> Pujana, 1986, 49.

<sup>461</sup> Ibidem, 49.

<sup>462</sup> Ibidem.

<sup>463</sup> Pujana, 1986, 49.

Igaro gaitezen metafora garbiaren arlorra. 57 metafora aurkitu ditugu bere idatzizko bi liburuetan (*Bizitzaren joanean* eta *Nere apurra* liburuetan, hain zuzen). Gogora dezagun metafora garbian termino erreala ez dela agertzen, eliditurik agertzen da. Metafora nahasietan agertzen ziren hainbat irudi metafora garbia bezala erabiliko ditu eta horren arrazoia hau da: egileak jakintzat ematen du zertaz ari den termino metaforikoa darabilenean. Jakintzat ematen du edo, hemen dago efektuaren koska, irakurle edo entzuleari uzten dio asma dezala zein termino errealari dagokion.

Metafora mota hau erabiltzen du askotan pertsona jakin batzuk adierazteko. Askotan, herriak darabiltzan irudiak erabiltzen ditu, berriro ere tradizionala dela erakutsiz. Herriak gorde dezake bakarrik gogora dezakeena, eta ezin du gogoratu ulertzen ez duena edo ezagutzen ez duena.

### 3.3.2.1. Txoriak eta bestelako hegaztiak

Hona hemen metaforen adibide batzuk txori edo bestelako aberekin egindakoak:

[...] belu dabizen **gau txoriari**  
bat be emon ez bakia. (B108a)

*Txoria* edo *gau-txori* metafora nahastua bezala aztertu dugu dagoeneko. Azken kasu honetan termino erreala ez da agertzen, egileak jakintzat ematen baitu pertsona batez ari garela. Bestetan ordea, txoriaren metaforak beste kutsu bat hartzen du, ironiazkoa hain zuzen. Hori ere ahozko jardunean nahiko zabalik dago, baita gaur egun ere, bai euskaraz zein gazteleraz. Horrek Balendinen estiloaren aberastasuna adieraziko luke, edo behintzat balizko aberastasunaren erakusgarri bat. Adibide gisa, hauexek:

[...] **txori** oi ezta gero makala,  
baki nun emon pausua [...] (B082c)

[...] **gau-txoriaren** fillosofian  
asko dauz aurreratuta [...] (B161b)

Aipatu dugun azken hau ironia zorrotzekoa da; izan ere, *gau-txori* aipatzen duenean “golfo” edo gaez parrandazalea dena adierazi nahi du. Eta *filosofia* aitatzean parrandazale haien jokaera edo jokaera hori justifikatzeko aitzaki edo arrazoi sorta adierazi nahi du. Beraz elementu biak elkartzean, alegia *gau-txori* eta *filosofia*, efektu ironikoa ez ezik, umorea ere sortzen da. Ildo honetatik, hona hemen beste adibide bat:

[...] Onen antzeko **txori nabarrak**  
noizbaiten dira ikusten  
melena eta bizardunakin  
gustora dira ibiltzen. (B220b)



Agerian uzten du Balendinek bere ironia kutsua, zeren eta “txori nabarrak” esaten duenean, bertso-sorta horretan ikusten denez, gaurko neskatxa modernoek ari baita. Umorezko burla kutsua ematen dio metaforari.

Hegaztiakin egindako metaforekin jarraituz, hona hemen hurrengo hauek:

[...]Hainbestekorik etzun merezi  
kantuan dagon **txindorrak** [...] (Bb170b)

Omenaldi hau eratua zan  
txindor kumiarentzako  
Baina larregi eristen dautsot  
**txori txiki** batentzako [...] (B171b)

Ildo beretik egin zioten beste omenaldi baten antzerako esamoldeak erabiliko ditu:

[...] Omenaldi bat pozik eskeintzen  
**txori txiki zahar** bateri [...] (Bb174b)

Bere buruaz daukan irudia “txori txiki” batena da, irudi apala beraz, bera izan zen bezalakoa. Alde batetik, familiaz datorkion tradizio bat da, txori baten ezizena hartzearena, alegia. Kepa Enbeitak, “Urretxindorra” zeukan bertsolari ezizentzat, nahiz eta bere lagunek “Pedro Jeuri” deitu. Lan honetan hainbestetan agertu den bezala, txoria irudi bezala ugaritasun handikoa da. Beraz, ez da arraroa bere burua “txori txiki” batekin identifikatzea aipatutako metaforen bidez. Honek ez du esan nahi bere bertsogintza balio gutxikoa denik. Bere bertsogintza epaitzeko, bertsogintza hori berori nola sortzen den jakin behar da lehenago.

Gai berauxe tratatu zuen Milman Parry-k Homeroren metaforak aztertu zituenean. Ezaguna denez, balizko Homero hura, existitzekotan jakina, poeta tradizionala izan zen, edo hitz gutxitan, berak idatzitakoa tradizioetik edandakoa baino ez zen, berak bere modura atondua. Aristotelesek Homeroren metaforak aztertu zituen eta antza denez ez zien balio handirik eman. Milman Parry-k honetaz dioena zera da: Aristotelesek zekarren kultura berriak ez zuela ulertu kultura tradizionala. Are gehiago, erromantizismoaren osteko poeta modernoek ere arbuiatu egin dute idazteko modu bat, zeinen bidez normala izaten baita hitzak epiteto tradizionalarekin lagunduta egotea. Badirudi kritikari berriek ez dutela ondo hartzen poeta batek beste poetengandik esamoldeak, epitetoak eta abar hartzea. Hori kritikagarria izan daiteke idatziz egindako poemetan, zeren eta poemaren sorketa beste modu batera egiten baita. Baina ahozko kulturari bizi den poeta batek bertsoak sortzeko ez dauka memoria besterik. Poema sortu eta antzeztu ia-ia batera egin behar ditu. Memoria horrek azkar jarri behar du martxan. Eta momentu horretan burura etorriko zaiona milaka aldiz entzundako formula, epiteto eta esamoldeak izango dira. Bere meritua honetan datza: elementu horiek ondo eta egoki erabiltzean, momentuan momentukoa. Afera horretaz Parry-k hauxe dio:

The reaction to the so-called age of classicism brought in the view which is still held that each word a poet uses should be the word of his very own thought and never simply a word that other poets had used. [...] We must not then condemn the language of their poetry before we have condemned their entire way of life [...] <sup>464</sup>

### 3.3.2.2. Zuhaitzak, landareak eta landare atalak

Aurreko azpiatalean (C.III.1. azpiatalean hain zuzen, "Metafora nahastuak" izenekoan) aipatu ditugu nekazaritza edo baserri giroko metaforak. Metafora garbien atal honetan badaude estilo horretako metaforak ere. Batzutan metafora sortak lortzen ditu horrela.

Baña zoriontsu zu izanikan  
zelan daukazuz **arantzak**?  
Txiro izanik aberatsaren  
**urregorritzko meatzak**? [...] (B097b)

*Arantza* irudia lan onetan metafora nahastua bezala aztertu dugu. Oraingo honetan, berriz, metafora garbitzat kontsideratuta dago, termino erreala agertzen ez delako. Bere esanahia "nahigabea", "mina", "arazoa" omen da. Bertso sorta horretan *arantza* irudia bost bider agertzen da eta euretatik bostetan metafora garbia bezala.

"Arantza artean" Balendinen beste formulatxoa dela esan daiteke. *Nere Apurra* liburuan lau bider agertzen da, beti hasierako hemistikioan, bost silabatakoa baita eta neurri handietarako egokia da beraz.

[...] **Arantza** artean, arantza barik  
itxaropentsu barrena, [...] (B097c)

[...] **Arantza** artian bizita ere  
sobra apur baleko,  
aberatsaren milloiak baño  
geiago zan beretzako. (B146c)

Bertsolari gazteetaz ari denean beste irudi hau erabiltzen du batzutan:

[...] Herri danetan gaur hasi dira  
**kimu** barriak sortutzen [...] (Bb167a)

Badirudi Xenpelarren bertsoaren oihartzuna dagoela puntu honetan, zentzuari dagokionez behintzat:

"Jaioko dira berriyak;  
gu gera euskalerriyak"

Beste irudi hau baserri ingurukoa da ere: *kimu*. Metafora nahastua aztertu dugunean zuhaitza agertzen zen askotan. Pertsona jakin baten metafora

---

<sup>464</sup> Parry, M., 1987, 370.

izaten da maiz. Metafora garbien artean ere *zugaitza* irudiarekin egindakoak ere aurkitu ditugu:

Gazte sendo, frutu emoile  
lerden genduan **zugaitza**  
uste gaberik **aizkora** baltzak  
sustarra ebagi dautsa [...] (B172a)

*Zugaitza* aipatzean ez du aipatzen "Jose Etxebarrieta" den termino erreala hasieran. Geroago bai, baina ez dauka zerikusirik hasierako esaldiarekin. *Aizkora baltza* aipatzean heriotza esan nahi du beraz, testuingurua kontutan hartuta antzeman daitekeenez. Hil bertsoak egiten dituenen formula batzuk eginda dauzka Balendinek. Arrospide bere herriko osagilea hil zeneko bertso hauek aipa ditzadan:

Frutu onen emoile  
genduan **zugatzak**  
danentzako zituan  
bardin bere emaitzak [...] (B227a)

Euskal kulturari beste bertso hau eskaintzen dio:

[...] Erdi bilozik gendun **zugatza**  
hasi da berriz loratzen [...] (Bb167a)

Hurrengo honetan, ordea, Uztapide bertsolariaren bertsogintza eman nahi du aditzera testuinguruari antzeman diogunez, zeren eta termino erreala ez baita agertzen:

[...] frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere **arbolak** [...] (B155a)

Mota berdinekoak dira jadanik aztertutako *baratza* eta *lora*, esan nahi baita, irudi horietatik egileak tasun batzuk aukeratzen ditu metafora eraikitzeko, eta kasu honetan metafora garbia eraikitzeko. Zergatik ezkutatzen da termino erreala? Egileak suposatzen duelako entzulegoak edota irakurlekoak badakiela zertaz ari den. Izan ere, termino erreala ez agertu arren, oso erraza da zertaz ari den igartzea. Bousoñok azaltzen du zergatik den metafora ezaguna, literaturaz jantzita ez dauden artean ere:

[...] incluso ha habido -y hay- gentes que hablan de él como si lo estimasen, si no único, el recurso más importante de la poesía. Acontece esto por una razón muy simple: la metáfora es -de eso no hay duda- el artificio más objetivamente discernible de cuantos nos revela la lectura rápida de unos versos. Otros instrumentos de expresión -no menos frecuentes que la metáfora- son más trabajosamente detectables, porque ha de entrar en juego, en muchos casos, la sensibilidad educada, que, desgraciadamente, no abunda, y a veces ello se precisa en grado sumo para contemplar en la poesía un artificio.<sup>465</sup>

---

<sup>465</sup> Bousoño, 1985, 104.

Esan bezala, *lora* eta *baratza* metafora garbien arloan pertsona jakin batzuk adierazteko balio dute, batez ere andrazkoak direnean.

Zer dakastazu maite,  
biotzeko **lore**? [...] (B207a)

**Lora** gazte maitia  
ain zagoz dotore [...] (B208c)

Azken bi horietan Ama Birjinaz ari da. Ama Birjinaren izena aipatu gabe bertso horiek irakurtzean erreza da jakitea nori zuzentzen zaion. Ezin da esan metafora orijinala denik, tradizionala eta askotan erabilia baizik. Hori dela eta, metafora garbiaren itxurapean agertuko da. Arrese Beitiak ere Ama Birjinaz aritzen zenean *lora* irudia erabiltzen zuen:

[...] Au zan andia, baña **lora** bat Zerutarra  
Neguan sortu an egiten da uste baga [...] <sup>466</sup>

Kepa Enbeitak beste horrenbeste egiten du Ama Birjinaz bertsoak egiterakoan:

Argi gustijen argia  
Lore guztijen **loria**  
usaintsu bardin bagia [...] (K091i)

Hain ezaguna den irudi hori erabiltzerakoan ez du aipatuko termino erreala. Era horretan entzulegoarekin (eta irakurlegoarekin ere bai) konplizitatea sortuko du, badakielako entzulea horren jakitun dela eta, beraz, enpatia ere sortuko du. Hitzunen komunitate osoa ahozko jakituri horren partaidea da eta mota honetako irudiak entzun edota irakurtzerakoan ez du beste azalpenen beharrik. Bertsolari batek esandakoa komunitateak ulertu eta onartzen duenean elkar identifikazio bat sortzen da. Horrela azaltzen du Walter J. Ong-ek:

Para una cultura oral, aprender o saber significa lograr una identificación comunitaria, empática y estrecha con lo sabido, identificarse con él. <sup>467</sup>

Ama Birjina ez ezik *lore* eta *baratza* hitzak beste izateak adierazteko erabiltzen ditu. Maitasunezko bertsoetan, esaterako, bere maitearen irudiak izaten dira aipatu bi horiek:

Lore arteko usain gogozko  
ames gozoen **baratza**  
bizibideko laztasunean

<sup>466</sup> Urrutia, 1999, 699.

<sup>467</sup> Ong, 1987, 51.

sentitzen ez dan **arantza** [...] (B245c)

Baratz erdiko **lora urdina**  
nai zaitut nere onduan [...] (B246a)

Emakumeetaz hitz egiteko ere antzerako beste irudi hauek darabiltza:

Euskalerriko **baratz urdinak**  
baditu hainbeste lora [...] (B245c)

[...] ames gozotan juaten nintzan  
lora billa **baratzera** [...] (B258b)

Emakumeen artera esan nahi du azkeneko *baratzera* adlatiboarekin. Bitxia da bi puntutan agerturiko *urdina* kolorea: badirudi garbitasun eta goitasunaren kolorea dela (zuriarekin batera).

Bere amak ere merezi izan zuen lorearen metafora hori:

Baratz erdiko **lore** usaintsu  
irribarredun **larrosa** [...] (Bb175b)

Azpimarratu dugun *baratz erdiko* hori, ikusi ahal izan denez, Balendinen formula bat da besteak bezala oso egokia lehenengo hemistikioa osatzeko, bost silabakoa da eta. Gainera, *baratz erdiko* erabiltzeak semantikoki indarra emango dio ondoren datorrenari. *Baratz erdiko* sintagmak nolabaiteko aukeraketa edo lehentasuna ematen du aditzera.

Metafora garbiekin batzutan zera gertatzen da: termino erreala izkutatuta edo eliditurik dagoenez, batzutan zaila izaten da asmatzea zehazki zer esan nahi duen, gutxi gora behera nondik nora doan jakin arren. Adibidez, Don Ilario abadearen hilketa dela eta, hurrengo hau esaten du:

[...] Berak landuta erri onetan  
**sasiz** eguan **baratza** [...] (B159a)

Testuingurua kontutan hartuta, baliteke arimekin egindako lana esan nahi duela *baratza* irudia erabiltzean. *Sasi* aipatzean oztupoak, nagikeriak eta utzikeriak ekarri nahi omen ditu gogora.

### 3.3.2.3. Eguneroko tramankulu eta tresnak

Metafora nahastuaren atalean bezala, eguneroko tresnekin eta bestelako gauzeekin eraikitako metafora garbiak agertzen dira Balendin Enbeitaren bertsoetan.

[...] Asto pareko amaika **kirten**  
bizi da gure munduan. (B103c)

Kasu honetan *kirten* hitzak pertsona hitza ordezkatzeko du. Gaur egun hitz horrek garapen semantiko bat jasan du eta adjektibo bilakatu da, baldarra edo leloa zentzuaz. Hasiera baten euskarria edo “mango” (edo “tallo”) esanahia baino ez zuen izango, zerbait zurruna. Kirtena oratzeko balio duen zerbait da, gauza bat maneiatu ahal izateko, balio gutxikoa beraz. Berez ez du balio handirik, itsatsita daukan tresna da balio duena. Kirtena,, goian ikusi dugun metaforan, ezaugarri hauek gordeko lituzke:

- Berez baliorik gabekoa.
- Nortasunik gabekoa.
- Maneiatua izan daitekeena, e.a.

Ezkatuan dagoen terminoa, hau da “pertsona” edo “gizakia”, *kirtena* hitzarekin identifikaturik dago. Are gehiago, puntu berean, metafora bat ez ezik, konparazio bat ere daukagu: “asto pareko”. Lelotasuna argi eta garbi adierazita dago, umore kutsuarekin gainera. Hauxe da Balendinen estiloa: batzutan xamurtasuna eta fintasun handia erakutsi arren, oinak lurrean dituela erakusten du behin baino gehiagotan, umorea, ironia eta esamolde herrikoiak erabiliz. Mundu honetan bizi dela argi eta garbi erakutsi nahi du gure Enbeitak. Horrek ez du esan nahi ideal baten atzean ez dabilenik. Errealitatearen ikuspegi estilizatua<sup>468</sup> dauka Balendinek, errealitate horretatik momentuan egokiena dena erakusten du. Baina horrek ez dio eragozten alderdi txarrak erakustea, kritikatzeta eta aldatzen/ hobetzen saiatzea. Berak hainbeste maite duen baserria aipatzean ere, dena ez da gozoa. Onartzen du gaur egun baserriko bizimodua ez dela erraza, krisian dagoela. Alde horretatik kezka soziala ez du ezkatzen:

Egun osoan lanian eta  
 ondiño lanak aurrera,  
 baserriarren lanbide onek  
 ez dakit nun daun barrera;  
 eta kalia izaten dogu  
 oso eskasa arrera,  
 giza-legean ez al da sartzen  
 baserriarren karrera? (B243a)

Beraz errealista eta idealistaren arteko erdibidean aurkitzen da. Muxikako bertsolaria "in medio virtus" delakoaren aldekoa da nonbait. Sarritan esan dugun lez hitz abstraktuak saihesten ahalegintzen da Balendin behin eta berriro:

[...] Euskera zarrak mendian dauka  
 lenengo **jarleku** [...] (B115a)

---

<sup>468</sup> Fernandez, P.H., 1986, 16.

Nekez esango du "jatorri" bezalako hitz abstraktua irudi bat erabiltzeko aukera duenean. Izan ere, *jarleku* irudiak hori esan nahi baitu: euskararen jatorria edota sorreraren eremu naturala. Bere aitaren bertso batzuen oihartzun argi eta garbia daukate. Hona hemen bertso horiek:

[...] Euzkera zarra mendijan dago,  
Jaungoikuari begira.  
Mendijan dagon alaitasunaz,  
Mendi-mutilok, nun dira? (K038d)

“Baimena” edo “borondatea” abstrakziozko mailadun hitzak erabili beharrean ikus dezagun zer irudi darabilen:

Toki asko emazte billa  
jo izan duzu **atia** [...] (B108a)

Kasu honetan badirudi baimena eske edo bilatzen ibili dela. *Atia* beraz, borondatezko adostasuna adierazi nahi omen du. Irudi horretatik hauxe hartu omen du:

- “Barrura” sartzeko ahalmena, bideratzea edo ezintasuna (itxita dagoen kasuan).
- Sartzeko baimena eskatu behar den lekua edota eremua.
- Bestearen erantzuna jasotzeko itxaron behar den lekua edota eremua.

### 3.3.2.4. Erliziozko irudiak

Irudi berri bati ekingo diogu orain: aingerua. Balendin Enbeitarentzat hildako haurrak aingeruak dira beti, orban bako haurrak, hil eta gero zeruan zoriotsu eta hegaz, aingeruak legez, dabiltzanak.

**Aingerutxo** bi goian egazka  
aita badela erdian [...] (B256b)

Goian aitagaz **aingeru**txo bi  
beian amagaz beste bi [...] (B256c)

Bertso-sorta horren *aingeru* irudia aipatzen den lau bertsoetan ez da azaltzen ama batek seme bi galdu dituenik. Bai ordea istripu bat dela medio bere *aingerutxo* biak eta bere senarra hil direla. *Aingerutxo* bi horiek bere bi semeak direla suposatzen da, eta gainera, zalantzarik balego, azken ahapaldian *aingeru* irudia albo batera utzita, egoera azaltzen du. Alderdi hau bere aitarengandik heredatu zuen Balendinek. Urretxindorrek azkenerako uzten zuen bere moraleja, alegoria antzeko bat kontatu ostean. Zentzu moralizantekoa zen bere estiloa askotan. Adibide bat jartzearen horra honako hau:

Gaitz da beti ixatia danen jaun ta jabe  
 Dollorkeriz ba'dabil, gaitzago atan be ...  
 Luzaro bere aldez asko eukita be,  
 Azkenez ostikoka erabilko dabe. (K179n)

Bertso sorta honetan Udaberria eta Negua pertsonifikaturik agertzen dira eta elkarrekin eztabaida edo elkarrizketa bat daukate. Azkenean, aparteko ahots batek, egilearenak, goiko hori erabakitzen du edo aholku hori eskaintzen dio irakurleari.

### 3.3.2.5. Ama eta senitartekoak

Esana dago aurreko atalean (metafora nahastuaren atalean), euskara Balendinentzat (hainbat euskal poeta askorentzat bezala) ama dela. Hain berenganatua dauka pentsaera hau ezen batzutan metafora nahastua izan beharrean, metafora garbitzat erabiltzen baitu, hau da, termino erreala (euskara) desagertzen da. Beraz, batzutan metafora nahastua eta bestetan metafora garbia. Adibidez, “Ama Euskera” izenburudun bertso-sortan ahapaldi oso batean ez da agertzen termino erreala, metafora garbia baino ez da agertzen.

Erri bat daukat, bere **ama** naiz  
**semeak** ditut ugari  
**amak** maite dau baina **semeak**  
 igezka dabiz **amari** [...] (B247c)

Euskeriaren ondamendiko  
 arerio gogorrenak  
 ezbaierik bage esan legike  
 diriala euskaldunak;  
 euraren ama baztertu daben  
**ama-ordiaren** lagunak [...] (B087c)

*Ama* euskararen irudia baldin bada, *ama-ordia* erdera edo gazteleraren irudia dela ondorioztatzen da. Zentzu honetan, mende hasierako eta aurreko mendearen bukaerako ideologiaren zabaltzailea da, bere aita izan zen bezala. Ideologia abertzale horren arabera euskara gure ama da, eta euskaldunak haren seme-alabak. Euskara gaixorik dago eta seme-alabok askotan ez dugu ezer egiten gure ama laguntzeko. Are gehiago, seme-alaba asko, beren ama baztertuta, ama-orde pean jarri dira. Horregatik esaten da euskaldunak askotan direla euskararen etsairik gogorrenak: eurak euren ama salbatu dezaketen bakarrak izanik ezer ere egiten ez dutelako. Gai hau Kirikiñok tratatu zuen bere artikuluetan eta ideia horrek bere hedapena izan zuela erakusteko ekartzen dugu hona:

“Ta orratiño, orrexek, irribarretxudunok, izaten dira aurrenengo euren buruak euskalduntzat agertuten iñoz gure Erriko gauzen ganean barriketa-aldiak egiten direanean; orduan izaten da berbatxu bat edo bi euskeraz esatea, orduan a!, ta o!-ka ibiltea, <<Gernika'ko arbola>> dala, gure ekanduak edo kostumbreak direala.



Guztia barriketa utsa! Zelan izan leiteke euskaldun ona, euskera jakin eta egin gura eztabena? Zelan izan leiteke euskaldun ona, euskereari destaiñaz begiratuten deusana?" (1902-I-12)<sup>469</sup>

### 3.3.3. Metafora sortak edota alegoriak

Lehen esan bezala, Balendinek ez ditu metafora isolatuak bakarrik erabiltzen. Metafora sortak ditu gustuko, bertsoari alegoriazko usaina kutsatzen diolarik:

[...] **Lur** maite honek emon daiazan  
biharko **frutu** barriak  
**erein** daiguzan gure garaitza  
lortuko duten **aziak** [...] (Bb171a)

Euskal kultura aitzakiatzat hartuta, baserriko soloko lan eta elementuekin metafora sorta ederrak sortuko ditu, hurrengo honetan legetxe:

Bakoitzak bere **ale** apurra  
**lurrean** jartzen jarraitu  
**Lur maminean errotu** eta  
**sasi artean jorratu**  
Herriarentzat beharrezko dan  
**frutua** dagigun lortu  
Ondorengoek gure egintzak  
ontzat dagiezan hartu. (Bb191c)

Metafora batzuk hain erabiliak dira ezen fosilizaturik daudela esan dezakegula. *Giltza* irudiak jatorria edo "klabea" esan nahi du, gazteleraz bezala eboluzio semantiko bat jasan duelarik. Beste hitzetan esanda "funtzionamendu egokirako artikulazio elementu ezinbestekoa" da *giltza* irudiak esan nahi omen duena, ondorengo puntuan bezala:

[...] amagan dagoz famili baten  
maitasun bakezko **giltzak** [...] (B247b)

Ondoren, gorputzaren fisiologiarekin zerikusia duten metafora pare bat:

[...] niregan beti izangozue  
erri bizitzaren **arnas** [...] (B248b)

[...] zugandik artu dogu  
euskaldun **odola** [...] (B264a)

Lehenengoan Ama Euskera da mintzo dena, eta *arnas* iruditik hauxe hartu du ezaugarritzat:

---

<sup>469</sup> Bustinza, 1966, 182-183.

- Bizirik irauteko eta ez itotzeko egin beharrekoa (izaki bizidun batengan).
- “Barnea” elikatzeko ekintza.

Metafora baten identifikazioa erabatekoa da baina sakoneko egituran ezaugarri jakin batzutan ematen da, goian aipatutakoetan adibidez. Baina irudiak psikean eragiten du tasun horiek inplizituki eta berehala antzemateko. Bide intuitiboa da neurri handi baten metaforak entzule edota irakurlearen burmuinean eragiten duena.

Kontzientziaren metafora *arra* da, soloko kokorro bat, askotan harrapagaitza, beti hatzamarikatzen edo barnea urratzen ari dena, isilean baina etengabe. Irudi egokia nonbait:

[...] ori da gure barne ixilean  
zirikatzen gaitun **arra**. (B236c)

Euskal sukaldaritzako jaki bat ere erabili zuen Balendinek oso metafora sinpatikoa sortuz:

[...] Era hontako **porru saldarik**  
gatx da egosten **galdaran**. (Bb188c)

Hemen *porru salda* irudiak kontraesana edo nahaste-borrastea adierazi nahi omen du eta egileak jakintzat ematen du, zeren eta ez baitu azaltzen zein termino errealari dagokion.

#### 4. Ondorioak

- a) Balendin Enbeitaren estiloak Urretxindorraren estiloaren ezaugarri estruktural berberak hartu eta beraiek berenganatu dituela ikusten da, nahiz eta harekiko zenbait garapen eta alde antzeman daitezkeen.
- b) Balendinen hizkera Mendebaldekoa dela esan liteke, eta beraz puntu honetan bere aitaren jarraitzailea da. Hala ere, ez du jarraitzen zehatz-mehatz Sabino Aranek bultzatu zuen neologismoen zerrenda osoa (batzuen batzuk erabiltzen dituen arren) eta are eta gutxiago ortografia. Mendebaldeko bertsogintzaren jarraitzaileetako bat dugu beraz, bere aitak sendotu zuen bertsogintza baten jarraitzailea hain zuzen. Bere hizkerak hoskidetza ereduak eta oinak baldintzatuko ditu.
- c) Eпитeto eta formulez baliatzen da Balendin Enbeita. Gehiegi erabiltzen ez duen arren, honek adierazten digu ahozkoatasunaren pentsaerari eusten diola, baita idatzizko produkzioetan ere. Erabiltzen dituen epiteto eta formulak konposizioaren osagarriak direla ikusten da, *composition in performance* (Finnegan) delakoan hain beharrezkoak direnak. Ikusten da beraz, bat-bateko jardunean erabiliko lituzkeen zenbait errekurtsio idatzizkoan ere erabiltzen dituela eta honek sendotzen digu erdi-ahozkoatasuneko testu baten aurrean gaudelako ustea.

- d) Pilaketen erabilerari dagokionez, Balendinek bere aitaren joera berberak erakusten ditu, eta modu berean ere erabiltzen ditu: hartzailearengan gogo higidura azkar bat eragiteko, premia metrikoak trebetasunez asetzeaz bat.
- e) Irudi edo errekurtsio patetikoak (deiadarrak, galdera erretorikoak) ez dira oso ugariak bere bertsogintzan, batez ere bere aitaren bertsogintzaren aldean (agian bere garaikideen aldean ugariak direla izan zitekeen). Bertsolaritzaren poetikak alde horretatik aldaketa bat jasan duela ikusten da; izan ere, deiadarrek pentsaera tinko bat behar dute atzean, erabateko segurantza nolabait esateko, eta Balendinen garaian existentzialismoa bezalako joerak indarra hartuz joan ziren, baita euskal gizarte eta kulturaren ere.
- f) Bigarren pertsona bati apostrofea zuzentzeko joera duen arren, ez du horren tonu larrian egingo. Bere aitaren aldean behintzat, era zuhurragoan egingo du apelazio edota apostrofe hori. Hau XX. mendearen bigarren zatian nagusitu zen erlatibismo baten ondorioa da, zeinen bidez pentsaera tinko eta gogorra fundamentalismo edo integrismo zurrun bezala kontsideratzen den. Ezin da ahaztu bestaldetik, Balendinen ideologia ez dela mugatzen bere aitaren alderdiaren irizpideetara, eta esplizituki agertzen ez duen arren, errebisionismo joerak agertzen ditu behin baino gehiagotan. Honen guzti honen ondorioz, bigarren pertsona baten, euskaldun arrunt baten jadanik ez du aurkituko alderdikide bat, eta horrek konfiantza kentzen du.
- g) Balendinen metaforak aztertzean, bestalde, ikusten da ahozkotasanaren ezaugarri asko gordetzen dituela, nahiz eta idatzitako bertsoak izan. Hauexek dira ezaugarriok laburki:
1. Alde batetik, aho hizkeraren epiteto, formula eta esakera asko darabiltza, tradizionala dela erakutsiaz. Ahozko kulturaren egileek tradizionala izateko joera dute. Izan ere, Walter Ong eta beste ikerlarien iritziz, zorakeria litzateke baztertzea Herriak, edota gizarte oralak, gizaldietan zehar, nekez landutako esaera, irudi, epiteto jator eta bikainak. Herriak sortutakoak dira, eta Herriak ez bestek ulertu, gorde eta gogoratzen ditu. Horrela, hiztunen komunitateak errazago konektatuko du komunitate horretatik sortu den bertsogile tradizionalarekin, amankomuneko enpatia sortuz. Zenbait irudi formula bilakatuta daude eta sarritan eta batzutan izen baten osagarriak izaten dira. Bost silabakoak dira neurri nagusietan, hemistikio baten kokatu daitezkeelarik<sup>470</sup>.
  2. Era berean, Balendinen irudiak, eta kasu honetan metaforak, giza bizitza errealari lotuta daude. Hori garbi ikusten da baserri giroko hainbat elementu metaforatzat erabiltzen dituenean. Kontzeptu abstraktoak irudi batez mozorrotuak agertzen dira eta irudi hori baserri edo nekazaritza mundutik aterata dago hein handi baten.
  3. Ezaugarri hauek ikusita, poeta tradizionala, eta dagokigun kasuan, bertsolaria aztertzeko, kontutan hartu behar da ekoizpen literarioa

---

<sup>470</sup> Izenaren osagarri bezala, “Suster bateko (arbola/ larrosa ...)” dugu besteak beste. Bestelako formuletatik batzuk, hauexek: “arantza-artean”, “txori kantari”, “bide zuzena”, “frutu emoile”, “arantza artean”, “andi ta txiki”, “zar eta gazte”, “Ama euskera”.

zein motatakoa izan den. Ahozko kultura bizirik dagoen gizarteetan ahozkotasanaren psikodinamikak kontutan hartzea ezinbestekoa suertatzen da azterketa hori burutzeko.

## **12. kapituluua**

### **Ideologia**

## O. Sarrera

Atal honetan Balendin Enbeitaren ideologia aztertuko da, batez ere ideologia horrek haren estilistikarekin zerikusia edo harremana duen neurrian. Ezaguna da mugimendu politikoek literaturan izan duten eragina. Literaturan ez ezik herri kultur adierazpideetan ere nabaria izan da eragin hori. Kulturgintza tradizionalaren barruan, ahozko literaturan edo ahozko artean politikak<sup>471</sup> izan duen eragina kontutan hartzekoa da, egitera goazen azterketa hau burutzerakoan.

Ahokotasuna eta bere joerak ez dira geratuko azterketa honetatik at, izan ere, eta ikerketa honen beste ataletan erakutsi izan den legez, ahokotasunaren ezaugarri eta joera asko antzeman daitezke Balendin Enbeitaren bertsogintzan.

Egile batek barne arrazoi batzuek bultzatuta jorratuko du estilo bat. Barne arrazoi horiek kontzientek edo inkontzientek izan daitezke, noski. Arrazoietakoa bat ideologia politikoa izan daiteke<sup>472</sup>, bera hutsik edo beste ideologia sakonago baten txertaturik. Egileak landutako erregistrotik sortuko da estilo hori. Segun eta zein egoeratan bizi den egilea, erregistroak ezaugarri batzuk izango ditu. Balendin Enbeitaren egoera herrikoa da, tradiziozalea, baserritarra. Beraz, suposatzekoa da erregistro mota honetatik sortuko direla Balendin Enbeitaren irudiak eta errekursoak. Honen ondorioz, ahokotasunak indarra izango du (erregistro herrikoian ahokotasunak indarra duela baieztatzen bada). Balendin Enbeitaren ideologian hori agertzen edota frogatzen ahaleginduko gara kapitulu honetan.

Beraz, esan daiteke atal honetan ahokotasunaren estiloak eta ideario politikoak elkarren artean duten harremana azaltzen ahaleginduko garela. Horretarako beharrezkoa deritzogu ideologia hori non kokatzen den zehazteari. Helburu hori jadesteko metodologiak tresna bat behar duelakoan gaude. Badira

---

<sup>471</sup> Ruth Finnegan ikerlariak ahozko poesiaren eragina gizartean aztertzen du *Oral Poetry* lanean. Azterketa horretan lortu duen perspektibarekin esaten du askotan ahozko poesia eta idatzitako poesia erabilia izan dela era desberdinetan gizarteari eragiteko. Gai honetaz hauek dira bere hitzak: "Oral- like written- poetry can be used to bring about a variety of effects on the individuals, social groups, and social institutions with which it is involved. It can be used to influence people's ideas, introduce (or combat) change, uphold or challenge the political order -and a whole range of other possibilities", Finnegan, 1992, 269.

Lan horretan ere aipatzen ditu ahozko poeten zenbait jokaera eraturako boterearen sostengatzaile legez jokatzen dutenean. Kasu horiek erakutsi ondoren baieztatzen hauek egiten ditu: "[...] the practitioners of this poetry have an approved opposition consonant with the recognised values and power-structure of the society. [...] there are often whole bands of poets, minstrels and musicians, each with his specialised task, and all charged with the duty of supporting the present king with ceremonial praise of his glory and the great deeds of his ancestors. [...] poets have often become a power in their own right. They help to uphold the authority of state or religion ", Ibidem, 188-189.

<sup>472</sup> Ez da ahaztu behar ideologia politikoek iruditegi jakin bat erabiltzeko joera daukatela eta iruditegi horretatik hainbat errekurso literario sortzen direla.

ideologiak edota, azterketa arloa murriztu nahi izanez gero, euskotar<sup>473</sup> ideologiak aztertu dituztenak. Haien artean Zientzia Politikoetan katedratikoa den Antonio Elorzaren bi lan aukeratu ditugu: *Ideologías del nacionalismo vasco*<sup>474</sup> eta *La religión política*<sup>475</sup>. Lehenengoan euskal nazionalismoaren azterketa zabala egiten du, batez ere Sabino Aranaren doktrina politikoa erreferentetzat hartuta. Bigarrenean zazpi mugimendu politikori estudio bana eskaintzen die, zeintzuetan politika erlijio bezala kontsideratua izan den, integrismoari esparrua eskainiz. Zazpi mugimendu politiko horietako bat Sabino Aranaren nazionalismoa da, egilearen ustez. Mugimendu nazionalistak, Antonio Elorzaren iduriko, alor bikainak dira -baina ez bakarrak- “erlijio politikoak” izan daitezkeen sistemak eraikitzeko. Horretarako sakralitatea garraiatzen da alor politikora. Euskal Herriaren kasuan, katolikotasuna oso bizirik zegoenez eta erlijioak pertsonen mentalitatea eratzen zuenez, zenbait abertzale saiatu ziren politika erlijio zibila bihurtzen. Joera honek ahozkotatasuna izan omen zuen jorrazteko arloa.

Ez da atal honen helburua lan horien egokitasuna edota zuzentasuna epaitzea. Antonio Elorzak lan biotan egiten duen azterketa nahiko zabala da eta arlo asko jorrazten ditu. Azterketa honen ikuspegi zabala da hain zuzen lan bi hauek tresna egokia bilakatzen dituen, gure aburuz behintzat. Antonio Elorzak egiten duen ideologia abertzalearen azterketa hau Balendin Enbeitarengan nola eta zer neurritan gauzatzen den (gauzatzen baldin bada) da atal honetako metodologiaren ildo nagusia.

Azterketa honetarako bi ikuspegi erabili behar direla otu zaigu. Izan ere, Balendin Enbeita bezalako bertsogintzaren mezuan badira:

- ? Irudiak: mezu eta ideologia baten zerbitzuan daudenak, eta kokatzen errazak direnak. Irudi horiekin, metaforak, alegoriak edota sinboloak (besteak beste) sor daitezke. Mezua inplizitua izango da eta irudi horiek hausnartzearen ondorioz igarri daiteke.
- ? Irudi gabeko mezuak: mezua gordinik ematen zaio entzule edo irakurleari. Baliteke irudi apaintzaile batzuk agertzea, baina ez dira mezuaren gunea izaten, osagarriak baizik.

Beraz, azterketa honek bi zati nagusi izango ditu, ikuspegiaren arabera biak:

- ? Irudi estilistikoaren bidez antzematen den ideologia aztertzea.

---

<sup>473</sup> *Euskotar* edo *euzkotar* hitza erabiltzean, Euskadin jaioa edo Euskadiko eremuari dagokiola esan nahi dugun arren, beste lurraldeetako euskal kutsua duena ere adierazi nahi dugu. Hitz honek abertzaletasun sabindarrean dauka jatorria, badakigu. Guk egokitzen jotzen dugu, batez ere aztertzen ari garen egileek iturri horretatik edan zutelako, eta elkar ulertzeko -hemen behintzat- erosoagoa delako. Bestela “euskaldun” edo pareko bat erabili beharko genuke, eta ezaguna da “eskaldun” eta “euskotar” gauza desberdinak izan daitezkeena.

<sup>474</sup> Elorza, Antonio. *Ideologías del nacionalismo vasco*. Haranburu, Donostia, 1978, 188.

<sup>475</sup> Elorza, Antonio. *La religión política*., Haranburu, Donostia, 1995.

? Eduki ideologikoa duten diskurtsoak aztertzea.

Ekin diezaiogun azterketaren lehenengo arloari

## **1. Irudi estilistikoaren bidez antzematen den ideologia**

Badira irudi batzuk ideologia baten isla direnak eta, bertsolari baten estiloa eta iruditegia definitzeaz gain, haren ideologia sistema ezagutzeko parada ematen digutenak. Batzuen batzuk, metafora edo sinbolo bezala aztertuak izan dira jadanik. Ideologiaren ikuspegitik begirada bat falta zaie, eta horixe da oraingo gure eginkizuna.

### **1.1. Ama Euskera**

Balendin Enbeitaren estilistika aztertzen duen atalean agertu izan da irudi hau eta honi buruzko iruzkina. Ideologia politikoa aztertzerakoan irudi giltzarria dirudi metafora honek, nahiz eta estilistikoki inpaktu edo efektu handiegikoa ez izan.

Antonio Elorzaren iritziz, Sabino Aranaren abertzaletasuna erlijio politikotzat kontsidera daiteke<sup>476</sup>. Irudi literarioa izan arren, *Ama Euskeraren* atzean sakralitatearen garraiotze bat suma liteke. Irudi honek Eliza Ama irudiarekin antzekotasuna dauka: Elizak kristauak biltzen ditu, Jesukristoren jarraitzaileen arima bezalakoa da, eta entitate propioa du. Kristauon sinismenean ez da irudi soil bat, izana duen zerbait baino. Eliza kristauen Ama da, eta hori zenbait jokoeretan nabaritzen da:

- ? Semeak sortzen ditu: Bataioaren bidez kristauei Jainkoaren bizitza ematen die.
- ? Bere semeetaz arduratzen da: Elizaren Magisterioaren bidez kristauak hezi eta gidatzen ditu haien azken helburua lor dezaten eta arriskuak saihestu ditzaten.
- ? Bere semeak elikatzen ditu: Sakramentuen (Eukaristia, Sendotza) bidez kristauen barne bizitza indarberritzen du.

Ezin da ahaztu, bestalde, katolikotasunean Ama Birjinak duen garrantzia. Eliza Amatzat ezagutzen bada, Andre Maria Elizaren Ama ere bada.

Gauzak horrela ez da erraza zehazten (dauzkagun datuekin), Ama Euskera irudiak non duen bere jatorria: Ama Elizarengan ala Ama Birjinarengan<sup>477</sup>.

<sup>476</sup>"El nacionalismo de Sabino Arana no es el único caso de conversión de una ideología en una religión política. Por distintas vías el fascismo italiano o el comunismo soviético pueden también ser consideradas religiones políticas, que operan una transferencia de sacralidad a partir del catolicismo y de la ortodoxia desde una perspectiva totalitaria.", Elorza, 1995, 33.

<sup>477</sup> Ezaguna da erromatizismo alemaniarrean nazioaren **arima** edo **ama** Herriaren kulturaren, jakintza herrikoian, balada eta kontakizun zaharretan eta hizkuntzan bilatu nahi zela. Hori ere sakralitatearen



Argi dagoena da Katolikotasunean amatasuna oso elementu garrantzitsua dela Jainkoaren agerkariak ulertu ahal izateko. Katolikoek pentsamoldeetan amatasuna sakralitatea jadesteko bide bat da, oso bide preziatua eta estimatua, barne bizitzaren xamurtasuna eta afektibotasuna berenganatzen dituen.

Dena dela, Balendin Enbeitari dagokionez behintzat, zerbait adierazi beharra dago. Bat-batean botatako bertso batzuetan oso hurbil agertzen dira Ama Birjina eta *Ama Euskeraren* irudia. Arantzazun egin zen Euskaltzaleen biltzar batean kantatutako bertso baten, Balendin Enbeitak Ama Birjinari egiten dio erreferentzia, eta bertso berean euskararen pertsonifikazioa egiten da:

Arantzazuko Ama barreka  
dago arantza gaiñetik  
[.] euskera maite izan daigula  
ez dau agintzen besterik.  
Gaur egunian maitasun ori  
ia dakusta galdurik,  
[...] onexek dauka gure euskera  
burua jaso eziñik. (B091b)

Geroago bota zuen beste bertso baten *Ama Euskera* irudi pertsonifikatua agertzen da gardenki:

[...] Zapiok kendu, jagi gaitez  
euskeraren alde egiz,  
eta maitatu Ama Euskera  
egizko maitasun garbiz. (B092b)

*Ama Euskera* Sabino Aranak (1865-1903) asmatutako irudia izan ez arren, idazle eta artista abertzaleek berea egin zuten. Bertsolaritzaren kasuan pertsonifikazio mota hau euskal hizkuntza adierazteko egiten da batzutan eta beste batzutan aberriaren kontzeptua irudikatze.

Orden kronologiko bati men eginez, Felipe Arrese Beitia (1841-1906) olerkaria kontutan hartzen hasiko gara. Aipatutako *Ama Euskera* irudiak "Ama Euskeriari azken agurrak" izenburudun olerkiaren muin tematikoa osatzen du. Bertan, estreinako aldiz euskal literaturan *Ama Euskeraren* pertsonifikazioa egiten da. Hari zuzentzen zaio Felipe Arrese Beitia bere olerki horretako ahapaldietan:

Neure biotzeko Amatxo zarra,  
Antxinako ama Euskera,  
Seme leyal bat orain datortzu  
Azken agurra emotera; [...] <sup>478</sup>

---

nolabaiteko garraiatze bat izan daiteke: Eliza Jainkoaren herria da. Elizaren Espiritua edo arima Espiritu Santu bera da, herri xeheari zein Aita Santuari berdin-berdin hitz egiten diona. Beraz, Elizaren espiritua, herri xehean, laiko zintzo eta leialengan, santu pobre eta apalengan aurki daiteke, ez soilik gidatzea egokitu zaienengan.

<sup>478</sup> Urrutia, 1999, 81.

“Bizi da Ama Euskera” izenburuko olerkian, ostera, tonu baikorragoa egoteaz gain, pertsonifikaturik agertzen den *Ama Euskeraren* diskurtsoa aurki dezakegu. Bertan, fikzio berberarekin jarraituz, *Ama Euskera* olerkariari zuzentzen zaio:

Pasiño latza igaro dot, ai!  
 Juan diran egunetan;  
 Neure ariamau neukan ala ez  
 Ez dakit gorputz onetan;  
 Indar barri ta bizi bizi bat  
 Biotzian dot sometan,  
 Odol gaztia darabildala  
 Uste dot neure zanetan.

Seme guztiai esan eyezu  
 Bizirik nazala emen,  
 Ta datozela txar eta onak  
 Danak ikusi nagien  
 [...] Zuaz, barriro dirautsut eta  
 Neure bedeinkaziñuaz  
 [...] Baña ez arren geyago nastu  
 Erdeldun oiturakaz,  
 Neugaz bakarrik biziko zare  
 Munduan atsegiñakaz.<sup>479</sup>

Gogoratu behar da “Ama Euskeriari azken agurrak” olerkia 1879an argitaratua izan zela. Bertan erabiltzen den irudigintzak, *Ama Euskera* irudiak barne, ezin du Sabino Aranaren eraginik izan. Sabino Aranak 1893an eman zion hasiera bere jarduera politikoari<sup>480</sup>. Sabino Arana politikagintzaren eskenatokira agertu baino hamalau urte lehenago, beraz, irudi mota hau erabiltzen da euskal produkzio literarioan.

Pedro Maria Otaño izango litzateke beste egile bat *Ama Euskera* biziki erabili zuena. Erabilera hau Kepa Enbeitaren ideologia aztertzerakoan aztertu genuen, 6. kapituluan. Era berean, irudi honen pertsonifikazio eta dramatizazioa egingo da. Zenbait sortetan, pertsonaia bat izango da, protagonistarekin elkarrizketa bat daukana. Horietako bat, protagonistaren amets baten agertuko da (geroago Urretxindorrek eta Txirritak baliabide berbera erabiliko dute).

Jose Manuel Lujanbio “Txirrita” bertsolariak ere (1860-1936) erabili zuen irudi honen pertsonifikazioa, bertso jarrietan behintzat. Baditu bertso batzuk non errekurto hau nabarmenki erabili zuen. Estreinako aldiz 1932ko

<sup>479</sup> Ibidem, 102-103.

<sup>480</sup> "1892an *Bizkaya por su independencia* argitaratu zuen, lehen *La Abeja* aldizkarian kaleraturiko lanez osatua; obra hau dotrina abertzalearen azalpena da, Bizkaia naziotzat hartuz. Sabinoren iharduera politikoa Larrazabal baserriko hitzaldiarekin hasi zen, 1893ko ekainaren 3an, *Bizkaya por su independencia* liburuaren tesia adierazpena eginez, zenbait lagunen aurrean manifestu gisa irakurririk.", *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*, IX. liburukia, 1991-1994, 260.

apirilaren 17an *Bertsolariya* aldizkarian argitaratu ziren bertso horiek “Amets bat Txirritak jarriyak” izenburuarekin<sup>481</sup>.

Bart ametsetan amona xar bat  
inguratu da nigana,  
esanaz: “Emen bada gizon bat  
nik ezagutzen dedana?  
Anbat etzaio akordatuko  
ama-semiak gerana,  
nere petxuko bularretatik  
amaika trago erana,  
gaur ere pozik egingo diyot  
nere al dezakedana”.

Baju bajutik galdetu niyon



“Ama Euskera al zera?”  
Erantzun ziran: “Bai, alaxe naiz,  
baño egin det zartzera;  
[...]Galdetu niyon: “Ama, zer dabill  
ola kopeta beztuta?  
[..] nola enintzan asarretuko  
oinbeste seme ostuta?”

Ama gaxuak erantzun ziran  
añ doñu triste batian:  
“Miñez egon naiz juañ dan berrogei  
eta amabost urtian;  
nere malkorik ezta legortu  
ordutik orañ artian,  
gure izkuntza maitagarriya  
sartu nai dute lurpian,  
baño gurekiñ ibilliko da  
Kantabria'ko partian”.<sup>482</sup>

Amaren irudiarekin ere  
Euskal Herria irudikatu egin da.  
Pertsonifikazio horrek horrela  
zentzu zabalagoa hartzen du.  
Esate baterako, Fernando Aire

<sup>48</sup> Jose Manuel Lujanbio Retegi, *Txirrita* (1860-1936) sorta honi buruz: “[...] Txirritaren alderdirik er... .., azpitolutik hasi “Amets bat”, dramakeria hanpatutik segitu, betegarrietatik (“nik bezalaxe igual-igual”), arrunkeria gatz-gabeetatik (“pena undiya daukan gorputza ezin liteke poztu-ta”), tratamendu nahastetik (“zera”/ “berori”) pasatu, eta bestelakoekin bukatu (mitokeria, maiuskulakeria, alderdikeria, panfletokeria eta arrazakeri-puntua: “maisu geienak kastillanua, kolorez berde askuak”/ “Odol beroko kasta gerala ezagun du koloriak”) ... horiek guztiak ez dira noski gure makinistaren kupelarik onenetakoak. [...] Txirritaren sasoirik bajuenaren -edo alorrik kaxkarrenaren- erakusgarri.”, Garzia, Juan, 1997, 117-118.

<sup>482</sup> Zavala, in *Txirrita*, 1992, 496 - 498.

“Xalbador” bertsolariak (1920-1976) oso loturik ikusten zituen hizkuntza eta herria kontzeptuak. Agian horregatik “Ama Euskal Herria”<sup>483</sup> kontzeptua gogokoago zuen, irudi horretan biltzen zirelarik euskararekiko atxikimendua eta, ondorio naturala bailitzan, herriarekiko edo herriaren eraikuntzarekiko atxikimendua. Horren lekuko argi eta garbia “Ama Euskal Herria” bertso sorta dugu. Bertan irudi horren pertsonifikazioa egiten da, eta egilea, apostrofe errekurtsua erabiliz, hari zuzentzen zaio:

[...] Ama Euskal-herriaz naiz naigabetua,  
uzterat doalakotz betikotz mundua,  
bere seme alabez abandonatua;  
nork barka dezaguke gure bekatua?

[...] Baditaike seme hok noizbait orroitzea,  
Ama, zu ganik izan dugula sortzea;  
guharek bilaturik zure ehorztea,  
jasan beharra dugu gaztigu dorpea (Aire, 1976, 205-208)

Kutsu nazionalista edo patriotikoa izan dezaketen beste kulturei begiratu gero, nabarmentzekoa da irlandar literaturak garai baten izan zuen joera. Conor Cruise O'Brian akademikoak ikertu egin du nazionalismo eta katolikotasunaren arteko erlazioa Irlandari dagokionez. XIX. mendearen bukaeratik eta laurogeita hamar hamarkadara arte kultura arloan egindako sorkuntzak aztergai dira bere *Ancestral voices* liburuan. Sorkuntza horietako bat William Butler Yeats-en *Cathleen ni Houlihan* antzerki lana dugu, XX. mendearen hasieran antzeztu zena. Horrela definitzen du Conor Cruise O'Brian-ek lan hori:

*Cathleen ni Houlihan* is both the most nationalist and the most propagandist work that Yeats ever wrote. It is probably the most powerful piece of nationalist propaganda that has ever been composed. [...] Yet *Cathleen ni Houlihan* was a great success at the time, and had a powerful influence on the development of Irish nationalism in the following fourteen years (Cruise O'Brian, 1994, 61-63).

Antzerki lan horretan Irlandaren pertsonifikazio bat egiten da<sup>484</sup> eta Emakume Zahar bat (*Old Woman*) izango da pertsonifikazio hori egiten duena. Poesia gaelikoko pertsonaia mitiko bat dugu, Aka Kathleen, Irlandaren pertsonifikazio eme bat, beste zenbait pertsonaia emeen artean. W. B. Yeats-en antzerki lan honetan, pertsonaietako bat izango da eta traman parte hartuko

<sup>483</sup> Euskal Herria ez da pertsonifikaturik agertzen den lurralde bakarra. Nafarroa ere ama bezala irudikaturik agertzen da noizbait: "O Nafarroa, banatorkizu otoizka fagore galez/ urrikal zaite ukatu nahi zaituzten seme alabez;/ bertze koroka batek estaltzen bagaitu ere hegalez,/ Baxenabarrak **Ama** zu zaitu, guk nahi izan ala ez", Aire, 1976, 262.

<sup>484</sup> Irlandar nazionalismo kulturalak eraginda agian, 1916an Errepublikaren Aldarrikapena egiteko testuan bertan Irlanda pertsonifikaturik agertzen da, irlandarrak pertsona horren seme-alabak direlarik. Horrela dio Aldarrikapen horrek: "Irishmen and Irishwomen: In the name of God and of the dead generations from which **she** receives **her** old tradition of nationhood, **Ireland, through us, summons, her children** to **her** flag and strikes for **her** freedom", Cruise O'Brien, 1995, 110.

du. Familia batek hartzen du bere etxean, eta Emakume Zahar honek sinbolikoki bere buruaren berri ematen du apurka-apurka. Familia horretako semeak, ezkontzera zihoanak, azkenean ulertzen du Emakume Zaharraren mezua eta bere deia. Semeak bere ezkontza agindua bertan behera uzten du eta prest dago bere odola eskaintzeko independentzia iraultza baten. Yeats-ek, beraz, pertsonifikazio hau helburu politikoetarako berreskuratu zuen. Horrela azaltzen du Conor Cruis O'Brian-ek:

The nationalist revolutionary elite is felt to be a sacral order, [...] Cathleen ni Houlihan was a divinity, and the Call from her was as valid as the Call from Jesus Christ. [...] Yeats brought Cathleen to life -or a kind of death-in-life- on the stage. He brought her into conjunction with the protorevolutionary politics of the early twentieth century (op. cit., 69).

Sakralitatearen garraiotze bat saiatzen da honelako irudiekin. Euskal irudigintzan ez da bilatzen erabateko ordezkatzeko bat, baina zenbait helburu lortzearen, erdibideko ordezkatzeko bat bilatzen dela suma daiteke: euskal zaletasuna eta Herri nortasun eta kontzientzia pizteko orduan, *Ama Euskera* edo Ama Euskal Herriaren deia bokazionala da zenbaitetan. Bestetan, irudi horren agonia egoerak hartzaile euskaldunaren errukia piztu nahi du.

Balendinen metaforetan *Ama Euskera* irudia agertzen da behin baino gehiagotan, bai bat-bateko bertsoetan bai idatzitako zenbait bertso sortetan ere. *Ama Euskera* irudiak seme-alabez duen ardura adierazi egiten da bertso hauetan. Arestian adierazi bezala, amatasuna berez estimu handia duen irudi bat da pentsamolde katolikoan. Euskal kulturaren hori agian areagotzen da, (beste kultura batzuen antzera), amaren irudiari betidanik zor izan zaion lotsa eta xamurtasunarengatik. Balendin Enbeitaren bertsoetan *Ama Euskera* irakurle edo entzulearen afektibitatea erakartzen saiatzen da, interesik gabeko maitasun agerpenekin eta bere egoera latza azalduz.

Erri bat daukat, bere ama naz,  
semeak ditut ugari;  
amak maite dauz, baiña semeak  
igeska dabiz amari  
Ardura aundiz begira nago  
euren etorkizunari:  
ama galtzean zein izango dan  
nere umezurtzen gidari. (B247c)

Agerikoa denez, semeak euskaldunak dira. Euskaldun haien artean batzuk seme leialak dira, dudarik gabe. Beste batzuek ordea ez daukate bere Amaz kezkarik. Euskal lurraren semeak zer motatakoak diren Sabino Aranaren abertzaletasunak zehaztu zuen Antonio Elorzaren ustez. Bakoitzaren jokaera<sup>485</sup> kontutan hartuta hiru tipologia mota daude Antonio Elorzak laburbiltzen duenez:

---

<sup>485</sup> Aberriarekiko jokaera hori moralala ere bada; izan ere, abertzale izateko modu hori onartu ezean, jokaera moralala ere ez da guztiz zuzena.

El vasco puro, fiel a sus tradiciones, habitualmente residente en el caserío (o vuelto sentimentalmente a él si vive en la ciudad), que en la primera fase de la acción resulta dominado por la coalición de B el extraño al País, que con su falso lustre consigue insertarse en el ámbito propio de A, desplazándole de forma artera, con la complicidad ingenua de C, el vasco que cree positiva la relación de B, desprecia a A y con su conducta antipatriótica acaba siendo responsable del momento catastrófico, provocado por el engaño de B (Elorza, 1978, 185).

Balendin Enbeitaren bertsogintzan sarri agertuko dira hiru tipologia hauek. Batez ere bigarrena; izan ere, berarengan dago Euskal Herriaren hondamendiaren errua edota pizkundearen giltza. Bere kontzientzia argitu nahi du, erru horretatik lehenbailehen irtenarazteko. Hemen ere erlijioaren garraiatze bat<sup>486</sup> sumatzen da: Kristau erlijioan, kristau batek bekatua egiten duenean nolabaiteko armonia batetik at dago, bere buruaren kaltean eta beste kristauei ere kaltea sortaraziz, bai eskandaluaren bidez bai “Santuen Elkartasunezko”<sup>487</sup> lotura horren ustelkeriaren bidez. Hori dela eta, kristau leialak saiatu behar dira "ardi galdu" hori Elizaren artaldera berreskuratzen edo bideratzen, Elizaren fundatzailea eta Artzain Ona<sup>488</sup> zen Jesusek berak proposatu zuenez.

“Modan balego zorioneko litzake euskera” izeneko bertso sortan "C" motatako tipologiaren kalteak azaltzen saiatu zen Balendin Enbeitak, eta hori sabinismoaren doktrinan bete betean sartuta dago:

[...] gaur bazterturik ikusten doguz  
bere oitura legiak,  
jazokun orren errudun gara  
euskaldun erdelzaliak. (B086a)

Ondoren erakusten dugun bertsoan dezente osoa da alde horretatik, orain arte aipatutako elementu gehienak agertzen baitira:

Euskaldunaren **ama** euskera da  
eta ez dogu ezautzen,  
edo ez dogu ezautu gura,  
onela dogu autortzen;  
Jainkoak diño bestenai itxi,  
zeuria jarrai maitatzen,  
eta gu gabiz ama itxita  
**ama-ordia** goraltzen. (B087b)

Alde batetik, *Ama Euskera* metafora ezin argiago azaltzen zaigu. Seme ardurabakoen artean, kuriosoki, egileak bere burua sartzen du<sup>489</sup>, nolabaiteko autokritika eginez. Ondoren Jainkoa agertzen da sententzia moral bat

<sup>486</sup> Garraiatze adieraztean ez dugu esan nahi erabateko ordezkapenik dagoenik.

<sup>487</sup> In *Catecismo de la Iglesia Católica*, 1993, (737. puntua)

<sup>488</sup> Ibidem, 553. eta 764. puntuak.

<sup>489</sup> Honek kontrastatzen du bere aitzindaria zen Arrese Beitiaren jokaerarekin; izan ere, berak beti zeukan bere burua seme leialtzat: "Neure biotzeko Amatxo zarra,/ Antxinako ama Euskera, / Seme leyal bat orain datortzu/ Azken agurra emotera", Urrutia, 1999, 81.

formulatuz eta azken puntuan euskaldun ardurabakoen jokaerarekin kontrastatzen du: "eta gu gabiz ama itxita/ ama-ordia goraltzen". *Ama* hori euskara da eta *ama-ordia* erdara. Beraz, egilearen kontzientzian oso hurbil daude hizkuntz jokaerak eta moralak (ez moral hutsa, erlijiotik beratik datorrena baino). Bere kontzientzia ere garbitu nahian dabil horrelako aldarrikapenak egiten dituenean. Badirudi Balendin Enbeitak ez duela hipokresiarik nahi, hau da, besteei errua bota eta norberaren burua hobetu nahi ez. Horregatik aitortzen da noizean behin errudun<sup>490</sup>.

Goian aipatu dugun bertsoa dela-eta, zera esan beharra dago: han islatzen den Sabino Aranaren ideologia kasu berezi samarra da, zeren eta beti ezin baita esan sakralitatearen garraiatzea egiten duenik. Sabino Aranak katolikotzat dauka bere burua eta bere politikagintza katolikotasun horren luzapena edo kutsadura da. Printzipioz bere politika ez dago eratu bere sinismena ordezkatzeko, herrigintza mailan praktikan jartzeko baizik. Baina saiakera horretan, bere politikagintzan zehazkiago, ez du onartuko disidentzia edo desadostasunik. Sinismenezko doktrina kontuetan sinismenak erabatekoa edo integroa izan behar duen moduan, Sabino Aranaren ustez berak sortutako politikagintzarekin erabateko adostasunean egon behar dute euskotarrek, eta horixe bera da Antonio Elorzak integrismotzat bataiatzen duena:

El planteamiento de Sabino Arana es diferente, ya que desde su propia mentalidad integrista, el nacionalismo se inscribe en el marco de la religión y dentro de ella se empapa de sus contenidos. No hay aquí transferencia alguna, sino impregnación por parte de un ideario político de los supuestos religiosos que la inspiran. Sabino contemplará desde sus primeros escritos la adhesión al nacionalismo como el reconocimiento de una mediación sagrada que al mismo tiempo que busca la liberación nacional, consagra Bizkaya (o Euskeria) a la divinidad (Elorza, 1995, 33).

Integrismo kutsu horren eraginez diskurtsoa batzutan oso oldarkorra izaten da. Hemen desberdintasun bat ikusten dugu sakralitatearekiko, nahiz eta handik itxura hartu: kristau dotrinan bekatua edo okerreko jokaera moralak biziki kritikatu da, biolentoki nahi bada. Baina Elizak bekataria errukiz tratatua izan behar dela erakusten du, damututa Artzai Onaren artaldera bihurtu dadin.

Sabinismoaren giroan, ordea, ez bakarrik akatsa, disidentea ere arbuiatu eta baztertu behar da, ahalik eta kalterik gutxien egin dezan. Eta absolutua bihurtu den Aberri horren alde edozein motatako ekintza justifikatzeko joera dago (ez beti baina bai sarri).

Komentatu dugun azkenaren harian Balendin Enbeitarengan alternantzia dago. Alde batetik "C" motatako tipologia horrekiko jokaera hau hartzen du: haren kontzientziari eragin nahi dio. Beste aldetik, hitz gorrak ditu:

[...] Baina biotzez euskera itxita  
erdera maitatzen gabiz,

<sup>490</sup> "Bakotxak ondo ausnartu daigun/ orain esango dodana:/ lenauko gure oitura onak/ ia emon dabe azkena;/ berba labanak, jolasak bardin,/ gaba arturik eguna;/ auxe da gure etxietako / bakia kendu dabena;/ zar eta gazte, esan legike/ galdu dogula zentzuna." (B161a)

olango euskaldun erdelzalia  
obe zan jaio ez balitz.

Eta aurreratxoago:

Euskeriaren ondamendiko  
arerio gogorrenak  
ezbairik bage esan legike  
diriala euskaldunak. [...] (B087c)

Antonio Elorza ikerlariak abertzaletasunaren ideologiak aztertzerakoan esaten du espainola den gauza oro baztertu egiten dela abertzaleen jokaeretan, hasierako nazionalismoan, Sabino Aranaren eragina duenetan, eta baita gaur eguneko zenbait abertzaletasun erradikaletan:

La única solución, previa incluso a la acción política nacionalista, reside en el aislamiento o cuarentena respecto a todo lo que pueda significar presencia española (Elorza, 1978, 178).

Eta ondoren Sabino Aranaren testu bat aipatzen du:

Porque es indudable que allí donde haya roce de elementos contrarios, hay un desgaste más o menos sensible, y la experiencia patentiza que del contacto del pueblo basco con el extraño se produce infaliblemente la ruina moral y material de aquél y la entronización de éste con todas sus consecuencias (Arana Goiri, 1989, 1761).

Balendinengan ez da hori apenas gertatzen, lehenago aipatutako kasu isolaturen batean izan ezik. Bere aita Kepa Enbeita oso sabinzalea izan arren eta berak ere eragin hori izan arren, gizalegetasuna erakusten du une askotan. Ez baztertze asmo hori, adibidez, bertso honekin adierazita dago:

Ez uste izan erdera ori  
gura dogula zapaldu,  
erdera bardin beste izkuntzak lez  
ondo ikasi nai dogu;  
baña euskera Euskalerrian  
ez dagigula baztertu,  
Euskalerririk ez dagolako  
euskera galtzen badogu. (B088b)

Horixe bera errepikatzen du beste bertso sorta baten, ia-ia formula bihurtu diren antzerako hitzekin:

Ez dot esaten erdera ere  
biar dogunik baztertu;  
erderea be, beste izkuntzak lez,  
bardin goratuten dogu.  
Erderaz ondo ikasi baña  
euskereagaz ez aztu,  
Euskalerririk ez dagolako  
euskera ezkerro galdu.



Besten gauzari bakean itxi,  
norberena ondo zaindu,  
Euskalerrria ez da galduko  
euskera zaintzen badogu. (B093a)

Edo:

Erdera maite badozu ere  
euskerai ez egin gatxik [...] (B193b)

Gorago adierazi den bezala, zenbait hitz eta esamolde errepikatzen dira bertso desberdinetan. Jokaera honek badu bere arrazoia; izan ere, ahozko ekoizle batek horrelako epiteto eta formula asko izan behar ditu aurrez prestatuak, egoki denean agertzeko, zeren eta aukera datorrenean ez du astirik izango bere bertsozko jarduna pentsatzen aritzeko:

Las fórmulas ayudan a aplicar el discurso rítmico y también sirven de recurso mnemotécnico, por derecho propio, como expresiones fijas que circulan de boca en boca y de oído en oído [...] Las expresiones fijas, a menudo rítmicamente equilibradas, de este y otros tipos, ocasionalmente pueden hallarse impresas, de hecho pueden "consultarse" en libros de refranes, pero en culturas orales no son ocasionales. Son incesantes (Ong, 1987, 41).

Joera orekatzaile eta integratzaile hau, Antonio Elortzak aipatzen duen joera integristarekin kontrastean dago. Gainera, adierazi beharra dago joera hau ez zela berria Enbeitatarrengan. Kepa Enbeitak ere erakusten du behin baino gehiagotan joera integratzaile hori:

*Viva España!* didarka dagoz,  
neuk bere *viva!* dirautsat,  
gorrotorikan eztagolako  
nigandik España'rentzat.  
[...] Augaitik, *viva!* diñot barriz be,  
ixan bei España'rentzat;  
baita be diñot: "Gora Euskadi!"  
geuria da-ta, geuretzat.  
(Oñatiko mitin baten) (K071a)

*Ama Euskera* irudia aipatu dugu eta ezin da ahaztu Balendin Enbeitak erabiltzen dituen ñabardura agonistikoak irudi honen inguruan. Hau ere ahozko kulturen psikodinamikaren ezaugarri bat da, Walter J. Ong ikerlari estatubatuarrak azaltzen duenez:

Muchas, tal vez todas las culturas orales o que conservan regustos orales dan a los instruidos una impresión extraordinariamente agonística en su expresión verbal y de hecho en su estilo de vida. [...] Al mantener incrustado el mundo vital humano, la oralidad actúa dentro de un contexto de lucha (Op. cit., 49-50).

Bizi irauteko gizakiak egin beharreko ahaleginak, oztopoak eta nekeak sarritan agertuko dira ahozko kulturen produkzioetan, entzulearen arreta

erakartzeko, eta bere bizi-gunearekin errazago identifikatzeko. Giro horretan *Ama Euskera* irudia askotan agertzen da gaixorik dagoelarik, bere seme-alabek lagata. Bertsolari baten jarduna gertuko errealitate biziari oso lotuta egoten da, eta errealitate hori jende xehearentzat bizimodua aurrera atera ahal izatean datza. Bizimodua eta familiakoak ere aurrera atera behar dira. Familia gizartearen zelula oso garrantzitsua izaten da eta familia arteko loturak oso estuak dira gizarte tradizional baten<sup>491</sup>. Giro horretan, eta matriarkal omen den gure euskal gizartean<sup>492</sup>, amaren irudia eta papera pisu handikoa izaten omen da eta oso samurra baita ere askotan. Ama zaharra esaten denean, sutondoan edo sukaldean dagoen atso maitagarria etortzen da burura, kontu zaharren kontalaria eta ahozko tradizioaren transmisorea dena. Ama zaharra (zinez zaharra baldin bada) hiltzea gauza arraroa ez bada ere, beti kolpe gogor bat izaten da familia tradizional baten, nekez bete daitekeen hutsune bat sortzen delarik. Familia horren nortasuna hankamotz gelditzen da eta iraganarekiko zein arbasoekiko lotura etenda gelditzen da nolabait. Alderdi horri etekina atera nahian agian, *Ama Euskera* hil zorian, gaixorik edo seme-alabek abandonatuta agertzen da.

Dagoeneko Felipe Arrese Beitiaren zenbait olerki agertu dira eta aipatu beharra dago batzutan bere olerkigintzari darion kutsu agonistikoa, batez ere euskara eta euskal ohiturez ari denean. Joera honek ondorengo hainbat olerkari eta bertsolariengan eragina izan duela antzematen da. Bertsolari horietako batzuk Enbeitatarrak ditugu, Abel Muniategik aipatzen duenez<sup>493</sup>. Horretaz jabetzeko irakurri besterik ez dago haren “Ama euskeriari azken agurrak” izenburudun bertso edo olerki sorta:

Neure biotzeko Amatxo zarra,  
Antxiñako ama Euskera,  
Seme leyal bat oraiñ datortzu  
Azken agurra emotera.  
[...] Zaurien zauriz galdu galdu-ta,  
Amatxo, zuaz illtzera.<sup>494</sup>

Euskararen problematikari oso lotuta egoten dira sinismen eta kontzientzi arazoak Balendin Enbeitarengan. Bertso honetan Arantzazuko Ama Birjina bera da euskara maitatzea agintzen duena eta euskaldun askok euren "eskuak" garbitu nahi dituzte, hau da, beren kontzientzia isildu.

<sup>491</sup> Elorza, 1973, 188.

<sup>492</sup> Ulertzekoa denez, guri lan honetan ez dagokigu epaitzea euskal gizartea matriarkala den ala ez. Baina adierazi beharko litzateke bertsolaritza tradizionalan, hau da, balio eta estilo tradizionaletatik edan duen bertsolaritza “ama” gai bezala oso jorratua izan dela, eta beti izan duela bere arrakasta. Honetaz Joxerra Garzia mintzo da bere doktorego tesian. Berak definitu eta erabili zuen “Inguru-testu trinkoko” bertso gintzan, “ama” bezalako gai batek emozioa sortzen du berez, orduko balioak bat zetozelako amatasuna goraiatzeko unean. Gaia aipatzeak berak zirrara sortzen du (Garzia, Joxerra, 2000, 295).

<sup>493</sup> “orrez gain, Arrese Beitiaren eragina, oro har, nabari da bere lanetan (Kepa Enbeitaren lanetan). Ezagutzen ebazan, zelan ez, Otxandioko Santuginaren neurtitzak. Asko goraiatzen dau 'Arrese geure maite-maitia'” Muniategi, 1995, 24.

<sup>494</sup> Urrutia, 1999, 81.

Arantzazuko Ama barreka  
 dago arantza gaiñetik,  
 [...] euskera maite izan daigula  
 ez dau agintzen besterik  
 [...] danok **eskuak** garbitzen doguz  
 iñok ez dauko errurik;  
 onexek dauka geure euskera  
 burua jaso eziñik. (B091b)

Mota honetako bertsoetan egoera latzak deskribatzen dituenean, edozeinek ulertzeko moduan, Balendin Enbeitak oso ondo jokatzen du. Hona hemen beste adibide bat:

Euskera maite, gaxorik zagoz  
 eta osakairik ez dozu,  
 zeure semiak itxi zaituez,  
 errukarria zara zu.  
 Ene, euskera, ilgo al zara?  
 Arren erantzun eidazu!  
Zu il ezkerro ez dot nai bizi  
 zeugaz eruan nagizu! (B088c)

Egileak euskararekin duen identifikazioa erabatekoa dela ikusten da eta horrek esaldi estremistak (edo muturreko ukitu bat dutenak) esatera eramaten du. Horren lekuko, azpimarratu dugun azken puntua genuke. Puntu hau, begi-bistakoa denez, Felipe Arrese Beitiaren bertso famatu baten oihartzuna da:

Euskaldun jaio nintzan  
 Ta euskalduna hazi,  
 Euskaraz eustalako  
 Amak erakutsi;  
 Euskara laztan maite,  
 zabiltz nigaz beti,  
Euskara ill ezkerro  
ez dot gura bizi.<sup>495</sup>

Hizkuntzaren gaiarekin jarraituz, Ama irudia ez da erabiltzen duen bakarra, baina amatasun munduan jarraitzen du Balendin Enbeitak mota honetako bertsoekin:

[...] Ama dalako txikitxuentzat  
 zimintarririk onena,  
 zorioneko **erriko izkuntza**  
 erakusten dautsan ama;  
 ori du amak eman legion  
**ugatz goxo ederrena.** [...] (B194a)

Asko zabaldu da euskal kulturaren euskara “amaren bularretik” jasotzearen irudia edota topikoa. Giro horretan ondo kokatuta dago aldaera berezi hau.

---

<sup>495</sup> Ibidem, 221.

Irudia ezaguna denez, euskaltzaleen artean behintzat, beste hitzekin adieraztea onartuta dago, ahozko kulturen psikodinamiken joera bat baita. Hortaz, hain hedatua den irudi hau modu berezian azaltzen du hemen Balendin Enbeitak. Hau da Walter Ong-en azalpena:

Para la cultura oral, aprender o saber significa lograr una identificación comunitaria, empática y estrecha con lo sabido, identificarse con él (Op. cit.; 51).

Entzulea edota idazlea, irudi honekin, ezaguna egiten zaiolako edo, identifikaturik sentitzen da eta baliteke bere erregistroan gehitzea.

## 1.2. *Arbola*

*Arbola*, metafora eta sinbolo bezala, sobera aztertuta dago jadanik, estilistikari eskainitako kapituluetan (5. eta 11. kapituluetan, hain zuzen). Agian orain beste ikuspegi bati eustea dagokigu, izan ere *arbola* sinbolo enblematiko bat izateaz gain, harekiko atxikimenduak zenbait inplikazio ideologiko eman ditzake aditzera.

*Arbola* irudiaren presentzia ugaria da Balendin Enbeitaren bertsogintzan. Sinboloaren jatorria den Gernikako arbola ez da agertzen, ostera. Bertsolari honengan arbola tradizioaren sinboloa da, iraunkortasuna adierazten duena. Irudi hau iraganean sustraitua dago, hainbat eta hainbat ekaitzei aurre egin die eta era berean fruitu emalea da, etorkizuna bermatuko du, alegia, kultura eta euskal nortasunaren transmisioa bermatuko du.

Jakina denez, bi aldaera nagusi izango ditu termino honek: *arbola* eta *zugatza*. Esan bezala, sinbolismoaren oihartzunak dira, irudi hauen esanahian aurkitzen duguna:

Omen-jai asko merezi ditu  
Uztapideren txapelak,  
frutu ederrik asko emon dau  
gaur arte bere **arbolak** [...] (B155a)

**Arbola** zarrak emon ez baleu  
geroko kimu barririk,  
gaurko gazteak etzun izango  
bear aiñako fruturik, [...] (B239a)

Larogei ta amairu



urte dituzula,  
zortzi seme-alaben  
euskaldun **arbola**; [...] (B264a)

Gazte ta sendo, frutu emoile  
lerden genduan **zugatza**  
Uste gaberik aizkora baltzak  
sustarra ebagi dautsa [...] (Bb172a)

Pertsona jakin batzuei eskainitako arbolaren irudi hauetan, euskalduntasunaren arrastoak sumatzen dira, Gernikako arbolak adierazten duen euskalduntasun horretakoak: askeak, nobleak, emankorrek eta izaera berezidunak. Bat batean, Balendinek bere burua zaharkitua ikustean honela zioen:

regi, Lopategi, Mugartegi eta Balendin bertsoetan

Berrogei eta hamazortzi urte  
ditut nik leporatuak  
Nere bizkarra makurtzen doia  
ta indarrak ezeztuak  
**arbola** zaharrak baina ez dauka  
lehengokubak aztuak [...] (Bat-batekoa, IZA10)

Garai batean nere gorputza  
sendoa eta zabala  
urte juanak jarri nabie  
ximurtu eta ximela  
adarrak utzi ta dariola  
goitikan dauka orbela  
baina nik dakit orbeltza hori  
alperrikua ez dala  
**arbola** horretan oraindik sendo  
daukat nik euskal odola. (Bat-batekoa, IZA11)

## 2. Eduki ideologikoa duten diskurtsoak

Irudien erabilera alde batera lagata, diskurtsoei ekingo diegu orain.

### 2.1. Bertsolaritza: batasunerako tresna

Hizkuntza edo euskara aztertu ostean, eta haiei oso lotuta agian, bertsolaritza aztertu beharra dago. Bertsolaritzak, herri eginkizun legez, eginbehar politiko bat betetzen du euskal gizartean, Balendin Enbeitaren ikuspuntuan. Hori dela eta, bertsolaritza bera irudi bat bilakatuko da, edo behintzat diskurtsoaren gune bat, eta horrela bere zeregina azalduko da. Bertsolaritzaren irudi apaingarri bat aztertzeraz igaroko gara. *Oihartzuna* hain zuzen:

Bertsolariok, gogoan izan  
Ez daigun galdu zentzuna

Bertsolaria dogu Herriko  
bizitzaren **oihartzuna**  
Herriak argi gordeko deusku  
bertsolarioi entzuna  
Toki denetan agertu daigun  
euskaldun gizontasuna  
Bestela Herriak emongo deusku  
justizizko erantzuna. (Bb192a)

Ez da oso irudi originala, oso zabaldua baita kultura askotan. Baina interesgarria iruditu zaigu aipatzea; izan ere, Balendin Enbeita kontzientea da, edo behintzat kontzientzia hori erakusten du, ahozko jardunean bertsolariak eta entzuleek adostasunean edo nolabait elkarri lotuta egon behar dutela, bestela ez dago bertsolaritza egiterik edo egoera zehatz baten bertso-saioa ez doa aurrera. Honetaz eta bertsoaren bat-bateko ulermenaz Jon Sarasua bertsolariak hauxe dio:

Bertsoak bat-batean iritsi behar dik, bestela ez dik balio [...] Hik esateko duanaren eta jendearen hartzeko gaitasunaren arteko zubiak egiten asmatzea duk bertso-gintza, eta hori sekula bukatzen ez den eskola duk (Garzia, Joxerra, 1998, 48).

Hortaz, Herriak kezka batzuk omen ditu eta bertsolariak kezka horien “oihartzuna” izan behar omen du Balendin Enbeitaren ustez. *Bizitzaren joanean* izenburudun liburuan, ahoz kontatutako istorio baten antzera eratu dagoena, Balendin Enbeitak honen inguruko iritzia plazaratzen du, bertsolari txapelketetaz hitz egiten duenean:

Herri-kontzientzia sortu arazoten deuto, eta hau herri baten aurrean abestu behar dauan bertsolari batentzat garrantzi haundikoa da (Enbeita, B., 1986, 72).

Eta ondoren, bere iritzia laburbilduz, bertso hau eskaintzen du:

Bertsolaria ez da bakarrik  
kopla batzuk kantatzeko  
Artzain bat legez ikusten dogu  
euskal sendia batzeko  
Nor garan eta nongoak garan  
ezjakinai azaltzeko  
Ohiturak biztu, Euskara indartu  
lo daudenak esnatzeko  
Bertsolaria lango artistarik  
ez da Herriarentzako. (Bb072a)

Nolabaiteko enpatia sortzen da, beraz, bertsolari eta entzuleen artean. Gai hori Walter J. Ong-ek ere ukitzen du ahozkotasanaz ari denean:

Puesto que, en su constitución física como sonido, la palabra hablada proviene del interior humano y hace que los seres humanos se comuniquen entre sí como interiores conscientes, como personas, la palabra hablada hace que los seres humanos formen

grupos estrechamente unidos. Cuando un orador se dirige a un público, sus oyentes por lo regular forman una unidad, entre sí y con el orador. [...] Para imaginarnos a los lectores como un grupo unido, tenemos que seguir llamándolos 'auditorio', como si en realidad fueran oyentes (Op. cit., 77-78).

Gauzak horrela, Herria batzeko oso tresna egokia bihurtzen da ahozko hizlaria. Herria batu ez ezik, Herriaren tradizioa gorde eta transmititu ere egiten dute. Ruth Finnegan ikerlariak horixe antzeman zuen, eta ahozko poesia aztertzen zuen lan baten honela zioen:

The continuity of cultural tradition may extend, too, over space as well as time. In large and otherwise diverse countries and regions, the activities of poets have not infrequently played an important part in creating or maintaining cultural unity (Finnegan, 1992, 245).

Mugimendu politikoen, horretaz jabeturik, hizlari onak erabili dituzte beren ideien zabalkunderako. Euskal Herriaren eremuan bertsolariak sartu dira aspalditik dinamika horretan. Lehen aipatu dugun Xabier Amurizak *Bizkaiko bertso gintza I* liburuan hainbat bertso politika kutsudunak bildu ditu, eta II. alean ere bai<sup>496</sup>: izengabeak, Mogeldarrenak, Santiago elizakoa, Gabon bertsoak XVIII. mendekoak, karlistadei buruzkoak<sup>497</sup> eta XX. mendeko abar luze bat.<sup>498</sup>

Antonio Elorzaren aburuz, poesia abertzalearen aitzindaria poesia foruzalea izan zen eta horretan Iparragirre nabarmentzen da, nahiz eta hasiera baten (1876 baino lehenago) foruen galera gaitzat ez hartu. Antonio Elorzaren ustez urrezko aro bat aldarrikatzen da, zeinean euskaldunak, erakunde foralei esker, nortasun politiko baten jabe baitziren eta, beraz, zoriontsuagoak. Foruak eta hizkuntza arriskuan ikusirik, iraganeko egoera ideal hori gogoratzen saiatzen dira, hara itzuli behar dela adieraziz.

<sup>496</sup> *Bertsolari* aldizkariaren 25. zenbakian, "Gai politikoak Bizkaiko bertso gintzan" (70-72. orrialdeak), honen berri ere ematen da.

Aipagarria da XIX. mendearen bukaeran nola tratatzen ziren zenbait gai politiko eta abertzale, nahiz eta oraindik abertzaletasuna guztiz errotuta ez egon. Garai hartan hain erabilia zen Gernikako arbola eta foruen galera ere kontagai edo bertso gai bihurtuta daude, arestian aipatu bezala, Bizkaiko zenbait bertso gilerengan ere. Horren lekuko Bonifazio Latxa Agirrerren bertsoak ditugu, Xabier Amurizak aurkitu eta argitaratu dituenak. Egile honen bizitza ezezaguna da oraingo eta ez dugu horren berririk. Bere bertsoak Felipe Arrese Beitiaren tematikaren harian doaz, neurri handi baten. Badu "Euskal Herriko arbola" izeneko bertso sorta bat eta bertan zortziko hau dugu: "Euskaldunen fueruak/ gorde dituzana/ eta harek bihotzetik/ maite zaituzana./ Zu galduko bazina/ Arbola laztana/ penaz hilgo litzake/ Euskal Herri dana", Amuriza, 1998, 392.

<sup>497</sup> Antonio Zavala bertsolariaren biltzaile paregabeak bi liburu argitaratu ditu karlistadei buruz. Lehenengo karlistadari buruz *Karlistaden lehenengo gerrateko bertsoak* izeneko da. Bigarren karlistadari buruzkoak *Karlistaden bigarrenengo gerrateko bertsoak* du izenburutzat. Bigarren honen sarreran saiatzen da kokatzen bertso ekoizpen oparo honen egoera eta zera adierazten du: "Mordo aundia osatzen dute orduan jarritako bertsoak: gerra aurreko saillak, alegia. 1868-ko irailletik 1872-ko maiatzera bitartekoak, tiroak asi baiño leenagokoak. Politika utsa da bertso oietan azaltzen dana. Baiña gerra-usafia nun-nai aditzen da. [...] Propaganda egin bearrak ekarri zuan ugaritasun ori; erriaren borondatea irabazi naiak alegia", Zavala, 1997, 9.

<sup>498</sup> Amuriza, 1995.

Felipe Arrese ta Beitia zubia izan omen zen poesia foruzale eta abertzaletasunaren artean<sup>499</sup>. Elorzaren esanetan, Otxandioko olerkariaren lana gidatuko duen leloetako bat zera da: aberriaren seme leialaren aienea, bere ama hilzorian ikusirik<sup>500</sup>. Honen oihartzuna antzeman daiteke ere Balendin Enbeitarengan:

[...] esaten dogu: <<Euskalduna naz  
izkuntzaz eta jatorriz!>>.  
Geienok gabiz ospia edo  
aundi izateko egarriz;  
au ikusiaz Ama Euskera  
negar-malkozko iturriz.  
Zapiok kendu, jagi gaitezan  
euskeraren alde egiz,  
eta maitatu Ama Euskera  
egizko maitasun garbiz. (B092b)

Eta argiago agian *Ama Euskera* bera mintzo denean:

Ene semeok, batu zaiteze,  
oroitu zeuen amagaz;  
niregan beti izangozue  
erri-bizitzaren arnas.  
Ni iltzen banaz, ez didar egin,  
ez da erantzunik nigaz:  
semien erruz neure lurrean  
betiko ixilduko naz. (B248b)<sup>501</sup>

## 2.2. Emakumearen eginkizuna duintzen

Bertsolaritza batasunerako tresna izate horretan, eta bertsolaritzatik kanpo ere, emakumearen paperari garrantzi handia ematen dio Balendin Enbeitak bere mezu eta irudietan. Batasun eginkizun horretarako emakumea zenbait dohainez horniturik omen dago eta Balendin Enbeitak ez du hori

<sup>499</sup> Horrela dago adierazita: "Como en los casos del ruralismo y de la instrumentación política de historia y leyenda, también la poesía fuerista tiene sus orígenes con anterioridad al 68. El 'leitmotiv' de una edad de oro en que los vascos consolidan su felicidad (y su identidad política) a través de las instituciones forales se encuentra, por ejemplo, diseminada en las producciones de Iparragirre, antes y después de su viaje a América. [...] No obstante, si el discurso fuerista de Iparragirre prefigura el referente del lamento nacionalista posterior a 1876, falta en él, por lo menos de modo explícito, el factor conflictivo que pasará a primer plano con la abolición de los fueros", Elorza, 1978, 64-65.

<sup>500</sup> Horrela azaltzen da Antonio Elortzaren hitzetan: "Su eje es considerar que la gran desgracia de la pérdida de los fueros, si puede cumplir la destrucción del pueblo euskaro, es porque el mismo tiene lugar la castellanización, la destrucción del idioma propio. [...] Es el lamento del hijo leal de la patria ('lur maite') que la ve en trance de destrucción por parte del agente negativo que es siempre Castilla, sinónimo de España, pero sobre todo asociada a la castellanización lingüística. La protesta en este sentido se repetirá incansablemente en sus poesías", Ibidem, 68.

<sup>501</sup> Balendin Enbeitaren garaikoa zen Fernando Aire "Xalbador" bertsolariak baditu zenbait bertso modu honetan euskara eta Euskal Herriaren egoera azaltzen dutenak. "Ama Euskal Herria" izeneko bertso sortan, esate baterako, kexa tragiko bat jartzen da Ama Euskal Herriaren ahoan: "Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,/ zure izaitearen herrestoen bila,/ lurpetik entzunen du deiadar bipila:/ Hemen dago ama bat bere hurrek hila!", Aire, 1976, 208.



ahaztu nahi, bere helburuak lortze aldera. Ondorengo bertsoak horixe azpimarratzen du:

Euskalerriko emakumea,  
kantuz nator esatera:  
lur maite onen **loria** eta  
**frutu emoille** zeu zera;  
zuk nai badozu zure aurtxoak  
ikasi leike euskera,  
orretarako bear dozuzan  
giltzen jaubia bazera;  
arren dirautzut, ez galduteko  
eskuan dozun aukera;  
bestela alperrik, egizko euskaldun  
emakumea etzera. (B137a)

*Lora* berriz erabili du emakume baten irudia egiteko. Kasu honetan ez da emakume zehatz bat, abstraktu bat baizik: emakume euskotar eta abertzalea. Balendin Enbeitak sinesten zuen emakumeengan dagoela gakoa Herri kontzientzia sakona eta eraginkorra suspertzeko, eta hori berak bere *Bizitzaren joanean* liburuan aitortzen duenez, Sabino Aranaren eraginez jaso zuen:

Halan da be, lehendik hona ehuneko asko irabazi dauala esango neuke, batez be emakumeetan. Arana Goiri'tar Sabinekin esan eban, emakumea Herri iraultzan hasten zanean askatasuna hurrean izango zala.

Baleiteke Euskal Herriaren itxaropen haundienetariko bat izatea. Emakumea dogu seaskako haurtxoaren bizi emoile eta haurrak dira biharko Herriaren bizitza. Emakumearen lanik haundienetariko bat hor dago: haurrari euskeraz erakutsi, euskal giroan hazi, nongoak eta nor garan azaldu [...] (Enbeita, B., 1986, 58).

Balendin Enbeita konturatu egin zen modek emakumeengan daukaten eraginaz eta hori, bere bertsoetan adierazteaz gain, erabili nahi du batasun edo Herri kontzientzia sortzeko:

Emakumia lurbira ziar  
dabil modia begira,  
nundi edo andi helduko iaku  
modia dauan tokira;  
jantziko iaku, naiz-ta nabarmen  
izan, modien jazkera,  
modan balego zorioneko  
litzake gure euskera. (B088a)

Azken bertso hau dela eta, esan beharra dago oso antzerako beste bertso bat aurkitu dugula egile honen bertsoen artean. Beste bertso hori ondoren erakusten duguna da eta azpimarratuta dauden puntuetan begi-bistakoa da dagoen antzekotasuna, nolabaiteko hasiera formularioa bilakatu dena :

Emakumia mundu guztian  
dabil modiai begira;  
nundi edo andi elduko iaku

modia dagon lekura;  
jantziko iaku, naiz-ta nabarmen  
izan, modien jazkera,  
 barre egin arren bere itxuari  
 bape ez dautsa ardura.  
 Emakumetan sartuko balitz  
 gure izkuntza modara,  
 mundu guztiak egingo leuke  
 aunditasunez euskera. (B093b)

### **2.3. Baserri munduaren mitifikazioa**

Antonio Elorza historialari eta ikerlariaren ustetan, joera baserritarra bizi bizirik zegoen abertzaletasunaren argumentuen artean, pasa den mendearen azkenalditik. Industrializazioaren kontrako erreakzio logikotzat hartu daiteke hau Sabino Aranaren aldetik behintzat. Ideologia horretan murgildurik, garrantzitsuena ez da nekazarien behar izanak kontutan hartzea, baizik eta baserritar munduaren eredia, bere ondorio moral guztiekin, maldan behera edo ukatua zegoena. Baserritarren arketipoa kontrastean zegoen industria munduko gizakiarekin, euskal nortasunaren ezaugarriak galdua zeuzkana. Horrela azaltzen du Antonio Elortzak bere ikuspuntua:

No se trata de una defensa de los intereses del campesinado o, genéricamente, del mundo rural, sino de la configuración de un modelo mítico que va a contraponerse una y otra vez a los aspectos negativos (culturales, económicos, sociales) que presentan los conflictos de la zona industrial [...] (Elorza, 1978, 175).

Los problemas concretos del campesinado vasco no sólo no se abordan de modo directo, sino que son sometidos a una considerable dosis de idealización, como medio de reforzar su sentido de modelos ante la negatividad de la conflictiva área industrial (Ibidem, 190).

Elorzaren hitz hauek ezin zaizkio aplikatu bete betean Areatza auzoko bertsolari honi, Balendin Enbeitari alegia. Berak bazeukan ardura zehatza, edo behintzat horrela adierazten zuen bere bertsoetan, baserritarren arazoekiko, agian bere bizibidea horixe zelako: baserritarra izatea. “Baserritarrak kejaz” izenburua duen bertso-sorta horren adierazgarri argi eta garbia dugu (baina ez bakarria):

[...] ekaitz txar batek ondatu leikez  
 urte guztiko bearrak,  
 au zuzentzeko iñor ez dago,  
 alperrik egin negarrak. (B243b)

Gugaz dabilzan arerio bi  
 daukaguz diferenteak:  
 batzuek dira pentsu-saltzaile,  
 bigarrenak tratantiak.  
 Zer balio dau baserritarren  
 gauzak ondo saldukiak,  
 bitartekuak kentzen badauskuz  
 zekorren iru partiak? (B243c)

Zortzi pezeta ta errial bat  
 esnearen salneurria,  
 zortzi ta erdi eta geiago  
 pentsuzko janaria [...] (B244a)

Bertso hauen bitartez erakusten da Balendin Enbeitak hurbiletik ikusten zituela baserritarren arazoak eta horregatik bertsoetan zertzelada txikienen berri ere ematen du. Beraz, ezin da esan, sabinismoaren eragina izan arren, baserritartasuna eredu teoriko bezala bakarrik duenik. Barruko ardura ere bada Balendin Enbeitarengan, aldarrikapenak eta hobekuntzak burutzeko arloa.

Oso oparoa da Balendin Enbeitak baserriari eta baserritar munduari eskaintzen dion arreta. Berrogeita bat bertsoetan agertzen da baserriaren gaia era zuzenean, berak idatzitako liburu bietan. Askotan, *Ama Euskera* irudiarekin bezala, pertsonifikazioak egiten ditu baserriarekin edo baserri munduko elementuekin.

Lau era nagusi erabiltzen ditu Balendin Enbeitak baserria eta baserritartasuna tratatzerako orduan:

- ? Haurtzaroko gogorapenen lekua.
- ? Deskripzio mitifikatuaren objetua.
- ? Ohitura onen gordelekua.
- ? Kexazko bertsoak egitera eragiten diona.

Ikus ditzagun banan banan:

### **2.3.1. Haurtzaroko gogorapenen lekua**

Lehenengo eta behin, Balendin Enbeitarentzat baserria gazte edo haurtzaroko gogorapen goxo eta samurra da. Galdutako haurtzaroa gogorarazten dio baserriak, edo zehazkiago bere jaiotetxea den Uzparitxak:

Urtia jua, urtia etorri  
 neure zentzuna betiaz,  
 geruau geiau gogoratzen naz  
 neure baserri politaz;  
**gazte aldiko zorun-bizitza**  
**eta jolasak an dodaz,**  
 au dala bide ezin naz aztu  
 neure jaiotza lekuaz. (B044a)

Metaforizazio bat gertatzen dela ere esan daiteke. Hona hemen gai horretaz darabilen irudia:

Mendipe baten dago  
 Uzpitxa-Jauregi,  
 nere txikitxutako  
 jolasen **lantegi**; (B049c)

[...] lengo jolas lekua  
gaur amesen **kabi**. [...] (B050b)

### 2.3.2. Deskripzio mitifikatuaren objektua

Baserritar giroaren deskribapena egiterakoan nolabaiteko mitifikazio kutsua dago, erromantizismoak eraginda. Deskripzio mitifikatua dugu beraz:

Baserri txuri polit  
baketsu otzanak,  
solo, landa, sagardi,  
zugazti lerdenak,  
txorien txorrotxio  
alai gozoenak,  
menditik begituta  
dira ederrenak. (B049b)

Giro baketsu, atsegin eta bukolikoa agerian uzten da. Naturaren aipamenak giro hori sortzen laguntzen du, eta sentipenen ispilu bilakatzen da. Baserriaren deskripzioa ez ezik, baserritar bizimoduaren deskripzioa ere goraiatzeko joeran agertzen da. Goraiatze horrek normalean helburu didaktiko bat gordetzen du bere baitan; izan ere, baserritar bizimodua desglosatzean, bertutezko eredu bat eskaini nahi zaio bertsoen hartzaileari, hark ere eredu hori haren bizitzan berengana dezan. Adierazitakoaren haritik, hona hemen "Neure baserriko bizitza" izeneko bertso sortatik ateratako ale batzuk:

Goizean ogetik jagi,  
gelako leioa edegi  
eta jartzen naz ni adi:  
Etxe ondoko intxaur gaiñian  
txantxangorria kantari,  
eguzkia dizdizari,  
nere baserritxuari  
bake gozoan geznari. (B138a)

Giro gozo hau aurkeztu ostean, Balendin Enbeitak bere bizimodua erakutsiko dio bere bertsoen hartzaileari. Zinezko bizimodu eredugarria da, gizalegea eta kristautasunaren ikuspuntutik, erakusten zaiguna:

Jagi ta lenengo lana  
auxe egiten doguna:  
zuzendu Jaunarengana;  
Berai eskiñi neke ta lanak,  
eskatu laguntasuna,  
jateko eta edana,  
guretzat berak emona  
bere eskuan utzi dana. (B138b)

Azken bi bertso hauetan Jean Batista Elizanbururen (1828-1891) oihartzuna sumatzen da zenbait ezaugarri direla medio:

- Ahapaldiaren neurria "Nere etxea edo laboraria" izeneko sortaren berbera da, Elizanburuk konposatu zuen horrena.

- Gaia ere antzerakoa da: baserritar bizitzaren goraiamena. Bertan gizakiak zoriontsu izateko ez duela ondasunik asko eduki behar aldarrikatzen da. Bizimodu tradizionalaren balioak goraiatzen dira: familiako betebeharrak ondo betetzea, lana maitatzea, familiako beste kideak dagokien duintasunez tratatzea. Horrela Jainkoaren bedeinkapenak etorriko dira gizaki horrengana, kasu honetan laborariarengana. Era berean frogatzen da laborari edo baserritarraren bizitza egokiena dela gizatasuna modurik onenean bizitzeko<sup>502</sup>.

"Nere etxea edo laboraria" izeneko bertsoetan, beraz, laborari edo baserritarraren bizimodu bukolikoa deskribatzen du bertsoen fikziozko egileak, laborariak berak hain zuzen, lehenengo pertsona erabiliz:

Ikusten duzu goizean  
Argia hasten denean  
Menditto baten gainean  
Etxe ttipitto, aintzin zuri bat  
Lau haitz ondoren erdian  
xakhur xuri bat athean  
Ithurritto bat aldean?  
Han bizi naiz ni bakean.<sup>503</sup>

Geroagoko bertsolari batek, Fernando Aire "Xalbadorrek" hain zuzen, ahapaldi mota berbera erabiliz tematika berbera jorratuko zuen. "Sortetxeari" izeneko bertso sortan bere etxeari dion atxikimendua adierazten du eta, horrekin batera, galtzeko zorian dagoen bizimodu mota bati eutsi nahia agertzen du.

Oi gure etxe maitea,  
orroitzamenez betea,  
zorionaren atea!  
Zure altzoan iragana dut  
sortzetik orai artea.  
Izanagatik pobrea,  
bertzeak baino hobea  
ni sortu nintzan etxea (Aire, 1976, 83).

Honen harian eta Antonio Elorza gogora ekarriz, hasierako ideologia abertzale horien artean, mundu landatar hori moralki osasuntsu dago, oraindik ustelduta ez dagoen eremua da, hain zuzen ere kanpoko eragina jaso ez duelako:

<sup>502</sup> Mota honetako iritzien azpian, inplizituki bada ere, Jean-Jacques Rousseau (1712 - 1778) filosofo eta literatoaren eragina dagoela esan daiteke. Jean - Jacques Rousseauren filosofiak eragin handia izan zuen Erromantizismoan. "Basati onaren" goraiamena egiten den garaia dugu Erromantizismoa. Progresoa, Jean-Jacques Rossearen ustez, gizakiaren jatorrira edo Naturara itzultzean zetzan; izan ere, gizartearen inposaketek gizakia usteldu egiten zuten, instintoa eta joera naturalak oztopatzen zituzten.

<sup>503</sup> Labayen, 1978, 195.

La Vizcaya rural encarna el conjunto de valores positivos, las costumbres tradicionales, el amor a la tierra, siendo en consecuencia el reducto básico de la raza amenazada. [...] Las formas concretas de la vida rural son algo muy alejado de la competencia teórica del fundador del nacionalismo vasco, que ve ante todo en los pueblos lugares en que se habla el euskera, faltan los maketos y se conservan las danzas populares en su pureza originaria, contrastando con la lascivia de los bailes 'agarraos'<sup>504</sup> traídos de España (Elorza, 1978, 177).

### 2.3.3. Ohitura onen gordelekua

Zenbait bertsoetan, eta aurreko ezaugarriaren ondorio legez, errural mundua ohitura onen gordeleku bezala aurkezten da eta baserri giroaren alderdi hau biziki azpimarratzen da beraietan.

Alde egiñagaitik  
gure gurasoak,  
emen lotuko dira  
mendi ta basoak;  
baserri eta zelai,  
sagardi, soloak,  
euskaldun zaindu bediz  
Aita Jaungoikoak. (B051b)

Ikusten denez, giro hori kontserbatzeko desioa erakusten da mota honetako bertsoetan. Desio orokor hau zehaztuago agertuko da zenbaitetan, euskal ohitura eta euskal hizkuntzari garrantzi berezia emanaz, ondorengo bertso honetan bezala:

Emengo mendi, baso, zelaiak,  
baserri, uri, baratzak,  
berezko izate ederra daukan  
oitura eta izkuntzak,  
naiz-ta sarritan emen be aurkitu  
**loraren ordez arantzak** [...] (B072c)

Lehengo kapituluan adierazi dugun bezala, *arantza* horren irudiak bizitzaren nahigabeak eman nahi du aditzera eta *lora* irudiak, bizitzaren poztasunak; irudi biak metafora garbiak bezala agertzen direlarik. Kasu honetan, *arantza* nahigabe mota bat adierazi nahiko luke: ohitura onak eta hizkuntza garbia aurkitu beharrean, egileak erdara eta kanpoko ohiturak aurkitzen ditu. Beraz, baserria ohitura onen gordelekua izaten jarraitzeko apustua egiten du Balendin Enbeitak, jadanik ohitura osasuntsu horien gordeleku izateari uzten hasi delako. Eredu moral hori gorde nahi du beraz:

<sup>504</sup> Badago Balendin Enbeitaren bertso bat dantzatzeko joera berri honetaz bere kexua adierazten duena: "Tanbolin-txistu gozoan / lenago ziran jolasten,/ gaur eguneko **dantza loturik / ez eben ontzat artutzen**;/ ondiño geiau: pekatu-pean /jolas au eben zigortzen. /Orain **lotua** ontzat artuta / **garbiak dabiz baztertzen**, [...]", Enbeita, 1974, 229.

Neure baserri kutuna,  
aita ta amak emona,  
nai dot zure **iraupena**.  
Ondorengoak ez beie galdu  
zuk dozun edertasuna,  
**oitura** ta siñismena;  
beti izan zentzuduna,  
egiazko euskalduna. (B140a)

### 2.3.4. Kexazko bertsoak eratzera eragiten diona

Baserria ez ezik baserri mundua ohitura onen gordelekua ere bada. Hala ere, Balendin Enbeitak barne minez ikusten du lehengo ohitura “garbiak” galtzen doazela, eta, maldan beheran dagoen baserriartasuna aintzakotzat harturik, noizean behin kexazko bertsoak argitaratzen ditu:

Tanbolin-txistu gozoan  
lenago ziran jolasten,  
gaur eguneko dantza loturik  
ez eben ontzat artutzen;  
ondiño geiau: pekatu-pean  
jolas au eben zigortzen.  
Orain lotua ontzat artuta  
garbiak dabiz baztertzen,  
gaurko gazteak, ikusten danez,  
geiago dabe agintzen. (B229b)

Kexa hori adierazteko modu bat irudiak erabiltzea da. *Sasia* irudiak alferkeria eta utzikeria adierazi nahi du, erruz hazten den landare kaltegarria, etxeiko *baratza*, hau da, euskaldun zintzo baten betebeharra, zaintzen ez denean. Alegoria mota hau oso erabilia izan da bertsoagintza tradizionalen<sup>505</sup>.

Lan honetan ezin dugu alegoria honen historia garatu. Badirudi Biblian bertan izan dezakeela bere jatorria, eta helburu didaktiko edo morala zeukan hasieran. Axularrek bere *Gero* liburuan alegoria eta irudi hau ekartzen du Bibliaren aipamena eginez:

*Per agrum hominis pigri transivi, et per vineam viri stulti, et ecce totum repleverant urticae et operuerunt superficiem eius spinae, et maceri lapidum destructa est. Quod, cum vidissem, posui in corde meo, et exemplo didici disciplinam* (Prov. 24). Iragan nintzen gizon nagiaren landatik, eta erho gobernu gabearen mahastitik (dio Spiritu Sainduak) eta guztiak ziren hasuiñez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheak: eta hesiak, herstegeiak eta harmorak ere, eroriak eta desginak. Eta hek hala ikhusi nituenean, egin nuen gogoeta, hartu nuen exenplo, ikhasi nuen zer egin behar nuen, eta zentzatu nintzen bertzeren gaiñean. [...] Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, erreko zaitu; [...] Den lurrik hoberenak ere behar du

<sup>505</sup> Xalbadorrek beldurra zeukan bere sortetxea galduko ote zen, semeek horren ardura hartuko ez zutelakoan. Baserri hitzaren ordeztan, *kafi* hitza (kabi) erabiltzen du: “Tristeia litaikela ez diat dudatzen/ etxe-amodioa ez baita mugatzen;/ ikustea **kafi** hau **sasiz** inguratzen/ eta gure bazterrak bertzen eskuratzen,/ gogoratzerat ere ez nauk menturatzen”, Aire, 1976, 203.

aphaindu, garbitu eta iorratu. Zeren bertzela belhar gaixtoa izanen da bethiere iaun eta nagusi (Axular, 1976, 41).

Sustrato kristaua zeukaten zenbait artista abertzalek irudi hau hartu zuten abertzale nagia edo abertzalea ez zen euskalduna irudikatzeko. Irudiak ez zuen azalpenik behar: euskal hiztun komunitatearen ondarean bizirik zegoen, metatestu baten elementu bat zen. Euskaldun zintzoa, berriz, bere baratza zaintzen eta lantzen duen gizakia da. Zentzu honetan, hildako apaiz bati laudoriozko bertso hauek botatzen dizkio:

[...] Irribarrezko aurpegi alai,  
urre gorrizko biotza  
arimen artzai egiazkoa,  
santua bere bizitza,  
[...] berak landua erri onetan  
**sasiz** eguan **baratza**. (B159a)

Mendi baterako igoera bertsotan idatzi zuen *Bizitzaren joanenan* liburuan. Bertan oso irudi adierazgarriak erabiltzen ditu, lehenago aipatu dugun haritik:

Makila eskuan ta  
txapela garrian  
Mendian gora noa  
bide zidorrian  
**Sasiak** geratu nau  
itxura txarrian  
Atzera ez aurera  
istilu gorrian  
Lehen garbia genduan  
**bide** ederrian. (Bb185c)

Eta horrelako beste baten:

[...] Gaur **sasiz** dagoena  
lehen gendun **baratza**. (Bb186a)

Sasiz beteriko solo, baserri edo lurgintza bat deskribatzen denean, modu alegoriko baten beti ere, Balendin Enbeita bere kexazko salaketa azaltzen ari da, baserritar munduak jasan duen utzikeriaren aurkakoa hain zuzen. Lehena eta oraina ere kontrajartzen dira: “lehen” kontzientzia sendoagoa omen zegoen, euskaldun zintzo gehiago eta beraz, euskal baratza garbi zegoen. “Gaur”, ordea, utzikeria nagusi da, lehengo euskaldun zintzoek erakutsitako bidetik inor gutxi ibiltzen da. Horretan dago ba diogun salaketa.

Dantza berri, lizunkerri edota moda berriaren kontra ere badu kexazko bertso zorrotzen bat. Adibidez, gonamotz jantzita herrira datorren neska bati horrela dirautso:

[...] Onen antzeko **txori nabarrak**



noizbaiten dira ikusten,  
melena eta bizardunakin  
gustora dira ibilten. (B220b)

Gorputza dauka goitik beraiño  
oso egoki egiña,  
baiña badauka andra on baten  
duintasunaren premiña. [...] (B221a)

Gauza ona da erriko jaiak  
pozik, alai ospatzia,  
baiña ez gero, libre dala-ta,  
oitura onak galtzia.  
Jolasian da jazkeran bardin  
euki bear da lotsia,  
gura badogu Euskalerriko  
oitura onak zaintzia. (B221c)

Zenbait hitz eta hitz multzo azpimarratu ditugu, ageriago gera dadin Balendin Enbeitak ohitura onekiko zuen kezka bizia. Hemen harira dator Antonio Elorzak esaten duena erruralizazioaren mitifikazioaz hitz egiterakoan. Baserritar mundu horretan, nola edo hala, ohitura onak eta horren adierazle diren dantza garbiak gordetzen dira. Hiritik datorrena, ordea, lizunkeria eta ustelkeria da. Ideologia abertzaleak horretaz abisatzen du “argi ibitzeko” eta behar diren neurriak hartzen ditu:

La regla de oro del nacionalismo sabiniano consiste en el aislamiento de los núcleos vascos respecto a todo influjo o relación que incida sobre ellos desde el exterior (Elorza, 1978, 177).

Bete betean asmatzen ez duen arren, honetatik, zer edo zertxo badago Balendin Enbeitarengan, lehenago ikusi ahal izan denez. Dena dela, jadanik ez da egiten baserritar mundu garaikidearen mitifikazioa, baizik eta lehenagoko baserritar munduarena; izan ere, Balendin Enbeitaren garaian ezin zitekeen ukatu kanpoko ohiturak<sup>506</sup> mundu landatarrean ere, sartuta eta nahiko errotuta zeudela.

Abertzaletasunaren lehenengo joera batekin bat eginik, Balendin Enbeitak erne egoteko deia egiten dio euskal jendeari “Al dala argiz ibili” izeneko bertso-sortarekin, kanpoko ohiturekin kontuz eta erne ibiltzeko. Abisu hori batez ere emakumeei zuzenduta badago ere, euskaldun oro izan daiteke horren hartzaile:

**Lorarik lora** geienok gabiz  
nai dogu edertasuna  
bide ortatik iatorkula ustez  
bakia ta zoriona,

<sup>506</sup> Kanpokotzat zein har dezakegun eta zein ez zail xamarra da, hala ere. Izan ere, bertakotzat jo izan diren ohitura askok “kanpoan” edo atzerrian izan dute euren jatorria. Urrutira joan gabe, bertsolaritza, ahozko eta bat-bateko jenero legez, zenbait girotan eta zenbait unetan, Euskal Herriko fenomeno berezizat jo izan da. Gaur egun ez dago horri eusterik; izan ere, gero eta ezagunagoa da bat-batekotasunak edo repentizazioak mundu zabalean duen presentzia.

eta etxaku gogoratuten  
lorak **arantzak** dituna; [...]

Balendin Enbeitak zenbait bertsoan, eta hartzailearengan erreakzio bat sorrarazi nahian, etsipenezko kexa bat azalarazten du, orduko giro morala deskribatuz. Arestian aipatutako bertsoa horren adierazgarria litzateke eta honela jarraitzen du:

[...] lenauko gure oitura onak  
ia jo dabe azkena;  
berba labanak, jolasak bardin,  
**gaba** arturik **eguna**;  
auxe da gure etxietako  
bakia kendu dabena;  
zar eta gazte, esan legike  
galdu dogula zentzuna. (B161a)

*Gaba* egoera moral berriaren irudia da, *egunari* edo lehenagoko egoera moral osasuntsuagoari terrenoa jan diona. Abisuarekin batera, kexazko deiadarrak ere badira, ikusten denez.

### **3. Kezka soziala eta kexa soziala: zenbait aldaketen zioak**

Balendinen bertsoak aztertzean agerian gelditzen da hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera zenbait ezaugarri eta joera berri, ideologiaren aldetik beti ere, sortzen ari direla.

Deigarria egiten zaigu, esate baterako, gai erlijiosoak jorratzerakoan, lehengo tonu barnerakoia, lasaia, samurra urratu egiten dela batzutan zenbait aldarrikapen mingotsekin, egoera sozialak eragindakoak. Hori, beti ere, gai erlijiosoak jorratzerakoan:

Bakea nai badogu  
ez iñor zapaldu,  
menpean daganari  
jasoten lagundu;  
baña gizona ez da  
malla ortara eldu,  
naiago dau munduan  
indarrez agindu. (B254b)

Nolabaiteko etsipena sumatzen da, gizakiarengan fedea edo itzaropena galdu duelakoan. Etsipen horri salaketa gehitzen zaio, ez ikuspuntu aszetiko edo doktrinario batetik, moral sozialaren ikuspuntu soiletik, horri berebiziko garrantzia eman nahian:

Alperrik dira gure  
mingañezko lanak,  
egintzaz ez bagar  
egizko gizonak;  
laguntza bearra dau

menpean dagonak,  
onentzat ere bardin  
dituguz Gabonak. (B254c)

Abertzaletasun eta euskaltzaletasun kontuetan eskatzen zuen koherentzia hemen ere indar berberarekin aldarrikatzen da, esanen eta egintzen arteko alderik izan ez dadin.

Ezaguna da 70eko hamarkada nahiko korapilatsua izan zela, batez ere erlijiotasunari dagokionez. Vaticanoko II. Kontzilioaren mezua leku batzuetan modu oso librean interpretatua izan zen, eta horrekin batera fede krisi handiak izan ziren. Apaiz eta moja askok euren bizitza konsakratua utzi eta sekularizatu egin ziren. Existenzialismoa ere pil-pilean zegoen eta jendeak nora jo ez zekiela, joera hori indartsu egin zen.

Guk ez dakigu Balendin Enbeitaren fedea krisirik jasan ote zuen ala ez. Baina argi dago bere zenbait bertsoetan halako oihartzun existenzialista bat sumatzen dela, batez ere bere barneko zenbait kezkek (ez oso argiak eta esplizituak) zentzu argirik aurkitzen ez zutelako. Esate baterako, barneko bakea faltan botatzen du behin baino gehiagotan. "Bake osorik ez" izeneko bertso sorta horren adibide bat dugu:

Gizona doia mendian gora  
bakea lortu gurarik,  
giro ederra, bakartadia,  
dana dau ixil-ixilik.  
Baña gauaren itzalen bildur  
biotzak ez dau bakerik,  
gura dau baña ezin dau lortu  
egizko bake osorik. (B189a)

Gauan erdian ames gogorrez  
urratu bear gorputza,  
erdi itxarrik izerdi larriz  
taupada baten biotza [...] (B236a)

Bitxia da kezka horretan murgildurik, eta konponbidea bilatu nahian, arestian aipatu dugun moral sozialean soilik aurkitu nahi duela konponbide hori:

Barruko kezka ori kentzeko  
ez al da ezer egongo?  
Kontzientzi ori garbitu arte  
ar ori ezta juango.  
Eta zer egin? Jarri doguzan  
negarrak kendu lenengo,  
eta orduan erri batentzat  
gizonak gara izango. (B237a)

Kexa sozial horren alderdi bat diruzalekeria da. Horren kontrako salaketa elementu berria da Enbeitatarren bertsogintzan. Kepa Enbeita, kristau zorrotza izanik, ez zen horren oldarkorra diruaren kontra. Ez du erabateko gaitz bezala

ikusten. Begi onez ikusiko du, baldin eta gizakia itsutzen edo engainatzen ez badu:

Dirua ludi ontan danok dogu maite  
Osasunen laguntzat dalako polite; [...] (K164a)

Pentsatzekoa da Urretxindorrek, irizpide kristaua izanik, dirua edo edukietan bizitzaren itzaropena ez jartzea. Bertsoek, nola ez, hori demostratzen dute, baina esamolde zorrotzegirik erakutsi gabe. Irakaspenaren tonua nagusitzen da, errietarena baino:

Ludi zoroan makiñatxu bat  
ba-yabilk diru atzian;  
baña zorion osorik ezin  
lortu diruaz utsian.  
Gure Jainkuak damoskunagaz  
pozik ba'daukak biotza,  
eu izango az orain ta gero  
egiazko aberatsa. (K182a)

Balendinek, ostera, salaketa gogor bat egiten du “Dirua, danon errege” izeneko bertso-sortan: errege tiranoa dugula dirua eta bere hatzaparretatik ihes egin behar dugula, oso jokaera ankerrak izatera bultzatzen gaituelako:

Dirua berez ez da izango  
zorion danen zuztarra,  
baña badauka aparteko bat  
neurtu ezin dan indarra;  
erreztasunez eskuratzen dauz  
eskubi eta eskarra,  
guzurra egi bigurtzen daki  
eta egia guzurra. (B241a)

Dirua oso indartsua da,  
astintzen dauz inguruak;  
tentelak ere bizkortzen ditu,  
bizkorrek jarri eruak; [...] (B241c)

Kezka honen berotasunean berriro ere salatuko du koherentzia falta, batez ere zenbait sinestunena:

Gure artian maitasun-itzez  
sarritan gara laztantzen,  
maitasun orren ezaugarria  
egipenak dau agertzen;  
txiruarentzat maitasun otza,  
diruak gaituz berotzen,  
urregorritzko maitasun-itzak  
gorroto daki bigurtzen. (B240c)

Bestalde, ezin dugu pasatzen utzi detailtxo bat: Urretxindorra Jeltzale sutsua izan zela, alderdi politiko bati biziki lotua. Lotura hori ez dugu Balendin Enbeitaren bertso gintzan ikusiko. Abertzaletasun ikuspuntutik bada ere, orduko ezker abertzalearen aldarrikapen eta leloak berenganatu egingo ditu eta bertsoan adierazi:

Demokrazia izenarekin  
kontzentzi bage zigorrez  
Herri bat hemen sufritzen dago  
menperatua indarrez  
Eleiztar asko ixilik dago  
egia esaten beldurrez  
Ta bitartean gure Herria  
justizi eta negarrez  
Hau ikusi ta Jainkoa dala  
sinesten ez dago errez. (Bb187a)

Aktibista zen Jose Etxebarrietaren heriotzan ere bertso batzuk kantatu zituen honela:

Josen hiletan bere etsaiak  
min asko gabe esan du  
[...] Baina egintzak Herrian dabiz  
inork ezin leikez kendu  
Nahiz ta gorputza lurra iruntsi  
arima ezin zapaldu. (B173a)

Joera honen azterketarako lagungarriak lirateke testuinguruaren hainbat eta hainbat datu izatea: Balendin Enbeitak, bere familiakoek edo ingurukoek ezker abertzalearen ideologiarekin izan zituzten ideologiazko loturak nola joan ziren garatzen eta zer nolako gertakizunak izan ziren erabakigarriak horren aldera agertzeko. Azterketa honek, baina, argitaratua izan den corpusa soilik du aztergai. Hala ere, bihar-etziko azterketa batek arestian esandakoa kontutan hartzeak ikuspegi aberasgarria ekarriko luke.

Ezkerrera egindako bira hura, ostera, ñabartua eta leundua izango da behin baino gehiagotan. Balendin Enbeitak argi utzi nahi du berak sinestuna izaten jarraitzen duela:

Pertsona bat naz, ba dut zentzuna  
Ez naz, sinesmen bakoa [...]  
Sinestuten dot badala norbait  
gu baino goragokoa [...] (Bb187b)

Euskaldunen arteko batasuna eta anaiortasuna beharrezkotzat ikusten segitzen du:

[...] Geroago ta gogorrago da  
anai arteko ekaitza  
Ta bitartean sasiak jazten  
Euskalherriko baratza. (Bb186c)

Garai haretan ez gendun uste  
 Izango gendunik gaur hainbat naste  
 Hitzak ederrak, egintzak labur  
 Eta bakeak egin dau agur  
 Kurutzaz ahaztu  
 Behar ez diran gauzakaz nastu  
 Lehengo bakerik Herriak ez du. (B182d)

Amesak ames ditudaz baina  
 barrena kezka betetik  
 garai hartako Euskal Herria  
 ta gaurkoa ikusirik  
 Danok batera jokutzen gendun,  
 gaur gabiltza banandurik;  
 batu daiguzan gure indarrak  
 anaiak besarkaturik.  
 Euskadi askatu gura badogu  
 ez dago beste biderik. (Bb170b)

#### 4. Ondorioak

- a) Balendin Enbeitak bere bertso-gintzaren bidez adierazten duen ideologia bi era nagusitara antzematen da: edukin ideologikoa duten irudien bidez eta ideia-gune esplizitu batzuen inguruan bere diskurtsoa azalduz. Egile honen bertso-gintza posiblea da alde biotatik aztertzea, irudi nahiko argiak eta errekurrenteak erabiltzen dituelako eta beste zenbaitetan diskurtso ideologiko argiak (eta batzutan irudirik gabekoak) egiten dituelako.
- b) Edukin ideologikoa izan dezaketen irudiak ez dira asko. Gainera, erabiltzen dituenak ez dira berak asmatuak. Euskal kulturatik etorri zaizkionak dira, bere aitak ere erabili zituenak. Hori bai, irudi horiek erosio edota garapen bat jasan dute.
- c) Nabarmentzen den irudi bat, bertso munduan aski ezaguna bestalde, Ama Euskera da. Beste kulturetan amatasuna balio kulturali lotuta izatea ez da arraroa izaten. Euskal kulturaren ere irudi honek bultzatzaileak eta miresleak izan ditu. Balendinek irudi honekiko atxikimendua bere aitarengandik jasoko zuen hein handi baten, baina berak bilakaera berezia eragin zion. Kepa Enbeitak bezala, Herri kontzientziaren akuilugarri bezala erabili zuen, behar izan gorrietan aurkitzen ziren kultura, hizkuntza eta nortasun ezaugarriak bultzatzeko. Baina esan beharra dago bere aitak baino sarriagotan erabili zuela; izan ere, Kepak *Ama Euskadi Ama Euskerea* baino sarriagotan erabiltzen zuen. Balendin, oster, Ama Euskerarekin tematzen da, agian nortasun kulturalari nortasun politikoari baino lehentasun handiagoa eskaini nahi ziolako. Ama Euskerarekiko euskaldunen artean halako sailkatze bat egingo du ere, hiru multzo osatuz: alde batetik leialak direnak, bestetik, aurkariak, eta, azkenik, euskaldunak

izanik beren amaren ardurarik ez daukaten euskaldun *erdelzaleak*. Batez ere hirugarren multzokoei eragin nahi die, gizatasun pizka bat geratzen bazaie behintzat bihotz-berritu daitezten eta Ama Euskeraren alde jarri daitezten.

- d) Arbola da beste irudi giltzarri bat. Beste kulturetan bezala, baina gurean agian era berezian, sinbolo bat da, nortasun juridikoaren sinboloa, eta era berean, nolabaiteko burujabetzaren sinboloa. Bada, Balendinen erabilera tradizio honetan dago txertaturik. Hala ere, irudi honetan higidura bat somatzen da. Balendinen bertsoetan, esate baterako, zenbait pertsonen metafora sinbolikoa izatera ere ailegatu da, batez ere pertsona horiek euskal nortasunaren ezaugarri sinbolikoak berenganatu badituzte: langileak, fededunak, euskal kulturarekin kezkatutakoak, Euskal Herriari nolabaiteko “konsagrazio” bat eskaini diotenak, eta abar.
- e) Ideologiaren alorrari dagokionez, gerra aurreko euskal kulturaren zeuden kezkei jarraipena ematen die: euskara eta euskal nortasuna, sustraietara itzuli beharra, elementu bereizgarriak bultzatu, euskaldunak abertzaletu eta abar.
- f) Diskurtsoekin ari garelarik, badago nolabaiteko metabertsogintza, hau da, bertsolaritzari buruzko bertso bidezko gogoeta. Balendinen ustez, bertsolaritzak herrigintzarekin duen lotura agerikoa da, eta horri eutsi behar zaio. Horrezaz gainera, genero honek entzulegoa eta azken finean euskaldunak biltzeko duen gaitasuna gogorarazten digu.
- g) Bere aitaren diskurtso ildo bati jarraiki, emakumearen eginkizuna da Balendinek jorratzen duen gai ideologikoetako bat. Emakumeak herrigintzan eta euskal nortasunaren eraketan duen eginkizuna ezinbestekoa eta paregabekoa da bere aburuz, batez ere haurren hezkuntzan duten eskuhartzea dela eta. Gainera, eta arrazoiketa honetan jarraituz, modarekiko duten kezka bizia motibazio ona izan liteke noizbait euskal nortasuna emakumeen artean modan jarriko balitz. Guzti honekin Balendinek jarduera ildo bat iradokitzen digu, baina bere bertsoetan bistan da ez dela oso egitasmo zehaztua.
- h) Bestaldetik, baserri mundua goraiatzan du maiz Balendinek. Hala ere, bera baserritarra izanik, ez da eroriko halako mitifikazio bukoliko, amestiar eta xalo baten. Goraiatzan hori bere familia bizitzaren hainbat eta hainbat oroitzapen eta gertakizun goxotan dago oinarrituta, batez ere haurtzaro eta gaztaroko gertakizunetan. Gertakizunetik ez ezik, baserritar giro horretan berenganatu dituen balioekiko erakusten du txera maitakor bat. Izan ere, Balendin Enbeitarentzat baserria, jaiotza-lekua eta oroitzapen gozoen lekua izateaz gain, ohitura onen gordelekua ere bada. Ohitura on horien barruan ohitura moral osasuntsuak eta euskal kutsua duten jardueran biltzen dira.

Baserria atzerri aldetik datozen ohitura txarren aurkako harresia da: horregatik, eta ez mitifikazio erromantikoarengatik, eutsi nahi dio baserriko bizimoduari. Hala ere, horrek ez du galerazten noizean behin baserri bizitzan dituen laztasunak agertzea. Baserri bizitzaren ikuspegi errealista ez duela galdu erakusten digu bertsolari honek, arazo zehatzak behin baino gehiagotan azalduz.

- i) Balendinek indarrean ikusten du puntu askotan euskaldunok koherenteagoak izan behar dugula, eta hori dela eta, lehengo aldarrikapen eta kontzientziakzio langintzan jarraitzen du. Koherentziak salatzeke modu erabiliena kontrajarpena da. Koherentzia bultzatzeko, ostera, sententzia eta apostrofea dira modurik erabilienak.
- j) Bertsolari honek 70ko eta 80ko hamarkadetako kezka sozialen oihartzuna ekarri zuen bere bertsoetara, edo behintzat horretan egin zuen zenbait ahalegin. Horrekin batera, existentzialismo-aldiak; izan eta, agertu zituen bere bertsoetan lantzean-lantzean. Agian hamarkada horietan sinesmen munduan izan ziren krisialdiek bere eragintxoak izan zuten bertsolari honengan; izan ere, barne munduaren bakea eta koherentzia kanpoko ekintzetan soilik bilatu nahi duela dirudi, justizia sozialean soilik.
- k) Balendinen bertsogintzan Sabino Aranaren irudia desagertzen da, Urretxindorrek zuen miresmen horren lorratzik ez da geratzen, eta izena bera ere ez da aipatzen. Testuan oinarritutako datuetan ezin dugu horren interpretaziorik egin. Hala ere, argi dago honetan behintzat alde bat dagoela bere aitaren ideologiarekiko.



## **3. ATALA**

### **ONDORIOAK**

A. Bertsolaritza ez-tradiziozko jeneroa izan arren, Kepa eta Balendin aita-emeak tradizioa ezartzen duten bertsogintza baten bi katebegi ditugu. Tradizioan barrena luzatzen den katea osatzen dute eta, era berean, katebegi desberdin bi dira: lotuta egon arren, bakoitzak bere nortasuna du.

Bakoitzaren iturriak ez dira berdinak zenbait kasutan, baina tradizio bat izatea arrazoi giltzarri bezain sinple batek ahalbideratzen du: aita-emeak izateak. Balendin bertsotan (bat-batean eta publiko aurrean) hasi zenerako (1928) bere aita Urretxindorra bertsolari egina zen. Beraz, Balendinek bere bertsolari hezkuntzan oso eredu hurbilekoa izango du: bere aita. Harekin dituen batasun afektiboak eta ideologikoak eragin hau erraztuko dute.

B. Badakigu Kepa Enbeita bat-batean aritzen zen bertsolaria zela. Sarritan bera bakarrik aritzen zen luzaro ekitaldi politiko eta kulturaletan. Hala ere, guregana heldu zaigun corpusa idatzizkoa da batez ere, baina hori bai, ahozko estiloaren oihartzuna bertso idatzietan askotan nabarmena da.

C. Kepa Enbeitaren bertsogintza aztertuta, konturatzen gara, idazkera ezagutzeaz gain, bere erregistroak idatzizko iturrietatik edan zituela.

c.1. Batetik bertso jarrien iturritik edan zuen, Gipuzkoa aldetik Bizkaia aldera joaten ziren bertso-jarriak bereziki (bere aita Juan Antoniok ere jenero hori jorratu zuen, ale bakanen bat besterik ailegatu ez zaigun arren). Haien eragina garai "herrikoian" nabaritzen da lexikoan, bertso-sorten egituran eta egileak hartzailearekiko duen jarreran.

c.2. Iparragirre eta, batez ere, Felipe Arrese Beitiaren berri bazuela ikusten da. Arrese Beitiari dagokionez, irakurketaren bidez izango zuen ezaguera hori (haren bertsoak gehien baten ahoz edota kantuz transmititzen ez zirelako). Zenbait bertso, tematika aldetik, arrazoiketaren kateaduraren aldetik edota motibo zein sinboloen aldetik, haren oihartzun argi eta garbiak izaten dira.

c.3. Sabino Aranaren ideologiari dagokionez, susmoa daukagu *Lecciones de ortografía del euskera bizkaíno* eta *Bizkaya por su independencia* liburuxkak ezagutuko zituela, eta ondorioz, bere ahozko zein idatzizko jardunek idazkeraren eragina izango luketela: erdi-ahozkotasunean murgilduta dago. Kepa Enbeitaren idazkerak, neurri handi baten, batzutan erabat, Sabino Aranak proposatu zuen ortografia sistema jarraitzen du. Horren jabe izateko, une jakin baten (edo batzuetan) arau horien berri idazkeraren bidez (testu idatziak irakurriz esan nahi dugu) jasoko zuela uste dugu. Bestalde, zenbait bertso-sortetan Aranaren irakaspen historikoak ezagutzen zituela aditzera ematen du, eta ezagutza hori, ematen zituen

zertzeladekin, beraiek irakurtzearen ondorioz izan zitekeen. Beste norbaitek irakurri ondoren azalduta ere izan zitekeen, baina kasu horretan ere erdi-ahozkotasunaren adibide baten aurrean geundeke.

c.4. Erljio kontzeptuak edota aipamenak ahozko transmisioaren bidez jaso izana, ostera, normala izango zen, batez ere Urretxindorraren kasuan ingurune kulturala kontutan hartuta eta bera elizkoia zela jakinik. Arestian aipatuaz gain, abertzaletasunaren hainbat topiko, arrazoiketa eta diskurtso ildoak ahozko transmisioaz jasoko zituela ere ez litzateke harrizkoa izango, bere lagun min asko abertzaleak baitziren eta euretarik kopuru garrantzitsu bat hizlariak eta mintzakideak mitinetan.

D. Balendin Enbeitaren iturri idatziak antzematen pixka bat zailagoa da, agian gutxiago izan zirelako. Hala ere, bistan da Felipe Arrese Beitiaren bertsogintza idatziak bere itzala utzi duela Balendinengan, zenbait bertsotan antzeman daitekeenez.

Hainbat eta hainbat ezaugarritan bere aitaren bertsogintzaren eragina sumatzen da. Eragin hori, noski, ahozko transmisioaren bidez ailegatuko zitzaion, baina ezin da baztertu bere aitaren bertsoak irakurtzeaz ere iritsi zitzaionik.

Balendinen bertsogintzan Urretxindorrarenean ikusten ez den bertsokera bat ikusten da. Gipuzkoako bertsolarien eragina agerikoa da: oinetan, oinen sareetan, lexikoan, gaietan eta abarretan. Bertsolari garaikideen eragina ere hortxe dago, era bitara izan zitekeena:

- bat-bateko jardunean haiengandik ikasitakoa;
- haien bertsoak han, hor, hemen irakurrita.

Batez ere bat-batean, bertsoak konposatzeko estrategiak islatzen dira bertsokera berri horretan, nahiz eta gehienak bertso idatziak izan. Beraz, guk aurkitu ahal dugun erdi-ahozkotasuna bertso idatzietan aurkitzen dugu batez ere.

E. Aitarengandik semearenganako transmisioa lan honetan zehar hainbat puntutan erakutsi ahal izan dugu. Transmisioa bermatu duen alderdia, edo alderdi nagusia nahiago bada, ahozkotasuna izan da, familian halakoxea baita transmisioa. Eta ahozko jenero berdina jorratzen dutenez, bat-bateko (eta idatzizko) bertsogintza hain zuzen, ikasleei ezinbestekoa zaie erregistroen almazena betetzea. Betetze lan horretan entzumenaz baliatzen dira neurri handi baten, eta hasieran erabat.

Zalantzarik ez dago (berak zenbait elkarrizketetan aitortua gainera), bere aitaren bertsozko jarduna entzungo zuela sarritan eta orduantxe betetzen joango zela bere ganbara. Jakina, Balendinek bere estilo berezia erabiliko zuen, ganbara horretatik egoki zetozkion aleak aukeratzean, eta hala frogatzen da azterketa honetan.

F. Hoskidetzaren arloan, bertsolari biek hoskidetza eredu kopuru antzerakoa erabiltzen dutela adierazi beharra dago.

Guk egindako inkestetan Kepak 39 eredu erabiltzen ditu eta Balendinek 40. Oso kopuru antzerakoa, inondik ere. Egile biek zenbait eredu (5 Kepak eta 9 Balendinek) maiztasunez erabiliko dute. Gainontzeko eredu gehienak oro har maiztasun horretatik urruti geratuko dira. Honek, gure ustez, hauxe esan nahi du: hoskidetzari dagokionez Enbeitatar hauek “zutabe emankor” batzuetan oinarritzen direla, sarritan erabiltzen dituzten hoskidetza eredu horietan, hain zuzen. Beste eruedetara zabalik daude, jakina, baina trebetasun ariketak egiten ariko balira bezala erabiltzen dituzte. Normalena ohizko eruedetara jotzea izango da, izan ere haiekin eroso sentitzen dira. Zutabe horietatik kanpo inkurtsio batzuk egitea zilegi da, baina ziurtasuna “zutabeetan” dago.

G. Balendinen hoskidetzan halako modernizazio bat antzematen da. 1. kapituluan erakutsi genuen jada bertsolari tradizionalengan bospasei eredu nagusi zeudela. Eredu haien artean –IAK eredu nagusitzen zen argi eta garbi. Bada Balendinen bertsogintzan –IAK ereduaren nagusitasuna ez da horren garbia, gainontzeko “eredu nagusiak” oso berdinduta daudelako eta gainera beraiek gehiago direlako (bertsogintza tradizionalen 5, Balendinekin 9). Horrezaz landa, nagusiak ez diren ereduak Balendinek sarriagotan erabiltzen ditu, bere aita Kepak baino. Azkenik, Balendinen hoskidetza eredu “berri” batzuk (bere aitarekiko “berriak”, esan nahi baita) Gipuzkoa aldeko bertsolaritza erabiltzen den lexikoak ahalbideratuak izan direla azpimarratu beharko litzateke, eta hau Urretxindorrenekin ez zela gertatu esan daiteke. Horrela, Balendinen hoskidetza ereduak aberastuko dira eta barietatea ugalduko da.

H. Azken puntuaren estilistikak ezaugarri nabarmenki komunak ditu bi egile hauen bertsogintzan. Arlo honetan ere halako tradizio edo transmisio bat antzematen da belaunaldi batetik bestera.

Hasteko, azpimarragarria da bertso bukaerako agindua-helburua dei genezakeen estrategia. Egile biongan modu antzerakoan ikusten den estrategia bat da eta honetan datza: Enbeitatarrek, beren zentzu eta asmo pedagogikoetan murgildurik, aholkuak, gomendioak edota iradokizunak (agintera itxurarekin) egingo dituzte baina beti ere aholku eta gomendio horien helburua azalduz. Honi agindua-helburua binomioa deitu diogu; izan ere, oso joera errotua da eta kasurik gehienetan hoskidetzari lotuta dago. Horrela, agintera itxura duten gomendio horiek adeitsuagoak bilakatuko dira: arrazoi edo helburua azaltzerakoan hartzailea errespetuz tratatua sentitzen da. Ez da inposatu nahi den eginkizun bat, baizik eta zentzuzkoa den jardunbide bat. Gainera, horretara gonbidatzen duena sinisturik dago hori onena dena, eta adimenezko arrazoietak azaltzeaz gain, bihotzeko arrazoietak ere agertuko ditu.

I. Ahapaldiari dagokionez, Enbeitatarren bertsogintzak ezaugarri nabarmen bat dauka hasiera-hasieratik aipatu beharrekoa: zortzikoa hartzen duela eredu eta neurri estrofiko nagusizat. Hau egiaren konstatazioa izateaz gain, eta bertsolari batzuegan espero litekeena izateaz gain, bada ezaugarri esanguratsua; izan ere, Bizkaia aldeko bertsogintzan zortzikoaren nagusitasuna ez zegoen horren garbi. Idazkeraren bidez jaso den bertsogintzan koplaren garrantzia adierazi dugu lan honetan. Horren haritik, zortzi lerroko bertsoetan koplak lorratza ikus zitekeen; izan ere, ohitura zen ahapaldi berean hoskidetza eredu bi erabiltzea: lehenengo eredu aurreneko bi puntuetan (kopla bat bailitzan) eta bigarrena hurrengo bi puntuetan (bigarren kopla bailitzan). Ohitura hau bat-bateko bertsogintzan dokumentatzen da XX. mendearen bigarren erdian ere. Enbeitatarrek, ordea, ahapaldiari dagokionez beti ere, zortzikoaren ereduari eusten diote XX. mendearen hasiera-hasieratik (nahiz eta kopla sekula ez zuten laga). Joera hau euren bertsolari izaeraren ezaugarri aipagarria dugu, XX. mendearen hastapenetan tradizio bat ezarri eta sendotu zuena (Muxika aldean bederen).

J. Zortzikoa ahapaldi eredu nagusia izanik, berorren egituraren eremuak asmatzen saiatu gara eta lau eredu posibleen inguruan sailkapen bat egin dugu. Lau eredu horiek esan bezala, ahapaldien egitura azaltzeko balio digute. Bertsoaren unitate esanguratsurik txikiena den puntua da, hain zuzen, egitura hori artikulatzen duena. Beraz, lau taldekatze edo agrupazio mota bereizten dira (puntuen arabera beti ere):

- 1-2-3 / 2
- 1-2 / 3 / 4;
- 1-2 / 3-4;
- 1-2-3-4.

Enbeitatar hauek lau ereduak erabiltzen dituzte berdin antzean, maiztasun antzekoarekin. Bertsoetan jorratutako gaiak ez du eragin nabarmenik eredu bat edo bestearen erabileran. Hala ere, esan behar da zenbat eta azken puntuaren estrategian oinarrituago egon orduan eta bat-bateko estiloari lotuagoa izaten dela. Azken puntuaren efektua bizirik egon ezean, halako hizkera jaso eta errimatuaren aurrean gaude, eta beraz, bertsolaritzatik urrundu den produkzio idatzi batetik gertuago.

K. Bi egile hauen bertsogintza aztertzean ezinbestekoa iruditu zaigu haien bertso-sortei erreparatzea, bestela gure azterketa herren geratuko zen. Izan ere, ezin dugu ahaztu gure corpusaren bertso gehien-gehienak bertso-sortetan daudela eta ez isolaturik edo solte. Bertso-sorta horien azterketari ekiterakoan beren egitura konpositiboari erreparatu diogu bereziki.

Lehenengo eta behin, esan behar da bertso-sorta hauek gehienak (bai Keparenak bai Balendinenak) aldizkarietan argitaratuak; izan zirela, eta honek gure ustez bere ondorioak izan ditu egituraren eta estrategia komunikatiboetan ere. Eduki narratibo eskasa duten sortak dira, behintzat bertso-paperekin

konparatzen baditugu izan ere bertso-paperak eurak protagonista dira plazetan saltzen direnean, eta eurak soilik kronika lokalerako baliagarriak izan daitezke. Enbeitatar hauen sortak, ostera, beste genero baten sartuta daude: aldizkarietan. Beraz eduki narratiboa prosaz idazten diren artikuluek berenganatzen dute errazago. Sorta hauetan arrazoiketa eta irudi pilaketak dira nagusi, halako egitura finkorik erakutsi gabe. Egile hauek gustukoa dute argumentuetan sakontzea, zenbait irudi eta errekurtsio jorratuz, herrikoitasunera jotzen dutelarik. Gaiei hainbat lekutatik heltzen diete sorta berean anplifikazioaren prozedurari eutsiz.

Dena dela, egile biongan halako egitura komun bat antzematen da argi eta garbi, orokorra eta sinplea izanagatik hemen azaltzea komeni dena. Hiru pauso nagusi antzematen dira sorta hauetan eta horixe da komunean dutela. Hauek dira hiru pausook:

- Sarrera: sortaren sarrera era desberdinetakoa izan daiteke baina bere eginkizun nagusia gaien kokatzea da, zehaztasun handirik gabe bada ere. Kokatze lan honetan euskaldunen jakintza komuna kontutan hartzen da askotan, halako konplizitate bat bilatu nahian bertsoaren hartzailearekiko. Sarrera honen luzera desberdina izaten da: bertso bakarrekia, bertso bikoa edo gehien jota hiru bertsoak. Zenbaitetan sarreraren funtzioak sortaren izenburuak ez bestek betetzen du, bertan gaia jorratzen hasteko funtsezko informazio bat eskaintzen da eta.
- Gorputza: narrazio, aipamen edo argudiaketari eskainitako gunea da. Gune honetan Enbeitatarrek beren mezuaren mamia isurtzen saiatzen dira. Arestian esan bezala, hauxe da gaiari anplifikazioaren bidez oratzeko eta hainbat ikuspuntutatik heltzeko gunea. Gorputza sortaren pauso edo zati nagusia izan arren, zaila izaten da bereizten halako egitura antolatu bat bere baitan. Zenbait sortetan gorputza zati bitan edo hirutan banatu daiteke, baina hauek salbuespenak dira eta orokorrean ez da antzematen inolako egituraren estrategiarik. Batzutan, eta hauxe da bi Enbeitatar hauek jorratu duten eredu berezi bat, sortaren gorputza fikziozko bi pertsonaien arteko elkarrizketa bat izan ohi da. Bi pertsonaia horiek animaliak edo zenbait pertsona asmatuak izaten dira. Bien arteko elkarrizketak eztabaida baten itxura hartzen du eta horrela arrazoiak, kontra-arrazoiak, errefusak agertzeko abagunea izaten dute bi Enbeitatar hauek, joko dialektiko bati esparrua eskainiz. Eztabaida hauek herrikoitasun eta ahozkotasunez blai izaten dira eta agian hauxe da sorta hauen ezaugarriarik aipagarriena.
- Itxiera: sorta gehienak irakurri edo entzun ahala berehala konturatzen gara sortaren itxierara ailegatu garela, itxierako bertsoaren (edo bertsoen) tonua horren salatari izaten baita. Enbeitatarrek estilo burutua gustuko dutela ematen du. Behintzat argi dago ez dutela gogoko mezuak burutu gabe uztea, halako iradokizun anbiguoari tartea emanaz. Gauzak horrela, itxiera zenbait motiboren bilgunea izan ohi da eta, era berean, zenbait sentimendu eta tentsioen katalizadorea ere bai. Berorren adierazgarri, azken bertsoan agertzen diren pozezko deidarrak edo laudorioak izaten dira. Sortaren gorputza fikziozko bi pertsonaiaren arteko elkarrizketa izaten denean,

itxierak ondorio baten eitea hartzen du. Ondorio hori ordura arte agertu ez den hirugarren pertsonaia batek adierazten du nolabaiteko epai bat azalduz, gaiarekiko inpartzialtasuna azalduz eta joera bateratzaile bat proposatuz: ez da makurtuko ez bata ez bestearen alde eta konponbide bat agertuko du.

L. Enbeitarrek sententzia pisutsu eta sonatuak azkenerako uzten dituzte, azken puntuaren estrategiaren barruan beti ere. Jakina, maiz erabiltzen duten arren, hau ez da Enbeitarren ezaugarri bereizgarria, ez dira gehiegi aldentzen garaiko bertsolarien erabileratik. Hala ere, hemen agertu behar da, beren pentsaerarekin bat datorren joera bat delako. Orokorrean zalantzarako betarik ez da eskaintzen, alderantziz, Enbeitarren eginkizuna zenbait jokamolde, sinesmen eta irizpide indartu eta bizkortzean datza: euskotarrak gogoberotu behar dira, eta muxikar hauen bertsogintzak horixe du misiotzat.

LL. Formulak, ahozkoetasunaren ikerlariak definitu zituzten bezala, egile biek erabiltzen dituzte, maizegi ez bada ere. Hau ahozkoetasunaren ondorioa da berez. Baina horrezaz gain, bada formula multzo bat biengan komuna dena. Multzo honekin frogatzen da ahozkoetasunaren beste psikodinamika bat: tradizionaltasuna. Nola uztartzen dira jenero ez tradizionala izatea eta bertsolari hauen bertsogintzak tradizio bat ezartzea? Tradizio hau ez dago oinarrituta testu itxi eta jakin batzuetan, ez dago oinarrituta bertsoetan (unitate komunikatibo nagusia eta oinarritzkoena). Tradizio hau, formuletan, epitetoetan, iruditegian, errekurtoetan, bertsoa osatzeko estrategietan eta ideietan oinarritzen da.

M. Zerrendaketak edo elementuen pilaketak izaten dira beste elementu bereizgarriak bi Enbeitar hauen bertsogintzan. Badakigu, jakin ere, errekurto hau ez dela Enbeitarrena soilik: beste bertsolariek ere erabiltzen zituzten eta dituzte. Baina nabaria da aipatu dugun erabilera berezia dela bi egile hauen bertsogintzan. Alde batetik, pilaketaren maiztasuna ohizkoa (beste egileen aldean) baino goragokoa da. Bestaldetik, pilaketan aipatzen diren elementuak barruti semantiko jakin batzuetakoak izaten dira, gehienetan izadiarenak. Gainera pilaketak "linealak" edota bikote antonimoetan izaten dira. Azkenik, azpimarratzekoa da pilaketa horien malgutasuna premia metrikoetarako egokitzeko, nolabaiteko formula izaera ere berenganatzen dutelarik.

N. Enbeitatarrak, garaikide ziren beste bertsolarirekin batera, joera neoplatoniko baten uhinetan mugitzen dira batzutan, izan ere, eta agian erromantizismo berankor baten eraginez, zenbait kontzeptuei errealitate eta existentzia aldarrikatu nahian edo, pertsonifikatu egiten dituzte beren bertsoetan. Horixe bera gertatzen da *Ama Eusker*a irudiarekin. Ez da eurek soilik pertsonifikatua, jakina, baina errekurto honen jarraipen biziak belaunaldi batetik bestera badu bereizgarritasunik. Baserria edota baserriko

elementuen pertsonifikazioa ere hari horretatik doa. Izadiko elementuak (mendiak, eguzkia, irlaren bat, txori mota desberdinak e.a.) pertsonifikaturik agertzeak bere iruditegian duten garrantzi afektiboa edota sinbolikoa adierazten digu.

Ñ. Enbeitatarren mezu kontzeptual oro zehaztasunez mozarroturik agertuko da, alegia, kontzeptu abstraktuak nekez agertuko dira. Kontzeptuen ordeztze haiek sinbolizatzen eta adierazten dituzten irudiak (baserritar munduko elementuekin konposatuak) agertuko dira bereziki. Joera hau ahozkoatasunaren psikodinamika batekin uztartuta dago: “zehatza nahiago abstraktua baino”. Entzulego edo bertsoen hartzailea kontutan hartuta sortutakoa da, batez ere haiekiko enpatia bat sortu nahian. Gainera honek onura bat dauka: informazio asko ez dago diskurtsoan esplizitatu beharrik, bertsolariak eta hartzaileak inguru kultural bera konpartitzen dutelako. Izan ere, bien unibertso ideologiko eta gizartearen ikuspegian zenbait balio tradizional, erlijioso eta estetikoak estimatzekoak dira eta bertsolariak badakite entzulego bat dagoela horiek ere estimatzen dituenak. Horretan datza, beraz, enpatia bilatze hori.

O. Aztertzen aritu garen bi Enbeitatar hauek bertsolaritza euskotarren gizarte-asmu eta nola jokatzeko kezkek biltzeko, batzeko tresnatzat erabiltzen dute. Euren bertsoegintzak, nahiz eta noizean behin lokalismo xelebreei lotuta egon, transzendentzia bat bilatzen du alor ideologikoan, egoera lokal jakin bat baino gorago dagoena. Euren hartzailea euskotarra da, euskalduna eta abertzalea izateko ahalmena izango lukeena. Ahozko jardunaren lorratza da hau, idatziz adierazita egon arren. Izan ere, ahoz jarduten denean hizlariak lortzen du entzulego osoa multzo baten biltzea: doinu eta hitz berberak aldi berean eta (normalean) leku berean entzuten dituzte entzuleek. Hizlariak bere mezuekin entzulego osoaren konplizitatea edota oniritzia lortzen badu, arrakasta gertu dauka. Enbeitatarrek susmatzen dute euskaldunek zer duten gogoko aldi bakoitzean, eta horretan intuizio ona dute. Orokorrean beren entzulegoaren balio komunei eusten saiatzen dira. Ez dira entzulegoaren alderdi batekin muturka jartzen (salbuespenak salbuespen). Sentipen eta balio orokor horiei eusten diete, halako batasun bat bultzatzeko. Jokaera hau bereziki batzailea da. Baina hala ere, ez dira horrekin konformatzen: batasunerako aldarrikapen esplizituak egiten dituzte. Honetan Balendin Enbeita da nabarmenagoa, hain zuzen ere bere garaian abertzale zein euskaltzaleen artean halako haustura bat eratzen hasi zelako, alor politikoan eta jokaera irizpideetan.

Esan izan da bertsolaritza hiritarraren aroa eurek zabaldu zutela. Bertsoegintza hiritarra baino, transzendentzia dela esango genuke, halako tokitasuna gaintzen duen bertsoegintza da (ez hiritarra soilik). Hartzailea halako begirunez tratatua dago, eta errieta egiten zaion kasuetan ere, bihotzari eta zentzunari men eginez eskaintzen dira arrazoiketak. Harengana ailegatzeko bidea arestian aipatu dugun konplizitatea da, ezagutza kultural komunean oinarritutakoa. Harengan arrazionalismo abertzalea piztu nahi da; izan ere,



abertzalea izatea bihotzetik ateratzen den joera izateaz gain, zentzunari, koherentziari eta gizalegetasunari men egitea da. Behintzat horretan saiatzen dira bi Enbeitatar hauek behin eta berriz.



## **Bibliografia**

AIRE, Fernando (“Xalbador”), *Odolaren mintzoa*, Sendoa, Tolosa, 1976.

- *Herria gogoan*, Sendoa, Tolosa, 1981.

AITZOL, *Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile, I eta II*, Donostia, Erein, 1987.

ARANBURU, Pedro Mari, “*Garriko*” (*bertso eskola–1959/ 1960*), Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Donostia, 2000.

ALONSO, Eduardo (eta beste), *El análisis estilístico*, Biblioteca filológica, Valencia, 1975.

ALONSO, Jon, *Agur Darwin eta beste arkeologia batzuk*, Pamiela, Iruñea, 2001.

AMURIZA, Xabier, *Hiztegi errimatua. Hitzaren kirol nazionala*, Txakartegi (editorea), Bilbao, 1997.

- *Bertsolaritzaren historia*, Orain, Donostia, 1996.

- *Bizkaiko bertsogintza I*, Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Bilbao, 1995.

- *Bizkaiko Bertsogintza II*, Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Bilbao, 1998.

- *Bizkaieraz bertsotan*, Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Bilbao, 1996.

- *Zu ere bertsolari*, Elkar, Donostia, 1987.

ARANA, Ander (eta beste), *Iparragirre*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1987.

ARANA-GOIRI, Sabino, *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin*, Sendoa, Donostia, 1980.

AREJITA, Adolfo (eta beste), *Mendebaldeko euskal baladak: antologia*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1995.

ARKOTXA, Aurelia, "Oihenarteren amodiozko poesien azterketa konparatiboa" in *Oihenarteren IV. mendeurrena, Iker-8*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1998.

ARRESE BEITIA, Felipe, *Olerki sorta bat*, Elkar, Donostia, 1987.

ASOCIACIÓN DE EDITORES DEL CATECISMO, *Catecismo de la Iglesia Católica*, Madrid, 1993.

AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka, *Bertsolarismo*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1990.

- *Erbesteko Euskal Literaturaren Antologia*, Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Donostia, 1992.

AXULAR, Pedro, *Gero* (Villasante, Luis editorea), JAKIN, Arantzazu, 1976 (1. edizioa 1643an).

AZAUSTRE, Antonio eta CASAS, Juan, *Manual de Retórica Española*, Ariel, Barcelona, 1997.

BARANDIARAN, José Miguel, *Obras Completas*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974.

BERAMENDI, Justo G. (eta beste), *Nationalism in Europe. Past and Present*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela, 1994.

BERTSOZALE ELKARTEA, "Gai politikoak bertsogintzan", in *Bertsolari*, 1997, 25. zkia., 70-72.

BERTSULARIEN LAGUNAK, *Bertsularien artea. Bertsularitza zer den jakiteko*, Euskal Kultur Erakundea, Baiona, 1998.

BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA, *Araba eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 1990*, Bertsolari Elkarte & Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1991.

BILBAO, Juan Bautista (“Batxi”), *Hau mundu arrano hau 1914-1916*, Susa, Iruñea, 1997.

BOUSOÑO, Carlos, *Teoría de la expresión poética*, Gredos, Madrid, 1985 (1. edizioa 1952).

BOWRA, Cecil Maurice, *La imaginación romántica*, Taurus, Madrid, 1972.

BUSTINZA, Ebaristo (“Kirikiño”), *Abarrak*, Aita Onaindia (editorea), Bilbao, 1966.

- *Edo geuk edo iñok ez euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1984.

CÁCERES, María Teresa, “Un recurso lingüístico en la décima popular de Canarias” in *La décima popular en la tradición hispánica. Actas del Sinpsoio Internacional sobre la Décima*, Universidad Palmas Gran Canaria & Cabildo Insular, Las Palmas de Gran Canaria, 1994, 187-199.

CARDABERAZ, Agustín, *Obras Completas de Agustín de Kardaberaz-Euskal lan guziak*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.

CASCÓN MARTÍN, Eugenio, *Español Coloquial*, Edinumen, Madrid, 1995.

COHEN, Jean, *Estructura del lenguaje poético*, Gredos, Madrid, 1977 (1. edizioa 1970an).

CRUISE O'BRIEN, Conor, *Ancestral voices. Religion and Nationalism in Ireland*, Chicago University Press, Chicago (originally in Dublin), 1994.

DE LA GRANJA, José Luis, *El nacionalismo vasco*, Arco, Madrid, 2000.

DE PABLO, Santiago; MEES, Ludger; RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio, *El péndulo patriótico*, Crítica, Barcelona, 1999.

DÍAZ-PIMIEN, Alexis, *Teoría de la Improvisación. Primeras páginas para el estudio del repentismo*, Sendoa, Oiartzun, 1998.

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA, *Ama Birjinaren otoitz liburua*, Idatz, Donostia, 1987.

ECHAIDE ITARTE, Ana María, *Erizkizundi Irukoitza-Triple cuestionario-Triple questionnaire: (Euskara, 1925)*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1984.

EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon, *Zozoak beleari*, Alberdania, Irun, 1997.

ELIZEN ARTEKO BIBLIA ELKARTEA, *Elizen Arteko Biblia*, Bibli Elkarte batuak & Euskal Herriko Elizbarrutiak, Madrid-Donostia, 1994.

ELORZA, Antonio, *La religión política*, Aranburu (edit.), Donostia, 1995.

- *Ideologías del nacionalismo vasco (1876-1937): de los “euskaros” a Jagi-jagi*, Haranburu (edit), Donostia, 1978.

- “El protonacionalismo de Larramendi”, in *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Euskaltzaindia, Donostia, 1992.

ENBEITA, Balendin, *Bizitzaren joanean*, Elkar, Donostia, 1986.

- *Nere apurra*, Auspoa, Tolosa, 1974.

ENBEITA, Jon, *Enbeitatarrak I*, Sendoa, Oiartzun, 1999.

- *Enbeitatarrak II*, Sendoa, Oiartzun, 2000.

- *Enbeitatarrak III*, Sendoa, Oiartzun, 2000.

- *Bertsoz* (6. alea) (Kaseterako zinta), Xoxoa Diskak, Bilbao, 1980.

ESNAL, Pello, “Puntua bertsolaritzan” in *Euskara*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1994, 1233 –1270.

ESTÉBANEZ CALDERÓN, Demetrio, *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madrid, 1999 (1. edizioa 1996).

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel, *Zeberioko Kantak*, Sendoa, Oiartzun, 1999.

ETXEBARRIA, Faustino, *Nor garan azaldu*, Sendoa, Tolosa, 1990.

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA, *Bapatean 98*, Donostia, 1999.

- *Bapatean 91*, Elkar, Donostia, 1992.

- *Bapatean 99*, Donostia, 2000.

- *Bapatean 00*, Donostia, 2001.

- *Bertsoen mundua* (CD), Elhuyar Kultur Elkartea, Donostia, 1997.

EUSKAL HERRIKO ELIZBARRUTIETAKO GOTZAIK, *Itun Berria*, Idatz, Donostia, 1993 (1. edizioa 1980an).

EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak*, Iruñea, 1985.

EUSKALTZALEAK, *Bertsolari-guduak. 1935-1936*, Donostia, 1936.

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA, *Euskararen Jarraipena II (Euskal Herria)*, Vitoria-Gasteiz, 1996.

FERNÁNDEZ, Pelayo Hipólito, *Estilística. Estilo, figuras estilísticas, tropos*, Jose Porrúa Turanzas, S.A., Madrid, 1984.

FINNEGAN, Ruth, *Oral Poetry*, Indiana University Press, Indiana, 1992 (1. edizioa 1977).

- *Oral Literature in Africa*, Nairobi Oxford University Press, Kenya, 1995 (1. edizioa 1970an).

- *Literacy and Orality. Studies in the Technology of Communication*, Basil Blackwell, New York, 1988.

GABANDAN, Paulette, *El Romanticismo en Francia*, Ediciones Universidad de Salamanca, Salamanca, 1979 (1. edizioa frantsezez 1977an).

GARATE, Gotzon, *Atsotitzak*, BBK, Bilbao, 1998.

GARCÍA ARANCE, María del Rosario, *Semántica de la Metonimia y de la Sinécdoque*, Universidad de Valladolid, Valladolid, 1979.

GARCÍA DE CORTÁZAR, Fernando (eta beste), *Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1994.

GARZIA GARMENDIA, Joxerra, *Jon Sarasua. Bertso ispiluan barrena*, Alberdania, Irun, 1998.

- *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak (marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 2000.

GARZIA GARMENDIA, Juan, *Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik*, Alberdania, Irun, 1997.

GOODY, Jack, *The interface between the written and the oral*, Cambridge University Press, Cambridge, 1993.

GRANJA PASCUAL, José Javier, “Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campi3n y Sabino Arana”, in *Fontes Linguae Vasconum*, 1984, 155-179.

GRANJA SAINZ, José Luis de la, *Nationalism in Europe*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela, 1994.

HANDENBERG, Friedrich (“Novalis”), *Himnos a la Noche*, Editora Nacional, Madrid, 1981 (1. edizioa 1975).

HAVELOCK, Eric A., *La musa aprende a escribir*, Paid3s, Barcelona, 1996.

HERNÁNDEZ GUERRERO, José A. eta GARCÍA TEJERA, M<sup>a</sup> del Carmen, *Historia breve de la Ret3rica*, Síntesis, Madrid, 1994.



HERRNSTEIN SMITH, Barbara, *Poetic Closure. A Study of How Poems End*, Chicago University Press, Chicago, 1968.

IGERABIDE, Juan Kruz, *Bularretik mintzora*, Erein, Donosita, 1993.

- "Ahozko tradizioa" in *Lur Entziklopedi Tematika. Euskal Hizkuntza eta Literatura*, 5. bolumena, Lur, Bilbao, 1998, 410-433.

- "Bertsolariak", in *Jakin*, 1987 (uztail-iraila, 44. zkia.), 7-214.

ITURBIDE, Amaia, *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*, Erein, Donostia, 2000.

JAKOBSON, Roman, *El Marco del lenguaje*, Fondo de Cultura Económica, Barcelona, 1991.

? *Lingüística, Poética, Tiempo, conversaciones con Krystina Pomorska*, Editorial Crítica, Barcelona, 1981.

? *Lingüística y Poética*, Cátedra, Madrid, 1988.

JÁUREGUI, Luis ("Jaurtarkol"), *Xenpelar bertsolaria*, Itxaropena, Zarautz, 1988.

KALTZAKORTA, Xabier, "Atsotitzak" in *Euskera*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1996.

KORTAZAR URIARTE, Jon, *Euskal literaturaren historia txikia*, Erein, Donostia, 2000 (1. edizioa 1997an).

- *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*, Labayru Ikastegia & Zornotzako Udala, Zornotza, 1995.

KUNZ, Marco, *El final de la novela*, Gredos, Madrid, 1997.

LABAYEN, Antonio María, *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak*, Auñamendi, Donostia, 1978.

LARRAMENDI, Manuel, *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada*, Hordago, Donostia, 1979.

LARRONDE, Jean-Claude, *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia, 1977.

LASAGABASTER, Jesús María, *La novela de Ignacio Aldecoa*, Sociedad General Española de Librería, Madrid, 1978.

LAUSBERG, Heinrich, *Elementos de Retórica Literaria*, Gredos, Madrid, 1975.

- *Manual de Retórica Literaria*, Gredos, Madrid, 1976 (1. edizioa 1966an).

LÁZARO CARRETER, Fernando, *Diccionario de términos filológicos*, Gredos, Madrid, 1990 (1. edizioa 1953an).

LEKUONA, Juan Mari, *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982.

? “Erdi ahozkotasunaren estiloaz” in *Euskera*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1988, 17-44.

LEKUONA, Manuel, *Idaz-lan guztiak*, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978.

LÓPEZ EIRE, Antonio, *Retórica clásica y teoría literaria moderna*, Arco, Madrid, 1997.

? “Introducción a la Odisea” in *Odisea*, Espasa-Calpe, Madrid, 1995.

LÓPEZ-CASANOVA, Arcadio, *El texto poético. Teoría y metodología*, Biblioteca Filológica. Ediciones Colegio de España, Salamanca, 1994.

LORD, Albert Bates, *Oral traditional literature*, Miles Foley, John (Editorea), U.S.A., 1981.

? *The singer of tales*, Harvard University Press, Cambridge [Mass], 1960.

LUJÁN ATIENZA, Ángel Luis, *Cómo se comenta un poema*, Síntesis, Madrid, 1999.

LURIA, Alexander Romanovich, *Cognitive Deveopment: its Cultural and Social Foundations*, Harvard University Press, Cabridge [Mass], 1976.

MAC CANA, Proinsias, *Literature in Irish*, Government of Ireland, Dublin, 1980.

MAKAZAGA MENDIBURU, Juan José (editorea), *Bertsolariya*, Wilsen, Bilbao, 1987 (faksimilean: 1. eta jatorrizko edizioa 1932an).

MARCOS ÁLVAREZ, Fernando, *Diccionario práctico de recursos expresivos (figuras y tropos)*, Universidad de Extremadura, 1989.

MAR-MOLINERO, Clare eta SMITH, Angel (editoreak), *Nationalism and the nation in the Iberian peninsula*, Berg, Oxford, 1996.

MARTÍN, José Luis, *Crítica Estilística*, Gredos, Madrid, 1973.

MICHELENA, Luis & SARASOLA, Ibon, *Textos arcaicos vascos / Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV-EHU, Donostia, 1990.

MOGUEL, Juan Antonio, *Peru Abarka*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1990.

MUNIATEGI, Abel, "Bertsolaritza Bizkaian", in *Jakin*, Donostia, 1980, 14-15 zkiak., 17-29.

- *Bertsogintza Bizkaian (Koplatik bertsora)*, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Bilbao, 1995.

NÚÑEZ RAMOS, Rafael, *La Poesía*, Síntesis, Madrid, 1992.

OLSON, David R. eta TORRANCE, Nancy, *Literacy and orality*, Cambridge University Press, Cambridge [Mass], 1991.

ONAINDIA, Santi, *Gure Urretxindorra: Enbeita'tar Kepa'ren bertso-lanak osorik*, Ekin, Buenos Aires, 1971.

ONG, Walter James, *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*, Fondo de Cultura Económica, México, 1987.

PARRY, Milman, *The making of Homeric Verse: the collected papers of Milman Parry*, Oxford University Press, New York, 1987.

PENADES BILBAO, Josu, *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena*, Desutuko Unibertsitatea, Deustu, 1996.

PUJANA, Basilio, *Oiuak*, Sendoa, Donostia, 1997.

- *Egi batzuek aixetarutzen*, Sendoa, Tolosa, 1986.

RAIMONDO CARMONA, Giorgo, *Diccionario de lingüística*, Ariel Lingüística, Barcelona, 1991.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, *Diccionario de la Lengua Española*, Espasa Calpe, Madrid, 1996 (1. edizioa 1992an).

REYZÁBAL, María Victoria, *Términos literarios*, Acento, Madrid, 1998.

RUSSO, Joseph A, "Is <<Oral>> or <<Aural>> Composition the Cause of Homer's Formulaic Style?" in *Oral Literatures and the Formula*, STOLZ, Benjamin A., SHANNON, Richard S., University of Michigan Publications Office, Michigan, 1976.

SCHENK, Hans Georg, *El espíritu de los románticos europeos. Ensayo sobre historia de la cultura*, Fondo de Cultura Económica, México, 1983.

SOBEJANO, Gonzalo, *El epíteto en la lírica española*, Madrid, Gredos, 1957.

SORAUREN, Mikel, *Historia de Navarra. ¿El Estado Vasco?*, Pamiela, Iruñea, 1999.

SPANG, Kurt, *Fundamentos de retórica*, Eunsa, Pamplona-Iruña, 1979.

SPITZER, Leo, *Lingüística e historia literaria*, Gredos, Madrid, 1968.

TACCA, Oscar Ernesto, *La historia literaria*, Madrid, Gredos, 1968.

TEJERINA MONTAÑA, Benjamín, *Nacionalismo y lengua*, Siglo XXI de España editores, Madrid, 1992.

TURNER, Víctor, *La selva de los símbolos*, Siglo XXI de España Editores, Madrid, 1990.

UNZUETA, Sorne (“Utarsus”), *Sorne Unzueta <<Utarsus>>. Idazlan guztiak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1997.

URIARTE, José Antonio (editoreak: Jon Kortazar eta Miren Billelabeitia) *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaíno*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1987.

URKIZA, Julen, *Euskal bertso eta olerkien bibliografía: aldizkari eta egunkarietako bertsoak*, Markina-Xemeingo Udala, Markina, 1999.

URKIZA, Julen eta BARAIAZARRA, Luis, “Imanol Enbeita (1884-1946), “Urretxindorra”ren anaia”, in *Karmel*, Markina, 1997 – 4, 3-49.

URRUTIA ZORROZUA, Itziar, *Felipe Arrese ta Beitia*, Bizkaiko Foru Aldundia, Otxandioko udala, Bilbao, 1999 (I eta II).

URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, José, “*En una mesa y compañía*”. *Caserío y familia campesina en la crisis de la “Sociedad Tradicional”*. Irún, 1766-1845, Universidad de Deusto, San Sebastián, 1992.

URTZ ROCK TALDEA, *Oh Lur!*, Gor Disketxea, Iruña, 1994.

VICENT, Carlos, *Diccionario de términos literarios*, Escuela Española, Madrid, 1994.

YEATS, William Butler, *Teatro completo y obras completas*, Aguilar, Madrid, 1962.

ZAVALA, Antonio, *Txirrita (lan osoa)*, Sendoa, Tolosa, 1992.

- *Txirrita*, Sendoa, Tolosa, 1962.
- *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, Sendoa, Oiartzun, 1997.
- *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*, Sendoa, Tolosa, 1992.
- *Bosquejo de Historia del Bertsolarismo*, Auñamendi, San Sebastián–Donostia, 1964.
- *Udarregi bertsolaria*, Sendoa, Tolosa, 1966.
- *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I eta II)*, Sendoa, Oiartzun, 1993.
- *Bertsolari txapelketa nagusia (Donostia, 1980-I-6)*, Sendoa, Tolosa, 1980.
- “Bertso paperak” in *Jakin*, 1985 (14/ 15 zkiak.), 115-132.

ZELAIETA, Angel, “Arrese-Beitiaren <<Bizi da Ama Euskera>> hogeit bertsoen analisisa”, in *XIX. mendeko olerki-bertsogintza*, Labayru Ikastegia, 1990, 107-125.

ZUBIRI, Ilari eta ZUBIRI, Entzi, *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbao, 2000 (1. edizioa 1995ean).

ZULAIKA, Joseba, *Bertsolariaren jokoa eta jolasa*, Baroja, San Sebastián, 1985.

ZUMTHOR, Paul, *La letra y la voz de la “literatura” medieval*, Cátedra, Madrid, 1989.

- *Introducción a la poesía oral*, Taurus, Madrid, 1991.